



2010  
55, 1

# EUSKERA

2010  
55, 1

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak

Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca

Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque

Work and Proceedings of the Royal Academy of the Basque Language

EUSKERA



16,75 €



Euskeria 2010, 55, 1, 1 - 564, Bilbo. ISSN 0210-1564

# E U S K E R A



2010  
55, 1  
BILBO  
ISSN 0210-1564



# EUSKALTZAINDIA

## EUSKERA AGERKARIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Teléfono: 94 415 81 55 • Faxa: 94 415 81 44

e.posta: [info@euskaltzaindia.net](mailto:info@euskaltzaindia.net) • web gunea: [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)

Aldizkari hau beste agerkariekin trukatzen da

Esta revista admite el intercambio con otras publicaciones

Cette revue s'échange avec d'autres publications

This journal can be exchanged for others by agreement

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistraturaz edo beste bitarteko berau transmititztea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzalearen edo copyrightaren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN 0210-1564

Lege Gordailua: BI-1244.58

Diseinua: [www.ikeder.es](http://www.ikeder.es)

*Preimpresioa:* Composiciones Rali, S.A.

Particular de Costa, 8-10. 48010 Bilbo

*Inprimategia:* Baster, Talleres Gráficos, S.L.L.

Pol. Atxukarro, 2, 48480 Arrigorriaga (Bizkaia)

**Euskera** Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da, 1920. urtetik argitaratzen dena. Urtean hiru zenbaki argitaratzen ditu, lehena eta hirugarrena, Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa biltzen dituztenak (sarrera-hitzaldiak, hizkuntza-arauak, jardunaldiak...), eta bigarrena, Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzezoak jasotzen dituena.

Euskerako artikuluak banan-banan katalogatzen eta indexatzen dira *Azkue Bibliotekaren katalogoan* (<http://www.euskaltzaindia.net/azkue>) eta erakundearen web guneko bilatzaile berezi batean (<http://www.euskaltzaindia.net/euskera>), aldi berean formatu digitalean eskainiz. Orobear, *Inguma* (<http://www.inguma.org>), *Dialnet* (<http://dialnet.unirioja.es/>), ISOC (<http://bddoc.csic:8080/isoc.html>) datu-baseetan eta *Latindex* katalogoan (<http://www.latindex.unam.mx/>) jasotzen dira.

La revista **Euskera** es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia y se publica desde 1920. Publica tres números al año, de los cuales el primero y el tercero recogen los trabajos y actos académicos de Euskaltzaindia (discursos de ingreso, normas lingüísticas, coloquios...), mientras que el segundo se dedica a publicar artículos de investigación originales en los varios ámbitos de trabajo de la Academia, reseñas de libros y similares.

Los artículos de **Euskera** son catalogados e indexados en el catálogo de *Azkue Biblioteca*, la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca (<http://www.euskaltzaindia.net/azkue>) así como en un buscador específico disponible en su página web : (<http://www.euskaltzaindia.net/euskera>) donde además se ofrecen en formato digital. Asimismo se recogen en las bases de datos *Inguma* (<http://www.inguma.org>), *Dialnet* (<http://dialnet.unirioja.es/>), ISOC (<http://bddoc.csic:8080/isoc.html>) y en el catálogo *Latindex* (<http://www.latindex.unam.mx/>).

La revue **Euskera** est la publication officielle de l'Académie de la langue basque / Euskaltzaindia, elle paraît depuis 1920. Trois numéros sont publiés par an, dont le premier et le troisième rassemblent les travaux et activités académiques d'Euskaltzaindia (discours d'indroduction, normes linguistiques, colloques, etc.), tandis que dans le deuxième sont publiés des articles originaux de recherche portant sur l'un des différents domaines de travail de l'Académie, comptes rendus de livres et autres publications.

Chaque article d'**Euskera** est répertorié et indexé dans le catalogue de la *Bibliothèque Azkue*, la bibliothèque de l'Académie de la langue basque (<http://www.euskaltzaindia.net/azkue>) ainsi que dans un moteur de recherche spécifique disponible sur son site Web : (<http://www.euskaltzaindia.net/euskera>), où ils sont également proposés au format numérique. Par ailleurs, ils sont enregistrés dans les bases de données *Inguma* (<http://www.inguma.org>), *Dialnet* (<http://dialnet.unirioja.es/>), ISOC (<http://bddoc.csic:8080/isoc.html>) et dans le catalogue *Latindex* (<http://www.latindex.unam.mx/>).

**Euskera** is the official journal of the Royal Academy of the Basque Language/Euskaltzaindia and has been published since 1920. Issues are published three times a year: the first and third contain the work and academic activity of Euskaltzaindia (induction speeches, language rules, symposia...), while the second is dedicated to publishing original research articles in the various areas of the Academy's work, book reviews and the like.

**Euskera** articles are catalogued and indexed in the Royal Academy of the Basque Language's *Azkue Library*, (<http://www.euskaltzaindia.net/azkue>) as well as on a specific search engine available on its website (<http://www.euskaltzaindia.net/euskera>), where they are also provided in digital format. They are also held on the *Inguma* (<http://www.inguma.org>), *Dialnet* (<http://dialnet.unirioja.es>), ISOC (<http://bddoc.csic:8080/isoc.html>) data-bases and on the catalogue *Latindex* (<http://www.latindex.unam.mx>).

# EUSKALTZAINDIA

## EUSKERA AGERKARIA



### IDAZKETA KONTSEILUA

Zuzendaria: ANDRES URRUTIA BADIOLA. Euskaltzaindia. Bilbo

Idazkari akademikoa: ANA TOLEDO. Euskaltzaindia. Donostia

Idazkari teknikoa: RICARDO BADIOLA. Euskaltzaindia. Bilbo

ADOLFO AREJITA.

Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

ANDONI SAGARNA.

Euskaltzaindia. Donostia

JEAN-BAPTISTE COYOS.

Iker (C.N.R.S., Bordele 3, UPPA). Baiona

PATXI SALABERRI.

Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruña

JOSEBA ANDONI LAKARRA.

Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

MIKEL ZALBIDE.

Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza Saila. Gasteiz

### AHOLKU BATZGORDEA

MIREN AZKARATE

Euskaltzaindia. Donostia

IÑAKI IRAZABALBEITIA

Elhuyar Fundazioa. Usurbil

JOXE AZURMENDI

Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia

JAZINTO ITURBE

Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa

XARLES BIDEAGAIN

Paueko eta Aturri herrialdeetako Unibertsitatea. Baiona

JABIER KALTZAKORTA

Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

JOSU K. BIJUESCA

Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

ALBERTO LOIZATE

Basurtuko Ospitalea. Bilbo

GIDOR BILBAO

Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

JUAN MADARIAGA

Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruña

INAKI CAMINO

Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

JOAN MARTÍ

Institut d'Estudis Catalans, Secció Filològica. Bartolomé

ANA ETXAIDE

Nafarroako Unibertsitatea. Iruña

ENEKO OREGI

Eusko Jaurlaritza. IZOko burua. Gasteiz

JOSE RAMON ETXEBARRIA

Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo

JON ORTIZ DE URIBA

Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

MAITE ETXENIKE

Universitat de València. Valentzia

ROSA MIREN PAGOLA

Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

PATXI GOENAGA

Euskaltzaindia. Gasteiz

JOSE ANTONIO PASCUAL

Real Academia Española. Madrid

RICARDO GOMEZ

Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

TXOMIN PEILLEN

Euskaltzaindia. Baiona

MANUEL GONZALEZ

Real Academia Galega. Coruña

IBON SARASOLA

Euskaltzaindia. Donostia

JEAN HARITXELHAR

Bordeleko Michel de Montaigne Unibertsitatea. Baiona

JOAN MARI TORREALDAI

Euskaltzaindia. Donostia

ITZIAR IDIAZABAL

Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz

MIRIAM URKIA

UZEI. Donostia

JOSEBA INTXAUSTI

Euskaltzaindia. Donostia

JUAN JOSE ZUBIRI

Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruña

Batzorde teknikoa: JON ARTZA eta PRUDEN GARTZIA (Euskaltzaindia. Bilbo).

Aholkulariak: JOSEBA ZABAleta eta ERRAMUN OSA (Euskaltzaindia. Bilbo).

# E U S K E R A

## AURKIBIDEA

### EKITALDIAK:

- Miren Lourdes Oñederra Olaizola  
Euskaltzaindia sartzea

[15-18]	<i>Ongietorria</i> ELORZA GONZÁLEZ, Odon
[19-20]	<i>Agurra</i> URRUTIA BADIOLA, Andres
[21-44]	<i>Drift</i> OÑEDERRA OLAIZOLA, Miren Lourdes
[45-54]	<i>Ur lasterraren dama</i> AZKARATE VILLAR, Miren
	• Patxi Uribarren Leturiaga Euskaltzaindia sartzea
[57-58]	<i>Ondoetorria</i> AGIRRE, Asier
[59-60]	<i>Agurra</i> URRUTIA BADIOLA, Andres

- [61-88] *Izan zirelako gara, eta garelako izango dira*  
URIBARREN LETURIAGA, Patxi
- [89-116] *Ganbarruetatik Araba euskaldunera*  
LIZUNDIA ASKONDO, Jose Luis

### JARDUNALDIAK:

- Euskarazko terminologia juridiko-administratiboa  
*Jardunaldia*
- Ikerketak / Txostenak

- [123-176] *Nafarroako lege-testuak: lexiko juridiko elebidunaren hustuketa*  
URRUTIA, Andres eta URRUTIA, Esther
- [177-196] *Itzulpen Atala: Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta bertze plaza batzuetan*  
TABERNA IRAZOKI, Mikel
- [197-208] *Nafarroako Parlamentuko itzultzale-interpreteak: zer-nolako harremana dugu terminologiarekin?*  
IRIZAR APAOLAZA, Ander
- [209-232] *Euskarazko terminologia-lanaren plangintza*  
DIAZ DE LEZANA, Araceli
- [233-256] *Terminologia juridiko-administratiboa, Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzuan: arazo nagusiak*  
ERREA, Inma

### AGIRIAK:

- [259-310] Euskaltzaindia. Batzar Agiriak

- Euskaltzaindiaren Arauak

[313-314] *Hiztegia Batuaz Ziurtagiria*  
SAGARNA, Andoni

- Onomastika

- Irizpideak / Diktamenak:

[319-340] A) Hauek Onomastika batzordeak paratuak:  
*Kinta/Quintana, Arriñiz, Oleta, Azilu, Anuntzeta, Moreda  
Araba, Urroz, Oiz*

[343-442] B) Hauek Patxi Salaberri Zaratiegi Onomastika  
batzorkideak paratuak:  
*Allin, Azpurgi, Ziriza, Galipentzu, Nabaskoze, Untzue,  
Olabe, Lizoainbar-Arriagorri, Makirriain, Aitzordain,  
Añezkar, Artika, Elkarte, Larrageta, Lotza, Oteitz,  
Ballariain, Berriobeiti, Elo Errromantzatu eta Abarzuza*

[445-446] *Ibai izenen erabilera zuzenaz: Bidasoa*  
IÑIGO, Andres

[447-486] *Informe sobre las denominaciones Sierra de Toloño y Sierra de  
Cantabria*  
GONZÁLEZ DE VIÑASPRE, Roberto

### HITZARMENAK:

[489-498] *Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko  
Euskarabidearen eta Euskaltzaindiaren arteko Lankidetza  
Hitzarmena lutzatzea 2010 urterako*

[499-504] *Lankidetza Hitzarmena DEIA Egunkariarekin*

[505-508] *Zierbenako Udala*

## **BERRIAK:**

[513-516] Euskaltzain omenduak, 2010

## **AURKEZPENAK:**

- *Euskararen herri hizkeren ATLASA: I. eta II. liburukien aurkezpena*

[521-526] *Agurra eta EHHA egitasmoaren nondik norakoak*  
URRUTIA BADIOLA, Andres

[527-532] *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa (EHHA): I. eta II. liburukien aurkezpena*  
AREJITA OÑARTE-ETXEBARRIA, Adolfo

[533-536] *EHHAren lehen liburukia*  
OIHARTZABAL BIDEGORRI, Beñat

[537-538] *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoa*  
GARCIA, Txomin

- *Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa-Euskaltzaindia: «Literatura ataria» aurkezpena*

[541-542] BBK-Euskaltzaindia: Literatura Ataria

\* \* \*

- [545-548] *Euskera* agerkariaren idazketa arauak
- [549-552] Normas de redacción de la revista *Euskera*
- [553-558] Normes de rédaction de la revue *Euskera*
- [557-560] Writing guidelines for the journal *Euskera*



# Ekitaldiak



**Miren Lourdes Oñederra Olaizola  
Euskaltzaindian sartzea**

Donostiako Udaletxea, 2010-III-26



# Ongietorria

ELORZA GONZÁLEZ, Odon  
Donostiako alkatea

Herritar, euskaltzain eta agintariok: Arratsaldeon eta ongi etorri Donostiako zuen etxera. Mila esker alkatetza eta korporazio osoaren izenean.

Idazle batekin egin nuen topo alkate ibilera horietako batean. Berak ezagutu ninduen, ez neraman txapelik.

– Usted es el alcalde de San Sebastián.

Pozik zegoen gizona. Gure hiriarekin zuen lotura bere literatura lana zen. Bere bi obra itzuli berriak zizkiontzen euskarara.

– Me han hecho inmortal alcalde –esaten zidan. Hainbeste mendetan, hainbeste urtetan, –bere aztarnak galtzerainoko antzinakotasun mitikoetan–, iraun duen hizkuntza inoiz ez zela hilko pentsatzen zuen. Bere obrak hilezkortasuna lortua omen zuen euskaratzean.

Irriak irri, kunplituak kunplitu, zer pentsatua ematen zuen idazle haren pozak. Ez zitzaidan ohizko «*qué ciudad más bonita la suya, alcalde*» edo «*menudo lio, qué mérito tienen ustedes allí*» bi egiai esanaz inguratu.

Euskalarik gabe idazle hark ez zuen Donostia hura ezagutuko. Eta pentsatzen hasi eta horixe pentsatu nuen, Donostia ez litzatekeela Donostia izango euskalarik gabe. Euskarak ere hiri bakar bihurtzen gintuela. Nola irudikatu gure jaiak, gure ohiturak, gure kantak, gure lekuak, gure hitzak, gure herritarrak, donostiarak, euskalarik gabe? Hiri liberala, libertade zalea, Barojatarak, Artolatarrak, Bilintx, Bitoriano Iraola, Soroa, Arzak, Toribio Alzaga, Manterola...

Eta alderantziz? Alderantziz egiten badugu galdera? Euskara irudika daiteke iraganean, orainean eta geroan, Donostiarik gabe? Harro erantzun dezakegu donostiarrok, ez. Ez. Donostiarik gabe eta donostiarrik gabe puska handiak faltako litzazkieke euskararen munduei. Idazleak, kulturgileak, hedatzaileak, elkartek, enpresak, egoitzak, proiektuak, dena... Kaxkarin eta txolin ospea ezarri digu zenbaitek, euskararen hiritartasuna ulertu edo ikusi nahi ez duten zenbaitzuek esango nuke, baina gure herritarrok, donostiarrok beti egon dira euskararen muinetan, eginkizunik ezinbestekoetan. Gaurkoa adibide, hogoitabederatzit eserleku ditu Euskararen Akademiak eta bost izango dira beraietan eseritzen diren donostiarrok Lourdes Oñederra andrea eseritzen denean. Edo, pasadizoz, eseriko diren emakumezkoetatik bi donostiarrok izango dira. Hiri harrokeria haizatzeko motibo aski edozein bazterretan.

Baina aprobetxa dezadan parada harrokeria horietan, iraganetan edo bandera kolpe hutsetan itota ez dugula hil behar esateko. Donostia etorkizuneko apustuak egiten ari da, eta horietako bat 2016an Europako Kultura Hiriburu izatearena da. Ez da hau, askori hala irudituko bazaio ere, propaganda politikoa. Hiri eginkizun bat da, eginkizun garrantzitsu bat. Non, balio handiagoa izan dezake bide horretan egin dezakegun lanak hiriburutzat lortzeak berak baino.

Eta hor, euskarak pisu handia du eta hala eman nahi izan diogu. «*Hitzengoa*» da proiektu horren ardatz nagusietako bat. Hitzei, hitzari, hizkerei, hizkera guztiei, eman nahi zaie garrantzia. Elkarritzetari, Baionatik Bilborainoko herritarrok batzen gaituen faktoreetako bat. Sortzaileak izatea dagokigu. Europari hizkuntza aniztasunaren balioa irakastea. *Hitzengoa* elkarbizi-tzan murgiltzea. Europa osoko hizkuntza txikien erreferente bilakatzea, Europa txikien elkarlaneko Europa nagusian sinestea. Eginkizun hori Donostiarri, donostiarrei eta euskarari ezarri nahi diogu. Harakoak zioen bezala ez hizkuntza zaharrenari, hizkuntza gazteenari baizik, gogotsuenari. Donostiarrok bota diogu herronka.

Herronka erakargarria da euskaltzain jaun-andreok, agintari eta herritar jaun-andreok, Lourdes Oñederra andrea, bereziki. Desafio ederra. Zibikot-sunez eta herritartasunez gainezka egindako apustua da. Euskara lehen lerroan, euskara tresna nagusi, euskal hiztunok protagonista. Donostiako

herritar merezimenduen domina jaso zenuenean bezala, Lourdes adiskidea. Euskaltzain izendatu zindutelako, hain zuen. Orduan bezalaxe. Gaur Udaletxe honetan babesten gaituzten hormei ez zaie oraindik zure hitzek eragindako dardara joan. Zure demokrazia aldarriak, herritarren libertadearen oihuak, zure elkarrizketa gogoak euskara nagusi bilakarazi zuten, hizkuntza nagusi, zeresan nagusi. Ez dira etxe honetan hitz haiiek oihartzunak inoiz itzaliko.

Horixe gogoraraztea zegokidan, horixe eta donostiarren harroa, zure eserlekuagatik. Aipatu hitz haien muina bezain oparoa izan dadila zure euskaltzain lana. Merezimendu akademikoak dagokionak aipatuko ditu.

Zorionak emakume, zorionak Lourdes.

Zure da hitza Euskaltzainburu jauna.



# Agurra

URRUTIA BADIOLA, Andres  
Euskaltzainburua

Donostiako alkatea,  
Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburua eta sailburuordea,  
Donostiako Udalaren bozeramaleak,  
jaun-andreak,

Arratsalde on:

Aldiak aldi, aldiakada berria bizi du azken urteetan Euskaltzaindiak. Ez da lehena bere historian zehar, eta ez dut uste azkena ere izango denik.

Urte-andana igaro da, azkenekoz Euskaltzaindia donostiarren etxearen bildu zenetik; zehatz esateko, badira hogeita bat urte, ia mende laurden, lehendabizikoz hona hurreratu zenetik. Egia esan, urte horietan, aldaketak izan ditu Euskararen Akademiak, eta aldaketak izan dituzte, orobat, Donostiako Udalak eta gizartea berak ere bai.

Aldaketak gorabehera, hogeita bat urte geroago, betiko adore eta kemenarekin dator Euskaltzaindia, kide berriaren sarrera-hitzaldia entzutera.

Lourdes Oñederra donostiarra da, eta Donostiara dator euskaltzain oso tasuna hartzera. Hala hartuko du Euskaltzaindiak, bere herritarren artean, abegiz eta amultsuki.

Ohikoa izaten da halakoetan euskaltzain oso berriaren merituak aipatzea. Hartara, irakaskuntzan, ikerketan eta literatura-sorkuntzan nahiz

itzulpenean, haren izena sona handiko gertatzen da, euskalgintzaren nahiz euskalaritzaren alorretan.

Badu argitasunik, badu jarraitutasunik; badu, hitz gutxitan esateko, Euskaltzaindiari ekarpenak egiteko molde eta trebeziarik.

Horrela hartzetan dugu gure artean. Halaxe ospatuko dugu, poztasun osoarekin, haren sarrera-hitzaldia.

Poztasun horrekin batera, hitz batzuk esan nahiko nituzke orain gaztelaniaz, ohiko izan ez arren.

\* \* \*

Palabras que dirijo al Alcalde y a toda la corporación municipal de San Sebastián/Donostia, para agradecerles su acogida, y reivindicar el papel de Euskaltzaindia como institución incardinada en Donostia, en Gipuzkoa y en Euskal Herria, institución que quiere ofrecer, hoy, un nuevo esfuerzo para impulsar un centro de investigación y difusión del euskera en Donostia, que espero sea pronto una realidad gracias a la acogida del Ayuntamiento de Donostia y a la iniciativa de este Ayuntamiento y de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

\* \* \*

Eskerrik asko zuoi guztioi, gaur laguntzen diguzuelako; Eusko Jaurlaritzari, Arabako, Bizkaiko nahiz Gipuzkoako foru-aldundieei, Nafarroako Gobernuari, Euskararen Erakunde Publikoari, Espainiako Gobernuari, eta, halaber, hainbat udal eta herriarri, egunero ematen dizkiguzuelako aurrera egiteko arnasa eta baliabideak.

Horiek, ziur egon, gizarteari itzultzen dizkiogu, zuoi, hain zuzen ere. Lan horretan partaide eta lankide izateko, oraintxe deituko dugu, deitu ere, Lourdes Oñederra, gure artera etorri eta bere sarrera-hitzaldia egin dezan.

Mila esker

# Drift

OÑEDERRA OLAIZOLA, Miren Lourdes

Alkate Jauna,  
Euskaltzainburu Jauna,  
Agintariok,  
Euskaltzainok,  
Adiskide, senide eta lagunok,  
Jaun-andreok,  
Arratsaldeon / Buenas Tardes / Guten Abend / Boa Tarde

Juanjo Zearretarekin hasi nintzen ni ekitaldi hau prestatzen, ziur naiz gaur bera pozik eta urduri egongo zela, ni bezala. Pozik egongo zen Henrike Knörr ere, ni euskaltzain izateko proposatu ninduten hiru kideetako bat, dudarik gabe ni gehien eta aspaldiagotik bultzatu ninduena. Biei, Henrike-ri eta Juanjori eskaintzen dizkiet nire urduritasunaren bizitasuna, nire poza eta, ziur naiz, hemen zaudeten askoren oroitzapena.

Halaber aipatu nahi ditut *ukitu* esaten zuen ama, *ikutu* esaten zuen aita. Agian beren desadostasun haietan zegoen ni hona ekarri nauenaren hazia...

## Drift\*

Hizkuntza airez eta memoriaz dago egina, hizketa airezkoa da, aire mugimendua, airea mugitzea, ura mugitzen den bezala: uhinetan (*olatuetan*, guk hemen Donostiako hondartzetan, Donostiako kaian, *kayian*<sup>1</sup>, esaten genuen bezala, oraindik ere batzuek batzuetan esaten dugun bezala).

Uraren edo airearen mugimendu horri deitzen zaio ingelesez *drift*, mugimendu horri edo mugimendu horrek (airearen eta uraren bultzadak) era-gindako mugimenduari.

## Aingeru bat

Azkeneko aldiz Sting-en *If on a winter's night* ('Baldin neguko gau batez'<sup>2</sup>) diskoko kanta tradizional batean entzun dut hitza. Gabriel aingerua jaitsi omen zitzaison Maria dontzeilari zerutik, hegoak aireak *orraztutako elurra* bezala zekartzala, begiak su: *his wings as drifted snow, his eyes as flame*<sup>3</sup>.

\* Ondorengo lerroetan sarrera ekitaldian eginiko hitzaldia ahalik eta leialkien ematen saiatu naiz. Ahozko doinu eta erritmoak kentzeak beharrezko egiten dituen puntuazio aldaketak, esaldien berrantolaketa zenbait eta lokailu laguntzaile batzuez gainera, ezer gutxi gehitu dut: informazio osagarriren bat ulemerena errazteko asmoz. Alderdi teknikoenak oinoharretan eman ditut. Horrela, hitzaldiaren iloari besterik gabe jarraitu nahi dionak oinoharrei jaramon egin gabe irakur dezake testua.

<sup>1</sup> International Phonetic Alphabet (ikus IPA 1999) edo Nazioarteko Alfabeto Fonetikoaren arabera [kajian] eta [kjajian] izan daitēkeen ahoskera hori euskal fonologiaren gertakari interesgarri baten ondorio da. Ezaguna da irristariak alde batetik bokaliko bestetik kontsonantiko direla. Euskalazko adibideotan diptongo azkeneko [j] irristariak kontsonante balioa hartzen du eta ondorengo bokal baten aurrean /e/-ren eransketa gertatzten: *kai-e-an*. Beste goiko bokalaren, /u/-ren, aldaera irristariak ere berdin jokatzen du hurrengo forma hauetan: *lau-e-an, gau-e-an*. Ikusten da diptongoz amaitutako erroak kontsonantez amaitutakoek bezala jokatzen dutela (cf. *muturr-e-an, oroimen-e-an*). Hizkeraren arabera eratorpen fonologiko desberdinak izan ditzake /e/-ren eransketa horren emaitzak (adibidez, *kai-e-an* > *kayean* > *kayian*; *gau-e-an* > *gabean* > *gabian*).

<sup>2</sup> Italo Calvinorenaren eleberri hura, *Se una notte d'inverno un viaggiatore*, gogora dakarkiguna berehala. Ez dakit Stingeik hori ote zeukan gogoan diskoari izena ematean. Eskerrik asko, bihotzez, Antonia Deias, Tonina, lankideari Calvinoren italiararekin emandako laguntzagtok.

<sup>3</sup> *Orraztearena*, noski, nire itzulpen ahalegina da, testuinguru horretan *drifted* adierazteko bururatu zaidan egokiena.

Baina ez dut uste hitzaldi honen izenburua aingeruaren hegoengatik goratu zitzaidanik. Jakinaren gainean behintzat, hautuak Sapir du inspirazio iturri eta Mitxeleneta maisua bitartekari.

Koldo Mitxelenari zor diot, beste gauza askoren artean, Edward Sapir irakurri nuen bezala irakurri izana. Izan ere hari entzun bainion Edward Sapirren *Language* liburuak, nahitaezko behar lukeela Filologia ikasketetan eta nik, nahiz eta Mitxelenaren eskoletan entzule nintzenerako ikasketak (lizentzia-titulurainokoak esan nahi dut) bukatuta izan, Sapirren liburuarekin osatu nituen<sup>4</sup>. Oraindik ere osatzen ditut.

Koldo Mitxelenaren itzalaren babespetik, Euskal Filologiako gure ikasleei esan izan diet behin baino gehiagotan Sapirren liburua behar bezala irakurtzen duenak, gainera Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca* irakurtzen badu, merezi lukeela tituluaren erdia gutxienez<sup>5</sup>.

Edward Sapir handiak 1921ean argitaratu zuen *Language* liburuan hizkuntzaren aldaketa historikoari dagokion VII. kapituluaren azpititulua da *drift* hitza. Mexikoko Fondo de Cultura Económica argitaletxeak 1954 urtean argitaratutako espainolezko itzulpenean egin zutenek ez zuten nonbait jakin nola itzuli eta, besterik gabe, kendu egin zuten kapituluaren azpititulua. Alberto Gabikagojeaskoaren euskarazko itzulpenean «eraldaketa korronea» agertzen da *drift* hitzaren ordain VII. kapitulu horren idazburuan. Zintzotasunez ez da azpititulua kendu. Itzuli egin da nolabait, edukiaren ondorioa azaldu zaigu, hizkuntzaren azterketari zuzenean dagokion esanahiaren zatia. Ezinbestean metafora hautsi da, agian sinekdokearen bekatua eginaz. Itzulprenaren mugak azaldu zaizkigu; hizkuntza batean esaten den oro esan daiteke beste batean, noski, baina ez beti, ez guztiz, ez erabat berdin. Itzultzaileak ahalik eta ongi moldatu du euskarara hitz zail hori, *drift*, aipatu kapituluau eta hurrengoan batez ere, baina liburu osoan zehar aski maiz agertzen dena; horrela, dituen adiera eta kategoria desberdinatan pus-

---

<sup>4</sup> 1982-1985, Mitxelenaren erretiro aurreko hiru ikasturteez ari naiz. Doktorego ikastaroetan ez nintzen entzule izan, ikasle oso baizik.

<sup>5</sup> Ikus bibliografian Michelena, Luis [1977]<sup>2</sup>1985.

katuta agertzen da ingelessez aditz zein izen izan daitekeen *drift* hitzaren eremua: joera, korrontea, norabidea, xedea, eta abar<sup>6</sup>.

### **Drift (hitza terminoa urtzeaz)**

Nik gaur zuekin partekatu nahi dut, litekeen ahanzturatik salbatzeko hitz hori, *drift*, nik ere, nola itzuli ez jakin arren, edo horrexegatik agian, ziurrenik horrexegatik, bere horretan itzulezina delako gure hizkuntzetan, eta polita delako formaz, indartsu edukiz (bi horiek, forma eta edukia, bantzeko baimena dugun heinean).

Hizkuntzalarien artean, ingelesez, egungo hizkuntzalaritzaren hizkuntza nagusian alegia, maiz aski erabiltzen da *drift* hitza, termino gisa, bidenabar batzuetan, han hemenka, ia nahigabe bezala, aldian behin jatorrizko esana-hiarekiko lotura galdua, urtuta<sup>7</sup>.

Nik gaur nahita ekarri dut hitza hona, edukiaren airezko forma hori, laburra, silaba bakarrekoa, baina kontsonantez betea, bi aurretik, bi atzetik, bokal bakarraren inguruan.

### **Drift (hotsak)**

Bokala, mehea, itxia, aho-sabairantz zuzenduta mihia nonbait, nahiz bokalen kasuan gauza horiek zail diren zehazki neurten<sup>8</sup>.

<sup>6</sup> Ikus bibliografiako Sapir 1921 erreferentziaren azkenean euskarazko itzulpenarena ere.

<sup>7</sup> Estate baterako eta erreferentzia gisa, Fischer-Jørgens-ek (1975) bere Fonologien Historia erraldoian, hiru lekutan aipatzen du: Sapirrek hots aldaketan aldarrikatzen duen norabideaz eta, oro har, hizkuntzaren bilakaeraren haren kontzeptuaz (op. cit. 18); fonologia diakronikoaz ari dela, adierazteko Bloomfield-en bidetik Hockett-ek ahoskeraren aldagarritasunean «drift of allophones» delakoa aldarrikatzen duela (op. cit. 103); eta, azkenik, Generativistek bloomfieldarren ikuspegi hori arbuiatu zutela azaltzeko (op. cit. 272).

<sup>8</sup> Terminologia fonetikoan ohikoa da bokal itxiak «goiko» deitzea. Neurriz kanpoko litzateke hemen bi termino horien artean litekeen desberdintasunez aritzea. Oro har bokalen ezaugarri artikulatorioak kontsonanteenak baino zehazgaitzagoak dira, nahiz egungo aurrerapen teknikoek

[i]. Edonola ere, bokal guztien artean ahoskordetan gora datorren aireak, hiztunaren gorputzetik irteteko, egin behar duen bidea laburrena duena, ezpainak irribarrera eramatzen ditugulako, atzerantz, [i] esatean eta horregatik, antza, akustikoki bigarren formante garaiena duena<sup>9</sup>.

[i]. Argitasunarekin lotzen dena bokal ilun eta argien sailkapen sinestesikoan eta onomatopeietan, irrintziarena bezalako doinu garaiekin, gauza txikiek ateratzen duten zaratarekin, *klink*<sup>10</sup>.

[i]. Zerbaitegatik Rimbaud-ek bokal gorritzat hartu zuena «Voyelles» poeman, *pourpres, sang craché,...*<sup>11</sup>.

[i]. Euskaraz ondoko kontsonanteak «busti» egiten dituena: *hilla, miña, dittu, ixan...* Urak bezala palataltasunak busti egiten du nonbait: fonetikaren sinestesiak. *Sons mouillés*, frantsesez. Gaztelaniaz inor gutxik esaten du hori horrela, *sonidos mojados*. Agian errazago da aurkitzen *mojamiento*. Behinik behin, ez da frantsesez bezain oparoa, eta ez du izan inondik ere

gauzak asko hobetu dituzten. Halaz ere eta berez, aho-sabairantz zuzentze hori, *palataltasuna* deitzen dugun tasuna, hobeto neurtu bide da oharmenaren alderditik bokal hori ahoskatzean sortzen diren uhinek entzumenean duten eraginarenetik, uhinen moldatze anatomikoaren aldetik baino, nahiz oinarri artikulatorio hori ere ukaezina izan: «(...) a feature with obvious acoustic correlates (like palatality) may have phonological effects which parallel those of a feature with obvious articulatory correlates (like labiality or rounding) (...). This parallelism cannot be explained in a framework which assigns to one only an acoustic and to the other only (...) an articulatory correlate» (Doneganen 1978: 15).

<sup>9</sup> Horrekin batera mihiaren goitasunak ere baduela zerikusia formantearen balioan akustikazko eskuliburuetan irakasten zaigu: «The longer the cavity, the lower F1 will be; the shorter it is, the higher F1 will be. This correlates with tongue-height; the pharyngeal tube continues into the mouth and is narrowed in varying degrees by the movement up and down of the tongue» (Lodge 2009: 191).

<sup>10</sup> Alderatu «*klonk* egin zuen erortzean» eta «*klink* egin zuen erortzean»: bigarrenak gauza txikia go batek ateratzen duen hots garaigoa iradokitzten du (ikus Donegan 1978: 39). Literatura tanke-ra horretako adibidez josita dago. Gorago aipatu *Se una notte d'inverno un viaggiatore eleberrian* Italo Calvinok dio: «Il gatto inarca il dorso, la cassiera chiude il registratore di cassa che fa *dlín*» (letra etzana, nirea).

<sup>11</sup> Hona hemen bokal honi dagozkion bi lerroak osorik: «I, Pourpres, sang craché, rires des lèvres belles / Dans la colère ou les ivresses pénitentes».

euskaraz izan duen arrakasta «terminologikoa». Euskaraz, erraztasunagatik edo zentzu poetikoagatik edo –hizkuntza txikia izanik<sup>12</sup>– agian biongatik, *bsti* gehiago esaten da *palatalizatu* baino. Halaber, unibertsitateaz landa, *hots bustiak*, *hots sabaikariak* edo are *hots palatalak* baino hedatuago dagoelakoan nago.

### **Drift (hizkuntza bakoitzaren aukerak)**

Euskarak bere oraingo izaeran sortuko ez lukeen *hots* bilkura agertzen du *drift* hitzak: hasiera, nekez; bukaera, are nekezago. Edo, itxura besterik ez ote da uste hori? Pentsa dezagun fonetikak eskaintzen digun abstrakzio aukera baliatuta.

Hitz hasieraz, esan daiteke badaudela mota horretakoak euskaraz, egun eta aspaldi samarretik. Esate baterako, ezpainkariaz hasita, *branka*, *bromatan*, *brusa* edo *brokel-dantza*. Ahoan atzeragoko hersketaz abiatzen diren *gramo*, *grisa* eta *grazia-ri* ere ezin zaie ukatu beren euskaltasuna, ez badu batek mutu gelditu nahi. Beste horrenbeste horzkariz hasten den *dragoi bezalakoez*, nahiz egia den *herensuge* esan litekeela, baina auzi horrek, Euskal-tzaindiaren esparrukoa bada ere, ez du zerikusirik ahoskerarekin<sup>13</sup>. Azkenik gogoratu behar dugu hitz barrenean euskarak berak sortu bide dituen *ondratu*, *aldrebes*, *bolondres* bezalakoak.

<sup>12</sup> Hiztun vs. hizkuntzalari proportzioak bereziak dira euskararen alorrean, erlatiboki asko gare-lako era batean edo bestean hizkuntzaren kontzientzia teorikoa dugunok hiztunen artean; horrek handitu egiten du gai linguistikoez hitz egin bai, baina terminologia teknikoa menperatzen ez dutenen kopurua.

<sup>13</sup> Hitz hasieran /br/ eta /gr/ baino /dr/ gutxiago izateak badu bere esplikazio fonetikoa: [d] eta [r] *hots* (ia?) homorganikoen arteko distantzia fonetikoa txikiagoa da [b] eta [r] edo [g] eta [r] hotsen artekoa baino. Latinak, hain zuzen ere, lehen kontsonantea ahoskabetu egin zuen [dr-] bilkuretan, erromantzetik euskarara sar zitezkeen [dr-] bilkuren aukerak urrituz horrela. Ahoskabetze horrekin kontsonante bien arteko ozentasun desberdintasuna areagotu egin zuen, lehenengoaren traba-indarra handituz eta silaba egituren baldintzetara hobeto egokituz horrela hitzak (ikus silaba ekinaren nolakotasun hobetzeaz: «The Head Law», Vennemann 1988: 13 hh.).



Hitz azkenaz ere, berriz, aitortu behar da *bost*, *koxk* bezala igurzkari-herskari bilkuraz amaitzen diren hitzek ez dutela euskararen ahoskera ezertan bortxatzen. Beste bukaera batzuk baino urriagoak dira noski, baina hori hizkuntzaren iraganarekin dago lotua, [f] hotsaren gaztetasun edo berritasun erlatiboaren auzia bezala. Batzuen urritasunak eta bestearen berritasun erlatiboek ez dituzte hiztunen muga fonetikoak islatzen.

Abstrakzioak abstrakzio, eta puskak puska, ordea, ezin da ukatu hitzaren itxura arrotza dela. Berdin dio hotsak banaka edo bilkuraka aztertzetik ateratzen dudana fonetikaren aitzakian. Egia da, hitzaldiaren izenburua txartelean irakurrita, galdetu didatenek sudurra okertuz edo doinu arraroz aipatzan zidatela hitza.

Ez. Gaurko euskaraz ez litzateke horrelako hitzik sortuko. Agian garrantzuena da [f], igurzkari hori, ia azkenean agertzea, beste kontsonante gorrago baten aurrean. Igurzkari hori, ez [s] bezalako txistukari bat (s, z, x), [f] baizik. Eta, oro har, horrenbeste kontsonante bokal bakarrarekin: ez da ez, inondik ere, silaba bakarreko euskal hitz arrunta. Onomatopeiak baka-

rrik datozkigu burura adibideak bilatzen hasita: *krask*, *plast*, eta abar. Beraz, ez iraupena, ez erritmoa, ez bukaera, ezta bukaera hori hasiera horrekin: ez dagozkie euskararen oraingo izaerari.

Euskararen oraingo izaera esan dut. Zertaz ari gara «euskararen oraingo izaera» esatean? Zer da *orain*, zer da *lehen* hizkuntzarentzat...

Hizkuntzen denbora, hizkuntzaren aroak luzeak dira gizakion neurri biografikoekin alderatuta, baina geure bizitzetan bezalaxe ez dago geldiunerik hizkuntzaren aro horietan ere, etengabe aldakorra baita hizkuntza denboran barrena, espazioan zehar.

Hizkuntza airea bezala, ura bezala, etengabeko mugimenduan dago, batzuetan nabaritzen ez bada ere.

Daniel Jones fonetikari britaniarrak bere *Phonetic Readings in English* testu transkribatuen antologiaren bigarren argitalpenaren hitzurrean, 1955ean, aitortzen du transkripzio batzuk aldatu egin behar izan dituela, berak islatzen duen ingelesaren (ingelese britaniar estandar zaindu samarraren<sup>14)</sup> ahoskera aldatu egin delako lehen argitalpenetik igarotako berrogei urteetan<sup>15)</sup>.

Ez du edonork Jones-en sentiberatasun fonetikoa, eta eskerrak, hiztun arruntaren egitekoa ez baita hizkuntzaren aldaketak analizatzea, erabiliz aldaketa horiek sortzea baizik. Horrela, hizkuntza erabiliak eta hizkuntza horietako hotsak aldatu egiten dira etengabe.

### **Drift** (aire uhinen oharmena)

Begira diezaiogun orain berriro gure gaurko izenburuaren formari, *drift*. Lehenengo, hitzak duen bokal bakar horri: *ni* eta *hi* eta *bil* hitzetan bezala, [i]. Bokala entzuleari aire uhinetan iristen zaio, aire partikulen arteko presio

<sup>14</sup> «(...) educated Southern English –or RP ('Received Pronunciation') as it is now often called» (Jones 1955: X).

<sup>15</sup> 1912an argitaratu zen lehen aldiz liburua. Oso interesgarriak dira 1955eko argitalpenaren hitzurrean Jonesek egiten dituen ahoskera-aldaketa eta aldaera horien aipamenak (hala nola hitz elkartuetan gertatu azentu aldaketez) eta horiei buruz ematen dituen erreferentzia osagarriak.

gorabeheretan, entzuleak [i] entzun baitezake, hiztunaren irribarre modukoa ikusten ez duenean ere, hiztunaren mihiaren sabairanzko igotzea ikusi ezin badu ere, [i] hori osatzen duten uhinak ez direlako [a] edo [o] edo beste bokalak osatzen dituztenak: eztarrian sortzen diren uhin anitzetatik batzuk bakarrik aukeratzen ditu ahots bideak (eztarriak, ahoak, ezpaineak)<sup>16</sup>. Aukera desberdin horietan datza bokalen arteko desberdintasuna<sup>17</sup>.

*Mutatis mutandis*, antzekoak dira gauzak *drift* hitza osatzen duten gaineko hotsekin. Hasierako eta bukaerako kontsonanteak ere aire mugimenduetan iristen zaizkigu, hasiera hots-uhinetan, [dr]; bukaera, [ft], zarataren igurtzi bortitzagoen bidez, maiztasun edo frekuentzia erregularrik gabeko partikula mugimendu nahasietan.

Aireak darama beti entzulearen belarriba hiztunak esan duena, airea da hiztunaren hitza entzulearen belarriba iritsi bitartean. Airezkoa.

Noski, hiztunak sortutako aire mugimendu horiek... iristen dira edo ez dira iristen. Edo, entzulearen belarriba iritsi arren, aldatu egiten dira haren adimenera heldu orduko, hiztunaren ahoak eta sudurrak eta eztarriak moldatzeten dutena ez baitu beti bere horretan hartzen entzulearen oharmenak.

Duela zenbait belaunaldi latina euskarazko belarriekin entzun zutenei ez zitzaien iristen guri bezala hitz hasierako [r] dardara. Aurretik beste zerbait zuela entzuten zuten, bokal bat, hala zela uste zutelako sortu ziren euskal hiztegiko *errege*, *Erroma*, *errota*<sup>18</sup>; eta ez horren aspaldikoek gaztelaniazko [θ] horzkariaren aire zurrubiloan, [s] entzuten zuten eta hala zela uste zuten, eta hala zela uste zutelako entzuten zuten horrela (orain ere Iparral-

<sup>16</sup> Horregatik esaten du fonetika akustikoak, hizketa-hots ahostunen ebakera sorburu-irazki es-kema teorikoaren arabera analizatuta, ahoskordetatik gorako barrunbeek irazkiaren egitekoa betetzen dutela.

<sup>17</sup> Adibidez, Zaldibiako bokalen azterketan Pilartxo Etxeberriak (1990, 265) ateratako batez besteko neurri akustikoetan aipatu hiru bokalen bi lehen formanteen balioak hurrenez-hurren ondokoak dira: [i] 335 Hz-2238 Hz, [a] 661 Hz-1319 Hz, [o] 442 Hz-975 Hz.

<sup>18</sup> Latinaren ondorengo erromantzeetako maileguetan ere gertaten da protesi hori, nahiz batzuetan ez dagoen garbi erromantzeak berak (ere) ez ote zuen bokala gehitu (Michelena [1977]1985, 156).

deko hiztun askori gertatzen zaion bezala) eta esaten zuten *plaza* [plasa], *arrazoi* [arasoj], *zapata* [sapata], inguruko gaztelaniaz *plaza* [plaθa], *razón* [raθon], *zapato* [θapato] baziren ere.

Orain ere guk (Hegoaldeko euskaradunok) bokal eta guzti entzuten ditugu ingelesezko [s] gehi kontsonante hasten diren hitzak: *stop* (/estop/), *Skype* (/eskaip/), *striptease* (/estriptis/) edo lehen aipatutako *Sting* (/estin(g)/). Iparraldeko gehienak badira gauza honezkero, txikitatik ikasi duten frantsesari eskerrak, *spleen* bezalakoak bere horretan hautemateko (/sp-/), gogoratzeko eta, berariaz, ahoskatze <sup>19</sup>.

Norberak ahoskatzen dituenak ere gogoan duenarekin berdindu ohi ditu. Esaterako, iruditzen zaigu berdin-berdinak direla kontsonante biak *baba*, *gogo*, *duda* hitzetan. Bainaz ez dira, ia inoiz ez dira berdin. Hiztunaren gogoan hasierakoa bezalakoa den bigarren kontsonantea aldatu egingo da hiztunaren gorputzetik atera orduko, baina entzulea ez da ohartuko, batera hiztun eta entzule den hiztun-entzule edo entzule-hiztun hori ez da konturatuko, ziurrenik berak ere beste horrenbeste egiten duelako kontsonante horiek bokal artean ahoskatzen dituenean, bokalen lasterrak kontsonantearen indarra airean eramatzen dionean <sup>20</sup>.

Nahigabe, oharkabean egiten dugun hori ohitura bihurtzen zaigu eta, bitzizaren beste alor zenbaitetan bezala, ohitura hausten denean, ohikoeña gertatzen ez denean, nabaritzen da argien. Horregatik, Ruper Ordo-

<sup>19</sup> Orain arteko kasu guztiak erakusten dute nola hiztunak entzuten duena bere lehen hizkuntzan berariaz erabiltzen dituen oinarritzko hots (fonema) eta hots-bilkura posibleetara egokitzeko joera duen, beste hizkuntza batetik datorkionean ere. Beherago aipatuko da zer gertatzen den erabiltzen diren bereizkuntzak beste hiztunak egiten ez dituenean. Testu nagusiko paragrafo honetan hotsak // barren artean eman dira, fonemen bidez gauzatzen den oharmenaz ari garelako. [] kako zuzenen artean adierazten denak forma ahoskatua jasotzen du funtsean. Egia da maiz oharmenaren eta ahoskeraren transkripzioak bat letozkeela hemen erabiltzen den transkripzio-maila aski laxoan.

<sup>20</sup> Teknikoki adierazita, lehen kontsonantea herskaria da ([b, d, g]) eta bokal artekoa, berriz, jarraitua ([β, ð, g]). Ohikoa bada ere «igurzkari» deitza azken horiei, ez dirudi egoki izen horrek, ikerlari zenbaitek gazteleraren inguruan adierazi bezala, ez baita benetako igurtzirik sortzen euskaraz ere (Joaquín Romeroren taldeko edo bakarkako lanak bereziki gomendagarri dira). Hitz hasierako eta bokal arteko /b, d, g/ kontsonanteen arteko desberdintasun horrek emankortasuna galdu du Iparraldeko frantses-euskara hiztun elebidunengan.

rikak, bere kantatzeko eraren ozentasun eta leuntze bereziengatik konsonante moten lekuak aldatzen dituenean, entzuleari iruditzen zaio zerbait gertatu dela<sup>21</sup>.

Hotsez, hizketarako erabiltzen ditugun hotsez ohartzen baikara, zeharka bezala, ez hitzez bezala, ez gramatikaz bezala... Hotsak urrutia daude gure jakinaren gaineko ezagutzatik. Beharbada horregatik gramatikagileek, idazleek, irakasleek, araugileek ere kasu gutxiago egin izan diote ahoskerari... hizkuntzaren kanpoko aldea balitz bezala, fruitua janda bota egiten den oskola. Bainazalik gabeko fruitua usteldu egiten da, kanporatzen ez den hizkuntza bezala.

Halaz ere, nahiz horren garrantzitsu izan, egia da ahoskera gauza berezia dela hizkuntz osagaien artean, ezin dela hiztegia bezala edo gramatika bezala arautu, ezta ikasi ere. Ahoskera ez da memoria, ez da pentsamendu hutsa, gramatika edo gauzen izenak bezala. Ahoskera hitzak eta gramatika gorputz bihurtzea da eta, gorputza baliatuta, aire mugimendu eta aire mugimendu hori, tinpano astindu (berriz gorputz) entzulearengan.

Kanpokotasun hori islatzen da alemanez ahoskera *Aussprache* deitzean. Euskaraz *mingatu* nahi zuen Broussain-ek, hitzaren eraketa alde batera utzita hemen, mihiarekin, zuzenean hiztunaren anatomiarekin lotzen den deitura<sup>22</sup>. Broussainenak baino arrakasta gehixeago izan duten *ebaki*, *trenkatu* bezalakoek iradokitzen duten analisiak ere merezi luke orain luzeegi geratuko litzatekeen eztabaidea. Larramendiren *oguzi* ere erabili izan da, baten batek nahi baino gehiago. *Ahoskatu* esaten dugu guk, pentsamenduari, esan nahiari, gogoari ahotsa ematea, hizkuntza ahotsaz ateratzea, ahotsaren bidez kanporatzea, besterenganatza.

Uhinetan mugitzen den hotsa da ahotsa; areago, uhinen uhina da esaldi bakoitza, gertatzen den unean, eta uhina da hizkuntzaren historia etenga-

<sup>21</sup> Silaba ekineko (*onset*) txistukarien ahostuntea edo hitz hasierako herskari ahostunen jarraitutzea dira Ruper Ordorikaren kantuan azaltzen diren bilakabide fonologiko berezi eta nabarmenenetakoak.

<sup>22</sup> Hitzaren formaren oinarritzat *miin+ka+tu* morfema katea aldarrikatzen du Broussainek (Charritton 1986: 338).

beko *drift* horretan, denboran eta espazioan zehar, hizketa aldatzten denean leku batetik bestera, bailara batetik bestera, belaunaldi batetik bestera, hiztun batetik bestera, hiztunaren aho-sudurretatik entzulearen belarriba eta belarritik oharmenera<sup>23</sup>.

Daniel Jones ez den hiztun arruntak aldaketa nabarmenenak bakarrik hauteman ohi ditu bere horretan: funtsean norberak egiten duen bereizkuntza besteak egiten ez duenean ohartzen gara desberdintasunaz. Esate baterako, «s» eta «z» bereizten dituen ekialdeko hiztun batek nahastea hautemango du bizkaitar edo gipuzkoar kostaldeko askorengan, edo *ollua* eta *oyua* bereizten dituztenek jakingo dute bestek nahasten dituela. Bereizkuntza egiten duenak desberdintasun horiek memorian ditu eta egiten ez duenak, ez<sup>24</sup>.

Hizkuntza airea eta memoria dela esan dut lehen eta ahoskera ez dela memoria, baina behar du, gertatzeko, memoria. Hitzen memoria bezala, gramatika arauena bezala, gure hizkuntzaren –edo hizkuntzen– hotsen memoria dugu.

Entzuten duguna gordetzen dugu memorian txikitatik, umetan entzuten ditugun lehen hitzetatik, lehen esaldietatik. Entzuten duguna gogoratzen dugu, baina gogoan gorde duguna bakarrik entzuten dugu linguistikoki, hori bakarrik kudea dezakegu berariaz, nahita, hori bakarrik da gure hots-baliabide hitz egiteko, hiztun egitekoa betetzeko<sup>25</sup>. Bakoitzari bere hizkuntzak –bere hizkuntzek– memorizarazi diona bakarrik gogoratzen dugu, hautematen dugu, entzun-uste dugu. Hizkuntzaz jabetu den helduak txikituan gogoratu, gogoan gorde zuen hori, entzungo du, egin ahal izango du nahita, bai

<sup>23</sup> Hiztuna bera izan daitekeen entzule horren oharmenera.

<sup>24</sup> Ez dituenak nekez programatuko ditu hotsa ekoizteko mugimendu anatomikoak buruan ez duen moldaketa baten arabera. Honek helduen irakaskuntzan ahoskerak behar lituzkeen irakasbideen berezitasuna azpimarratzen du.

<sup>25</sup> Erabateko desberdintasuna dago hemen hizkuntzaz jabetzen ari den haurraren eta hizkuntza beregantzu duen helduaren artean. Testu nagusian esandako bigarren horri dagokio. Umearen hautemateko gaitasun zabala noiz eta nola bihurtzen den hizkuntza ikasiak hesitutako helduon oharrmen fonemiko hertsia eztabaidagai zail bezain oparoa da ikerlarien artean (fonología teóricaaren ikuspuntutik egindako hausnarketa interesgarri baterako, ikus Donegan 1995).

txikitán ikasi zuen hizkuntza edo ikasi zituen hizkuntzak erabiltzean, bai beranduago bereganatu nahi lituzkeenak ikastean: berak *gogoan* duena.

XIX. mendearren azkenean Jan Baudouin de Courtenay hizkuntzalari poloniarrek Errusian alemanez esan zuen fonema dela hiztunaren hots-ideia (*Lautidee*), hots-irudikatzea (*Lautvorstellung*), bere hots-asmoa (*Lautabsicht*)<sup>26</sup>. Euskaraz hots-gogo terminoak hiruko alemanaren alderdi funtsezkoenak bilduko lituzkeela uste dut, baina, hortik aurrera, hiztegi-gileek esan beharko dute.

### **Drift** (norabidea: aldian-aldiko aldagarritasuna eta denboran zeharrekoa)

Aipatutako kontu horietan datza ahoskeraren misterioaren atal bat: besteren ahotik entzun uste duguna gordetzen dugu buruan. Bestalde, buruan, gogoan dugun hori da guk egin nahi izaten duguna, gure asmoa, gure gogoa. Haatik, gure gogotik aire uhinetara gauzak aski alda daitezke eta areago, gero, entzulearen burura. Aldaketa horretan ez dira beti arazo soilik fonetikoak tarteko.

Zuen baimenarekin, nire ustez hori salatzen duen anekdota bat kontatuko dizuet. Izan ere, asko dira gisa honetako gertakariak, baina kontatuko dudan honek nire adinekoak ingelesarekin zaletu gintuzten garai eta giroetara garamatza eta horregatik gertatu zait bereziki apropos gaurko hitzaldi honetarako.

Ez da asko *El País* egunkarian Joseba Elolak kontatu zuela eta beharbada irakurriko zenuten zuetako batzuek ere edo lehendik jakingo zenuten<sup>27</sup>. Kontua da Bob Dylan-ek, 1964ko abuztuan lehen aldiz The Beatles taldearekin bildu zenean, haien begikotasuna erakarri nahian edo, esan omen ziela asko

<sup>26</sup> Agian ez da erabat zuzena Errusian esan zuela idaztea. Kontuan izan behar da Baudouin de Courtenayk bere 1895eko *Versuch einer Theorie Phonetischer Alternationen. Ein Capitel aus der Psychophonetik* liburuan azaldu zituela termino horiek eta 1893az gerotzik bost urte igaro zituela Polonian kontratatuta berriro Errusira itzularazi zuten arte (ikus Stankiewicz 1972: 10).

<sup>27</sup> Philip Norman-ek idatzitako John Lennon-en biografiatik jaso omen zuen Elolak (2009).



gustatu zitzaiola beren kanta bat, *I want to hold your hand* ('eskutik heldu nahi dizut'), batez ere errepikatzen zen lelo hura, *I get high zioena*, 'zopatzen naiz, zopatzen naiz' alegia<sup>28</sup>. Haatik, erantzun omen zioten, ez zen hori Beatles-ek kantatzen zutena, baizik askoz gauza txintxoagoa, *I can't hide*, alegia 'ezin dut izkutatu'. Kazetariak ahoskera britaniarren eta Dylan-en oharmen amerikarraren artean kokatzen zuen arazoa. Lagunduko zuen, nola ez, kantuaren doinuan, esaldi biek hartzen duten antza handiagoak ere. Ziurrenik hori da neurri batean, baina esango nuke alderdi semantikoek ere sartu zutela esku gaizkiulertuan, Dylan entzuleak gogoan zuenak, ulertu nahi izan zuenak.

Horrelako uste okerrak hizkuntza beraren barruan jazotzen badira, zeresanik ez, bat baino gehiago dituenean entzuleak bere esku, belarriba iristen zaizkion uhinak buruan hizkuntza bihurtzeko, esanahiz janzteko. Duela ia hogeita hamar urte egindako grabazio batean Astigarragan, gure gizartean

<sup>28</sup> Ulermena errazte aldera, gehitu behar dut gehien bat «kolokatzen, jartzen naiz» edo «flipatzen dut» bezalakoak entzun ohi direla, edo niri behintzat ezagunago gertatzen zaizkidala hiztegiko *zopatu* ikasia baino.

oso arruntak diren *code-mixing* edo kode-nahastearen<sup>29</sup> gertaldi batean, jaso genuen. Euskaraz zihoa hitz-aspertuaren une batean hiztun donostiarra «de eso nada» esan zuen gaztelaniaz, eta Astigarragakoak, kode aldaketaz ohartu ere egin gabe, lasai asko, besteak esandakoa errepikatu ustez, esan zuen «esan dana», beste hiztunak erabilitako ia doinu berberean.

Emandako bi adibide hauek ez dira anekdota xumeak baizik, ez direnak ahoskeraz-oharmen desegokitzeen bidez garden eta erraz analizatzen. Balio dute ordea ikusteko gauzak nola gertatzen diren. Dylan bere aldaketaz ohartarazi egin zuten besteek. Gure Astigarragako laguna ez zen ohartu eta segi egin zuen<sup>30</sup>. Askoz gehiago eta mota askotakoak izango dira oharkabean gauzatzen diren aldaketak edo aldaketetarako abiapuntuak, iturburuak. Horietako batzuek, zerbaitegatik, bat egingo dute hizkuntzaren barne mugimenduaren norabidearekin, *drift*-arekin, eta agian noizbait sendotu egingo dira. Orduan hizkuntzaren ezaugari berri bihurtuko dira.

### **Drift** (ahoskeraz gainerakoak eta, berriz, hotsa)

Hizkuntzaren etengabeko aldaketa hori, mugimendua, ur lasterrarena bezalakoa, airearena bezalakoa, hizkuntzaren ezinegon hori berori da, bes talde, hizkuntzaren irmotasunik handiena. Hiloztearen arriskutik beti ihesi ibili ahal izateko barne-indarra ematen dio aldakortasun horrek, komunikazio behar eta baldintzetara egokitzeko balioa, azken batean, beraz, erabilgarritasuna.

Haatik, bere aldetik, hizkuntza bizitzeko ezinbesteko indarra den aldakortasun hori erabileraz elikatzen da, hizkuntza behin eta berriz hizketa eginaz: hitzak hots egiteak bazkatzen du, pentsatutakoa aire bihurtzeak.

---

<sup>29</sup> Berezi behar lirateke *code-mixing* vs. *code-switching* (alegia, kode-nahaste vs. kode-aldatze). Hemen lehenengoaz ari naiz). Bereizkuntza terminologiko hori egiten dutenen arabera, hainbatik hainbatean, *mixing* edo nahastea arrunta da bi hizkuntzetan trebe diren hiztunengan, *switching* edo aldatzea, berriz, hizkuntza batean behintzat pobreago direnen baliabide izan ohi da.

<sup>30</sup> Hain zuzen ere, «esan dana» hitzak bere hurrengo hizketa-jardunaren abiapuntu gisa erabili zituen, zitekeen eten-saioari jaramonik egin gabe.

Eta... hor, berriz, hor ere berriz... beste aldaketa askoren (agian gehien) funtsean apika<sup>31</sup>, hotsen aldatu beharra. Ez gara gauza ahoaren mugimenduak, beste edozein mugimendu errepikatzeko, erabat eta guztiz errepikatzeko, ezintasun hori hotsa hautematearen leialtasun ez-osoarekin korapilatua datorkigu gainera. Gizakiaren sortzezko gaitasuna, errepikapenarena, erabateko ezin izatearen murriztapen horrek mugatua, gizaki oro noizbait sortzaile, nahigabe bada ere berritzairen bihur dezake.

Ahalmenaren eta ezinaren arteko paradoxa hizkuntzaren aldaketa guztien azpian datza, bai ahoskeraren esparruan eta bai gainerakoetan ere, eta, Sapir dixit, hizkuntzalarion ezjakintasunagatik itxura mistikoa hartzen du<sup>32</sup>:

(...) are we not imputing to this history a certain mystical quality? Are we not giving language a power to change of its own accord over and above the involuntary tendency of individuals to vary the norm? And if this drift of language is not merely the familiar set of individual variations seen in vertical perspective, that is historically, instead of horizontally, that is in daily experience, what is it? Language exists only in so far as it is actually used –spoken and heard, written and read. What significant changes take place in it must exist, to begin with, as individual variations.

(Sapir 1921: 154-155)

<sup>31</sup> Ikus ideia horren aldeko tipologia holistikoen proposamenak (Donegan/Stampe 1983, 2004; Donegan 1993), neurri batean, nahiz ez hemen islatzen den ikuspuntu kausalenetik, Joseba Lakarrak euskararen berreraiketan erabiliak (ikus Lakarra 2009). Ez dago urrutি Sapirren (1921: 174) oihartzuna: «A drift that begins as a slight phonetic readjustment or unsettlement may in the course of millennia bring about the most profound structural changes. The mere fact, for instance, that there is a growing tendency to throw the stress automatically on the first syllable of a word may eventually change the fundamental type of the language, reducing its final syllable to zero and driving it to the use of more and more analytical or symbolic (...) methods».

<sup>32</sup> Ondoko aipua agian estetikoki lukeegi gerta badaiteke ere, uste dut merezi duela hona ekartzea Sapirrek dioena dioen bezalaxe. Izan ere, dei egindo nioke irakurleari aurreko eta ondoko lerroak ere irakur ditzan (Sapir 1921: 174-175, euskarazkoan). Kontuz ibili behar du euskarazko itzulpena irakurtzen duenak. Nahitaez zuzendu behar da 174. orrialdean azkenetik gora hirugarren lerroan «Horiek beroriek **ez dira** zorizko fenomenoak (...). Jatorrizkoak dio (op. cit. 154): «They themselves **are** random phenomena, like the waves of the sea (...). Letra lodiak desberdintasuna nabarmentzeko erabili ditut.

Hizkuntza hizketa egitean bere kasa aldatzen da, hiztunoi baimenik eskatu gabe<sup>33</sup>, baina guk, hiztunok aldatzen dugu, gauzei izenak jartzeko beharragatik, gure memoriaren mugengatik, entzuten duguna ulertu egiten dugula sinesteagatik, mundua puskaka, esaldika antolatzearen zailtasunak behin eta berri gaintitu, konpondu nahi izate horregatik, eta, ahoskerari dagokionez, gure entzumen mugengatik, gure gihar alferren lana arintzeko grinagatik. Horrek guztiorrek berrikuntzak dakartza etengabe. Berrikuntzak jazotzen dira hizkuntzaren maila bakoitzaren barreneko gatazkan eta mailen arteko etengabeko norgehiagokan<sup>34</sup>, hizkera eta garaien arabera, noiz era-gile bat, noiz beste bat lehenesten delarik.

Guztia, gainera, gizakiok hotsak ateratzeko eta barneratzeko, ibiltzeko, dantzatzeko eta kantatzeko bezala ezinbesteko dugun antolaketa erritmikoaren tiraniak, giza mugimendu orok duen betebehar horrek menperatura, betebehar horri aurre egiteko hizketak ematen dizkigun azentu, doinu, lastertasun, silabakatze eta abarrek liluratuta, zorabiatuta, eramanda<sup>35</sup>. Richard Wagner-ek ez zuen arrazoirik esan bazuen musika hasten dela hitzen boterea amaitzen denean<sup>36</sup>. Bada hitzik gabeko musika, baina erabat ezi-nezkoa da musikarik gabeko hizketa<sup>37</sup>.

<sup>33</sup> Garrantzizko gogoera da gure lanetarako aintzat hartea beti hizkuntz gaietan adituei ere ez digula baimenik eskatzen, ez behintzat beste inori baino lehenago.

<sup>34</sup> Esaterako, fonologian ahoskera errazten duten aldaketen artean eta entzumena bermatzentutenen artean; fonologiaren eta morfologiaren artean, hots azentugabeak ahultzeko joerak marka gramatikalak adieraztearen kontra jokatzen dueenan; morfologia eta sintaxiaren artean, komunzadura marken sistema aberatsak kalte egin diezaiokelako perpaus-unitatearen epe laburragoko prozesatze kognitiboari.

<sup>35</sup> Modu teknikoago batean adierazirik, esan nahi da hitzak osatzen dituzten kontsonante-bokal kateak doinu eta erritmo egituraren sartzen direla, denboran zehar gauzatzen direla fisikoki hots direnean hitzak, horrek hotsen arteko eraginak moldatzentutuelarik gertutasun eta lastertasun eragileak medio, besteak beste. Luze eta leku zango balitzateke ere areago garatzea, ez nuke ai-patu gabe utzi nahi hitzen barne izaera bertan ere bokal eta kontsonanteetan gainera egon daitezke-ela osagai prosodikoak (funtsean, azentua, gramatikak edo hiztegiak baldintzatua denean).

<sup>36</sup> Esaldia Wagnerrena ote den ez da gauza segurua, nahiz askok berari egozten dioten. Eskerrik asko Carmen Rodríguez-Suso lankide ohia esaldiaren inguruko argibideengatik.

<sup>37</sup> Ikustea besterik ez dago mezu elektronikoetan ahozkoik gertu dauden esamoldeak doinurik gabe erabiltzeak usu sortzen dituen ondorioak.

## Beste aingeru bat

Eta Akademian horrekin guztiarekin aritu behar dugu, batzuen ustez hori kudeatu behar dugu, nahiz pentsa litekeen Hiponako Agustinek aurkitu omen zuen aingerua bezala ari garela itsasoa zulo txiki batean sartu nahian. Ez baita nolanahikoa hizkuntza bideratu nahi izatea. Zeregin horren zailtasuna, gainera, ez datza soilik gaiaren neurrian.

Hurch lankide eta adiskideak, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarte-rako<sup>38</sup> sarrera hitzaldian ekarri zizkigun Georg Bossong-en hitzak ongi datora, esku artean duguna, hizkuntzaren ezaugarritze hau, osatzeko:

El error principal en que caen los simplificadores consiste, según Schuchardt, en que consideran la lengua como un objeto uniforme y bien delimitado, o sea, como una cosa. Hay que tener siempre en cuenta que cada lengua es un objeto multidimensional e infinitamente variable en sí mismo, o mejor dicho, que no es un objeto del todo sino una actividad colectiva.

(Bossong 1984: 176, apud Hurch 2009: 21)

Ondoren gogorarazi zigun Hurch-ek Humboldt-ek egiten zuen bereizkuntza ergonen eta *energeiaren* artean, «y, más exactamente, la paralela concepción de *energeia* y *actividad humana*» (Hurch 2009: 22). Luze joko luke eta ez da orain horretarako unea. Ezta ere, haatik, gauzen konplexutasuna ahazteko.

Hizkuntzaren barruan, ahoskeraren gaia ez da inondik ere errazena, errazik bada; nik ere hartuko nuke aztergai simpleagoa bagenu. David Stampe fonologialariak dio (Stampe 1979: 17), hizkuntzaren Jainkoa balitz, edozein sistema asmatzea bere esku balu izaki hilkorrok hots zailak gure hizketa ahallbide mugatuetara egokitzeko, errefusatu egingo lukeela ziurrenik duguna bezalako sistema, zaitasun bakoitzari erantzun atomistiko berezia ematen diona. Horren ordez sistema bateratu globala antolatzen saiatuko litzatekeela. Haatik naturak ez omen ditu gauzak hala moldatu. Haurren eta

<sup>38</sup> Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País/Euskal Herriaren Adiskideen Elkartea Erreferentziaren zerrendan adieraziko den bezala, sarrera ekitaldia Donostian izan zen, 2005eko maiatzaren 27an.

helduen hizkuntzek salatzen dute ahoskerak ordezkatze pila baten emaitza direla, eta ordezkatze horiek, banan-banan natural badirudite ere, denak batera elkarren kontrako ondorio makurrak dituztela<sup>39</sup>.

Baina halakoa da, ez dugu besterik eta zaindu egin behar dugu, inoiz ahaztu gabe hizkuntzak ez duela bere barrena baino zaintzaile hoberik, bere barrena, bere funtsa, *drift*.

*Drift* hori bazkatzeko, bestalde, ez dago erabilera bera baino elikadura aproposagorik.

Hizkuntzaren barrena ondo elikatuta badago, behar bezala ikasi eta aski erabiltzen den hizkuntzaren ahoskerak ez du ezer galtzen beste hizkuntza batekin edo gehiagorekin bizitzeagatik. Hiztunak baliabideak irabazten ditu.

*Garaje* esaten ikasi duelako, azken kontsonantea ahoskatzean, [x] hotsa bereganatu duenak ez du ezer galdu, zerbaite berria ikasi du, ez bazuen lehen-dik bere euskaraz *jakin* [xakin] edo *jan* [xan] esaten. Beste kontu bat da, hiztun horrek, Euskaltzaindiaren arau eta gomendioei jarraiki gogoratu behar lukeela egoera formal, profesional, dotore, forma bereziki zaintzen den horietan (gaurkoa bezalako hauetan) *yakin*, *yarraitu*<sup>40</sup> esatea egokiago suerta daitekeela<sup>41</sup>. Arreta horrekin, hizkuntzak, euskarak irabazten du, malgutasuna irabazten du, batasuna irabaz lezake.

<sup>39</sup> Jatorrizko aipua hitzez hitz: «If one were the god of language, free to create any sort of system for mortals to adapt difficult sounds to their limited speech capacities, one would surely reject a system involving such atomistic responses to specific difficulties as these individual processes represent, and instead attempt to devise a unified, global system. However, nature has not managed to furnish such a system. The pronunciations of children and of adult languages reveal themselves to be the result of numbers of substitutions which, however natural they may seem individually, have collective results which are perversely cross-purposeful».

<sup>40</sup> *Yakin* eta *yarraitu* transkripzio fonetikoaren beharrik gabe hotsa zein den ulertzea errazteko idatzi dira horrela. Nazioarteko Alfabeto Fonetikoaren arabera [j] litzateke erabili beharreko ikurra ([j]) aldaera ere izan dezakeena euskaraz, 1. oinoharrean esan bezala). Paragrafo horretan bertan gorago erabilitako [x] ikurra hots belarriari dagokio, adibide garbi bat jartzearren, gaztelaniazko *jamón* hitzean edo euskaraz ere erabiltzen dugun *jope* esapidean lehen hots dena.

<sup>41</sup> Euskaltzaindiaren 87. arauaren izenak berak, *Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua*, adierazten du ahoskera erabilera maila jakin batzuetarako bakarrik arautzen dela (ikus Euskaltzaindia 1998, 485-490).

Berdin gertatzen zaio *garbure* mailegua frantsesetik bereganatu eta *ü*<sup>42</sup> hotsaz aberastu duenari bere ahoskera-baliabideen zorroa; hori, ez bazuen lehendik ere esaten *egün*, edo *üzten*, (*h*)*artü*, *entzüten*. Seigarren bokal hori duenak hobeto ahoskatu ahal izango ditu alemanezko *Tübingen* edo frantsesezko *tu*.

Ez da beraz (eta berez) kezkagarri Iparraldeko hiztunek egungo mailegutan hots hori erabiltzea. Arazoa litzateke, euskal hitz jatorrak ere horretara makurtuko balitzte.

Hartara, erabiltzeaz gainera behar bezala ikasi behar da. Lehen egiteko horretan guztiok garen hiztuna da lehen bultzagile, protagonista. Behar bezala ikaste horretan, ordea, badu Euskaltzaindiak zer esan, izan lezake bederen. Euskara behar adina erabili nahi bada, erabilera maila guztieta egokitzeak berebiziko garrantzia du, ez horrenbeste euskarari beste hizkuntza batzuekin biziak egokitu zaiolako, beste hizkuntza askoz hedatu eta garatuagoekin, aspaldi estandartutako hizkuntzakin bizi delako baizik: gaztelaniarekin, frantsesarekin eta orain, pixkanaka handiagotuz doan neurrian, inglesarekin. Hor behar du gure zaintza eta guztion arreta. Hizkuntza indartsu normalduak baino ahalegin, arreta eta kontu handiagoa behar du euskarak.

Guk behintzat, hiztunon konfiantza jaso izanaren zori ona izan dugunok, neurri horretan berorretan zor diegu erantzuna. Ni, euskaltzaineek horretarako deitua izanaren ohoreari ahal bezain ondo erantzuten saiatuko naiz: euskararen aireak haize eta urak olatu bihur ditzaketen zurrubilo guneak bilatuz, aztertuz ur lasterren bideak, *drift* horren nondik norakoak, fonema eta doinuen esparruan.

Ez da erraza gure lana, euskaltzainona alegia. Oso ulertzeko ere ez da hizkuntzaren askatasuna maite duen hizkuntzalariarentzat, uhinak zaindu baino olatuak harrapatzea, txanpa egitea, atseginago duen batentzat. Hor gaude halere. Hemen nago halere. Ahal bezainbat egingo dut eskatzen zaidana. Zaila da, badakigu. Jakin beharko genuke behintzat. Ez da inorentzat erraz, ez zaintzaileentzat, ez erabiltzaileeentzat. Baino, guztion lasaitasune-

<sup>42</sup> Nazioarteko Alfabeto Fonetikoan [y]. Ez da nahasi behar [j] edo [j] hotsak ortografikoki adierazteko erabili berri dudan «y» letrarekin.

rako gogoan izan behar dugu hizkuntza indartsua dela, hizkuntzarik txikiiena ere aski indartsua dela. Anima du. Berezkoa. *Drift*. Hiztunak behar du bidea, euskararen egoeran (ataka honetan) dagoen hizkuntzaren hiztunak. Hizkuntzak ez. Hizkuntzak hiztunak behar ditu eta, hiztunek, argi pixka bat eta patxada handia, urak bere bidea egin dezan.

## Erreferentziak

- CALVINO, ITALO. 1979. *Se una notte d'inverno un viaggiatore*. Torino: Einaudi.
- CHARRITTON, PIARRES (arg.). 1986. *Iker-4. Resurrección María de Azkue eta Pierre Broussain-en arteko elkarridazketa*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- DONEGAN, PATRICIA J. 1978. *On the Natural Phonology of Vowels*. The Ohio State University. (1985, Garland, New York).
- 1993. Rhythm and Vocalic Drift in Munda and Mon-Khmer. *Linguistics of the Tibeto-Burman Area* 16.1-43.
- 1995. The innateness of phonemic perception. *Proceedings of the 24th Western Conference on Linguistics*. Vida Samiian / Jeanette Schaeffer, eds. Fresno, CA: Dept. of Linguistics, California State University, 59-69.
- DONEGAN, PATRICIA J. and DAVID STAMPE. 1983. Rhythm and the Holistic Organization of Language Structure. In John Richardson et al. (eds.), *Papers from the Parasession on the Interplay of Phonology, Morphology, and Syntax*. CLS. Univ. of Chicago. 337-353.
- 2004. Rhythm and the synthetic drift of Munda. *2004 Yearbook of South Asian Languages and Linguistics*. Rajendra Singh, Edit.-in-Chief. Berlin/New York: Walter de Gruyter, 3-36.
- ELOLA, JOSEBA. 2009. Los rincones ocultos de John Lennon. *El País (vida & artes)*, 7.XI.2009, 39.
- ETXEBERRIA, PILARTXO. 1990. *Zaldibiako Bokalen Azterketa Akustikoa*. Universidad de Deusto: Cuadernos Universitarios.
- EUSKALTZAINDIA. 1998. Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua. *Euskera* 43 (1998,2), 485-490.

FISCHER-JÖRGENSEN, ELI. 1975. *Trends in Phonological Theory*. Copenhagen: Akademisk Forlag.

HURCH, BERNHARD. 2009. *Nuevos Extractos de la Sociedad Bascongada de los Amigos del País. Discursos pronunciados con motivo del ingreso de Bernhard Hurch el 27 de mayo de 2005*. Donostia-San Sebastián: Suplemento 18-G del Boletín de la RSBAP, 15-42.

INTERNATIONAL PHONETIC ASSOCIATION. 1999. *Handbook of the International Phonetic Association*. Cambridge University Press. (Alfabetoaren azken bertsioak: <http://www.langsci.ucl.ac.uk/ipa>).

JONES, DANIEL. 1955<sup>2</sup>. *Phonetic Readings in English (Improved Edition)*. Heidelberg: Carl Winter Universitätsverlag.

LADUSAW, WILLIAM A. / GEOFFREY K. PULLUM. 1986. *Phonetic Symbol Guide*. University of Chicago Press.

LAKARRA, JOSEBA. 2009. Aitzineuskara berreraikiaz: zergatik ezkerra. *Euskera* 54, 17-98.

LENNON, JOHN / PAUL McCARTNEY. [1963] 1993. I want to hold your hand. *The Beatles. 1962-1966* EMI Records Ltd.

LODGE, KEN. 2009. *A Critical Introduction to Phonetics*. London/New York: Continuum.

MICHELENA, LUIS. [1977<sup>2</sup>]1985. *Fonética Histórica Vasca*. San Sebastián: Seminario Julio de Urquijo de la Excma. Diputación de Guipúzcoa.

RIMBAUD, ARTHUR. [1871] 1972. Voyelles. Rimbaud. *Oeuvres Complètes*. A. Adam, arg. Paris: Bibliothèque de la Pleiade

SAPIR, EDWARD. 1921. *Language: An Introduction to the Study of Speech*. New York: Harcourt Brace and World. / *El Lenguaje*, México: Fondo de Cultura Económica, 1954.. *Hizkuntza. Berberaren Azterketarako Sarrera*. Donostia: Gaiak, 2007 (Alberto Gabikagojeaskoak itzulia).

STAMPE, D. 1979. *A Dissertation on Natural Phonology*. Garland, New York / Indiana University Linguistics Club, Bloomington.

STANKIEWICZ, EDWARD. 1972. Baudouin de Courtenay: his life and work. A *Baudouin de Courtenay Anthology. The Beginnings of Structural Linguistics*. Edward Stankiewicz, arg. Bloomington/London: Indiana University Press, 3-48.

STING. 2009. Gabriel's Message. *If on a Winter's Night...* Deutsche Grammophon.

VENNEMANN, THEO. 1988. *Preference Laws for Syllable Structure and the Explanation of Sound Change*. Berlin/New York/Amsterdam: Mouton de Gruyter.



# Ur lasterraren dama

AZKARATE VILLAR, Miren  
Euskaltzain osoa

Hobe dut zorrak aitortuaz hastea nire hitzak, begi-bistakoak dira-eta zor horiek. Azken Bertsolari Txapelketa Nagusian, Aitor Mendiluzek, txapela irabazi berria zuen Maialen Lujanbiori kantatutako *bertsoaren dama* haren oihartzuna dakar batetik izenburuak. *Zeren dama* zehaztean, berriz, euskaltzain berriaren hitzaldia entzun ondoren, erraz antzemango diozue zorra zertan dudan.

Uraren edo airearen mugimenduari (edo mugimendu horrek eragindakoari) esaten zaio ingelesez *drift*, argitu du Lourdes Oñederrak, eta horrekin azaldu, aldi berean, bere izenburuaren hautua. Edward Sapir-en *drift*, «joera, korrontea, norabidea, xeeda (...) nik ere nola itzuli ez jakin arren edo horrexegatik agian, ziurrenik horrexegatik, bere horretan itzulezina delako gure hizkuntzetan».

Uraren edo airearen mugimenduaren artean aukeratu behar eta, *airezko emakumeak* musika jotzen dutenak direnez, eta beren aita badutenez<sup>1</sup>, *ur lasterraren dama* behar zuen Donostiako hondartzetan, olatu artean, hazi zen euskaltzainak.

Hizketa airezkoa dela entzun dugu. Eta hizketan, hitzak bereizten ditugu; esango nuke hitzak direla hiztunak intuizioz-edo hizketaren unitatetzat harzen dituenak. Edward Sapir hizkuntzaliariak, Lourdesek aipatu duen *El Lenguaje liburuan* (nik ere erdal itzulpena irakurri nuen) dio hitza dela hiz-

---

<sup>1</sup> Juaristi, F. (2003): *Airezko emakumeak*. Donostia, Erein.

ketan benetan «existitzen» dela esan dezakegun lehen elementua. Hizketa airezkoa bada, ez da harritzeko hitzak ere aireak, edo haizeak, eramatea barrez Xabier Letek idatzi eta Benito Lertxundik kantatu zuenez (*hitzak dira hitzak / haizeak barrez daramazkienak*). Bob Dylan ere galderen erantzuna haizeak eramatzen edo ekartzen zion, *the answer, my friend, is blowing in the wind*. Nemesio Etxanizek *Entzun haizetan* itzuli zuen abesti hura (eta Luis Amilibiak kantatu): *entzun haizetan mendebal aldetik nola datorren erantzuna, haitzik haitzaren oihartzuna*.

Hitzak eta Haizea, airearen mugimendua, *drift*. Baino Lourdes Oñederrak ez zituen hitzak aukeratu ikerketaren munduan murgiltzeko. Bestela esanda, hitzak txanpontzat hartuko bagenu, hauek bezala, bi alderdi dituztela esango genuke: belarrietara heltzen den hots multzoa, alderdi fonikoa, eta esanahia, hots-multzoak irudikatzen duen objektua, ‘zera’. Euskaltzain berriak hitzak baino nahiago izan ditu hitzak osatzen dituzten hotsak. *Drift* kontsonantez betea, bi aurretik, bi atzetik, bokal bakarraren inguruan.

Hil honetan bete dira 45 urte musika-film arrakastatsuenetako bat estrenatu zela, *The Sound of Music*, musikaren soinua, hotsa. Musikak eta hizkettak harreman estua dute: hizketa zerbait jarraitua da, musikaren doinua, melodía den bezalaxe. Musika eta hizketa, doinuak eta hitzak aireak elkartzen ditu, eta, batzuetan, ikerketa-proiektuek ere bai (hiru urte eman ditu Lourdesek *Palabras en música: un ejercicio de lingüística contrastiva* izeneko ikerketa-proiektua lantzen). Bai hizketak eta bai musikak badute lehengaia: hotsak eta notak. Filmean bada abesti bat kantuan nola ikasten den azaltzen duena: irakurtzeko A-B-C dira hasiera / kantatzeko, do-re-mi. Notak buruan hartzean, horiek nahasiaz, hamaika doinu kanta daitezke. Notak dira kanturako lanabesak.

Notak eta letrak parekatzen ditu abestiak. Letrak irakurtzeko eta idazteko behar ditugu. Baino hizketa letren eta irakurketaren aurreko da; lehen, jatorria, hizketa da. Idaztea hizketaren adierazpenean baino ez da; hizketa denboran finkatzeko, hizketari iraunazteko modua. Eta hizketaren lehengaiak letrak ez, baina hotsak dira; edo, zehazkiago esanda, hitz egiten dugun aldi bakoitza, hizketaldia, hizkuntza jakin baten adierazpidea bada, hotsak dira hizketari dagozkionak eta *fonemak*, horien atzean dauden elementu

abstraktuak, hizkuntzarenak. Fonemak dira *hitz* eta *hotz*, *hotz* eta *hots*, *hots* eta *huts* bereizteko bide ematen digutenak. *Hitz hotzak*, *hotz hotsak*, *hots hutsak*. Haizeak, aireak ekartzen dizkigunak.

*Hasi eta hazi*, bi fonema txistukarik bereizten dituen gertaerak. Hotsen eta fonemen munduan hasi zen Lourdes Oñederra, Fonetikan eta Fonologian. Bustiduraz, palatalizazioaz egin zuen doktore-tesia Koldo Mitxelenaren zuzendaritzapean. «Urak bezala palataltasunak busti egiten du nonbait» entzun diogu euskaltzain berriari. Ordurako fonetika eskolak emana zen Iowako Unibertsitatean, irakasle laguntzaile lanetan.

*Hasi eta hazi*, Fonetikaren eta Fonologiaren alorretan aurrera egin, Deus-tuko Unibertsitateko Donostiako campusean lehenik, eta Euskal Herriko Unibertsitatean ondoren. Euskal Fonetika eta Fonología izan dira Lourdes Oñederraren irakasgiaiak 1982tik gaur arte Gasteizko Letren Fakultatean. Doktorego-ikastaroetan ere gai horietaz jardun du. Eta hortik kanpo ere hamaika hitzaldi eta ikastaro eman eta ikerlanean ere jardun du beste unibertsitate batzueta –Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, Guatimalako San Carlos Unibertsitatean, Portoko Unibertsitatean, Madrilen Zientzia Ikerketen Goi Mailako Zentroan («Centro Superior de Investigaciones Científicas» delakoan), Vienako Unibertsitateko Hizkuntzalaritza Institutuan, Grazeko Unibertsitatean, Hawaiiko Unibertsitatean ...–. Etxean eta kanpoan, aireak ekartzen dizkigun hots horien eta horien atzean ezkutatzzen diren fonemen atzetik lanean.

Bideari jarraiki, ez da harritzekoa zuzenduriko Doktorego-tesi eta graduondoko proiektuak ere Fonetika eta Fonología ikertzen zutenak izatea<sup>2</sup>.

<sup>2</sup> Agurtzane Elordui. «Hizkuntz Heriotza eta Aldaketa Morfológikoa: Hegomendebaldeko Biza-kaieraren Kasua» Doktore Tesia (1995.X.9: Apto cum laude).

Ainara Estarrona. «Bokal arteko harremanak hitz azkenean OT eta FNean», 6 kredituko ikerlana, 2004.XI.24an aurkezta. Zuzendari kide, Gorka Elordieta doktorea.

Oroitz Jauregi Nazabal. «Euskal silaba egitura». Doktore Tesia. *Sobresaliente cum Laude*, 2007. VI.22. Zuzendari kide, Joseba Lakarra Andrinua doktorea. Premio extraordinario.

Saioa Larraza. «Fonologiaren jabelekuntza eta elebidunen sistema fonologikoa», «Ahoskeraren ikaskuntza elebidun berantiarrengan: azterketa enpirikoa» ikerlanak, 6 kreditukoak, 2008. XII.01ean aurkeztuak.

Ez da harritzekoa idatzitako liburu eta artikuluetako (20tik gora) gai ohikoena Fonetika eta Fonología izatea: *Euskal Fonología: Palatalizazioa* 1990ean; *Fonetika eta Fonología hitzez hitz*, 2004an. Orobak esku artean dituenetan: *El patrón sonoro de la lengua vasca: propuesta de análisis desde la Fonología Natural*. Edo Joseba Lakarrarekin batera prestatzen ari den *Antología de la obra de David Stampe y Patricia Donegan*. Halaber nazioarteko kongresuetan aurkeztutako komunikazioetan (30etik gora).

Hizketa airezkoa da, uhinek ekartzen digute belarrietara. Baino komunikazio teknologiei esker, makinak ere belarri bihurtu dira; hizketa entzun dezakete, eta entzuten duten hots-segida hori ezagutu ere egiten dute. Baldin eta, jakina, behar duen informazioa ematen bazaio makinari lana txukun egin dezan. Horretan ere jardun du euskaltzain berriak, hizkuntzalari-taldearen buru izan baita Euskal Herriko Unibertsitateak eta Telefonicaren Ikerkuntza eta Garapeneko atalak sinatutako Ikerkuntza Proiekutan, *Diseño y adquisición telefónica de una base de datos para el reconocimiento automático del habla en Euskera*. Aldez aurretik, jakina, corpus fonetikoa diseinatu eta prestatu beharra zegoen. *Eurospeech* aldizkarian argitaratu zuten corpus fonetikoaren diseinua eta ikerketa proiektu batean landu *Corpus oral fonético y decodificación acústico-fonética para el desarrollo de sistemas de reconocimiento automático del habla en euskera*.

30 urtetik gorako ibilbidean eginiko merezimenduak handiak izanik ere, bi iker-lerro nabarmendu nahi nituzke, biak ere elkarri estuki lotuak: ahoskera arautzeko ahalegina, eta euskara bigarren hizkuntza dutenek ahoskera egokia lortzeko egindako lana.

Hizkuntza bideratu nahi duenaren lana, Hiponako Agustinek aurkitu omen zuen aingeruarena bezalatsukoa da, itsasoa putzuau sartu nahia. Eta horren barruan, entzun dugu, «ahoskeraren gaia ez da inondik ere errazena». Hizketarako erabiltzen ditugun hotsak urrutiago omen daude gure jakinaren gaineko ezagutzatik; ezin dira hiztegia bezala edo gramatika bezala

Saioa Larraza. «Elebidun berantiarren sistema fonologikoak». Doktore Tesia. (bidean).

Alejandro Wang. «Percepción fonémica del tono en chino mandarín». Trabajo de investigación del Máster en Estudios Fónicos, CSIC. (bidean).

arautu, ezta ikasi ere. Beharbada horregatik araugileek ere kasu gutxiago egin izan diote. Gogoeta horiek egin ditu Lourdes Oñederrak bere hitzaldian.

Araugileek kasu gutxiago egingo zioten (egingo genien) hotsei, baina ez gaur «ofizialki» gure artean hartzen dugun euskaltzainak. Horixe izan da bereziki Euskaltzaindian egin duen lana, bere ekarpena. Ahoskera, ebakera, erregistroak... Une eta egoera desberdinetan zein ebakera-modu den onargarri bereizi, ahoskera zainduak nolakoa behar duen ikertu<sup>3</sup>, nazioarteko kongresuetan horretaz gogoeta egin<sup>4</sup>, Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua (EBAZ) prestatu<sup>5</sup> Euskaltzaindiaren Ahoskera Batzordean eta gai horren gainean antolatutako Jardunaldieta. Eta, nola ez, Ahoskera Zainduak nolakoa behar duen irakatsi<sup>6</sup> (EHUKO Euskara Institutua antolaturiko ikastaroetan, doktorego-ikastaroetan...). Eta ildo honetan, ez da gutxienekoa EITBrentzat egindako lana. Lau urte izan zen Lourdes

<sup>3</sup> Ahoskera araupetzeaz, *Euskera* 39 (2. aldia), 1994, 1523-1526 eta *Euskera* 39 (2. aldia), 1994, 1589-1605.

Ahoskera eta arauak. Arauak eta ahoskera, BAT Soziolinguistika eta Glotopolitika Aldizkaria 27, 1998, 13-20.

Prosodiaren oraina eta ahoskera arauak, *Euskera* XLIII, 1998, 2, 439-449.

<sup>4</sup> «Speech styles and the pronunciation of Basque in TV» (Agurtzane Elorduirekin), Barcelona, 30.IX.-2.X.1991, Workshop: *Phonetics and phonology of Speaking Styles: Reduction and Elaboration in Speech Communication*, ESCA.

<sup>5</sup> «Ebakera eta erregistroak», Durango, Bizkaia. 1986, maiatzaren 30-31: *Euskaral Ebakeraz II. Jardunaldiak*.

«Ahoskera baturantz?» [ponentzia], Leioa, 1994.X.07, *Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarra* (Leioa, 1994.X.3-7).

«Prosodiaren oraina eta ahoskera arauak (II)» [ponentzia], Doneztebe, 1998.IX.25-26, *Euskaltzaindiaren IV. Ahoskera Jardunaldiak*.

<sup>6</sup> Ahoskera Batuari buruzko mintegiak: I.B.I., Iruñea (1997.X.17); I.R.A.L.E., Bilbo (1997.X.22); Gasteiz (1997.IX.5); Donostia (1997.IX.12).

«EBAZ edo Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua: nola i(ra)ka(t)s». Euskaltzaindiaren egitekoari buruzko ikastaroan. Vitoria-Gasteiz (Iparralde Gizartetxea), 2000.III.1.

«Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua». Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskararen Institutua. Leioa, 2002. 01.21 (ordu eta erdi).

Ahoskeraren irakaskuntza, UPV-EHU, Lingüística Aplicada (Interdepartamental), 1'5 kr. Dokt. ikastaroa.

Oñederra hizkuntza-aholkulari. Urte horietan, eta lehendik ere, ahoskera, ahoskera-moduak, eta, bereziki, ahoskera zaindua izan zituen langai eta kezka<sup>7</sup>.

Hizkuntza airez eta memoriaz egina dago; horixe izan da entzun dugun hitzaldiaren abiapuntua. Aireaz hitz egin dugu, baina memoria ezin dugu baztertu. Har ditzagun berriro memoriaz esandakoak:

«Entzuten duguna gordetzen dugu memorian, txikitatik, umetan entzuten ditugun lehen hitzetatik, lehen esaldietatik. Entzuten duguna gogoratzen dugu, baina gogoan duguna bakarrik entzuten dugu linguistikoki, hori bakarrik kudea dezakegu berariaz, nahita, hori bakarrik da gure hots-baliabide hitz egiteko, hiztun egitekoa betetzeko»

Eta memorian ez duguna moldatu egiten dugu. Baino, aldi berean, adin batetik aurrera hizkuntza bat ikasten saiatzen garenean, memorian ez dugun hots-multzoa (fonema-sistema) eta memorian ez dugun entonazioa, ebakera, geureganatzen saiatzen gara. Ikasi nahi dugun hizkuntza horren ahalik eta antzekoena geure ezpainenetara ekartzen. Nekez lortuko dugu guztiz geureganatzea, ia inoiz ere ez. Geure hizkuntzan dihardugunean ere, ahoskerak, entonazioak salatzen du nongoak garen; zer esanik ez beste hizkuntza batean saiatzen garenean. Batzuk trebeago, beste batzuk traketsago. Sandiak edo urliaiak «azentu handia» duela, edo «ia azenturik ez duela» esan ohi dugu, zenbateraino geureganatu dugun beste hizkuntza horretako ahoskeramoldea. Eta onartu beharko dugu oro har zabar samarrak izan garela horrelako kontuetan frantsesa edo ingelesa ikas/irakastean.

Kontu hauen garrantziaz jabeturik, aspalditik arduratu da Lourdes Oñederra kanpoko ur-lasterrak gurera ekartzeaz: maileguak nola geureganatzen ditugun<sup>8</sup>, euskara bigarren hizkuntza gisa irakasteak zer eskatzen duen

<sup>7</sup> «Ahoskera dela-eta». Euskadi Irratia. Donostia (EITB, Miramón), 1999.III.25. (2 ordu).

«EBAZ edo Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua». EITB Durango (Iurreta), 1999.IV.16. (2 ordu).

<sup>8</sup> Oñederra, M.L., Hurch, B. (1987): «The adaptation of loanwords in Basque», Berlín, abuztuan 10-15, XIV International Congress of Linguists. Akademie der Wissenschaften der DDR-ek antolaturiko kongresua.

aztertzeaz<sup>9</sup>, euskaraz jabetza nola gertatzen den ikertuaz<sup>10</sup>, beste batzuen ikerlanak zuzenduaz<sup>11</sup>, ikerketa-proiektuak koordinatuaz<sup>12</sup>. Euskaraz zer gertatzen den, eta, eleaniztasunaren aldeko apustua egina duen gizarte honetan, ingelesa hirugarren hizkuntza gisa geureganatzean zer gertatzen den<sup>13</sup>, edo ingelesdunek gaztelania nola bereganatzen duten<sup>14</sup>:

«Behar bezala ikasi den eta aski erabiltzen den hizkuntzaren ahoskerak ez du ezer galtzen beste hizkuntza batekin edo gehiagorekin bizi zeagatik, hiztunak baliabideak irabazten ditu.

Beraz, erabiltzeaz gainera, behar bezala ikasi behar da» (*Drift*)

Oñederra, M.L., Etxeberria, P., Hurch, B. (1987): «Loanwords In Basque: phonetics and phonology», Donostia-San Sebastián, abuztuaren 30a – irailaren 4a, II. Mundu Biltzarra. Eusko Jaurlaritzak antolatua.

Oñederra M.L. (2009): Early bilingualism as a source of morphonological rules for the adaptation of loanwords: Spanish loanwords in Basque. *Loan Phonology*. Andrea Calabrese / W. Leo Wetzel, eds. John Benjamins, 193-210. (in press).

<sup>9</sup> Teaching Basque as a second language, *Journal of Basque Studies* IV. Indiana University Press, 1983, 47-54, rpt. *First International Basque Conference in North America*. Proceedings. California State University-Fresno. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1985.

<sup>10</sup> <Euskararen jabekuntza: azterketa linguistikoa>, Eusko Jaurlaritzak diruz babestutako ikerketa proiektuaren koordinazioa (1996-1997).

<sup>11</sup> Saioa Larraza «Fonologiaren jabekuntza eta elebidunen sistema fonologikoa», «Ahoskeraren ikaskuntza elebidun berantiarrengan: azterketa enpirikoa» ikerlanak, 2008.XII.01ean aurkeztuak. Saioa Larraza. «Elebidun berantiarren sistema fonologikoa». Doktore Tesi. (bidean).

<sup>12</sup> <Egungo euskal ahoskeraren analisia: gaztelera eta frantsesarekiko elkar-ukituen azterketa> Ikerketa Proiektuaren Koordinazioa. UPV-EHUk diruz lagundua. Iraupena: 1.XI.2000-31.X.2002. Erref.: UPV-HA-8025/20.

Coordinación de la sección española del Proyecto de Cooperación entre España y Austria (Acciones Integradas) <Adquisición de la morfología en la primera infancia>, en colaboración con el Instituto de Lingüística de la Universidad de Viena y la Universidad de Salamanca. Resolución de 17 de enero de 1994, Dirección General de Investigación Científica y Técnica del Ministerio de Educación y Ciencia (BOE del 1 de febrero de 1994).

<sup>13</sup> La adquisición del inglés como tercera lengua: un estudio longitudinal>. Ministerio de Educación y Cultura, DGESIC (resolución 9.IX.1998). Duración: 1.X.1998 – 1.X.2001. Investigadora principal: María Asunción Cenoz Iragui.

<sup>14</sup> Ikerketa anglofonoei espainiera irakasteko metodologien gaineko ikerketan laguntzaile, Iowako Unibertsitatean, Graduate College, Department of Spanish and Portuguese, 1980ko abuztuaren 26tik, 1981eko maiatzaren 15 arte.

Baieztapen biribila, egindako lan guztiaren arrazoia eta zergatia.

Hizkuntza, baina, «airea bezala, ura bezala, etengabeko mugimenduan dago, batzuetan nabaritzen ez bada ere. Hizkuntzaren etengabeko aldaketa, mugimendua, ur lasterrena bezalakoa, airearena bezalakoa. Hotsa, ura bezala, uhinetan mugitzen da». Aldaketa horrek merezi du azterketa, jakina<sup>15</sup>.

Airea, ur-lasterra, berdin dio nongoa den; geurea den, geureganatu nahi duguna, edo ingurukoena, ingurukoek bereganatu nahi dutena<sup>16</sup>. Berdin dio noizkoa den. *Drift* horixe da euskaltzain berria liluratu zuena. Erosoagoak ziren bideak baztertuaz, unibertsitateko eta ikerketako ur-lasterraren bideik abiarazi zuena. Horretan iraunarazi diona.

Hizketa hotsez egina da, baina hots horiek letra bihurtzea ohikoa zaigu. Eta letrekin hitzak osatzea, eta hitzekin perpausak, eta perpausekin testuak. Literatura. Sapir-ek kapitulu bat eskaintzen dio *Language* liburuan Hizkuntzaren eta Literaturaren arteko harremanari, hizkuntza baita azken batean literaturaren lehen gaia.

Pentsamenduaren berri emateko sistema hutsak baino zerbaite gehiago dira hizkuntzak Sapir-en iritziz. Adierazpen sinboliko guztiei forma jakin bat, aldez aurretik definitua dagoen forma emateko baliabidea da hizkuntza, «gure espiritu biltzen duen jantzi ikusezina». Adierazpen sinboliko horri, balio berezikoa denean, *literatura* deitzen omen diogu, nahiz hizkuntzalari amerikarrak berak onartu ez lukeela jakingo zerk merezi duen zehatz-mehatz «literatura» izena. Hala ere uste du guztiok dakigula zer den literatura. Nik ez dakit guztiok dakigun ala ez zer den literatura, baina argi dago ...eta *emakumeari sugeak esan zion*<sup>17</sup>, lehen gaia hizkuntza izanik, balio berezikoa adierazpen sinbolikoa dela. Hala aitortu diote irakurleek, hala aitortu diote espresuki 1999. urteko Beterriko Liburu aukeratua izateak, 2000. urteko

<sup>15</sup> Estudio de la lengua vasca hablada en territorio francés: diacronía y sincronía del sistema fonológico. Centre National de la Recherche Scientifique, Centre IKER, UMR-5478, Bayona. Ikerlana. Oñederra, M.L. (2009): «Diacronía y motivación fonética». *Romanística sin Complejos. Homenaje a Carmen Pensado*. Fernando Sánchez Miret, ed. Peter Lang, 47-67.

<sup>16</sup> Alejandro Wang. «Percepción fonémica del tono en chino mandarín». Trabajo de investigación del Máster en Estudios Fónicos, CSIC. (bidean).

<sup>17</sup> Oñederra, M.L. (1999): ...eta *emakumeari sugeak esan zion*. Erein.

Euskadi de Plata sariak, urte bereko Kritikaren Sariak, Literatura Sari Na-zionaletan izateak edo Euskadi Literatura Sariak.

Balio bereziko adierazpen sinboliko gehiago ere utzi dizkigu Lourdes Oñederrak, ipuinak, «Txano Gorritxo», «Anderson Anderearen Gutizia», «Beranduegi»<sup>18</sup>.

Literaturaren lehen gaia hizkuntza izateak, bestalde, badu zerbait, ez da kit ifrentzua, iruntzia ala ahurra; nolanahi ere ‘beste aldea’. Hizkuntza bakoitzak omen du bere moldea, trokela, bere kolorea, bere ehundura (hala diosku Sapir-ek). Horrexegatik, literaturak ere, jatorrizko hizkuntzaren araberakoa du moldea, kolorea eta ehundura. Beraz, nola isuri beste molde, bateko hizkuntza batera? Nola itzuli? Nola lortu literatura lan jakin bat, beste kolore eta ehundura duen hizkuntza lehen gai izan arren, balio bereziko adierazpen sinboliko izatea, literatura izatea?

Benedetto Croceren iritziz literaturako artelana itzulezina da. Bain guztiok dakigu literatura lanak itzuli egiten direla eta, batzueta, bikain gainera. Sekretua, gakoa, ziurrenik, Sapir-ek dioen bezala, edukia eta forma bereiztean aurkitu beharko dugu. Eduki bera ematen asmatu, baina lehen gaia beste hizkuntza bateko trokela, moldea, kolorea, ehundura izanik. Honetan ere trebe ibili da euskaltzain berria Patrick Süskind-en *Die Geschichte von Herrn Sommer* itzultzean, *Sommer Jaunaren Istorioa*<sup>19</sup>. Katalanek, taularatzeko egokituzten kontakizuna, Lourdes Oñederrak itzuli eta Jose Ramon Soroizek antzeztu.

Haizearen eta uraren joan-etorrian bezala, Lourdes Oñederraren beraren nobela eta ipuinak ere beste hizkuntza batzuetako moldeetara isuri dira, gaztelaniara, ingelesera, errusierara, zein italierara<sup>20</sup>.

<sup>18</sup> Oñederra, M.L. (2000): «Txano Gorritxo (...), Pagourte, 22 or.

(2000): «Anderson Anderearen Gutizia». *Gutiziak*. Miren Agur Meabe, arg. Txalaparta, 167-176. (Baita ere *Mende berrirako ipuinak*. Erein 2005, 135-143).

(2003): «Beranduegi». *Begiz Jotako Ipuinak* Centro Ordóñez-Falcón de Fotografía (COFF), 15-21.

<sup>19</sup> Oñederra, M.L. (2007): *Sommer Jaunaren Istorioa*. Patrick Süskind-en *Die Gesichte von Herrn Sommer*-en itzulpena. Erein.

<sup>20</sup> Oñederra, M.L. (2000): ...y la serpiente dijo a la mujer. Bassarai.

And the serpent said to the woman, Center for Basque Studies, University of Nevada, Reno (in press).

Hizkuntzak hiztunak behar dituela esan diguzu (hizkuntza bazkatzeko ez baitago «erabilera bera baino elikadura aproposagorik») eta, hiztunek, argi pixka bat eta lasaitasun asko, urak bere bidea egin dezan.

Eskerrik asko, Lourdes, urak bere bidea egin dezan egindako lanarengatik eta oraindik egiteko duzunarengatik. Eskerrik asko, sarrera-hitzaldiari erantzuna emateko eskatuaz gaurko ekitaldian, Kontxako olatuen hotsen artean, zure «ama ponteko» egin nauzulako. Zorionak Lourdes, ur-lasterraren dama, ongi eterri Euskaltzaindira.

---

(2004): «Mrs Anderson's longing» *An Anthology of Basque Short Stories*, compiled by Mari Jose Olaziregi, Reno: Center for Basque Studies, University of Nevada, 175-184.

(2005): «El capricho de la señora Anderson» *Pintxos. Nuevos cuentos vascos*, Mari Jose Olaziregi, edit., Madrid, Lengua de Trapo, 129-139 / Traducción al italiano, Editorial Gran Via / Traducción al ruso (2006 pp. 171-184).

**Patxi Uribarren Leturiaga**  
**Euskaltzaindian sartzea**

Aramaio, herriko parroquia-eliza, 2010-V-28



# Ondoetorria

AGIRRE, Asier  
Herriko alkatea

Arratsalde on eta ongietorri Aramaiora, Euskaltzain guztiok eta herritar nahiz kanpotik eterri zaretenok.

Baina gaurko egun honetan ongietorri berezia luzatu nahi diot herri osoaren izenean, Patxiri, Esteban eta Karmenen semeari, Aramaioko seme kuttunari.

Ongietorri ba, eta guztiion partetik zorionak!

Etxanen (Etxaguen) gau eskolekin hasi zinenetik urte batzuk igaro dira, ezta? Ba begira, harri bitxi bezala gordetzen dugu Udaletxearen 1973an eginiko lan bat, argitaratu gabea, seguruenik oso gutxik ezagutzen dutena, eta bertan jartzen duen bezala «gure euskara eta kultura aberasteko asmotan eginikoa»... Bai, batzuk igarriko zenuten Aramaioko lehendabiziko toponimia bilketaz ari naizela, Patxi Uribarrenek eginikoa, lizentziaturarako azterketa lan bezala.

Urteekin, jakinduriaz, espezializatzen joan zara eta goimailako emaitzak eskaini dizkiguzu; horra hor Gogoz eta Karmel aldizkarietan egin dituzun kolaborazioak edota *Bostak bat Kultur elkartea*rekin argitaratutako hiztegiak, adibidez. Badakigu gainera Aramaioko herriak behin baino gehiagotan primizian jaso dituela lan horiek, zuri esker!

Aramaiotik kanpo, Etxan (Etxaguenen) zure auzotik kanpo, asko ibilia zara, baina beti izan duzu Aramaio herriarekin lotura estua. Sarritan ikusten zaitugu hemen, familia bisitatzen eterria, ospakizunetan, eta abar. Zure

sarrera-hitzaldia hemen, Aramaion egiteak ere badu esanahai berezia zuretzat, badakigu, baina baita guretzat ere, herri osoarentzat.

Euskararen alde egin duzun lanak aditu bihurtu zaitu, eta merezi duzun tokia egin dizute Euskaltzaindia bezalako erakundean, miresgarria da benetan! Zorionak, horregatik!

Eskerrik asko, gainera, zure izenarekin batera Aramaio izena ere zabaldu duzulako, herri euskaldun bezala, Euskal Herrian eta hemendik kanpo. Harro gaude lortu duzunarekin eta harro gaude gaur hemen gu guztiok bildu gaituzulako: zure lankideak, familiartekoak, lagunak, eta zenbait herritar.

Mila esker denoi eta gehiago luzatu gabe, nire ondotik datozenei hitza ematea baino hoberik ez.

Egun emankorra izan dezagula,

# Agurra

URRUTIA BADIOLA, Andres  
Euskaltzainburua

Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailburua,  
Nafarroako Gobernuko Euskarabidearen burua,  
Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura diputatua,  
euskaltzainak,  
Patxi Uribarrenen etxekoak,  
karmeldarrak,  
*Karmel* aldizkariko adiskideak,  
Aramaioko alkatea eta zinegotziak,  
aramaioarrak,  
jaun-andreak,  
Arratsaldeon.

Oraindik gogoan dut mila bederatziehun eta hirurogeita hamabigarren urteko irudia, Bilbon, Karmeloko gau-eskolan. Hizlari, Patxi Uribarren eta Karmel Etxebarria. Entzuleen artean, orain hitz egiten ari zaizuena. Gaia, euskararen irakaskuntza antolatzeko modua. Hitz laburrak entzun eta gero, bakoitza bere ikasgelara, Xabier Kintana izeneko batek *Ukronia* izenburua-rekin idatziriko ipuina irakurtzera, ariketa legez.

1984. urtean, aldiz, *Karmel* aldizkariaren idazleek bilera egin genuen Zornotzako Larrean. Horra nire bigarren irudia Patxi Uribarrenena, Julen Urkizaren zuzendaritzapean.

Gero, etengabeko harremanak izan dira bion artean, eta, argi dezadan, beraren ingurukoekin ere: Luis Baraiazarrarekin eta Karmel aldizkariaren beste idazleekin. Azpimarra ditzadan, orobat, Bizkaiko Foru Aldundian egin duen itzultzale-lan bikaina, eta bere zereginak lexikografiaren arloan, *Bostak Bat Kultur elkartearren* barruan.

Patxi, bestalde, euskal idazle arabarren eta aramaioarren zerrendan sartzen da bete-betean, lurrealde horrek euskararekin duen konpromisoa berretsziz.

Ezin bazterrean utzi, nolanahi ere, Patxiren jokabide etikoa eta haren kristau-bokazioa, bi-biak egoki uztartzen jakin baitu gure Patxik.

Euskaltzaindiak aspalditik ezagutzen du Patxi Uribarren euskaltzain ur-gazlea. Orain bera aitortu egiten du eta euskaltzain oso bihurtu, ziur gaude-lako haren ekimena eta gizalegea, onuragarriak ez ezik, eredugarriak ere izango direla Euskaltzaindiarentzat eta euskalgintzarentzat.

Mila esker, amaitzeko, Aramaioko herriari, betidanik euskarari, euskal kulturari eta Euskaltzaindiari eskaini eta eskaintzen dion harrera gozo bezain beroarengatik. Beste horrenbeste Aramaioko parrokiari, gaur eliza eder hau ekitaldia egiteko uzteagatik.

Orain joan bitez Sagrario Aleman eta Miren Lourdes Oñederra euskaltzain osoak, eta ekar bezate guregana, sarrera-hitzaldia egin dezan, Patxi Uribarren jauna.

# Izan zirelako gara, eta garelako izango dira

URIBARREN LETURIAGA, Patxi  
Euskaltzain osoa

Jaun andrek: agur t'erdi.

Bihotzez agurtzen zaituztet Euskal Herriko zazpi probintzietatik Ara-maioko ekitaldi honetara etorri zareten guztiok, nire mintzaldi, berbaldi, hitzaldi, prediku edo sermoi honi hasiera eman aurretik.

Euskaltzaindiaren ohiturari jarraituz, lehenengo, aukeratua izan nin-tzenetik betetzen dudan aulkia bete izan zuen **Henrike Knörr Borràs (1947-2008)** jaunari buruz mintzatuko naiz.

Euskaltzaindia 1919an Euskal Herriko euskalki eta lurralte guztiak ordezkatzen asmoz sortua izan ostean, urte horretako irailaren 21ean auke-ratu zuten Arabako ordezkari izateko jakituria handikoa zen **Raimundo Olabide Carrera**, gasteiztar euskaldun berria, hain zuen ere, Euskaltzainen arteko 11. aulkia betetzeko.

1942an atzerrian hil zenean, haren lekua betetzeko Aingeru Irigarai jauna izendatu zuten, Araba ordezkaririk gabe geratuz. Eta horrela 1975ean, Antonio Arrue jauna hil zenean Henrike Knörr Borràs jauna izendatu zuten arte. Honek Antonio Arrue jaunaren aulkia bete zuen, hau da, 18.ena. Hori izango da nik, Hernrike

\* \* \*

Knörr jaunaren ordez aurrerantzean izango dudana.

Henrike Knörr Borràs Tarragonan jaio zen. Zazpi urte zituela Gasteize-ra etorri eta euskara ikasi ondoren, euskaraz irakasteko urratsak eman

zituen. 1975ean euskaltzain urgazle izendatua izan zen, eta handik bi urteera euskaltzain oso. Filosofian lizentziatura, Euskal Filologian Doktorea eta Euskal Unibertsitateko katedraduna izan zen. Gasteizen Euskal Filología abian jartzeko lanetan parte hartu zuen. Gero, urteetan bertako irakasle izan zen heriotza-egunera arte. 1977an Euskaltzain oso izendatu zutenetik, etengabeki jardun izan zuen euskararen alde lanean Euskaltzaindian nahiz bertatik kanpo.

Oso zaila da Henrikek burutu zuen lanaren laburpena egitea, oso handia eta ugaria izan zelako! Antzinako jakintsuek izan ohi zuten jakintza entziklopedikoaren jabe zela esanaz laburbilduko nuke. Bera izan dugu azken mende erdi honetan Arabako euskararen lekukorik eta eragilerik nagusiena.

*Sancho el Sabio* Fundazioak argitaratutako Henrike Knörr-en bibliografia honako datu hauek eskaintzen zaizkigu: 38 liburu idatzi zituela, eta beste 23 liburutan partaide izan zela. Horrez gainera 227 idazlan baino gehiago idatzi zituela, horietatik 79 Euskaltzaindiaren *Euskara Agerkarian*, Euskaltzaindiari begirune eta fidelitasun handia erakutsiz.

Ezagutu zenuten guztiok dakizuenez, jendearekin harremanetan jarduteko aparteko dohainak zituen. Hori zela-eta hartu zuen parte hainbeste jardunaldi, kongresu, nazioarteko bilera eta halakoetan. Hizkuntzen ezagutzak ere ateak irekitzen zizkion horretarako guztirako. Oso aditua zen, besteak beste, Onomastika eta Toponimia alorretan. Euskaltzaindian hainbat kargu izan zituen. Buruordea ere izan zen 1996an. Urteetan zehar nabaria izango dugu Araban hark utzitako hutsunea.

Nik, Enrike Knörr jauna, politika alorreko jardunean ezagutu banuen ere, 1977tik aurrera harreman estuak izan nituen berarekin, batez ere Bilboko Irakasle Eskolan irakasle lanetan ibili nintzenean. Beraren eta beste askoren ahalegin handiz Gasteizen sortu berri zen Euskal Filologiako Fakultatera eraman nahi izan ninduen, baina garai hartan, Irakasle-Eskolako lanetan gainera, 1.000 ikasle inguru biltzen zituzten Santutxuko gau-eskolen ardura nuen, eta ezinezkoa nuela erantzun nion.

Geroago, bide desberdinak ibili ginen. Bera Unibertsitatean eta ni Bizkaiko Foru Aldundiko itzultziaile lanetan. Eta, nola ez, gutxitu egin ziren

harremanak ere. Hala ere, urtean zehar hainbat alditan elkar ikusten genuen, batez ere Euskaltzaindiko ageriko ekitaldietan.

Henrike Knörr Borràs jauna, hemen, Aramaion, gogoratzean, bestalde, ezin aipatu gabe utzi hark herri honi zion begirunea eta maitasuna. Ahalegin handiak egin zituen Unibertsitatearen udako ikastaro trinkoak hona ekartzen. Irakasle ere izan zen ikastaro horietan.

Beraz, nire esker ona agertu nahi diet zuen aurrean berari eta bere familiaok, neure eta Aramaiko herriaren izenean.

\* \* \*

### **Izan zirelako gara, eta garelako izango dira**

Hitzaldi honek euskarari buruzkoa izan behar duenez, eta Euskaltzaindiaren helburua euskararen normalizazioaren eta iraupenaren ardura izanik, egokitzat jo dut transmisioari buruzko gogoeta batzuk egitea.

Joan zen urtean, Euskaltzaindiaren 90. urteurrenena zela eta, Araabako Aldundian izandako hitzaldi laburrean, honako hau gogoratu nuen: «Beste zerbait ere gogora ekarri nahi nuke, arloa aztertzen hasi aurretik, hots, “gizakiok une eta toki zehatz batzuetan bizi izaten garela”, eta, horrek sakonean baldintzatzen duela gure ibilbide historikoa. Tokiak eta uneak izugarritzko eragina izan ohi dute bizitzan eta, zer esanik ez, izan du eta du euskararenean ere. Egin-eginean ere, euskara, une historiko batean lurralte zehatz batean bizi izan den gizakiaren komunikabide tresna garrantzitsuena dugulako.

Guztiok dakigu, euskararen ibilbide historikoa Euskal Herriko Herrialde desberdinetan mamitu izan dela historian zehar, hainbatean lurralte bakoitzak dituen berezitasunek baldintzatuta. Hori horrela, Arabako euskararen historia ere bertako geografiak eta bilakaera historikoak baldintzatuta ageriko zaigu. “gizakiok une eta toki zehatz batzuetan bizi izaten garela”, eta horrek baldintzatzen duela gure bizitza gogoratu nuen. Izan ere, lurralte bakoitzeko geografiak eta demografik baldintzatua izaten da. Aramaion ere hala gertatu dela uste dut.

Beraz, gogora ekar dezagun edozein hizkuntzak, bizirik iraun ahal izateko, ezinbestekoak dituela lurraltegia eta gutxiengoko hiztun kopurua. Faktore bi

horiek baldintzatzen dute bere ibilbide historikoa. Honetan, adibiderik argiena, latinarena dugu. Hiztun kopuru handia izan, eta mendeetan goimailako zereginetan bizirik iraun arren, lurraldetasuna galtzean gainbehera etorri zen. Esperantoaren kasua ere antzekoa dugu. Lurralderik ez izatean, ahaleginak egin diren arren ez du gizartean errotzerik lortu.

Gai hau aukeratzena MENDEBALDE Kultur Elkarteak 2009an Bilbon antolatutako XIII. Jardunaldian eskaini zigun «Transmisinoa eta erabilerea» mezuak bultzatu ninduen. Bertan, besteak beste, hizkuntzaren transmisioa, pertsonon bizitzako hiru unetan gauzatzen dela gogoratu zitzaigun: hots, etxe-auzoko bizitzan, ikasketa-garaian eta lan-munduan. Hori horrela, nire bizitzako momentu zehatz batzuk kontuan izanik jardungo dut.

Bestalde, psikologiak diosku pertsonon izaera, zeharo taxututa edota finkatuta geratzen dela, hainbatean, sei, zazpi edo zortzi urte bete orduko. Hau da, bizitzako lehen urte horietan jartzen ditugula gure geroko norabideen oinarriak. Adin horretan bideratuta geratzen omen da, gure nortasuna. Hortik, txiki-txikitako urte horiek duten garrantzia!

Guzti hori kontuan izanik, nire jardun honetan Aramaioko nire jaioterran euskarak azken mendean egin duen ibilbide luzeko ikuspegia zabala jarri nahi dizuet aurrez aurre: **nondik gatozen, non aurkitzen garen, eta norantz goazen.** Eta hori, ekitaldi hau berba gozoetan, asmo ederretan edota elkartasunezko harreman hutsetan gera ez dadin.

Eta, hasteko, Felipe Arrese-Beitia olerkariaren harako olerki ospetsuko lehen ahapaldia aipatu nahi dut, oso egokia baita hemen gauden askoren bizitzako ibilbideak argitzeko:

Euskaldun jaio nintzan,  
Euskalduna azi,  
Euskara utsik amak  
Eustan irakatsi;  
Euskara maite maite  
Zabiltz neugaz beti,  
Euskara ill ezkero  
Ez dot gura bizi.

Zerbait gehiago (fede) ezarriko nioke nire kasuan. Olerki honek bete-betean laburbiltzen du nire bizitza, eta dudarik gabe hemen gaur nire ondoan bildu zareten askorena ere bai. Azken batean euskarak bildu gaitue-lako hemen Euskal Herriko Herrialde guzietako jendea. Euskara dugulako Euskaltzaindiaren izaeraren zergatia. Euskarak definitzen duelako gure herria «Euskal Herria».

## 1. Aramaio: kokapen geografikoa eta euskara

Gorago esan dut «pertsonok une eta toki zehatzetan bizi izaten garela». Beraz ezinbesteko dugu, binomio horren inguruan dantzatzea. Izan ere, toki geografiko eta denbora historiko zehatzean bizi izate horrek baldintza-tzen ditu, hainbatean, egunetik egunera hartu ohi ditugun bizitzako erabakiak eta jardunak.

Ez da, baina, nire asmoa Aramaiori buruzko datu geografiko edo historikoetan kateaturik mataza nahasia askatu ezinda jardutea. Ezta bertako euskarari buruzko datuetan nahastea ere.

### 1.1. Kokapen geografikoa

Aramaio honela agertzen zaigu Udalak plazaratutako mapan:

Populazioaren banaketari buruz, gogoan izan behar dugu Aramaioko udalerria 9 auzok osotzen dutela, zenbait auzotan entitate txikiagoak, auzu-neak deituak ditugularik. Kanpotarrak harriturik geratu ohi dira auzoetan elizaren ondoan kanposantuak ikusterakoan. Baino hori antzinatik datorren zerbaite dugu, hau da, elizateak izatean. Antzinako antolamendu bereziaren hondarrak dira.

Hori horrela, ez da harritzeko, Bizkaiko hainbat herrian ez bezala, Aramaion, mendez mende, gaur egun arte, inolako etenik gabe *Bizkaiko foruak* indarrean izatea. Oso laburpen interesgarria egiten du *Aramaioko euskara* liburuaren sarreran Txipi Ormaetxeak ere, daturik esangura-tsuenak eskainiz.

Halako datu batzuk gogora ekarri nahi ditut, asko direlako oraindik Euskal Herrian zehar Aramaio non dagoen edota herri euskalduna dela ez daitenak. Niri ere, hainbatetan jazo izan zait, arabarra eta jaiotzatik euskalduna naizela esatean, harriturik ea Araban halako herriko dagoen galdetzea. Gehienetan, hain ezagunak ditugun Arrasate, Anboto, Urkiola, Otxandio aipatz azaldu behar non kokatzen den herri hau.

Udaleko laburpenean aipaturiko auzo guzti horien artean Ibarra ekarri behar dugu gogora. Eta ez bakarrik gaur egun populazio-multzorik handiena bertan delako, hainbatean Aramaio osoko euskararen historia baldintzatu duelako baino. Aramaioko auzoetako bideak, *Untzilla* auzoa apartetxo geratzen dela, *Ibarran* batu izan dira azken mendeetan. Horrek ekarri du udala kokatzen den auzo honen nagusitza administratiboa eta estrategikoa.

Baina, ez bakarrik hori. Hemeretzigarren mendean hasi, eta hogeigarrenean indarrean izan den irakaskuntza-gune nagusia ere *Ibarra* izan da. Beste auzoetan ez zegoenez eskolarik Ibarra zen zentro bakarra. Bertan batzen ziren auzo guztietako ikasleak. Horrek, jakina, immigrazio handirik izan ez arren, aldian-aldian gaztelania indartzea eta euskarari langak jartzeara ekartzen zuen. Bertan, Gipuzkoako mugan izatearen ondorioz, gerra ostean urteetan zehar kuartel handi bat egotea ere, herria erdalduntzeko bide gertatu izan da.

Laburbilduz, Aramaio, historian zehar, Arabatik Gipuzkoara eta Bizkaira joateko bidegurutzea izan dugu. Lehenago harreman estuagoak izan zituen Bizkairekin, eta bertako foruak gaur arte indarrean izan ditu. Une honetan lotura estuagoak ditu Gipuzkoako Debagoieneko herriekin.

## 1.2. Euskara mota

Txipi Ormaetxea hizkuntzalariak bere *Aramaioko euskara* liburuan, bertako euskararen berezitasunik nagusienak eskaintzen dizkigu, eta honako hau diosku:

«Ez dago zalantzarak: Aramaioko euskara gaur egun mendebaleko euskara deitzen den euskalkian sartu behar dugu. Edo orain arte deitu izan den bizkaiera euskalkian».

Liburu horretan, Aramaioko azpieuskalkia bizkaieraren edo mendebaldeko euskararen Debarroko azpieuskalkiaren barruan, Debagoiena osotzen duten herriekin (Oñati, Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate) bat eginda ageri da. Behar bada, Aramaioko euskarak badu beste lehengusu txikiren bat edo beste Debarrotik kanpo ere. Esaterako, interesgarria genuke Aramaioko euskara eta Markina aldekoa konparatzea. Nire uste apalean Debarrotik haratagoko loturak ditu bertako azpieuskalkiak.

Debarroan hiru multzo ageri dira: Aramaio barru duen Debagoiena (Oñati, Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Aramaio), Debaerdikoa (Antzuola, Bergara, Soraluze, Eibar, Elgeta, Ermua eta Zaldibarko Eitzaga auzoa) eta Debabarrena (Elgoibar, Mendaro eta Mutriku). Beste zerbait ere esaten digu:

«Beraz, Aramaioko euskara ondoan dituen Gipuzkoako herrietako euskararekin dator bat, nahiz eta desberdintasunak ere badiren».



Ikerketa sakona egiten duen arren, ez dugu oraindik Aramaioko euskarari buruzko lan osorik. Horretarako, aipatutako lan horretaz gainera, Pedro Pujana eta Pedro Irizar jaunek egindako aditz-bilketak, Gotzon Garatek bertan jasotako datu ugari eta interesgarriak, *Euskararen Hizkuntza Atlasa* prestatzeko bertan burututako grabaketetako datuak, toponimiak eskaintzen dizkigun zenbait argigarri, Gabirel Jauregiren euskara, eta beste hainbat berri bildu beharko ditugu.

Oletako kasua, bestelakoa da. Oso interesgarria, gainera. Aparteko garrantzia du bertako euskarak, Otxandioko eta Ubidekoarekin batera, antzinako Arabako lautadako euskararen lekuko bakarra dugulako. Orain bertan egiten den euskara eta antzinako idatzizko testigantzak konparatuz iluntasun asko argituko genituzkeela uste dut. Beraz, beranduegi izan baino lehen zerbait egin beharko dugu bertan.

## 2. Euskararen XX. mendeko ibilbidea Aramaion

Aurreko datuak abiapuntu ditudala, eta hizkuntzaren transmisioa une eta toki historiko zehatzetan gauzatzen dela kontuan hartuz, euskarak hogeigarren mendean Aramaion (**gainbarrua** deitzen dugun alde honetan) egin duen ibilbideari buruzko datu nagusiak gogoratu nahi ditut lan honetan. Ikuspegi orokorra eskainiko dizuet ez dugulako gehiagorako astirik.

### 2.1. Gerra aurreko egoera

Aramaion, Euskal Herriko beste zenbait herrian bezala, euskara izan da bertako berezko hizkuntza. Bertako seme-alabak euskaraz bizi izan dira. Horrela izan zen hogeigarren mendeko erdialdera arte. Hala ere, ondo badaki-gunez, hemeretzigarren mendean erdal eskolak abian jarri zirenetik, bertako heziketa eta administrazio-harremanak gaztelaniaz burutu izan dira oraintsu arte. Hori horrela izan arren, irakaskuntzak ez zuen gaur egun duen garantzirik. Ezta antzekorik ere.

Gasteiz inguruko herriak, hiriburuaren eraginez, XIX. mendearren erdialdean hasita, erdaldunduz joan ziren arren, Aramaiok euskaldun izaten jarritu zuen. Hainbatean, jendea elizateetan bizitzeak ateak itxi zizkiolako erdarari. Elizate horiek garrantzi handia izan zuten historian zehar.

Alderantziz, bertaraino heldu zen hemeretzigarren mendearren amaieran hasi eta hogeigarren mendearren lehen aldian zehar indartuz joan zen euskaltzaletasunaren eta abertzetaletasunaren garra. Horren lekuko ditugu bertan 1899an ospatutako lore jokoak ere. Gerra aurrean, inguruko herrietan sortutako euskal mugimenduak sustrai sendoak zituen bertan. Gerrak eta ondoko errepresio frankistak, baina, ondotxo dakigunez, goitik behera aldatu zuen ibilbide hori.

Gerra-ondokoa naizenez, beharrezkotzat jo dut gerrak ekarri zuen txiki-zioa gogora ekartzea. Lekuko aparta dugu Gabirel Jauregi karmeldar aramaioarra. *Fisia* eta *Kimia* idatzi aurretik gogor jardun izan zuen *Karmengo Argian* natur zientziei buruzko lanak, eta bestelako hainbat argitaratzen. Badakigu harreman estuak izan zituela Aramaorekin. Gerrak, zorionez, bertan harrapatu zuen Arexolako jaietan. Abertzale eta euskal idazle zelako salatua izan ondoren, estu eta larri igaro zituen hainbat hilabete, hemen, Aramaion. Gasteizen berarekin aitortzen zen militar baten alabari esker salbatu zen.

Gerrak eta ondoko urteetako diktadura frankistak, izugarritzko errepresioa eta kaltea ekarri zioten Euskal Herriari eta euskarari. Ez dugu ahaztu behar euskararen alde lanean ari ziren hainbat herrigizon eta apaiz fusilatuak izan zirela; eta atzerrira joatea lortu ez zuten askok eta askok kartzela zigor gogorrak jaso zituztela. Esaterako, Oletako semea zen Aita Leon Aranguren karmeldarrak, heriotza-zigorra ezarria izan ondoren, bederatzi urte egin zituen kartzelan.

*Karmengo Argia* aldizkariko zuzendari izan zen Lino Akesoloren eta lagunen epaiketan argi geratu zenez, euskararen alde lan egitea, sermolari-tza-zereginetan euskaraz jardutea, euskal aldizkariak bultzatzea edota halakoetan lankide izatea delitu larria zen. Zigor handia mereziz zuen delitua, nonbait. Nahiko izaten ziren, gainera, susmo hutsak zigor gogorrak jasotzeko.

Gaur egun ere ikusi berri dugu halakorik, *Egunkaria*, *Egin* eta beste hainbat kasutan, demokrazia garaietan bizi garela behin eta berriro aldarrikatzen diguten arren. Sarritan, oinarritzko giza eskubideak ere ez direla errespetatzen dakusagu. Historiak argi agertzen digu beti antzera jazo izan dela kolonizazio egoeratan!

Euskarak izugarrizko zartada jaso zuen, bada. Bat-batean moztu edo urkatu zuten ahalegin handiak eginez berpizten ari zen euskararen aldeko mugimendu osoa. Euskararen landa berdea goitik behera urratu zuten, basamortu gorri bihurtuz. Euskaraz hitz egitea bera ere, hainbat kasutan delitu bihurtzeraino.

Sarritan ahaztu egiten da hau guztiau, gerra osteko hainbat euskaldunek seme-alabak euskaraz hezteko nahiz euskarari eusteko egin zituzten ahaleginak gutxietsiz edota behar den adina ez baloratuz. Euskarak mespretxu ugari eta pertsekuzio gogorra jasan zituen. Beraz, ez dezagun ahaztu, euskarra gaur egungo egoera larrira, neurri handi batean, gerra ondoko errepresio horren ondorioz eterri dela.

## 2.2. Gerra ondoko iraupen-urteak: 1940-1960

Garai horretan, auzoetako gehienak elebakarrak ziren, erdara apurren bat jakin arren. Gehienak, eskolara joandako egun gutxietan sinatzen edo zertzobait gehiago ikasitakoak, edota soldaduskan gaztelania apur bat lortutakoak. Elizan bertan ere, latina zenez liturgia hizkuntza, kristau-bidea, azalpenak, hitzaldiak, aitortzak, kantuak, den-dena euskara hutsean izaten zen. Sarri pentsatu izan dut neure artean zer gertatuko ote zen Euskal Herriko herri euskaldunetan, euskararen ageriko erabilera hainbatean debekatua izan zen gerra osteko errepresio-garaietan latinik izan ez bagenu. Behar bada, erlijioak sasoi haietan zuen indarra kontuan hartuz, gaztelania bazter guztieta eramateko bide izango ziren gure elizak. Honetan, beraz, ez zigun kalterik ekarri une larri hartan latina erabiltzeak!

Hala, bada, nire umetako garaian, Aramaioko euskararen egoera gaurkoa ez bezalakoa zen. Batetik, populazioari begiratuz, «kalea» deitzen

dugun Ibarran baino jende gehiago bizi zelako auzoetan. Eta auzoetako bitzitza oso-osorik euskara hutsean izaten zelako. Ni ere, horrela bizi izan nintzen. Nire aurrekoek ez bezala, eskola ere auzoan bertan izan nuen. Eskola horrek, baina, gaztelania hutsean antolatuta izan arren, ia-ia ez zuen inolako eraginik gure eguneroko bizitzan. Eskolatik kampo ez genuen inoiz ezertarako gaztelaniarik erabiltzen. Elizan ere, esan bezala, den-dena euskara hutsean izaten zen.

Baserrietako bizimodua, bestalde, oso egokia zen transmisorako. Familia nahiko handiak izatean, etxearen nahiz lanean bertako kideek elkarren artean hitz egiteko aukera ugari izaten zuten. Berez-berez ikasten ziren euskarako esakuneak eta ohitura. Zaharren eta gaztetxoaren arteko harremanak hain estuak izateak euskara aberatsa jasotzea aukera paregabea eskaintzen zigun gaztetxoei. Auzoan egiten genuen bizitza osoa. Nik sarri aitorru izan dut Erdi Aroan edo bizitakoa naizela. Eta pozik, gainera!

Ibarran, ostera, gehienak euskaldunak izan arren, handiagoa zen gaztelaniaren presentzia. Umetxoek sarri erantzuten zieten gaztelaniaz euskaraz egiten zien gurasoei. Gurutze-bide latza izan zuten hainbat guraso euskaltzalek! Euskara egiteko beldurra ere ageri zen kalean. Gerra ostean Arrasaten eta inguruetañan izandako immigrazio masiboak ere eragin handia izan zuen bertara lanera joaten ziren aramaioarrengan, erdara erabiltzen ohi-tzeko bide izan zelako.

Ibarran kuartel handi bat egoteak ere kalte handia egiten zion euskarari. Kuartereko emakume, gazte eta umeak erdaldunak izanik, dendariak eta gaztelania erabiltzera behartuta sentitzen ziren. Hala ere, auzoetatik jaisten ginenok, euskara hutsean konpontzen ginen.

Urte horiek, bizitza osorako markatu nindutela uste dut. Euskara erabil-teaz gainera, euskaldun izaten ere ikasi nuen. Nire bizitzako ibilbidean eragin handia izan duten hainbat balio ere jaso nituen bertan; auzolanean edo talde-lanean jardutzen, trukean ezer eskatu gabe beharrizanean denari laguntzen, ingurua eta natura maitatzen, luzaroan isilean egoten, pertsona nagusiei begirunea izaten, uzta oparo jasotzea eskuzabalez ereiten, ondasunak tentuz eta neurriz erabiltzen, eta beste hainbat gauza eder.

Kristau bizitza ere bertan jaso nuen, etxean, elizan eta auzoan. Esan dudan moduan, berez-berez. Denbora aprobetxatzen eta antolatzen ere ikasi nuen, ez baitzen kanpotik eginda ezer jasotzen. Eta, jakina, luzaroan, isilean egoten ere bai, hori eskatzen baitzuen behiak zaintzeak, bide luzeak egiteak, eta halakoetan bakarrik jarduteak. Gerra osteko sasoi horretan ondasunak eskasak eta familiak ugariak izatean, neurriz edo tentuz gasta-tzen ere ikasten nuen.

Baserri bizitzak berez sortzen zuen egoera larriei aurre egiteko elkarrekin jokatu beharra. Hitzak baino gehiago ekintzak edo jardunak eskatzen zituen. Horrela, adibidez, gun sargoritsu batean elizan arrosarioa erreza-tzen geunden; bat-batean trumoia jotzen hastean, apaizak elizan batutako guztioi, lehenbailehen, euria hasi aurretik belarra etxera ekarri beharra zeukanari laguntzera joateko agindu zigun. Eta auzo osoa, gizonezkoak eta emakumezkoak, handiak eta txikiak, premia larria zue-nari laguntzen! Gero, lasai asko, euriaren tanta-hotsa entzunez, betiko ohiturari jarraituz, kartetan ilunkera arte. Bizitza bera genuen eskolarik ederrena! Eta euskara hutsean bizi ginenez, euskara ikasteko biderik go-zoena ere bai!

Bizimodu horrek, ohitura zaharrek, ingurukoen portaerek, giza balio sakonak norberaren barruan egosten laguntzen zuen. Horrela, halako bi-zimoduak nire eta aramaioar askoren izaera taxutu zuen. Askoren iritziz, tradiziozko auzolanerako antolaketa-joera horrek eragin zuzena izan zuen Arrasaten Kooperatibak bidean jarri zirenean. Josetxu Martinez Montoia jaunak, Aramaiko giza antolamenduari buruz eginiko antropologia-te-sian, auzolanaren ikuspegi modernoa eskainiz, hainbat berri jakingarri eskaintzen dizkigu (ikerlanaren laburpena, Aita Gabriel Jauregi Uribarren zenari buruz *Karmel* aldizkariak 1995.ean argitaratutako zenbaki mono-grafikoan eskaini genuen).

Horrelakoa izan zen, gutxi gorabehera, 1940tik 1960ra arteko aramaioar gehienon bizimodua. Euskarak, oztopoak oztopo, oso indartsu jarraitzen zuen Ibarran bertan ere, irakaskuntza eta administrazioa gaztelania hutsean izan arren.

### 2.3. Azken 50 urte hauetako ibilbidea (1960-2010)

Aldi luze hau zatika aztertuko dut, hogei urteko bi aldi eta hamar urteko azkenaldia bereiziz. Horrela, errazago jarraituko dugu arloa.

#### 2.3.1. Aldaketa demografikoak: 1960-1980

Hirurogeiko hamarkadetan aldaketa sakonak gertatu ziren Aramaion. Baserri bizitzaren gainbeheraren ondorioz, zeharo aldatu zen bertako biztanleen egoera, baserrietako gazteak kanpora joan beharra izan zutelako. Auzotako jendea gutxitzeak, eta pertsonarik aktiboenak –gazteak– kanpora joateak, bide batez, erdararen gunea zen Ibarra auzoa indartzea ekarri zuen.

Horren ondorioa izan zen auzo-eskolak ixtea, eta umeak Ibarran batzea ere. Horrela, ume euskaldunak erdaldunekin nahastean hainbatean aldatu zen ume horien bizitza-ingurua, eta, normala denez, gaztelaniaren eragina jasaten hasi ziren. Ordura arte «Baietz» bakarrik esaten zutenak «Akebaietz» esaten hasi ziren. Eta horrelako beste zenbait esaera.



Horrek guztiak, jakina, ardura handia sortu zuen bertako euskaltzaleen artean. Eskola nazionaletan ezin zitzaiola euskarari lekurik egin ikusirik, ikastola jarri zen abian 1970ean herritarren diru-laguntzaz eliza honetako sakristian. Urtebete geroago udalak eskainitako lokaletara aldatzea lortu zen. Hala ere, ikastolako umeek ikasketak euskaraz egiten jarraitzeko era-gozpenak zituztela ikusirik, guraso batzuk ALMEN ikastetxeko baziak egin, eta seme-alabak bertara bidaltzen hasi ziren.

Ez zen, baina, hori arazoari benetako erantzuna emateko bidea. Gogor borrokatu behar izan zen, Arabako Aldundiak ikastola bere babespean haritu, eta eskolaurreko umeek jarraipena euskaraz Aramaion bertan izatea lortzeko. Bestetik, eskola nazionaleko umeek ere euskaldundu beharra ze-gonez euskarazko eskolak ere martxan jartza lortu zen, hasieran orduz kanpo izan arren. Azkenik, ikastola eta eskola nazionala elkartu, eta pixkanaka irakasle guztiak euskaldunak jartza lortu zen.

1969an, nire apaiz-ikasketak egiten herritik kanpo urteetan izanda gero, berriro Aramaiorekin harremanetan hasi nintzenean, bihozkada gogorra jaso nuen.

Ikasketa garaietan euskara sakontzeko eta aberasteko aukera izan, eta teologiako ikasketak egiten ari nintzela GOGOZ aldizkaria sortzen eta Bilboko Karmeloko gaueskolak abian jartzen ibilia nintzanez, irakiten jarri zi-tzaizkidan barrenak Ibarrako kaleetan erdara nagusitzen ari zela ikustean.

Kontzientziaio falta zegoela eta, beste zenbait egintzen artean, hitzaldiak eta antolatu genituen jendeari konpromiso sendoa eskatzeko, 1963an kaleratutako *Pacem in terris* entziklikoa aztertuz. Horrela, euskararen aldeko mugimenduari bultzada berria ematea lortu genuen, martxan jarri nahi zen haurtzaindegien aldeko giroa areagotuz.

Nik beste zerbait ere egin nuen. Santutxuko gau-eskoletan genbiltzanok ordura arte Arratian eta Markinan ematen genituen udako ikastaro trinkoak Aramaioko Etxaguen auzora ekartzea lortu nuen. Alfabetatu eta euskarako titulua ateratzeko ikastaroak izaten ziren. Abade-etxea hutsik geratzeak aukera ederra eman zigun. Horretan, laguntza handia eman zidan auzoko elizaren ardura hartu zuen Anbrosio Bergaretxe apaizak ere. Geroa-

go, leku zabalagoa behar, eta bi bizitzakoa izandako nire jaiotetxe zaharrera aldatu genituen eskolak. Aitortu beharra dut auzoko jendeak onarpen oso ona egin ziela bertara etortzen ziren gazteei.

Aramaioko hainbat gazteri, ikastaro horietan parte hartzeko aukera eskaini nien, euskararen balioaz jabetu ostean, herrian euskararen alde lanean jartzeko asmoz. Ikastaroetan parte hartzen zutenak herrietako jaientara ere joaten zirenez, euskararenganako begirunea eta zaletasuna indartzeko bide izan ziren. Zortzi urtetan 400 bat ikasle izan ziren ikastaro trinko horietan. Auzoko jendeak harrera oso ona egin zien bertara etortzen ziren gazteei.

Euskaltzaindiak, Arabako euskaltzainek eta hainbat euskaltzalek Aramaioko euskarari bultzada eman nahirik, 1971n bertan bilera egin zuenean, hemengo euskararen egoerari buruzko txosten bat eskatu zidaten. Euskararen egoera larria izan arren hil-kanpaiak isildu nahi izan nituen, euskara galduza zegoela zioenei honako hau esanez:

«Azkeneko urte honeetan *Zeruko Argian* da, behar ez diran batzuk irakurri ditugu, hemen euskera betiko galdu dala-eta holango batzuk. Bilera honek nahiko ondo agertzen dau hori ez dala egi hutsa. Gaur egun gure euskera, beste toki askotan legez, arrisku bizian agiri jaku, besterik ez. Beste edozein bazterretako arrisku berberetan. Ezin daikagu ba esan, ez euskera galdu danik ez indartsu dagoenik. Gure euskera atzeraka doala? Bai, eta... non ez?»

Ibarrako egoerari buruzko datu batzuk ere bildu nituen: 4 urtetik beherako ume gehienak euskaldunak ziren. 4 eta 7 urte artekoak, euskara ulertu arren eragopenez zituzten hitz egiterakoan. 7 eta 17 urte arteko Ibarrako gaztetxo gehienak ulertu baino ez zuten egiten euskara; bakarren batzuk erraztasunez hitz egin. 17 urtetik gorakoentzako artean ere oso ugaria zen erdara erabiltzeko joera. Abiadura handiz atzeraka zihuan, bada, euskara. Nabarmena zen gaztelaniazko eskolak egiten zuen kaltea.

Egoera aldatzeko konponbide batzuk ere proposatu nituen: bertako euskaldunek beti euskara erabiltzeko konpromisoa hartzea; ikastola sortu berriari laguntzea; aurreko urtean hasitako gau-eskolak indartzea; euskarari berehala eskola nazionalean tokia egitea. Era berean, benetako

konponbidea aramaioarren esku zegoela ere gogoratu nuen, agintariei nahiz herritarrei euskararen aldeko konpromiso sendoagoa hartzeko eskatuz:

«Aramaiko euskerea ez da berez hilgo. Geuk hilgo dogu. Geu izango gara hiltzaile eta errudun zeozer gehiago honetan ahalegin-tzen ez bagara. Eta euskara itoaz batera geure herri au bere hilgo dogu. Geure nortasuna eta berezitasunak betiko itoko ditugu. Euskera galtzeaz batera, geure kultura aberastasunik ederrean bere galduko dogu».

Azkenik nire berbaldiari amaiera emateko beste hau ere gogoratu nuen:

«Orain urte batzuk dirala Arabako alkateak hemen Aramaion batu ziranean, gogor egin eben gure euskeraren alde. Arabako euskaldun herri bakarra dala eta ezelan bere ez galtzeko eskatu euskuen. Eta Diputazioko agintariak heuren laguntza eskaini bere bai. Laguntza hori eskuratzeko unea dogu, Nik uste dot, gaur hemengo agintariak Euskaltzaindikoeak elkar hartuta dei bat egin behar deutsezuela bai Diputaziokoei bai Arabako Diru-kutxakoei, kulturaren alde lanean dabilzen ezkerro, gure euskera euren ardurapean hartu eta aurrera ataratzeko behar direnak egin dagiezan. Izan bere Araba osoarentzat lotsagarria litzake hemen euskera galtzea. Eta, behar bada, orain gogor ekiten ez badeutsagu gero beranduegi izango dogu.»

Bi urte geroago, 1973ko udan, Aramaio auzoz auzo ezagutzeko aukera izan nuen toponimiari buruzko lana egiten ibili nintzanean. Poz handia hartu nuen bertakoek zuten euskaltzaletasuna ikusiz. Izen-bilketa hori Aramaio sakonetik ezagutzeko bide izan nuen. Aurrerantzean askoz ere harreman estuagoak izan ditut aurretik ezagutu ere egiten ez nituen bertako hainbat auzoko seme-alabekin.

Zorionez, urte haietan (1960-1980), diktaduraren azken urteetan hasita, hainbat aldaketa politiko eta linguistiko izan genituen Euskal Herrian ze-har. Horrela, eragin handia izan zuten Aramaion Arrasate inguruan izandako hainbat gertaerek: kooperatibak abian jartzean Gipuzkoako hainbat euskaldun bertara etortzeak, ikastola abian jartzeak, *Eskola Laborala* indar-tzeak, ALMEN zentroak, eta Arrasate inguruan sortu zen euskararen alde-

ko mugimendu indartsuak. Horien guztien bidez arnas beroa hartu zuen euskarak Aramaion ere.

Elizetan euskarari, lekua egitea ere oso onuragarria izan zen. Bestalde, lehen aipatu *Pacem in terris* entziklikak izugarrizko oihartzuna izan zuen Euskal Herri osoan, bete-betean aldarrikatzen zuelako hizkuntza propioa izateko gure herriak zuen eskubidea. Hankaz gora jarri zituen euskararen kolonizazioa edota heriotza bultzatzen zutenen asmoak. Bide batez, dei egiten zien kris-tauei eskubide horien alde jokatzen. Elizek eta komentuek ere, beren babes-peko lokaletan ateak zabaldu zizkien haurtzaindegia, ikastola, gau-eskola, dantza-talde eta halakoei. 1970. hamarkadan euskararen alde eman ziren egintza ugariek hainbatean hobetu zuten Aramaioko euskararen egoera.

### 2.3.2. Autonomia garaiak: 1980-2000

Aipatutako hogei urte inguruko epealdi horren ondoren, Autonomia garaiak etorri ziren, eta euskarari lekua egin zitzaien irakaskuntza publikoan, administrazioan eta beste hainbat lekutan. Gertakari horiek eragina izan zuten Aramaion ere, hainbatean euskararen aldeko joerak indartuz.

Hala agertzen da euskararen ezagutza maila jakiteko datu-bilketak 1981eko erroldan abian jarri zirenean. Datu horiei buruzko azterketa interesarria eskaini zigun Patxi Salaberri ikertzaileak Aita Gabirel Jauregi Uri-barren karmeldarraren jaiotzako urteurrena (1995) gogoratzeko Karmel al-dizkariak prestatutako zenbaki berezian. Lan eder horretan eskaintzen diren datu ugarien laburpen bat eginez honako hau ateratzen zaigu:

- **Aramaioko populazioak gutxitzen jarraitzen zuen** 1960. urte inguruaren hasitako bidetik. Horrela, esaterako 1981etik 1991ra artean 213 pertsona galdu zituen.
- **Euskararen ezagutzari dagokionez, gorakada nabaria gertatzen da** 1981 eta 1986 urteen artean. 1.174k (%89k) diote euskaldunak direla. Beste 73k (%5,54k) ia euskaldunak direla; eta 71ek (5,39k) erdaldu-nak direla. Bost urte geroago, 1986ko erroldan, ostera, gelditu egiten da 1970. urte inguruaren hasitako euskararen gorakada. Oraingoan,

1.103k (43 gutxiagok) diote euskaldunak direla; 116k (45 gehiagok) ia euskaldunak direla; berdintsu jarraitzen du erdaldunen kopuruak 65ek (5 gutxiagok).

– **Euskararen etxeko erabilerari dagokionez**, erroldako datuen arabera, Aramaion bizi ziren 1.310 pertsonen artean honakoa ageri zaigu:

- Euskaldunak 1.103 izan arren, 882k erabiltzen zuten etxeen euskara.
- Erdaldunak 65 bakarrik izan arren, 209k erabiltzen zuten etxeen erdara.
- Ia euskaldunak 116 arren, 209k erabiltzen zituzten euskara eta gaztelania nahasian etxeen.

**Ondorioa:** Erroldako datuen arabera, 221 euskaldunek ez zuten euskara erabiltzen etxeen. Asko ugaritu zen (93 pertsona) euskara-gaztelania nahasian erabiltzen zutenen kopurua. Erdaldunak ez ziren 144 pertsonak erdara erabiltzen zuten etxeen.

– **Kaleko erabilera neuritzeko lehen inuesta 1993an egin zuen EKBk.** Talderik talde (ume, gazte, heldu eta zaharrak bereiziz) egindako inkestan datu hauek ageri zaizkigu:

- Umean artean (0-14 urte) %89k jakin arren, %65ek erabiltzen zuten.
- Gazteen artean (15-24 urte) %85ek jakin arren, %64k erabiltzen zuten.
- Helduen artean (25-64 urte), %84k jakin arren, %40k bakarrik erabiltzen zuten.
- Helduen artean (25-64 urte), %84k jakin arren, %40k bakarrik erabiltzen zuten.
- Zaharren artean (65etik gorakoak) %86k jakin arren, %75ek erabiltzen zuten.

**Ondorioa:** %85ek jakin arren, %57k erabiltzen zuten euskara. Akatsik handiena (erdiek baino gutxiagok erabiltzea) herrian eraginik zuzenena zuten 25-64 urte artekoen artean ageri zen.

### 2.2.3. Gogoeta garaia: 2000-2010

Geroago beste hiru inkesta egin dira. SIADEKOK 2001ean, eta Soziolinguistika Klusterrak 2003an eta 2008an. Azken bi enkestetan 1993an EKBk egindako inkestako emaitzen antzerako datuak ageri zaizkigu, azkenengoan (2008koan) beheranzko joera nabariagoa bada ere. Beraz, esan dezakegu Aramaion euskara, nahiko pertsonek (%80 inguruk) ezagutzen dutela. Era-bili, ostera, %53-57 inguruk bakarrik. Populaziorik erdaldunena 35-50 urte dituztenen artekoa da. Bertako gune nagusian, *Ibarra*, adin horretako %20 erdaldunak dira.

Inkesta guztietan ageri da adineko pertsonak (35-70 urte artekoak) direla euskara gutxien erabiltzen dutenak. Beraz, sozialki eta ekonomikoki herriean eraginik handiena duten pertsonak. Bestalde, beste hainbat lekutan bezala, euskararen erabilera beherantz egiten hasi da gaztetxoen artean ere. Argi dago, bada, irakaskuntzak ezin duela adinekoen hutsunea konpondu.

Bide batez esan beharra dago, honetan guztian izugarrizko eragina izaten dutela ohitura txarrek. Hau da, erdaldunekin erdara erabiltzen ohitu eta gero euskaldunen artean ere erdaraz jarraitzeak. Behin euskara eta hurrengoan erdara erabiltzea ere, euskara galtzeko lehen pausoa izaten da. Horrek erraztasuna galtzea ekartzen du, eta, denok dakigu, zenbat eta erraztasun gutxiago izan, hainbat eta errazago jotzen dela baztertzena.

Hau honela, gogora ekarri behar ditugu Gandiagaren hitzak:

«hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako,  
dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik».

Jakina, euskaldunei erantzukizunik kendu gabe, erdaldunek ere badute honetan ardura hartu beharrik, ezinezkoa delako inguru erdaldunean euskaraz bizitzea.

## 3. Erronka berriak

Euskaldunok bizitzako une guztietan euskara erabiltzeko asmo sendoa hartu arren, ia ezinezkoa dugu gaur egungo gizarteko egoeran, gure ingurua gaztelaniaz bizitzeko antolatua dugulako. Gaur egun, gainera, beste erronka

batzuei aurre egin beharra ere badugu. Goitik behera aldatu zaigu muga geografikoaren ikuspegia eta eragina. Orain, mundua herri handi bakarra bihurtzen ari zaigu. Kokaleku birtual batean bizi garela esan daiteke.

Komunikabide berrien bidez (Telebista, Internet, eskuko telefono edo zelularra eta abarren bidez) gure etxeko ate-leihoko mundura zabalduta bizi gara. Euskarak inguru berri horrek dakarzkigun eragozpenei aurre egin beharra du.

Lehenago sarri esaten genuen gure kolkorako, geure buruari animoak eman nahirik edo, ‘gu bizi garen artean ez da euskarakik galduko’. UNESCOk, baina, hainbat hizkuntza galduko direla mende honetan betiko dioskunean, eta gure artean inguruko hizkuntzak nagusitzen ari direla ikus-tean, kezka larriak sortzen zaizkigu.

Era berean, azken aldian gure artera etortzen ari zaizkigun inmigrante eraldunek ere (gure zahar euskaldunak zaintzen jarduten dute askotan) hainbat eragozpen sortzen digute kalean nahiz familietan euskaraz bizi ahal izateko.

Izugarria dugu, baita ere, globalizazioak eta teknologia berrieik dakarten iraultza. Zeharo aldatzen ari da gure ume eta gaztetxoen inguru linguistikoa. Geroago eta zailagoa gertatzen ari da hizkuntzaren transmisioa familietan. Gurasoek geroago eta asti gutxiago dute umeekin euskaraz jarduteko. Hizkuntzak erroak sendo jartzeko beharrezkoak dituen inguru euskaldunak desagertzen ari zaizkigu.

Hizkuntza, batez ere ahozko jarduna izanik, eta ondorioz bere bizia eta indarra erabileran egonik, kezka handia sortzen digu zenbait egoera berrik, esaterako, gure ume eta gaztetxoek geroago eta denbora gehiago ordenagailu eta antzerako tresna «mutuen» aurrean igarotzeak. Hain zuzen ere, hizkuntza ezin delako hitz egin gabe bizi, eta hitz egiteko erraztasuna galtzeak alde batera uztea ekartzen duelako.

Behar bada, geroago eta eskurago dituzten baliabide tekniko horiek era-biliz, gure ume eta gaztetxoek ariketa eta lan idatzi ederrak egingo dituzte euskaraz, baina, hitz egiteko orduan kili-kolo ageri zaizkigu, egin ezinda. Hizkuntzaren praktika faltako zaie, hizkuntza hainbatean automatismoaren

emaitza baita. Horrela, bat-batean gorri jarri zaizkigu semaforoak, ardura ugari sortuz. Baliabide guzti horiek euskararen onerako erabilzeko bideak bilatu beharko ditu, bada.

Gaur egun oso baliabide gutxi ditugu euskaraz inguruko hizkuntzen erasoei aurre egiteko. Telebista bat edo beste euskaraz dugula eta pozik gaude, baina alboan berrogeita telebista erdaldun ari zaizkigu bultzaka, gu ito gurean. Berdintsu gertatzen zaigu irratia eta prentsa idatzaren eremuan ere. Euskarak bizi-iraupenerako beharrezkoak dituen hainbat alorretan aurrerakuntzak izan baditugu ere, oso txikiak izan dira inguruko hizkuntzetan gertatutakoekin konparatuz. Guk bi urrats eman orduko hamar ematen dituzte gure ingurukoek. Ito egiten gaituzte. Aurrera egin ezinean gabiltza.

Egoera horrela, ez dugu nahikoa asmo onak edo gogo finak izatea. Euskaraz biziak ahalbideratuko digun gizartea behar dugu. Oraindik ez dirige aitortzen euskaldunoi Euskal Herrian euskaraz bizitzeko eskubidea. Bizitzako hainbat unetan eta tokitan erdara erabiltzen behartzen gaituzte. Ez da oraingo egoera larri hau aldatzeko urratsik ematen. Txarrago oraindik, azken aldian, sarriegi Euskal Herrian zehar kontrako egintzak ikusten ari gara.

Eleaniztasunean oinarritutako irakaskuntza planteatzean ere zenbait zalantza eta kezka sortu zaizkigu, euskarak azken urteotan irakaskuntzan (A eta B ereduetan batez ere) sekulako porrota izan duela ikusi ondoren. Hainbat itaun datozkigu bat-batean burura: nondik aterako da plan berrietarako astia? Oraingoan ere, ez ote da euskara kaltetuko duen ereduauke-ratu? Lehendik txarto eta, beharbada, aurrerantzean oraindik txarrago!

Unerik egokiena edo aproposena genuke, bada, estatuari eta beraren ordezkariei euskararen aldeko diskriminazio positiboa eskatzen, neurri batean, behikik behin, gerra osteko urteetan egindako kalteak konpontzeko.

New Yorken egin berri den *Nazio Batuen Erakundearen jatorrizko herrien batzarrean*, euskaldunoi ez zaizkigula hizkuntza-eskubideak aitortu ondoren, «*hizkuntza bat desagertzen denean herri bat desagertzen dela»* gogorarazten dirige. Eta hori esan ostean konpromisoa eskatzen zaigu:

«eskubideen aldarrikapena ez da aski; herriek eurek, hizkuntzaren eta kulturaren garapena ahalbideratzeko estrategiak planteatzeko eginbeharrok dauzkate».

Estrategia egokiak abian jarri beharra aipatzen dute. Horren bila ibili gara azken urte hauetan. Ahalegin handiak egin dira bide egokien bila. Eta, azkenean, honetan ere aurrerantz egitea lortu dugu. Atera berri ditu *Kon-tseiluak* (Euskal Herrian euskaraz lanean dihardutuen berrogeita hamasei erakundeetako ordezkariek osotutako erakundeak) horretarako bide izan daitezkeen bi liburuxka eder:

«Ikasle euskaldun eleanitzak sortzen eta Euskararen erabilera areagotzeko estrategiak eskolatik abiatuta».

Beraz, nahi izanez gero, badugu liburuxka horietan ekarpenik eta gogoan hartzekorik ugari.

#### **4. Ba ete du Aramaion euskarak etorkizunik?**

Aurreko datuen arabera, Aramaion, euskararen erabilera nahiko egoera larrion ageri zaigun arren, badugu itxaropenerako biderik, gure arteko euskaldunen kopurua oraindik oso handia delako. Aramaio, bestalde, UEMAn (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean) sartua dugu; bertako udal administrazioa euskaraz bizi da; bertako umeen heziketa ere euskaraz da 12 urterako arte, behinik behin; bertako bizilagunek aldizkari eta telebista euskaldunak eskuratzeko aukera paregabeak dituzte. Udala ere fin ari da euskara bultzatu nahian.

Beste zerbait ere badugu aldeko. Bertan hainbat elkartea (17) jardunean izatea. Horien artean batzuek, gainera, jo eta ke dihardute euskararen alde lanean. Elkarte horiek hemen jendaurrean aipatu nahi ditut, eta guztiei banan-banan dei egin, denok batzen gaituen euskararen aldeko ahaleginetan lan egitera. Honako hauek dituzue: *Txirritola Euskara Elkartea, Bertso Eskola, Lagun Artea Dantza-Taldea, Trikitixa Taldea, Bizente Goikoetxea Abesbatza, Papargorri Eskolania, Alaiak Jubilatu eta Pentsionisten Elkartea, Gazte Asan-blada, Gorroto Rock Taldea, Itur-Zuri emakume elkartea, Briska emakume elkartea, Orixol Mendizale Elkartea, Oilogor Ehiza eta Arrantza taldea, Kur-tzeta Gain Taldea, Osteta Futbol Sala, Pilota Taldea, Azpiko Racing*.

Hori horrela, hemen zareten elkartetako horietako ordezkari eta kideoi, bihotz-bihotzez eta banan-banan dei egin nahi dizuet, euskararen aldeko ahaleginetan batera jardutera, gure herriaren etorkizun euskalduna jokoan dugu eta. Zuen taldeetako 10 pertsonek beti euskara erabiltzeko konpromisoa hartu ezkero, iraultza gertatuko litzateke herrian nahiz etxeetan.

Hau honela, lehen bide batez aipatu dudan Josetxu jaunaren ikerlanaren amaierako atal bat aurrera ekarri nahi dizuet oso ongi argitzen duelako Aramaion azken urte hauetan gertatutakoa, hau da, Aramaio hainbat auzo bananduk osotutako herrialdea izatetik *Ibarren* inguruan elkartutako auzo handia izatera aldatu izana:

Euskal Herria modernizazaren ondorioz, galdu egin dira (mende hone-tako 50. urtetik aurrera), produktuak ateratzeko eta kudeatzeko tradiziozko mendialdeetako jokaera asko; ohitura guzti horiek betiko balioa galdu dute, eta hainbat eta hainbat hasiko dira baserriaren krisialdia iragarri eta, ondorioz, euskal kulturaren hondamena datorrela deiadarka. Aramaioko haraneko gaur egungo gizarte harremanak aztertzeari ekiten badiogu, bestetara dela, hau da, lehenagoko antolaketa-arauak gaur egungo jokaera eta erakundeetan berriro mamituta agertzen direla ikusiko dugu. Jaiek, gastronomia-elkarteeik, ehiza eta mendigoizale taldeek eta antzerakoek auzoko izatea nola bizi erakusten digute; eta auzotasun hori taldeka eta elkarren arteko erantzukizunak hartuz bizitzeak, kokalekua auzo txikia izan beharrean haraneko gune nagusia kalea dutela haranean bizi direnen kalte luze-ko partaide izatea agertzen du. Gizarte antolaketa berri hauei esker, haran osoa auzo handi bat egin da, bertan auzotasunaren barruko indarra, berriro, nekazaritza-gune berri bat egiteko gogoan eta ahaleginetan agertzen dela.

Etxe bizitza berriak direla bide, azken urteetan gertatzen ari populazioaren aldaketak ere itxaropenerako ateak irekitzen ditu, bertako hainbat seme-alaba bizitzen herrian geratzea ekarri duelako. Guraso gazte horiek euskarari indar berria emateko aukera izan daitezke. Bultzatutako horretara.

Hona etorri zareten inguruko udaletako ordezkarioi ere, zerbait gogoratu eta eskatu nahi dizuet. Elkarren ondoan bizi zarete Arrasate, Eskoriatza, Aretxabaleta, Oñati eta Aramaioko udaletakoak. Badakit azken urte hauetan hainbat urrats txalogarri eman dituzuela euskararen alde. Abian jarri-

tako ahalegin horiek areagotu beharra duzue, euskarak eta beste hainbat interesek elkartutako familia handia egiten duzuenez.

Zuen herrietako seme-alabek lotura estuak dituzte beraien artean, lanean, irakaskuntza mailetan, denbora-pasatzeko ekitaldietan, eta beste hainbat alorretan. Horrek, udal guztiak elkar hartuta jokatzea eskatzen du. Batez ere, ume eta gaztetxoentzat, euskaraz bizi daitezen, elkar-lanean giro euskalduna sortzea. Oletakoek, jakina, Otxandioko udalarekin batera jardun beharko dute, helburu berdinak lortzeko.

Beraz, Euskaltzaindiak 1971n egin zuen bilera, aramaioarrak euskararen alde bultzatzeko urratsa izan zenez, gaurko bilera hau ere, euskararen era-bilerari bultzada emateko izatea nahi nuke. Orduan nik laburpen modura esandakoek, oraindik indarrean dirautela uste dut:

«Gure herri hau oraingoz euskaldun dogu, nahiz da bertako euskeria egoera gatx baten aurkitu. Ez dira izan ba alperrezkoak gure aurrekoen ahaleginak. Hala ta guztiz bere, hemen bere, atzeraka hasi jaku euskeria. Arrisku haundi batean aurkitzen da».

## Azken hitzak

Hitzaldi honen izenburuari *zirelako gara eta garelako izango dira* amaiera emateko, ezinbestekotzat jo dut beste zerbaite ere gogora ekartzea. Ara-maioko euskararen ibilbideari begirada zabala egin ondoren, azken mende erdi honetan euskararen alde izugarritzko ordu pila eta dirutza multzo kontaezina jarri duten Euskal Herriko erakunde eta pertsona guztiei neure begirunea agertu nahi diet. Euren ahalegin handi horri esker jarraitzen due-lako gure Euskal Herriak euskaldun izaten.

Egia esan, herri gutxi izango dira munduan zehar, nortasunaren euskarri eta ezaugarri nagusia izan ohi den hizkuntzaren alde Euskal Herriak azken berrogeita hamar urte hauetan egin duen bezalako ahalegin neurrigabea egin duenik. Frankismoa oraindik indartsu zegoen garaietan hasi zineten gogoz eta adorez zuetariko asko, hor-hemenka, hainbat bazterretan euskara gizarteko egoera tamalgarri hartatik bizirik ateratzeko ahaleginetan.

Esan dudanez, kontatu ezinezko ordu piloa eta izugarritzko inbertsioa egin izan dugu azken berrogeita hamar urte hauetan euskaldunok euskara egoerarik larrienetan ere bizirik aurrera ateratzeko. Guztia hau kontuan hartu gabe oso zaila egingo litzaiguke Aramaion zein beste hainbat tokitan izan den bilakaera behar den neurrian ulertzea.

Euskara belaunaldi berriei transmititzeko, indarberritzeko eta zabaltzeko euskaldun zaharrek egindako ahalegin handi horri ezker, gaur egun azken mendeetan guztiz galdua genuen hainbat lurraldetan zabaltze-bideetan dugu euskara. Arabari dagokionez, erriberako bazterretan hasi eta udalerri guztietan, hiriburua barru, indartzen ageri zaigu. Horrek pozez betetzen gaitu amazkuntza euskara izan dugun euskaldunok. Zorionez gure Arabako lurraldetan geroago eta euskaldun berri gehiago dugu, eta irakaskintza alorrean geroago eta gehiago dira euskararen alde egiten duten guraso erdaldunek.

Baina guzti hori ez da zoriz edo kasualitate hutsez gertatu. Euskara belaunaldi berriei eskaintzeko euskaldun zaharrok egindako lan izugarria dela medio baino. Badakit honetan bidelagun eragile zintzoak, eta sarritan euskaldun zahar asko baino finagoak izan ditugula hainbat eta hainbat euskaldun berri, baina aitortu beharra dut, era berean, euskararen bizi-iraupena egoerarik larrienetan ere ama-hizkuntzari eutsi, eta zabaltzen jardun izan dugunoi zor zaigula.

Hor ditugu Euskaltzaindiak eginiko lanaz gainera, beste hainbat erakunde ekintzaile eta egintza txalogarri. Besteak beste,

1. Ume eta gaztetxoak euskalduntzeko lan izugarria egin duten eta etenik gabe egiten diharduten ikastolak. Zenbat lan, zenbat diru, zenbat ahalegin euskara aurrera ateratzeko! Eskola publikoetan nahiz ikastetxe pribatuetan euskarari lekua egitea ere, nire ustetan, hainbatean ikastolen bultzada handi horri esker gertatu da. Era berean, eskerrik beroenak, baita ere, irakaskuntzan, pribatuan nahiz publikoan, euskarra indarberritzen jardun izan duten guztiei.
2. Ikastoletara joateko aukerarik ez zuten umeak alfabetatzeko lan parregabea egin zuen *Kili-Kili* talde eragilea. Nork zenbatu *Kili-Kilik* alfabetatutako haur euskaldunen kopurua? Jose Antonio Retolaza

jaunak, Iñaki Egurrola lagun finaren laguntza jasoz, bizitza osoa es-kaini dio ekintza honi bere ondasunak erabiltzeraino. *Kili-Kili* aldi-zkari bat baino gehiago izan da, haurrak Euskal Herri osoan zehar euskara maitatzen eta erabiltzen bultzatu dituen adinean. Alfabetatzeko aukerarik izan ez zuten Euskal Herri osoko haur guztiengana heltzea lortu zuen.

3. Adinekoak alfabetatzeko nahiz erdaldunak euskalduntzeko lan izugarrria burutu izan duten eta burutzen ari diren AEK, IKA, *Labayru* eta beste zenbait talde. Nork zenbatu, urteak joan urteak etorri, oztopoak oztopo, erakunde horiek Euskal Herria euskalduntzen eta alfabetatzen egindako lan izugarria? Askotan, gainera, dohainik edota huskeriaren truke, inolako gizarte segurantzarik gabe, solda oso eskasak eskuratuz. Diru-iturriak lortzeko eta euskaltegiak abian jartzeko asmatu ahalak egin behar izan dira ibilbide luze horretan. Beharrizan gorri horiek bultzaturik jarri zen abian AEKk halako arrakasta handia izan eta euskararen erabilera izugarrizko bultzada eman dion *Korrika*. Hor ditugu udako ikastaro trinkoak ere!
4. Euskarari goi mailetako irakaskuntzan leku egiteko jardun izan duten UEUko eta Unibertsitateko hainbat irakasle gartsu ere gogoratu nahi nituzke, euskara goi mailara jasotzea lotu baitute, beraren izena mundu zabalera eramanez, eta irakaskuntza alorrean behar ditugun irakasleak prestatuz. Aparteko hainbat ahalegin egin behar izan dituzte euskarari leku duina Unibertsitatean egiteko.
5. Euskal Herriko bazter guztietai euskaldunak batu eta euskal-tzaletasuna areagotzen sekulako lana egin duten bertsolariak eta kantariak ere hor izan ditu jo eta ke etenik gabe lanean, gure herrian mendez mende bizirik iraun duen ahozko tradizio-katea zaintzeaz gainera, euskararen erabilera eta euskaldunon arteko batasuna bultzatzen izugarrizko lana burutuz.
6. Eta hori guztia ahhalbideratzeko edota horiek guztiekin bultzatuta, testugintzan, hiztegintzan, literaturan, itzulpengintzan, musikagintzan, komunikabideetan (ahozkoetan nahiz idatzietan) eta beste hainbat eta hainbat alorretan, inongo laguntzarik gabe edota

laguntza urriak jasoz, etengabeki euskararen alde jardun izan duen jendetza.

7. Auzolanak (talde-lanak) halako indar handia izan duen herri honetan ezin aipatu gabe utzi, EKBk (Euskal Komiteen Batasunak) abian jarritako batasun bidea gailurrera eraman duen *kontseilua*. Globalizazioaren garai honetan izugarrizko eragina izaten ari da erakunde honek gogor dihardu euskararen transmisioa ahalbideratzen nahiz berreskuratzeko lanetan. Berau izan dugu azken urte hauetan euskaldunok euskaraz bizitzeko dugun eskubideen alde etengabeki jardun izan duen eta diharduen erakunderik indartsuena.
8. Gogora ekarri nahi ditut, baita ere, erakundeetan egon ez arren, Euskal Herri osoan zehar, gehienetan isileko lan neketsu artean, euskararen bizi-iraupenerako ahalegin izugarria egin duten gure aurreko euskaldun guztiak.
9. Azkenik nire begirunea erakutsi nahi diet, baita ere, ahalegin handia eginez euskara ikasi ondoren, zabaltzeko ahaleginetan euskaldun asko baino finagoak izanik, bidelagun izan ditugun euskaldun berri ekin-tzailee.

Ez dutuste mundu zabalean, hizkuntzaren alde Euskal Herriak egin duen adinako ahalegina egin duen herri asko izango denik. Euskaldunok Euskal Herri euskalduna nahi dugula erakutsi dugu era askotara, behin eta berriro Euskal Herrian euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrrikatuz. Argi adierazi dugu aurreko belaunaldiak jaso dugun euskara etorkizuneko belaunaldiak eskaini nahi diegula. Kontseiluak egin berri digun deiarri jarrituz, heldu zaigu *bai euskarari* esatetik *euskaraz bai* esanez euskaraz bizitzeko unea.

Horregatik Euskal Herriaren ordezkari nagusi dugun Euskaltzaindiaren egintza honetan, GOGOZ eta ADOREZ (hain gogoko ditudan bi hitzok erabiliz), gizarteko alor desberdinatan lan izugarri hori egiten jardun izan duten, eta oraindik diharduten guztiak gogora ekarri nahi izan ditut, gaur hemen, zuen aurrean, eta guztientzat txalo bero bat eskatu hona etorri zareten guztioi.

## Bibliografia

- ATUTXA ETXEBARRIA, I., 1995 «Euskara» , *Karmel*, 211, 1/2. 215/252. orr.
- BARAIAZARRA TXERTUDI, L., 1995 «Euskal idazleak» , *Karmel*, 211, 1/2. 167-181. orr.
- ELEJALDE, Jesus Mari: «Historia» , *Karmel*, 1995, 211, 1/2. 151-158. orr.
- GARATE GOIHARTZUN, G., 1995 «Euskara» , *Karmel*, 211, 1/2. 183-214. orr.
- MARTINEZ MONTOYA, J., 1995 «Auzotasuna eta nekazal hiritartasuna», *Karmel*, 211, 1 / 2. 325-330. orr.
- ORMAETXEA, T., 2006 «Aramaioko euskara», *FLV*, 101. 5-42. orr.
- SALABERRI MUÑOA, P., 1995 «Hizkuntza errealityea» , *Karmel*, 211, 1/2. 252-260. orr.
- UNZUETA, A., 1995 «Erlijiotasuna Aramaioko haranean orain dela ehun urte» , *Karmel*, 211, 1/2. 159-166. orr.
- URIBARREN LETURIAGA, P., 2009 «Arabako idazleak», *Euskera*, 54, 1. 127-140. orr.
- 1972, «Aramaionako euskerearen berezitasunak, euskal idazleak eta euskeraren egoera eta etorrera», *Euskera*, 17. 157-167. orr.
- 2001, «Pedro Pujana Agirregabiria (Oletan jaio. 1915-VI-28 – Begoñan hil: 2001-II-4)», *Karmel*, 2. 3-21. orr.
- 2000, «Pedro Pujana Agirregabiria Bilboko Liburu-Azokaren ‘Urrezko luma’, 2000-VI-7», *Karmel*, 4. 24-36. orr.
- 1995, «Toponimia», *Karmel*, 211, 1/2. 277-324. orr.
- URKIZA, Julen-URIBARREN, P., 1995 «Gabriel Jauregiren bizitza» , *Karmel*, 211, 1/2. 71-104. orr.

# Ganbarruetatik Araba euskaldunera

LIZUNDIA ASKONDO, Jose Luis

Euskaltzain osoa eta Gasteizko Toponimia egitasmoaren arduraduna

Patxi Uribarren Leturiaga euskaltzainari erantzunez, nik irakurritako bere lehen lanaren titulutik hartu dut, hots, lizentziaturako tesi txikitik: *Aramaioko Gainbarruko Toponimia*, hain zuzen. Baino, nola, hiru **Ganbarru**>**Gainbarru** toponimo ezagutzen ditudan, biokin zer ikusi dituztenak, hiruron deskribapenean ihardungo dut, Iparretik Hegoaldera.

Garai herriko Goierri auzoko alderdi bati **Gainbarru** deritzagu. Hain zuzen, alde horretan egin ditut nire idazlan asko eta hitzaldi hau hasi ere. Eta euskal onomastikan aurkitu dudan –eta urte askotan Euskaltzaindian ofizioz eta benefizioz onomastika asko landu behar izan dut– perlarik bitxiiena Garaiko Erregistro Zibilean atzemandakoa izan da: MIREN ABERTZALE Gorrotxategi Leturiaga. Patxiren lehengusina propioa berau, aita herriko aguazila zen, oso abertzalea eta izen hori jarri zion alabari. Frankistak herriarekin jabetu zirenean, Patxiren osaba, Balentin, kargutik kendu eta kartzelara eta alabari, Burgosko Gobernu golpistaren 1938ko maiatzaren 18ko dekretuz (ikus 1. eranskina), beste milaka bezala, bai Euskal Herrian eta baita Katalunian izena, bortxaz, gaztelaniara itzuli zioten, baina erdizka MARIA. Erregistroko idazkari frankistak ez zuen jakin, edo jakin nahi, dena aldatzten, «María Patriota», alegia.

Garaiko **Ganbarrutik** Hegoalderantz, Aramaiorantz, abiaturiz toponimo esanguratsu asko aurkituko genituzke bidean, Gerediagako Batzar Nagusien mendez mendetako kokalekua, batik bat, baina baita nire herriko Trañamatirena auzoa ere, Patxiren anaia Xabier adiskide eta eskola lagunaren

bizilekua ere zenbait urtez. Aramaiora oinez joateko ibilbidea segituz, Atxarteko haitzartea igaroz Abadiñoko udal dermioko **Ganbarrua** zeharkatu dugu inoiz, Urkiolagirre (Urkiolamendi) eta Alluitz Aramaioko udalerriko eremuetara iristeko. Abadiñok hamar herrièrekin egiten du muga, baina, kilometrorik gehien, Aramaiorekin, Arabarekin beraz. **Ganbarrutik** Polpoleko zelaira iritsiz gero, aukera bat baino gehiago ditugu, bat, Oletako elizatera joateko, ILADATZANZELAIA bi herrialdeen muga dagoen lekutik, Kondebasoetatik zehar. Hain zuen Mitxelenari atentzioa eman zion toponimo bitxia izan zen, baita, Henrike Knörrri ere (zoritzarrez biok ginen leku horretara joateko, baina, beti atzeratu eta atzeratu eta joan zitzaidan bertaratu gabe, nahiz eta aipatu, Pisan, 2002an, XXI ICOS, hots, «International Congress of Onomastic Sciences» delakoan irakurri zuen «Satznamen dans la toponymie du Pays Basque» izeneko txostenean). Bigarren aukera Abadiñoko **Ganbarrutik** Ipiztikuarritik (apezpiku-harri, omen) Gantzaga eta Etxaguen (Patxiren sorlekua) elizateetan Aramaioko **Ganbarrura**>**Gainbarrura** sartuz.

## II

Zeren eta Patxiren asmoa, bere tesinaren lanekoa, hau bai zen: bere udalerriko bederatzi elizatetik (anteiglesia), zortziren toponimia aztertzea, hots, Ebro isuriko Oleta salbu. Debarroko isuriko gainen barruko, **Gainbarruko**, alegia. 1974ko lana, beraz, ez lehen lana, baina bai garrantzitsuetan sar daitekeena. Eta, gaur, Aramaio haraneko, ez Aramaio konterri/udalerriko **Gainbarruan** gaudenez, hain zuen, Ibarra izeneko elizate nagusiko San Martin parrokian, gel nadin une batetan eta labur bil dezadan Patxiren biografia eta euskalgintzan emandako xehetasun, pasadizu eta uzta.

Bi Etxaguen dira Araban, bata, Zigoitiko haranean eta bestea Aramaiokoan. Hemengo honetan jaio zen Patxi 1942 urriaren 31n. Etxaguen elizateko auzo eskolan egin zituen bere lehen ikasketak. Gero Zornotzako karmeldarren ikastetxean hasi zuen batxilergo txikia 1954-1956an –orduantxe ezagutu nuen Patxi, bere anaia eta nire adiskide min Jabierrekin, beheko komentura joan ginen baten– gero, bere ikasketak Alesbesen, Etxanoko

Larrean, Markinan, Gasteizen, Bilboko Karmelon eta Deustuko Unibertsitatean jarraitu zituenak.

Izugarrizko zortea izan zuela aitortzen du, Juan Luis Goikoetxeak egiazion elkarrizketa batean, lehen urteetatik euskara lantzeko aukera izan zuelako. Aukera hori aprobetxatzen jakin zuen. Horrela, teologiako ikasketak egiten ari zela GOGOZ aldizkaria jarri zuen abian, karmeldar ikasleen artean euskaltzaletasuna eta alfabetatzea bultzatzeko.

Euskal munduan sartzea, egoera anormala izan arren, normala suertatu zitzaien Patxiri Aita Santi Onaindia, Aita Lino Akesolo, Aita Migel Mari (Markinako bertso-egunak antolatzen zituen), Aita Luki, Aita Fidel, Aita Martin eta beste hainbat karmeldar idazle famatu, sermoilari bikain eta euskaltzale sutsuekin, batzuk kartzela eta desterrua jasandakoak diktadurako agintariengandik harreman zuzenak izatea. Beste euskal ordena batzuetan gertatzen zen bezala euskalkiekin ere harreman estua izateko aukera izan zuen, hain zuzen. Euskarazko eskoletan bi taldetan biltzen omen ziren: bizkaitar-arabarrak (Mendebaldekoak) eta giputz-nafarrak, horrek bere ama hizkera asko aberastuz.

**Titulazio akademikoetan**, teologia eta filologia erromanikoan lizenziatura, biak, Deustuan eta bietan tesia txikia euskaraz, garai hartan, oso gutxik, diktadorea bizi zela; Euskaltzaindiko «D» eta «B» titulazioak eta oposaketa publiko bidezko lehen itzultaile ofiziala Bizkaiko Diputazioan (1983).

#### **Euskararen aldeko jarduera nagusiak:**

1. **Gogoż** aldizkaria abian jarri eta zuzentzea (1965ean); haurren ipuin unibertsalak ikastoletarako euskaratzea (1955-67).
2. Bilboko Karmelon mezak euskaraz jarri zirenean prestatzeko eta laguntzeko ardura hartu zuen, 1965tik gaur arte. Oraindik teologiako ikasle zela, 1966 urtetik Santutxuko gaueskoletan hasi zen euskara irakasten, eta euskalduntze-alfabetatze lan horretan jardun izan zuen 12 urtetan zehar. Santutxuko euskarako talde hori 1.000 ikasletik gorakoa izatera heldu zen. Ikastolako gurasoentzat euskarako eskolak bultzatzeaz gainera, berak eman zituen lehen aldiz udako euskarako ikastaro trinkoak.

3. Deustuko Irakasle Eskola ofizialean euskara abian jartzen (1976-1983).
4. Bizkaiko Foru Aldundian itzultzalea (1983-2007), oposizioz sartu zen lehena, euskara batua eta bizkaiera bikain igaroz. Geroztik foru administrazioan jubilatu arte izan dituen ardurak, beste administrazio arteko ordezkapen, aholkularitza euskararen teknikari gutxik gaindituko ditu Euskal Herrian.
5. Zenbait erakundetako kide edota aholkulari: **Arabako Kultura Batzordeko** 1971tik zenbait urtez; «**KLASIKOAK**» liburu-sortarako itzuli beharreko liburuak aukeratzeko batzorde kide, Pedro Migel Etxenike buru zelarik Hezkuntza eta Kultura sailburu zelako (1983-84); **Euskararen KONTSEILUAN** «Karmel» aldzkariaren ordezkarria; **EIE / Euskal Idazleen Elkarte**ko kide 1983tik; **EIZIE / Euskal Itzultzale, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarte**ko kide 1988tik; hainbat hiztegi, elebakarrak nahiz elebidunak kaleratu dituen **BOSTAK BAT** kultur elkarteko sortzailetarikoa da. Talde horrek burututako hainbat ikerketa-lanen zuzendari ere bai.
6. **Euskaltzaindian izandako harreman eta partaidetza:** euskaltzain urgazle izendatua izan zenetik (1971-09-24) hainbat bileretan izan da, batez ere Bilbon eta Araban egin direnetan. Hamaika Jardunaldi eta Biltzarretan parte hartu du; Lino Akesolo karmeldar urgazlearen eta Pedro Pujana arabar euskaltzain ohorezkoaren hilberri txostenak bereak dira; 1990an Arabako euskaltzain oso, ohorezko eta urgazleak prestaturiko herrialde honi buruzko euskaltasunaren aldeko adierazpeneko partaide; Euskarako titulazioak emateko eratutako lantaldeko kide izan zen 1972an irakasle titulua Euskaltzaindiak sortu zuenean bertatik, baita.

Hizkuntza Akademia honetan batzorde ugaritan parte hartu du: *Irakaslegoa, Lexikologia Erixpideen Finkapena (LEF), Onomastika, Alfabetatze-Euskalduntzea, Elebitasun Harremanak, Oinarritzko Euskara*. Une honetan bertan lau batzordetako kide da: Hiztegi Batuko Batzorde Ahaldunduan, Corpusekoan, Sustapenekoan eta Euskalkien Lantaldekoan kide eta Onomastikakoan aholkulari, beraz, erakundeari barru barrutik atxikia. Bestalde, Euskaltzaindiaren izenean epaimahaiko izan da, hain zuzen, itzultzale eta

euskal teknikarien oposaketetan, Basaurin, Bilbon, Galdakaon, Gasteizen, Getxon eta Gipuzkoako Aldundian.

Euskaltzaindiarenkiko atxikimendu sendoa aspaldikoa dela berma dezaket, hasi 60 hamarkadaren bukaeran Erribera kaleko egoitza zaharretik eta Plaza Barriko gaur egungo artio. Ezin nintek xehetasunetan luza, tama-lez, 70 eta 80 hamarkadetako Arbieto eta Elkano kaleetako egoitzetako lan-harreman eta ekintzetan. Juanjo Zearretak, bizirik balego, gustura azalduko lituzke baina hemen izango ditugu Rikardo Badiola, Juan Luis Goikoe-txea, Jon Aurre, Pello Telleria, Gotzon Aurrekoetxea, Luis Baraiazarra, Txomin Solabarrieta eta beste zenbait, Euskaltzaindiko langileak barne. Bere biobibliografiari erreparatzen badiozue, argi ikusten da erakunde akademikoarekin izan duen partaidetza leial eta oparoa.

**IKER LANIK** garrantzitsuenak aipatzearren lexikografian «Bostak Bat» taldeko kideekin zenbait datu-base (UZEI eta beste) eta 180 liburu aztertu hiztegigintzako ikerketa baliagarri. Orobak, Lino Akesoloren lexikoaz, Azkueren hiztegiko hitz komunez, Oinarrizko Hizkuntza baliabideez (metodoak, haur-gaztetxoentzako hiztegiak), Bizkaiko hamahiru herritako grabaketez, euskal aditzaz (batua, bizkaiera, zuberera) egindako azterketa eta ikerketak.

**IDAZLANEZ**, Patxiren bibliografia oparoa bera aurkeztu genuenetik ezagutzen dute euskaltzain osoek. Gainontzekooi: familiako, aramaioar, euskaltzain ohorezko eta urgazle, herri ordezkari, agintari eta adiskide ezin dizuet zerrenda luzea irakurri; gero, EUSKERAn argitaratuko da. Euskaltzainian, EUSKERA Agerkari ofizialean, IKER bilduman idatzi du, ikus dezakezuenez; «BOSTAK BAT» kultura taldean hiztegigintzan partaide zuzena izan da; beste argitalpen solteetan ere idatzi du; baina, emaitzarik erraldoiena KARMEL aldizkarian atzemango duzue, hasi aldizkariaren bibliografia osoa (1931-2007) eta segi ikerketa, dibulgazio, itzultzale eta lankidetza lan eta abar (Ikus eranskina amaieran).

Uribarren euskaltzainak sehaskatik duen Aramaioko euskara, karmeldarren ordenan lehendabizi, baina, unibertsitatean, Euskaltzainian, Foru Administrazioan, irakasle lanetan, hiztegigintzan eta liburugintzan landu eta ondu du goiko mailaraino bibliografian nabarmentzen denez. Komenta-

rio esanguratsu batekin biribildu nahiko nuke kapitulu hau: Patxi, «*Euskal kulturgintza 60. hamarkadan*» izeneko nire sarreran hitzaldian aipatzen nuen euskalgintza belaunaldiko herri gizon bat dela, aurreko belaunaldiko pionero eta maisuen: San Martin, Mitxelena, Villasante, Satrustegi, Aresti eta abarren segidakoa. Jubilatuta izan arren, hurrengo belaunaldikoekin –euskal filologia lizentziaturez eta doktoradutzez ondo hornitutakoekin, batik bat– zubi egin eta eskuz esku, katea eten gabe, euskalgintzan lanean diharduena.

### III

## ARABA EUSKALDUNERA

Askori entzun diot topiko hau: «*Araban euskaldungoaren berezko eremua Aramaioko eremura mugatzen da. Egia da, gaur egun, hiriburuan -eremu erdaldunean noski- euskaldun ugari bizi direla baina gehienak giputzak direla eta gero euskaldun berri mordo bat*». Topiko horren aurrean behin baino gehiagotan haserretu naiz eta neure bizipen, lekukotasun edo ikerketak azaldu dizkiet bati baino gehiagori, gezurtatuz edo argitz Arabako euskal eremu garaikidea, XX. mendekoa, Aramaioko Gainbarrua baino zerbaite gehiago dela. Labur bilduz aipa ditzadan:

Bermeo-Lekeitio-Ondarroa portuetatik, Erdi Arotik dokumentatuta da goen bidea, Durango-Gasteiz errepidetik abiatzen bagara, Arabako euskararen iparralderen dagoen etxea, errepide horren ibaiaren bestaldean dugu: Itzagabarri. Arabako euskara egiten dute. Zeren eta Aramaioko Gainbarruko euskara Mendebaldeko euskara bada ere, Kandido Izagirre euskaltzain urgazle zenak esango zuen bezala «*leinxtarra*» da, Arrasateko bezala, Amaitermin auzokoa da, geografikoki, Itzagabarri, baina Arabako probintziakoa. Administratiboki Durangaldeko eta Arratiako, Amaitermin. Otxandio eta Ubideko euskarak ere, Arabakotzat jotzen dira, Oleta eta Legutiokoene kide.

Oleta Arabako eremu euskaldunean dagoenik inork ezin du ukatu. Eske-rrak bertako seme eta euskaltzain ohorezko Pedro Pujanari elizateko hizkera

ondo ezagutzen dugu. Baino gure gaurko xedea ez da hori, eremuaren euskalduntasuna baizik. Arestian aipaturiko topiko eta ejakintasunaren lekuko, hara zer gertatu zitzaidan Bilbon, Euskadiko «Comisiones Obreras»en egoitzaren inaugurazioan. Espainiako CCOOko Idazkari Nagusi Antonio Gutierrezi eta han gonbidatuo ongi-etorria euskaraz eta erdaraz egin zigun Santi Bengoa Euskadiko Idazkari Nagusi oletarrak. Ekitaldi ostean donostiar parlamentari batek eta historialari bilbotar batek, biak batera:

- *Bengoa ez al da ba arabarra?*
- *Bai, arabarra da eta Arabako euskaran hitz egin du.*

Uste zuten gasteiztar euskaldun berri bat zela, hiriburuan bizi baita, eta mendebal euskaran mintzatukeran bizkaitar euskaldun zahar bat zela. Araba herrialdearen geolinguistika garaikidearen leziotxo bat eman nien bieei, bai, Santi Bengoa haurtzarotik arabar euskaldun bat zela eta dela. Beste behin, Arabako Batzar Nagusietan H. Knörr, Manu Ruiz Urrestarazu eta hirurok, foru erakundearen euskararekiko ikerketa-eraso baten ondorioz agerraldi bat egin genuen –Andres Urrutiak, idatziz bidali zuen bere txostenetan– eta nire txostenaren hasieran Arabako euskaran egiten saiatu nintzenez, amaieran, Correoko kazetari bat hurbildu zitzaidan, elkarritzketa bat eskatuz:

«Bihar edo etzi, posible nuke, zuri elkarrizketa bat egitea? prest nengoke Durangoraino joateko». «Ez, bide erdi egingo dugu, Araba partean egingo dugu».

Oletako Herriko tabernan bildu ginen eta hauxe adierazi nion:

«Oletak Araban seiehun urte dirau, Arabako Errioxak baino gehiago. Eta Oleta, izango da, seguru asko, Arabako Administrazio Batzorde (kontzeju-elizate) %100 euskaldun bakarra».

Bistan da, Gasteiztik kanpoko euskal eremuaz zuen topikoa erori ziizaia. Azkenik, oraintsu, *Euskadi Irratian* elkarrizketa bat egin zioten Mai-der Unda kirolari olinpikoari eta hain natural euskaraz egiten zuena Oletako arabar bat zela ez ziren ohartu, entzule gehienak ere ez, seguru asko.

Legutioko Udalerrriak zazpi kontzeju ditu. Euskalduntasuna, ondo kostata gorde du. Lau aipamen horretaz:

1. 1965ean antolatu genuen Durangon lehen Euskal Liburu eta Disko Azoka eta bi liburu sinbolikoki saritu, erdarazkoetan, *Sociología y Pastoral de la Diócesis de Vitoria* zen. Liburu hau ikerketa baten ondorioa zen, zeinetan Legutioko parrokoak aitortzen zuen elizan aitorta gehiago egiten zirela euskaraz, erdaraz baino. Zehaztu behar da 60 hamarkadan ez zela euskaraz ezer egiten, ez sermoirik ez beste, gaztelaniaz dena eta, argi dezadan, jakin nuela erretoreea ez zela abertzalea, leintzar karlista ideologikoa, erregimenekoa, beraz. Lehen aipaturiko Batzar Nagusietan bota nuen hori Amando de Miguel soziologoa gezurtatzeko eta lekukotzeko, Legution, gerra ostean, euskarak jasdako zapalkuntza nabarmenzeko, alegia, administrazio, eskola eta elizatik, hots, eremu publiko guztietatik ezabatuta, katakunbetan, konfesionariotan bakarrik zutela billerlarrek bere mintzaira propioa egiteko aukera.
2. 1950 hamarkadan Elosuko errotariak, urtegiak bere etxaldea itoko zuen bezperetan nire aititari idi parea saldu zion eta, ni, mutikoa, berarekin joan nintzen, gogoan dut errotakoen samina eta nola euskaraz berba egiten zuten.
3. 1969 edo 1970ko ekainaren 13an, San Antonio erromes egun famatua Urkiolan. Bertan, urtero bezala, ahari feria berezia –iaz ere ikusi nuen– herriko albaitariarekin nengoentzako eta eskatu zidan furgoneta batetik aharriak jaisten zebiltzanei esateko Bizkaian epidemia bategatik debekatuta zeudela feriak. Hurbildu nintzen, gipuzkoarrak izango zirelakoan eta euskaraz hitz egin nien. Konturatu nintzen hizkeraz ez zirela giputzak, arribarrak baizik:

«Urrunagakoak gara. Gure artean euskara gutxi egiten dogu, baina, jakin badakigu».

Kontura gaitezen Urrunaga, Legutiotik hegoaldera dagoen herrixka dela, Gasteiztik dozena bat kilometrora egongo da. Seguru asko, Txomin Jakakortajarena apaiz euskaltzale berastegiarra, gerra arte, bertan ego-teak, lagunduko zuela herri honetan euskarari eusteko.

4. Duela hamar bat urte hil dira Urbina herrixkako azken euskaldun zaharrak, Gasteiz udalerriko mugatik kilometro bi eskasera, Arabako Lautadan, euskararen eremu garaikidea, beraz.

Ubarrundia Udalerriko bost herrik udalerri bat osatzen zuten gerra ostean, Arratzuarekin bilarazi arte. Beste sei, ordea, antzinatik Gasteizek bereganatu zituen Ubarrundiako beste sei herriren ikerketa toponimikoa bukatzen ari gara une honetan Elena Martinez de Madina, Roberto Gonzalez de Viñaspre eta hirurok, hain zuen Gasteiz Udalerrri erraldoiko (277 km<sup>2</sup>) hirugarren liburukia argitaratzea prestatzeko. Bildutako 33.000 toponimo erregistrotik 1.370 hautatu ditugu. Ondorioz esan nezake, %80 leku-izenetik gora zeharo euskaldunak direla eta kenduko bagenitu 1870. geroztik agertu berri direnak, portzentaia ehunetik ehunera hurbilduko litzateke. Beraz, sei herri horiek: *Gamarranagusia*, *Gamarragutxia*, *Erretana*, *Amarita*, *Miñao* eta *Miñaogoien* euskal eremuan izango ziren XIX. mendearren amaieran eta, ia seguru, XX. mendearren hasieran *Miñao Urbinatik* bi kilometro eskasera baitago. Gai hau hobeto garatzeko asmoa dut liburuki horren sarreran, hiriburuaren aterainoko (*Portal de Gamarra*) euskalduntasunaren froga gisa.

Arabako herrialde honek, Gipuzkoak ez bezala eta Bizkaia baino gehiago, hiriburuaren makrozelalia jasan du, zerbitzu guztiak zentralizatuz. Ondorioz, XIX. mendean auzitegi alderdi edo partido judicialak sortu zirenean, Frantziako «arrondissement» delakoen antzera, Araban bost jarri ziren: *Gasteiz*, *Amurrio*, *Guardia*, *Añana-Gesaltza* eta *Agurain*. Azken biok Gasteizen zentralismo erraldoiak irentsi zituen aspaldi eta Guardia, duela hamabost bat urte. Esango didazue zertan dakardan gai hau hona. Ba hara: 1841. urtean, Aguraingo 1. mailako Auzitegiko akta liburuan agertzen denez, epaileagaz gain sei funtzionari agertzen dira, bat «Intérprete, Ignacio Aristimuño» izenekoa. Elebitasun ofizialik ez zegoenez, horrek argi eta garbi hau erakusten du, Aguraingo eskualde hartan elebakarrak zeudela. 1848ko Arabako mapari begiratzen badiogu, Aguraingo auzitegi alderdiak ekialdeko Lautada osoa eta Kanpezu kuadrilaren iparraldea hartzen zuen. Hara hor, aspalditik erdararen eremuan kokatzen genuen eskualde horretan euskaldun hutsak bizi ziren froga argia, itzultzaile funtzionarioa zuela XIX. mendearren erdian. Ikerketa sakonago baten ondorioz

datu zehatzagoak aterako lirateke eta, seguru asko, herri baten baino gehiagotan, oraindik XX. mendearen hasieran bertako euskaldunak aurkituko lirateke.

Gauza jakina da, bestalde, XX. mendean euskaraz egiten zela, beraz, gure historia garaikidean, *Zigoitia* haranean eta R.M. Azkuek bizirik zeuden hitzak bildu zituela bere Hiztegi erraldoi famatuan *Bzig ezaugarriarekin*. Oraindik, Gerra ostean, euskaldun zahar banaka bat *Sanpedro-Gorostiza* auzoan entzuna dugu.

## IV

### ONDORIO ZENBAIT

Azkenik, zenbait ondorio atera nahi nituzke:

- Gure hizkuntza propioaren geolinguistika ikuspegitik Arabaren euskal eremu garaikidea ez dela hain txikia.
- Euskara Normalizatzeko Oinarritzko Legeak ez duela inoiz lurralte historikorik aipatzen, zonaldea/eskualdea baizik. Ondorioz, Administrazio orok beharko zuketen eta lukete hori kontuan izan, adibidez, Hezkuntza Sailak, Osakidetzak, Eustatek, foru sailek eta beste erakunde publikoek.
- Soziolinguistika ikuspegitik hizkuntza normalizazio plangintzetan ez zaio erreparatu euskararen galera historikoan, txosten honetan aipaturiko Arabaren eremu euskaldun garaikideak, zer rol edo eginkizun joka zezakeen. Eskualdearen lidergoa, aramaioarrei tokatzen zitzaiuen/zaiue, udalerri hau delako indartsuena.
- Alde horretatik, Patxi Uribarren Aramaioko arabarra euskaltzain oso proposatu genuenean, faktore horiek ere kontuan izan genituen. Eta hizkuntzaren normalizazioan, ene ustez, Arabako euskal eremu garai-kide hau, gehiago ikertu behar zen, Euskaltzaindia bertan ere. Aspaldi adierazi nuen Euskal Hizkeren Hizkuntza Atlasean ez zela zuzena Araban, Aramaioko Gainbarru honetan bakarrik ikerketa egitea, baita Oleton eta Legion ere. Orobat, estandarizazio prozesuaren

ildo estrategikoan, bertako euskalkia jagon ere, ez bakarrik Bizkaiko Jaurerriko.

- Amaitzeo, horrek ez du kentzen, alderantziz baizik, hiriburuan jokatzen duela euskarak bere etorkizun nagusia, bai normalizazio soziolinguistikoan eta ikerketan. Zeren eta geroago eta hobeto hornituago baitugu hiriburua, bai demolinguistica ikuspegitik, baita irakaskuntza maila desberdinatan, Euskal Herriko Unibertsitatearen Filologia Fakultatean, bereziki. Ez bakarrik, geroago eta gehiago, sortzez arabarrak direnez hornituak, beste euskal herrialdeetatik joandakoak ere, tartean, Euskaltzaindiari dagokionez lau euskaltzain oso eta bederatzi urgazle bizi baitira Araban. Bain, gaur eta hemen, euskararen eremu garaikide hau jagonez.

\* \* \*

## ERANSKINA

**Izen-deiturak:** PATXI URIBARREN LETURIAGA  
**Jaioterria:** ETXAGUEN – ARAMAIO (ARABA)  
**Jaioteguna:** 1942-XII-31

### 1. Ikasketak

- **Lehen urratsak:** auzoan bertan.
- **Batxilergo txikia-1/2:** 1954-1956 (lehen bi mailak) Zornotzan. 1957-1959 (azken hiru mailak) Nafarroako Alesbesen
- **Batxilergo nagusia:** 1961-1962: Markinan
- **Filosofia-Teología:** (7 urte) Gasteizeko eta Bilboko Karmeldarren etxeetan. Azken bi urteak Deustuko Teología Fakultatean, **Teologian lizentziatura (1969)** lortuz.
- **Linguistica erromanikoa** Deustuko Unibertsitatean (**1969-1974**) lizentziatura eskuratu.
- **Linguistikako zenbait alor euskaraz** UEU-n hainbat urtetan zehar.
- **Teología (1969) eta linguistica (1974)** alorretako lizentziaturetarako **bi lanak (tesi txikiak)** euskaraz.

## 2. Euskarako ikasketak

- **Alfabetatzea 1/2:** Zornotzan, astean hiru ordu, eta Alesbesen astean bi ordu, gainerako ikasleek marrazki-lanak edota eskulanak ikasten zituzten bitartean.
- **Alfabetatzea 3:** Markinan, eskola-orduen barruan, ikasle euskaldunek lau ordu euskaraz, gainerakoek grekoa ikasten zuten bitartean. Hemen idatzi zituen lehen bi idazkiak euskaraz, bata, *Karmel* aldizkarirako, eta, bestea, ikaskideen aurrean irakurtzeko.
- **Alfabetatzea 4:** Begoñan, Teologia-garaian eskola orduetatik kango. Hemen euskal taldeko ikasleek GOGOZ aldizkaria jarri zuten abian. Garai horretan bi sari lortu zituen: Olerki-saria Iruñeko lore-jokoetan (1966?) eta Prosa-saria Zornotzako lore-jokoetan *Karmeldarrak euskal literaturan* (1967) lanarekin.
- **Alfabetatzea 5:** *Euskerazaleak* taldeak antolatutako alfabetatze ikastaroetan. Diploma jaso zuen Eusebio Erkiaga jaunaren eskutik.
- **Sakontze lana:** Udako Euskal Unibertsitatean, linguistikako gaiak euskaraz jorratuz. Hiru urtetan irakasle-lanetan ere jardun izan zuen «D» eta «B» mailatarako ikastaroetan nahiz linguistika alorrean.

## 3. Titulazio akademikoak

- **Teologia-lizentziatura:** tesia txikia euskaraz
- **Linguistika-lizentziatura:** tesia txikia euskaraz (Aramaioko toponimia-ri buruz)
- **Euskaltzaindiko «D» eta «B» titulazioak** (1972-III-9)
- **Oposaketa publiko bidezko itzultzaile ofiziala Bizkaiko Aldundian** (1983)

## 4. Euskararen aldeko jarduerak: (1966-1980)

1. **Gogoż aldizkaria** abian jarri eta zuzentzea (1965-1968).
2. **Ipuinak euskaratzea:** Teologia garaian, ikastoletarako irakurgaiak (haurren ipuin unibertsalak) euskaratu zituen ikasle taldeko kide izan zen (1966-1967).

3. **Karmelon (Bilbo) euskal meza abian jarri zenean (1964-1965)** mezako iruzkin/otoitz/oharrak euskaraz prestatzeko ardura izan zuen. Geroago, apaiz egin ondoren, euskal mezaren ardura nagusia izan du gaur arte.
4. **Alfabetatze-euskalduntze lanak:** Santutxuko gaueskolak sortu ondoren (1966) lehen urtetik bultzatzaile eta arduradun izan zen 1980ra arte. Gaueskola horiek garrantzi handikoak izan ziren, 1974-1975 ikasturtean 1.000 ikasletik gora biltzea lortu zutelarik: eskola horiek, ikasleei aukerak emateko, goizko lehen orduan, bazkalostean eta arrasti/gauean ematen ziren. Bertan burututako lana:
  - Gelak eta irakasleak lortzea, prestatzea nahiz lankidetzen talde desberdin arteko koordinazioa bideratzea.
  - Euskararen irakaskuntza hobetzeko materiala prestatzea, eta metodoak berriztatzea bultzatzea (*Euskalduntzen* prestatu zen).
  - Euskal Herriko udako lehen ikastaro trinkoa abian jarri zituen, beraietan irakasle-lanetan jardunez (Arratian, Markinan, Aramaion, Arrazolan).
  - Alfabetatzen zirenak nahiz euskalduntzen zirenak ikaste-prozesua bukatu ondoren irakasle bihurtzeko ikastaroak antolatzea
  - Bilbo eta inguruko beste gune batzuetan adinekoentzako eskolak ezartzea bultzatzea (Boluetan, Zurbarranberrin, Galdakaon, Basaurin...)
  - Adinaren ondorioz ikastolara joaterik ez zuten haurrentzat euskalduntzeko eskolak antolatzea.. Hauentzat udako ikastaro aproposak antolatu ziren Markinan.
  - Ikastolako gurasoak euskalduntzeko eskolak jartzea, 300 guraso baino gehiago ibili zirelarik euskara ikastean.
  - **Euskara ikastetxe eta eskoletara eramateko batzordeko kide izanik**, inguruko ikastetxeetan, hasieratan orduz kanpo, euskara abian jartzeko lanetan jardun izan zuen.
  - **Karmelo parroquia sortu ondoren**, kultura alorreko arduradun izanik, gazte taldea, batez ere *Gaztedi* dantza-taldea euskalduntzeko bideak jartzen ere saiatu zen, orduko gazte gehienak euskaldun diriarlik.

## 5. Deustuko Irakasle Eskolan euskara abian jartzen: (1976-1983)

Bertara Euskaltzaindiak eskatuta joan zen. Honako hauek bideratu zituen:

### – 1976-1977 ikasturtean:

- **Lehen urratsa:** euskara ikasi nahi zutenei eskola-orduz kanpo nahiz eskola orduen artean eskolak eskaintzea izan zen, irakasle gehienak Unibertsitateko EKB-ko kideak izan zirelarik.

- **Programazioa:** Aita Villasante euskaltzainburuarekin batera errektorearekin elkarritzetatu ondoren, euskal filologia ezartzeko programa prestatzeko ardura hartu zuen; abian jarri zen Salamancan ari zen Koldo Mitxelena jaunen oniritzia jaso ondoren.

### – 1977-1978 ikasturtea: **irakasleak kontratatzea:** euskalduntze-planak aurrera eramateko lau irakasle kontratatu zituen unibertsitateak meririmenduzko ageriko deialdia eginez. Epaimahaiburu Koldo Mitxelena izan zen..

### – 1978-1979 ikasturtea: abian jarri ziren **euskal filologia eta euskal adarrak**, euskaldun ikasleei ikasketak euskaraz era ofizialean egiteko aukera eskainiz. Gainerako ikasleentzat (urreko kurtsoetako) euskara eskola-orduen barruan jartzea lortu zuten, horretarako zenbait irakasle lizentziatu kontratatu zirelarik.

### – **Ikastaro trinkoak (1976-1982):** euskal irakasleen premia oso gorria izanik, urte guzti horietan udako ikastaro trinkoak prestatu zituen euskaldunentzat, euskarako titulua lor zezaten eta goi-mailetako erdal-dunek beren ikasketa-prozesua burutu zezaten. Ikastaro horien antolatzaile, arduradun eta irakasle (beste zenbaitekin batera) izan zen. Horretarako Hezkuntza Zientzien Institutuaren (HEZI) laguntza oparo jaso zuten. Udako ikastaro trinko horietan 400 ikaslek baino gehiago parte hartu zuten. Gehienak Aramaioko Etxaguen auzoan eman ziren.

### – **Irakasle Eskolan irakatsi zituen gaiak:** *Alfabetatzen I/II* (idazkera eta abar), *Dialektologia* eta *Morfosintaxia*. Ikastaro trinkoetan: hizkuntza ariketak ere bai, horretarako ariketa-sorta handi bat prestatua baitzuen. Gainerako gaietarako pertsona gaituak ekartzen ziren.

## 6. Itzultze-lanetan Bizkaiko Foru Aldundian: 1983-2007

Itzultzaileari berezkoak zaizkion eguneroko lanez gainera hauek burutu izan ditu:

- **Jose Maria Makua diputatu nagusiak eskaturik**, euskarak Aldundian zuen egoera aztertu, eta txosten bat prestatu zuen Kontseilurako, euskarari idatzizko harremanetan nahiz ahozkoetan benetako lekua egiteko bideak proposatuz. Ondorioz, *Aldizkari Ofiziala* euskaratzeko bideak jarri ziren berehala; urte bi beranduago funtzionarioen euskalduntzea bideratzeko teknikariak ekarri ziren HABE-tik.
- **Itzultzaile berriak hartzeko proiektua eta azterketetarako programa prestatu zuen.** Programa hori, geroago, hainbat itzultzaile-oposaketetan erabilia izan da, esaterako Nafarroako gobernurako egin ziren oposaketen.
- **Toponimia alorrean aholkularitza eskaini izan die alorreko teknikariei**, besteak beste Aldundiak Euskaltzaindiko onomastika batzordearen laguntza onartua izatea lortuz. Horren emaitza ditugu *Bizkaiko mapa berria*, Urkiola, Gorbeia eta Urdaibai Parkeetarako eginiko zenbait mapa, ibilbide, kartel eta abar.
- **Bizkaiko Aldundiaren ordezkari** izan da hainbat urtetan Eusko Jaurlaritzak eratutako Toponimia batzordean.
- **Herri Erakunde desberdinaren artean Nekazaritzako hizategia egin zean**, Bizkaiko Aldundiko Nekazaritza Saileko teknikari alfabetatuen arteko koordinazio lana burutu zuen.
- **Aldundiaren izenean itzultzaile eta euskal teknikarien zenbait epaimahai ofizialetan parte hartu izan du**, erakunde barruko zenbait azterketetan nahiz kanpokoetan: Getxon, Eusko Jaurlaritzan,...
- **Aldundiak argitaratutako zenbait argitalpenen zuzentzaile ere izan da**, batez ere Nekazaritza Sailekoena: *Erlazaintzarako oinarrizko ezagueerak*, *Bizkaiko Mendiak*, *Santropoko Zingira*, *Pagoa...*
- **Langileen zenbait txosten publikoren prestaztalea ere izan da**, hala nola, *Korrika* egintzaren alde prentsan argitaratutako idazkiena.

## 7. Zenbait erakundetako kide edo aholkulari

- **Arabako Kultura Batzordeko kide, 1971eko udazkenean izendatuta**, hainbat urtetan zehar, honako hauetan jardunez:
  - Aramaioko ikastola ofizial bihurtzeko lanetan nahiz Araban sortzen ari ziren ikastolen aldeko jardunetan.
  - 1974-1975 ikasturtean zehar, Aramaioko toponimia-lanaren argitalpena prestatzen. Azkenean ez zen argitaratu, politika mailan izandako aldaketen ondorioz.
  - 1976an toponimia biltzeko programa jarri zuen abian, Deustuko ikasle batzuekin Agurain ingurukoa biltzea antolatuz.
- **«KLASIKOAK» liburu-sortarako itzuli beharreko liburuak aukeratzeko sortutako batzordeko kide izan**, Pedro Migel Etxenike buru eta Xabier Mendiguren idazkari zirelarik, «KLASIKOAK» liburu-sortako lehen ehun liburuen aukeraketan parte hartuz.
- **Euskararen «KONTSEILUA» lanean**, *Euskararen Unibertsuari buruzko jardunaldietan* parte hartu. Estatutuak zehazteko batzordeko kide izendatu zuten eta bertan jardun izan du 1998an sortu zenetik KARMEL aldizkariaren ordezkarilana.
- **EIE / Euskal Idazleen Elkarteko kidea da**. Elkartea 1982ko udazkenean sortua izan ondoren, idazleoi egin zitzaien deialdiari erantzunez, bertako kide egin zen 1983ko martxoaren 21ean.
- **EIZIE / Euskal Itzultzale, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarteko kidea da**. Elkartea 1987an sortu ondoren, itzultzaleei eginiko deialdia erantzunez, bertako kide egin zen 1988ko urtarrilaren 18an.
- **«Bostak Bat» kultur elkarteko sortzailetariko kidea da**: Euskal-tzaindiko «D» eta «B» tituluetarako ikastaroak jendeari (bereziki ikastoletako irakasleei) eskaintzen zenbat urte egin ondoren, hiztegien proiektu berria abian jarri zuen irakasle-taldeko kide sortzailea da. Aurrerantzean, *Bostak Bat lantaldean* jardun izan du lanean. Taldeak burutako izan dituen hainbat ikerketa-lanen zuzendari izan da.

## 8. Euskaltzaindiarekin izandako harremanak labur bilduta

Euskaltzaindiko urgazle izendatua izan zenetik (1971-IX-24):

- **Hileroko aktetan ageri denez** hainbat bileretan izan da, batez ere Bilbon eta Araban egin direnetan. Aldundian lanean hasi zenetik ezin izan du, nonbait, Donostiara joan, Aldundiko lan-ordutegi estuaren ondorioz.
- **Hainbat jardunalditan ere parte hartu izan du.** Hala agertzen da aktetan: Elgoibarren (1973-I-28); Arrasaten (1973-VI-21); Bergaran (1978-IX-7); Arrasaten (1979-XII-20); Donaixti-Ibarren, -dialektologia- (1982-IV-18); Markinan, -atlas linguistikorako biltze-batzordea- (1983-IX-25); Gasteizen, -dialektologia- (1985-I-25); Plentzian -hitz-elkarketa- (1987-I-31); Deban –onomastika-; Oñatin (1993-X-1) *Ohiz kanpoko batzarrea Euskaltzaindiaren 75. urteurreneko ospakizunen Hasiera ekitaldian*; Leioan (1994-X-3/7); Bilbon (2001-IX-17/19an) *Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. biltzarrean...*
- **Hainbat euskaltzainen sarrera-ekitaldietan, hiletetan, hilberri-txos-tenak irakurri izan direnetan** (Lino Akesolorena eta Pedro Pujanarena bereak dira) parte hartu izan du, nahiz bestelako egintza konkreturen baterako eskabidea egin zaionean; esaterako, 1990ko azaroaren 8an, *Arabako euskaltzain oso, ohorezko eta urgazleek Euskaltzaindiaren Jagon Sailarekin egin zuten adierazpenean...*
- **Zenbait batzordetan parte hartu izan du,** batzordekide lanetan edota aholkulari lanetan: *Irakasleria, Lexikologia, Onomastika, LEF...*
- **Euskarako titulazioak emateko eratutako lantaldeko kide izan zen hainbat urtetan.** 1972ko ekainaren 30ean Alfabetatze Batzordearen Oinarri Arauak onartu eta gero irakasle titulua eskuratu ondoren, Euskaltzaindiko «D» eta «B» tituluetaarako epaimahaiko kide lanetan aritu zen urteetan zehar, jardun hori Eusko Jaurlaritzaren esku utzi zen arte.
- **Euskaltzaindiaren izenean epaimahaiko ere izan da behin baino gehiagotan,** itzultzale eta euskal teknikarien oposaketetan: Basaurin, Getxon, Bilbon, Gasteizen, Galdakaon, Gipuzkoako Aldundian...
- **Euskaltzaindiak hizkuntzen irakaskuntza eta oinarrizko euskara aztertzeko Imanol Berriatua** gidari zela Israelera egindako bidaian ere parte hartu zuen.

## 9. Ikerlanak (garrantzitsuenak)

- **Elizkizunetarako irakurgai-liburuuen ikerketa (1984):** eliz liburuen Bizkaiko, Gipuzkoa/Nafarroako eta Iparraldeko bertsioetan bat datozen hitzen zein ezberdinen berri zehatzak jakiteko.
- **«Bostak Bat» taldeko kideekin batera, zenbait asteburutan UZEI-ko datu-baseko lexikoa** (batez ere ikastoletako 225 testutatik jasoak aztertuz) jasotzen aritu zen (1984-1986): *Euskararako Hiztegia* definiziozko euskal hiztegi prestatzeko. Beste zenbait ikerketa ere burutu iztuzten.
- **«Bostak Bat» taldekideekin batera, 180 bat liburu (batez ere gazzteen irakurketa-liburuak)** aztertzen parte hartu zuen (1993) *Europa Hiztegia* prestatu zutenean.
- **Lino Akesoloren lexikoaren ikerketa (1995)** egin zuen, *Bostak Bat* lantaldeko lanetan bizkaieraren presentzia modernoa txertatzeko asmoz.
- **Azkueren hiztegiko hitz komunen bilketa eta azterketa ere burutu zuen (2005),** Txomin Solabarrieta lankidearekin batera.
- **Oinarrizko Hizkuntza baliabideen azterketa (2006):** 38 oinarrizko euskal iturri (euskal metodoak, haur-gaztetxoentzako hiztegi eta zerrendak...) aztertuz burututako ikerlanaren programatzalea eta arduraduna izan zen.
- **Euskalkiei buruzko ikerlanen emaitzak gizarteratzea (2006):** Bizkaiko 13 herrian egindako grabaketak laukietara eramanez konparatzean datzan lanaren antolatzale, koordinatzale eta bateratzalea izan zen.
- **BOSTAK BAT taldearen datu-basea, Euskaltzaindiko Euskara Batuko lantaldeak proposatutako sarrerekin erkatu eta horien arabera jartzeko ikerlana egin du (2007-2008),** 3000 HIZTEGIA horren arabera zuzendu eta egokitzea bideratuz.
- **Euskal Aditza – Trinkoa eta lagunzailea- (Batua – Bizkaiera – Zuberrera) (2005-2006).** Aditza (adibide eta guzti) hiztegi eran kontsultatzeko bideak ematen dituen lanaren prestatzailea, zuzentzailea eta, bertan jasotzen diren eskemen egilea izan da.

## 10. Idazlanak

### EUSKERA Euskaltzaindiaren Agerkari ofizialean

- Aramaionako euskearen berezitasunak, euskal idazleak eta euskeraren egoera eta etorrera; Euskara, 17. libk. (1972) 157-167 orr.
- Aita Lino Akesolo Olibares (1911-1991); Euskara, 36. libk. (1991, 3) 1189-1201 orr.
- Euskararen ibilbidea Foru Aldundietan; euskara, 39. libk. (1994, 1) 129-141 orr.)
- Aita Gabirel Jauregi Uribarren (omenaldiko liburuaren aurkezpena; Euskara, 40. zk. (1995, 2-3) 703-706 orr.
- Pedro Pujana Agirregabiria (1915-2001); Euskara, 46. libk. (2001,1) 489-495 orr.
- *Euskara Araban*, .....

### IKER –Hizkuntza gaiak

- *Euskal dialektologiaren atarian*; Iker, 2, 613-623 orr.
- *Eliz liturgia eta euskara batua*; Iker, 6 (1992) 483-494 orr.
- *Bostak Bat lantaldea*; Iker, 19 (2008) 349-353

### «BOSTAK BAT» Kultur Taldean argitalpen hauetan parte hartu du

- 1983: *Sinonimoen Hiztegia* (I). **Adorez 1.** (8.964 sarrera).
- 1986: *Euskararako Hiztegia*. **Adorez 2.** (mota honetako lehena).
- 1988: *Sinonimoen Hiztegia* (II). *Antonimoduna*, **Adorez 3.** (19.783 sarrera).
- 1990: *Euskararako Hiztegia. Oinarrikooa*, **Adorez 4.**
- 1991: *Eskola Hiztegia. Irudiduna* (I). **Adorez 5** (haurrentzat prestatua)
- 1993: *Europa Hiztegia. Eskola berrirakoa*. **Adorez 6**
- 1996: *Diccionario 3000 Hiztegia* (I), **Adorez 7** (elebiduna)

- 1999: *Sinonimoen Hiztegia* (III), *Antonimoduna*, **Adorez 8.** (36.703 sarrera)
- 2001: *Diccionario escolar 3000 Eskola Hiztegia*. **Adorez 9** (elebiduna)
- 2002: *Diccionario 3000 Hiztegia* (II), **Adorez 7** (elebiduna; berriztatua)
- 2005: *Eskola Hiztegia. Irudiduna* (II). **Adorez 5** (zeharo berriztatua)
- 2006: *Euskal Aditza*. **Adorez 10** (Patxi Uribarrenek hiztegi-eran antolatua)
- 2009: **ADOREZ** hiztegiak (handia), **Adorez 11** (elebiduna, zeharo gehitua)
- 2011: **ADOREZ** hiztegiak – Motxitako hiztegia, **Adorez 12** (elebiduna)
- 2011: **ADOREZ** hiztegiak – Euskal Hiztegia, **Adorez 13** (oinarrizko definiziozkoak)

#### **CD-ROM formatuan**

- 1995: *Europa Hiztegia*, **Adorez 6.** (honekako euskarrian eginiko lehena).
- 1996: *Diccionario 3000 Hiztegia*, **Adorez 7** (elebiduna)
- 1999: *Sinonimoen Hiztegia. Antonimoduna* (III), **Adorez 8**
- 2001: *Diccionario escolar 3000 Eskola Hiztegia*, **Adorez 9** (elebiduna)

#### **Internet-en<sup>2</sup>**

- 1996-2006: *Diccionario 3000 Hiztegia*, [www.euskadi.net/euskara](http://www.euskadi.net/euskara)
- 1999-2006: *Sinonimoen Hiztegia*, [www.euskadi.net/euskara](http://www.euskadi.net/euskara)

#### **Inoren liburutan argitaratutako idazlanak**

- JUAN SAN MARTIN/SERAFIN BASAURI: *Hegatsaz: Kuliska Sorta* (1971); Patxi Uribarren: *gazteria bultzaka*, 293-300 orr.
- Patxi Uribarren: *Aita Santi Onaindia: gizona eta obra*; JAKIN 53 zk. (1989) 141-164 orr.
- JUAN LUIS GOIKOETXEA – BENGÓÑA BILBAO: *Imanol Berriaturaren bizitza euskalduntzearen eztandan 1970 – 1980*; Mendebalde Kultura Alkartea – Ateka Aztergaiaik IV; Patxi Uribarren: *Euskararen eta euskaltzaleen historia bizi bezain ezaguna* (elkarritzeta), 57-92 orr.

- KLASIKOAK -1912: Miguel de Unamuno, *del sentimiento trágico de la vida*; euskaratzalea: Xabier Kintana Urtiaga: *bizitzaren sendimendu tragikoa*, Bilbo (1994); berrikuslea: Frantzisko Uribarren Leturiaga

### **Komunikabideetan argitaratutako idazlanak**

- Zenbait idazlan txiki Aramaiko TXIRRITOLA egunkarian
- Zenbait idazlan (norberaren izenean eta lankidetzan) *Egunkaria* eta *Berria* egunkarietan eta elkarritzeta bat *Mahatsondo* aldizkarian

### **Beste zenbait argitalpen**

#### **Gozoz**

Karmeldar ikasleak euskaraz trebatzeko sortutako aldizkariaren sortzaile, zuzendari eta inprimatzalea izan zen, idazlan hauek argitaratuz:

- 1965: -Eleixa Jaungoikoaren erria; 1. zk. (23-26 orr.); *Iru egi* –ipuina-; 1. zk. (28-30 orr.); -Karmengo eskapularioa; 2. zk. (15-24 orr.).
- 1966: -Kristau alkartasuna; 3. zk. (37-46 orr.); *Ezkontza*; 4. zk. (13-18 orr.); *Elkar-izketa* (Lino Akesolori eliz testuei buruz) ; 4. zk.(I-XIII).
- 1967: -Pakea, anaitasuna, aurreratzea; 5. zk. (7-16 orr.); *Elkar-izketa*; 5. zk. (53-61 orr.): Aita Lino Akeosolo'gaz (53-57); Joseba Arrieta'gaz; 58-61); *Jakitekoak*; 6. zk. (43-51 orr.): Teologi ikas-maillak Deusto'ko Unibertsitatean (43-47); *Euskal eskolak* (48-49); *Umeen antzerki-jaia*: (50-51).
- 1968: -Iritxi eta barri batzuk; 5. zk. (41-64 orr.); *Euskarazaleak* (41-42); *Euskara Araban* (43-45); *Erabagi zuzen bat* –Aramaioko- (45-46); *Euskaldunon nortasuna* (46-48); *Zer egiten dozu euskararen alde?* (48-50); *Ama Lur* –pelikula- (50-51); *Gure euskarako eskolak* (51-52); *Gaur eguneko euskal abeslariak* (52-57); *Euskal Jakintsuen batzar bi* (60-62); *Deusto'ko unibertsidadeko barri* (63-64)

## KARMEL (Bibliografia osoa: 1931-2007)

Karmel 2008-3, 263. zenb.

### 1. Iritzi, ikerketa, dibulgazio lanak

- «Administratzioa eta euskara (1)», *Karmel* 1989-3, 46-64.
- «Administratzioa eta euskara (2)», *Karmel* 1990-2, 69-90.
- «Administratzioa euskalduntzeari buruz zenbait gogoeta», *Karmel* 1988-3, 25-27.
- «AEK Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundearen defentsan», *Karmel* 1989-1, 46-55.
- «Aita Aureliano Landeta Azkueta (Basauri-1887 – India-1963)», *Karmel* 2000-4, 72-77.
- «Aita Emiliano Barandiaran. Itzulpengintza», *Karmel* 2004-2, 143-175.
- «Aita Frai Bartolome Santa Teresaren “Idazlan Guztiak”», *Karmel* 2000-3, 12-25.
- «Aita Jose Luis Beobide Olivares», *Karmel* 2000-3, 26-40.
- «Amnistia, Foruak, Ikerriña eta...», *Karmel* 1976-3/4, 45-53.
- «Araba’ko Diputazioa esnatzen», *Karmel* 1976-2, 75-78.
- «Aramaio Araba ote da?», *Karmel* 1975-2, 52-57.
- «Aramaio’n euskera noiz arte?», *Karmel* 1975-1, 38-43.
- «Aramaio-ko herria burzia jasotzen», *Karmel* 1977-1, 69-73.
- «Ba ote daukagu euskaldunok euskara hutsean bizitzeko eskubide-rik?», *Karmel* 1989-4, 53-62.
- «Balentin Enbeitari omenaldia Bilbon (1983.eko Maiatzaren 29an)», *Karmel* 1983-2, 53-63.
- «Baserriak eta baserritarrok», *Karmel* 1974-3, 41-48.
- «Bateginik», *Karmel* 1988-2, 27-30.
- «Bibliako testuen itzulpenak Frai Bartolomeren lanetan», *Karmel* 1999-1, 252-269.
- «Bide gurutzean norantz?», *Karmel* 1978-2, 9-11.
- «Bizkaiko jaurerriko udalerriak», *Karmel* 1983-3/4, 42-46.
- «Dei garrantzitsu bat...», *Karmel* 1976-2, 65-66.
- «EAeko euskararen legearen 25. urteurrena», *Karmel* 2007-4, 3-22.
- «Egin bideak bakeari», *Karmel* 2005-3, 46-49.

- «Egunkaria aurrera», *Karmel* 2003-1, 5-18.
- «Erlijio-hiztegia», *Karmel* 1987-4, 86-90.
- «ESKOLA HIZTEGIA. Oinarrizko hiztegia», *Karmel* 2005-1, 104-113.
- «Eskola-Hiztegia. Iruditiduna», *Karmel* 1991-4, 81-91.
- «Espirituzko biziera E. Steinen ikuspegiz», *Karmel* 1998-3, 135-142.
- «Europar Herrietako Oinarrizko Kristau Elkartearren III. Kongresua (Bilbon, Urriaren 8tik 11ra)», *Karmel* 1987-3, 64-72.
- «Euskal diputazioak zertan?», *Karmel* 1976-2, 21-23.
- «Euskal Herrian zehar harribitxi bila», *Karmel* 1984-1/2; 15-26.
- «Euskal Herriko euskara maixu-maistren eskola unibertsitarietan», *Karmel* 1977-2, 67-78.
- «Euskaldun baten pozak eta penak», *Karmel* 1981-3, 57-64.
- «Euskaldunok euskaraz eta kito!», *Karmel* 1986-1, 50-61.
- «Euskalduntzeari buruzko zenbait gogoeta», *Karmel* 2003-2, 3-16.
- «Euskalerria pinu-aroan», *Karmel* 1976-1, 59-64.
- «Euskalkia eta administrazinoa», *Karmel* 2002-2, 14-34.
- «Euskalkiak aztertzeko egunak heldu ote?», *Karmel* 1981-2, 53-65.
- «Euskalkieei buruzko gogoeta batzuk (bizkaiera bide berri bila)», *Karmel* 2003-3, 33-56.
- «Euskaltzaindiaren 75. urteurreneko kongresua», *Karmel* 1994-4, 112-122.
- «Euskaltzaindiaren arauen laburpena», *Karmel* 1997-1, 10-25.
- «Euskaltzaindiaren Biltzar irekia Okendon J. P. Ulibarriren omenez», *Karmel* 1975-4, 61-64.
- «Euskaltzaindiaren nazioarteko XV. biltzarra euskalgintza XXI. mendeari buruz (2001-IX-17/21)», *Karmel* 2001-4, 28-36.
- «Euskara ateka larrian ote?», *Karmel* 2000-1, 33-44.
- «Euskara Batu-Euskalkieei buruzko Eibarko Ihardunaldiak», *Karmel* 1985-1, 17-22.
- «Euskara Bilbon», *Karmel* 1991-2, 33-60.
- «Euskara diskriminatzalea ala diskriminatua?», *Karmel* 1985-3, 67-74.
- «Euskara eta Administrazaoa: gogoeta batzuk», *Karmel* 1994-1, 20-28.
- «Euskara euskaldunon hizkuntza (1)», *Karmel* 1977-3, 39-45.
- «Euskara euskaldunon hizkuntza (2)», *Karmel* 1977-4, 30-36.
- «Euskara euskaldunon hizkuntza (3)», *Karmel* 1978-1, 49-55.

- «Euskara euskaldunon hizkuntza (5)», *Karmel* 1978-4, 44-50.
- «Euskara euskaldunon hizkuntza (IV)», *Karmel* 1978-3, 77-84.
- «Euskara irakaskuntzan», *Karmel* 1979-1, 47-52.
- «Euskara, euskaldunon hizkuntza», *Karmel* 1979-2, 40-51.
- «Euskara, euskaldunon hizkuntza», *Karmel* 1979-3, 45-52.
- «Euskara, euskaldunon hizkuntza: "Euskal Herrian Euskaraz" Elkarteen aurkezpena», *Karmel* 1979-4, 69-75.
- «Euskara, euskaldunon hizkuntza: "Euskara batuari buruzko filosofia"», *Karmel* 1980-1, 41-53.
- «Euskara, euskaldunon hizkuntza: Adineko pertsonen euskalduntzeari buruz zenbait jakingarri», *Karmel* 1980-4, 73-80.
- «Euskara, euskaldunon hizkuntza: Euskara eta alderdi politikoak», *Karmel* 1980-2, 63-75.
- «Euskara, euskaldunon hizkuntza: Ingurutako gertaera batzu aztertzen», *Karmel* 1981-1, 81-93.
- «Euskara, euskaldunon hizkuntza: Zenbait euskal irakasle Israele-ra», *Karmel* 1980-3, 65-74.
- «Euskararako Hiztegia», *Karmel* 1986-3, 34-44.
- «Euskararako Hiztegia», *Karmel* 1987-1, 100-104.
- «Euskararako Hiztegia. Oinarrizkoa», *Karmel* 1991-1, 71-79.
- «Euskararen erabilpena arauzkotzeko oinarrizko legea. Urtebetearren buruan zer?», *Karmel* 1983-3/4, 73-86.
- «Euskararen pozak eta penak», *Karmel* 2003-4, 37-54.
- «Euskararen Unibertsoari buruzko jardunaldiak (Donostia: 1997-III-7/8)», *Karmel* 1997-1, 93-104.
- «Extradizioei buruz zenbait gogoeta», *Karmel* 1984-3/4, 59-68.
- «Gabirel Jauregi uribarren idazleen mendeurrenena (eginiko omenaldi ezberdinak)», *Karmel* 1995-3, 95-100.
- «Garizuma ez badugu ere, gogoeta garaia», *Karmel* 1994-3, 8-22.
- «Gazteak eta gabonak», *Karmel* 1982-2/3/4, 27-35.
- «Gazteak eta gaurko gizartea», *Karmel* 1982-1, 21-30.
- «Giza eskubideen aldeko burruka (Nazio Batuen Elkargoaren 40gn. urtea)», *Karmel* 1985-4, 52-60.
- «Gizon langile bateri azken-agurra», *Karmel* 1975-3, 54-55.
- «Hitz elkartuen osaketa eta idazkera», *Karmel* 1992-4, 49-56.

- «Hizkuntz eskubideen deklarazio unibertsala», *Karmel* 1998-2, 52-75.
- «Hiztegia 3000», *Karmel* 1995-4, 46-51.
- «Homiliak», *Karmel* 1994-1, 82-85.
- «Ikastolek antolatutako symposiuma eta Korrika. Bi egintza garrantzitsu», *Karmel* 1987-2, 33-41.
- «Irakaskuntza ote euskararen salbamena?», *Karmel* 1982-2/3/4, 49-67.
- «Irakasle kaleratuak hamar urte luze unibertsitateko atean euskal unibertsitatea eskatzen», *Karmel* 2002-2, 63-68.
- «Iruzur historiko bat», *Karmel* 2005-3, 56-77.
- «Itzulpenari buruzko nazioarleko lehen ihardunaldiak, Bartzelonako Unibertsitate autonomoan Karmel 1992-IV-6/10», *Karmel* 1992-2, 17-24.
- «Jaialdi berezi bat», *Karmel* 1975-4, 58-60.
- «Jakintza bideetatik», *Karmel* 1974-4, 40-45.
- «Korrika... Noiz arte?», *Karmel* 1993-2, 34-47.
- «“Korrika” gogoeta bide», *Karmel* 2001-2, 38-45.
- «Kukuak jotzean diruak aldean», *Karmel* 1975-3, 46-52.
- «Lisieux-ko Teresa “Jainkoaren txiroa”, *Karmel* 1996-3/4, 143-164.
- «Lore jokoak Aramaion», *Karmel* 1999-4, 68-88.
- «Luis Baraiazarra Txertudi idazle meñakarrak jaso zuen Bilboko liburu azokaren 2006ko “Urrezko luma”, *Karmel* 2006-3, 12-36.
- «Mintzagaia eta galdegaia», *Karmel* 1986-4, 37-54.
- «Noemi Shtuler israeldar irakaslearekin elkarritzeta», *Karmel* 1980-4, 81-85.
- «Noiz izango ote euskararen txanda?», *Karmel* 1987-4, 32-40.
- «Nola joka Euskal Herria euskalduntzeko?», *Karmel* 1982-1, 59-68.
- «Odon de Apraiz euskal idazlearen omenaldia», *Karmel* 1977-1, 82-86.
- «Pedro Pujana Agirregabiria (Oletan jaio. 1915-VI-28 – Begoñan hil: 2001-II-4)», *Karmel* 2001-2, 3-21.
- «Pedro Pujana Agirregabiria Bilboko liburu-azokaren “Urrezko luma”, 2000-VI-7», *Karmel* 2000-4, 24-36.
- «Santutxuko Euskal Eskola 25 une lanean», *Karmel* 1991-1, 52-56.
- «Sinonimoen hiztegia – antonimoduna (Adorez-8)», *Karmel* 1999-3, 110-115.
- «Toponimia [Aramaion]», *Karmel* 1995-1/2, 277-323.

- «Torturarik ez, inoiz eta inon», *Karmel* 2006-1, 71-81.
- «Txoria bazina zer egingo zenuke?», *Karmel* 1983-2, 17-23.
- «UEMA-udalerri euskaldunen mankomunitatea (EUMAeguna Aramaion maiatzaren 5ean)», *Karmel* 1996-2, 31-41.
- «Unibertsitateko arazo luzea», *Karmel* 1993-1, 105-114.
- «Urkiolako parke naturala», *Karmel* 1997-4, 85-103.
- «Urrats berri bat», *Karmel* 1977-1, 3-4.
- «XVIII. gogoeta astea oharrizen euskara hutsean. Fedea, sinisgarria eta bizigarria da», *Karmel* 2002-3, 75-91.
- «Zenbait gazteren eritzia», *Karmel* 1992-3, 23-41.
- «“Bostak Bat” lantaldea 25 urte euskararen alde lanean euskal lexikologia aztertzen», *Karmel* 2088-1, 3-17.
- «Sabin Salaberri Urzelai (pertsona, bizitza, lana)», *Karmel* 2008-2, 121-141.
- «Euskara-gaztelania. Gaztelania euskara. Adorez Hiztegiak», *Karmel* 2009-4, 87-104.
- «Gazteak, Aisialdia eta Euskara (Euskaltzaindiko Jagor Sailaren Jardunaldiak)», *Karmel*, 2010-4, 21-37.

## 2. Itzultze-euskaratze lanak:

- Ik. EGIDO LOPEZ, Teófanes, «Gurutzeko Joan Donearen biografia laburra», *Karmel* 1990-3/4, 155-166. Euskaratzailea: Uribarren Leturiaga, Patxi.
- Ik. GONZALEZ, Arantza, «Edith Steinen pentsamendu filosofikoa», *Karmel* 1998-4, 38-48 (Itzult.: Patxi Uribarren).
- Ik. IBARMIA, Patxi, «Eliza nire ama maite dut», *Karmel* 1996-3/4, 111-114 (Itzult.: Patxi Uribarren).
- Ik. IMHOF, Paul, «Loiolako Inazio (1491-1556), kronika biografikoa», *Karmel* 1990-3/4, 167-177. Euskaratzailea: Uribarren Leturiaga, Patxi.
- Ik. MARCUELLO NAVARRO, Vicente, «Loiolako Inazioren nortasuna», *Karmel* 1990-3/4, 223-230. Euskaratzailea: Uribarren Leturiaga, Patxi.
- Ik. PACHO, Eulogio, «Gurutzeko Joan Donea eta bere idazlanak», *Karmel* 1990-3/4, 131-146. Euskaratzailea: Uribarren Leturiaga, Patxi.
- Ik. PLAZAOLA ARTOLA, Juan, «Inazio Donearen ikonografia Euskadin», *Karmel* 1990-3/4, 351-366. Euskaratzailea: Uribarren Leturiaga, Patxi.

- Ik. UNZUETA ETXEBERRIA, Antonio, «Euskarazko atalak Arantzazuko Andra Mariari buruzko liburu ezezagun batetan», *Karmel* 1993-1, 3-14. Euskaratzalea: Uribarren Leturiaga, Patxi.
- Ik. ZUAZUA, Damaso, «Santa Teresa Jesus Haurrarena misioen zaindari», *Karmel* 1996-3/4, 129-141 (Itzult.: Patxi Uribarren).
- Ik. UNZUETA ETXEBERRIA, Antonio, «Frai Juan de Zumarraga», *Karmel* 1992-4, 14-32. Euskaratzalea: Uribarren Leturiaga, Patxi.

### **3. Lankidetza eginiko lanak:**

- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen - URIBARREN LETURIAGA, Patxi, «Margarita María López de Manturana. Bilboko Santiago katedralean lehenengo beatifikazioa», *Karmel* 2006-4, 102-121.
- Ik. URIBARREN LETURIAGA, Patxi - AULESTIA, Gotzon, «Gotzon Aulestia (1940-2003)», *Karmel* 2003-2, 36-47.
- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen - URIBARREN LETURIAGA, Patxi, «Aita Eliseo (Sebastian Lejarza Gorostiza, 1919-2006) (Kultur ekintzailea)», *Karmel* 2007-1, 12-23.
- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen - URIBARREN LETURIAGA, Patxi, «Karmel Mendieta eta Karmeldarrak, Erregelaren 8. mendean», *Karmel* 2007-3, 46-82.
- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen - URIBARREN LETURIAGA, Patxi., «Aita Juan Bizente Zengotita-Bengoa (1862-1943). Bere heriotzearen 50. urteurrenean», *Karmel* 1993-4, 70-78.
- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen – URIBARREN, Patxi – ARRIZABALAGA, J. Mª, «Edith Stein-en kronologia», *Karmel* 1998-3, 6-13.
- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen – URIBARREN, Patxi, «Edith Stein: Auschwitz-etik altaretara. Kanonizazioaren kronika», *Karmel* 1998-4, 75-102.
- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen – URIBARREN, Patxi, «Edith Steinen testamentua», *Karmel* 1998-3, 130-134.
- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen – URIBARREN, Patxi, «Euskara euskaldunon hizkuntza nazionala», *Karmel* 2001-3, 3-27.
- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen – URIBARREN, Patxi, «Frai Bartolomeren Euscal-errijetako olgueeta... liburuaren argitaraldien nondik norakoa», *Karmel* 1998-2, 91-101.

- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen – URIBARREN, Patxi, «Gabirel Jauregiren bizița», *Karmel* 1995-1/2, 71-104.
- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen – URIBARREN, Patxi, «Orain dala 50 urte Euskal Herrian Karmengo eskapularioaren 700. mendeurrena ospatzten», *Karmel* 2001-2, 77-92.
- Ik. URKIZA TXAKARTEGI, Julen – URIBARREN, Patxi, «Santa Teresaren ezagutza eta eragina», *Karmel* 1997-3, 88-119.

#### **KARMEL SORTAN: (itzultziale-euskaratzalea)**

- URKIZA TXAKARTEGI, Julen, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991) Historia eta agiriak*. (1992) 497 orr. Euskaratzalea: Patxi Uribarren
- UNZUETA, ANTONIO, Fr. Jose Jesus-Mariarena (Jose Arakistin, 1700-1764) IDAZLANAK, *Karmel Sorta*, 10 (1997) 231-333; euskaratzalea: Patxi Uribarren.
- TERESA LISIEUXkoa, *Idazlan guztiak*, *Karmel Sorta*, 8 (1996); Patxi Uribarrenek itzuliak: Azken elkarriketak (879-1067 orr.); baita Aurkezpena eta *Hitzaurrea* ere, 11-18. orr.

# Jardunaldiak



# Euskarazko terminologia juridiko-administratiboa *Jardunaldia*

Iruñea, Euskarabidearen egoitza, 2010-III-04  
Euskaltzaindia-Euskarabidea



# Ikerketak / Txostenak



# **Nafarroako lege-testuak: lexiko juridiko elebidunaren hustuketa**

URRUTIA, Andres  
Notarioa. Euskaltzainburua.  
Deustuko Unibertsitateko zuzenbide irakaslea

URRUTIA, Esther  
Deustuko Unibertsitateko zuzenbide irakaslea

Sarrera data: 2011-03-11

Onarpen data: 2011-06-24

Beste hitz batzuetan esateko, hustuketaz harago joan nahi izan dugu (hustuketa horrek zama lexikografikoa duelako, eta ez horrenbesteko terminologikoa), nozio kontzeptua tartekatuz; eta, horren bidez, bi hizkuntzen arteko baliokidetzak bilatu nahi izan ditugu, horixe baita oinarrizko mekanismoa itzulpen juridikoan. Horrek, bestalde, abagune ederra eman digu, euskararen kasuan, terminologia baterako oinarriak jarri, eta normalizaziorako eta normativizaziorako ekarpenak egiteko.

- 3) Aurrekoak gorabehera, subjektibotasuna ere gertatu da gure hau-tuan; hain justu ere, legalerien subjektibotasuna. Hura, dena den, orekatu nahi izan dugu, lege-testuak euskaratzeko eginkizunean le-hendik daukagun eskamentuarekin (ESTHER URRUTIA, *Zuzenbi-dearen irakaskuntza...*).

## 5. Fitxaren osagaiak

Mikroegiturari erreparatzen badiogu, fitxa bakoitzaren osagaiak dira azaldu beharrekoak. Fitxa guztietan, goiburua moduan, *entry number* izeneko agertzen da, kontagailuak egindako lana islatzeko, besterik gabe. Hori alde batera utzita, fitxaren osagaiak hurrengoak dira:

### 5.1. Iturria

Osagai honek bi datu eskaintzen ditu: aurrenекоа, zein lege-testutatik hustu den unitate lexicala, eta, hurrena, lege-testu horren barruan, zein artikulutan edo zein xedapenetan dagoen jasota unitate zehatz hori. Bietiere, lege-testuaren aipamena egiteko, izen ofizial osoa erabili beharrean, horren laburdura erabiltzen da, gaztelaniaz eta euskaraz jarrita, eta, aldame-nean, artikuluaren zenbakia.

### 5.2. Gaztelaniazko sarrera

Esan bezala, datu-basea itzulpena egin zen norabide berean, hau da, gaztelaniatik euskarara abiatuta egin da, eta, ondorenez, gaztelaniazko unitate lexikala agertzen da, iturriaren ondotik.

### 5.3. Testuingurua gaztelaniaz

Behin unitatea bera jasota, horren testuingurua ageri da, testuinguruaren barruan hartzen baitu bere esanahi osoa unitate horrek.

«Desde el punto de vista comunicativo el texto es el signo lingüístico primario, es decir, el lenguaje en condiciones normales sólo se encuentra en los textos (Hoffman, 1998 (1988a) 77-8) por lo que éste, y no la palabra o la oración, debería ser el núcleo central en el trabajo con las LE, aunque las investigaciones sobre los planos léxico y sintáctico también son necesarias (CONTRERAS, El diccionario..., 71. or.)».

### 5.4. Euskarazko sarrera

Gaztelaniazko alderdia bukatuta, euskarazkoan lehenengo osagaia da gaztelaniazkoaren ordaina ematea. Hala bada, ordain bi edo gehiago ager daitezke jasota fitxa berean, lehen esan dugun bezala.

### 5.5. Testuingurua euskaraz

Euskarazko ordainak ere bere testuingurua behar du eta hori jasota dago fitxa bakotzean. Ordainak bat baino gehiago direnean, zein bere testuinguruarekin jaso da; horrela argiro ikus daiteke egokia den ala ez euskaraz bi ordain egotea, gaztelaniaz unitate bakarra izanik.

Ikus ditzagun, fitxaren mikroegiturari buruz, zenbait adibide:

**SDL MultiTerm [Proyecto Sin título.xdp]**

Base de datos terminológica Proyecto Entrada Buscar Ver Ayuda

cédula Spanish Basque Flags layout Default input model

Entry number: 3875  
Iruña: LFPV/NNEBPL 24.2.

**Spanish**

**cédula de habitabilidad**

Gaztelaniazko testungurua: Condiciones técnicas de construcción y rehabilitación.  
2. Asimismo, podrá establecer las normas técnicas exigibles para el otorgamiento de cédula de habitabilidad a todas las viviendas construidas o rehabilitadas en Navarra, con sujeción a lo dispuesto en la legislación básica sobre edificación.

**Basque**

**bizigarritasun-zedula**

Euskaraazko testungurua: Erakuntzen eta zaharberritzen ezaugarri teknikoak.  
2. Halaber, zegi du Nafarroan erakili edo zaharberritutako etxebizitza pusei bizigarritasun-zedula emateko eska dañizkieken arau teknikoak Ezar Zeta, erakuntzen boruzuko legea oinarrikoari ezantolak jarraituz betiere.

cedula de habitabilidad /

Lista NUM

**SDL MultiTerm [Proyecto Sin título.xdp]**

Base de datos terminológica Proyecto Entrada Buscar Ver Ayuda

convenio Spanish Basque Flags layout Default input model

Entry number: 4861  
Iruña: LFOTU/LAHAPL 158.

**Spanish**

**convenio urbanístico de gestión**

Gaztelaniazko testungurua: Las transmisiones de terrenos o adjudicaciones de solares derivadas de la aplicación de alguno de los sistemas de actuación regulados en esta Ley Foral no realizadas mediante convenios urbanísticos de gestión, cuando se efectúen en favor de los propietarios comprendidos en la correspondiente unidad de ejecución y en proporción a sus respectivos derechos, estarán exentas del carácter permanente, si cumplen todos los requisitos urbanísticos, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles y del Precio de Venta de los Terrenos de Naturaleza Urbana, así como de la contribución que se aplique a los contribuyentes al momento de la ejecución del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana. Cuando el valor de los solares adjudicados a un propietario excede que proporcionalmente corresponda a los terrenos aportados por el mismo, se girarán las liquidaciones procedentes en cuanto al exceso.

**Basque**

**hirigintzako kudeaketa-hitzarmen**

Euskaraazko testungurua: Lurren eskualdeaketa.  
Foru lege honetan araututako jarduketa sistemakoaren baten aplikazioaren ondoriozko lurren eskualdaketa edo orubeen adjudikazioak, edo hirigintzako kudeaketa-hitzarmenaren bidez egindakoak, kasuan kasuko exekuzio unitatean sartutako jabeen alde eta dagozkien eskubideen arabera egiten direnean, hirigintzako betebehar gurzak betetzen baitzute, ondare eskualdeaketa eta egintza juridiko dokumentuetan gaineko zerga ordainketak sabiutrik egonen dira betiko, eta ez da galarri eskuadalekatzat hartuko, hiru lurren balio speieraren gaineko zerga ordainketeo orduan. Jabe bat adjudikatuakto orubeen balioak gainerantz bedatuta pase horretarako exentakoa lurren propietarioak, soberanienek digozeren kidea zuten gorrizko dira.

convenio urbanístico de gestión /

Lista NUM

**SDL MultiTerm [Proyecto Sin título.xdp]**

Base de datos terminológico Proyecto Entrada Buscar Ver Ayuda

administración tribu Spanish Basque Flags layout Default input model

Entry number: 797  
Iturria: ISD/ODZ 11.  
Iturria: ISD/ODZ 19.

**Spanish**

**Administración tributaria**

Gaztelaniazko testungurua: Adquisiciones "mortis causa".  
Estarán exentas:  
Los sujetos pasivos del Impuesto no estarán obligados a presentar ante los órganos competentes de la Administración tributaria los documentos y declaraciones establecidos en el Reglamento y relativos a dichas adquisiciones.

Gaztelaniazko testungurua: Determinación de la base imponible.  
Con carácter general, la base imponible se determinará por la Administración tributaria en régimen de estimación directa, sin más excepciones que las determinadas en esta Ley Foral y en las normas reguladoras de estimación indirecta de bases imponibles.

**EU Basque**

**zerga administrazio**

Euskaraeko testungurua: "Mortis causa" eskurapenak. Salbuetsirik daude:  
Zergaren subjektu pasiboa ez daude beharrik Erregelamenduan ezarritako dokumentuak eta aitorpenak, eskuatze horiek buruzkoak, aurkezten zerga administrazio organo eskudunei.

**tributo-administrazio**

Euskaraeko testungurua: Zerga-oinarriaren zehatzapena,  
Oro har, tributo-administrazioak, finkatuko du zuzeneko balioespenez zerga-oinarria, eta ez da onartuko salbuespenik, ez bida foru lege honetan zehaztutako edo zerga-oinarrien zeharreko balioespeneren arauetan jasotakorik.

Administración tributaria /

Listo | NUM |

**SDL MultiTerm [Proyecto Sin título.xdp]**

Base de datos terminológico Proyecto Entrada Buscar Ver Ayuda

poder Spanish Basque Flags layout Default input model

Entry number: 34  
Iturria: LFIP/E83JFL 4.4.  
Iturria: ISD/ODZ 22.6.

**Spanish**

**poder**

Gaztelaniazko testungurua: Disolución de la pareja estable.  
4. La extinción de la pareja estable implica la revocación de los poderes que cualquiera de los miembros haya otorgado a favor del otro.

Gaztelaniazko testungurua: Adición de bienes.  
6. El importe de los bienes o valores retirados en virtud de poder o autorización con posterioridad al fallecimiento del poderdante se adicionará al caudal líquido hereditario propiamente dicho y, en consecuencia, los interesados están obligados a incluir dichos bienes en el inventario de los relictos, sin que ello les relieve de las responsabilidades en que, como consecuencia de haberlos retirado fuera de las condiciones legales, hayan podido incurrir en su caso.

**EU Basque**

**botere**

Euskaraeko testungurua: Bikote egonkorrera desegitea.  
4. Bikote egonkorraren iraungizteki bi kideetako edonork bestearain alde emandako botereak berreskuratzea ekarriko du.

**ahalorde**

Euskaraeko testungurua: Ondasun-gehitzea.  
6. Ahalorde-emalea hil eta gero ahalordeaz edo baimenaz balatuz erretratutako ondasun edo baloreen zenbateko jaraunspeneko ondasuntzaren zenbateko likidoari gehitutu zaito, eta, horrenbestez, interesatuak beharturik daude onordetan utzitako ondasunen inventariantza ondasun horiek sartzera, eta horrek ez ditu libratuko, legezko baldintzearako erretiratzearen ondorioz bereganatuak izan litzaketan erantzukizunetatik.

poder /

Listo | NUM |

## 6. Egitasmoaren emaitzak

### 6.1. Lexiko egituratua: onomasiología/semasiología

Lehen puntu da datu-base horren izatea, onomasiología edo semasiologíaaren aldetik. Esan beharrik ez dago datu-basea modu semasiológicoan antolatu dela.

Makroegituraren osatzea, beraz, hurrenkera alfabetikoan egin da, dela unitate lexikal soilentzat, dela besteentzat.

Ez dugu iritzi unitate lexikalen arteko batuketa, hitz multzoka egin daitzeena, eta, gure iritziz, itzulpen jurídicoan, eta, areago, legearen korredakzioan pisu erabakigarria izan dezakeena (ENEKO OREGI, Korredakzia araugintzan...). Hori defendatu dugu berrikitan, eta hortik ikusten dugu bidea, etorkizuneko lexikografía eta terminología jurídicoan (ANDRES URRUTIA/ESTHER URRUTIA, *Onomasiología eta terminología...*).

«Las palabras que forman parte de una familia se ordenan por orden alfabético, después de la «cabeza de familia». A ésta y a cada palabra de la familia corresponde una entrada aparte con un lema puesto de relieve. A contagio como cabeza de familia, por ejemplo, siguen contagiar, contagiar, contagiosidad, contagioso, contaminación, contaminado, contaminador y contaminar, y palabras como container o contal, que vendrían antes de contaminar, aparecen después, rompiéndose así el orden alfabético. Además, las palabras que están fuera del lugar que les corresponde alfabéticamente, aparecen en él también, pero sólo como lema (sin definición), remitiendo a la cabeza de familia, en nuestro caso, contagio. Este sistema es, por ejemplo, el del diccionario de M. Moliner (del que hemos sacado también los ejemplos) (HAENSCH, La lexicografía..., 453. or.)».

Horrek ekarriko luke, besteak beste, testu itzulientzat halako barne kohesioa, testuaren kalitatea, jurídicoa nahiz linguistikoa, bermatuko lituzkeena.

Horrek ekarriko luke, berebat, lege-testuaren sistema jurídicoa eta bi hizkuntzen arteko itzulpena edo transposición egiteko aukera aparta.

Ildo horretatik, nahiz eta oraingoan barruratu ez, sakondu izan dugu berritan lehen erakutsitako fitxa, gure ustez honako osagai hauek izan beharko lituzkeena, onomasiologiaren bidean:

**[zk.] Hitz juridikoen multzoa identifikatzea**

Arloa:

Iruzkina:

Eremu semantikoa:

[zk. eta letra] ES gaztelaniazko hitza

EU euskarazko ordaina

Lege-testua:

Euskaratze-bidea:


Eta fitxa horren adibideren bat jartzekotan, hona hemen:

**[1] Ebazpen judizialak: motak**

Arloa: Proz. zuz.

Iruzkina: Epaitegi eta auzitegiak emandako ebazpen judizialak hiru motatakoak izan daitezke: probidentziak, autoak eta epaia. Probidentziak izapidezta hutseko ebazpenak dira. Autoek, berriz, erabakitzentzu dituzte auzipetuen, akusatzaile partikularren edo auzi-jartzale zibilen gain zuzeneko eragina duten intzidenteak edo funtsezko gaiak; epaitegi edo auzitegiaren eskumena; ezespena bidezkoa edo bidegabea izatea; probidentziaren bat birjartza; birjartzearen ukatzea; espertxeratza eta askatzea; froga edo doako laguntza onartza edo ukatzea; eta, azkenik, legeen arabera oinarridunak izan behar diren ebazpenak ere autoak izaten dira. Epaiek, bukatzeko, auzia behin betiko erabakitzentzu dute auzialdi bakoitzean.

Eremu semantikoa: Taxonomikoa da.



**[1a] ES auto**EU *auto*Lege-testua

PKL.160es: Los autos que resuelvan incidentes se notificarán únicamente a los Procuradores.

Euskaratze-bidea

PKL.160eu: Intzidenteak ebazten dituzten autoak prokuradoreei bakarrik jakinarañiko zaizkie.

**[1b] ES providencia**EU *probidentzia*Lege-testua

PKL.204es: Las providencias se dictarán y firmarán inmediatamente que resulte de las actuaciones la necesidad de dictarlas, o en el mismo día o el siguiente al en que se hayan presentado las pretensiones sobre que recaigan.

Euskaratze-bidea

PKL.204eu: *Probidentziak eman eta sinatuko dira, horiek emateko beharrizana sortu bezain laster, edo, probindentzia horiek zein uziri buruzkoak izan eta uzi horiek aurkezten diren egunaren biharamunean.*

**[1c] ES sentencia**EU *epai*Lege-testua

EK.165es: En las sentencias que pronuncie el Tribunal Supremo en los recursos de casación o en los de revisión no habrá discordia, quedando al efecto desechados los resultados y considerandos que no reúnan mayoría absoluta de votos.

Euskaratze-bidea

EK.165eu: Ez da desadostasunik egongo Auzitegi Gorenak kasazio- edo berrikuspen-errekursoetan ematen dituen epaien inguruan; ondore horretarako, baztertu egingo dira botoen erabateko gehiengoa lortzen ez duten ikusizkoak eta kontuan hartuzkoak.

Lehen pausoa dugu, beraz, oraindik semasiologikoa dena, baina molde osoz on daitekeena, onomasiologiara eramateko, edo, behintzat, biak ahal biak eskaintzeko, horrekin erdiesten dela tresna osoagoa, itzulpenean

edo korredakzioan jokoan diren sistema juridikoak eta hizkuntzak barruratzenten dituena.

## 6.2. Hiztegi lexikografikoa/terminologikoa: definizioen arazoa

Bigarren puntu da datu-basearen izate lexikografikoa edo terminologikoa. Zerbait eman dugu aditzera hasieran, eta orain hura berretsiko dugu. Hemen ez gaude datu-base terminologiko huts baten aurrean, lan lexikografiko baten aurrean baino. Egia da hiztegi, berbategi eta glosarioaren arteko bereizketa ez dela aise zertzen:

«Un diccionari general d'una llengua sol tenir pretensions d'exhaustivitat, i és així que conté un nombre important de mots en aquesta llista; un diccionari especilitzat, que abraça només un àmbit del saber, sol partir d'una llista més restringida de mots. Si el nombre de mots tractat és bastant reduït, en comptes de diccionari, l'obra se sol anomenar vocabulari o lèxic. Si es tracta d'un recull reduït que conté només els mots considerats de comprensió difícil en una obra o en un autor, o aquells sobre els quals convé fer algun aclariment, aleshores utilitzem el terme glossari (RAFEL, Lexicografía, 15. or.)».

Guretzat, berbategia izango litzateke berbarik egokiena, RAFEL lexikografo katalanaren eskutik, halako unitate lexikalen multzoa, datu-basera bilduta dagoena, izendatzeko. Datu-base horrek, esan gabe doa, izaera eta informazio mugatua du.

Berbategi elebidun hori, gainera, baliokideen berbategia da, euskararen eta gaztelaniaren artean; eta erabileraren berbategia ere bada, unitate lexikal horiek lege-testuaren barruan nola erabiltzen diren erakusten digulako. Horretan ere azpimarratu behar da ez dela hori maiztasun handikoa gure hiztegietan edo berbategietan, salbuespenak salbuespen (bata, «AGINTARITZA-ALDIZKARIETATIKAKO HITZ-BILDUMA/VOCA-BULARIO DE LOS BOLETINES OFICIALES»; eta, bestea, «LURRALDE ANTOLAMENDU ETA HIRIGINTZARI BURUZKO HITZ-BILDUMA/GLOSARIO SOBRE TÉRMINOS DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y URBANISMO»).

Bi kasuotan hori egiten bada ere, aipamenak ez du lege-testuaren barruko kokapena eskaintzen, kasu honetan gertatzen den bezalaxe. Azpimarra dezagun erabileraren berbategi izate hori, gero eta sarriago argitaratzent baitira egun halakoak.

Gure eredua ez da bakarra izan. Aitzitik, eskura izan ditugu, besteak beste, galegoari eta gaztelaniari dagokiena («VOCABULARIO XURÍDICO-ADMINISTRATIVO GALEGO-CASTELÁN»), frantsesari eta gaztelaniari dagokiena («LEXIQUE BILINGUE DE TERMES JURIDIQUES, FRANÇAIS-ESPAGNOL»), eta, horien aldamenean, «DICCIÓNARIO JURÍDICO. TERMINOLOGÍA DE LA RESPONSABILIDAD CIVIL (ESPAÑOL-FRANCÉS/FRANCÉS-ESPAÑOL)» eta «PRIVATE LAW DICTIONARY AND BILINGUAL LEXICONS/DICTIONNAIRE DE DROIT PRIVÉ ET LEXIQUES BILINGUES», azken horrek jasotzen baititu, bi liburukitan, zin-zinezko hiztegiak, elebidunak eta lege-sistema bi baten dituztenak.

### **6.3. Hiztegi berezia: hizkera juridikoa, lege-ingurunean**

Lexiko hau, bistan da, espezialitateko hizkera baten berbategia da; are zehatzago, lege-hizkerarena, hori ere azpihizkera dela hizkera juridikoaren barruan, hizkera administratiboa, auzitegietako hizkera eta zuzenbide-doktrinarena diren ber:

«Il y a ainsi trois types de textes qu'on peut qualifier de juridiques: les textes normatifs, les textes des décisions qui appliquent ces normes, et enfin les textes qui exposent le contenu des règles de droit, ceux que l'on désigne d'une façon toute générale par le terme de doctrine (BOCQUET, La traduction juridique, 10. or.)».

Horrek berarekin dakartzza lege-hizkerak ezartzen dituen baldintzak eta ezaugarriak. Ez dugu arlo hori orain sakonduko. Luzea da horren inguruan osa daitekeen artikulu-zerrenda, esaterako, fraseologiaren gainean dagoena, eta, horren barruan, esaterako, lokailuen erabilera estrategikoak joka dezakeena.

Idatzi ere, Kanadan idatzi da, ez hain aspaldian, guri ere aplikagarri izan dakikeguna:

«En common law comme dans les systèmes d'inspiration romano-germanique, le système conceptuel est entièrement dépendant du discours. Et, au sein de ce discours du droit, la phraséologie tient une place de choix. D'où l'importance de trouver et d'employer les lexèmes susceptibles de se combiner de façon idiomatique pour former un énoncé déterminé. Ce phénomène s'appelle, en linguistique, collocation (ou cooccurrence) (BEAUDOIN, La traduction..., 181. or.)».

Hitz gutxitan esateko, hizkera berezia dugu hau, eduki berezikoa, eta hori da berbategira bildu dena.

#### **6.4. Eginaren laburra**

Aurrena ikusita eta hurrena aztertuta, joan gaitezen orain azkenaren bidez, berbategi horren makroegiturak eta mikroegiturak ahalbidetzen baitute eginaren balantza egitea:

Horretara,

##### *6.4.1. Aurrera goaz*

Euskarazko lexikografia juridikoaren inguruan aurrerapausoa da, beste batzuk beharko dituena; euskarri teknologiko estandar baten bidez ondu da; unitate lexikal juridiko batzuk biltzen ditu; eta, horrekin batera, unitate horiek esanguratsu den sistema juridikoari erreferentzia egiten die.

##### *6.4.2. BAliokidearen arazoa*

Kokatze hori kronologikoa eta testuala da, euskararen eta gaztelaniaren arteko baliokidetzak jasotzen ditu, eta testu itzulien eraberekotasun-maila zehazteko balio du.

#### 6.4.3. Konsultarako lanabesa

Konsultarako tresna da, aurrerantzean Nafarroako Gobernuak eta Euskarabideak eskura dutena eta itzulpen juridikoa hobetzeko aukera ematen diena.

Hobetze hori, argi dagoenez, ez dagokio kalitate linguistikoari bakarrik; egin-eginean ere, gaur badira horretarako baliabideak:

«IDITE tresnaren azken xedea terminologia-egiaztatzailea izatea da, baina, horretarako, hiztegi terminologiko normalizatua izan behar du oinarrian. EUSKALTERMeko terminologia juridikoa normalizatutat jotzeko moduan denean, terminologia-egiaztaizailearen oinarri ezin hobea izango litzateke. Edozein itzulpen juridiko egindakoan IDITE erabiliko balitz, itzulpenean erabili den terminologia normalizatua ote den jakingo litzateke (LEIRE ZENARRUZABEITIA, Euskarazko testu juridikoen..., 203. or.)».

Hobetze hori, beraz, kalitate linguistikoari ez eze, kalitate juridikoari ere badagokio, bitzuok baitira erreferentzia saihestezinak, bi hizkuntza ofizialen arteko itzulpen juridikoa aitzinatzeko.

#### 6.4.4. Testua eta testuingurua

Euskarazko lexikografia juridikoan ohiko izan dugun baliokidetzen zerrenda baino harago doa hau, beraren baitan baitu hautu juridiko baten irizpidea, eta, gainera, lege-hizkeraren unitate lexikalen erabilera ere berruan hartzen baitu, Nafarroako Foru Komunitatean.

#### 6.4.5. Etorkizuna: zuzenbidea/hizkuntza

Etorkizunari buruz badu ibilbidea egiteko moldea, horrek lagundu dezakeelako lexikografia eta terminologia juridiko elebiduna jorratzeko unean, bi alderdiak, linguistikoa eta juridikoa, aintzat hartuz eta berme seguruagoa eskainiz.

#### 6.4.6. *Euskararen normatibizazioa*

Bestalde, bada tresna esanguratsua ere, euskara arautzeko xedeetan. Hainbatez, gure buruari gero eta ozenago egin behar diogun galderak ere hemen du bere kokalekua, ukaezina baita egungo gizarteetan jakitate espezializatuak hiztegi orokretan duen sarbide azpimarragarria:

«Kontua da espezialistena eta espezialitateko hori nola neurtu eta barruratu. Labur-zurrean esanda, orekaren nondik norakoak nola zehaztu. Horretan, zalantzarik ez izan, Euskaltzaindiak zuen lana beharko du, Akademiaren emaitzak balioets ditzazuen eta zuen arrangurak barrura ditzagun, ahal delarik, modurik sistematiko eta agerikoenetan. Horrelaxe lortuko dugu, menturaz, egun munduan zehat zabaltzen ari dena euskaraz ere egitea, hots, Cabre aditu katalanaren esanari helduz, terminologia in vitro batetik terminologia in vivo batera igarotzea, eten eta jausirik gabe (ANDRES URRUTIA, Hizkuntza orokorra..., 60. or.)».

Estatistikiek erakusten dute horren gorakada. Euskararen kasuan, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuaren bigarren itzulian, %5,16koa da ehunekoa, lehen hiru letretan; DRAE'01 horretan, aldiz, %8koa:

«Las apariciones de marcas jurídicas en el DRAE'01 (1498) representan el 8% del total de apariciones de marcas técnicas (19.160) y colocan al Derecho como tercera disciplina más representada, después de la Medicina (10,2%) y el transporte marítimo (9,6%) (LÓPEZ SAMANIEGO, La terminología..., 296. or.)».

Horri gehitzen badiogu zuzenbideak euskararen historia linguistikoan duen ibilera urria, onargarria da lan lexikografiko eta terminologikoa, testuinguru elebidunean, etorkizuna eta zeresana izatea, euskararen esparruan, hizkera arruntean nahiz espezialitatekoetan, eta, esan gabe doa, zuzenbidea-ren hizkeran ere.

#### 6.4.7. *Azkena*

Bukaerako utzi dugu guretzat pisu handikoa den azken oharra. Nafarroako Foru Komunitatearen legeen multzoak, corpus testual gisa hartuta,

datu-basea osatzeko bidea eman digu. Beharrezkoa da hori osatzea eta finkatzea, hain zuzen ere, itzultzaleek eta hizkuntza-teknikariekin onurarrak handienak ateratzen ditzaten lantresna horretatik, eta, azken batean, euren eguneroko zereginetatik.

Gure aldetik, zuen harrera eta arreta eskertzea besterik ez dugu; zuen iradokizunak egiteko gaitasuna piztu; eta proposatu, beharbada, datu-base horren argitalpena, paperean bederen, euskarazko hiztegi juridiko elebidun baten hasiera izan dadin, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Euskal-Tzaindiaren artean egin daitekeena.

Gaur badugu bidea horretarako, eta beste lan batzuetarako ere bai. Horien guztien helmugak euskararen aitzinamendua izan behar duela uste dugu guk, uste dugulako, berebat, euskal kulturan ere itzultzale, teknikari eta legalarioiak zer esan eta zer egin ugari dugula.

## 7. Bibliografía

AGINTARITZA – ALDIZKARIETATIKAKO HITZ-BILDUMA. VOCABULARIO DE LOS BOLETINES OFICIALES, 1985. Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Álava, 673.

AGUILAR, L., 2001, *Lexicología y terminología aplicadas a la traducción. Curso práctico de introducción*, Materials, 106. Bellaterra: Universitat Autònoma de Barcelona. Servei de Publicacions. Departament de Filologia Espanyola, 86.

AHUMADA, I. (arg.), 2002, *Diccionarios y Lenguas de especialidad*. V Seminario de Lexicografía Hispánica. Jaén, 21 al 23 de noviembre de 2001. Jaén: Seminario de Lexicografía Hispánica. Universidad de Jaén, 226.

AIERBE MENDIZABAL, A., 2007, «Las unidades fraseológicas eventivas del lenguaje administrativo español y su traducción a la lengua vasca», in LUQUE DURÁN, J. de D. eta PAMIES BERTRÁN, A. (arg.): *Interculturalidad y lenguaje 2. Identidad cultural y pluralidad lingüística*. Granada: Granada Lingvistica. Serie Collectae, 13-23.

ALCARAZ VARÓ, E., MATEO MARTÍNEZ, J., YUS RAMOS, F. (arg.), 2007, *Las lenguas profesionales y académicas*. Bartzelona: Ariel Lenguas Modernas. IULMA, 325.

ALEJOS JUEZ, M. T., 2005, «El lenguaje jurídico-mercantil: análisis lingüístico de documentos contractuales en inglés», in CURADO FUENTES, A. eta beste batzuk

(arg.): *Languages for Academic and Professional Purposes in the 21st century University Framework*. Cáceres: Universidad de Extremadura, 16-26.

AZORÍN, D. eta SANTAMARÍA, M. I., 2004, «El diccionario de autoridades (1726-1739) y el diccionario castellano (1786-1793) de Terreros y Pando ante la recepción de las voces de especialidad». *Revista de Investigación Lingüística*, 7. zk., 49-69.

BEAUDOIN, Ll. L., 2007, «La traduction juridique au Canada. Contraintes linguistiques et juridiques. L'apport de la jurilinguistique», in SUEUR, J. J. (zuz.), *Interpréter & Traduire. Actes du colloque international des 25 et 26 de novembre 2005* Faculté de Droit de Toulon. Brusela: Bruyant, 171-184.

BOCQUET, Cl., 2008, *La traduction juridique. Fondement et méthode*. Brusela. De Boeck, 122.

BORJA ALBI, A., 2007, «Los géneros jurídicos». in ALCARAZ VARÓ, E. MATEO MARTÍNEZ, J., YUS RAMOS, F. (arg.): *Las lenguas profesionales y académicas*. Bartzelona: Ariel Lenguas Modernas. Ariel eta Institut Interuniversitari de Llengües Modernes Aplicades de la Comunitat Valenciana, 141-153.

CABRÉ, M. T. eta GELPI, C., 2000, «Lexicographie bilingue catalan-espagnol: exemples de contrastivité dans le lexique juridique», in SZENDE, Th. (zuz.): *Approches contrastives en lexicographie bilingue*. Paris: Honoré Champion Éditeur, 335-358.

CAMPOS PARDILLOS, M. A., 2007, «El lenguaje de las ciencias jurídicas: nuevos retos y nuevas visiones», in ALCARAZ VARÓ, E. MATEO MARTÍNEZ, J., YUS RAMOS, F. (srg.): *Las lenguas profesionales y académicas*. Bartzelona: Ariel Lenguas Modernas. Ariel eta Institut Interuniversitari de Llengües Modernes Aplicades de la Comunitat Valenciana, 155-165.

CAMPOS PLAZA, N. A., CANTERA ORTIZ DE URIBA, J., ORTEGA ARJONILLA, E., 2005, *Diccionario Jurídico-económico francés-español/español-francés*. Granada: Editorial Comares, 455.

CHROMÁ, M., 2004, *Legal Translation and the Dictionary*. Tübingen: Max Niemeyer Verlag, 122.

CONTRERAS IZQUIERDO, N. M., 2008, *El diccionario de lengua y el conocimiento especializado en la sociedad actual*. Jaén: Universidad de Jaén, 261.

DÍEZ DE REVENGA TORRES, P., 2001, «Innovación y tradición en las lenguas de especialidad: el ejemplo de la lengua jurídica», in BARGALLO, M. eta beste batzuk (arg.): *Las lenguas de especialidad y su didáctica. Actas del Simposio Hispano-Austriaco*. Tarragona: Universitat Rovira i Virgili. Departament de Filologies Romàniques, 103-112.

FALZOI ALCÁNTARA, M. del C., 2004, «Lenguaje jurídico y traducción: Hacia una propuesta didáctica», in BRAVO UTRERA, S. (arg.): *Traducción, Lenguas, Literaturas. Sociedad del Conocimiento. Enfoques desde y hacia la cultura*. Las Palmas Kanaria Handikoa: Servicio de Publicaciones de la Universidad de Las Palmas de Gran Canaria, 57-73.

FERNÁNDEZ BELLO, P., 2008, «Las colocaciones en el lenguaje jurídico», in MELLADO BLANCO, C. (arg.): *Colocaciones y fraseología en los diccionarios*. Frankfurt am Main: Peter Lang, 69-84.

GÉMAR, J-C., 2003, «Langage du droit, Dictionnaire bilingue et jurilinguistique. Le cas du Dictionnaire de Droit Privé. Private Law Dictionary du Québec: Traduire ou exprimer le droit?», in SZENDE, Th. (zuz.): *Les écarts culturels dans les dictionnaires bilingues*. Paris: Honoré Champion Éditeur, 173-189.

GÉMAR, J-C. eta HO-THUY, V., 1997, *Difficultés du langage du droit au Canada*. Quebec.: Les éditions Yvon Blais Inc. 2. argitaraldia, 282.

GÓMEZ GUINOVART, X. eta TORRES PADÍN, A., 2004, *Vocabulario xurídico-administrativo gallego-castelán*. Vigo: Universidade de Vigo, 539.

\_\_\_\_\_, 2006, «Extracción dun vocabulario xurídico-administrativo gallego-castelán a partir dun corpus paralelo». *Terminología y derecho: complejidad de la comunicación multilingüe. V Actividades de IULATERM de Verano (4-14 de julio de 2005)*. Bartzelona: Institut Universitari de Lingüística aplicada. Universitat Pompeu Fabra, 175-188.

GONZÁLEZ SALGADO, J. A., 2009, «El lenguaje jurídico del siglo XII». *Diario La Ley*. 7209 zk., 1-6.

GREENSTEIN, R. (zuz.), 2003, *Langue, culture et code: regards croisés*. Paris: L'Harmattan, 203.

GROFFIER, E. eta REED, D., 2007, *La lexicographie juridique. Principes et méthodes*. Quebec: Les éditions Yvon Blais Inc., 151.

HAENSCH, G., WOLF, L., ETTINGER, S., WERNER, R., 1982, *La lexicografía (De la lingüística teórica a la lexicografía práctica)*. Madrid: Gredos, 563.

HENRÍQUEZ SALIDO, M. do C., 2002, *El vocabulario jurídico en el «Diccionario da Academia das Ciências de Lisboa» y el «Diccionario de la Real Academia Española»*. Lisboa: Academia das Ciências de Lisboa, 386.

\_\_\_\_\_, 2005, *Para una historia de la lengua de la ciencia: el vocabulario jurídico en el Tesoro de Covarrubias*. Revista Portuguesa de Humanidades. 9. liburukia. 1/2. Faculdade de Filosofía da U.C.P. Braga, 115.

HERNANDO DE LARRAMENDI, M., 1999, «Caracterización del lenguaje legislativo español». *Lenguas para fines específicos (VI) Investigación y enseñanza*. Salamanca: Universidad de Alcalá, 207-215.

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA. EUSKO JAURLARITZAREN KULTURA SAILA, 2002, *Terminología-lanaren metodologiako eskuliburua*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 63.

LÍBANO ZUMALACÁRREGUI, Á., 2001, «Raíces históricas del lenguaje de la economía y el comercio», in BARGALLO, M. eta beste batzuk (arg.): *Las lenguas de especialidad y su didáctica. Actas del Simposio Hispano-Austriaco*. Tarragona: Universitat Rovira i Virgili. Departament de Filologies Romàniques, 235-243.

L'HOMME, M. C. eta VANDAELE, S. (zuz.), 2007, *Lexicographie et Terminologie: Compatibilité des modèles et des méthodes*. Ottawa, Ontario: Université de Ottawa, 333.

LÓPEZ SAMANIEGO, A., 2005, «La terminología jurídica en los diccionarios de lengua del siglo XXI», in CURADO FUENTES, A. y otros (arg.): *Languages for Academic and Professional Purposes in the 21st Century University Framework*. Cáceres: Universidad de Extremadura, 289-298.

LURRALDE ANTOLAMENDU ETA HIRIGINTZARI BURUZKO HITZ-BILDUMA. GLOSARIO SOBRE TÉRMINOS DE ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y URBANISMO, 1995, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1010.

MARTÍN ZORRAQUINO, M. A. eta ALIAGA JIMÉNEZ, J. L. (arg.), 2003, *La lexicografía hispánica ante el siglo XXI. Balance y perspectivas*. Zaragoza: Gobierno de Aragón. Departamento de Educación, Cultura y Deporte. Institución «Fernando el Católico». Excma. Diputación de Zaragoza, 282.

MARTÍNEZ MOTOS, R., 2006, «La traducción de términos del derecho de sucesiones: asimetría cultural y búsqueda de equivalentes», in CABRÉ, M. T., BACH, C., MARTÍ, J. (arg.): *Terminología y derecho: complejidad de la comunicación multilingüe* (V Simposio Internacional de Terminología). Bartzelona: Institut Universitari de Lingüística Aplicada. Universitat Pompeu Fabra. Serie Activitats, 18, 217-231.

MATULEWSKA, A., 2007, *Lingua Legis in Translation. English-Polish and Polish-English Translation of Legal Texts*. Frankfurt am Main: Peter Lang, 324.

MAYORAL ASENSIO, R., 2004, «Lenguajes de especialidad y traducción especializada. La traducción jurídica», in GONZALO GARCÍA, C. eta GARCÍA YEBRA, V. (arg.): *Manual de documentación y terminología para la traducción especializada*. Madrid: Arco/Libros 49-71.

MOREL SANTASUSAGNA, J., 2001, «Observacions sobre la divulgació del coneixement especialitzat a propòsit del dret de família», in BRUMME, J. (arg.): *La historia de los lenguajes iberorrománicos de especialidad. La divulgación de la ciencia*. Madrid: Vervuert-Iberoamericana, 295-307.

NACIFF, S., 2008, «Terminología y traducción jurídica». *La Traducción. Hacia un encuentro de lenguas y cultura*. Córdoba (Argentina): Centro de Investigación y Traducción. Editorial Comunicarte, 217-224.

OBSERVATORI DE NEOLOGIA. INSTITUT UNIVERSITARI DE LINGÜÍSTICA APLICADA. UNIVERSITAT POMPEU FABRA, 2004, *Llengua catalana i neologia (Part I. La creació lèxica en català. Part. II. Recull de neologismes)*. Bartzelona: Meteora, 399.

ORDÓÑEZ SOLIS, D., 2002, «Lenguaje judicial: argumentación y estilo». *Diario La Ley*. 5564 zk., 1-38.

OREGI, E., 2010, «Korredakzioa araugintzan. Itzulpenaz haratago» [www.erabili.com](http://www.erabili.com)

ORTS LLOPIS, M. Á., 2005, «Vagueness vs ambiguity: the construction of legal texts in English and Spanish». in CURADO FUENTES, A. y otros (arg.): *Languages for Academic and Professional Purposes in the 21st century University Framework*. Cáceres: Universidad de Extremadura, 77-82.

OTAOLA OLANO, C., 2004, *Lexicología y semántica léxica (Teoría y aplicación a la Lengua Española)*. Madrid: Ediciones Académicas, S.A., 435.

PORTO DAPENA, J. A., 2002, *Manual de técnica lexicográfica*. Madrid: Arco/Libros, 367.

- RAFEL I FONTANALS, J., 2005, *Lexicografía*. Bartzelona.: Editorial UOC, 177.
- REY, A., 2008, *De l'artisanat des dictionnaires à une science du mot. Images et modèles*. Paris: Armand Colin, 303.
- ROBLES MORCHÓN, G., 2007, *Pluralismo jurídico y relaciones intersistémicas (Ensayo de teoría comunicacional del Derecho)*. Iruñea: Thomson – Civitas, 250.
- SALGADO, M. B., 2007, *Lexique bilingue de termes juridiques (français-espagnol)*. Paris: Ellipses, 328.
- SAMANIEGO FERNÁNDEZ, E., 2005, «El lenguaje jurídico: peculiaridades del español jurídico», in FUERTES OLIVERA, P. (Koord.): *Lengua y Sociedad: Investigaciones recientes en Lingüística aplicada*. Valladolid: Universidad de Valladolid, 273-3SECO, M., ANDRÉS, O., RAMOS, G., 1999, *Diccionario del español actual*. Madril: Santillana Ediciones Generales. I. liburukia, 2274.
- SECO, M., ANDRÉS, O., RAMOS, G., 2005, *Diccionario Fraseológico documentado del Español Actual. Locuciones y modismos españoles*. Madril: Santillana Ediciones Generales, 1084.
- SUEUR, J.J. (zuz.), 2007, *Interpréter & traduire. Actes du colloque international des 25 et 26 novembre 2005 Faculté de Droit de Toulon*. Brusela: Bruylant, 366.
- TABARES PLASENCIA, E., 2004, «Estudio de la formación de palabras en el ámbito del derecho civil español», in FABER, P., JIMÉNEZ, C., WOTJAK, G. (arg.): *Léxico especializado y comunicación interlingüística (VI Congreso Internacional de Lingüística Hispánica. Leipzig, del 8 al 12 de octubre de 2003)*. Granada: Granada Lingvistica. Serie Collectae, 159-175.
- THIRY, B., 2005, *Diccionario jurídico. Terminología de la responsabilidad civil (español-francés / francés-español)*. Granada: Comares, 424.
- THIRY, B., 2009, *Terminología y Derecho. La responsabilidad civil extracontractual. Contribución a su tratamiento terminográfico y a la Teoría de la Terminología*. Granada: Editorial Atrio, 346.
- TORRENT, J., 2006, «El lèxic en la traducció jurídica», in VIGO I BONADA, J. eta MESTRES I SERRA, J. M. (Arg.): *III Seminari de Correcció de Textos (La terminología i la correcció de textos)*. Bartzelona: Institut d'Estudis Catalans, 117-125.
- UGARTEBURU GASTAÑARES, I., 2003, «Lexicografía especializada en lengua vasca», in GUTIÉRREZ RODILLA, B. M. (arg.): *Aproximaciones al lenguaje de la ciencia*. Burgos: Instituto castellano y leonés de la lengua. Colección Beltenebros, 1. zk., 465-497.

URKIA, M., (2010), «Corpungintzaren garrantzia hizkuntzalaritzan eta euskararen egoera» in *Plazaberri* (2010-01-27), [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)

URRUTIA BADIOLA, A., 2005, «Jurista euskalduna, jurista elebiduna» in LARRAZABAL BASAÑEZ eta OREGI GOÑI, E. (koord.): *Hizkera juridikoa eta itzulpengintza: euskararen norabidea. Deustuko Unibertsitatean j2004ko azaroaren 17 eta 18an egindako simposioaren agiriak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 147-171.

\_\_\_\_\_, 2005, «Hizkuntza orokorra-xede bereziatarako hizketarak. Hiztegi Batuaren zereginak» in *Uztaro*, 55.zk., 49-60.

\_\_\_\_\_, 2008, «Legeen eta Administrazioaren hizkera, testu-antolatzaleen ikuspegitik» in *Euskera*, 53. liburukia, 525-546.

URRUTIA BADIOLA, A. eta URRUTIA IDOIAGA, E., 2006, «Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua (2. itzulia: A, B, C letrak) eta euskarazko terminologia juridiko-administratiboa: ezaugarriak eta jokaerak». AVD-ZEA Academia Vasca de Derecho. Zuzenbidearen Euskal Akademia. 10. zk., 71-109.

\_\_\_\_\_, 2007, «Onomasiología eta terminología: [www.iev.deusto.es/biblioteca/juridico\\_elebidunaren\\_hustuketarako\\_irizpideak](http://www.iev.deusto.es/biblioteca/juridico_elebidunaren_hustuketarako_irizpideak)». AVD-ZEA Academia Vasca de Derecho. Zuzenbidearen Euskal Akademia. 13. zk., 91-152.

\_\_\_\_\_, 2009, «Deustuko Unibertsitateko euskara juridikoaren ikerketa-taldearen esperientzia» in Zenbait Autore: *Nomografía et arau-idazketa elebiduna. Nomografía y corrección legislativa*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 91-128.

URRUTIA IDOIAGA, E., 2005, «Zuzenbidearen irakaskuntza eta euskara, itzulpenaren ikuspegitik: Deustuko Unibertsitatea» in LARRAZABAL BASAÑEZ, S eta OREGI GOÑI, E. (koord.): *Hizkera juridikoa eta itzulpengintza: euskararen norabidea. Deustuko Unibertsitatean. 2004ko azaroaren 17 eta 18an egindako simposioaren agiriak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 173-208.

ZABALA, I., MARTÍNEZ, M., ELORDUI, A., 2006, «La variación terminológica en contextos sociolingüísticos minorizados: el caso de la lengua vasca», in CABRÉ, M. T., ESTOPÀ, R., TEBÉ, C. (Arg.): *La terminología en el siglo XXI. Contribución a la cultura de la paz, la diversidad y la sostenibilidad (Actas del IX Simposio Iberoamericano de Terminología RITERM04)*. Bartzelona: Institut Universitari de Lingüística Aplicada. Universitat Pompeu Fabra. Serie Activitats, 17, 837-850.

ZENARRUZABEITIA ALONSO, L., 2009, «Euskarazko testu juridikoen idazkuntza itzulpenaren bidez: UZEIko esperientzia» in ZENBAIT AUTORE: *Nomografía eta arau-idazketa elebiduna. Nomografía y corredacción legislativa.* Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 201-209.

ZENBAIT AUTORE, 1991, *Dictionnaire de Droit Privé et lexiques bilingues*. Montréal. Québec: Les Éditions Yvon Blais. 2. argitaraldia zuzendua eta osatua, 741.

\_\_\_\_\_, 1991, *Private Law Dictionary and bilingual lexicons*. Montréal. Québec: Les Éditions Yvon Blais. 2. argitaraldia zuzendua eta osatua, 611.

\_\_\_\_\_, 2005, *Novas palabras galegas. Repertorio de creacións léxicas rexistradas na prensa e internet*. Vigo: Observatorio de Neoloxía da Universidades de Vigo. Área de Normalización Lingüística da Universidades de Vigo, 396.

\_\_\_\_\_, 2008, *The Law of Bilingual Interpretation*. Markham. Ontario: Lexis Nexis Canada, 216.

\_\_\_\_\_, 2009, *Nomografía eta arau-idazketa elebiduna. Nomografía y corredacción legislativa*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 275.

# **Itzulpen Atala: Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta bertze plaza batzuetan**

TABERNA IRAZOKI, Mikel

Nafarroako Gobernuko Itzulpen Ataleko itzultzailea

## 0. Sarrera

Jaun-andreok, egun on!

Lehenik, eskerrak eman nahi dizkiet Euskarabideari eta Euskaltzaindiari egin didaten gonbitagatik. Eta mila esker zuei, baita ere, gure solasak aditzera etorri zaretelako.

Jardunaldiko nire azalpenarekin hasi baino lehen, bilera honetara ekarri nahi nuke Joxemiel Bidadorren oroitzapena. Gaizkitu zelako berria ikasi genuenetik airean geunden, jakinik hagitz egoera larrian zegoela. Eta herenegun arratsaldean, hunat ekartzeko hitzak prestatzen ari nintzen bitartean, irakurri nahi ez nituenak iritsi zitzaitzidan. Hemen gauden anitzek ezagutu genuen. Gizon gazte atsegina, euskararen unibertso ttipian argi propioa zuen ikertziale distiratsua, eta, eginiko lanek salatzen dutenez, langile porrokatua. Hor dago utzi digun ondarea. Izan denagatik guztiagatik luzaroago nahi eta behar genuen gure artean. Besarkada bat bere jendaki eta lagunentzat. Goian bego.

Baina hemen gaudenok segitu behar baitugu, gaurko saiorako prestatu dudan gaira itzuliko naiz. Nire asmoa Nafarroako Gobernuko Itzulpen Atala eta bertan egiten dugun lana zuei ezagutaraztea da. Izenburuak dioen bezala, Aldizkari Ofizialean ez eze bertze jardun-gune batzuetan ere aritzen gara. Horien guztien berri ematen sariatuko naiz.

## 1. Historiako mugarri aipagarrienak

### 1.1. Itzulpen Atalaren sorrera

Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen 7. artikuluan ezarri zen Nafarroako Aldizkari Ofiziala eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala gaztelaniaz eta euskaraz emanen zirela argitara (aldibereko edizio bananduetan); eta lege bereko 9. artikuluan, Nafarroako Gobernuak Iruñean euskara-gaztelania itzulpen ofizialeko unitate administratiboa sortuko zuela.

Hain zuzen ere, lege agindu horien ondorioz, 1987an lehiaketarako dei egin zen, zazpi itzultzaile plaza betetzeko. Gisa horretan, beraz, hurrengo

urtean zazpi lagun hasi ziren itzulpen lanean, nafar Administrazioarentzat. Eta langile haiek bilduko zituen unitate administratiboa ere, Itzulpen Atala, urte hartan berean sortu zen, 1988an, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren baitan.

### 1.2. Atalaren eginkizunak

Zuzendaritza Nagusi berriaren sorrera onetsi zen foru dekretuan zehaztu ziren beraren mendeko unitate guztien eginkizunak. Honela aipatzen ziren Itzulpen Atalaren esku utzitakoak:

«Boletín Oficial de Navarra delakoaren euskarazko alean sartu beharreko xedapen orokor, administrazio ebazpen eta beste egintza eta dokumentuen itzulpen ofiziala.

Administrazio Publikoek nahiz partikularrek eskatzen dizkioten euskara-gaztelera eta gaztelera-euskara itzulpen ofizialak, Euskarari buruzko Foru Legean xedatua dagoenari jarraikiz.

Euskara-gaztelera eta alderantzizko itzulpen ofizialetan entitate lokalei eta beste administrazio publikoiei aholkua ematea».

Handik urte batzuetara, aholku emateko eginkizunaren barrenean, zeregin berezi bat azpimarratu zen, Hezkuntza eta Kultura kontseilari Javier Marcotegui sinaturiko 161/1998 Foru Aginduaren bitartez. Agindu hura zela medio, Atalak «euskaraga-zaztelania eta gaztelania-euskara itzulpenak ofizialki baliozkoteko eskumena» berea zuela zehaztu zen espresuki.

Hiru eginkizun nagusi horiek, aparte erantsitako zehaztapena barne, gaur egun ere indarrean diraute.

### 1.3. Departamentu batetik bertzera

Itzulpen Atala, erran bezala, Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren mendean sortu zen, eta Zuzendaritza Nagusia, bere aldetik, Lehendakaritza eta Barne Departamentuaren barrenean. Baino gerora,

1996an, Zuzendaritza Nagusi osoa Hezkuntza eta Kultura Departamentura pasatu zuten, bere *zerbitzu, atal eta bulego guztiekin*.

2000. urtean, aldiz, aldaketa handiak izan ziren Gobernuan, eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari berari bete-betean eragin zioten. Horren ondorioz, Zuzendaritzaren izena aldatu zen. Izen berria eman zioten: *Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia*. Horrekin batera, Itzulpen Atala Zuzendaritza horretatik atera eta bertze leku batetan txertatu zen: Nafarroako Aldizkari Ofizialaren Zerbitzuan, berriz ere Lehendakaritza eta Barne (eta Justizia) Departamentuan. Hori bai, lehengo eginkizun berberak zituen, eta itzultzaleak ere, bat ez bertze gainerako guztiek, unitate berrira pasatu gintzutzen.

#### 1.4. Xehetasun pare bat

1.4.1. Lehenbiziko zazpi itzultzaleak 1988an hasi ziren lanean, eta 1990ean bertze zazpi gehiago. Hamalau lagun haien osatu zuten hasierako blokea. Gero beste lau lanpostu gehiago sortu ziren.

1.4.2. Hasierako hamalau lagun haien *itzultzale* lanpostuak bete zituzten. Ez zen kontuan hartu interprete lana ere egin beharko zela. Ordea, suertatu zen horrelako zerbitzuak emateko beharra ere (haietako batzuk gizartean oihartzun handia izan zuten kasuetan, epaitegietatik etorritako eskariari erantzuteko). Horren ondorioz, atzetik etorri ziren lanpostu berriak *itzultzale-interpreteentzat* izan ziren. Gaur egun, Ataleko plantillan itzultzaleok hamalau plaza ditugu, eta itzultzale-interpreteek lau.

#### 1.5. Laburpen gisara

Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legean ezarritakoaren ondorioz, 1988an sortu zen Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia, eta beraren baitan Itzulpen Atala. Hagitz gertaera garrantzitsua, nire iritziz, euskara nafar Administrazioaren plazara JALGI zelakoz, ordurarte sekula izan ez zuen estatusarekin.

## 2. Gaur egungo egoera eta jarduna

### 2.1. Lanpostuak eta lan banaketa

#### 2.1.1. Itzultzaileak

Plantillako plaza guztiak beterik ez badaude ere, dagoeneko abiatua den lehiaketa amaitzen denean, hemezortzi itzultzaile izanen gara (horietatik lau itzultzaile-interprete, gainerako hamalauak itzultzaile huts), denak *atalburu* baten zuzendaritzapean. Inork ez du organikoki eginkizun berezirik atxikita; alde horretatik, denak berdinak gara. Baino, lan motaren arabera, geure arteko espezializazio moduko bat egina dugu. Batzuek Aldizkari Ofizialeko lanak itzultzen dituzte (eta horien barrenean ere bakoitza sail batean ari da), eta bertze batzuk aldizkaritik apartekoetan aritzen dira.

#### 2.1.2. Zuzentzaileak

Aldizkarirako iragarkien sail bakoitzak bere zuzentzailea du, eta *aldizkaritik* aparteko sailak ere bai. Zuzentze lana ez dago pertsona jakin batzuen esku; denok sartuak gaude eginkizun horri dagokion gurpilean, eta, txandaka-txandaka, guztiok ari behar izaten dugu zeregin horretan, egokitzuen zaigunean, hiru hilabeterako bederen. Lankideen itzulpenak (eta kanpoko enpresak eginak, eta elebitan iristen direnak) orrazteaz gainera, aldian al-diko zuzentzailea bere sailari dagokion kaieraz arduratzen da. Hartan idazten ditu eztabaидagai iruditzen zaizkion kontuak eta bururatzen zaizkion proposamenak, zuzentzaile denboran atzeman dituen arazoei buruzkoak.

#### 2.1.3. Terminologia

Une honetan, taldekide bat arduratzen da, bere lan denbora osoan, proposamenak bideratu eta erabakiak biltzeaz eta datu-baseak eguneratzeaz. Halere, gure historian hori ez da beti horrela izan. Sinetsiak gaude koordina-

tzaile edo terminologo eginkizuna ere nahitaezkoa dela, baina ez dago organigraman, eta, horregatik, neurri batean, lan-kargaren eta Ataleko nahiz Zerbitzuko buruen borondatearen mende dago.

#### 2.1.4. *Lan bereziak*

Bertzelako mandatuak ere esleitzen zaizkigu itzultziale guztioi, tarteka-tarteka. Betiere egiten dugun lanarekin zerikusia dutenak. Konparazio baterako, euskaraturik ditugun lege-testu garrantzitsuenen bilduma egitea, gero Gobernuaren web gunean txertatzeko, gaztelaniazkoak Lex Navarra gunean dauden gisara; gai jakin batzuetako glosategi bereziak zehaztea (Justizia, Hirigintza...); iragarki eta inprimaki-ereduak prestatzea...

#### 2.1.5. *Kanpoan eginiko lanak*

Bertzalde, Atalak bere baliabideekin egin ezin dituen lanak kanpora ateratzen dira, eta enpresa baten esku uzten, baina horiei ere Ataleko zuzentzaileek azken begiratua ematen diete, itzulpenaren egokitasuna eta testu guztien koherentzia (terminologikoa eta estilistikoa) ahal den neurrian bermatzeko.

### 2.2. NAOn eta bertze plaza batzuetan

Aitzineko puntuetan aipatu dudan bezala, nahiz eta Atala gaur egun Nafarroako Aldizkari Ofizialaren Zerbitzuan txertatua egon, aldizkarirako itzulpenak egitea Atalaren eginkizunetako bat bertzerik ez da.

Egia da lan-karga mardulena Aldizkariaren itzulpenetik datorrela, eta jende-multzorik handiena ere horretan aritzen dela, baina bertzelako itzulpen lanak eta aholkularitzakoak ere ez dira gutti, kopuru aldetik, eta, jakina, NAOkoak bezain garrantzitsuak.

Beraz, hitzaldiari jarritako izenburuak dioen bezala, plaza bat baino gehiagotan aritzen gara. Zehazki, lau jardun-gune ditugu, Atalaren esku

utzitako lau eginkizunen ondoriozkoak, lau plaza, lau lantegi, hemezortzi lagunen artean banatuak.

#### 2.2.1. *Lehenbiziko plaza: Nafarroako Aldizkari Ofiziala*

Nafarroako Aldizkari Ofiziala ez da ehuneko ehun euskaraz argitaratzen, horretarako bidean bada ere, Euskararen Legean ezarritakoa bete beharko bailitzateke:

«Aldizkari Ofiziala gaztelaniaz eta euskaraz emanen da argitara (aldibereko edizio bananduetan)....».

Progresio bat izan da, eta berriki hasi gara euskaraz ere argitaratzen, adibidez, udalen hirigintza planak, Justizia Administrazioko iragarkiak, ur konfederazioenak..., orain arte euskaratzen ez zirenak.

2009an, NAOn, 16.000 orri editatu ziren, eta horietatik % 70 inguru euskarara itzuli ziren (gaur egun, azken erabakien ondorioz, are handiagoa da itzulitako orrien portzentajea). Gai aldetik ere, denetik izaten da, mota guztiako herritarrei eragiten dietenak: legeak, foru dekretuak, lan deialdiak, eraikitzeko lizenziak, isunen jakinarazpenak...

Iragarki batzuk elebitan iristen dira gurera, alegia, euskaraz eta erdaraz igortzen dituzten sortzen diren lekuetatik. Zehazki, udal batzuetatik bidaltzen dituzte horrela; Nafarroako Unibertsitate Publikotik; Gobernuko departamenturen batetik (Hezkuntzatik, Lehendakaritzako Administrazio Pubblicoaren Institutututik...)... Baina testu gehien-gehienak hizkuntza bakanrean iristen zaizkigu, gaztelaniaz, eta geronek itzuli behar izaten ditugu. Ele bitan ailegatzen zaizkigunen proportzioa oraindik ttikia da, nahiz eta gero eta gehiago izan.

Bi hizkuntzetan iristen diren iragarkien argitaratze-bidea desberdina iza-ten da. Zuzentzaileak gainbegiratu egiten ditu, eta, ahal dela, igorlearekin harremanetan jartzen da, nolabaiteko adostasun terminologikoa lortzeko, Atalean finkatuak ditugun erabakiekin bat etor daitezen.

Benetan pozgarria da iragarki elebidunen kopurua berretzen doala ikus-tea, euskara, pixkanaka bada ere, bertze administraziogune batzuetan hed-a-

tzen ari dela jakitea, euskarazko testu administratiboak, gaztelaniazkoen ordaina emateaz gainera, egiazki erabiltzen direla ohartzea.

### 2.2.2. Bigarren plaza: bertzelako itzulpen ofizialak

Erran bezala, Itzulpen Ataleko lanak ez dira Aldizkariaren eremu karra-tuan amaitzen. Muga horietatik kanpora ateratzen direnak ere egiten ditugu. *Itzulpen Unitatea* deitzen diogun azpiatala arduratzen da horretaz. Eta hor zer itzultzen da? Oro har, Gobernuko Administrazioaren edozein bulegotatik eskatzen diguten zernahi: Gazteriaren Institutuko aldizkariak, Osasunbideko kanpainak ezagutarazteko informazio orri edo liburuxkak, Gobernuko lehendakariak erre-pide paska baten inaugurazioan erran behar dituen hitzak, kontseilari edo zuzendari nagusiek udaletara eta ikastetxeetara bidaltzen dituzten gutunak, errotuluak (erre-pideetakoak, nahiz eraikin ofizialekoak), errenta aitorpenerako inprimakiak, webguneak edo Internet bidez eskaintzen diren zerbitzuak... eta abar. Euskaratik gaztelania-ra ere bai: Administrazioari eginiko erreklamazioak, herri batzueta-ko udal bilkurak (departamenturen batera hala bidali duelako udalak)...

Bereziki azpimarratu nahi nuke jardun-gune hau, jende anitzek ez baita-ki honelako itzulpen lanak egiteko eskumena dugula. Informazio falta hori saihestu eta gainditu nahi genuke. Horretarako, Interneterako esteka bat prestatzen ari gara, Gobernuaren webgunean txertatzeko, eta haren bidez interesdun guztiei ezagutarazi Itzulpen Atalak eskaintzen dituen zerbitzuak.

### 2.2.3. Hirugarren plaza: aholku ematea

Aholku eta informazioa ematen dugu, Gobernuko Administrazioko ber-tze bulego batzuetatik, edo udaletatik, edo bertze edozein administrazio publikotatik (Trafiko Zuzendaritzatik, konparazio baterako), eskaririk egi-nez gero. Zeri buruz? Zehazki itzulpen ofizialei buruz, baina baita horiekin lotutako bertze gai batzuei buruz ere: toponimiaz (larriaz eta xeheaz); kaleen izenaz; edo gurean nahiz guretik kanpo euskaraturik dauden lege eta araez, eta abar.

#### 2.2.4. Laugarren plaza: itzulpenen gaineko irizpena

Eginkizun hau ere esleitua du Atalak, sorrerari eta eginkizunei buruzko lerroaldeetan aipatu dudan bezala. Esate baterako, egiaztatu behar izan dugu testamenturen baten itzulpena zuzena ote zen; zenbait elkareren estatutuak (erregistroan euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztu direnak) ...

#### 2.2.5. Bertze eginkizun bat: interprete lana

Bakan samar, baina suertatzen denean egin behar izaten dute itzultzale-interprete direnek. Konparazio baterako, Nafarroako Eskola Kontseiluaren edo Euskararen Aholku Batzordearen bileretan izan dira Ataleko interpreteak; baita bertze kasu bitxiago batzuetan ere. Adibidez, Nafarroako Auzitegi Nagusitik eskaera egin zitzaison Gobernuari interpreteak behar zituela Gartzaingo hilketa ospetsuaren epaiketarako.

### 2.3. Laburpen gisara (eta gogoetaxka)

Horiek horrela, gaur egungo gure antolamenduaz eta jardunaz, puntu hauek azpimarratu beharrekoak iruditzen zaizkit:

- Hezkuntza Departamentuak bere beharretarako Euskarabidean dituen itzultzaleak kenduta, Nafarroaren Administrazio osorako gainerako itzulpen lan guzti-guztiak Itzulpen Ataleko itzultzaleon esku daude.
- Atala Aldizkari Ofizialaren Zerbitzuan txertatua dagoenez, irudipena dugu jende anitzek ez dakiela itzultzale talde honek aldizkaritik aparteko itzulpen ofizialak ere egiten dituela, ez eta itzulpen ofizialen gaineko aholkua emateko eginkizuna esleitua dugula ere.
- Lan asko sartuagatik, uste dugu informazio falta horren ondorioz ez dela eskaera gehiago ailegatzen, eta zerbait egin beharko litzatekeela Atalak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak ezagutarazteko. Espero dugu Gobernuaren webgunean jarri gogo diren argibide eta estekek horretan lagunduko dutela.

- Ia Administrazio osoari (eta bertze administrazio batzuei ere bai, neurri batean) itzulpen unitate bakar batek zerbitzu ematea baino hobea litzateke, segur aski, nolabaiteko deszentralizazioa gertatzea, eta Departamentu bakoitzak bere itzultzaleak izatea. Era horretan, gauza gehiago itzuliko lirateke (ustez), eta itzultzalea hurbilago egonen litzateke kasu bakoitzean zerbitzu horren beharra duen pertsonarengandik.
- Halere, bertzalde, nahitaez erran beharra dago zein importantea izan den, guretzat eta oro har Itzulpen Atala martxan jartzeko, hogei (eta) urte honetan elkarrekin egotea. Neurtezina da taldean aritzeak zenbat eman digun gutako bakoitzari, zenbat ikasi dugun. Beteranoenak (multzo handiena) eskola zaharrekoak gara eta bertatik bertarako komunikazioan ohituak. Sekulako suertea izan da, gure ikasbiderako, elkarrekin honela gertatzea.

### 3. Itzulpenaz eta Terminologiaz

#### 3.1. Itzulpen lanaren urratsak gurean

Itzulpen lana egiteko, gaur egun, itzulpen-memoria bat erabiltzen dugu, *Trados* izeneko aplikazio informatikoa. Sekulako laguntza ematen digu balibide horrek, baina, aldi berean, itzultzalea eta zuzentzailea are kontu handiagoz lan egitera behartzen du, memorian gordetzen dena, geroko era-bilgarri geldituko dena, egokia eta, une bakoitzeko erabakien arabera, zuzena dela egiaztatu behar baita.

Beraz, itzultzaleak itzulgaia hartu, aplikazio horren bidez itzuli eta zuzentzaileari ematen dio. Zuzentzaileak bere oharrak egiten ditu eta, horiek kontuan hartuta, itzultzaleak azken ukituak egiten dizkio testuari, argitaratzeko edo dagokionari bidaltzeko prest uzteko.

Zuzentzailearen lana funtsezkoa da, itzulpenaren egokitasun orokorraz gainera, hizkuntza arauak, toponimia kontuak, lantaldean hartu ditugun erabakiak eta gainerako guztiak errespetatu eta aplikatzen ote diren begiratzen duelako.

### 3.2. Itzulgaiia eta itzultzailea

Testu administratiboak izaten ditugu langai. Ordea, horien artean, espezializazioaren ikuspegitik, ez dira denak maila berekoak izaten, hizkera arruntetik hurbil daudenetatik hasi eta espezialitateetako *teknolektoetara* bitarte.

Konparazio baterako, udalek ematen dituzten ordenantza batzuk... animaliak etxeen edukitzeari buruzkoak edo hilerriko tasak arautzen dituztenak, adibidez, arrunt samarren zakuan sartuko genituzke; udal horietxen hirigintza planak, berriz, edo Nafarroako Gobernuak emandako zenbait foru dekretu, ekonomia arlokoak, adibidez, espezializazio maila handi samarrekoak dira.

Nolanahi dela ere, egia da terminologia espezifikoa behar duten testu espezializatuak izaten direla franko, jatorrizko hizkuntzan arloan arloko aditurek sortuak: Zuzenbidea, Ekonomia, Hirigintza, Medikuntza, Biologia, Artea... Eta lehenbiziko buruhaustea hor sortzen da, testu espezializatuari aurre egin behar izaten diolako, kasu gehienetan, espezializatu gabeko itzultzaileak, gai horretaz sobera ez dakienak.

Gure artean denetik dago (Biologia, Medikuntza, Historia, Filologia, Kazetaritza, Kimika... ikasketak eginak), eta horri esker nolabait moldatzzen gara itzulgaiaren mami osoa geureganatzeko. Baino Administrazioan, Nafarroakoan behinik behin, hagitz gaizki antolatuak daude gauza batzuk, eta hau da horietako bat, itzultzaileok apena dugulako harremanik testuen sortzaileekin. Eta itzultzaileak, ahal izanez gero, testuaren egilearengandik hurbil egon beharko luke, edo, bertzerik ez bada, harengana iristeko modu garbiren bat izan beharko luke.

Administrazioari importa bazaio euskarazko testuaren egokitasuna, eta badakigu Administrazioarentzat zein importantea den letra idatzia, lehenbiziko urrats hori hobeki antolatu beharko luke: itzultzaileak norbait behar luke eskura, zalantza guztiak argitzeko. Eta hori ez da normalean hala gertatzen. Nahikoa litzateke dokumentu bakotzean ohartto bat jartzea: *honi buruzko zalantza eta galderak halako jaunari edo emakumeari galdetu...*

### 3.3. Euskarazko terminologia

Horiek horrela, nolabait ere itzultzen hasi eta ordainak aurkitu behar izaten ditugu, euskaratik, jatorrizko hizkuntzan termino zehatzetan ongi hornitua heldu den testuarentzat. Euskaraz ere adiera zehatzeko termino ego-kiak behar.

Itzulpen Atalean ez gara terminologia-sortzaileak, salbuespen kasuren batean kenduta (oker ez banaiz, *foruzaín* izena eta ingurukoak –*Foruzaingoa* eta abar– gurean sortuak dira; eta, bidenabar erranen dut, oraindik ere Euskaltzaindiaren «onespenaren» zain daude, ez baitira Hiztegi Batuan sartu, ezta bigarren itzulian ere).

Gu terminologia-erabiltzaileak gara, eta, praktika horretan, termino finkorik ez dagoenean, terminologia-hautatzaile. Gure egoera ez da bertze edozein «itzultegitan» bide dagoenetik oso diferentea, eta, denboraren joanean, garai bakoitzean eskura izan ditugun baliabideen arabera erantzun diogu eginkizun honi. Arlo honetan egoera izugarri aldatu baita, orain dela hogeita bi urte hasi ginenekoarekin alderatzen badugu.

Aldatu dira baliabide materialak, zeren denbora hartan erabiltzen genituen hiztegiak eta gainerako glosario eta informazio iturri guztiak paperean baikenituen, ez bertzelako inolako euskarritan. Ordenagailua asmakizun berria zen, baina Internet eta posta elektronikorik gabe hasieran. Aitzinamendu horiek geroago etorri ziren, eta urratsez urrats joan ziren gartzen (eta gu haietara egokitzen) gaur egun ditugunetara ailegatu arte. Etenik gabeko «iraultza», oraindik ere amaitu gabe bide dagoena.

Eta baliabide materialen bilakaeraren arrimuan, euskarazko terminologiaren panorama ere dezente aldatu da. Ez du lehenak nahitaez bigarrena ekarri, baina ukaezina da baliabide informatikoen eragina, bereziki, urte hauetan itzultzaleok eta terminologoek eginiko bidean.

Lehenbiziko urte haietan, gehienbat UZEIren hiztegi espezializatua erabiltzen genituen, eta, haiekin batera, *Elhuyarenak* eta garai hartan esku-ra genituen orokor guztiak ere bai. Beharrik haiei guztiei, baina, halere, denak eskas!

Interneten etorrerarekin, *Euskalterm* eskura izatea hagitz garrantzitsua izan zen. Gainera, orduko Zuzendaritza Nagusiak hitzarmena sinatu zuen UZEIrekin, datu base terminologiko hori Nafarroako Gobernuaren barneko sarean txertatzeko (eta aholkularitza zerbitzuetarako), eta zinez aurrerapauso nabarmena izan zen gure eguneroko zereginei begira. Guk ez eze Gobernuaren Administrazioaren zerbitzuko gainerako langile guztiak ere ikus eta balia zezaketen aplikazioa.

Haren ondotik etorri zen hiztegi eta glosategi guztien sareratze orokorra; Euskaltzaindiaren ondare guziarena; posta elektronikoaren bidezko komunikazioa erabat hedatu eta normalizatzea. Bai eta itzultzaleen *Itzulist* foroa ere, *Eiziek* prestatu zuena; *2tzul*; *Eimaren* lan monografikoak...

Horiekin batera, nire iritziz izugarri garrantzitsua izan da EAEn Terminologia Batzordea sortzea eta Euskalterm, orain, *Terminologia Banku Publikoa* izatea. Iruditzen zait gertaera hori mugarri azpimarragarria izanen dugula euskarazko terminologia-lanaren historian. Uste dut sekulako jauzia emanen dugula (aitzinera, jakina, bromarik gabe), falta genuen erreferente onartua bilakatzen bada eta erritmo egokian lan egiten bada.

### 3.4. Terminologia arazoak eta gure jokabidea

Beraz, eskura izan ditugun baliabide guztiak erabili ditugu beti, unean unekoak. Hiztegi eta glosategiak, hango eta hemengo corpusak. Betiere, bereizten jakinik hiztegi klasikoak eta modernoak; orokorrak eta espezializatuak... Denen beharra izan dugu, batean aurkitzen ez genuena bertzeak emanen ote zigun begiratzen genuelako, edo, itzulgai berarentzat ordain bat baino gehiago aurkitzen baldin baguen, zein forma nagusitzen zen jakitea interesatzen zitzraigulako.

Horrela joan gara osatzen geure datu base propioa, geure hiztegi partikularra. Geure barne koherentzia behar genuelako, bederen!

Ahal izan den neurrian, saiatu gara arlo bereko gainerako itzultzaleekin (EAeko nahiz Nafarroako administrazioetakoekin) batera joaten, ondorio eta erabaki berberetara iristen, baina hori ez da beti posible izan: komu-

nikazioak mugatu gaitu. Hor ere aurrerapauso handia eman dugu. Baliabide informatikoen alorrean, gaur egun aitzakiarik ez dago. Ia dena eskura dugu. Harreman pertsonalen sarean, ordea, oraindik zer hobetu badagoela uste dut.

Atalean ez dugu antolamendu «eredugarria» izan terminologia lantzeko. Gure agintariek maiz ez dute aintzat hartu eginkizun hau, eta itzultzailok kolpeka funtzionatu dugu, boladaka. Garai batzuetan modu arautu samarrean, diziplina guttienekoari jarraikiz; bertze denboraldi batzuetan, berriz, desantolamendua eta inprobisazioa nagusitu dira gure jardunean.

Nolanahi ere, oro har, ordu asko eta asko eman dugu ikertzen, galdetzen, eztabaidatzen. Makina bat ordu. Gutako bakoitzarentzat zinez ariketa aberasgarria izan da. Baino, bertzalde, aitortu behar dugu etsipengarri samarra ere izan dela ohartza lan horrek guztiak apena saran zuen zuela bertze inon oihartzunik. Irudipena dugu Nafarroa urrun samar ez ote den gelditu euskararen terminologia zehazten joan den guneetatik, ez dela behar edo nahi bezalako zubi lanik egin.

Halere, nafarrok eskerrak eman beharrean gaude, itzulpengintzaren eta hiztegintzaren nahiz terminologiaren alorretan eta, oro har, euskararen normalizazioaren ean, Euskal Autonomia Erkidegotik jaso dugun eta jasotzen ari garen guztiagatik. Hortik xurrupatu eta xurrupatzen baitugu guk! Ez dakit zer eginen genukeen gai honetan lanean aritu eta ari diren hango erakunde publiko eta pribatuak hor izan ez balira.

### 3.4.1. *Gure ikerketa partikularrak*

Baliabide guttiago genuen garaian bezalaxe, gaur egun ere gure ikerketa xumeak egin behar izaten ditugu terminoren bat falta dugunean, edo behin-behinekoz harturiko erabakiren bat norbaitek berriz ere auzitan jartzen dueanen.

Normalean (ez beti) ez dugu inor «molestatu» nahi izaten, eta, posta elektronikoaren bidez edo telefonoz bertze erabiltzailerentz bati zuzenean galdetu beharrean, Interneten murgiltzen gara, han zer aurkituko.

Gauza jakina da, ordea, bilaketa horren emaitza bilatzailearen abildadearen esku dagoela, neurri batean. Zaila da Internetek eman dezakeen guztien berri izatea. Denok kontrolatzen ditugu web gune batzuk, baina noiznahi deskubritzen ditugu lehen ezagutzen ez genituenak.

Bilatzen hasi eta begiratzent ditugu *Hiztegi Batua* eta *Orotariko Euskal Hiztegia*; *Euskalterm*; hiztegi orokorrak (*Zehazki, Elhuyar, 3.000 hiztegia...*); hiztegi entziklopedikoak (*Elhuyar, Lur...*); EIZIeren *Itzul* foroan inoiz eztabaидatu ote den; bertze aldizkari ofizialen testuak (Aldundienak, Parlamentuenak, Eusko Jaurlaritzarena...); erakunde publiko eta pribatuek sartuak dituzten glosategiak edo bertzelakoak (*Bizkaiko Foru Aldundia, ETB, Jaurlaritzako Justizia Departamentua, Elhuyarren corpusak, ...*); *Ereduzko Prosa...*

Arrunt interesgarriak iruditzen zaizkit, niri behinik behin, irakaskuntza espezializatuetako materialak, unibertsitateetakoak bereziki. Egiazko erabiltaileenak direlako, espezialista euskaldunenak. Pentsatzen dut nahitaez egon behar dutela nonbait, baina, salbuespen batzuk kenduta, kasu gehienetan ez naiz halakoetara ailegatzen, txiripaz ez bada.

Leioako Biologia Fakultateak aurten 30 urte ditu euskaraz irakasten hasirik. Hor nahitaez terminologia nahiko finkatua eduki behar dute; hala ere, badirudi ez dela dena hiztegietara ailegatu. Nonbait behar du! Donostiako Arkitektura Fakultatekoak hiztegia egiten ari dira eta dagoeneko behin-behineko bertsioa ikus daiteke. Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak ere badu bere webgunea (eta hiztegia egiteko asmoa), baina bertze batzuen falta sumatzen dut: non daude Ingeniaritzakoak, Arte Ederretakoak, Historiakoak...?

Nolanahi dela ere, bilaketaren amaieran, hondarreko, proposamen bat edo batzuk aukeratzera iristen gara. Behin horiek eskura ditugula, batzuetan, berriz ere Interneteko corpus osoan begiratzent dugu, hautagaien maiatasunak alderatzeko.

Tarteka-tarteka «onddo beltx» bat edo bertze aurkitzen dugu («gorringorik» ia inoiz ez), baldintza guztiak betetzen dituena: adiera, hizkuntz araua eta, beharbada importanteena, adostasun-maila handia erabiltzaileen artean (eta gu «enteratu» gabe!)

Normalagoa izaten da, ordea, bilaketa horren amaieran atsekabetuxea gelditzea aurkitu dugunarekin. Ez dugulako «jateko» deus fidagarririk aurkitu (saskia hutsik), edo, bertzerik gabe, dispertsio handiarekin topo egiten dugulako (aurkitzen dugunak ez du gure gosea aseko).

Nolanahi ere, horrekin guztiarekin, kasuan kasuko hitzari buruz ahalik eta informaziorik gehien bildu ondotik, proposamen bat prestatzen dugu. Aipatuko dugu zer aukera dugun, eta bakoitzaren aldeko eta aurkako argudioak emanen ditugu. Gero, bileran elkarturik, erabaki bat hartuko dugu. Nahitaez ordain bat behar dugulako, ezin garelako esperoan egon auzia argitzen den arte.

### 3.5. Ordezko protokoloa behar

Terminologia Batzordeak aurreikusi bezala lan egiten badu, euskarazko terminologiagintzaren ikuspegia erabat argituko da, dudarik gabe. «Ezer ez da berdin» izanen. Nik, behinik behin, hala izatea espero dut. Uste dut, zinez, Euskalterm berriak aurrerapen handia ekarriko digula, eta zain nago agindutako fitxak (argibide gehiagorekin, ponderazio markekin...) noiz agertuko.

Ordea, Batzordeak denbora paska bat beharko du oraindik terminologia bankua osatzeko eta, hori gertatzen den bitartean, iruditzen zait erabil-tzaileok ordezko protokoloren bat beharko genukeela, aitzineko puntuau deskribatu dudana baino zerttobait hobea.

Hasteko, Administrazioarentzat ari garenok, bederen, harreman motaren bat finkaturik eduki beharko genuke, erakundeek beren artean dituztene-tatik aparte. Problema berberei ez bada, oso antzekoak direnei egin behar izaten diegulako aurre. Oraindik erabaki gabeko kasuetan, behin-behinekoak adosten saiatu beharko genuke.

Egia da badugula elkarren berri eta, batzuetan, gutxienez, elkarrengana jotzen dugula itzulgai jakin batzuen ordainetan akort izateko. Adibidez, hauteskundeetarako paper klase guztiak itzuli behar direnean (Nola itzuli «credencial de interventor»? Nik dakidala, oraindik finkatu gabe ditugu

«credencial» eta «interventor»). Erokeria litzateke Nafarroan modu batean ematea eta EAEn bertze modu batean (eta Iparraldean?). Horregatik, azkeneko bozketaaldieta, behinik behin, lortu dugu ahal zen gehienetan halakoetan erabiltzen diren testuak.

Adibide hori bezalako ehunka aipa genitzake. Eta errealityean bakoitzak berea isurtzen du, eta gure ordain guztiekin «itsaso urdinik» egiten ez duten putxu xikin kontaezinenean anabasa sortzeko arriskua dugu.

Horregatik, orain ditugun baliabideak bertzela baliatu edo bertze zerbait asmatu beharko genuke, eta horren bitartez lortu nolabait handitzea finkatu gabe dauden terminoei buruz hartzen ditugun erabakiengatik segurtasuna. Ez daitezela hain behin-behinekoak izan. Ez dut uste ezinezkoan denik, baina ez dakit ohartu beharko genukeenok konturatzen ote garen, ez eta behar adinako garrantzia ematen ote diogun ere.

### 3.6. Nafarroa eta Terminologia Batzordea

Eusko Jaurlaritzako Terminologia Batzordean ez dago gaur egun gure erkidegoko kiderik, eta uste dut ongi legokeela nafarren bat izatea. Ez bakarrrik euskalki eta geografia guztiak ordezkatuak egoteko. Eta hori ere ez da kalte. Kontua da garbi dudala erabakiak hagitzeari aiseago ulertu eta aplikatzenean direla norbera implikatua (ordezkatua) sentitzen bada.

Horrekin batera, bidezkoa iruditzen zait erratea gustatuko litzaidakeela nafar Administrazioak ere babestea Batzordea, hitzarmen bidez edo, garai batean Euskalterm Gobernuaren intranetean txertatzeko UZEIrekin egin zuen bezala. Ez, ordea, gure Administrazioari dirua nolanahi gastarazi nahi diodalako. Baino uste dut, alde batetik, justua litzatekeela dagokion parteaz arduratzea, eta, bertzetik, gure agintariekin aintzat hartu beharko luketela euskararen garapena arlo honetan, eta ohartu eginkizun hau ere beharezko dela.

Barka atrebentzia, baina hor dago proposamena, dagokionak, nahi izanez gero, kontuan har dezan.

### 3.7. Gure itzulpenen erabiltzaileak

Terminologiaren arazo zehatza alde batera utzi eta, begiak goiti eginez, urrunagotik begiratu nahiko nieke gure itzulpen lanei. Uste dut gero eta hobeki ari garela, eta denboraren poderioz -ardo batzuen gisara- itzultzaile hobeak garela gaur egun. Gutako bakoitzak bere aurrerabidea izan du, eta lankideokin nahiz gainerako itzultzaileekin esperientzia partekatuz, anitz ikasi dugu.

Iruditzen zait baldintza egokietan lan eginez gero, kalitate oneko itzulpenak egiteko gai garela, eta egin egiten ditugula. Ez nuke erranen zer hobetu ez dugunik, baina, horretarako, funtsezkoa den zerbait falta dugu: beharrezko da gure testuak ahalik eta gehien erabiltzea; eta gero, erabil-tzaileen iritzia jakin.

Onartzen badidazue sukaldarien paperean jartzea, iruditzen zait hagitz jaki gustagarriak prestatzen ditugula; batez ere, edozeinek kontsumi ditzakeenak; inori kalte egiten ez diotenak. Halere, jakina, hori nire irudipena da, eta aitortu beharko dut betiere duda koekor bat gelditzen zaidala gure produktuen ondasun horretaz. Zergatik? Jaleak ez zaizkigulako hurbiltzen euren iritzia ematera. Ez hori bakarrik, ez dakigu atera dizkiegunak jan dituzten edo zakarrontzira ez ote dituzten bota.

Txantxa modura errana dago, baina ez da broma. Hori importantea da guretzat. Horrek lagunduko liguke produktua hobetzen, eta, dudarik gabe, are gehiago motibatuko gintuzke.

Nafarroako Administrazio zentraleko eta udalako bulegari, teknikari, idazkariak... Osasunbideko mediku eta erizainak... Ogasuneko inprimakieei buruzko argibideak ematen dituzten teknikariak... Ikastetxeetako mota guztietako langileak... Sindikalistak... Kargudun politikoak... Euskarazko komunikabideetako kazetariak... Eta herritar arruntak ere bai. Horiek denek, zer iritzi dute gure testuez?

Aldizkari Ofizialean haiei eragiten dien iragarkiren bat ateratzen denean; edo argitaratu den zerbait bertze norbaiti ezagutarazi nahi diotenean; edo euren bulegora edo etxera Administrazioaren argibide-orri bat iristen zaie-

nean, nahiz eta euskaraz jakin eta alfabetatuak egon, nora jotzen dute/dugu? Gaztelaniazko testura? Zergatik? Testuak ez du funtzionatzen edo ohitura falta da?

Bertze ikuspegi batetik, antzeko kezka agertu du berriki iritzi-artikulu batean Lasarte-Oriako Udaleko euskara teknikariak: *Euskara EAEn ofiziala dela 30 urte baino gehiago bete direnean, zergatik ateratzen dute gidabaimena gaztelaniaz Gipuzkoako gazte guztiek?*

Uste dut badela garaia kontu hauek argitzen joateko. Eta jendea ez baizaigu etortzen iradokizunak, kexak eta oro har iritzia ematera, guk joan beharko dugula, nolabait ere, jendearengana, erantzun eske.

Lehenik, administrazioetan (Gobernuan eta udaletan, eta Estatuaren mendekoetan) euskaraz aritzen direnekin harreman estuagoa behar dugu. Elkarrekin ari, testu berberak erabiltzen ditugulako. Gurean sortzen diren testuek hor frogatu behar dute balio dutela (eta ez naiz bakarrik terminologiaz ari). Horretarako, nahitaezkoa da elkarren berri izatea, eta kritika saio etengabea.

Bigarrenik, gure testuak zabal ditzaketenekin solas egin beharko genuke (komunikabideak, euskaltegiak...).

Eta gero, hortik aitzinerako guztiak.

#### **4. Ondorio eta proposamenak**

Jardunaldi honetan eskaini zaidan aukeraren bitartez, saiatu naiz esplikatzen Itzulpen Atala zer den eta zertan-nola aritzen garen bertako itzultzaleok. Bertzalde, gaiak berak ekarri du, halabeharrez, gogoeta egitea gure jardunaz, egin beharko genukeenaz, egin genezakeenaz... Hona hemen errandako guzia laburbiltzeko gogoratzen zaizkidan ondorio batzuk, eta haiei loturiko zenbait proposamen:

1. Itzulpen Ataleko itzultzaleok hogeita bi urte ditugu Nafarroako Gobernuaren mendeko Administrazioarentzat itzultzen hasirik. Lehenga-gotik hasia zen euskara Administrazioaren oihan usuan habia egiten.

Oraindik mesfidatirik gelditzen bada, uxa ditzala berehala zalantza guztiak. Testuak sendoak dira eta arazorik gabe jasaten dute itzulgaiaren pisua.

2. Protokolo edo antolamenduren bat behar dugu terminologia arloan, Administrazioarentzat ari garenon artean, bederen, terminologia arras finkatzen den bitartean, behin-behinekoz hartzen ditugun erabakiak ahalik eta sendoenak izan daitezten.
3. Erran bezala, berme osoko testuak sortzeko gai gara. Baino horretarako, behar diren baldintzak lortu behar ditugu. Elebitasuna aintzat hartu behar dute testugintzan zerikusia duten estamentu guztiekin.
4. Beharrezkoa da testu hauek erabiltzea Administrazioan-Administrazioarekin-Administrazioarentzat euskaraz lan egiten duten pertsona guztiekin. Funtsezkoa zaigu haien iritziaren berri izatea. Elkarrekiko harremana nolabait egituratu behar dugu.
5. Hitzun arruntak ere ohitu beharko luke administrazioko hizkerarekin, edozein herritarrek ohikoak dituen beharretarako (inprimakiak bete, lan deialdiak kontsultatu, kartelak prestatu...). Ikastetxeek (eskola-ikastolek, institutuak, unibertsitateak, administrazioetako langileen ikastegiek, euskaltegiek...) aintzat hartu beharko lukete eginkizun hau, eta komunikabideek ere zubi lana egiten lagundi dezakete.
6. Nafarroako Gobernuak orain arte baino gehiago esku hartu beharko luke euskarazko terminologiagintzari loturiko arloetan: hizkera administratibo-juridikoaren sorreraren eta ezarpenaren gaineko ikerketetan; euskara Administrazioan normalizatzeko eman beharreko urratsetan. Gaurko saioa urrats bat da, baina jarraipena behar luke, hau bezalako ekitaldi gehiagoren bidez eta auzo erkidegoan dagoeneko martxan diren edo gerora sortuko diren ekimenetan parte hartuz.

# Nafarroako Parlamentuko itzultzzaile-interpreteak: zer-nolako harremana dugu terminologiarekin?

IRIZAR APAOLAZA, Ander  
Nafarroako Parlamentuko itzultzzaile-interpretea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Nafarroako Parlamentuko itzultzaire-interpretreak beren eguneroko lanean terminologiarekin duten harremana aztertzen da artikuluan. Terminologiaren erabiltzaile eta sortzaile badira ere, planifikatu gabe dituzte, ordea, terminologia zabaltzeko eta errotzeko bideak. Bide horiek planifikatzearren garrantzia agerian gelditzen da kontuan hartzen badugu balizko eginbide planifikatu horien hartziale nagusiak parlamentariak eta kazetariak izango liratekeela; izan ere, horien hizkerak eragin aski handia du hizkuntzaren erabiltzaile arruntengan.

**Hitz-gakoak:** Nafarroako Parlamentua, itzultzaire-interpretak, terminologia, terminologia-plangintza, terminologiaren zabalkundea, terminologiaren errotzea.

Se analiza la relación que en su labor diaria tienen los traductores-intérpretes del Parlamento de Navarra con la terminología. A pesar de ser usuarios y creadores de terminología, no tienen sin embargo planificados los cauces para su difusión e implantación. La importancia de planificar dichos cauces queda de manifiesto si se tiene en cuenta que las acciones planificadas de difusión e implantación, en caso de realizarse, tendrían como principales destinatarios a los parlamentarios y los periodistas, cuyos usos lingüísticos tienen una repercusión notable en los usuarios comunes de la lengua.

**Palabras clave:** Parlamento de Navarra, traductores-intérpretes, terminología, planificación terminológica, difusión terminológica, implantación terminológica.

Cet article analyse les relations que les traducteurs-interprètes au Parlement de Navarre entretiennent avec la terminologie dans leur travail quotidien. Bien qu'ils soient à la fois usagers et créateurs de terminologie, ils n'ont cependant pas planifié les procédés nécessaires à sa diffusion et à son implantation. Il est très important que soient planifiées ces procédés si l'on tient compte du fait que les actions qui seraient menées pour sa diffusion et son implantation toucheraient surtout les parlementaires et les journalistes dont le langage a une grande influence sur les usagers habituels de la langue.

**Mots-clés :** Parlement de Navarre, traducteurs-interprètes, terminologie, planification terminologique, diffusion terminologique, implantation terminologique.

This paper examines the relationship the translators-interpreters of the Parliament of Navarre have with terminology in their everyday work. Even though they are users and creators of terminology, the channels for spreading and establishing it have not been planned. The importance of planning these channels becomes apparent if we bear in mind that the main target users of these eventual channels would be the members of parliament and journalists; in fact, their speech exerts a considerable influence on the ordinary users of the language.

**Keywords:** Parliament of Navarre, translators-interpreters, terminology, terminology planning, spreading of terminology, establishing of terminology.

## 1. Sarrera

Hasteko eta behin, nire irudipen bat ekarri nahi nuke hona, eta ohar bat egin ere bai hurrengo. Irudipena da Administrazioan ari garen itzultzailoek, eguneroko lanaren zurrubiloan harrapaturik-edo, sarri askotan ez dugula behar den tarterik harrapatzten hats pixka bat hartu, hausnartu eta geure ahaleginak egoki bideratzeko. Buru-belarri aritze horrek badu, gainera, beste ondorio gaizto bat, eta da ez duela biderik ematen harremanik izateko ingurukoekin: hurbil-hurbilekoekin zein haratxeagokoekin, gure lanbide berekoekin nahiz gurearekin zerikusia duten lanetan ari direnekin. Buru-belarri aritze horrek ez ote dakarren, batzuetan, behar adina bururekin ez, eta belarri gutxitxorekin ere aritza... Gaitzok ez dira seguruenik han-hemengo administrazioetan ari garen itzultzaleonak bakarrik, baina, gureak ere badirenez, eman diezaiegun ongietorria honelako jardunaldie eta to-paketei; batetik, hausnartzera behartzen gaituztelako, eta, bestetik, euskararen inguruan ari garenon arteko ezaupidea indartzen dutenez, lankidetzarako bideak prestatzen ere lagun diezaguketelako. Bestalde, eta irudipenaren ondotik noan orain oharkizunarekin: hona dakardan nire hausnarketa hau ez da terminologian aditua den norbaitena, baizik eta administrazio jakin batean lanean ari den itzultziale eta interprete soil batena; hori du berezitik, eta horixe du, halaber, mugetako bat.

Aldez aurretik adierazi beharrekoak adierazita, azal dezadan orain nola ikusten dudan Nafarroako Parlamentuko itzultzale-interpreteok terminologiarekin gaur egun dugun harremana.


## 2. Nafarroako Parlamentuko itzultzale-interpreteen gaineko zenbait datu eta argibide (2010)

Kokatzen laguntzeko, eta, ikusiko dugunez, nolabaiteko garrantzia ere baduelako, zenbait datu eta argibide emango ditut hasteko: gaur egun, 2010ean, zenbat garen, zein dugun egoera organikoa eta zertan gauzatzen den gure itzulpen-lana.


- Nafarroako Parlamentuan bost itzultzale-interprete gara gaur egun. Datu horri neurria hartzen laguntzeko, hona beste zenbaki batzuk: Na-

farroako Parlamentuak guztira 56 funtzionario ditu; behin-behineko langileak, berriz, 16 dira (parlamentu-taldeen laguntzaileak eta beste-lako langileak); eta parlamentariak, azkenik, 50 dira, zeinetatik, VII. legegintzaldi honetan (2007-2011), 9 baitira parlamentu-saioren bat-ean euskara erabili dutenak, hein handiagoan edo txikiagoan, eta horetatik 5, berriz, idazkiren bat euskaraz aurkeztu dutenak.

#### Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuan ari diren langileak (2010)



#### Foru parlamentariak, hizkuntza-jardueraren arabera (VII. legegintzaldia: 2007-2011)



- Itzultzaila-interpreteok Prentsa, Argitalpen eta Protokolo Zerbitzuaren barruan gaude; zerbitzu horren buru egiten duen pertsona da gure nagusia, eta ez da euskalduna. Gainerako lau zerbitzuak honako hauek dira: Zerbitzu Juridikoak; Zerbitzu Orokorrak; Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzua; eta Kontu-hartzaitza eta Ekonomia Gaieratarako Zerbitzua.

– Zertan gauzatzen da gure itzulpen-lana?:

- Itzulpen-lana (idatzia):

- Funtsean, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala euskaratzen dugu. Parlamentuko aldizkaria, Euskarari buruzko Legearen 7. artikuluak hala aginduta, gaztelaniaz eta euskaraz argitaratzen da, aldibereko ale bereizietan. Parlamentuko aldizkarian, legebiltzar baten eginkizunekin zerikusia duena argitaratzen da. Esate baterako, legegintzarekin zerikusia duena: lege proposamenak, lege proiektuak, ekimen horiei proposaturiko zuzenketak, legearen behin betiko testua, eta abar. Edota Gobernua kontrolatzeko eginkizunarekin zerikusia duten parlamentu-ekimenak: parlamentariekin nahiz parlamentu-taldeek aurkeztutako mozioak eta jabeldurak, edo parlamentariekin Gobernuari eginiko galderak. Gobernuak parlamentarien galderei emaniko erantzun idatziak ere itzuli eta argitaratzen ditugu, eta Comptos Ganberaren txostenak eta Nafarroako Ikus-entzunezko Kontseiluarenak ere bai; izan ere, bi horiek, Erregelamenduak ezartzen duenez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharrekoak dira. Nafarroako Ararte-koaren txostenak ere argitaratzen dira gure aldizkari ofizialean, baina horiek itzulita iristen zaizkigu orain.
- Gaztelaniara itzultzen ditugu, bestalde, euskaraz aurkezten diren parlamentu-ekimenak eta Parlamentuko Erregistroan euskaraz aurkezten diren idazkiak. Horrelakoak oso gutxi izaten dira.

- Eta, azkenik, gaztelaniara itzultzen ditugu, Bilkura Egunkarirako hain zuen, parlamentariekin euskaraz eginiko hitzaldien transkripzioak.

- Interpretazio-lana (aldiberekooa):

- Gaztelaniara itzultzen dugu parlamentarien euskarazko jarduna, hala Osoko Bilkuretakoa nola batzordeetakoa.
- Halaber, batzordeen *lan bilera* esaten diegunetara etortzen den kanpoko jendearen euskarazko jarduna ere itzultzen dugu.

### 3. Terminologia eta gu

Aipatu berri dudan jardunbide horretan guztian dugu harremana, modu batean edo bestean, terminologiarekin. Eta, jakina, ez bakarrik arlo juridiko-administratiboko terminologiarekin –nahiz eta terminologia hori zedarritzea erraza ere ez den beti–, baizik eta terminologiarekin oro har. Hor sartzen ditut, baita ere, erakundeen organigrametako izendapen ofizialak adibidez, hertsiki terminoak ez badira ere, lekua badute-eta datu-base terminologikoetan. Baino nolakoa da harreman hori? Bada, harreman gazi-gozoa, esango nuke. Eta, seguruenik, gauza bera gertatuko zaio, arrazoi bat dela edo bestea dela, euskara langai duen askori.

Gure kasu zehatzera etorrita, esan behar dut, begi-bistakoa bada ere, itzultzaile eta interpre garen aldetik, terminologiaren erabiltzaileak garela, *kontsumitzaleak* modu grafikoagoan esatearren. Esan genezake, azken urteotako aurrerabide teknologikoei esker, gaur egun harreman gozo antzekoa dugula horri dagokionez. Horrela, Internetez kontsulta ditzakegu bai Euskalterm, bai beste hiztegi espezializatu zein arrunt mordoxkada bat ere; bestalde, geuk sortutako testuetan bilatzeko moduak ere asko erraztu zaizkigu itzulpen-tresnek eskaintzen dizkiguten aukerekin; gure kasuan, Tradosen *Concordance* aukera-rekin, eta, hein txikiagoan –ondo bidean alderantziz beharko balu ere–, Multitermekin. Hala ere, irudipena daukat, berriro diot, lanean ari garelarik erraz antzean-edo ekartzen ditugula unean-unean sukaldlean beharrezkoak gertatzen zaizkigun gaiak; besterik da kasuan-kasuan ekarritako material horiek erabat asetzten ote dituzten gure beharrak, hau da, beti ordain bakarra aurkitzen dugun, baliatzen dugun terminoa egokia eta biribila den, eta abar.

Arlo asko ukitzen dituzten testuak itzultzen ditugunez –era askotako testuak euskaratzea egokitzen baitzaigu, esan dudan bezala–, batzuetan, nahitaez, terminologia-sortzaile ere bagara<sup>1</sup>. Terminoen sorbideari dagokionez,

<sup>1</sup> Batzuetan, parlamentu-terminoak izan daitezke sortzen ditugunak. Konparazio baterako, Nafarroako Parlamentuan, 2007. urtean, *foru parlamentarien elkartea* izeneko figura (*agrupación de parlamentarios forales*) sortu zuten. Labur esanda, parlamentu-taldera izatera iristeko adina kide ez duen parlamentari multzoa da, eta euskararen eremuko legebiltzarretan, oraingo, ez da halakorik inoiz izan –nik dakidala–. Beste batzuetan –gehienetan–, beste arlo batzuetako terminoak izaten dira sortzen ditugunak. Lege-testuetan, esate baterako, nahiko ohikoa da legegileak arlo jakin bateko

harremana ere gozo-antzko dela esango nuke, nahiz eta sorbidearen ondottik eterri beharrekoari erreparatzen badiogu, gelditzen zaigun aho zaporea ez den hain gozoa. Hala, esate baterako, sortzen dugun terminologia ez dugu modu sistematikoan biltzen; horrela jokatzeko arrazoiak bat baino gehiago dira, baina *de facto* hala da. Itzulpen-lanerako, hutsune hori ez zaigu itogarria gertatzen, terminologia-beharrak, lehen esan bezala, erraz antzean-edo asesten ditugulako (tira, gu aseta gelditzen gara, hartzaleak –halakorik baldin badugu– ez dakit); horrek esplika dezake, hein batean bederen –arra佐い gehiago ere badira–, zergatik ez garen gar biziagoz jartzen terminologia biltzeko lan horietara. Edozein modutan, itzulpen-lanean terminoez behartzen garenean ere, alegia terminologia *kontsumitzerakoan* –urreko irudiarekin jarraitzearen–, ohartzen gara zenbait gauza modu sistematikoan gordeak izango bagenitu, batzuetan lana erraztuko litzaigueela, eta txikiagoa genukeela, esate baterako, koherentzia-akatsak izateko arriskua ere. Baino, hori baino garrantzitsuagoa da, agian, bilketa-lan horren emaitza baliagarria gerta lekuigueela beste eginkizun batzuetarako ere, geroxeago azalduko dudanez.

Egindakoaren gaineko bilketa-lan sistematikoari gagozkiola, ez nuke aipatu gabe utzi nahi geuk egindakoak, ordea, edo geuretik pasatuak, bai erabiltzen direla, edo kontuan hartzen direla, kanpotik eginiko lan sistematikoagoetarako. Hor dago, konparazio baterako, Andres Urrutiak eta Esther Urrutiak aurkeztu berri diguten Nafarroako lege-testuen lexiko juridiko elebidunaren hustuketa, edota UZEIk prestatze bidean duen *Sektore publikoko kontratuuen hiztegia*, zeinetan Nafarroako Kontratu Publikoek buruzko Foru Legea ere kontuan hartzen ari baitira. Legeei buruz, bai zehaztu nahi nuke, edonola ere, testu horiek abiapuntu, askotan, Gobernuak prestatutako lege proiektuak iza-

adigaiak zehaztea. Adibidez, 8/2011 Foru Legean, hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagokion eskubideei eta bermeei buruzkoan (lege testu horrek foru lege proposamen bat izan zuen oinarri; hau da, foru lege proiektuak ez bezala, Nafarroako Parlamentuan itzuli zen), zehaztuta ageiri da nola ulertuko diren, lege horren ondorioetarako, honakoak: *baimen informatua (consentimiento informado)*, *zaintza aringarriak (cuidados paliativos)* *aurretiazko borondateen adierazpen-agiria (documento de voluntades anticipadas)*, *biziari eusteko neurria (medida de soporte vital)*, *obstinación terapéutica (setatze terapeutikoa)*, *sintoma immunea (síntoma refractario)*, *sedazio aringarria (sedación paliativa)* edo *bizi-testamentua (testamento vital)*. Terminologia klasikoaren ikuspegি zurruna gainditzen badugu, zerrrendatu ditugun horiek terminotzat hartzekoak dira. Horri gagozkiola, Antton Elosegik (Elosegi, 2002) jakingarri ugari biltzen ditu terminologiaren gaineko teoria orokorrari egindako kritikei buruz, terminologien arteko diferentziei buruz eta terminoen forma linguistikoei buruz.

ten dituztela, eta proiektuok Gobernuko itzultzailak euskaratuta iristen zaizkigula. Beraz, Nafarroako Parlamentutik ateratzen diren legeetako asko, funtsean, Gobernuko gure lankideek mamituak dira, nahiz eta testuok gurean ere aldaketak izaten dituzten, dela legegileek hala erabakita –gaztelaniazko testuan erabakita, jakina–, dela geuk, hobe beharrez, hala erabakita.

Terminologiaz eta terminologia-lanaz hitz egiten dugunean, itzultzaila apaloia, hasieran behintzat, horrelako hustuketak eta terminologiako lan sistematikoak datozkigu gogora. Bada gauza bat, ordea, oso kontuan izan beharrekoa; hain zuzen ere, terminologia-lana ez dela amaitzen terminologia-produktuak sortzearekin, askotan uste ohi dugunez. Ez dugu aski terminoen glosarioak eta zerrenda elebidunak izatea, are gutxiago guk soilik erabiltzeko badira, baldin eta ez badugu ezer egiten termino horiek behar bezala zabaltzeko (*diffusion*) eta erabilera errotzeko (*implantation*). Egia hori, begi-bistakoa dirudienea, eta atzo goizekoa ere ez dena<sup>2</sup>, ez dakit behar bezala geureganatua eta barneratua dugun. Ideia hori hobeki azaltzeko asmoz, aipamen teoriko labur bat eginen dut lehenbizi, eta, gero, aurreko oinarri, Parlamentuko egoera aztertuko dut, argigarri gerta daitekeelakoan beste egoera batzuk ere aztertzeko.

#### 4. Teoria pixka bat

Gogoratu behar da hizkuntza baten normalizazioak prozesu planifikatua izan behar duela, eta plangintza terminologikoak zentzua duela soilik hizkuntza-plangintza orokor baten barruan. Horrela, Cabrék (1993, 109), Auger quebecarrak plangintza terminologikoaren ezaugarri diren sei fun-

---

<sup>2</sup> «Dans la perspective de l'aménagement linguistique (et aussi du développement terminologique d'une langue) il faut se débarrasser de l'idée reçue qui veut que le produit terminologique (appelons-les dictionnaires, lexiques, vocabulaires) soient seulement des outils servant à la traduction des textes spécialisés, à leur encodage ou à leur rédaction. Conçus spécifiquement pour une clientèle de traducteurs, de rédacteurs spécialisés, ils ont été voués à des rôles essentiellement statiques qu'il illustre bien le rangement qu'on en fait sur les tables de travail ou au mieux, sur des étagères parfois. C'est un fait généralement reconnu qu'on ne lit pas les dictionnaires et qu'en conséquence il ne suffit pas de distribuer de lexiques pour amorcer aussitôt une modification des habitudes langagières des individus». Auger (1986, 49)

tzioak oinarri hartuta<sup>3</sup>, prozesu dinamiko bat proposatzen du, urrats hauek izan beharko lituzkeena:

- Egoera batek dituen behar terminologikoak aztertu.
- Lan-plan bat prestatu, egoerara egokitua.
- Terminologia bera prestatu.
- Terminologia normalizatu, terminologian normalizazioari ematen zaion esanahiarekin, hau da, autoritatea duen norbaitek termino bat proposatzea.
- Aukeratu zer euskarritan eta zer modutan eman behar den terminologia, haren zabalkunderako.
- Terminologia errotzen saiatu erabiltzaileen artean, dinamizazio-ekintza egokien bidez. Adituen ustez, termino bat erabileran errotu dadin gutxi gorabehera hamar urte behar omen dira.
- Terminologiaren erabileraren jarraipena egin.
- Terminologia etengabe egunerautu.

Hasierako lau urratsek corpusarekin dute zerikusia, hizkuntzaren kodifikazioarekin nolabait esatearren, eta azken laurek, aldiz, estatusarekin, hau da, alderdi soziolinguistikoekin.

## 5. Nafarroako Parlamentuko egoera, aurrekoaren argitan

Behin erreferentzia teoriko horiek emanda, etor gaitezen orain Parlamentuko kasura, eta har dezagun adibide gisa terminologia parlamentarioa. Oso kasu zehatza da, baina bere txikian baliagarria gerta daiteke azterzeko zer gertatzen den beste kasu batzuetan; hau da, zer gertatzen den beste administrazio edo gune batzuetan, zer gertatzen den beste arlo batzuetako terminologiarekin, eta are, hein batean, zer gertatzen den lexiko orokorrarekin ere –muga zehatzik ezartzerik baldin badago terminologiaren eta lexiko orokorraren artean–.

---

<sup>3</sup> «... nous caractériserons l'aménagement terminologique par six fonctions fondamentales: a) fonction recherche, b) fonction normalisation, c) fonction diffusion, d) fonction implantation, e) fonction évaluation et contrôle et f) fonction mise à jour...» Auger (1986, 48)

Horrenbestez, geurera etorri, eta, azaldu berri dudan ikuspegি horretatik aztertzen badugu egoera, lehen harreman gozo-antzko genuena, orain zapore gazi, eta are mikatz, bihurtzen zaigu. Iku dezagun. Terminologia parlamentario bat badugu sortua, neurri batean normalizatua esan genezake –lehenago zehaztutako esanahiarekin–, baina hortik aurrera emandako pausoak, egia esateko, urriak izan dira orain artean. Hala, irudipena dugu (zorrotz jokatuta, ebaluatu egin beharko litzateke baina) terminologia horren lehentasunezko erabiltzaile direnek, gure kasuan nagusiki foru parlamentariek eta komunikabideek, sarri samar, ez dutela kontuan hartzen terminologia normalizatu hori. Esan genezake parlamentu-termino mordoxkada bat (horietako batzuk lexiko orokorrekoak ere badirenak) errotu gabe daudela haiengan; batzuetan, gainera, horien ordez, forma ez oso egokitzat jotzen direnak dituzte sartuta beren hizkeran<sup>4</sup>. Eta har dezagun kontuan, begi-bistakoa bada ere, euskaldun arruntarengan askozaz ere eragin handiagoa duela komunikabide batean entzundakoak –kazetari bati, politikari bati edo beste edozeini– aldizkari ofizial batean argitaratutako edozerk baino. Erreferentziazko bihurtzen diren hiztun horien jokabidea juzgatzerakoan, ordea, kontuan izan beharko genuke, besteak beste, guk zer bitarteko jarri ditugun parlamentu-terminologia hori zabaltzeko eta errozko. Egia esan behar bada, adibidetarako hartua dugun terminologia hori zabaltzeko, bitarteko gutxi, eta errozko, berriz, are gutxiago edo batere ez.

Estatusaren arlo horretan, nire iritziz, gehiago saiatu beharko genuke, nork bere esparruan eta bere eragin-eremuan, eta ahal duen neurrian noski. Eta horretarako bai behar ditugu biltze sistematikoak, zerrendak eta abar, hau da, corpusa; lan horiek beharrezkoak ditugu, hain zuzen, gero, kasuan kasuko bideak erabiliz, eragin ahal izateko bai ezagutzan eta bai erabileran.

---

<sup>4</sup> Ohikoa da parlamentariek *bozka* esatea, *boza* edo *boto* esan beharrean, edo *emendakin* erabiltzea *zuzenketa* beharrean; *parlamentari* (iz.) eta *parlamentario* (izond.) nahastea ere nahiko arrunta da. Adibide gisara aipatu ditugunok parlamentu-terminoak izateaz gain, argi samar dago lexiko orokorrekoak ere badirela, eta hain zuzen ere horregatik ditugu horien gaineko argibideak Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuan. Hala, euskararen hiztegi arauemailean xehetasun hauek aurki ditzakegu: «boz 2 1 iz. Ipar. ‘botoa’»; «bozka iz. Ipar.: bozka-eguna» [bozkak beraz, bozketa edo botazio esan nahi du]; «emendatu, emenda, emendatzen. da/du ad. ‘gehitu, erantsi’ (ez du ‘zuzendu’ adierazi nahi)»; «parlamentari iz.: parlamentarien bilera»; «parlamentario izond.: talde parlamentario (hala ere, hobe *parlamentu[ko] talde*)».

## 6. Arau-testuetan ezarritako terminologia egunera-tzerakoan agertzen den oztoko berezi bat

Gorago aipatu dudan prozesu dinamiko horren argitan, beste kontu bat ere agertu nahi nuke hemen, bide batez. Ikusi dugunez, prozesu horren azken pauso gisa ageri dena da terminologia etengabe eguneratzea. Horretara, batzuetan, iristen gara; ez terminologiaren erabilera zorrozkiz jarraitzen eta ebaluatzen dugulako eta horrek bideratzen gaituelako terminoak berraztertzen, baizik eta hartara eramatzen gaituztelako hizkuntza-arauen bilakaerek, termino baten hutsuneez ohartzeak, besteen jokabideek (terminologia parlamentarioaren kasuan, beste legebiltzar batzuetan dituzten jokabideek esaterako), eta abar. Gertatzen dena da, ordea, arlo juridiko-administratiboan, terminoak sarritan arau-testuetan dauzka-gula ezarrita, halako moduz non kinka gaizto batean gertatzen baikara behin baino gehiagotan; hain zuen ere, erabaki behar dugunean kasuko arau horrekin izan koherente, ala men egin, aldiz, araua sortu ondoren hartuak diren hizkuntz erabakiei edota eskarmenduak erakutsi digunari.

Berriro ere Parlamentua adibide hartuz, pentsa dezagun terminologia parlamentario gehienetan Erregelamenduan dagoela jasoa, hori izaten baita legebiltzar baten arau nagusia; eguneroko lanean, ahal dela, testu horretan ezarritako terminologiari jarraituko zaio –hala ematen du agintzen duela zentzuak–, eta jokabide zentzuzko hori, horrela, oztoko gertatzen da, neurri handiagoan edo txikiagoan, termino horiek eguneratzeko. Antzeko zerbaitek gertatzen da, halaber, lege-alda-keta bat izaten denean; zentzuak agintzen du, izan ere, lege zaharrago bat aldatzen duen legean, ahal izanez gero, lege harten erabilitako terminologia errespetatuko dela, azken batean legean txertatuko baita alda-keta; eta, horrelakoetan ere, zentzuzko jokaera dena nolabaiteko oztoko bihurtzen da terminologiaren eguneraketarako. Hara hemen ere gazitasun pixka bat terminologiarekiko gure harremeanan, bai eta kontuan hartu beharreko elementu bat, agian, terminologiaren balizko jarraipen planifikatuaren.

## 7. Amaitze

Gure itzulpen-zerbitzuetan, beraz, terminologiaz arduratzean, ez genuke geuregan bakarrik pentsatu behar, beste asko ere gogoan izan beharko genituzke: gure lanaz balia daitezkeen, eta, batzuetan, are baliatu behar luketen beste asko.

Haiengana iristeko bideak landu beharko genituzke, eta haien guregana iristeko bideak ere bai. Eta horrek gure itzulpren-zerbitzuak, ahal den neurrian, zerbitzu orokorrago bihurtu beharko lituzke nire ustez, zerbitzu linguistikoen moduko zerbait-edo. Jakina, ongi dakit horrek baduela alderdi arantzatsurik, baina gure ikuspegia pixka bat zabaltzea beharrezkoa dela iruditzen zait, hizkuntzaren kodifikazioaren arloko ahalegin eta lanak, terminologiaren esparrukoak barne, ahalik eta probetxugarrienak gerta dakitzion ahalik eta jende gehienari.

## 8. Bibliografía

- AUGER, P., 1986, «Francisation et terminologie: l'aménagement terminologique», in Guy Rondeau eta Juan Carlos Sager (argit.), *Termia 84 : terminologie et coopération internationale : la terminologie, outil indispensable au transfert des technologies. Colloque international de terminologie, Luxembourg, 27-29 août 1984*. Quebec : Girsterm, 47-55.
- CABRÉ, M.T., 1993, *La terminología. Teoría, metodología, aplicaciones*. Barcelona: Antàrtida-Empúries.
- \_\_\_\_\_, 2003, «Terminología y normalización lingüística», in Espezialitate-Hizkerak eta Terminologia: Jardunaldiak. Leioa : EHUKO Argitalpen Zerbitzua, 11-25.
- \_\_\_\_\_, 2010, «La implantación de la terminología: conceptos, estrategia, recursos y estudios realizados sobre el francés de Quebec y el catalán», in «Euskararen garapena esparru akademikoetan». Espezialitate Hizkerak eta Terminologia IV. Leioa : EHUKO Argitalpen Zerbitzua, 2-18.
- COLOMER I ARTIGAS, R., 1997, «Dimensión social de la normalización terminológica», in Nazioarteko terminologia biltzarra = Congreso internacional de terminología = Congrès international de terminologie = International congress on terminology. Donostia – Gasteiz : UZEI – HAEE-IVAP, 295-306.
- ELORDUI, A., 2007, «Espezialitate-hizkeren garapen lexiko-diskurtsiboa: al-dakortasun terminologikoa tratatzeko zenbait irizpide», in Espezialitateko Hizkerak eta Terminologia II. Euskara estandarra eta espezialitate hizkera. Leioa : EHUKO Argitalpen Zerbitzua, 81-94.
- ELOSEGI, A., 2002, Zuzenbideko euskal hizkera berezia. Lege-corpus itzuli bateko terminologiaren azterketa linguistikoa eta terminologia. Bilbao : EHUKO Argitalpen Zerbitzua.
- ZAPIRAIN, J., 2008, «Terminologia hizkuntza-kudeaketaren baitan», Senez, 35 (2008) 103-112.

# Euskarazko terminologia-lanaren plangintza

DIAZ DE LEZANA, Araceli  
Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako  
Hizkuntza Plangintzako ordundira

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak (1999) terminología-lanaren plangintza egitea agindu zuen. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza plangintza egin zuen bi ardatz nagusi aintzakotzat hartuta: batetik, Terminología Banku Publikoa sortu zuen 2001ean eta, bestetik, Terminología Batzordea eratu zuen 2002an Euskararen Aholku Batzordeareen barruan, Batzorde-atal berezi moduan.

Artikulu honetan, plangintza bera eta lan-metodología eta, plangintza sortu zenetik, Terminología Batzordeak egindako lanak aurkezten dira.

**Hitz-gakoak:** terminología-plangintza, terminología normalización, EUSKALTERM Terminología Banku Publikoa, Terminología Batzordea, termino-en fidagarritasuna, terminoak gomendatzea.

El Plan General de Promoción de Uso del Euskera (1999) estableció la necesidad de llevar a cabo la planificación del trabajo terminológico en euskera. Así, la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco elaboró el Plan sobre la base de dos ejes fundamentales: por una parte, en 2001, creó el Banco Terminológico Público y, por otra, en 2002, constituyó la Comisión de Terminología en el seno del Consejo Asesor del Euskera, como Comisión Especial.

En este artículo, además del plan y la metodología de trabajo, se presentan los trabajos realizados por la Comisión de Terminología desde la puesta en marcha del Plan.

**Palabras clave:** planificación terminológica, normalización de la terminología, EUSKALTERM Banco Terminológico Público, Comisión de Terminología, fiabilidad de los términos, recomendar términos.

Le Plan Général de Promotion de l'Utilisation de la Langue Basque (1999) a démontré la nécessité de mener à bien la planification du travail terminologique en basque. Le Sous-ministère de la Politique Linguistique du Gouvernement Basque a donc élaboré un Plan basé sur deux axes fondamentaux : d'une part il a créé en 2001 la Banque Terminologique Publique et, d'autre part, en 2002, il a constitué une commission spéciale au sein du Conseil Consultatif de la Langue Basque : la Commission de Terminologie.

Dans cet article, mis à part le plan et la méthodologie de travail, sont présentés les travaux réalisés par la Commission de Terminologie depuis la mise en marche du Plan.

**Mots-clés:** planification terminologique, normalisation de la terminologie, Banque Terminologique Publique EUSKALTERM, Commission de Terminologie, fiabilité des termes, recommander des termes.


The General Plan to Promote Basque Language (1999) established the need to plan terminology work. The Sub-ministry for Language Policy of the Basque Autonomous Community Government produced the planning, taking two basic aspects into consideration: firstly, the setting up of the Public Terminology Bank in 2001, and secondly, the constituting of the Terminology Committee in 2002, as a special committee section within the Advisory Committee for Basque.

This paper presents the planning itself and the working methodology, as well as the work carried out by the Terminology Committee since the planning was set up.

**Keywords:** terminology planning, terminology normalisation, EUSKALTERM Basque Public Term Bank, terminology Committee, reliability of terms, recommending of terms.

Euskararen Aholku Batzordeak **Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia** (EBPN) egin zuen 1998an. Urtebete beranduago, 1999an, Eusko Jaurlaritza Kontseiluak berretsi egin zuen hurrengo hamar urteotarako hizkuntza-politika finkatu zuen Plana.

EBPNk terminologia-lanaren plangintza egitea agindu zuen VI.3.2.c atalean. Hori horrela, Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzak (HPS) plangintza egiteari ekin zion eta, horretarako, bi ardatz nagusi ezarri zituen: batetik, **Terminologia Banku Publikoa** sortu zuen 2001ean eta, bestetik, **Terminologia Batzordea** eratu zuen 2002an Euskararen Aholku Batzordeareen barruan.



**Euskarazko terminologia-lanaren  
plangintza**


**1999, Euskara Biziberritzeko  
Plan Nagusia**

**Plangintzaren bi ardatzak:**

- **2001, Terminologia Banku Publikoa**
- **2002, Terminologia Batzordea**

Bestalde, terminologia-lanean erabiltzeko bi erreferentzia-lan argitaratu zituen Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2003an: *Terminologia hiztegia*, euskarazko terminologiaren kontzeptuak eta izendapenak finkatzen dituena, eta *Terminologia-lanaren metodologiako eskuliburua*, euska-

razko terminologia-lanak egiteko orduan erabili beharreko metodologia zehazten duena. Terminologia-lana egiteko metodologia, bai teoria orokorra bai terminologiaren praktika edo terminografia, nazioarte mailan oso finkatuta dago baina hizkuntza bakoitzaren ezaugarrien arabera moldatu behar da eta hori da, hain zuzen, eskuliburuak eskaintzen duena.



## EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa [www.euskara.euskadi.net/euskalterm](http://www.euskara.euskadi.net/euskalterm)

Bankua UZEIk 1987an sortutako EUSKALTERM bankuaren oinarrian sortu zen 2001ean eta, orduik, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza kudeatzen du. Bankua Terminologia Batzordeak finkatutako lehentasunen arabera eguneratzen da eta HPSk eta IVAPek finantzatzen dituzte

EUSKALTERM mantentzeko eta elikatzeko lanak, bi erakunde horiek sinatutako hitzarmenaren bidez. Banku Publikoa mantentzeko eta eguneratzeko lanak lehiaketa publikoaren bidez kontratatzen ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. EUSKALTERM publikoa denetik, UZEI Terminologia eta Lexikografia Zentroa izan da eguneratze- eta mantentze-lanen ardura izan duen entitatea.

## Terminologia Batzordea

Terminologia Batzordea 179/2002 Dekretuaren bidez sortu zen Euskararen Aholku Batzordearen barruan Batzorde-atal berezi moduan (EHAA, 148 zk., 2002-08-07). Dekretuak honako **egiteko** hauek ezartzen dizkio Batzordeari:

- Terminologia-alorrean dauden lehentasunak finkatzea.
- Lan-proposamenak egitea eta urteko jarduketa-planetan jasotzea.
- Terminologia-lanerako irizpideak ematea.
- Termino bat baino gehiago dagoenean termino hobetsia proposatzea.
- Landutako terminologia-lanei onesprena ematea.
- Finkatutako terminologia zabaltzeko bideak proposatzea eta terminologia zabaltzea.
- Onetsitako terminologien erabilera gomendatzea.

Euskararen Aholku Batzordearen azken dekretua 2007an argitaratu zen (EHAA, 204. zk., 2007-10-23).

Batzordearen **osaerari** dagokionez, dekretu horrek, 19. artikuluan, hauxe zehazten du:

- a) **Lehendakaria:** Hizkuntza Politikarako sailburuordea
- b) **Lehendakariordea:** IVAPeko zuzendari nagusia
- c) **Idazkaria:** Euskara Aholku Batzordearen Batzorde Osoaren idazkaria
- d) Ondorengo erakundeek eta organismoek proposatuta izendatuko diren kideak:

- Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako ordezkari bat
  - IVAPeko ordezkari bat
  - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Euskara Zerbitzuko ordezkari bat
  - Euskaltzaindiko ordezkari bat
  - UZEIkko ordezkari bat
  - EHUKo Euskara Institutuko ordezkari bat
- e) Gehienez ere **sei kide**, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak euskararen eta terminologiaren arloan ospe aitortua duten pertsonen artean izendatutakoak.
- f) Aztertzekoa den **terminologia-arloaren arabera**, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak beste aditu batzuk ere izenda ditzake, arlo horretako batzorde-atal bereziko kideei **aholku emateko**. **Izendapenak dena delako lan hori amaitu artean iraungo du**.

2003-2005 aldian, hauek izan ziren Terminologia Batzordeko kideak:

**Patxi Goenaga**, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, lehendakaria  
**Jon Urrutia**, IVAPeko zuzendaria, lehendakariordea  
**Miren Mateo**, HPSko Koordinaziorako zuzendaria, EABko idazkaria  
**Araceli Diaz de Lezana**, HPSkoa  
**Eneko Oregi**, IVAPekoa  
**Ibon Olaziregi**, Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzukoa  
**Andrés Urrutia**, Euskaltzaindikoa  
**Miel Loinaz**, UZEIkoa  
**Xabier Alberdi**, EHUKo Euskara Institutuko  
**Antton Gurrutxaga**, aditua  
**Pascual Rekalde**, aditua  
**Joseba Erkizia**, aditua  
**Jose M. Berasategi**, aditua  
**Charles Videgain**, aditua  
**Alberto Atxabal**, aditua  
**Idazkaritza teknikoa: Lurdes Arruti**

2007ko dekretuaren ostean, hauek izan ziren kideak:

**Patxi Bartzarrika**, Hizkuntza Politikarako sailburuordea, lehendakaria  
**Jon Urrutia**, IVAPeko zuzendaria, lehendakariordea  
**Erramun Osa**, HPSko Koordinaziorako zuzendaria, EABko idazkaria  
**Araceli Diaz de Lezana**, HPSkoa  
**Mertxe Olaizola**, IVAPekoa  
**Ibon Olaziregi**, Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzukoa  
**Andoni Sagarna**, Euskaltzaindikoa  
**Iker Etxebeste**, UZEIkoa  
**Xabier Alberdi**, EHuko Euskara Institutukoa  
**Alfontso Mujika**, aditua  
**Asier Larrinaga**, aditua  
**Joseba Erkizia**, aditua  
**Miel Loinaz**, aditua  
**Alberto Atxabal**, aditua

Idazkaritza teknikoa: **Izaskun Osinalde**

Dekretuak agindutakoa kontuan, ikus dezagun orain arte Batzordeak egindako bidea:

- **Lehentasunak finkatzea.** Batzordeak hainbat lehentasunezko eremu finkatu zituen: irakaskuntza (bereziki lanbide-heziketa eta unibertsitatea, horien jarraipena enpresa-mundua dela aintzakotzat hartuta); hizkuntza-paisaia (jatetxeetako menuak, errrotuluak...); esparru sozio-ekonomikoa; herri-administratzioa (Zuzenbidea); eta teknologia berriak.
- **Terminologia-lanerako irizpideak ematea.** Terminologia-lanean era-bakiak modu koherentean eta sistematikoan hartu ahal izateko, Batzordeak hainbat irizpide ezarri zituen. Terminologia-lanean ez dira erabiltzen bakarrik irizpide linguistikoak, bestelakoak ere beharrezkoak baitira. Horrela, Batzordeak irizpide linguistikoak (Hiztegi Batuaren irizpideen oinarrian), irizpide terminologikoak eta irizpide soziolinguistikoak / pragmalinguistikoak onartu eta bildu zituen dokumentu batean. Halaber, terminologia-lanean maileguak eta kalkoak integratzeko irizpideak landu eta onartu zituen. Bi dokumentuak irekiak dira eta, Batzordeak lan egin ahala, osatuz eta eguneratuz joango dira.

Irizpideak ezartzeko orduan Batzordeak hainbat maila desberdin bereizti zituen terminologiaren barruan:

- Terminologia zientifiko-teknikoa: oro har, nazioartekoa (*international words*) eta, beraz, hizkuntza gehienetan berdin erabiltzen denez, euskaraz normalean ez du arazorik sortzen.
- Euskal terminologia tradizionala: tradizioz euskararen unibertsoan terminologiaren ikuspuntutik oso aberatsak diren eremuak (arrantza, nekazaritza, abeltzaintza, burdingintza...) baina gure oraingo gizarte teknologikoan desagertzean daudenak. Hala ere, terminologia hori erreferentzia, inspirazio izan daiteke termino berriak sortzeko orduan.
- Eguneroko bizitzako terminologia edo sasi-terminologia (elikagaiaiak, jantziak, etxeko tresnak, altzariak...), hau da esparru sozio-ekonomikoa. Eremu hau maileguz beteta dugu, izan ere, eguneroko bizitzan maileguak modu masiboan sartzen zaizkigu etengabe eta, hori dela eta, oso garrantzitsua da erabakitzea zelako bidea hartuko duen hizkuntzak, hau da, zelako hizkuntza nahi dugun geroari begira. Horregatik, irizpide argiak eta garbiak behar dira arlo horretan modu sistematikoan aplikatzeko.
- Azkenik, terminologia juridiko-administratiboa dugu. Zuzenbide propiorik izan gabe, terminologia hori berezia da gure testuinguruan, terminologiaren iturri itzulpena baita. Beraz, irizpide bereziak finkatu behar dira eremu horretan espresuki aplikatzeko.

Bestalde, kontuan izanda terminologia-lana eta terminologiaren normalizazioa egiteko orduan beti agertzen direla arazoak, Terminologia Batzordeak «normalizazio-txostena» dokumentua onartu zuen. Dokumentua termino baten gaineko azterketa sakona egiteko, hau da termino horren gaineran erabakiak hartzeko behar den informazioa jasotzeko, balio du.

Hala ere, beti gelditzen dira konpondu gabeko arazoak edo modu puntualean komponentzen direnak. Hori kontuan, Terminologia Batzordeak «Arazo terminologikoen inventarioa» egitea erabaki zuen. Laneko dokumentua da eta sistematizazioa mantentzen laguntzen du. Horrela, arazoak komponentzeaz bat, irizpideen dokumentura pasatzen dira eta, horrela, normalizazio-prozesua bizirik eta dinamiko mantentzen da.

– **Termino bat baino gehiago dagoenean termino hobetsia proposatzea.**

Erabiltzaileei terminoen fidagarritasunari buruzko informazioa eman behar zaie eta, horretarako Batzordeak bost ponderazio-marka ezarri zituen:

- 0 **Baztertu beharreko terminoa** (T. Batzordeak onartzen ez duena)
- 1 **Termino erabilia** (aztertu gabea baina besterik ezean erabiltzen dena)
- 2 **Termino proposatua** (baina oraindik T. Batzordeak normalizatu gabea)
- 3 **Termino onartua** (baina ez lehenetsia, T. Batzordeak beste bat gomendatzen duelako)
- 4 **Termino normalizatua / gomendatua**

Beraz, 1 eta 2 markak, bereziki, lan egiteko orduan erabiltzen dira, 0 erabili behar da, espresuki, termino baten erabilera baztertu behar deunan, eta 3 eta 4 dira Terminologia Banku Publikoan, EUSKAL-TERMen, bereziki, ikusiko ditugunak. Azpimarratu behar da 3 marka daraman terminoa Batzordeak sinonimo moduan onartzen duela, baina gomendatzen duena 4 marka daramana dela.


Esan bezala, erabiltzailearentzat oso praktikoa da terminoen fidagarritasunaren gaineko informazioa aurkitzea eta banku gehienek ematen dute informazio hori. Ikus ditzagun adibide batzuk:

- **IATE, Interactive Terminology for Europe** (urreko EURODI-CAUTOM):

The screenshot shows a computer screen displaying the IATE (Interactive Terminology for Europe) application. The window title is "IATE - IATE : Entry details - RCAGY". The main content area shows a term entry for "jute textile industry". The term is marked as "3 (Reliable)". Below the term, there is a "Reliability" section with the value "3 (Reliable)", a "Term Ref" section with "Fibres and fibre products T.B.29 Ar FAO,1979", and a "Date" section with "24/09/2003". The bottom of the window displays the source as "Source: COM" and the IATE ID as "IATE ID: 1115544". The browser's address bar shows the URL "http://iate.europa.eu/uate/dff/FindTermByIdd.do?Iid=1115544&lang=en". The browser window has a tab labeled "Google" and several other tabs visible at the top.

Markatuta agertzen da: «3 (Reliable)».


- **Grand Dictionnaire Terminologique (GDT)**, Quebec-eko Gobernuaren terminologia-bankua (Office québécois de la Langue française):



Sarreraren azpian argi eta garbi agertzen da gomendioa:


«*recommandé officiellement par la Commission générale de terminologie et de néologie (France)*». Gainera, behean ikus dezakegu noizko era-bakia izan zen: «*Arrêté du 14 septembre 1990*».

- **TERMCATeko (Kataluniako Terminologia Zentroa) Neoloteca.** TERMCATeko Consell Supervisor-ek onartutako terminoak daude biltuta bertan. Consell Supervisor da terminoak onartzen dituen organoa.



Ezkerrean dagoen terminoak asteriskoa (\*) darama. Horrek esan nahi du baztertu beharrekoa dela, baina bide ematen du termino normalizatuaren fitxara joateko. Horrela, eskuineko fitxan, behean, espresuki, esaten da: «Formes desestimades: ...»

– **Landutako terminologia-lanei onesprena ematea.** Behean agertzen den eskeman ikus daiteke nola dagoen antolatuta euskarazko terminologia normalizatzeko prozesua:



1. Hiztegi terminologikoak enkarguz egiten dira. Eusko Jaurlaritzak lehiaketa irekiaren bidez esleitzen ditu lanak. EUSKALTERM mantentzeko eta eguneratzeko kontratuaren barrukoak UZEI Terminologia Zentroak egiten ditu. Hala ere, beste bide batzuetatik etorritako hiztegiak ere onartzen dira Terminologia Batzordearen normalizazio-prozesuan.
2. Landutako eremuaren arabera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak adituz eta hizkuntzalariz osatutako batzorde teknikoak antolatzen ditu (Terminologia Batzordearen eraketa-dekretuaren f) atalean aipatutakoari jarraituz). Gehienez ere, lau lagunek osatzen dituzte batzorde teknikoak eta procedura zehatz eta jakin baten arabera lan egiten dute. Lehenengo bileran materialekin batera lan egiteko procedura ematen zaie, hau da hiztegia aztertzeko egin beharrekoak: lehenengo eta behin

hiztegian dagoen eremu-zuhaitza aztertu, gero, eremu-zuhaitzaren arabera, hiztegiko sarreren pertinentzia aztertu, antzeman faltako liratekeen kontzeptuak eta proposatu, hiztegiko definizioen egokitasuna aztertu eta zuzendu, sinonimiaren tratamendua (ponderazio-markak) aztertu eta horren gainean proposamenak egin eta, azkenik, beste hizkuntzetako baliokideak aztertu eta, beharrezkoa izanez gero, zuzendu.

HPSk 2004-2008 artean 18 batzorde tekniko antolatu zituen.

3. Batzorde teknikoek lana amaitu ostean, beraiek landutako material guztiak (aktak, normalizazio-txostenak...) pasatzen zaizkio Terminologia Batzordeari eta horrek, procedura jakin baten arabera ere, hiztegiak aztertu, proposamenak eta eztabaidak egin eta, azkenean, hiztegiak onartzen ditu.

Terminologia Batzordeak orain arte 21 hiztegi onartu ditu. Eremuaren arabera sailkatuta, hau da Batzordeak finkatutako lehentasunen arabera sailkatuta, hauek dira:

#### **Hezkuntza (lanbide-heziketa, Unibertsitatea):**

- Norbere Irudia, Ile-apaindegiak eta Estetika
- Iturgintza
- Turismoa
- Irudia, Ikus-entzunezkoak eta Soinua
- Soziolinguistika

#### **Hizkuntza-paisaia:**

- Jatetxe, Taberna eta Kafetegiak
- Errrotuluak
- Merkataritza-guneetako Errrotuluak

#### **Esparru sozio-ekonomikoa:**

- Hipermerkatuetako produktuak
- Bulego-materialak
- Oinetakoak
- Altzariak
- Arropa-dendak

- Elektrizitate-dendak
- Lanbideak
- Kirol-materialak

**Herri-administrazioa (Zuzenbidea):**

- Datu-babesa
- Toki-administrazioa

**Teknologia berriak:**

- Bulegotika

**Bestelakoak:**

- Laburzapenak (laburdurak, siglak eta ikurrak)
- Ingurumena (Elhuyarrek Ingurumen Sailaren enkarguz egindako hiztegia)

**Lan berezi bat:**


- Ezintasun, desgaitasun eta gaixotasunen sailkapena, Osasunaren Munduko Erakundearena: Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatuta, Terminologia Batzordeak sailkapena gainbegiratu zuen eta bertako terminologia aztertu, eztabaidatu eta onartu egin zuen Terminologia Batzordeak.

Batzordeak orain arte esparru sozio-ekonomikoari eman dio lehentasuna, ikusita euskaraz hutsune handia dagoela arlo horretan.


Beste hizkuntzen kasuan, hizkuntza arrunteko hiztegietan agertzen da eguneroko bizitzako lexikoa baina euskaraz ez da hori gertatzen eta hori da arrazoia Batzordeak lehentasun hori markatzeko.

Horregatik, ahalegin handia egin du Batzordeak erabiltzaileei tresna horiek eskaini ahal izateko, nahiz eta jakin, hemendik urte batzuetara, lexiko hori hizkuntza arrunteko hiztegietan integratzen denean, seguруenik aldaketak izango direla.

4. Hiztegiak Terminologia Batzordeak onartu eta gero, **EUSKALTERM** Terminologia Banku Publikoan argitaratzen dira [www.euskara.euska-di.net/euskalterm](http://www.euskara.euska-di.net/euskalterm):



Horretaz gain, paperezko formatuan ere argitaratzen dira hiztegiak:



– Finkatutako terminologia zabaltzeko bideak proposatzea eta terminologia zabaltzea. Onetsitako terminologien erabilera gomendatzea. Terminologia Batzordearen helburuekin bat etortzeko beharrezkoa da EUSKALTERMen interfazea eta funtzionalitateak aldatzea eta horretan dabil Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza azken urteotan. Beraz, lanean aurrera egiteko, ponderazio-marketan moldaketa bat egin da eta, horrela, batzorde teknikoek lana amaitu eta gero, hiztegiak Bankuan txertatuko dira 4 ponderazioarekin baina behin-behinean, zeren eta, azken urratssa Terminologia Batzordearen onespena izango baita.

Beraz, Batzordeak onartu ostean, 4 markari ikur bat gehituko zaio onarpen hori eta erabiltzeko gomendioa espresuki adierazteko.

Hortaz, honela gelditzten da 4 ponderazio-marka:



**Onartutako eta gomendatutako terminologiaren zabalkundea**

**Ponderazio-markak (terminoen fidagarritasun-maila):**

- 3** Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)
- 4** Termino behin-behinean normalizatua/gomendatua  
(T. Batzordearen onespenaren zain)
- 4 +**  Termino normalizatua/gomendatua

EUSKALTERMeko fitxen bertsio berrian, informazioa, honela egongo da antolatuta:

The screenshot shows a Microsoft Internet Explorer window displaying the Euskalterm website. The URL in the address bar is [http://217.127.135.155:30081/\\_62/\\_62/java/evs/\\_62EAR/\\_62bankoitemWAR/es3SP/\\_62ficha.jsp?term=codificador%20angular%20analogico&sal=1&hizk=EU&fch=1](http://217.127.135.155:30081/_62/_62/java/evs/_62EAR/_62bankoitemWAR/es3SP/_62ficha.jsp?term=codificador%20angular%20analogico&sal=1&hizk=EU&fch=1). The page title is "Euskalterm Terminología Banku Pribilekoa".

**Bilaketa** (Search) results for "codificador":

- Hizkuntza: Gasteleeria
- Galdera: codificador
- Definizioa: kodenetzaile angeluar analogiko p.4
- Sinonimoak: resolver, codificador angular analogico
- Traducción: Inglés: resolver
- Referencias: Ardatzaren posizioaren araberako seinale harmonikoak 90° desfasatuta sortzen dituen kodenetzailea. Ardatzaren posizioa neurteko erabiltzen da.
- Vídeo: Video 4.3
- Opciones de resistencia del codificador

**Euskara** (Basque) results for "codificador":

- Gaztelania: resolver, codificador angular analogico
- Inglés: resolver

**Definizioa** (Definition):

Ardatzaren posizioaren araberako seinale harmonikoak 90° desfasatuta sortzen dituen kodenetzailea. Ardatzaren posizioa neurteko erabiltzen da.

**Sinonimoak** (Synonyms):

resolver p.3, angelu-bihurgailu p.3

«Zenbakizko Kontrolaren Hiztegia» (2005)

## Terminologia Batzordea: 2010-2013 aldia

Batzordeak 2010-2013 aldian lan hauek egin behar ditu:

- Onartutako terminologiaren zabalkundeak: hiztegi guztiak argitaratu eta gero, erabiltzaile estrategikoei bidali behar zaizkie. Horretaz gain, bestelako ekimenak ere pentsatu beharko da.
- 2008-2009ko Jarduketa-planaren balantzea: jarritako helburuak zenba-teraino bete diren aztertu.
- 2010-2013 Jarduketa-plana, orain arte egindako aurreko bi jarduke-ta-planen jarraipena izango dena. Honez gero, hiztegi asko dago egin-

da normalizazio-prozesuaren zain, horietako batzuk Zuzenbide ar-lokoak:

- Laneko Segurtasunaren Hiztegia
- Herri Ogasunaren Hiztegia
- Negoziazio Kolektiboaren Hiztegia
- Administrazioarekiko Auzien Hiztegia
- Mendekotasun Hiztegia

Aldi berri horretan, Zuzenbide arloari lehentasuna ematea erabaki dezake Batzordeak. Interesgarria litzateke, normalizazioaren praktikatik eterriko bailirateke eremu horrek behar dituen irizpide bereziak, hau da batzorde teknikoek nahiz Terminologia Batzordeak aplikatuko dituztenak.

Bestalde, esan behar da EUSKALTERM eguneratzeko eta mantentzeko indarrean dagoen kontratuaren Zuzenbide arloko hainbat hiztegi egingo direla 2012aren amaiera bitartean:


- Europako Tratatuaren Hiztegia
- Hauteskundearen Hiztegia
- Herri Ogasunaren Hiztegia
- Ezgaitasunen eta Urritasunen Hiztegia
- Euskal Herriko erakunde politikoaren Hiztegia
- Herri Administrazioen Kontratuaren Hiztegia (eguneratu)
- Hezkuntza Legearen Hiztegia
- Funtzio Publikoaren Hiztegia (eguneratu)
- Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Defentsaren Hiztegia
- Lan-arloko Prozeduraren Hiztegia
- Erregistro Zibilaren Hiztegia
- Prozedura Zibilaren Hiztegia
- Prozedura Kriminalaren Hiztegia
- Zigor-arloko eta Espetxe-zaintzaren Hiztegia

Hiztegi batzuk eginda daude baina sakondu beharra ikusi da.

- Terminologia Batzordeak gomendatutako terminologiaren jarraipena eta ebaluazioa: Batzordearen ibilbidea nahikoa luzea denean egin beharko da hau.

Adituek hamar urteko epea uztea gomendatzen dute baina, gure testuinguruau, aztertu beharko da noiz egin eta nola egin.

Hemen aipatutako euskarazko terminologia-lanaren plangintzari nahiz Terminologia Batzordeari buruzko informazioa [www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net) webgunean dago kontsultagai:



Bai eta Terminologia Batzordeak onartutako hiztegiak ere:

**Hemen zaudet: Hasiera**

**Bilaketa aurreratua**

- >> Herria, Hizkuntza
- >> Euskara ikasi
- >> EBNR
- >> Euskalaren Aholkularako Batzordea
- >> Euskara zentroak
- >> Hizkuntz eskuibideak
- >> Lagunatz eta diru-laguntzak
- >> Sentiberetza
- >> Euskaranen corpusa eta teknologia berriak
- >> Lan-mundua
- >> Literatura
- >> Argitalpenak

**Terminologia-lana**

Euskara Biainberako Plan Nagusia (EBPN, 1998), bestea beste, Terminologia-lanaren plangintza egitea agitzten du. Hori betetze aldea, bi ekimen garantitu burutu dira honez gero: batetik, 2001ean, EUSKALTERM, Euskal Terminologia Banku Publikoa sortu zen, (UZEIk 87an egindako bankuan oinarrian), hain zuzen ere, terminologien erabiltsaileetako emeritentzia dena; eta, bestetik, 2002an Terminologia Batzordea eratu zuen Euskararen Aholkularako Batzordearen batan. Terminologia Batzordeak dituen egitekoen artean, jarduketa-plana egitea, terminologia-lanerako inzipideak, finkatzea eta terminoak proposatzea eta gobernatzea daude.

a) **Terminologia-plangintza:**

- Terminologia-lanaren plangintza labur-labur (pdf, 43 Kb)

b) **Terminologia Batzordea:**

2003-2005 aldia

- Eraketa Dokretua (pdf, 35 Kb)
- Kideen izendapena (pdf, 110 Kb)
- 2003-05 Jarduketa-plana (pdf, 61 Kb)
- Batzordeak onartutako lan-materialak:

1. Terminologia-lenerako irizpiderak (pdf, 115 Kb)
2. Maileguak eta kalkoak terminologia-lanean (pdf, 42 Kb)
3. Normalizazio-kostroera eta lantzeko.gida (pdf, 44 Kb)

2006-2009 aldia

- Bermitze-dekretua
- Kideen izendapena
- 2003-2005 aldiaren balantza
- 2006ko jarduketa-plana
- Terminologia Batzordeak onartutako hiztegiak

**Hemen zaudet: Hasiera**

**Bilaketa aurreratua**

- >> Herria, Hizkuntza
- >> Euskara ikasi
- >> EBNR
- >> Euskalaren Aholkularako Batzordea
- >> Euskara zentroak
- >> Ikerketa soziolinguistikoak
- >> Hizkuntz eskuibideak
- >> Zinpeko itzultzaile eta interpretoreen habilitazioak
- >> Lagunatz eta diru-laguntzak
- >> Sentiberetza
- >> Euskaranen corpusa eta teknologia berriak
- >> Lan-mundua
- >> Literatura
- >> Argitalpenak

**Terminologia Batzordeak onartutako hiztegiak**

Eskuragarri jarri ditugun hiztegiok Euskararen Aholkularako Batzordearen (EAB) Terminologia Batzordeareen jarduketa-planarekin eita egindako aditurak osatutako batzorde teknikoak aztertuta, eta bukatzen, Terminologia Batzordeak onartuak.

Beraz, hemen duzue **Terminologia Batzordeak gomendatzen duen terminología:**

- Jatetxe, Taberna eta Kafetegieen Hiztegia
- Hipermerkatustako Produkuenten Hiztegia
- Kiro-l materialearen Hiztegia
- Merkataritza-guneetako Errrotuluen Hiztegia
- Bulego-materialearen Hiztegia
- Arropa-denden Hiztegia
- Oinetakoaren Hiztegia
- Norbere irudia, Ile-apaindegiek eta Estetika Hiztegia
- Elektrizitate-denden Hiztegia
- Altzarien Hiztegia
- Iturgintza Hiztegia
- Turismo Hiztegia
- Errrotuluen Hiztegia
- Iruñerius-mentzunekoak eta Soinua Hiztegia
- Leku Administratiboaren Hiztegia
- Lanbildearen Hiztegia
- Soziolinguistika Hiztegia
- Bulegoetika Hiztegia
- Datu-habesaren Hiztegia
- Laburrtzapenen Hiztegia

## Helbide interesgarriak

[www.euskara.euskadi.net](http://www.euskara.euskadi.net) (Euskararen Corpusa eta Teknologia berriak –Terminologia). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

[www.euskara.euskadi.net/euskalterm](http://www.euskara.euskadi.net/euskalterm) EUSKALTERM Terminologia Banku Publikoa

[www.iate.europa.eu](http://www.iate.europa.eu) Interactive Terminology for Europe (lehen EURODICTAUTOM)

[www.olf.gouv.qc.ca](http://www.olf.gouv.qc.ca) Grand Dictionnaire Terminologique (Gouvernement du Québec)

[www.termcat.cat](http://www.termcat.cat) Kataluniako Terminologia Zentroa (Cercaterm terminologia-bankua)

[www.btb.termiumplus.gc.ca](http://www.btb.termiumplus.gc.ca) Kanadako gobernuaren terminologia-bankua

[www.cilf.org/bt.fr.html](http://www.cilf.org/bt.fr.html) Conseil International de la Langue française

## Bilbiografia

EUSKO JAURLARITZA, 1999, *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

\_\_\_\_\_, 2002, *Terminologia Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

\_\_\_\_\_, 2002, *Terminologia-lanaren metodologiako eskuliburua*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

\_\_\_\_\_, 2009, *Jatetxe, Taberna eta Kafetegien Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

\_\_\_\_\_, 2009, *Turismo Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

\_\_\_\_\_, 2009, *Altzarien Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

- \_\_\_\_\_, 2009, *Arropa-denden Hizategia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- \_\_\_\_\_, 2009, *Elektrizitate-denden Hizategia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- \_\_\_\_\_, 2009, *Errotuluen Hizategia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- \_\_\_\_\_, 2010, *Norbere Irudia, Ile-apaindegia eta Estetika Hizategia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- \_\_\_\_\_, 2010, *Iturgintza Hizategia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- \_\_\_\_\_, 2010, *Irudia, Ikus-entzunezkoak eta Soinua Hizategia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- \_\_\_\_\_, 2010, *Soziolinguistika Hizategia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- \_\_\_\_\_, 2010, *Merkataritza-guneen Hizategia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- \_\_\_\_\_, 2010, *Hipermerkatuetako produktuen Hizategia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- \_\_\_\_\_, 2010, *Bulego-materialen Hizategia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- \_\_\_\_\_, 2010, *Oinetakoen Hizategia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- \_\_\_\_\_, 2010, *Lanbideen Hizategia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- \_\_\_\_\_, 2010, *Kirol-materialen Hizategia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- \_\_\_\_\_, 2010, *Datu-babesaren Hizategia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- \_\_\_\_\_, 2010, *Toki-administrazioaren Hizategia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

\_\_\_\_\_, 2010, *Bulegotika Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

\_\_\_\_\_, 2010, *Laburtxapenen Hiztegia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.



# **Terminologia juridiko-administratiboa, Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzuan: arazo nagusiak**

ERREA, Inma

Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzuko itzultzailea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzuaren ibilbideak eta eguneroko jardunak zuzeneko eragina dute terminología-arazoei heltzeko eran. Aldi berean, udal baten zerbitzura egoteak eta administrazio-jardunean gertatzen ari diren aldaketa eta berrikuntzek ere eragiten diote.

Bestetik, erakundeetako itzulpen-zerbitzuek arazo eta irtenbide asko partekatzen ahal dituzte terminologiaren eta especializazio-hizkeren arloan, eta horregatik artikulugileak horien arteko komunikazioa areagotzea proposatzen du.

**Hitz-gakoak:** udal-terminología, estandarizazioa, bateratze-arazoak, especializazio-hizkerak, komunikazioa, baliabide terminologikoak

La trayectoria del Servicio de Traducción del Ayuntamiento de Pamplona, su dinámica de trabajo, el hecho de estar al servicio de una entidad local y las innovaciones introducidas en la actividad administrativa influyen en el tratamiento de la problemática terminológica.

Por otra parte, dado que en el ámbito de la terminología existen muchos problemas y soluciones comunes a todos los servicios de traducción institucionales, la autora propone incrementar la comunicación entre ellos.

**Palabras clave:** terminología local, standarización, problemas de unificación, hablas especializadas, comunicación, recursos terminológicos.

Le mode de fonctionnement du Service de Traduction de la Mairie de Pampelune, sa dynamique de travail, le fait d'être au service d'une collectivité locale et les innovations apportées à l'activité administrative ont une influence sur le traitement de la problématique de la terminologie.

Par ailleurs, étant donné que dans le domaine de la terminologie de nombreux problèmes et leurs solutions sont communs à tous les services institutionnels de traduction, l'auteur propose que l'on établisse entre eux une meilleure communication.

**Mots-clés :** terminologie locale, standardisation, problèmes d'unification, vocabulaires spécialisés, communication, ressources terminologiques

The track record of Iruñea-Pamplona City Council's Translation Service and its everyday activities have had a direct impact on the way terminology problems have been tackled. At the same time, the fact that it is a municipal service plus the changes and innovations taking place in administrative work have also made their effects felt.

On the other hand, the translation services of the institutions could have many problems and their corresponding solutions in the area of terminology and specialized language in common, and that is why the author of the paper proposes that communication among the institutions be intensified.

**Keywords:** municipal terminology, standardisation, unification problems, specialized language, communications, terminology resources

## Sarrera

Hitzaldi honen helburua da azaltzen saiatzea nola heltzen diogun Iruñeko Udaleko Itzulpren Zerbitzuan terminologiaren arazoari. Hori egiteko, alabaina, aldez aurretik hainbat kontu argitu behar direla uste dut.

Hasteko, agerikoa den gauza bat azaldu nahi dut. Ni itzultailea naiz, eta hemen itzultaile baten ikuspegitik hitz egingo dut, gaia terminologia bada ere.

Terminologia, itzultaileontzat, arazoa da askotan, ezinbestean terminologiaren inguruko gorabehererekintzat topo egiten baitugu, gehienetan nahi gabe. Hiztunek nork bere gisa barneratzen dituzte hizkuntzak, eta aukera egiten dute, hizkuntza bakoitzak eskaintzen dizkieten baliabideen artean. Itzultaileok hiztun gara hein handi batean, eta hiztun arrunten gisa jokatzeko joera dugu: testu bat itzultzean testu hori geure barneko diskurtsoa baliatuta itzultzen dugu, hau da, gure-gureak diren hitzak, esamoldeak eta ezagutzak erabilita.

Baina itzultaileok ez gara, soilik, hiztun arruntak, eta, gure hizkuntza-baliabide pertsonalez gain, beste bitarteko batzuk erabili behar ditugu. Eta BEHAR hori azpimarratu nahi dut, BEHAR hori BETEBEHARRA dela esateko. Hitz egokienak bilatu behar ditugu gure itzulpenean lanak egiteko, eta joskera nahiz adierazpide txukun eta argienak ere, eta hizkuntza ahalik eta modu zuzen, egoki eta adierazkorrenean erabili behar dugu.

Betebehar horiei eusteko, kontuan hartu behar ditugu, sorburu-nahiz xede-hizkuntzen arau, aukera eta baliabideez gain (gramatikak, hiztegiak eta abar), kasuan kasuko gaiari dagozkion hizkuntza-berezitasunak.

Berezitasun horietako bi ditugu terminoak, hau da «erabilera baten barruan era unibokoan kontzeptu bakarra izendatzen duen unitate lingüistikoak» (Terminologia Hiztegia, 2003) eta espezialitate-hizkerak (jakintza-esparru jakin bateko esamolde eta adierazpideak). Horregatik esan dut itzultaileok topo egiten dugula terminologiaren inguruko arazoekin, noiz eta jakintza-esparru zehatz bateko testuak itzuli behar ditugunean.

Izan ere, terminologia «*behar bat*» da itzultzaleontzat, «jakintza espezializatuaren irudikapenean, adierazpenean, komunikazioan eta irakaskuntzan zerikusia duten gainerako profesionalentzat» den bezala (Cabré, 2003).

Haatik, hori, terminologia baliatu behar izatea, ez zaie itzultzale guztiei gertatzen edo, behinik-behin, ez, itzuli behar dituzten testu guztieta. Literatura itzultzale batek, esate baterako, beste arazo batzuk izango ditu, baina terminologiarekin ez du kasik topo egingo. Zientzia- edo jakintza-gaiak itzultzen aritzen denak, berriz, etengabe heldu beharko die arazo terminologikoei. Eta oso itzultzale espezializatua bada, agian adar zientifiko jakin bateko terminologiarekin lan egingo du bakarrik.

Horri guztiari dagokiarik, Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzuan egoera berezia dugu. Hasteko, Zerbitzuko itzultzaleok administrazio-itzultzaleak gara, baina multzo horren barruan udal-itzultzaleen azpimultzoan gaude kokatuta. Eta udal-itzultzaleen artean, gu hiriburu bateko Udalerako egiten dugu lan, hau da, egitura handi eta konplexu samarreko udal baterako. Horrek guztiak ondorioak ditu terminologiaren arloan ere, aurrerago iku-siko dugun bezala.

Ematen du administrazio-itzultzaleon lana testu administratibo eta juridikoak itzultzea baino ez dela. Baina, kasu batuetan behintzat, mota horretako testuak itzultzen baditugu ere, ez ditugu soilik halakoak itzultzen. Udal-itzultzaleon kasuan, esate baterako, testu juridiko eta administratiboez gain, beste testu mota asko ditugu itzulgai, arlo eta helburu askotarikoak. Esan dudanaren froga dira, aurrerago azalduko dudanarekin bat, Iruñeko Udaleko itzultzaleon egoera eta zereginak.

Gu bezalako udal-itzultzaleok esparru ugari jorratu behar dugunez, terminologiari eta espezialitate-hizkerei buruz ditugun beharrak konplexuagoak dira. Etengabe aritzen gara esparru batetik bestera pasatzen, hizkuntza-erregistro batetik beste batera, eta testu-mota batetik beste batera. Eta horietan guztieta, kasuan-kasuko arloko termino eta esamolde berariazkoen euskarazko baliokideak bilatu eta eman behar ditugu.

Batzuetan, denbora luzea eman behar izaten dugu ikertzen termino edo esamolde egokia aurkitu arte, baina gure lan-zama handia denez,

horretarako denbora-falta ere nozitzen dugu. Halakoetan, malda gora egiten zaigu euskarazko termino argi edota adostutako bat ez aurkitzea. Adibide bat jarriko dut, terminologia administratiboa eta juridikoarekin zerikusirik ez badu ere: Iruñeko Udalean musikaren arloko testu asko itzultzen ditugu, eta ez dugu aurkitu oraindik arlo horretan gaztelaniaz baliatzen dituzten termino eta esamolde bereziak modu azkar batean formulatzeko manera.

Arazo bera dugu beste hainbat arlotan, eta horien artean, testu juridiko eta administratiboetan. Arlo horretan asko aurreratu da, eta baditugu esku-ra oso baliabide indartsuak, baina sarri egiten dugu topo desadostasun terminologikoekin, batez ere, arauzko testuei dagokienez, aurrerago azalduko dudan bezala.

Hori egin baino lehen, dena den, Nafarroako hiriburuko Udalean itzulpen-lanek izan duten bilakaeraren berri eman nahi dut, bilakaera ho-trek terminologiari dagozkien arazoetan zuzeneko eragina duelakoan.

## 1. Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzua: historia eta zereginak

### 1.1. Itzulpen zerbitzua, Iruñeko Udalean: bilakaera

1996ko maiatzean, Iruñeko Udalak itzultzale-lanpostu bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia egin zuen. Lanpostua betetzeko probak eta lehiaketa urte bereko irailetik azarora egin eta gero, haien ondorioz, ni (Inma Errea), bilakatu nintzen Iruñeko Udalaren historiako lehen itzultzalea.

Baina horrek ez du esan nahi aurretik ezer ez zela itzultzen Nafarroako hiriburuko Udalean. Izan ere, ordura arte garai hartako Kultur Aferen Alorrean kokaturik zegoen Euskara Zerbitzuaren ardura ziren itzulpen-lanak. Iñaki Azkonak, Euskara koordinatzaileak, zeukan ardura hori. Hark egiten zituen itzulpen-lanen parte bat, eta beste bat, Nafarroako Gobernuko itzultzaleei zein kanpoko profesionalei enkargatzen zien.

Udalbatzaren Osoko Bilkuran euskaraz mintzatzen hasi ziren zinegotzien hitzen aldibereko interpretazioa ere Euskara koordinatzaileak berak egiten zuen.

Horrekin batera, Iruñeko Alkatetzak, Alkatea Alfredo Jaime zen garaian, ofizial administrari euskaldun bat gaitu zuen herritarrek euskaraz aurkeztutako eskabideak gaztelaniaratzeko, udal-organoek haien bideratze aldera, eta osoko bilkuretako zinegotzien euskarazko mintzaldien gaztelaniazko itzulpena egiteko, horiek euskaraz eta gaztelaniaz aktetan jasotze aldera (osoko bilkuren aktetan euskaraz parte hartzen dutenen hitzak euskaraz eta gaztelaniaz jasotzen dira, eta gaztelaniaz egindakoak, hizkuntza horretan soilik).

Ni 1997ko urtarrilean hasi nintzen lanean Iruñeko Udaleko itzultzalea gisa, eta handik gutxira sortu zen Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzua, orduko Zerbitzu Orokoretako Alorraren barruan. Alorren izenetan izandako aldaketen ondorioz, Zerbitzua Lehendakaritza Alorreatean dago koka-turik orain.

Lehen itzultzalea lanean hastearekin batera, itzulpen-lanen beharra ugariatu egin zen Udalean. Horretan eragina izan zuen 1997. urte hartan bertan Euskara Zerbitzuaren gidaritzapean Iruñeko Udalbatzak Euskarari buruzko Ordenantza onetsi izanak. Ordenantza horrek, batetik, bultzada eman zion elebitasunari Iruñeko Udalean, halako eran non gero eta gehiago ziren herritarrei eskaintzen zitzaizkien agiri elebidunak. Bestetik, Ordenantzaren onespenaren ondorioz edo, Udalari idatziz euskaraz zuzentzen zitzaizkion herritarren kopurua ere handitu zen.

Horren guziaren ondorioz, urtebete geroago, 1998an, bigarren itzultzalea kontratatu zuen Udalak. Bigarren lanpostu hori 1999ko plantillan finkatu eta urte berean deialdia egin zen. Deialdi haren ondorioz, Patxi de Vicente bihurtu zen Udaleko bigarren itzultzale finkoa.

2000. urtean, Zerbitzuaren funtzionamendurako beste urrats garrantzitsu bat eman zen: itzulpenari laguntzeko memoria erabiltzen hasi ginen bertan. TRADOS memoria-programa. Harrezkerotik, horrekin ari gara lanean, nahiz eta lan-zamaren ondorioz dugun denbora-falta dela medio ezin izan

dugun garatu horrek eskaintzen dituen abantaila guztiak, eta horien artean, terminologiaren kudeaketarako hain baliagarria den Multiterm tresna. Hori da Zerbitzuaren duen gabezia nagusietako bat.

Bestetik, kontuan hartu behar da Zerbitzua sortu zen unetik beretik itzulpenen eskaerek gora egin dutela etengabe Iruñeko Udalean, testu-motak ere asko dibertsifikatu direlarik. Elebitasunaren erabileran murrizketak izan direnean ere Itzulpen Zerbitzua lanez gainezka egon da, eta dago. Hori dela-eta, bertako itzultzaleon eskaeretako bat beti izan da Zerbitzuan itzultzale gehiago kontratatzea.

Gure eskaera horren ondorioz, 2006. urtean hainbat hilabetetarako bi itzultzale gehiago kontratatzea lortu genuen. Kontratu horiek amaitu os-teen, beste itzultzale bat (bi beharrean bakar bat onartu zigutenean) kontratu zuten aldi baterako, 2007. urtean. Lanpostu hori 2009. urtetik dago finkatuta plantillan, nahiz behin betiko betetzeko deialdia egiteke dagoen oraindik.

Aurrekoaz gain, noiz edo noiz, kanpoko itzultzaleei enkarguak egitera jotzen dugu. Halako kasuetan, Zerbitzuko itzultzaleak arduratzen gara gehienetan enkargua egiteaz eta emaitzen zuzenketaz. Baino salbuespenak ere izan badira: Noiz edo noiz Udaleko organo edo bulego batek itzulpen-ian bat kanpoan enkargatu izan du, guri ezer esan gabe. Horren ondorioz, egoera desegokiak sortzen dira: jatorrizko testu berak bi itzulpen desberdin izatea, adibidez, edo, terminologiari dagokionez, bete-betean terminotzat jotzen diren hitzen itzulpen diferenteak ematea. Itzulpen Zerbitzuan saiatzen gara horiek ez gertatzeko irizpideak finkatzen eta ematen, baina Udalaren egituraren konplexutasunak galarazten du halako gorabeherak erabat desagertzea.

Aurreko horiek guztiekin zuzeneko eragina dute itzultzaleon jardunean terminologiaz bezainbatean, orokorrean, eta terminologia juridiko administratiboari dagokionez, partikularki: hamahiru urtean lan-kopurua izugarri handitu bada ere, eta dibertsifikatu –hala lengoaia eta erregistro motei nola agirien eta euskarrien klaseei dagokienez–, Zerbitzuak hiru lanpostu baino ez izateak terminologiaren inguruko lanak behar bezala gauzatzea galarazten du.

## 1.2. Lan-motak

Lehen esan dut udal-itzultzaleon jardunaren ezaugarria dela mota eta arlo askotako testuak itzultzea. Horren frogatzera, inolako dudarik gabe, gure Zerbitzuko zereginen zerrenda luzea. Zerrenda horren sailkapena egiten saiatuko naiz hemen.

Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzuak idatzizko itzulpen eta zuzenketen arloan nahiz ahozko interpretazioarenean jarduten du. Esan bezala, Zerbitzuak egiten dituen lanak ugariak eta askotarikoak dira, eta gero eta diber- tsifikatuagoak.

Teresa Cabrék dioenez, garai batean, jakintza esku gutxitan zegoen garaian, erraza zen terminologiaren kontrola. Gaur egun, berriz, jakintzaren ekoizpena eta zabalpena ugaldu da eta hura transmititzeko bideak diber- tsifikatu dira, eta terminologiari dagozkion zereginak eta kontrola askoz konplexuagoak bilakatu dira. Cabrék berak dio azkar ari direla jakintza es- pezializatua eta teknologia handitzen eta diber- tsifikatzen, eta terminoak ere, haien erritmoari eutsita eraberriitu behar direla (Cabré, 2003). Ez dakit zer gertatzen ari den gurea bezalako beste erakundeetan, baina niri Cabré- ren hitzek gurean gertatzen ari diren zenbait fenomenoren oihartzuna dakarkidate. Izan ere, gure Zerbitzuari egiten dizkioen enkarguek gero eta lan terminologiko handiagoa egitera behartzen gaituzte.

Eta gainera, terminologia-arazoei aurre egiteko modua ere aldatzen ari da. Ez dakit terminoen arazoei heltzea eskatzen diguten lan-moten eremuak inoiz hermetikoak izan diren, iragazgaitzak. Ez dut uste. Baina egun eremu horiek inoiz baino iragazkorragoak dira, eta irekiagoak. Axun Aierbek Administrazioaren iragarkiei buruz hau esan zuen: «Administrazioko idazki diren iragarkiak batzuetan berdin-berdinak dira testu aldetik aldizkari ofizialean eta prentsan; beste batzuetan berriz, aldizkari ofizialean testu osoa agertzen da eta prentsan, aldiz, iragarki horren berri ematen duen beste iragarki laburrago bat.» (Aierbe, 2003). Guk Iruñeko Udalean halako asko ditugu. Baina egoera are askotarikoagoa bilakatzen ari da. Egokitu zaigu inoiz irratian edo telebistan emateko ziren iragarkiak moldatu behar izatea, testu administratiboak abiapuntu hartuta. Eta orain, gero eta gehiago, In-

terneten jartzeko moldatu behar izaten ditugu testuak maiz. Gain-gainean daukagu Egoitza Elektronikaren, Herritar Karpeteren eta halakoena afera. Eta horietan guztietan hainbat eremutako terminoak nahasten dira, eta horien artean ugariak dira esparru administratibo eta juridikokoak. Kontuan hartu behar dugu esparru horrek eskatzen duen zehaztasuna, baina helburu komunikatiboa ere ez dugu ahaztu behar, eta web guneetako komunikatzeko manerak eta euskarriak ugariak eta diferenteak direla ohar-tuta gaude.

Hizpide ditudan kontuak hobe uler daitezke agian, gure Zerbitzuko ardu-ren sailkapena baliatuta.

#### 1.2.1. *Idatzizko itzulpenak eta zuzenketak*

##### 1.2.1.1. Itzulpen-lanak

Zerbitzuak egiten dituen idatzizko itzulpen-lanen parte handiena, % 90 baino gehiago, testuak gaztelaniatik euskarara pasatzeko dira. Euskaratzen diren testuak askotarikoak dira, udal-jardunaren esparru differentei dagozkie, eta haien euskarriak ere gero eta ezberdinagoak dira. Horri dagokiarik, Interneten argitaratzeko testuak dira gehien ugaldu direnak azken urteotan.

###### 1.2.1.1.A) Gaztelaniatik euskarara

Hona Iruñeko Udaleko Itzulpen Zerbitzuak euskaratu ohi dituen testuen sailkapen orokor bat:

- **Testu juridikoak eta administratiboa.** Deialdietako oinarriak, ediktua eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko bestelako testuak, gutun eta zirkularrak, ebazpen-proposamenak, ordenantzak, hitzarmen eta kontratuak...
- **Dibulgazio-testuak.** Foiletoak, liburuak, katalogoak, web gunerako testuak, unitate didaktikoak (paperean, euskarri informatikoetan edo ta ikus-entzunezko gisa argitaratzekoak)...

- **Publizitatea.** Kanpainak, iragarkiak...
- **Ereduak.** eskabide-ereduak eta oro har herritarrek udal-izapideak egiteko erabili behar dituzten agrien ereduak. Atal honetan azpimarratzekoa da Udala eredu elektronikoak eskaintzen hasi dela, eta jada paperezko ereduen oinarritutako eredu elektroniko horietarako testuak euskaratzen hasi dela Zerbitzua.
- **Organigramak.** Itzulpen Zerbitzuak du Udaleko organoen zein haren menpe dauden erakundeen euskarazko izenak emateko ardura. Halako izenak Udalak etengabe sortzen eta Zerbitzuak euskaratzen baditu ere, lau urtean behin, udal-hauteskundeetatik sortutako korporazio berria lanean hasten denean, Zerbitzuak arreta berezia jarri behar izaten du zeregin honetan, halakoetan udal-organigrama goiti-beheiti aldatzen baita. Izen horietan, maiz, terminoak erabiltzen dira, eta horien finkapenak buruhausteak ematen dizkigu noiz edo noiz.
- **Udalaren programa informatikoetarako testuak.** Udal gero eta informatizatuago dago, eta gero eta sarriago baliatzen ditu berariazko programa informatikoak haren jardunean. Horren adibide dira, esaterako, espedienteak kudeatu eta kontrolatzeko programa, herritarrei jakinarazpenak egiteko edota udal-zergen inguruau ezarritakoak. Horietan guztietan testu estandar batzuk erabiltzen dira. Horiek euskartzea (batzuetan testu solteak dira edota zatikatuak) Itzulpen Zerbitzuari dagokio.

**Terminologiari** dagokionez, Iruñeko udal-itzultzailok esparru gehienean izaten ditugu behar eta arazo terminologikoak (edo espezialitate-hizkeri lotutakoak), baina bereziki handiak dira behar eta arazo horiek testu juridiko edo administratiboak, ereduak, organigramak eta programa informatikoetako testuak itzultzeko orduan. Orain, gainera, konplexuagoa bilakatu da kontu hori, Egoitza Elektronikorako testuen itzulpenarekin. Testu horiek itzultzeko orduan, hainbat konturi erreparatu behar diegu batera: terminologia juridiko-administratiboa (askotan testuak legeetatik eratorriak dira) eta legeen aipuak, Interneten inguruko hizkera espezializatua, testuen komunikagarritasuna eta horrek bere testuinguruarekin duen lotura (testu batek ez du berdin funtzionatzen liburu batean edo sarean) eta kasuan ka-

suko gaiari (zergak, errolda, haur-eskolak, musika-eskola, gazteria, hezkuntza, merkataritza...) dagokion terminologia. Gainera ohikoa da itzulgaiak oso zatikaturik etortzea (hitzak, esaldiak, paragrafoak, denak solte eta age-riko loturarik gabe haien artean).

#### 1.2.1.1.B) Euskaratik gaztelaniara

Honako testu mota hauek gaztelaniaratzenten ditugu Zerbitzuan:

- **Herritarren eskaerak.** Oro har, erregistro ofizialetan herritarrek aurkezten dituzten eskabideak dira. Printzipioz, Euskarari buruzko Udal Ordenantzaren arabera herritarrek eskaerak euskaraz aurkezten dituzten orotan Udalak, gero, euskaraz eman behar du erantzuna.
- **Bestelako agiriak.** Udaleko organoek gaztelaniaratzeko eskatutakoak dira: herritarren iradokizunak eta kexak, gehien bat, web gunearen bidez jasota, eta beste zenbait.
- **Osoko bilkuretako euskarazko mintzaldiak.** Zinegotziak euskaraz aritzen direnean, lehenik eta behin aldi bereko interpretazioa egiten da. Baina gero, aktetan jasotzeko, haien mintzaldiak transkribaturik bidaltzen dizkigute, eta Zerbitzuan horiek zuzendu eta gaztelaniaratu egin behar ditugu.

**Terminologiak** ez digu hainbeste buruko min sortzen euskaratik gaztelaniara itzuli behar ditugun testuetan, batez ere, terminologiaren inguruan sortzen diren arazoek hizkuntzen normalizazio-mailarekin zerikusia dute-lako, eta argi dago gaztelaniak ez dituela euskarak pairatzen dituen normalizazio-arazoak. Eremu honetan, hala ere, nolabaiteko bilaketa terminologikoa egin behar dugu maiz: termino izaki euskarazko testuen sortzaileek (gure kasuan, herritarrek eta zinegotziek) terminotzat jotzen ez dituzten esapide eta hitz ugariren gaztelaniazko baliokideak bilatu behar ditugu, testuen komunikagarritasuna eta zehaztasuna errazte aldera. Legeen aipuekin ere gertatzen da: herritarrek eta zinegotzi euskaldunek sortzen dituzten testuetan lege-aipuak egiten dituzte euskaraz, baina haien beraiek sortutako bertsioetan ematen dituzte horiek, dela kasuan kasuko arauaren euskarazko

itzulpren ofizialik ez dagoelako dela, itzulpren hori existitzen denean, testuaren sortzaileek ez dutelako itzulpena ezagutzen. Halakoetan, guk, beti, gaztelaniazko jatorrizko testua baliatzen dugu.

#### 1.2.1.2. Zuzenketa

Zerbitzuak idatzizko itzulpenak egiteaz gain, Udalean bertan euskaraz ekoiztutako testuak zein Udalerako Zerbitzuak berak edota kanpoko itzultzaleek egindako testuak zuzentzen ditu.

– **Itzulpen Zerbitzuan bertan itzulitako testuak.** Zerbitzuan itzultzalei batek itzultzen dituen testuak beste batek zuzentzen dizkio. Zuzenketa oso parte garrantzitsua da testu bat itzultzeko prozesuan, eta are importanteago bilakatu da, itzultzaleok itzulpen-memoriak erabiltzen hasi garenez gerotzik.

Baina, itzulpen memorien erabilera etorritako okerrez gain, itzulpen-prozesuan oso erraza da, oro har, hutsak edo desegokitasunak sortzea, itzultzaleok etengabe aritu behar izaten dugulako distantziaz aldatzen sorburu- eta xede-testuen artean. Zuzentzaileek, ordea, distantzia egonkorrago batetik aztertzen ahal dute xede-testua. Horrek berdin balio du gramatikan, joskeran, ortografian, puntuazioan eta hiztegian, eta jakina, erabilitako terminoen egokitasuna ebaluatzean ere.

– **Zerbitzutik at itzulitako testuak.** Halako testuei Zerbitzuan itzulitakoekin baliatzen dugun zuzenketa-tratamendu bera ematen diegu.

Terminologiaren arloari arreta handiagoz begiratzen diogu kanpoan itzulitako testuetan, Udalean finkatutako termino eta izen berezien koherentzia gordetze aldera.

– **Osoko Bilkuretako euskarazko parte-hartzeak.** Esan bezala, zinegotziek euskaraz egindako hitzaldien zuzenketa egiten dugu, aktetan sartu aurretik. Gaztelaniazko mintzaldiak Akta Departamentuko transkripzioak egiten dituzten langileek zuzentzen dituzte.

- **Udal-langileek ekoitztutako testuak.** Iruñeko Udalean ez dago ezarrita inongo egiturarik, herritar euskaldunei zerbitzuak euskaraz eskaintzeko, eta horregatik euskaraz eskaintzen diren zerbitzu eta agirien pisu handiena Euskara Zerbitzuak eta Itzulpene Zerbitzuak daramate. Hala ere, badira langile euskaldunak eta horiek, batzuetan, testuak egiten dituzte, eta Itzulpene Zerbitzuari pasatzen dizkiote gainbegiratu eta zuzentzeko.
- **Inprenta- eta maketazio-probak.** Udal-argitalpenen kasuan (foiletoak, liburuxkak, publizitate-kanpainak...), oso garrantzitsua da testuak maketatuak izan ostean zuzentzea. Hori are garrantzitsuago bihurtzen da kontuan hartzen badugu gehienetan hala esku-orrien nola kanpainenako materialen diseinua elebitasuna kontuan hartu gabe egiten dela: Itzulpene Zerbitzuari jada gaztelaniaz diseinatutako materialen itzulpena eskatzen diote, gaztelania bakarrik kontuan hartuta pensatutako esloganena barne.

Udalak euskaraz ekoizten dituen **testuen zuzentasunari** dagokionez, aitortu behar dugu Itzulpene Zerbitzuak ez duela erabateko kontrola Udalaren euskarazko testu guztien gainean. Batzuetan hortik zehar ikusten diren akats bat edo beste Zerbitzutik pasatako testuetakoak izan badaitezke ere, gehienak ez dira. Adibide gisara: gertatu izan da gaztelaniazko testu bakar batetik Udalak euskarazko bi bertsio ateratzea.

### 1.2.2. Ahozko itzulpenak (Interpretazioa)

Esan bezala, Itzulpene Zerbitzuko itzultzaleok egiten dugu zinegotzien euskarazko hitzaldien aldibereko interpretazioa, Udalbatzaren osoko bilkuretan. Zeregin horretan ere, garrantzia du terminologiak, eta horren inguruau bi arazo mota sortzen ahal dira:

1. Interpretariek terminologia egokia ez erabiltzea gaztelaniaz (bat-batean aritzeak berekin dakar arrisku hori).
2. Hautetsi euskaldunek termino egokiak ez erabiltzea. Hori ahal den neurrian ekiditeko, Itzulpene Zerbitzuak bertan egin eta bildutako materialak paratzen ditu zinegotzi euskaldunen eskura.

### 1.2.3. Bestelako lanak: aholkularitza eta barneko agirien lanketa (glosarioak, protokoloak...)

**Aholkularitza.** Zerbitzuaren zereginetako bat euskaraz lan egin behar duten langileei hizkuntzaren inguruan aholkuak ematea da. Arlo hau ez da behar bezala garatu, esan dudan bezala Udalak ez duelako ezarri inongo zirkuitu elebidunik, herritarrei zerbitzua euskaraz eskaintzeko. Hala ere, aholkuak eskaintzen zaizkie halakorik eskatzen duten langileei orori.

**Barneko agirien lanketa.** Zerbitzuan irizpideak finkatze aldera, hainbat lan egiten ari gara, glosarioak eta protokoloak osatzeko. Nahiz berebiziko garrantzia eman esparru honi, hori lantzeko denbora gutxi izaten dugu Zerbitzuko itzultzaleok. Egun arlo honetan egiteko ditugun lan nagusiak bi dira:

1. Zerbitzuan ditugun glosarioen azterketa eta eguneraketa, Tradosen barruan **Multiterm** datu-basea modu egoki eta eraginkorrean osatu eta erabiltze aldera. Zeregin hau funtsezkoa jotzen dugu, uste dugulako Multiterm tresnak asko lagundi ahalko digula, terminologiaren arloan ditugun arazoei irtenbideak emateko. Esate baterako, Udalean sarri erabili ohi ditugun terminoen erabilera koherentea lortzeko tresna baliagarria jotzen dugu Multiterm.
2. Hainbat protokolo osatzea, Zerbitzuaren funtzionamendua hobetzeko: Interpretazioari buruzko protokoloa, osoko bilkuretan parte hartzen duten guztiei zuzenduta; Zerbitzuari lanak eskatzeko era zehazten duena, itzulpen-lanak eskatzen dituzten udal-langileei zuzenduta; eta euskararen arau ortotipografikoei buruzkoa, Udalera gaztelaniaz lan egiten duten diseinatzaileei eta maketazio-egileei zuzenduta.

## 2. Terminologia juridiko-administratiboa: arazo nagusiak

Terminologia juridiko administratiboaz bezainbatean, Zerbitzuan izaten ditugun arazoetan bi mota bereiz daitezke: Zerbitzuaren egiturak eta lan egiteko manerak eragindakoak eta terminologiari berari dagozkionak.

## 2.1. Egitura arazoak

Zerbitzuaren egituraren ezaugarriek eragindakoak ditugu hauek, eta, nolabait esateko, funtzionamendu-arazotzat jo ditzakegu. Halakoek terminologiaren esparruan ere dute isla.

Hauek ditugu Zerbitzuaren egituraren ezaugarri nagusiak eta horiek eragiten dituzten arazoak:

- Zerbitzukoa **lantalde txikia** da, hiru itzultzalek osatzen baitugu Zerbitzua.
- Zerbitzuak **lan-eskari handia** jasotzen du, modu irregularrean eta, maiz, aldi berean (itzulpen-eskaera asko jasotzen dira batera). Premiazko eskaerak jasotzen dira, eta azkar eta aldi berean lan bat baino gehiago egin behar izaten dugu itzultzaleok.
- **Lan-eskaerak bideratzeko egitura** erradiala da, eta iragazkirik gabea. Hau da, Udaleko edozein organotako langileek eskatzen ahal dituzte itzulpenak, eta Itzulpen Zerbitzuko itzultzaleok aztertu behar ditugu eskaerak lehentasunak ezartze aldera. Ez dago inor Zerbitzuaren gainetik lehentasun horiek finkatzeko orduan. Lehentasunak ezartzeko irizpideak, oro har, premia eta epeak izaten dira.

Horiek guztiak bi ondorio nagusi dituzte:

- **Denbora-falta.** Horrek glosarioak eta **Multiterm** behar bezala osatzea galarazten digu. Multiterm-en ordez, **Tradoseko** konkordantzien balibidea erabiltzen dugu.
- **Espezializorik eza.** Horrek arazoak sortzen ditu terminologia behar bezala jorratzeko orduan.

Hala ere, lan egiteko modu honek baditu abantailak. Horien artean azpimarratzekoak dira Itzulpen Zerbitzuaren barneko komunikazio erraza eta lan egiteko malgutasun handia.

## 2.2. Terminologiaren inguruko berariazko arazoak

Terminologiaren inguruko arazoak oro har gaztelaniatik euskarara egiten diren itzulpenetan gertatzen dira. Bi motako arazoak bereiz daitezke:

### 2.2.1. Sorburu-hizkuntzatik (gaztelaniatik) datozen arazoak

- **Gaztelaniazko testuak ilunak dira maiz, edo konplexuak, eta askotan hitzei zehaztasuna falta** zaie. Hori guztia medio, batzuetan ez da erraza jakitea hitz bat benetan termino den ala ez, eta horrek kon-tsultetan luzatzen behartzen gaitu.
- **Testu-motak.** Esate baterako, testuek maila handiagoko legeen eta arauen aipuak dakartzatenean, lege horiek aipaturik edo aipatu gabe. Edonola ere, ikertu behar da, lege horiek zein diren eta euskaraturik dauden jakiteko. Aurrerago ikusiko dugu modu zehatzagoan legeen inguruan sortzen diren gorabeherak.
- **Okerrak, testuetan.** Okerrak daudenean, testu-egileei egin behar zaie kontsulta, baina batzuetan ez da erraza egileekin harremanetan jartzea edota horiek ez dakite afera argitzen.

### 2.2.2. Xede-hizkuntza (euskara) iturburu duten arazoak

#### 2.2.2.1. Estandarizazio-maila

Euskarari dagozkion arazo terminologiko gehienak estandarizazioa erabatekoak ez izatetik dator.

Estandarizazioa zer den zehazteko, Aitor Gorostizak emandako definizioari heltzen ahal diogu: «*Oro har onartua edo hedatua dagoena*» (Gorostiza, 2009). Zentzu honetan hartuta, estandarizazioak berekin dakartzara auak, ereduak eta automatismoak.

Euskararen kasuan, **estandarizazioa** ez da erabatekoak hizkera juridiko-administratiboan, beste arlo askotan ez den bezala. Eta horrek arazoak sortzen dizkigu etengabe, eguneroko zereginetan.

Teresa Cabrék, terminologiak hizkuntz normalizazioan dituen zeregina eta tokia aztertzerakoan, hizkuntza baten normalizazioa prozesu sozio-kultural dinamiko eta progresiboa jotzen du (Cabré, 2003). Prozesu horrek erabilera gutxitua duen hizkuntza erabilera osokoa bihurtu behar du. Ca-

brék argi uzten du gutxitze-egoeran dauden hizkuntzak normalizatzeko prozesuak ez direla inoiz naturalak, eta hizkuntza batek aurka duen egoera gainditzeko esku hartu behar dela, neurri batzuk hartuta.

Terminologia hizkuntza baten ezinbesteko osagaia denez (Cabré, 2003), Terminologiaren esparruan ere derrigorrezkoa da esku hartzea, hizkuntzaren normalizazio plangintzaren baitan. Eta euskarari dagokionez, egin egiten ari da.

Araututa ere egon badago nori dagokion euskarazko terminologiaren estandarizazioa: Euskal Autonomi Elkarteko «Itzultziale Zerbitzu Ofiziala arautzen duen 29ko 38/2000 Dekretuan bigarren artikuluan ezarritakoari jarraiki, «Itzulpen Zerbitzu Ofizialari dagokio euskarazko administrazio-hizkeraren nahiz lege- eta administrazio-terminologiaren batasuna, normalizazioa eta garapena bultzatzea» (Díaz de Lezana, 2004).

Praktikan, Alfontso Mujikak dioen bezala, «Gaur egungo errealtitatea poloanitzuna da, eta hori, berez, ez da txarra, baldin eta komunikazio-kanalak sortzen badira eta sakabanatze terminologikoa ekartzen ez badu berekin» (Mujika, 2008). Mujikak ondokoak jotzen ditu terminologiaren sortzaile eta zabaltzaile nagusiak: Euskaltzaindia; Terminologia Batzordea; EHU; HAEE-IVAP; Hezkuntza Saila; Deustuko Unibertsitatea; EHAAE, UZEI; Elhuyar; Diputazioak; EITB, Berria eta enparauak; UEU; eta zenbait enpresa (IHOBE, Euskalteek, kutxak...).

Horiei esker, urrats handiak eman dira, eta ematen ari dira, estandarizazioari dagokionez. Eta estandarizazioaren bidean garrantzi handia dute, nire iritziz, horiek guziek **Interneten denon eskura** paratutako baliabideak.

Hala ere, hainbat arazok bere horretan diraute. Miel Loinazek aipatu zituen bere momentuan Zuzenbidearen eremuari dagokionez euskarazko terminologiak izandako zailtasun bereziak, eta horien artean terminologia finkatzerakoan zeuden joera desberdinak, zeinek bateratze-bidea neketsua egiten baitzuen (Loinaz, 2007).

Nire iritziz, esparru administratibo eta juridikoari dagokionez, arazo-iturri dira gutxitan kontuan hartzen diren bi kontu:

1. Administrazio- eta lege-estandarizazioaren eta -terminologiaren inguruaren aritzen garenean, euskararen eta gaztelaniaren arteko balio-kidetasuna hartzen dugu kontuan. Izan ere, izatezko errealitate bat daukagu abiapuntua: euskararen garapena, arlo horietan, Hegoaldeko erkidego politiko eta administratiboetan gauzatu da, Euskal Autonomi Erkidegoan eta Nafarroan, alegia, eta horietan Espainiako zuzenbide- eta administratzio-konzeptu eta -arauak ditugu langai hala terminologoek eta itzultzaleok nola esparru horietako gainerako profesional euskaldunek. Horren ondorioz, Espainiako zuzenbide-sistema bilakatu da esparru horietako terminologia eta hizkera berezituaren oinarri nagusia.

Afera ez da izendapen- edo itzulpen-kontu hutsa. Ez da soilik *lege, ley* izatea gaztelaniaz eta *loi* frantsesez. Itzulpen eta baliokidetza hutsatik harago konzeptuen eremua dago, non euskarazko terminologia juridiko-administratiboak zuzenbide-sistema espainiarrean oinarritu behar izan baitu ezinbestean.

Aurrekoak baditu ondorioak, sistema horren baitako testuak euskaratu behar ditugunok nolabaiteko morrontza baitugu, gaztelaniari dagokionez, hainbat konzeptu euskaraz ematerakoan.

2. Bigarren arazoak Hegoaldeko banaketa politiko eta administratiboarekin dauka zerikusia. Hegoaldean ere differentziak baitira euskarazko terminologia administratibo eta juridikoari dagokionez, EAEn eta Nafarroaren artean. Hizkuntzaren normalizazio prosesua gehiago garatu da Euskal Autonomi Erkidegoan, eta gainera hizkuntza bera, euskara, hedatuago dago bertan. Ez naiz sartuko horren zioetan (baina ezin ukatu politikak eragin handia duela kontuan...). Haatik, errealitatea bere horretan ikustea onuragarria delakoan nago. Eta errealitateak erakusten digu euskarazko terminologia juridiko-administratiboa EAEn landu dela gehien bat, modu formal eta agerikoagoan behinik behin.

Alfontso Mujikak (Mujika, 2008) aipatzen dituen «polo» horiek guztik, adibidez, EAekoak dira (ez ditu aipatzen, esate baterako, Nafarroako Gobernua edo Nafarroako Aldizkari Ofiziala). Mujikaren diag-

nostikoa ez da okerra. Izan ere, nire ustez, Nafarroan politikak mugatu egin du, baldintzatu, terminologia juridiko eta administratiiboaren inguruko lan teknikoa.

Horrek ez du esan nahi, alabaina, terminologia finkatu ez denik Foru Erkidegoan. Finkatu, finkatu dira hainbat termino eta esapide, baina modu praktikoan, NAOn, adibidez. Eta termino, esamolde eta izendapen juridiko administratibo «nafarrak» bat datoaz maiz EAEn finkatutakoekin, BAINA EZ BETI. Eta hori arazo bat da gu bezalako itzultzailaontzat.

Guk, Nafarroako udal bateko itzultzailoek, gauzak zuzen egin nahi ditugu, eta saio horretan huts egiten dugu batzuetan, bi jaun edo andreren morrontza sentitzen baitugu, pisutsu, gure buruen gainean: gaztelaniazko termino edo esapide bera bi modu differentetan (batzuetan hiru edo lau ere badira, baina tira...) ematen badira EAEn (ezin ahaztu Erkidego horrek gobernatzen duela euskarazko terminologiaren lema) eta NAOn (kontuan hartu behar dugu hor argitaratzen direla guk itzulitako agiri asko), nori egin behar diogu kasu?

Arazoak asko dira, eta adibideak ugari, baina hemen gutxi batzuk aztertuko ditugu:

a) **Ejecución gaztelaniazko hitzaren inguruko gorabeherak.** Gaztelaniazko hitz hori esapide ugari eta ezberdinietan agertzen da: *orden de ejecución, ejecución subsidiaria, ejecución sustitutoria, unidad de ejecución, periodo ejecutivo...* Batzuetan, lege- eta administrazio-hizkerakoa da bete-betean (*orden de ejecución, ejecución subsidiaria, ejecución sustitutoria*), baina beste batzuetan hirigintzaren arlokoa ere bada (*ejecución de una obra*) edo zergetakoa (*periodo ejecutivo*).

- **Orden de ejecución:** Euskaraz, modu differenteetan eman dugu: *exekuzio agindu\* / betearazpen-agindu / betetzeko agindu...* Udalean (nola edo hala azken urteotan argitara emandako glosario, hiztegi berezitu eta berbategiei jarraituz), azken bi horiek erabilten ditugu orain, baina zalantza handiak izan ditugu (*betearaz-*

*teko agindu* ala *betetzeko agindu* izan behar du?), eta ditugu, esa-pide horren inguruan, besteak beste, «*exekuzioz*» mukuru daudelako euskarazko agiri administratibo eta juridiko asko.

- **Ejecución sustitutoria:** *ordezko exekuzio\** / *ordezko betearazpen*. Udalean azken hori erabiltzen dugu. Baino beste arazo bat dugu: ez dakigu zehazki **ejecución sustitutoria** eta **ejecución subsidiaria** gauza bera diren. Horregatik, **ejecución subsidiaria** izendatzeko, **betearazpen subsidiario** aukeratu dugu (lehen aipatu ditudan glosario, hiztegi eta berbategiekin bat), nahiz iraganean hori izendatzeko **ordezko betearazpen** ere era-bili izan dugun.
  - **Unidad de ejecución:** Hori **exekuzio unitate** erabiltzen dute Nafarroako Gobernuko itzultzaleek gehien, baina Euskartermek **egikaritze-unitate** proposatzen du. Guk, Nafarroako Aldizkari Ofizialeko ereduarekin bat egitearren, **exekuzio-unitate** dugu.
  - **Periodo ejecutivo:** Nafarroako Gobernuan **premiamendu aldia** erabiltzen dute, eta Udalean ere hori hautatu dugu. Hala ere, **ordainarazpen aldi / betearazteko epe / epe betearazle\*** eta halakoak ere ibili dira gurean.
- b) **Expreso / expresa:** Euskaraz, *berariaz / espresu / esanbidez* erabiltzen dira gehien bat. Zalantzak izaten ditugu kasuan-kasuan aukera horien artean zein den egokiena zehazteko.
- c) **Remanente:** Hitz honekin aukera asko daude euskaraz, eta Euskal-term datu-baseak zein hiztegiek proposamen ezberdinak egiten dituzte:
- *Euskalterm*: GELDIKIN
  - *3000 Hiztegia*: GELDIKIN / GERAKIN
  - *Elhuyar*: GAINERATIKO / SOBERAKIN
- Guk *geldikin* hautatu dugu, baina ez dakigu zergatik gelditu (edo geratu) garen aukera horrekin.

- d) ***Udal / Udaleko / Udalaren***: Aurreko egun batez, Itzul zerrendan antzeko eztabaidea sortu zen Arte Eder/Ederretako/Ederren Mu-seoa delakoaren inguruan. Zalantza-dantzan ibiltzen gara termino horiekin, batez ere, udal-izenak finkatu behar ditugunean.

Halakoeng inguruan sortzen diren gorabeherek kontraesanetara bultzatzen gaituzte, estandarizazioaren seinale diren automatismoak (Gorostiza, 2009) finkatzea galarazten digute eta etengabe kontsultak egitera behartzen gaituzte.

#### 2.2.2.2. Legeen afera

Etengabe itzuli behar izaten ditugu legeen izenak edo testuak aipatzen dituzten testuak. Halako kasuetan, ezinbestekoa da jakitea lege horiek edo haien izenak euskaraz dauden ala ez.

Euskaraturik dauden legeen kasuan, euskarazko bertsioak erabiltzen ditugu horiek gure testuetan aipatzean.

Gerta daiteke legea euskaraturik ez egotea, baina izenburua bai. Orduan izenburu hori erabiltzen dugu. Baina hemen arazo bat sortzen da: batzuetan itzulpen bat baino gehiago dabil hortik zehar. Kasu horretan gure arazo nagusia zein aukeratu izan ohi da.

Ez legeen testuak ez haien izenburuak euskaraz ez daudenean, guk geuk egiten ditugu haien aipuen itzulpena.

#### 2.2.2.4. Baliabideak

Terminologia-arazoei irtenbidea bilatzeko hainbat baliabide erabiltzen ditugu, eta horien artean hauek:

- **HIZTEGIAK**: Oro har **Euskal Bar** delakoan daudenak: Hiztegi orokorrak (**Elhuyar**, 3000....) terminologia-baseak (**Euskalterm**); hiztegi espezializatu eta glosarioak (**EUROVOC**), Orotariko Euskal Hiztegia (ele bakarreko hiztegi gisara), **Zehazki**, **Zientzia** eta **Teknika Hiztegia**...

- Euskaltzaindia (Arauak, Jagonet...)
- GAZTELANIAZko hiztegiak
- BESTE HIZKUNTZETAKO baliabideak eta hiztegiak
- ALDIZKARI OFIZIALAK: Nafarroakoa (NAO), Euskal Erkidegokoa (EHAO) eta Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabakoak (BAO, GAO eta AAO).
- IVAP-HAEEl eta IZOIk sarean eskaintzen dituzten baliabideak: Legeen euskarazko itzulpenak, hiztegiak, arau, gomendioak eta abar.
- Euskal Herriko zein Deustuko unibertsitateetako hizkuntza-zerbitzuak (legeak, hiztegiak eta abar)
- ITZUL zerrenda
- ERAKUNDEEN web guneak: gobernu, parlamentu eta udaletaikoak, EMAKUNDE, INGURUMENA edota JUSTIZIA.net guneen tankerakoak, bai eta espezializatuagoak ere (esaterako, EUSTAT, estatistika-terminoen kasuan).
- LEGEZALE web gunea
- Google, eta, oro har, Interneteko bilatzaileak
- Liburuak: Lege-testuak, testu-liburuak, liburu espezializatuak...
- KONTSULTAK NAOko itzultzaleekin
- Irakaskuntzarekin edota dibulgazioarekin zerikusia duten web guneak: ZIENTZIA.net, MUSIKENE, hiru.com...

### 2.3. Iruñeko Udalean erabilitako terminoak, mailaka

Iruñeko Udalean baliatzen ditugun terminoak zehazterakoan bi maila bereiz ditzakegu:

1. **Udalari dagozkion terminoak.** Gehien bat, udal-organoen izenetan finkatu beharrekoak (nahiz kasu askotan berez ez diren termino juridiko edota administratiboak).
2. **Udalaz besteko terminoak.** Beste erakundeekin partekatzen ditugunak dira:
  - a) Nafarroako erakundeek erabilitakoak: udalek (Iruñeko Udal barne), mankomunitateek, Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Parlamentuak adostu eta finkatzekoak...
  - b) EAEko erakundeekin batera finkatzekoak direnak.

### 3. Ondorioak: Egiteko direnak

Ondorio gisara, ezinbestekoa da zehaztea zer gelditzen zaigun egiteko. Eta zeregin horietan hiru dira nagusi, gure ustez:

- I. **ESTANDARIZAZIO-prozesuarekin segitu** behar dugu, eta **terminologia finkatzeko bidean AURRERA egin**. Arlo honetan asko aurreratu badugu ere, oraindik lan asko gelditzen dela egiteko iruditzen zait.
- II. Euskarazko terminologia juridikoa eta administratiboa lantzen eta erabiltzen dugun guztien arteko **KOMUNIKAZIOA areagotu behar dugu**. Muga administratibo eta politikoen gainetik, erkidego eta lurralte diferentesko erakundeetan lanean ari garen profesionalok gure arteko komunikazio errazagoa ahalbidetu beharko dugu, terminologiaren eta estandarizazioaren bidetik aurrera joko badugu.
- III. Hori guztia mamitu eta egituratzeko, **GUNE KOMUN bat (edo batzuk) sortzea** oso mesedegarria izanen litzateke. Puntu honetan aipatzeko modukoa da Nafarroako udaletako euskara teknikariek bizi duten egoera: sarri itzulpen-lanak egin behar izaten dituzte, nahiz itzultzaile ez diren, eta terminologiaren eta estandarizazioaren inguruko arazoak sortzen zaizkie. Haiendako, eta guretako ere bai, jakina, oso interesgarria izanen litzateke gune komun bat eskura edukitzea.

## Bibliografia

AIERBE MENDIZBAL, A., 2003, «Administrazioaren iragarkiak: publizitate arloko hizkera?» in *Espezialitate-Hizkerak eta Terminologia: Jardunaldia*. Xabier Alberdi Larizgoitia eta Iñaki Ugarteburu Gastañares (Argita.), Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Leioa, 2003

CABRÉ, T., 2003, «Terminología y normalización lingüística» in *Espezialitate-Hizkerak eta Terminologia: Jardunaldia*. Xabier Alberdi Larizgoitia eta Iñaki Ugarteburu Gastañares (Argita.), Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Leioa, 2003

DÍAZ DE LEZANA, A., 2004, «Terminologia-lana euskaraz: urrats berriak» in Ele-ria. 12, 2004, 99-109 or.

EUSKO JAURLARITZA. HIZKUNTA POLITIKA SAILBURUORDETZA, 2009, «Erabilera planak herri-administrazioetan. Euskara teknikariantzako lan jardunaldiak» [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net)

EUSKO JAURLARITZA. KULTURA SAILA; UZEI, 2002, «Terminologia Hiztegia». Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 2002.

GOROSTIZA, A., 2009, «Administrazioko idazkiak berritu eta estandarizatzeko teknikak» in *Erabilera planak herri-administrazioetan*. Euskara teknikariantzako lan jardunaldiak. Bilbo, 2009/01/27-28

LOINAZ, M. (UZEI), 2007, «Terminologia-Bankuaren eguneratzea espezialitateko testu normalizatuen corpusa baliatuz» in *Espezialitate Hizkerak eta Terminologia II: Euskara estandarra eta espezialitate hizkerak*. Iñaki Ugarteburu Gastañares eta Pello Salaburu Etxeberria, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Leioa, 2007

MUJICA, A. (Elhuyar), 2008, «Aholkularitza-lanaren ustiaketa didaktikoa» (ma-hai-ingurua) in *ESPEZIALITATEKO HIZKERAK ETA TERMINOLOGIA III: ESPEZIALITATE HIZKEREN DIDAKTIKA ETA KOMUNIKAZIOA*. Pello Salaburu Etxeberria eta Iñaki Ugarteburu Gastañares (Argita.), Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Leioa, 2008

# Agiriak



**Euskaltzaindia.  
Batzar Agiriak**



# Donostian, 2010eko urtarrileko 29an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua  
Arkotxa, Aurelia, euskaltzainburuordea  
Kintana, Xabier, idazkaria (azken aldean)  
Lizundia, Jose Luis, diruzaina  
Sagarna, Andoni, Iker sailburua  
Iñigo, Andres, Jagon sailburua  
Aleman, Sagrario  
Arejita, Adolfo  
Azkarate, Miren  
Davant, Jean-Louis  
Goenaga, Patxi  
Haritschelhar, Jean  
Irazu, Jose «Bernardo Atxaga»  
Lakarra, Joseba  
Larre, Emile  
Oñederra, Miren Lourdes  
Peillen, Txomin  
Salaberri, Patxi  
Salaburu, Pello  
Sarasola, Ibon  
Toledo, Ana  
Torrealdai, Joan Mari  
Uribarren, Patxi  
Videgain, Xarles  
Zabaleta, Patxi eta  
Zalbide, Mikel euskaltzainak.

Hauek ere parte hartu dute zegozkien gaietan: Pello Telleria idazkariordea, Alfontso Mujika eta Gabriel Fraile.

- Ezin etorriak eta ahalak: Joan Mari Torrealdaik, ahala Andoni Sagarnari, bilkuraren egon ez den bitarterako; Andres Iñigok, ahala Sagrario Alemani, bilkuraren egon ez den bitarterako; Xabier Kintanak, ahala Andres Urrutiari.
- Ezin etorriak: J. A Arana Martija, P. Charriton eta B. Oiharzabal.

2010eko urtarrilaren 29an, Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitzan, bildu da Euskaltzaindia bere hilabeteko batzarra egiteko. Goizeko hamarretan hasi da bilera. Ondoko zerrendan batzarrean parte hartu duten izenak agertzen dira.

Euskaltzainburuak bilkurari hasiera ematen dio. Lehenik, A. Urrutiak doluminak ematen dizkio A. M. Toledo euskaltzain andereari, honek bere aita 2009-12-29an galdu duelako.

Bestalde, X. Kintana idazkariak ezin etorria jakinarazirik, idazkari gisa ari da bilkura-denboran azkenik euskaltzain izendatu den X. Videgain.

1. Aurreko bilera-agiria onartzen da deus ukitu gabe.

2. **Europako toponimia. Europako itsasoak eta itsasarteak** deitu dokumentua J. L. Lizundiak aurkezen du. Eztabaidegarri izan litezkeen puntuetaan *Lion* edo *Liongo golkoa* nola izendatu behar den aipatzen da. Toponimo horren etimologia ez da gardena. M. Azkarate eta M. Zalbidek diotenaren arabera, hobe da txertatu errexua den forma bat Euskaltzaindiak hobestea, ezen eta ez oso berria litekeen forma; eta kasu honetan *Lion* formaren alde agertzen dira.

3. **Exonomastika. Europako lurmuturrak eta penintsulak** deitu dokumentua Alfonso Mujikak aurkezen du.

J. Haritschelhar, M. Azkarate eta P. Goenaga mintzatzen dira, alde batetik *Cap Corse* nola eman behar den euskaraz eta bestaldetik noiz eman behar den *-ko* genitiboa ala *0-* marka aposizioan. Batzordekideek gogoan daukaten irizpidearen arabera *-ko* ematea hobesten dute, hiri baten izena agertzen delarik lurmutur baten ize-nean (*Ajoko vs Contentin*). Berezketa horrek ez ote duen jakitate gehiegi eskatzen aipatu du P. Goenagak. Tx. Peillenek galdegiten du *Dezhnyov* arautzea, eta ez *Dezhnev*. A. Arkotxak Doiharzabalek egin nabegazio liburua kontuan har dadin eskatzen du. Azkenik M. Zalbidek ohartarazten du oso errrotua dela euskaraz «*Txindoki*» edo «*Ernio*» soilik aipatzea, hots «*Txindoki mendia*» sintagma osoa erran gabe eta eskatzen du joko bera posible izatea lurmuturrez, hots «*Fisterre*» xoilkia erabiliz, ez balinbada beharrezko «*Fisterre lurmuturra*» erabiltzea.

Dokumentuari buruzko oharra egin nahi duen orok idatzirik igorri beharko du otsailaren 19rako.

4. **Orotariko Euskal Hiztegia** egitasmoari buruzko dokumentua Gabriel Frailek aurkezen du hasierako bertsiotik hona egin diren aldaketak aipatuz.

Alde batetik testu klasiko anitz sartu da, mailegu franko ere bai, Larramendiren hitz gehiago, kolokazioak hobeki bereizi direlarik, besteak beste. «*aburu*» eta «*atera*» hitzak adibide gisa eman ditu bi bertsioen arteko aldea erakusteko. Oro har, hazkunde nabarmena hartu dute lehen liburukiek baina horrek axola guti du, ez baitira paperezko euskarrian argitaratuko. X. Videgaineak eta M. Azkaratek laudatzen dute egindako indarra. P. Salaburuk epeak zein diren galdetu du eta A. Urrutiak apirileko prest izango dela (Lazarragaren corpusa sartuta) erran du. S. Alemanek hiztegiaren metahizkuntza gaztelera dela eta, arrangura erakutsi du. J. L. Lizundiak

horrela jokatzeko arazo instituzionala izan dela aipatu du eta I. Sarasolak gogorazten du zein baldintzatan atera ziren Koldo Mitxelenaren denboran lehenbiziko liburukiak. Lan erraldoia dela aipatzen du, edozein zuzenketa mota obratzea oso luzea dela gogora ekarriz. J. Haritschelharrek aipatu du hats handiko lana izan dela OEH, Euskaltzaindiak gidatu duen handiena.

**5. Pedro de Irizar-en Morfología del verbo auxiliar liburuaren aurkezpen digitala** egiten du A. Sagarnak. Pisu handiko liburukietan barreiatua den informazioa modu errexago batez biltzeko tresna interesarri dela erakusten du aurkezleak.

**6. Literatura Terminoen Hiztegia**-ren aurkezpen digitala egiten du A. Sagarnak. Literatura Ikerketa batzordeak obratu duen liburuaren bertsio digitalizatua webguinean kontsultagarri baita. «Bertso» hitza adibidetza harturik, sarrera batetik bestera, hala nola *bertso-tik neuritz* hitzera esteka zonbaiten bitartez irakurlea nola ibil daitekeen erakutsi du. A. Arkotxak aldakekarik egin daitekeen galdeginik, A. Sagarnak uste du posta-helbidea ezartzea on litekeela hutsak eta aldaketak kontrolatzeko. Liburuaren kopia hutsa izanik, bertsio digital honek liburuan dauden hutsak errepikatzen ditu: digresio batean, batzartu frankok aipatu du gaurko merkatuan nolako testu-zuzentzaileak dauden, B. Atxagak aipatzen dituelarik Katalunian egindako esperientzia batzuk eta A. Urrutiak dioelarik Euskaltzaindiak zuzentzaile on bat beharko duela. Bestalde, P. Salaburuk egin galderari erantzunez, A Urrutiak dio bertsio hori ez dela oraindikan publikoari idekia.

**7. Ohorezko euskaltzain berriak izendatzea** proposatzen du A. Urrutia Euskaltzainburuak. J. L. Lizundiak gogorarazten du zein diren Euskaltzaindiak erabili ohi dituen irizpideak ohorezko euskaltzainen hautatzeko. Mementoko, 6 ohorezko euskaltzain badira Iparraldetik, 5 Bizkaitik, 4 Gipuzkoatik, 2 Nafarroatik, 5 atzerritik.

Ondoko zerrendan daudenak Ohorezko Euskaltzain izendatzea proposatzen da eta onartzen da:

Bizkaikoak: Gorka Aulestia eta Luis Baraiazarra.

Gipuzkoakoak: Jose Azurmendi, Ana Etxaide, Jose Mari Iriondo eta Xabier Lete.

Nafarroakoak: Pakita Arregi eta Jose Angel Irigaray.

Iparraldekoak: Erramun Baxok eta Marzel Etchehandy.

Atzerrikoak: Joshua A. Fishman hizkuntza-soziologoa.

## 8. Esku Artekoak

**8.1. Jorge Cortes urgazlearen heriotzaren berri ematen du A.Urrutiak.** Urtarriaren 12an hil zen urgazle nafarra. Haren hilberri-txostena Patxi Zabaletak egitea onartzen da.

**8.2. Juan Jose Zearreta** zenak utzi hutsgunea kontuan harturik, kudeatzaile baten kontratatzeako lehen urratsak egin dituela zuzendaritzak dio Euskaltzainburuak; eta kandidatuen bilatzeko iragarkiak prest daudela esan du. Prentsan agertuko diren iragarkieez eta kandidatuen perfilaz galderak egiten zaizkio eta berreziki zein komunikabidetan agertuko diren, hala nola Nafarroan eta Gipuzkoan.

**8.3.** A. Urrutiak aipatzen du egoera ekonomikoa kezkagarria dela, Madriletik izan ezik, beste instituzioetatik aurten jasoko diren diru-kopurueta murrizketak izango direlako. J. L. Lizundia diruzainak xehetasun gehiago ematen du: Madriletik diru-kopuru bera jasoko bada ere, Eusko Jaurlaritzatik eta Bizkaia eta Gipuzkoako Aldundietatik zenbat gutiago etorriko den aipatu du. Apirila gabe, gauzak ez direla arinduko dio, eta gauzak ekaineko beren bidera itzuliko direla uste du A. Urrutiak.

**8.4.** Bizkaia Irratiarekin 2. hitzarmena urtarilaren 11n sinatu dela jakinarazten du A. Urrutiak.

**8.5.** EHS (Euskararen Historia Soziala) egitasmoan zuzendari-aldaketa gertatu dela jakinarazten du ere Euskaltzainburuak; Joseba Intxaustiren ordez Mikel Zalbide izanen da egitasmoaren zuzendari berria, J. Intxausti aholkulari bihurtzen delarik.

**8.6.** Euskaltzainburuak Euskaltzaindiaren ikurra ematen die oraindikan hartu ez zuten J. L. Davanti eta P. Salabururi.

**8.7.** B. Atxagak aipatzen du *Erlea* aldizkariaren bigarren alea prest dela. Pozik dago lehenbiziko zenbakiak izan duen harreraz. Eskerrak ematen dizkie lagundi dutenei, hala nola Koldo Eizagirri edo A. Arkotxari. Dei egiten die Euskaltzainei parte har dezaten ondoko zenbakietan, prestatzen ari den 2. aleaz sona handiko firmak bildu dituela erantsiz.

**8.8.** Liburu hauek banatzen zaizkie batzartuei Pello Telleriaren eskutik: *Jose Antonio Aranaren bibliotekaren katalogoa* alde batetik, eta bestaldetik, *Juan Mari Lekuona-ri omenaldia* (IKER 23) eta *Plazaberri* (3) berri-papera. Bestalde, Juan Jose Zearretaren omenez familiak egindako oroigarria banatzen zaie batzartuei.

**8.9.** Datorren bilkura Bilbon eginen da, egoitzan, 2010eko otsailaren 26an.

Besterik gabe bukatzen da bilkura 13:45ean.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xarles Videgain,  
Idazkari lanetan (*Arautegia*, 24. art.)

# Ageriko bilkura

Donostian, 2010eko urtarrilaren 29an

Donostian, 2009ko urtarrilaren 29an, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian, arratsaldeko lauak eta erditan, Euskaltzaindiak hastapena eman dio azken denboran hil diren sei euskaltzaleren hil-txostenen entzuteko egin den batzarrari. Honako jaun-andreak bildu dira

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: A. Urrutia euskaltzainburua, X. Kintana idazkaria, J.L. Lizundia diruzaina, A. Sagarna Iker sailburua, A. Iñigo Jagon sailburua, J. Haritschelhar, S. Aleman, M. Azkarate, J.L. Davant, P. Goenaga, J. Lakarra, E. Larre, M. L. Oñederra, Tx. Peillen, A. M. Toledo, P. Uribarren, X. Videgain, P. Zabaleta, M. Zalbide.

Ohorezko euskaltzainak: Pakita Arregi eta Koldo Artola. Ezin etorria adierazi duena: Jose Mari Iriondo.

Euskaltzain urgazleak: Antton Aranburu, Xabier Erdozia, Pello Esnal, Jose Maria Etxebarria, Pruden Gartzia, Maria Pilar Lasarte, Jose Antonio Mujika, Elixabete Perez Gaztelu, Pello Telleria, Manu Ruiz Urrestarazu eta Patri Urkizu. Ezin etorria adierazi dutenak: Ricardo Badiola eta Ricardo Gómez.

Batzordekideak: Kasildo Alkorta eta Erramun Osa.

Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi, Maixa Goikoetxea eta Amaia Okariz. Ezin etorria adierazi duena: Itziar Rekalde.

Mahaian, Euskaltzainburuaz eta idazkariaz gain jarri dira txosten egileak, erran nahi baita, Jean-Louis Davant, Mari Carmen Garmendia, Andres Iñigo eta Jose Luis Lizundia.

Andres Urrutia Euskaltzainburu jaunak ongietorria eskaini die sei lagunen hilberri-txostenen entzutera etorri diren guztiei. Eskertzen ditu bereziki joan ziren euskaltzaleen familiartekoak, hurbilekoak eta askazi guziak. Nostalgia baino urru-nago joatea beharrezko dela dio Euskaltzainburuak hildakoek utzitako eredua preziatuz eta jarraikiz.

Jose Mari Iriondo Euskal Herritik kanpoan izanik, Antonio Zavala (1928-1-23 / 2009-1-2) euskaltzain osoaz idatzi duen txostena A. Urrutiak irakurri du. A Zavala Tolosan sortu zen eta asko maite zuen Xabiergo gazteluan hil zen. Han igan zi-tuen urte gehienak 1976tik landa. Hura bezalako argitaratzale oparorik gutitan baizik ez da ezagutu euskal munduan. Berak sortu zuen *Auspoa* bildumak zinez hats handiko langile zela erakusten du, agertarazi zituen liburuak dozenaka kontatzen baitira, batzuk oso ezagunak hala nola Uztapideren edo Xalbadorren bertsoez osatuak, beste batzuk ez hain famatuak baina oso interesgarriak, Nafarroako mugetan artzainenganik erdaraz bildutakoez osatuak, adibidez. Formakuntza sendoa izan zuen, Jesuiten Lagundian sartu baitzen eta 1959an apeztu. Herri literaturaren eta bertsolaritzaren alderako interesa goiz piztu zen haren baitan. 1961ean Auspoa bildumaren lehenbiziko alea atera zuen *Sagardoaren graziya* tituluarekin. Ondotik beste 300 libururen egiteko indarra izan zuen A. Zavalak. Nekaezina zela erratea eufemismoa da. Zenbat ordu eman zuen liburuen ekaia prestatzen, bertsolariekin, bertsozaleekin, hura gabe inoiz idatziko ez zutenekin, bertsopaperak erosten, biltzen eta sailkatzen ez da erraz neurtzea. Herri literaturan sortutakoa herriko jendeek ezagutzea eta haintzat hartzea erdietsi du Antonio Zavalak. Sortu zuen bilduman bederen euskara ez zela erdararen menpe segurtatu zuen eta hori izan da egin zuen lan erraldoiaren ekarpen gaitza. Gaitza eta iraunkorra.

Ondotik, Andres Iñigok Santiago Ezkerra (1925-05-06 / 2009-3-22) euskaltzain urgazlearen aldeko txostena irakurri du. Santiago Ezkerra Etxarri Aranatzen sortu zen 1925ean. Hamahiru urterekin Kaputxinoetan sartu zen Altsasun, ikasketak Iruñean bukatuz. Apeztu zen 1950ean. Predikulari gisa ibili zen Nafarroan, euskaraz naski eta bestalde artikulu ugari argitarazi zituen 1919an Kaputxinoek berek sortu zuten *Zeruko argia* aldizkarian. Haren izengoitia *Lizarrusti* izan zen. 1956an Mikel Goiangeruari bederatzurrena argitaratu zuen eta beste erlijiozko liburuak. 1961ean frailegoa utzi zuen, Madrilera joan zen lan egitera proba-zuzentzaile gisa. Han ezkondu zen eta familiatu, lau haur ukani. Gutun anitz gurutzatu zituen N. Tauer euskalariarekin. Euskararen alde tinko agertu zen, berak zerabilen euskara ez baldin bazuen gehiegiz hurbildu nahi euskara batuaren aldera. A. Iñigoren hitzetan, «euskalzale fina eta euskararekin konprometitua».

Xabier Kintanak Juri Zytsar (1928 / 2009-6-23) Errusiako ohorezko euskaltzain urgazlearen aldeko txostena irakurri du. Volga ondoan sortu zen Siberiako Kuibixev deitzen zen hirian eta han ere hil 2009an, ordurako Samara izen zaharra berreskuratu zuen hiri berean. Ahatik J. Zytsar luzaz egon zen sorterritik kanpo. Hizkuntzen ikasteko dohaia erakutsi zuen gaztetik eta bereziki euskara ongi ikasi zuen, hainbestetaraino non bere tesia defendatu baitzuen Leningraden, tesiaren gaitzat euskara hartuta. Itzulpen lanak egin behar izan zituen Nazio Batuen bileren edo eta Vietnamen: hain zuzen hara igorria izan zen errusiera irakats ziezaien lekuko soldaduei gerla denboran. Baino bertzenaz lehenik intelektuala izan zen, eta euskarari buruzko jakitatea sakondu zuen. Lehenik K. Mitxelenarekin harremantean sartu zen eta gero euskaltzale askorekin eta bereziki X. Kintanarekin. Tbilisioko Unibertsitatean irakasle egon zen, linguistika, Kaukasiako hizkuntzak eta euskara ikertzen. Aldi batez baizik ez zen jin Euskal Herrira, Euskaltzaindiak gomittatu baitzuen 1980an Euskalarien Biltzarrean.

Jean-Louis Davantek Roger Idiart (1931-1-15 / 2009-8-27) euskaltzain urgazlearen aldeko txostena irakurri du. Azkainen sortu zen R. Idiart laborari-etxe batean, eta 1955ean apeztu zen, Uztaritzeko apeztegian ikasketak egin ondoan. Euskal Herriaren aldeko grina gazterik erakutsi zuen, dela *Enbata* agerkarian ateratzen zituen artikuluen bitartez, dela antzerkian Piarres Larzabalekin edo bakarrik emanarazi zituen ikusgarriak lekuko. Zuberoara igorria izan ondoan, han ezin hobeki kokatu zen: han zegoelarik zituen osatu bere kantu famatuak, hala nola *Basabürüan Montori* edo *Ez gal gure odol beroa...* Han ere bi pastoral egin zituen, *Xalbador* eta *Etxahun-Iruri*, bera zuberotar izan gabe, R. Idiartek ez baitzuen ausartzia ments. Ausart baldin bazen, zorrotz eta artatsu, umorea ere bazuen nasaia, agian «nigar egiteko tirria ere maiz arraileiaz» estaltzen delako. Ororen buru, R. Idiart ez zen lotsa izan Larrungo mazelatik gaindi Orhiko maldara ibiltzeko euskararen hegaletan.

Mari Carmen Garmendiak Mikel Atxaga (1932-8-25 / 2009-9-10) euskaltzain urgazlearen aldeko txostena irakurri du. Urnietan sortu zen M. Atxagaren biografia osoa egin gabe, hori laster agertuko delarik hain zuzen berak zuzendutako *Bidegileak* bilduman, haren oinazeak eta azken kezka hunkigarriak aipatu ditu M. K. Garmendiak. Apirilean eskuratu zuen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak «bidegile partikularri» eskaini omenaldia. M. Atxagak euskal kulturaren historian izan duen pisua oroitara du. Alde batetik erakundeen egitekoa beti nola sustatu duen, eta bestaldeik euskararen aldeko erakundetze lan isila eta berezia nola eraman duen laudatu du. Txosten egileak M. Atxagaren azken arranguretarik bat aipatu gabe ezin zuen utzi, hots J. A. Pagolak prestatu *Jesus, hurbilketa historikoa* liburuaren euska-

razko bertsioa kalean ikustea, M. Atxagaren «biziaren pizgarri» izan baitira Nazareteko Jesus, euskara eta Euskal Herria.

Azkenik, Jose Luis Lizundiak irakurri du Juan Jose Zearreta (1947-6-10 / 2009-11-7) urgazlearen aldeko txostena. Euskaltzaindiko kudeatzailearen heriotza kru dela oraindikan hurbil dela, J.L. Lizundiak bost ataletan erakutsi ditu J. J. Zearretaren bizitzan izan ziren gertakari nagusi batzuk. Zornotzan sortu zen, eta ikasketak egin zituen Gabirian, Euban eta Bilbon. Gaztetik defentsan jokalari ona agertu baldin bazen futboolean, ez zen makalago izan gero euskararen defentsan eta haren hedatzeko jardunaldi luzeetan. J.J. Zearretak gauzen tinko eta fermu antolatzeko zeukan joera bere bizitza guzian ezin hobeki erakutsi zuen. Lehenik ekonomia era-gile gisa hasi zen Euskaltzaindian, erakundea oraindikan katakunbetan zegoela, hots, Erribera kaleko egoitza zaharrean, Bilbon. Ber denboran Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundean 1970ean hasi zen, barnetegiak zutik emanet eta asmo didaktiko batez egindako liburu andana batean parte hartuz. Euskararen Gaitasun Agiria sortzeko ere langile porrokatu gisa agertu zen. Dendarik gabe, ondoko urteetan eta hil artio Euskaltzaindiari berari eskaini zion bere indar gehiena, gutitan ikusten den kemen eta leialtasunarekin, harekin lanean ibili guztiekin ondo dakiten bezala. Dendarik gabe, Euskaltzaindiak eta euskararen etorkizunak asko zor diote Juan Jose Zearretari.

Txostenak entzutearekin batera, horman ipinitako pantailletan hildakoen argazki batzuk emanak izan dira, hitzaldien osagarri.

Zehaztasunez eta goxotasunez emandako sei txostenak entzun eta, berrikitan joandako lagunek utzi diguten eredu kontuan hartzeko dela erran ondoan, Andres Urrutia jaunak batzarra bukatutzat ematen du arratsaldeko seiak eta laurde-netan.

Andres Urrutia,  
eusklatzainburua

Xarles Videgain,  
Idazkari lanetan (*Arautegia*, 24. art.)

# Bilbon, 2010eko otsailaren 26an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua  
Kintana, Xabier, idazkaria  
Lizundia, Jose Luis, diruzaina  
Sagarna, Andoni, Iker sailburua  
Iñigo, Andres, Jagon sailburua  
Aleman, Sagario  
Arejita, Adolfo  
Azkarate, Miren  
Davant, Jean-Louis  
Goenaga, Patxi  
Haritschelhar, Jean  
Larre, Emile  
Oñederra, Miren Lourdes  
Peillen, Txomin  
Salaberri, Patxi  
Sarasola, Ibon  
Toledo, Ana  
Torrealdai, Joan Mari  
Uribarren, Patxi eta  
Videgain, Xarles euskaltzainak.  
  
Pello Telleria idazkariordea, Alfontso Mujika aholkularia, Iñaki Kareaga informatikaria eta Jon Artza argitalpenen bakanaka arduraduna, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: P. Salaburuk, ahala P. Goenagari; B. Oihartzabalek, ahala X. Videgaini; J. M. Torrealdaik, egon ez den bitarterako ahala A. Sagarnari; M. Zalbidek, ahala Andres Urrutiarri; P. Zabaletak, ahala A. Iñigori.

Batzarra goizeko 10:00etan hasi da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

**1. Hasierakoak.** Euskaltzainburuak bilduak agurtu ondoren, eguneko aztergaien ordena zehaztu du.

**1.1. Eguneko programaz.** A. Urrutiak azaldu duenez, Euskaltzaindiaren batzar-eguneko aztergaien programak 12,30ak arte iraunen du, horren ondoren, ohorezko euskaltzainei diploma ematearen ekitaldi publikoa egiteko.

**1.2. B. Oihartzabali zorionak.** Euskaltzainburuak Beñat Oihartzabali zorionak eman dizkio, Baionako Fakulta-

teko IKER-ek, iragarritakoaren arabera, martxoaren 5an, arratsaldeko 4etan omenaldi bat eginen diolako.

**2. Urtarileko aktak onartzea.** Urtarileko ageriko batzarraren aktari dagokio-nez, Andres Iñigok ohar pare bat egin du Santiago Ezkerraren jaiotza- eta heriotza-deiez. Horiek zuzendurik, akta biak, osoko batzarrarena eta agerikoarena, ontzat eman dira.

**3. Exonomastika. «Europako lurmuturrak eta penintsulak» onartzea.** Exonomastika batzordeak euskaltzainengandik jasoriko oharrauk aztertu ondoren, hoien berri A. Mujikak eman du. Lehenengo eta behin, P. Goenagak, M. Zalbidek eta J. Haritschelharrek eginiko oharrei buruzko konsiderazioak egin eta hiru euskaltzain horiek aipaturiko arrazoiak balioetsi ditu, eta inoiz sor litezkeen eragozpenak azaldu. Hor oinarriturik, eta ohargileei kasu eginez, euskaraz geografia-izen horiek esateko era bat baino gehiago dagoen arren, batasunagatik eta modu arautuan eskaintzeagatik, zerrenda berrian, posible eta nahasterik sortzen ez denean, guztiak forma berean jarriko dira. Kasu batzuetan, ordea, ohiko izen propioaren ondoan, parentesi karratuenean, berorri dagokion izen generikoa ere erakutsiko da, horrela, osorik idatzi nahi denean, erabiltzekoa.

Tx. Peillenen oharra ere kontuan hartu da, eta, Euskaltzaindiaren 156. arauak (*Alfabeto zirilikoz idatzitako izenak euskarara aldatzeko transkripzio-sistemak*) xedatzen duenaren arabera, errusiera *Дежнёв* idazten den lurmuturraren izena euskaraz *Dezhniov* grafiaz idaztea erabaki da, salbuespenik ez egiteko..

Bestalde, A. Arkotxak ‘lurmutur’ balioarekin *buru* hitza ere erabiltzea zilegi iza-tea eskatu du. Exonomastika batzordeak uste du hizkera arruntean ‘lurmutur’ adieran *buru* hitza ere erabil daitekeela, eta halaxe egin zuen jada XVII. mendean Piarres Etxeberrik bere *Itsasoko Nabigazioneko liburuan*. Halere, aspaldiko usadio orokorraren arabera, argi dago adiera berezitu horretan gaur egun *lurmutur* berbak hartu duela erabateko nagusigoa.

**4. Lexikoaren Behatokia egitasmoari buruzko azalpena.** A. Sagarnak aurkeztu du. Egitasmoaren lehen emaitza ukigarria erakutsiz, orain arte egindakoaren jarraipena, eta komunikabideetatik bildutako datuak eman ditu A. Sagarnak, hots, 2007ren amaieratik gaurdaino jasorikoak: BERRIA, EiTB (4 milioi bat testu-hitz). Ondoren, bilatzeko prozedura azaldu du, lema batetik hasita. Etsenplu moduan hitz konkretu bat (*irakurgailu*) aurkitzeko modua erakutsi digu. Ondoan, berori abiapuntu hartuta, hitz elkartuak ere nola lortu azaldu du. Lema osoaren ordez, halaber, galde egin daitezke, adibidez, *-gailu* atzizkiarekin sortuak, beren testuingu-

ru eta maiztasunarekin, bai eta bestelako adibide korapilatuagoak ere. Prozesatzelanari buruz, eduki hornitzaleak (BERRIA-tik hartuak adibidez), UZEIn ikusi, katalogatu eta etiketatu egiten dira. Ondoren, prozesu linguistiko batzuk ELHUYAR-en eta beste batzuk IXA-n burutzen dira, azken emaitzak lortu arte.

**5. «BBK-Euskaltzaindia literatura ataria»ren aurkezpena.** Jon Artzak aurkeztu du, horrekin literatura arloan BBK-k eta Euskaltzaindiak elkarrekin egin duten lanen berri emateko. Lan horiek zerrendatu, deskribatu eta hainbat kasutan horien bertsio digitala ere eskaintzen da. Hiru atal ditu: a) Azken berriak, b) Literatura-terminoen hiztegia eta c) Sariketak.

Sariaren izena daramaten pertsonen datu bio-bibliografikoak Azkue bibliotekatik hartu dira, eta Aitor Aranak eta Rikardo Badiolak egindako lanean oinarritutik daude. Era berean haur eta gazteentzako literatura-sariak azaltzen dira: pertsona eta lan sarituak, noiz argitaratuak diren, etab. Lan berri hau ez da estatikoa, dinamikoa baizik.

A. Urrutiak galdu du ea epaimahaikoen izenak ere sar litezkeen, fitxaren osagarri. Baietz erantzun zaio. J. L. Lizundiak, halaber, sari bereziak ere aipatzea esku du. Aurkezenaren alde teknikoaz I. Kareaga arduratu da.

**6. Euskararen Herri Hizkeren Atala.** Euskaltzainburuak EHHaren I. eta II. Liburukieie buruzko azalpena eman du. Gogoratu duenez, J. Haritschelharri iaz emandako erantzunean 2009.eko abendurako aterako zirela uste zen, baina azken orduko atzerapenak izan dira. Horregatik aurten plazaratuko dira, jada inprimaturik daude eta. Editatze lana nolakoa izan den argitu du, eta prozesu horretan, batek, Xarles Videgaineak eta Gotzon Aurrekoetxeak egindako lana eta, bestetik, Juanjo Zearreta zenak erakutsiriko interes eta laguntasun eskergarriak goraiatu ditu.

Ondoren, obraren lehen bi liburukiak aurkezteko, liburuaren barne-ezaugarriak xehatu ditu A. Arejita egitasmoaren zuzendariak: inkesta-lekuak, lekuoen zerrenda, erabiliriko alfabeto fonetiko eta letraldatzeko taula, erantzunen ezaugarriak, mapen antolaketa, biltzaileen datuak, etab. Era berean, mapa-aurkibidea nola egin den argitu du: galderaka, erantzunka eta lemaka ordenaturik.

I. Kareagak adibide batzuekin erakutsi du liburuaren erabilgarritasuna. Era berean, Xarles Videgaineak, hitza harturik, guztiei eskerrak eman dizkie, euskaltzaineik izandako pazientziagatik. Liburuaren formatoa txikitu dela azaldu du, horrela ma-neiakorragoa izateko. Beronek ere hiru adibiderekin erakutsi ditu obraren informazio-balioak.

J. L. Lizundiak, azkenik, bai Euskadiko Kutxaren aldetik eta bai Euskaltzaindiaren aldetik izandako atzerapenen arrazoi batzuk jakinarazi ditu: sarrera-hitzaldiak, erakunde-ospakizunak, lehenagotiko egutegi-programazioa, etab.

**7. Kudeatzaile berriaz.** Aurreko batzarrean jada esandakoari jarraikiz, A. Urrutiak Euskaltzaindiaren kudeatzaile berria hautatzeko gestioen berri azaldu ditu. Kargu horretarako eginiko iragarkiak prentsan publikatu ondoren, ia 100 eskari jaso dira. Horiei, Campo & Ochandiano enpresak bere artxiboetan, eskatzen ziren ezaugarriekin, zeuzkan beste dozena bat pertsona-fitxa erantsi dizkie. Horien artean galbaheketa eginez, hasierako kopurutik hamar bat pertsona bereiziko dituzte, horrik gero kandidatu bakarra ateratzeko. Azken aukera hori egiteko, baina, zuzendartzaren, euskaltzain osoen eta langileen ordezkariekin hautatzeko taldea osatu beharko da.

J. L. Lizundiak esan du martxoaren osoko bilkuran hautestalde horren osakideen izenak erabaki beharko liratekeela, horiekin azken ebazpena egiteko. Gestio guztia maiatzaren 1erako amaitzea komeniko litzateke.

## 8. Esku artekoak

**8.1. Euskarazko terminologia juridiko-administratiboari buruzko jardunaldia.** Euskaltzainburuak jakinarazi duenez, Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuak elkarrekiko lankidetasunean, datorren martxoaren 4an *Euskarazko terminologia juridiko-administratiboa* jardunaldia antolatuko dute Irufnean, Euskarabidearen egoitzan. Horren egitaraua ere banatu da.

**8.2. Hiztegia Batua. Irizpideak, prozedurak eta tresnak** jardunaldia egingo du Euskaltzaindiak martxoaren 23an, asteartean, egoitzan. Horren egitaraua eman du Euskaltzainburuak.

**8.3. Mugarik gabeko telebistaren projektua.** Euskaltzainburuak azaldu duenez, Autonomia Erkidegoetako telebista-programak Estatu osoan ikusi ahal izateko kanpainaren alde sinadurak aurkezteko epea maiatzaren 15era arte luzatu da. Beraz sinatu nahi duenak oraindik horretarako astia dauka.

A. Iñigok gaineratu du guzion lana beharrezkoa izanen dela, eta, batzuek pensatzen dutenaren kontra, hor, nafarren ahaleginak ez eze, gainerakoena ere premiazkoak izanen direla. J.L. Lizundiak ere ekimen horren garrantzia azpimarratu du.

**8.4. Euskaltzainburuak jakinarazi du Euskaltzaindiak DEIArekin hitzarmena** sinatu duela.

**8.5. Auspoa argitaletxearen marka Euskaltzaindiari.** Joakin Berasategi jau-nak, orain arte Antonio Zavalarekin batera Auspoa argitaldariaren jabea izan de-nak, Euskaltzaindiari eskaini dio editorial horren markaren jabetza, berari dagokio-nean. Euskaltzaindiak eskaintza ontzat eman eta jasotze-agiria sinatu du, esker onez.

**8.6. Euskalerria Irratiaren inguruko informazioa.** A. Iñigok ekarririko infor-mazioaren arabera, Nafarroako Epaitegi Gorenak, arrazoia eman dio Euskalerria Irratiari berorrek Nafarroako Gobernuaren kontra jarritako helegitean, emititzeko baimena ukatzeagatik. Epaiaren kopia banatu da.

**8.7. Sarako liburu-azoka.** Aurtengo apirilaren 5ean Sarako herrian Liburu Azoka izanen da. Hor Euskaltzaindiak 4 liburu berri aurkeztuko ditu, Euskararen Erakunde Publikoaren laguntzaz argitaratuak:

1. *Kantikak*, Gratien Adema «Zaldubi». Paratzailea: Henri Duhau. Bilduma: Euskaltzainak 10.
2. *Prediku zenbait. Hazparnen eginak (1854-1860)*. Gratien Adema «Zaldubi». Paratzailea: Henri Duhau. Bilduma: Euskaltzainak 12.
3. *Jesu Kristen imitazionea (1757)*. Itzultzalea: Martin Maister. Prestatzalea: Jean-Louis Davant. Bilduma: Euskaltzainak 13.
4. *Birjinia, edo donceil christaba*. Paratzailea: Jose Antonio Mujika. Bilduma: Eus-kararen lekuoa 24.

**8.8. Hurrengo batzarrak.** Euskaltzaindiaren hurrengo batzarra martxoaren 26an izango da Donostian, goizeko 10etan. Egun berean, arratsaldeko 6etan, Miren Lourdes Oñederraren sarrera-hitzaldia izanen da, Donostiako Udaletxean.

Besterik gabe, Euskaltzaindiaren batzarra 12,30ean amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

# Ageriko bilkura

Bilbon, 2010eko otsailaren 26an

Bilbon, egoitzan, 2010eko otsailaren 26an, eguerdiko 13:00ean, ohorezko euskaltzain izendatu berriei diplomak banatzeko ekitaldia burutu du Euskaltzaindiak.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: A. Urrutia euskaltzainburua, X. Kintana idazkaria, J.L. Lizundia diruzaina, A. Sagarna Iker sailburua, A. Iñigo Jagon sailburua, J. Hartschelhar, S. Aleman, A. Arejita, M. Azkarate, J.L. Davant, P. Goenaga, E. Larre, M. L. Oñederra, Tx. Peillen, P. Salaberri, I. Sarasola, A. M. Toledo, J. M. Torrealday eta P. Uriarren. Ezin etorria adierazi dute: A. Arkotxa buruordeak, B. Oiharatzabal, P. Salaburu, P. Zabaleta eta M. Zalbide euskaltzaineek.

Ohorezko euskaltzainak: Pakita Arregi, Joxe Azurmendi, Gorka Aulestia, Luis Baraiazarra, Erramun Baxok, Martzel Etxehandy, Ana María Etxaide, Jose Angel Irigarai, Ezin etorria adierazi duenak: Joshua A. Fishman, Jose Mari Iriondo eta Xabier Lete.

Euskaltzain urgazleak: Dorleta Alberdi, Kepa Altonaga, Ricardo Badiola, Paula Casares, Pruden Gartzia, Juan Luis Goikoetxea, Mikel Gorrotxategi, Jabier Kalatzakorta, Maria Pilar Lasarte, Abel Muniategi, Pello Telleria eta Manu Ruiz Urrestarazu. Ezin etorria adierazi duena: Jean-Baptiste Coyos.

Batzordekideak eta teknikariak: Aritz Abaroa, Kasildo Alkorta, Gorka Intxaurbe eta Amaia Jauregizar.

Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi, Jon Artza eta Amaia Okariz.

Mahaian, Zuzendaritzako hauek eserি dira: Euskaltzainburua, Idazkaria, Diruzaina, Iker Sailburua eta Jagon Sailburua.

Idazkariak ekitaldiari hasiera eman dio agiri hauek irakurri: ohorezko euskaltzainak izendatu zirela dioen 2010eko urtarrilaren 29ko osoko batzarraren agiri-atala; Arautegian eta Barne Erregeletan ohorezko euskaltzainen izendapenaz esaten dena, eta diploman idatzita dagoen testua. Ondoren, ekitaldiaren nondik norakoa azaldu du.

Gero, ohorezko euskaltzain bakoitzaren merezimendu nagusiak irakurri ditu eta banan-banan deitu ditu diploma jasotzena. Honela egin da dipoma banatzea:

Pakita Arregiri, Euskaltzainburuak eman dio diploma.

Gorka Aulestiari, Idazkariak.

Joxe Azurmendiri, Euskaltzainburuak.

Luis Baraiazarrari, Idazkariak.

Erramun Baxoki, Jagon Sailburuak.

Martzel Etxehandyri, Euskaltzainburuak.

Ana Maria Etxaideri, Diruzainak.

Jose Angel Irigairi, Iker Sailburuak.

Ohorezko euskaltzainek, diploma jaso ondoren, esker oneko hitzak eskaini dizkiete bildu direnei.

Diploma jasotzena bertaratzetik izan ez duten Joshua A. Fishman, Jose Mari Iriondo eta Xabier Leteri ere helaraziko zaie diploma.

Andres Urrutia euskaltzainburuaren hitzkin bukatu da ageriko bilkura, ordu bietan.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

# Donostian, 2010eko martxoaren 26an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua  
Kintana, Xabier, idazkaria  
Lizundia, Jose Luis, diruzaina  
Sagarna, Andoni, Iker sailburua  
Iñigo, Andres, Jagon sailburua  
Aleman, Sagrario  
Arejita, Adolfo  
Azkarate, Miren  
Charriton, Pierre  
Davant, Jean-Louis  
Goenaga, Patxi  
Haritschelhar, Jean  
Lakarra, Joseba  
Larre, Emile  
Oñederra, Miren Lourdes  
Peillen, Txomin  
Salaberri, Patxi  
Sarasola, Ibon  
Toledo, Ana  
Torrealdai, Joan Mari  
Uribarren, Patxi eta  
Videgain, Xarles  
  
Pello Telleria idazkariordea, eta, zegozkien gaietan, Alfontso Mujika eta Aritz Abaroa jaunak.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Aurelia Arkotxak, ahala Lourdes Oñederrari; Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari; Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori; J. Mari Torrealdaik, egonez den tarterako, ahala A. Sagarnari; Pello Salaberuk, ahala Miren Azkarateri; Mikel Zalbidek, ahala A. Urrutiari; Andres Urrutiak, egonez den tarterako, ahala X. Kintanari.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren Jauregiko Batzar-aretoan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

**1. Aurreko aktak onartzea.** Ez da oharrik jaso eta, beraz, aurreko batzarren aktak ontzat eman dira.

**2. Hasi aurrekoak.** Euskaltzainburuak, gaurko ekitaldieta rako oharra egin ditu, ordutegia, aritzeko modua eta bestelako xehetasunak azalduz.

Era berean, arratsaldeko 6etan, Donostiako Udaletxearen Batzar-Aretoan M.

Lourdes Oñederraren sarrera hitzaldia izanen dela azaldu du. Horretarako, biltokira garaiz heltzeko, euskaltzain guztiak ordezkaritzan elkartuko dira, eta bertan nork bere domina jasoko du.

### 3. Euskaltzain omenduei zorionak.

**3.1. Jose Antonio Aranari omenaldia Gernikan.** Martxoaren 13an, Gernikan, Jose Antonio Aranari, bere jaioterriko hainbeste erakundek eta kultur elkartek omenaldia egin diote; horien artean honako hauek: bertako Udalak, Andra Mari Koralak, Kultura Etxeak, Gernika-Lumoko Euskaltegiak, Segundo Olaeta Musika Eskolak, Julia Foruria Musika Eskolak, Gernikazarra, Aldaba aldizkariak eta Marijesiek.

**3.2. Jean Haritschelhar UNEDek omendua.** Madrilen, martxoaren 23an egingako ekitaldi batean, UNEDek Jean Haritschelhar, euskararen fabore egindako lanagatik, *Honoris Causa* doktore izendatu berri du. Berarekin batera, Antoni Badia i Margarit, Humberto Lopez Morales eta Xesus Alonso Montero jaunei izendapen berbera eman zitzaien, katalanaren, gaztelaniaren eta galizieraren alde buruturiko lanagatik. Euskaltzaindiak bere kide bioi bihotzez zorionak adierazten dizkie.

**4. Exonomastika. «Europako geografia fisikoa. Oronimia: mendikateak, mendiguneak» aurkeztea.** Batzordeak eginiko proposamena Alfontso Mujikak aurkeztu eta zerrendako izen batzuen berezitasuna eta garrantzia azpimarratu ditu (turismoa, historia, kirol-lekuak, etab). Kasu batzueta, beste hizkuntzetan egiten den bezala, guk ere bitasuna utzi eta nolabaiteko sinonimia onartu dugu: *goi ordoki*, *goi lautada*... Halere, beste kasu berezi batzueta, bertako izena osorik eta itzuli gabe utzi da, bestelako tradiziorik ez dagoelako: *Sierra Morena*, *Sierra Nevada*, *Montes Universales*. Konsultak ere egin dira (Juan Carlos Lopez-Mugartzaren *Erronkari eta Ansoko toponimiaz* lanean, adibidez), Pirinioetako *baso*, *ohan* eta *zaltu* hitzen erabilera eta esanguraz. Oharrak egiteko epea: apirilaren 20rako.

**5. Batzorde ahaldunduen zalantzak eta baimen eskariak.** A. Sagarnak eta I. Sarasolak batzorde honetan sorturiko zalantza batzuk ekarri dituzte, horiek erabakitzea osoko Batzarrari dagokiolako. Hitzak banan-banan aztertu eta, kasu batzuetaan botoetara eraman ondoren, ondokoak onartzea erabaki da:

**gaitzerizte.** Honelako forma zaharrekin *eritz-* forma hobestea onartu da (*oneriztea, gaitzerizko...*)

**gaileta** iz.g.e. ‘edalontzia’ sarrera isiltzea.

**gaileta**

**galtzontzilo** Heg. Ik. **galtxoin**

**garba** 1 iz. ‘garrama, tresna’

**garba** 2 iz. ‘azaoa’

**gerba** Lehen itzulian onartu zen bezala utziko da, hots, iz. ‘intxaurrondoaren eta gaztainondoaren lore multzo zintzilikaria’.

**gisugile** Ipar. ‘karegilea’

**kisuskile** Naf. ‘igeltseroa’

**gordetxa** ‘bioleta’ sarrera isilduko da.

**hax** ‘ardatza’

**haxean (izan), haxean ezarri**

**hilotza** adlag.: hilotza erori zen. Sin. **hilotzik**

**hilotzik** Sin. **hilotza**

**hilotz** iz. ‘gorpua’

## 6. Ahozko Tradiziozko Hizkeren Corpusa egitasmoari buruzko azalpena.

Adolfo Arejikat aurkeztu du, Aritz Abaroarekin batera, arlo honetan egindako lana, behar den bezala etiketatua. Prozesu osoaren berri emateko, karpeta batean azaldurik eskaini du: grabaketa, ordenagailura eramatea, formatu-aldaketa, oinarrizko etiketatzea, zatiketa, azken etiketatzea eta transkripzio hautatuak. Gogorarazi duenez, mota honetako lanak lehendik ere egin dira, era zuzeneko eta zeharkako bilketa materialak eskuratzeko. Prestaturiko lanaren erakusgarri batzuk ere eskaini ditu, elkarritzeta grabatu batekin.

Galdera-txandan, J. L. Lizundiak galbidean dauden ofizioak aipatu ditu, adibidez, euskaraz *barrenariak* (gaztelaniaz *barrenadores*) deituena, eta horiek herri-oroi-menetik erabat desagertu baino lehen biltzeakoak direla. Tradiziozko lanbideei dagokienez, horiekin merkatu-hiriek izandako garrantzia azpimarratu du, ofizio-izen batzuk bilatzekotan, horrelako tokietan aztertu beharko liratekeela nabarmenduz. P. Goenagak, bilduriko lana dela eta, transkribatzeko, nolako egokitze lana egiten den galdeitu du, bai eta, bildurikotik, ehuneko zenbat den baliagarri.

Bestetik, P. Salaberrik grabaketa guztiak ahozkoak izan ote diren jakin nahi izan du, eta ea bideoaz ere ez ote den lanik egin, beste batzuek aspaldian egiten duten bezala. Erantzunean, A. Arejikat grabatzeak aldean dakarren diru-kostu handia aipatu du eta beti ere hala egitea merezi al duen galdeitu du. Bestalde, Iparraldean, Xipri Arbelbidek eginiko grabazioak ere hor integratzeko posibilitatea gogoratu du. Euskaltzainburuak, bestetik, arlo horretan orain arte egindako lana aipatu du.

P. Xarritonek, lan hori Atlasarekin eta Trebichen lanarekin loturik dagoela gororazi du. J.-L. Davantek, gainera, P. Lhanderen gutun batzuk *Euskera*-n argitaratu zirela aipatu du .

## 7. Kudeatzaile berriaz

A. Urrutiak, ondoren, J. J. Zearreta kudeatzaile zentuaren postua betetzeko, Euskaltzaindiak, Campo & Ochandiano enpresarekin egindako deialdiaren azken ondorioen berri eman du. Horretara aurkezturiko pertsonak 98 izan dira, eta, horien *curricula* behin eta berriro aztertu ondoren, 12, 7 eta, azkenean, 4 kandidatu gelditu dira. Horien artean azken hautapena egiteko, epaimahaikideak izendatu dira: Zuzendaritzatik A. Urrutia euskaltzainburua, J. L. Lizundia diruzaina eta A. Sagarna Iker sailburua; euskaltzain osoen aldetik S. Aleman, eta A. Arkotxa (frantsesezko probarik egin behar izanez gero), eta Euskaltzaindiko langileen ordezkarietan beste pertsona bat. Bestalde, Euskaltzainburuak, gelditu diren kandidatuak merezimendu aipagarrienak adierazi ditu bai jakintzan eta bai gestio-mailan, eta, tamalez, horietako inork frantsesa menderatzen ez duelako hutsunea ere. J. L. Lizundiak, postua lortzeko eskatu beharrekoak kontuan izanda, hautatzekoaren perfilean areago sakondu eta, plantila kudeatzeko trebetasuna, administratzeko gaitasuna, etab. aipatu ditu. Aurreikuspenen arabera, kandidatuak apirilean zehar aztertuko lirateke, azkenean hautatua maiatzaren hasieran lanean has ledin.

**8. Hiztegi Baturako lankide berria.** Jose Antonio Adurizen osasun-arazoak kontuan izanik, berorren laguntzaile gisa, Andoni Sagarnak Zuzendaritzari Ainhoa Arregi Saratxo andrea Hiztegi Batuko lantaldetako kide izendatzea eskatu dio. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak eskari hori aintzat hartu du eta horrelaxe jakinatzten dio Osokoari, eta honek berretsi egin du erabakia.

## 9. Eskuartekoak

### 9.1. Azkue Sariak

Martxoaren 10ean 2009ko R. M. Azkue literatur sariak ebatzi ziren, 11 eta 18 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduak.

Epaimahaikoak, A mailan (11-14 urte bitartekoentzat) Yolanda Arrieta, Igone Etxebarria eta Antton Irusta izan ziren, eta B mailan, berriz, (15-18 urte bitartekoentzat) Joseba Butron, Jabier Kaltzakorta eta Ibon Egaña. Orotara 214 lan aurkeztu ziren. Sarituak ondoko hauek izan ziren:

## A Mailan

### *Narrazio alorreatan:*

- 1.a Mikela Atxoarena: *Zoritzarreko sekretua.*
- 2.a Maialen Akizu: *Atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu.*
- 3.a June Ugalde: *Koaderno txikia.*

### *Olerki alorreatan:*

- 1.a Maialen Akizu: *Nire Herria.*
- 2.a Mikela Atxoarena: *Gau beltza.*
- 3-a Lorea Solana: *Maitasun izpiak.*

## B Mailan

### *Narrazio alorreatan:*

- 1.a Nerea Eizagirre: *Korapilo bako soka.*
- 2.a Amaia Iturriozt: *Euria.*
- 3.a Nerea Eizagirre: *Zure ispiluaren ximurrak.*

### *Olerki alorreatan:*

- 1.a Leire Arenas: *Flora.*
- 2.a Leire Arenas: *Txorien jauzi ttikiz.*
- 3.a Nerea Ibarzabal: *Musika.*

**9.2. Literatura Ikerketa batzordearen hitzaldiak.** Aurtengo otsailaren 19an Literatura Ikerketa batzordeak Donostian eginiko bilkuraren honako hau erabaki zen: 2010eko irailaren 17an goizean ohiko bilera eta arratsaldean, Jean Martin Hiribarren-en omenez, 17:00etatik 18:30etara, ondoko hizlariok mintzaldi bana egitea:

- Jean Haritschelhar: *Hiribarren eta Lore Jokoak.*  
 Ana Toledo: *Hiribarren eta Euskaldunak.*  
 Patri Urkizu: *Iruñeko bestak.*  
 Xipri Arbelbide: *Hiribarren: bizitza eta giroa.*

**9.3. Hurrengo Batzarra:** Apirilaren 30ean izango da Bilbon, beti bezala, goizeko 10etan.

**9.4. Patxi Uribarrenen sarrera-hitzaldia.** Euskaltzain honen sarrera hitzaldia maiatzaren 28an izango da, Aramaion, hileko batzarra egingo den egun berean.

**9.5. Sarako Liburu Azoka.** Apirilaren 5ean, Pazko astelehenean, Sarako Liburu Azokan Euskaltzaindiak 4 liburu aurkeztuko ditu: Gratien Adema «Zaldubi»ren *Kantikak*, eta *Prediku zenbait, Hazparnen eginak* (1854-1860) Henri Duhauk prestaturiko edizioetan. *Jesùs Kristen imitazionea* (1757), Martin Maister-en itzulpena, Jean-Louis Davantek paratua, eta *Birjinia, edo donceil christaba*, Michel Ange Marin fraideak frantsesek 1752an Parisen argitaratu zuen *Virginie, ou la vierge chrétienne. Histoire sicilienne, pour servir de modèle aux filles qui aspirent à la perfection*, obraren euskal testua, itzultzaire ezezagun batek egina eta oraingoan Jose Antonio Mujikak moldiztegirako prestatua. Euskaltzain guztiak gonbidaturik daude ekitaldi horretara joatera.

**9.6. Tolare baserriaren inguruan.** Euskaltzainburuak eta A. Sagarnak azaldu dutenez, Donostiako Udalak berea duen *Tolare* izeneko baseria Euskaltzaindiaren-tzat uzteko asmoa azaldu du. Baserri hori, Euskal Herriko Unibertsitatearen Ibaetako Campus aldean kokatua, zaharberritua da eta oso ondo letorke Akademiaren zereginetarako. Udalaren aldetiko uzkuntza egiteko dokumentuak jada prestaturik daude, eta egin beharreko ukitu eta argitu beharreko arazo ekonomiko batzuk konpondu ondoren, Donostian kokaleku berria laster izango dugula espero da. P. Goenagak eta beste zenbait euskaltzaineek egin dituzten galdera eta argitasun-eskeei ere erantzun diete.

## 10. Azken ordukoak

**10.1. Argitalpenak.** *Erlea* aldizkariaren 2. zenbakia, B. Atxagaren ardurapeko literatur aldizkari honen bigarren zenbakia, oraingoan Irlandako literaturari eskaina, eta *Beñat Oihartzabal Gorazarre* omenezko liburua banatu zaizkie euskaltzainei.

**10.2. Jose Mari Iriondori domina.** Joan den hileko ekitaldira ezin etorriz, oraingoan ohorezko euskaltzainaren domina eman zaio Jose Mari Iriondo jaunari.

Ordu biak laurden gutxiagotan amaitu da bilera.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

# Ageriko bilkura

Donostian, 2010eko martxoaren 26an

Gaur, martxoak 26, egin da Miren Lourdes Oñederra Olaizola euskaltzainaren sarrera-hitzaldia Donostian, Udaletxeko batzar aretoan, arratsaldeko 18:00etan hasita.

Bildu direnak:

- Euskaltzain osoak: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Aurelia Arkotxa, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andoni Sagarna, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Jose Irazu «Bernardo Atxaga», Joseba Andoni Lakarra, Emile Larre, Miren Lourdes Oñederra, Beñat Oihartzabal, Patxi Salaberri, Txomin Peillen, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren, Xarles Videgain, Piarres Xarritton, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide. Ezin etorria adierazi dute Jose Antonio Arana Martijak eta Pello Salaburuk.
- Ohorezko euskaltzainak: Koldo Artola, Gorka Aulestia, Ana Maria Etxaide, Jose Mari Iriondo eta Karmele Rotaetxe. Ezin etorria adierazi dute Pakita Arregik eta Xabier Gereñok.
- Euskaltzain urgazleak: Antton Aranburu, Xipri Arbelbide, Xabier Artola, Jon Aurre, Mikel Bujanda, Iñaki Camino, Pello Esnal, Pilartxo Etxeberria, Izaskun Etxebeste, Pruden Gartzia, Ricardo Gómez, Jazinto Iturbe, Alan King, Itziar Laka, Maria Pilar Lasarte, Jesus Maria Makatzaga, Xabier Mendiguren, Alfonso Mujika, Jose Antonio Mujika, Mari Jose Olaziregi, Lourdes Otaegi, Elixabet Pérez Gaztelu, Paskual Rekalde, Koro Segurola, Pello Telleria, Patri Ur-

kizu, Arantza Urretabizkaia. Ezin etorria adierazi dutenak: Ricardo Badiola, Xabier Erdozia, Jose Ramon Etxebarria eta Iñaki Irazabalbeitia.

– Batzordekideak: Iñaki Aldekoa eta Elena Martinez de Madina. Ezin etorria adierazi du Erramun Osak.

– Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi, Maixa Goikoetxea eta Amaia Okariz.

Xabier Kintana idazkariak, Barne Erregeletako 64.8 eta 64.9 ataletan esaten dena betez, ekitaldi akademikoaren nondik-norakoa azaldu du, eta ekitaldian zehar kasuan kasuko atalari bidea eman.

Odon Elorza alkatearen ongietoriarekin, eta Andres Urrutia euskaltzainburua agurratekin hasiera eman zaio ekitaldiari.

Ondoren, Xabier Kintana eta Joan Mari Torrealda euskaltzainek lagunduta, batzar aretora sartu da Miren Lourdes Oñederra *Drift* izenburuko sarrera-hitzaldia irakurtzen. Erantzuna Miren Azkarate euskaltzainak eman dio, *Ur lasterraren dama* hitzaldiarekin.

### Lourdes Oñederra: *Drift*

*Drift* hitza izenburutzat hartu du Miren Lourdes Oñederrak, hizkuntzaren sena eta izaera ezin hobeto irudikatzen duelakoan; Edward Sapir hizkuntzalariaren *Language* liburua izan du inspirazio, hizkuntzaren aldaketa historikoari dagokion 7. kapituluaren izenburua, hain zuen ere. Uraren edo airearen mugimenduari, edo elementuok eragindako mugimenduari esaten zaio *drift* ingelesez eta, Oñederraren aburuz, «hizkuntza airez eta memoriaz dago egina, hizketa airezkoa da, aire mugimendua, airea mugitzea».

Hori horrela da, bere aztergai nagusia den fonetikari dagokionez ere, «uhinetan mugitzen den hotsa da ahotsa» eta horrek azaltzen du hizkuntza baten etengabeko eraldaketa eta eboluzioa. Finean, «hizkuntzaren etengabeko aldaketa, mugimendua, ur lasterrarena bezalakoa, airearena bezalakoa da, komunikazio behar eta baldintzetara egokitzeko».

«Hotsak urrutia daude gure jakinaren gaineko ezagutzatik. Behar bada horregatik gramatikagileek, idazleek, irakasleek, araugileek ere kasu gutxiago egin izan diote ahoskerari».

Baina berak ulertzen du ahozkoa hizkuntzaren garapenaren giltza dela, hizkuntzaren beraren jatorria bertan dago: «Hizkuntza hizketa egitean bere kasa aldatzen da, hiztunoi baimenik eskatu gabe, baina guk, hiztunok aldatzen dugu, gauzei ize-nak jartzeko beharragatik, gure memoriaren mugengatik, entzuten duguna ulertu egiten dugula sinesteagatik, mundua puskaka, esaldika antolatzearen zaitasunak behin eta berriz gainditu, konpondu nahi izate horregatik, eta, ahoskerari dagokionez, gure entzumen mugengatik, gure gihar alferren lana arintzeko grinagatik... Berrikuntzak, etengabe, hizkuntzaren maila bakoitzaren barreneko gatazkan eta mailen arteko etengabeko norgehiagokan, hizkera eta garaien arabera, noiz eragile bat, noiz beste bat lehenesten delarik».

Bere baitan hartu berri duen Euskaltzaindiaren egiteko nagusia, bere ustez, hizkuntza bideratzea baino, zaintza da, «euskarra behar adina erabili nahi bada, erabilera maila guztietara egokitzeak berebiziko garrantzia du. Hor behar du gure zaintza». Eta bere egiteko partikularrari dagokionez, «ni, euskaltzaineek horretarako deitu izanaren ohoreari ahal bezain ondo erantzuten saiatuko naiz, euskararen hain-ze eta urak olatu bihir ditzaketen zurrubilo guneak bilatuz, aztertuz ur lasterren bideak, *drift* horren nondik norakoak fonema eta doinuen esparruan».

### **Miren Azkarate: *Ur lasterraren dama***

Hitzak bere konplexutasuna du, ñabardura bat baino gehiago, eta askotan hau-tatu egin behar da. «Lourdes Oñederrak –azaldu du Azkaratek– ez zituen hitzak aukeratu ikerketaren munduan murgiltzeko. Bestela esanda, hitzak txanpontzat hartuko bagenu, hauek bezala, bi alderdi dituzzela esango genuke: belarrietara heltzen den hots multzoa, alderdi fonikoa, eta esanahia, hots-multzoak irudikatzen duen objektua, «zera». Euskaltzain berriak hitzak baino nahiago izan ditu hitzak osatzen dituzten hotsak».

Oñederraren azken 30 urteotako ibilbidearen ikerketa-gai nagusiari helduz, Azkaratek adierazi duenez, «letrak irakurtzeko eta idatzeko behar ditugu. Baina hizketa letren eta irakurketaren aurreko da; lehena, jatorria, hizketa da. Eta hizketaaren lehengaiak letrak ez, baina hotsak dira; edo zehazkiago esanda, fonemak». Zaitasunak zaitasun, «aspalditik arduratu da Lourdes Oñederra kanpoko ur-lasterrak gurera ekartzeaz: maileguak nola geureganatzen ditugun, euskara bigarren hizkuntza gisa irakasteak zer eskatzen duen aztertzeaz, euskaraz jabetza nola gerta-tzen den ikertuaz».

Fonetikan eta Fonologian aditua den Lourdes Oñederraren ibilbide profesionalen hainbat geldiune egin du Miren Azkaratek. Gogora ekarri du bere unibertsitate-jarduera –Euskal Herrian zein kanpoan–, gogora ekarri bestelako lanak ere –EiTBN hizkuntza aholkulari, eta ordenagailuek euskal soinua prozesatzeko ikerkuntza proiektu buru, besteak beste– eta Oñederrak jorratu dituen bi iker-lerro nagusiak nabarmendu ditu: «ahoskera arautzeko ahalegina, eta euskara bigarren hizkuntza dutenek ahoskera egokia lortzeko egindako lana».

«Araugileek –gaineratu du Azkaratek– kasu gutxiago egingo zieten (egingo gien) hotsei, baina ez gaur «ofizialki» gure artean hartzen dugun euskaltzainak. Horixe izan da bereziki Euskaltzaindian egin duen lana, bere ekarpena. Ahoskera, ebakera, erregistroak…»

Oñederraren ekarria, baina, ez da horretara mugatzen, hitzak literatura bilakatzeko haren dohainak goratu dituelarik. *Eta emakumeari sugeak esan zion liburuak aipamen berezia merezi du, Azkarateren aburuz, «hala aitortu baitiote irakurleek» eta baita hainbat sarik ere.* Eta horri lotuta, hitz artean murgildutik beste behin, azken aldiko bere itzulpen-lanak gogora ekarri ditu.

Ondoren, Miren Lourdes Oñederrak, Barne Erregelen 64.8. atalean esaten dena betez, «Euskaltzaindiaren xede eta helburuei, eta euskaltzain oso izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela» agindu du. Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoa dela adierazten duten diploma eta domina eman dizkio.

Ekitaldi akademikoa bukatzean opariak eman dizkiote Miren Lourdes Oñederrari: Donostiako Udalaren Txistulari Taldeak Ohorezko kontrapasa jo du eta Martin Barandiaranek –M. Lourdes Oñederraren lehengusus txikiak– dantzatu du; Donostiako Udalaren izenean, Odon Elorza alkateak *Zubietako akten liburua* opari-tu dio; EHUREN izenean, Fernando Garcia Murga Letren Fakultateko dekanoak Ines Gonzalez de Zarate eskultorearen eskultura bat eman dio; Jabier Muguruza musikoak eta Jose Ramon Soroiz aktoreak «Patrick Süskind eta Sommer» jaunen agurra eskaini diote.

Ekitaldia iluntzeko 19:30ean bukatu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

# Bilbon, 2010eko apirilaren 30ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua  
Kintana, Xabier, idazkaria  
Arkotxa, Aurelia, euskaltzainburuordea  
Lizundia, Jose Luis, diruzaina  
Sagarna, Andoni, Iker sailburua  
Iñigo, Andres, Jagon sailburua  
Aleman, Sagrario  
Arejita, Adolfo  
Azkarate, Miren  
Charriton, Pierre  
Davant, Jean-Louis  
Haritschelhar, Jean  
Lakarra, Joseba  
Larre, Emile  
Oihartzabal, Beñat  
Oñederra, Miren Lourdes  
Peillen, Txomin  
Sarasola, Ibon  
Toledo, Ana  
Torrealdai, Joan Mari  
Uribarren, Patxi  
Videgain, Xarles eta  
Zalbide, Mikel.  
  
Pello Telleria idazkariordea, eta, zegozkien gaietan, Patxi Gale eta Mikel Gorrotxategi jaunak.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Aurelia Arkotxak, ahala Lourdes Oñederrari; Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari; Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori; Patxi Goenagak, ahala J. Haritschelharri.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Bilbon, Euskaltzaindiaren Egoitzako batzargelan, ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Etorririko euskaltzainak agurtu ondoen, Euskaltzainburuak batzarrari hasiera eman dio.

**1. Aurreko akta onartzea.** Ez da oharrik jaso eta, beraz, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

**2. Hasi aurrekoak.**

**2.1. Goizeko ekitaldien programa.** Euskaltzainburuak azaldu du ohiko Batzarra goizez izanen dela, 11:45 arte. Ondoren, 12etan, *Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren* lehen bi tomoak aurkeztuko dira jendaurreko ekitaldian. Etorritakoei obra hori formatu

informatikoan emanen zaie. Liburuen pisu handia dela eta, posta gastuak gutxitzeko, horiek paperean eskatzen dituzten euskaltzainei, zeini bere ordezkaritzara, igorriko zaizkie.

**3. Exonomastika. «Europako geografia fisikoa. Oronimia: mendikateak, mendiguneak» onartzea.** J. L. Lizundiak azaldu du joan den hilean mendikate eta mendigune izenekin aurkeztu zen proposamenaren egoera. Oharrak ez da etorri eta, besterik gabe, ontzat eman da.

**4. ECO –Euskal Corpus Onomastikoa– egitasmoari buruzko azalpena.** Andres Iñigok egin du aurkezpena eta, pantailan erakutsiriko eskemen bitartez, egitasmo horren historia eta orain arteko bilakabidea zertan den argitu du. Ondoren, hitza Patxi Galeri eman dio, eta beronek azalpenarekin segitu du.

Izan ere, bi iturri nagusi erabili dira: idatzikoak (bibliografikoak, kartografikoak, etab.) eta informatzaileak (etnografikoak). Kasu guztietaan prozedura zehatza egin da, bai idatzizko eta bai ahozko erak behar bezala identifikatzeko (informatzaileen izen-deiturak, bilduriko informazioaren kokapena, forma idatiak arautzeko irizpideak, etab.). Hortik datuak metatzeko sistemetara pasatu da, hots, datutegi eta aplikazioetara, bai administrazioan lan egiteko eta bai Euskaltzaindiari kontsultak egiteko modua eguneratzeko ere.

Jendearen erabilera eta eskariagatik, garrantzi berezia dute, noski, pertsonalizenen, deituren eta lekuaren morfologia eta grafia zuzenek, eta horretarako erabili diren irizpideen azalpenak ere bai.

P. Galek kontsultarako bideak zabaltzea proposatu du, berori batzordekide eta batzordeen lanekin osatuz joan dadin, euskaltzainen eskuko eta webgunea publiko bilaka dadin. Jada Onomastika batzordearen tresna da, irizpidegintza osatu eta era-bakien berme finkoa gerta dadin. Horri esker datutegia etengabe eguneratu eta emendatu ahalko da. Lan makroetatik ikerketa mikroetara iragateko asmoa dago, herriz herri egindako ikerketa partikularrekin aberasteko. Jada aurkibide nagusia prestatzen hasiak dira, hor deiturak, pertsona- eta leku-izenak, eta era dokumentalak, beren arautze-irizpideekin biltzeko.

Horri buruz, J. L. Lizundiak esan duenez, Euskaltzaindiak hedabideetatik eskari konkretuak jaso ditu: hondartzen euskal izenak, adibidez, Euskal Telebistatik eska-tuak, edo mendateen izenak, Euskal Herriko Itzulikoak, kasu, inoiz estatuko pro-grametan gaizki aipatuak.

J. Lakarrak zorionak eman dizkio P. Galeri eta galdeku ea datutegi horretan *Onomastikon Vasconiae*-koak ere sartuak ote diren, bai eta lekukotasun zaharrak

aurkitzeko zein bide erabili behar den ere. P. Galek erantzun dio lan mikroak orain-dik ez daudela sarturik, salbuespen gisa baizik (A. Iñigoren eta P. Salaberri-ren doktorego tesietako datuak, adibidez). Halere, iturri eta kartulario zaharretako testuak kontsulta daitezke, eskatuz gero.

A. Arkotxak kartografia fisikoa ere nahi luke, tokia zehazki kokatzeko. Okerrak zuzentzeko procedura zein den azaldu du P. Galek. Arlo horretan, zuzenketak egiteko eta lekuak kokatzeko, A. Sagarnak Google etxearekin eginiko gestioak azaldu ditu. J. L. Lizundiak ere kantsiderazio batzuk egin ditu, zenbait lan desiragarrien finantziaketaaz. Lan mikroen txanda pixkanaka badatorrela aipatu du A. Iñigok. P. Galek ikertzaileekin kolaboratzeko gogoa erakutsi du.

**5. Kudeatzaile berriaz.** Euskaltzainburuak azaldu duenez, Euskaltzaindiko kudeatzaile posturako probetan azken aldian gelditutiko lau hautagaietik apirilaren 21ean bilerak eta elkarritzetak egin dira, eta horien ondoren, lauetatik bi auke-ratu dira. Epaimahaiak beste elkarritzeta batera deituko ditu bi horiek maiatzaren 4an. Kudeagintzaren ikuspegitik biak ongi hornituak direla azaldu du. Horrez gainera, J. L. Lizundiak hautagaiei puntuazioa ematearen garrantzia azpimarratu du, behin bat hautatu ondoren, horrek postuari uko eginez gero beroren hurrengoa-gana jo ahal izateko.

## 6. Eskuartekoak

**6.1. Henrike Knörr-en heriotzaren bigarren urteurrena.** Euskaltzainburuak gogorarazi du joan den apirilaren 30ean Henrike Knörr Borrás euskaltzain zendua-ren bigarren urteurrena izan zela.

**6.2. Euskaltzaindia R.A.E.ra bisitan.** Spainieraren Errege-Akadiemaren goni-bitari erantzunez, apirilaren 12an A. Urrutia Euskaltzainburua eta A. Sagarna Iker Sailburua Madrilera joan ziren, R.A.E.en egoitzara. Bertan, era berean gonbidatuak ziren katalan eta galiziarrordezkariekin bilera egin eta Espaniako Hizkuntza Akademien arteko elkarlanerako hitzarmenaren zirriborroa prestatu zuten, geroago, Akademia bakoitzaren zuzendaritzak ikusi eta berretsi ondoren, sinatzeko. Euskaltzaindiko Zuzendaritzak hitzarmen hori apirilaren 28ko bilkuran onartu zuen. *Real Academia Española*-rako bisitaz baliaturik, bilera tekniko bat egin zuten, bertan dihardutenek hizkuntza arloan lan egiteko darabiltzaten metodologia eta prozedurak ikusteko. A. Sagarnak horien xehetasunak azaldu ditu.

**6.3. Nafar Gobernuarekiko hitzarmena.** Herenegun, apirilaren 28an, Iruñeko Diputazioaren Jauregian Nafarroako Gobernuarekiko aurtengo hitzarmena sinatu zen.

**6.4. Jaurlaritzak Euskaltzaindiari Batzorderako kide bat eskatu dio.** Eusko Jaurlaritzak Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzorderako kide bat proposatzea eskatu dio Euskaltzaindiari. Eskari horri erantzuteko, Zuzendaritzak orain arteko ordezkarri bera izendatzea erabaki du apirilaren 16an, hots, J. L. Lizundia Askondo jauna. Berretsi egin da izendapena.

**6.5. Kultura Ministerioaren Sari Nazionalak.** Espainiako Gobernuaren Kultura Ministerioak bere Sari Nazionalen Epaimahaiak osatzeko, 2010eko martxoaren 24ko gutunean Euskaltzaindiari bidaliriko epaimahaikide-eskariari erantzunez, Literatura Ikerketa batzordearen proposamena aztertu ondoren, pertsona hauek proposatzea erabaki zuen Zuzendaritzak aurtengo apirilaren 16an:

*Narratiba:* Felipe Juaristi

*Poesia:* Lourdes Otaegi

*Antzerkia:* Arantxa Urretabizkaia

*Saiakera:* Sebas Gartzia Trujillo

*Haur eta Gazte Literatura:* Manu Lopez

Zuzendaritzak, bestalde, pertsona hauek proposatu ditu sari hauetarako:

*Letras Españolas:* Joseba Lakarra

*Itzulpena:* Xabier Kintana

Proposaturiko izen horiek guztiak onartu dira.

**6.6. Premio Nacional de Periodismo Cultural.** Era berean, Espainiako Gobernuaren Kultura Ministerioak eskabidea egin dio Euskaltzaindiari aurtengo Premio Nacional de Periodismo Cultural-en epaimahairako ordezkarria izenda dezan. Zuzendaritzaren proposamenez, Luis Alberto Aranberri «Amatiño» kazetari, idazle eta euskaltzain urgazlea izendatzea erabaki da.

**6.7. Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa 2010 saria.** Erakunde bi hauek urtero antolatzen duten sarirako proposamenak egiteko azken eguna dela gogoratu du A. Urrutiak. Zuzendaritzak, bere aldetik, ez du kandidaturik aurkeztu. Beste euskaltzainengandik proposamenik izan ez denez gero, Euskaltzaindiak ez du inor aurkeztuko sari horretara.

**6.8. Colonos Kultura Elkartearen eta Udineko Unibertsitatearen literatura jardunaldia.** Italiatik gonbita jaso da, Colonos Kultura Elkarteak eta Udineko Unibertsitateak hizkuntza minorizatuen literaturaz aurtengo maiatzaren 26an antolatuko duten jardunaldira joateko. Zenbaitzuek hara joateko interesa lukete, baina gelditzen den hilabeteko tarteari laburregi iritzi diote partaidetza behar bezala.

la antolatzeko. Halere, norbaitek joateko asmorik balu, Euskaltzaindiari lehenbait-lehen jakinarazi beharra adierazi da.

#### 7. Azken ordukoak

**7.1. Adrian Zeliaaren omenaldirako gonbita.** Sestaoko Udalak eta Euskal-riaren Adiskideen Elkarteak Euskaltzaindira gonbita bidali dute, aurten maia-tzaren 8an, goizeko 11etan Adrian Zeliaia jaunaren omenez Sestaoko musika Eskola-koko Ekitaldi Aretoan antolatu duten ekitaldira joateko. Joatea berresteko, interesatuek gonbitean bertan ageri den helbidera jo dezakete.

**7.2. Txomin Peillenek Manuel Lekuona Saria jasoko.** Txomin Peillen euskaltzainak Eusko Ikaskuntzak 2009an antolaturiko Manuel Lekuona saria jasoko du maiatzaren 22an, goizeko 10etan, Baionako Herriko Etxean izanen den ekitaldian. Euskaltzainburuak zorionak eman dizkio eta euskaltzain guztiak ospakizun horre-tara joatera gonbidatu ditu.

**7.3. Hurrengo batzarra Aramaion.** Euskaltzaindiaren hurrengo batzarra maiatzaren 28an, Aramaion, goizeko 10:00etan izango dela gogoratu du A. Urrutiak. Egun berean, arratsaldeko 6:00etan, Patxi Uribarrenen sarrera-hitzaldia egingo da.

#### 7.4. Euskaltzaindiak banaturiko liburuak.

Euskaltzainen artean ondoko obrak banatu dira:

Gratien Adema «Zaldubi»ren *Kantikak*, eta *Prediku zenbait, Hazparren eginak* (1854-1860) Henri Duhauk prestaturiko edizioetan.

Jesü Kristen *imitazionea* (1757), Martin Maister-en itzulpena, Jean-Louis Davantek paratua. *Birjinia, edo doneceil christaba* obraren euskal testua, Jose Antonio Mu-jikak moldiztegirako prestatua.

*Plazaberri* (6. zenbakia)

*Euskararen Herri Hizkeren Atlasa*-ren I. eta II. liburukien CDak.

Hamabiak laurden gutxiagotan amaitu da bilera.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

# Ageriko bilkura

Bilbon, 2010eko apirilaren 30ean

Gaur, apirilak 30, egin da *Euskararen Herri Hizkeren Atlasa*-ren I. eta II. liburu-kien aurkezpena, Euskadiko Kutxarekin batera, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, eguerdiko 12:00etan hasita.

Bildu direnak:

- Euskaltzain osoak: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Aurelia Arkotxa, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andoni Sagarna, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagor sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Jean-Louis Davant, Jo-seba Andoni Lakarra, Emile Larre, Miren Lourdes Oñederra, Befiat Oihartzabal, Txomin Peillen, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren, Xarles Videgain, Piarres Xarritton eta Mikel Zalbide. Ezin etorria adierazi dutenak: Patxi Goenaga, Pello Salaburu, Patxi Salaberri eta Patxi Zabaleta.
- Ohorezko euskaltzainak: Koldo Artola, Ana Maria Etxaide, Jose Mari Iriondo eta Karmele Rotaetxe. Ezin etorria adierazi du Xabier Gereñok.
- Euskaltzain urgazleak: Jon Aurre, Ricardo Badiola, Jose Luis Erdozia, Xabier Erdozia, Jose Mari Etxebarria, Patxi Galé, Sebastian Gartzia Trujillo, Pruden Gartzia, Juan Luis Goikoetxea, Mikel Gorrotxategi, Juan Antonio Letamendia, Xabier Mendiguren, Abel Muniategi, Manuel Ruiz Unrestarazu eta Pello Telleria. Ezin etorria adierazi dutenak: Jose Ramon Etxebarria eta Elixabete Perez Gaztelu.
- Batzordekideak eta egitasmoetakoak: Aritz Abaroa, Kasildo Alkorta, Gorka Intxaurebe, Amaia Jauregizar, Elena Martinez de Madina, Manu Ormazabal, Erramun Osa.
- Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi, Iñaki Kareaga eta Amaia Okariz.

Xabier Kintana idazkariak egin du ekitaldiaren sarrera eta hitza eman die parte hartu dutenei.

### **Andres Urrutia euskaltzainburuaren ongietorria**

Bertaratu direnei ongietorria eman ondoren, bere poza adierazi du Euskaltzainburuak, gaur Atlasaren lehen emaitzak kalean ikustean. Euskaltzaindiak Atlastra egitea 1983an onartu zuenetik gaur arte bide luzea egin da. Euskararen erabilieraren emaitza hain aberatsa eskaintzen duen fruitua gizarteratu egin du Euskaltzaindiak, euskal gizartearen eta ikertzaileen eskuetan jarriaz.

Atlasaren lan akademikoan parte hartu duten pertsonak gogorarazi ditu Euskaltzainburuak. Batetik, zuzendariak: Jean Haritschelhar, Beñat Oihartzabal, Andolin Eguzkitza eta Adolfo Arejita. Bestetik, arduradunak: Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain. Azkenik, gainerako kideak: Isaak Atutxa, Iñaki Camino, Ana María Etxaide, Jose María Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Jon Idigoras, Aitor Iglesias, Gorka Intxaurbe, Amaia Jauregizar, Juan Antonio Letamendia, Juantxo Rekalde eta Koro Segurola.

Euskaltzaindiari, erakunde bezala irauteko eta lan akademikoa egin ahal izateko diru-babesa ematen dioten Administrazio ezberdinei eskerrak eman dizkie Euskaltzainburuak: Eusko Jaurlaritza, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundia; Nafarroako Gobernua; Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa; Euskararen Erakunde Publikoa eta, une batean edo bestean Atlastra egitasmoa lagundi duten Akitaniako Kontseilua, Europar Batasuneko Hedadura Gutziko Hizkuntzen Batzordea, Frantziako Irakaskintza eta Ikerkuntza Ministerioa, Europako Harremanteako Ministerioa, eta Baionako Euskal Ikerketa taldea (CNRS, Michel de Montaigne – Bordele 3ko Unibertsitatea eta Pauko eta Aturrialdeko Unibertsitatea – UPPS).

Atlasaren I. eta II. liburukien argitalpena finantzatu duen Euskadiko Kuxarentzat izan dira hurrengo esker onezko hitzak, bereziki pertsona hauek izan duten parte harteza aipatuz: Txomin Garcia, Julio Gallastegi, Juan Cid eta Iñaki Gorroño jaunak.

Atlastra argitaratu ahal izateko, egin duten lanagatik aipatu ditu, halaber, Euskaltzaindiko hauek: Jose Antonio Arana Martija, Jose Luis Lizundia eta, bereziki, iazko azaroan hil zen Juan Jose Zearreta kudeatzalea.

Azkenik, Atlastra egin ahal izateko beren ahotsa eskaini duten informatzaileak izan ditu gogoan Euskaltzainburuak, adieraziz beste ekitaldi batean eskertuko diela Euskaltzaindiak beren hizkeren lekukotasuna.

**Adolfo Arejita, Euskararen Herri Hizkeren Atlasa-ren zuzendaria**

Egitasmoaren Zuzendariak, lanari ekin zitzaionetik liburukiak argitaratu diren arte egin pauso nagusiak aipatu ditu labur-labur.

Guztira 2.877 kontzepturen galderak jasotzen dituen galde sorta prestatu zen: lexicoari buruzkoak gehien-gehienak, 2162; morfologiaren gaine koak, izen eta aditzarenak ere asko: 596; sintaxiaren gaine koak, 62, eta azkenik fonetikazkoak, 37. Pertsona hauek jardun zuten inkestagintzan: Isaak Atutxa, Gotzon Aurrekoetxea, Ana Maria Etxaide, Jose Mari Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Koro Segurola eta Xarles Videgain. Euskal Herriko 145 herritan egin ziren inkestak: Bizkaian 36, Araban 1, Gipuzkoan 36, Nafarroan 27, Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 11.

Inkestaren emaitza guztiak grabazioz jaso ziren. Horren guztiaren emaitza da, Euskaltzaindiak bere artxiboan gaur gorderik duen 4000 ordu inguruko altxorra. Euskarri digitalean eta berme onez gorderik dago ahotsezko altxor hori.

Jasotako erantzunak kuaderno etan bildu ziren, eta ondoren informazio hori guztia ordenagailuan sartzeari ekin zitzaion. Azkenik, mapak elaboratzen eta paperezko edizioa prestatzen jardun da.

Adolfo Arejitak, egitasmoan parte hartu duten guztiei eskerrak eman ondoren, Atlasa egiteko bildu den hizkuntza-corpus bikainaren garrantzia azpimarratu du, Euskaltzaindiak beste zenbait xede akademikotarako erabil dezakeena.

**Beñat Oihartzabal, Euskararen Herri Hizkeren Atlasa-ren I.  
liburukiaren arduradun akademikoa**

Atlasaren I. liburukiari buruzko oinarrizko azalpenak eman ditu Beñat Oihartzabalek. Erantzunek, mapek, oharrek eta indizeek osatzen dute liburuaren edukia. Gai hauei buruzko edukia azaltzen da I. liburukian, 268 galderatan sakabanatua: intsektuak, arrainak, narrastiak, txoriak, piztiak, zerua eta eguzkia, eguraldia, elurra eta hotza.

Argitalpena zein modutan eskaintzen den azaldu du: paperean, CDan eta webgunean. Ondoren, argitalpenaren edukiaz eta erabileraz hobeto jabetzeko adibideak erakutsi ditu ordenagailu bidez: herrikako bilaketa nola egin, erantzunen zerrrenda, erantzuna nork nola emana izan den eta iruzkinak, galderakako bilaketa,

galdera jakin baten erantzunak herrika, herri bateko erantzunen barnean, nork bere mapak nola egin, eta abar.

Eskerrak eman dizkie egitasmoaren bideratzaleei, inkestagile eta transkribatzaileei, lehen liburukiko datuen informatizatzaileei, lehen liburukiko mapen moldatzaleei, informatika lanen egileei eta, azkenik, Andolin Eguzkitza zenari.

### **Txomin Garcia, Euskadiko Kutxaren burua**

Euskaltzaindiaren lankide izatea Euskadiko Kutxarentzat ohore handia dela esanez hasi da hizketan Txomin Garcia jauna, eta ondoren ekitaldira bertaratu direnak agurtu ditu. Euskaltzaindiaren eta Euskadiko Kutxaren arteko elkarlana azpimarratu du, Atlasaren lehen bi liburukiak argitaratu ahal izateko alde bakoitzak bere arloari zegozkion eginkizunak bete dituelako. Euskadiko Kutxak elkarlanean daramatzan 50 urteak gogorarazi ditu, eta hasieratik bertatik euskal kulturarekin eta euskararekin izan duen konpromisoa ere bai. Gaur aurkeztu diren bi liburuエンtzako Euskadiko Kutxak eman duen babesera ere borondate horren frogada. Euskaltzaindiarenkiko lankidetzak etorkizunean ere jarraipena izan dezan opatuz amaitu du hitzaldia Txomin Garcia jaunak.

Ekitaldia eguerdiko 13:00ean bukatu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

# Aramaion, 2010eko maiatzaren 28an

Urrutia, Andres euskaltzainburua,  
Kintana, Xabier idazkaria,  
Arkotxa, Aurelia euskaltzainburuordea,  
Lizundia, Jose Luis diruzaina,  
Sagarna, Andoni Iker sailburua  
Iñigo, Andres Jagon sailburua,  
Aleman, Sagrario,  
Charriton, Pierre,  
Goenaga, Patxi,  
Haritschelhar, Jean,  
Lakarra, Joseba,  
Larre, Emile,  
Peillen, Txomin,  
Salaberri, Patxi,  
Salaburu, Pello,  
Toledo, Ana,  
Torrealdai, Joan Mari,  
Uribarren, Patxi eta  
Videgain, Xarles euskaltzainak.  
  
Pello Telleria idazkariordea, eta, zegozkiengaietan, Patxi Galé, Alfonso Mujika, Antton Gurrutxaga eta Mikel Gorrotxategi jaunak.

## Ezin etorriak eta ahalak:

Adolfo Arejitak, ahala J. L. Lizundiari; Jean-Louis Davantek, ahala Txomin Peilleni; Joxe Irazu «Bernardo Atxag»k, ahala A. Urrutiari; Miren Lourdes Oñederrak, ahala A. Arkotxari; Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori; Mikel Zalbidek, ahala A. Urrutiari; A. Urrutiak, ahala, egon ez den tartean, Xabier Kintanari.

Batzarra goizeko 10:15ean hasi da Aramaioko Udalaren batzar aretoan, ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak beranduago etorri behar izanez, etorririko euskaltzainak agurtu ondoren, Idazkariak eman dio hasiera batzarra.

**1.- Alkatearen agurra.** Asier Agirre jaunak, Aramaioko alkateak, batzar aretora etorrita, bertan bilduriko euskaltzainak agurtu eta ongi etorria

eman die. Xabier Kintana idazkariak, Euskaltzaindiaren izenean, alkateari eskainitako harrera ona eskertu dio.

**2. Aurreko akta onartzea.** Ez da oharrik jaso eta, beraz, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

**3. Onomastika. Euskar Herriko ibaien izenak: 1. zerrenda aurkeztea.**

A. Iñigok egin du 373 ibaien izen-proposamenaren aurkezpen laburra. Ondoren, hitza Mikel Gorrotxategi eta P. Galeri eman die. M. Gorrotxategik, aurkezturiko lanaren prozedura azaldu du. P. Galek pantailan ibai nagusien mapa erakutsi du, hots, Euskal Herriko hidronimia nagusia. Hor, zeintzuk ibai kontuan hartu eta zeintzuk baztertu diren argitu du. Zerrendak atalka prestatu direla azaldu du. Alde batetik, Bizkaiko itsasora doaznenak, 3 zatitan, eta ondoren Mediterraneo alderakoak. Ibaien ondoko herri batzuen izenak ere jarri dira mapetan, kokatzeko lagungarri.

P. Goenagak ibai baten izenaz galdetu du (*Goiolako deritzonaz*). P. Galek eta J.L. Lizundiak, erantzutean, era bitxi horretako ibai-izen mugagabeen formaz argitasunak eman dizkiote.

P. Uribarrenek Bizkaiko Diputazioak argitaraturiko ibaien arrantza-mapa kontruan hartu ote den galdetu du, eta P. Galek baietz erantzun dio. P. Goenagak –ko amaieradun ibai-izenak bertakoek nola darabiltzaten jakin nahi izan du. P. Galek, bilduriko datuen arabera erantzun dio. J. M. Torrealdaik errekastoen izenei eman-dako tratamenduaz galde egin dio. P. Galek, ordea, oraingoan hidronimo nagusiak besterik ez direla ikertu azaldu du, dagoen eskariari erantzuteko.

Oharrak egiteko, Andres Iñigok ekainaren 15era arteko epea dagoela gogorarazi du.

**4. Exonomastika. Europako geografia fisikoa. Mendi eta uharte izenen azken atala aurkeztea.**

Aurkezpenean, J. L. Lizundiak mendi horietako batzuen garrantzi geografikoa eta historikoa nabarmendu du, eta zenbaitzuen izena, bertako hizkuntza batzuetan ez dela ofiziala gogorarazi (aragoierazkoak, adibidez). Ondoren hitza Alfontso Mujikari eman dio, eta berorrek aukeraren arrazoia azaldu ditu: Europako mendi handienak eta historiko-mitologikoak, adibidez. Kasu konkretu batzuen berezitasunak ere azpimarratu ditu.

J. Haritschelharrek: *Isla de los faisanes* delakoaz galdetu du. A. Mujikak gogoratu du oraingo zerrenda hau Exonomastikari dagokiola da, eta ez Euskal He-

rrikoari. P. Charritonek eta A. Arkotxak Monte Perdido-ren izenaz galduet dute. Erantzuna J. L. Lizundiak eman die: kokaera, inguru hartako hizkuntza, eta beste xehetasun batzuk. Tx. Peillenek *Quirinal-i* buruzko oharra egin du. Entzun ondoren, J. L. Lizundiak ohar hori idatziz bidaltzeko eskatu dio. Era berean, *Balaitus* deritzonaz zenbait azalpen eman du J. L. Lizundiak, ingeles, frantses, katalan, aragoiera eta okzitanierazko erak kontuan harturik. Oharrak bidaltzeko epea: ekainaren 15ra arte.

##### 5. Zientzia eta Teknika Hiztegia Biltzeko egitasmoari buruzko azalpena.

X. Kintanak arlo horietako euskal lexikoa bildu eta moldatzeko egitasmo honen historia laburra egin du. Horretaz izan diren saioak, usteak eta aurreiritziak gogorarazi ditu, eta euskara zientzia eta kulturarako gai izan zitekeen ala ez eztabaidatzen zuten jarrerak ere. Euskara irakaskuntza ofizialean sartu eta gure hizkuntza ofiziala bilakatu denetik egindako pausoak eta lorpenak aipatu ditu, eta orain arte zientzia eta teknika arloan landuriko lexikografiaren lagin zabal bat Euskaltzaindiaren hiztegian txertatzeko premia ere azpimarratu du. Ondoren, Euskaltzaindian helburu horrekin antolaturiko batzordeak orain arte erabiliriko prozedura eta jada egindako urratsak azaldu ditu. Ondorioz, aurten lehenbiziko zerrenda, Matematikari dagokiona, prest izango dela iragarri du.

Ondoren, hitza Antton Gurrutxagari eman eta beronek, Zientzia eta Teknika Hiztegia biltzeko helburuaz, Euskaltzaindiak onarturiko egitasmoaren oinarriak, abiapuntuak, helburuak, hedadura eta metodologia aztertu ditu, ondoren, urrats nagusiak eta baliabideak (testuak eta materialak) jorratzeko. Espezialitate-arloetako adituen jakintzaz baliatzeko, Oinarrizko Hezkuntza, Batxilergo, Unibertsitate eta ikertzaile, profesional eta teknikariekin lan egin beharra aurreikusi da, ondoren, Hiztegi Batuko espezialitate-arloko hiztegi unitateen bilketari ekiteko. Hor Hiztegi Batuko bertsioak (*a-f* argitaratua (EArau), eta *g-z* EArau + HBLren proposamen berriak hartu dira kontuan.

Ondoren Unitateak erauzteko irizpideak azaldu ditu: Hiztegi Batuan arlo-marka duten sarrera-azpisarrerak, batetik, eta, bestetik, azpisarrerak eta arlo-markarik izan gabe ere, espezialitate-arloko erabilera finkatzen duten sarrera-azpisarrerak. Jada Hiztegi Batuan finkaturiko lexikoa alde batera utzirik, arlokako banaketa horretan zenbana hitz sartu, izan da galdera. Oinarriz, batez beste, 200na hitz sartzea litzateke helburua, zientzia eta teknologia arloak nolabaiteko orekan egoteko.

Bere hitzak paperean inprimaturiko azalpen, eskema eta etsenpluekin argitu ditu A. Gurrutxagak.

Ondoren, P. Salaberrik terminologia berezi horretako arazo batzuk aipatu eta arlo ezberdinei dagozkiekeen hitzen kasua mahairatu du: *erro* adibidez (Bot. eta Mat.), horrek desoreka eta nahasbidea sor lezake eta. A. Gurrutxagak, horretarako, zerrenda argitaratu baino lehenago, arloak ongi egokitutako behar direla azaldu du. A. Sagarnak Euskaltzaindiaren beste hiztegiekin koordinazioa egin beharko dela esan du. P. Salaburuk, berriz, erabili beharreko corpusen berri eskatu du. Baina, zoritzarrez, horrenbesteraino sosik ez aurrekonturik ez dagoela erantzun zaio.

#### **6. Hiztegi Batua (2. itzulia) batzorde ahaldunduaren proposamena aurkeztea.**

A. Sagarnak aurkeztu eta irakurri du, eta orain arte jorraturiko hitz eztabaiderak idatziz banatu. Abisu orokor gisa, eta prozedura moduan, lehenago oharrak egindakoek ezingo dute ohar beririk egin. Zuzenketa bidaltzeko epea ekainaren 15era arte izanen da.

#### **7. 2010eko aurrekontuak**

Euskaltzainburua ekonomi egoera larriaz mintzatu da. Une honetan hitzarmen berria negoziatzen ari da, pertsonalaren egonkortasuna segurtatu eta beherapenak ahalik eta gutxien egin daitezen. 2010eko aurrekontuak banatu dira eta J. L. Lizundiak azaldu ditu, bai eta horien gorabehera nagusi eta aipagarrienak nabarmendu ere.

Litekeen irtenbide bat Fundazioa martxan jartzea litzateke. Horretaz, A. Urrutiak RAE-ren sistema berria azaldu du. Espainiako Akademiak ez du fundazioaren dirua administratzen, baina bai, programa eta premien arabera, behar duena hari eskatzen. Nolanahi ere den, murrizketak egin beharko dira, etsenplua euskaltzainen artean emanez. Beharrezkoa izango da urtero auditoriak egitea. Goenagak galdeitu du ea euskaltzainei aurrekontuez zer eskatzen zaien: onartza ala zuzenketa eskaintza. Euskaltzainburuak Osoko Batzarrari 2010eko aurrekontuen behin-behineko onarpena eskatu dio, bai eta, bere kasuan, azken orduko zuzenketa edo egokitzapenak egin behar izanez gero, Zuzendaritzari horretarako baimena ematea ere. P. Goenagak galdeitu du ea proiektu guztiak ziurtzat ematen diren eta fundazioko diruak zertan diren. Azalpena eman ondoren, euskaltzainburuaren eskariak ontzat eman dira.

**8. Kudeatzaile berriaren aurkezpena.** Euskaltzainburuak Joseba Zabaleta Zendagorta jauna, kudeatzaile berria, aurkeztu du, 90 kandidaturen artean lehiaketaz hautetsia. Bere merezimendu nabarmenez gainera, curriculuma euskaraz

bidali duen bakarra izan dela azpimarratu du Euskaltzainburuak, eta goi mailako zuzendaritzako hitzarmena egingo zaiola Berretsi egin da Kudeatzailearen hau-taketa. J. Zabaletak agur- eta aurkezen-hitz batzuk esan ditu, bere asmoak adierazteko.

#### 9. Esku artekoak

**9.1. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eskaria.** Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak «Euskalherriko literatura itzulpena» modalitaterako saria antolatua du. Horren epaimahairako, Euskaltzaindiari ordezkari bat izenda dezala eskatu dio. Zuzendaritzak, maiatzaren 14an Miren Lourdes Oñederra izendatzea proposatu zuen, eta interesatuak, hala jakinarazi ondoren, onetsi egin du.

**9.2. Kultura Ministerioaren eskaria, hizkuntza ofizialeko itzulpena dela eta.** Espainiako egileek 2010ean egindako lanak Espainiako hizkuntza ofiziale-tara itzuli eta argitaratzeari begira, balorazio-batzorde bat sortu dute. Kultura Ministerioak Euskaltzaindiari bere ordezkaria izendatzea eskatu dio. Ordezkari-tza hori Adolfo Arejitalde eskaintza erabaki du Zuzendaritzak, bai eta berak onartu ere.

**9.3. Patxi Bartzarrikaren Babeli gorazarre liburuaren aurkezpena.** Ekainaren 2an Patxi Bartzarrikaren *Babeli gorazarre liburuaren aurkezpena* egingo da Euskaltzaindiaren egoitzan arratseko 7,30etan. Egileakin batera, Joan Bernat jauna –Kataluniako Hizkuntza Politikarako idazkaria– mintzatuko da. Aurkezpenera joan nahi duenak gonbit-txartelean adierazita dauden telefono edo posta elektronikoan jakinarazi beharko du.

**9.4. Haur Besoetakoaren irakurketa.** Ekainaren 16an, Bilbo Zaharra Euskal-tegiak, azken urteotan bezala, egun osoan zehar liburu baten irakurketa antolatu du Arriaga antzokian. Aurten Jon Miranderen *Haur besoetakoaren irakurriko da*. Euskaltzainak gonbidaturik daude harako, arratsaldeko 17:30 – 18:30 artean. Horretan parte hartu nahi duenak ekainaren 1erako abisatu beharko du.

**9.5. Liburu berria aurkeztu.** Ekainaren 28an, Baionan, Euskaltzaindiak *Hel-duen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian / L'enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord*. deritzon liburu berria aurkeztuko duela iragarri da.

**9.6. Erakusketa Aramaion.** Aramaioko plazako *Sastiña* elizatxoan Euskaltzaindiak Pirinioetako Hizkuntzei eta Aramaioko idazleei buruzko erakusketa jarri du maiatzean. Beraz, nahi dutenek bisita dezakete.

**9.7. Mugarik Gabeko Telebistaren aldeko sinadurak.** Andres Iñigok jakinari duenez, Mugarik Gabeko Telebistaren aldeko sinadurak biltzeko kanpainak arrakasta handia izan du herrialde horretako Euskaltzaindiaren ordezkaritzan, batez ere. Guztira 13.416 sinadura bildu dira, eta antolatzaileei horrela helaraziko zaizkie. Euskaltzaindiaren izenean A. Urrutiak eskerrak eman dizkio A. Iñigori.

**9.8. Hurrengo batzarra.** Euskaltzaindiaren hurrengo batzarra ekainaren 25ean izango da Bilbon, goizeko 10:00etan.

Batzarra 14:15ean amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

# Ageriko bilkura

Aramaion, 2010eko maiatzaren 28an

Gaur, maiatzak 28, egin da Patxi Uribarren Leturiaga euskaltzainaren sarrera-hitzaldia Aramaion, Ibarra elizateko San Martin elizan, arratsaldeko 18:00etan hasita.

Bildu direnak:

- Euskaltzain osoak: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Aurelia Arkotxa, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andoni Sagarna, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Sagario Aleman, Adolfo Arejita, Patxi Goenaga, Joseba Andoni Lakarra, Emile Larre, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Patxi Salaberri, Pello Salaburu, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren, Xarles Videgain, Piarres Xarritton, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide. Ezin etorria adierazi dute Jose Antonio Arana Martijak, Miren Azkaratek, Jean-Louis Davantek, Jose Irazu «Bernardo Atxaga»k eta Ibon Sarasolak.
- Ohorezko euskaltzainak: Gorka Aulestia, Luis Baraiazarra, Joseba Intxausti eta Jose Antonio Retolaza. Ezin etorria adierazi du Jose Mari Iriondok.
- Euskaltzain urgazleak: Dorleta Alberdi, Kepa Altonaga, Jon Aurre, Xipri Arbelbide, Gotzon Aurrekoetxea, Ricardo Badiola, Jose Ramon Etxebarria, Patxi Galé, Pruden Gartzia, Juan Luis Goikoetxea, Jazinto Iturbe, Manu Ruiz Urrestarazu eta Pello Telleria. Ezin etorria adierazi dutenak: Jose Mari Etxebarria, Jesus Maria Makatzaga eta Xabier Mendiguren.
- Batzordekideak: Kasildo Alkorta, Roberto Gonzalez de Viñaspre, Patxi Juaristi eta Manu Ormazabal. Ezin etorria adierazi du Elena Martinez de Madinak.
- Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi, Amaia Okariz eta Itziar Rekalde.

Xabier Kintana idazkariak, Barne Erregeletako 64.8 eta 64.9 ataletan esaten dena betez, ekitaldi akademikoaren nondik-norakoa azaldu du, eta ekitaldian zehar kasuan kasuko atalari bidea eman.

Asier Agirre alkatearen ongietoriarekin eta Andres Urrutia euskaltzainburuaren agurrarekin hasiera eman zaio gaurko ekitaldiari.

Ondoren, Sagrario Aleman eta Miren Lourdes Oñederra euskaltzaineak lagunduta, batzar aretora sartu da Patxi Uribarren Leturiaga *Zirelako gara, garelako izango dira* izenburuko sarrera-hitzaldia irakurtzera. Erantzuna Jose Luis Lizundia euskaltzainak eman dio, *Ganbarruetatik Araba euskaldunera* izeneko hitzaldiarekin.

### ***Patxi Uribarren: Zirelako gara, garelako izango dira***

Ohitura den bezala, berak daraman domina jantzi zuen aurreko euskaltzaina, Henrike Knörr, gogoan izan du Patxi Uribarrenek: «*Bera izan dugu azken mende erdi honetan Arabako euskararen lekukorik eta eragilerik nagusiena.*»

Euskararen transmisioari buruzko gogoeta egitea helburu zuela, euskarak Aramaion egin duen ibilbideaz mintzatu da Patxi Uribarren bere hitzaldian.

Aramaio Euskal Herriaren eta Arabaren mapan kokatu ostean, bertan egiten den euskararen berezitasun nagusiak aipatu eta XX. mendeko une historiko batzuk gogoan izan ditu euskaltzainak: gerra aurreko egoera: «*euskara izan da mendeetan zehar bertako berezko hizkuntza nagusia, bakarra ez esatearren*»; gerrak ekarri zuena: «*Gerrak eta ondoko errepresio frankistak goitik behera aldatu zuten egoera*»; eta gerra ondoko giroa: «*Euskarak izugarrizko zartada jaso zuen. Bat-batean moztu edo urkatu zuten ahalegin handiak eginet berpizten ari zen euskararen aldeko mugimendu osoa. Euskararen landa berdea goitik behera urratu zuten, basamortu gorri bihurtuz. Euskaraz hitz egitea bera ere, hainbat kasutan delitu bihurtzeraino. Sarritan –gaineratu du– ahaztu egiten da guztiau, gerra osteko hainbat euskaldunek seme-alabak euskaraz heztekoi nahiz euskarari eusteko egin zituzten ahaleginak gutxietsiz edota behar den adina ez baloratz. Euskarak mespretxu ugari eta pertsekuzio gogorra jasan zituen. Beraz, ez dezagun ahaztu, euskara gaur egungo egoera larrira, neurri handi batean, gerra ondoko errepresio horren ondorioz etorri dela.*».

Hala eta guztiz ere, Patxi Uribarrenek esan duenez, 1940tik 1960ra, Aramaion «*euskarak, oztopoak oztopo, oso indartsu jarraitzen zuen Ibarra bertan ere, irakaskuntza eta administrazioa gaztelania hutsean izan arren*».

60ko hamarkadan, baina, aldaketa sakonak gertatu ziren Aramaion: «*Baserri bizitzaren gainbeheraren ondorioz, zeharo aldatu zen bertako biztanleen banaketa*». 1969an, Santutxuko gau-eskoletan jardunean zebilela, eliz ikasketak amaitu eta apaiz eginda gero, Uribarren herrira itzuli zen eta, aitortu duenez, «*bihozkada gogorra jaso nuen, Ibarrako kaleetan erdara nagusitzen ari zela ikustean*».

Egoera aldatze aldera, herriko talde bat lanean hasi zen. Hitzaldiak antolatu zituzten, alfabetatzeko eta euskara tituluak ateratzeko ikastaroak egin... Hala ere, datu zehatzei erreparatuz gero, ondorio argia atera zuen Uribarrenek: «*Abiadura handiz atzeraka zihoa euskara*». Egoera horri aurre egiteko neurri batzuk martxan jarri ziren. Aldi berean, «*diktaduraren azken urteetan, hainbat aldaketa politiko eta linguistiko izan genituen Euskal Herrian*». Kooperatiben mugimendua eta ikastolak aipatu ditu Uribarrenek, baita «*Pacem in terris*» entzikliko ere, «*bete-betean aldarrikatzen zuelako hizkuntza propioa izateko gure herriak duen eskubidea*». Azkenik, «*1970eko hamarkadan euskararen alde eman ziren egintza ugariek hainbatean hobetu zuten Aramaiko euskararen egoera*».

1980tik aurrrera, Uribarren esanetan, «*euskarari lekua egin zitzaiion irakaskuntza publikoan, administrazioan eta beste hainbat lekutan. Gertakari horiek eragina izan zuten Aramaion ere, hainbatean euskararen aldeko joerak indartuz*».

Azken ikerketa linguistikoaren datuek erakusten duten bezala, erronka berriak ditugu euskaldunok. Teknologia berrieik eta globalizazioak iraultza ekarri dute, Pataxi Uribarren esanetan. Bizimoduak ere aldatu egin dira, asmo onak ezerezean geratzen dira: «*Euskaldunok euskaraz bizitzea ahalbidetuko digun gizartea behar dugu. Oraindik ez digute aitortzen euskaldunoi Euskal Herrian euskaraz bizitzeko eskubidea. Bizitzako hainbat unetan eta tokitan erdara erabiltzera behartzen gaituzte. Ez da oraingo egoera larri hau aldatzeko benetako urretsik ematen. Txarrago oraindik, azken aldian, sarriegi Euskal Herrian zehar kontrako egintzak ikusten ari gara.*»

Bada Aramaion konponbiderako itxaropenik, Uribarrenek adierazi bezala. Herria UEMAn da, berton euskararen ezagutza-maila oso handia da, euskararen alde lan egiten duten elkartearak badira..., baina konpromisoak behar dira, eta inguruko udal ordezkariei zuzendu zaie, dei eginez «*euskararen aldeko ahaleginetan batera jardutera, gure herriaren etorkizun euskalduna jokoan dugu eta. Zuen taldeetako 10 pertsonek beti euskara erabiltzeko konpromisoa hartu ezkero, iraultza gertatuko litzateke herrian nahiz etxeetan*».

Azkenik, Euskal Herri osoan euskararen alde diharduten erakunde eta pertsonen lana eskertu eta euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatu du: «*Ez dutuste*

mundu zabalean, hizkuntzaren alde Euskal Herriak egin duen adinako ahalegina egin duen herri asko izango denik. Euskaldunok Euskal Herri euskalduna nahi dugula erakutsi dugu era askotara, behin eta berriro Euskal Herri osoan euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatuz. Argi adierazi dugu aurreko belaunaldiak jaso dugun euskara etorkizuneko belaunaldiak eskaini nahi diegula».

### **Jose Luis Lizundia: Ganbarruetatik Araba euskaldunera**

Bere erantzunaren hasieran, Jose Luis Lizundiak euskaltzain oso berriaren ezaugarri pertsonal zein profesionalak nabarmendu ditu, haren biografiaren punturik adierazgarrienak gogora ekarriz, besteak beste, karmeldarretan egindako bidea, mundu hark hurbildu baitzen behin betiko euskarara: «*Euskal munduan sartzea, egoera anormala izan arren, normala suertatu zitzaison Patxiri Aita Santi Onaindia, Aita Lino Akesolo, Aita Migel Mari (Markinako bertso-egunak antolatzen zituena), Aita Luki, Aita Fidel, Aita Martin eta beste hainbat karmeldar idazle famatu ezagutzean».*

Lizundiak Uribarrenek 60ko hamarkadan gauzatu zuen lanaren garrantziaz ohartarazi ditu bertan bildutakoak, garai hartan mezak euskaraz prestatzeko lehenengoetarikoa izan baitzen, edota alfabetatze-euskalduntzean buru-belarri murgildu zelako. Halaber, ez du ahaztu nahi izan Patxi Uribarren Bizkaiko Foru Aldundiaren lehen itzultailea izan zela.

Akademiaren baitan harreman zuzena izan du Uribarrenekin: «*Euskaltzaindiaren atxikimendu sendoa aspaldikoa dela berma dezaket, hasi 60ko hamarkadaren bukaeran Erribera kaleko egoitza zaharretik eta Plaza Barriko gaur egun artio. Bere biobibliografiari erreparatzen badiozue, argi ikusten da erakunde akademikoarekin izan duen partaidetza leial eta oparoa.*»

Berbaldiaren bigarren partean, berriz, Lizundiak Patxi Uribarrenen euskalkiarenen eremua izan du mintzagai nagusi, «*Araban euskaldungoaren berezko eremua Aramaioko eremura mugatzen den topikoa gezurtatzeko*». Horretarako, hamaika datu eta testigantza aipatu ditu, horietarik asko berak bilduak edota lekukotuak, Zigoititik hasi eta Aguraineraino.

Gerra ostean Legution euskararen kontra izandako zapalkuntza-prozesua, Urbinan duela hamar urtera arte bizi ziren azken euskaldunak, Ubarrundiako azterketa toponimikoa azaleratzen ari den datuak, XIX. mendean, Agurain Barrutiko Auzi-

tegiak euskaldunentzat interpretari bat zuela. Horiek guztiak frogatzen dute Arabak ere euskara duela hizkuntza propio.

Bere esanetan, «*gure hizkuntza propioaren geolinguistika ikuspegitik Arabaren euskal eremu garaikidea ez da hain txikia, are gutxiago, topikoei eta ez ezagutzeari jarraiki Aramaioko Gainbarrura ezin da mugatu. Askoz zabalagoa da edota izan da azken mendean».*

Etorkizunera begira, errealtitate hori aintzat hartuta, euskararen normalizazioaren sustapena Euskaltzaindiaren eginkizuna ere badela uste du, eta Patxi Uribarrenen ekarpena ezinbestekoa izango da aurrerantzean ere.

### Diploma ematea

Ondoren, Patxi Uribarrenek, Barne Erregelen 64.8. atalean esaten dena betez, «Euskaltzaindiaren xede eta helburuei, eta euskaltzain oso izateari dagozkien egin-kizunak zintzo eta leialki beteko dituela» agindu du. Andres Urrutia euskaltzainburua euskaltzain osoa dela adierazten duten diploma eta domina eman dizkio. Euskaltzain guztiak, banan-banan hurbildurik, euskaltzain berria zoriondu dute.

Ekitaldi akademikoa amaitu denean, oroigarri eta opariak eman dizkiote Patxi Uribarreni:

Koruaren burua den Anton Errarteren zuzendaritzapean, Aramaioko Abesbatzak lau abesti hauek kantatu ditu: *Goizian argia hastian*, Etchaunena; *Kantuz*, Les-bordesena; *Txanton Piperri*, Zapirainena. 4) *Gurea da*, Salaberrirena.

Aramaioko Udalaren izenean, Patxi Uribarrenen jaiotetxearen –Uribarrenbekoa baserriaren– erretratua, Idoia Elexpuruk egina.

Familiaren oparia: loba guztien izenean Ibabe Perez Uribarrenek aurreskua dantzatu du eta oparia eskaini dio.

Aramaioko Euskara Elkartearen oparia: Xabier Herratek argizaiola eman dio, elkartearren izena gogora ekarriz, *Txirritola*.

Elizatik irten ondoren, *Lagun Artean* dantza taldeak hauek dantzatu ditu: *Txako-lin*, *San Pettitt*, *Agurra eta Banakoa*.

Ekitaldia iluntzeko 19:45ean bukatu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

# Bilbon, 2010eko ekainaren 25ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua  
Kintana, Xabier, idazkaria  
Lizundia, Jose Luis, diruzaina  
Sagarna, Andoni, Iker sailburua  
Iñigo, Andres, Jagon Sailburua  
Arejita, Adolfo  
Azkarate, Miren  
Charriton, Pierre  
Davant, Jean-Louis  
Goenaga, Patxi  
Haritschelhar, Jean  
Lakarra, Joseba  
Larre, Emile  
Peillen, Txomin  
Salaberri, Patxi  
Sarasola, Ibon  
Toledo, Ana  
Torrealdai, Joan Mari  
Uribarren, Patxi eta  
Zalbide, Mikel.  
  
Pello Telleria idazkiordea, eta, zegozkiuen gaietan Patxi Gale, Alfontso Mujika, Itziar Nogueras eta Josu Aztiria jaun-andreak.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Sagrario Alemanek, ahala A. Iñigori; Aurelia Arkoitzak, ahala J. Haritschelharri; M. Lourdes Oñederrak, ahala M. Azkarateri; Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari; B. Oiharzabalek, ahala X. Videgaini; Xarles Videgaineak, ahala J. Haritschelharri; Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori. Mikel Zalbidek, ahala A. Urrutiari, egon ez den tartean; A. Urrutiak, ahala X. Kintanari, egon ez den tartean.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

**1. Aurreko akta onartzea.** Ez da oharrik jaso eta, beraz, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

**2. Hasi aurrekoak.** Euskaltzainburuak, batzarrera etorriak agurtu eta gaurko aztergaiak aurkezteko ordenaz-eta, ohar batzuk egin ditu.

### 3. Onomastika

**3.1. Euskal Herriko ibaien izenak (1). Lehen zerrenda onartzea.** Andres Iñigok eta Patxi Galek azaldu dutenez, Onomastika batzordeak Euskal Herriko ibai nagusien multzoan, Euskaltzaindiaren maiatzeko batzarrean aurkezturiko Bizkaiko Kostaldera itsasoratzen diren 38 ibaien zerrendari ez zaio oharrik egin eta, beraz, onarturik gelditu da.

### 3.2. Euskal Herriko ibaien izenak (2). Bigarren zerrenda aurkeztea.

Ondoren, A. Iñigok Onomastika batzordearen hurrengo zerrenda banatu du euskaltzainen artean, Gipuzkoako kostaldean itsasoratzen diren 53 ibaien izenekin. P. Galek paperean banaturiko mapa pantailan ere proiektatu du, eta horien ezauigarri eta berezitasun aipagarrienak azpimarratu ditu. Horiei buruzko oharra irailaren 10erako bidali beharko dira.

**4. Exonomastika. Europako geografia fisikoa: mendien azken atala onartzea.** Maiatzeko bileran Exonomastika batzordeari Europako mendien izenekin aurkezturiko zerrendaz Xarles Videgainek galde egin zion, hots, ea zergatik *Kapitolinoa* edo *Kirinala* bezalako mendi-izen batzuk (Erromako muinoak, preseski) mugaturik agertzen diren. Batzordeak arazoa xeheki aztertu eta gero, muino horien idazkeran erabateko adostasunik ez dagoela ikusi du. Halere, badirudi joera, X. Videgainek azpimarratu duenez, formak mugagabe idaztearen alde legokeela. Beraz, erabilera eta konsiderazio horiek ikusita, Euskaltzaindiaren Exonomastika batzordeak Erromako muinoen izenak horrela ematea proposatzen du: *Aventino*, *Zelio*, *Kapitolino*, *Eskilino*, *Palatino*, *Kirinal* eta *Viminal*. Holaxe onartu da.

Monte Perdido izena dela eta, J. Haritschelharrek eginiko galderari erantzunez, gogoratu behar da mendi hori Espanian kokatua dela, eta ondoko-ondoko hizkuntzetan izan ezik (frantssez eta katalanez), gainerakoetan ez duela exonomorik. Beraz, antzeko beste kasu batzuetan bezala (*Mont Blanc*, *Monte Rosa*, *Sierra Nevada* edo *Mont Ventoux*) jatorrizko deitura errespetatzea erabaki da, euskarazko erabileera nagusiaren bidetik.

Era berean, A. Mujikak xehetasunak eman ditu izen klasiko zahar batzuen kasan, Euskaltzaindiak bere 82. arauan erabaki zuen bezala, zergatik exonomoen grafia euskarara egokitzen (Kirinal eta Zelio, Zeltso, Zesar edo Nizea bezala), baina oraingo toponimo jaso berrienak aldiz, (*Gualdalquivir*, *Quimper*, *Cebu* eta *Cervino*, adibidez) beren horretan utziak izan diren.

Azkenean, orain arte emandako arauen arabera, kontraesan bat nabari dela oharrarazi du A. Mujikak: *Normandia* arautuaren ondoan *normandar* dugu, eta Greziako

uharte txiki baina famatu baten izena Ithaka gisa emana da, Euskaltzaindiaren ohiko erregelen arabera *normandiar* eta *Itaka* forma erregularrak izan beharrean. Horiek aldatzeko proposamena egin ondoren, aho batez holaxe egitea onartu da.

#### **5. Hiztegi Batua (2.itzulia) batzorde ahaldunduaren proposamena onartzea.**

Hiztegi Batua (2.itzulia) batzorde ahaldunduaren zuzendari gisa, A. Sagarnak, aurreko bileran aurkezturiko proposamenari bat ere oharrik ez zaiola heldu azaldu du. Beraz, F eta G leterez aurkezu zen zalantzazko zerrenda onarturik gelditu da, batzorde ahaldunduak proposatu moduan..

#### **6. 2010eko aurrekontuak eta ekonomia egoera.**

Andres Urrutia Euskaltzainburuak eta J.L. Lizundia diruzainak 2010eko aurrekontuei buruzko azalpenak eman dituzte. Biek egoera ekonomikoaren larritasuna azpimarratu dute, Euskaltzaindiaren erakunde laguntzaileek, pairatzen den krisi sakonagatik, beren emaitzetan egindako murrizketa handiagatik.

Une honetan 2005 eta 2009 urteetako aditegiak bukatzen ari direla azaldu dute, agintariei Euskaltzaindiak bere laguntzen kudeaketan izandako gardentasuna erakusteko. Era berean, EAeko Hitzarmenaren prestaketa jada oso aurreraturik dagoela jakinarazi dute, eta laster sinatzea espero dutela.

Azkenik, Akademiaren diru egoeraren berri eman dute, hemendik egin daitzekeen aurreikuspenekin. Dena den, berri zehatzagoak izatean Euskaltzaindiaren osokoari horien berri emango zaio.

#### **7. Elhuyar Fundazioaren jardunaren berri ematea.**

Euskal Gizartean euskararen industrian aspaldian lanean ari diren taldeen lana hurbiletiak ezagutzeko gogoarekin, Euskaltzaindiak gonbita egin dio Elhuyar Fundazioari, esku artean darabiltzan lanak eta proiektuak Euskaltzaindiaren egoitzan, euskaltzainen aitzinean, aurkezu eta azal ditzan, era horretara Akademiak horiei buruzko informazio zehatzia izan eta, bere kasuan, argibide eta xehetasunak eskatu ahal izateko.

Deiari erantzunez, Elhuyarren izenean, Itziar Nogueras eta Josu Aztiria jaunandreak etorri dira, eta pantailan proiektaturiko eskemez lagundurik, fundazio honek dituen helburuak, baliabideak eta orain arteko emaitzak azaldu dituzte.

Alde batetik, zientzia eta teknika gizarteko publiko orokorrari euskaraz helarazteko helburuaz, nolako egoeratik abiatu diren, zeintzuk baliabide kontuan hartu, landu eta garatu behar izan dituzten adierazi dute. Hasteko, haur eta gazteak izan

dituzte kontuan, horiengan gai horietarako zaletasuna eta jakin-mina bultzatzeko. Horretarako, bakoitzaren mailaren araberako materialak (liburuak, kontakizunak, esperimentuak...) landu dituzte.

Publiko espezializatua, ordea, ez dute ahantzi, eta hedabide eta komunikazio-zerbitzuen esparrua ere astindu dute.

Zientzia, teknologia eta ikerketa ere begi aurrean izan dituzte, eta horiek lan-tzeaz batera, dibulgazio lanean espezializatzen ari dira.

Hau guztia, oraintsura arte ofiziala izan ez den hizkuntza batean, eta are batasun idatzirik izan gabean burutu nahi izateak aparteko lana eskatzen du, eta itzulpenak, lexiko-egokitzapenak, hiztegiak, teknologiek aldean dakartzaten erronkei erantzuteko. Hortaz, zientzien eta hizkuntzaren arteko loturak eta egoki-tzapenak etengabe aztertzen jarduten dute, euskara zientzia eta teknologien arlotik saihesturik gera ez dadin.

Beren lana, asmo eta lorpenak areago argitzeko, informazio idatzia ere banatu dute euskaltzainen artean. Ondoren, halaber, egindako galderei erantzun diete El-huyarko bi partaideek. Bukatzean euskaltzainburuak etorrera eta erakustaldia es-kertu die.

## 8. Eskuartekoak

### 8.1. 2009ko Oroitidazkia banatu

Pello Telleria idazkariordeak, euskaltzainen artean, 2009ko oroitidazkia banatu du, iazko ekintza, emaitza eta gorabehera nabarmenenak biltzen dituena.

### 8.2. Liburu berria aurkeztu

Ekainaren 28an, Euskaltzaindiaren Baionako ordezkaritzan, *Helduen euskaldun-tea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian / L'enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord* deritzeron liburu berria aurkeztuko du Euskaltzaindiak. Erramun Baxok eta Jean-Baptiste Coyos jaunek, Iparraldeko AEKren partaide-tzarekin, prestatua (Euskaltzaindiaren Jagon bildumako 9. zenbakia). Euskararen Erakunde Publikoaren diru-laguntzaz argitaratu da.

### 8.3. Bi hitzarmen sinatu

Kultura eta informazioaren arloko erakunde eta enpresekin elkarlanean jarduteko gogoarekin, euskararen erabilera ikertu eta sustatzeko helburuaz, Euskaltzaindiak bi hitzarmen sinatu ditu: bata *Noticias de Gipuzkoa* egunkariarekin (ekainaren 16an) eta bestea *Euskal Herriko Unibertsitatearekin* (ekainaren 21ean).

#### **8.4. Espainiako Kultura Ministerioaren gonbitak euskaltzinentzat**

Ministerio horrek 2009ko *Kultura Ministerioaren Sari Nazionalak* emateko ekitaldia antolatu du, aurtengo uztailaren 20an, 12:00etan, Euskalduna jauregian izango dena. Euskaltzainei gonbitak helaraziko zaizkie.

#### **9. Azken ordukoak**

Banatu diren argitalpenak:

- *UneLibors* aldizkariaren 20. zenbakia. UNEren (Unión de Editoriales Universitarias Españolas-en) aldizkaria.
- *Sakanako euskara. Burundako hizkera* liburua, Koldo Zuazok prestatua. MEN-DAUR bildumako VIII. liburukia.

Ordu batean amaitu da bilera.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

# **Euskaltzaindiaren Arauak**



# Hiztegia Batuaz Ziurtagiria

SAGARNA, Andoni  
Iker Sailburua

Andoni Sagarna Izagirre, Euskaltzaindiaren *Iker Saiburu eta Hiztegi Batua* (2. itzulia) Batzorde Ahaldunduaren buruak

## ZIURTATZEN DU

Hiztegi Batuko 2. itzuliko H-Z bitarteko sarrerei oharrak egiteko bi hilabeteko epea eman zitzaiela euskaltzain osoei 2009ko urriaren 30eko osoko bilkuran, eta epe hori igarotakoan inoren oharrik jaso ez zuten sarrerak onarturik eta arau bihurturik geratu zirela. Hortaz, sarrera horiek Euskaltzaindiaren *Euskera Agerkari* ofizialean argitaratu beharrekoak dira.

Usurbilen 2010eko irailaren 9an

Andoni Sagarna Izagirre,  
*Iker* Sailburua



# Onomastika



## Irizpideak / Diktamenak:

- A) Hauek Onomastika batzordeak paratuak:  
*Kinta/Quintana, Ariñiz, Oleta, Azilu, Anuntzeta,  
Moreda Araba, Urroz, Oiz*



Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia,

CERTIFICA:

Que el nombre eusquérico de la junta administrativa de *Quintana* del municipio de *Bernedo* en su forma eusquérica académica actual es **Kinta**.

Que aunque dicha villa se documenta por primera vez como *Quintana* en 1257, tal como puede consultarse en la obra de Gerardo López de Guereñu *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia, el nombre empleado por el pueblo era, sin duda, *Kinta* hasta la desaparición del euskera, a la luz de los testimonios de topónimia menor incluidos en la obra de J. A. González Salazar Montaña Alavesa. Comunidades y pastores, Estudios de Etnografía alavesa, Ohitura 11, 2005, Diputación Foral de Álava:

1569: «El penultimo mojon que se visito fue el que esta entre el camino que van a **Quintaravidea** y **Çubibiurtua**»

«... en el camino que van los de Marquinez a Quintana que se dize en vascuence **Quintaravidea**»

1707: «... en el camino de **Quintarabidea**»

1757: «en el alto que llaman **Quintaravidea**».

El significado de este topónimo, compuesto de *Kinta* «Quintana», la desinencia *-ra* «hacia» y *bide* «camino» es claro, tal y como indica la traducción de 1569: «El camino de Quintana».

Asimismo, la mencionada forma eusquérica aparece en otros derivados como **Quintarana** (1838, labrantío de Marquinez) que figura en la obra

obra de Gerardo López de Guereñu antes citada. El nombre es un compuesto de *Kinta* (Quintana) y *harana* «valle»: «El valle de Quintana».

Cabe señalar, por otra parte, que también se documentan formas como **Quintanaravidea** (1806) más cercanas a la forma oficial, fenómeno bastante habitual cuando la forma eusquérica y la oficial eran semejantes.

Que posteriormente, con la pérdida del euskera hablado en la citada localidad, predominó la forma *Quintana*, que hasta la actualidad ha venido empleándose como denominación única y oficial por la Administración. La variante que ha llegado hasta nuestros días es, como se ha indicado anteriormente, producto de la evolución que este nombre ha sufrido en castellano y consecuencia de la no utilización de la lengua vasca en la documentación administrativa.

Que la pérdida de la consonante *-n-* *lenis*, o suave, entre vocales es una de las características de la fonética vasca, tanto en palabras de origen eusquérico (*ardoa* o *gazta*, de \**ardano* y \**gaztan*), como en préstamos latinos (*katea* y *area*, en castellano *cadena* y *arena*). Dicho fenómeno es también habitual en topónimia, tal como lo demuestran, entre otros muchos, los nombres de las localidades de *Aramaio* (A), *Dorrao* (Na), *Lazkao* (Gi) y *Otxandio* (Bi), de *Aramiona*, *Torrano*, *Lazkano* y *Otxandiano* respectivamente.

En Bilbao a cuatro de junio de dos mil diez.



Mikel Gorrotxategi,  
Secretario de la Comisión de Onomástica

Vº Bº



Andres Iñigo,  
Presidente de la Comisión de Onomástica

Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia,

EXPONE:

Que el nombre de la junta administrativa de *Ariñez* del municipio de Vitoria / Gasteiz en su forma eusquérica académica actual es *Ariñiz*.

Que dicho concejo se documenta por primera vez como *Ariniz* en 1025, en la lista de pueblos alaveses conocida como *Reja de Álava*, documento que forma parte del *Cartulario de San Millán*, y posteriormente como *Arriniz* (1257), *Hareniz* (1294) y *Ariñiz* (1417, 1481, 1516, 1722, 1742, entre otros). Teniendo en cuenta el primer testimonio, en el Nomenclátor que publicó la Academia en 1986, se propuso como forma eusquérica *Ariniz*. Sin embargo, a la luz de los estudios de la toponimia menor realizados posteriormente, se demuestra que el cambio de *-n-* a *-ñ-* se produjo en euskera y que, por tanto, el nombre empleado por el pueblo era, sin duda, *Ariñiz* hasta la desaparición de la lengua vasca, tal como se ve en los archivos alaveses, tanto concejiles como provinciales, donde hasta el siglo XIX aparece *Ariñiz* y la toponimia menor donde se documenta *Ariñizbidea*, por poner un ejemplo.

Que más tarde, el nombre *Ariñiz* evolucionó a *Ariñez*, forma que se documenta a partir del siglo XIX, convirtiéndose la *-i-* final postónica en *-e-* de acuerdo con los usos de la fonética castellana: *Arkauti>Arcaute*, *Artzi>Arce*, *Olabarri>Ollávarre*, *Oñati>Oñate*, *Santutzi>Santurce...*

Por lo que se refiere al gentilicio o nombre del habitante, hasta ahora no se ha hallado constancia. Sin embargo, la Comisión considera que a la vista de los casos similares (*gamiztar*, *gasteiztar...*) sería *ariñiztar*.

En consecuencia y por todo lo expuesto,

## CERTIFICA:

Que, de acuerdo con el dictamen correspondiente de la Comisión de Onomástica, la denominación eusquérica de la mencionada localidad es **Ariñiz**.

Que de acuerdo con lo anteriormente considerado, con el artículo seis punto cuatro del Estatuto de Autonomía del País Vasco, con el artículo décimo de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, con la legislación y la normativa académica vigentes, al ser un nombre eusquérico, la forma recomendada a efectos oficiales es **Ariñiz**.

En Bilbao a veinticuatro de julio de dos mil diez.



Mikel Gorrotxategi,  
Secretario de la Comisión de Onomástica

Vº Bº



Andres Iñigo,  
Presidente de la Comisión de Onomástica

Mikel Gorrotxategi Nieto, euskaltzain urgazle eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzorde idazkari denak,

EGIAZTATZEN DU:

Onomastika batzordeak joan den apirilaren hogeita bain egindako azken bilkuran, berretsi zuela, izen ofiziala *Olaeta* duen Legutioko kontzejuaren euskal izena **Oleta** dela, Batzordeak bi mila eta biko ekainaren hogeita lauan ebatzi zuen bezala.

Nahiz eta *Olaeta* euskal izena izan -ae- bokal duten euskal toponimoetan aspaldikoa da -a-ren galera eta ezin zaio leporatu azken urteetako ahoskera erlaxatuari. Konparazioarako Barrundiako *Ozaeta* herria ere *Ozeta* deitu izan da euskaraz eta horrela ageri da dokumentazioan toponimia txikian. Gure kasuan Oletako semea den Pedro Pujana Agirregabiria idazle eta euskaltzain osoa zenaren lekukotza dugu.

Ez da herri hau *Olaeta*>*Oleta* aldaketa duen leku bakarra eta Aberasturin, Ozekan eta Laudion ere baditugu holakoak.

Honekin batera doa, informazio osagarri gisa, Onomastika batzordeak bi mila eta biko ekainaren hogeita lauan bertako kontzejuariigorri zion agiriaren kopia.

Eta kontzejuari igortzeko izenpetzen du Bilbon, bi mila eta bederatziko urriaren hogeita hamarrean.



Mikel Gorrotxategi,  
Onomastika batzorde-idazkaria

O.I.



Andres Iñigo,  
Onomastika batzordeburua

Mikel Gorrotxategi Nieto, académico correspondiente y secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia,

EXPONE:

Que el nombre de la Junta Administrativa del municipio de Iruraitz-Gauna oficialmente denominada *Azilu* hasta la actualidad, en euskera es **Azilu**.

Que *Azilu* era la forma que se utilizaba en lengua vasca a la luz de los testimonios de toponomía en la obra de Gerardo López de Guereñu *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia, como: *Azilubide* («camino a Azilu» 1776, Gauna), *Azilubidea* («el camino a Azilu» 1743, Alegría) o *Azilurabide* («el camino [que va] a Azilu» 1716, Gauna).

Por lo que se refiere al gentilicio o nombre del habitante, hasta ahora no se ha hallado constancia documental. Sin embargo, la Comisión considera que, a la vista de casos similares (*arratzuar, burguar, maeztuar...*), probablemente sería *aziluar*.

En consecuencia y por todo lo expuesto,

CERTIFICA:

Que, de acuerdo con el dictamen correspondiente de la Comisión de Onomástica, la denominación eusquérica de la mencionada localidad es **Azilu**.

Que, por lo tanto, la denominación completa de dicha Junta Administrativa sería, en los dos idiomas oficiales el siguiente: *Azilu kontzejuko Ad-*

*ministratzio Batzordea / Junta Administrativa del concejo de Azilu o Aziluko Administrazio Batzordea / Junta Administrativa de Azilu.*

Que de acuerdo con lo anteriormente considerado, con el artículo seis, punto cuatro, del Estatuto de Autonomía del País Vasco, con el artículo décimo de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, con la legislación y con la normativa académica vigentes, al ser un nombre eusquérico, la forma recomendada a efectos oficiales es en cualquier idioma **Azilu**.

En Bilbao a catorce de julio de dos mil nueve

\* \* \*

Mikel Gorrotxategi Nieto, euskaltzain urgazle eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzorde idazkari denak,

#### ADIERAZTEN DU:

Orain arte izen ofiziala *Acili* duen Iruraitz-Gauna udalerriko Adminis-trazio Batzordearen euskal izena **Azilu** dela.

*Azilu* zela euskaraz erabiltzen zen izena Akademia honek argitaratutako Gerardo López de Guereñuren *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses* liburuko testigantzetan ikus daitekeen bezala: *Azilubide* (1776, Gauna), *Azilubidea* (1743, Dulantz) o *Azilurabide* (1716, Gauna).

Herritar izenaren lekukotzarik ez dagoen arren, antzeko izenak ikusita (*arratzuar, burguar, maeztuar...*) *aziluar* izan daitekeela uste du Batzordeak.

Azaldutakoaren ondorioz,

#### EGIAZTATZEN DU:

Onomastika batzordeak emandako irizpenari jarraiki aipatutako herriaren euskal izena **Azilu** dela.

Ondorioz, Administrazio Batzordearen izen osoa hizkuntza ofizial bietan honakoa izango litzatekeela: *Azilu kontzejuko Administrazio Batzordea / Junta Administrativa del concejo de Azilu* edo *Aziluko Administrazio Batzordea / Junta Administrativa de Azilu*.

Kontuan izanik aurreko azalpena, Euskadiko Autonomia Estatutuko sei-garren artikuluaren laugarren puntuak, azaroaren 24ko 10/1982 Legearen hamargarren artikulua, egungo legedia eta indarrean dagoen Akademiaren arautegia, gomendatutako izena zeregin ofizialetarako edozein hizkuntzatan **Azilu** dela.

Bilbon, bi mila eta zortziko uztailaren hamalauan.



Mikel Gorrotxategi,  
Onomastika batzorde-idazkaria  
Secretario de la Comisión de Onomástica

O.I. / Vº Bº



Andres Iñigo,  
Onomastika batzordebura  
Presidente de la Comisión de Onomástica

Mikel Gorrotxategi Nieto, euskaltzain urgazleak eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzordearen idazkariak:

AZALTZEN DU:

Onomastika batzordeak joan den 2010eko ekainaren 17an Altsasun izan zuen bilkuraren eguneko gaien 4. 1. atalean sartu zuela Araban izen ofiziala *Anúcita* duen kontzejuaren euskal izenari buruz Administrazio Batzordeak egindako eskaera.

Batzordeak bilera horretan aztertu zuela, Onomastika batzordeko kidea den Roberto Gonzalez de Viñaspre-ri aldez aurretik eskatutako txostena – ziurtagiri honi eranskin gisa atxikirik doana–.

Izen hau proparoxitonoa denez gero, /anúntzeta/ ahoskatu behar dela.

Onomastika batzordeak txosten hori berretsi ondoren,

ZIURTATZEN DU:

Kontzeju horren euskal izena **Anuntzeta** dela. Ondorioz, Administrazio Batzordearen izen osoa hizkuntza ofizial bietan honakoa izango litzatekeela: *Anuntzeta Kontzejuko Administrazio Batzordea / Junta Administrativa del Concejo de Anúcita* edo *Anuntzetako Administrazio Batzordea / Junta Administrativa de Anúcita*.

Bilbon, 2010eko ekainaren 21ean.

\* \* \*

Mikel Gorrotxategi Nieto, académico correspondiente de la Real Academia de la Lengua Vasca y secretario de su Comisión de Onomástica:

## EXPONE:

Que la Comisión de Onomástica en la reunión celebrada en la localidad de Alsasua el día 17 de junio de 2010, incluyó en el punto 4.1. de su orden del día la solicitud remitida por la Junta Administrativa acerca del nombre en euskera del concejo alavés denominado oficialmente *Anúcita*.

Que analizó el informe –el cual se adjunta como anexo al presente certificado–, elaborado a solicitud previa de la propia Comisión de Onomástica por Roberto Gonzalez de Viñaspre, miembro de la misma.

Que como este nombre es proparoxítono debe pronunciarse */anúntzeta/*.

Que la Comisión de Onomástica tras ratificar dicho informe,

## CERTIFICA:


Que **Anuntzeta** es la denominación originaria vasca. Que, por lo tanto, la denominación completa de dicha Junta Administrativa sería, en los dos idiomas oficiales el siguiente: *Anuntzeta Kontzejuko Administrazio Batzordea / Junta Administrativa del Concejo de Anúcita* o *Anuntzetako Administrazio Batzordea / Junta Administrativa de Anúcita*.

En Bilbao, a 21 de junio de 2010.



Mikel Gorrotxategi,  
Onomastika batzorde-idazkaria  
Secretario de la Comisión de Onomástica

O.I. / Vº Bº



Andres Iñigo,  
Onomastika batzordeburua  
Presidente de la Comisión de Onomástica

# Acerca del nombre eusquérico de Anuzita

## Testimonios antiguos<sup>1</sup>

GONZÁLEZ DE VIÑASPRE, Roberto

1. El nombre en lengua castellana de esta población del municipio alaves de Ribera Alta / Erriberagoitia es **Anúcita**. Para la denominación en lengua vasca hasta ahora se había propuesto la forma **Anuzita**<sup>2</sup>. Sin embargo, en la actualidad disponemos de nuevos datos documentales que muestran la forma originaria de ese nombre y su probable filiación eusquérica. Expongo todo ello en el presente informe.

2. El primer testimonio histórico conocido es del año 1025 y se halla en el cartulario de San Millán de la Cogolla, pero es preciso advertir que no hay unanimidad en las transcripciones publicadas hasta el presente. Tampoco es posible confrontar las interpretaciones dispares con el cartulario original, ya que éste –el llamado Becerro Gótico– desapareció a comienzos del siglo XX, según indica J. Ángel García de Cortázar. Se conserva el Becerro Galicano «en el que, a fines del siglo XII, se copió la documentación original antigua, incluida gran parte de la que conservaba el Becerro Gótico»<sup>3</sup>.

---

<sup>1</sup> Este informe recoge, y sólo puntualmente amplía, las referencias documentales y los argumentos que tengo expuestos en un trabajo reciente: «El entorno de La Puebla de Arganzón: notas históricas y lingüísticas», in *Euskera*, 2007, 3. En concreto, véase el epígrafe *Algunos apuntes sobre toponimia vasca en el entorno de La Puebla de Arganzón: el caso del nombre Anúcita*.

<sup>2</sup> Hizkuntza Politikarako Idazkaritza & Euskaltzaindia (1986): *Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herrien izenak*.

Euskaltzaindia & EUDEL & Eusko Jaurlaritza (2001): *Euskal Autonomia Erkidegoko biltanle-entitateak*.

<sup>3</sup> GARCÍA DE CORTÁZAR, J. Ángel (1969): *El dominio del monasterio de San Millán de la Cogolla (siglos X al XIII)*, pp. 41-43. Asimismo, existe la llamada Colección Minguella, reunida en el siglo

Las transcripciones realizadas, con indicación de los principales investigadores y el año de publicación, son las siguientes:

- *Anuzkita* (Landazuri, 1799)
- *Anuzquita* (Llorente, 1802)
- *Amuzquita* (Serrano, 1930)
- *Anitzquita* (Ubieto, 1976)<sup>4</sup>
- *Anuz/qta* (Caro Baroja, 1983)<sup>5</sup>

He comprobado la fotografía digitalizada del documento recogido en el Becerro Galicano<sup>6</sup> y, en efecto, se lee *Anuz/qta* de forma nítida, es decir, con salto de línea y abreviatura en su elemento final, por *Anuzq(ui)ta*.

Sin duda, resulta fonéticamente complicado que *Anuzq(ui)ta* sea el punto de partida de *Anúcita*, e invita a pensar que acaso *Anuzq(ui)ta* pueda ser uno más de los presuntos errores de transcripción que contiene el Becerro Galicano.

3. Por el contrario, la evolución a *Anúcita* es más sencilla a partir del testimonio *Anuncieta* que Julio Caro Baroja lee en la carta de 1257 del obispo de Calahorra. Este autor utilizó una copia de 1596, transcrita anteriormente por Narciso Hergueta y publicada póstumamente en 1907. El pergamino original se conserva en el Archivo de la Catedral de Calahorra y ha sido transscrito por Ildefonso Rodríguez<sup>7</sup>, quien da la misma lectura que Caro Baroja. La forma *Anuncieta* (*Anuncieta*) se encuentra en alguna otra fuente documental. Así, como apellido, en un texto de 1263, transscrito por J. Ramón Díaz de Durana<sup>8</sup>:

«Venerabile viro e dilecto dopno *Lupi de Anuncieta* Archidiagnus  
alavem»

XVIII, que recoge la totalidad de los documentos comprendidos entre los años 759 y 1545. A través de esa Colección se han transmitido algunos documentos del Becerro Gótico que no fueron copiados en el Becerro Galicano.

<sup>4</sup> UBIETO ARTETA, Antonio (1976): *Cartulario de San Millán de la Cogolla (759-1076)*, doc. 180.

<sup>5</sup> CARO BAROJA, Julio (1983): «Álava en la llamada “Reja de San Millán”» in *Historia General del País Vasco*, p. 111 y ss.

<sup>6</sup> Debo mi agradecimiento a David Peterson, quien generosamente me ha proporcionado una copia digital del Becerro Galicano.

<sup>7</sup> RODRÍGUEZ R. DE LAMA, Ildefonso (1989): *Colección diplomática medieval de la Rioja*. Tomo IV.

<sup>8</sup> DÍAZ DE DURANA, J. Ramón(1994): *Álava en la Baja Edad Media a través de sus textos*.

Sin embargo, el mismo autor transcribe el apellido de este personaje con la variante **Annuçita** en un documento de 1268:

«*De mi Johan Lopes de Annuçita arcidiagno de Alava ...»*

A su vez, Ildefonso Rodríguez<sup>9</sup> recoge la forma **Anuncita** en la transcripción que hace de este último documento:

«*De mi Johan Lopez de Anuncita, arcidiagno de Alaua ...»*

Cabe destacar que la variante **Anuncieta** aparece varias veces en una concordia de 1456-1457 entre la villa de Santa Cruz de Campezo y su aldea de Orbiso, según copia de 1513<sup>10</sup>:

«... E que asy mesmo oyo dezir que en el monte de / **Anuncieta** ...»

«... en todo lo comunero del monte de / **Anuncieta** ...»

«... E que en el monte de **Anuncieta** ...»

«... fasta el valle que/ desciende de **Anuncieta** orylla el robredo»

«... por la cuesta de **Anuncieta** arryba fasta vn/ mojon que esta en medio de **Anuncieta**»

«...fasta el cascajo de la cuesta de **Anuncieta** ...»

«... desde la cuesta de **Anuncieta** ...»

«... saliendo del camino viejo de la cuesta de / **Anuncieta** ...»

«... a la cuesta de **Anunci** / eta ...»

Lo más probable es que fuera en origen un apellido, acaso el de un antiguo poseedor, ya que los nombres de apariencia eusquérica son extraños en la toponimia menor de la zona, de carácter mayoritariamente romance<sup>11</sup>.

<sup>9</sup> RODRÍGUEZ R. DE LAMA, Ildefonso. *Ibidem*.

<sup>10</sup> POZUELO RODRÍGUEZ, Felipe (1998): *Documentación de la Cuadrilla de Campezo: Arraia Maeztu, Bernedo, Campezo, Lagrán y Valle de Arana (1256-1515)*.

<sup>11</sup> Si tomamos como referencia los topónimos actuales de Santa Cruz de Campezo y Orbiso publicados en 1986 por José Antonio González Salazar (*Cuadernos de toponimia 2. Toponimia de la Montaña Alavesa*), en torno al 86 % de ellos son de filiación romance y el resto, salvo casos contados como *Arriarán*, son de significado opaco (p. ej. *Yoar*, *Inta*, *Barranco Yerti* ...) En algún topónimo volvemos a encontrar el probable eco de un apellido (*Barranco Foronda*) y en dos casos son antropónimos evidentes: *Martín Ruiz* y *Martín Gómez*. Una realidad lingüística similar hallamos a la vista de los veintiseis topónimos que contiene la concordia de 1456-1457. Tan sólo *Aradury* y acaso *Ryoharycho*, aparte de *Anuncieta*, presentan rasgos formales para pensar en una filiación eusquérica. Los demás topónimos o son nítidamente romances (*Hornillo*, *Robredo*, *Rybalta*, ...) o

Para profundizar en el conocimiento del antiguo nombre de Anúcita, disponemos de la colección diplomática medieval del monasterio de Santa María de Bujedo<sup>12</sup>, próximo a Miranda de Ebro y, por tanto, no lejos de la localidad de Anúcita. Este corpus documental abarca el periodo 1168-1210 y contiene dieciseis testimonios del nombre **Anúcita**, con algunas variantes: **Anunceta** (trece veces), **Annunceta** (dos veces), **Annuceta** (una vez) y **Annuncita** (una vez). Es reseñable que figura como apellido en siete ocasiones y, lo que ahora más nos interesa, ocho veces en referencia a la población. Sin embargo, en uno de los testimonios no está claro si aparece como pueblo o como apellido.

– **An(n)unceta:**

«Ego Mari Munoz de **Anunceta** vendi y robre sex marcenas de tierra (...) Et de hoc sunt fiadores de redrar y vengar a fuero de tierra: Lop Fortunones de **Annunceta**» (1168-1204, doc. 85)

«.... fil de Urti Urtiz de **Anunceta**» (1194, doc. 65)

«Ego P(edro) Martinez, el cavallero, vendi y robre una tierra cerca las viñas de **Annunceta**» (1168-1204, doc. 87)

«Ego Ochoa de **Anunceta** vendi y robre toda la mia heredat que ovi de mio padre en **Anunceta**» (1168-1204, doc. 88)

«...damus et concedimus omnem hereditatem et omnia quae habemus in **Anunceta** et in Salinas ... (...); de **Anunceta** sunt isti (...) et concilium de **Anunceta** (...) Et in **Anunceta** dieron fiadores de la heredat (...) que ovieron dado el padre y la madre de Enneco Ortiz en **Anunceta** (...) Julian de **Anunceta** ... et son testigos: don Sancho, el clerigu de **Anunceta**» (1197, doc. 89)

«Enneco Fortunones de **Anunceta**; Pedro Martinez, el cano de **Anunceta**» (1200, doc. 98)

– **Annuceta:**

«Lop Fortunones de **Annuceta**» (1168-1204)

– **Annuncita:**

«De hoc sunt testes: (...) M. Martinez de **Annuncita**» (1210, doc. 137)

---

deben clasificarse como de filiación desconocida (*Baube*, *Honera*, *Logan*, ...) Asimismo se encuentra el antropónimo medieval *Hamusco*, usado como topónimo.

<sup>12</sup> RUIZ DE LOIZAGA, Saturnino (2000): *El libro becerro de Santa María de Bujedo de Candepajares* (1168-1240)

**4. Conclusión:** A la luz de los testimonios históricos, parece claro que la evolución de este nombre ha sido **Anunceta** > **Anuceta** > **Anucita**. En la forma originaria **Anunceta** se observa la alternancia *-n-* / *-nn-*, aunque es notorio el predominio de la primera grafía en esos testimonios a caballo entre el XII y el XIII, en un momento en el que esa evolución estaba ya casi generalizada en Castilla y La Rioja<sup>13</sup>.

Asimismo, hemos visto que se documentan formas intermedias como **Annuncita**. En cuanto a la variante con diptongación **Anuncieta**, es más problemática de explicar. Puede haber surgido en área romance, pero antes necesitaría un cambio de acento a la penúltima vocal, propiciado quizá por la longitud de la palabra y por ser una voz de formación no romance.

La abundancia de datos muestra que el nombre antiguo es **Anunceta**, voz compuesta eusquérica que, por tanto, debe ser escrita **Anuntzeta** en ortografía vasca actual.

La justificación de la subvención concedida estará supeditada a lo establecido en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones y más concretamente lo dispuesto:

- En el Título I, Capítulo II, Disposiciones comunes a las subvenciones públicas en los artículos: 5, 6, 7, 8, 9 y 11.
- En el Capítulo IV, Gestión y justificación de las subvenciones lo dispuesto en los artículos 27, 28, 29.
- En el Capítulo V, de la gestión económica y presupuestaria de las subvenciones en los artículos 31, 32, 33.

La documentación justificativa de la subvención concedida será presentada en Euskarabidea antes de las 14 horas del último día hábil del mes de noviembre por las oportunas vías administrativas.

De conformidad con lo establecido en el artículo 9, g) de la Ley Foral 11/2005, de subvenciones, para la documentación justificativa de los gastos subvencionados puede constar de una relación de los gastos en los que aparezca el número de factura, el concepto y el importe de la misma. Dicha relación estará firmada por el Gerente de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia.

Toda la documentación justificativa de la subvención concedida, a la que se refiere el párrafo anterior, quedará en depósito en la Institución y a disposición de Euskarabidea para su posible intervención o inspección, según lo dispuesto en la normativa referida.


#### **J) REINTEGRO DE LAS SUBVENCIONES Y PROCEDIMIENTO SANCIONADOR**

En cuanto al seguimiento, reintegro y procedimiento sancionador se estará a lo dispuesto en la Ley Foral 11/2005, de 9 de noviembre, de Subvenciones y más concretamente lo dicho:

- En su Título II, Reintegro de las subvenciones, el Capítulo I, del reintegro en los artículos 34, 35, 36 y 37.
- En el Título III, Seguimiento y control de las subvenciones, el Capítulo I, seguimiento por parte de los órganos gestores en los artículos 38 y 39. Capítulo II, Control financiero en los artículos 40 y 41.
- En el Título IV, Infracciones y sanciones, el Capítulo I, Infracciones en el artículo 42. Capítulo II, Régimen sancionador los artículos 43, 44, 45 y 46.

En Pamplona, a 28 de abril de 2010

EL DIRECTOR GERENTE DE  
EUSKARABIDEA/INSTITUTO  
NAVARRO DEL VASCUENCE



Xabier Azanza Arbizu

EL PRESIDENTE DE LA REAL  
ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA-  
EUSKALTZAININDIA



Andrés Urrutia Badiola



## "EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S. A." DEITURIKOAREN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

Bilbon, 2010eko otsailaren 10ean.

### BILDURIK

Alde batetik, Iñigo Camino García jauna, "EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A." (G-48412720) izenekoaren ordezkaria, nortasun-agiriaren zenbakia 30.559.712-A duena.

Bestetik, Andres Urrutia Badiola jauna, EUSKALTZAINDIAREN ordezkaria, IFK - G-48091961.

Sinatzaileek elkarri aitortzen diote eskumen juridiko nahikoa agiri hau izenpetzeko, eta bakoitza bere erakundearen ordezkari izanik, horren arabera jardunik eta elkarren adostasunez,

### AZALTZEN DUTE

Euskaltzaindia 1918. urtean sortu zen, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Aldundien ekimenez. Erakunde horren helburu nagusia da, hain zuzen ere, euskararekin zerikusia duten arazo guztiak zientziaren ikusmiratik lantzea.

Otsailaren 26ko 573/1976 Errege Dekretuak aitorpen ofiziala egin zion erakunde horri, Euskararen Errege Akademia gisa, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaia probintzien eremurako; harrezkero, Euskaltzaindia da euskararen arloko erakunde eskuduna, hizkuntza bera ikertu eta babesteko. Geroago, Euska Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak eta Nafarroako Foru Erkidegoaren Euskara Legeak beren-beregi aitortu dute, Erkidego biotan, Euskaltzaindia erakunde aholku-emailea dela, euskarari dagokionez.

“EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A.” izenekoa 1977. urtean sortu zen, ekimen pribatuz. Bere helburuen artean komunikabideak garatzea dago eta horren barruan DEIA egunkaria argitaratzen du.

Gaur egun, Euskaltzaindiak eta “EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A.” izenekoak hainbat jarduera burutzen dituzte, eta jarduerok interesgarri oso gerta daitezke hitzarmen honen ondorioetarako.

## HITZARTZEN DUTE

Bi erakunde horiek euron helburuak bete ditzaten, eta euskara eta euskal kultura zabaltzeko ekimenak errentagarri eta egoki izan daitezen, bi erakundeok, bataren eta bestearen prozedura-arauak onartuz, honako hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, hurrengo baldintzokin:

1. “EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A.” izenekoak aitortu egiten du, euskaraz denaz bezainbatean, Euskaltzaindia dela erakunde aholku-emaile ofiziala eta euskararekiko arauemailea.
2. Euskaltzaindiak aitortu egiten du “EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A.” izenekoak euskarazko komunikabideetan duen zeregina, eta DEIA egunkariaren moduko hedabideen bitartez euskararen normalizazioan eta euskararen hedapenean egiten duen ekarpena.
3. “EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A.” izenekoak eta Euskaltzaindiak elkarri euren hizkuntza-ondareak erabiltzeko aukera emango diote, eta, bereziki, euren artxibategi eta bibliotekak erabiltzeko aukera. Gainera, gero aipatuko den Jarraipen Batzordearen bidez, mekanismo egokiak finkatuko dira, bi sinatzaleek euren artean argalpenak truka ditzaten.

4. Bi erakunde horiek elkarlanean arituko dira, bereziki euskararen normalizazioari buruzko proiektuak gauzatzeko, Euskaltzaindiak euskararen arloan ezarritako arauak euren barnean zabaltzeko eta komunikabideen bidez egoki plazaratzeko. Era berean, "EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A." izenekoak jendaurrean zabalduko ditu, bereak dituen komunikabideen bidez, eta bi sinatzaileok jarritako baldintzetan, arau horien punturik nabarmenenak, eta, aldian-alдian ere, Euskaltzaindiak hala eskatuta, bidaliko dizkio Euskaltzaindiari arau eta gomendioen gaineko txostenak, gero ezarriko den Jarraipen Batzordeak adosturiko moduan eta baldintzetan.

Bereziki, Euskaltzaindiak erantzuna emango die "EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A." izenekoak egindako konsultei, konsultok euskal lexikoari, gramatikari, onomastikari -batez ere toponimia alorrean-, ortografiari eta, oro har, euskararen araugintzaren bestelako gaiei buruzkoak direnean. Horretarako, gero aipatuko den Jarraipen Batzordeareen bidez, mekanismo egokiak finkatuko dira.

Edozein kasutan ere, konsulta horiek bideratzeko orduan, bi erakundeek Euskaltzaindiaren zerbitzuak -Biblioteka, Jagonet, Onomastika- erabiltzea sustatuko dute, Jarraipen Batzordeak zehaztutako prozeduraren arabera.

5. Argitalpenen arloan, elkarlana bultzatuko da, eta baterako argitalpenak sustatuko dira, euskararen normalizazioaren eremuan, euskarazko testuak edo zabalkunde-lanak batera kaleratzeko, eta, horrela, bi erakundeok euskararen inguruan sortutako testugintza hedatzeko.

6. Bi erakunde horiek elkarlanean arituko dira, euren bibliotekako euskal funtsak sendotzeko; horretarako, euron argitalpen funsetatik, zenbait lan ekarriko dituzte.

7. Bi erakunde horiek lankidetzako politika bultzatuko dute ikastaroak eta programak sortu eta egin daitezen, euskarari eta euskal kulturari dagozkien eremuetan.

8. Aipatutako helburuok betetzeko, "EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A." izenekoak eta Euskaltzaindiak Jarraipen Batzordea sortuko dute; batzorde horrek lau kide izango ditu, eta Hitzarmen hau sinatzen duen erakunde bakoitzak horietatik bi hautatuko ditu. Hautatutako kideen artean, "EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A." izenekoaren ordezkariak eta Euskaltzainburuak arduradun bana izendatuko dute, arduradunok koordinazio-harremanen gaineko erantzukizuna izan dezaten. Jarraipen Batzordea urtean behin bilduko da gutxienez.

Jarraipen Batzordeak urtero-urtero eranskin egokia idatziko du, eta bertan zehaztuko du bi erakunde horientzat zeintzuk izan daitezkeen ikerketa-proiektu,

baterako argitalpen edo bestelako lan interesgarriak, zein izango den aurrekontu-zuzkidura, bai eta proiektu horien gainerako inguruabarrak ere.

9. Hitzarmen honek urte bateko iraupena izango du; baina iraupen bereko eta ondoz ondoko epealdietan luza daiteke, baldin eta erakunde sinatzaileetatik batek ere ez badu berau salatzen, indarreko hitzarmena bukatu baino hiru hilabete lehenago.

Nolanahi ere, hitzarmen honen bidezko informazio, material eta gainerakoen trukaketa egingo da, beti jabetza intelektualaren baldintzak gordez eta merkataritza-ustiaketarik gabe, elkarri trukatutakoa hirugarren bati emateko bi sinatzaileon baimena beharrezkoa delarik.

Bi erakunde horietako idazkari nagusiek onespen-aktak lutzatuko dituzte, eta akta horiek hitzarmen honen testuari erantsiko zaizkio.

10. 2010. urte honetan, hitzarmen honen bidez, "EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A." izenekoak eta Euskaltzaindiak honako jarduera hauek burutuko dituzte:

#### LEXIKOAREN BEHATOKIA

Euskaltzaindiak aitoru duenez, UZEI, Elhuyar eta Ixa taldearekin batera LEXIKO BEHATOKIA garatu nahi du. LEXIKO BEHATOKIAAn, DEIA egunkariaren euskarazko testu-masa erabiltzeko aukera izan dezaten, honako hitzarmena sinatzea erabaki dute bi aldeek, hurrengo baldintzokin:

A.1. "EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A." izenekoak DEIA egunkariaren 2000. urtetik honako euskarazko testu-masa osoa Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko du, baita hitzarmen honek indarrean dirauen bitartean sortuko dena ere.

A.2. DEIA egunkariaren euskarazko testu-masa LEXIKO BEHATOKIAAn egin behar diren azterlanak egiteko erabiliko du Euskaltzaindiak, ez beste ezertarako.

A.3. Euskaltzaindiak aurreko puntuaren aipatutakoaz gaineko erabilerarik egin nahiko balu DEIA egunkariaren euskarazko testu-masarekin, "EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A." izenekoaren baimena eta onespen idatzia beharko ditu nahitaez.

A.4. "EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A." izenekoak ez dio dirurik kobraztuko Euskaltzaindiari DEIA egunkariaren euskarazko testu-masa erabiltzeagatik, hitzarmen honetan zehazten den erabilerrako den neurrian.

A.5.- DEIA egunkariaren euskarazko testu-masatik abiatuz nolabaiteko ustiapan ekonomikoa egitekotan (izan argitalpen, zerbitzu emate edo bestelako edozein eratako diru-sarrerak sor ditzakeen ekimena), "EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A." izenekoaren baimena ezinbestekoa izango da. Era berean, "EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A." izenekoak ustiapan horretan parte hartuko du (bere bidez edo bera ordezkatuko duen beste enpresa edo erakunde baten bidez), non eta ez dion uko egiten aukera horri.

A.6. LEXIKO BEHATOKIA proiektutik erator daitekeen edozein eratako lanak "EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A." izenekoaren eskura jartzeko konpromisoa hartuko du Euskaltzaindiak, horregatik "EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A." izenekoak ordaindu beharrik izan gabe.

A.7. "EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A." izenekoak ere proiektuko partaide izateko aukera izango du, bere momentuan hala erabakiko balu.

A.8. "EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A." izenekoak DEIA egunkariaren euskarazko testu-masa Euskaltzaindiaren esku utziko du eta honek ezingo du beste hirugarren baten eskuetan utzi. Euskaltzaindia izango da erantzule testu-masa hirugarren batek erabiliko balu, horretarako "EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A." izenekoaren baimen zehatza izan gabe.

A.9. "EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A." izenekoak ahal dela HTML formatuan eta bestela bi alderdietako teknikariek adosten duten formatu batean emango dio DEIA egunkariaren euskarazko testu-masa Euskaltzaindiari. Hitzarmen honen Jarraipen Batzordeak ezarriko ditu emate hori burutzeko epeak.

A.10. Hitzarmen honek urte bateko iraupena izango du; baina iraupen bereko eta ondoz ondoko epealdietan luza daiteke, baldin eta erakunde sinatzaleetatik batek ere ez badu berau salatzen, indarreko hitzarmena bukatu baino hiru hilabete lehenago.

A.11. Aldeetako batek hitzarmena beteko ez balu, beste aldeak hitzarmena bertan behera uzteko eskubidea izango du. Kasu honetan, eta Euskaltzaindia bada hitzarmena eteten duena, testu-masa erabiltzeko baimena bertan behera geratuko litzateke eta "EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A." izenekoaren esku utzi beharko luke ordura arte jasotako testu-masa. Aldiz, hitzarmena betetzen ez duena "EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A." izenekoa bada, Euskaltzaindiak eskubidea izango luke beste 5 urtez ordura arte eskuratutako testu-masa erabiltzeko, beti ere hitzarmen honek zehazten dituen egiteetarako bakarrik.

Hitzarmen honen testua irakurri ondoren, eta behean sinatzen dutenak horrekin ados daudenez gero, goian aipatutako toki eta egunean sinatu egiten dute, bikoiztuta, eurek ordezkatzen dituzten erakundeen izenean.



Andres Urrutia Badiola  
euskaltzainburua



Iñigo Camino García jauna  
"EDITORIAL IPARRAGUIRRE, S.A."  
izenekoaren zuzendaria



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

## LANKIDETZA-HITZARMENA

### SINATZAILEAK:

ZIERBENAKO UDALA

| EUSKALTZAINDIA

Zierbenan, 2009ko azaroaren 30ean

### BILDURIK

Batetik Marce Elorza Talledo jauna, Zierbenako Udaleko Alkate jauna.

Bestetik Xabier Kintana Urtiaga jauna, EUSKALTZAINDIAREN ordezkari modura, IFK - G48091961.

Sinatzaileek elkarri aitortzen diote eskumen juridiko nahikoa agiri hau izenpetzeko, eta bakoitzak bere erakundearen ordezkari izanik, horren arabera jardunik eta elkarren adostasunez.

### AZALTZEN DUTE:

I.- Udalaren asmoa dela udalerrian euskara normalizatzeko ekintzak indartu eta bultzatzea. Asmo horrek kezkaturik, Zierbenako Udalak hainbat aurrerapauso eman ditu udalerrian euskara sustatzeko egitasmo orokorra abian jartzeko. Proiektu horretan oinarriturik, toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisajea normalizatzea lehentasunezkotzat du Zierbenako Udalak.

II.- Orain arte elkarlanean egindako lana positiboa izan dela iritzi diote bi aldeek.

III.- Hori guztia aintzat harturik, alde biek lankidetza hitzarmena sinatzea erabaki dute, ondokoak izanik errespetatu beharreko klausulak

### KLAUSULAK

LEHENA.- EPEA.

Honako hitzarmenak, atzeraeraginezko izaera duela, eta 2009ko azaroaren 30etik aurrera duela eragina, Zierbenako Toponimia jasotzeko kontratuaren behin betiko txostenetan eta emaitzak ebaluatu arte.

BIGARRENA.- ZIERBENAKO UDALAREN KONPROMISOAK.

Zierbenako udalak EUSKALTZAINDIA-ren aholkularitza jasotzearen truke honako konpromisoa hartzen du:

1.- Euskaltzaindiak egingo dituen koordinazio eta aholkularitza lanengatik 1.500 euro ematea.

2.-Toponimia bildu, finkatu, arautu eta normalizatzeari dagokionean Euskaltzaindiak emango dituen aholkuak eta irizpenak beteko ditu Zierbenako Udalak.

3.- Zierbenako Udalak toponimia azterketaren lanaren ondorioz sortzen den material guztiaren kopia helaraziko dio Euskaltzaindiari.

4.- Zierbenako Udalak, lanaren egileak lanaren jarraipenerako 4 hilerik behin aurkeztu behar duen txostenaren kopia, gutxienez, jarraipen-bilera baino astebete lehengo helaraziko dio Euskaltzaindiari, eta gainontzeko arduradunei.

5. Materiala argitaratzen denean Goio Bañalesen, Ekilore Aholkularitza Zerbitzuaren eta ikerketa koordinatzailearen lana aitorzeaz gain liburuaren partaidetza onartuko du.

**HIRUGARRENA.- EUSKALTZAINDIAk hartzen dituen konpromisoak:**

- 1- Euskaltzaindiak lanaren koordinatzailea izendatuko du.
- 2- Goio Bañales jaunak bildu eta Euskaltzaindiaren esku dagoen Zierbenako dokumentazioa udalaren eta Ekilore Aholkularitzaren esku utziko du.
- 3- Zierbenako toponimia jaso eta finkatza helburu duen lana garatzen den bitartean, Euskaltzaindiak izendatutako koordinatzailea eta Ekilore Aholkularitzako ordezkarria izango dira lana koordinatzeko arduradunak.
- 4- Euskaltzaindiak, izendatu dituen parte-hartzaleen bitartez parte hartuko du toponimia lanaren jarraipenerako egingo diren bilera eta deialdietai.
- 5- Euskaltzaindiak izendatutako parte-hartzaleek egilearen txostenak aztertuko dituzte.


#### **LAUGARRENA.- HITZARMENAREN AMAIERA**

Honako hitzarmena lehen klausulan ezarritako epea agortu ondoren modu naturalean bukatuko da.

Hauek dira hitzarmena bertan behera uzteko arrazoiaiak:


1.- Bakotzari dagokionean hitzarmenean ezarritako baldintzak ez betetzea.  
Eta hitzarmen honek dioenarekin ados daudela, bi alderdiek, hitzarmenaren hiru ale sinatu dute arrestian esandako toki eta egunean.

MARCE ELORZA TALLEDO jauna,



Zierbenako  
ALKATE-UDALBURUA.

XABIER KINTANA URTIAGA jauna,



Euskaltzaindiaren idazkaria



# Berriak



**Euskaltzain omenduak, 2010**



## **Beñat Oihartzabal**

Martxoaren 5ean, Baionako IKER ikerketa-gunearen egoitzan, Beñat Oihartzabal euskaltzain osoa omendua izan zen, «euskalaritzan eginiko lanagatik». Omenaldian, Ricardo Etxeparek, Joseba Lakarrak eta Ricardo Gomezek argitaratu duten *Beñat Oihartzabali gorazarre Festschrift for Bernard Oyharçabal* omenaldi-liburua eman zioten.

Liburu hori *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»* (ASJU) aldizkariaren zenbaki berezi gisa atera da. Bertan hirurogeita hamahiru egilek parte hartu dute, berrogeita hamazazpi artikulu idatziz, euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez. Eileen artean hainbat euskaltzain oso eta urgazle daude.

## **X. Kintana, P. Uribarren...**

Euskarazko irakaskuntzak Euskal Herriko Unibertsitatean 30 urte bete dituela-eta, euskarazko lehen eskola haiiek sustatzen eta gauzatzen ibili zirenak omenduak izan ziren EHUko Leioako campusean, martxoaren 5ean eginiko ekitaldi batean.

Owenduen artean hainbat euskaltzain izan ziren: Xabier Kintana eta Patxi Uribarren euskaltzain osoak, Karmele Rotaetxe ohorezko euskal-

tzaina, eta Jose Ramón Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Jazinto Iturbe, Jon Kortazar eta Jose Antonio Mujika euskaltzain urgazleak. Henrike Knörr zenaren izenean, Txari Santiago haren emaztea izan zen.

### **Jose Antonio Arana Martixa**

Martxoaren 13an, Gernika-Lumoko Udalak eta herriko hainbat kultura elkartek: Andra Mari Koralak, Kultura Etxeak, Gernika-Lumoko euskaltegiak, Segundo Olaeta Musika Eskolak, Julia Foruria Musika Eskolak, Gernikazarrak, *Aldaba* aldizkariak eta Marijesiek omenaldia eskaini zioten Jose Antonio Arana Martixa euskaltzain emerituarri. Omenaldi horren bitartez, esker ona adierazi nahi izan zioten «herriaren alde egindako lanagatik eta, batik bat, Jose Antoniok duen balio intelektualagatik».

Omenaldian Jose Maria Gorroño Gernikako alkateak eta Denis Azkarak, kultura taldeen izenean, oroigarri bana eman zioten Jose Antonio Arana Martixari. Gainera, berak sortu zuen *Andra Mari* Koralak, aurten 30 urte bete dituena, kontzertu berezia eskaini zuen.

### **Jean Haritschelhar**

Jean Haritschelhar euskaltzain emeritua *honoris causa* doktore izendatu du UNEDek (Urrutiko Hezkuntzarako Espainiako Unibertsitateak). Haritschelharrekin batera, Antoni Maria Badia i Margarit, Xexús Alonso Montero eta Humberto López Morales ere *honoris causa* izendatu ditu UNEDek. Horrela, euskara, katalan, galiziera eta gaztelaniazko lau irakasle horien lana aitortu du unibertsitate horrek.


Izendatze ekitaldia martxoaren 23an, egin zen Madrilen. Bertan Angel Gabilondo Espainiako Hezkuntza ministroa eta Juan A. Gimeno UNEDeko errektorea izan ziren.

## Henrike Knörr Borràs Haurreskolaren zabaltzea

2010eko martxoaren 29an Gasteizko Udalak, ekitaldi publiko baten bidez, Salburuko zingiradi ondoan eraiki berria zuen udal-haurreskolari *Henrike Knörr Borràs* izena eman zion.

Ekitaldi horretan Gobernuko delegatua, Gasteizko alkatea, Henrike Knörrren familia eta ahaide, adiskide eta ezagun talde bat bildu ziren. Patxi Lazcoz eta Txari de Santiago, Henrikeren emaztea, izan genituen hizlari eta hitz adeitsu eta sentikorrik esan ondoren, haurreskolako lorategian Henrikeren omenez jarritako oroitarrian gure euskaltzain izan maiteari lore-sorta bat eskaini zioten, aurreskuaren soinua airean eta bihotzeten gordetzen zelarik.

Salburuan, Europako eleaniztasunaren sinboloa litekeen Helsinki / Helsingfors kaleko iparraldean, haize guztietara zabalduta, hor dugu gure Henrike, haurren haziera eta hezieraren zain, bere oroitarrian lagatutako hitz deigarriak, »Bizi gareino gaitezen ikasle», gorpuztu nahi iraunkorrean. Henrikeren izaera ireki eta landua euskal gazteengan eta gugan guztiongan zabal dadila oparo.



## Karmelo Etxenagusia

Karmelo Etxenagusia ohorezko euskaltzain eta Bilboko gotzain lagun-tzailea izan zenari omenaldia egin zioten apirilaren 24an, Iurretan, *Euskaltzale* egunaren barruan. Gerediaga Elkarteak eta Iurretako Udalak antolatutako omenaldi honetan, Euskaltzaindia, Labayru ikastegia, Bilboko Elizbarrutia eta Iurretako Kofradiak laguntzaile izan ziren.

Ekitaldian hauek mintzatu ziren: Nerea Mugika Gerediagako elkarteko presidentea, Iñaki Totorikaguena Iurretako alkatea, Angel Mari Unzueta Bilboko Bikario Nagusia, Igone Etxebarria Labayru ikastegiaren kidea, Adolfo Arejita euskaltzain osoa eta Karme Etxenagusia, Karmelo zenaren iloba. Iurretako dantzariek eta Koruak ere parte hartu zuten. Omenaldian Andres Urrutia euskaltzainburua, Jose Luis Lizundia Euskaltzaindiaren diruzaina, Gorka Aulestia eta Ander Manterola ohorezko euskaltzainak eta Juan Manuel Etxebarria euskaltzain urgazlea izan ziren.

# Aurkezpenak



*Euskararen herri hizkeren ATLASA:*  
**I. eta II. liburukien aurkezpena**

Bilbo, egoitza, 2010-IV-30



# **Agurra eta EHHA egitasmoaren nondik norakoak**

URRUTIA BADIOLA, Andres  
Euskaltzainburua

Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaria,  
Nafarroako Gobernuaren ordezkaria,  
Euskadiko Kutxaren burua, zuzendari orokorra eta gainerako ordezkariak,  
Eusko Ikaskuntzen burua,  
Euskalgintzaren ordezkariak,  
Komunikabideak,  
Euskaltzainak,  
Jaun-andreak,

Egun on guztioi eta ongi etorriak Euskaltzaindiaren egoitzara, eta, zer esanik ez, zuen, euskararen eta euskal kulturaren egoitzara.

Ongi-itorria ematen dizuet Euskaltzaindiaren izenean. Hala egiten dut, pozarren, gaur hemen ikusten ditugulako hainbat euskaltzain eta euskaltzale, hainbat erakunde eta administrazio publikoren ordezkari, eta, esan gabe doa, gaur aurkeztuko dugun egitasmoaren partaide eta egileak.

Zinez garrantzitsuak dira, hizkuntza ororen bilakaeran, dialektologialkerketak. Are garrantzitsuagoak, zer esanik ez, euskararen kasuan, euskalkiek gorpuzu eta norabidetu baitute, urte luzeetan zehar, euskal hizkuntzaren bilakaera eta ibilbidea. Horren jakitun izan da, hasiera-hasieratik, Euskaltzaindia, eta lan horri lotu zaio, gogo handiz, bere laurogeita hamar urteko historian.

Pausoak pauso, euskal dialektologiaren lanak behar zuen, ezbairik gabe, euskararen atlas linguistikoa osatzea. Horri ekin zion Euskaltzaindiak aspalditik, eta orain dator, guzton eskura, lehen ahalegin hura aintzat harturik, haren fruitu eta uulta, atlas horren lehenengo bi liburukitan mamitua.

Hats luzeko lan xehe eta zehatza aurkituko du liburuki hauen orrialdeetara hurreratzen denak, lanean ibili diren askoren ekarria. Baditu horrek atzean ordu askoren nekeak eta lorrik, on-gaitzak eta gorabeherak. Ezin bestelakorik izan, euskararen errealitatea esamolde, doinu eta soinu askotariko baita, oinarrizko batasunaren sustriaietan.

Errealitate hori bildu da, ikertu da, eta papereratu da, egungo atlas linguistiko duinek behar duten moduan. Ezin, beraz, aurrerantzean auzitan jarri, hau edo hura, zer non erabiltzen den eta zertarako, Euskal Herri osoa baitago horretan ordezkatutik.


Metodologia ez ezik, edukia bera ere da azpimarragarria, hor dugulako, lehen-lehenik, eta Louis Lucien Bonapartek egin zituen hasierako lanen ondoren, hainbat euskalariren eginahalen eta ametsen emaitza erabakigarri eta eredugarria.

Ez dagokit, alabaina, niri hori aurkeztea. Horretarako hemen dira Adolfo Arejita, EHHA egitasmoaren zuzendaria, eta Beñat Oihartzabal, lehen liburukiaren gaineko ardura akademikoa izan duena.

Labur ditzadan, dena den, halako dekalogo batera, EHHA egitasmoaren nondik norakoak, Euskaltzaindiaren ikuspegি instituzionaletik:

1. Hasteko, esan dezadan hiru euskarri desberdinaren egiten dugula aurkezpena, historian lehendabizi: paperean, CD formatuan eta sarean. Hortaz, ekitaldiak iraun bitartean zabalduko da, sarearen bitartez, lehen eta bigarren liburukien edukia. Hala banatuko zaizue, orobat, CD formatuaren bitartez, eta paperezkoak jasotzeko eskabidea ere egin ahal izango duzue. Horrela ikusiko duzue pantailan. Horrela ere erabili ahal izango du Euskaltzaindiaren webgunera urreratzen denak. Modu honetan jartzen du Euskaltzaindiak iker-tzaileen eskura eta jakingura dutenen eskura euskararen esparruan dagoen dialektologiari buruzko lan esanguratsua, *copyright* sistema-

ren barruan. Esperantza du Euskararen Akademiak, baliabide hauek erreferentzia baliotsu izan daitezen, euskalgintzaren baitan.



2. Hasian hasi, jarrai dezadan lanean, gaurkoa hasiera besterik ez baita. Izan ere, egitasmoaren lehen eta bigarren liburukiak aurkeztuko ditugu, baina egitasmo horrek etorkizuna ere badu. Dagoeneko hirugarren liburukia bukatuta dago, eta espero dezagun, Euskadiko Kutxaren laguntzarekin, urtea bukatu baino lehenago kalean ikustea. EHHA egitasmoaren material osoaren datu-basea ere bukatuta dago, eta Euskaltzaindiak ahaleginak egingo ditu, liburuak agertu bitartean, datu horiek erabilgarri egon daitezen.
3. Horrelako lanek, argi dago, askoren laguntza eta parte-hartzea behar dute. Begien bistakoa da, bestalde, egitasmo horiek ez direla erraz kudeatzekoak. Luze joan da, askoren ustez, EHHAren plazaratzea, Euskaltzaindiak 1983an egitasmo hau onartu zuenetik, Markina-Xemeinen egindako Dialektologia Barne Jardunaldietan. 1984an abian jarri zen egitasmo hau, eta, ordurik hona, aldi latz zein gozoagoetan, Euskaltzaindiak eutsi egin dio lanari.

Hartara, konpromiso sendoa adierazi nahi du gaur Euskaltzaindiak, Zuzendaritzaren bitartez, egitasmo horren segida bizkortzeko eta arintzeko, euskarari eta euskal kulturari onuragarri zaielakoan.

Askoz gehiago, garai honetan, baliabide mugatuak baititugu, eta, bide beretik, teknika berriak erabili eta emaitza sakonagoak erdietsi nahi ditugulako.

4. Egun, sarri hitz egiten da ikerketaz eta bikaintasun akademikoaz. Halakoak dira gure xedeak, eta horien bila ari da etengabe Euskaltzaindia, azken laurogeita hamar urteetan. Bide beretik, ardura zaio Euskararen Akademiari egiten duen lan horren gizarteratze egokia. EHHA egitasmoaren lehen bi liburukiak dira, oraingoan, gizarteari Euskaltzaindiak eskaintzen dizkion emaitzak.
5. Emaitzek, zernahi gisaz, egileak izaten dituzte. Egileasun horretan, zilegi bekit banan-banan aipatzea egitasmo honetan parte hartu duten guztiak:

ZUZENDARIAK: Hurrenez hurren, Jean Haritschelhar, Beñat Oihartzabal, Andolin Eguzkitza (†) eta Adolfo Arejita.

ARDURADUNAK: Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Bidegain.

KIDEAK (Hurrenkera alfabetikoan): Isaak Atutxa, Iñaki Camino, Ana Maria Echaide, Jose Mari Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Jon Idigoras, Juan Antonio Letamendia, Juantxu Rekalde, Koro Segurola, Amaia Jauregizar, Gorka Intxaurbe eta Aitor Iglesias.

EUSKALTZAINDIAk beren-beregi agerrarazi nahi die bere esker ona egitasmo kolektibo honetan parte hartu duten eta hartzen duten, eta lanean aritu diren eta ari diren guztiei; eta, jakina, ezin argiago aitortu, horiek guztiekin duten lan bikaina. Giza lanak, nolana hi ere, beti ditu hutsak. Esan gabe doa horiek Euskaltzaindiarenak direla, eta ez egileenak.

#### 6. Orobak, erakundeak gogoratu eta eskertu behar ditugu.

Hastapenetik, urtez urte EHHA egitasmoaren finantzatzea bereziki bere gain izan duten Hegoa deko herri erakundeak: Eusko Jaurlaritzta, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundia, eta Nafarroako Gobernua.

1994az geroztik urte guztiez Euskaltzaindiaren gisa horretako egitasmoentzat bere laguntza eman duen Espaniako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa.

Urte batean edo bestean egitasmoa lagundu duten Akitaniako Konseilua, Europar Batasuneko Hedadura Gutxiagoko Hizkuntzen Batzordea, Frantziako Irakaskintza eta Ikerkuntza Ministerioa, Europanako Harremanetako Ministerioa, eta Baionako Euskal Ikerketa taldea (CNRS, Michel de Montaigne – Bordele 3ko Unibertsitatea eta Pauko eta Aturrialdeko Unibertsitatea – UPPS).

#### 7. Bereziki aipatu behar da argitalpen honen babeslea, hain justu ere, Euskadiako Kutxa. Euskadiako Kutxari, gainera, beren-beregi aipatu eta eskertu nahi dizkiot, jendaurrean, haren eroapena eta egoniarria, urte luzeetan eta baldintza desberdinetan aurrera egin duelako, guzkin batera, egitasmo honen fruituak plazaratzeko.

Badakit, bestalde, Jose Antonio Arana Martija, Jose Luis Lizundia eta Juanjo Zearreta (†) izan zirela, Euskaltzaindiaren aldetik, hasierako kudeaketa-ekimenak bideratu zituztenak, Euskadiko Kutxaren inguruan, Euskadiko Kutxaren Iñaki Gorroñorekin batera. Aldarrika dezadan Juanjo Zearretaren oroitzapena, hark makina bat lan egin zuelako, gaur aurkezten dugun hau kalean egon zedin. Berebat, Juan Ciden ahaleginak ere aipatu eta eskertu, Txomin Garcia, Euskadiko Kutxaren presidentea, eta Julio Gallastegi, Euskadiko Kutxaren zuzendari orokorra, bazter utzi gabe.

8. Euskarak lan honekin beste urrats bat ematen du, urrats garrantzitsua, dialektologiaren lan zientifikoan. Lan horrek, bestalde, harago eramatzen gaitu, hain justu ere, egun euskara batua den eta izan behar duena osatze aldera.
9. Egitasmo honek etorkizunean ere beste emaitza batzuk ekarriko ditu. Horrenbestez, Euskaltzaindiak bere azken barne jardunaldietan jarri dituen lehentasunen artean, dialektologia-arloa dago, eta, horren barruan, EHHA egitasmoari segida ematea eta ahozko tradizioa biltzeko egitasmoa.
10. Bukatzera noa. Apropos utzi ditut azkenerako gaur gurekin ez dau-denak eta EHHA egitasmo honen protagonista direnak, alegia, informatzaileak. Eurekin egingo dugu ekitaldi berezia, haiei eskerrak emateko eta gogorarazteko, besterik ez bada ere, eurak izan direla herri euskaldunaren ordezkarriak, Euskal Herriaren ordezkarriak, Euskaltzaindiak haien ezpainedatik jaso baitu euskararen altxor preziatua eta molde berrietan jarri, egungo belaunaldiek erabil deztaten maila akademikoan eta ikasian.

Ezin bukatu Andolin Eguzkitza zena gogoratu barik. Ausartia izan hura, eta, EHHA egitasmoaren kinka larri batean, ontziaren lema hartzeko ez zuen beldurrik izan, ezpada adore eta kemenet. Adore eta kemen berberak ditu Euskaltzaindiak, EHHA egitasmoarekin jarraitzen. Horretan espero du zuen laguntza eta bultzada izatea.

Mila esker

# Euskararen Herri Hizkeren Atlasa (EHHA): I. eta II. liburukien aurkezpena

AREJITA OÑARTE-ETXEBARRIA, Adolfo  
Zuzendari akademikoa

Ibilbide luzea egin ondoren azaltzen da Euskaltzaindiaren EHHA egitasmoa plazara, beronen lehen fruituak erakustera, lehen liburuki biak.

Urrun gelditu dira harako lehengo mendeko 80gnek urteak, Euskal Hizkeren Atlasa egiteko bideak 1983. urtean urratzen hasi zirenekoak. Urrun, harako Atlasa egiteko metodologia landu zenekoak: aurretik horretan jardundako beste batzuengandik ikasi, inkestak prestatu, euskal hizkeren ikuspegi osoa islatuko zuten herriak eta lekuak hautatu, lan-taldea osatu eta trebatu, nori bere zereginak izendatu eta beste mila ertz landu eta leundi behar izan zirenko urte zaharrak.

Dialektologia batzordea izan zen, Markina-Xemeinen izan ziren Barne Jardunaldietañ egitasmoa onartu zuena, eta ondorik bidean jarri zuena, Jean Haritschelhar buru zela, eta Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain arduradun hasiera bertatik.

Urruntxo daude halaber, inkestaldia burutu zeneko 1987-1992 bitarteko bost urte luzeak. Inkestak egiten jardun zutenak unibertsitateko irakasleak eta lizentziatuak ziren, filologia arlokoak: Ana Maria Etxaide, Jose Mari Etxebarria –artean biak unibertsitate irakasleak–, Isaak Atutxa, Izaskun Etxebeste eta Koro Segurola izan ziren, izendatu berri ditudan arduradun biokin batera.

Atlasaren neurriari antz bat emateko, inuesta-gidari gain-begirada bat ematea baino hoberik ez dago; ikertzaileok lanean hasi eta urte batzuetara

argitaratu zena (1993)<sup>1</sup>. Guztira 2877 kontzepturen galderak jasotzen ditu galde sorta horrek: lexikoari buruzkoak gehien-gehienak, 2162; morfologia-ren gainekoak, izen eta aditzarenak ere asko: 596; sintaxiaren gainekoak, 62, eta azkenik fonetikazkoak, 37. Hala bada, hiru milatik hurreko kopurua heltzen da galdetegia.

Inkestagileok ez eze, lekuau lekuoko informatzaileek ere ez zuten eroapen, egonarri eta patxada makala hartu beharko itaun bakoitzari eta guztiei erantzuteko. Euskal Herriko 145 herri edo tokiren ordezkarri ziren lekukook: Bizkaian 36, Araban 1, Gipuzkoan 36, Nafarroan 27, Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 11, Eskiula barne dela.

Inkestaren emaitza guztiak grabazioz jaso ziren. Horren guztorren emaitza da, Euskaltzaindiak bere artxiboan gaur gorderik duen 4000 ordu inguruko altxorra. Euskarri digitalean eta berme onez gorderik dago ahotsezko altxor hori. Eta horretara jo izan da ikerketa aldian behin eta berriro, zertan edo harten zalantzarik gertatu denean; testu grabatuak ez baitu hutsik egiten; hark salatzen du hitz, hitz-segida eta esaldi bakoitza zelan ahoskatu zuen lekuoa, eta beraz, nola transkribatu behar den.

Inkestagileek berek beharreko hurrengo eginkizuna zen, erantzun-koadernoetan eskuz transkribatzea hitzez entzuna, ahotsez jasoa: herri bakoitzeko bost erantzun koaderno, guztira 725 edo horrenbat. Erantzunak fonetikoki transkribatzen ziren, eta gainetiko oharrauk sistema ortografikoaz.

Oharrauk aipatu ditut; eta zer jaso da oharretan? Lekuko informatzaileak, kontzeptu baten gainean eskatutako erantzunaz gainera, eta harekin batera, isuri duen informazio bestelakoa, informazio osagarria. Hor denetarik da. Batzuetan informazio baliotsua ere bai: gai edo izen baten inguruan gure herrietan diren iritzi-usteak, azalpen-argibideak; hitz batzuen inguruko atsotitzak edo lokuzioak, data batzuen inguruko errezitatu edo kantuak, baita ipuin eta pasadizoak ere.

Informazio osagarri legez batu den «herri-jakintza» horretarik, gutxi baino ez duzue aurkituko paper euskarriz atera diren edo aterako diren liburu-

<sup>1</sup> Aurrekoetxea, Gotzon, Videgain, Xarles (1993): «Euskal Herriko hizkuntza atlasa: galde sorta / cuestionario / questionnaire», *Euskera* 38, 529-647.

kietan, neurriz gorakoa eta helburuez gainetikoa izango bailitzateke euron edukia. Agian sareak eskainiko digu aurrerago informazio hori eskura izateko abagadunea.

Datuenei informatizazioa etorri zen ondoren: 1992. urtean hasita luze jo du prozesu horrek. Informatikaren transformazioak bete-betean harrapatu zuen Euskaltzaindia ere, eta aldakuntzaren prozesu bizkor horretan programa batetik bestera jauzi egin eta datuak igaro beharrak nekeak eta lorrak eragin dizkio egitasmoari, baina azkenean burutu izan da 2008rako.

Datuenei informatizatze hori, lehenik, Beñat Oiharzabal batzordeburu zela finkatu zen, gero Andolin Eguzkitzaren zuzendaritzapean segitu, eta gure aldion amaitu. Horretan jardun dutenak, Izaskun Etxebeste eta Koro Segurola Donostian, Xarles Videgain Baionan eta Gotzon Aurrekoetxea Bilbon izan dira batez ere. Prozesu horri bere azken txanpan belaunaldi berriko lankide bik bultz egin diote: Amaia Jauregizar eta Gorka Intxaubur. Guztioi euskal filologia arloan jende ikasia.

Jasotako erantzunak eta oharra datu-base informatikoak modu fidagarrian sartzea ezinbestekoa zen, ondoren etorriko zen elaborazio prozesua ziurtasunez eta fidagarriro egingo bazen, eta orain argitaratzen den edizio-rako bidea prestatu.

Edizioaz zer esan: gaur aurkezten ditugun liburuki biok dira hurrengo etorriko diren beste hamarren aitzindari. Eurotan funtsezko informazio bi eskaintzen dira kontzeptu bakoitzaren inguruan: lehenik, lurraldeka eta herriz herri jaso den erantzuna -edo erantzunak-, era fonetikoz jasorik, eta bigarrenik, mapak, non hitz eta aldaera mugatuetara bildu diren lematizaturiko erantzunak, finkatu lema bakoitzari kolore bat izendatu, eta kolore horien arabera mapara ekarri diren; horretara ikertzaile edo irakurleak erantzunen ikuspegi grafiko eta didaktikoa izan dezan.

1998an abiarazi zen elaborazio prozesua, diogun bezala, datu-base informatikoa zimendu zela. Horretan lan-talde ugaria ibili da. Hurrengorik hurrengo: Jose Antonio Letamendia, Iñaki Camino, Jon Irigoras, Juantxu Rekalde, Aitor Iglesias, eta azken aldion, iaztik aurrera, lehen aipatu lankide berriak.

Elaborazio-egileon proposamena zuzendari-arduradunon eskuetara etorri ohi da ondoren, eta honen iragazkitik irazi eta dagozkion oharrak jaso ondoren finkatzen dira behin betiko mapak eta material osagarriak.

Lehen liburuki biak inprimaturik plazaratzen ditugu gaur hiru euskarritan. Irudi zahar bat erabiliz, esango dut hamarren asko ordaindu ondorengo hasikinak dituela hauek Euskaltzaindiak. Berez jakinda inor ez gara mundu honetara; ibili-ibili ikasten dugu gauzak egiten, eta ondo egiten. Euskal atlasa asmo berria zen oraindino 80gn hamarkadan; horretan aurrez gutxi ibilia berori burutuko zuen lantaldea. Beste batzuen esperientziak jaso eta beregandu ziren batetik, baina batez ere ibilian ikasi zen, eta ondo egiten ikasi. «Arin eta ondo antzina haserretu ziren» dio gure esaera batek. Eta EHHA-ren gidariok beti izan dugu argi, azkar egiteak baino ondo egiteak gehiago balio zukeela. Ondo genekien honen neurriko beste Atlas egitasmo bat ez zela behingoa eta geroetan ere egingo. Ondo behar horrek gidaturik aitzinatu ditugu geure pausoak, eta gure Erakundearen eroapenari eskerrak, diodan bidenabar.

Ez naiz liburukion edukietan luzatuko. Papera astun egiten bazaizue, Euskaltzaindiaren webgunean izango dituzue, argitaratu ahala, liburu bakotzaren edukiak PDF formatoan kontsulta egiteko eran. Eta mapen aurkibidea ere bai, non bilaketak egin daitezkeen galderetatik, erantzunetatik edo lemetatik abiaturik.

Azken gogoeta bi. Bat. Euskaltzaindiak esku artean duen EHHA egitasmoa bakarra eta ordezka ezina da: hilak dira horko informatzaileetarik asko, zaharrak baitziren galdeketa egin zen aldian; euren hotsak atzera jasotzerik ez dago; transkribatzen, informatizatzen, digitalizatzen, garraioak egiten, edukiak elaboratzen eta azkenean, liburukietan edo sarean egoki taiutzen egin den ahalegin eskergak ere berdingabeak dira. Berriro diot, nekez egingo da beste honenbesteko ahaleginik Euskal Herrian. Eta egin badadi ere, ondoko belaunaldi baten testigantzekin izan beharko du. Laurogehirgarren hamarkadako altxorra, jasorik, sailkaturik eta iraupena bermaturik dugu, beraz. Ondoko belaunaldiek eskura izango duten altxor eskerga.

Etorkizunari buruz bigarren gogoeta: EHHA egitasmorako jaso diren edukiek beste ikerkuntza batzuetarako ere bideak irekitzen dituzte: batetik,

lehen aipatu dugun herri-jakintza esparruko material franko gorderik da goelako bere baitan, eta bestetik, ikertzaile gazteagoek, *corpus* horretako edukiei tira eginez eta eduki berriekin konparatuz, ikerketa berriak etorriko direlako ondorik; monografikoak batzuk, zabalagoak beste batzuk, lexikografia dela, morfologia edo sintaxia dela, edo berdin fonetika, etnografia edo beste arloren batekoa.

Eskerrak eta ohore EHHAREN kide eta partaide izan zareten guztioi. Zeuen gogo eta ahaleginari esker aurreratu du Euskaltzaindiak eta alborokea egiteko eguna da gaur.

Besterik ez. Eskerrik asko.



# EHHAreñ lehen liburukia

OIHARTZABAL BIDEGORRI, Beñat  
Euskaltzain osoa eta lehen liburukiaren arduradun akademikoa

Atsegin handia da enetatz egun EHHAreñ lehen bi liburukien aurkezen ekitaldi honetan parte hartzea, eta, oroz lehen, zorionak eman nizkieke argitalpen hau bideratu duten guziei, azkenean argia ikusten baitu hamar bat urte honetan argirako bidea ezin aurkiturik egona den lan honek. Alabaina, orok dakigun bezala, euskaltzale eta euskalari guziek aspaldian berantetsia zuten lana aurkezten da gaur. Bi gisatara berantetsia: alde batean, aitzin solasean adierazten den bezala, gisa horretako ikerlanak beste herrietañ, Europan behintzat, aspaldian, XX. mendearen lehen partean edo erdi aldean, egin baitziren, eta bildots-kuku gisa agertzen baita euskal hizkeren atlas hau, baina beste aldetik ere, Euskaltzaindiaren barneko egitasmo gisa ere, bide luze eta gorabeheratsua korritu behar izan baitu argitaralpeneko atea aurkitu aitzin.

Hemen zaudeten entzule guziek orain ikusten eta laster eskutan atxikitzen ahalko dituzue EHHAreñ lehen eta bigarren liburukiak. Itxura ederreko liburu gotorrak, hain segur, baita, oroz gainetik, informazio balios eta aberatsa dakartenak ere, bai hizkuntzalarientzat, haientzat bereziki egiten baitira hizkuntza atlask, baina euskaltzale anitzentzat ere, segur bainaiz batek baino gehiagok gogotik hostokatuko dituela liburu haietako orrialdeak halako edo holako hitza aurkituko ote duen, eta non, jakin nahiz.

Gainerako hizkuntza atlasek bezala, EHHAreñ lehen liburukiak, bigarrenak bezala, hizkuntza mapak eskaintzen ditu, hots, hizkuntza-item andana baten gauzapen desberdinek lurralte batean duten tokizko banaketa erakus-

tera ematen dutenak. Bizkitartean, badute paperezko argitalpen horiek, orain arte beste herrieta eginikako holako lanetan ikusten ez den berezitasun bat, liburuak hartzean berehala ikusten dena: euskal atlaseko mapak interpretazio mapak dira, ez mapa biltzaile hutsak. Hobeki azal dezadan, laburzki bada laburzki, zertan datzan bi mapa mota horien arteko aldea. Hizkuntza atlasen tradizioa, positibismoak hizkuntzalaritzan utzi zuen ondorioetarik bat izan zen, eta luzaz ikertzaileek mapetan zuzen-zuzenean idatzen zituzten beren inkestetan bildu tokiko formak, ahal bezain zehaztasun handienarekin. Horregatik, toki askotan, atlasak liburu handi-handiaik ziren, eskuz idatzitakoak. Ohiko atlas horien hurbileko eredu gisa, J. Séguyk eta J. Allières ohorezko euskaltzain zenak egin zuten gaskoieraren atlas ederra (*Atlas linguistique de la Gascogne*) aipa daiteke. Azkueren *Erizkizundi Irukoitza* ere (orain A.M. Echaideri esker erabilgarria, ikus *Iker-3*), ahal gutiagorekin eta beste baldintza batzuetan egina izanagatik, eredu horretakoa zen.

Euskal hizkeren atlaza ez da arras holakoa: nahiz inkestaleku asko dituen (145), eta, ondorioz, estaltzen duen eremuan franko sare hertsia, hango mapak izari arruntekoak dira. Are gehiago, erantzun gisa oposaketa handienen adierazgarri diren formak bistaratuak dira hango mapetan, ez erantzun guziak zein bere lekuan emanik. Hauen aurkitzeko maparen aitzinean den zerrendara jo behar da, han bai, herrialdeka antolatua den zerrendan aurkitzen baitira herrika bildu erantzun zehatzak, ortografia fonetikoan emanik. Aise da ulertzea, erantzunak beren forma fonetikoan zein bere tokian mapetan beretan idatzi behar izan balira, oso tamaina handiko mapak egin beharko zirela gurean ere, eta ezinezkoa izanen zela, edo oso zaila, erantzunen arteko aldeetan mailarik egitea. Lantaldeak, beste herrietako aitzineko esperientzia haietaz nolabait probetxu eginik, bestelako hautua egin du, alde batetik erantzun zehatzak herrialdeka antolatu inkestalekuuen zerrendetan bildurik, eta bestetik mapa interpretatiboak eskainiz, datuen irakurketa errazteko. Horrek ondorio bat ere badu, haatik : mapa bakoitza interpretazioa denaz gero, egile bat ere badu, erran nahi baitu, datuen egituratzeko orduan irizpideak aukeratzen dituen autore bat.

Lehen liburukiak zortzi sailtako hiztegi itemetako erantzunak biltzen ditu : intsektuak, arrainak, narrastiak, txoriak, piztiak, zerua eta eguzkia, eguraldia, eta elurra eta hotza. Ikusten den bezala, partez hiztegi berezietako

itemak ditugu, arrainak adibidez, itsas arrainak bereziki, eta partez egunero oinarrizko hiztegiak, hala nola eguraldia. Itsas arrainei buruzko galdeez kanko (hauek itsas hegiko inkestalekuetan baizik ez baitira galdu), beste guziak 145 inkestalekuetan galdu dira, haste-hastetik batzordeak inkestak egiterakoan finkatu zuen zerrenda baten arabera : Bizkaian 36, Araban 1, Gipuzkoan 36, Nafarroan 27, Lapurdin 15, Nafarroa Beherean 18 eta Zuberoan 11.

Lehen liburuki honek badu, bestalde, paperezko liburukiaz gainera, beste argitalpen bat, elektronikoa hau, aurrekoaren osagarri izanik, guziz bestelako dena, eta hitz laburrez aurkeztu nahi dizuedana orain, zinez uste baitut ereduzkoa dela. Argitalpen elektroniko hori, ez da CD-ROM batean aurkitzen, lantaldeak hastean egin gogo izan zuen bezala, baina zuzenean Euskaltzaindiaren webgunetik zuzenean eskura daiteke, urririk eta zailtasunik gabe. Programa berezi hori, 90 hamarkadaren hondar urteetan Aurten Bai fondazioak EHHAko lantaldearekin lan eginik informatikaren aldetik landu zuena, ikertzaileentzat bereziki egina izan da, bi gauza bereziki ekarririk : i) inkestetan bildu materiala - bai erantzunei berei dagokiena, bai haiek erdiestean bildurikakoa - modu antolatu eta arrazoizko batean eskaintzen du (herrika edo galderaka, erabiltzailearen hautura) ; ii) aukera ematen dio ikertzaileari atlaseko erantzunez baliatuz eta bere irizpideak aukeratzu bere mapak egiteko.

Ez da erraza elektronikoki erabiltzeko den lan tresna bat nolakoa den eta harekin zer egin daitekeen hitzez soilik azaltzea. Horregatik, hemen zenbait irudiren bidez ikusiko dugu nola eratua den programa berezi hori. (*EHHAren lehen liburukiaren argitalpen elektronikoen aurkezpena irudietan egiten da*). Ikusten den bezala, aukera asko eskaintzen duen lan tresna da, etekin osoa ateratzen diona egina izan den landa lanari. Nahiz programa hori due-la dozena bat urte eratu zen, aisetasun eta zalutasunaren aldetik ez da baterre gainditua, eta informatikan gertatzen diren aitzinamenduekin, esperantza atxiki daiteke noizbait interneten berean eskaintzen ahalko dela beste liburukientzat ere holako zerbitzu bat, edo honen iduriko bat.

Jean Haritschelharrek kargu hori 1995ean utzi zuenetik Andolin Eguzkitzak 2003an izan arte, EHHAko lantaldeko buru egon naizen urteetan,

gostuan ibili naiz lantalde horretan lanean, anitz ikasiz, eta beti laneko nahikaria aurkituz lankide guzien partetik. Horregatik, hainbeste igurikatu dugun egun honetan, eskerrak bihurtu nahi dizkiet urte haietan ondoan izan ditudan ikertzaileei, bai orain arduradun jarraikitzen diren G. Aurrekoetxea eta X. Videgaini, bai eta argitalpen lan honetan zuzenean parte hartu duten beste lankideei ere, erran nahi baitu, I. Etxebeste, I. Kamino, J.-J. Letamendia eta K. Segurolari. Ez ditut ahantzi nahi, bestalde, lehenagotik inkesta lanetan ibili ziren I. Atutxa, A.M. Echaide, eta J.M. Etxebarria ere. Orduko lan giroaren oroitzapena atxikitzen dut gogoan, funtsean ezin hobeki islaturik gelditzen baita aurkezten den lanean, eta bereziki lehen liburuki honen argitalpen elektronikoan, ene ustez ereduzkoa baita gisa horretako lanetan.

Erran gabe doa ez nagokeela Adolfo Arejita, egitasmoaren oraingo buruari ere zorion hitzak eman gabe, bigarren liburukia argitara ekarririk, eta ondotik etortzekoak direnak ere bide horretan emanik. Bizkitartean, eta badakit Adolfok, beste euskaltzain guziek bezala, bat eginen duela enerkin honetan, beste norbaiti zor diogu EHHAren lehen liburukiaren aurkezpeneko azken esker onezko aipamena : Andolin Eguzkitzari, eiki, lehen liburuki hau eskainia zaion eta herioak gure artetik hartu zuenean lantaleko buru zenari.

# **Euskararen Herri Hizkeren Atlasa egitasmoa**

GARCIA, Txomin  
Euskadiko Kutxaren burua

Egunon guztioi, lehenik eta behin nire esker ona azaldu nahi diot Euskaltzaindiari, eta bereziki Andres Urrutia euskaltzainburuari, berauen etxean hartu gaituelako gaurko aurkezen honetarako, Euskadiko Kutxarentzat ohore bat baita gure hizkuntzaren zaindari den Akademiaren behin-behineko lankide izatea gaur aurkezten dugun proiektu edo egitasmo honetan.

Era berean bijoakizue nire agurra eta esker ona gaur aurkezen honetara hurbildu zareten guztioi.

Esaten nuen bezala Euskadiko Kutxaren presidente naizen aldetik guretzat ohore bat izateaz gain, benetan pozgarria da «Euskararen Herri Hizkeren Atlasa» egitasmoko kide izatea. Bakoitzta bere alorrean, eta bakoitzari dagokion atalean, elkar lanean, proiektu amankomun bat aurrera atera nahian, elkar sinbiosi onuragarri eta aberats baten adierazle bihurtuz. Egitasmo honen beste helburu garrantzitsu bat euskal kulturari ezinbesteko ondare bat behin betirako uztea izan da, beharbada amankomunean burututako lankidetza hau aurrera atera ez balitz kultur altxor hau galtzeko arriskuan izango genuke eta alde horretatik, azpimarratu nahi dudan balorazioa da.

Horixe izan da gure proiektuaren eta izenaren ezaugarria gure 50 urteetako historia honetan, Jose Maria Arizmendiarietak egia bihurtu zuen egitasmo honetan, hain zuzen ere: lankidetza. Horixe izan da gure ardatza, eta izpiritua berarekin jarraitzen dugun heinean, horixe izango da hurrengo 50 urteetan ere gure jomuga. Lankidetza eta herriarenaganako, zein herritarren-

ganako zerbitzua. Azpimarratu nahi nukeen beste puntu bat pertsona desberdinente parte-hartzea eskuzabala da.

Era berean esan behar, inolako lotsarik gabe, ez dela gaurkoa Euskadiko Kutxak euskararekin eta Euskal kulturarekin izan duen eta duen lotura sendo eta trinkoa. Gure eguneroko lanean, eta eginkizunetan erabat barneratua dugun kompromezua da, eta gainera ez deritzogu ezer berezirik egiten ari garenik, gure egin beharra baita, eta gainera harro gaude hala delako.

Esku artean daukagun proiektu zoragarri eta beharrezko honi buruz bi hitz bakarrik, Euskaltzainburu Jaunari dagokiolako horretaz aritza, eta proiektu zabal hau aurkeztea, beraz, eta gure lankidetzari dagokionez esan behar, hau bezalako proiekturekiko atxikimenduak handiago egiten gaituela, sendoago, ezin baitaiteke ulertu gure lana eta egin beharra, ez bada hau bezalako proiektuetan partaide izanik. Horregatik gaur aurkezten dugun egitasmo honek bide hori jorratzen du.

1986an hasitako lana da, eta Euskal Herri osoko ia 150 herritan egindako inkesta eta itaunden ondorioz Euskaltzaindiak 4000 orduetik gorako grabazioak jaso zituen, benetako altxor bizia, sarritan eta zoritzarrez, gehiago emanego ez dena. Horren ondorioz, Euskararen Herri hizkerak bildu, eta aztertuko dituen Atlasa osatu da. Guziontzat baliagarri izango dena, lehenik eta behin gure ondarerik preziatuenaren testigantza bikaina delako, eta bestalde euskararen mundua aztertu nahi duten ikerlariantzako lehengai ezin hobea delako.

Ez naiz luzatuko gehiago, egitasmoa bera nahikoa da gure hitzen beharrik ez izateko. Izañ bedi proiektu hau berriz ere gure elkarlaren eta kompromezuaren lekuko, eta gerora ere eman dadila gure kulturak hain beharrezkoa duen lankidetza.

Eskerrik asko

# Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa-Euskaltzaindia: «Literatura Ataria» aurkezpena



# BBK-Euskaltzaindia: Literatura Ataria

Idea hauek ximple eta jakinak dirudite, baina impresioa dut sarritan ez ditugula kontuan hartzen eta behin baino gehiagotan joera dugu gazteria kategoria atenporal eta unibertsal bezala ulertzeko. Uste oker honen kontra doa, hain zuzen ere, Feixak gazteriaren inguruan proposatzen dituen hiru diskurtso, narrazio, imaginario edo ereduen azterketa. Hiru eredu horien oinarrian uste bat dago: gazteriaren nozioa aldakorra da eta praktikan helduen mundura suposatzen duen pasabide edo trantsizio hori aldiro-aldiro birplanteatzen ari da. Gatzaroa, haurtzaroa eta helduaroaren arteko garaia litzateke baina, nola definitzen da garai historiko bakoitzean igarobide fase hori? Nola definitzen du gizarte bakoitzak gazteria, gazte izatea? Nola interpretatzen dute gaztetxoek beraiek euren bizitzako etapa hori? Zeren arabera definitzen dute euren burua gazte bezala?

Egungo gazteriaren inguruan mintzatzeko lagungarriak direlakoan, ondoren, labur azalduko ditut Feixak aipatutako hiru narrazio edo eredu (Feixa, 2005a; Feixa, 2009); XVIII-XXI. mendetan zehar garatutakoak.

Lehenengo eredu «Tarzan-en sindromearekin» identifikatu izan du antropologo katalanak. Eedu hau Jean-Jacques Rousseauk asmatu zuen XVIII. mendearen bukaeran baina astiro garatu zen eta esan daiteke XX. mendearen erdialdera arte mantendu zela indarrean. Eedu honen oinarrian uste sendo bat dago: nerabea, gaztetxoa zibilizatu beharreko gizakia litzateke, basati ona, pertsona garbia, purua. Bere baitan potentzialtasun ugari biltzen ditu, baina garatu gabe daude. Horretarako zaintza eta gizarteratze praktika egokiak jarri behar dira martxan. Baino horren aurrean zalantzak sortzen dira: noiz arte mantendu behar da nerabea bere munduan? Noiz integratu behar da helduen gizartean? Tarzanek bezala, gazte mota honek miresmena eta beldurra sentitzen ditu –batera– helduen gizartearen aurrean. Halere, eredu honetan trantsizioak oso azkar ematen ziren: jolasetik lan mundura; lan mundutik familiaren osaketara (behin soldaduska eginda, noski). Feixak aipatzen duenez (Feixa, 2005a:4) neurri handi batean eredu honek ahozkotasunean oinarrtitutako kultura batetik idazketan oinarrtitutako kultura batera ematen den jauzia islatzen du.

Bigarren eredu «Peter Pan-en sindromearekin» lotzen du Feixak eta garaiko gazteriaren erretratua litzateke. Bigarren Mundu Gerra gertatu on-

doren sortu zen eta 50. hamarkadatik aurrera hasi zen zabaltzen, kapitalismoak eta kontsumo gizartearen garapenak lagunduta. Eredu honetan –dio Feixak– nerabeak subjektu iraultzaile berriak dira. Kontsumismoaren protagonista bilakatzen dira nerabeak, helduen mundua eta gizarte egituraren kontra eginez. Testuinguru berri honetan gazte izatea da helburua (*Forever Young*). Hori dela eta, heldu arorako trantsizioa moteldu egiten da eta hainbat ohiko igarobide desagertzen hasten dira, adibidez, soldaduska (Feixa, 2005a:5):

«(...) el proceso acelerado de escolarización, la creación de microsociedades adolescentes –así en la educación como en el ocio–, el aumento de la capacidad adquisitiva de los jóvenes, la desaparición de los rituales de paso hacia la edad adulta, la emergencia de «tribus» y subculturas juveniles, serían los rasgos característicos de un modelo de inserción «mecánica» en la sociedad».

Feixak musika munduan sortutako hainbat talde famaturekin lotzen du eredu hau, besteak beste The Who edo Beatles taldeekin. Antropologo katalanak (Feixa, 2009) dioen arabera, gazteriaren inguruan narrazio edo erre-lato berri bat sortzen da, kasu honetan idatzizko kultura batetik ikusme-nezko kultura baterako bidea irudikatzen duena, Guttenbergen galaxiatik, McLuhanen galaxiara doana, alegia.

Hirugarren eredua postmodernitatean kokatzen du Feixak eta «*Blade Runner-en sindrome*» bezala izendatu du aipatu antropologoak (Feixa, 2005a:5). Bere sorrera XX. mendearen bukaeran kokatu daiteke baina etorkizunera begiratzen du, horregatik XXI. mendean zehar guztiz zabalduko dela uste du Feixak (Feixa, 2005a:5). Eredu honen funtsean gizarte-sarea-ren ideologo eta bultzatzaileak –ofizialak zein alternatiboak, hau da, *hackerrak*– aurkitu daitezke. Ikuspegi berri honetatik, lana eta aisiaaldiaren arteko fusioa aldarrikatzen da, eta adimen artifiziala eta gizarte esperimentazioaren arteko lotura goraipatzen da. Testuinguru honetan nerabeak izaki artifizialak –erdi robotak, erdi gizakiak– izango lirateke. Beti kinkan: alde batetik, helduei errespetua zor; bestetik, helduen mundutik aldendu nahia. Feixak azaltzen duenez, kontzientzia eta memoriarik gabeko gazteak direnez ez dira guztiz aske euren etorkizuna eraikitzeko. Bainan, bestalde, teknologi berrien potentzialtasun guztiak erabiltzeko hazi eta heziak izan diren neurrian,

hobeto prestatuta daude aldaketak onartzeko eta egoera berrietara egoki-  
tzeko. Ez dituzte helduek dituzten aurreiritziak, baina beren iraultzak porro-  
ta egingo du (Feixa, 2009):

«(...) sólo pueden protagonizar revueltas episódicas y estériles, espe-  
rando adquirir algún día la «conciencia» que los hará adultos. Como los  
replicantes, tienen todo el mundo a su alcance, pero no son amos de sus  
destinos. Y como blade runners, los adultos sienten hacia ellos una mezcla  
de fascinación y de miedo».

Eredu hibrido eta zalantzazkoa da guzti honen emaitza: alde batetik, gi-  
zartearen *infantilizazioa* ematen da; bestetik, teknologi berrien hedapenaren  
ondorioz adimen aldakorra (edo malgua) nagusitzen da. Horiekin batera  
beste faktore askok laguntzen dute eredu berri hau definitzen: lan munduan  
sartzeko edota gurasoengandik aldentzeko erresistentziak edota zailtasunak,  
nerabeen arteko mundu mailako sareen sendotzea, Interneteko komunitate  
birtualen agerpena, eta abar. Guzti hauek «Blade Runner»en ereduaren  
ezaugarriak lirateke, gizarteratzeko eredu birtual batena, alegia. Hemendik  
narrazio berezi bat egituratuko da, ikusmenezko kultura batetik hipertestu-  
ra pasatzerakoan sortzen dena, alegia. Beste hitzetan esanda, McLuhan-en  
galaxiatik Gates-en galaxiara igarotzeko narrazioa edo diskurtsoa.

Hiru eredu hauek, azpimarratzen du Feixak, ez dira inolaz ere bazter-  
tzialeak, izan ere eredu bakoitzetik sortutako aldaerak bizirik iraun dezake-  
te egun. Baino ondorio bezala Feixak zera azpimarratzen du, gazteriak ez du  
esnatu nahi, ametsetan jarraitu nahi du (Feixa, 2009):

«(...) la juventud ha dejado de ser un rito de paso para convertirse en  
una ritualización del impasse».

Eta Euskal Herriko gazteak? Aplikagarria al da Feixak proposatzen duen  
azterketa gure errealtatera? Baliogarria da gure gazteak irudikatzeko? Ñab-  
bardurak alde batera utzita, baietz uste dut. Hirugarren ereduan argi ager-  
tzen den bezala egun teknologi berrieik izugarritzko pisua dute gazteriaren  
definizioan. Errealitate honekin batera, globalizazioa eta transmigrazioari  
loturiko fenomenoak gero eta protagonismo handiagoa hartzen ari dira gure  
gizarteetan. Joera berri hauetan giltzarri nagusi bat agertzen da: fluxuena.  
Egun fluxuek, sareak, mugak ordezkatu dituzte, edo hobe esanda fluxuek

mugak eztabaidagai bihurtu dituzte. Eta eztabaida horretan aurkitzen dira, hain zuen ere, gure gazteak. Gazte bezala mundu mailako gazte komunitateen partaide sentitzen dira; euskaldun bezala kultura zehatz batean errotuta ikusten dute euren burua. Merkatuak eta maila globalean ematen ari diren gertakariek (komunikazioa, globalizazioa, transmigrazioa) bultzatako prozesuen parte direla diote, baina aldi berean tokian tokiko errealtitatearen partaideak kontsideratzen dira. Gainera, ezin dugu ahaztu gazte hauek, gure gazteak, hazi egin direla eta heziak izan direla testuinguru kultural batean zeinetan mugak (zentzu zabal eta anitzean) pisu sinboliko eta erreal nabarmena izan duten (eta dute) (del Valle, 1988).

Laburbilduz, nazioarte mailan ematen ari diren prozesu hauek eszenatoki berri baten aurrean kokatzen gaituztela azpimarratu nahiko nuke: lehenengo aldiz eztabaidak Estatuaren dimentsioa gainditu beharko du, mundu mailako kezka eta arazoei aurre egiteko. Identitate tradizionalak ezarritako mugak merkatuak sortutakoengatik gainditzen edo ordezkatzen ari direla uste dut. Neurri batean interneteak bultzatako sare sozialen fenomenoak hori erakussten digu: mugaz gaindiko errealtitate baten antolaketa prozesua, logika eta interes berriak dituena. Praktikan, Espainiako nahiz Frantziako mugak bigarren maila batean gera daitezke. Horrela, identitateak osatzeko garaian espazioak (distantziak, gertutasunak) tradizionalki izan duen garrantzia birformulatu behar da, besteak beste egun espazioa birtuala ere izan daitekeelako. Baino nola gainditu mugak gure kulturan duen garrantzi sinbolikoa? Nola alboratu gure identitaterako hain funtsezkoak izan diren limiteak?

Eztabaida horretan ikusten ditut nik gazteak egun. Zalantzaz beteta. Tentsioan: nola definitu mugarik gabeko euskalduna? Posiblea al da, edo beharrezkoa da mugarik gabeko euskaldun identitatea?

Galdera, zalantzaz eta tentsio honek erronka berrien aurrean jartzen gaitu. Marcyelina Morganek dionez (Morgan, 2004) komunikazioak, globalizazioak edo transmigrazioak elebakartasuna utopia bilakatzen dute. Horren adibide argiena, gainera, gaztetxoen mundutik etor daiteke. Izan ere, nahiz eta hizkuntza bera ez izan, egun, munduko punta ezberdinetan bizi diren gazteak hizkuntz komunitate bat osatu dezakete, hitz egiteko modua, hizkuntzari loturiko sormena, berrikuntza gramatikalak partekatzen baiti-

tuzte. Horren adibidea Morganen artikuluan topatzen dugu, bertan egileak Paris eta New Yorken bizi diren bi *hip-hoperoen* arteko loturak aztertzen ditu eta gazte hauek hizkuntza ezberdinak hitz egin arren, hizkuntz komunitate bereko kideak konsideratu daitezkeela aldarrikatzen du. Zergatik? Bere hitzetan (Morgan, 2004:6):

«*In the case of these hip hop artists, the speech community is not linguistically and physically located but is bound by politics, culture, social condition, and norms, values, and attitudes about language use».*

Puntu honetan nabarmendu nahi dut Morganen planteamenduak hizkuntz komunitatearen nozioa eztabaidegai bihurtzen duela eta, argi eta garbi, interpretazio eta kontzeptu berrien beharra aldarrikatzen duela. Bainaz momentuz ez naiz sartuko zeregin honetan. Aldiz, adibide interesgarri bat jarri nahi dut mahai gainean, ikusteko nola jada orain dela 20 urte hainbat gazte saiatu ziren fluxu mugen arteko tirabira eta tentsio honetatik alde egiten, XXI. mendeko euskal gazteriarentzat identitate eredu bat zirriboratuz. Horrela, *Negu Gorriak* musika taldea osatu zuten gazte horien aldarrikapenak nabarmendu nahiko nituzke. *Negu Gorriak* musika taldea 1989an jaio zen eta urtebete beranduago bere lehenengo diskoa atera zuten: «*Esan Ozenki*». Bi taldekide –Fermin eta Iñigo Muguruza anaiak– Kortatunen ere taldekideak izan ziren aurretitik. Proiektu hura desagerrarazi eta beste musikari batzuekin batera etapa berri bati hasiera ematea erabakitzentz dute. Musikari hauek aurretitik «*Euskal Rock Erradikala*» deitutako fenomenoaren lotura estua izan bazuten ere, *Negu Gorriak* taldea martxan jartzerakoan erreferentzi berriak bereganatu zituzten: horrela, punk-a eta thrash rock gogorrarekin lotura mantentzen badute ere, rap-aren mundura hurbiltzen hasi ziren eta bere eragina nabarmena izan zen, bai musikan, bai estetikan, eta batez ere diskurtsoan. *Public Enemy* ezinbesteko erreferentzia bilakatzen da eurentzat. Horrela azaltzen du Fermin Muguruzak (Urla, 2001:2):

«*Nos impresionó Public Enemy, la fuerza que tenía el movimiento rap, y su poder crítico, así como nos había impresionado el movimiento punk de los 77».*

Baina oraindik aldaketa nabarmenago bat azpimarratu behar da: hizkuntzarena. Teoriatik praktikara egin zuten jauzia *Negu Gorriak* taldekoek:

euskaraz bakarrik abestea erabaki zuten (ordu arteko hizkuntz praktikak apurtuz). Jacqueline Urlaren ustez (Urla, 2001:2) horren eragina handia izan zen. Muguruza anaien ibilbide artistiko eta musikalaz gazteleraez egina zen ordura arte<sup>1</sup>. Euskara galdua zegoen bere familian, baina ikasteko erabakia hartu zuten eta «euskaldunberriak» bihurtu ziren. Bainaz hizkuntza ikasteaz eta erabiltzeaz gain, hizkuntzaren inguruko hainbat lelo (geroago famatuak izango zirenak) utzi dizkigute, besteak beste ondorengoa: *Euskalduna naiz eta harro nago*. Urlak azaltzen duen moduan (Urla, 2001:2):

*Aquí se da la versión euskaldunizada de la famosa proclamación de orgullo negro hecho por James Brown –Say it loud, I'm black and I'm proud–.*

Keinu xumea izan daiteke, baina nire ustez garrantzi sinboliko handia du: lehenengo aldiz euskal gazteriari loturiko diskurtso erradikalak (gehienbat abertzalea), mugak apurtzen ditu eta ohiko dikotomiei –punk/gizartea eta basko/espainiarra– beste batzuek gehitzen zaizkie –esate baterako txuria/ez txuria–. Nazioarteko elkartasuna bultzatu nahi du eta geroztik ohikoak izango dira *Negu Gorriak* taldeak beren lanetan beste herri edo kolektibo gutxituei buruzko erreferentziak txertatzea. Nabarduretan sartu gabe, iruditzen zait *Negu Gorriak*-en kasua adibide interesgarri bat izan daiteke aurretik aipatutako joera irudikatzeko: espazioa eta denboraren «desagerpena». Horrek imajinario berri bat sortzeko aukera ematen du: euskara erdigunean, baina hiztuna eta bere errealitatea/egoera (soziala, kulturala, sexuala, eta-bar.) nabarmenduz (Urla, 2001:7):

*«En la letra de sus canciones, y en sus actuaciones y práctica, demostraban que el ser vasco no requiere aislarlse de un mundo más amplio de gustos y preocupaciones sociales. No requiere renunciar a la chupa por la boina, ni cambiar los compactos de Fishbone por los de Benito Lertxundi. Pero si implica que hay que hablar euskara, o por lo menos aprenderlo, y también tratar de entender la conexión y similitudes entre la opresión económica, cultural, lingüística, racial y sexual. (...) En fin, la producción musical de estos jóvenes visto en su conjunto no disminuye su identidad como patriotas o como auténticos vascos, pero sí cambia lo que ser patriota o auténtico puede significar y los símbolos a través de los cuales se reconoce».*

---

<sup>1</sup> Zehatzagoak izateko, Kortaturen laugarren diskoa euskara hutsean egin zuten.

## 2. Gu, gure aisialdia

Kontxi Berrio-Otxoa, Zesar Martinez eta hirurok (2003) gaztetxoen aisialdiari buruzko ikerketa burutu genuen 2001 eta 2002 urteetan. Ikerlanaren eginbehar garrantzitsuenetariko bat, gazteentzat aisialdia zer den definitzea izan zen. Zaila suertatu arren, ikerlanaren txostenari begira, horrelako definizioa osatu genuen (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2003:7):

«Ezbairik gabe, gure gizartean denbora librea garrantzi handiko denbora da gazteentzat. Izañ ere, ikasketekin edo bestelako betebeharrekin okupatuta ez dagoen denbora izanik, aukera ematen die gazte-garaian oso premiazkoa den beharrizan bati erantzuteko: norberaren subjektibitatea garatzea eta modu libreatan adieraztea. Horrela, eskoletatik eta gainontzeko eginbeharretatik kanpo gelditzen zaien denbora librea bezala definituta aisialdia, aisialdiko denbora horretan bere harremanak, zaletasunak eta bete nahiak lantzeko aukera dute. Seguru asko, aisialdi momentu horiek euren barneko nahi, balio eta desioak adierazteko aukera bezala ikusten dituzte; aukera gauzatua edo frustratua izango dena, inguruan topatzen edo sortzen dituzten harreman, jarduera eta eskaintzen arabera».

Gure ikuspegitik gazteen aisialdia aztertzen, ulertzeko eta azaltzen hiru eremu landu behar genituen: harremanak, jarduerak eta espazioak. Aisialdia hiru elementu horietaz osatuta ikusten genuen, eta bakoitzean gazteen bitztan eta bereziki euren denbora libreatan parte hartzen duten agente guztiek biltzen ziren. Aipatutako hiru lan ildoak ikertzerakoan aisialdiari loturiko hiru galdera erantzuten saiatu ginen: aisialdia bai, baina Norekin? Zertan? Non?

Egia esan eremu bakoitzaren azterketak informazio aberatsa eta interesarria eskaini zigun, baina hiru horien artean espazioaren azterketa bizi emankorra suertatu zen, gazteei aisialdiaren inguruko hainbat elementu, bizipen nahiz diskurtso espazioan kokatzea bereziki lagungarria gertatzen zitzaien eta. Zaitasunak zaitasun adierazteko besterik ez zuñean, gutxienez beti agertzen ziren prest euren ohiko aisialdirako guneei buruz hitz egiteko. Diskurtso mota honi helduz lau aisialdirako

gune ezberdin finkatu genituen (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2003:27):

– Gune konpartituak:

- Etxea eta familia
- Ikastetxeko eskolaz kanpoko jarduerak
- Kirol eta kultur azpiegiturak: kiroldegiak eta liburutegiak

– Gune monitorizatuak:

- Kirol eta kultur taldeak
- Aisialdiko taldeak
- Gaztelekuak
- Gazteentzako egitasmo bereziak (Gaukoak, Gau On, eta abar)

– Gune birziklatutak:

- Kalea, plaza, parkea
- Aterpeak, aparteko zokoak, atariak, etxepeak

– Berezko guneak:

- Taberna zonaldeak
- Diskotekak
- Lonja/txokoak/txabola
- Gaztetxeak

Gune hauen azterketa sakona egin genuen. Momentu honetan ez dut beharrezkoia ikusten horretara bueltatzea. Halere, badira elementu pare bat berreskuratu nahi ditudanak azterketa horretatik. Alde batetik, nabarmendu nahiko nuke berezko guneak deituriko kategoriak gazteen aisialdian duen papera. Bestalde, azpimarratu nahiko nuke gune edo toki horiek (berrezko guneak) gazteen identitate osaketan duten garrantzia. Gazte izatea, gazte identitatea espazioan gauzatzen dela esan dezakegu, baina ez edozein espaziotan, aisialdia zer den azaltzeko erabiltzen dituzten esparru horietan baizik. Horrela azaltzen genuen ideia hau amaierako txostenean (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2003:57):

«Gaztetxoek proposaturiko aisiaaldiaren definiziora hurbiltzeko garaian berezko guneak kategorian parte hartzen duten espazio ezberdinek (taberna zonaldeak, diskotekak, lonjak eta gaztetxeak) ezin hobeto islatzen dituzte definizio horri atxikitzen dizkioten ezaugarriak. Ezaugarri horiek aisiaidia bete-betean bizitzeko eta gozatzeko aukerarekin parekatzen dituzte nerabeek eta, era batean edo bestean, leku horietan biltzen diren elementuak lirateke. Ikusputu horretatik, berezko guneak bezala izendatu dugun kategoria horren baitan agertzen diren aisialdirako tokiek datoz ezaugarrieikin bat egiten dutela antzeman dugu».

Azalpen honen ondoren aipatutako ezaugarriak zehaztu genituen. Nik momentu honetan zerrendatu baino ez ditut egingo. Sakonean zegoen galdera hau zen: zergatik dira hain garrantzitsuak gune hauek gaztetxoen ikuspegitik?

- Gaztetxoek aisiaaldi intentsiborako aukeratutako edota sortutako berezko eremuak direlako. Hau da, helduen mundutik aparte bereganatutako espazioak eta denborak direlako.
- Gaztetxoen neurriira egindako mundua osatzen dutelako. Berezko jarduerak eta adierazpenak bultzatzen dituzten guneak direlako.
- Gaztetxoen esperientzia kolektiboa garatzeko aukera eskaintzen dutelako.
- Gazte kultura ezberdinaren adierazpenerako guneak direlako. Askatasunezko, ihes egiteko eta gozamenezko sentsazioari lotutako espazioak direlako; erabaki gaitasuna eta protagonismoa sentitzekoak direlako.


Gune hauetan besteetan ez bezala nolabaiteko sinbiosia sumatzen zen, bertan gazte izan (identitatea) eta aisiaidia bat egiten zutelako. Honek ondorio interesgarri batera eramatzen gaitu: aisiaidia ezinbesteko elementua litzateke gazte identitatea (gazte izatea zer den) ulertzeko, edo beste hitzetan, gazteek, neurri handi batean, aisiaaldiaren bitartez eraikitzen dute euren bizimodu, izaera, diskurso... euren gazte izateko era. Eta aisialdirako gune ezberdinak identitate eraketarako eszenatoki bilakatzen dira.

Ildo honetatik galdera interesgarri bat sortzen da: zein espazio mota dira egun protagonista gazteen munduan? Guk egindako ikerketa eta beste egi-le batzuen ekarpenak kontuan harturik hipotesi bat azaltzen ausartuko nintzateke: egungo gazteek jarduera publikoen pribatizazioaren alde egin dute.

Ondoren, hipotesi honen azalpenean eta detektatutako joera horrek hizkuntz eremuan eduki ditzakeen ondorioetan erreparatuko dut laburki.

Orain dela ia hamar urte, Gipuzkoako Foru Aldundiak haur eta nerabeen aisialdiari buruzko ikerketa bat enkargatu zigun Kontxi Berrio-Otxoa, Zesar Martinez eta hiruroi. Horren emaitzak 2000. urtean argitaratu ziren (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2000) eta bertan, besteak beste, gaztetxoen denbora librearen garapenari buruzko atal bat irakur daiteke. Ibilbide historiko hori 70. hamarkadan hasten da. Garai horretan jaio ginezen bat egiten dugu bertan agertzen den diagnostikoarekin: momentu horretan, aisialdia, kale jokoak eta denbora-pasak sinonimoak ziren. Kalea zen nagusi haur eta nerabeen denbora libreatan, bertan gauzatzzen zirelako euren eskola orduz kanpoko jarduerak. Horretaz aparte, elizari loturiko talde gutxi batzuk zeuden eta horiekin batera hainbat ekimen kultural nahiz kirolaren ingurukoak. Baino kopuru oso txikiaz ari gara.

Haur eta nerabeen aisialdi antolatua Gipuzkoan: bilakaera historikoaren zertzelada nagusiak.



Iturria: Berrio-Otxoa et al., 2000: 17.

Denbora joan ahala eta grafiakoan ikus daitekeen moduan haur eta gaztetxoen bizitzako esparru hori dezente korapilatzen da eta 90. hamarkadan erreparatzen badugu konturatuko gara aisialdian parte hartzen zuten agente kopurua nabarmen handitu zela. Aipatu agenteak taulan sartu ezinik badabiltza, haur eta gaztetxoen egutegietan berdina gertatzen da. Helduen antzera gaztetxoek agenda betea dute egun eta zentzu horretan bi adin talde hauen bizimodua mimetizatzen ari direla esan daiteke. Kaleak tarte oso txikia du haur eta nerabeen aisialdian (kalea eskola orduz kanpoko jarduera bezala, hau da jolas librea, denbora-pasa desegitiratu bezala), eta berarekin batera beste protagonista batzuk aurki daitezke: betiko aisialdi kolektiboak (adibidez scouts taldeak), aisialdi talde berriak (garai hartan jaio berriak ziren hairbat talde, esate baterako euskara taldeei lotutakoak), ikastetxeak eta erakunde publikoak, enpresa pribatuak (nagusiki eredu kontsumista bati lotuta) eta bestelako ekimenak (adibidez kirola).

Ikerlanean aldaketa prozesu honi loturiko hainbat ondorio interesgarri nabarmendu genituen. Horien arten hiru aipatuko ditut momentu honetan labur-labur (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2000: 26-27).

- Egun, aisialdia antolatu beharreko denbora bihurtu da. Orokorrean denboraren bzipenean eta erabilpenean eman diren aldaketen eraginez, eguneko orduak ordutegi eta programazio finko baten menpe kokatzeko joera nagusitu da.
- Aurreko ideiari lotuta, aisialdia eginbeharrik gabeko denbora izatetik, okupatu edota betebeharreko denbora izatera pasa da. Egun, jendea libre gelditzen den denbora horren beldur ote denaren susmoa areagotzen da, izan ere, gizarteaik aisialdia betetzeko eta okupatzeko demaseko grina erakusten baitu. Batzuen ustez, jendeak denbora librea egin beharreko jarduerarik gabe ikusten badu ondasun preziatu bat galtzen ari dela uste du, eta ondorioz, denbora librea aprobetxatu beharreko denboratzat jotzen du.
- Azkenik, eta aurreko ideiek agerian utzi duten bezala, egun aisialdia ekintzarako denbora bihurtu dela azpimarratu beharko litzateke. Egun aukeran dauden ekintzak asko dira, baina funtsean berdin dio zein den azkenean aukeratzen den aisialdirako eskaintza, garrantzitsuena aisialdi hori antolatzea da, okupatzea.

Ikerlana amaitu zenetik hamarkada bat pasa da eta jada momentua litzateke baloratzeko orduan egindako diagnostikoa baliogarria den egungo errealitatea ulertzeko. Nik uste, oraindik ere, argazki hori baliogarria dela ildo nagusiak zirriborratzen dituelako. Garai hartan somatutako joerak (haur eta gazte aisialdiari dagozkionak) egun indarrean diraute. Bainan gaurko egoerak hainbat ñabardura egitera behartzen gaitu.

Hasteko esan behar da, egungo gazteek inoiz baino argiagoa dutela, zer den aisialdia eta zer ez, non kokatzen dute muga? Ikastetxetik aterata hasten da euren aisialdia, baina argi bereiztu behar da astean zehar duten aisialdia eta asteburukoa (Emakunde, 2009). Lehenengo kasuan, denbora librea baldintzatua da, bai zuzenean eskolako betebeharrengatik, bai bestelako jarduerengatik (eskolaz kanpoko jarduera arautuak, nolabait esateko). Asteburuetan aldiz, betebeharrekin hautsi egiten da eta benetan hasten da eurentzako denbora. Nik esango nuke, bereizketa hau gero eta argiagoa agertzen dela gazteen bizitzan. Zentzu horretan, asteburuak eurentzako denbora eta espazio «sakratu» edo erritualizatu bezala agertzen dira. Konturatzen bagara, lehen berezko gune bezala aurkeztu ditudan espazioak, nagusiki asteburuetako espazioak dira. Gainera, aipatu behar da, gizarte aldaketa orokorrako eraginda (belaunaldien arteko hausturak, adibidez), merkatuak bultzatuta (gazteentzako bakarrik sortutako aisialdirako guneak, esate baterako), edo bestelako arrazoik tartean, gazteak denbora librea euren kabuz bizitzeko joera nagusitu dela. Denbora libre hau asteburuetan kontzentratzen da eta bereziki gauean. Hor gizarte paralelo moduko bat sortzen da eta gazteak aske sentitzen dira euren grinak, desioak, kezkak, eta abarrak adierazteko. Euren identitatearen iturburua bilakatu da aisialdia, euren eskola da aisialdia, euren berezko aisialdia.

Baina, joera honetatik abiatuta, beste bi aspektu nabarmendu nahiko nituzke. Aipatu den bezala, azken urteetan gazteek euren denbora librearen definizio propioa osatuz joan dira (hainbat kasutan merkatuak lagunduta). Definizio horietan denbora eta espazioaren bereganatzea funtsezkoa izan da. Asteburua, gaua, gazteena da, eta hori bizitzeko berezko espazioak sortu dira. Batzuetan espazio publikoak dira gazteek okupatzen dituztenak eta zentzu horretan tradizioari eusten diote (plazak edo parkeak, adibidez, beti izan dira aisialdi eta harremanetarako guneak), nahiz eta bere ekintzen bi-

dez gazteek okupazio horretan hainbat aldaketa sartu. Bainan beste kasu batzuetan gazteek eurentzako propio sortutako espazioak aldarrikatzen dituzte. Aldarrikanen horri erantzuteko eredu ezberdinak sortu dira: batzuk merkatuaren esku (diskotekak esate baterako), baina beste batzuk gazteek beraiek bultzatuak dira. Hor, adibide ezberdinen artean, bi eredu interesarri agertzen dira: gaztetxeena eta lonjarena. Gaztetxearena ezinbesteko eredua iruditzen zait Euskal Herriko gazteria aztertzeko garaian, baina momentu honetan lonjen fenomenoa jarri nahiko nuke arreta. Zergatik? Aipatu den moduan, lehenago kalea bazen denbora librerako gune nagusia, egun etxea edota bestelako esparru pribatuak ari dira protagonismoa irabazten. Ikuspuntu horretatik esan daiteke denbora librearen pribatizazio bat gertatzen ari dela. Eta lonjak fenomeno honen muturreko adibide direla uste dut.

2001-2002. urte artean gaztetxoak eta aisialdiari buruzko azterketa burutu genuenean horrela definitu genituen lonjak (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2003:66):

«(…) lonjak erabilpen pribatua ahalbideratzeko asmoz gaztetxoek sortutako tokiak dira. Beraien ekimenari eta ahaleginari esker sortutako lekuak dira. Gehienetan etxe azpiko lokalak bihurtzen dira lonja, gazte talde batek jabeari alokatu eta txukundu ondoren. (...) Txikiagoak edo handiagoak izan, edozein kasutan ondo hornituta dauden lokalak dira, izan ere, gaztetxoek diotenez, etxean bezain erosoa daude bertan. (...) Handik eta hemendik lortutako, sofa, telebista, bideoa, Play Station, musika aparailua, gustuko apaindurak eta nola ez, hotzgailua izaten dira lonjaren azpiegitura osatzen duten elementuak. Diotenez, tokia lagun talde kideen artean txukundu eta garbitu egin dute, eta, orokorrean mante-nurako txandak daudela esaten dute. Horrekin batera, lonja-kide guztien arteko akordioari esker araudia zehazten dela aitortzen dute nerabeek, eta horren bitartez lonjaren erabilerarako ordutegia, gonbidatu posibleen «zerrenda» eta erabilerarako bestelako jarraibideak finkatzen dituzte».

Nahi dutena egiteko, eta hura nahi duten moduan antolatzeko tokia eskaintzen die lonjak gaztetxoei. Lagunekin egon, musika entzun, jolastu, jende berria ezagutu, egon... Alkohola eta beste droga batzuk lasai konsumitzeko gunea ere bada lonja. Ikusten denez, bertan egiten dituzten pla-

nak edozein gaztek egiten dituenaren antzekoak dira. Lonja izan edo ez, asteburuetako jarduerak berdintsuak dira. Orduan, zergatik sortzen da lonjaren beharra? Aipatutako ikerlana burutu genuenean bi arrazoi nabarmendu genituen (Berrio-Otxoa, Martínez, Hernández, 2003: 67):

«(...) lonja edo txoko izateak bi abantaila nagusi izango lituzke gazteen arabera. Alde batetik, berotasuna eta babesia ziurtatzen die; bestetik tabernak eskaini ohi duen elkartzeko eta kontsumitzeko tokia bezain lasaia jartzen die eskura. Aipatutakoaz gain, lonjak bezalako berezko tokiek intimitatea eta talde barruko harremanak eta dinamikak garatzeko aproposak izango lirateke, bertan taldeko kideen arteko gertutasuna eta komunikazioa bultzatzen dela baitiote. (...) Azkenik, gaztetxoek aitortzen dutenaren arabera, lonja edo txokoa izateak beste abantaila garrantzitsua izango luke: alkohola eta beste drogen kontsumorako toki lasai bat izatearena».

Helduen antzera hainbat gaztek «euren etxeko» lasaitasuna, intimitatea eta erosotasuna nahiago dute. Izan ere, ezin da ahaztu gazte hauen gurasoek ere gero eta gehiago aukeratzen dutela etxea denbora librerako esparru nagusi bezala. Era beran, aipatu behar da, etxeak gero eta prestatuago daude aisialdirako gune izateko (teknologi berriak edo bestelako aurrerakuntzak direla eta).

Feixak berak ere aitortzen du aisiaaldiaren pribatutasuna gero eta garrantzi gehiago hartzen ari dela XXI. mendean. Analisi berezia osatzen du berak fenomeno horren inguruan eta gaztei buruz hitz egiten duenean «gelaren kultura» aipatzen du. Bere hitzetan (Feixa, 2005b:1):

*«Niños y jóvenes han sido vistos a menudo como la vanguardia de la era digital, en su doble vertiente de héroes de la sociedad civil y víctimas de la sociedad del riesgo. Aunque casi siempre este doble proceso de idealización/satanización ha tenido lugar en el espacio público, el espacio privado adquiere cada vez mayor importancia en las culturas adolescentes del siglo XXI. Para bien y para mal las denominadas «culturas de habitación» son hoy uno de los escenarios donde se construye la identidad personal y social de nuestros hijos e hijas, el lugar físico y virtual desde el cual se abren al mundo o se encierran en si mismos».*

Fenomeno hau ilustratzeko Feixak muturreko bi adibide jartzen ditu: Hackerren figura eta hikikomorirena. Ezaguna denez hackerrak gazte sor-

tzaileak dira eta informatika bizimodu bihurtzen dute. Etxetik atera gabe orduak eta orduak pasatzen dituzte ordenagailu aurrean eta, mitoak dio beste hacker batzuekin batera, gobernuei eta multinacionalei eraso informatikoak planifikatzen dituztela. Euren aisialdia (eta askotan lana ere) etxetik kudeatzen dute eta gela euren askatasunerako esparru kontsideratzen dute.

Hikikomoriak Japoniako hirietan bizi dira. Mutil gazteak izaten dira, 20 urte ingurukoak, eta bere gelan espetxeratzea erabakitzenten dute. Zergatik? Kasu batzuetan gazte hauek ikasketak bukatu dituzte eta beldurra diote Japoniako lan merkatu lehiakorrari. Presionatuak sentitzen dira eta gainera, komunikazio eskasa dute gainontzeko familiartekoekin. Gelan sartuta, Internetek aukera eskaintzen die munduarekin harremanetan jarraitzeko eta gehienetan auto-atxiloketak aste edo hilabete batzuk irauten badu ere, kasu batzuetan urteak igaro daitezke. Denbora honetan, aipatu den moduan, teknologi berriak dira, nagusiki euren sostengua. Ziberkulturak irentsi egiten ditu gazte hauek.

Hacker eta hikikomorien fenomenoak arrotzak ager daitezke gure begi bistan. Egia da, egun, oraindik Euskal Herrian komunitatearen sentimendua oso bizirik dagoela eta kaleko kultura txertatua mantentzen da gure errutinetan, egunero kotasunean. Gure aisialdiaren parte dira lagun arteko topaketak eta bestelako ospakizun nahiz ekitaldi kolektiboak, baina ezin dugu ahaztu Feixak jarritako bi adibide hauetan badagoela elementu komun bat gure gazteen artean gero eta garrantzi handiagoa duena, bereziki, euren aisialdia egituratzeko eta kudeatzeko garaian: teknologi berriak.

Teknologi berrieik liluratu egin gaituzte eta egungo haurrak jaio bezain pronto aparailu elektronikoz inguratzen ditugu. Teknologi berriak asko erraztu dute gure bizitza. Horretan ez dago dudarik, baina neurri batean morroi bihurtu gara, bereziki hainbat kasutan gure bizitzan (helduen bizitzan behintzat) preziatuena dena eskaintzen diegulako: gure denbora. Errealitate honek era guztietako ondorioak ekarriko ditu etorkizunean, baina jada, gazteen kasuan fenomeno bat bultzatu dute: gela digitalaren sorerra (Feixa 2005b). Ordenagailua tresna ohikoa bihurtu da gure bizitza oroko-rean, bai lantokian baina baita ere gure etxearen. Lotura hau estuagoa da gazteen kasuan: eskolan erabiltzen dute, etxera iristerakoan ere bai, eta bertan eskuragarri ez badute beste tokitan bilatuko dute –zentro publikoe-

tan edo zibergunetan—. Feixak ohartarazten gaituen moduan, fenomeno hau oso zabalduta badago ere, badira aldagai garrantzitsu batzuk erabil-tzailearen profila zehazterakoan eragiten dutenak: besteak beste, adina, sexua, gurasoen ikasketa maila edota klase soziala. Ezberdintasunak ezberdintasun argi dagoena da interneteko gazte (azpi)kultura batetaz mintzatzen hasi dela. Momentu honetan garrantzitsuena ez da bere hedapena edota intentsitatea gure testuinguruan, teknologiak, komunikazioak eta bereziki komunikazio birtualak egunerokotasunean duen eragina baizik. Feixak horrela deskribatzen du prozesu hau (Feixa, 2005b:3):

«Como consecuencia de la emergencia de la cultura digital que hemos analizado, se ha hecho posible la comunicación interpersonal desde el propio espacio privado: del teléfono familiar controlado por los padres y situado en el comedor o en el pasillo se ha pasado al teléfono celular personalizado que se puede usar desde la habitación; de la comunicación escrita por carta se ha pasado a la comunicación digital SMS, e-mail o chat. Gracias a Internet, los adolescentes han aprendido a acceder a comunidades virtuales que están mucho más allá de su habitación. Y gracias a los videojuegos (consola, Gameboy, Play Station), pueden practicar desde su casa lo que antes tenían que hacer en las públicas salas de juego».

Pribatutasuna edota teknologiazioa dira etorkizunari begira asialdiak ezagutuko dituen joerak. Bainan honek zein lotura du hizkuntzarekin eta bereziki, euskararekin? Agian ibilbide luzeegia egin dut honaino iristeko, baina gazteen aisiaidiaz ari garela garrantzitsua iruditu zait diagnostiko xume bat osatzea, hortik, hizkuntzaren errealtatara salto egiteko. Azken finean, ezin dugu ahaztu gutxienez hamabost bat urte pasa direla gazteen aisiaidiaren eremua euskalduntzeko lehenengo ahalegin formalak egiten hasi zirela<sup>2</sup> Geroztik egitasmo ugari jarri dira martxan, baina gehienek elementu komun bat izan dute: denbora libreak duen esparru formaletan edo arautuan eragin izan dute. Hau da, kirol arloa eta bestelako eskola orduz

<sup>2</sup> Gertutik ezagutzen dudan adibide bat jarriko dut: *Kalea Maixu!* egitasmoa 1994ean TTakun Kultur Elkartea martxan jarritako egitasmoa, alegia. Bere helburuak hauek ziren: Lasarte-Orian haurrentzat eta gazteentzat eskaintzen ziren jarduerak euskalduntzea; hezitzale euskaldunek beraien jardueretan euskararen erabilera sustatzea; herrian eskaintzen ziren eskola orduz kanpoko jardueretan hezitzale guztiak euskaldunak izatea.

kanpoko ekintzak euskalduntzea izan da helburua. Ez naiz ausartzen, inolaz ere, ahalegin honen inguruko balorazioa egitera, baina momentu honetan nire kezka ez da hainbeste egindakoa, baizik gazteen aisialdia hartzen ari den norabidea ikusita (pribatutasuna, teknologizazioa) eginbeharrekoa.

Argi geratu den moduan, gazteak eta aisialdiak bat egiten dute gazte identitateaz ari garenean baina euren denbora librea –nahi duten edo gusituko duten denbora librea– irudikatzerako orduan joera berriak topatzen ditugu, eta horietan oso zaila –ia ezinezkoa– da esku-hartze bat planteatzea.

Dakidanez, orain arte esparru informal horretan planifikatu den esku-hartze nagusia Kuadrillategi egitasmoa izan da. Proiektu ausarta da Kuadrilategirena eta bere momentuan berritzalea ere izan zen. Bainan, etorkizunari begira? Herri mailan fruitu interesgarriak eman ditu eta eman ditzakete Kuadrilategiko bezalako ekimenek,<sup>3</sup> baina ikuspegi orokor batetik, benetan al da eraginkorra? Eta beste zalantza bat: planifikatu al dugu oinarri birtualak dituen errealtitate baten inguruan? Gazteez ari naizela sentsazio bat areagoztzen zait: gizarte paraleloarena. Ziurrenik gaur egun aurrez aurreko edo bertakoa den mundua nagusi izaten jarraitzen du, baina honek ezin du mundu birtualaren errealtitatea ukatu. Zer egiten ari da hizkuntza planifikazioa horren gainean? Eta zer egin behar du?

### 3. Gazte izan eta euskalduna

Gazteak kezka eta ikergai nagusi bihurtu dira azken urteotan euskal soziolinguistikaren arloan. Gauza bera gertatu omen da beste leku batuetan: adibidez Katalunian. Hemen ere, oraindik hizkuntza normalizatu gabe dago. Joan Pujolarrek NOVES S.L. aldizkariaren zenbaki berezi bat zuzendu zuen 2008an gazteak, hizkuntzak eta identitateak gai nagusi zituela (Pujolar, 2008). Aipatu aldizkariaren aurkezpen kapituluan («Els joves, les llengües i les identitats») gazteek hizkuntza plangintzaren ikuspegitik sortzen duten

<sup>3</sup> Kuadrillategi egitasmoak lagunartean edo koadriletan euskararen erabilera sustatzea du helburu. Horretarako esku-hartzea eta ikerketa garatu dituzte egitasmoa martxan jarri duten udalerriek. Egitasmo honi loturiko lehenbiziko esperientziak 2000 urtearen inguruan gauzatu ziren.

ikusmira (eta hainbatetan egonezina) izan zuen mintzagai Pujolarrek. Bere ustez bi dira fenomeno horren arrazoi nagusiak (Pujolar, 2008:1). Alde batetik, gazteak, hau da hiztunen belaunaldi berriak, etorkizunerako haziak kontsideratzen dira normalean eta bere partehartzea ezinbestekoa da hizkuntza gutxituen berreskurapen prozesuetan. Beste aldetik, dio Pujolarrek, gazteak beste populazio talde batzuk baino eskuragarriagoak dira ikerlariantzat. Normalean beti daude prest galdetegi bat erantzuteko edota elkarritzketatuak izateko. Zentzu honetan, Pujolarren arabera, kontuz ibili behar da, izan ere gaztei buruzko ikerlanen inflazioa gerta baitaiteke, beste populazio talde batzuen jokaerak aztertu gabe jarraitzen duten bitartean. Aipatutakoaz gain, nire ustez Pujolarrek egindako ohar honek bidea irekitzen duela hausnartzeko, orokorrean, aukeratzen ditugun ikergaiei buruz eta, sakonean, ikergai horiekiko dugun harremanei buruz. Gazteak, aurretik esana dago, kezkagai bilakatu ditugu hizkuntzaren inguruan aritzen garen ikerlariok. Kezkatzen gaitu euren euskara mailak, euren euskara erabilera eta hizkuntzarekiko adierazten duten atxikimenduak. Ez naiz sartuko eztabaidatzera arrazoiak dauden ala ez gazteak kezkagai izaten jarraitzeko, baina horren inguruan hainbat ideia nabarmendu nahiko nituzke.

Alde batetik, uste dut kontuan hartu beharko genukela gaztei loturiko arrazoak edo kezkak gizarte oso baten sintomak edo metaforak direla. Euren jarrera edota jokaerak neurri handi batean orainaldiaren isla dira, egun gure gizarteak biltzen dituen itxaropen eta beldurren isla, alegia. Gainera, transmisoaren bitartez, gazteek aurreko belaunaldietan konpondu ez diren arrazoak jasotzen dituzte, eta euren jokabideetan eta jarreretan sedimentu hori topatuko dugu. Beraz, gazteek sortarazten dizkiguten galderak modu orokorrako batean planteatu beharko genitzkeela uste dut.

Bestalde, askotan pentsatzen dut gutxitan konturatzen garela benetan gizarte adultozentriko<sup>4</sup> batean bizi garela. Gizarte horretan helduek pentsa-

<sup>4</sup> Kontzeptu hau *-adultozentrikoarena alegia*– Joán Pallarés eta Carles Feixak erabiltzen duten gisara erabili nahi izan dut nik ere. Egile hauek azaldutakoaren harira, eredu *adultozentriko*a helduen ikuspuntu, nahi edo behar ezberdinatik diseinatutako litzateke. Erdigunean gaztetxoen nahiak edo balioak baino, gurasoenak edo nagusiek dituztenak kokatzen dira. Kontzeptu honen inguruan azalpen gehiago behar izanez gero, *ikus*: Feixa, 2000.

tzen, asmatzen, esaten eta agintzen dutenak du bakarrik balioa, prestigioa eta, batez ere, legitimitatea. Mundua helduen ikuspegiaren arabera dago antolatuta eta gutxitan aitortzen diegu gazteei sormenerako duten gaitasuna. Egun –gazteez inguratuta gaudenok– sarritan kexatzen gara euren ekimen faltaz, hori akats genetikoren bat izango balitz bezala. Begira eta aztertu dezagun egungo gizartea (helduen beharretara antolatutako gizartea, alegia) eta gero agian elementu gehiago izango ditugu gazteen errealityaren analisia egin ahal izateko. Hizkuntzari dagokionez, ziur nago gazteek asko dutela erakusteko, baina susmoa dut ikerlariok eta bestelako eragileek oraindik ez dugula asmatu ez begiradarekin, ez planteatu beharreko galderakin, ez ikerketa teknikekin...

Aipatutako ideiak hobeto azaltzeko bi aspektu nabarmenduko ditut: lehenengoz identitatearen gaia berreskuratuko dut; ondoren, hizkuntza praktikei buruz hitz egingo dut. Biak erabilerarekin lotzen saiatuko naiz, gai hori adituen foroetan puri-purian dagoen gaia den neurrian.

### 3.1. **Gure gazteek ez dute euskaraz egiten beraz...**

Zergatik gazteek ez dute euskaraz egiten? Hori da behin eta berriz errepikatzen dugun galdera. Dakidanez horren inguruan jardunaldi ugari antolatu arren, erantzuna ez dugu topatu. Zergatik ez? Izan daiteke errealityean gertatzen ari dena ulertzeko oraindik ez dugulako teoria edota tresna egokirik. Beharbada, saiakera horretan jarraitu behar dugu, baina gerta daiteke ere galdera bera gaizki formulatuta egotea.

Lehenengo aukera baztertu gabe, bigarrenaren alde egin nahi dut momentu honetan.

Euskararen ezagutza nahiko bermatua dagoelakoan gaude. Ez guztiz zabaldua eta finkatuta, noski, baina bai familia bai hezkuntza sistemari esker, egun haur, nerabe eta gazte asko euskaldunak dira, hau da, euskara dute, euskara ikasi dute. Orduan, zergatik ez dute hitz egiten euskaraz? Jada hainbat ikerketa saiatuak dira gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreak detektatzen eta, nire ustez, arlo honetan egindako guztiak aurrerapausu bat suposatzen du. Baino, batzueta pentsatzen dut kezka honen

abiapuntuan badagoela zerbait gaizki planteatzen duguna, hasi hasieran akats bat dagoelako. Eta «akats» hori lotua dago hizkuntza definitzeko erabiltzen dugun paradigma tradizionalarekin. Horrela, puntu honetan bat egiten dut Joan Pujolarrek katalanaren inguruan egiten duen interpretazioarekin (Pujolar, 2008:2). Laburbilduz, esan dezakegu katalanaren inguruan (gure kasuan euskararenean) bere diskurtsoa definitzerakoan hiru premisa erabili dituela:

- a) Hizkuntza talde identitate baten adierazpena da, horrela, edozein pertsonak hizkuntza bereganatzerakoan (gizarteratze prozesuaren bidez) identitate hori ere jasoko luke.
- b) Hizkuntza izate independente bat da, hiztunaz aparte irudikatu eta definitu daitekeena.
- c) Bakoitzaren hizkuntza edo berezko hizkuntza hitz egitea, identitatearen adierazpen naturala izango litzateke. Beste hizkuntza bat erabiltea, edota hizkuntzaren erabileran interferentziak (maileguak eta abar) txertatzea, anormaltasun baten seinalea konsideratzan da.

Hau da orain arte nagusitu den paradigma eta horren arabera baloratu dugu gure hizkuntz egoera. Bainan azalpen honetan automatikoa dena (hizkuntzaren jabekuntza eta gizarteratze prozesua), independentea dena (hizkuntza) eta naturala dena (bakoitzaren hizkuntza hitz egitea, hau da hizkuntza erabiltza) ez da errealtitatean gauzatzen.

Euskara hizkuntza minorizatu bat da eta denbora luzea darama desagertzeko zorian. Etorkizuna ez du bermatua eta horrek presio handia suposatzen du. Eta presio hori ona izan daiteke, baina ez beti. Presiopean sormena garatu daiteke, dudarik gabe, baina beste batuetan antsietateak errealtitatea behar den lasaitasunarekin aztortzen ez digu utziko.

1970. urtean jaio nintzen. 1985. urtean nerabea nintzen. 2010. urtean gaude gaur. Nire 40 urteotan izugarrizko hizkuntz egoeraren aldaketa ikusi eta bizi izan dut. Euskara ikasteko aukeren hedapena izan da, nire ustez, urte hauetako lorpen handiena. Haurrek eta gazteek aukera asko izan dituzte (eta dituzte) euskara ikasteko, eta hizkuntza honetan trebatzeko. Nire belaunaldikoek izan ez genituenak (berandu arte). Salbuespenak sal-

buespen, gure gazteek euskararen demokratizazioa (euskara ikasteko es-kubidea) ezagutu dute. Nire ustez momentu horretan gaude oraindik. Gazteak, euren familiak eta gizartea bera hori asimilatzen ari direla uste dut. Aldaketak prozesatzen ari dira bai maila kolektiboan, bai maila indibidua-lean. Euskara aniztasunez bustitzen ari da, baina susmoa dut hizkuntzaren inguruko paradigma tradizionalak indarrean dirauela, aldaketa guztiak pro-  
zesatu ezinik edo. Gazteek aldiz, krisian jartzen dute paradigma hori, deseraikitze prozesu baten beharraz ohartarazten gaituzte: zein lotura du paradigma horrek euren egunerokotasunarekin, euren gertuko errealita-tearekin? Euskararekin batera euskal kulturari loturiko hainbat erreferente ezagutzen dituzte, baina nola txertatu horiek euren familiak (horietako asko erdaldunak) eskaintzen dizkien erreferenteekin? Eta gazte kulturaren erreferenteekin?

Galdera zerrenda oso luzea izan daiteke, baina agian mahai gainean utzitakoak nahikoak izan daitezke konturatzeko gazteek eginbeharreko aha-legin izugarriaz. Egia esan, errealitate komplexu honen aurrean ez zait oso egokia iruditzen gazteek euskaraz zergatik ez duten egiten galdetzea. Pujo-larrek esaten duen moduan nahasmen horren aurrean erantzun beharreko galdera-sorta beste bat da (Pujolar, 2008:5):

*«Així, la pregunta important que falta respondre (i que sovint ni es formula) és la següent: per què les persones opten per fer ús d'uns discursos/recursos i no d'uns altres? Què els porta a optar per construir o combinar determinats models indentitaris i no altres?».*

Zer eskaintzen die euskarak gure gazteei? Zer eskaintzen die gazte eta euskaldunak (edo gazte euskaldunak) izeako (edo sentitu ahal izeako)? Ildo honi eustekotan, nire ustez oraindik asko geratzen zaigu egiteko. Per-tonalki erabilerak kezkatzen nau, nola ez, baina baita sormenak ere. Gazteei begira sormen esparru guztiak iruditzen zaizkit interesgarriak, euren interesekein bat egiten dutenak. Nabarmenenak: musika bereziki, baina beste batzuk ere, adibidez, antzerkia, literatura, bertsolaritza.

Euskaldun bezala definitu edo ez, beste ezer baino lehenago gazteak dira. Hizkuntz identitatea baino lehenago hiztunak eta bere ezaugarriak nabar-menduko nituzke nik. Baina guzti honetaz oso gutxi dakigula iruditzen zait.

### 3.2. Eta gazteek ez badute euskara egiten, zer egiten dute euskararekin?

Azaldu dudan moduan nire kezka gazteak dira, hiztunak. Bere euskara maila edota euskararekin duten harremana edozein izanda ere, interesatzen zaizkit. Jada, harrigarria iruditzen zait –arestian aipatu dudan moduan– euskarak azken hamarkadatan egin duen ibilbidea belaunaldi berriei begira. Haurrak eta gazteek modu masiboan –eta ez tantaka nire garaian bezala– harremanetan egon dira (eta daude) euskararekin. Ziur nago, neurri batean edo bestean esperientzia horrek markatu duela euren bizitza. Niri kontrakoa gertatu zitzaidan, euskara ez izateak nire bizitzako norabidea baldintzatu zuen. Bainan, harreman hori gertatu bada, zein fruitu eman ditu? Are gehiago, egia bada gazteek, edo hobeto esanda gazte gehienek, ez dutela euskaraz egiten, orduan zer egiten dute ikasitako euskararekin? Ez dakigu.

Estatistikek esaten digute zenbat gaztek ikasi duten euskara (teorikoki), Kale Neurketek esaten digute zenbatek erabiltzen duten gure herriko kaleetan eta bestelako ikerketek azaltzen digute zein nolako motibazioa adierazten duten euskararekiko gure neska-mutilek. Halere, impresioa dut ez dakigula benetan zer egiten duten hizkuntzarekin.

Gure ikuspegia, beste gauza batzuen artean, ezagutza-erabilera-motibazioa eskemarengatik oso baldintzatuta dagoela uste dut, eta sekuentzia horrek irudi oso estatikoa ematen digula pentsatzen dut. Errealitateak dikotomiak zalantzhan jartzen ditu: ezagutu edo ez ezagutu, erabili edo ez erabili; motibazioa izan edo ez izan. Errealitatean dibertsitatea nagusi dela iruditzen zait, eta belaunaldi euskaradun berriei bere baitan biltzen duten aniztasunaz jabetzeko beste eredu bat aplikatu behar dugulakoan nago.

Ezagutzan erreparatzea baino gaitasunean jarriko nuke nik arreta. Azken finean, zer da ezagutza? Ezagutza gaitasun batzuk bereganatzean lortzen dugu; ezagutza bide bat da, prozesu bat eta ibilbide horretan gaitasunen lanketa da giltzarria. Gaitasunaz hitz egiterakoan pertsonarengan zentratzen gara eta ohartzen gara ezagupena oso erlatiboa izan daitekela: ahozkotasuna, idatzeta eta irakurketa baino zerbait gehiago da. Nik esango nuke

gure gazte askok, gehienak badute gaitasunen bat, edo bat baino gehiago, euskarari eskaitzeko eta hortik aurrera lantzen joateko. Ez dakit lekurik eskaini diegun hori adierazteko.

Erabileraz baino, praktiketaz hitz egingo nuke nik. Praktikaren kontzeptuak errealitatera eramatzen gaitu: zer egiten dute gazteek euskaraz edota euskararekin? Kezkak ez luke soilik zenbat hitz egiten duten jakitea izan behar, baizik euskara nola erabiltzen duten argitzea, Zertarako? Zer egiten dute euskararekin? Noiz? Norekin? Euskara erabiltzen dutenek ez dute beti erabiltzen, eta erabiltzen ez dutenek batzueta erabiltzen dute, eta tartean hiztun multzo handi bat dugu. Hau jakinda, helburua litzateke aztertzea benetan zein den erabilera, zertan gauzatzen den. Ziur nago ikuspegি hone-tatik sorpresa asko jasoko genituzkeela: Jorgek eta Israelek, bi gazte ijitol, flamenkoa egiten dute euskaraz; beste batzuk sms-ak bidaltzen dituzte euskaraz; beste batzuk bertso-rap entzuten dute, eta abar.

Azkenik, motibazioaz baino, emozioaz hitz egingo nuke, tarteka bederen. Zergatik? Motibazioaren kontzeptua nahiko mugatua geratu zaigula uste dudalako. Gainera, motibazioaz hitz egiten dugunean, sakonean emozioaz ari garela pentsatzen dut. Agian ez dirudi oso kontzeptu akademikoa, baina azken boladan lan asko burutzen ari dira horren inguruan eta ikuspuntu horretatik dena egiteke dagoela uste dut, maila orokorrean eta bereziki gazteei dagokionez. Erronka horri ez badiogu heltzen, oso lan ildo aberatsa baztertzen ariko garela iruditzen zait. Hizkuntza emozioz beta-dago eta emozio horiek dira neurri handi batean praktikak bultzatzen dituztenak, aldaketak eragiten dituztenak, proiektuak eta prozesuak martxan jartzen dituztenak. Gaztaroa emozioz beteriko garaia da, baina zein emozio lotzen dituzte gure gazteek hizkuntzarekin? Zein emozio sortarazten die euskarak? Edo, galdera hori baino lehenago, emozionatzen dira euskararekin?

Ikusten denez, azken atal hau galderaz beterik dago. Jada lan asko egin du orain arte euskal soziolinguistikak, baina denbora aurrera joan da eta kontzientzia hartu behar dugu gertatutako aldaketekin. Gutako asko gazteak ginen euskararen berreskurapena hasi zenean (Frankismo ondorengoko berreskurapenaz ari naiz, noski) eta egun ez gara hain gazteak. Edonola bi-

dean, zorionez, hainbat belaunaldi euskaldundi dira eta euskalduntzen ari dira. Kopuruek eta indizeek diote: aldaketa izugarria izan da, baina prozesuak eragindako ondorioak ez ditugu oraindik ezagutzen. Ezagupenaren belaunaldiak dira egungo gazteek osatzen dituztenak, baina uste dut horretaz gain, funtsean gutxi dakigula eurei buruz. Bitartean gizartean hainbat aldaketa gauzatu dira, horietako batzuk testu honetan landu dugun gaiarekin zerikusi zuzena dutenak: esate baterako, teknologi berrien hedapena, aisiaaldiaren areagotzea eta gazte izaeraren birdefinizioa. Bi prozesuen uztarketa egitea falta zaigula uste dut, eta hori lortu ezean nekez hitz egin ahal izango dugu gure gazte euskaldunei buruz.

Eta zerumugan, euskarak duen erronka garrantsitzuena: dibertsitatearen edo aniztasunaren kudeaketa. Baino hori beste egun baterako...

## Bibliografía

- BERRIO-OTXOA, Kotxes; MARTÍNEZ, Zesar; HERNÁNDEZ, Jone M., 2000, *Haur eta nerabeen aisiaaldi antolatua Gipuzkoan*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- \_\_\_\_\_, 2003, *Gaztetxoak eta Aisialdia. Etorkizuna aurreikusten* (2001-2002). Sociologiazko Euskal Koadernoak 13. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- DEL VALLE, Teresa, 1988, *Korrika. Rituales de la lengua en el espacio*. Barcelona: Anthropos.
- EMAKUNDE, 2009, *Adolescentes en Euskadi. Una aproximación desde el empoderamiento*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde.
- FEIXA, Carles, 2000, «Espacios e itinerarios para el ocio juvenil nocturno». *Estudios de Juventud*, 50 (2000) 23-42.
- \_\_\_\_\_, 2005a, «La habitación de los adolescentes», *Papeles del CEIC*, 16 (2005). Interneten (2010-11-27): [http://www.ceic.ehu.es/p285-content/eu/contenidos/noticia/ceic\\_noticias\\_05/es\\_noticia/adjuntos/16\\_05.pdf](http://www.ceic.ehu.es/p285-content/eu/contenidos/noticia/ceic_noticias_05/es_noticia/adjuntos/16_05.pdf)
- FEIXA, Carles, 2005b, «Los hijos en casa: ¡hackers o hikikomoris?», *Revista Comunicación y Pedagogía*, 208 (2005). Internen (2010-11-27): <http://www.xtec.cat/~abernat/articles/feixa.pdf>
- \_\_\_\_\_, 2009, «Generación Replicante». *El País*. 18/9/2009

HERNÁNDEZ, Jone M., 2005, *Jolasgaraia. Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak*. Soziologiazko Euskal Koadernoak 16. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki, 1999, *Etorkizuna Aurreikusten 99. Gaztetxoak eta euskara*. Vitoria-Gasteiz: Iñaki Martínez de Luna.

MORGAN, Marcyliena, 2004, «Speech Community» in *A Companion to Linguistic Anthropology*. London: Blackewell, 3-22.

PUJOLAR, Joan (dir.) 2008, «Els joves, les llengües i les identitats». NOVES SL (2008). Interneten (2010-11-27): <http://www6.gencat.cat/llengcat/noves/hemeroteca/hivern08.htm>

URLA, Jacqueline, 2001, «El nuevo «Ritmo» del Euskara: Identidad y mestizaje en la obra de Negu Gorriak». Interneten (2010-11-27): <http://www.negugorriak.net/pdfs/globalnoise.pdf>



# Gazteen hizkuntza erabilera eragiten duten faktoreen azterketa

BASURTO ARRUTI, Asier  
Soziolinguistika Klusterra

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Artikulu honetan azaltzen dena hain konplexua den gazteen hizkuntz erabileraaren fenomenoaren azterketa da. Gaztekin lanean esperientziadun jendea, gaia maila teorikoan landu duena eta ezaugari ezberdinak gazteen arteko hausnarketa partekatua du oinarri azterketa honek. Gazteen erabileraarekin harremanean jartzen den edonori (kampaina baten bultzatzale, egitasmo baten antolatzale, kirol talde batzko entrenatzale,...) fenomenoaren alderdi ezberdinak presente izanik bere jarduna oinarri sendo baten gainean burutzeko balibideak eskaintza litzateke helburua.

**Hitz-gakoak:** gazteak, erabilera, faktoreak, soziolinguistica.

Lo que se expone en este artículo es el análisis de un fenómeno tan complejo como el uso lingüístico de los jóvenes. Gente experimentada en el trabajo con la juventud, gente que ha abordado el tema desde el plano teórico y grupos de jóvenes de diferentes características fueron los que realizaron la reflexión conjunta que ha servido de base para este análisis. El objetivo sería proporcionar recursos a cualquiera (promotor de una campaña, organizador de un proyecto, entrenador de un club deportivo) para que pueda tener presente los patrones lingüísticos de estos jóvenes a la hora de relacionarse con ellos.

**Palabras clave:** jóvenes, uso, factores, sociolingüística.

Cet article s'intéresse au thème complexe de l'analyse du comportement linguistique des jeunes. Cette analyse a été réalisée par des experts qui ont une grande expérience dans le domaine de la jeunesse et qui ont abordé cette question sur un plan théorique. Cette analyse est basée sur une réflexion conjointe parmi des jeunes ayant des caractéristiques différentes. Son objectif est de donner des outils à tous ceux qui (promoteur de campagne, organisateur de projet, entraîneur d'un club sportif) doivent tenir compte des modèles linguistiques de ces jeunes lorsqu'ils doivent s'adresser à eux.

**Mots-clés :** jeunes, usage, facteurs, sociolinguistique.

What appears in this paper is an analysis of the phenomenon of language use among young people, which is a highly complex issue. This analysis is based on people with experience in working with young people, people who have worked on the subject on a theoretical level, and the shared reflection among young people of different characteristics. The aim is to offer resources to anyone (promoter of a campaign, organiser of a project, trainer of a sports team, etc.) who comes into contact with language use by young people, so that, bearing in mind the different aspects of the phenomenon, they can conduct their activity on a firm basis.

**Keywords:** young people, use, factors, sociolinguistics.

## Sarrera

Soziolinguistika eta bere barnean biltzen diren gaiak nahiko gai arrotzak dira gure gizartearen zati handi batentzat. Hizkuntza-plangintza, motibazioa, irudikapenak edo diglosia ez dira ohiko elkarrizketetan agertzen diren kontzeptuak. Era berean, herritarrek ez ditu ezagutzen bere herriko, eskualdeko eta lurraldoko adierazle soziolinguistiko nagusiak.

Hainbat arrazoi egon litzke hori hala izatearen atzean. Hasteko, soziolinguistikak tradizio akademiko laburra eta xumea du gainerako gizartezientzien ondoan. Horrez gain, Euskal Herrian hizkuntzaren inguruko gaiei buruzko eztabaidea soziala egon arren, hizkuntza eta gizartearen arteko harremanei paradigma zientifikoen arabera begiratzeko ahaleginak oso gutxi dira, zabaltzen diren irakurketa iritzi eta ideia subjektiboen alboan. Mundu akademikoaren eta euskararen aldeko gizarte-mugimenduaren artean dagoen tartera ere soziolinguistika-ezagutza gizarteratzeko oztopo da. Guzti horri gehitu behar zaio jende askok euskararen gaia eta lehia politikoa zuzenean lotzen dituela, gatazka iturri gisa hautematen dituela, eta beraz, gaia ekidin egiten duela.

Soziolinguistika Klusterraren helburua bere sorreratik gabezia horiei erantzutea eta hutsuneak betetzea izan da, hau da, euskararen normalizatorako soziolinguistika-ezagutza garatzea, zabaltzea eta horren inguruko interesa piztea. Horretarako bideak esparru teoriko eta aplikatuaren arteko zubiak eraikitza eta arloko eragileen bilgune-sareak osatzea dira. Bide horietatik, diciplina zientifiko ezberdinetan diharduen jendea soziolinguistikaren ingurura erakarriz, interes komunak dituzten eragileen arteko lankidezta sustatuz eta gaiei ikuspegি berritzaitetik helduz, kalitatezko proiektuak garatzen dihardu 2004. urtetik.

Artikulu honetan aurkezten den *Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa* proiektuak aurrez aipatutako xede eta jardunbide guztiei erantzuten die neurri batean. Proiektuaren helburu nagusia gazteei eta beraien lanean dihardutenei hizkuntza-erabileraren fenomenoaren alderdi guztiak begien aurrean ipintzea eta horietan esku hartu ahal izateko oinarri bat eskaintza izan da.

Lankidetza garatutako proiektua izan da, *Soziolinguistika Klusterrak* bere baziak diren Urtxintxa Eskola eta Topagunea Euskara Elkarteen Federazioarekin osatu baitu proiektuaren ardura izan duen lantaldea.

2008tik 2010era iraun duen prozesuan zehar, gaia ikuspegi askotatik ezagutzen duen jendeak eman du bere iritzia. Alde batetik, gazteen inguruko gaietan edo hizkuntza-normalkuntzari dagokionetan aditu eta aritu diren pertsona-taldearen ekarpenak jaso ziren. Bertan unibertsitate-esparruko jendeak, aisiaaldi taldeetakoak, euskara elkartetakoak, udal administrazioakoak, hedabideetakoak eta publizitatearen mundukoak parte hartu zuen, besteak beste. Eta bestalde, testuinguru soziolinguistikoari eta adinari dagokionez oso profil ezberdinak zituzten gazte-taldeen iritzia ere jaso da proiektuan.

Iritziak biltzeko prozesu horrek guztiak bi motatako emaitzak eman ditu. Batetik, gazteen hizkuntza-erabilera ezaugarri orokor batzuk azaltzen dituzten ondorioak daude. Eta bestetik, gazteen erabilera eragiten duten faktoreak irudikatzen dituen eskema. Eskema horretan, aditu, aritu eta gazteen iritzi-bilketan oinarrituz, hamaika faktore nagusi identifikatu dira. Horietako bakoitzak, halaber, hainbat azpi-faktore biltzen ditu bere barnean.

Gazteen artean euskara sustatzen diharduen hainbatek ez du lan hori arrakastaz burutzeko nahiko oinarri soziolinguistikorik; eta horiei zuzenduta dago, hain zuen ere, proiektuaren emaitza nagusia. Erabilera eragiten duten faktoreen eskemak egitasmo bakoitzaren helburu zehatzak finkatzean, egoera bakoitza aztertzean eta egindakoa baloratzean ikuspegi sinplegiak baztertzea eta neurriko erronkak jartzea ahalbidetuko duen tresna izan nahi du.

## 1. Jatorria

Proiektu honen abiapuntua, *Gazteen erabilera. Perspektiba eta prospektiba* proiektuaren bukaera puntuaren kokatzen da. 2006 eta 2007an zehar garatutako lan honetan haur eta gazteen hizkuntza erabilera eragiten inguruan egindako esperientzia praktiko eta ikerketen bilduma egin zen eta aurrera begira gaia jorratzeko sumatzen ziren gabeziak identifikatu zituzten. Tartean, gazteen erabilera esku hartzeko, erabilera hori zerk baldintzatzen duen jakitera

ematea beharrezkotzat ikusten zen. Beharrari erantzuteko proiektu berria lantzeko erabakia hartu zuen *Soziolinguistika Klusterrak*. Eta bere baziideen artean proposamena luzatuta, lana aurrekoan aritutako Proiektu Taldearen esku uztea erabaki zen: Soziolinguistika Klusterra (koordinatzaile), Topagunea Euskara Elkarteen Federazioa eta Gipuzkoako Urtxintxa Eskola.

## 2. Proiektuaren ezaugarri nagusiak

Azterketa honen bidez asetu nahi zen beharra kontuan hartuta eta Soziolinguistika Klusterraren lan-moldeen arabera jokatuz, proiektuaren ezaugarri nagusiak zehaztu ziren abian jarri aurretik.

Gazteen taldea gizarte-sektore anitza eta hetereogenoa da. Era berean, hizkuntza erabilera fenomeno konplexua da; ulertzan, azaltzen eta aurresaten zaila. Horregatik, bi osagai horiek dituen gazteen hizkuntza-erabilera ahalik eta modurik ulerterrazenean irudikatzen duen eskema sortzea hartu zen helburu nagusitzat.

Eskema horri hasieratik eskatzen zitzzion ezaugarri bat tresna erabilgarria izatearena zen. Gazteen hizkuntza-erabilera esku hartu nahi duenak bere lanean balitzeko modukoa izatea eskatu zaio proiektuaren emaitzari. Gainera, gazteentzat eta gaztekin harreman zuzenean dihardutenentzat ulerkorra izatea ere bermatu beharreko ezaugarritzat hartu izan da.

Horretaz gain, hausnarketa partekatuan oinarritutako proiektua izan da. Gazteen hizkuntza-erabilera ulertzeko modu asko daudenez, ikuspegi ezberdinak bateratzeko saiakera egin da. Gaia gertutik ezagutzen dutenen iritziak kontrastean jarriz eskuratu da azterketaren emaitza. Iritzi-emaile horien esperientzia eta eskamentua da, azken finean, azterketa ereduari bermea ematen diona.

Aurreko ezaugarri guztiez gain, proiektutik sortu beharreko tresna orokorra baina moldagarria izatea ere ezinbesteko ikusten zen. Kasuan kasuko gazteen hizkuntza-erabilera aztertzeko balio behar zuela, baina testuinguru ezberdinak erabilerak eredu berdinaren arabera aztertzeko ere erabiliko zela argi izan zuen Proiektu Taldeak.

### 3. Metodologia eta egindako lanak

#### 3.1. Diseinua

Proiektu Taldearen lehen egitekoa, proiektuaren aztergaia ongi definitzea izan zen. Gazteen hizkuntza-erabileraren azterketaren mugak zehazteko, bi kontzeptu horien definizioak adostu ziren. Gazteez hitz egitean, 12 eta 30 urte bitarteko pertsonetaz ariko ginen. Aztertuko genuen hizkuntza-erabilera, berriz, erabilera ez formala izango zen zehazki.

Aztergaia argi izanik, metodologia definitzeari ekin zitzaion. Erabileraren inguruko hausnarketa gaia gertutik ezagutzen dutenek burutu behar zutela ikusi zen. Ikuspegি ezberdinak jasotzeko interesa zegoenez, hausnarketa partekatua burutzeko bi urrats nagusi diseinatu ziren.

Esparru teorikoan eta esparru aplikatuan esperientzia duten adituekin kontatzea erabaki zen. Hauetan erabileran eragiten duten faktoreen eskema bat sortzea izango litzateke lehenengo urratsa.

Baina, era berean, gazteek eurek zer esana dutela eta euren hausnarketak eredu osatzen lagunduko zuela garbi ikusi zen. Horregatik, bigarren urratsean profil ezberdineko gazte taldeekin hausnarketa saioak burutzea aurreikusi zen.

Azkenik, ondorioak atera eta bi urratsetan jasotako edukietatik gazteen erabileran eragiten duten faktoreak ulertu eta antolatzeko balio duen eredu bat osatuko zen.

#### 3.2. Analisia

##### 3.2.1. Adituen hausnarketa

Gazteen hizkuntz erabilerari buruz adituen hausnarketa emaitza batzuen eskuratzera bideratu asmoz Soziolinguistika Klusterrak bere beste proiektu batean erabilitako metodologia oinarri hartza erabaki zen: Eralan proiek-tuko EPEsA (Marko eta Lujanbio, 2008) metodologia, hain zuzen ere.

Lantokietako erabileran eragiten duten faktoreen azterketarako metodologia abiapuntutzat hartu bazen ere, zerikusi gutxi dute kasu batean eta bestean egindako lanketek. Proiektu guzitiz ezberdin honetara egokitzeko hainbat moldaketa egin ziren. Hasteko, ikertu nahi den sektorea eta testuinguruaren definizioak zabalagoak direlako. Horrez gain, emaitzen hartzaleen profilak ere ezberdinak dira.

Proiektu Taldeak ipinitako helburua betez, proposamenari baiezkoa eman ziotenekin gazteen errealityea ikuspuntu ezberdinatik ezagutzen duten pertsonak erakartza lortu zen:

- Helena Baraibar (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa)
- Eneko Barberena (*Txatxilipurdi* elkartea)
- Jon Mikel Fernandez (*Xirika* gazte kazeta)
- Pello Jauregi (EHU-Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saila)
- Joana Mendiburu (HARMAN komunikazio zerbitzuak)
- Olatz Zabaleta (Arangurenengo Udala: Euskara Zerbitzua)
- Sonia Perez (Topagunea: Gazteen saila)
- Asier Basurto (Soziolinguistika Klusterra)

Lan-talde honekin, hiru bileratan gauzatu zen erabileraren gaineko hausnarketa eta azterketa eredu bateratuaren osatzea.

Lehen bileran, proiektuaren aurrekariak eta prozesu honen helburuak azaldu ziren. Lan-taldearen bileren emaitza nagusia erabileran eragiten duten faktoreak biltzen dituen eskema edo matrizea izango zela aurreratu zitzaien parte hartzaileei eta pausoka norabide horretan lan egingo zela.

Kokapen honen ostean, proiektuak erantzun nahi duen galdera nagusia mahai gaineratu zen:

ZURE USTEZ ZEIN ALDAGAIK DUTE ERAGINA 12-30 URTE BITARTEKO GAZTEEK EREMU EZ FORMALETAN DUTEN HIZKUNTZA ERABILERAN?

Bilera aurretik, lan taldean parte hartza onartzarekin batera, galdera honen inguruan lehen hausnarketa eginda ekartzeko eskatu zitzaien. Au-

rrez egindako horretatik abiatuta bilera gazteen hizkuntz erabileraren era-gina duten faktoreen zerrenda osatzeari eskaini zitzaien. Hurrengo bilera bitartean, zerrenda osatu asmoz, faktore gehiago bidaltzeko aukera eman zitzaien.

Lehen bileran eta ondorengo asteetan zehar osatutako faktore zerrendak zehaztasun maila ezberdineko faktoreak jasotzen zituen: batzuk oso orokorrak, besteak oso zehatzak, faktore baten barruan sartzen ziren beste faktoreak,... Horregatik, 2. bilerarako faktoreak multzokatzeko proposamen bat eraman zen prestatuta. Bertan hasierako zerrendako faktore guztiak faktore eta azpi-faktore mailatan antolatuta aurkezten ziren.

Bigarren bilera horretan, lanerako euskarri nagusia faktoreak multzokatzeko proposamena izan zen. Lan taldean proposameneko multzo bakoitza eta azpi-faktore bakoitza errepasatu eta beharrezko ikusi ziren moldaketak burutu ziren. Zerrenda idatzitakoekin adierazi nahi zenaz eztabaидatu zen, errepiakenak saihesteko neurriak hartu ziren,...

Bigarren bilera eta hirugarrena bitarteko denbora tartean, zehaztutako faktore bakoitzarentzat definizio proposamen bat jasotzen zuen dokumentua zabaldu zen lan taldeko parte hartzaleen artean. Hauek, euren ekarpenak eta moldaketa proposamenak egiteko aukera izan zuten. Honela faktore bakoitzaren izenarekin adierazi nahi zena komunean jarri zen eta zerrenda itxitzat eman zen.

Hirugarren bileraren hasieran, taldekideen ekarpen eta proposamenen araberako definizioen dokumentua aurkezu zen eta lan taldeak ontzat eman zuen. Hurrengo pausoan gazteen erabileran eragiten duten faktoreak sailkatzea izan zen. Aurrez Euskal Herrian sortua zen oinarri teoriko bat erabiltzearen inguruan adostasuna lortu zen. Iñaki Martínez de Lunak elkarlotutako hiru dimentsioen bidez azaltzen du hizkuntza erabileraren baldintzapena (Martínez de Luna, 2001).

Horretarako ondorengo galdera baliatu zen:

**ZEIN MAILATAN ERAGITEN DU BATEZ ERE ZERRENDAKO FAKTORE BAKOITZAK: MAILA INDIBIDUALEAN, MAILA MIKRO-SOZIALEAN EDO MAILA MAKRO-SOZIALEAN?**

Faktorez faktore galdera hori eginez, maila sistemikoen ardatzean kokatu ziren zerrendakoak. Faktore bakoitzak «batez ere» eragiten duen mailaren arabera kokatu ziren eskeman.

Honen ostean, egoki ikusi zen faktoreak elkarren arteko antzekotasunaren arabera antolatzea. Sailkapen horretan faktoreak bereizteko zein kategoria erabiliko ziren eztabaidatu zen lehendabizi. Aukera bat baino gehiago baloratu ostean, Txepetxen teorian (Sanchez Carrión, 1987) bereizten diren hizkuntzaren hiru zutabeak erabiltzearen aldeko hautua egin zen.

#### ZEIN MAILATAN ERAGITEN DU BATEZ ERE ZERRENDAKO FAKTORE BAKOITZAK: MOTIBAZIOAN, EZAGUTZAN EDO ERA-BILERAN?

Faktorez faktore galdera hori eginez, eskeman kokatu ziren zerrendakoak. Honela, definitutako faktoreekin egindako bi sailkapenak gurutzatu ziren, sailkapen bakoitza matrizearen ardatz bat zelarik. Ondoren, zegokion koordenadatan kokatu zen faktore bakoitza matriza osatuz. Eta honenbestez eman zitzaion bukaera aditurek egindako azterketari.

##### 3.2.2. *Gazteen hausnarketa*

Proiektuaren hasierako diseinutik, gazteen parte hartza aurreikusia ze-goen. Gainera, adituren hausnarketa fasea garatu bitartean, gazteek eurek hizkuntza erabilera ulertzeko duten ikuspegia jasotzeari berebiziko garrantzia eman zitzaion proiektuarekin harremana izan zuen jende askoren aldetik.

Gazteen ikuspegia jasotzeko bidea diseinatu zen hasteko. Metodologia aldetik, aditurekin erabilitakoa erreferentziazko oinarri gisa izan arren, beste modu batetan gauzatu beharra argi ikusi zen. Aurreikusten zen parte hartuko zuten gazteek interes maila ezberdina izatea hizkuntza erabilerarekiko eta burutzen ari ginena bezalako azterketekiko, hori baitzen helburuetako bat. Horregatik, parte hartuko zuen pertsona bakoitzari, gehienez, saio batetan parte hartzeko proposamena egin behar zitzaiola adostu zen; azterketan parte hartza bera ez zedin izan arazo bat.

Honela, saio bakarrean erabilera buruzko hausnarketa partekatua burutu, azterketarako eredu propio bat osatu eta adituek osatutakoari buruz iritzi batzuk biltzea bideratzeko moduko tailer parte hartzaileak diseinatu ziren. Bi ordu inguruko iraupena aurreikusi zitzaien tailer horiei, eta parte hartuko zuten gazteen profilaren arabera, metodologian egokitzapenak egi-teko aukera ematen zuten.

Profil ezberdineko gazteen hausnarketak kontuan hartu behar zirela hasiera-hasieratik argi zegoen. Honela, profil horiek osatzeko hiru aldagai kontuan edukitzea erabaki zen:

- Zonalde soziolinguistikoa.
- Parte hartzaleen adina.
- Saioa burutu behar zen testuingurua.

Hiru aldagaiak kontuan hartuta, bilatzen genituen profilak betetzen zituzten gazte taldekin kontaktazioa burutu zen. Aurreikusi baino tarte handiagoa eskaini behar izan zitzaison Soziolinguistika Klusterra eta bere bazkideen bitartez gazte talde egokiak bilatu eta saioak burutu ahal izateko hitzorduak finkatzeari. Azkenik, ondorengo koadroan bildutako saioak egitea adostu zen, era-bileraz egon litezkeen ikuspegi nagusiak jasotzeko aukera emango zutelakoan.

Adina	Ingurune SL	Testuingurua
12-15	Oiartzun (Euskaldunak >%75)	Ikastolako euskara elkartea (Haurtzaro Ikastola)
16-18	Zumaia (Euskaldunak >%70)	Begirale ikastaroa euskaraz. (Urtxintxa Eskola)
16-20	Etxebarri (Euskaldunak <%25)	Gaztelekuko aisialdi taldea (Harribide fundazioa-Tiempo Libre)
20-25	Oarsoaldea (Euskaldunak %30-50)	Aisialdi antolatuko begiraleak (Urtxintxa Eskola)
20-30	Deba (Euskaldunak >%75)	Hizkuntza jarrerek aztertzeko proiektua (Elhuyar-Debako Udal)
21-26	Euskal Herri osoa	Irakasle-eskolako ikasleak (MU-HUHEZI 3.maila)

Esan bezala, sei hausnarketa tailer edo saio burutu ziren, profil ezberdineko gazteekin egoera bakoitzaren kasura egokitutako metodologia erabili. Saio guzti hauetan, gazteen erabilera eragiten duten faktoreen eskeema edo matrize bat osatzen zuten. Horrez gain, adituek osatutakoarekin alderatu eta ikusten ziren antzekotasun eta ezberdintasun nagusiak ere jasotzen ziren. Material osagarri gisa, saioetan egindako iruzkinak audio grabazio batean jasotzen ziren, ondorioak ateratzeko garaian erabili ahal izateko.

### 3.2.3. Bateratzea eta ondorioen aurkezpena

Adituen eta gazteen ikuspegiak esku artean izanik, biak bateratu eta azterketaren emaitza nagusi izango diren ondorioak ateratzea zen hurrengo urretsa. Proiektu Taldeak bere gain hartu zuen, prozesu osoan zehar jasotako hausnarketa, iritzi, ideia eta iruzkinak bildu, bateratu eta borobiltzeko ardura.

Oinarri gisa adituen hausnarketa erabiltzea adostu zen eta gazteen saioetan ateratako ideia, adostasun eta desadostasunak adituek egindakoaren tartean txertatzea bilatuko zen. Gazteen saioak banan-banan hartuta, matrizeak eta grabazioak aldi berean errepasatuta atera ziren ondorioak. Ondoren adituek osatutako eskemako faktore bakoitzari buruz gazteek egindako oharrak biltzen ziren.

Lehenago esan bezala, adituen hausnarketa fasean, aipatutako faktoreak nagusiki erabilera, ezagutzan edo motibazioan eragiten zutenaren arabera sailkatu ziren. Gazteekin tailerrak burutzerakoan, sailkapen honek zailtasunak sortzen zituela ikusi zen. Zenbait gazterentzat nahasgarri gertatzen zenez, ez zen erabili tailer guztietan. Hori ikusita, eta proiektuaren emaitzak ulerterraza izan behar zuela hasieratik definituta zegoela kontuan hartuta, azken emaitzan eskemaren bigarren ardatz hori ez sartzea erabaki zen.

Laburbilduz, bi taldeek aipatu eta nabarmendutakoak eskema bakarrean biltzeko ariketa burutu zen. Eta honela, erabilera eragiten duten faktoreen azterketa eredua (eskema) eta honen osaketa ateratako ondorio nagusiak txosten batean bildu ziren.

#### 4. Emaitzak

##### 4.1. Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa eredua

###### – HIZKUNTZAREKIKO GIZARTE-PERTZEPZIOA

- Euskaldunaren irudia (hiztunei lotutako baloreak, aurreiritziak...)
- Euskararen irudia
  - Hizkuntzaren berezko balio sinbolikoa
  - Hizkuntzaren berezko balio instrumentala

###### – EGOERA SOZIOLINGUISTIKOAREKIKO GIZARTE-PERTZEPZIOA

- Euskararen bilakaera historikoari buruzko pertzepzioa
- Euskararen egungo egoera soziolinguistikoari buruzko pertzepzioa
- Euskararen etorkizunari buruzko pertzepzioa
- Euskararen erabileraren aurrean dauden jokaera eta jarreren pertzepzioa. Hizkuntza gatazkarekiko hurbiltasuna.

###### – HIZKUNTZA GAITASUNA

- Norberaren gaitasuna
  - Oinarrizko hizkuntza gaitasunaren jabetza
  - Gaitasun erlatiboa (elebitasun orekatua/desorekatua)
  - Euskarazko komunikaziorako erosotasuna (hizkuntza naturala, adierazkorra,... sortzeko gaitasuna)
  - Euskalkian aritzeko gaitasuna
- Inguruko hizkuntza gaitasuna (Hiztunen arteko gaitasun oreka/desoreka)

###### – INPUT MEDIATIKOAK

- Publizitatea/marketing-a
- Hedabideak eta kultur kontsumoa
- Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT)
- Moda eta joerak


###### – PERTSONA ETA TALDE ERREFERENTEAK

- Gizartearen erreferentzia diren pertsonen jokaera (famatuak, prestigiodunak, agintariak, kirol edo ikuskizunaren munduko idoloak,...)

- Injurune hurbileko erreferentziazko pertsonen jokaera (familiakoak, irakasleak, aisialdiko begiraleak, herriko gazteak, lagunak, laguntaldeko liderrak,...)
- KONTSUMO ESKAINTZA (Produktuak eta zerbitzuak)
  - Euskarazko produktu eskaintza
  - Euskarazko zerbitzu eskaintza
  - Euskararen erabilera sustatzen bideratutako produktu, zerbitzu eta jarduerak
- IDENTITATE KOLEKTIBOAK
  - Familia, koadrila eta inguruko taldeekiko kidetasun sentimendua
  - Herria, eskualdea, lurraldetza, nazioa eta kulturarekiko kidetasun sentimendua
  - Euskal hiztunen taldearekiko kidetasun sentimendua
- JARRERAK ETA PORTAERAK
  - Hizkuntzarekiko jarrerak: lotsa, harrotasuna, koherentzia nahia, axolagabetasuna,...
  - Hizkuntzarekiko portaera
- HARREMAN SAREETAKO HIZKUNTZ ARAUAK ETA OHITURAK
  - Erabilera esparruetako arau eta ohiturak
    - Lagunak/Koadrila/Bikotea
    - Etxea/Familia
    - Lantokia/ikasketa tokia
    - Antolatutako aisialdia/kirola.
  - Norbanakoa eta taldearen arteko elkarreragina
- TESTUINGURU POLITIKOA
  - Marko legala (Hizkuntzaren estatus legala)
  - Instituzioen hizkuntzarekiko jokaera
  - Beste erakundeen hizkuntzarekiko jokaera (alderdiak, gizarte mugimenduak, elkartea,...)

– HAURTZAROKO HIZKUNTZ INGURUNEA (Biografia linguistikoa)

- Familian biziako hizkuntz errealityatea (ama hizkuntza, ezagutza, erabilera, pertzepzioa,...)
- Auzoan biziako hizkuntz errealityatea (ezagutza, erabilera, pertzepzioa,...)
- Eskolan biziako hizkuntz errealityatea (ezagutza, erabilera, pertzepzioa,...)



#### 4.2. Ondorio Nagusiak

Aztertutako guztiak aztertuta, faktoreak antolatzeko eskemaz gain, proiektu honek zenbait ondorio orokorretara ekarri gaitu:

- Gazteen eremu informaleko hizkuntza-erabilera gizarte-fenomeno konplexua da; Errealitate hori ulertzeari eta esku hartzeari begira funtsezko da konplexutasun hori uneoro presente izatea, simplifikazioaren arriskuaz jabetzea eta ahal den neurrian ekiditea.

Hizkuntzaren erabilera elkar korapilatutako faktore ugarik eragiten dutela azterketan parte hartu duten aditu eta gazteek argi izan duten

kontua da. Zaila da faktore baten eragina non hasi eta bukatzen den mugatzea, baina aldi berean ezinbestekoa da hurbilpen bat egiten saiatzea. Errealitatearen irakurketa sinplistetatik esku hartze estrategia eraginkorretara heltzea zoriaren emaitza, soilik, izan daiteke.

- Gazteek eta eurekin lanean esperientziadun adituek erabileran eragiten duten faktore bezala identifikatzen dituztenak, orokorrean oso antzekoak direla. Egindako hausnarketa guztiak agertu diren faktore guztiak berdinak ez badira ere, elkarren arteko aldeak puntualak izan dira eta komunean agertu diren elementuak, berriz, asko.
- Gazte talde bakoitzak, fenomenoa berak bizi duenaren arabera ulertzten du. Adituei, hausnarketa burutzerakoan Euskal Herriko testuinguru ezberdinak kontuan edukiz jardun beharra azalduta, ikuspegi horrekin jarduten zuten. Gazteen kasuan, aldiz, bakoitzaren testuingurua orokortua eta bakarra izango balitza bezala hitz egiteko joera sumatu da. Zaila egin zaie, kasu batzuetan, hizkuntzarekiko eurenak ez diren bizipenak dituzten beste gazteen lekuaren jartzea. Azterketaren emaitzari eskatzen diogun ezaugarri bat ezinbesteko dela berresteko balio izan digu: sortutako azterketa ereduak orokorra eta aldi berean egokigarri izan behar du.
- Hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreak sailkatzerakoan, gazteen artean maila indibidualerako joera nagusitu da nabarmen. Adituek baino faktore gehiago kokatzen zituzten maila horretan. Hizkuntza erabilerak hautu pertsonal soila bezala ulertzeko joera egon liteke honen atzean.
- Badira faktoreen eskematik kanpo geratu arren, hausnarketa prozesuan behin eta berriz presente egon diren kontzeptuak. Berariazko azalpena behar dutelakoan gaude:

*Adina:* Faktoreen azterketako partaideek etengabe aipatu izan dute, erabileraren baldintzatzale gisa. Proiektu Taldeak, hala ere, azterketa ereduaren eskematik kanpo uztea erabaki du. Izañ ere gazteen adin talddeen barruan (12-30 urte) erabilerarekiko jokaerak denboran zehar aldakortasuna azaldu dezaketela eta azaltzen dutela ulertu arren, al-

dakortasun hau eskeman bildutako faktoreen baldintzak aldatzearekin lotzen da. Adinean gora egin ahala identitateak, gaitasunak, pertzepcioak, erreferenteak, harremanak eta abar aldatzen direla, alegia.

*Ingurunea:* Gazteen artean Ingurunea sarritan aipatu izan da erabilera eragiten duen faktore bezala. Hala ere, kontzeptu horrek bere barnean elementu asko biltzen dituela deritzogu. Hain zuen ere, azterketan zehar faktoreak antolatzeko erabili den eskeman, hiru maila nagusietako bat maila mikro-soziala edo ingurune hurbilekoa deitu zaio. Azterketaren emaitzan zerrendatutako faktoreak elkarrekin parekatu ahal izateko, inguruneak erabilera eragiten duen eragina xehatu beharra eta ingurunearen barruko faktoreak identifikatu beharra ikusi da.

- Aipamen berezia merezi dute gazteen hausnarketan parte hartzaileek nabarmendutako harreman sare nagusiek. 12 eta 30 urteko gazteen hizkuntza erabilera, hiru sare aipatu izan dira bereziki. Lehenik eta behin, familia edo etxeko harremanak. Bigarrenik, ikasketa prozesua edo jarduera profesionalarekin lotutako erlazioak. Eta azkenik, berdinaren arteko harremanak leudeke. Hauen artean bikotekidea, koadrila eta bestelako lagunak berezi beharra dezentetan aipatu izan zen, multzo bat osatu arren hiru azpitalde hauek erabilera eragiten izan dezaketen eraginaren intentsitatea eta zentzua ezberdina izan daitekeela kontuan hartuta.

## 5. Jarraipenaz

Artikuluaren hasieran azaldu bezala, bi ezaugarri eskatzen zitzaizkion, besteak beste, azterketatik lotu nahi zen ereduari: Euskal Herrian topa litetzeen testuinguru ezberdin guztiatarako baliagarria izatea (1) eta haur eta gazteekin lanean diharduen jende gehienarentzat erabilgarria izan zedin ziurtatzea (2).

Erabilera eragiten duten faktoreen azterketa burutu ostean, prozesuan zehar ateratako ondorioak jaso eta azterketa eredu (eskema) plazaratu ostean, honen erbiltzaile izango denari egokitutako aldaera prestatu beharra

ikusi zen. Hori izan da, hain zuzen, azterketa honetan arduratu den Proiektu Taldeak bere gain hartu duen hurrengo zeregina. Gazteentzat eta eurekin harreman zuzenean lanean dihardutenentzat egokitutako euskarriak erabili-ko dira edukiok zabaltzeko: webgunea, liburuxka eta posterra. Izaera di-bulgatiboko euskarri hauen bidez, gazteekin hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreak uneoro presente izatea ahalbidetzen duen tresna eskaini nahi zaio erabili nahi duenari.

## 6. Bibliografia

MARKO, J. I. (Zuz.) eta LUJANBIO, O. (koord.). (2008). ERALAN ikerketa pro-  
iekta: EPEsA metodologia. Andoain. Soziolinguistica Klusterra

MARTÍNEZ DE LUNA, I. (2001). «Euskal Herriko gaztetxoen hizkuntz egoera azter-  
tzeko eredu orokorraren proposamena». *Bat Soziolinguistica Aldizkaria* 40 (47-66).

«TXEPETX» SANCHEZ CARRION, J. M. (1987). *Un futuro para nuestro pasado*.  
Lizarra



# **Gazteak, euskara eta aisialdia Ipar Euskal Herrian**

BAXOK, Erramun  
Ohorezko euskaltzaina eta Sustapen batzordekidea

COYOS, Jean-Baptiste  
Euskaltzain osoa eta Sustapen batzordekidea

Sarrera data: 2011-03-11  
Onartze data: 2011-06-24

Ikerketa honen xede nagusia da aurkeztea gaur egun Ipar Euskal Herriko gazteen euskarazko edo euskal kulturari lotu diren aisialdiak zein diren. Eragile pribatuen eta publikoen jarduerak aurkezten dira aisialdi eremu ezberdinetan, eremu horiek hiru ikuspuntutik azter daitezkeela jakinez: hezkuntzarena, sorkuntzarena edo ekoizpenarena, eta kontsumoarena.

Egin diren inkestak baliatuz Ipar Euskal Herriko gazteriaren argazkia ematen da.

Ikerketa honen zaitasun bat da gazte horien aisialdiak berak aztertzea. Adin horietan ohiko aisialdi egituratuetarik kanpo beren aisialdian gizarte paralelo bat sortzen dute, helduenetik ezkapatzen eta une horiek aztertza zaila da, pribatuak baitira. Ikerketa honetan aisialdi antolatuak, aisialdi hezitaileak aztertzen dira bereziki.

Bururatzean ondorioen araberako gomendioak egiten ditugu, agertu diren indarguneak azkarteko eta ahulguneak sostengatzeko.

**Hitz-gakoak:** gazteak, euskara, aisialdia, Ipar Euskal Herria.

El objetivo principal de esta investigación es presentar cuáles son las alternativas de ocio de los jóvenes del País Vasco Norte, relacionadas con el euskera y la cultura vasca. Se muestran las actividades públicas y privadas en los diferentes campos del ocio, a sabiendas que esos campos se pueden estudiar desde tres perspectivas diferentes: educación, creación o producción, y consumo. Utilizando las encuestas realizadas se pretende mostrar la foto de la juventud del norte de Euskal Herria.

Es dificultoso estudiar el ocio juvenil. En esas edades, se alejan de las estructuras de ocio convencionales, y es a través de ese ocio particular y privado, que se alejan de los adultos y crean un mundo paralelo, lo que dificulta su estudio. Por lo tanto en este estudio se analizan las actividades organizadas y con fines educativos.

Como conclusión realizamos unas sugerencias con el objetivo de impulsar los ámbitos donde el ocio relacionado con la cultura vasca están fuertes, y a su vez sostener los más débiles.

**Palabras clave:** jóvenes, euskera, ocio, País Vasco Norte.

L'objectif principal de cette recherche est de présenter quels sont les loisirs en langue basque ou liés à la culture basque des jeunes actuellement en Pays Basque Nord. Les actions des acteurs privés et publics sont présentées dans les différents domaines, sachant que ces domaines peuvent être étudiés de trois points de vue : celui de l'éducation, celui de la création ou de la production, celui de la consommation.

A l'aide des différentes enquêtes qui ont été réalisées, on propose une photographie de la jeunesse du Pays Basque Nord.

Une des difficultés de cette recherche est l'examen des loisirs eux-mêmes de ces jeunes. A ces âges ils construisent un monde parallèle de loisirs en dehors de ceux habituellement structurés, afin d'échapper au monde des adultes. L'examen de ces loisirs est difficile car ils sont privés. Ce sont les loisirs organisés, ceux à caractère éducatifs, que nous examinons principalement ici.

Pour terminer des recommandations sont faites à partir des conclusions de cette recherche, afin de renforcer les points forts et de soutenir les points faibles dans ce domaine des loisirs des jeunes en langue basque.

**Mots-clés:** jeunes, langue basque, loisirs, Pays Basque Nord.

The main aim of this paper is to present the leisure activities in the Basque language or linked to Basque culture undertaken by the young people in the Northern Basque Country [administered by France] today. The activities of private and public players are presented in different spheres of leisure, bearing in mind that these spheres can be analysed from three perspectives: the perspectives of education, creativity or production, and consumption.

Making use of the surveys carried out, a picture of the young people in the Northern Basque Country is provided.

One difficulty in this research is examining the very leisure activities of these young people. At this age they create a parallel society in their leisure time outside the usual structured leisure activities to escape from adults, so it is difficult to examine these moments because they are private. This piece of research deals with organised leisure in particular, and of an educational nature.

Finally, we make recommendations on the basis of the conclusions, in order to reinforce the strong points and to support the weak points.

**Keywords:** young people, Basque, leisure time, Northern Basque Country.

## 1. Problematika: Gazteak, euskara eta aisialdia Ipar Euskal Herrian

Ikerketa honen xede nagusia da aurkeztea gaur egun Ipar Euskal Herriko gazteen euskarazko edo euskal kulturari lotu diren aisialdiak zein diren<sup>1</sup>. Aisialdia denbora-tarte handia da gaur egungo gazte baten bizitzan. Eta belaunaldi horren kasuan hurbileko harremanek, gizarte-sareek eta modek eragin handia dute hizkuntzaren erabilera, baina ere komunikabideen eta asialdirako produktu eta zerbitzuen eskaintzak.

Eragile pribatuen eta publikoen jarduerak aurkeztuko dira aisialdi eremu ezberdinetan. Aisialdiaren eremu horiek hiru ikuspundutik azter daitezke, hezkuntzaren ikuspundutik, sorkuntzaren edo ekoizpenaren ikuspundutik, eta kontsumoaren ikuspundutik.

Ikerketa honen zaittasunetarik bat aztergaia mugatzea eta definitzea izanda, aztertu den biztanleriaren aldetik, erran nahi baita gazteak, baita ere biztanleriaren jardueraren aldetik, erran nahi baita aisialdia.

Ipar Euskal Herriak jasan dituen aldaketa demografiko eta sozial handi horiek gazteen ingurumen soziokulturalean eragin dute, biztanleria osoaren bezala. Kultur nahasketak, kultur aniztasuna birkortu da. Frantsesaren bizindarra azkar da hizkuntza nagusia delarik, euskararena ahulago nahiz haren aldeko ahalegin gero eta importanteagoak egiten diren.

Adin talde hori (15-24 urtekoa da gure xede-talde nagusia) biziki heterogenoa da oraingo munduan. Helduaroaren eta adoleszentziaren arteko muga mugikorra da. Gehiengoa ikastetxeetan da oraino, baina batzuek ikasketak bururatu dituzte eta lan-merkatuan daude, lanean ari dira edo langabeziar.

Beste zaittasun bat da gazte horien aisialdiak berak aztertzea. Badakigu adin horietan ohiko aisialdi egituratuetarik kanpo beren aisialdian gizarte paralelo bat sortzen dutela, helduenetik ezkapatzeo eta une horiek aztertzea zaila da, pribatuak baitira. Moda berriak sortzen dituzte, desberdin izan

<sup>1</sup> Ikerketa osoa 2011an argitaratu da: *Gazteak, euskara eta aisialdia Ipar Euskal Herrian – Les jeunes, la langue basque et les loisirs en Pays Basque Nord*, Jagor bilduma, Bilbo, Euskaltzaindia.

nahi baitute. Ikerketa honetan aisialdi antolatuak, aisialdi hezitzaleak aztertuko dira bereziki.

## 2. Aisialdiaren definizioak

Aisia edo aisialdia denbora hutsa edo denbora betea bezala definitzen da. Euskaraz «aizina» edo denbora-pasa», frantsesez «le loisir» ou «les loisirs» esaten da lehen esanahia adierazteko.

Alde batetik «lanik edo zereginik gabeko tartea da, nork bere gogora ematen duena» (Euskal hiztegi modernoa, Elhuyar 2000). Eta bestalde hutsaren betetzeko «denbora librean eramatzen diren jarduerak: jolasak, kiro-lak, ekoizpenari norabidetua ez den lana» (Wikipidea).

Ororen buru, denbora pasa ere merkatu bat bilakatu da: bidaia agentziak, kirol lehiaketa erraldoiak (fulbol munduko txapelketak, errugbikoak, txirrindularitza itzuliak: Tour, Giro, Vuelta, etab.), opor mota guziak (ondartza, mendia, negu kirolak, ur kirolak), lan lasaia, (baratzea, arrantza, ehiza...), bestak, festibalak. Industria alor denetan sartu da eta ekoizle gutik atsegina ematen diente kontsumitzale askori.

Filosofia bat ere sortu zen aisialdia hedatu zelarik: aisialdia ez ote da zibilizazio berri bati buruzko bidea (Dumazelier, 1962). Ekoizpen lanaren laburpenak denbora librea luzatzen du. Astean gutxi gorabehera 35/40 oren la-nean deramagu, 60 oren jaten eta lo egiten eta 70/75 oren gelditzen zaizkigu atsedenarentzat. Eta askoz aisialdi epe gehiago haur eta gazte garaian (20 urtez) eta erretreta denboran (20/30 urtez). Ikusmolde optimista batean aisialdiaren luzapena askatasunaren seinale da eta ondorioz jendetasunaren hobekuntzarena. Beste ikusmoldea da aisialdia ez ote den beste kontsumo mota bat, gizarteko ezberdintasunak azpimarratzen dituena.

## 3. Nor dira aipatzen ditugun gazteak?

Hona Ipar Euskal Herriko adin taldeen 2006ko banaketa errolda jarrai-kiaren arabera. Adinarteak mugatuak dira gure inkesta gehienetan agertzen

diren bezala. Jendetzaren zenbakiak erroldaren emaitza ofizialak dira, 2009ko abenduan agertu zirenak.

Adinarteak (A)	Jendetza (J)	A/J	Euskaldunak (E)	E/J
> = 65	63.000	%21,6	20.412	%32,4
50-64	61.000	%21,0	16.348	%26,8
35-49	64.000	%22,0	11.200	%17,5
25-34	32.000	%11,0	3.680	%11,5
15-24	31.000	%10,7	4.991	%16,1
0-14	40.000	%13,7	—	—
OROTARA	291.000	%100	56.631	%22,5

Iturriak: 2006ko errolda - IV. inuesta soziolinguistikoa.

Taulan ikus daiteke gazteen tokia herriko biztanlerian aski handia dela. Gaindegia behategiaren arabera Hego Euskal Herrian baino handiago, Akitanian baino doi bat ttipiago bada ere (2009, 10. or.). Gainera 2006az gerroztik saldo naturala positibo bilakatu da.

Non daude 0 eta 24 urte arteko haur eta gazteak? Haurtzaindegiko haurrak ez ditugu kontuan hartzen ez ere 3-6 urteko haurrak ama-eskolan dauendenak. 7-14 urteko haur eta gaztetxoak lehen-mailako eskolan eta kolegioan dira; 15-24 urteko gazteak lizeoan, unibertsitatean edo lanean.

Oro har gure xede-taldea 15-24 urteko gazteek osatzen dute. Halere eskolako eta kolegioko ikasleak askotan kontuan hartzen ditugu, ikastetxean edo inguruan hartzen baitute atsedenaldia euskaraz eramateko ohitura. Baina gure kasuan 25 urte eta gehiagoko helduak baztertzen ditugu: askok ikasketak bururatutu dituzte eta lan-merkatuan daude. Beste batzuk unibertsitatean jarraitzen dute. Batzuk ezkondua dira eta haurrak badituzte. Ondorioz beren beharrak eta gustuak osoki ezberdinak izan daitezke.

Ikerketaren iturriak, bi hitzez azken hamarkadako bost inkestak dira (Gaztetxoak 1999, Nortasuna 2005, Euskara 2006, Ipsos media 2007, Kultura 2008) bai eta ere Euskal Kultur Erakundearen (EKE) ekintzen txosten eta Euskararen Erakunde Publikoaren (EEP) proiektu deialdiak, 2009ko urtean mugaturik txosten honetarako (*ikus bibliografia*).

#### 4. Gazteriaren argazkia

Nor dira 2010eko gazteak?

Duela bost edo hamar urteko ikerketak balia ditzazkegu. Alabaina, 1999an 13 urte zuten gaztetxoek orain 24 urte dituzte eta 2005eko adin talde gazteenekoek orain 21-29 urte. Nolako argazkia ateratzen da euskal aisialdien ulertzeko interesgarriak diren parametroak erabiliz: lehen hizkuntza, hizkuntza gaitasuna, hizkuntzen erabilera, herri nortasunaren sentimendua? Orain arte ez daukagu gazteen aisiari buruzko ikerketarik bainan bai gai honi lotuak diren hiru eremutan, kultura, hedabideak eta kirolak. Zein dira gaurko gazteen joerak?

Euskara biziki gazte gutiren ama-hizkuntza da. %14entzat doi doia. Beraz euskara ez da gehiengoaren nortasuna egituratu duen hizkuntza afektiboa. Hortako garantzi handia luke euskara izan dadin ahal bezainbat esperientzia atsegengarriei lotuko zeien hizkuntza, adibidez aisialdian. Oraindanik euskararen transmizioa auzian dago, gaztetxoen inkestak erakusten duen bezala. Gaztetxo euskaldunei galdegin zeie: Hemendik urte batzuetara, sema-alabarik bazenu, zuk euskaraz hitz egingo zenieke etxean? Erantzuna «bai» %87 Iparraldean, %74 EAEn eta %65 Nafarroan. Galdea hipotetikoa izanik ere, aldagai hau interesgarria da nolazbait euskara jarraitzeko gozoa adierazten baitu. Gutienik transmititzen den lurraldean dago transmititzeko xederik bizkorrena. Jarrera baikor hau haziko da euskara atseginaren hizkuntza sentituko den neurrian.

Hizkuntza gaitasunaren aldetik, belaunaldi hauetan gelditzen da euskararen aspaldiko gainbehera. Eskolari buruzko hizkuntza politika era-ginkorraz baliatu dira. Haien eskola herria baino euskaldunago da. Ondorioz gazteen adin taldea, lehen aldikotz, zaharragoa baino euskaldunago agertzen mintzatzeko (%16 versus %11). Halere gazte hauetan euskaraz baino frantsesez trebeago dira. Euskal elebidunen multzoa 3 punduz goratu den denboran, elebidun orekatuen multzoa 14 punduz ahuldu da eta erdal elebitasuna 11 punduz indartu. Badakigu hitz egiteko erraztasuna faktore erabakigarria dela hizkuntza bat edo bestea hautatzerakoan.

Gazteek non erabiltzen dute euskara? Eskolan eta eskolaren inguruan, erabilera «profesionala» nolazbait. Gero, baina gutiago, familiar eta lagunartearen, hots gune afektiboetan.

Zein dira gazteen pentsamoldea euskarari buruz? Definizio aski tradizionala ematen diote: hizkuntza zaila da, bainan gurea delakotz zaindu behar da. Gehiago laborantzari eta iraganari lotzen diote ezinez eta etorkizuneko bizitza hiritarrari. Ondorioz ez dakite euskara baliagarria den ala ez. Halere gure nortasun kulturalaren zinezko ikurra da. Beharrezkoa da euskara irakastea eskoletan baina haientzat hautuzko ikasgai bezala. Ezagutza ez da aski, egun oroz erabili behar da euskaldunen artean, erdaldunak hor badira ere. Gazte zenbaitek euskarazko ekintza gehiago nahi lukete.

Nortasun kolektiboari buruz, bi emaitza oso ezberdin baditugu. Euskaltsuna bakarrik aipatzen delarik anitzek beren burua euskalduntzat daukate: %48 Iparraldean oro har eta %43 gazteengan, beraz hizkuntza gaitasuna baino askoz gehiago. Aldiz euskal eta frantses nortasunak lehian ezartzen direlarik, bien artean inkestatuak hautu bat egin behar duelarik, emaitzak zalantzan daude: gehiago euskal herritar %16, euskotar bezain frantses %24, gehiago frantses %53 Iparraldean oro har. Quebectar soziologoek nazio kulturala eta nazio zibikoa bereizten dituzte. Nazio kulturala ondarean, ohituretan, hezkuntzan, hizkuntzan oinarritua da. Nazio zibikoa sortzen da herritarrek herria eraikitzen dutelako kontzientzia daukatelarik, zerbitzu publikoetan, lurralteko antolaketan, ekonomian, ekologian parte hartuz. Nortasun kulturala nahiko argia da, baina herritasunari buruz jendetza bikoitz agertzen da.

Bizitza kulturalari begira, hemen ere «paradoxa» baten aitzinean gara. Oharra Iñaki Martínez de Luna-rena da (Baxok, Euskal nortasuna...: 142. or.). Alde batetik kulturaren osagai nagusiak definitzerakoan gazteek orokorki eta euskaldunek bereziki euskarari ematen diote lehen lekua. Baina kontsumitzairez bezala zinemari ematen diote lehentasuna, herritar, guztiek bezala. Eta zineman euskararen lekua mendrea da (ikusgarrien %3). Halere kultura eragile bezala, kantua, antzerkia eta bertsolaritza gogotik praktikatzen dituzte.

Euskarazko hedabideek arrakasta handia dute herritarren artean, bereziki gazteen artean. Telebista ikusleak, irrati entzuleak eta musikazaleak %50

dira guti gorabehera, euskara ulertzen dutenak %26 direlarik. Euskara ongi dakitenek euskal hedabideetan dabiltza kasik ehuneko 80aren heinean. Bana zergatik euskaldunen %40ek ez dute deus irakurtzen euskaraz?

Kirola aipatzen delarik bereizi behar dira kirola praktika bezala eta kirola ikusgarri bezala. Praktikan gazteek ibilaldiak maite dituzte bereziki mendian. Ikusle bezala gazteen lehen hautuak errugbia eta futbola dira (praktikan 3. eta 10. mailan direlarik). Pilotak aipamen berezia merezti du. Euskal Herrian kirol anblematikoa da, lehen herri kirola. Ikusle bezala gazteek 3. lerroan daukate, plazetan edo maizago telebistaren aitzinean eta praktikan 4. mailan.

«Aisialdia, gazteak eta euskara» gogoetagai dugularik, kontuan hartu behar dugu Ipar Euskal Herriko belaunaldi gaztea gero eta euskaldunago dela, euskarari eta herriari atxikia, kulturzale, kirolzale ere bai adinak erakarririk. Haatik euskara ez da ama hizkuntza gehiengo handiarentzat. Pentsa dezakegu euskara ez dela nortasuna eraiki duen hizkuntza afektiboa gazte gehiengo horrentzat. Ondorioz euskararen erabiltzaile herabeak dira, doi bat etxeen eta lagunartean, askoz gutiago gizarte zabalean. Estrategia da eskola hizkuntza nola bilaka daiteken hizkuntza afektiboa plazerrarekin lotuz. Egia erran, ikasleak eskolan eta eskola inguruan ere euskaraz mintzo dira, aukera atseginingarriak aurkitzen dituzten neurrian. Ikus dezagun zer egiten den aisialdiaren eremu ezberdinetan.

## 5. Aisialdien eremuak: bilana

Ikerketarako 12 eremu bereizi ditugu: bilguneak, egonaldiak; komunikabideak (idatziskoak, entzun-ikusizkoak, elektronikoak); argitalpena eta irakurketa; musika, dantza eta kantua; antzerkia eta bertsolaritza; kirolak eta zirkua; bestak eta festivalak; arte ederrak; ondarea; zinema; ingurumeña; jarduera zientifikoak. Gainera kontuan hartu ditugu berezko aisialdiak, adibidez gaztetxeak.

Hemen adibidetzet laburbilduko ditugu 2009an Euskararen Erakunde Publikoak edota Euskal Kultur Erakundeak bost eremutan lagundu dituzten proiektuak.

### 5.1. Bilguneak, egonaldiak

Aspaldidanik izan dira oporretako egonaldiak, kanpaldiak, «koloniak», «Euskaldun xoriak» eta beste. Ikusi dugu ibilaldiak direla gazteen kirola erabiliena. Hona 2009an gauzatu diren ekintza batzuk.

Eragilea	Jarduera	Parte-hartzea
Basaizea	Aisaldi ekintza tematikoa	14 haur/gazte
Karkaila	Kultura jarduerak, ibialdiak. Musika saioak	18 perkusiolari, 594 haur
Uda Leku	Egonaldiak. Ekintzak. 3 bilgunetan	8.986 haur-egun, 25 ikasle
Cassin lizeoa	Kultura trukaketa Zornotzako ikastetxe batekin	4 egun Zornotzan
Fal kolegioa	Kultura trukaketa Bilboko Luis Brinas kolegioarekin	16 Fal ikasle, 16 Brinas ikasle
Larzabal kolegioa	Murgiltze astea: Bilbon eta Abadiako jauregian	Klase bat, 5 egunez

Alor honetan eragile nagusia Uda Leku elkartea da: hiru bilgune dauzka Baionan, Hendaian eta Biarritzen ; asteazken oroz haur eta gaztetxoak bildzen dira eta opor guztietan salbu eguberriz. 2010ean 300 haur ibili dira 14 egonaldi-ibilaldietan. Ez da harritzekoaa EEPk ematen dituen diru laguntzen %97 baliatzen baitu (130.000 €).

Ohar bat: Uda Lekuren 3 bilguneak kostaldean dira, beraz barnealdeko bilguneak beharrezkoak dira, Basaizea Baigorri eta Karkaila Zuberon. Oreak bat egin daiteke diru laguntzen banaketan ?

Alor honetako jarduerak bi motakoak dira: egonaldiak eta ikastetxeen arteko trukaketak. Trukaketa horiek esperientzia garrantzikoak eta atseginak dira: ikasleek ulertzen dute Euskal Herriaren batasuna eta aberastasuna. Gainera elkarren komunikazio hizkuntza bakarra euskara da, euskalkien ezberdintasuna jolas moldean gaindituz.

## 5.2. Antzerkia eta bertsolaritza

Antzerkia eta bertsolaritza arrakasta handiko jarduerak dira gazteen artean. Bai eta ere besteak beste Zuberoako pastoralak eta maskaradak, jokalari edo ikusle bezala.

Eragilea	Jarduera	Parte-hartzea
Bertsolarien lagunak	Bertsu eskolak, saioak. <i>Hernandorena gazte saria</i>	11 bertsu escola: 70 haur/gazte.
Maite dugulako	Antzerki tailerrak, heldu eta gazte. Antzezpenak	176 tailer-oren, 25 antzerkilari
<i>Traboules</i>	Ikusgarrien sorkuntza. Txon- txongilo emanaldiak	3 emanaldi.
Zuberoako herri lizeoa	<i>Euskamerikan</i> pastoralra. Kaliforniakoak Zuberoan	6 ikasle, 24 astez oren bat
<i>Etxepare</i> lizeoa	<i>Gordin eta bero</i> antzerkia. 3 Puntu taldeko batekin	95 haur, 8 laguntasile
<i>Xalbador</i> kolegioa	Gernika antzerkiaren ikusketa	
7 antzerki talde	Sorkuntzak: <i>Sissi, Diaspora bidean, Txu-txu, Har eman, Zuhaitz maitemindua, Lapurdiko tragedia...</i>	
3 txontxon-gilo talde	Emanaldiak: <i>Kokolobatxi, Am Stram Gram, Mamuak</i>	

Aspaldidanik antzerkiak prestatzen eta ematen dira ikastetxeetan eta konpainia berezien bidez. Euskal Haziak guraso elkartean ikastetxe giristinotan «Euskal Antzerki astea» antolatzen du: 2009an 28 eskola, 8 kolegio, 450 haur eta gaztetxo igan dira 25 antzerki oholtzatara.

Bertsolaritzaren arrakasta berriago da. Baserritik hirietara heldu da, arte garaikide eta modernoa bilakatuz. Alor honetan tradizioa eta modernitatea lotu dira, euskararen onurako, hori bertsolaritzako eragile beraiengatik. Bertsularien lagunak elkartea da eragile nagusia, bertsolari berrien formatzalea, saioen antolatzailea adibidez Hernandorena gazte sariketa. Urteko kontuak 100.000 euroz gorakoak dira.

Ohiko jardueretaz gain, Euskal Kultur Erakundeak sorkuntza laguntzen du, nola antzerki konpainien bidez (Chimères, Versant, Elirale, Hebeñik, Maite Dugulako, Lapurdi 1609), hala txontxongiloen alorrean (Tokia, Antzokiaren harian, Azika) haurrentzat bereziki.

### 5.3. Musika, dantza eta kantuak

Musikak, dantzak arrakasta handia dute gazteengan, molde tradizionalean eta modernoagoan. Kantuak ere bai euskara dakitenekin. Kultura inkestaren arabera musika erosle gazteetan %69k euskal musika erosten dute, euskaldunak ala erdaldunak; azken 3 hilabeteetan %97 gazte euskaradun kontzertu batera joan dira (2007).

Eragilea	Jarduera	Parte-hartzea
Iparraldeko Dan-tza batzordea Atelier <i>Larzabal</i> kolegioa F3C <i>Iparralai</i> <i>Fal</i> kolegioa	25 dantza talde, ekintzak 25 ikastegitan, 2 musika eskola <i>Dantza hirian 2009:</i> komunikazioa euskaraz Hip hop ikastaroak 17 astez. Bi talde, bi agerraldi Txalaparta kurtsoak ikastetxetan 34 trikititxa eta pandero kurtso Brassens-en kantuak euskaraz antzezturik	600 dantzari, 32 ikuskizun Ekintzak 6 egunez 40 ikasle, astero 40 minutu 18 gazte, 10 orenez 314 haur, 21 irakasle 13 ikasle, 3 partaide
4 musika talde Baigorri, Isturitze 6 dantza talde Iparraldea	Sorkuntzak: <i>Alpharock, De Escurra kontzertua, Ezkia haizean kantari, Olentzero.</i> Sorkuntzak: <i>Aurrez, aurre, Arpean, Sakratu, Urhaska, Andrearen uzta, Paisol dantza.</i>	

Iparraldeko Dantzarien Biltzarra (IDB) da dantzaren arduradun nagusia. 25 talde, gertakizun handiak (Dantzari ttiki, Dantzari eguna, Mutxikoen eguna), sorkuntza anitz. EEPk ematen dituen diru laguntzen %64 erabiltzen du.

Dantza saioak gehienak tradizionalak dira, baina hip hopa ikasten da *Larzabal* kolegioan.

Musika kurtsoak ere lagunduak dira: txalaparta, trikititxa, etab.

Euskal Kultur Erakundeak sorkuntzak sustatzen ditu musika mailan (ZTK, Eszena nazionala, Herri soinu...) bai eta ere dantza mailan (Martzuli, Leinua, Zarena zarelako, Herri soinu, Kitzikazan/k).

Geroari buruz kantari gazte asko agertzen dira: Amaren alabak, Hau-rock Taldea, Haur kantu xapelketa...

#### 5.4. Komunikabideak

Taula honek erakusten digu gazteriaren zaletasuna irratia entzuten eta telebista ikusten. Gainara askoz jende helduak baino trebeago dira tresna elektronikoekin, ordenagailuak, jokoak ala esku telefona. Zer eskaintza dute euskaraz? Eskaintza ahula hain segur.

16-29 urtekoen erantzunak

Azken hiru hilabeteetan zenbat aldiz erabili dituzu euskarazko hedabideak?				
Zenbat aldiz	Irratiak	Telebista	Diskoak	Irakurgaiak
Egunero	%13	%06	%12	%05
Askotan	%10	%14	%17	%05
Batzutan	%15	%27	%24	%09
Sekulan	%62	%53	%45	%80

Iturria: Eskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran (2005)

Irrati mailan eragile nagusia Euskal Irratiak elkartea da lau irrati federatzen dituelarik: *Gure Irratia*, Uztaritzen; *Irulegiko Irratia*, Garazin; *Xiberoko Botza*, Maulen eta *Antxeta Irratia*, Hendaian. Hegualdeko irratiak ere entzuten dira. Diru laguntzaren %60 erdiesten du federazioak.

Telebista mailan eragile nagusia Euskal Telebista da. Halere tokiko telebistaren egitasmoa hor dago *Kanaldude*, TVPI.

Hedabideak definizioz orokorrak dira. Gazteentzat bada Hegoaldean Gaztea irratia eta Iparraldean emankizun bereziak: Petatxu, Borta zabalik.

Irrati interaktiboak badira: Aztibegia, Radiokultura. Interneten bidezko egunkaria Kazeta.info. eta Webgune asko: Kanaldude, EEP, EKE...

Prentsa idatzia hau da. Mintza eta Hitz asteak berriak dira, *Herria* astekaria aspaldikoa eta *Berria* egunkaria. Bainak irakurle gazteen proportzioa zein den ez dakigu. Pentsa dezakegu ahula dela.

Orokorrean, irratia entzuleak eta telebista ikusleak euskara dakinak baino gehiago dira. Bainak elebidunetan ere badakigu %40k ezer ez dutela irakurtzen.

### 5.5. Bestak, festibalak

Bestetan eta festibaletan gazteak trumilka dabilta. Euskalgintzako era-gileen estrategia da, dauden bestetan ahal bezainbat euskal ekintza programan sartzea. Honek ez du diru gehiago eskatzen baina erabaki guneetan egotea. Eredugarria da Baionako bestetan egiten dena<sup>2</sup>, bai eta ere beste hiri eta herri batzuetan.

Eragilea	Jarduera	Parte-hartzea
Euskal Herria Zuzenean	3 eguneko festibala. Lema: «euskarra ikas eta erabil»	30.000 sartze.
Euskaldun Gazteria Pil Pil	Formakuntza, animazioa DVD sukaldaritzaz	18 gazte, 10 oren
Hamar festibalak	Hartzaro, Xiru, Errobiko festibala, Bihar herri, Musikaren egüna, Dilin dalan, Haur kantu xapelketa, Gauzak biltzen...	

<sup>2</sup> Emeki-emeki euskarak eta euskal kulturak beren lekua eskuratzentz dute besta erraldoi horietan, euskal uharte sortuz ozeano erdaldun handian (milioi bat jende, kanpotiar anitz). Urtero, Euskal Kultur Erakundeak proposaturik, bertsolari batek Baionako besteei hasiera ematen die. Egunero Jacques-Portes plazan, 16:30tik-23:00etara, *Karrikaldi* ekitaldia antolatu da (Ibaialde, Leinua eta Baionan Kantuz elkartearak): euskal dantzak, kantuak, bertsoak... Euskal musika eta kantuak karrizetan han hemenka entzuten dira, programazioan sartuak.

Ipar Euskal Herriko 10 bat festibalen eragileek laguntza bat eskatzen dute erakundeengandik: Herri Soinu, Abotia, Ezkandrai, Herri Soinu, Bil xokua, Pestacles, Euskal kantu xapelketa, Lagunekin...

Beste besta asko badira beren burua ordaintzen dutenak edo diru biltzeko antolatuak direnak: Euskal Herria Zuzenean, Herri Urrats eta beste eskola bestak, Korrika, Sagarno eguna, Nafarroaren eguna, Lapurtarren Biltzarra.

Kultur asteak urtero antolatzen dira: Bidarten, Donibane Lohizunen, Hazparnen (Kulturaldia), Hendaian, Biarritzen (Bi harriz lau xori)... Etor-kizunean, kezka nagusia izanen da besta eta festival horietan zein den euskararen lekua, nola leku hori handitu.

### **5.6. Ondorioak: indarguneak eta ahulguneak 2009ko egitarauetan**

Ezin ditugu 12 aisaldi eremuak zehazki aztertu, gazteen aisaldi ez antolatuak ez ditugula azterketan sakonki kontuen hartzen oroitaraziz. Halere ikuspegi orokor bat izan dezakegu proiektuek ardietsi duten diru laguntza publikoak konparatuz, errana baita aurrekontuak direla borondate politikoaren seinale argienak.

Taula honetan aisaldi eremuak zerrendatuak dira, eremu horretako proiektuek lortu duten dirulaguntza kopuruaren arabera. Seinale bat da botere publikoek zer-nolako garrantzia ematen dieten aipatu eremuei.

2. zutabeen diru laguntzan kopuruak eta ehunekoak daude. Diru laguntzen konparaketa: bost eremu nagusik laguntzaren %92 lortu dute (791.500 €) eta beste 6 eremuek %8 (83.600 €). Orotara 875.100 €.

3. zutabeko kontuak, lagunduak diren proiektuen gastu osoak dira. 11 proiektuen kostu osoa 2.709.600 €ko da. Beraz ikus daiteke zein den laguntza publikoaren heina (%32) eta elkarteen ekarpen proprioa. Eremu batzuk oraindik laguntzarik gabe daude, adibidez joko elektronikoen ekoizpena.

Aisialdi eremuak	Laguntzak €	%	Kontuak €	%
Hedabideak, bideoak	451.300	%52	1.235.400	%46
Egonaldiak, ibilaldiak	134.100	%15	521.600	%19
Antzerkiak, bertsolaritza	86.600	%10	355.800	%13
Musika, dantza, kantua	66.000	%08	200.000	%07
Bestak, festibalak	53.500	%06	77.000	%03
Kirola, jokoak	25.400	%03	168.100	%06
Argitalpena, irakurketa	20.700	%02	20.700	%01
Ondarea, erakusketak	11.000	%01	81.200	%03
Ingurumena, zientziak	9.000	%01	17.400	%01
Zinema	3.400	—	6.000	—
Arte ederrak	1.000	—	10.000	—
OROTARA	875.100 €		2.709.600 €	

Iturriak: EKEko eta EEPko dosierrak (2009).

## 6. Euskal aisialdiaren politika

Gertatzen da erakunde publikoek maiz zuzenean laguntzen dituztela gazteen aisialdian sartzen diren jarduera asko ; herrietako bestak, kirol lehiaketak, festibal handiak. Bi erakunde dira hizkuntza edo kultura politika bat daramatenak aisialdiak euskalduntzeko: zuzenean Euskararen Erakunde Publikoa, zeharka Euskal Kultur Erakundea.

### 6.1. Euskararen Erakunde Publikoaren xedeak

Erakundeak 2006an Hizkuntza politika projektua definitu zuen, helburutzat hartuz «hiztun osoak» formatzea, belaunaldi gazteei lehentasuna emanet. Hortarako 12 erronka nagusi definitu dira, beren norabide estrategikoekin eta lan ardatzekin. Bosgarren erronka aisialdiarena da: «Aisialdi uneetan euskararen erabilpena sustatz, hizkuntza eta gozamena uztartu».

Bi norabideak dira, alde batetik «lurralde osoan, familiei ematea euskarazko aisialdi eskaintza erakargarria eta kalitatezkoa hautatzeko aukera»

eta, bestalde, aisialdian diharduten profesionalei formazio bat ematea, «behar dituzten tresnak eta gaitasunak» eskura ditzaten.

2009an diagnostika ofizial bat bat egin zen hiru ministeritzetako ordezkariekin, ikusteko bost urtez zer egin zen beste bost urteko kontratua sinatzerakoan. Laburbilduz,

- bost erronka landu dira molde egituratuak: lehen haurtzaroa, irakaskuntza, argitalpena, euskara bizitza sozialean eta helduen euskalduntzea;
- bost erronka landu dira molde punktualean: hedabideak, hizkuntzaren kalitatea, toponimia, ikerkuntza eta motibapena;
- bi eremutan ez da mementoko politika egituraturik: familia bidezko transmisioa eta lan honetan aztertzen dugun aisialdia.

2010-2016 epeari begira, ibilbide orria finkatu da eta aisialdiaren erronkan lau langune zehaztu dira:

- «aisaldi harrera kolektiboaren egituretan euskararen eskaintza emendatzea eragileen eta ihardueren bitarbez;
- hezkuntza kulturala eta artistikoa;
- kirol hezkuntza;
- aisaldi zerbitzuen kontsumoa».

## 6.2. Euskal Kultur Erakundea eta publiko berriak

Euskarazko aisialdia ez ba berenaz Euskal Kultur Erakundearen helburuetan. Halere jarduera anitz daramatza, bereziki publiko berriei buruz, aisialdiari lotuak direnak. Adibidez 2009ko ekintzen bilduman:

- Hezkuntza artistikoa eta kulturala eskola munduan.
- Sorkuntza artistikoa profesionalekin eta amaturekin.
- Kultura egituren eta egitasmoen sustapena.
- Mugaz gaineko harremanak.
- Ikusgarrien hedapena: antzerkia, dantza, musika.

- Festibalak eta topaketak.
- Literatura eta argitalpena.
- Euskal kulturaren baliabide numerikoak.

Gainera egun oroz Euskal Kultur Erakundearen webguneak zerrendatzen ditu aktualitatean diren hogeい bat kultura gertakari, hots eguneroko kulturaren aktualitatea.

## 7. Lau gomendio besteak beste

Gure xedea da alorrez alor gomendioak egitea, azterketaz baliatuz. Behin behinean lau gomendio orokor egin ditzakegu, kontuan hartuz euskalgintza eta kulturgintzaren aktualitatea.

A. «*Gazteria, elkarrean eta kirola» eskuduntzan daukaten tokiko elkargoek beren gain har dezatela euskarari tokia ematea, aisaldi eremuetan, hizkuntza teknikarien bitartez.*

Hizkuntza politika bi gertakari nagusiz baliatu behar luke: alde batetik tokiko elkargoen erreformak eskuduntza orokorra emanen die herri elkar-goei eta besteak beste gazteria eta kultura mailan; bestalde Euskararen Erakunde Publikoak, partaidetzen hiriekin eta herri elkargoekin hizkuntza teknikarian sarea hedatzen du Ipar Euskal Herri osoan. Bi aldaketa nagusi hauek sinergian uztartuz euskarak aitzinamendu handia eginлезake, bereziki aisaldi eremuetan.

B. *Hizkuntza politika publikoak lagun ditzatela aisialdiak euskalduntzen dihardutenean eragileak eta molde berezian eragin handia duten egiturak: Uda Leku, euskal hedabideak, kirol elkarrean, festibalak.*

Aisialdiaren alorrean, etorkizunari buruz, Euskararen Erakunde Publikoaren lehen helburua da egitura eraginkorrak indartzeari. *Uda Leku, Karkaila eta Basaizea* bezalako elkarreak bai eta ere beste batzuk adibidez *gaztetxek*. Diru laguntzaz gain, «labelizazio dispositiboa» ere erabil daiteke. Labelizazioaren bidez, egiturak sailkatzen dira, irakaskuntzako ereduak bezala: euskarazko egiturak, egitura kolektiboki elebidunak, egitura per-

tsonalki elebidunak. Sailkapen hau egin da gurasoek jakinean hautu bat egin dezaten haurtzaindegien artean. Aholku Batzordean proposamena egin zen jokamolde berdina aplikatzeko beste egitura batzuk ere kalifikatzeko erabiltzen den euskara kontuan hartuz.

C. *Aisialdia euskalduntzeko, laguntha eraginkorra hartze dute gazteengan arrakasta handia duten baliabideek eta bereziki zinemak eta joko elektronikoek.*

Erakundeen egitarauan sartu behar dira eta indartu orain arte guti landu diren bi eremu: zinema eta joko elektronikoak. Harrigarriko arrakasta dute haur eta gaztetxoen artean. Baino eskaintza ahula da euskaraz. Beraz filma eta joko argitalpena bultzatu behar da, sorkuntza edo bederen itzulprena lagunduz.

D. *Aisialdiaren eremuan nabari da euskalgintza eta kulturgintza uztartzen direla eta Euskararen Erakunde Publikoa eta Euskal Kultur Erakundearen arteko lankidetza beharrezkoa dela.*

1990az gerotzik Euskal Kultur Erakundeak «dena» egiten zuen. 2005ean Euskararen Erakunde Publikoa sortu zelarik kulturgintza eta euskalgintza bereizi ziren eta, oro har, baliabide publikoak hirukoiztu zirelarik. Beraz euskara irabazole atera zen, baina bi erakundeen arteko lankidetza ez da nabari, jarduera askotan kultura eta hizkuntza uztartuak baitira. Argitalpean elkarlan bat egiten da. Beste alorretan ere baliabideen metaketak era-ginkortasuna bizkor lezake.

## Oinarrizko bibliografia

BAXOK, Erramun, *Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian*, 2006ko inuesta soziolinguistikoa, IV. Inuesta Soziolinguistikoa.

BAXOK, E. ETA BESTE, 2006, *Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.

BERRIO-OTXOA, Kontxes, HERNÁNDEZ, Jone Miren, MARTÍNEZ, Zesar, 2003, *Gaztetxoak eta Aisialdia: Etorkizuna aurreikusten (2001-2002)*, Soziologiazko Euskal Koadernoak, 13, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.

- DUMAZELIER, J., 1962, *Vers une civilisation des loisirs?* Paris: Seuil.
- EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA, 2001, *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara Iparraldeko egoera*. Euskal Kultur Erakundea.
- \_\_\_\_\_, 2006, *Euskal Kultura 2007-2013 Elgarrekin bilaka – Culture basque 2007-2013 Devenir ensemble*. Euskal Kultur Erakundea, [www.eke.org](http://www.eke.org).
- \_\_\_\_\_, 2007-2008-2009-2010, *Ekintzen bilduma – Bilan d'activités*. Euskal Kultur Erakundea, [www.eke.org](http://www.eke.org).
- EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA, 2006, *Hizkuntza politika proiektua «Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun»*, elebiduna, [www.mintzaira.fr](http://www.mintzaira.fr).
- \_\_\_\_\_, 2007-2008, *Ipar Euskal Herriko euskalgintzako eragileei zuzendua den proiektu deialdiaren ebazpena*.
- \_\_\_\_\_, 2009-2010, *Euskararen alorrean dihardutenean Ipar Euskal Herriko eragileei zuzendu hizkuntza jarduera proiektu deialdiaren ebazpena*.
- \_\_\_\_\_, 2009, *État des lieux provisoire de l'action menée par l'Office Public de la Langue Basque*, [www.mintzaira.fr](http://www.mintzaira.fr).
- \_\_\_\_\_, 2009, *Cadre opérationnel provisoire 2010-2016 pour la politique publique linguistique*, [www.mintzaira.fr](http://www.mintzaira.fr).
- \_\_\_\_\_, 2010, urria, *2010-2016 urteetako hizkuntza politikaren Jokabide Esparrua «Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun»*.
- EUSKO JAURLARITZA, 2008, IV. *Inkesta Soziolinguistikoa 2006*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- EUSKO JAURLARITZA, KULTURAREN EUSKAL KONTSEILUA, EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA, 2008, *Kultura Ohiturak Praktikak eta Kontsumoa Euskal Herria 2007-2008*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- \_\_\_\_\_, 2008, *Kultura Ohiturak Praktikak eta Kontsumoa Ipar Euskal Herria 2007-2008*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- GAINDEGIA, 2009, abendua/décembre, *Ipar Euskal Herriko argazki sozio-demografikoa / Portait démographique et social du Pays Basque Nord*, [www.gaindegia.org/files/IparEuskalHerrikoArgazkia.pdf](http://www.gaindegia.org/files/IparEuskalHerrikoArgazkia.pdf)
- HERNÁNDEZ, J. M., 2005, *Jolasgaraia. Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak*, Soziologiazko Euskal Koadernoak, 16, Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.

\_\_\_\_\_, 2010, « *Baina gu ere gazteak izan ginen! Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur* » hitzaldia, « *Gazteak, aisialdia eta euskara* », XV. Jagon Jardunaldiak, 2010/11/19. Bilbo: Euskaltzaindia.

IPSOS MEDIA, 2007, *Komunikabideen erabilpenaren azterketa: Telebista eta irratia-Enquête de fréquentation des médias: Télévision et radio*, 2007. Euskararen Erakunde Publikoa, [www.mintzaira.fr](http://www.mintzaira.fr).

MARTÍNEZ GARCÍA, Z., HERNÁNDEZ GARCÍA, J. M., BERRIO-OTXOA DE ANGIOZAR, K., 2000, Aisialdiaren definizioa eta bilakaera, *Haur eta nerabeen aisialdi antolatua Gipuzkoan*. Gipuzkoako Foru Aldundia, [http://www.gipuzkoa.net/infojuven/guiaocioorg/eus/PDFeus/1.\\_ATALA.pdf](http://www.gipuzkoa.net/infojuven/guiaocioorg/eus/PDFeus/1._ATALA.pdf).

MARTÍNEZ DE LUNA, I. eta BERRI-OTXOA, K. [zuzend.], 2000, *Etorkizuna aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*. Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Euskal Herriko Unibertsitatea, Euskal Kultur Erakundea.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, URTXINTXA, TOPAGUNEA, 2009, *Gazteen hizkuntza erabileren eragiten duten faktoreen azterketa*, Soziolinguistika Klusterra, <http://www.soziolinguistica.org/gazteak>.



# **«Zer egin dezaket nire udalean nerabeek aisian eta lagunartean euskara gehiago erabiltzeko»**

ARRUTI, Iñaki

Lasarte-Oria Udaleko Euskara Zerbitzuko arduraduna

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Zein jarduera-esparruk osatzen dute nerabeen errealitatea? Eta zein da bakoitzaren garrantzia erlatiboa? Eta erantzun bera ote dute bi galdera horiek Bilboko eta Garesko nerabeen kasuan? Eta gauza bera izango ote dira Bilboko nerabe guztien eta Gareseko nerabe guztien kasuan? Eta...?

Eta udal batean kokatzeko ariketa egiten baldin badugu, zeintzuk dira gizarte-jarduera horietatik udalerriari hezurmamitzen direnak? Eta udalerriari hezurmamitu arren, udalak eragingarri, eragiteko modukoak alegia, izan daitezkeenak?

Bete-beteko erantzunik duenik ez dut ezagutzen eta nik ez dut behintzat. Hala ere, lane-rako baliagarriak izan zaizkigun, interpretazio-tresna batzuetara iritsi izan gara.

Udaltop-en II. edizioan ere ([www.udaltop.com](http://www.udaltop.com)) landu, landu zen gaia. Galdera bera, baina, horrelakoetan gertatu ohi den tankerara, erantzun borobil eta erabatekorik ez zen osatu. Hala ere, erantzun batzuk topatu ziren landutako ponentziatan eta bertaratutakoek lan-taldeetan egindako lanean.

**Hitz-gakoak:** nerabe, jarduera-mota, eskola, aisialdia, lagun artea, udaltop.

¿Qué tipo de actividades ocupa la realidad de los adolescentes? y ¿cuál es la importancia relativa de cada una? ¿La respuesta sería la misma entre adolescentes de Gares y de Bilbao? ¿Sería la misma entre todos los adolescentes de Gares y de Bilbao?

Y si nos centramos en un pueblo, ¿cuál de estas actividades se desarolla verdaderamente? Y aunque se desarrollen, ¿cuáles de estas obtienen resultados satisfactorios?

No conozco a nadie que tenga las respuestas a estas cuestiones, yo no desde luego. Aun así, hemos obtenido unas herramientas de interpretación que nos han sido útiles en el trabajo a desarrollar.

La cuestión se abordó en la segunda edición de Udaltop ([www.udaltop.com](http://www.udaltop.com)). Se planteó la misma cuestión y, como es habitual en estos casos, no se obtuvo una respuesta concisa y global. Aun así, en las ponencias presentadas y el trabajo hecho en grupo, algunas respuestas sí que se obtuvieron.

**Palabras clave:** adolescente, tipo de actividades, escuela, ocio, círculo de amigos, udaltop.

Quelles sont les activités des adolescents? et quelle est l’importance de chacune d’elles? La réponse serait-elle la même pour les adolescents de Puente la Reina et pour ceux de Bilbao? Serait-elle la même pour tous les adolescents de Puente la Reina et de Bilbao?

Et si nous choisissons un village, quelles sont les activités qui sont véritablement pratiquées? Et même si elles sont pratiquées quelles sont celles qui obtiennent des résultats satisfaisants?

Je ne connais personne qui puisse répondre à ces questions, moi non en tout cas. Nous avons pourtant obtenu des outils d’interprétation qui nous ont été utiles dans notre travail.

Cette question a été abordée lors de la seconde édition d’Udaltop ([www.udaltop.com](http://www.udaltop.com)). On a posé cette question et comme toujours dans ce cas on n’a pu obtenir une réponse concise et globale. Pourtant dans les rapports présentés et dans le travail réalisé en groupe quelques réponses ont été données.

**Mots-clés :** adolescent, type d’activités, loisirs, cercle d’ami, udaltop.

What spheres of activity make up the reality of adolescents? And what is the relative importance of each one? And could it be that these two questions have the same answer with respect to the adolescents in Bilbao and those in Gares (Puente la Reina, Navarre)? And will the answers be the same for all the adolescents of Bilbao and all the adolescents of Gares? And...?

And if we make an effort to put ourselves in one town council, which of these social activities are the ones that are carried out in the municipality? And despite taking place in the municipality, which ones could the town council exert an influence on?

I do not know anyone who has a full answer, I myself at least do not have one. Nevertheless, we have obtained some tools for interpretation purposes and they have turned out to be useful in our work.

This was the subject that was worked on in the second edition of the Udaltop ([www.udaltop.com](http://www.udaltop.com)). The same question was raised, but as usually happens in such cases, it did not receive a comprehensive reply. Nevertheless, some answers were found in the papers worked on and in the tasks done in the working groups by the people who attended.

**Keywords:** adolescent, sphere of activity, school, leisure time, group of friends, udaltop.

## 1. Sarrera

2010eko apirilaren 21ean eta 22an «Zer egin dezaket nire udalean (nire inguruan) nerabeek aisia eta lagunartean euskara gehiago erabiltzeko?» goiburua zuen gaia landu zen Udaltop-en II. edizioan (Udaletako euskara zerbitzuetako topaketetan).

Landu, landu zen gaia, galdera bera, baina, horrelakoetan gertatu ohi den tankerara, erantzun borobil eta erabatekorik ez zen osatu. Hala ere, erantzun batzuk topatu ziren landutako ponentziatan eta bertaratutakoek lantalleetan egindako lanean.

Ez da erraza topaketa batzuen kronika beste jardunaldi batzuetara eramatea. Erraza ez izateaz gain, aspergarria ere izan daiteke (besteak beste informazio zuzenagoa eta hobea jaso ahal izan duelako entzuleak, bai bertan izan delako, bai informazioa modu osatuagoan jasotzeko web-orria bisita dezakeelako ere) eta hori behintzat ekidin nahiko luke dokumentu honek.

Jardunaldi hauetarako, ordea, Udaltopen gai honen ingurumarian esandakoena berri ematea eskatzeaz gain, udal batetik gaia lantzeko esku-hartze eskema bat izan daitekeena proposatzeko ere eskatu zaidanez, azken hontan zentratu dut txosten hau eta Udaltopeko II. edizio horretan landutakoaren erreferentzi batzuk tartekatu besterik ez ditut egingo.

## 2. Nerabeen errealtitatea

Tesi bat (batzuk) egiteko gaia izan daiteke hori berori. Are gehiago ikuspegi diakroniko batetik begiratuta, oso urte gutxiko tartean, kontzeptua bera nola aldatzen ari den ikusita.

Pretentsio horietatik urrun, hemen jasotakoek intuizioak, eskarmentuak eta inguruan entzun eta irakurritakoak oinarri hartuta, egunerokotasunean udal bateko euskara-teknikari baten lana izan daitekeen lur-sail horretan aritzeko lan-eskema bat eskuratzea beste helbururik ez dute.

Urte asko dira *Eskola hiztun bila* liburuan bildutako lanetik ikasi genuela eskola-eremuaren ahalmenez eta mugez. Lan horrek haurren (eta nera-

been) errealtatean eskolak zer-nolako zatia osatzen duen zedarritzen lagundu izan gaitu.

EUSTAT-ek berak ere, hainbatetan egin izan ohi dituen denboraren era-bilera sozialaren inguruko azterketek (egunean zenbat denbora eta zer egiten pasatzen dugun zehazten dute azterketa horiek, besteak beste: lanean eta prestakuntzan, fisiologi beharretan, etxeko beharretan, aisan, eta abar) gutako bakoitzaren, edo adin-taldekako multzoak bereizita, errealtitatea zein zeregin/esparru/funtzioz (edo egokiena iruditzen zaizuen terminoa aukeratuz) osatzen den definitzen lagundu izan ohi gaitu.

Apaltasun guztiarekin esan beharrekoa badut ere, neroni ere, beste hainbat pertsona eta erakunderen tankerara, saiatu izan naiz pertsonon errealtitatea osatzen duten jarduera-esparruak zeintzuk izan ote daitezkeen eta horiek adin-talde bakoitzean eduki dezaketen pisu erlatiboa grafikoki zirriborratzen.

Nire ahalegin horrek behintzat inoiz ez du helburu (eta metodologia) zientifikorik izan. Zirriborroak, ordea, izan du praktikotasunik eta hari hori erabili izan da hainbatetan adin-multzo bakoitza zein jarduera-esparruk osatzen duten eta bakoitzaren pisuaren/indarraren hausnarketa bideratzen laguntzeko.

Iturri horietatik edanez iritsi izan gara gure eguneroko errealtitatea ondoren zehazten diren jarduera-esparru hauetan disekzionatzera: familia, irakaskuntza, lagunartea, lan-mundua, komunikabideak, gizarte-zerbitzuak, administrazioa eta aisialdia.

Egin dira beste sailkapen batzuk eta haiak ere (egingo diren beste batzuk bezala) ez dira perfektuak izango, baina baliagarriak izan daitezke, errealtitatea interpretatzeko laguntzen gaituzten heinean.

Zein jarduera-esparruk osatzen dute, orduan, nerabeen errealtitatea? Eta zein da bakoitzaren garrantzia erlatiboa? Eta erantzun bera ote dute bi galdera horiek Bilboko eta Garesko nerabeen kasuan? Eta gauza bera izango ote dira Bilboko nerabe guztien eta Garesko nerabe guztien kasuan? Eta...?

Eta udal batean kokatzeko ariketa egiten baldin badugu, zeintzuk dira gizarte-jarduera horietatik udalerrian hezurmamitzen direnak? Eta udale-

rrian hezurmamitu arren, udalak eragingarri, eragiteko modukoak alegia, izan daitezkeenak?

Uste dut galdera guztien kasuan bete-beteko erantzunik ez dagoela. Nik ez dut behintzat, eta horren ondorioz, nabardura asko galtzen duten, baina lanerako baliagariak izan zaizkigun, interpretazio-tresna batzuetara iritsi izan gara.

Galdera gehiago eta sakonagoak ere egin daitezke ordea. Alegia, nerabeen errealityea osatzen duten jarduera-esparru horiek (ikuspegia soziolinistikoa) direnak direla ere, zeintzuk dira nerabe baten hizkuntza-garapena (ikuspegia psikolinguistikoa) gehien baldintzatzen/osatzen dutenak?

Beste era batera galdetuz, haur baten (gehienetan) jarduera-esparru nagusiak, adibidez, familia, eskola, eskola-orduz kanpoko jarduerak eta telebista baldin badira, berdin eragiten al du zati bakoitzak haurren hizkuntza-garapenean?

Nik ezetz esango nuke. Eta ausartuko nintzateke baieztagoera, denen artean familiak duela hizkuntza-garapen horren esplikazioaren parterik handiena, seguruenik bai denbora kantitatearen distribuzioaren ikuspuntutik, bai eraginaren kualitatibotasunaren ikuspegitik ere.

Eta nerabe baten kasuan?

Lagunartea, eskola eta aisialdia bereiziko nituzke nik, garrantzia ere hurrenkera horretan emanez. Irakurlea, ordea, dagoeneko bere buruari galdezka ariko da, ea familiak ez ote duen eraginik nerabeen kasuan, edota, haurren kasuan komunikabideak aipatu baditugu, nerabeetan hori bera denboran eta komunikabide-motetan (Internet...) hainbat aldiz biderkatuta ez ote genukeen jaso behar.

Gauza gutxi izan ohi dira zuriak edo beltzak eta hemen ere antzera. Denak eragiten du denarengan (edo ia denak behintzat). Hala ere, udal batean kokatuta, familia-esparra haurren giza multzoan langai (eta lehentasun) jotzearen aldekoa naizen moduan, nerabeen adin-taldean uste dut ez duela lehentasunik. Uste dut urak pasata daudela. Eta ez momentu horretan familiako hizkuntza-errealityearak nerabearen hizkuntza-errealityean eraginik ez duelako, errealitye horiek mugitzeko indarra galdu duelako baizik.

Komunikabideak, berriz (bai haurren eta bai nerabeen kasuan ere), iruditzen zait gaur egun oso neurri txikian izan daitezkeela udalerriko eremuan eragingarri, eremu horretatik gaindi dauden egituretatik sortzen eta hedatzen direlako batik bat. Hala ere, adibiderik bada (sare sozialen erabileraz batik bat) eta Udaltopen aurkeztutako ponentzien artean ere aipatuko dugu aurrerago esparru hori helmuga izan duen praktika onen bat edo beste.

Arrazoibide horrek, ezinbestean jauziak emanez aurreratzen ari naizen arren, txosten honen galderaren erantzunetara hurbilpen bat egin nahian, narama esatera udal bateko euskara-zerbitzutik nerabeen hizkuntza-errerealitatean eragiteko hiru jarduera-esparru nagusiak lagunartea, irakaskuntza eta aisialdia izan daitezkeela.

### 3. Udal batetik aritzeko lan-eskema bat

Horiek horrela balira, edo baldin badira, ausartuko naiz (atrebentzia gehitxo ez baldin bada) esparru horietako bakoitzean udalak gara ditzakeen lan-ildo nagusiak zedarritzen.

Edozein kasutan, bistan denez, hemen jasotakoak ere modulatu beharrekoak dira bakoitzaren egoerara. Esaten ari naizen gauza asko (eta segidan ere horrela egingo dut) Erkidego Autonomoko batez besteko egoera batzuk eta estandar batzuk oinarri hartuta daude esanak (egoera legalari edo irakaskuntzako euskarazko lerroen hedadura dagokionez, adibidez).

Batez besteko egoera horretatik urrunten diren kasuei (adibidez, herria oso euskalduna delako kasu edo euskara ofiziala ez den lurralte-eremu batetan kokatutako udalerria delako beste kasu batzuetan), lan-eskema hau txikiagia edo handiegia geratuko zaie, seguruenik.

#### 3.1. Eskola

Estandar horietatik abiatuz (herriko ikastetxeetan A eredu gutxiengo bihurtu den eta gero eta pisu gutxiago duen argazki horretatik alegia), begibistakoa da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan euskarazko ereduetan ikas-

ten ari diren nerabeen euskara-gaitasuna orokortzen ari dela. Begi-bistakoa ere bada (eta begi-bistakoa gain, zenbait ikerketek frogatutakoa ere bai: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza-sailak egindako EIFE txostenak, «B2 Euskara mailaren ebaluazioa. 4. DBH»...) euskara-gaitasun horiek anitzak direla (eta ez-nahikoak hainbatetan). Hori horrela izanda ere, ez da ez txosten honen, ez jardunaldien helburua eskola-sistemak nerabeen hizkuntza-gaitasunean egin duena, egin ez duena, egin dezakeena edo ezin egin dezakeena aztertzea.

Testuinguru horretan, uste dut Udalek esparru horri lotuta egin dezaketen hizkuntza-politikaren eskemak bi oinarri izan ditzakeela; eskolari, egiten ari den lana hobetzeko, lagunza ematea bata, eta eskolaren (eta nerabearen) gertuko ingurunea ahalik eta euskaldunena izan dadin neurriak hartzea bestea.

Oinarri horien gainean, beraz, lan-ildo nagusiak ondorengo hauek izan daitezke:

- 1. Udaleko sailek eskaintzen dituzten irakaskuntzako zerbitzuak euskaraz eskaintza.**

«Etxetik hasi behar delako...» izenburua lehenago ere hainbat kanpainatan erabili izan dugu eta, normalean, ez da aholkulari txarra izaten.

Esparru honetan ere, eta aipatutako estandar horien ingurumarian, udalak egin beharreko lehendabiziko gauza hori bera izan daiteke. Alegia, Udalak berak bere eskumeneko dituen irakaskuntza-zerbitzu horiek (behintzat aipatzen ari garen adin-tarteetatik behera) euskaraz eskaintza.

Zeintzuk diren horiek? Herri guztietan ez dira berdinak, baina haur-eskolak, tailer okupazionalak eta antzeko zerbitzuak izan daitezke.

- 2. Udaleko sailek ikastetxeei eskola-orduetan egiteko eskaintzen dizkieten programak euskaraz eskaintza**

Irakaskuntzako zerbitzuak izan gabe ere, eskola-orduetan gauzatzeko hainbat zerbitzu eman edo lagundu ohi dituzte udalek.

Igerian ikastekoak kasu (hainbat tokitan adin zehatz batzuetako herriko haur guztiak hainbat ikasturtean egin ohi dituzte ikastaro horiek kirolegietan), ingurumenari lotutako heziketa (eskola-orduetan gauzatu ohi dena), sexu-heziketarekin lotutakoa, bide-segurtasunearako heziketarekin lotutakoa...

Ariketa lagungarri bat izan daiteke udalaren aurrekontua departamentuz departamentu hartu (edota zerbitzuburuekin hitz egin) eta zerbitzu horiek zerrendatzea.

**3. Eskolekin Hizkuntza Normalizazio Planak hitzartzea edo badituztenen kasuan planak aberasteko egitasmoak hitzartzea.**

Lan-ildo honek, ikastetxe gehienek ikasleen (kasu honetan nerabeen) hizkuntza-ezaugarriak hobetzeko egin ohi dituzten ahaleginak laguntzea izango luke helburu.

Eskolak egiten ari diren ahalegin horiek, kasu gehienetan, Ulibarri programak sustatutako Hizkuntza Normalizaziorako Planak eginez zehazten dira ikastetxeetan. Proposatzen den hitzarmen horien bidez, plan horiek indartu ahal izango lirateke, ikastetxe bakoitzak eskola-orduetan nerabeekin egitea onuragarri jotzen dituen programak lagunduz.

Adibidez, zer? Adibidez, hainbat tokitan udaletatik lagundi ohi dira gazte-hizkera lantzeko hitzaldi-ikastaroak. Edo hizkuntzaren gaineko jarrerak lantzeko «motibazio-saioak», edo «ahozkotasuna eta ber-tsolaritza» moduko programa ezagunak, edo eskola-orduetan lantzeko komunikabideren bat edota nerabeen aldizkarietako harpidezak bultzatzeko laguntza edo erabilera-neurketak egiteko laguntzak, edo... ikastetxeak eta udalak nerabe horien hizkuntza-garapenerako eskola-orduetan langai izatea egokitzat jo dezaketen beste edozein programa.

Aipatutako adibide horietako baten berri zehatza izan genuen Udaltopen, hainbat urtez Gaztezulo aldizkariko zuzendari izandako Alberto Irazuk aurkeztutako «Nerabe eta gazteen kultur kontsumoa: GAZTEZULOren esperientzia» ponentzian. Seguruuenik komunikabideen

esparruan kokatu beharko genuke egitasmo hau, baina honantz ekarri dut udalerri askotan eskola erabili ohi delako nerabeengana heltzeko zubi modura (aldizkariaren zenbaki bat bertan aurkeztu, gero etxera nerabe bakoitzari hainbat zenbaki bidali eta azkenean harpide-tzak egitea eskaini...).

Ikastetxeek beren ardura nagusitzat dute ikasleen (nerabeen) hizkuntza-gaitasuna osatzea. Zeregin horretaz gain, ordea, uste dut interesgarria dela jakitea ea eskolak hizkuntza-jarrerek eta hizkuntza-erabilerak lantzea helburu ote duen (horien lanketak hizkuntza-gaitasunean ere ondorio esanguratsuak izan ditzakeelakoan).

Hala ez bada, ikuspegi horren komenigarritasunaz hitz egitea iruditzen zait dela lehendabiziko zeregina. Horrela bada, berriz, aurreko paragrafoetan aipatutako programen antzekoek hezurmami ditzakete ikuspegi edo helburu horiek.

Ildo horretan sakonduz, ikuspuntu hau (aurreko pasarte batean aipatutako programa horiek hitzartzea alegia) hobetzea ere plantea daiteke. Nire ustean, hobekuntza hori Udaltopen «HEZHIZ: HIZkuntza HEZiketarako dinamizazioak» izenburuean Urtxintxako Jaime Altunak azaldutakoaren haritik tiraka heldu (iritsi eta ondu) daiteke.

HezHiz izeneko programa Gipuzkoako Urtxintxa Eskolak 2008. urtean abian jarri zuen programa berri bat da. Urte horretan, Debako Udalaren eskariz erabilera sustatzeko hizkuntzarekiko jarreren lanreta egiten hasi zena.

Programa horren bidez usteetan eta gaitasunetan eragiten saiatzen dira euskararen erabilera handitzeko. Talde dinamikan eta eragile guztienei parte hartzean oinarritutako metodologiaren bidez hainbat gai jorratzen dituzte 12 eta 16 urteko gazteen artean: aurreiritzi linguistikoak, hizkuntza aniztasuna, euskararen aurreiritziak, euskara eta euskal kultura, erabilera zailtasunak eta aukerak, erabilera handitzeko tresnak...

Ponentzia horretan, HezHiz programaren zergatiak, aurrekariak, deskribapena eta orain arteko balorazioa azaltzearekin batera, hainbat

hausnarketa labur luzatuko ziren gazteen artean erabilera handitzeko egiten den lan aplikatuari buruz.

Esan dudan bezala, uste dut programa honek, Bigarren Hezkuntzan ikastetxe asko egiten ari diren lanaren hobekuntza nondik bidera dai-tekeen zirriborrazko pista interesgarriak ematen dizkigula eta urrats bat aurrera egitea ahalbidera dezakeela. Ideia horietan oinarrituta, hona hemen Lasarte-Orian gai honen gainean prestatzen ari garen zirriborroan jarriak ditugun galderak:

1. Ikastetxeak hizkuntza lantzeko duen tresneria ez al litzateke asko aberastuko, hizkuntza-gaitasuna bera lantzeaz gain, hizkuntza-jarrerak eta hizkuntza-jokabideak landuko balira?
2. Lanketa hori egiteko, ez al litzateke egokiagoa programa puntuak modu puntualean landu ordez (orain arte bezala), DBH1etik Batxillergoko 2. mailara arte maiztasun zehatz batekin eta adin bakoitzerako egokienak diren eduki sekuentzializatu batzuk lan-duz bideratzea?
3. Posible al genitzke orain arte erabilitako programa horiek komunikazio-trebetasunak hobetzen lagunduko luketen tresna berriekin (asertibilitatea, lidergoa...) integratzea?
4. **Esparruko agenteak koordinatuta lan egitea.**

Esan beharrik ez dagoela ere irudi dakioke norbaiti, baina esanda gusturago geratuko naiz. Izan ere, aurretiaz aipatutako lan-ildo horiek beren zentzia (eta kasu batzuetan bideragarritasuna ere) hartzen dute, baldin eta hori gauzatzearen lehendabiziko protagonista den ikastetxeak berak hala ikusten badu, udalerriko gainontzeko ikastetxeek ere hala ikusi, hausnartu eta adostu badute udalarekin batera eta hori modu koordinatuan eta planifikatuan egiten bada.

Koordinazio hori modu desberdinetan egin daiteke, bistan da, eta denak izan daitezke baliagarriak, eragile diren erakundeek hala kontsideratzen baditzute.

### 3.2. Aisia

Esan dugu udalaren hizkuntza-politikaren eskemak izan ditzakeen bi oinarrietako bat (eskolari lagunza emateaz gain alegia) eskolaren (eta nerabearen) gertuko ingurunea ahalik eta euskaldunena izan dadin neurriak hartzea dela.

Gertuko ingurune hori hainbat esparruk osatzen dute eta horietako bat, aisia da. Badakit aisia hitzak berak ere adiera eta definizio asko izan ditzakeela, baina saihestu egingo ditut apropos (txosten honetan langai izan nahi duenarentzat ezinbestekoa ez delakoan).

Arrazoi taxuzkoak daudela iruditzen zait udalak adin-multzo honi zuzendutako (eta haurrei ere bai) hizkuntza-politikaren lehentasuna esparru honiek izan beharko lukeela baiezatzeko.

Ez dira berriak arrazoibide hauek, baina gogorazteak ere kalterik ez due-lakoan, honatx lau:

- Nerabearen errealtitatearen zati garrantzitsu bat (denbora kantitatez) osatzen du aisiak.
- Aisia gehienetan gustuko jarduera da eta jarduera hori gauzatzerakoan erabiltzen den hizkuntzari zeregin/funtzio hori egiteko balioa (atsegina) eransten dio hiztunak.
- Nerabe (eta haur) askoren hizkuntza-garapena (nagusiki eskolan daramaten prozesua) osatzeko eremu natural eta eskuragarriena izan daiteke.
- Aisia, zati handi batean, udalerrian bertan antolatzen da eta, zuzenean edo zeharka, udalaren eskumena izan ohi da, zati handi batean behintzat.

Gaiak hausnarketa teoriko gehiagorako aukera ematen badu ere, ez da txosten hau horretarako toki egokiena. Hala ere, gaian arakatu nahi duenarentzat bistaratuz behintzat egin nahiko nituzke hari-mutur batzuk:

Adibidez, Mikel Zalbide jaunak diglosia funtzionala onuragarri litzaigukeela dioenean eta arnaspuneak izatea (kasu honetan nerabeen aisiaaldi antolatu hori horrela ulertuta) estrategikoa dela dioenean (ikus «Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE saioetan» [www.udaltop.com-en](http://www.udaltop.com-en)), nerabearen aisiaaldi horretaz (ere) hitz egiten ariko ginatekeela iruditzen zait niri.

Edo, Jon Sarasua jaunak euskaldunok euskara hegemonikoa izango den guneak behar ditugula dioenean («Euskaltasunaren norabideaz, oldozpen batzuk» hitzaldiaren inguruan egindako elkarritzeta Argia aldizkariko 2.147 zenbakian), haur eta nerabeen aisiaaldiak ezaugarri horiek izan ditzakeen (hurrengo) eremua izan daiteke (eskolaren ondoren, hainbat egoeratan)?

Edo, eta azkenik, Albert Bastardas irakasleak hizkuntza-ekologiaz eta «sostenibilitat lingüística»z ari denean («Cap a una sostenibilidad lingüística» 2005), subsidiaritate printzipioa aplikatu beharraz eta hizkuntza-komunitatearen berezko hizkuntza denak bete ditzakeen funtzoak berak betetzea eta bete ezin dituenak beste hizkuntza batzuk betetzea adostu beharraz diharduela kontuan izanik, ez al litzateke oso logikoa (linguistikoki bederen), subsidiaritate printzipioa aplikatz, haur eta nerabeentzako antolatzen dugun esparru hori, hegemonikoki, euskaraz izatea?

Teoriak eta nabardurak gora-behera, uste dut adostu litekeen lehentasuneko praktika bat dela hori. Alegia, haur eta nerabeentzako antolatzen dugun aisia hori, D eredukoa, euskarazkoa alegia, izatea.

Agian, erdi adostua ere badugu jadanik, baina gauzatzetik, eta ongi gauzatzetik, urrun gaudela uste dut. Galdera zuzen bat eginez zehatz dezaket kezka hori, alegia, zein konkordantzia (linguistiko) dago nerabeen (eta areago haurren) ikastereduaren eta, adibidez, kirola egiterakoan duten hizkuntza praktikaren artean? Edo zuzenago esanda, zein hizkuntzatan egiten dute kirola D ereduan ikasten ari diren nerabeek?

Teorian uste dut ez dugula horri erantzun on bat ematea adosteko arazorik, baina praktikan uste dut lubaki handi bat dugula egia bihurtu bitartean. Arazoa ez dugu teorian, praktikan baizik.

Bestalde, beste hari mutur bati helduz, «antolatzen dugun aisia» idatzi dut aurreko pasarte batean eta horrek ere adiera desberdinak izan ditzake. Izan ere, udal bateko euskara zerbitzuan kokatzen bagara, segituan sortuko zaigu beste galdera hau: zer egitea komeni da, jadanik antolatuta dagoen aisia euskalduntzea edo berariaz berria euskaraz sortzea?

Gure lanean hain ohikoa den «egin edo eragin?».

Uste dut hemen ere bietatik egin izan ohi dugula eta aurrerantzean ere horrela izan beharko duela. Seguruenik, berariaz berria euskaraz sortu beharrik gabe, dagoena euskaraz eskaintza litzateke hizkuntza normaltasunaren seinalerik onena, baina «normalean», hori horrela ez delako (eta hori horrela izatera irits dadin) antolatu izan ditugu euskarazko aisia-programak (udaleku, ludoteka eta abar oso luze bat). Beraz, lekuan-lekuan neurtu beharrekoa izango da osagai bien konbinaziorik egokiena zein den.

Oinarri horien gainean, lan-ildo nagusiak ondorengo hauek izan daitezke:

**1. Udaleko sailek eskaintzen dituzten aisiako zerbitzuak eta programak euskaraz eskaintza.**

Eskolako eremurako esan dugunak berdin-berdin balio du esparru honetarako. Berdin-berdin kontzeptualki, askoz dimentsio handiagoan, seguruenik, zerbitzu-kopuruari dagokionean. Izan ere, bolumen oso handia hartu ohi dute udaleko sailek antolatu ohi dituzten aisiako zerbitzuek.

Oso egitura eta zerbitzu desberdinak izan ditzakete udalek alor honetan, baina oker handirik gabe aipa genitzake batzuk bederen. Kirol-degiak kasu, udalaren eskumeneko diren aisia ekoizle garrantzitsuak dira udalerriko bizitzan. Gauza bera esan dezakegu kultur etxeez (musaika-eskola, musika-programazio, ikastaro eta abarrez).

Nabardurak nabardura, uste dut lehentasun erabatekoa duela lan-ildo honek.

Eta nola eragin? Hori zehazteak ere luze jo dezake, baina uste dut zerbitzu horiek zuzenean ematen dituzten pertsonekin lan egin behar dela, elebidunak izan daitezen ziurtatzeko lehendabizi eta euskaraz aktiboak izan daitezen laguntzeko bigarrenik. Horrek ere soka luzea du, baina lehendabiziko puntuari, nagusiki, kontratazioen gaia landuz heldu behar zaio (pertsonen kontratazio zuzena denean era batera eta zerbitzu horiek enpresen bidez ematen direnean kontratazio horietako baldintza-pleguetan hizkuntza betebeharrik jasoz) eta bigarrenari (pertsona horiek euskaraz aktiboak izan daitezen), berriz, irizpi-deak emanet eta pedagogia eginez. Alegia, beraiekin egon, nerabeen

hizkuntza-errealityea, gaitasunak, ohiturak eta abarrak azalduz eta beraien hizkuntza-jokabideak lantzeko laguntzak emanet.

Lan-ildo honetan are zentralagoa, eta nerabeengan zentratuagoa, izan ohi da hainbat udaletako gazteria zerbitzuetatik egin ohi den lana. Udal bakotza mundu bat izan daiteke, baina zerbitzu horietatik berariaz nerabeei eskaintzen zaizkien hainbat zerbitzu ekoitzi ohi dira (kanpalekuak, jaiak, gazte-lekuak...).

Zentzu honetan, Udal batetik nola lan egin daitekeen azaldu zuten Udaltopen, hurrenez hurren, Bermeoko Udaleko euskara eta gazteria teknikariak diren Maite Alvarezek eta Iñaki Lopezek. «Gazteria eta Euskara zerbitzuen elkarlana nerabeen aisiaidian eta hizkuntza ohitura-retain eragiteko. Bermeoko esperientzia» izeneko ponentzian.

## 2. **Herrian haur eta nerabeentzat antolatzen diren eskola-orduz kanpoko jarduerak euskaraz izan daitezen laguntzea.**

Udalak berak egiten, antolatzen, duen aisiaz gain, ordea, udalerrian beste hainbat zerbitzu edo jarduera izan ohi dira. Antolaketa-modu horiek dezente aldatu ohi dira udalerri batetik bestera, baina, antolatzaileei dagokienean, esan genezake, udalaz gain, herriko ikastetxeak eta elkarteak izan ohi direla.

Ikastetxeen kasuan, gaur egun ikastetxe gehienak izan daitezke eremu hau ongi kudeatzeko beregainak. Hala ere, uste dut (ustea da) ez dagoela nahikoa koherentzia ikastetxeek ikastorduetan duten praktika lingüistikoaren eta eskola-orduz kanpo ikastetxeek beraiek (guraso-elkarreak...) nerabeentzat antolatzen dituzten jardueren hizkuntza-jardunaren artean. Eman daitezke, baina uste dut soberan dagoela atal honek duen lehentasunaren gaineko justifikazioak ematen aritzea.

Hemen ere, udal sailen atalean esan dudanaren antzera, uste dut zerbitzu horiek zuzenean ematen dituzten pertsonekin lan egin behar dela, elebidunak izan daitezen ziurtatzeko lehendabizi eta euskaraz aktiboak izan daitezen bideratzeko bigarrenik. Eta han bezala hemen ere, uste dut lehendabizikoari kontratazioen gaia landuz heldu behar zaiola, eta bigarrenari, berriz, irizpideak emanet eta pedagogia eginez.

Elkartea antolatzale diren aisiaren atalari dagokionez, berriz, lanke-ta konplexuagoa izan ohi da. Lehenik eta behin, udalaren beraren eskumenetatik urrutia egosten delako, eta bigarrenik, gehienetan baliabide gutxiago izan ohi delako.

Edozein kasutan, badira horretarako ere programa eta baliabideak eta udal baten begietatik, berriz, bi jardun-modu aurreikus daitezke: sus-tapen lana egin eta elkartea lagunduz bata, eta diru-laguntzak ema-terakoan baldintzak jarriz bestea.

### **3. Programa zehatzak antolatzea edo laguntza.**

Aurreko bi ataletan proposatutako gauza gehienak, seguruenik, «era-gin» lan-ildoaren barruan sartu beharko genituzke. Hala ere, esan dugu egin, egin izan ditugula (egin beharko ditugula) hainbat progra-ma nerabeei euskarazko aisia hori eskaintzeko.

Zentzu honetan sortu diren programa gehienak (ez haurren adin-mul-tzorako sortu izan direnak adina) euskara bera sustatzea helburu du-ten erakundeetatik sortu izan dira (udaletako euskara departamen-tuetatik eta euskara elkarteeetatik kasu gehienetan).

Adin-tarte honentzat, nerabeentzat, sortutako programa batzuen be-rrí eman zigun Udaltopen Kultur K2ako Aritza Escandonek «Euska-rarekiko motibazioan eragin: nerabeentzako kontsumo masiboko egitasmoak» ponentzian.

«Bilbo handian, nerabeek gozamenarekin lotuko dituzten esperientzia positiboak, nerabeak beraiek protagonista, sare-sozialak erabili, beraien erreferente hurbilak gerturatuta...» gisako ezaugarriak dituzte *Harrapa-zan/k* programaren tankerako programek. Gehiago ere badira, noski, baina ponentzia horrek testuinguruau jartzen ditu ahalegin horiek.

### **4. Esparruko agenteak koordinatuta lan egitea.**

Lan-ildo hauetan ere esparrua osatzen duten agenteak (udal sailak, ikastetxeak, elkartea...) modu desberdinatan koordina daitezke. Hala ere, ekintza soil eta solteetatik harantzago joan nahi duen pla-nak lan-ildo hau ezinbestean garatu beharra du.

### 3.3. Lagunartea

Hirugarren eragin-esparrua lagunartea izan daiteke. Hirugarrena aipatzeak, ordea, ez du esan nahi hizkuntza-eraginez ere hirugarrena denik.

Esparru informalek gutako bakoitzaren hizkuntza-garapenean (eta ondorioz hizkuntza normalizazioan) duten garrantziaz luze aritu gitezke, baina uste dut Pello Jauregik «Euskara eta gazteak Lasarte-Orian (II)» liburuan (2003, 109.or.) jasotako hausnarketaren zita honek laburbil dezaakeela ondoen:

«*Gure irudikoz, euskarazko erabilerak ez du aurrerapen nabarmenik ezagutuko, baldin eta gizarte multzo handiek, eskolaz gain, ez badute euskarazko esperientzia luze eta sakonik talde informalen batean, dela talde hori familia den, dela sare horizontaleko talderen bat den. Berezko talde informal horietan garatzen baitira benetan hizkuntzazko erraztasuna, atxikimendua eta ohitura.»*

Hausnarketa horren haritik parte hartu zuen Pello Jauregi irakasleak «Nola indartu euskararen erabilera familietaan» izenburua zuen Udaltopen I. edizioan «Berezko taldeak eta hizkuntza: bihotzaren arrazoia» izeneko ponentziarekin. Eskuragarri daude interesa duenarentzat bai ponentzia bera eta baita bideoa ere.

Nerabeak aztergai izan dituen Udaltopen II. edizioan, berriz, «Esku hartzeko hainbat ildo, hurbilketa sistemikotik begiratuta» ponentzia aurkeztu zuen. Hori ere eskuragarri dago eta bi edizioetan egindako ekarpenarekin bide berriak ireki ditu harreman-sare informal horiek eta batez ere hizkuntza-ohiturak nola funtzionatzen duten eta nola alda daitezkeen sakondu ahal izateko.

Are gehiago, seguruenik nerabeen lagunarteko hizkuntza-ohituretan eragin ahal izateko osatu den programa sendoenetako (eta bakarretako) bat Kuadrillategi izena daramana da (ikus Diego Egibabalek idatzitako «Koadriletan euskararen erabilera suspertzeko egitaskoaren emaitzak» 2004). Programa honen jatorriak berak ere, Pello Jauregi beraren doktore tesian du oinarri («Berezko taldeak euskalduntzeko ikas estrategia» EHU, 1994).

Esparru honetan eragitearen interesa bezain handia da eragiteak berak duen zaitasuna. Are gehiago, seguruenik, administrazio batetik abiatuta.

Edozein kasutan, badira zentzu horretan lanean ari diren elkartea eta eremu hauetan lan egiteko dituzten egitasmo eta metodologien berri eman ziguten, adibidez, *Ttakun Kultur Elkartekoek Udaltopen*. Hasteko eta behin, *Kuadrillategi* programa bera urte askoan gauzatzen ari da Lasarte-Orian, *Ttakun Kultur Elkarteararen* eskutik. Horretaz gain, badira hainbat urte programa bera ere Euskal Herri osoan elkartea honek kudeatzen duela.

Egitasmo horretaz gain, ordea, bai lagunarteetan, bai aisiako egitasmoeitan ere, euskara gehiago erabiltzeko erreminta berriak sortzen dihardu *Ttakun Kultur Elkartea*k. Ezagunena «Hezitzaleek asko egin dezakete» izango da seguruenik. Taldeen dinamizazioa nola egin, erronkak nola kudeatu, lidero naturalak eta gertuko erreferenteak nola erabili edo adimen emozionala esparru honetara nola ekar daitekeen izan litezke arakatzea bederen merezi duten adibide batzuk.

Jarrai genezake gaiarekin, baina hona arte «udal batetik aritzeko lan eskeema bat» izan daitekeena. Askoz zehaztasun eta batez ere garapen sakonagoa izan dezake gaiak, hala ere, uste dut esandakoak egiten lan gehiago eta garrantzitsuagoa dugula, esandakoak hobeto esaten, eta batez ere gehiago esaten aritzea, baino.

#### 4. Informazio gehiago Udaltop II-n

Hasieran aipatu dut zaila dela, ezinezkoa, ondo egin nahi izanez gero, topaketa batzuen berri luze-zabal ematea beste jardunaldi batzuetan. Horregatik, gaiaren inguruau gehiago sakondu nahi duena [www.udaltop.com](http://www.udaltop.com) webera gonbidatu nahi dut. Han irakurri (ponentziaren testu osoak daude) eta ikusi (ponentzia guztien bideo osoak daude) ahal izango ditu, hemen aipatu besterik egin ezin izan ditudanak.

Ondoren zerrendatzen ditut «Zer egin dezaket nire udalean (nire inguruau) nerabeek aisian eta lagunartean euskara gehiago erabiltzeko» izenburuean egindako Udaltop II-ko ponentziak:

- «Esku hartzeko hainbat ildo, hurbilketa sistemikotik begiratuta» Pello Jauregi (HUHEZI).

- «Euskararekiko motibazioan eragin: nerabeentzako kontsumo masiboko egitasmoak» Aritza Escandon (Kultur Ka2a).
- «HEZHIZ: HIZkuntza HEZiketarako dinamizazioak» Jaime Altuna (Urtxintxa).
- «Glisseguna: ipar euskal herriko gazteei zuzendua den surf/skate eguna» Ramuntxo Echeberri eta Estelle Goñi (Seaska).
- «Gizarte-Sareak + Euskara 2.0» Jon Aizpurua (HPS).
- Mahai-ingurua: «Sare sozialak, nerabeak eta euskara» elkarrizketa, Gorka Julio (Elurnet) eta Luistxo Fernandez (CodeSyntax) solasean. Moderatzailea: Gotzon Egia (Gipuzkoako Foru Aldundia).
- «Gazteria eta Euskara zerbitzuen elkarlana nerabeen aisialdian eta hizkuntza ohituretan eragiteko. Bermeoko esperientzia» Maite Alvarez eta Iñaki Lopez (Bermeoko Udala).
- «Nerabe eta gazteen kultur kontsumoa: GAZTEZULoren esperienzia» Alberto Irazu (Gaztezulo).
- «Maitatu euskaraz» Ttakun Kultur Elkartea.
- «Gazteen erabileraren korapiloa begi-bistan» ikerketa Asier Basurto (Soziolinguistica Klusterra).
- Talde-lana: Zer egin dezaket nire udalean (nire inguruan) nerabeek aisiañ eta lagunartean euskara gehiago erabiltzeko?

Ponentziez gain, web-orrian gaiaren inguruko erreferentzia edo dokumentu hauen biltegia ere topa daiteke:

- II. Udaltop Topaketak – Balorazio Balantzea, 2010-05-20.
- Sare sozial birtualak (Txatxilipurdi).
- Sare sozial birtualak: gazte txokoetako hezitzaleentzat gida (Txatxili-purdi).
- Sare sozial birtualak: ludoteketako hezitzaleentzat gida (Txatxilipurdi).

- Llengua i joventut I (1978-1999) (Kataluniako Generalitateko Centre de Documentació de la Secretaria de Política Lingüística).
- Llengua i joventut II (2000-2008) (Kataluniako Generalitateko Centre de Documentació de la Secretaria de Política Lingüística).
- Llengua i joventut. Obres seleccionades i comentades (Kataluniako Generalitateko Centre de Documentació de la Secretaria de Política Lingüística).
- Euskadiko gazteak 2008 (Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila)

## 5. Bibliografia

ARRUTI, Iñaki, 1992, I. *Jardunaldiak soziolinguistikaz*: «Udaleko hizkuntza planifikazioa prestatzeko metodologi proposamena». Bilbao Udal, Kultura eta turismo saila. Bilbo.

EGIZABAL, Diego, 2004, Koadriletan euskararen erabilera suspertzeko egitasmoaren emaitzak.

EUSKO JAURLARITZA. HEZKUNTA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA, 1991, *Eskola hiztun bila*. Gasteiz.

EUSKO JAURLARITZA. KULTURA SAILA, HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILORDETZA, 1999, *Euskara biziberritzeko plan nagusia*. Gasteiz/Vitoria.

EUSKO JAURLARITZA-NAFARROAKO GOBERNUA, 1995, *Euskararen jarraipena*.

IRAOA, Joxemari, 1994, *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian*. Lasarte-Oriako Uda. Lasarte-Oria.

JAUREGI, Pello, 1998, *Berezko taldeak euskalduntzeko ikas estrategia*. Euskal Herriko Unibertsitatea. EHU.

\_\_\_\_\_, 2003, *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian (II)*. Lasarte-Oriako Uda. Lasarte-Oriako Uda.

\_\_\_\_\_, 2009, «Berezko taldeak eta hizkuntza: bihotzaren arrazoia», [www.udaltop.com](http://www.udaltop.com).

TTAKUN KULTUR ELKARTEA, 2010, «Lasarte-Oriako gazteen komunikazio-trebe-tasunak garatzen» txosten argitaragabea.

\_\_\_\_\_, 2007, «Hezitaileek asko egin dezakete. Eskola orduz kampoko jardueretan nerabeen artean euskararen erabilera sustatzeko». Gipuzkoako Foru Aldundia.

UEUKO SOZIOLINGUISTIKA SAILA, 1991, *Hizkuntza normalkuntzarako ekinbideak udalerri-mailan. Planifikaziorako orientabideak*. Bilbo.

ZALBIDE, Mikel, 2009, «Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE saioetan», [www.udaltop.com](http://www.udaltop.com)



# Tolosa: gazteen ahozkotasunaren laborategi (I)

ZABALA ALBERDI, Josune eta AYERZA MUJIKI, Maitane  
Mintzola Fundazioa

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Tolosako udalak euskara eta bere erabileraren gainean egindako gogoetaren ondorio izan da Mintzola Fundazioak 2010ean abiatu berri duen ikerketa egitasmoa.

Mintzola Fundazioaren ipar nagusiak ahozkotasunaren ikerketa eta gizarteratzea diren neurrian, lau urteko ikerketa egitasmoa aurkeztu eta lanari ekin dio Tolosako ikastetxe guztietai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gazteen hizkuntza jarrera zein jokabideak, erabilera maiztasuna eta konpetentiak aztertu, haien gainean esku hartu eta ahozkotasuna ikastetxeetan eta gazteen artean lantzeko gako nagusiak bilatzeko.

Gazteek euskaraz eta ahoz gehiago zein egokiago mintzatzeko helburuz eraiki da laborategi dinamiko bihurtu nahi izan dugun ikerketa. Ikerketa-ekintzan oinarritzen da: ikerketa eta jarduna bateratzen ditu, protagonistak gogoetara, hausnarketara eta aldaketak egitera bideratzen ditu. Laborategia Tolosan lekutua bada ere, esperientzia honetako emaitzak eta esperientziak eurak baliagarri izango direla aurreikusten da gisa honetako helburuak dituen beste erakunde, herri edo ikastetxeetan aurrera eramateko.

Izan ere, ikerketa honen harira ateratako emaitzakin lortu nahi da ahozkotasuna ikastetxeetan (DBHn) lantzeko praktika onen proposamenak egitea, Tolosan ez ezik, hedapena izan dezan gainerako lurralteetan ere.

**Hitz-gakoak:** ahozkotasuna, gazteak, ikerketa aplikatua, esku hartea, Derrigorrezko Bi-garren Hezkuntza.

El proyecto de investigación que ha llevado a cabo la Fundación Mintzola en 2010 ha sido consecuencia de la reflexión que emprendió el ayuntamiento de Tolosa sobre el euskería y su uso.

Siendo los objetivos de Mintzola la investigación y a su vez socialización de la oralidad, ha emprendido un proyecto de cuatro años en todos los centros de enseñanza de Tolosa. Se han analizado la competencia, frecuencia, actitudes y el comportamiento lingüístico de los estudiantes de Enseñanza Secundaria Obligatoria, para de ese modo tratar de averiguar las claves desde donde abordar la oralidad en los centros de enseñanza y entre los jóvenes.

El objetivo de esta investigación es crear un laboratorio dinámico, desde el cual fomentar que los jóvenes hablen euskera más y mejor. Combinamos la investigación y la promoción, intentando que los protagonistas modelen su actitud. Aunque el laboratorio está en Tolosa, los resultados y experiencias de este proyecto nos parecen fácilmente exportables a cualquier ente que tenga objetivos parecidos. Es por ello, que con los resultados de esta investigación se quiere realizar una propuesta para que las escuelas desarrollen prácticas adecuadas en torno a la oralidad.

**Palabras clave:** oralidad, jóvenes, investigación aplicada, intervención, Enseñanza Secundaria Obligatoria.

Le projet de recherche mené par la Fondation Mintzola en 2010 a été le résultat de la réflexion menée par la mairie de Tolosa sur la langue basque et son usage.

Les objectifs de Mintzola étant la recherche et la socialisation de l'oralité, la Fondation a lancé un projet de quatre ans dans tous les établissements scolaires de Tolosa. Ont été analysés la compétence, la fréquence, les attitudes et le comportement linguistique des étudiants de l'Enseignement Secondaire Obligatoire, pour essayer ainsi de trouver les clés permettant d'aborder le sujet de l'oralité dans les établissements scolaires et parmi les jeunes.

L'objectif de cette recherche est de créer un laboratoire dynamique qui incitera les jeunes à parler le basque plus et mieux. Nous associons ainsi la recherche et la promotion pour essayer de faire en sorte que les protagonistes changent leur comportement. Bien que le laboratoire se trouve à Tolosa, il nous semble que les résultats et les expériences sont facilement exportables à tout organisme qui aurait des objectifs semblables. C'est pourquoi, grâce aux résultats de ces recherches, nous souhaitons élaborer une proposition pour que les écoles développent des pratiques adaptées dans le domaine de l'oralité.

**Mots-clés :** oralité, jeunes, recherche appliquée, intervention, Enseignement Secondaire Obligatoire.

The latest research project recently launched by the Mintzola Foundation in 2010 was the consequence of a reflection made on Basque and its use by Tolosa town council.

As the main aims of the Mintzola Foundation are research into orality and the publicising of it, it has presented a four-year research project and started working in all the schools in Tolosa. It sets out to study the language attitudes and behaviour, frequency of use and competences of young people in Statutory Secondary Education, in order to intervene in them and seek the main keys for working on orality in schools and among young people.

The research which we wanted to turn into a dynamic laboratory has been set up with the aim of encouraging young people to speak more Basque and more appropriately in Basque. It is based on action research: it brings together research and activity, it encourages the players to reflect and make changes. Even though the laboratory is located in Tolosa, the results of this experience and the experiences themselves are expected to be useful for other organisations, towns or schools having similar aims, so that they can implement them.

In fact, with the results emerging in the wake of this research, the aim is to make proposals on the best practices for working on orality in schools (in Statutory Secondary Education) not only in Tolosa, but also so that these practices can be applied to other areas as well.

**Keywords:** orality, young people, applied research, intervention, Statutory Secondary Education.

## 0. Sarrera

Tolosa ahozkotasunaren lantegi bihurtzeko egitasmoa da ondorengo lerroetan aurkezten dena. Euskaraz eta ahoz gehiago zein egokiago mintzatzeko helburuz eraikia. Egitasmo pilotua da gazteengan euskararekiko jokabideak, erabilera maiztasuna eta kalitatea hobetzea helburu duena. Ikerketa-ekintzan oinarritzen den proposamen berritzalea. Ikerketa eta jarduna bateratzen ditu, protagonistak gogoetara, hausnarketara eta aldaketak egitera bideratzen ditu. Labur esanik, euskararen ahozkotasunaren lantegi dinamiko bat eraikitze bideratu den lanaren aurkezpena da honakoa.

Laborategia Tolosan lekutua izan bada ere, esperientzia honetako emaitzak eta esperientziak eurak baliagarri izango direla aurreikusten da gisa honetako helburuak dituen beste erakunde, herri edo ikastetxeetan aurrera eramateko.

Ikerketa-ekintza metodologia erabiliz Tolosako gazteen ahozko erabilera, jokabideak eta konpetentziak zein diren ikertuko da, eremu horietan gaztekin esku hartuko dugu tailerrak edo eskolak emanet, une oro ebaluatuuko dira jarduera guztiak eta urteroko emaitzak baliatuko dira hurrengo urteetan hobekuntza proposamenak egin eta jarduerak berreraikitzeko.

Proposamen osoa aurrera eraman dezagun lau urtetako laborategia osatzea aurreikusten da (2010etik 2014ra artekoa). Tolosako gazteek, ikastetxeek, Jarraipen Batzordeko kideek eta Mintzola Fundazioak osatuko dute lan taldea.

### 0.1. Zergatik eta zertarako Tolosa?

Proiektu pilotu honek Tolosa du habia, Tolosako udalaren arduratik erandalu baita laborategia eraikitzeko lehen ahalegina. Izan ere, Tolosako udalaren euskara teknikaria Mintzola Fundazioarekin jarri zen harremanetan herri mailan antzeman zituzten beharren berri eman eta ahozkotasunaren gainean zuten ardura adierazteko. Herriko euskararen gainean zuten kezka-ri (euskararen erabilera maiztasuna zein kalitatea beherantz doaz azken urteotan) irtenbidea bilatu nahian Mintzolari proposamen bat idazteko eska-

tu zitzaion, eta Mintzola Fundazioak erantzun egin zion Tolosako eskakizunari esparru honek bere ikerketa barrutiarekin bat egiten baitzuen.

Alde horretatik, Tolosak eskain diezagukeen errealtitate anitzak aztertzea erabaki zuen Mintzolak errealtitate askotarikoak eskaintzen baititu Tolosak euskarari eta ahozkotasunari dagokionean.

Herri honetan, hiru ikastetxe dira: *Laskorain*, *Orixo* eta *Hirukide*. Ikastetxe hauen errealtitatea ezberdina da euskararen erabilera dagokionez eta aniztasun hori esanguratsua izan daiteke gure ikerketarentzat. Tolosako udalak eskainitako erabilera datuak behatu besterik ez dago ikastetxe bakoitak bere errealtitate propioa duela jabetzeko.

### 1. taula. Ikastetxeetako erabilera maiztasuna

Ikastetxea	Erabilera orokorra	Ikasmailaren araberako erabilera	Eskolaz kanpoko jardueretan
a	%65,66	DBH %58,08 Batxilergoan %74,70	%56,99
b	%98,82	DBH %97,66 Batxilergoan %96,80	%95,28
c	%39,56	DBH %31,09 Batxilergoan eta Lanbide Heziketan %63,07	%39,56

Taulan ikus daitekeen moduan Tolosa herriak eskaintzen digun errealtitate aniztasuna oso aberatsa da proiektu pilotu baten habia izateko, izan ere, proiektu honek beste herrientzako ere lagungarri izan nahi duen heinean ezinbestekoa da errealtitate anitza eskainiko digun herria hautatzea.

### 1. Ahozko laborategiaren oinarria

Azken hamarkadan arrakasta bizia hartzen ari den ikerketa-ekintzaren (J. Elliott, 1993) metodologian oinarritzen den laborategia eraikitzea da

egitasmo honen oinarri nagusia. Hautatutako metodologiaren abantailarak handiena da landutako edozein egoera etengabe izaten dela ikertu edo aztertua, eta bertatik ateratako datuek laguntzen dutela ondorengo lanetak birmoldatu eta hobetzen. Ikerketa-ekintzan praktika ardaztat hartzen da. Prozesua praktikatik abiatzen da eta praktika hausnarketa eta teoria berria eraikitzeko tresna gisa hartzen da. Irakaslekin lan egiteko bidea da, irakasleen gain lan egiteko modua baino areago. Tolosan gauzatzen ari garen laborategiak, beraz, bi helduleku nagusi ditu: bata ikerketa eta bestea ekintza.

Zer lortzea nahi dugu horrela? Ahozko lanketaren gainean ditugun aurrezagutzak lagun, erantzun zientifikoak eskuratzea ahozko generoen ikaskuntza-irakaskuntzaren eta euskarazko ahozko generoak erabiltzeko jokabide eta erabileren gainean.

Hamabi urtetik hamaseira bitarteko gazteen hizkuntza jokabide eta ahozko konpetentziak aztertu, hobetu eta sustatu nahi dira. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleekin dihardugu lanean. Izan ere, ikasle hauek une preziatuan daude euren hizkuntza jarrera eta erabilera erabakitzeko. Garai inguru horretan hasten dira gazteak lagun artean ibiltzen, euren arteko hizkuntza zein izango den erabakitzenean... Urteak joan ahala, gainera, kognitiboki erraz edo zailagoak diren lanketak egin behar izaten dira ahoz: jendauurrean azalpenak eman, iritziak eman edo argudiatu, kontatzen... Garai aberatsa deritzogu, beraz, gisa horretako beharrei erantzungo dien esku-hartzea proposatzeko, kontuan harturik bertan egingo diren hainbat eta hainbat lanketa lagungarri (edo transferigarri) izango direla gainerako hizkuntzetan ere.

Lan hau guztia aurrera eramateko Tolosako ikastetxeak, Jarraipen Batzordeko adituengandik ekarpenak eta Mintzola Fundazioaren landa-lana bateratzen dira. Lau urtetako egitasmoa izango da non urtez urte emaitzak baloratu eta esku-hartzea birmoldatuko den. Azken urterako, hala, ahozkotasuna landu eta sustatzeko diseinu oso bat izango dugu eskuartean beste edozein eremutan hedatua izan daitekeena.

## 2. Ikerketaren helburuak

Hizkuntzaren ikaskuntza-irakaskuntzaren errealtitatean, hiru esparruren arteko elkarrekintzari ematen zaio garrantzia *Hiruki Didaktikoa* kontzeptuari erreparatuta (Chevallard, 1985): irakaslea, ikaslea eta irakas/ikas-gai den objektua –ahozko euskara, gure kasuan–. Hiru esparru hauen gainean egin da hainbat ikerketa, jaso dugu hainbat ezagutza batez ere ikasleari zein irakas/ikas-gai den objektuari begira. Gure laborategian, urrats bat gehiago eman nahi dugu aurrera, eta oinarri bikoitza ezarri diogu: bata da ikasle gazteen jokabide eta konpetentzieta erreparatzea eta haien eraldatzea euskarazko ahozko hizkuntzaren erabilera eta konpetentziien onuran; bestea berriaz, irakaskuntza metodologien gaineko gogoeta zein praktikak bideratu eta ontzoko ahalegina egitea. Helburu bikoitz hau honako bi ideiatan laburten dugu:

1. Ikastetxeetako gazteen jokabide eta konpetentziak zein diren aztertu eta lantzea.
2. Ahozko euskara irakasteko praktika onak zein diren identifikatzea.

Hein berean, honako hiru helmugetara begira jarrita gaude ikerketan abiatu garen unetik beretik:

- Ahozko hizkuntzaren ikaskuntza/irakaskuntza prozesuan eragiten duten aldagaiak zein diren ezagutu nahi dugu: DBHko gazteen jokabideak, konpetentziak, irakaste metodologia eta tresnak...
- Errealitate soziolinguistiko anitzen eragina zein eta zenbaterainokoa den jakin nahi dugu ahozko hizkuntzaren ikas/irakastean zein garapenean.
- Euskaraz/ahoz komunikatzeko zenbait trebetasun eskura ditzaten nahi dugu testuinguru formal eta informaletan.

Horretarako guztirako, praktikaren gaineko gogoeta bideratu eta berriaz ere praktikara itzultzea zilegi zaigu; halaber, onartzea hasieran jarritako helburuak aldagari izango direla ikerketa urratsak eman ahala. Dena dela, ikerketaren abiapuntuau gaudelarik, honela zehaztu ditugu helburu nagusiak jarraibideak.

## 2.1. Helburu zehatzak

### 2.1.1. *Ikasleen jokabide eta konpetentziak*

#### Ahozko komunikazioaren gainean duten jokabidea aztertu eta positibatzea

- Nor da, gure ustez, komunikatzaile ona? Zer lortzen du gugan erakargarria?
- Zein sentipen ditugu ahoz jendaurrean jartzean?
- Zein hizkuntzatan komunikatzen gara ondoen? Zergatik?
- Ahoz komunikatzen garenean, zertan gozatzen dugu eta zer da jasangaitz? Zein dira egoera horiek?

#### Euskarazko ahozko generoez jabetzea

- Zein dira euskarazko ahozko generoak?
- Zein garrantzia dute euskaraz ahozko generoek? Erabiltzen ote ditugu? Nork erabiltzen ditu? Nola eta noiz?
- Zertan ezberdintzen dira euskarazko ahozko eta idatzizko generoak?
- Nola eta zertarako baliatzen ditugu ahozko generoak komunikazioan?

#### Euskaraz ahozko komunikazioan trebatzea, aintzat hartuz gainerako hizkuntzetan baliagarri izango diren konpetentziak eskuratuko direla (hizkuntza transferentziak)

- Testuinguruaren garrantzia komunikazioan.
- Ahozkotasuna testuinguruaren arabera: jarduera formalak eta informalak.
- Ahozkotasunean trebatzeko tresnak. Testu motak eta estrategiak ahozkoan.
- Ahozko praktika ezberdinak testuinguru askotarikoetan.

#### Euskaraz ahozko erabilera ugaritzea eta kalitatez hobetzea

- Euskararen erabileraren gaineko gogoetak eta praktikak.
- Zenbat hitz egiten dugu eta noiz, norekin, nola?
- Zertarako landu ahozkotasuna?
- Zertan hobe genezake gure erabilera maiztasuna?
- Zertarako hobetu gure ahozko komunikazioa? Eta nola egiten da hori?

### 2.1.2. *Ikaskuntza/irakaskuntza metodologiak*

#### Ikerketa-ekintza metodologia landu eta garatzea

- Metodologiaren ekarpenak baliatzea aintzat hartuz unean uneko prozedurak eta errealtitatea zein diren.
- Irtendako gogoeten emaitzak une bakoitzeko azaleratzea.
- Proposamen berriak berreraikitzea.
- Irtenbide eta ondorio berriak gogoeta eta bere ondorengo praktika bihurtzea.

#### Irakaslearen rolaren garrantzia aztertu eta esku hartzearen gaineko gogoeta piztea

- Irakasle/behatzailearen praktikak aztertu eta izendatzea.
- Tresna eraginkorrik eraikitzea praktikaren gaineko gogoeta pizteko.
- Esku hartze mota ezberdinak praktikan jarri eta ebaluatzea: bakoitzia bere bidetik eta konparazio sistemaren bitartez.

#### Ahozkoaren didaktikan, metodologia garatzea eta bere kontzientzia hartzea

- Hasierako diagnosiaren araberako esku-hartze proposamenak.
- Esku hartzeen gauzatzea: behaketa, analisia eta ondorioak.
- Urtez urteko ebaluazioa eta hobekuntza proposamenak.
- Metodologiaren analisia, ebaluazioa eta ondorioak.
- Esku hartze eta metodologiaren azken diseinua.

#### Ahozko hizkuntza ikastetxeetan lantzeko materiala sortzea: jokabideak eta konpetentziak

- Prozesu osoan zehar materiala sortu, ebaluatu eta berregin.
- Prozesuaren amaierarako, helburu zein edukien proposamen osoa eta material osatu bat erdietsi DBHn lantzeko (edo hezkuntza ez arautuan) baliagarria izango dena.
- Esku hartze eta metodologiaren azken diseinua.

Esanak esan, izaera eta erantzun bikoitzeko ikerketa da Tolosako laborategian landu nahi dena: ikasleei eta irakasleei begirakoa. Gazteen jokabide eta konpetentziak zein diren aztertu eta euskararen erabilera egokia sustatzeko baliabideak bilatzeko eraikia. Irakaslearen rola aztertu eta haren esku

hartzeaz gogoeta egiten duena, bidean aurkitzen diren praktika onak jaso eta modu ordenatuan aurkezta nahi dituena.

Helburu zehatzetan bakundi dira abiapuntuan jarritako xedeak. Une honetan, galdera edo hipotesi zantzuz ezarriak dira horietatik ekingo baitiegu trailer eta esku hartzeei. Egitasmoa sakonduz doan heinean, galdera hauek guztiak xehatza da beharrik garrantzitsuena, eta ziur asko, lanerako tresnarik interesgarri eta emankorrena.

### 3. Laborategiaren diseinua

Tolosa laborategi bihurtuz, ahozkotasuna gazteengan bultzatu eta erabilera konpetentziak aberastea da egitasmo honen desio handiena, eta honelaxe irudikatzen ditugu Tolosako egitasmoan gauzatzen ari garen gai aipagarriak:

1. Tolosako ikastetxeak ahozkoaren lantegi edo laborategi bihurtzea: Tolosako ikastetxe guztiak bihurtu dira laborategi; errealtitate ezberdin guztiak ditugu behagai.
2. DBHko gazteei zuzenduriko ikerketa da: 12-16 urte bitarteko gazteekin bideratzen ari garena.
3. Lau urteko jarduna gauzatzea espero da, honela esku hartuta:

#### 2. taula. Esku hartza urtez urte

	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4
2010-2011	X		X	
2011-2012	X	X	X	X
2012-2013	X	X	X	X
2013-2014	X	X	X	X

2010/2011 ikasturtean, DBH 1 eta DBH 3ko ikasleak, orotara, 22 gela. 2011tik aurrera, DBH 1, DBH 2, DBH 3 eta DBH 4ko ikasleak, orotara, 44 gela.

2010/2011 ikasturtean ikasgela bakoitzeko 21 ordu egin dira landa lanean:

- Hasierako diagnostikoa: 3 ordu gelako.
- Esku hartzea: 15 ordu gelako.
- Ebaluazioa: 3 ordu gelako.

4. Ikerketa-prozesuan gai hauek guztiak lantzeko material didaktikoa eraiki dute ikertzaileek.
5. Mintzola Fundazioak ikastetxeko arduradunekin harremanetan lan egiten du. Mintzola Fundazioaren ikertzaileek ikasleen eta proiektuaren arteko zubi-lana egiten dute: ikerketa bera gauzatu, emaitzak azaleratu, ikastetxeko arduradun eta ikasleekin harremana bultzatu, ideia eta proposamen berriak aurrera eraman, unibertsitateko adituen proposamenak garatu, etab.
6. Ikastetxe bakoitzarekin harremanetan zehazten da ikerketa lanaren egutegia.
7. Lau urteko jardunari esker ikusi ahal izango da lehen urteko diagnostikotik azkenera bitartean zein hobekuntza eta aurrerapen egin diren gazteen jokabideetan, erabilera maiatasunean eta konpetentzietan. Horrez gain, ondorioztatu ahal izango dira ikerketaren baliagarritasuna eta alderdi metodologikoan izan diren aurrerapausoak.

Tolosako laborategian aztertu eta landuak lagun, etorkizuneko esku harzte edo behar ezberdinene eredu izango dira hainbat emaitza. Bertatik ateratako ondorioetatik euskararen ahozkotasuna sustatzeko praktika-onen disenua eraikitzea aukera izango da, baliagarri izango dena beste eremu eta beharrei erantzuteko.

Lan honen bitartez jasotako emaitzak maila diakronikoan eta sinkronikoan aztertuko dira. Izan ere, 2010ean 12-13 urte izango dituen gazteak 16-17 urte artean zertan garatu duen ikusi ahal izango dugu ardatz diakronikoari dagozkion datuak aztertuz (2010/11tik 2013/14ra egindako aurrerapausoen analisia eginez). Urte bakoitzean egingo den lanari esker, berriz, dimensio sinkronikoan ateratako emaitzak ere lortuko dira, testuinguru ezberdin bakoitzean gertatzen dena deskribatzeko gai izango gara.

Horrez gain, 2011/12 ikasturteak aurrera 12-13 urtetatik 16/17 urtera arteko gazte guztiak datuak izango ditugu, eta urtez urte, adinez adin egin-dako esku hartzeen emaitzak ere bai. Bigarren urtetatik aurrera, beraz, gure ikuspegia zabalduz eta metodologiaren gaineko gogoetak aberastuz joango dira. Azken batean, ikerketan parte hartuko duten ikasgela eta gazteen datu guztiak izango baititugu.

### **3.1. Ekarpen osagarriak**

Nahiera horrekin batera, badira zilegi eta interesgarri diren beste lanketa batzuk ere. Arestian aipatu dugun oinarrizko lanaren osagarri dira ondoren- go lerroetan zerrendatu ditugunak, Tolosako laborategian bezala, gisa honetako helburuak bideratzeko proposatzen ditugunak:

#### **a. Material didaktikoa sortu**

12-17 urte bitarteko gazteentzat euskalazko ahozko generoak lan daitezen. Tolosako egitasmoari begira egingo den lana baliagarri izan daiteke bestelako herri edo ikastetxeetan ere erabiltzeko. Bide bat urra liteke haren ekoizpen eta zabalkundeari begira, non eta oinarri hartuko den Tolosako proiektu pilotua.

#### **b. Esku-hartze eta trebakuntza (motibazio) ikastaroak hezkuntza araututik kanpoko guneetan**

Tolosan bertan edo herritik kanpo, helburu berdindun ikastaroak es- kain litezke ikerketa-ekintza unean jasoko diren emaitzak aintzat hartuz. Egokia izan daiteke, adibidez, gazte-gunetan gai honi lotutako trailer edo lehiaketa erakargarriak proposatzea.

#### **c. Herrian bertan euskalazko tradiziozko generoen eskaintza zabal- tzea**

Aisialdiko unetarako (ipuin kontaketak, antzerkiak, bertso-saioak...), eta partaidetza sustatzea herriko euskara elkartetatik, ikaste- txeetatik, tailerretan gauzatuko diren jardueretatik...

d. **Ikastetxeko irakasleentzako prestakuntza eta proposamenak**

Ikastetxean interesarri ikusiko balitz, ikastaro ezberdinak eskain litzekirakasleen formazioa aberasteko: ahozko generoen ikaskuntza/irakaskuntzaz, material didaktikoa erabiltzeko bideez, ikus-en-tzunezko baliabideen garrantzia, hizkuntza jarreren lanketaz, Tolosako ikerketaren norabide eta emaitzez...

e. **Ahozkotasuna bultzatzeko proposamenak**

Eskolan bertako eta eskolaz kanpoko jarduerak proposta litzke ikastetxean gazteen ahozko jarduna bultzatzeko. Horretarako, beharrezko izango litzateke teknikariaren eta irakasleen artean lankidetza bideratzea.

f. **Diagnostikoaren emaitzak eta ondorioak**

Herrian bertan eta urtero ikasturtean zehar egindako ikerketaren emaitzak aurkeztea garrantzitsua litzateke egitasmoarekiko interesa pizteko eta implikazioa sustatzeko. Emaitza horietatik aterako dira hurrengo ikasturtean landu eta hobetu beharreko jarduera eta helburuak.

#### 4. Ikerketa metodologia

Jakina den bezala, ikerketa-ekintzan oinarritzen da gure laborategia, beraz, ikertu ahala garatuko da ekoizpena ere. Metodologia hau zertan den argiaraziko digu egitasmoaren faseak aurkezteak, baina horren aurretik hainbat argibide zerrendatuko ditugu:

– **Urte guztietai gauzatuko dira 3 jarduera erabakigarri:**

1. Abiapuntuko egoeraren berri emango digun informazio bilketa galde-tegiekin eta ikasleekin lantzeko sortu diren tailerren bitartez. Hasierako lanaren helburu nagusia da ikerketa-gai izango diren alor nagusi hauek aztertu eta datu kuantitatibo zein kualitatiboak eskuratzea honako aldagaiei dagokienean:


– Irakasleen hizkuntza jokabideak eta ohiturak (euskaraz eta ahoz komunikatzearen gainean, batik bat).

- Ahozko generoen gainean duten jakintza (ikasleek ahozkotasunaz dituzten aurrezagutzak zein diren jakin nahi dugu).
  - Ahozko komunikazioaren konpetentziak (ikasleen konpetenzia maila).
2. Bigarren lana da lehenengo lanetik ateratako ondorioetatik esku har-tzea gauzatzea, hau da, jasotako informazioarekin ahozko jarduerak gauzatzea. Jarduera horietan lantzen dira aurrez jasotako informa-zioari zuzenean lotutako edukiak: hizkuntzaren jokabide eta erabile-rari lotuak; ahozko konpetentziari lotuak, komunikazioari lotuak...
3. Hirugarrena (eta ikasturte bakoitzean egingo den azken lana). Aurre-ko fasetan egindako lanaren ebaluazioa egiten da. Hasieran jasotako datuak berriz berreskuratu eta ikasturtearen amaierako emaitzekin alderatzen da. Informazio hau lagungarri izango zaigu hurrengo urte-rako datuak berreraiki eta materiala sortzeko garaian.

Lehen urtea ikerketaren abiapuntua denez, DBHko ziklo bakoitzaren lehen mailekin hasi gara esku hartzen, eta bertatik ateratako datuak lagungarri izango zaizkigu datozen urteetan mailaz maila esku hartzea eta material didaktikoa eraginkorragoak izan daitezen.

- Ikerketa gauzatu ahala, ahozko generoak lantzeko sekuentzia di-daktikoak edo material didaktikoak sortuko dira. Zuzenean esku har-tzea jasotzen ari diren ikasleentzat prestatuak, eta aurrerako urteei begira baliagarri eta osagarri izango diren sekuentziak eraikiko dira.
- 4 urtetako ikerketa garatuko bada ere, urtez urte jasoko dira jardu-nean ateratako emaitza eta proposamen berriak.

Oraintxe azaldutakoak ondorengo taularen bitartez jarri dira laburbilduta:

**1. grafikoa.** Ikerketa proiektuaren urratsak urtero**5. Esku hartzerako proposamena**

Jakin badakigu curriculum diseinuan ahozko generoen lanketari garrantzia handia ematen zaiola. Ahozkotasunak leku nabarmena du hezkuntza curriculumean. Dena dela, gaur egun oraindik zaitasunak ditugu hura irakasteko. Ez digute horretan irakatsi eta deseroso sentitzen gara, esku hutsik askotan. Oso urria da ahozkotasuna jorratzeko material didaktikoa. Teknologia berriak erabiltzea eskatzen digu ahozkotasunak (bideo kamerak, ordenagailuak, entzungaiak...), eta ez gaude horretara ohituta. Ahozko generoak ikasgelan lantzeko tresnak eta erosotasuna falta ditugu hezkuntzan.

Egitasmo honetan, hain zuzen, ezintasun horiek gainditzea ere nahiko litzateke.

Oso gerturik izanik ahozko komunikazioaren gaineko teoria berri eta berri-tzaileak, eskuartean izanik ahozko generoak lantzeko proposatzen zaizkigun metodologiak (Suitzako eskola) eta hurbil izanik unibertsitatearen jakintza teoriko zein praktikoa, interakzionismo sozio-diskurtsiboan (Bronckart 1985, 1996) oinarritzen den hizkuntza eta didaktika ikuspegia landuko da proiektu honetan. Hain zuzen, hezkuntza curriculumak eta ikastolek bultzatzen dutena.

Helduleku horietatik abiatuta eraikitzen da, beraz, ahozkotasunaren egitasmoa. Prestatuko diren jardueretan helburu komunikatiboak ezartzen dira, eta horiek izango dira, hain zuzen, gure norantza zedarrituko dutenak. Helburu komunikatiboak ezarri eta gauzatuz ahozko hizkuntzaren gaitasunak landuko dira batez ere.


Izan ere, euskara ikasi bai, baina bere erabilera maiztasuna ez dator bat ezagutza mailarekin. Emaitza soziolinguistikoek argi utzi digute hizkuntza ezagutzeak ez duela erabilera bermatzen. Erabiltze gune eta uneak eraikitzea izango da, beraz, gure egitekoa. Eta bidenabar, erabilera ziurtatuko duten helburu komunikatiboak jartzea. Testuinguru ezberdinetan ahozko hizkuntza erabiltzeko aukerak eraikitza dagokigu.

Konpetentziei erreparatuko badiegu, ahoz komunikatzeko dugun beharra ikaragarri da handia edozein esparrutan: lanean, ikastetxean, lagun artean... Testuinguru formal eta informaletan euskaraz eta ahoz komunikatzeko hainbat tresnaren beharrean gara herritar ugari, eta horixe erantzun nahiko lioke proiektu honek ere. Ahoz gustura eta ederki komunikatzeko trebetsunak garatzeko tresnak eman nahi dizkiogu Tolosako ikasle gazteari, eta ahozko genero ezberdinak landuz, euskaraz ahoz jarduteko jokabide eta maiztasuna hobetu zein ugaritzea izango litzateke emaitza nagusietako bat.

Horrek zer eskatzen du? Testuinguru askotarikoetako jarduerak aurrera eramatea, hau da, ahozko testu formal eta informalak lantzea (adibidez, lagun arteko elkarrizketa eta irratiko elkarrizketa). Eta jarduerak gauzatzen ditugun une berean hizkuntzaren erabilerarekiko gogoeta piztea, erabilera bultzatzea eta konpetenzia askotarikoak erabiltzen ikastea: erabiltzea.

Ondorengo taulan zehazten denez, honelaxe banatzen dugu ikasturteko esku hartzea:

### 3. taula. Urte bakoitzeko eta gela bakoitzeko lan-diseinua



## 6. Ebaluazioa eta ondorioak

Urtean zehar eginiko lana ebaluatu eta ondorioak aterako dira ebaluazioaren fasean. Urteroko datuak baliagarriak izango dira unean bertan gauzatzen ari garen ikerketaren noranzkoa aztertzeko. Ikerketa aurrera joan ahala, berriz, gai izango gara aurrerabideak diakronian aztertu eta ondorioak ateratzeko.

Ebaluazio honetan honako edukieei emango zaie garrantzia gehien:

– Ikastetxearen errealitateak baldintzatzen du? Zertan?

Ikastetxeetako egoera soziolinguistikoen arabera ezberdintasunik ba ote dagoen eta zein den bere eragina.

**– Hizkuntzaren estatusak baldintzatzen du? Zertan?**

Hizkuntzaren gaineko aurreiritzia zertan diren eta horiek zertan era-giten duten.

**– Ikasleen adinak baldintzatzen du? Zertan?**

Adinak gai honetan eraginik ote duen: 12 urtetik 17ra arteko tartean zein errealtitate ditugun.

**– Esku hartze motek baldintzatzen dute? Zertan?**

Ikasgeletan egingo diren esku hartzeen eragin maila zenbaterainokoa den jakitea da helburuetako bat.

**– Zein dira ahozkotasuna sustatzeko praktika onak errealtitate sozio-linguistiko bakoitzean?**

Ahozkotasuna landu eta bere erabilera sustatzeko praktika onen gakoak.

### 6.1. Ikerketaren lehen emaitzak

Aurre-diagnostikoan aurrez jarritako hainbat galderari erantzuteko para-da izan dugu 2010/2011 ikasturtean, eta datu kuantitatiboei dagokienez, honelaxe laburtu dira emaitza aipagarrienak:

**a) Ikasleen adinak baldintzatzen du ikasleen hizkuntza jarrera zein erabileran?**

Aztertutako aldagaiak kontuan hartuta ikusi dugu erlazioa dagoela ikasleen adinaren eta hizkuntza jarreren artean: bien arteko korrelazioa positiboa da. Gainera, esan daiteke adina gora joan ahala hizkuntzaren inguruko jarrera aldatzten joan dela.

Erabilerari dagokionez, berriz, ikasleen adina eta lagunarteko hizkun-tza izan dira aldagaiak. Bi aldagai hauen korrelazioa ikusirik hipotesia baieztatuta gelditu da: adinak hizkuntza erabileran baldintza dezake. Estatistikoki erlazioa ahula bada ere, frekuentziatan ikusi dugu DBH 3. mailan hizkuntza ohitura aldatu egiten dela.

**b) Ikastetxearen errealtitateak baldintzatzen du?**

Hasieran aipatu dugun moduan, Tolosa herriak ikerketarako marko anitza eskaintzen digu hiru ikastetxeen errealtitate soziolinguistikoa ezberdina baita. Ikastetxea bera eta identitatearekin lotzen den baiez-tapena hartu ditugu kontuan datuak jasotzeko garaian. Bi aldagaien artean ikusi da erlazia dagoela eta norabide berean dabiltzala, hau da, ikastetxearen arabera ikasleen jarrera ezberdina dela.

Ikastetxea eta hizkuntz erabilera uztartu direnean ere bi aldagaien arteko erlazia baieztatu da, hots, ikastetxeetan hizkuntza erabilera ohitura ezberdinak antzeman daitezke.

Beraz, emaitza kuantitatiboen inguruau honakoa azpimarratu daiteke:

- Ikasleen hizkuntzarekiko jarrera adinarekin aldatu egiten da eta zehazki, DBH 1en agertzen den jarrera positiboa lausotu egiten da adina gora doan heinean.
- Hizkuntz erabilera maitzasun handiagoa dago DBH 1en eta DBH 3n, berriz, gaztelaniarako joera nagusitzen da. Beraz, ikasleen adinak baldintzatzen du erabilera.
- Ikastetxeen errealtitate soziolinguistikoak hizkuntzarekiko jarreran zein erabilieran eragina duela baieztatu da diagnostikoa.

Aurre-diagnostikoan ezarritako hipotesi denak bete dira maila kuantitatiboan, eta bide berean jarraitu dute maila kualitatiboan ateratako emaitzek. Ondorengo zerrendan agertzen dira ideia garrantzitsuenak:

- Gazteek hizkuntzaz hitz egiten dutenean hizkuntza mintzatuaz dihardtute oro har. (Ez dute hizkuntza idatziaz hitz egiten, alegia. Horrek dirudi gaur egungo eskolako jarduera nagusiarekin kontraesanean da-goela; edo euskara bera hizkuntza erabilera-rekin lotzen dutela).
- Hizkuntzaren edo euskararen garrantzia oso lotuta dago lurraldetasunarekin eta identitatearekin. Argudiorik garrantzitsuenak horiek dira. Hizkuntza ez da lotu jolasarekin, transmisiorekin, harremanekin...
- Hein berean, hizkuntza galeraren aurrean «salbatzaile» rola hartzen dute ikasle askok eta askok. Eta erabilera-rekin lotzen dute.

- Hizkuntzaren jabekuntzarekin edo ikaskuntzarekin ere lotu izan da euskara: ama hizkuntza dutenek aipatu egiten dute, esplizitatu eta horrek eragin egiten die ondorengo baloraziotan.
- Beste batzuentzat asignatura bat da edo etxeko, eskolako edo kaleko hizkuntza bat. Espazio jakin batzuekin identifikatzen dute azken hauek euskara.
- Balorazioetan askotan ageri da «beharra» modalizatzailea: *salbatu beharrekoa; hitz egin beharrekoa; ikasi beharrekoa...* «-tzen duguna» eta gisakoak erabili ordez.

## 6.2. Erronka berriak

Ikerketaren lehen emaitzak jaso eta ikasturtea amaitzean dugun honetan, erronka berriak ezarrita ditugu 2011/2012 ikasturterako.

Ikerketaren ibilbidean bidelagun dugun Jarraipen Batzordean adostu da gazteen ahozko konpetentziak zertan diren eta nola hobetu daitezkeen iker-tzeak eta esperientzia ezberdinaren praktikak bideratzeak hartu beharko lukeela indarra. Pisu handiena gazteen hizkuntza konpetentziien eremuak hartzea nahi izan da, eta horixe da hain zuzen, hurrengo ikasturterako ezarrita dugun eginkizun nagusia.

### Ikastetxeetako materialaren osagarritasuna

Datorren ikasturterako lana aurreratuz goazen honetan, ikastetxeetako curriculumak, maila bakoitzeko helburuak eta irakasleek darabiltzaten material didaktikoak aztertuta ditugu dagoeneko. Mintzola Fundazioaren iker-keta helburuekiko osagarritasuna bilatzen aritu gara eta sortuko den material didaktikoaren gainean erabakiak hartu dira: zein testu genero landuko den maila bakoitzean, zein testu mota, nolako erregistro mailak lantzea komeni den eta zein elkarrekintza motatan esku hartu nahi dugun.

Orotara, zortzi sekuentzia didaktiko sortuko dira; maila bakoitzerako bi. Eta aurrez hartutako erabakiaren arabera honakoak landuko dira maila bakoitzean:

**4. taula.** Ahozko konpetentziaren lanketa esku hartzea

Maila	1. sekuentzia	2. sekuentzia
DBH 1	Testu generoa: kontaketa Testu mota: ipuina Ahozko jardun transakzionala eta formala	Testu generoa: elkarrizketa Testu mota: elkarrizketa Ahozko jardun interakzionala eta informala
DBH 2	Testu generoa: argumentazioa Testu mota: iritzi trukea Ahozko jardun interakzionala eta formala	Testu generoa: kontaketa Testu mota: anekdota umoretsuak Ahozko jardun transakzionala eta informala
DBH 3	Testu generoa: literatur generoa Testu mota: poesia errezitaldia Ahozko jardun transakzionala eta formala	Testu generoa: azalpena Testu mota: azalpen zientifikoa Ahozko jardun transakzionala eta formala
DBH 4	Testu generoa: argumentazioa Testu mota: debatea Ahozko jardun interakzionala eta formala	Testu generoa: azalpena Testu mota: aitorpenak Ahozko jardun interakzionala eta informala

Ikastetxe bakoitzeko euskara mintegiko irakasle taldea eta Mintzolako teknikariak izango dira esku hartza aurrera eramango dutenak. Mintzolako teknikarien gelak kontrol gelatzat hartuko ditugu (jarraipen xeheagoa egingo diegu), eta esku-hartze honetatik ondorengo informazioa jasotzea espero da:

- Irakasleon eta teknikarion erregistroa.
- Mintzolako ebaluazio txantiloia.
- Aurre-testuak eta ondo-testuak.
- Irakasleekin egingo ditugun bileretatik eskuratutako informazioa.

Esku hartzearen aurretik ikerketan parte hartuko duten irakasleei informazioa emango zaie non batez ere sekuentzia didaktikoak aurkeztu eta ezagu-

tzeko baliabideak emango zaizkien eta zalantzak argitzeko aukera izango den. Jarduerei buruzko erregistroa eta ebaluazioa egiteko metodologia zein izango den ere formazioan irakatsiko da. Haren ondotik ekingo zaio esku hartzeari eta ondorengo ebaluazioari.

Datorren ikasturterako, beraz, izango ditugu artikulu honetan galdegin ditugun zenbait galderen erantzunak, sortuko zaizkigu galdera eta eginkizun berriak. Ikuskizun datorkiguna eta eraikitzen ari garen laborategi honen fruituak. Epe motzean hurbil datozkigunak eta epe luzera begira bata-tozenak.

## Bibliografía

AMORRORTU, E., ORTEAGA, A., IDIAZABAL, I. ETA BARREÑA, A., 2009, *Erdaldunen euskararekiko aurreirritziak eta jarrerak*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

BRONCKART, J.P., 1985, «La enseñanza de lenguas frente a sus contradicciones», in *Las ciencias del lenguaje: un desafío para la enseñanza?*. Paris: UNESCO, 9-17.

CAMPS, A. ETA BESTE., 2001, *El aula como espacio de investigación y reflexión: investigaciones en didáctica de la lengua*. Bartzelona: Graó.

CALSAMIGLIA, H., 2007, *Las cosas del decir. Manual del análisis del discurso*. Bartzelona: Ariel.

CESTERO, A. M.<sup>a</sup> ETA BESTE, 1998, *Estudios de comunicación no verbal*. Madril: Edinumen.

CHEVALLARD, Y., 1985, *La transposition didactique, du savoir savant au savoir enseigné*. Grenoble: La Pensée Sauvage.

CROS, A. ETA VILÁ, M., 2001, «Ahozko hizkuntza: ebaluaziorako proposamenak». *Hizpide*, 48 (2001) 92-111. (Boni Urzikuk itzulia).

DOLZ, J. ETA SCHNEUWLY, B., 1997, «Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona». *Textos de didáctica de la lengua y literatura* 11, (1997) 77-98.

ELLIOT, J., 1993, *El cambio educativo desde la investigación-acción*. Madril: Morata.

EUSKO JAURLARITZA, 2007, «Euskal Autonomia Erkidegoko oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzeko». Dekretua.

\_\_\_\_\_, 2007, *Derrigorrezko eskolaldirako Euskal curriculuma. Oinarrizko txostena*. Vitoria-Gazteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA, 1999, «Hezkuntza sistemak: Oinarrizko Curriculum Diseinuak». Curriculumen arteko estalduraren ikerketa lana.

MARTÍNEZ, M. ETA BESTE, 2009, *Ikasleen eskola giroko hizkuntza erabileraren azterketa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

SAINZ, M., 2002, «Hizkuntza didaktikaren erronka berriak». *Hik Hasi*, 8 (2002) 6-21.

SCHNEUWLY, B. ETA BAIN, D., 1998, «Mecanismos de regulación de las actividades textuales: estrategias de intervención en las secuencias didácticas». *Textos de didáctica de la lengua y literatura*, 16 (1998) 25-46.



# Ahozko euskara formala aisialdiko euskararen osagarri. Zornotzako gazte batzuen datuak

ARNEDO GAZTELURRUTIA, Maialen  
EHUko Euskal Filologiako ikaslea

BADIOLA OSTOLAIZ, Ane  
EHUko Euskal Filologiako ikaslea

GANDARIAS ISPIZUA, Leire  
EHUko Euskal Filologiako ikaslea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Zornotzako ikastetxe batean bigarren batxilergoko D ereduko hamazazpi ikasleko talde batekin debate bat egin zen, eskolan gutxi lantzen den ahozko euskararen genero formal honetan nolako baliabideak agertzen diren aztertzeko. Bereziki aztertu diren atalak hauek dira: debatearen kudeaketa orokorra (solaskideen eta moderatzailearen parte-hartzeak nola bideratzenten diren) eta debatean jorratutako eduki gaien kudeaketa (gai berriak proposatzea, mantentzea, aldatzea...) hartarako erabiltzen dituzten baliabideak aztertuz (antolatzaileak, sarrera egiturak, berformulatzaileak,...). Emaitzan arabera ikus daiteke gazte hauek badituztela hainbat gaitasun baina gabeziak ere nabari direla. Gure ustez, aisialdian euskara gehiago erabiltzeko, eskolek euskarak berezkoak dituen ahozko genero formalak gehiago lantzea eraginkorra izango litzateke.

**Hitz-gakoak:** Ahozkotasuna, baliabide diskurtsiboak, debatea, gaiaren eraikuntza, sekuentzia didaktikoa.

Con el fin de examinar qué recursos aparecen en el debate (siendo éste un género formal poco trabajado en las escuelas), se efectuó un debate con diecisiete alumnos del modelo D de segundo de bachillerato de un instituto de Zornotza. Estos son los ámbitos que se han analizado: la gestión general del debate (cómo se gestiona la intervención de los participantes y del moderador) y la regulación de los contenidos temáticos tratados en el debate (proponer nuevos temas, mantenerlos, cambiarlos...). Analizando los recursos que se usan para dichas intervenciones (organizadores textuales, estructuras de introducción, reformuladores...). En los resultados se puede ver que estos jóvenes poseen muchos recursos pero también se manifiestan algunas carencias. En nuestra opinión, sería muy eficaz que se trabajasen más los géneros formales propios del euskera en las escuelas para así promover el uso del euskera también en el ámbito del ocio.

**Palabras clave:** Oralidad, recursos discursivos, el debate, construcción del tema, secuencia didáctica.

Dans le but d'examiner les ressources qui apparaissent dans le débat (un genre formel peu utilisé à l'école), nous avons réalisé un débat dans un lycée de Zornotza avec la participation de dix-sept étudiants de second année de baccalauréat en modèle D (tout l'enseignement est donné en basque). Les domaines considérés sont les suivants: la gestion globale du débat (l'organisation de la participation des membres et du modérateur) et la gestion des contenus traités (la proposition de nouveaux thèmes, l'maintien, le changement ...) avec l'analyse des ressources utilisées pour ces gestions (les organisateurs textuels, les ressources d'introduction, les reformulations ...). Dans les résultats on s'aperçoit que ces jeunes ont certaines compétences, mais ils montrent aussi certaines lacunes. À notre avis, pour que le basque soit

plus employé en temps de loisir, il serait souhaitable que les écoles renforcent aussi l'utilisation du genre formel du basque.

**Mots-clés :** Oralité, ressources discursives, le débat, construction du thème, séquence didactique.

A debate was carried out with seventeen students in Basque in the last year of high school (17-18 years old) in Zornotza in order to understand the means that come out on this formal genre that is rarely worked on at schools. These are the fields that have been analyzed: the general management of the debate (how the participation of the members and the moderator are led) and the management of the thematic contents dealt with on the debate (proposing new themes, keeping them, changing them, etc.) while analyzing the means that have been used for that management (discourse connectors, introductory structures, reformulation, etc.). It can be observed in the results that these young people have much talent but they also have some weak points. In our opinion, it would be very effective to have these formal oral genres that are characteristic of spoken Basque language more often at schools in order to stimulate the use of Basque in leisure time.

**Keywords:** Orality, discursive resources, discussion, construction of the theme, didactic sequence.

## 0. Sarrera

Lan honek ikasle talde bati egindako debatearen grabaketa eta azterketa biltzen ditu. Hau da, alde batetik grabaketa prozesua eta, bestetik, datuen analisia.

Euskara kalean hain gutxi erabilita, gazteak ahozko egoera formaletan nola moldatzen diren aztertu nahi dugu. Hau da, debatea, argudiozko ahozko testu aberatsa da. Eskolan lantzea, gure uste, erabilera arrunterako ere (alegia, kalerako erabilerarako) baliagarria litzateke. Izan ere, hezkuntza sistemaren bitartez gazteek debate batean euren ideiak nola arrazoitu edota argudiati ditzaketen ikasita, euren egunerokotasunean baliagarri izango zaizkien baliabideak ikasiko dituzte. Gazteengan eragin handia izango du honek, bai euren hizkuntza gaitasunean eta baita euskararen erabilieran, hizkuntza erabiltzeko tresnak barneratuta erabilera ere handiago izango bai-ta, bai hezkuntza mailan eta baita aisialdian ere.

Azterketa hau saiakera bat da, proba bat. Guk, bildutako datuetan oinarriturik, gure azterketa eremu zehatz batera mugatu dugu; azter daitezkeen alor guztietatik gutxi batzuk landu ditugu. Ikerketarako bidea zabalik gelditzen da beraz.

Deskribapen eta azterketarekin hasi aurretik lan honetan lagundu diguten guztiei eskerrak eman nahiko genizkieke: Itziar Idiazabal, Leire Diaz de Gereñu eta Ibon Manterola irakasleei eta Zornotzako *Urritxe* Institutuko irakasle eta ikasleei.


## 1. Korpusaren bilketa eta bere ezaugarriak

Debate saiakera hau Zornotzako *Urritxe Bigarren Hezkuntzako Institutuan* burutu genuen 2010eko apirilaren 28an eta 29an, bigarren batxilergoko D ereduko hamazazpi ikasleko talde batekin.

Soziolinguistika Klusterrak 2006ko urrian egindako neurketen arabera, Zornotzan %53,8koa da euskararen ezagutza. Euskararen kale erabilera, or-

dea, %25,8koa baino ez da. Hau da, aztergai ditugun ikasleok, lau elkarritzketatik bakarra izan ohi dute euskaraz.

Aipaturiko datuak ondorengo taulan ikus genitzake:




Ikasle hauek ahozko genero mota hau lehenengo aldiz lantzen zutenez, gaia aukeratzea ez zen lan erraza izan. Izan ere, gazte hauek ez dute debatea landu ez euskaraz eta ezta beste hizkuntzaren batean ere. Bestalde, hainbat aldiz irakurri izan dugu aukeratzen den gaia oso garrantzitsua dela debatearen garapen zuzenerako. Gaiak iritzi desadostasuna sortu behar zuen, baina alde/kontra gisako jarrera argudiatu gabeak saihestuz eta gaia interakzioan osatuz. Hau da, gaia oinarri hartuta azpigai eta ideia desberdinak garatzeko erraztasunak eman nahi genizkien. Hauxe izan zen aukeratutako gaia: «Osasuna gaur egungo gazteengan: eredua aldatzen ari da».

Ikasleek genero mota hau lehenengoz landu zutela azpimarratu nahiko genuke. Izan ere, gure ustez, ahozkotasuna lantza ohitura balitz, eragina izango bailuke bai kale erabilera eta baita erabilera formalean ere.

Garrok (2007) bere lanean dioen moduan, debate orok ekoitzua izan aurretik aurre lanketa baten beharrizana duela uste dugunez, bi saiotan banatu genuen korpusaren bilketa.

Lehenengo saioan debateaz duten jakintza evaluatu eta genero honen ezaugarrien eta partaideen azalpena egin genien ikasleei. Ahozko genero honen inguruan zitzuten ideiak argitu ostean, debaterako gaia proposatu genuen («*Osasuna gaur egungo gazteengan: eredua aldatzen ari da*»). Gaia lantzen haste aldera ikasleak biko taldeetan banatu genituen: taldeetako bati moderatzaile rola eman genion eta beste guztiei debatekide rola. Taldeek bakoitzari zegokion rola prestatzeari ekin zioten; hots, moderatzaile taldeak debatea aurrera eraman ahal izateko gidoia eta gaiak prestatu zituen eta debatekide taldeek argudioak, adibideak... Bai irakaslea eta baita gu ere, aurre lanketa horretan mahairik mahai ibili ginenean ikasleen lana bideratzu. Eskola ordua bukatzean, bikote bakoitzak pertsona bat aukeratu zuen debatean parte hartzeko eta gainerako guztiak ikusle/entzule rola bereganatu zuten.

Bigarren saioan, aurre lanketan prestaturikoa praktikan jarri genuen debata grabatuz. Moderatzailea eta debatekideak 'U' baten gisako irudia osatuz mahaietan eseri genituen (moderatzailea erdian) eta ikusleak hauen aurrean:



Saioa aurrera eramateko ezinbestekoa izan zen mikrofonoak beteriko funtzioa. Moderatzailea izan zen mikrofona solaskideei banatzearen ardu-

raduna. Mikrofonoak ahalbidetu zuen solaskideen artean hitz-txandak errespetatzea eta ondorengo transkribaketa lanak erraztu zizkigun.

Grabaketa horretan lortutako korpusak ia 40 minutuko luzera dauka. Ez du kalitate onegirik, ahotsa ez baita ongi entzuten. Hala ere, grabaketa guztia hitzez hitz transkribatzea lortu genuen.

Orohar, esan genezake ikasleek primeran barneratu zutela metodologia eta saio biak arrakastatsuak izan zirela.

## 2. Korpusaren azterketarako metodologia

Korpusaren azterketan bi azterbide izango ditugu: batetik, solaskide eta moderatzaileak debate batek berezko dituen ezaugarriak (besteen hitzak aintzat hartzea, hitz-hartzeak errespetatzea...) betetzen dituzten eta, bestetik, gaiaren kudeaketa nolakoa izan den.

Hori egin aurretik, azterbide bakoitzean zer aztertuko dugun eta nola aztertuko dugun azalduko dugu:

### 2.1. Debatearen zein ezaugarri aztertuko ditugun

Debate bat aztertzerakoan hamaika ezaugarri daude aztergai. Guk, ordea, batzuk baino ez ditugu kontutan hartu, interesgarrienak iruditu zaizkigunak edo debate baten jarraibidean garrantzitsuenak iruditzen zaizkigunak. Debateko ezaugarri guztiak aztertu ezin genituela ikusita, aukeraketa bat egitea beharrezkoa zela ikusi genuen. Zein ezaugarri aztertu eta zein ez aukeratzea, beraz, arbitrario xamarra izan zen. Hauexek dira iruzkintzeko aukeratu genituen puntuak:

Moderatzaileak, hitzuna, egoera eta gaia aurkeztu behar ditu batetik. Bestalde, bera da kideei txanda ematearen arduraduna, baita, beharrezkoa denean solasaldia moztearena ere. Gai bakoitzaren amaieran laburpen bat egin behar du, beste azpi-gaiei atek irekiz. Moderatzaileak objektiboa izan behar duenez, garrantzitsua da bere iritzia ez ematea. Ikus Dolz & Schneuwly (1998) liburuan debateari buruzko ezaugarri gehiago.

Solaskideek, kideen txanda errespetatu behar dute eta moderatzaileak txanda ematean soilik hitz egin. Euren iritziak arrazoiak emanez azaldu behar dituzte, lokailuak eta antolatzaiak erabiliz. Bestalde, kideen iritziak kontuan hartuz hitz egin behar dute.

## 2.2. Gaiaren kudeaketa nola ebaluatuko dugun

Azterbide hau, Garrok, Idiazabalek eta Larriganek (2007) «Gaiaren eraikuntzarako baliabide diskurtsiboak debateetan» lanean egindako sailkapenaren arabera egin dugu, nahiz eta modeloa egokitu egin dugun. Autore hauek aipatzen dute gaiaren eraikuntzan bost baliabide diskurtsibo daudela:

- *Gaiaren sarrera edo hasiera*: Gaia aurkeztea da; eztabaideraren abiapuntua.
- *Gaia mantentzea*: Gaiarekiko argudioak errepikatzea, ekarpen berririk egin gabe.
- *Gaia garatzea*: Gaia zabaltze aldera ekarpenak eta birformulazio berriak egitea da.
- *Gaia desbideratzea*: Gai baten barnean itzulinguru moduko saio bat egi-tea da, gaia aldatzea baino mugatuagoa, baina gaia garatzea baino zabalagoa dena.
- *Gaia aldatzea*: Lantzen ari den gaiaren baitan beste gai bat proposatzea da.

Korpusaren azterketan, debatekideek baliabide diskurtsibo hauek nola garatu dituzten aztertuko dugu. Hala ere, laugarrena (gaiaren desbideratzea) ez dugu aztertuko.

## 3. Emaitzak

### 3.1. Debatearen ezaugarrien azterketa

Oro har, debatekideek goian (2.1. puntu) aipaturiko ezaugarriak espero baino hobeto betetzen dituzte. Debatearen kudeaketa, beraz, ongi joan da; emaitzak uste baino hobeak izan dira.

Hurrengo taula honetan solaskideek eta moderatzaileak bete beharko lituzketen ezaugarriak ageri dira, + eta – ikurrekin, egitekoak betetzen dituzten edo ez adierazteko:

Moderatzailea		Solaskideak	
– Hiztunak, egoera eta gaia aurkeztu	+/-	– Kideen txanda errespetatu	+
– Kideei txanda eman eta kendu	+/-	– Moderatzaileak txanda ematean soilik hitz egin	+
– Gai bakoitzaren amaieran laburpena egin	+	– Euren iritziak argudiatu	+/-
– Objektiboa izan behar du	+/-	– Lokailuak eta antolatzaleak erabili	+/-
		– Kideen iritziak kontuan hartu	+/-

Taula honetan ikus genezakeen moduan, moderatzaileak, oro har, ezaugarri guztiak betetzen ditu. Hala ere, aipatzeko da egoera ez duela aurkezten eta solaskide guztiei galdera berbera egiten diela ideiaren bat proposatzen den bakoitzean. Beherago aipatuko dugun moduan, zenbait unetan objektibotasuna ere galtzen du.

Solaskideek ere ezaugarri gehientsuenak betetzen dituzte. Debateko partaideek hitz egiteko mikrofono bat dutenez, txandak ongi errespetatu dituzte, ez diente bata besteari hitza kentzen. Iritziak arrazoiz babesturik ematen dituzte eta beste solaskideen iritziak kontuan hartuaz hitz egiten dute (nahiz eta badiren salbuespenak). Antolatzale eta lokailu mordoa erabiltzen dute euren jardunean, euren diskurtsoa antolatuz. Hala ere, beti baliabide berak erabiltzen jotzen dute, hau da, lokailu eta antolatzale berdinak erabiltzen dituzte beti.

Ikus-entzuleek isiltasuna eta arreta mantentzen dute uneoro, beraz, ongi betetzen dute ezaugarri hau.

### 3.2. Gaiaren eraikuntza

#### 3.2.1. Gaiaren sarrera edo hasiera

Debateetan, oro har, moderatzailearen lana da gaiari hasiera ematea, nahiz eta solaskideek ere proposa ditzaketen gaiak debatea arrerra doan heinean. Gure korpusean moderatzaileak metahizkuntza baliatzen du gai nagusia aurkezteko. Egoki aurkezten du kontsigna debatea hasi orduko, lehenengo hitz-hartzean:

1. M: *Arratsaldeon lagunok e gaur hemen eingo dogun debatean gaia hau izango da / osasuna gaur egungo gazteengan / eredua aldatzen ari da //*

#### 3.2.2. Gaia mantentzea

Baliabide diskurtsibo hau hasieran espero genuena baino askoz gutxiago darabilte. Solaskideek sekuentziaren kudeaketa propioak egin eta norabide propioa hartzeko gai direla ikus genezake; hau da, ez dira mugatzen baiezta-tzera/ezeztatzera edo alde/kontra egitera.

Gaia mantentzeak gaiaren saturazioa dakar, eta debate honetan gaiaren saturazioa ez da handia, nahiz eta kasu batzuetan badagoen:

68. S3: *Ba noizbaiten / bueno e egia esan gutxi / baina agian urtero (x2) bider batean bai joaten joaten xx xx medikura hori txekeoakedo egitera hori superzi supertizi (?superstizio) bueno gainetik jomiteko ea nola dagoen e: gure osasuna ta bai kontutan hartzekoa da ere hori ikastetxeek ikastetxeetan e: jende asko etortzen direla ba inkestak egitera hori janari haueri buruz edo elikadurari buruz eta esaten esanez hori zein den horietatik osasuntsuena eta hori gobernuak hori antolatzen du ta kontutan hartzekoa da zeren hori oso responsabilitate handia da uste dugu e nagusien partetik eta yasta / hartu*

Kasu honetan, solaskideak bere biziak pertsonalak kontatzen ditu gaia saturatz, ez baitu ekarpen beririk egiten.

Moderatzaileak ere eragiten du gaiaren saturazioa noizbehinka. Esaterako solaskide guztiei galdera bera planteatzen die, hauei, gaia mantentzera bultzatzuz:

13. M: Zuk zer pentsatzen dozu Xabier?
14. S4: *Nire ustez ba gaur egungo gazteen ehuneko handi batek kiro-la egiten du // e eskoletan da kirolaren balioa azaltzen diote osasunarentzako da halako gauzentzako zelakoa den*
15. M: Beñat ze usteozu?
16. S3: *Bueno ba nik e: baten batean ez nago ados hori berak esan duenarekin baina esan behar dut hori erdizka e erdi e: erdi egie dela zeren e: bueno ikasleen zati handi bat e egiten dutena da ba bueno ikastea ta batzutan hori e: antolaketa oso txarra izaten da eta / bueno ba ikasketak hori oso batera hartzen dira eta asko ikasi behar dute eta denbora asko kentzen die / baina egia da ba denbora izaten dutenean / bueno / batzutan bai e daudela per-tsona asko / hori deportea egiten dutela ta badakitela opzio oso (x3) osantsu osasuntsua dela*
17. M: Arrate zuk ze usteozu?
18. S2: *Ba ni be bai ados nau Beñategaz ze / gaur egun esaten dabe gazte askok eztabe plantietan hori ba telebista ikusten dabelako ta baia / ikasketek kentzen dabe denbora asko da / da azkenenan eztekoguz egunean hainbeste ordu ba dana / ondo / banatzeko edo*

### 3.2.3. Gaia garatzea

Hirugarren baliabide diskurtsibo hau espero genuena baino askoz gehiago ageri da. Moderatzaileak gaitasuna du gaiaren bidea aldatzeko eta segi-tuan antzematen du gaia noiz ari den saturatzen. Solaskideek ere gaitasun handia erakusten dute gaia garatzeko orduan, ia interbentzio guztietai ideia berriren bat proposatzen baitute.

Ondorengo hitzartzean ikus genezakeen moduan, moderatzaileak azpi-gai bat proposatzen du eta solaskideei iritzia eskatzen die. Solaskideek gaia-

ren inguruko ideia berriak proposatzen dituzte, ez dira moderatzailearen esana baieztatzera edo ezeztatzera mugatzen:

36. M: *Ez e hurrengoa adibidez e elikaduran eredua aldatzen ari dala esaten dabie (=dute)*
37. S3: *Bueno ni esan izan naiz da bakarrik hori gazteentzat e (x2) lotzen zaion zerbait gizarte osoari afektatzen dio / egia da gaur egunotan hori e: esaten direnak janari transgenikoak hori modan jartzen ari direla / nik ziur ez dakit hori e osasunerako txarra den ala kontutan hartzeko da batez ere gaztietan loditasun maila askoz ere sendoago askoz ere handiagoa da eta nire ustez horretan antsietateak eragin handia daukala ze mutil asko antsietatea daukatenean hori ba jaten hasten dira ta urduritasunak egiten du*
38. M: *E / esaten dute gazteen ehuneko laurogeiak e fast food-a harten duela e astean birritan / ze uste dozue hau egia dala edo?*
39. S2: *Bueno igual astean birritan lar da baia asteburuetan / argi dau / ba jendea eztala joaten e begetariano batera jaten / ba juten dire edo burger king mcdonalds / eta holako lekuetara dalako merkeaua ta prestatzeko be bebai etxearen egiten badozuz ba askobe (=askoz ere) errezaua da*
40. M: *Mikel?*
41. S1: *Ba uste dot egia dala ta fast food edo janari azkarra gero ta gehiago jaten dala / ta hori ezta gazteen arazoa bakarrik / gurasoena da / gurasoen arazoa izen ahal da e gurasoek e ume txikiei gurasoek emoteotzielako janarie da (=eta) esateotzie nun jan ta dana da kontzentzia arazo bat dalako azkenean / e danon (x2) kontzentzian aldatu (x3) ein bidan gauza bat e ohitura bat e aldatu ein bidan ohitura bat*
42. M: *Jon zuk zegaitik uste dozu azken urteetan e hainbeste fast food jaten dala?*

Bestetik, adibidez eta definizioz hornitzen dituzte argudioak, diskurtsoa aberastuz. Gainera, hitz-hartzeen amaieran proposatutako ideiak birgogoratzen eta azpimarratzen dituzte, euren iritziari enfasia emanez. Horixe ikus genezake adibide honetan:

12. S5: Bueno ba alde batetik ez nago guztiz ados horrekin / euste dut  
e ba egia da ba kirol gitxiago egiten dela ez? ba adibidez telebista-  
gatik e: bideojokoengatik / gazteek gero eta gehiago erabiltzen di-  
tuzte horrelako teknologiak eta / (x2) ba kirol gutxiago egiten da  
baina / hala ere / gazteek ez diote kirola egiteari utzi / kirola egin  
egiten da

Bestalde, moderatzaileak planteatzen dituen galdera murritzak gainditzenten dituzte, hitz-hartze luzeak eta aberatsak eginez. Azkenik, antolatzairen ugari eta mota desberdinak erabiltzen dituzte, eta berauen erabilera egokia da.

Hala ere, gabeziak ere badituzte. Moderatzaileak galdera itxiegiak egiten dizkie solaskideei, bai/ez edo ados/kontra erantzuna dakartenak.

67. M: Zuk ze zenbatero joaten zara e kontrol medikoak egitera?

85. M: Ta zu ze iñoz juan zara natural naturista batengana edo?

Bestalde, zenbait momentutan moderatzaileak solaskideenak izan behar luketen argudioak hartu eta bere egiten ditu. Solaskideek ere burutzen dute akatsik: hitz-hartze luzeegiak egiten dituzte batetik, euren iritzia astunago eginez.

### 3.2.4. Gaia aldatzea

Korpus honetako debatearen gai nagusia bakarra da. Hortaz, ezin generatzen gaikako aldaketarik aurkitu. Alabaina, baditugu hiru azpi-gai eta azpi-gai hauetariko bakoitza gai aldaketa bat dela esango dugu.

Moderatzaileak gai aldaketaren bat egin nahi duen bakoitzean, lehenengo eta behin aurreko ideiaren laburpentxo bat egiten du eta jarraian gai edo ideia berria proposatzen du. Hala ere, badago hutsunerik.

Esate baterako, moderatzaileak baliabide edo antolatzairen diskurtsiboen ezagutza falta du gaiak aldatzeko orduan. Solaskideek gai beraren bueltan ideiak proposatzen dituzte etengabe, baina ez dute gai aldaketarik egiten. Oro har, gure ustez, debate honetako solaskideen helburua, ekarpenak egitea da gai berriak proposatzea baino gehiago.

Hona hemen goian aipaturiko ezaugarriariko batzuk biltzen dituen hitz-hartze sorta bat<sup>1</sup>:

57. M: Arrate ta goxokiak bebai jaki manipulatuak dira? / zuk e ze usteozu gaur egun goxoki asko jaten dire edo:?
58. S2: Ba nire ustez bai / e goxoki gehiegi saltzen die da karo umeak zer jango dabe eztabe jango eztabe gureko bokata bat jan / jaten dabez goxokiek / da horrek dekiez produkto pilo bat ta gehienak eztakigu zeintzuk diezen da (=eta) horrek eiten dau asko hartzen badozuz ba osasunarentzako ezta izango ona
59. M: Ta horren aukako / e zer al dogu ein horren aurka edo?
60. S2: Ba eztakit hori etxean be erakutsi behar da eztala eztuela jan behar hainbeste
61. M: Bueno ba / hori jaki manipulatuak ikusten da ba bere alde onak dekozela adibidez Ikerrek esan dauzenak e eta Jonek horrek kontserbatzaileak edo holakoak / baina badauz e beren kalte txarrak be badekie ez // e badau (x2) topiko bat esaten dabena gaurko (x2) gazteek e eztutela kontrol medikurik pasatzen / zer usteozu honen inguruuen Jon?

Adibide honetan ikus genezake moderatzaileak (M) solaskide bati gai berri bat proposatzen diola eta S2 solaskideak, gaia mantentzeaz gain, ekarpen berri bat egiten duela (58. hitz-hartza, larrosez). S2 solaskideak esandakoaren harira, moderatzaileak galdera berri bat du eta S2 solaskideak ekarpen berri bat eginaz erantzuten dio.

Bestalde, hitz-hartzearen bukaeran moderatzaileak solaskideek egindakoaren laburpena egiten du (61. hitz-hartza, marroiz) eta, ondoren, gaia aldatzen du (61. hitz-hartza, urdinez). Gainera, adibide batez babesten du bere esana.

Ikus genezake, antolatzairen ugari darabiltela, nahiz eta askotan errepikatu egiten dituzten. Bestalde, iritzia emateko esapideak ere erabiltzen dituzte: *adibidez, nire ustez...*

<sup>1</sup> Azpimarraturik: gaia garatzea; beltzez eta hizki zuriekin: gaia aldatzea; gris ilunez: gaia mantezea; gris argiz: laburpenak; lauki batean sarturik: antolatzaireak eta bestelako esapideak.

#### 4. Ondorioak

Oro har, debatearekiko dugun impresioa positiboa da. Debatekideen herriak eta adinak debatearen jarraibidean eragin handia dutela uste dugu. Izan ere, ikusi ditugun datuen arabera, Zornotzan, euskararen ezagutzari eta erabilerari dagozkien datuak hobeak dira beste zenbait herritako egoerarenkin konparatuz gero. Erabilera maiztasun honek, gure ustez, eragin zuzena du gaztetxo hauek debaterako duten gaitasunean. Hala ere, honakoa ez da hipotesi bat besterik. Frogatu egin beharko genuke zonalde erdaldunago batean saiakera berberak zein emaitza emango lukeen.

Bestetik, adinari dagokionez, orain arte egindako debateen azterketek haurren korpusak zitzuten oinarri. Gure korpuseko kideak, ordea, 17-18 urteko gazteak dira eta adinak badu bere isla debatearen kalitatean. Izan ere, zonalde eta hizkuntza ohitura bertsuko bi debate alderatuta (9-10 urteko haurrena eta 17-18 urteko gazteena) ikusi dugu desberdintasuna handia dela. Hala ere, azpimarratu nahiko genuke, ez dela adina debatearen kalitatean eragiten duen bakarra; solaskideei proposaturiko gaiak, aurrelanketak... ere eragin zuzena dute. Debatearen emaitza uste genuena baino hobea bada ere, argi dugu badagoela zer konpondu eta zer landu.

Bestalde, burutu dugun lana euskararen ahozko ezaugarriak aztertzeko baliagarria dela uste dugu. Honetaz gain, eskolan ahozkotasunarekin egindako lanketa kale erabilerarako baliagarria dela deritzogu. Eskolan, gisa honetako azterketak adin desberdineko ikasleekin egingo balira, egunerokotasuneko jardunean eragina izango lukeela esango genuke. Didaktika zehatzten premia nabaria da.

---

\* Lan hau Itziar Idiazabalek eta Leire Diaz de Gereñuk irakasten duten Euskararen Irakaskuntzarako Metodologia (Euskal Filología, UPV/EHU) ikasgaiaren barruan egin zen 2010eko udaberrian.

## Bibliografia

ALDASORO, M. eta ELORZA, I. (2004) «Ahozkotasuna hizkuntza arloan: ikasleari hitz ematen. Planteamendu teoriko orokorra», *Ahozkotasuna: testuingurua eta esperientziak*, Zarautz: Ikastolen elkartea, 99-128 orr.

DE PIETRO, J.-F.; ERARD, S. eta KANEMAN-POUGATHCH, M. (1996/97) «Un modèle didactique du «débat»: de l'objet social à la pratique scolaire», *Enjeux*, 39/40 zka., 100-129 orr.

DOLZ, J. eta SCHNEUWLY, B. (1998). *Pour un enseignement de l'oral*. Paris: ESF.

ELHUYAR (2000) *Elhuyar hiztegia: Euskara - gaztelania. Gaztelania - euskara*, Usurbil: Elhuyar fundazioa.

GARRO, E. (2007). «Jendaurreko Debateak Euskaraz. Diskurtso Erreferituaren Azterketa. «Les débats en basque. Analyse des discours rapportés». EHuko Doktorego Tesi Europarra.

GARRO, E.; IDIAZABAL, I. eta LARRINGAN, L.M . (argitaratzeko [2007]) «Ahozko debateetako zenbait baliabide diskurtsibo eta haien didaktika».

GARRO, Eneritz; IDIAZABAL, Itziar eta LARRINGAN, L. M. (2007): «Gaiaren eraikuntzarako baliabide diskurtsiboak debateetan». In IDIAZABAL, I. eta GARCIA AZKOAGA, I. (Ed.) «Ahozko hizkuntza. Euskararen azterketarako eta didaktikarako zenbait lan (Publicación electrónica de la UPV-EHU) ISBN: 978-84-690-853-1. (Bertsio elektronikoa)

GAZTEEN EUSKAL BEHATOKIA (2008). *Osasuna eta gazteak. Euskadiko gazteen ikusmoldeak osasunari buruz*. Bilbo: Eusko Jaurlaritza.

HARLUXET (1998) *Harluxet hiztegi entziklopedikoa*, Donostia: Klaudio Harluxet fundazioa.

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r432459/eu/contenidos/informacion/dif10\\_curriculum\\_berria/eu\\_5495/decretos\\_normativa\\_indice\\_e.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r432459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/decretos_normativa_indice_e.html) (88-148)

[http://www.zientzia.net/artikulua.asp?Artik\\_kod=5549](http://www.zientzia.net/artikulua.asp?Artik_kod=5549)

LARRINGAN, L. M. (2002). «Debate con jóvenes: interlocución, tema y tarea», *Textos. Didáctica de la lengua y literatura*, 29, 2002. 21-30

REDAL, E.J. eta URIARTE, J. S. (zuz.) (2009). *Baikor 2*. Zubia-Santillana.

# Sare sozial birtualak: kalean bezala sarean!

BARBERENA, Eneko

Txatxilipurdi elkarteko zuzendaria

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Hitz gakoak eginez laburbildu daiteke gaur egungo IKT-en erabilera eta sare sozial birtualen egungo egoera.

**Multifuntzionalitatea:** Gaur egungo gailu elektronikoek aukera asko ematen dituzte. Jada ez da soilik telefonoa. Jada ez da soilik telebista. Are gehiago dira, plataforma birtualak dira non hainbat zerbitzu biltzen diren eta hainbat helburu ase: entretenimendua, komunikazioa, informazioa jasotzea...

**Hartu-emana:** Gaur egungo sarea 2.0 da gehien-gehienean. Hartu eta eman. Erakutsi eta ikasi. Zuzendu eta hobetu. Hori da internetek erabiltzaileoi eskaintzen digun gauzarik ederraketa, beste hiritarrekin (mundu osoko hiritarrekin) hartu-emanezko aukera.

**Sormena:** Sare sozial birtualak eta internet sormena kitzikatzeko tresna paregabeak dira. Sagu kolpe batean, eskura ditugu beste sortzaile eta ekintzaile batzuen lan eta iradokizunak. Eta ez baldin badago... guk geuk sor dezakegu! Hortaz badakigu zerbait euskaldunok (hustetik gauzak sortzea) eta horregatik ondo joan dakiguke sarearen anabasan.

- Aukera: teknologia berrien trena pasatzen utziko dugu euskaldunok ez gaudelako presaturik? Zenbaten behin pasatzen da horrelako tren bat?
- Arrakasta: Gaztetxoengan izugarrizko arrakasta dute sare sozial birtualek, datuak hor daude. Eta saltza non, euskalakaria han.
- Osagarritasuna: Ekin eta Jarrai, Egin eta Eragin. Euskaltzaindiaren eta AED elkartearen hastapenetako leloak. Ez al da osagarria kalean egiten duguna eta sarean egiten duguna?

**Hitz-gakoak:** Multifuntzionalitatea, hartu-emana, sormena, aukera, arrakasta, osagarritasuna.

Mediante unas pocas palabras clave se puede resumir la situación actual del uso de las nuevas tecnologías y las redes sociales virtuales:

**Multifuncionalidad:** Los aparatos electrónicos actuales dan un sin fin de oportunidades. No es sólo el teléfono o la televisión. Las plataformas digitales ofrecen multitud de servicios y cumplen varios objetivos: entretenimiento, comunicación, información.

**Comunicación:** Hoy en día la red es básicamente 2.0. Dar y recibir, enseñar y aprender, corregir y mejorar. Es de lo más positivo que nos ofrece Internet. Poder comunicarse con gente de todo el mundo.

**Creación:** Las redes sociales virtuales e Internet son una magnífica herramienta de creación. A un clic de ratón tenemos acceso al trabajo de otros creadores, a recibir posibles sugerencias, o a ser nosotros mismos creadores.

- Oportunidad: ¡vamos a dejar pasar los vascos el tren de las nuevas tecnologías? ¿Cuántas veces pasa un tren así?

- Éxito: Las redes sociales tienen gran éxito entre los más jóvenes.
- Complementariedad: El trabajo que llevamos a cabo en la red y en la calle deben ser complementarios. *Ekin eta jarrai, Egin eta eragin* lemas de Euskaltzaindia y Arrasate Euskaldundu Dezagun, son dos buenos ejemplos.

**Palabras clave:** Multifuncionalidad, comunicación, creación, oportunidad, éxito, complementariedad.

Grâce à quelques mots-clés on peut résumer ainsi la situation actuelle de l'usage des nouvelles technologies et des réseaux sociaux virtuels :

Multifonctionnalité : Les appareils électroniques actuels donnent des opportunités infinies. Il ne s'agit pas uniquement du téléphone ou de la télévision. Les plateformes numériques offrent une multitude de services et ont plusieurs objectifs : passe-temps, communication, information.

Communication : Aujourd'hui le réseau est en général 2.0. Donner et recevoir, enseigner et apprendre, corriger et améliorer. C'est que qu'Internet nous offre de plus positif. Pouvoir communiquer avec des gens du monde entier.

Création : Les réseaux sociaux virtuels et Internet représentent un magnifique outil de création. Par un clic de souris nous avons accès aux travaux d'autres créateurs, nous pouvons recevoir des suggestions, ou même être nous-mêmes des créateurs.

- Opportunité : nous les Basques allons-nous laisser passer le train des nouvelles technologies ? Combien de fois passe un tel train ?
- Succès : Les réseaux sociaux ont beaucoup de succès parmi les plus jeunes.
- Complémentarité : Le travail que nous menons sur la toile et celui que nous menons dans la rue doivent être complémentaires. *Ekin eta jarrai, Egin eta eragin* les devises d'Euskaltzaindia et de Arrasate Euskaldundu Dezagun, en sont deux bons exemples.

**Mots-clés :** Multifonctionnalité, communication, création, opportunité, succès, complémentarité.

Today's use of ICTs and current use of virtual social networks can be summarised using a set of key words.

Multifunctionality: Today's electronic equipment provides numerous opportunities. It isn't just the telephone any more. It isn't just the TV any more. There are even more, there are virtual platforms that include many services and fulfil many purposes: entertainment, communication, the providing of information, etc.

Relationship: Today the Internet is mostly 2.0. Give and receive. Teach and learn. Correct and improve. That is one of the most wonderful things we Internet users are offered, the chance to communicate with other people (with citizens throughout the world).

Creativity: Virtual social networks and the Internet are unrivalled tools for encouraging creativity. At the click of the mouse we have the work and suggestions of other creators and entrepreneurs at our fingertips. And if not, well, *we* can create it! We Basques know something about that (about creating things out of nothing), and that is why we could be successful in the chaos of the Internet.

- Opportunity: Are we Basques going to allow the train of the new technologies to pass us by because we are not prepared? How often does a train like that come our way?
- Success: Social networks are incredibly successful among young people, as confirmed by the data. And wherever something may be cooking.
- Complementarity: Start and Go on, Do and Exert your influence. The initial slogan of the Euskaltzaindia (Royal Academy of the Basque Language) and of the AED association (set up to promote Basque in Arrasate-Mondragon). And what we do in the street and what we do over the Internet, do they not complement each other?

**Keywords:** Multifunctionality, relationships, creativity, opportunity, success, complementarity.

## Sarrera

Sare sozialek protagonismo handia hartu dute azken urteotan, bereziki nerabe eta gazteen adin tartean. Ziztu bizian doaz informatika eta ziber-mundua eta gizartean badago kezka eta egonezin bat etengabe teknologia berrietan eguneraturik egoteko.

Izan ere, noiztik ari gara honetaz hitz egiten? Hiru urte, lau urte? Noizkoa da «Google»? Eta «Youtube»? Galdera hauen erantzunak garamatza konturatzera nolako arrapaladan ari diren bizkortzen informazio eta komunikazio teknologietan berrikuntzak.

Edozein gizartetan tamainako erronka da sare sozialen fenomenoa ezagutu eta bertan era osasuntsu batean murgiltzea. Baino euskal hiztunon kasuan, hizkuntza minorizatu bateko hiztunak izaki erronka honek beste dimensio bat hartzen du. «Google» hizkuntzez hitz egiten den garaiotan, euskal hiztunon esku dago gure hizkuntzak sarean presentzia izatea. Izan ere, kalean bezala sarean, lan egin behar dugu euskararen erabilera bultzatzeko.

Txatxilipurdik barne erabilerarako egin zuen ikerketa lana sare sozial birtualen inguruan, Amagoia Aristegi ikerlari Bergararraren eskutik. Jakin nahi genuen Euskal Herriko nerabeek nola erabiltzen dituzten sare sozial birtualak eta horretarako hainbat inkesta egin ditugu 11 herri eta hiritan. Lan hau berriz, haur eta nerabeekin lan egiteko dokumentu gisa erabili nahi dugu Txatxilipurdin. Dokumentu horretan oinarrituta dago ondorengoko lana non aisaldi birtualaren ibilbide oso bat egiten den sare sozialetaraino iristeko.

## 1. Aisaldi birtuala

### 1.1. Definizioa

Aisaldi birtuala simulazioan oinarritutako aisia modua da, ikutezina eta funtzio ezberdinak batera integratzen dituena.

Edozein jarduera birtuala izan dadin, gorputza eta objektuaren artean distantzia egon behar da eta bi elementuen arteko distantziak ziberespazioa bezain zabala izan behar du.

Guzti honegatik **aisialdi birtualaren ezaugarri orokorrak** laburbildu ditugu:

- Simulazioan oinarritzen da nahiz eta batzuetan, irudi errealkak integratzen dituen (telebistaren kasua).
- Ikutezina denez, entzumena eta ikusmenaren bitartez hautematen da.
- Funtzio ezberdinak betetzen ditu: Komunikazioa, informazioa, diber-tsioa...

Aisialdi birtualak bilakaera nabarmena izan du XX. mende bukaeran eta XXI. Mende hasieran. Halere, bere hastapenak XIX. mende bukaeran koka-tu ditzakegu irriatiaren agerpenarekin (1890. urte inguruan). Ordukoak dira, besteak beste, familia osoa egongelan irriatiaren inguruan biltzen zireneko eszenak. Hirurogei urte beranduago telebistak hartuko zuen arrakastaz irra-ti uhinen lekukoa. Bigarren Mundu Gerrak bere hedatzea atzeratu bazuen ere, arrakasta handikoa eta hegemonikoa izan da mundu osoan zehar. Euskal Herrian ere, egun, bakanak dira telebistarik gabeko etxeak. Bideojokoek eta kontsolek 1980. urtean ekin zioten ibilbideari gutxi gorabehera eta haur eta gaztetxoengana izan dute arrakasta handiena, nahiz eta azken belaunaldiko jokoek kasuan adin espektroa zabalagoa izan. Hamar urte beranduago, 1990. urtean hasi zen ezaguna egiten internet eta 1991 da world wide web kontzeptua (munduko sare globalaren kontzepturako oso garrantzitsua). Sake-leko telefonoak 1995etik aurrera egin dira ezagunak gure artean eta urte gutxian eboluzio nabarmena izan dute komunikazio tresna izatetik jolasteko aparatura, interneterako terminala, agenda elektronikoa... bilakatu delarik. Amaitzeko, mende berriko lehen hamarkadaren erdialdean sortzen dira sare sozial birtualak (ez dago data zehatzik, baina proposamen lez har dezagun 2004a Facebook sare ezagunena sortu zen urtea delako).

Aisialdi birtualaren ezaugarri bat aipatu dugu garapen abiadura dela, berrikuntza teknologikoak zitzu bizian ari direlako ematen. Baino beste ezaugarria da teknologia hauen etxekotze azkarra munduko zona batzuetan

behintzat (teknologikoki garatuak diren herrietaan behinik behin). Euskal Herrian, Eustaten datuen arabera, 2010. urtean EAEko biztanleriaren %99,1ak erabili zuen interneta. Esan beharra dago, abiada honek banakoari prestakuntza eta inbertsio ekonomiko handia eskatzen diola.

Baina ez da izan soilik etxeratzean nabaritu aisialdi birtualaren erabilera, horretarako berariazko espazioak ere sortu dira. Laurogeigarren eta laurogeita hamargarren hamarkadan joko aretoak izan ziren bideojokoetan jolasteko, hauen ostean ziber-txokoak eta «KZguneak» ere etorri zirelarik. Gaur egun, amaitzeko, egun osoan zehar aukera izan dezakegu aisialdi birtualaz gozatzeko sakeleko telefonoen eta ordenagailu eramangarri zein «tablet»en eskutik.

## 1.2. Aisialdi birtualaren funtzioa

Aisialdi birtualean kokatzen ditugun teknologiek hiru funtzio nagusi betetzen dituzte: Informatu, komunikatu eta jolastearena. Hurrengo taulan jaso ditugu aipagarrienak edo erabilienak direnak, eta egun betetzen duten funtzio nagusia:


### A. taula. Teknologia motak eta bakoitzaren funtzioak

Teknologia berriak	Funtzioak		
	Informatu	Komunikatu	Jolastu
Irratia	X	X	
Telebista	X		
Kontsolak			X
Sakelakoa		X	
Ordenagailua/Internet	X	X	X
Sare sozial birtualak	X	X	X

Betetzen dituzten funtzioez gain garrantzitsua da funtzioko hori betetzeko eskaintzen dituzten parte hartze aukeretan erreparatzea. Teknologia batzuk

besteak baino parte hartze maila aktiboagoa sustatzen dute erabiltailearenengen. Parte hartzearen gaiari heldu aurretik, hala ere, komunikazioaren axiomaz mintzatuko gara. Komunikazio prozesuaren muina ulertu ostean errazagoa baita esan nahi duguna azaltzea.

### B. taula. Komunikazioaren axioma



Komunikazioa eman dadin **beharrezko** da **igorle eta hartzailearen artean** **hartu-emanezko harremana bermatzea**. Mezua jaso duenak, nolabait adierazi egiten du hartu duela mezua. Hartzailearen adierazpen horrek era-gina du igorlearenengen.

Igorlea dena, beraz, hartaile bihurtzen da eta hartzailea igorle. Harremak erabiltzen den kodea era askotakoa izan daiteke: ahozkoa, idatzizkoa, gorputz adierazpenetan oinarritua, kode informatikoetan oinarritua edo kode ezberdinek osatutakoa. Garrantzitsuena igorle eta hartzailearen artean hartu emana ziurtatzea da, **harremanik egon ezean ez dago komunikaziorik**.

Taulan azaldu diren aisialdi birtualari dagozkion teknologia berrietan erreparatzen badugu, aldea aurkituko dugu taulan aipatutako batzuen eta besteentzako artean. Telebistaren kasuan, adibidez, ez da komunikaziorik ematen. Hartzailearen jarrera pasiboa da, telebistak igortzen duena ikusleak kontsumitzen du eta ez da mezurik itzultzen, alde bakarreko mezua da. Ordenagailuak, eta berarekin interneteek, ekarpen azpimarragarria dakar bera-rekin: **hartu-emana**. Harreman mota birtuala izan arren, erabiltailearen aldetik parte **hartzte aktiboagoa** ematen da.

Komunikazioaren esparruan sortu den beste aukera bat telefono mugikorra da. Telefono arruntak duen funtzio berberarekin sortu zen, baina egun, ordenagailuaren funtzioak bereganatzen hasia da. Sakelako telefonoak internet, jokoak, eta era guztiako artxiboak garraiatzeko balio du, eta ordenagailua baino txikiagoa denez, eta haririk behar ez duenez, etorkizuneko makina protagonista izan daiteke. Formatua eta prezioa eskuragarria dituenez, arrakasta handia du jendartean.

Jolasaren esparruan, funtzio ludikoari erantzunez bideo jokoek hedapena eman da. 70.eko taberna eta jolas lekuetako «makiniten» bertsio modernoak dira. Jokoek formatua txikia da eta kontsolan zen ordenagailuan txertatu daitezke. Urte gutxitan protagonismo ikaragarria lortu dute kritikatuak eta baloratuak izan dira.

## 2. Ikt-ak

Ikt internetera lotutako informatikari buruzko termino bezala ezagutzen da, bereziki hauen ikuspegi soziala aintzat hartzen duelarik.

Teknologikoki, Ikt-ak konputagailu eta informatikaren tresnak dira, informazioa modu desberdinan prozesatu, gorde, laburtu, errekuperatu, eta aurkezten dutenak. Informazioa lortzeko eta honen tratamendurako tresna, euskarri eta kanalen multzoa. Hauen adibide batzuk, arbel digitala (ordenagailu pertsonala + multimedia proiektorea), blogak, podcast eta webak dira.

Hezkuntzako ezarpenetarako Ikt-ak bitartekoak dira, ikaskuntza errazten duten eraikuntzarako tresna eta materialak, eta ez helburuak.

### 2.1. Ikt-aren ezaugarriak

Informazio eta komunikazioaren teknologiaren ezaugarri nagusienak ondorengoak dira:

- Komunikazio molde berriei sarrera ematen dietenez, izaera berritziale eta sormenezkoak dira.


- Hezkuntzari onura asko ekarri dizkio, hezkuntza eskuragarriagoa eta dinamikoago bihurtzen baitu.
  - Giza zientzietako soziologia, antolakuntza teoria edota kudeaketari era-giten dio.
  - Teknologia berri garrantzitsuenak hauek dira:
    - Internet
    - Robotika
    - Helburu zehatzetarako konputagailuak
    - Diru elektronikoa

### 3. WEB 2.0

### 3.1. Definizione

Internet 20 urte hauetan aldatzen eta garatzen joan dela argia da. Hasiera batean zientzialari gutxi batzuk erabiltzen bazuten eta gehienbat irakurtzeko eta idazteko balio zuen tresna izanik, gaur egun milioika erabiltzaileen dituen eta **edukiak sortu eta elkarbanatzeko tresna** izatera pasa da.

Web 2.0 erabiltzaileek sortutako eta elkarbanatutako edukietan oinarritzen diren web orrien belaunaldi berria da. **Erabiltzaileen parte-hartzea eta informazioaren elkartrukea** esan nahi du. Interneten garapenaren bigarren aroa bezala definitua izan da eta «*webgune sozial*» ere deitu izan zaio.



Gaur egunean horrenbeste entzun eta erabiltzen ditugun sare sozialak, Wikipedia, EuskalTube, Del.icio.us... Web 2.0 osatzen duten elementuak dira. Baino Web 2.0 Web 1.0 ren garapenetik etorritako bertsio berri eta hobetua da. **Web 1.0**n editoreak zuen protagonismo osoa, edukiak eta informazioa sortu ostean, **erabiltzaileak** orri edo gune hau bisitatzen zuen **informazioaren kontsumitzalea** soil bat izanaz. Web 2.0 an-

berriz, bai eduki aldetik, eta baita aurkezteko moduan ere, aldaketak egin daitezke. Eredu honek milioika pertsonari sarean informazioa argitaratzeko plataforma eta tresnak eskaintzen dizkio. Gaur egun edozeinek dauka blog bat sortzeko, iritzi artikuluak, argazkiak, bideoak... argitaratzeko, eta hau beste erabiltzaile batzuekin elkarbanatzeko aukera. Hala ere, argi izan behar dugu elkarreraginerako tresna bat dela. Wiki bat sortuta inork erabiltzen ez badu, ez du ezertarako balioko. Honetaz gain, beste zalantza bat ere sortzen da; tresna hauek elkarlanean aritzeko tresnak izanik, off-line bizimoduan modu honetan lan egiten ez badakigu, nola lortuko da hau on-line bizimoduan? Lehenik eta behin **tresna hauek erabiltzen ikasi behar dugu, tresna hauek hor egonagatik ez baitute elkarreragiteko, partekatzeko, edota elkarlanean aritzeko filosofia bere horretan transmititzen.** Filosofia hau tresna hauek erabiltzearen ondorioz sortzen da. Web 2.0ren adibide nagusien aurrerago ikusiko dugun Wikipedia da.

### 3.2. Web 2.0 tresnak

Mundu osoan Web 2.0ko tresna ugari daude, euskal komunitatea informatika arloan ere ekimentsua eta potentzial handikoa denez, munduan zehar aurkitu daitezkeen tresnen baliokideak sortzen eta garatzen dituzte hemen ere. Aurretik dauden tresna batzuk euskaratuz eta beste batzuk sortuz. Beheko taulan aurkezten dira tresna orokorrak eta euskarazko tresna baliokideak.

### C. taula. Tresna orokorrak eta euskal baliokideak

Tresna orokorra	Euskal Baliokideak
Blogger	Blogak.com, mundua.com, blogari.com, nireblog.com
Bloglines.com, Google Reader	Alesti.com
Del.icio.us, Mr Wong, Netvibes	Bildu.net
Digg.com	Zabaldu.com
Facebook.com	GeraGaitezen.com
Flickr	Argazkiak.org
Fotolog.com	Nirudia.com
Freevlog.com	NireTV.com
Google	Elebila.eu, aurki.com, euskara.org, jalgi.com, kaixo.com
Platial.com	Tagzania.com
Slashdot	Sustatu.com, zuzeu.com, marrapuntu.org
TeacherTube.com	Ikastube.com, ikasvlogak.blogspot.com, eduvlog.org
Tuenti.com	Zugaz.com, Zulozale.com
Wikipedia.org	Eu.wikipedia.org
WordPress.org	Eu.WordPress.org
YouTube.com	EuskalTube.com

## 4. Internet

### 4.1. Definizioa eta datuak

Internet ezagutzen edota erabiltzen ez duten gutxi izango dira teknologia ezinbesteko bihurtu dugun gizarte honetan. EAE-n Eustatek (<http://www.eustat.es>) 2009. urtean egindako inkestaren arabera **15 urte baino gehiago** erabiltzaileak % 51,7 gara. Gutako askok gure egunerokoan erabiltzen dugu; lanerako, astebururako iragarritako eguraldia edo eskaintza kulturala ikusteko, lagunekin komunikatzeko, jolasteko, ikasteko, etab luze bat.

Historia apur bat eginaz, Interneten aurrekaria Arpanet izeneko sarea zen (AEBko militarrek sortua unibertsitate ezberdinen laguntzarekin (lau ordenagailu konektatu zitzuten aldi berean). 1991. urtean garatu zen *world wide web* kontzeptua, munduko sare globala sortzeko ezinbesteko urratsa. Hiru urte beranduago, 1994. urtean eman zen komertzializazioa eta nola-baiteko orokortzea/irekidura. Google moduko enpresa bat, 1997. urtean sortu zen (oso enpresa gaztea da beraz, nahiz eta interneteko aroa ikusirik beteranoa izan).

1994.urtean komertzializatu zenetik,15 urteetan izandako arrakasta ikaragarria izan da. 2006ko urtarrilaren 3an internetek 1000 milioi erabiltzaile izatea lortu zuen. Gaur egun, beheko taulan ikusten dugun bezala, 1.668.870.408 erabiltzaile ditu, munduko populazioaren % 24,7, hain zuzen ere. 2016.urterako sareko erabiltzaileen kopurua 2.000 milioitara igoko dela aurreikusten da.

Beheko taulan interneteko erabiltzaileak herrialdeka sailkatuta ikusten ditugu. Bertan, Ipar Amerika izango litzateke internet erabiltzaile gehien dituen herrialdea, Ozeania eta Australiak jarraituta. Azkeneko postuan berriz Afrika egongo litzateke, bertako biztanleen %6,7ak besterik ez baitu internet erabiltzen. Hemen kontutan hartu beharko genuke kontinente honetako zenbatek izango duen amarauna erabiltzeko aukera.

## MUNDUKO INTERNET ERABILTZAILEEN ESTATISTIKA

**D. taula.** Internet erabiltzaileak kontinentekoa

Herrialdea	Biztanleria	% Mundu biztanleri	Erabiltza	% Biztanl	Hazkundea (2000-09)	% Munduko erabil
Afrika	991.002.342	%14,7	65.903.900	%6,7	%1.359,9	%3,9
Asia	3.808.070.503	%56,3	704.213.930	%18,5	%516,1	%42,2
Europa	803.850.858	%11,9	402.380.474	%50,1	%282,9	%24,1
Ekialde Hurbila	202.687.005	%3,0	47.964.146	%23,7	%1.360,2	%2,9
Ipar Amerika	340.831.831	%5,0	251.735.500	%73,9	%132,9	%15,1
Latinoamerika/ Karibea	586.662.468	%8,7	175.834.439	%30,0	%873,1	%10,5
Ozeania/ Australia	34.700.201	%0,5	20.838.019	%60,1	%173,4	%1,2
Munduan guztira	6.767.805.208	%100,0	1.668.870.408	%24,7	%362,3	%100,0

2009ko ekaineko datuak Iturria: <http://www.exitoexportador.com/stats.htm>

## EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO ESTATISTIKA

**E. taula.** EAeko internet erabiltzaileen estatistika

Euskal a.e	Lurraldea				Sexua		Adina			
	Araba	Bizkaia	Gipuzk	Emak	Gizon	15-24	25-34	35-44	45 urte baino gehia	
2009	51,7	51,2	51,8	51,7	47,7	56,0	91,7	80,0	71,5	28,6

2009ko Maiatzaren 15a.

Iturria: EUSTAT. Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta –IGIF (<http://www.eustat.es>).

Baina, zer da internet? Zein da bere definizio zehatza? Era simple batean azaltzeko, internet munduan telekomunikazio azpiegitura zabal batean bidez konektatuta dagoen ordenagailuen sarea da.

Eta konektatuta egote honek hamaika aukera eskaintzen dizkio erabiltaileari: musika entzun, erosketak egin, sozializatu, bidaiaiak antolatu... Oinezkoen bizimoduaren ispilua dela esan dezakegu, off-line egiten dena online egin daitekeelako.

#### 4.2. Internet genero ikuspegitik:

- Emakumeak teknologia berriestatik hurbil daude Euskal Herrian bederen, baina badaude hainbat oztopo oraindik (publizitatea gizonezkoei dedikatzen zaie bakarrik, emakumeen inbisibilizazio handia dago).
- Nahiz eta goi ikasketatan emakumeak gehiengoa izan, ikasketa teknikoetan gutxiengo izaten jarraitzen dute. Nahiz eta ogibide guztiak gero eta lotura hertsiaigo estuagoa izan internetekin, nabarmena da ingenieritza informatiko eta telekomunikazioetan emakumeen presenzia urria dela.
- Haurtzaroko bideo-joko gehienek estereotipo maskulinoak zabaltzen dituzte (neskentzat mezu goxoak, mutilentzat abentura etaemozioak).
- Emakumeentzat eduki gutxiago dago interneten gizonezkoentzat baino, informazio eredua oso androzentrikoa da. Interneten, irudi aldetik bederen, oso lotua dago emakumea estereotipo tradizionalei eta pornografia/erotismoari.

#### 4.3. Internet hizkuntza ikuspegitik:

**Internetek kultura desberdinak ezagutzea ahalbideratzen digu**, baina honek ere badauzka bere **arriskuak**. Informazioa beti leku berdin edota anitzerakoetatik etorriz gero, ohitura, hizkuntza, bizi eredu eta azken finean **kultura bat ezartzeko arriskua ekar** baitezake. Kultura eta herrialde batek bere baloreak galdu ditzake, bere hizkuntza, historia, musika, dantza, norrasuna ...

Hizkuntzaren erabileraren inguruko datuei erreparatuta, ingelesa da gehien erabiltzen den hizkuntza, 464 milioi erabiltzailerekin, ondoren txinera

daukagu eta hirugarrenik gaztelania. Munduan 5.000 tik 6.000ra hizkuntza erabiltzen direla aintzat hartzen badugu, honek ez du islada handiegirik interneten (hizkuntza indartsuak ageri dira soilik eta hor euskarak badu presentzia, beste hizkuntza minorizatu batzuek ez ordea).

Hona hemen euskararen sustapenerako egin daitezkeen hainbat gauza:

- Ziber euskara (terminologia adib.) sortu eta sustatzeko beharra dago.
- Eleanitzasun testuinguru batean, asmatu beharko dugu euskarari zentratitatea ematen.
- Euskarazko edukiak sortzeko beharra dago etengabe.
- Produktu informatiko-digital euskaldunak zabaltzeko beharra dago.
- Ingurune kultural hurbileko behar kultural-sozialak erantzuteko estrategiak behar dira.
- Sorkuntza eta itzulpengintza profesionala bultzatu behar dira.

#### **4.4. Internetek eskaintzen dituen aukerak:**

- Zerbitzu ugari eskaintzen ditu (eposta, bilatzaileak, txat-a...).
- Informazio aukera alimalekoa (galbahe gabe askotan halere).
- Komunikazioa: gailu azkar eta boteretsua, komunikazio erreala osagarritzen duena.
- Globalizazioaren testuinguruuan hiztun talde minorizatuentzat aukera eta mehatxu da aldi berean. Hizkuntzaren prestigioa sakontzeko, Patxi Juaristik dioen moduan, hizkuntza gutxituen presentzia ezinbestekoa da.

#### **4.5. Interneten mehatxuak:**

- Gehiegizko kontsumoa izan liteke gizartean alarma gehien sortzen duen interneteko aspektua. Dena den, ez dago alde gehiegirik orduei dago-kionean telebista kontsumoari dagokionean. Honek ez du internet santifikatzen, baina ikus-entzunezkoen gehiegizko kontsumoen tradizioa internet bera baino zaharragoa da.

- Ordenagailuko funtzionamenduari eta datuen segurtasunari kalteak: spam-a, birusak, hoax-ak, pop-up leihoa...

## 5. Sare sozial birtualak

### 5.1. Definizioa

Gaur egungo mundu globalizatuan mundu osoko pertsonen arteko harremanak gero eta estuagoak dira. Duncan Watts soziologoak esana du, Frygues Karinthy idazlearen ideia harturik, munduko ezein pertsonarengana iris gaitezkeela sei urratsetan.

Numerologian jarraituz, sareen indarraz hitz egiterakoan aipatzen da pertsona bakoitzak bataz beste ehun lagun inguru ezagutzen dituela. Horrek esan nahi du, mezua bat bakoitzak bere kontaktu denei igorri gero mezuanen proiekzioa ikaragarria izan litekeela. Hasieran ehun, gero mila, gero hamar mila, gero milioia...).

Baina zer dira sare sozial birtualak? Lehen definizio bat emateko, esan dezakegu sare sozial birtualak elkarrekintza sozialeko moduak direla, talde edo erakundeen artean testuinguru konplexu batean gertatzen diren truke dinamikoak.

Baina horrez gain, zer eskaintzen dute sare sozial birtualek? Bigarren definizio bat ere eman daiteke, edukiak aintzat harturik: web bidezko plataformaak dira sare sozialak, zerbitzu ugari eskaintzen dituztenak eta harpidetuak bere profila egiten du informazio pertsonalaz lagunek etab. bisitatu dezaketena.

Iban Arantzabal Goienako kide eta blogariak dio, definizioa osatzeko, etengabe eraikitzen ari direla sare sozial birtualak eta dinamikotasuna dela beraien ezaugarrietako bat.

Iratxe Esnaola informatikariak eta Deustuko Unibertsitateko irakasleak dio sistema irekiak direla sare sozialak, elkartruke dinamikoak eta elkarrekintza sozialerako metodoak.

Izan ere, hirugarren definizio bat ere egin dezakegu sare sozial birtualen inguruau aurreko bien osagarri: sare sozial birtual bat profil ezberdinen latura da, egitura sozial bat lortzeraino.

### 5.2. Sare sozial birtualen zerbitzuak

Sare sozialek zerbitzu ezberdin ugari eskaintzen dituzte era dinamiko batuan. Honela zerbitzu ez arrakastatsuak kentzen dira, zerbitzu berriak sartzen dira... Hona hemen sare sozial birtualetan eskaintzen diren ohiko zerbitzu garrantzitsuenak:

- Argazkiak, bideoak, musika, estekak... elkarbanatu, jendeari informazioa eskaini edo gertakari baterako interpelatu etiketazioaren bidez.
- Helbide agenda automatikoki eguneratzea.
- Jokoak, bakarrik edo beste erabiltzaile batzuekin batera jolasteko.
- Eguneroko pertsonal bat egiteko aukera.
- Forotan parte hartzeko aukera.
- Txat-a.
- Eposta bidez mezuak bidali eta jasotzeko aukra.
- Pertsonak ezagutu edota gomendatzea eta lagunei interesatzen zaizkigun pertsonak aurkeztu edota gomendatzea.

### 5.3. «Lagun» kontzeptuari buruzko ñabardura bat

Txatxilipurdin komenigarri ikusten dugu haur eta nerabeekin kontzeptu hau lantzea, bereziki argi utziz ez dela gauza bera sare sozialeko lagun izatea eta bizitza errealeko lagun. Hor bereizketa bat egitea komenigarri ikusten dugu.

Dena den, esan beharra dago sare sozial birtualei esker jada badiren harremanak sendotzen direla. Hots, ez direla erabiltzen jende ezezaguna ezagutzeko salbuespenak salbuespen. Beste era batean esateko, aurretiaz ezagutzen dugun jendea dela lagun egiten duguna.

Amaitzeko, ohartu nahi genuke ere badela arriskua popularitate dematan hasteko sare sozialetan. Izan ere, oso era grafikoan ikusten da bakoitzak zenbat «lagun» dituen. Lehen puntuarekin lotuz, gure iritziz nerabearekin hitz egin beharra dago laguntasunaz gutxiagotasun-konplexurik sor ez dadin.

#### **5.4. Hainbat datu interesgarri sare sozialez**

Sare sozial birtualen fenomenoaren hedadura handia ulertzeko, hona hemen hainbat datu:

- Facebook-en 380 milioi profil daude sortuak, bataz beste munduko biztanleen %5a litzateke hori.
- Spainiar Estatuko internet erabiltzaileen %55a egunero sartzen da sare sozialetan, astean behin %80a (Sare Sozialen Behatokiko datuak dira).
- Facebook da lehen sarea Spainiar Estatuko erabiltzaileen %64arentzat, Tuenti %33arentzat. Gainontzeko %3a beste sareen artean banatzen da.
- Emakumeak dira gehiengo sareen %84an, baina Facebook eta Twitterren parekotasuna dago.

#### **5.5. Sare sozial birtualen historia laburra**

Sare sozial birtualak fenomeno oso gazteak dira eta 90. hamarkadaren bigarren amaieran kokatzen dira beraien hastapenak:

- *Sixdegrees* izan zen lehen sarea, 1997an sortua (paradoxikoki porrot egin eta 2000. urtean itxi zen).
- Ondoren *Livejournal.com*, zeinak barnebiltzen zituen bloga, eguneroko pribatua... Interes enpresarial eta publizitarioen bultzadaz sortu zen.
- *Ryce.com* izan zen munduko lehen sare sozial birtual espezializatua. 2001. urtean sortua, negozio mundurantz bideratu zen.
- 2002an sortu zen *Friendster*. Bere baitan zituen on-line zerbitzu ezberdinak, gustuen arabera antolatzeko aukera ematen zuen...

- 2003an sortu ziren *Myspace* eta *Fotolog*. Lehenak musika munduan izan du garapen handiena (musika taldeek promozionatzeko eta kantak konpartitzeko erabiltzen dute) eta bigarrenak arrakasta handia izan bazuen ere hasiera batean orain erresiduala da erabileraz.
- 2004an *Flickr* eta *Facebook* sortu ziren. Lehenak argazkiak igo eta konpartitzeko funtzioa du eta bigarrena berriz mundu mailako fenomeno bihurtu da (eragin kultural nabarmena izan du, pelikulak egin dira berari buruz...).
- 2005. urtean *Yahoo 360* eta *Bebo* sortu ziren.
- 2006. urtean *Tuenti* eta *Twitter*. Lehenak nerabeen artean arrakasta handia du Hego Euskal Herrian eta Espainiar Estatuan eta bigarrenak iraultza bat suposatu du kazetaritzan.

### 5.6. Euskal sare sozial birtualen historia laburra

Sare sozial birtualen olatua ere euskaldunongana iritsi da eta gurean ere nahikoa garaiz egon da alor honi heldu dionik.

1. 2008an helduontzako den *geragaitezen.com* sortu zen Goierrin,
2. Gaztezulok *zulozale.com* sortu 2008an baita, gazteei zuzendua.
3. Goienak *zugaz.com* sortu 2009an Debagoienan, haur-nerabeei begira.
4. 2010an *zutagu.net* sortu da ezagutza partekatzeko hezkuntzaren eremuan eta profesionalen arloan.

### 5.7. Sare sozial birtualen onurak

Sare sozial birtualen inguruan eztabaidea eta kalapita sortu da, ezein aurrerakuntza teknologikorekin sortzen den legez. Panazea unibertsal bat ez diren arren, badituzte hainbat onura eta hona hemen horietako garrantzi-tsuenak Txatxilpurdiren ustez:

- orokorrean eragin positiboa dute, etorkizuneko lan tresnekin trebatzen direlako nerabe eta gazteak modu ludikoan eta harremanen sarea elikatzten dutelako sozializatz!
- Sare sozial birtualetan aritzeak ondo sentiarazten die. Hor galdera da zeri kentzen dien denbora sare hauetan aritzeak: telebista ikusteari, eskolako lanei, lagunartean egoteari...
- Sare sozial birtualek norbere irudia talde baten baitan kokatu eta hau kudeatzeko beharra sortu dute (gait. sozialak landu, mundu fisikoaz bateragarria da...).
- Eskolako lagun/kideekin sinergia berriak sortzen dira.
- Anonimoa ezagutzera eman dezake, eta ezberdina berdintzen eta marginatua integratzen ahalegindu.

## 5.8. Sare sozial birtualen kalteak

Sare sozial birtualen kalteen artean pribatutasunaren galera jotzen dugu garrantzitsuentzat. Dena den, hona hemen sor litezkeen arrisku garrantzi-tsunetako batzuk:

### 1. Pribatutasuna:

Bizitza errealean ere gero eta zailagoa da garai hauetan pribatua gorde-zea, izan ere, gure gero eta jarduera gehiago geratzen dira erregistraturik (ordenagailuetako IP zenbakiak, kreditu txartelaren mugimenduak...).

Sare sozial hauetan guk geuk igotzen dugu informazioa edo hirugarren batek igo dezake gurekin erlazionaturiko edozer. Gu bagara hirugarren batzen informazioen bat igo behar dugunok, komeni da baimena eskatzea honi ezer egin aurretik.

Pribatutasun klausula nahasgarriak dituzte sare sozialen atzean dauden enpresa askok (adib. Facebook sareak) eta komeni da jabetzea kide zaren sareen ezaugarri garrantzitsuenez.

Amaitzeko, pribatutasuna ahalik eta ondoen gordetzeko hona hemen hainbat gomendio: kontuz ibiltzea sarean jartzen diren esaldiekin, pasahitz seguruak erabiltzearen komenientzia, ez ematea ez helbide ez telefono pertsonalik, sare sozial ezberdinatan pasahitz ezberdinak erabiltzea, profilean izen eta bi abizenak ez jartzea...

### **2. Argazki desegokiak igotza:**

Argazki desegokiak igotza izan liteke sare sozialen beste kalteetako bat, batez ere argazki hauek izan dezaketen hedadura azkar eta handiagatik. Horrez gain, behin edukiak internetera igota, oso zaila da hauek guztiz ezabatzea. Horrenbestez, ez igo denbora batera damua sor dezakeen argazkirik...

Hirugarren baten argazkiak igotzeko, errespetu txarrekoa da honen baimenik gabe igotza. Txatxilipurdin diogun moduan, herriko plaza nagusian jartza bezain publikoa da argazkia sare sozial birtualetan eskegitzea.

### **3. Ziberbulling-a:**

Bulling-ak azken urteotan sarean ere izan du bere ordaina. Argazkiak lortu ondoren berauekin xantaia egitea, mehatxuak, nortasun ordezteak, intimitateari erasoak... Adingabeen kasuan, gomendioa da horrelako egoeraren bat nozituz gero heldu bati abisua ematea.

### **4. Isolatza:**

Ordenagailuak tartean daudenean, heldu askoren kezka izan ohi da gazteak beraien logelan isolatzea. Honen aurrean, gure ustez osasuntsua da ondorengo galderei erantzuna aurkitzen ahalegintza: zer da nerabe/gazteek nahi dutena? Sare sozialetan aritzen direnean gaitasun teknologiko eta sozialak lantzen dituzte? Ez al da kezkagarriagoa sare sozial birtualetan ez egotea? Zeri kentzen dio denbora sare sozial birtualetan ez egoteak?

Gure ustez gakoa da jarduera hauei neurria hartzea eta kontuan hartzea gazte guztiak ezberdinak direla eta oreka bat ezinbesteko dela kale eta sarearen artean. Beste era batean esateko, errespetua eta konfiantza izatea gaztearengan!

### 5. Adikzioa edota denbora neurrigabea sareetan nabigatzen:

Esan beharra dago sare sozialen erabiltzaileek, salbuespenak salbuespen, ez dituztela alboratzen kaleko lagunak (sareetako harremana harreman osagarria baita, ez nagusia). Gure ustez helburua interneteko denbora gazteekin adostea eta neurtea izan behar da.

### 6. Asmo txarreko ezezagunekin komunikazioa:

Aspektu honi dagokionean, komeni da gaztetxoenei azpimarratzea kalean bezala jokatu behar dutela sarean. Ezezagunekin harremantzeko orduan arreta eduki behar dela, ez dela komeni interneten ezaguturiko ezezagunekin hitzorduak jartzea, webcama era seguruan erabili behar dela...

### 7. Pishing-a:

Arreta eduki beharra dago seguruak ez diren orriekin eta asmo txarrez eginiko web orri originalen suplantazioarekin.

## 6. Txatxilipurdiren ikerketa

Ikerketa hau 2009 eta 2010 urte artean egin zen, Amagoia Aristegi ikerlariaren eskutik. Bertan, Euskal Herriko aditu ezberdinekin elkarrizketak egin ziren (Iban Arantzabal, Maite Goñi, Patxi Gaztelumendi, Iratxe Esnaola...) eta horrez gain inkestak egin zitzaitzien 460 gaztetxori.

### 6.1. Gaztetxoei eginiko inkestak

Lagina: 460 gaztetxori 11 galderatako galdeategi bat pasa zitzaien idatziz ikastetxeen bidez. Herri txikietan (Antzuola, Elgeta, Aramaio, Ugao), erainetan (Arrasate, Bergara, Etxebarri eta Arrigorriaga) eta handietan (Bilbao, Basauri, Galdakao).

- 10/12 urtetakoak 187.
- 12/14 urtetakoak 167.
- 16/18 urtetakoak 107.

**Ondorioak:**

- 10/12 urte artekoentzat Messenger programa da nagusi (momentuko elkarrizketak dituztelarik gustuko).
- Tuenti da denentzat arrakastatsuena (12 urtetik gorakoentzat). Anekdota moduan komeni da aipatzea Espainiar Estatuan sare sozialetan aritzeko adin minimoa 14 urtekoa da.
- Gehienbat komunikatzeko erabiltzen dira sare sozialak: koadrilekin kontaktua izateko, parrandak komentatzeko, lagunek sarean eskegitako azken argazkiak edota iruzkinak ikusteko... Beste erabilpen batzuk: ondo pasatzeko, kuxkuxeatzeko, ligatzeko, denbora pasa gisa...
- Gehien Tuenti sarea erabiltzen da Hego Euskal Herrian, batzuk honekin batera Myspace, Facebook, Fotolog... Debagoienan Zugaz ere erabiltzen da, Goiena Komunikazio Taldeak sortua.
- Sare sozialetan gazteen euskararen erabilera kalean dutenaren antzekoa da: aztertu ditugun herrien datu soziolinguistikoekin aldera li teke erabilera hori.
- Erabilera amitzak baliatzen dituzten, zuku dena ateratzen diente sareei: txateatu, argazkiak igo/ikusi/komentatu, mezuak bidali...
- Gehienbat asteburueta ibiltzen dira, astean zehar arratseko zortzietatik aurrera (eskolaaz kanpoko jarduerak amaitzean). Asteburuan patroirik ez, ohitura aniztasuna dago.
- Denborari dagokionean erantzun ezberdinak jaso ditugu, nahi bestetik 5 minutura. Gehienak 15 -60 minuturen artean eguneko.
- Nerabeek arriskua ezezagunetan ikusten dute, gurasoek aldiz birusetan.
- Panda enpresaren arabera gazteen %62<sup>a</sup> egunero ibili sareetan, 18,5 min delarik bataz bestekoa egunero.

**6.2. Adituei elkarrizketak**

Aditu ezberdinei eginiko elkarrizketen laginak edo hausnarketak:

- Aisialdi aktiboa igo egin da, teknologiekin lotua dena. Egunero media 13 minuto eskaintzen dizkiete bataz beste hiritarrek ordenagailuei aisiar.
- Iratxe Esnaola: Sare sozialak ez ditu gure harremanak ordezkatu, baina denbora gutxiago eskainiko diegu kaleko harremanei. Gure harremanak osatuko ditu, komunikatuago gaudenaren sentsazioa emango duelarik.
- Maite Goñi: sare sozialak direla eta ez dira kaleko lagunak alde batera utzik. Batzuk isolatu, baina beste batzuk sozializatu harreman birtualak hezurmamitzean.

### 6.3. Txatxilipurdiren azken ondorioen laburpena

ARRISKUAK BAI, BAINA...

Kalean ez dago arriskurik? Umeekin kalera joatea ez da arriskutsua? Nerabeak kalean solte egotea ez da arriskutsua? Gure ustez urteetako esperientziaren poderioz kaleko «arriskuak» kontrolaturik ditugu (kotxe trafikoa, haur eta gazteen joan-etorriak...) baina sarea hain da berria oraindik beldurra sortzen duela. Honek, halere, ez du esan nahi sarea arriskutsua denik behar den arreta edukitzen bada.

Debekua ez da irtenbidea: bitzitzalak egiten ari dira sare sozialetan ere eta gainera ez du ordezkatzeko eskolako patioa, osagarritu egiten du!

Obligaziorik ez: ez obligatu haur-nerabea bere borondatearen aurka sare sozialetan aritzen ez badu nahi..

Konfiantzazko komunikazioa behar da gaztearekin, jarrera intrusiborik gabe hitz egin. Konfiantza ezinbestekoa da, kalean ere ez dakigu zertan ari diren nerabeak uneoro!

1ngo pausoan norbera informatzea. Guk azaldu behar diegu nola erabili, kalean nola jokatu erakusten diegun moduan.

## Bibliografia eta lanean zehar egiten diren aipuak

ARANTZABAL, Iban: Komunikazioan aditu elgetarra eta Goiena taldeko kidea, lanerako oinarri gisa hartu dugu berarekin eginiko elkarrizketa 2009ko udazkenean. Ondorengo hedabidetan aurkitu daiteke bere lana: <http://www.arantzabal.com/> eta [www.sustatu.com](http://www.sustatu.com).

ESNAOLA, Iratxe: Deustuko unibertsitate irakasle zarauztarra, lanerako oinarri gisa hartu dugu berarekin eginiko elkarrizketa 2009ko udazkenean. Bere lanak *Gaur8* aldizkarian edo [www.guraso.com](http://www.guraso.com) gunean argitaratzen ditu besteak beste. Azken webgune honetan bada bere artikulu interesgarri bat sare sozialen inguruan.

FERNANDEZ, Luistxo: Informatikari eibartarra eta Codesyntax enpresako kidea, lanerako oinarri gisa hartu dugu berarekin eginiko elkarrizketa 2009ko udazkenean. Hainbat hedabidetan kolaboratzen du (bereziki [www.sustatu.com](http://www.sustatu.com) gunean) eta informatikaren eta sare sozial ezberdinen aspektu ugari lantzen ditu.

GOÑI, Maite: Ordiziako Jakintza ikastolako eta Mondragon Unibertsitateko irakaslea, IKT-en gaia hezkuntzan lantzen aditua. Bere webgunea [www.maitego.com](http://www.maitego.com) da, eta hainbat hedebideetan kolaboratu izan du. Berarekin 2009ko udezkenean eginiko elkarrizketen oinarritu gara.

WATTS, Duncan: Columbia Unibertsitateko irakaslea, 2003an argitaratu zuen «Six Degrees: The Science of a Connected Age» obra. Informazio gehiagorako gaztelaniaz dagoen [http://es.wikipedia.org/wiki/Duncan\\_J.\\_Watts](http://es.wikipedia.org/wiki/Duncan_J._Watts) artikulua.

# **Mahai-ingurua**

Honako hauek izan ziren mahai-inguruan parte hartu zutenak:

**ESCANDON, Aritz**  
Kultur Kabiaren zuzendaria

**ALTUNA, Jaime**  
Urtxintxa Aisialdi Eskolako partaidea

**GARMENDIA, Lierni eta OTAMENDI, Irati**  
Ordiziako Jakintza Ikastolako Batxiler 1eko ikasleak

**JAUREGI, Ander eta LOPEZ, Joseba**  
Gasteizko Mendebaldea Institutuko Batxiler 2ko ikasleak

Moderatzailea:

**AMONARRIZ, Kike**  
Soziolinguista

Partaideei zortzi galdera bidali zitzakien alde-z aurretik, presta zitzaten. Horietatik 6 jorratu ziren mahai-inguruan, aurrera begira erabili beharreko estrategien ingurukoa eta sare sozialei buruzkoa alde batera utzi behar izan ziren denbora faltaz.

Hona, mahai-inguruak eman zuena.

**1. Zein da zuen pertzepzioa gazteen arteko euskararen erabilerari buruz? Aurreko belaunaldiak baino gehiago edo gutxiago egiten dute/duzue? Eta hamar urte zaharragoek baino gehiago ala gutxiago?**

**Aritza.** Ni bilbotarra naiz eta Bilbon zentratuko naiz. Nire ustez pertzepzioa da gutxi egiten dela eta ezagupenaren eta erabileraren arteko aldea orain handiagoa dela. Lehen, Bilboko gazte gehienek ama-hizkuntza gaztelania zuten eta euskara eskolan jasotzen zuten. D ereduaren datuak duela 20-25 urte kaskarragoak ziren, baina, denbora honetan, ez da egon horrelako saltorik erabileran (neurketen arabera, %4-5aren inguruan dabil). Bai esango nuke, ordea, neskek mutilek baino gehiago egiten dutela. Gure programetan ere hala ikusten da, bai partaidetzan eta baita joeretan ere.

Bestalde, urte hauetan, eta batez ere aisialdian, fenomeno berriak gertatu dira: Internet, sare sozialak, ohiko eskola ordutxan kanpoko jarduerak (lehen baino gehiago egiten dira), saltoki handien ugaltzea, etab. Zazpi Kaleetan gaude. Orain dela gutxi lagunak afari batean elkartu ginen «gure garaia» gogoratzeko. Lehengo lekuetara joan ginen eta gu bakarrik geunden. Zoazte Iturribide kalera; lehen beteta zegoen eta orain ez dago inor. Eta hori ez da ez ona eta ez txarra, kontua da egoera aldatu egin dela, beste barik.

**Joseba.** Aritzek esandakoari jarraituz, Gasteizko eta Bilboko egoerak ez dira oso desberdinak. Gasteizen gazteek oso gutxi egiten dute euskaraz, eta euskaraz hitz egiten dugunok –euskaraztak– ez dugu erraztasunik topatzeko euskara erabiltzeko.

Lehen ere, gure gurasoen garaian, Gasteizen ez zen euskara asko egiten. Bainan kontutan hartu behar da Gasteiz hiri bat dela eta leku askotako jendea biltzen dela bertan. Hamar urte zaharragoek, aldiz, guk baino askoz ere gehiago egiten dute euskaraz, orokorrean.

**Irati.** Ordizian, prozesu bat gertatzen dela ikusten dugu. Hasiera batean umeek euskaraz egiten dute beti, nahiz familia euskaldunekoek nahiz erdal-dunekoek, baina gaztarora heldutakoan erdara geroz eta gehiago entzuten da eta iruditzen zaigu gero eta lehenago hasten direla, 14 urterekin edo. Gero, gure adinean, gazteak bueltatu egiten dira euskararen erabilerara. Helduen artean, denetatik aurkitzen da.

Gurasoek eta ingurukoek kontatu digutenaren arabera, geroz eta gehiago entzuten da euskara, beren garaiarekin konparatuta behintzat. Baina, ez dakit, nik behintzat nahikoa euskara gutxi entzuten dut gazteen artean.

**Jaime.** Datuek adierazten digute euskara gehiago erabiltzen dela orain, duela 30 urte baino. Pertzepzioen kontua ordea, beste bat da. Gure esperientziaren arabera, gazteen pertzepzioa da gutxi egiten dela. Ez dakit ordea, guk bultzatutakoa ez ote den. Hainbestetan esan diegu gutxi egiten dutela, azkenean, sinistu egin dutela.

Egia da hor prozesu bat gertatzen dela eta erdararen erabilera handitzen joaten dela. Inpresioa dut 12-16 urtetako gazteen artean gaztelaniarekiko joera oso agerikoa bihurtzen dela, eta ondoren, euskarazko erabilera zer-txobait berreskuratzeko dela. Pasaiako adibide bat jarriko dut, bertan gazte askorekin ari baikara lanean, aisialdi programa batean. Lehen ikusi dugu, Gasteiz, Bilbo, Ordizia edo Tolosa oso desberdinak direla. Esango nuke, herri txikiak alde batera utzita, herri gehienetan, kontraste guztiak gertatzen direla. Lehen Mintzolakoek Tolosako hiru ikastetxeetako datuak eman dizkigute eta hor ikusi da herri berean zer nolako desberdintasunak dauden. Pasaia bera ere, oso ingurune anitza da. Donibaneko gazteek eta Trintxerpekoek, soziolinguistikoki, ez daukate zerikusirik. Trintxerpeko gazteek etxeen ez dute euskaraz hitz egiten inoiz, kalean ez da apena entzuten eta, eskolan jaso arren, ez dute beraien artean ia inoiz egiten. Donibanen, Lezon edo Antxon askoz ere gehiago erabiltzen dute, guri gutxi iruditu arren.

Iaz autobus bat antolatu genuen eskiatzeria joateko gazte horiekin guztiek, eta Trintxerpekoak autobusera igo zirenean, gazte batek honako hau esan zion beste bati: «*Mira! Son raritos*». Itxura zen, baina hizkuntzak dakan-ren estetikarekin zerikusi handia zuen. Horregatik, pertzepzioak aipatu ditugunez, adierazi nahi nuen pertzepzioak askotan oso engainagarriak direla.

**2. Zuen inguruan, zuen belaunaldiko gazte guztiak gai al dira euskaraz normal egiteko? Eta ulertzeko? Irakaskuntzak behar bezala betetzen al du bere funtzioa? Eta betetzen ez badu zer falta da?**

**Jaime.** Goizean Jone Mirenek zehaztapen bat egin du: ezagutza ez, gaitasuna. Nik uste galderak ere baduela horrekin zerikusia. Euskara etxean ikasi duten gazteek badute gaitasuna baina, zehaztu egin beharko genuke gaitasun horrek zertarako balio duen. Agian, gauza batzueta rako bai eta beste batzueta rako ez. Alde horretatik esango nuke irakaskuntzak, gaitasunari dagokionez, lan ona egin duela hogeita hamar urteotan, gehiago eska daitekeen arren.

**Lierni.** Zuk aipatu duzun bezala, esan daiteke irakaskuntzak bere funtzioa oso ondo bete duela. Gu gabiltzan Jakintza Ikastolan adibidez, irakasleek gurekin beti euskaraz egin dute, euskal giro batean hazi izan gara eta bai euskara batua, eta baita guk hitz egiten dugun ahozko hizkera ere, modu polit batean erakutsi dizkigute. Baina beti ikusi izan dugu gazte batek euskaraz hitz egiteko dituen zailtasunak. Esate baterako, guraso erdaldunak baldin baditu, berarentzat ez da horren erraza izango euskaraz komunikatzea. Izan ere, Ikastolan gehienbat euskara batua erabiltzen bada eta gero etxean erdara jasotzen badu, guk kalean euskara batua erabiltzen ez dugu-nez, orduan gazte horrek sentituko du euskarak ez diola balio eta motibazioa ere txikitzen joango zaio.

Laburtuz, irakaskuntzak bere funtzioa ondo betetzen duela iruditzen zai-gu, baina gazteen euskara-mailan eta erabilpenean familiak ere zeresan han-dia du.

**Ander.** Guk uste dugu D ereduan ikasten duten ikasle gehienek badu-tela maila nahikoa ikasketak euskaraz burutzeko, baina beraiek esan duten bezala, Ikastolan ez da ahozko euskara lantzen. Hori gehiago nabaritzen da Gasteizen, familia gehienak ez baitira euskaldunak eta ikasle askok ez bai-tute euskara erabiltzen, ez kalean eta ez etxean. Ahozko erabilera gehiago landu beharko litzateke. Hauxe da irakaskuntzak duen hutsuneetako bat, euskararen irakaskuntza ikasketara bideratuta dagoelako, eta ez kalean eus-kara erabiltzera.

Beste arazo bat da, erabileraren sustapena lantzen dela, baina ez oso modu eraginkorrean. Euskararen normalkuntza gehiago landu daiteke. Irakasleak saiatzen dira baina agian beste era batera landu beharko litzateke.

**Aritza.** Orain urte gutxi kaleratu den ikerketa batean esaten zen D eredutik ateratzen den %78 edo 80a, euskaraz egiteko kapaza dela baina 12-13 urteko ibilbide hori amaituta, %20k ez duela orokorrean gaitasun nahikorik euskaraz aritzeko. Eremu akademikoan aritzeko, ikasketei loturiko gai edo ariketa bat azaltzeo bai, baina esango nuke hortik ateraz gero, gaitasuna asko jaisten dela, beti ere, eremu erdalduneko ikasleen ikuspegitik. Arrazoiak? Agian lar eskatu diogu irakaskuntzari urte hauetan, hau da, ikasleei eduki edo ezagutza batzuk transmititzea eta garatzea eta hizkuntza bat irakastea. Orain ikusten da irakaskuntzak ahal izan duena egin duela, baina D ereduak ikasi arren asko ez direla kapaz euskaraz egiteko.

**3. Zein eremu edo erabilera-esparrutan da ohikoena euskaraz egitea eta non egin ohi da gehiago gaztelaniaz?** Familia, lagunak, irakasleak, ikaskideak, eskolorduz kanpoko jarduerak, parranda...

**Aritza.** Esango nuke familia hizkuntza euskara dutenek etxean egiten dutela. Gero, asko esan nahi du non ikasi duten eta ikastetxearen politika zein den. Esan nahi dut, futbitoa, saskibaloian edo eskolorduz kanpoko beste jardueretan dauden irizpideen arabera entrenatzaleak euskaraz egiten badu, beraiek ere euskaraz egingo dutela. Lagunen artean? Dentsitatearen arabera. Esango nuke patioan egiten dutena, gero erreprroduzitu egiten dutela kalean. Bilbon, patioan erdara da nagusi eta beraz, kalean ere erdara da nagusi. Eta hau lotuko dut aisialdiaren beste esparru berri batekin, eta lehen Enekok bere lehen diapositiban jarri duen bezala «Sarean kalean bezala». Hemen ere, salbuespenak salbuespen, egoera erreprroduzitu egiten delako.

**Joseba.** Aisialdiaren eta parranden kasuan, erabilera, lekuaren araberakoa izaten da. Gasteizen, parranda Alde Zaharrean egiten dutenek, gehienbat euskaraz hitz egiten dute eta gero beste leku batera joaten direnean, adibidez diskoteka batera, gazteleraz hitz egiten dute.

Familia euskaldunetan, ohikoena euskaraz egitea da. Ikastolan, txikiak garenean gehienetan euskaraz egiten dugu baina DBHra pasatzean eta beste

eskola batzuetakoekin elkartzerakoan, euskararen erabilpena jaitsi egiten da pixka bat. Irakaslekin beti euskaraz hitz egiten da. Eskolaz kanpoko arloetan gero eta gehiago erabiltzen da, baina hala ere euskara bultzatu egin behar da.

**Irati.** Ordizian ere antzera, baina herri txikiagoa denez, gauzak hobeto ikusten dira. Iruditzen zait azpimarratzeko dela, Ordizia, Lazkao eta Beasain guretzat Goierriko zentroa bihurtu direla eta hori dela erdaraz gehien egiten den eremua, bai lagunen artean, bai parrandan eta baita ikastolan ere. Eta jendea, Zaldibia edo Gabiria bezalako herri txikietatik datorrenean nabaritu egiten da, euskara askoz ere gehiago entzuten delako. Gainera, baserri giroko euskara da.

**Jaime.** Orokorrean, Euskal Herri mailan, euskarak duen erabilera-esparru nagusia, eta toki askotan bakarra, eskola da. Eskolatik kanpo? Bada, Asteasu, Errezi edo Villabona bezalako herriean esparru gehiago hartuko dira. Zenbait herriean (ez oso herri handietan) erabilera-esparru guztieta euskara da nagusi. Besteetan aldiz (eta hemen bai sartzen direla Euskal Herriko hiri handienak) eskola girotik kanpo nekez entzuten da euskara. Irunen entzundako esaldia datorkit burura «Jo tío, tú hablas euskera hasta en la calle!». Eta biak D eredukoak ziren, Ikastolan ikasitakoak txiki-txikitik eta eskolako lan guztiak euskaraz egiteko gaitasun arazorik gabekoak. Baina besteari egoera informal batean euskaraz egiten entzun zionean, harritu! Berarentzat euskara eskolakoa baita, ez kalekoa. Eta hori nahikoa zabalduta dagoen errealtitate bat da.

Lehen Garazik ongi azaldu du egoera hori bere hitzaldian, gainera zirkulu bihurtuta. Berak Irunberrin ikasi du euskaraz, eskolan. Hortik kanpo ez zegoen euskararik. Orain berriz, unibertsitatean (Nafarroan) euskaraz ikasteko duen aukera bakarra irakasle izateko ikasketak egitea da. Irakasle izan zertarako? Berriz eskolan euskara irakasteko!

#### **4. Euskaraz hitz egiteko gai direnen artean, zergatik darabilte batzuk eta ez beste batzuk?**

**Jaime.** Lehenengo puntu da zehaztea euskaldunak zein neurriraino garen gai euskaraz aritzeko esparru guztieta. Gaitasunari buruz ari garenean hori zehaztu egin behar da. Egia da, esate baterako, Araba, Bizkaia eta Gi-

puzkoan gazte gehiagok egiten duela selektibitatea euskaraz erdaraz baino, eta hau oso datu interesgarria da, oso azterketa garrantzitsua delako. Asko dute jokoan eta hala ere gazte gehiagok aukeratzen du azterketa euskaraz egitea erdaraz egitea baino. Baino horrek ez du esan nahi gero gaitasuna dagoenik kalean egiteko.

Asierrek goizean oso ondo azaldu du erabileran faktore asko sartzen dela; hamaika aipatu ditu eta denak bermatu beharko lirateke: pertsona eta talde erreferenteak, testuinguru politiko eta legala, hizkuntzarekiko eta egoera soziolinguistikoarekiko gizarte pertzepzioa, hizkuntza gaitasuna... Nik ez dut ikusten aipa daitekeen arrazoi bakarra dagoenik, behintzat ez zait iruditzen jarrera edo portaera kontua bakarrik denik.

**Lierni.** Guk galdera honi buelta dezente eman genizkion eta «*ohitura*» hitza azpimarratzena heldu ginen. Gure inguruan ikusten duguna da, euskarra eta erdara tartekatzen ari diren bi pertsona baldin badaude, alegia, bietako bat euskaraz eta bestea erdaraz, azkenean bietako batek amore eman behar izaten du eta normalean euskaraz hitz egiten ari denak erdarara jo-tzen du, errazagoa zaiolako. Eta pertsona horrekin erdaraz hitz egiteko ohitura hartzen baduzu, berarekin beti erdaraz egingo duzu.

**Ander.** Esan duten moduan ohitura oso kontu garrantzitsua da. Gasteizen euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez dago eta nahikoa zaila da euskaraz hastea. Eduki ahal duzu lagun bat zeinekin hitz egiten duzun beti euskaraz, baina ohitura hori lagun talde osora zabaltzea edo zuk ezagutzen dituzun pertsona guziekin euskaraz egitea oso zaila da Gasteizko giroak traba asko jartzen dituelako euskararen erabileran. Nahikoa gogor jokatu behar duzu egun guztian euskaraz egin nahi baduzu eta ingurukoek euskaraz egitea lortu nahi baduzu.

**Aritz.** Ohitura aipatu da hemen, baina ohitura sortzeko lehen aldi bat behar da. Esate baterako, etxera goaz, igogailura sartu gara eta gurekin batera lehen aldziz ikusten dugun auzokidea... Hor euskaraz ala gaztelaniaz egiteak geroko harremana markatuko du.

Gauza bera gazteen kasuan. Lehen berba euskaraz izan dadin, guneak, nahiak eta motibazioak egon behar dira. Hori izan daiteke faktoreetako bat.

Beste bat izan daiteke zeren gainean egiten dugun berba: sare sozialak, interneta... Gu gazte ginenean, ETB1, ETB2, TVE1 eta 2 Antena 3 eta Tele5 zeudela uste dut. Hori biderkatu egin da, gehi aisialdi eredu berriak, gehi sare sozialak. Kanpoko eragina oso handia da eta horrek erdararako bidea errazten dizu. Jasotzen duzuna gaztelaniaz jasotzen baduzu, nahiz eta gaitasuna eduki, gaztelania tartekatzen hasiko zara eta entzundakoa hitzez hitz erreproduzitzen eta azkenean, seguru aski, erdarara pasako zara.

Honekin lotutako adibide bat jarriko dut. Hemen Bilbon beti esan da «litroak egin / hacer litros», eta halako batean, telebistatik modan jarri zen Sevillan jasotako «botelloia» eta belaunaldi oso batek aldatu egin zuen aurreko berba eta amaitu zuen «botelloia» esaten. Honekin esan nahi dut, kanpoko hedabideek, erdararen kasuan, horrelako indarra badute, zer ez den gertatuko erreferenteak sortu edo baztertzeari dagokionez, tartean, hizkuntza nagusi bat eta hizkuntza minorizatu bat dauden kasuetan.

##### 5. Euskaraz egiterakoan erosoa sentitzen zarete edo adierazi nahi duzuena behar bezala komunikatzeko erdarara jo beharra sentitzen duze?

**Aritza.** Ni neu erosoa sentitzen naiz, baina jaso dudan heziketarengatik eta, eremu jakin batzuetan erdaraz erosoa sentitzen naiz. Eta gure programetan dabiltsan gazteak ere, batzuetan erosoa sentitzen dira, baina baita deseroso ere. Horregatik, gaitasun erlatibora itzuliko gara. Ariketa aritmético bat egiteko gaitasuna edukiko dute baina barre egiteko, gozatzeko edo bat-batean txiste bat kontatzeko ez dute baliabide nahikorik eta erosoa sentitzen dira gaztelaniaz euskaraz baino. Eta ulertzeko da.

**Ander.** Gu erosoa sentitzen gara, badugu gaitasuna, baina beste pertsonen euskaraz hitz egiteko ohitura baldin badaukagu. Hori da lehen puntu. Eta gero esan behar dugu Gasteizen faltan botatzen dugula euskalki bat (*entzuleen artean adostasunezko marmarra*). Hori horrela da.

**Moderatzailea.** Sortu egin beharko duzue orduan.

**Ander.** Bai, sortuko dugu! (*entzuleen artean txaloak*). Euskara batua, euskalkien aldean ez dago kaleko erabilerara horren bideratua eta hor hutsune bat sentitzen dugu.

**Lierni.** Biak familia euskaldunetan jaioak gara eta betidanik hitz egin dugu euskaraz. Ondorioz, ez dugu arazorik euskaraz aritzeko, eta deserosoago sentitzen gara erdaraz mintzatzerakoan edo euskara batuan hitz egite-rakoan, ez delako guk normalean hitz egiten dugun euskara.

Horrez gain, administrazioaren aldetik jarrera nahiko ezkorra ikusten dugu. Azken batean, zu dendara batera zoaz eta ikusten duzu «*Hemen euskaraz hitz egiten da*» dioen kartel bat. Orduan, «*Kaixo!*» esan eta «*Me puedes hablar en castellano, por favor?*» erantzuten badizute... Bada, hori, azken batean, ekidin daitekeen jarrera bat da, ezta?

**Jaime.** Orokorean, nik uste, ez Gasteizen bakarrik, Euskal Herri osoan falta dela gazteen hizkera ez formal hori garatzea. Nire lanean ikusi dut, zonalde soziolinguistiko euskaldunetan ere gazteek zaitasunak dituztela hizketa hori garatzeko. Gazteak ez garenon erakundeetatik lagundu daiteke horretan, baldintzak jartzen sor dadin.

Esate baterako, Deban, bazegoen neska hiztun horietako bat, baina hizkuntza ez formal horretan beti gaztelaniaz. Egun batean bere atzean da-goen mutilak esan dio «*Hitz egin euskaraz!*» eta berak «*Yo hablo en euskera si me da la gana!*». Eta mutilak... «*Sí, si me da la gana... ezin duzu eta euskaraz hitz egin!*». «*Nola ezetz? Nik nahi badut euskaraz hitz egiten dut!*». Eta orduan, mutilak erronka bota dio: «*Ezetz hamar minutu egin euskaraz hitz egiten!*». Eta ez zen kapaz izan. Bost minutu iraun zuen, baina ez zen bera. Berak badaki euskaraz hitz egiten, azterketak gaindituko ditu, selektibilitatea euskaraz egingo du, baina egoera ez formal adierazkor horretan, ez zen kapaza. Nik uste, fenomeno hau oso zabalduta dagoela.

**Moderatzailea.** Nolanahi ere, kontrako egoerak ere gertatzen dira. Due-la gutxi Tolosako bi gazteri entzun nien esaten «*Aizu, hori oso azpimarratuta doa, ezta?*»... Alegia, sudurretik sartuta zihuala...

**Jaime.** Bai, nik ere, gela berean oso hitz politak jaso ditut. Gaztelaniaz ere erabiltzen dira, baina modu berezi onetan esanda: «*Jo, tío ez motibau!*» edo «*Hauek beti poiuetan sartuta dabilta!*».

Esan nahi dut gela berean bi mutur horiek daudela.

**6. Nola ikusten duzue euskarazko kultur produktuen kontsumoa? Liburuak, diskoak, telebista, zinema... Zeintzuk dira ondoen dabiltsan esparruak eta zeintzuk kontsumitzen dituzte? Zergatik baztartzen dira euskarazko produktuak, baztartzen badira?**

**Jaime.** Ez dut uste gazteek euskarazko produktuak baztartzen dituztenik. Ez behintzat euskaraz egoteagatik. Jone Mirenek esan duen bezala, gazteak euskaraz emozionatzeko gai dira. Bertsolari txapelketaren finalera gazte pilo bat joaten da. Baino, euskarazko kultur eskaintza oso txikia da. Fermín Muguruzak elkarritzeta batean esandakoa aipatu nahiko nuke: «*Hemengo hip-hopak euskaraz garatzen ez den bitartean, gazteek gaztelaniaz hitz egiten jarraituko dute, nahiz eta euskaldunak izan*». Exajeratu samarra izan daiteke? Beno, ni nahikoa ados nago.

**Irati.** Lehendabizi telebistaz hitz egingo dugu, hau baita, gure ustez, gaur egungo gazteok Internetarekin batera gehien kontsumitzen duguna. Gure inguruko gazte gehienei, jendearen txutxu-mutxuak eta bizimoduak kontatzen dituzten programak gustatzen zaizkie (Tele5ren programazio osoa ikus-ten dute askok) eta hori Euskal Telebistan eskaintzen ez denez, ez da ikus-ten. Honekin ez dugu esan nahi euskal kulturak horren beharrik duenik, baina hori da gustatzen dena.

Musikari buruz, esan beharra dago talde asko daudela euskal musika egiten dutenak, eta gainera, gazteen artean musika hori ere entzun egiten dela, nahiz eta beste hizkuntzetan gehiago entzun. Aipagarria da gure inguruan sortu berri den talde askok ere euskaraz abesten duela, horrek erakusten baitu gazteok musika euskaraz entzuteaz gain, sortu ere egiten dugula.

**Lierni.** Euskal literatura hazten ari bada ere, gazteok liburuak behartuta irakurri ohi ditugu, normalean Ikastolak bultzatuta. Aldizkariak gehiago gustatzen dira. Gainera, erdaraz aukera handiagoa dago eta askotan jotzen dugu beste hizkuntza batean irakurtzera, idazle konkretu bat gustatzen zai-gulako edo hizkuntza hori landu nahi dugulako, ingelera, kasu, nahiz eta nik euskal literatura nahiago dudan.

Zinemarekin amaituz, euskarazko pelikula gutxi dago eta zinemara oso gazte gutxi joaten da. Jendea, film amerikarretara ohitu da eta euskal zine-

ma industriak gazteari hori eskaintzen ez dionez, gazteari orokorrean ez zaio interesatzen. Esate baterako, «Goazen» pelikula. Ikusten da zer nolako arrakasta izan zuen, baina azken batean, film amerikarren estiloko zelako izan zuen arrakasta.

**Joseba.** Telebistan ETB1 eta ETB3 dira euskaraz dauden kate garrantziatsuak. ETB1 batez ere guraso eta helduentzako da eta ETB3 haurrentzat. Honekin esan nahi dut nerabeentzako programak falta direla. Zineman ere ez dugu nerabeentzako pelikularik. Oso mugatua da zinema.

Euskarazko musika da gehien kontsumitzen den produktua. Bestetik, esan behar dut gazteok gutxi irakurtzen dugula eta liburu gehienak gaztelaniaz irakurtzen ditugula. Esate baterako, nahiz eta «Harry Potter» itzulita egon, erdaraz irakurtzen da.

**Aritz.** Kontsumo masiboko produktuak falta zaizkigu. Batzuk badauzkagu, baina esango nuke hau indartu beharreko ildoa dela eta hartzileen gogoak eta gustuak kontuan hartu behar ditugula. Badakit, kontsumo hitzak halako konnotazioak dituela, baina niretzat kontsumo masiboko produktuak dira Pirritx eta Porrotx, Bertsolari Txapelketak lortutako arrakasta, Goazen pelikula, Berri Txarrak taldea, Gaztezulo aldizkaria... Mota honetako produktu gehiago behar dugu: zabalak eta anitzak.

Orain dela gutxi, Gaztea irratia lehen aldiz 40 Principales-ek baino audientzia handiagoa lortu du. Bada, ni poztu egiten naiz. Eta ematen du hau esatea bekatua dela, zeren orain antza, musika jartzeko irizpideak aldatu egin dituzte eta orain beste musika mota bat jartzen dute, lehen 40 Principales-ek jartzen zuena. Baino ni poztu egiten naiz Gazteak 92.000 entzuleko langa gainditu duelako eta 40 Principales-en aurretik jarri delako. Gero sartuko gara jartzen duen musika motarekin, etab.

Bestalde, badira apur bat erlatibizatu behar diren arlo batzuk. Beti literaturara joaten gara eta esaten dugu ez dela irakurtzen, baina nik uste dut gaur egun inoiz baino gehiago irakurtzen dela. Agian literatura ez, baina metroan zoazela kartelak, mugikorreko mezuak, sare sozialak... Gaur egun, inoiz baino gehiago irakurtzen da.

Eta literatura aipatu dugunez, Durangoko Azoka da behar dugun beste fenomeno bat. Egin dezagun kontu –nahiz eta hemen gai honetan ni baino dezente adituagoak direnak egon– euskarazko liburu baten lehen botaldia 1000-1500 alekoa izan ohi dela –Atxaga edo Sarrionandia ez bazara behintzat-. Bada, kontuan hartzen badugu munduan zenbat euskaldun eta zenbat gaztelaniadun dagoen eta hiruko erregela bat egiten badugu, ohartuko gara 1500 ale saltzeak esan nahi duela erdaraz 300.000 ale inguru saltza; Perez-Revertek eta horrelako idazleek saltzen dutena, alegia.

Horregatik, batzuetan, erlatibizatu egin behar dira gauzak: «*Gutxi saltzen dugu eta....*» Kontxo! Gutxi saltzen dugu, gutxi garelako. Anormala dena da, Atxagak –zorionez– 20.000 ale saltza.

# **Gazteak, aisialdia eta euskara Ondorioak**

OsA, Erramun  
Euskaltzaindiko Sustapen batzordeko idazkaria  
Bilbon, 2010eko azaroaren 19a

Garai batean belaunaldirik zaharrenak ziren euskaldunenak, denborarekin, osteria, euskararen indarberritze ahaleginak aurrera egin ahala, euskarak hedadura funtzionala eta geografikoa irabazteaz batera, euskararen hizkuntza-erkidegoa ere gaztetuz joan da, kezka eta erronka berriak planteatz, bidenabar. Horiek horrela, zeintzuk dira gazteen hizkuntza-joerak? Noiz eta zertarako erabiltzen dute euskara? Zeintzuk dira euskara baliatzeko orduan topatzen dituzten zaitasunak? Euskararekiko dituzten iritziak, konsumo-ohiturak, eta abar?

Halako zein bestelako galderen inguruan hausnarketa burutu da Euskal-tzaindiaren Sustapen batzordeak antolatutako «Gazteak, aisialdia eta euskara» izenburupeko XV. Jagon jardunaldieta. Horretarako, ohiko ikerlari eta hitzaldi-emaileen aldamenean lurralte eta eremu desberdinetan ari diren gazteak Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzara ekarri nahi izan dira.

Jone Miren Hernandez EHU-UPVko irakasleak eta antropologoak «Baina gu ere gazteak izan ginen! Gazte euskalduna izatearen esanahia atzo eta gaur» izeneko hitzaldian gazteen ezaugarriez, ohiturez, joerez eta pentsamoldez jardun du. Horiek horrela, euskarari buruz jarduterakoan, Txepetx soziolinguista ezagunak erabilitako ezagutza, erabilera, motibazioa kontzeptuak hausnarketa-gai izan ditu; gaitasunetan erreparatzea proposatu du ezagutzetan bainoago; praktikari buruz hitz egitea eskatu du erabilera bainoago; eta emozioez jardutea iradoki du motibazioaz harago.

Asier Basurtok, Soziolinguistika Klusterrekoak, «Gazteen hizkuntza-erabileran eragiten duten faktoreen azterketa» ikerketaren berri eman du. Ikerketa hau Soziolinguistika Klusterra, Urtxintxa eta Topagunea elkarteen lankidetzaren emaitza izan da, gazteei eta beraiekin lanean dihardutenei hizkuntza-erabileraren fenomenoaren alderdi guztiak begien aurrean ipintzea eta horietan esku hartu ahal izateko oinarri bat eskaintza izanik helburuen artean helburu. Ikerketa honetan hamaika faktore identifikatu dira gazteen hizkuntza-erabileran eragiten dutenak. Faktoreak hiru multzotan bildu dituzte, maila individualarekin, mikrosozialarekin eta makrosozialarekin zer ikusia dutenak.

Jean-Baptiste Coyos eta Erramun Baxok soziolinguistak eta Euskal-tzaindiko Sustapen batzordeko kideek Iparraldean gazteei zuzendutako

aisialdi-eskaintza izan dute aztergai. Horretarako, Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoaren 2009. urteko laguntza deialdia hartu dute oinarritzat. Azterketaren arabera, gazteen aisiaaldi-ohiturak eta lagundutako jardueren hurrenkeria ez dira bateragarriak. Horrezaz gain, lau gomendio eman dituzte; batetik, tokiko herri-aginteei aisiaidian esku hartzeko deia egin die, horretarako, hizkuntza teknikariak baliatuz; bestetik, herri-aginteen hizkuntza politikak aisiaidia euskalduntzen ahalegintzen diren eragileak laguntzeko are gehiago baliatzeko eskatu dute; hirugarrenik, gazteen artean arrakasta duten aisiaaldi-eremuak lehentasuntzat hartza proposatu dute; eta azkenik, euskalgintzaren eta kulturgintzaren lankidetzaren premia azpimarratu dute, bereziki, Euskararen Erakunde Publikoaren eta Euskal Kultur Erakundearren artean.

Iñaki Arruti biologoa eta Lasarte-Oriako Udaleko euskara zerbitzuburu denak «Zer egin dezaket nire udalean (nire inguru) nerabeek aisiaidian eta lagunartean euskara gehiago erabiltzeko» gaia izan du hizpide. 2010. urtean egindako UDALTOP jardunaldietako gogoetak baliatu ditu horretarako. Horiak horrela, Fishman soziolinguista ezagunak bere sasoian egindako gogoetak kontuan hartuz, euskararen indarberritze ahaleginean eskolaren eragin mugatuaz jardun du, eskolaz kanpo jardunaren eta aisiaidiaren garrantzia azpimarratuz. Zenbait ildo proposatzeaz gain, Udaletatik euskarazko aisiaidiko eskaintza lagunteazeaz gain, kiroldegi zein bestelakoetako aisiaaldi-eskaintza aztertzea eta euskaraz ere eskaintzearen komenigarritasuna azpimarratu du, besteak artean, herri-aginteen hizkuntza-jardunean hizkuntza-irizpideak ezartzearen komenigarritasuna nabarmenduz.

Arratsaldeko saioaren lehenbiziko aurkezpenean, Josune Zabalak eta Maitane Ayerzak, Mintzola Fundazioko zuzendariak eta teknikariak, hurrenez hurren, «Tolosa: gazteen ahozkotasunaren laborategi» izenburua izan duen hitzaldia eman dute. Fundazioaren helburuak aurkezteaz gain, lau urteko ikerketa-proiektu horren nondik norakoak aurkeztu dituzte. Ikerketa horretan, errealtitate soziolinguistiko desberdinean bizi diren Tolosako ikastetxeetako ikasleak harti dituzte kontuan. Errealitate soziolinguistiko horrek ikas/irakas prozesuetan nola eragiten duen, ikasleen jarrera eta konpetentziak nolakoak diren eta esku hartzeak aztertuko dituzte. Ikerketak irauten duen denboran, ikerketaren eragingarritasuna areagotzeko ira-

dokizunak-eta jasoko dituzte. Askotariko eragileekin garatu nahi duten ikerketaren amaieran, Tolosako gazteen ahozko jarduna areagotzeko gomendioak, orientabideak eta praktika onak emango dituzte aditzera.

Segidan, Garazi Labiano Nafarroako Unibertsitate Publikoan Irakasle-ikasketak egiten ari den ikasleak «Unibertsitateko ikasleen hizkuntza-jarrerak Nafarroan» izeneko hitzaldia eman du. Jagon jardunaldiatarako bere-beregi prestatutako lana izan da aurkeztutakoa. Besteak beste, Nafarroako Unibertsitate Publikoko hainbat eremutan euskarak bizi duen egoerari buruz zenbait datu eta ohar egin ditu. Horrezaz gain, ikerketa egi-teko baliatutako metodologia aurkezta eta ikasleek darabilten euskarari buruz gogoetak egin ditu. Haren hitzetan, euskara baliatzeko aukera urriak ez ezik zailtasunak daude Nafarroako unibertsitate Publikoan. Ikasleek, bes-talde, euskara-maila apala izateaz gain, baliatzeko joera handirik ere ez dute erakusten. Beraz, erabiltzeko egiazko aukerak sortzen eta euskara erabilia izateko jarrera eragingarriak lantzen ahalegina egin beharko da aurreran-tzean.

Maialen Arnedok, Ane Badiolak eta Leire Gandariasek EHU-UPVko ikaslek, Itziar Idiazabalek eta Leire Diaz de Gereñuk irakasten duten Euskararen Irakaskuntzarako Metodologia (Euskal Filologia, UPV/EHU) ikas-gaiaren barruan, 2010eko udaberrian, Zornotzako ikastetxe bateko bigarren batxilergoko D ereduko hamazazpi ikasleko talde batekin egindako azterke-taren emaitzak aurkeztu dituzte. Talde honetan debate bat egin zen, esko-lan gutxi lantzen den ahozko euskararen genero formal honetan nolako baliabideak agertzen diren aztertzeko. Emaitzen arabera, ikus daiteke gazte hauek badituztela hainbat baina gabeziak ere nabariak dira. Horiek horrela, aisialdian euskara gehiago erabiltzeko, eskolak berezkoak dituen ahozko genero formalak gehiago lantzea eraginkorra izango litzatekeela uste dute azterketa egin dutenek, horretarako estrategia zehatzak erabiliz.

Gazteen artean geroz eta ohikoago eta zabalduago dauden «sare sozial birtualak» izan ditu hizpide Eneko Barberena Txatxilipurdi Elkarteko zu-zendariak. Sare sozial birtualen jatorria, bilakaera, eskaintzaren nolakoa, euskararen presentzia, zertan eta zertarako baliatzen diren, on-gaitzak, ondo baliatzeko ohar eta gomendioak etab. jorratu ditu. Gazteek sare sozial bir-

tualek eskaintzen dituzten aukera guztiak baliatzen dituzte, beste pertsona batzuekin komunikatzea izanik helburuen artean xede nagusi.

Hitzaldien ondoren Kike Amonarriz soziolinguista ezagunak gidatutako mahai-ingurua egon da. Mahai-inguru honetan; Aritz Escandon (Kultur Kabia); Jaime Altuna (Urtxintxa); Irati Otamendi eta Lierni Garmendia (Ordiziako Jakintza Ikastola); Ander Jauregi eta Joseba Lopez, Gasteizko Mendebaldea Institutuko ikasleen partaidetza izan du. Gazteek euskara baliatzeko dituzten ohiturak, dituzten zailtasunak (inguruneak, harreman-sareek, eta abar eraginda), euskara-gaitasuna, kontsumo ohiturak, eta abar izan dituzte mintzagai.

Horrenbestez, Jardunaldiaren ondorioekin eta Euskaltzainburuak esku hartu dutenei eta hurreratu direnei eskerrona agertuz amaiera eman zaie XV. Jagon jardunaldiei.



# Literaturaren historiografia Jardunaldiak



# Sarrera

RETOLAZA, Iratxe

Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta  
Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa batzorde-idazkaria

2010eko abenduaren 10ean eta 11n, Hondarribiko Udaletxean, Euskal-tzaindiaren Literatura Ikerketa batzordeak Literaturaren Historiografia I. Jardunaldiak antolatu zituen. Jardunaldi horien helburua, beraz, Euskal Literaturaren Historia egiteko erabili diren moldeez gogoeta egitea izan zen, eta halaber, Euskal Literaturaren Historia egiteko erabil litezkeen molde berriak proposatzea.

Jardunaldi horiek antolatzeko asmoa eta beharra beste proiektu batek abiatu zuen: Euskal Literaturaren Antologia proiektuak, hain zuen ere. Egun, Literatura Ikerketa batzordeak Euskal Literaturaren Antologia proiektua du abian, eta taldean eginiko antologia hori atontzen ari ginela, ugariak izan dira euskal literaturaren historiaren inguruko kezkak eta galderak. Horregatik, kezka eta galdera historiografiko horien harira sorturiko eztabaidak eta iritzi-trukeak garatzeko asmoz antolatu ziren jardunaldi horiek.

Jesus Mari Lasagabasterrek aspaldi ohartarazi bezala, euskal literaturaren inguruko ikerketetan Historiografiari dagokion esparrua oso gutxi aztertu eta ikertu da, eta oso ikerle gutxik jarri dute arreta ikerketa-esparru horretan. Hala izanik, jardunaldi horiek ikerketa-lerro horren inguruko hausnarketak abiatzea izan zuten asmo, eta lehen jardunaldi hauek euskal literaturaren garapen historikoa kontatzeko egon litezkeen arazoak identifikatzea izan zuten helburu.

Horretarako, parte-hartzaleek hainbat txosten aurkeztu zituzten, eta ondotik, eztabaidarako tarte luzea zabaldu zen. Solasaldi eta eztabaida horietan jorratu ziren oraindik ere bizi-bizi diren kezka historiografikoak: nola egituratu euskal literaturaren historia? Euskal literaturaren historia batek nola egin behar dio aurre egoera diglosikoaren kontaketari? Zein irizpideren arabera hautatu historiaren katean kokatuko den corpus literarioa?

Argitalpen honetara, jardunaldi haietan jorratu ziren ikerketa-gai eta eztabaigaiak bildu ditugu. Lehenik, Jesus Mari Lasagabasterren sarreratitzak jaso ditugu, jardunaldiari hasiera eman ziotenak. Bigarrenik, Literaturaren Historiografia I. Jardunaldietan aurkezturiko txostenak dituzue. Hirugarrenik, eztabaida-saioen laburpenak ere ekarri ditugu argitalpen honetara, eztabaida horietan eginiko ekarpenak ere hedatzeko asmoz.

Jardunaldi haietan proposatu ziren eztabaidagaiak bide zenbait hartu zituzten.

Lehenik, euskal literaturaren historia egiterakoan erabili diren edota erabil litzkeen irizpide eta metodologien inguruan jardun duten bi txosten jaso dira. Bata, Ana Toledoren «Euskal literaturaren sistema: historia baterako aukera-irizpideak», eta bestea, Jon Casenaveren «Eredu historiografiko finkatu berriaz zenbait gogoeta». Bi ekarpen horietan historia literarioaren egituratze eta corpus osoari dagozkion galderak eta auziak mahai-gaineratu dira.

Bigarrenik, genero literarioen inguruko hausnarketa egin zuten beste bi txosten jaso dira. Bata, Xabier Etxanizen «Periodizazioa. Generotik mugimendu literariora», eta bestea, Manu Lopez Gaseniren «Genero ez-kanonikoen ekarpenea euskal literaturaren historian». Bi ekarpen horietan genero ez-kanoniko edo periferikoek euskal literaturaren historian izan duten lekua eta izan beharko luketen lekuaz gogoeta egin da, genero literarioak historia literarioan duen funtzioaz ere hausnarketak eginez. Lehenak, batik bat Haur eta Gazte Literaturaren ekarpenez jardun du, eta bigarrenak, aldiz, itzulpengintzaren ekarpenez.

Hirugarrenik, aldi historiko konkretu baten inguruko gogoetak garatu dituen proposamena dugu, Josu Bijuescaren «Naissance de l'écrivain? Literatura eta mezenasgoa Euskal Herri penintsularrean XVIII. mendean». Izenburuak zehazten duen moduan, aldi historiko jakin batek sortzen dituen auzi historiografikoak aztertu dira proposamen horretan.

Laugarrenik, tematikari lotu zaion ekarpen historiografiko bat ere jaso dugu, Asier Barandiaranen «Istorioen gizatasuna euskal literaturan: adibide bat». Gai zehatz batek eta ikuspegi moralak literaturaren historian duen funtzioaz eta beharko lukeen funtzioaz gogoetak zabaldu dira proposamen horretan.

Azkenik, euskal literaturaren historian herri-literaturako ekarpenak jasotzeko bideez eta aukerez gogoeta egin duten bi proposamen jaso dira. Bata, Patri Urkizuren «Bertso paperen eta baladen sailkapenez gogoeta», eta bestea, Iratxe Retolazaren «Literatura herrikoia, herri-literatura, herri-idaizeak: herrikoitasun kontzeptuez zenbait gogoeta».

Txosten horiek galdera eta norabide berriak proposatzea izan dute helburu, eta ez erantzunak ematea. Eginkizun dugu hurrengo jardunaldietarako, oraingo honetan mahai-gaineratu diren hainbat galderari edota kezkari ate-rabide zehatza emango dioten ekarpen historiografikoak garatzea.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu Literaturaren Historiografia I. Jardunaldi haietan parte hartu zuten literatura aditu guztiei, jardunaldi ho-rietañ eztabaidea dinamika posible egin zutelako. Mila esker, beraz, eztabaidera hurbildu zirenei: Ibai Atutxa, Asier Barandiaran, Josu Bijuesca, Ibon Egaña, Xabier Etxaniz, Manu López Gaseni. Eskerrik asko Literatura Ikerketa batzordeko kideei ere, eztabaidea-saioetan eginiko ekarpengatik: Iñaki Aldekoa, Gorka Aulestia, Jean Haritschelhar, Jean Casenave, Sebastian Gartzia Trujillo, Jon Kortazar, Ana Toledo, Mari Jose Olaziregi, Lourdes Otaegi, Karlos Otegi, Txomin Peillen. Literatura aditu horiek guztiekin parte hartu zuten eztabaidea-saioetan, eta haien ekarpenei esker bildu ditugu ar-gitalpen honetako hausnarketak eta eztabaideagaiak, eta halaber, haien ekarpenei esker ere garatu eta hobetu ahal izan dira jardunaldiko txostenen behin betiko testu hauek.

# Euskal literaturaren historia eta historiografia

LASAGABASTER, Jesus Maria  
Deustuko Unibertsitateko irakaslea

Bereizketa bat ezarriko dut gogoeta labur hauen abiapuntu gisa. Hau behar bezain zehatza ez bada ere teoria literario hutsean, metodologikoki erabilgarri agertu dakiak ondoren azalduko ditudan ideia nagusiak gatzeko. Literaturaren historiaren eta historiografia literarioaren arteko ezberdintasuna zehazten hasiko naiz. Terminologia aristotelikoari helduz, bai historiak zein historiografiak xede material bera dutela esan genezake, hau da, literatura. Xede formala, ordea, ezberdina da, nire ustez. Literaturaren historia testuak banaka aztertzeaz arduratzen da ikuspuntu diakroniko batetik, hau da, horien hurrenkera eta garapena historian zehar du aztergai. Historiografia literarioaren xede formala, ordea, ez da banakako testuen azterketa, baizik eta testu sistemena, ikasketa literarioen oinarrizko edozein ikuspegitik landuta: testu horien teoria, historia, kritika edo interpretazioa. Aski jakina denez, historia zientzia moduan ulertuta XIX. mendean hasten da, erromantizismoaren testuinguru historiko eta kulturalean. Mugimendu erromantikoa da historiaren kontzeptua bera hedatzen duena, eta horren barruan, zehazki, literaturaren historiaren kontzeptua. Edo hobe esanda, literaturaren historian ezberdinak, herri bakoitzak bere hizkuntza du eta hizkuntza bakoitzak bere literaturaren bitartez adierazi egiten da. Literatura, hizkuntza, herri baten adierazpide den heinean, literatura nazionala da. Literaturaren historia testuinguru horretan sorturik garaiko ezaugarri filosofiko eta kulturalen zordun dira, positibismo historikoa XIX. mendeko pentsamoldean hain eragin erabakigarria duena. Horrek alor praktikoan literaturaren historiak autore- eta lan-katalogo batean bilakatzea eragiten du. Dena den, literaturaren historiaren bilakaeran joera berriak agertzen dira nagusi den positibismoa erlatibizatu eta xede berriak proposatzen dituztenak, ordura arte literaturaren historiaren bereizgarri izandako erreduktionismo positibista gaindituz. XIX. mende amaieratik historia literaria historia orokorraren testuinguruan jartzeak duen garrantzia azpimarratu behar litzateke, literaturan bere hastapenetatik pairatutako bere solipsismo moduko horretatik atera duena. Testuinguru horretan sortzen dira literaturaren historia sozialak, literatura eta artearen interpretazio marxistaren eragin esplizituagoa edo implizituagoa dutenak. Ikuspuntu horretatik eboluzio literarioa ez da literaturatik bertatik azaltzen, azalpen inmanente edo formalista, baizik eta eboluzioaren arau orokor eta garapen historiko orokorretatik. Korronte honen azalpen ortodoxoena erreflexuaren teoria deritzoguna da.

Literaturaren eboluzioa historiarenean eboluzioaren erreflexua besterik ez da eta bere arauen menpe dago. Azkenetan, literaturaren eboluzioa eta literatura bera superestructura bat gehiago dira soilik, azken finean klase borrokaren dialektikaren menpe dagoena.

Noski, horren azalpen ortodoxo edo heterodoxoa ikuspuntuaren arabera egun interpretazio marxistaz kampo geratzen da, eta bere eragina soilik historia literarioa gizartean eta honen barnean gertatzen diren egoera, materia, sozial, politiko, ekonomiko eta abarren osotasunean testuinguratzera mugatzen da. Ikuspuntu honetatik azaltzen dira literaturaren gizarte-historiaren agerpenak. Ibon Sarasola euskal literaturari honako aurrerapen bat egiten lehena izan zen.

Ia kasu guzietan erredukzionismo metodologikoa aurkitzen dugu edozein gertakari literario azaltzerakoan, kontuan izan gabe lan literarioen autonomia, hau erlatiboa izanda ere, zein mediazio deiturikoak gertakari literarioan parte hartzen duten.

Dena den, onartu beharra dago azkeneko urteotan literaturaren testuinguratzeko sozialak izandako eragina. Gaur egun ezinezkoa da literaturaren garapen eta aldaketak era inmanente batean azaltzea soilik literaturaren barne-arauak kontuan izanik. Literaturaren historia eta garapenean beste aldaketa garrantzitsu bat harrera-teoriari zor diogu, bereziki Constanza eskolari, Jauss eta Iser autoreak bezalako buruzagiei, zeintzuk literaturaren eta hau lideratzen duten arauen ikuspegia ezberdin eta berria proposatzen duten. Literaturaren historia ez da testuen historia, baizik eta hauek irakurleen artean izandako harrerarena. Honela, literaturaren historia harrera literarioaren historia bat da. Modu horretan kantsakratu egiten da eta Jose María Castellet-ek zientzia estatusa ematen dio duela urte anitz finkatutako formulari bere *La hora del lector* liburu famatuan. Testu literarioa testu moduan soilik irakurleak irakurri eta interpretatzen duen heinean existitzen da. Iserren bereizketa famatua da: testu (text) eta lan (work), azkenengo hau testua eta bere irakurketaren konbinazioa izanik.

Horrek guztiak literaturaren historia bere jatorrietan, XIX. mendean, izandako ikuspegia positibista eta enpirikotik oso urrun gaudela esan nahi du. Ikuspegia berri hauek, soziala edo harrerarena, historiografia literario

garaikideak ezin ditu alde batera utzi eta nazio ezberdinako literatura historia tradizional ezberdinetara hedatu behar du. Hemen interesatzen zaigun euskal literaturaren historiaren ikuspegitik historia zein teoria literarioen arreta merezi duten oinarritzko bi gai daude: kanon literarioari buruz eta periodizazio gai garrantzitsuari buruz ari gara, euskal literaturaren kasuan profil edo aspektu oso interesgarriak eskaintzen dituztenak. Kanona egun modan dugun auzia da literaturaren teoria eta historia inguruko edozein hausnarketatan, batez ere Harold Bloom-ek zabaldu zuenetik eta literatur erreflexio garaikidean hiritar karta eman zionetik. Zein da euskal literaturan kanona, eta zein kriterioren arabera osatuko da euskal literaturaren kanona? Nire ustez ezin dira alde batera utzi euskal literatura deritzogunaren oinarritzko aspektuak. Jakina, hizkuntzak, euskarak kasu honetan, ustezko euskal literaturaren kanonaren eremua eta mugak zehaztuko ditu. Izan ere, euskarak beste edozein hizkuntzatan eman daitezkeen ezberdintasun dialektikoetatik areago, bi lurralteko ezberdinetan erabiltzen den hizkuntza da, espinola eta frantsesa, testuinguratzeko ezberdina eskatzen duena kasu bakoitzean. Honekin, ez dut ezinbestez esan nahi kanon literario ezberdina egon behar duenik iparraldean sorturiko literaturarentzat eta hegoaldean sortutakoarentzat. Baina, edonola ere, euskal literatur kanonak kontuan hartu beharreko egoera da.

Bigarren gai garrantzitsua, gure kasuan, literatura jasoa edo landua eta herrikoiaren arteko ezberdintasuna da, eta horrekin erlazionatuta ahozko zein idatzizko literaturaren arteko ezberdintasuna. Gai hauek euskal literatur kanona baldintzatzen dute eta euskal literaturaren historialariak ezin ditu alde batera utzi. Berebiziko garrantzia ere badu euskal literaturaren historialarentzat periodizazio literarioaren gaiak. Hemen muturreko bi jarrafa hartzera mugi gaitezke: lehendabizikoa, euskal literaturari mendebaldeko literaturaren historian indarrean dauden garai edo etapak aplikatzea izango litzateke (Erdi Aro, Errenazimentu, barroko, errromantizismo, errerealismo eta naturalismo, abangoardiak eta abar). Ez dugu ahaztu behar mugimendu literarioak historia orokorraren testuinguruan kokatzen direla, bertako egoera ezberdinak –politikoak, sozialak, ekonomikoak eta abar– berebiziko garrantzia dutelarik garai historiko bakoitzean mugatu, zehaztu, eta aurreko eta ondorengotatik bereizten dutelako. Horrek ez du esan nahi *continuum* his-

toriko moduko zerbait ez dagoenik, alderantziz, *continuum* historiko eta kultural bat dago garai ezberdinatan mantentzen dena, substratu moduan funtzionatzen duena, zeinaren gainean garai ezberdin eta ondoz ondokoak beraien ezberdintasunak erortzen dituzten. Horrek euskal literaturaren historian periodizazio arrunt bat ondorengo bi poloren artean mugitu behar dela esan nahi du: bata, gehiegizko mimetismoa beste literatura batuetan modelo baliagarri eta efikazak gure literaturari aplikatzea izango litzatekeena; eta bestea, gure literatura horren berezia eta ezberdina dela kantsideratzea ez lukeela inolaz ere gure literatur kanonaren kango beste sistema literarioekin alderatzea onartuko pentsatzea. Hausnarketa nahasi hauetatik ondorio orokor bat ondorioztatzen ausartuko nintzateke. Euskal literaturaren historia eta historiografia ez dira uharte bat ikasketa literarioen itsaso zabalean, espezifikotasun edo berezitasuna ez da inkomunikazio edo bereizketa muga gaindiezina, baizik eta ikuspegি orokor eta ireki batera eramatzen gaituen zubi bat, non geuk ere zer esana daukagun literatura unibertsalaren kontzeptu orokorrean. Ziur nago, jardunaldi hauek aukera berri bat emango digutela euskal literaturak oraindik ere mahai-gaineratzen dituen itaunetan sakontzeko.



# Euskal literaturaren sistema: historia baterako aukera-irizpideak

TOLEDO LEZETA, Ana

Euskaltzain osoa eta Literatura Ikerketako batzordekidea

Deustuko Unibertsitateko irakaslea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Euskal literaturaren historia euskal hiztun-komunitateak literatura moduan jaso dituen berbaldiekin osatzea proposatzen da. Gisa honetan, egileak baliatutako hizkuntzak eta haren sorkariarekin hartzaleak ezarritako harremanak erabakiko lukete historiaren osagai bihurtzeko irizpide nagusia. Beraz, hizkuntzak eratutako komunitatea nazioak eratutakoari lehenesten zaio eta berbaldia hartzeko modua, berbaldia igortzeko erabili den euskarriari eta berbaldiaren izauerari.

**Hitz-gakoak:** hiztun-komunitatea, botere politikoa, literatur sistema, berbaldi literarioa, bitzitzu literarioa, pragmatika.

Se propone una historia de la literatura vasca conformada por discursos recibidos como literarios por la comunidad lingüística vasca, de manera que la lengua utilizada por el autor y el modo de relacionarse con dicho discurso del receptor determinarían el criterio de selección. En consecuencia, se antepone la comunidad lingüística a la comunidad nacional y el modo de recepción del discurso al carácter y soporte que presenta.

**Palabras clave:** comunidad lingüística, poder político, sistema literario, discurso literario, vida literaria, pragmática.

Nous proposons ici une histoire de la littérature basque constituée de discours considérés comme littéraires par la communauté linguistique basque, la langue utilisée par l'auteur et la façon dont l'auditeur reçoit ce discours déterminant le critère de sélection. C'est donc la communauté linguistique qui prend le pas sur la communauté nationale, et la façon dont le discours est reçu prend le pas sur le caractère et le support qu'il présente.

**Mots-clés :** communauté linguistique, pouvoir politique, système littéraire, discours littéraire, vie littéraire, pragmatique.

A history of Basque literature made up of discourses received as literature by the Basque speech community is being proposed. The language used by the author and the relationship established by the receiver with his/her creation would thus determine the main criterion for turning it into a component of the history. So, the speech community is put before the national community, and the way of receiving the discourse is put before the medium used for transmitting it and before the nature of it.

**Keywords:** speech community, political power, literature system, literary discourse, literary life, pragmatic.

## 1. Euskal literaturaren sistemaz

Txostenaren izenburuak, lehen ariketa legez, euskal literaturaren sistemaz zer ulertzen den argitza eskatzen du; izan ere, gerta daiteke ikuspegi desberdinak egotea kontzeptu hori mugatzerakoan.

Literatura nazional batetaz jardutean, literatura kontzeptua errealtitate politiko batekin harremanetan jartzen da. Nazioa historia politiko baten subjektu izan ohi da, baita historia artistiko edo literario batena ere.

Euskal Herriak ez du inoiz eratu entitate politiko-juridiko-administratibo bakar bat. Alderdi honetatik inoiz ez da izan historia politiko baten subjektu. Historiak erakusten duena zera da, lurralde horren barrutiren batean noizbait erresumaren bat eratu zela: Nafarroakoa, alegia. Aro Modernoan bertan, murriketa gogorra jasan zuen, 1515ean Nafarroa Garaia Gaztelako Gorteetara makurtu zutenean. Murriketaren ondoko Nafarroako erresuma txikerrari mende luze bateko iraupena baino ez zitzaiion gelditu: 1617an, Frantziako erresumak bereganatu zuen.

Beraz, Aro Modernoaz gero behintzat, historia politiko baten subjektu izan ez den nazio bateko literatura litzateke euskal literatura. Gainera, nazioa eleanitzuna da aspaldidanik, nazioari izena ematen dion hizkuntza ez baita izan bertako bizilagunek erabilitako hizkuntza bakarra: euskara, gaztelania, frantsesa, gaskoia dira hiztunek baliatutako hizkuntzak.

Mundu zabalera pixka bat begiratzea nahiko da mestizaje linguistikoa aski hedaturik dagoenaz ohartzeko: ez dago hizkuntzarik estatu bateko ekoizkin bakarrik denik eta, sarritan, gehienetan ez esateagatik, estatua eta hizkuntza parekatzeak ez du euskarri handirik. Bada estatuen mugen gaindi hitz egiten den hizkuntzarik: estatu desberdinako bizilagunek hizkuntza partekatzen dute, ez ordea, nazio-identitatea (Latinoameriketako edo Commonwealth-eko nazioak, adibidez). Honekotan, hizkuntza bera darabilten literaturek literatura nazional desberdinak osatuko lituzkete. Beste batzuetan, beriz, estatu bateko bizilagunek ez dute partekatzen hizkuntzarik (Canadian, Indian, kasu). Hizkuntzarik partekatzen ez den estatuetan estatua hainbat nazioz, etniaz, tribuz... osatua dago, baina ez da banatzten boteare politikoa guztien artean. Aniztasuna (hizkuntzetan, nazioetan, etnietan,

tribuetan... ) onartzea arbuiatuz, subjektu politiko den nazioak besteak asimilatzea bilatzen du.

Halaber, badira estatuak hizkuntza propiorik ez dutenak (Suitza edo Belgika adibidez). Orobak, badira, baita ere, hizkuntza-komunitate batean jaio eta beste hizkuntza batean idatzi duten idazleak: Eugène Ionesco edo Milan Kundera, kasu. Era berean, badira sorkuntzarako hizkuntza bat baino gehiago erabili duten idazleak ere, Samuel Beckett edo Jorge Semprun bezala.

Literatura nazionala kontzeptuak hizkuntza eta nazioa osagaiak ditu oinarri. Halere, mugarririk politikoak eta linguistikoak ez doaz gehienetan batera. Gainera, bada idazlerik sorleku duen hizkuntza-komunitateko hizkuntza baztertuz, beste hizkuntza bat sor-tresna hautatu duenik.

Anabasa honetan, bada literatura nazionalak aditzera emateko erabiltzen den edo erabili izan den jentilizioa –literatura española, francesa, italiana...– alboratu eta, literatura Espainian, literatura Frantzian, literatura Italian... gisako adierazpenez ordezkatzea proposatu duenik<sup>1</sup>. Agerikoa da, jentilizioa ordezkatzuz estatuko literatura hartzen dela aztergai, estatu horretako komunitate linguistiko ororen literatura, hain juxtu. Azken batez, jentilizioa ezabatzean, hizkuntzaren araberako sailkapena egitea saihestu eta, subjektu politikoaren araberakoa hobesten da. Bestela esanda, estatuari dazion batasunaren barnean atzematen dira estatu horretako hizkuntza desberdinietan egindako literaturak. Subjektu politiko berberaren menpe garrantzako literaturak elkarrekin harremanetan egotea uste izatekoa da, baina, nire ustez, aztergai horren barrutia jada ez litzateke literatura nazionalarena, baizik eta literatura erkatu edo konparatuarena.

Literatura nazionala kontzeptuaren oinarrian nazioa eta hizkuntza osagaiak dauden une beretik, bistakoa da literaturari buruzko ikuspegia ez dela agortzen honen osagai linguistikoan: gizabanakoaren eta gizateriaren artean dauden entitateak ere gogoan hartzen dira. Hizkuntzaz gain, paisaia, herria,... partekatzeak ekarritako homogenotasuna aintzakotzat hartzen da.

---

<sup>1</sup> LAMBERT, J., 2006, «En busca de los mapas literarios del mundo», in ROMERO LOPEZ, D. (ed.), *Naciones literarias*. Barcelona: Anthropos Editorial, 125.

Joseba Gabilondok gisa honetan aurreratzen du euskal literatura postnacional(aren) definizioa deitzen duena:

Euskaldun edo basko guztiekin beren hizkuntza guztietan idatzitako literatura(k)<sup>2</sup>.

Aukerak bat baino gehiago izan daitezke. Bata da literatura nazioaren mugen gaindi eraikitzen den aberritzat jotzea eta literatura nazionala konzeptua bera arbuiatzea. Beste bat, «nazioak» emandako batasuna, hizkuntzen desberdintasunak eratutako aniztasunari gainezartzen zaiola uste izatea. Nolabait esateko, «testuinguru» partekatzeak eragindako lotura «testuinguru» horretan sortutako «testu» hizkuntzaz desberdinek eragindako aniztasunari lehenesten zaio.

Zalantzarak gabe, Pio Barojaren *La leyenda de Jaun de Alzatek* (1922) eta honekin batera «Tierra vasca» izendapenak biltzen dituen *La casa de Aizgorri* (1900) eta *Zalacaín el aventurero* (1909) edo *Vidas sombrías* (1900) «Mari Belcha» kontaketak eta gehiagok badute Euskal Herriko «paisaiaren» loturarik. Errealismo magikoa Latinoameriketako «paisaiatik» erneeten den bezalatsu, Euskal Herriko «paisaiatik» ernetakoa izan daiteke Barojaren imaginario hau. Nahiz bata, nahiz bestea, gaztelaniaz, baina «erro» desberdinatik sortuak.

«Euskaldun edo basko guztiekin beren hizkuntza guztietan idatzitako literatura(k)» edozein kasutan, Itamar Even Zohar-ek polisistema deitu duena eratuko luke; alegia, sistema bakarra gabe, era askotakoa den sistema, sistema zenbaiten sistema. Elkargune eta gainezartzeak erakusten dituzten sistema horiek, osotasun egituratu bakar legez funtzionatuko lukete, beronen atalak elkarren menpeko izanaz. Baina, jakina, euskaldun edo basko guztiekin beren hizkuntza guztietan idatzitako literatura(k) ez ezik, Espainiako, Frantziako, Italiako... literaturak aztertu ahal izango lirateke polisistemaren konzeptuaren barnean. Baita Europako Mendebaldeko literatura ere... Izan ere, azkenean, entitate horietan osagai anitzak ugariak izan arren, bada osagai komunik: interferentziak erakusten dituzten sistemaren sistema moduan azal daitezke.

---

<sup>2</sup> GABILONDO, J., 2006, *Nazioaren hondarrak. Euskal literatura garaikidearen historia postnacional baterako hastapenak*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, 14.

Euskal Herrian jaiotako hainbat idazleren idazlanei buruz eginak zituen azterketak biltzen zituen liburuari «Las literaturas de los vascos» jarri zion izenburu Jesus Maria Lasagabasterrek. Plural horrek berak aditzera ematen du sistema bakar batean baino gehiagotan funtzionatu zuten idazlanez zi-hardutenei ikaskuntzak jasotzen zituela liburuak.

Euskal Herriko herritar ororen adierazpen-hizkuntza euskara izan ez den neurrian, bada beste hizkuntza batzuetan garatutako literaturarik, bereziki gaztelaniaz eta frantsesez. Horrenbestez, «las literaturas de los vascos» kontzeptuak Euskal Herriko herritarra hizkuntza desberdinetan burututako langintza literarioa bilduko luke. Euskal Herriko herritarra izatea da osagai bateratzailea, erabilitako adierazpen-hizkuntza desberdina banatzailea.

Txosten honen izenburuak euskal literaturaren sistemari erreferentzia egiten dioenean, euskara adierazpen-hizkuntza erabili duenaz dihardu. Euskara adierazpen-hizkuntza erabili duen literaturak sistema bat osatzen du, nahiz eta bistakoa den sistema hori harremanetan dagoela beste sistemekin. Beste sistemekin orokorrean eta, hainbat garaitan bederen, bereziki «vascos» horien beste literaturen sistemekin. Esaterako, Goizuetak, Vicente Aranak, Araquistainek, Navarro Villosladak, Xahok... eta abarrek berebiziko eragina izan zuten euskara adierazpen-hizkuntza zuen literaturan. Harako Lucien Goldmann-en mundu-ikuskeraren kontzeptura joz gero, honakoa esan ahal izango litzateke: XIX. mendeko «literatura fueristak» gizarte-talde berberaren mundu-ikuskeria adierazi zuen, nola erdarez hala euskaraz baliatu zenean. Horraino iristen da sistemon arteko harremana.

Alabaina, harreman oso estuan egotera iritsi arren, sistema desberdinak osatzen dituzte; izan ere, hizkuntza izanik literatura-egilearen lanabesa, beste adierazpen artistikoetako (pintura, musika, arkitektura...) ez bezalakoa da alderdi banatzailea. Azken batez, hiztunak edo idazleak esku artean daukan lanabesaz baliatu behar du adierazi nahi duena helarazteko eta, lehen lehenik behintzat, lanabes hori ezagutzen duena du hartzaile.

«Globalizazioak» aldaketa nabarmenak ekarri ditu, noski. Esaterako, gure artean bertan jada ezaguna da, batera edo ia batera hizkuntza batean baino gehiagotan argitaratzea sortutako idazlana eta, horrela, hiztun-komunitate desberdinen eskura jartza aldi berean. Egungo gizartearen ezaugarri

da kultura eta etnia anitzen bilgune izatea, hiztun eleanitz ugariz osatua egotea... Ez da hau, ordea, aurreko mendeetako egoera eta aurreko mendeen berri ere eman beharko da. Alegia, zirkunstantzia historiko oso desberdinan garatu den literaturgintza azaltzeko gaitasuna lukeen eredu bilatzeak dirudi jomuga eta ez garaien arabera aldatzen doan eredu: nola XVI. mendeko hala XXI. mendeko literaturaren berri emateko gaitasuna duen ereduaren bilaketara bideratu beharko genuke iparrroratza.

Euskal Herriko herritarra izatea zela osagai bateratzalea eta erabilitako adierazpen-hizkuntza desberdina osagai banatzailea esaten zen arestian. Ez bedi uler, hizkuntza berdina darabiltenen artean heterogenotasunik ez da goela uste dela. Agerikoa denez, adierazpen-hizkuntza berbera darabiltenen artean ere bada alderdi banatzailerik. Seguru aski, zalantzarak gabe ez esate-agatik, Arnaud Oihenart Luis XIII.a Frantziako Erregeren inguruko geografo eta historialari taldearen kulturistik hurbilago zegoen, Zuberoako zeinahi artzainenetik baino. Geografo eta historialari horiekin kultura eta hizkuntza(k) ere partekatzen zituen Oihenart eleanitzak. Literaturaren alorrean zer esanik ez, Oihenarten gustu literarioak eta Zuberoako artzainarenak urrun zeuden. Gauza jakina da, Oihenartek mespretxatu egiten zuela «herri»rekin lotua zen adierazpen oro.

«Imitatioan» oinarritzeak batasun sakona eta zabala ekarri zion Errenazimenduko adierazpen literarioari. Errenazimenduko literatura egile landuetatik hurbilago dago Oihenarten kultura Zuberoako zeinahi artzainenetik baino.

Gizarte-geruzek osatzen dute gizartea: ez dago estratifikatu gabeko gizarterik. Hizkuntzak berak ere ez dio ihes egiten estratifikazioari: hizkuntza estandarra, landua, herritarra, argota... Gizarte-geruza desberdinan kokatzeak bereizten ditu Arnaud Oihenart eta Zuberoako artzaina eta Arnaud Oihenart hurbiltzen gainontzeko bere gizarte-mailakoei eta artzaina berekoei, hizkuntzaren mugaz gaindi.

Alabaina, exenpluarekin jarraituz, Oihenart poesia egileak imitatzeko ereduak izanagatik, bazuen imita zitzakeen eredu horien egileek izan zitzaketen erronkez harantzagokorik: errege, printze, jaun, mezenas eta abarraren inguruan findutako hizkuntzarik ez zeukan, eredu zituen egileek zuten

bezala. Ideiak, figurak, irudiak, sinboloak, «kanonak»,... partekatuak izango ziren, baina hizkuntza landuan adierazi behar zituen. Xehetasunak alde batetara utziz esanda: artzainaren adierazpen bitarteko zen hizkuntza abiapuntu hartuta moldatu behar zuen bere poesiak eskatzen zion hizkera fina. Bada harremanik eguneroko hizkeraren eta hizkera literarioaren artean. Mario Valdes San Martin-ek dioen bezala:

una obra literaria consiste en lenguaje que, a pesar de estar organizado a través de las prácticas de la convención literaria, está, al final, derivado del uso de la vida diaria; similarmente, la cultura literaria se perpetúa, a su vez, gracias a la reabsorción de su discurso por el lenguaje de cada día<sup>3</sup>.

Oihenartek zerabilen hizkuntza ez zegoen bere ereduek zerabiltenaren parean, ez corpusaren ikuspuntutik, ezta statusarenetik ere.

Euskal Herria subjektu politiko izan ez den nazioa den aldetik entelekia hutsa baldin bada, entelekia hori hiztun-komunitate desberdinek osatu baldin badute eta hiztun-komunitate horietan euskalduna izan baldin bada botere politikorik izan ez duen bakarra, gainontzeko komunitateek aldame-nean edo bertan (gaskoiaren kasua) botere politikoa izan dutenean, ez ote ondorioztatu behar sistema desberdinatan funtzionatu duela hizkuntza bakoitzeko produkzio literarioak? Eta polisistema bezala azterketa planteatzen bada, hau da, elkarguneak eta gainezartzeak dituzten sistemen sistema bezala, sistema Euskal Herrian egindako literaturetan jartzeak, markoa zabaltzea eska dezake, Spainia eta Frantziako literaturetan sistema koka-tzeko; izan ere, batean, estatua, besteetan hizkuntza eta estatua parteka-tzeak eragingo zuen sistemaren arteko interferentziarik.

Literaturaren lanabesa hizkuntza da. Mugarri geo-politikoak mugarri lingüistikoekin bat ez datozenean, ezin albora daitezke botere politikoaren erabaki lingüistikoak, hizkuntzaren corpusaren garapenean eta hizkuntzaren status mailan baduelako eraginik botere politiko horrek. Itamar

<sup>3</sup> VALDÉS SAN MARTÍN, M. J., 2005, «Historia de las culturas literarias: alternativa a la historia literaria», in BELTRÁN ALMERÍA, L.; ESCRIG, J. A. (comp.), *Teorías de la historia literaria*. Madrid: Arco / Libros, 204-205.

Even-Zoharren polisistemen teoriaren nazio arteko zabalkundeak oihartzen nabaria lortu du hizkuntza-sistema eta literatura-sistema desberdinak elkarrekin bizi diren lekuetan, hizkuntza, literatura eta kultura anitzen artean ematen diren interferentziak azaltzeko erakusten duen ahalmenarengatik. Euskal Herrian egindako literaturen artean bada interferentziarik, eremu zabalagoetan egindako literaturen artean interferentziak dauden bezalaxe (Europako Mendebaldea, kasu). Sistemen arteko interferentziak dira. Euskal Herriari dagokionez, bertan garatutako literaturen sistemek badute ezaugarriren bat nabarmenki bereizten dituena: hizkuntza ofizialetan eratutakoak dira guztiak, euskalduna ezik.

Euskal Herrian hitz egiten ziren eta diren hizkuntzak corporusak ez ezik, statusak bereizten zituen eta, bereizten ditu. Euskal Herriko literatura egileak hizkuntzaren bat lanabes izateak uztartzen baditu ere, hizkuntza horien corporua eta statusa parean ez egoteak elkarrengandik banatzen ditu.

Ez gaztelania edo frantsesa adierazpen-hizkuntza zuen euskal herritarren lanabesa, ez honen sorkariaren hartzale potentziala egon da euskaldunarenaren parean. Pio Barojaren idazlanak Euskal Herriko «erroetatik» sortuak izanda ere, funtziona zezaketen Euskal Herritik kanpo, errerealismo magikoak Latinoameriketatik kanpo funtzionatu duen bezala. Pio Barojaren idazlanek gaztelaniaren barruti osoan funtziona zezaketen. Euskal idazlearen idazlanak, aurrekoa zen baldintza bat eskatzen zuen: itzulpena<sup>4</sup>.

Beraz, sistema desberdinatan funtzionatu dute Euskal Herrian egindako literaturek. Harremanetan dauden sistemak dira, noski. Literatur sistemak, –eta ez nazio edo estatu batekoak bakarrik– elkarrekin harremanetan daude: sistema bat beste sistema batzuetatik elikatzen da. Nazio bakoitzeko kulturak ez ditu asmatzen aldian aldko konbentzio literarioak. Ondorioz,

<sup>4</sup> Itzuli da, jakina. Zer, noiz, euskaraz argitara eman eta zenbatera... itzuli den aztertzeak emango luke argibiderik aurreikusitako hartzale potentzialaren inguruan. Badira testuak euskal hiztun-komunitatearentzat eta ez besterentzat egin nahi izan direnak eta, beste batzuk, berriz, beste hiztun-komunitateren baten ezagueran jarri nahi izan direnak. Exemplu bikaina izan daiteke *Les proverbes basques recueillis par le Sr d'Oihenart, plus les poesies Basques du même Auteur* (1657) idazlana; izan ere, liburuxkak bere lehen zatian euskal atsotitzak bildu eta frantsesera itzulita ematen ditu, bigarrenean, berriz, mamitu zituen poesiak euskara hutsean gelditzen dira.

literatur sistemaren arteko harremana agerikoa da. Euskal Herriko hizkuntza-anitzasunak literatur sistema zenbaiten bilgune izatea ekarri du.

### 1.1. Parean ez dauden hizkuntzak: corpora eta statusa

Hizkuntza erromanikoz baliatu den Euskal Herriko herritarra latinetik eratorritako hizkuntza batez baliatu da; alegia, berebiziko tradizio idatzia zuen hizkuntza batetik eratorritakoaz, hizkuntza landu batetik eratorritakoaz. Gainera, hizkuntza-ahaideez inguratuta dagoen hizkuntza darabil: euskarak uharte moduko bat eratzen du hizkuntza erromanikoz inguraturik. Euskal idazlearen lanabesaren ahaiderik ez da, ez inguru hurbilean, ezta urrunean ere. Erdararen bat hautatzen duen Euskal Herriko idazlearen lanabesa, aldiz, ahaideez, familiako diren hizkuntzez inguraturik dago.

Bestalde, Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntza erromanikoei beren lantzea bultzatzen duten estatuak dauzkate: botere politikoak berebiziko babesia ematen die. Botere politikotik jasotako bultzadak lagundurik hizkuntzon corpora hedatuz, finkatuz eta sendotuz joan zen, kultura landuko esparrietara zabaltzen.

Aro modernoko estatu-nazioak bere egitarau politikoa indartzeko funtsezko osagai izatetik zetorkien hizkuntzoi latinari aurre egiteko indarra eta baliabideak. Frantsesa, zein gaztelania estatu-nazioaren egitarau politikoaren gunean daude: Franzisko I.ak, Errege Katolikoak... hala erakusten dute.

Euskarak, babes politikoaren hausporik gabe, ez darama Euskal Herrian hitz egiten diren gainontzeko hizkuntzen abiadura berdina, ez corporusaren egokitzeari dagokionez, ezta statusari dagokionez ere. Gaztelania eta frantsesa zein bere estatuak bultzatzen du; gaskoia, aldi batean behintzat, Nafarroako erresumako hizkuntza ofiziala izan zen: Béarn-eko Estatuen legeak gaskoieraz idatz zitezela agindu zuen 1556an Albreteko Joana erreginak: ez zuen beste horrenbeste egin bere agindupeko erresumako beste hiztun batzuen hizkuntza zen euskararekin.

Hizkuntza ofizial bihurtu ez zuen euskara, haatik, ez zuen baztertu Erreforma zabaltzeko bitarteko legez. Kalbinistek 1563an Pauen egindako lehen

Sinodoan Testamentu Berria eta beste zenbait liburu euskaratzeko erabakia hartu zuten.

Lantegia bere gain izan zuen Joanes Leizarragak Albreteko Joana Erregi-nari berari egindako eskaintzan aitortzen dioenez:

Carguaren hartzera bathiric ecin naidiqueen, eta guti falta cedin non ezpainendin choil guibelera, nacussanean hambatez ene entre-presa handiago, cembatez nic scribatu dudan lengoage motá baita, sterilenetaric eta diversenetaric: eta oraino, translationetan behinçat, usatu gabea.<sup>5</sup>

Hizkuntza antzuenetako eta askotarikoa izatea atxikitzen dio euskarari. Alegia, idatziz gutxi landutakoa –itzulpenean behin ere ez–, eta finkatu gabea: euskalki, azpieuskalki eta aldaeretan aberatsa. Oztopo horiengatik mandatuari uko egitekotan egon omen zen.

Bada XVI. mendearen azken herenean frantsesez edo gaztelaniaz idatzitako testu erlijiosorik gisa honetako aitorpenik egiten duenik? Hizkuntza landu tradizionalez baliatzen ez den orori eskatzen dio hizkuntzaren erabilera zorrotza testu erlijiosoak; larritasuna erakusten duena, ordea, babes politikorik izan ez duen hizkuntza bateko hiztuna da: bere lan-tresna ez dago babes hori izan duten hizkuntzen parean.

Nahiz eta Leizarragak antzutasunari eta forma askotarikoa izateari egotzi euskarak Testamentu Berria itzultzeko sorrarazten dizkion eragozpenak, seguru aski izan bazen besterik ere: euskara hizkuntza erromanikoz inguratutako hizkuntza ez erromanikoa izatetik eratorritakoak, hain zuzen ere.

Patxi Altunaren esanetan joskeraren barrutian badago alderik Leizarra-garen eta Etxeparereren idazlanen artean:

se diría que Dechepare es más fiel a la lengua real y viva que Leizarraga, a quien separa del primero poco más de un cuarto de siglo. Ello revela, sin duda, un hecho claro: una mayor influencia y más visible del orden románico en prosa que en verso, cuya última expli-

---

<sup>5</sup> LEIÇARRAGA, I., 1571, *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria, Kalendrera eta ABC, edo Christinoen Instructionea*. Euskaltzaindiak, Bilbon 1990ean eginiko ediziotik aipatua, 252.

cación no parece ser otra que la falta de tradición indígena en la prosa escrita. En ésta la creciente presión de las lenguas románicas circundantes apenas encuentra resistencia alguna, en tanto que el verso por su larga tradición y formas de expresión ya consagradas opone un serio obstáculo a dicho influjo.<sup>6</sup>

Prosan bertsoan baino nabarmenagoa omen da ordena erromanikoaren eragina: batean eta bestean tradizioak duen pisu desberdinari egosten dio aldea.

Tradizioaren pisua edo besterik ere izan daiteke Leizarragaren prosa ordena erromanikora «makurtzearen» zioa. Adibidez, uste izatea ordena erromanikoaren eraginpean itzulpen zehatzagoa lor zezakeela edo eguneroko mintzairaren maila Jainkoaren Hitza itzultzeko egokitzat ez jotzea, edo... Baina, zeinahi arrazoiri erantzuten diola ere, kontua da Leizarragak ez due-la ikusten euskara inguruko hizkuntzen mailan ez corpusaren aldetik, ezta statusarenetik ere.

Euskal idazlearen zaitasunak ez ziren amaitu XVI. mendean. Hasi baino ez ziren egin. Mende batzuen jauzia egin ondotik ere, bada corpusak ezarritako oztopoei egindako erreferentziarik. Ibon Sarasolak, esaterako, honela dio Ramon Saizarbitoriaaren *Egunero hasten delako* (1969) eleberriari eginiko hitzaurrean:

Euskal-nobela problema izugarri batzuen aurrean arkitzen da. Lehnik, euskal-prosa modernoaren problema. D. Agirre bat euskal-prosaren maisutzat hartzen da. Orixetxulari oso trebea omen zen. Guzi hau ongi dago. Bainan Agirreren euskera paregabeak Garoa idazteko balio zuen, eta Orixeren dohain guzia S. Agustinen liburua euskeratzeko. Zeren, nork idatziko luke Joice-ren «Ulises»a Agirren euskera? Ez dut uste Agirre edo Orixetxulari ekiteko idazlerik egokienak izan zitezkeanik<sup>7</sup>.

Zalantzarik gabe, Garoako euskararekin ez zegoen James Joyceren *Ulises* itzultzerik. XX. mendearen azken herenera iritsi eta gero ere, euskarak ez

<sup>6</sup> ALTUNA, F. M., 1979, *Versificación de Dechepare: métrica y pronunciación*, Bilbao: Mensajero, 341.

<sup>7</sup> SARASOLA, I., 1969, «Hitz-aurre», in Saizarbitoria, R., *Egunero hasten delako*. Donostia: Lur editoriala, 4.

dauzka corpus mailako eragozpen guztiak gaindituta. Lerro batzuk beherago baiezten duenez:

ikusten dugu gure hizkuntzaren moteltasuna, eskasia eta atzeratasuna, gure iztegi urria (alde batetik hitz gehiegi eta bestetik aldiz gutxiegi dituena), gure sintaxis hertsia eta ankazgoratua (alderdi batek eta bestetik), gure jardunaren baserri-kutsu soportatu ezina (4. or.).

Honela bada, euskara adierazpide izan duen euskal herritarraren lanabesa ez da egon historikoki gaztelania edo frantsesa lanabes izan duenaren mailan, ez corpusaren, ez statusaren ikuspuntutik.

Azken mailan zegoen hizkuntza lehen mailara eraman zuela aldarrikatu arren Etxeparek, euskara idazketaren eta moldiztegiaren iragazitik lehenbiziko aldiz iragaztea baino euskarri sendoagorik eta zabalagorik behar zen lehen mailari eusteko. Beste baliabide batzuen artean, hizkuntzaren gramatika bat; izan ere, Aro Modernoak herri hizkuntzaren statusetik hizkuntza landurako jauzia burutzea hizkuntza arautuaren lorpenean jarri zuen.

Hizkuntza bat gobernatzen duten arauak zehazten dituen gramatikarik ez izateak, «arterik gabekotzat» jotzea dakar, herri-hizkuntzaren mailan kokatzea. Esteban de Garibaik euskarak gramatikarik ez izatea deitoratzen bazuen, herri-hizkuntzak hizkuntza landu bihurtzeko gramatikaren iragazitik iragaztea nahitaezko baldintza zuelako zen. Gramatika hori ez zen heldu XVIII. mende arte. Larramendi *El imposible vencido* (1729) eta *Diccionario Trilingüerekin* (1745) hor ibiliko da euskara bera inguratzen duten hizkuntzen mailan dagoela frogatu nahian XVIII. mende bete-betean.

Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntzak ez daude, inondik inora, parean. Botere politikoaren bultzadak lagundurik arautuz eta normalizatzu doaz gaztelania eta frantsesa, ez horrela euskara. Horiek, latinarekin lehia bizian, kultur hizkuntzaren statusa eskuratzu doaz; euskarak, berriz, luza-roan jarraituko du borroka horretan.

Euskal Herrian XVI. eta XVII. mendeetan garatzen diren letrek nahiko garbi islatzen dute hizkuntzen arteko status desberdintasuna: historia, euskararen apologia, arte poetiko... egiteko ez da erabiltzen euskararik. Euskaraz igorritako ezaguerak eliz liburuari darion irakaskuntzara murritzten dira.

Zeinahi izanik ere erabilitako hizkuntza, garai haietan letrak ez zeuden edonoren esku: itzal handiko familiako kide da Martinez de Zaldibia historialari tolosarra; badu aurrekorik Ahaide Nagusien artean Felipe II.aren kronista izatera heldu zen Esteban de Garibai historialariak; familia diruduneko seme da Poza Lizentziatua; Sarrasquetteko jaun Juan Etxeparekoaren anaia da Bernard Etxepare, Jaurgainen ustez; Mauleko merkatari-burgesen biloba eta abokatu baten seme, Arnaud Oihenart. Hori gutxi ez zela, ezkontzaz nobleziaren maila eskuratu zuen. Eta, norena izango 2004an aurkitutako izkuizkribua eta Juan Perez de Lazarragarena, Larreako jaunarena. Eta, zein idazleren berri izango eta, Beltran de Zalgizeren berri, Nafarroako Auztegi Gorenean Erret Aholkulari izan zen noble hugonotearena: euskal lehen poeta, Oihenarten esanetan.

Beste letradunik ere erants daiteke nahiz historialarien barrutian –Ibarguen-Cachopin, Lope de Isasti–, baita euskararen apoloziaren ere: Baltasar de Echave, kasu. Euskal Herrian XVI.-XVII. mendeetan letrak landu zituztenen gizarte-mailak argi asko erakusten du zein selektiboa zen ikastetzen barrutirako sarbidea. «Aukeratu» gutxi horiek ikasketetako hizkuntzari edo hizkuntzei eutsi zioten beren bizitza intelektualean.

Hainbatek egin zion tartetxoren bat euskarari, bilketa edo goraipamen objektu bihurtuz. Historialariek –Martinez de Zaldibiak, Garibaik, Ibarguen-Cachopinek, Lope de Isastik– XIV. eta XV. mendeetako zenbait ger-taeren gainean sortutako kanten puskak jaso zituzten. Baita eresiak ere. Garibaik, Oihenartek eta Zalgizek beste bilketa-lanik ere egin zuten: erre-frauak. Euskararen apologistek euskara goretsi zuten. Baino, irakaskuntza erlijiosoaz arduratu zirenetatik kanpo letradun gutxik hartu zuen euskara idazlan baterako adierazpide XVI.-XVII. mendeetan: Bernard Etxeparek, Juan Perez de Lazarragak, Oihenartek eta, dirudienez, Zalgizek.

Itamar Even-Zohar-ek dioenez,

A lo largo de la historia mundial, modelos creados en el seno de una cultura podían pasar a otras si éstas tenían motivos para desear igualarse con la cultura de la que adoptaban el modelo. Encontramos abundantes evidencias de contactos dirigidos a obtener este tipo de «préstamos». Cualquier grupo de personas que pretendiese estar a la

altura de otro grupo, puede hacerse siempre esta pregunta: «Por qué no tenemos nosotros todos estos bienes y tradiciones?». (...). Este modelo básico de relación entre el «poseer» y el «no poseer», funciona en todos los niveles socioculturales y para cualquier número de personas. Tengo la fuerte convicción de que los repertorios que he estado mencionando no fueron inventados en cada cultura de manera individual o «nacional». Cuando se tiene que establecer en una sociedad una nueva institución, uno tiene instintivamente la idea de tomarla de alguna fuente, así como tomar también el repertorio que esta institución conlleva.<sup>8</sup>

Badirudi, komunitate euskaldunak ere, ondoan zituen hizkuntza-komunitateen maila eskuratzea bilatu duela historian barrena. Hau da, horiek «zutena» «edukitza» bilatu duela. Horiek landutako hizkuntzaren barrutiak, euskaraz ere lantza, alegia.

Arnas handiko edo apalagoko xedea duen idazlana egiteko, euskara adierazpide hartzen duen herriarrean militantzia linguistikoaren aitorpena hedatu samarrik dago: batzuk hizkuntzak aurrez aurre jarritako erronak gainditzeko hartu zuten luma; beste batzuk, modu apalagoan, euskararen alde, besterik gabe.

Bada egilerik militantziaz edo/eta mandatuz idazlana burutu duela aitorzen duenik: argitaratutako hainbat idazlanetako hitzaurreen arabera, hizkuntzaren beharrek bultzatu dute idazlearen idazketa.

Zinez, apaltasuna erakusteko toki du hitzaurrea egileak. Luma hartzeko atrebentzia izan duen idazleak, ausardia hori zuritu nahi izaten du, norbere buruaren handiusteari egotzi ez dakion. Euskal letretan deigarria da, zenbateko maiztasunarekin ezkutatu duen egileak luma hartzeko atrebentzia, euskarari edo euskaldunari egindako zerbitzuan.

«... eta baskoek, berzek bezala, duten bere lengoajian eskribuz zerbait doktrina, eta plazer hartzeko, solas egiteko, kantatzeko eta denbora igarai-

<sup>8</sup> EVEN-ZOHAR, I., 1994, «La función de la literatura en la creación de las naciones de Europa», in VILLANUEVA, D. (comp.), *Avances en teoría de la literatura (Estética de la Recepción, Pragmática, Teoría empírica y Teoría de los Polisistemas)*. Santiago de Compostela: Universidad de Santiago de Compostela, 365.

teko materia»<sup>9</sup> izateak bultzatu zuen Etxeparereren langintza: euskara idazketa-taren iragazitik iragaztea zuen erronka.

XVI. mendeko Etxeparek erronka bat erantzun bazion, XVII. mendeko Oihenartek beste bat: euskaraz neurtitz zuzenak ontzearenari. Oihenart atsotitz biltzailea, berriz, aberriari zerbitzu egiteak gidatzen du.

XX. mendera etorri eta, mendearen hasieran, Txomin Agirrek *Kresalari* (1906) eginiko hitzaurrean dioenez:

KRESALA da nik euskerearen alde gaur dakartan ondar ale-  
txoa.<sup>10</sup>

Garoarako (1912) nahi baten adierazpena gorde zuen:

Erneko al dira euskeraz irakurgai gozo, ugari ta mardulak. Betoz  
ordu onean, betoz ainbat lasterren.<sup>11</sup>

XX. mendean aurreratu ahala ere aurki daiteke horrelako aitorpenik. Mendearen erdi inguruan, adibidez, bada hizkuntzaren egoerak sustatutako idazketarik. Joseba Eizagirrek *Ekaitzpean* (1948) eleberriari erantsi zion hitzaurrean honela dio:

Euskera galduko ba litz Euskal-Erria zearo galdua litzakela ziur ba  
dakigulako gure izkuntza maiteari iraupena eman nai genioke; beraz,  
mintzatu ta irakurri bearrean gera, eta irakurtzeko irakurgaiak bear  
ditugu noski<sup>12</sup>.

Jon Andoni Irazustak *Bizia garratza da...* (1950) eleberriarekin laguntzaren bat eman nahi dio hizkuntzari:

Jainkoak lagundu dezaiola [*Bizia garratza dari*] euskera zabaltzen.<sup>13</sup>

<sup>9</sup> ETXEPARE, B., 1545, *Linguae Vasconum Primitiae*. Euskaltzaindiak Bilbon 1995ean eginiko ediziotik aipatua, 79.

<sup>10</sup> AGIRRE, D., 1906, *Kresala*. Editorial Franciscana Aranzazuk Oñatin 1976an argitaratutako ediziotik aipatua, 10.

<sup>11</sup> Labayru Ikastegiak Bilbon 1987an argitaratutako ediziotik aipatua, 28. or.

<sup>12</sup> EIZAGIRRE'TAR, J., 1948, *Ekaitzpean. Ipuinberri*. Buenos Aires: Editorial Ekin, 4.

<sup>13</sup> IRAZUSTA'TAR, J. A., 1950, *Bizia garratza da...* Buenos Aires: Editorial Ekin, 9.

Mandatuz datorren idazlanik ere bada: Leizarragaren itzul lanak (1571) edo Orixeren *Euskaldunak* (1950). Biak mandatu-egileek somatzen duten hutsuneren bat betetzena datozen, dela erlijioaren barrutian, dela literaturarenean.

«Euskaltzaleak» bazkunaren mandatua betetzeko mamitu zuen Orixek 1934rako *Euskaldunak*. Mandatariek epopeia baten gabezia somatzen zuten:

Acariciaron los instigadores del Poema Vasco la idea de crear una obra a la manera del «*Kalevala*» o epopeya finlandesa publicada por primera vez en Helsingfor en 1835 por Lonnrot<sup>14</sup>.

Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntzak ez dira inoiz egon parean, ez corpusaren, ez statusaren, ezta hiztun-kopuruaren ikuspuntutik ere. Gaztelaniak eta frantsesak, berriz, mundu zabaleko hiztun-komunitaterik handienetakoak osatu dituzte.

Literatura, agian, ezingo da murriztu bere osagai linguistikora, baina osagai linguistikoa ezinbesteko du. Idazlearen sorlekuaren idiosinkrasiaiak ekarri bereziren bat egin dezake honen obrara: jadanik aipatu dira Latinoameriketako errerealismo magikoa edo Barojaren Euskal Herriko «erroak». Haatik, literatura hizkuntza bakarrik izan ez arren, nahitaezko lanabes du idazleak eta Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntzetako bat, maila oso desberdinan dago bai corpusaren lantze aldetik, bai gizartean eskuratutako statusaren aldetik, bai hiztun-komunitatearen neurriaren aldetik.

Euskal letren barrutia nagusiki erlijioak eta hizkuntzaren bizi-iraupenak harrapatzen dute. Batik bat beharrak eragindako idazketa da: Erreforma lehenik, Kontraerreforma gero, zabaltzeko euskara nahitaezko komunikazio-bitarteko da, euskaldunik gehienak elebakarrak direlako. Hizkuntzak, berriz, ondoan dauzkan erdaren parera hurbiltzeko urratsak eman behar ditu: idatziz eman, goraipatu (apologiak), gramatikaren iragazitik iragazi, hiztegia landu... eta, baita horietan mamitzzen diren testu-tipoei ere toki egin. Azken batez, euskararen corpsua eta statusua aldameneko erdaren pare

---

<sup>14</sup> LABAYEN, A. M., 1951, «Introducción», in ORMAETXEA, N. («Orixek»), *Compendio del poema vasco «Euskaldunak» con glosario romance*. Zarauz: Editorial Icharopena, XVII.

jartzea da kontua eta horretarako ez dago asmatu beharrik, «eredua» jarraitzea baita hoberena: jorratu gabe dauden esparruak jorratu eta jorratzen hasitakoak sendotu. Horra hor erdarek «zutena» «edukitzeko» bidea. Baino, «eredu-jarraipenik» egon badagoen arren, ez da parean jartzeko behar bestekoa. Horregatik, Euskal Herriko herritarrek hitz egiten dituzten hizkuntzen artean alde nabarmena dago eta, ondorioz, idazlearen lanabesean: lanabesa bera du arazo euskaldunak, lanabesera bertara arreta bilduta jarraitzen du euskal idazleak mende luzetan.

Ez da bakarrik hizkuntzak ez daudela parean, bada, baita ere, hiztun elebiak edo eleanitzak hizkuntzen erabilera diglosikoa egiten duela eta, oro har, hitz egiten diren hizkuntzen arteko banaketa soziala ez dela orekatua: hizkuntzen arteko status desberdinak hiztunaren aukera linguistikoan eragiten du. Euskal Herrian hitz egiten diren hizkuntza erromanikoak hizkuntza landuaren statusa finkatu eta sendotu ahala, euskarak kontrako bidea egiten du: distantziak handituz doaz.

Idazleak norbaitentzat idazten du. Hizkuntza erromanikoa darabilen Euskal Herriko idazleari hartzale potentzial ikasia haziz doakion bitartean, euskaraz idazten duenari gutxitzen doakio.

Gauzak honela, hizkuntza erromanikoetan bideratutako berbaldiek eta euskarazkoek eratzen dituzten sistemen osagai diren faktoreetan aldeak nabarmenduz doaz: ekoizleen profilean, kontsumitzalearenearnean, produktuarenean, merkatu eta instituzioarenean, errepertorioarenean.

## 1.2. Literatur genero tradizionalaren barrutia

Hizkuntza hiztun-komunitate baten komunikazio bitartekoia izanik, hiztunak, eguneroko bizitzak sorrarazitako komunikazio premiak asetzera mugatu gabe, tresna honen erabilera artistikoa ere egin du. Horrela, hitza sorkarietarako lanabes bihurtu eta, beste behar batzuk ase ditu: oroitu, mundua ulertu, gozatu....: behar primarioak asetzeak eragindako eskakizunetatik kanpo zeuden eginkizunetarako ere erabili du. Eraketa-mailaren bat duen gizarte ororen jarduera izan da hitzezko berbaldiak sortzea eta kontsumitzea.

Historikoki euskal idazketa urria izan da. Are urriagoa da, idazketa urri horretan literatur genero tradisionalak betetako lekua, egun dokumentatu daitekeenaren arabera behintzat. Dena den, transmisioan galerak egon direla ere gauza jakina da: hala erakusten du Oihenartek bere «Arte poetiko»an aipatzen dituen eskuizkribuak galduak izateak eta abarrek. La-zarragaren eskuizkribua 2004an aurkitu izanak berak galeren susmoa area-gotu besterik ez du egiten.

2004an ez ezik, aurretik ere, zorte ona izan du lagun euskal testuak: *Linguae Vasconum Primitia etik* (1545) edo *Refranes y Sentencias etik* (1596) gel-ditutako ale bakarrak eskuratzeak badu zorrik zortearrekin.

Argitalpenen igorpenean ere, egon da galerarik. Oihenartek egindako aipamen soilean gelditzten da *Linguae Vasconum Primitiae*ren bigarren argitalpenaz ezagutzen den guztia. Lehen argitalpenaren beraren arrastorik ere ez zen izan luzaroan: Oihenartek 1665ean helarazitako berrien ondotik, ez dago besterik, harik eta gordetako ale bakarra Francisque Michel-ek aurkitu eta, 1847an berrargitaratzen den arte.

Argitaratutako ale-kopuruan ere bada urritasunik: Oihenartek lagun artean banatzeko edizio bitxi samar bat besterik ez zuen egin bere *Les proverbes basques recueillis par le Sr d'Oihenart, plus les poesies Basques du mesme Auteur* (1657) obraz.

Eskuizkribuak, jakina, ez ziren argitaratu.

Baldintza hauetan nekez eskura zezaketen bizitza literario sendorik euskal idazlanok. Argitaratuen artean, Etxeparereren *Linguae Vasconum Primitiae* izan daiteke babesik handiena lortu zuena; izan ere, testuaren ibilbidearen gorabeherek zabalkunde mailan eten luze samarra izan zuela erakutsi arren, galduta igaro zuen aldi honetan ere bizirik iraun zezakeen: egileak hitzaurrean zioenez, bertso hauek kantatzeko paratu zituen eta ahozkotasunean bizi izan zitezkeen<sup>15</sup>.

---

<sup>15</sup> «Efectivamente, un eco de sus versos –o de los de la fuente popular común– ha llegado hasta nuestros días en unas fórmulas rimadas conservadas por tradición oral en Navarra (Olazagutia, Aezcoa, Salazar)». MICHELENA, L., 1960, *Historia de la literatura vasca*. Madrid: Ediciones Minotauro, 47.

Zalantzak gabe, literatur genero tradizionalen barnean euskal letretan landu zena egun ezagutzen den ondarearen gainetik egon zen. Edozein kasantan, produkzioaren neurria epaitzerakoan gogoan hartu beharko litzateke, nola hiztun-komunitatearen neurria, hala euskarak Euskal Herriko gizartearen egindako ibilbidea.

Literatura gizarte jakin batean sortzen da, koordenada soziokultural jakin batzuetan. Gizartea, hizkuntza, literatura... estratifikaturik daude. Literatura ere estratifikaturik dago. Hasteko, idazle izateko idazten jakin behar delako eta irakurle izateko, berriz, irakurtzen. Bistakoa da, literatura-irakurle izateak zenbait baldintza eskatzen dituela. Bakarra ez izanda ere, baldintzetariko bat, irakurtzen jakitea da. Xehetasunak alboratuz, XVII. mende arte ez bada eratzen irakurlegoa, eta oraindik 1830-1850 urteetan liburuetara jotzeko gaitasuna Mendebaldeko bizilagunen %15era mugatzen bada, «gehienak» publiko-irakurle izateko gaitasunetik urrutti zeuden<sup>16</sup>.

Gauzak honela, agerikoa da, euskaldunak ez ezik, Mendebaldeko bizilagunek gehienak ere, beren behar literarioak ahozkotasunean asetzen jarraitzen zutela XIX. mendean bertan: analfabetoa izateak berak jartzen zuen lehen hesia. Liburua luxuzko produktua izana zen eta oraindik ere ez dago edonoren esku. Gainera, entzulea gabe, irakurlea galdatzen du, kultura-maila bat...

Agerikoa da, halaber, Mendebaldeko hizkuntzetako hiztunek behar literarioak asetzea jomuga zuten testuak sortu zituztela: literatura nazional desberdinak historietara jotzea aski da horren berri izateko. Historia horiek dena delako hizkuntzan egindako dokumentu literariorik bikainenak jasotzen dituzte, nahiz eta, argitaratu zirenean, dokumentu horiek ez izan hartzailerik gehien eskuratu zuten berbaldi literarioak. Bestela esanda, ez euskaldunen artean bakarrik, baita espanolen edo frantsesen artean ere, gehiagok ase dituzte beren behar literarioak ahozkotasunean irakurketa bide baino alfabetatueng kopuruak nabarmen gora egin arte, literaturaren historia nazional horiek halakorik ez islatu arren, euskarri dituzten irizpide eta oinarri teorikoak direla eta.

---

<sup>16</sup> Xehetasun gehiagotarako, LLOVET, J. [et al.], 2005, *Teoría literaria y literatura comparada*. Barcelona: Editorial Ariel, 34-36.

Euskaldunak batik bat ahozkotasunean eta, aurrerago, baita jendau-rean ahots goraz egindako irakurketaren bidez ere, ase ditu bere behar literarioak. Alderdi honetan, ez dago alde handirik gaztelar edo frantses barrutiekin: hiztunik gehienak ahozkotasunean aseko zituzten beren behar literarioak edo ahotsa iraganbide zuen testua bitarteko, eskolatzea orokortu arte.

XIX. mendean oraindik igor bide horiek jarraitzen dute izaten euskal hiztun-komunitatearen behar literarioak asetzeko euskarririk emankorrenak. Dena den, mende honetan modu nabarmenean gehitzen da euskarazko testu literarioa.

Faktore desberdinak erraz zezaketen euskaraz egindako idazketaren gehikuntza. Europako Mendebaldean bada aldaketarik:

Las conquistas de Napoleón en toda Europa reforzaron la expansión de las ideas revolucionarias e hicieron aflorar los sentimientos nacionalistas en Alemania e Italia, pero también produjeron efectos en España, Polonia, Bélgica, Rusia y Portugal. Esos sentimientos se manifestaban en una actitud de resistencia ante el dominio extranjero, es decir, ante el imperialismo francés. Como consecuencia, cobraron un nuevo valor las costumbres nativas, las instituciones locales, la cultura y la lengua tradicionales.<sup>17</sup>

Sentimendu nazionalisten agerrera, Hego Euskal Herriko lurrardeek ordu arte izandako ordenamendu juridiko-administratiboa Espainiako Gobernuak auzitan jarri izanak, erromantizismoak hizkuntza baztertue-kiko erakutsitako interesak... eragin zezaketen. Baino, faktore horiek batera eta, behar bada, horien aurretik, ikasketen eremua jende gehiagok eskuragarri izateak lagundu zuen. Aurreko mendeetako literatur produkzio idatzia-rekin alderatuz gero, gehikuntza ikaragarria da: Iztueta, Iparragirre, Etxahun, Eusebio Maria Azkue, Elizanburu, Bilintx, Hiribarren, Jean Duvoisin, V. Iraola, Claudio Otaegi, Serafin Baroja, Ramon eta Jose Artola, Felipe Arrese Beitia, Antonio Arzak, Martzelino Soroa, Toribio Alzaga... Bada besterik ere Lore-joko eta euskal festetako lehiaketa lite-

---

<sup>17</sup> ROMERO, D., 2006, «Introducción», in ROMERO LOPEZ, D. (ed.), *Naciones literarias*, 11.

rarioetara aurkeztutakoentzat artean. Hazkunde deigarria da. Literatur genero tradizionalek barneratzen dituzten testu-tipoen hazkuntza honetan, modu nabarmenean, poesiak prosari irabazten dio. Barne-sentimenduak azaltzeko, satirizatzeko, kronika egiteko... bertsora bildutako adierazpena hobesten da. Bertsoaren ugalpen-mailatik urrun gelditzen da lantzen den prosa narratibo urria edo antzerkiaren alorrean egindako komedia, sainete, zarzuela edo opera-libreto bakanak. Oihenartek aipatua zuen euskaldunaren bertso zaletasuna. Dirudienez, zaletasun horrek XIX. mendean ere irauten du. Hala erakusten du orduko produkzioak, Carmelo Echegaray ohartu zen bezala:

A esa abundancia de verso, no acompañó igual abundancia de prosa. Por el contrario, la prosa, salvo contadas excepciones continuó reducida á los libros piadosos, y cuando en un concurso cualquiera se dejaba en libertad de presentar sobre un tema trabajos escritos en prosa ó verso, el verso era siempre el preferido.<sup>18</sup>

Bertso soltearen ageriko ugalpenetik dator batik bat hazkunde, nahiz eta, horren ondoan, oso azpimarragarria izan prosa narratiboaren edo antzerki generoen lantzeari irekitako tartea. Prosa narratiboaren alorrean emandako urratsak, behingoz, jarraipena lortuko dute etorkizunean. Baita antzerki-generoek ere. Alderdi honetatik XIX. mendeko literatura egileek egindako ahalegina oso nabarmena da: inguruko literaturetan lantzen diren generoak euskaraz ere landuta ikusi nahi dituzte. Hori da asmoa, prosa narratiboaz baliatu ziren testuak, gehienetan «helbururik gabeko helburua» dutenak ez izanagatik.

Ez da argitaratzen poesia libururik, batasun baten azpian mamitutako poema-multzorik: bertso solteek aldizkaria, bertso-papera... dute argitalpen-leku. Lantze-mailan aldeak dituzten poesion artean, bada kidetasunik: bertso solteak izanik, poesia liburuaren eskakizun nagusietako bat saihesten dute, ez baitago poesiak egituratu beharrik, ordenatu beharrik, multzoa hurremanetan jarri beharrik. Ondutako bertso guztiak publiko bera gogoan ez izanda ere, poesia egiteko modu erraza da.

---

<sup>18</sup> ECHEGARAY, C. DE, 1901, *Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel*. Tolosa: Imprenta, Librería y Encuadernación de E. López, 38.

Prosara biltzen den berbaldia, bertsora biltzen dena baino didaktikoagoa da. Apenas dago prosa narratiboko erakuskaririk entretenimendu soila xede duenik. Bertsoan, berriz, arrunt samarra da, nahiz eta izan baden helburu didaktikodunik ere.

Eskolatzea gizarte-geruza zabalagoetara hedatzen doan neurrian, gero eta gehiago dira letrarekin harremana arrotz ez dutenak. Ondorioz, lehen ahozkotasun hutsean bere behar literarioak asetzan zituenak, orain irakurketa bide ere ase ditzake. Euskal hiztun-komunitateak beste hizkuntza batean eskolatzen jarraitzen du, baina eskolan eskuratutako trebetasunak, euskara ordezkatu gabe, ama-hizkuntzan bertan ere balia ditzake.

«Eguneratu-nahiari» eusten dio euskaldunak XIX. mendean (ondoko hizkuntzetan lantzen diren testu-tipoak euskaraz ere jorratu, kultur aldzikariak sortu eta idazle-irakurleen esku jarri...). Inguruko hizkuntzek daukaten eduki nahi horretan militantzia linguistikoaren eragiletasunak nabaria izaten jarraitzen du.

Militantzia linguistikoaren eragiletasuna ezin heda daiteke idazketaren barruti osora, ezta idazle guztieta ere. Esan nahi dena argitzeko, Bilintxengana jo daiteke, adibidez. Bilintx, seguru aski, bertsoak erakartzen du. Bilintxek bertsoak paratzen ditu gogoko duelako eta ez hizkuntza baten iraupenera ekarriren bat egiteagatik. Bertsoa gogoko izanik, bertsoak idatzi zituen idatz zitzakeen hizkuntza bakarrean, bere mundu afektibo eta bizi-penetakoa zen hizkuntzan, hain zuzen ere. Militantziak, batik bat, prosa harrapatzen du, ez horrenbeste, bertsoa.

Euskararen lantze-esparruak hizkuntza ofizialetakotara hurbiltzen joatea (jada lantzen ziren testu-tipoak berrituz joan, esparru berriak irabazi...) areagotuz doa denboran aurrera egin eta gizarte-baldintzak aldatu ahala. Literatur genero tradizionalen barnean, XX. mendearen hogeit eta hamar urteen inguruan poesia berrituko da..., berrogeita hamargarren urteetako berrikuntzek, jada eleberria ere harrapatuko dute..., harik eta XXI. mendearen atarian «egunean» bizi izateak nobedade izateari uzten dion arte.

Azken batez, euskal adierazpen idatziaren garapenak –literarioak eta ez literarioak– hainbat faktore kontra izan ditu: dela estatuaren babesik ez

izana, estaturen batek Euskal Herrian hitz egiten ziren gainontzeko hizkuntzak babesten zituenetan, dela ahaide ez zituen hizkuntzez inguratua egotea, inguratzen zuten hizkuntzok familia berekoak zirenean, familia bereko izaateak arazo linguistikoei aurre egiteko ematen dituen abantailekin, dela hiztun-komunitate txiki baten hizkuntza izatea, hiztun-komunitatearen neurriarekin proportzioa gorde ohi duenean literaturaren eta, oro har, letron produkzioak...

Faktore guzti horiek aurka izanda ere, egun hizkuntzak bizirik jarraitzen badu, ondorioztatu behar da, izan direla hizkuntza ordezkatu beharrik somatu ez duten euskal hiztunak. Ordezkatu beharrik somatu ez badute, unean uneko beren beharrak –behar batzuk bai behintzat– asetzeko tresna nahikotzat eta egokitzat zutelako izango da. Bestalde, historikoki, tresna «eguneratzeaz», «egokitzeaz», «atzemandako hutsuneak betetzeaz», ardura tu denik egon da, lehentxeago ala beranduxeago, hobeto ala okerrago...

Euskal adierazpen literario idatziaren eta, oro har, euskal letren garapena euskarak Euskal Herriko gizartean egindako ibilbideari loturik doa. Izan ote zitekeen beste modu batean hizkuntza izanik literatura, letrak, lantzko lanabesa? Literatur genero tradizionalak historikoki euskara idatzian gutxi landu izanaren gakoa, «goi-mailako» literatura gutxi landu izanaren gakoa, jende ikasi elebiak edo eleanitzak egindako «hautu» linguistikoan dago. Eta letrak, orokorrean, gutxi landu izanaren gakoa, jakina.

## 2. Historia baterako aukera-irizpideak

Desiré Nisard-ek 1844an historia literarioa eta literatur historia berezi zituen. Nisard-entzat historia literarioa nazioarekin edo hizkuntzarekin hasten da eta hizkuntzaren heriotzarekin amaitzen. Beraz, idatzitako guztia bessarkatuko luke. Aldiz, literaturaren historiak honako murrizketa egingo luke:

il y a une littérature le jour où il y a un art; avec l'art cesse la littérature<sup>19</sup>.

---

<sup>19</sup> Taccak aipatua. Tacca, O., 1968, *La historia literaria*. Madrid: Editorial Gredos, 46.

Gustave Lansonek ere, XX. mendearen hasieran (1903), ildo horri eussten dio. Historia literarioa ulertzen du «como el cuadro de la vida literaria en la nación, la historia de la cultura y de la actividad de la multitud oscura que leía tanto como la de los individuos ilustres que escribían»<sup>20</sup>, literaturaren historiak, berriz, maisu-idañanak bakarrik aztertuko lituzke.

Izendapenak izendapen, modu batera ala bestera izendatuz, aukera bat euskal letron historia egitea litzateke, nahiz guztien, nahiz batzuena. Euskal letron historia honek euskarak idazketaren barrutian egindako ibilbide osoa jasoko luke. Letra guztiak gabe, batzuk jasoko balitu, aukera-irizpideen berri emanaz hasi beharko luke, noski. Edozein literaturaren historiak, nahitaez, literaturari buruzko ikuspegi bat eskatzen du: berariaz esanda ala esan gabe, literaturari buruzko ikuspegi bat dago literaturaren historia ororen oinarrian. Euskal literaturaren historia izenburuean argitaratutako ikaskuntza bat euskaraz jorratutako letra guztietaz arduratzen bada, bistakoa da literatura berbaldi idatzi ororekin identifikatzen duela. Berbaldi idatzi oro behatu gabe, batzuetara biltzen badu arreta, hautua zein irizpidek gobernatzen duen adierazi beharko du.

Euskal letron historia egiteak badu interesik, zalantzak gabe: euskara idatziaren ibilbidea jasoko luke. Baino, ondare horrek badu interes literariorik bere osotasunean? Galderari erantzuna literaturari buruzko ulerkuntzan legoke, noski. Nire ustez, adierazpen idatzi ororen historiak ez luke azalduko euskaraz garatutako bizitza literarioa, ez modu oso batean behintzat. Literaturaren historiaren eginkizuna historian barrena berbaldi literarioek izandako bizitzaren berri ematean jartzen den neurrian, letron historiak ez luke ahalmenik horretarako. Bestela esanda, letron historia horrek –guztiak nahiz batzuk bakarrik barneratzen dituela ere– ez du gaitasunik literatura moduan jaso diren berbaldiekin izandako elkarrizketen berri emateko.

Poesia izendapenaren azpian lehenik, literatura izendapenaren ean gero, «helbururik gabeko helburuarekin» egindako hitzezko gertaerak bildu dira. Berbaldi-modu hau litzateke literaturaren historiarako osagaia eratuko lukeena.

---

<sup>20</sup> Romero Tobar-ek aipatua. ROMERO TOBAR, L., 2004, «La historia literaria, toda problemas», in ROMERO TOBAR, L. (ed.), *Historia literaria / Historia de la literatura*. Zaragoza: Prensas Universitarias de Zaragoza, 69.

Nola euskaraz, hala Mendebaldeko beste hizkuntzetan garatutako bizitza literarioak euskarri desberdinak izan ditu igor bide eta, komunikazioaren bestaldean, irakurlea zein entzulea hartzaile. Ahozko eta idatzizko praktika artistikoek osatzen dute literatura moduan jasotako altxorra. Ikuspuntu kontua da eta ez dauka zertan izan euskal adierazpen literario idatzia urria izatearen ondorio. Euskal adierazpen literario idatzi urriak gizarte mailako hizkuntza erabilera baino ez du islatzen: ikasiak izateagatik «goi-mailako» literatura egitea edo jasotzea zegokien gizarte-geruzakoen hautu lingüistikoa adierazten du: modu batera ala bestera euskara ez zuten atzeman tresna egokitzat (hizkuntzaren statusagatik, hizkuntzaz zeukaten ezaguera-mai-lagatik...) beren zeregin literarioetarako.

Bestalde, kultura ez du monopolizatzen alfabetatuak, ikasiak; alfabetatu gabea ere, bere kulturaren jabe da eta kultura honen barnean landu da hitza asmo estetikoarekin: ahozko produkzio artistikoak hizkuntzen mugak gainditzen ditu. Idazketaren barrutian bertan ere bada mailakatzerik: «literatura de cordel», «littérature de colportage» artista berritzaileen sorkuntzakin batera bizi izan da.

Lee Patterson-ekin batera esaten bada, «una pieza escrita es literatura no porque posea ciertas características de las que otros carecen, sino porque sus lectores la valoran –por una serie de razones– como literatura»<sup>21</sup>, eta «literatura de cordel» nola artista berritzailearen idazlana literatura moduan jaso badira, batak zein besteak osatu beharko luke literaturaren historia. Azken batez, ikuspuntu pragmatiko batetik, literariotasuna ez dago testu-ezaugarri batzuen menpe:

Un comunicado adquiere la condición de literario como resultado de las acciones y los procesos de evaluación que llevan a cabo los individuos inmersos en un sistema concreto.<sup>22</sup>

<sup>21</sup> PATTERSON, L., 2005, «Historia literaria», in BELTRÁN ALMERÍA, L.; ESCRIG, J. A. (comp.), *Teorías de la historia literaria*. Madrid: Arco/Libros, 57.

<sup>22</sup> IGLESIAS SANTOS, M., 1994, «El sistema literario: teoría empírica y teoría de los polisistemas», in Villanueva, D. (comp.), *Avances en teoría de la literatura (Estética de la Recepción, Pragmática, Teoría empírica y Teoría de los Polisistemas)*, 318.

Birmingham-eko Unibertsitatean XX. mendearen berrogei eta hamar urteetan kultura-ikaskuntzak hasten direnean (*cultural studies*) egiaztapen bat dute abiapuntu: literatura-ikaskuntza ofizialek «goi-mailako» literatura bakarrik hartzen zutela aintzakotzat eta nazionalitate desberdinak etorkin, leinu, gizarte-klase eta abarren bizitza eta kultura errealitatea baztertu egiten zutela. Egia esan, «goi-mailako» literaturari soilik jaramon eginaz, «gutxiengoen» literaturara murritzten da literatura-ikaskuntza, «gehien-goak» ere literatura-klaseren baten sortzaile eta kontsumitzaile izan direnean. Gizarte-geruza bakarra hartzen da gogoan eta geruza horretan erabili d(ir)en hizkuntza(k), hiztun-komunitate desberdinez osatzen denean nazioa.

Hizkuntzak ere estratifikaturik daude. Estratifikazioa ez da bakarrik hizkuntza bakoitzari barneko zaion ezaugarria, bada, baita ere, beste hizkuntzekiko harremanean. Beraz, goi-mailako literatura goi-mailako statusa duen hizkuntza batean egindakoa izango da azkenean. Ezin uka literatura-ikaskuntza ofizialak ikuspegi klasista batetik egin direla. Ikuspegi klasista horretan goi-mailako klaseak landutako literaturak ezartzen du kanona eta kanon horren barnean dauden idazlanen bikaintasuna du aztergai ikerlariak.

Alastair Fowler-ek dioen bezala:

La calidad estética también se ha asociado a un falso refinamiento elitista, como si la literatura popular no tuviera también sus propias características estéticas, sus aspiraciones elitistas y su doble moral.<sup>23</sup>

Ikuspegi pragmatiko batetik bizitza literarioaren historia egitean, hiztun-komunitate osoa atzematen da eta ez horren parte bat bakarrik: gizarte-geruza desberdinan garatu den jarduera literaria aztertzen da.

Une jakin batean literaturaz ulertzen dena kultura edo gizarte bakoitzetik eraikitzen dela onartzen bada, literariotzat jotzen direla gizarteak halakotzat hartzen dituen gertaerak eta harremanak ontzat ematen bada, literaturaren historiak egoera historiko bakoitzean literatura moduan jaso denaren berri eman beharko luke eta, gainera, sistemaren barnean eragiten duten balio-

---

<sup>23</sup> FOWLER, A., 2005, «Las dos historias», in BELTRÁN ALMERÍA, L.; ESCRÍG, J. A. (comp.), *Teorías de la historia literaria*, 267.

epaien azterketak erantsi. Horra, historiak aztergai lukeen corpusa bere osotasunean.

Gisa honetako historia bat planteatzeak arazoak izan baditu. Horietako bat ahozko tradizioaren periodizazioa, baina, arazoa saihesteko modua ezin izan daiteke literaturaren historiatik at uztea.

Esate baterako, euskal literaturaren historia batetik kanpo egon daiteke «Berterretxen Khantoria»? «Berterretxen Khantoria»k, gertaerak izan eta gutxira ondutakoa izan behar du: gertaera oroitzapenean gordetzen zen garaikoa, alegia, eta, honenbestez, XV. mendekoa. XIX. mendean jasotakoa baldin bada, izan zuen bizitzarik mende luzetan, etenik gabeko bizitza gainera, bestela galdua baitzen. Hau da, belaunaldi belaunaldi egon zen euskaldunik bere orain alditik lehen aldiko berbaldi horrekin elkarritzetatzera izan zuenik eta ekintza horretan zerbait esan zionik. Zerbait esateko ahalmena baldintza zehatz bakarrera biltzen da: «si el sujeto presente descubre la respuesta implícita contenida en el discurso pasado, y la percibe como la respuesta a una cuestión que a él le compete plantear ahora»<sup>24</sup>. Beraz, oraindik XIX. mendean zerbait esateko ahalmena gordetzen zuen: euskal literatur sistemana parte hartzen zutenek berbaldi horri balioa ematen zioten seinale.

Halaber, ez da beti ariketa erraza literatura moduan jaso dena mugatzea: hartzialearen hurbilpen-modua zehazteak ere badu zaitasunik.

Gauza jakina da, historia sakratuak edo santuen bizitzek eta, oro har, ereduzko bizitzek, «vidas ejemplares»-ek, hartzalea erakartzeko ahalmena izan dutela. Horren lekuko da Lardizabalen *Testamentu zarreko eta berriko kondairak* (1855) edo Brabanteko Jenobebaren bizitzak –edizioren batean Santa Jenobebea– XIX. mendearen azken herenean eta XX. mendearen lehen hamarkadetan lortutako arrakasta. Orain dela berrogei eta hamar urteko Gipuzkoako herri-eskoletan behintzat «vidas ejemplares»etako faszikuloak zeuden eta irakurri egiten ziren. Nola hartu ziren testu horiek? Doctrina ikastea edo ereduzko bizitza nola eraman ikastea jomuga soil izanaz? Testu

---

<sup>24</sup> JAUSS, H. R., 1989, «La Ifigenia de Goethe y la de Racine. Con un epílogo sobre el carácter parcial de la estética de la recepción», in WARNING, R. (ed.), *Estética de la recepción*. Madrid: Visor, 241.

horietan, guztietañ, ohikoak ez diren gertaerak kontatzen dira: harrigarriak direnak, ez ustekoak direnak, egunerokotasunarekin hausten dutenak... Ez ote zegoen alderdi hauetan testu horietara hurbiltzeko motibo garrantziotsua? Istorioekin gozatzea ez ote zegoen norbere portaera arautzeko eskola legez hartzearen aurretik? Berez, gerta daiteke, deskodeketa-modu bera ez egin izana hartzale orok: hartzale orok irakurketaren ekintzan ez itxi izana testua errejimen<sup>25</sup> berdinietik. Alegia, testuaren hartzale guztiekin jarri izana mekanismo berdinak abian irakurketaren ekintzan.

Historia sakratuan, ereduzko bizitzetan, exenpluetan... istorioak kontatzen dira. Sherezaderen garaiaz gero, ezaguna da gizakiok istorioak kontatzeak eta entzuteak erakartzen gaituela. Testu horiek irakurketa literarioa egiteko aukera ematen dute, irakurketaren ekintza erregimen literariotik egitekoa, hain zuen ere.

Liburu erlijiosoa exenpluez baliatu da: Axularren *Gero* (1643) lekuo. Zalantzak gabe, asmo erlijiosoak bultzaturik hartu zuen luma Axularrek eta, seguru aski, kristau fedea sendotzeko xedearekin jaso zuen orduko hartzialeak. Nolanahi ere, aitortu beharra dago, Axularrek «era atseginean edo» eman zuela doctrina, exenpluen laguntzari esker.

Behar erlijiosoak asetzeko egindako liburua dela ezin jar daiteke auzitan, exenplu ugarirekin ongarritzatuz mamitua da, ordea. Doctrina argitzeko erabil zitzakeen egileak, baina hartzalearen ikuspuntutik garbi dago arindu egiten diola irakurketa, doctrina lehorra samurtuz. Zergatik baztertu erabat, XVII. mendeko irakurleari edo ahots goraz entzuten zuenari atsegin zitzaizkiola exenplu horiek eta gozatu egiten zuela beraiekin, nahiz eta gaurko irakurlearentzat ez izan gozamen-iturri? Zergatik erregimen erlijiosotik eta erlijiosotik bakarrik irakurri zela eta irakur zitekeela auzitan jartzerik ere ez izan?

Gerta daiteke egun testu literario legez irakurtzen ez dugun testurik, beste garairen batean testu literario moduan jaso izana. Hartzalea bere esperientziatik hurbiltzen da testura:

<sup>25</sup> Irakurketaren bidez testua gauzatzean, irakurketa horrek hartzen duen norabidearen arabera ixten da testua. Testuaren ixte-prozesuari esaten dio erregimena Marghescou. MARGHESCOU, M., 1979, *El concepto de literariedad*. Madrid: Taurus Ediciones.

En realidad, cada receptor de una obra la recibe a su manera, hace una elección de los elementos que encuentra en ella según sus preferencias más o menos conscientes; reconstruye el texto prestándole elementos de su experiencia. El texto, desde luego, es único e inviolable; pero cada uno lo experimenta a su manera.<sup>26</sup>

Egungo irakurlearen esperientziei zeharo arrotz egingo zaizkio Lardizabalen *Testamentu zarreko eta berriko kondaira* edo Gregorio Arruek itzuli zuen *Brabanteko Jenobebea* edo ereduzko bizitzak; izan ere, denboraren harian mundua aldatzen da: hartzalea, honen interesgune, gustu, kultura, esperientzia eta abarrak aldatzen dira.

Bizitza literarioa historiaren menpe dago. Berbaldi literarioa sortu zenean bezala gordetzen bada ere, hartzalearen erantzuna aldakorra da: hartzaleak bere garaitik, bere hezkuntzatik, bere mundu-ikuskeratik... jasotzen du.

Irakurketaren (edo entzutearen) ekintzan hartzen du bizitza «testuak». «Testuak» mugagabetasun-maila bat du. Mugagabetasun hori normalizatzeko bi aukera ditu hartzaleak: edo testuaren gain proiektatu bere aldez aurreko ikuskera edo aldez aurreko ikuskera hori berrikusi, berraztertu<sup>27</sup>. Lardizabalen *Kondaira* gaurko euskaldunari hain arrotza egiten zaio, ez dio la uzten ez eragiketa bat, ez bestea egiten. Gaurko hartzalearen esperientziak beste batzuk dira eta, ondorioz, ezin normalizatu *Kondairak* kontatutakoari darion mugagabetasuna.

Azkenik, literatura «periferikoa» berreskuratzeak ezin ekar dezake literatura «kanonizatua» bantztertea, literatura «kanonizatua» literaturaren mekanismoen osagai garrantzizko delako. Literaturaren historia bat «gutxiengoen» literaturaren berri ematera mugatuz gero, gizarte jakin bateko bizitza literarioa «batzuen» bizitza literaria murrizten dela esan baldin bada, berdin gertatuko litzateke «gehiengoen» literaturaren berri soilik emango lukeen historiarekin. Idazlanaren forma lantzean arreta berezia jarri

<sup>26</sup> MEREGALLI, F., 1989, *La literatura desde el punto de vista del receptor*. Amsterdam: Editions Rodopi, 12.

<sup>27</sup> ISER, W., 1989, «La estructura apelativa de los textos», in WARNING, R. (ed.), *Estética de la Recepción*, 133-148.

duen idazlearen idazlanak ez du lortuko euskarri sendorik hartzailegoan. Oihenartek lagun artean banatzeko edizioa egin izanagatik eta, gainera, XVII. mendean isolatuta gelditu zen idazlana, –gerora inolako eraginik izan gabea–, Oihenartek irabazia du leku bat euskal literaturaren historian: euskal poesia berritzeko egin zuen ahalegina, jarraitzaile eta hartzale askorik gabea izan arren, ezin eror daiteke euskal literaturaren historiatik. Edo zer esan, adibidez, Ramon Saizarbitoriaaren *Ene Jesus* (1976) eta Joxean Sagastizabalen *Kutsidazu bidea, Ixabel* (1994) direla eta? *Ene Jesus* urrun da jendezten literaturatik, baina, «experiemento irrepetible»<sup>28</sup> izate soilak, besterik gabe ere, leku bat bermatzen dio.

Laburbilduz, txosten honetan planteatzen den euskal literaturaren historiak literario legez jaso diren euskarazko berbaldien berri emango luke: ibilbide horretan arrazoi desberdinengatik –ebaluazio sozialarengatik, estetikoarengatik...– esanguratsu bihurtu ziren edo diren praktika literarioak hautatuko lituzke historia horren osagai izan daitezen. Horrenbestez, zeinahi euskarritan eginak izanik, literatura legez jaso diren berbaldiek eta ez letren barrutiko berbaldiek soilik osatuko lukete historiaren erresuma. Aldi bakoitzean literatura moduan hartu den corpusak eratutako sistemaren azterketak argituko luke denbora aldi horretako bizitza literarioa.

Honela bada, euskal literaturaren historia honek, euskal komunitate lingüistikoak literatura moduan jaso dituen berbaldiak aztergai eraikiz, sistema horrek egindako ibilbidea azaltzea luke xede. Planteamendu bat baino ez da, letrekiko begirunean hazi eta hezitakoarentzat gordin samarra izan daiteena, Mendebaldeko kulturan argi dagoelako letra izan dela kultura landuaren igor bidea eta planteamenduak eskatzen duelako literario legez jaso ez diren testuak baztertzearekin batera, herri-literaturakoei leku egitea. Hautatutako ikuspuntuaren ondorioa besterik ez da eta inondik ere ez lantergia errazteko bidezidor. Izan ere, gisa honetako historia egiteak eragozpenik aurkezten du. Jadanik aipatu direnei –ahozko tradizioaren periodizazioa, literatura moduan jaso den corpusa zehaztea–, besterik ere erants dakiene,

---

<sup>28</sup> LASAGABASTER, J. M., 2002, «La escritura como lugar de transgresión. (A propósito de *Ene Jesus*, de R. Saizarbitoria)», in TOLEDO, A. (ed.), *Jesús María Lasagabaster. Las literaturas de los vascos*. San Sebastián: Universidad de Deusto, 200.

aldi bakoitzak eratutako sistemaren azterketak eskatutako datu zenbaiten eskura gaiztasuna eta beste batzuen eskura ezintasuna, kasu. Baino, euskarak Euskal Herriko gizartean egindako ibilbidea isolatuz, euskal bizitza literarioaren berri emateko gaitasuna izango luke.

### Aipatutako bibliografía

- AGIRRE, D., 1976, *Kresala* [1906]. Oñate: Editorial Franciscana Aranzazu.
- , 1987, *Garoa* [1912] . Bilbao: Labayru Ikastegia.
- ALTUNA, F. M., 1979, *Versificación de Dechepare: métrica y pronunciación*, Bilbao: Mensajero.
- ECHEGARAY, C. DE, 1901, *Apéndice á la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa de D. Pablo de Gorosabel*. Tolosa: Imprenta, Librería y Encuadernación de E. López.
- EIZAGIRRE'TAR, J., 1948, *Ekaitzpean. Ipuinberri*. Buenos Aires: Editorial Ekin.
- ETXEPARE, B., 1995, *Linguae Vasconum Primitiae* [1545]. Bilbao: Euskaltzaindia.
- EVEN-ZOHAR, I., 1994, «La función de la literatura en la creación de las naciones de Europa», in Villanueva, D. (comp.), *Avances en teoría de la literatura (Estética de la Recepción, Pragmática, Teoría empírica y Teoría de los Polisistemas)*. Santiago de Compostela: Universidad de Santiago de Compostela, 357-377.
- FOWLER, A., 2005, «Las dos historias», in Beltrán Almeria, L.; Escrig, J. A. (comp.), *Teorías de la historia literaria*. Madrid: Arco/Libros, 253-272.
- GABILONDO, J., 2006, *Nazioaren hondarrak. Euskal literatura garaikidearen historia postnacional baterako hastapenak*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- IGLESIAS SANTOS, M., 1994, «El sistema literario: teoría empírica y teoría de los polisistemas», in Villanueva, D. (comp.), *Avances en teoría de la literatura (Estética de la Recepción, Pragmática, Teoría empírica y Teoría de los Polisistemas)*. Santiago de Compostela: Universidad de Santiago de Compostela.
- IRAZUSTA'TAR, J. A., 1950, *Bizia garratza da...* Buenos Aires: Editorial Ekin.

ISER, W., 1989, «La estructura apelativa de los textos», in Warning, R. (ed.), *Estética de la Recepción*. Madrid: Visor, 133-148.

JAUSS, H. R., 1989, «La Ifigenia de Goethe y la de Racine. Con un epílogo sobre el carácter parcial de la estética de la recepción», in Warning, R. (ed.), *Estética de la recepción*. Madrid: Visor, 217-250.

LABAYEN, A. M., 1951, «Introducción», in Ormaetxea, N. («Orixé»), *Compendio del poema vasco «Euskaldunak» con glosario romance*. Zarauz: Editorial Icharopena, VII-XXXIII.

LAMBERT, J., 2006, «En busca de los mapas literarios del mundo», in Romero Lopez, D. (ed.), *Naciones literarias*. Barcelona: Anthropos Editorial, 113-128.

LASAGABASTER, J. M., 2002, «La escritura como lugar de transgresión. (A propósito de *Ene Jesus*, de R. Saizarbitoria)», in Toledo, A. (ed.), *Jesús María Lasagabaster. Las literaturas de los vascos*. San Sebastián: Universidad de Deusto, 189-201.

LEIÇARRAGA, I., 1990, *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria, Kalendrera eta ABC, edo Chistrinoen Instructionea* [1571]. Bilbao: Euskaltzaindia.

LLOVET, J. [et al.], 2005, *Teoría literaria y literatura comparada*. Barcelona: Editorial Ariel.

MARGHESCOU, M., 1979, *El concepto de literariedad*. Madrid: Taurus Ediciones.

MEREGALLI, F., 1989, *La literatura desde el punto de vista del receptor*. Amsterdam: Editions Rodopi.

MICHELENA, L., 1960, *Historia de la literatura vasca*. Madrid: Ediciones Minotauro.

OIHENART, A., 2003, Altuna, P. ; Mujika, J. A. (Ed.): *Arnaud Oihenart. Euskal atsotitzak eta neuritzak. Proverbes et poésies basques. Proverbios y poesías vascas* [1657]. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.

PATTERSON, L., 2005, «Historia literaria», in Beltrán Almeria, L.; Escrig, J. A. (comp.), *Teorías de la historia literaria*. Madrid: Arco/Libros, 47-66.

ROMERO, D., 2006, «Introducción», in Romero Lopez, D. (ed.), *Naciones literarias*. Barcelona: Anthropos Editorial.

ROMERO TOBAR, L., 2004, «La historia literaria, toda problemas», in Romero Tobar, L. (ed.), *Historia literaria / Historia de la literatura*. Zaragoza: Prensas Universitarias de Zaragoza, 51-73.

SARASOLA, I., 1969, «Hitz-aurre», in Saizarbitoria, R., *Egunero hasten delako*. Donostia: Lur editoriala, 3-10.

TACCA, O., 1968, *La historia literaria*. Madrid: Editorial Gredos.

VALDÉS SAN MARTÍN, M. J., 2005, «Historia de las culturas literarias: alternativa a la historia literaria», in Beltrán Almería, L.; Escrig, J. A. (comp.), *Teorías de la historia literaria*. Madrid: Arco/ Libros, 123-220.

# **Euskal literaturaren historia. Eredu berrituaren aurkezpen historiografikoa**

CASENAVE, Jon

Euskaltzain urgazlea eta Literatura Ikerketa batzordekidea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Euskal Literaturaren Historiari buruzko lehen saio orokorrak bigarren gerlatik landa idatziak izan dira. Historialari gehienek (adb. K. Michelena, 1960, *História de la literatura vasca*) «Historia literaria» hartu zuten eredu metodologikotzat eta Europa guzian ordurako nagusitua zen ohizko «patroi» nazionala erakarri zuten euskal eremura.

Estrukturalisten garaian, historia literaria gogorki kritikatua izan zen. 70-eko eta 80-eko hamarkadetan izan ziren berriztapen teorikoak eta metodologikoak (giza zientziak, testugintza, etb.) euskal literaturari egokitu ziren (I. Sarasola, *Euskal literaturaren historia*, 1971; J.M. Torrealdai, *Euskal idazleak gaur*, 1977).

Ordutik hona, saileko ikerleek euskal literaturaren historia berritu dute kontutan hartuz azken hogeitahamar urte hauetan agertu diren obra nagusiak (B. Atxaga, R. Saizarbitoria, etb.) baita ere agerian emanez euskarazko sorkuntza literario mailan obra horiek eragin duten aldaketa paragabea.

Badirudi, berrogei bat urtez garatutako eredu historiográficoak «consensus» bat sortu duela unibertsitatean, eskolaren munduan, baita ere, oro har, gizarte mailan, nahiz zenbat idazlek eta kanpoan bizi diren ikerle batzuek modelo finkatu berria eztabaidatzen duten.

**Hitz-gakoak:** euskal literatura, euskal literaturaren historia, literaturaren historiografía.

Los primeros ensayos generales sobre la literatura vasca han sido posteriores a la segunda guerra mundial. La mayoría de los historiadores (por ejemplo K. Michelena, *História de la literatura vasca*) tomaron como modelo metodológico la «historia literaria» y atrajeron al ámbito vasco el «patrón nacional» que se había impuesto en toda Europa.

En la época de los estructuralistas la historia literaria fue criticada con dureza. Las novedades teóricas y metodológicas que tuvieron lugar en las décadas de los 70 y 80 (ciencias sociales, elaboración de textos, etc.) fueron amoldándose a la literatura vasca (I. Sarasola, *Euskal literaturaren historia*, 1971; J.M. Torrealdai, *Euskal idazleak gaur*, 1977).

Desde esta época hasta hoy en día, la historia de la literatura vasca ha sido renovada, teniendo en cuenta las obras que se han escrito los últimos treinta años (B. Atxaga, R. Saizarbitoria, etc.) y como no constatando el gran cambio que han supuesto dichas obras en la creación literaria en euskera.

Podríamos decir que el modelo historiográfico desarrollado ha creado un «consensus» en el ámbito escolar, universitario y en las sociedades en general; aunque es verdad también que algunos escritores e investigadores que viven fuera de Euskal Herria ponen en tela de juicio el modelo que se acaba de imponer.

**Palabras clave:** literatura vasca, historia de la literatura vasca, historiografía de la literatura.

Les premiers essais généraux sur la littérature basque ont été postérieurs à la seconde guerre mondiale. La plupart des historiens (par exemple K. Michelena, *Historia de la literatura vasca*) ont pris comme modèle méthodologique «l'histoire littéraire» et ont amené au domaine basque le «modèle national» qui s'était imposé dans toute l'Europe.

A l'époque des structuralistes l'histoire littéraire fut durement critiquée. Les nouveautés théoriques et méthodologiques que connurent les décennies 70 et 80 (sciences sociales, élaboration de textes, etc.) furent adaptées à la littérature basque (I. Sarasola, *Euskal literaturaren historia*, 1971; J.M. Torrealdai, *Euskal idazleak gaur*, 1977).

Depuis cette époque jusqu'à aujourd'hui, l'histoire de la littérature basque a été rénovée, en prenant en compte les œuvres écrites ces trente dernières années (B. Atxaga, R. Saizarbitoria, etc.) et bien entendu en observant le grand changement que ces œuvres ont apporté dans la création littéraire en langue basque.

Nous pourrions dire que le modèle historiographique utilisé a créé un «consensus» dans les domaines scolaire, universitaire et dans la société en général, bien qu'il soit aussi vrai que certains écrivains et chercheurs vivant hors du Pays Basque remettent en question le modèle que l'on vient d'imposer.

**Mots-clés:** littérature basque, histoire de la littérature basque, historiographie de la littérature.

The first general essays on the History of Basque Literature were written after the 2nd World War. Most historians (e.g. K. Michelena, 1960, *Historia de la literatura vasca*) took «Literary history» as the methodological model, and they transferred the usual national «pattern», which was predominant throughout Europe by that time, to the Basque sphere.

At the time of the structuralists, literary history was severely criticised. The new theoretical and methodological developments (social sciences, text production, etc.) in the 1970s and 1980s were adapted to Basque literature (I. Sarasola, *Euskal literaturaren historia*, 1971; J.M. Torrealdai, *Euskal idazleak gaur*, 1977).

Since then, researchers in the field have revised the history of Basque literature by taking into consideration the main works that have appeared over the last thirty years (B. Atxaga, R. Saizarbitoria, etc.) and also by drawing attention to the tremendous change these works have brought to bear on the level of Basque literary creation.

The historiographical model developed over forty years appears to have created a «consensus» in the university, in the world of the school, and on the level of society as a whole, even though some writers and researchers living abroad challenge the new fixed model.

**Keywords:** basque literature, history of basque literature, historiography of literature.

## Sartzea

Denok erabiltzen dugu Euskal literaturaren historia. Molde konziente batez –edo partez, inkonzienteki– euskal literaturaren historiaz, urteetan zehar eraikia izan den «kondaketa nagusi» bat erabiltzen dugu gure lanean. Erabiltzen dugun ber, indartzen dugu eta lege bihurtzen.

Egungo eredu hori, bigarren gerlatik landa astiro eraikia izan da. Erran daiteke Koldo Mitxelenak finkatu zuela 60-eko hamarkadaren hastapenean. Denbora joan arau, aldaketak eta egokipenak izan dira, bainan oro har, Mitxelenak eman zion egitura bertsua atxikia du. Eta alde hortarik, inguruko kulturetan egiten denarekin bat egin dugu, mende erdi batez. .

Azken hogeい urte hauetan, «Euskal Literaturaren Historia» multxo polita argitaratu da. Sekulan baino materiala gehiago badugu eta, lehengoa baino aise hobea da. Bainan, historien kopurua handiturik ere, denak eredu beretik ari dira. Badirudi denentzat onargarria den eredu bat finkatua izan dela, hein batean «kontzentzuala» dena.

Preseski, 1983-an argitaratu zuen artikulu batean<sup>1</sup>, Txuma Lasagabasterrek azpimarratu zituen egokitze prozesu horren gabeziak. Artikulu hori, garrantzi handikoa izan da azken urte hauetako euskal literaturaren historian, idazlan programatikoa zelakoan. Hain zuzen diagnostiko zehatzarekin batean historiografia mailako ikerketa egitarau bat proposatu zuen. Ordutik hona, ikerketa programa hori ez da arras bete, bainan ahulezia handienak konponduak izan dira.

Irakasle bezala, ni guziz ortodoxoa naiz eta azken urte hauetan hedatu den «doxa» hura den bezala eta artoski irakasten dut ene klasean. Egia erran, egiteko molde hori ezin bestekoa iduri zait, euskal literaturaren historia «kondaketa nagusi» bezala osatzekoa da oraindik eta, kondalari professional bezala, irakasleok badugu erresponsibleitate handi bat.

Halarik ere, euskal literaturaren saileko ikerle bezala, Txuma Lasagabasterrek ongi erakutsi zuen badugula beste eginbide bat guziz premiazkoa:

<sup>1</sup> LASAGABASTER, Tx., 1983, «La historiografía literaria vasca –Aproximacion critico bibliografica–», *Las literaturas de los vascos*, Deustoko Unibertsitatea.

denok implizitoki onartzen dugun ikusmoldea aztertzea. Hori izan daene helburua. Ez dizuet ikuspegi berririk ekartzen. Iraskale bezala erabiltzen ditudan datuak hartu ditut eta horietan ageri den «eredu historiografiko konzentzuala» zehaztu nahi izan dut, sintesia baten moduan.

## 1. Euskal literaturaren eredu historikoa 80-eko hamarkadaren atarian

### Literaturaren historia: oinarriak eta aukerak Europa mailan.

Euskal eredu historiografikoa nola finkatu den bigarren gerlatik landa ikusi baino lehen, Europa mailako egoera aipatuko dut.

Europa mailan, XIX-garren mendetik hona nagusitu den «ereduan», literaturaren historia ez bada beti<sup>2</sup>, gehienetan bederen, izan da literatura berezi baten historia<sup>3</sup>, beraz, hizkuntza batean idatzia izan dena (gehienetan nazionala) eta eremu konkretu batean (gehienetan, nazio batena, nazio egina ala egiteko bidean zena).

Nazio «literario» bakoitzak bere obren korpusa finkatu du eta «kanon»-a, baita ere bere idazleen «pantheon»-a egituratu ditu. Eredu horren gizarteratze prozesu batzuk antolatu ditu, transmizio bide nagusia eskolaren sistema izan delarik.

«Eedu nazional»aren araberako historia mota horren helburuak eta metodoak, XIX-mendean garatu zirenak, Sartre<sup>4</sup>, Barthes<sup>5</sup>, Jauss<sup>6</sup>, bezalako

<sup>2</sup> Salbuespen batzuk:

– CURTIUS, Ernst-Robert, 1956 (frantses itzulpena), *La littérature européenne et le Moyen-âge latin*, PUF.  
– BACKÈS, Jean-Louis, 1996, *La littérature européenne*, Belin.

<sup>3</sup> LANSON, Gustave, 1894, *Histoire de la littérature française*.

<sup>4</sup> SARTRE, Jean-Paul, 1947, *Qu'est-ce que la littérature?*, Gallimard.

<sup>5</sup> BARTHES, Roland, 1960, «Histoire ou littérature?» in *Annales*.

<sup>6</sup> JAUSS, Hans-Robert, 1978 (frantses itzulpena), «Histoire de la littérature», in *Pour une esthétique de la réception*, Gallimard.

autoreek eztabaidatu dituzte XX-garren mendeko bigarren partean. Halarik ere, arazoez gain, «eredu nazionala» da gehienik irakatsia izan den –eta oraindik irakasten den– modeloa edo patroia Europako erresumetan.

### **Lehen paradigma aldaketa, 60-eko hamarkadan:**

Gure kasua aipa dezagun orain eta ikus dezagun zertan zen egoera historiografikoa 80-eko hamarkadaren atarian. 60-etik aurrera, guti gora behera, euskal kulturan inguruko kulturetan bezala, literatura iharduera estetiko autonomoa bezala definitua izan da. Ikuspegি hori astiro nagusitu da, XX-garren mendeko 60-eko hamarkadatik hona. Koldo Mitxelenak eta haren il-dotik etorri zirenek literaturaren historian ere sarrarazi zuten ikuspegি hori. Geroztik, definizio konzentzuala ematen diogu literaturari: ez ditugu gehiago euskara idatziaren historia eta euskal literaturaren historia nahastikatzen.

### **Koldo Mitxelena, *Historia de la literatura vasca* (1960):**

Tx. Lasagabasterrek idatzi zuen Koldo Mitxelenaren *Historia de la literatura vasca* (1960) izan zela euskal eremuan egina izan zen lehen lan zehatza, arau historiografikoak zorrozki bete zituelako. Zoin dira, laburzki bilduak, liburu horren ekartzen handienak?

- Europako erresumetan erabiltzen ziren ezaugarri nazionalak gurean faltatua edo eztabaidagarri ziren: erresuma finko bat bere mugakin, historia eta hizkuntza nazionalak, etb. Beraz, «**ardatz linguistikoa**» hartu zuen oinarri gisa eta euskal eremu historiko bat osatu zuen hizkuntzaren eta literaturaren ikuspundutik.
- Euskal literaturaren korpusa **euskarazko testuekin** bakarrik antolatu zuen Mitxelenak, bera baino lehen ari izan ziren historia egileen tradizioarekin<sup>7</sup> hautsiz.
- Hizkuntza literarioaren aldetik, euskalki literarioek eragiten duten banaketa baino gorago ezarri zuen obra nagusiek beren artean egiten duten batasun linguistikoa. Ikuspegি hortan, 68-tik gora finkatu zuen

---

<sup>7</sup> Adibide gisa, LHANDE, Pierre, *Le Pays basque à vol d'oiseau* (1925) liburuan egiten den aurkezpena aipa daiteke.

eredu linguistiko bateratua lantzen zuen, hizkuntza literarioaren eremuan.

- Historia literarioaren metodologia euskal adibideari egokitu zuen eta kriteria literarioa edo estetikoa erabili zuen kanon baten eraikitzeko.
- Beretik segitzeko, erran behar da «kanon bildu» edo «hertsi» bat osatu zuela Mitxelenak, idazle nagusi gutti atxikitzen baitu bere panteonean.
- Bukatzeko, literaturak gizartearekilan dituen harremanak behar bezala hartu zituen kondutan K. Mitxelenak, batez ere sorkuntzaren prozesuan.

#### **Euskal literaturaren historia eta giza zientzien ekarpena:**

Ondoko, hamarkadan, «historia» batzuk argitaratu ziren. Horietan, biluru aipatu behar dira erreberritzetako metodologiko interesgarria ekarri baitzuten, orduko giza zientzieta oinarrituz.

- *Euskal literaturaren historia* (1971), Ibon Sarasola
- *Euskal Idazleak gaur* (1977), Joan Mari Torrealdai

Biek kanpoan erabiltzen ziren metodo soziologikoak erakarri zituztena euskal eremura. I. Sarasolak, L. Goldmann-en azterbideak bereganatu zituen. Gizartean dauden egiturak eta literatura mailako produkzio sistemak nahi izan zituen kurutzatu testuen egiturekin. Horrela eginez, gizarte al-daketa nagusi batzuen gainean bermatu zen, euskal literaturaren periodizazioa era bat arramoldatzeko. Bi data nagusi edo hausdura aurreratu zituen: 1901-ean eta 1964-ean finkatu zituen.

Zenbait urte geroago argitaratu zuen liburuan<sup>8</sup>, Ibon Sarasolak literatura aztertu zuen soziologiaren metodologia kantitatiboak erabiliz. Robert Escarpit-ek paratu zituen urrasbideak<sup>9</sup> segitu zituen euskal liburugintza eta euskal idazlegoaren estrukturen ikertzeko.

<sup>8</sup> SARASOLA, Ibon, 1975, *Euskal literatura numerotan*, Lur.

<sup>9</sup> ESCARPIT, Robert, 1958, *Sociologie de la littérature*, PUF. Askoren artean, (Robert Escarpit-en zuzendaritzapean), 1970, *Le littéraire et le social*, Flammarion.

Joan-Mari Torrealdai ere, Robert Escarpit-ek finkatu oinarri soziologikoetatik abiatu zen ondoko urteetan eta eragin handiko inuesta argitaratu zuen 1977-an: *Euskal idazleak gaur (Historia social de la lengua y literatura vascas)*<sup>10</sup>. Liburugintzaren bilakaeraren historia eta haren gizarteratze prozesuak ikertu zituen estadistiken laguntzarekin. Bestalde, bilakaera historiko eta soziologiko ber bera bilatu zuen euskal idazlegoaren baitan.

Beraz, 60-eko hamarkadaren hastapenean Mitxelenarekin abiatu zen prozesuak ondorio argi batzuk bideratu zituen. 80-eko hamarkadaren atarian finkaturik zegoen eredu historiografikoaren arabera, euskal literaturaren historian ondoko oinarriak kondutan hartuak izan dira:

- Euskaraz idatzitako testuak dira euskal literaturan sartzen direnak.
- Europa mailako «Literaturaren definizio modernista» aplikatzen zaio euskal literaturari.
- Europa mailan, literaturaren historia egiterakoan erabiltzen diren bi metodologia nagusiak erakarriak izan dira euskal eremura: historikoa eta soziologikoa.

## 2. Eguneratze bat 80-eko hamarkadatik hona:

Zer gertatu da 80-etik hona? Neurri handiko eguneratze teoriko eta metodologiko bat.

### «Bihurgune teorikoa» euskal ikasketetan:

Literaturaren kritika mailan, atzerrian erabiliak ziren metodologiak euskal literaturaren azterketari egokituak izan dira 80-eko hamarkadatik 2000-etara: semiotika, harreraren estetika eta irakurleari buruzko teoriak, literaturaren soziologia, etb.

Hor dira, bihurgune teoriko horren lekuko urte horietan aurkeztuak izan diren tesia nagusiak. Urte horietan egin diren ikerlan gehienak azterketa

<sup>10</sup> TORREALDAI, Joan-Mari, 1977 *Euskal idazleak gaur, (Historia social de la lengua y literatura vascas)*, Jakin.

monografikoak izan dira. Aintzineko bi hamarkadetan Mitxelena, Sarasola edo Torrealdai bezalako historia egileek finkatu zuten «kanon bilduan» zeuden idazle konsakratuak bilakatu dira aztergai: Mogel, D. Agirre, Lizardi, Orixe, Lauaxeta, Aresti, baita ere bakar batzuk garaikideen artean, hala nola B. Atxaga. Literaturaren kritikan bezala, «literaturaren historia» sailean ere, kanpoko erresumetan lantzen ziren problematika berriak erakarriak izan dira euskal eremura baita ere, denbora berean, kanpoko tresna eta oinarri metodologikoak.

#### **Tx. Lasagabasterren azterketa kritikoa:**

«Euskal literaturaren historia» sailean, Tx. Lasagabasterrek du lehen al-dikotz aztertu literaturari buruzko euskal produkzio historikoa historiografiaren ikuspegitik. Ikuspegি historikoaz gain, euskal literaturaren historiaren hobetzeko eta eguneratzeko egin behar zen ikerketa programa finkatu zuen:

- lehen proposamena metodologikoa zen: harek zion XX-garren mendeko azken partean eremu kultural garatuetan pentsatuak eta erabiliak izan ziren azterketa bide berriak erakarri behar zirela euskal eremura. Beraz, giza zientzietatik (soziologia, psikanalisia, mentalitateen historia, etb.) eta testugintzatik (hizkuntzalaritza, semiotika, pragmatika, etb.) etorri ekarpenak erabili behar ziren euskal literaturaren historian. Hots, eguneratze metodologikoa eta zientifikoa eskatzen zuen euskal kritikarentzat. Hori da preseski, hamarkada hartan gertatu dena.
- Bigarren proposamena: hizkuntzaren historia eta literaturaren historiareng arteko lotura egin behar zela. Iduritzen zitzzion, euskal kontestu soziolinguistikoa kontutan hartu behar zela euskal literaturaren ikertzeko, batez ere hemengo egoera diglosikoak sorkuntza mailan zuen eragina. Pundu horrek eskatzen zuen gogoeta ez da geroztik asko aurreratu, Jon Kortazar-en liburu bat<sup>11</sup> kentzen bada.
- Hirugarren proposamena: hiruetarik zailena zen betetzeko. Euskal eremu kulturalean aspaldidanik bizi dugun egoera konplexua aipatzen zuen. Tradizio kultural hirukoitza aurkitzen da azken mende hauetan

---

<sup>11</sup> KORTAZAR, Jon, 2002, *Diglosia eta euskal literatura*, Utriusque Vasconiae.

Euskal Herrian, hiruzpalau hizkuntzen bizigunea delako. Eta, Tx. Lasagabasterrek zion, gisa batez edo bestez ainitzasun hori behar litzatekeela kontutan hartu. Bainan, berak aitortzen zuen xede guziz helgaitza zela eta, mementoko, ezin bestean, euskarazko sorkuntza bai-zik aztertzen dela euskal literatura gisa.

Bukatzeko eta laburbiltzeko, erran daiteke Tx. Lasagabasterrek «euskal literaturaren historia berritu» bat eskatzen zuela.

### «Historiak» ugaritu:

XX-garren mendeko azken laurdenean, Euskal literaturaren historiak ugaritu dira. Hamabost bat orotara. Historia orokorrak izan dira:

- *Historia de la literatura euskerika*, Luis-Mari Mujika, 1979.
- *Literatura vasca*, Jon Juaristi, 1987.
- *Précis de littérature basque*, Jean-Baptiste Orpustan, 1996.
- *Euskal kultura gaur*, (Liburuaren mundua), Joan-Mari Torrealdai, 1997.
- *Historia de la literatura vasca*, Askoren artean, Patri Urkizu zuzendari-tzapean, 2000.
- *Iraupena eta lekukotasuna*, (Euskal literatura idatzia 1900 arte), Patxi Salaberri Muñoa, 2002.
- *Historia de la literatura vasca*, Iñaki Aldekoa, 2004.
- *Euskal literaturaren historia*, Iñaki Aldekoa, 2008.

Edo, bestela, literaturaren eremu batena ere garai mugatu batena:

- *Euskal teatroaren historia*, Patri Urkizu, 1978.
- *Ahozko literatura*, Juan-Mari Lekuona, 1982.
- *Gerraondoko poesiaren historia*, Josu Landa, 1983.
- *Euskal eleberriaren kondaira*, Gotzon Garate, 1983-1985.
- *Literatura vasca. Siglo XX*, Jon Kortazar, 1990.
- *Euskal haur eta gazte literatura*, Xabier Etxaniz, 1997.
- *Euskal eleberriaren historia*, Mari-Jo Olaziregi, 2002.
- *XX. Mendeko euskal literatura*, Jon Kortazar, 2003.

Nahiz ez diren bat heldu edukien aldetik baita ere iritzi kritikoei begira, halere ageri da liburu horiek erabiltzean autore guziek barneratu dituztela Mitxelenaz geroz onesten diren oinarri historiografikoak. Beraz, oinarri horiek kondutan hartzen badira, erran daiteke eredu historiografiko bakar bat badela egungo egunean. 80-eko hamarkadatik hona «Euskal literaturaren historia» berritu bat garatu dela

### 3. Euskal literaturaren historia berritua

Saia gaitezen euskal literaturaren historia berritu horren definitzen hurbilagotik:

#### Alde metodologikoa aipa dezagun lehenik:

Oro har, 90-etik hona agertu diren historiek Tx. Lasagabasterrek eska-tzen zituen oinarrizko aukerak bete dituzte. Eguneratze teorikoa eta metodologikoaz gain, beste ekarpen amankomun bat badute: alde didaktikoa. Oraiko liburu gehienak, transmiziorako pentsatua dira, irakasle batzuek ikasleentzat eginak, polemikatik kanpo eginak.

Erran daiteke Euskal literaturaren historiak bere legitimitatea baduela, irakasten den ber. Iduri ez duclarik, bihurgune nagusi bat izan da hori: 1980-hamarkada baino lehen publikatu duten historia egileek ez zuten – ezin bestean – publiko finkorik buruan. «Hartzaile ezagun» horren falta nabiari da liburu gehienetan. Alderantziz, gaurko egunean –erran nahi baita euskara eskolaren sisteman sartuz geroz– kritakarieki eta historia egileek badakite norentzat ari diren lanean, euskal literaturaren historia lantzen dutelarik: unibertsitateko ikasleentzat, irakasle, kazetari eta beste bilakatuko direnentzat eta haien bitartez, lizeoko ikasleentzat. Eta bistan da, publiko zabalago batentzat ere.

Beraz, nahi ala ez, historialariak harreman instituzionalizatu batean ari dira gaurko egunean. Harreman konplexua da dudarik gabe. Lehen baino eragin handiagoa du gaurko «Historia» batek bigarren mailako irakasleen bitartez. Denbora berean, «instituzioek» (Eskolak eta Unibertsitateak) hein batean bideratzen dute historia egile baten lana jartzen dizkioten eskaeren

bidez. Dudarik gabe, instituzio horiek nahi lukete «eredu finkatu, iraunkor eta normalizatu» bat. Beste gisa batez adierazteko, tradizio baten eskaera – gurea guziz motza izanik ere – egiten diote egungo euskal literaturaren historiari.

Legitimitate kulturala jokoan dago kanpoari begira bainan, barneko eremuan ere eta euskaldun gazteriari buruz, era berezi batez. Alde hortarak, ez da ahantzi behar, Literaturaren historia dela Euskal Historiaren sail bakarra garai eta eskualde ezberdinako Euskaldun guziak bateratzen dituena, euskal literatura euskaraz idatzia delako –egungo definizioaren arabera–.

#### **«Patroi» berriaren oinarri konzentzialak:**

Orai ikus dezagun zein daitezkeen gaurko patroiaren oinarri kontzentzialak:

- Literaturaren «definizio gaurkotua» zabaldu da gure artean: «sail eta iharduera autonomo» gisa definitua da, XIX-garren mende ondarrean eta XX-garren mende hastapenean zabaldu den Modernitatearen arabera.
- Autoreak, «kanon bildu» baten alde agertzen dira, salbu idazle garaikideentzat (azken hogei urtekoak).
- «Kanon bildu»-aren problematikan, K. Mitxelenaz geroz indartu den tradizio kritikoa hartzen dute beren gain, Domingo Agirreren obratik Jon Mirande-renaraino, autore nagusi onartuen gainean bermatuz.
- Garaikideentzat, itsura arizan orde, guziz idekirik uzten da autore eta obren zerrenda.
- Toki nasaia, nasaiena orrialde kopuruaren aldetik, eskaintzen zaio sorkuntza garaikideari.
- Eleberria da egungo genero nagusia.
- Euskal literaturaren historia «objeto» konplexu gisa hartua da, sistema bezala. Giza zientzietatik (soziologiatik adibidez) heldu diren konzeptuen bitartez aztertzen dituzte eremu literarioan diren harreman eta lokarri sozialak.

### **Aldaketa nagusi bat ereduan: Paradigma aldaketa:**

Patroi horren oinarrien artean, ondoko bi hauek dira azken mende laurdenenagertu eta indartu direnak: garaikidetasunari emana izan zaion lehentasuna eta narratibaren nagusigoa. Ez ditut pundi horiek gehiago aiapatuko, begien bistakoak baitira denentzat. Bainan, azpimarratu behar da, aldaketa nagusi bat, paradigma aldaketa bat bultzatu dutela eredu historiografikoaren baitan.

Ondorioz, 80-eko hamarkadaren atarian finkaturik zegoen modelo historiografikoa (Mitxelena, Sarasola, Torrealldai, etb) gainditua izan da. Horrengatik, erran daiteke eredua «berritua» izan dela.

### **Garaikidetasunari lehentasuna:**

Garaikidetasunaren lehentasun horren neurtzeko, har daiteke adibidez I. Aldekoaren liburua. Euskal literaturaren historia orokorra aurkezten du, hots bost mende. Azken berrogeitahamar urteek, bigarren gerlatik landa Aresti, Mirande eta Txillardegirekin hasten diren garai moderno eta garai-kideek, liburuaren erdia hartzen dute nonbait han. Eta, beti liburu berean, XX-garren mendeko azken hogeitahamar urteek 9 sartze ezberdin baditzte, liburu osoak 21 bat sartze dituelarik. Abantxu sartzeen erdia azken mende laurdenarentzat da, beraz.

### **Narratiba nagusi.**

Beste seinale bat: narratibari ematen zaion ardura berezia. Narratiba, «genero nagusi» bilakatua da bigarren gerlatik hona euskal literaturan, inguruko kulturetan bezala, gurea berantarekin halakatu bada ere. Euskal literaturaren munduan aurkitzen diren partaide guziek (idazleek, irakurleek, argitaratzaleek, kazetetako eta unibertsitateko kritikariek) hogoi bat urtez obratua dute mugimendu «normalizatziale» hori. Denbora berean, ordu arte narratibaren hein bertsuan aurkitzen ziren generoak –poesia eta saiakerazokoratuak izan dira. Aldaketa hori onarturik, Euskal literaturaren historiek ere narratibari ematen diote lehentasuna.

#### **4. Zein ote dira eredu berrituaren ahuleziak historiografiaren ikuspegitik?**

Beraz, luzatu gabe azken pundura pasatuko naiz. Orai, eredu berrituak ekar lezazkeen arazo historiografikoak aipatuko ditut. Molde eskematikoan emanak dira, eztabaidaren abiapuntu gisa.

##### **Periodizazio eredu iraunkor bat ba ote dugu?**

Orain arteko euskal literaturaren historiak konparatzentz badira aladaketa nabaria aurkitzen da periodizazio mailan. Ondoko adibideek adierazten duten bezala, lehengo garaiez ez da batasunik periodazazio mailan:

###### **K. Mitxelena (1960):**

1. Ahozko literatura.
2. Hastapenak. XVI. Mendea.
3. XVII. Mendea.
4. 1700 –1850.
5. 1850 – 1960.

###### **J-B. Orpustan (1996):**

1. 1545 aintzin.
2. 1545 – 1670.
3. 1670 – 1815.
4. 1816 – 1907.
5. 1908 – 1950.

###### **I. Sarasola (1970)**

1. 1545 – 1901.
2. 1901 – 1964.
3. 1964 – 1971.

###### **I. Aldekoa (2004):**

1. XVI. Aitzin: kap. 1.
2. XVI – XVII: kap. 2, 3.
3. 1700 – 1833.: kap 4, 5.
4. 1834 – 1936: kap. 5, 6, 7, 8.
5. 1937 – 1950: kap. 9.
6. 1950 – 1975: kap. 10, 11, 12.
7. 1975 – 2000: kap. 13, 14, 15, 16, 17, 18, 19, 20.

Historia egileek oinarri historiografiko berdinak erabilirik ere, badirudi eredu iraunkorrik ez dela oraindik finkatu ahal izan garai zaharrei buruz. Zaitasun horren adibide bat ematekotan, aipa daiteke Iparralde eta Hegoaldearen arteko ezberdintasuna XIX.mendearen tratamenduan. Hegoal-

deko historialariantzat, Karlistadek XIX. Mendearen banaketa diakronikoa bideratzen dute edo, bederen, eragin handiko mozturak bezala emanak dira.

XIX. Menda, Iparraldetik (J.B. Orpustan, 1996 adibidez) ikusten bada, garbi dago Frantziako Historian gertatu hausdura handiek (1789-ko Iraulta; Napoleon Lehenaren Inperioa –1802/1815–; 1848-ko Iraulta; Napoleon Hirugarrenaren garaia edo «Bigarren Inperioa» –1852/1870–; 1870-ko gerlaren galtzea eta Hirugarren Errepublika, etb.), banaketa eragiten dutela.

Eta aurki daiteke horrelako ezberdintasun asko gaineko bi ikuspegi artean, bai eta ere Iparraldeko edo Hegoaldeko ikuspegi baitan, hala nola bigarrenean Ibon Sarasolak proposatzen duen banaketa diakronikoa, 1901 eta 1964 bi urte mugen inguruan.

Zertarik ateratu behar dira urte muga horiek? Euskal Herriaren Historia-ren alorretik? Inguruko Erresumen Historiaren alorretatik? Inguruko Erre-sumetako et Euskal Literaturaren baitako alorretatik?

### **Horrelako desoreka diakronikoa ezin bestezkoa dea?**

Bestalde, periodizazio gai horri jarraituz, erran daiteke garai literarioen arteko desoreka diakronikoa handitu dela lehengo historiak eta oraikoen artean. Badirudi, azken 30 urtetan, literaturaren eremuan gertatu aldaketa nagusiak, haiek ekarritako ondorioak eta haietatik sortutako bilakaera har-tu dituztela kondutan historia egileek, besterik gabe. Hots, bilakaera horren lekuko gisa, begien bistan zutena aztertu dutela objektiboki. Bainan, den-bora berean, historia egileek aukera historiografiko bat egin dute nagusiki. Gaur egun idazten ari den literatura kondutan hartzea erabaki dute. Gaine-ra, literaturaren definizio «modernista» aukeratu dutelako, desoreka diakronikoaren indartzera behartuak izan dira. Bi aukera horiengatik, azken 30 urteen tokia handitu da ezin bestez.

Beste tradizio historiografikoetan, ez da garaikideen azken punta literaturaren historia orokorrean sarrarazten Gehienetan, bestalde lantzen da, molde berezi batez<sup>12</sup>, nahiz joera hori aldatzen ari den astiro. Bortxaz, urte

---

<sup>12</sup> Ikus: VIART, Dominique, VERCIER, Bruno, 2005, *La littérature française au présent*, Bordas.

batzuen gibelatzapena hartuz, idazle garaikideen multzo nasaiaren baitan bahetze edo irazte lana berenaz egiten da eta, «konsakratu berriak» tantaka baizik ez dira sartzen korpusetan eta kanonean.

### **Nola antola korpusaren baitako desoreka?**

Horrela eginez, lehengo garaiek tratamendu joriagoa badute. Hortaz ohartzeko, aski da *Précis d'Histoire littéraire basque* (1996) liburua hartzea. Azterketa XX-garren mende erdian (1950) gelditzen da. Garbi dago gaur egun guretzat «literario» ez diren sailek badutela liburu hortan toki nasaia eta ñabardura askorekin zehaztuak direla: «La poésie de circonstance, la poésie religieuse et la poésie didactique», «Aux marges du littéraire: dévots, apologistes et grammairiens», «Deux prosateurs issus du journalisme», etb. Hots, besteetan agertzen ez diren kategoria batzu.

Aipatzen ditugun historia berriean (Aldekoa, Kortazar, Olaziregi) aldiz, lehengo garaiak gehiago «bilduak» dira. Bainan, bigarren gerlatik landa (Aresti/Mirande, etb.) eta, are gehiago 1975-etik goiti, garaiak nasaitzen eta laburtzen dira eta badirudi gero eta lasterrago iragaiten direla. Gisa berean, obra eta autoreen sailkapena gero eta zehatzagoa bilakatzen da gure garaitik hurbiltzean, kategoriak ugaritzen dira, ñabardurak ere bai. Kategorien izen-buruak guziz zehaztuak dira:

- M.J. Olaziregi: «Euskal eleberri modernoa», «Modernitate osteko euskal eleberrigintzaren aurpegi anitzak (1975-2000).
- I. Aldekoia: «Modernotasuna euskal eleberrigintzan: Txillardegi eta Ramon Saizarbitoria»; «Trantsizioko euskal literatura (1975-2000).
- I. Aldekoia / J. Kortazar: askotan, sailkapena kronologiaren arabera egiten da. «Laurogei eta laurogeita hamarreko urteetako poesia»; «80ko hamarkadako literatura: poemagintza».

### **Zer pentsa kanonaren iraunkortasunaz?**

Gorago aipatu diren aukerek ondorioak badituzte ere kanon-aren baitan eta haren iraunkortasunari begira. Komuzki, beste tradizioetan, kanonaren baitako edukia eta oreka bi molde ezberdinez aldatzen da:

- *Kanpotik*: idazle garaikide zenbait sarrarazten dira bainan, astiro, bahe metodologiko batzuen bitartez eta tradizio historiko ezberdinien erritmoaren arabera<sup>13</sup>.
- *Barnetik*: ikerketaren bitartez, tesia edo saiakera baten karietan, autore bat, mugimendu bat edo garai bat berriz miatzen da eta, aurkikuntza berrien arabera, ordu arteko «baloreak» gora edo behera mugitzen dira.

Euskal literaturaren historian, azken 30 urte hauetan egin diren aukera historiografikoengatik, garbiki ikusten da 1950-eko aurreko kanon-a abantxu hunkitu gabe berresten dela liburuz liburu. Salbuespen guti izan da (Oihenart, Jean Etxepare) eta oro har, eztabaidea guti (Bernat Etxepare).

#### **– Zein da gurean garai aldaketen eragilea?**

Inguruko kultura garatuetan, «Modernitateaz» geroz, hausduraren konzeptoa erabilia da garaien arteko banatzaile eta aldaketen eragile bezala. Frantses literaturan adibidez, Mugimenduak (Dada, Surrealismoa, etb.) eta idazle eskola edo taldeak (Sartre/Camus, «Nouveau Roman», etb.) garai literarioen ezaugarri nagusitzat hartzen dira. Mugimenduak elgarri oposatzen dira (Errromantismoa / Simbolismoa, etb.) eta garai batetik bestera iragaiten da hausdura estetiko batzuk direla medio.

Ibon Sarasolak hausduraren konzeptoa erakarri zuen euskal alorrera eta bere *Euskal literaturaren historia-n* (1971) erabili zuen: «Euskal literaturaren bi fetxa nagusiak, 1901 eta 1964, aldez edo moldez gertakizun politiko biri lotzen zaizkie, 1901-eko kasuan, Euzko Alderdi Abertzaleari<sup>14</sup>, 1964-ekoan euskaldungoari buruz sortzen hasten diren idea berriei.» Geroztik, Ibon Sarasolak egin zuen bezala, «Hausduraren kontzeptoa» Historiari loturik agertzen da komuzki, hala nola «1975» urte mugarekin. Gisa berean, aurreko garaientzat ere erabiltzen da, hala nola 1957-ean Txillardegik argitaratu zuen *Leturiaren egunkari ezkutua* eleberriarentzat. Obra berritzaile hori askotan emana da euskal eremuan gertatu hausdura estetikoetatik baten ezaugarritzat.

---

<sup>13</sup> Adibide gisa, frantses tradizio historiografikoa aipa daiteke kontserbadoreen artean.

<sup>14</sup> Hitz honi lotua oin ohar batean ondoko xehetasunak agertzen dira: «Euzko Alderdi Abertzalea 1895-ean fundatu zen. Euzkadi» aldizkariaren lehen numeroa, 1901-ean agertu zen.»)

### Nola konpondu generoen tratamendu murritzailea?

Generoen tratamenduan ere desoreka agertu da narratibaren faboretan. Horrela eginez, gorago erran bezala, aldaketa kantitatibo bat sarrarazten da azterketaren oinarrietan. Bainan, denbora berean, aldaketa kalitatibo batzuk ez dira kondutan hartuak. Adibidez, 30 urtez iparraldean garatutako «antzerki berria»-k (D. Landart, Irigoyen anaiak, A. Luku, P. Hirigaray, etb.) ez du oraindik literaturaren historian ardietsi gizartearen ukana duen araberako tokia. Gauza bera erran daiteke poesiaz, non ez den aipatzeko genero horren aztertzeko egina den liburu bat<sup>15</sup>.

Generoen tratamenduak korpusaren baitako oreka alda lezake ez bada narratibaren garrantzia, gisa batez edo bestez, neurri batean kontrolatzen. Poesiaren tokia azterketa kritikoan baita ere «kanon» berrian murriztuz joan da, urteak joan arau. Euskal literaturaren historian garrantzi kantitatiboa eta kalitatiboa orekatu behar litazke molde berezi batez.

### Aurkako kondaketak beharrezkoak ote dira?

Badirudi, nahi ala ez, «tradizio moduko kondaketa hastapen»... bat finkatzen ari dela, euskal literaturaren historian, «eskola sistema»-ren laguntzarekin. Eta, itxura guzien arabera, «kondaketa» hori konzentzuala bilakatzen ari da.

Beraz, «kontra ereduak» edo «aurkako kondaketak» deitu konzeptuen gogoetatzeko garaia eterria ote da? Frantses literaturan adibidez ez da «aurkako eredu» tradiziorik, eredu ortodoxoa guziz sendoa baita eta ongi hedatua instituzio indartsu batzuen bidez. Halarik ere, horietatik bat bada indartzen ari dena Karaibetako eremuan, Kreolar Letrak irudikatzen duten Edouard Glissant<sup>16</sup>, Patrick Chamoiseau<sup>17</sup> eta Raphaël Confiant<sup>18</sup> bezalako idazleei esker.

<sup>15</sup> LANDA, Josu, 1983, *Gerraondoko poesiaren historia*, Elkar-AEK,. KORTAZAR, Jon, 1997, *Luma eta lurra*, Labayru.

<sup>16</sup> GLISSANT, Edouard, 1981, *Le Discours antillais*, Gallimard; 1990, *Poétique de la relation*, Gallimard.

<sup>17</sup> CHAMOISEAU, Patrick, 1997, *Ecrire en Pays dominé*, Gallimard.

<sup>18</sup> CONFIANT, Raphaël, CHAMOISEAU, Patrick, 1999, *Lettres Créoles*, Gallimard.

Estatu Batuetan, Indian eta munduko anitz eskualdetan, «Post-Colonial Studies» mugimenduaren eraginez –besteak beste–, «Aurkako kondaketak» idazten ari dira, tokiko literaturen ikuspegitik.

Euskal eremuan mementoan ez da horrelarik garatu, Joseba Gabilondo-ren proposamena<sup>19</sup> salbuespen bakarretatik delarik. Haren ustez, Europa-trek denetara hedatu zuten «eredu nazional» –alegia– unibertsal hura hats hantua da eta desagertzera doa. Denetan krisian da «modelo» hori. Euskal herrian ere, osoki eraiki baino lehen, krisian sartua da J. Gabilondok dionez. Hortaz batere konturatu gabe, garai berri batean sartuak omen gara «Euro-pako» Euskal Herrian. Mimatuz nahi dugun «eredu nazionalak» trabatzen gaitu aldaketa horietaz ohartzeko. Erdigunetik kanpo dauden Euskaldunek, diasporakoek –Joseba Gabilondo Estatu batuetan bizi da, adibidez– eta, hemen berean, gure arteko gutiengoek –harek emazteak eta homosexualak izendatzen ditu– eredu nazionalaren gainetik pasatzen dira.

## Konklusioa

Lehen datu bilketa bat baizik ez da gaineko lana. Garbi dago Txuma Lasagabater-rek finkatu zuen programa ez dugula bete. Halere, Euskal literaturaren historiaz eredu «erabilgarri» bat badugu esku artean, Iparraldean eta Hegoaldean erabiltzen eta irakasten dena baita ere kanpora hedatzen dena. Haren alde onak eta haren gabeziak ikusten ditugu. Beraz, bi egun hauetan antolatuak diren ausnarketa kritikoei esker, pentsa daiteke gaur egungo «euskal literaturaren historiak» eskaintzen digun eredua hobetzen ahalko dugula.

## Bibliografia

### Erreferentzia orokorrak

BACKÈS, J.L., 1996, *La littérature européenne*, Belin .

---

<sup>19</sup> GABILONDO, Joseba, 2004, *Nazioaren Hondarrak*, Euskal Herriko Unibertsitatea.

- BARTHES, R., 1960, «Histoire ou littérature?» in *Annales*.
- CHAMOISEAU, P., 1997, *Ecrire en Pays dominé*, Gallimard.
- CHAMOISEAU, P., CONFIANT, R., 1999, *Lettres Créoles*, Gallimard.
- CURTIUS, E.R., 1956, (frantses itzulpena), *La littérature européenne et le Moyen-âge latin*, PUF,
- ESCARPIT, R., 1958, *Sociologie de la littérature*, PUF, 1958. Askoren artean, (Robert Escarpit-en zuzendaritzapean), 1970, *Le littéraire et le social*, Flammarion.
- GLISSANT, E., 1981, *Le Discours antillais*, Gallimard; 1990, *Poétique de la relation* Gallimard.
- JAUSS, H.R., 1978 (frantses itzulpena), «Histoire de la littérature», in *Pour une esthétique de la réception*, Gallimard,
- LANSON, G., 1894, *Histoire de la littérature française*.
- SARTRE, J.P., 1947, *Qu'est-ce que la littérature?*, Gallimard.
- VERCIER, B., VIART, D., 2005, *La littérature française au présent*, Bordas.

### **Euskal literaturaren historia**

- ALDEKOA, I., 2004, *Historia de la literatura vasca*, Erein.
- \_\_\_\_\_, 2008, *Euskal literaturaren historia*, Erein.
- ETXANIZ, X., 1997, *Euskal haur eta gazte literatura*, Pamiela.
- ETXANIZ, X., LOPEZ GASENI, M., 2005, *90eko hamarkadako haur eta gazte literatura*, Utriusque Vasconiae.
- GABILONDO, J., 2004, *Nazioaren Hondarrak*, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- GARATE, G., 1983-1985, *Euskal eleberriaren kondaira*, Gotzon Garate, Mensajero.
- JUARISTI, J., 1987, *Literatura vasca*, Taurus.
- KORTAZAR, J., 1990, *Literatura vasca. Siglo XX*, Mensajero.
- \_\_\_\_\_, 1997, *Luma eta lurra*, Labayru.
- \_\_\_\_\_, 2002, *Diglosia eta euskal literatura*, Utriusque Vasconiae.

- \_\_\_\_\_, 2003, XX. Mendeko euskal literatura, Prades.
- LANDA, J., 1983, *Gerraondoko poesiaren historia*, Elkar-AEK.
- LASAGABASTER, Tx., 1983, *Las literaturas de los vascos*, Deustoko Unibertsitatea.
- LEKUONA, J-M., 1982, *Ahozko literatura*, Erein.
- LHANDE, P., 1925, *Le Pays basque à vol d'oiseau*, Beauchesne.
- LOPEZ GASENI, M.,
- MÍTXELENA, K., 1960, *Historia de la literatura vasca*. Minotauro.
- MUJIKA, L.M., 1979, *Historia de la literatura euskerika*, Kriseilu.
- OLAZIREGI, M.J., 2002, *Euskal eleberriaren historia*, Labayru.
- ORPUSTAN, J-B., 1996, *Précis de littérature basque*, Izpegi.
- SALABERRI MUÑOA, P., 2000, *Iraupena eta lekukotasuna*, Elkar.
- SARASOLA, I., 1971, *Euskal literaturaren historia*, Lur.
- \_\_\_\_\_, 1975, *Euskal literatura numerotan*, Lur.
- TORREALDAI, J.M., 1977, *Euskal idazleak gaur*, Jakin.
- \_\_\_\_\_, 1997, *Euskal kultura gaur*, Jakin.
- URKIZU, P., 1975, *Euskal teatroaren historia*, Kriselu.
- \_\_\_\_\_, (zuzendari: askoren artean), 2000, *Historia de la literatura vasca*, Uned.



# Euskal literaturaren historia; begirada berriaz

ETXANIZ, Xabier  
Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Euskal literaturaren historian azterketa ezberdinak egon dira. Orain, berriz, polisistema-ren teoria kontuan izanik, historiografia berri bat egin behar dugu. Ikuspegia zabalago batekin, irizpide literarioetan oinarrituta, literatura-sistema eta sistemaren arteko harremanak kontuan izanik eginko historiografia.

Atzera begiratze horrek, baina, ez digu etorkizunei begira ditugun erronkak bazterrariatzeari behar.

**Hitz-gakoak:** Literaturaren historia, azterketa orokorra, eredu sistemikoa.

En la historia de la literatura vasca ha habido diferentes análisis. Ahora, de nuevo, y teniendo en cuenta la teoría de los polisistemas, debemos hacer una nueva historiografía. Con una perspectiva más amplia, basada en criterios literarios, una historiografía que tenga en cuenta el sistema literario y las relaciones entre estos sistemas.

Esta mirada retrospectiva, pero, no ha de suponer dejar a un lado los retos del futuro.

**Palabras clave:** Historia de la literatura, análisis general, modelo sistemático.

L'histoire de la littérature basque a connu différentes analyses. Nous devons maintenant, en prenant en compte la théorie des polysystèmes, réaliser une nouvelle historiographie, dans une perspective plus large basée sur des critères littéraires, une historiographie qui prenne en compte le système littéraire et les relations entre ces systèmes.

Ce regard rétrospectif ne doit pas laisser de côté les défis du futur.

**Mots-clés :** Histoire de la littérature, analyse générale, modèle systématique.

There have been different analyses in the history of Basque literature. Now, bearing in mind the polysystem theory, a new historiography needs to be produced, a historiography made with a broader perspective, based on literary criteria, and produced bearing in mind the relationships between the literature system and systems.

But this retrospective stance does not mean that we should abandon the future challenges facing us.

**Keywords:** History of literature, general analysis, systemic model.

Literaturaren historia pertsona edo talde batek une zehatz batetik eginiko azterketa diakronikoa dugu. Azterketa horretan literatura lana dugu ardatz nagusia, baina literatura gertakari soziala da, gizarte batean eta historia une zehatz batean jazotako gertakaria. Are gehiago Itamar Even-Zohar irakasleak proposaturiko polisitemaren teoria kontuan izanik; bertan adierazten den bezala literatura elementu ugariren konbinaketa da. Literatura egoteko idazleaz gain, irakurlea, merkatua, testuingurua, kodea, mezua eta kanala (eta beraien arteko erlazioak) izan beharko genituzke kontuan.

Euskarazko literaturaren kasuan hizkuntzaren egoerak zerikusi handia izan du gure literatura garatzeko orduan eta hori euskarazko lehen idazkian bertan ageri zaigu Bernat Etxeparereren hitzetan:

*Berce gendec vste çuten  
Ecin scriba çayteyen  
Oray dute phorogatu  
Enganatu cirela.*

1545ean idatzitako testuak euskal idazlanetan XX. mendeko azken hondarretaino, gehiagotan edo gutxiagotan, ageri zaigun kezka azaltzen digu: euskara bizirauteko nahia, beharra. Hona hemen, horren adibide gisa, XX. mendean idatzitako hainbat libururen hitzaurretatik ateratako pasarte esanguratsuak:

«Dana-dala, gure Ama Euzkereari opari txiki au egingura ixa  
sautsot, orren biarra, !biar andija gero!, daukolako.

Euzkeraz ikasten dabillan mutil zintzo batek, Jauregibeitia'tar Ander'ak, egin dauz idazti onetan ikusiko dozuzan idantzezkijak, idantzezki politak. Onek be zeozer opaldu gura ixa dautso gure Euzkera matagarijari». (Joseba Altuna, O. Wilderen *Ipuñak* liburuaren hitzaurrean, 1927)

«Eta dena izanen da gure Eskuararen onetan, haren maitarazteko eta hedarazteko, Jainko maiteak hala nahi duelarik». (Mayi Ariztia, *Amattoren uxta* liburuaren hitzaurrean, 1943)

«Jaungoikoa'ri bearrik orixe ba-dugu: euskeraren alde aritzeko etengabeko borondatea. Beraz, Jaunogiko on-onak eta zuk, irakurle maite orrek, asketsiko (absolver) al dizkidazute liburu ontako utsegi

ta aizki esanak». (Jon Etxaide, *Purra! Purra!* liburuaren hitzaurrean, 1953)

«Ta oingo au izando al da bide bat sorkaldeko euskaldunak gure euskalkia ta zikolojia obeto ezagutu deien» (Juan San Martin, *Zirikadak* liburuaren hitzaurrean, 1960)

Kezka horrek mende bukaerako liburueta ere presentzia du:

«Eta inguru honetan oraindik bizirik irauten duen kulturarekin, ohituararekin, euskararekin moldatzen lagundu nahi diogu....». (Imanol Urbieta, *Haur kantarien birlorak* liburuaren 2. argitalpeneko hitzaurrean, 1990)

Euskararen egoerak, eremu urriko hizkuntza, populazio gutxikoa eta inguruko hizkuntzetatik nahiko berezia izateak izugarritzko pisua izan du gure literaturaren garapenean. Arestian ikusitako oharretan ageri den bezala urtetan euskal sortzaileek euskara bera izan dute kezka eta idazlanak plazaratzearen arrazoi nagusia. Euskaraz egin daitekeela, euskaraz egin behar dela, euskaragatik, euskararen ohorean idatzi izan dira testu asko eta asko eta horrek desorekatzen du erabat literatur egoeraren panorama, izan ere sarritan beste hizkuntzetan edo beste literaturetan egiten ziren antzeko lanak plazaratu izan dira, tradizioa, irakurlea, merkatua... kontuan izan barik.

Literaturaren historia batek idazlanak izan behar ditu kontuan, baina horiekin batera, Even-Zoharrek dioen bezala, literatur komunikazioan parte hartzen duten gainerako elementuak ere kontuan izan behar ditugu (irakurleak, azterketak, tradizioa... bai eta gertakari politiko eta sozialak). Jakina, historia guztiak begirada bati erantzuten diote, Antoniok Venturak (2001: 7) dioen bezala, historiagilearen begirada du historia batek. Eta historiagile horrek interpretatu beharko ditu garai bateko egoera eta arauak idazlan batzuk literariotzat hartzeko orduan ala ez, urte eta garai ezberdinetan kontzepcio oso diferenteak izan baitira literaturaren inguruan. Horregatik guztiagatik Maldonadok bi arazo nagusi ikusten ditu historiografian: batetik zehaztea zer den literatura eta nola erlazionatzen diren literatura eta historia, eta bestetik nola sailkatu, aukeratu, baloratu literatura arloko datuak (Maldonado, 2006: 11).

## **Euskal historiagileen begirada**

Euskal literaturaz eginiko aurreneko historietako bat dugu Mitxelenak 1960an plazaraturikoa (1988an Erein berrargitaratua); bertan honako hau dio ikerlari ezagunak:

«A pesar de la reincidencia, estoy muy lejos de ser un especialista en historia literaria (...) como lingüista he sido atender preferentemente en los textos a aspectos que tienen muy poco que ver con su valor literario». (Mitxelena, 1988: 7)

Baina hori esan bezain pronto bere irizpidea eta bere jarrera azaltzen du; hots, zein den bere begirada:

«no he tenido el menor propósito de ser exhaustivo (...). Me doy perfecta cuenta de que con ello me hago culpable de inevitables omisiones y pretericiones que lamento de todo corazón. No tengo ninguna confianza en la seguridad de mi juicio y no pretendo imponer a nadie mis opiniones (...). No me he preocupado de no herir susceptibilidades porque estimo indispensable que quienes sientan inquietud por estos problemas sepan hasta qué punto ha sido mediocre nuestro pasado». (*op. cit.*: 8)

Argi eta garbi mintzo da Mitxelena bere buruaz eta euskal letrei buruz. Eta hitzaurre amaieran eskatu bezala laster hasi ziren literaturaren inguruko bestelako ikerketa batzuk plazaratzen. Lehena urtebete beranduago, aita Villasantek idatzitako *Historia de la literatura vasca*. Bertan euskal idazlearen bakardadeaz hitz egiten da: «Es ya un mal crónico entre nosotros que el escritor vasco crezca y madure su obra en un clima de aislamiento y soledad de espíritu, lo cual por fuerza tiene que influir desfavorablemente en el desarrollo de la literatura vasca.» (Villasante, 1979: 18), baina baita euskal literaturaren izaera. Vinsonek (1925) euskal literatura bat ukatzen zuen bitartean, Villasantek liburukote horrekin kontrako erakutsi nahi du («nuestro libro lo evidencia suficientemente» *op. cit.*: 19) nahiz eta bera ere oso kontzientea izan azterturiko testuek nolako maila literarioa izan dezaketen: «Lo que podría discutirse en todo caso son sus verdaderas dimensiones y alcance, o sea, el valor e índole de esa literatura. (...). La literatura culta o libresca es más bien tardía, escasa y de no muy alta calidad.» (*op. cit.*: 19).

Mitxelenaren historiaren parean Villasantek euskaraz idatzitako idazlan guztien bilketa egiten du:

«Al decir que escribimos la historia de la literatura vasca es preciso advertir ante todo que no entendemos esa palabra <litteratura> en su sentido restringido de <bella literatura>, de producciones desinteresadas con vistas a expresar la belleza literaria o estética (...) Nosotros queremos tomar el vocablo en su sentido amplio de todo libro o publicación escrito en lengua vasca». (*op. cit.*: 20).

Eta horren ondorioz agertzen dira, historiagileak berak aitortu bezala (*op. cit.*: 21), hainbat lingüista; Humboldt, Bonaparte, Van Eys, Dodgdon,... literaturaren kontzepcio zabal horren lekuko.

1980ko hamarkadatik aurrera historiagileen ikuspegia aldatu egiten da, nork berea izango du baina bada gero eta handiagoa den kezka literatura lana eta idazki hutsak bereizteko. Lasagabasterrek (1983) kritika nahiko zorrotza egin zuen euskal literaturaren historiografía batik bat literaturatik kanpoko kontuetan, historia biografikoa, soziologikoa edo filologikoan ari-ten zela eta horien ordez azterketa literarioa falta zela.

Eta aldaketa hori, literaturaren historiografía egiteko ikuspegi berria age-ri du Jon Juaristik *Literatura vasca* (1987) idazlanean; hispaniar literaturaren ikuspegi historiko kritiko zabal baten barruan, bere lanak balio literarioa duten euskal lanak jasotzen ditu: «Aun cuando los criterios utilizados pue- dan resultar muy discutibles, he intentado en todo momento discernir entre los verdaderos literatos y los simples escritores» (Juaristi, 1987: 10).

Antzeko iritzia adierazten du Jon Kortazarrek *Literatura vasca. Siglo XX* (1990) lanean honako hau dioenean:

«Hablar de literatura, en el contexto de la lengua vasca, debe hacerse con una cierta prudencia, porque lleva consigo consecuencias ineludibles. En primer lugar, su objeto *no consiste ya* en todos los libros publicados en euskara, sino en aquellos, que en una perspectiva de tradición, hayan sido *considerados como de cierta calidad estética*, siempre relativa. En segundo lugar, reclama una posición con respec- to al valor de la literatura vasca». (Kortazar, 1990: 7-8) (azpimarrak nireak)

Argi dago, Kortazarrek aurreko historietatik bereizketa marra bat markatzten duela (dagoeneko ez dira liburu guztiak sartzen) eta irizpide literarioak erabiltzen dituela historia egiteko orduan (nolabaiteko kalitate estetikoa izan beharra). Harrera estetikak literatura interpretatzeko, aztertzeko, modu berria ekarri zuen eta horren ondorioz hartzaleak eta ikertzaleak bere irizpide literario nagusitzen du. Alde horretatik, esan dezakegu, asmo literario horiek izan direla ondorengo urtetan egin diren historia liburuetako irizpide nagusiak.

### **Historia historiagileen begiradan**

Modu batean edo bestean ulertuta zer den literatura historiagileak nolabaiteko periodizazioa egin ohi du, horretarako gertakari historikoak, literatura korronteak, inguruko literaturak eta abar kontuan izango dituelarik.

Hona hemen euskal literaturaren hegoaldeko historiagile batzuen periodizazioa eskema labur batean:

Mitxelena	Villasante	Juaristi	Aldekoa*
Hasiera, XVI. Mendea	XVI. mendea	Hasiera- Dechepare	XVI. mendea
XVII. Mendea	XVII. Mendea	XVI-XVIII. mendeak	XVI-XVII. mendeak
1700 - 1850	XVIII. Mendea	1800-1890	XVIII. mendeak
1850etik gaur egunera	XIX. Mendea	1890-1936	1790-1890
	XX. Mendea	1936-1975	1890-1930
		1975-1980	1930-1936
			1936-1970
			1970-1975
			1975-2000

\* Gutxi gora-beherako periodizazioa.

Azterketak ikustearekin batera argi eta garbi nabaritzen da zehaztasun handiagoa eskaintzeko asmoa Mitxelenaren lau denboraldietatik Alde-

koaren banaketa askoz zehatzagora eta, gainera, generokora. Baino, zehatzago edo orokorrago, nahiko garbi dago (Villasanteren medekako zatiketa izan ezik) XX. mendera arteko banaketa nahiko antzekoa dela, eta honek badu zerikusia hegoaldeko gertakari erlijiosoekin (erreforma eta erreformaren kontrako mugimendua) eta politikoekin (foruen galera eta nazionalismoaren sorrera).

2004an, Iñaki Aldekoak idatzitako euskal literaturaren historiari eginiko hitzaurrean, Lasagabasterrek kritika nahiko zorrotza egin zien aurretik eginiko hainbat historia lani:

«La historiografía literaria vasca, aun no siendo demasiado abundante, ha sido hecha desde perspectivas metodológicas muy diferentes, dejándose marcar por las modas o las corrientes que prevalecían en cada momento de la historiografía literaria general: la visión más bien positivista, en que la historia quedaba reducida a un catálogo más o menos exhaustivo de autores y de obras expuestos cronológicamente, pero sin la menor voluntad de aproximarse al sistema literario y menos aún a su contextualización en el interior de la vida cultural y social. Y cuando la contextualización cobró actualidad en las <historias sociales> de la literatura, también la historia de la literatura vasca pagó su tributo a la moda del momento, pagando el tributo de una interpretación demasiado mecánica, por no decir mecanicista, de la relación entre el hecho literario u la vida social; o, como es también el caso, introducir los datos históricos y sociales como prólogo al tratamiento propiamente literario de cada tema». (Lasagabaster, 2004:7)

Egia da Lasagabasterrek dioena, baina era berean egia da ere kritika hori gaur egungo literatura teorietatik egina dela. Izan ere, oraindik ere zehaztu edo argitu gabeko bi kontu daude, Maldonadok –arestian ere aipatu izan dugun bezala- komentatzen dituen historiografiako arazo nagusiak: zehaztea zer den literatura eta nola eraiki literatura kanonikoa.

### Begirada berriaren bila

Literatura kritika berriaren ikuspuntutik hainbat teoria eta iritzi eman dira historiografiaren nondik norakoa zehazteko orduan. Duela hamarkada

batzuk René Wellekek literatura periodoaren definiziorako urratsak eman zituen. Kritiko honen ustez periodoa honakoa hau da: «una sección de tiempo dominada por un sistema de normas, pautas y convenciones literarias cuya introducción, difusión, diversificación, integración y desaparición pueden perseguirse» (Wellek eta Warren, 1966: 318). Alegia, hainbat elementuren batasunaren ondorioz gertatzen dela eta ez gertakari edo elemento bakar baten emaitza moduan; are gehiago, ikerlariaren ustez literatura periodo bat ez da banaketa kronologiko hutsa, izan ere, periodo batean balore bat nagusitzen bada ere horrek ez du esan nahi bestelakoak azaltzen ez direnik. Horregatik guztiagatik Aguiar e Silvak honako hau dio:

«El concepto de período literario que estamos analizando implica todavía otra consecuencia muy importante: los períodos no se suceden de manera rígida y lineal, como bloques monolíticos yuxtapuestos, sino a través de zonas difusas de imbricación e interpenetración». (Aguiar e Silva, 1996: 249)

Alde horretatik modu kritikoan aztertu behar dira orain arteko hainbat banaketa, edo, horrela ez bada, argi eta garbi izan behar dugu periodizazio bat, edo korronte berri bat, aro bat,... aipatzen dugunean horrek zer esan nahi duen eta garaiaik ez direla bloke itxiak.

Bestalde, aurretik ere ikusi bezala, Aguiar eta Silvak dioen bezala garai bateko azterketa literariaoa egiterakoan denbora horren errealitatea ikuspegi ezberdinatik ezagutu behar da:

«el análisis de un período literario exige el conocimiento de las condiciones históricas generales de la época respectiva y, sobre todo, el conocimiento de las distintas artes, en el mismo período –pintura, escultura, arquitectura, música, etc.–. En efecto, el estudio de las coincidencias y divergencias entre la literatura y las demás artes puede ser muy esclarecedor acerca de la gestación, la textura y el significado de un período literario», (*op. cit.*: 251).

Guk gehituko genuke horrez gain garaiko egoera soziolinguistikoa ere guztiz garrantzitsua dela euskararen kasuan, bederen. Eta ez hori bakarrik, garai bakoitzean izan den filosofia, literaturarekiko joera, jarrera,... ere kontuan izan behar dela. Kontzeptuak aldatu egin baitira mendeetan zehar

(XVIII. mendera arte, esaterako, errealtitatearen isla izan behar zen poesia; egun, aldiz, imitazioaren teorien kontrako joera dago); eta gaur literariotzat hartzen ez dena, beste garai batean literatura izango zen, eta alderantziz. Historiagileak, beraz, presente izan beharko ditu gogoeta hauek guztiak bere azterketa egiterakoan, edo behintzat bere azalpenak ematerakoan.

Baina horiez gain, idazlan honen hasieran aipatu bezala, literatura elementu ezberdinene arteko sorturiko sarea dugu, testua baino zabalago den sarea. Even-Zoharrek dioen bezala:

«Un *consumidor* puede consumir un *producto* producido por un *productor*, pero para que el producto pueda ser generado y después propiamente consumido debe existir un *repertorio* común, cuya utilización está delimitada, determinada o controlada por una *institución* y por un *mercado* que permita su transmisión. Por otro lado, ninguno de los factores enumerados puede ser descrito funcionando aisladamente». (Even-Zohar, 1999: 30-31)

Ikuspegি berri honek literaturaren ikerketa eraldatu du eta literaturaren historia egiterako orduan zer pentsa ugari sortarazten duela uste dut. Gure artean, esaterako, nola interpretatu tiraderan urtetan eta urtetan egon den borradorea? Zer esan behar dugu *Peru Abarka* obrari buruz? Zer gertatzen da helduentzat idatzi eta gero gazteen literaturara pasatuko diren *Ambost egun Urgain'*en edo *Abarrak* bezalako lanekin?

Literatura sistema zerbait dinamikoa da, aldakorra, mugimenduan dagoeña; Zohar Shavitek (1999: 148-149) Even-Zohar aipatuz dioen bezala:

«El sistema literario no es estático, sino que es “un sistema múltiple, un sistema de varios sistemas que se entrecruzan y se solapan parcialmente al usar diferentes posibilidades al mismo tiempo, aunque funcione con un todo estructurado cuyos miembros son interdependientes”».

Eta hona hemen kontuan izateko beste ideia bat, sistema baten barruan sistema ezberdinak daudela. Eta, sistema horien artean harremanak sortzen direla.

Haur eta Gazte Literaturarena (HGL), esaterako, oso adibide garbia dugu. Sarritan sistema nagusiaren periferian ageri den sistema dugu eta ko-

rronte nagusiak edo obra kanonikoekiko erakarpena izan ohi duena. Horrela, sistemaren erdigunean dauden obren antzeko lanak argitaratzen dira haur eta gazteentzat (tematika aldetik, esaterako, gerra zibilaren inguruko lanekin gertatu den bezala), edo sistemaren erdigunean dauden idazleek argitaratu dituzte lanak haur eta gazteentzat (gure artean, esaterako, aipagarriak dira, beste askoren artean, K. Izagirre, H. Cano, J. Gabiria edo U. Elorriagaren kasuak).

Baina mugimenduak beste zentzuan ere gerta daitezke, bazterreko sistematik, HGLtik, sistema nagusiaren erdigunera, Shavitek aipatzen duen bezala, literatura arauak aldatzen laguntzeko, edo sortzaileak esperimenta dezan sorkuntza prozesuan.

«El texto ambivalente es capaz de introducir en el sistema nuevos modelos (que pueden haber existido como tales tan sólo en la periferia del sistema) y participa en el mecanismo de cambio de normas literarias». (Shavit, 1999: 155)

Horrela, aurreko lan batean aipatu bezala (Etxaniz, 2007), Atxagaren helduen literatura ulertzeko nahitaezkoa da haren HGL aztertea; errealsimora eginiko jauzia, sorkuntza-itzulpen jokabidea, narratzeko modua... esperimentatu baitzituen lehenago HGLn.

Historian ere, lehenago komentatu bezala, izan dira sistema batetik bestera sorturiko aldaketak. Euskal literaturan, adibidez, helduentzat idatziriko obra asko (Abarrak, Amabost egun Urgain'en, Patxiko Txerren, Pernando Amezketa arra edo Alos-torrean, lan batzuk aipatzearen) HGLra pasatu dira. Eta izan da ere gazte literaturatik helduenera jauzi egin duen lanen bate edo beste (*Filipinetan bizi den idazlearen kontuak*, Iturrealderen lana, esaterako).

## Euskal historiografiaren begiradaz

Aurretik esandakoak kontuan izanik, euskal gizartearen egoera sozio-lingusitiko-politikoak ere eragina izan du literaturaren historia ikusteko orduan. Euskal Herrian euskara ez da botere hizkuntza izan; bai hegoaldean bai iparraldean erdara izan da goi mailako jendearen arteko hizkuntza. Jua-

ristik dioen bezala: «los estamentos privilegiados de la sociedad vasca –noblesa y clero- son a la vez bilingües y diglósicos. El castellano (o el francés) es su lengua de cultura; el vasco, su lengua de relación con los estamentos inferiores.» (Juaristi, 1987: 15). Eta horren ondorio garbia dugu euskaraz idatzitako liburuen izaera lehen lau mendetan. I. Sarasolak (1975) erakutsi bezala, 1545etik 1900 urterea bitartean euskaraz 588 liburu argitaratu ziren; horietatik 101 izan ziren euskaraz sortuak eta hauetatik 12 bakarrik ez ziren liburu erlijiosoak. Hau da, euskaraz idatzitako liburu ia guztiak erlijiosoak ziren (eta honetan badute zerikusi handia erreforma eta erreformaren kontrako mugimenduek, baina baita euskara hizkuntza idatzi gisa apaizek baka-rrik erabili izanak).

Honek guztiak eragin zuzena izan du euskal literaturaren garapenean. Lambertek dioen bezala (1999: 58) instituzio politiko eta tradizio linguis- tiko arteko lotura oinarritzko da literaturaren kanonizazioan, eta gurean ez da horrelakorik gertatu. Ez dugu botererek ez idazlanik izan literatura bultzatzeko orduan. Eta Lambertek dioen moduan «Komunitatea, hizkun- tza eta literaturaren arteko harremanek izaera dinamikoa dute beti» (op. cit.: 66), baina horretarako harremana eman behar da hiru elementu horien artean.

Egoera horren aldaketa sentimendu nazionalistaren sorrerarekin hasi zen ematen. Lore-jokoentzako bidez, eta gero Sabino Aranak bultzaturiko naziona- lismoak ideología bat baina baita hizkuntza bultzatu ziren. Testuinguru ho- rretan hasten da euskal literatura erlijiotik bereizten eta euskara –eta bera- rekin batera literatura- erabiltzen da jende multzo batibasuna emateko, sentimendu bat sortarazteko. Izan ere kulturaren bidez botereak bere ideiak inposatu izan ohi ditu, eta kultura ere erabili izan da botereari aurre egiteko. Even-Zoharrek aipatu bezala (1999:72) kulturak batasuna eman diezaiok gizarte batibasuna horri esker biziraun dezake gizarte batek.

Euskal Herriak politikoki bizi dituen eta bizi izan dituen egoerek eragin zuzena izan dute euskal kulturaren garapenean eta hori orain arteko litera- tura historiagileek ikusi eta kontuan izan duten bezala, aztertu eta presente izan beharko dugu etorkizunean ere. XX. mendeko euskal kultura, eta eus- kal literatura, esaterako, ezin da ulertu gerra handiak eta Espainiako gerra

zibila kontuan izan gabe, eta gerra horiek gure herrian izan zuten ondorioak aintzat hartu gabe. Antzeko zerbait esan genezake euskara hizkuntzaren trataera ofizialari buruz, edo, beste maila batera pasatuz gure kulturak, literaturak, une bakoitzean izan duen garrantziari buruz, kontuan izan behar baitugu:

«Cuando uno se encuentra en la periferia cualquier cosa que haga, todo su repertorio, resulta por definición inferior al centro, pues los que ocupan en el centro siempre dominan mejor su repertorio, y por lo tanto se toman más fácilmente la libertad de ampliarlo o transformarlo». (Even-Zohar, 1999: 94)

Alegia zein den une bakoitzean gure sistemaren erdia eta periferia edo bazterra, non kokatzen garen. Eta alde honetatik oso garrantzitsua da euskal literatura sistema autonomotzat hartzea edo beste baten bazterrekotzat (eta badirudi batzuen ikuspegitik azken hau dela gure egoera).

### **Euskal historiagileen begira berriaz**

Literaturaren historiak lagundu egin behar du literatura ulertzen, ezagutzen. Hots, zer izan den, nola egin den, zein testuingurutan, zergatik, … eta hori guztia gizarte zehatz batean.

Bestalde oso presente izan behar dugu historiagileak bere begirada duela eta bakoitzak duen formazioa, garaia, errealitatea… islatzen duela azterketetan; are gehiago historiagileak argi eta garbi izan behar du «bere» historia egiten duela (adibidez, *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia* idatzii nuinean 1960ko hamarkadan kokatu nuen euskal HGLren hasiera, idazlanen helburu nagusia estetikoa orduan hasi zela argudiatuz; Minaberryren lan horien aurretik dozenaka obra idatzi izan dira euskaraz haurrentzat baina hau sinatzen duenaren arabera obra horiek ez ziren «literatura». Aita Villasantek, aldiz, bestelako irizpidea erabili zuen euskal literaturaren historia idatzi zuenean). Fenomeno hau antologietan gero eta arruntagoa dena («Antologia bat» jartzea «Antologia»ren ordez, esaterako) nik uste historietara ere pasatu beharko genuke.

Eta Minaberry aipatu dugunez, esan dezagun arestian aipaturiko egoera politiko, kultural edo soziologikoaren isla dela haren lana. 1960ko hamarkada hasieran idatzi zituen Marijan Minaberryk haurrentzako lan garrantzitsuak, baina idazlan horiek –*Xoria kantari* liburuko poemak, kasu- hiru hamarkada beranduago heldu ziren hegoaldeko irakurleengana Oskorri taldearen musikari esker neurri handi batean.

Historiagileak, bestalde, sortu diren korronte ezberdinen berri emateaz gain, testuingurua azaldu behar du, testuinguruaren eragina aipatu, aurrekarien berri adierazi... horrela, «baserri giroa (...) umorean eta ateraldi bitxietan oinarritzen den literatura horrek, ikuspegi literario batetik ez berrikuntzarik, ez aberastasunik dakar» (Etxaniz, 1997: 253) diogunean, esaterako, ikuspegi historiko batetik literatura mota horrek ez duela ekarpen beririk egiten diogu, eta ez, batzuek interpretatu izan duten bezala literatura mota horrek ez duela balio literariorik. Hots, historiagilearen komentarioa idazlanak historian zehar izan duen eraginari buruzkoa izan beharko litzateke azterketa diakronikoaren ondorioz.

Orain artekoak kontuan izanik argi dago literatura sistema dinamikoa dela eta gizarteko komunikazio elementuek parte hartzen dutela bertan, ez bakanrik idazlanek edo idazleek. Alde horretatik esan dezakegu beste garai batzuetan egin izan diren liburu edo egile zerrendez osaturiko historiak edo ger takari politikoen ondorio zuzentzat harturiko azterketak iraganeko kontuak direla eta horrelakoen ordez literatura-sistema osatzen duten ekintza guztiak (sorkuntza, merkatua, harrera, produktua, ...) eta beraien artean ematen diren harremanak aztertu behar direla literaturaren historia egiterakoan.

Argi dago, beraz, eredu sistemikoaren aldeko apustua egiten dugula Polisistemen teoriaren arabera, eta Maldonadok (2006: 27) aipatzen duen bezala literaturaren historiak honako hauek izan behar dituela kontuan:

- Sistema bakoitzaren barneko harremanak (sortzaileak, merkatua, ...)
- Sistema batean eragina duten kanpoko harremanak (egoera sozio politikoa, linguistikoa,...)
- Sistema ezberdinen arteko harremanak (HGLk helduenean, generoen arteko...)

- Literaturaren kontzeptuan izan daitezkeen ezberdintasuna
- Literatura interferentzia
- Idazle eta idazlanen eboluzioa
- Gustu estetikoaren aldaketak hartzaleen aldetik
- eta abar

Historiagile berriak, beraz, elementu horiek denak izan beharko ditu kontuan gertakarien azalpena ematerakoan. Literatura gertakari soziala iza-teaz gain oso dinamikoa delako eta hobeto ulertzeko asmo horretan (histo-riaren zergatietako bat horixe izan beharko bailitzateke, historia ezagutu literatura hobeto ulertzeko) elementu ezberdinen azterketa egin beharko genuke. Historiagilearen begirada, beraz, handiagoa, zabalagoa eta, batez ere, orokorragoa izan behar da; are gehiago XXI. mende honen hasieran euskal literaturak bizi dituen erronken aurrean.

Iragana ezagutu behar dugu oraina ulertzeko eta etorkizunei begira jar-tzeko. Eta, alde horretatik, euskal literaturak azken hamarkadetan izan di-tuen aldaketak oso emankorrak eta aberatsak izanda ere bada kezkatzeko moduko zenbait kontu (are gehiago hainbatek euskal literatura oso egoera onean dagoela uste duenean). Egia da euskarazko literatura inoiz baino egoera hobeant dagoela, baina badira, oraindik ere, argi gorriak gure litera-turan. Idurre Alonso Amezuak idatzitako *Erdigune literarioak irakaskuntzan* lanak horietako batzuk aipatzen ditu. Non dago idazlan kanonikoen eta irakaskuntzaren arteko erlazioa? Zer irakurtzen dute literaturan hezten ari diren gazteek? Zergatik ez dira idazlan kanonikoak irakurtzen? Gazteak li-teraturan hezten ari al gara?

Ildo horretatik, nahiz eta kontu berbera ez izan, azken urteotan euskal literaturaren inguruan hainbat eta hainbat artikulu eta elkarritzetan eus-kal irakurlearen gabezia aipatu izan da. Nork irakurtzen du plazerez? Zenbat irakurle ditugu euskaraz? Zer gertatzen da irakaskuntzako zirkuituetatik at-geratzen diren idazlan literarioekin?

Alde horretatik oso esanguratsua da *Erlea* aldizkariaren apustua. Bi mila irakurle lortu nahi dituen aldizkaria da, hots, euskal literatura-sistema

mantentzeko behar dugun irakurle kopuru minimoa (aldizkariaren zuzendariaren hitzetan).

Eta, kezka hauen isla prentsara ere iritsi da. 2010eko urrian, Frankfurteko liburu azokaren harira, *Gara* egunkariak honako editorial hau idatzi zuen urriaren 8an:

«Premiazkoa da, ezbairik gabe, euskal literaturak munduan barrena bide egitea. Ez da erronka txikia, batez ere <literatura txikia> izaki, eta hartarako leihoa zabala da Frankfurt (...) Baino literatura beste baldintzataile batzuen mendeko ere bada, hala nola merkatuarena (...)»

Euskal literatura munduan gero eta ezaguna izateko erronkak, nolanahi ere, ez luke ahantzarazi behar Euskal Herrian bertan lan handia dagoela eginkizun, euskal literatura euskal herritar askorenatzat ere ezezaguna baita».

Irakaskuntzan ari garenok, gazteekin ari garenok, jakin badakigu editorial horretan azaltzen den errealitytea noraino den egia, eta gaur egun euskal gazte askorentzat euskal literatura ezezaguna dela.

Historiak lagundu behar digu, beraz, iraganetik etorkizunerako bidea egiten. Horra hor, besteak beste, euskal literatura historiagileen erronka nagusia.

---

\* Lan hau GIC 10/100 eta TIT 495/10 ikerketa taldearen proiektuaren zatia da, UPV/EHUk eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundua.

## Bibliografía

AGUIAR E SILVA, V. M., 1999, *Teoría de la literatura*, Madrid: Gredos. (9. Berriinpri.)

ALDEKOA, I., 2004, *Historia de la literatura vasca*, Donostia: Erein.

ALONSO, I., 2010, *Erdigune literarioak irakaskuntzan*, Bilbo: EHU.

ETXANIZ, X., 1997, *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia*. Iruñea: Pamiela

\_\_\_\_\_, 2007, *Bela Kabelatik Ternuara. Atxagaren Haur eta Gazte Literatura*. Iruñea: Pamiela.

EVEN-ZOHAR, I., 1999, «Factores y dependencias en la cultura. Una revisión de la teoría de los polisistemas», in AA. AA *Teoría de los Polisistemas*, Madrid: Arco/Libros. 23-52.

\_\_\_\_\_, 1999, «Planificación de la cultura y mercado», in AA. AA *Teoría de los Polisistemas*, Madrid: Arco/Libros. 71-96.

JUARISTI, J., 1987, *Literatura vasca*, Madrid: Taurus.

KORTAZAR, J., 1990, *Literatura vasca. Siglo XX*, Donostia: Etor.

LAMBERT, J., 1999, «Aproximaciones sistémicas y la literatura en las sociedades multilingües» in AA. AA *Teoría de los Polisistemas*, Madrid: Arco/Libros. 53-70.

LASAGABASTER, J. M., 1983, «La historiografía literaria vasca. Aproximación crítico-bibliográfica», *Mundaiz* 26, 34-52.

\_\_\_\_\_, 2004, «<Otra> Historia de la literatura vasca», Aldekoa, I., *Historia de la literatura vasca*, Donostia: Erein, 7-8 or.

MALDONADO, M., 2006, «La historiografía literaria. Una aproximación sistémica», *Revista de Filología Alemana* 14, 9-40.

MITXELANA, K., 1988, *História de la literatura vasca*, Donostia: Erein. 2. Argital.

SARASOLA, I., 1975, *Euskal literatura numerotan*. Donostia: Kriselu.

SHAVIT, Z., 1999, «La posición ambivalente de los textos. El caso de la literatura para niños.» in AA. AA, *Teoría de los Polisistemas*, Madrid: Arco/Libros. 147-181

VENTURA, A., 2001, «Prólogo» in Galarrón, A., *Historia portátil de la literatura infantil*. Madrid: Anaya.

VILLASANTE, L., 1979, *História de la literatura vasca*. Arantzazu: Arantzazu argitaletxea. (2. Argitalpen zuzendu eta osatua).

WELLEK, R. eta AUSTIN WARREN, 1966, *Teoría literaria*, Madrid: Gredos. (4. Argital.)



# **Genero periferikoen agerpena euskal literaturaren historietan**

LÓPEZ GASENI, Jose Manuel  
Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Lan honen bidez, genero periferikoek euskal literaturaren historietan duten agerpenean eta haren arrazoietan arakatu nahi izan dut. Horretarako, Polisistemen Teorian oinarrituko naiz, Even-Zohar, Toury eta Shavit adituen lanak abiapuntu harturik. Adibide gisa hartu ditudan euskal literaturaren historiagileak, berriz, honako hauek izan dira: Mitxelena, Villasante, Urkizu eta Aldekoa.

**Hitz-gakoak:** Literaturaren historia, literatura-sistema, kanonikotasuna, itzulitako literatura.

A través de este trabajo, he querido profundizar en la aparición de los géneros periféricos en las historias de la literatura vasca, así como en las razones de dicha aparición. Me basaré en la Teoría de los Polisistemas, tomando como punto de partida los trabajos de expertos tales como Even-Zohar, Toury y Shavit. Los historiadores de la literatura vasca que he tomado como ejemplos son: Mitxelena, Villasante, Urkizu y Aldekoa.

**Palabras clave:** Historia de la literatura, sistema literario, canonicidad, literatura traducida.

Par ce travail j'ai souhaité étudier de façon plus approfondie l'apparition des genres périphériques dans les histoires de la littérature basque, ainsi que les raisons de cette apparition. Je me baserai sur la Théorie des Polysystèmes, prenant comme point de départ les travaux des experts que sont Even-Zohar, Toury et Shavit. Les historiens de la littérature basque que j'ai pris comme exemples sont : Mitxelena, Villasante, Urkizu et Aldekoa.

**Mots-clés :** Histoire de la littérature, système littéraire, canonicité, littérature traduite.

In this paper the author has set out to examine the emergence of peripheral genres in the histories of Basque literature and the reasons behind it. So the author has taken as the basis the Polysystem Theory, taking the works of the experts Even-Zohar, Toury and Shavit as the starting point. The Basque literary historians cited as examples are: Mitxelena, Villasante, Urkizu and Aldekoa.

**Keywords:** History of literature, literature system, canonicity, translated literature.

## 1. Sarrera

Lan honetan aztertuko dut genero periferikoek hainbat literatura-sistema metako kanonikotasunean nolako eragina izan duten eta, ondorioz, nolako isla izan duten literatura-sistema horien historietan, oso bereziki euskal literaturaren historietan.

Horretarako, dagoeneko aurreratu dudanez, ikuspuntu polisistemikoa erabiliko dut, zehazkiago Itamar Even-Zohar (1990, 1999) irakasleak proposatu eta Gideon Toury (1980, 2004) eta Zohar Shavit (1986) irakasleek garatutakoa, itzulpen-estudioetan eta haur literaturan, hurrenez hurren.

Even-Zohar-en teoriaren arabera, literatura-polisistema batean errepetorio eta obra batzuek erdigunea hartzen duten bitartean, beste errepetorio eta obra batzuk posizio periferikoetan kokatzen dira, erdigune horretatik distantzia desberdinetara. Erdigunean egoteak kanoniko izatea esan nahi du, eta periferian egoteak, berriz, ez-kanoniko izatea. Hala ere, literatura-polisistemek izaera dinamikoa dute, eta posizio zentralak irabazteko borrokan gerta daiteke garai batean periferikoa izandako errepetorio edo obraren bat erdiguneko edo zentral bihurtzea eta, horrenbestez, kanonikotasunera iristea. Edonola ere, sistema bat osatzen dutenez gero, errepetorio zentralen izaera ezin da ulertu periferikoak kontuan hartu gabe, eta alderantziz. Even-Zohar-en hitzetan:

If one accepts the polysystem hypothesis, then one must also accept that the historical study of literary polysystems cannot confine itself to the so-called «masterpieces», even if some would consider them the only *raison d'être* of literary studies in the first place. This kind of elitism cannot be compatible with literary historiography just as general history can no longer be the life stories of kings and generals. In other words, as scholars committed to the discovery of the mechanisms of literature, there seems to be no way for us to avoid recognizing that any prevalent value judgments of any period are themselves an integral part of these mechanisms. No field of study, whether mildly or more rigorously «scientific», can select its objects according to norms of taste. (Even-Zohar, 1990: 13)

Literaturaren historiaz ari garela, beraz, literatura jakin baten historia garai bakoitzean kanonizatutako produktuen historia bada, zenbaitetan

masa-literaturako edo itzulitako obra batzuek kanonikotasun-posizioa irabazi dutelako kontzientzia hartu behar dugu, horren arrazoi sistemikoa azaltzen saiatzearekin batera. Even-Zohar-en arabera, hori gertatzeko hiru baldintza gertatu behar dira: lehena, polisistema bat oraindik behar bezala ezarrita ez egotea, hau da, gaztea izatea; bigarrena, literatura jakin bat inguratzen duten literaturekiko periferikoa edo ahula izatea; eta, hirugarrena, literatura batean inflexio-puntuak, krisiak edo hutsuneak gertatu izana (Even-Zohar, 1990: 47).

Lehen kasuan, itzulitako literaturak sistema gazte baten beharrak betetzen ditu, batez ere literatura-hizkera bat sortzeko. Jatorrizko literatura urria izan ohi denez, beste sistema batzuetatik itzulitako literaturak betetzen du zeregin hori. Bigarren kasuan ere antzoko zerbaite gertatzen da: literaturaren ahuleziaren ondorioz, errepertorio edo ereduzko baliabide gutxiren jabe izaten da, eta itzulitako literaturak eskaintzen dizkio errepertorio horiek. Hirugarrenean, polisistema indartsuenek ere krisi garaiak izaten dituzte indarrean dauden errepertorioek onargarriak izateari uzten diotenean; kasu horietan ere itzulitako literaturak ekarri ohi ditu errepertorio berriak (horri buruz gehien aipatzen den adibidea da Frantzian Poe-ren poemek ekarri zuten berritasun emankorra Baudelaire-ren itzulpenaren bidez; baina askoz gehiago daude: Arno Schmidt-ek Joyce itzuli zuen alemanera, Borges-ek Cummings eta Faulkner itzuli zituen gaztelaniara, Nabokov-ek Lewis Carroll itzuli zuen errusierara...). Horrelako obrak ez lirateke zentralak izango polisistema ahula eta/edo gaztea izan ezean.

Even-Zohar-en azterketa ereduak edozein polistema aztertzeko balio badu ere, bereziki emankorra da polisistema elebidunak eta eleanitzunak aztertzeko, normalean sistema indartsu bat eta sistema ahulago bat(zuk) kontaktuan daudenean, hain zuzen ere. Hala diosku egile israeldarra:

The polysystem hypothesis, however, is designed precisely to deal with such cases [gizarte elebidunetako literaturak] as well as with the less conspicuous ones. Thus, not only does it make possible the integration into semiotic research of objects (properties, phenomena) previously unnoticed or bluntly rejected: rather, such an integration now becomes a precondition, a *sine qua non*, for an adequate understanding of any semiotic field. This means that standard language

cannot be accounted for without putting it into the context of the non-standard varieties; literature for children would not be considered a phenomenon sui generis, but related to literature for adults; translated literature would not be disconnected from original literature; mass literature production (thrillers, sentimental novels, etc.) would not simply be dismissed as «non-literature» in order to evade the recognition of its mutual dependence with «individual» literature. (Even-Zohar, 1990: 13)

Eta, hain zuzen ere, horrelakoa da gure polisistema: euskal sistemaren ondoan gaztelaniazko edo frantsesekozko sistemak ditugu, tokian-tokian. Eta bereziki euskal literatura-sistemak erdiguneareen eta periferiaren arteko tirabira ugari izateko baldintzetako batzuk betetzen ditu, arestian aipatuak: inguratzen duten sistemekin konparatuz gero, sistema gaztea eta ahula da.

## 2. Itzulitako testuak euskal literaturan

Ikusi dugun legez, itzulitako literaturak sistemaren periferian egoteko joera du, hau da, «those norms and texts which are rejected by these circles [kultura bateko talde nagusiak<sup>1</sup>] as illegitimate and whose products are often forgotten in the long run by the community (unless they change their status)» (Even-Zohar, 1990: 15). Normalean, itzulitako literaturarik ez da agertzen sistema indartsuenetako literatura-historiográfietaan.

Gure literaturaren historian, ordea, oso ohikoa da itzulpenak behin eta berriz agertzea gainontzeko testu literarioen ondoan, nahiz eta itzulpen horiek, askotan, literatura-testuen itzulpenak ez izan. Itzultzaileak ere idazleen pare agertu ohi dira eta halakotzat hartuak izan dira.

Tradizio horrek garbi adierazten du euskaratutako idazlan batzuek erdiguneko posizioak bete dituztela euskal literatura-sisteman, hau da, testu

<sup>1</sup> Kultura bateko talde nagusiei «instituzioa» deitzen die Even-Zohar-ek: «The ‘institution’ consist of the aggregate of factors involved with the maintenance of literature as a socio-cultural activity. It is the institution which governs the norms prevailing in this activity, sanctioning some and rejecting others» (Even-Zohar, 1990: 37).

kanonikoak izan direla, kanonikotasun horren arrazoiak, «beren estatusa aldatu» izana, garbiegi azaldua izan ez den arren.

### 2.1. Euskaratutako erlijio-testuak

Adibide batzuk aipatzearen, euskal literaturaren historietako hasierako izen nagusi bat Joanes Leizarraga izaten da, nahiz eta «Apenas hay una página en la extensa obra de Leizarraga que no sea traducción» (Michelena, 1988: 52). Testamentu Berriaren itzultzailarei aitortzen zaizkion merituen artean daude prosazko lehen euskal liburua izatea, literatura-hizkera bat sortu izana eta abar. Gainera, Leizarraga bera oso ondo ikusia zegoen garaiko *instituzioaren* zirkuluetan, Patri Urkizuk adierazten duen legez (Urquiza, 2000: 147).

Hortik aurrera, asko dira euskal literaturaren historietan aipatzen diren itzulpenak. Sarrien aipatzen direnak «Kempis» delakoaren itzulpenak dira, hau da, Thomas de Kempis fraide alemanak XV. mendean idatzitako *Kristoren imitazioa* haren itzulpenak: XVII. mendean, Silvain Pouvreau izan zen lehenengo itzulpenaren egilea, eta Aranbillagak beste bat argitaratu zuen; XVIII. mendean, berriz, Chourio eta Maizter, eta XIX.ean Duvoisin izan ziren beste itzultziale batzuk.

Beste erlijio-testu askoren itzulpenak ere agertu izan dira euskal literaturaren historietan, berezko literatura-testuak izan gabe, gainera. Zein izan dira halako testuei kanonikotasun maila emateko arrazoiak? Normalean, Leizarragaren kasuan bezala, hizkuntza-eredu gisa agertu izana euskalkiren edo hizkuntza-aldaeraren batean eta, horrekin batera, irakurleen artean nolabaiteko arrakasta izana, *instituzioan* eliza nagusi zen garaietan.

### 2.2. Euskaratutako literatura didaktikoaren agerpena

Erlilio-testu itzuliekin gertatu bezala, euskaratutako literatura didaktikoak agerpen zabala izan du gure literaturaren historietan.

Ilustrazioaren eraginez, fabula klasiko eta neoklasikoen erreperitorio batzuk euskaratu ziren, irakurleei (umeak, normalean) era askotako irakaspe-

nak trasmititzeko xedearekin. Literatura didaktiko hori, gaur egun beharbada haur literatura deituko geniokeena, erdigurenko posizioan kokatu zen euskal literaturaren sistemaren, harrigarria badirudi ere. Mogeldarrak, Juan Mateo Zabala, Iturriaga, Arxu, Goietxe eta beste, XIX. mendean zehar alegiak euskaratu zituzten itzultzaleak, euskal literaturaren historia guztieta agertzen dira.

Erlilio-testuak, esan gabe doa, euskaratzen jarraitu ziren XIX. eta XX. mendeetan zehar, baina periferikoak ziren jadanik.

### 2.3. Sasi-itzulpenak

Ikuspegi polisistemikotik, sasi-itzulpenak ez dira hartzen, beste azterbide batzuetan bezala, salbuespen edo bitxikeriatzat. Aitzitik, sistemaren joera jakin batzuen adierazgarri apartak izatera iritsi daitezke.

Sasi-itzulpenak itzulpentzat aurkeztutako testuak dira, baina beste ezein hizkuntzetan pareko testurik ez dutenak.

Polisistemaren ikuspegitik, sasi-itzulpenak sistema jakin batean berritasunak sartzeko bidea dira. Izan ere, «itzulpenak» direnez gero, irakurleek tolerantzia handiagoz onartzen dituzte eta, edozein kasutan, berritasunak onartezinak izanez gero, ez dago nori leporaturik, egilea ezezaguna delako. Hori dela eta, sasi-itzulpena oso fenomeno zabaldua da mundu osoa zehar.

Gideon Toury-ren arabera, lau bultzagarri nagusi daude sasi-itzulpenetara jotzeko: a) egile jakin batek bere norabide literarioa errrotik aldatzeko gogoa; b) sasi-itzulitako testua sorburu-sistemak izango lukeen nagusitasunaz janztea, hala irakurleriaren harrera manipulatz; c) testu baten gainean ezar litekeen zentsura edo gaitzespena saihestea; horra sistema batean berrikuntzak sartzeko bidea (normalean ez-kanonikoak: western delakoa, eleberri errromantikoak, pornografikoak, eta abar); d) kultura-planifikazioko estrategia gisa, batez ere erregimen totalitarioetan (Stalin-en garaiko SESBen, esaterako, metropoliko biztanleei erakusteko errepublika periferikoetako (sasi-)poetek zein ondo onartzen zuten «lider handia»). (Toury, 2004: 83-86).

Jakina denez, euskal literaturak sasi-itzulpenik ez, baina frantseserako us-tezko itzulpen baten sorburu-sistematzzat aurkeztua izan zen. Jean Baptiste Daskonagerre-ren *Les Echos du pas de Roland* (1867) obraren historia ezagunaz ari naiz, bistan denez. Villasanteren esanetan, sasi-itzulpena arrakastatsua izan zen: «En 1867 aparecía en París una novela en francés que decía ser traducida del vasco, detalle que debió de influir no poco en su éxito, pero que en realidad no pasaba de ser un truco de librería» (Villasante, 1979: 168). Zerk eraman ote zuen Daskonagerre euskaratik itzulia izan zela esatera? Toury-k aipatzen dituen bultzagarrietatik bigarrena begitantzen zait si-nesgarriena, ohartxo bat eginda, noski: sorburu-sistemaren nagusitasuna ez, baizik eta balizko exotikotasuna baliatu nahi zuelakoan nago. Gainera, ematen du egileak, «membre du Conseil général des Basses-Pyrénées», bere burua euskal idazletzat agerrarazi nahi zuela Pariseko zirkuluetan.

Edonola ere, euskal literaturara iritsi den obra haren benetako itzulpena da: *Atheka gaitzeo oihartzunak* (1870). Obra horri buruz, Urkizuk eta Aldekoak frantsesetik egindako itzulpen bat dela aipatu betterik ez dute egiten. Mitxelenak lehen euskal eleberria dela dio, baina lehenago frantsesez agertu zela, itzulpena izan zela esan gabe: «La primera en fecha de las novelas debe ser *Atheka gaitzeo oihartzunak*, publicada a nombre de J.-B. Dasconaguerre. Pero este relato novelado, de larga y curiosa historia en sí mismo, de las aventuras del famoso contrabandista Anchordoquy, apodado Ganich, apareció primero en francés (*Les échos du pas de Roland*, 1867)» (Michelena, 1988: 157). Villasantek lehen euskal nobela dela dio, Lafitte aipatuz: «Lafitte saludó esta obra como la primera novela que se haya escrito en vasco» (Villasante, 1979: 169). Beraz, sasi-itzulpena lehen euskal nobela gisa pasatuko zen literaturaren historiara, iruzurra azaldu izan ez balitz. Garbi dagoe-na da obra horren bidez eleberriaren eredu sartu zela euskal literatura-sisteman.

Hala ere, azken galdera bat sortzen da. Zergatik Leizarragari aitortzen zaio euskal literaturaren historiako prosazko lehen testuaren egilea izatea, eta Dasconaguerri, berriz, ukatzen zaio euskarazko lehen nobelaren egilea izatea? Ziur aski, Leizarragak XVI. mendeko sistema sortu berri ahulean betetzen zuen posizioa Daskonagerrek XIX.ean betetzen zuena baino zen-tralagoa zelako, kanonikoagoa.

## 2.4. Literatura-itzulpengintza XX. mendearren hondarrean

Mende bateko jauzi bat eginez, XX. mendearren amaieran literatura-itzulpengintzak izan zuen garrantziari buruzko gogoetatxo bat egin nahi nuke. Jakina denez, itzulpengintzak oro har eta bereziki literatura-itzulpengintzak bultzada handi bat jaso zuen 80ko hamarkadatik aurrera Martuteneko Itzultzaile Eskolaren, EIZIE elkartearen eta EHUKO Itzulpengintza Masterraren sorrerarekin. Urte horietan, orobat, munduko egile garrantzitsuen itzulpenak argitaratzen hasi ziren: Baudelaire, Melville, Böll, Yourcenar, Steinbeck, Faulkner, García Márquez...

Laurogeita hamarreko hamarkadan, berriz, literatura-itzulpengintzak jasotako bultzada erabakigarria izan zen, inoizko egitasmorik handienaren bitartez, Literatura Unibertsala izeneko bilduma, gaur arte 147 titulu argitaratu dituena. Hainbat itzultzaile trebatzeko eta euskal literatura mundu zabaleko idazlan ugariz osatzeko balio izan zuen, zalantzarak gabe.

Garai horretako euskal literaturaren sistema, ordea, izugarri indartuta zegoen: genero guztietako obrak argitaratzen ziren, argitaletxe-sare interesarria zegoen, idazlan esanguratsuak argitaratzen zituen idazle kanonizatu talde bat, instituzio gero eta sendoagoa, irakurleria gero eta zabalagoa... Hori dela eta, euskaratutako literatura, garrantzitsua izanda ere, ez zegoen inola ere sistemaren erdigunean, erabat periferikoa ere ez zen arren.

Hala era guztiz ere, badirudi literatura itzuliak nolabaiteko kanonikotasun maila erdietsi duela, obra jakin batzuen bidez baino gehiago, ereduzko erreperitorio eta arauak sortzearen bidez. Arau horiek, gero, oso erabilgarri gerta dakizkioke idazleari. Hala adierazi zuen garaiko kanona itxuratzen duen idazleetako batek, Anjel Lertxundik:

Itzulpengintzan egin den ahalegina jotzen dut, batere zalantzarak gabe, azken urteotako euskal literaturan gertatu den albiste esanguratsuen. Itzulpengintza ari da hizkera literarioa eraikiten, itzulpengintza ari da, zehaztasunaren bidetik, jokabide desberdinatarako bideak zabaltzen, zehaztasunean baizik ez baitaiteke oinarri anitzuna. (...) Inoiz esan dudanez, idazleok itzultzaile mentalak gara (euskarra ez beste hizkuntzetan irakurtzen dugu batez ere); inork ez digu, ordea, pentsatzen genuen eta idazten dugunaren arteko lotura eta zehaztasuna

eskaten, inork ez baitu ezagutzen burutik pasa zitzaina. Tranpa egin dezakegu; eragozpena saihestu; berez korapilotsu zena, lautu; laua denarekin, alfonbra ehundu; alfonbra gainean ibiliz, dotore plan-tak egin... Estrategia soziolinguistikoetarako zilegi gerta daitekeen euskara erraza (?) delakoaren atzean ezkutatzen den diskurtsuak luizi espresiboa eta itsumena ezarri nahi dizkigu literaturaren aldareko meza-emaille. (Lertxundi, 1993; in Torrealdai, 1997: 221).

Baita praktikan jarri ere, Otto Pette (1994) eleberritik aurrera arestian aipatutako idazmolde zehatzagoaren bidetik jo baitzuen. Kasu honetan, beraz, itzulitako literaturaren ereduak «lehen mailako errepetorio» edo errepetorio berritzale gisa funtzionatuko luke, haren bidez errepetorioa elementu berriez handitu eta berregituratu delako, eta horren ondorioz produktu berriak ezin dira hain erraz aurrekusi (Even-Zohar, 1990: 21).

Guztiarekin ere, ez dirudi euskal literaturaren historietan itzulitako literaturaren eragin horren berri ematen denik.

### 3. Genero ez-kanoniko batzuen nagusitasuna

Itzulitako literatura albo batera utziz, normalean periferikoak diren beste genero batzuk ere iritsi daitezke erdigunekoak izatera, literatura-sistema oso ahuldua dagoen garaietan.

Euskal literaturak ahulezia nabarmena erakutsi zuen Spainiako Gerra Zibilaren ondorengo urteetan, Franco generalaren diktaduraren pean, eta oso bereziki 1940 eta 1950eko hamarkadetan (*Txillardegiaren Leturiaren egunkari ezkutua*, 1957koa, kanon-aldaketarako inflexio-puntuia izango zen).

Bada, garai hartako kultura-egoera idorrean kanonikotzat jotzen diren obrak beste egoera batean periferikoak izango ziren horietakoak ditugu. Alde batetik, Jon Etxaideren *Alos-torrea* (1950) eta *Joanak joan* (1954) eredu zaharkitua darabilten eleberri historiko-biografikoak ditugu; bestetik, Jose Antonio Loidireن *Amabost egun Urgain'en* (1955), euskal lehen polizia-eleberitzat jotakoa (berriz ere aitzindarien garrantzia euskal literaturan); denborak aurrera egin ahala, ordea, haur eta gazte literaturaren errepetorio periferikora pasatu zen.

Aipatutako obra «kanonizatu» horien ondoan, Itxaropena argitaletxeko «Kulixka sorta» arrakastatsuak betetzen zuen errepertorio periferikoen zergina.

Horrelako beste kasu bat, XX. mende amaierakoa, Bernardo Atxagaren *Behin euskaldun baten memoriak* (1991) obrarena da. Gazteentzako eleberri gisa argitaratua izan zen arren, lan kanonikotzat hartu ohi da, Atxagaren obra (ia) guztiarekin batera. Aldekoak, esaterako, arreta kritiko zabala eskaintzen dio obra horri bere *Historia...-n* (Aldekoa, 2004: 259-260), eta Marijo Olaziregik beste hainbeste egiten du Patri Urkizuk zuzendutako lanean (Urquizu, 2000: 553-554) eta beste lan batzuetan ere bai. Oraingoan, haur eta gazte literatura bezalako genero periferiko batean ere salbuespen-txoak egiten dira, dudarik gabe obraren berezko balioagatik, baina baita ere egileari eskaini ohi zaion espazio kritiko bereziagatik (nire ustez, haur eta gazte literaturako beste obra batzuek ere mereziko lukete euskal literaturaren historietan agertzea, baina ez da hala gertatzen).

#### 4. Ondorioak

Laburbilduz, lan honen bidez erakutsi nahi izan dut euskal literatura-sistemaren berezkotasunak direla medio haren historiografia batzuetan kanon klasikoaren eredutik eredu sistemikora pasatzen dela, horretarako irizpideak askotan gehiegi argitu gabe.

Beste tokiren batean esan dudan bezala (López Gaseni, 2002: 10-13), tradizio handiagoko beste literaturen historietan ez bezala, euskal literaturaren historietan zenbaitetan entziklopedia gisako zerbaitek antzeman daitezke, bi zentzutan; alde batetik, literatura terminoa zentzu zabalean harutta, euskal testu guztien berri emateko joera; beste aldetik, literatura-testuak direnean ere, gero eta balioespen kritiko gehiago egiten diren arren, argitaratutako guzti-guztia jasotzeko joera. Akaso testuak jaso eta biltzeko lan eskerga egin zuten historia-egile haietako batzuen interes nagusia lingüistikoa zelako.

Nik behintzat faltan botatzen ditut adibide gisa hona ekarri ditudanen antzeko azalpen sistemikoak, erakusteko nola eta zergatik zenbaitetan

ohikoak ez diren zenbait testuk erdigurenko posizioak erdietsi dituzten, hizkera literarioak sortzen edo hobetzen lagundu duten, erreperitorio eta eredu berriak ekarri eta zaharkituta zeudenak berritu dituzten.

Izan ere, sistemen dinamikotasunaren eraginez, literatura itzulia, haur eta gazte literatura eta «generokotzat» jotako beste erreperitorio batzuek, bazterrekoak izanda ere, mota bateko edo besteko eragina izaten dute beti erdignea osatzen duten erreperitorioen gainean, eta, horrenbestez, euskal literaturaren historiografietan aintzat hartuak izan beharko liratekeelakoan nago.

---

\* Lan hau GIC 10/100 eta TIT 495/10 ikerketa taldearen proiektuaren zatia da, UPV/EHUk eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundua.

## Bibliografia

- AA.AA., 1999, *Teoría de los Polisistemas*, Madrid: Arco/Libros.
- ALDEKOA, Iñaki, 2004, *Historia de la literatura vasca*, Donostia: Erein.
- EVEN-ZOHAR, Itamar, 1990, «Polysystem Studies», *Poetics Today*, 11, 1.
- LÓPEZ GASENI, Jose Manuel, 2002, *Historia de la literatura vasca*, Madrid: Acento.
- MICHELENA, Luis, 1988, *Historia de la literatura vasca*, Donostia: Erein (2. ed.).
- SHAVIT, Zohar, 1986, *Poetics of Children's Literature*. Georgia: University Press of Georgia.
- TORREALDAI, Joan Mari, 1997, *Euskal kultura gaur. Liburuaren mundua*. Lizarra: Jakin.
- TOURY, Gideon, 1980, *In Search of a Theory of Translation*. The Porter Institute of Poetics and Semiotics. Tel Aviv: Tel Aviv University.
- , 2004, *Los estudios descriptivos de traducción y más allá. Metodología de la investigación en estudios de traducción*. Madrid: Cátedra.
- URQUIZU, Patricio, dir., 2000, *Historia de la literatura vasca*, Madrid: UNED.
- VILLASANTE, Fr. Luis, 1979, *Historia de la literatura vasca*, Burgos: Ed. Aránzazu (2. ed.).

# Istorioen gizatasuna euskal literaturan: adibide bat

BARANDIARAN, Asier  
Nafarroako Unibertsitateko Irakaslea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Istorioek geure nortasuna moldatzen dute modu batez edo bestez eta literatura lanek balio batzuk transmititzen dizkigute, nahi eta nahi ez. Langintza horretan badago, kritika korronte berri baten arabera, erantzukizun etiko bat. Esate baterako, gatazka bezalako gaien aurrean, postmodernoa izan edo ez izan, jarrera etiko bat bilatzea eskatzerik bada. Lan honetan euskal gatazka Nafarroako euskal narraziogintzan nola izan den jorratua aztertzen saiatu naiz egile bakoitzaren lanetan izaten diren estrategia eta baliabideei erreparatuz. Idazle nafarra izateak ondorio batzuk dakartza jokabide narratibo batzuetan eta haiek esplizitu egitea bilatzen du azterketa honek.

**Hitz-gakoak:** euskal gatazka, urrutiramendu, etika, erdigune, periferia, iraultza.

Las historias moldean nuestra personalidad de una manera o de otra. De igual manera los trabajos literarios nos transmiten unos valores. Según una corriente de crítica, en esa labor habría una responsabilidad ética. Por ejemplo, en temas como el conflicto, sea postmoderno ó no, sería de recibo exigir una actitud ética. En este trabajo me he esforzado en estudiar como ha sido tratado el conflicto vasco por los autores navarros de narrativa en euskera. Para ello he investigado las diferentes estrategias que han utilizado los diferentes autores. El ser navarro trae algunas consecuencias en algunas actitudes narrativas, y hacerlas estas explícitas es el objetivo de este trabajo.

**Palabras clave:** conflicto vasco, alejamiento, ética, centro, periferia, revolución.

Les histoires modèlent notre personnalité d'une façon ou d'une autre. De la même façon les travaux littéraires nous transmettent certaines valeurs. Selon un courant de la critique littéraire, il y aurait dans ce travail une responsabilité éthique. Par exemple, dans des domaines comme le conflit, qu'il soit postmoderne ou pas, il serait légitime d'exiger une attitude éthique. Dans ce travail je me suis attaché à étudier comment a été traité le conflit basque par les auteurs navarrais écrivant en basque. J'ai pour cela fait des recherches sur les diverses stratégies utilisées par les différents auteurs. Le fait d'être navarrais entraîne certaines conséquences dans la façon de raconter et l'objectif de ce travail est de les rendre explicites.

**Mots-clés:** conflit basque, éloignement, éthique, centre, périphérie, révolution.

Stories shape our personality in one way or another, and whether we like it or not, works of literature do transmit values to us. According to one current of criticism, this task entails an ethical responsibility. For instance, when dealing with a subject like conflict, whether post-modern or not, it would be acceptable to seek an ethical attitude. In this piece of work, the author has endeavoured to examine how the Basque conflict has been dealt with in Basque-language narrative writing of Navarre by looking at the strategies and resources present in the works of each author. Being a Navarrese writer has certain consequences with respect to certain approaches to narrative, and this analysis seeks to make them explicit.

**Keywords:** basque conflict, distancing, ethics, centre, periphery, revolution.

Ezaguna da gizakiak beharrezko duela ereduak ezagutzea, mirestea edota jarraitzea. Bizitza betea, aberasgarria eta zentzuzkoa bizi dutenen eredu erakargarri zaigu. Oso gizakoia da joera hori. Izan ere, gizakiok espazioan eta denboran bizi gara, eta etengabe ari gara gure biografia eguneratzen, jorratzen eta aurrera eramatzen. Gutako bakoitzak duen biografia da pertsona gisa errerealitzeko modua. Eta norbaiten edo norbaitzuen biografiaren berri emateko modua narrazioa izaten da, derrigorrez<sup>1</sup>. Gizakiaren bizitza oraindik burutu gabeko projektua denez, gizakioi oso erakargarria egiten zaigu besteen biografiak, besteen istorioak (benetakoak zein fikziozkoak) ezagutzea, haien jokamoldeetatik ikasteko edota haiekin eskamentua jasotzeko (Yepes, 1993, 86-88).

Balio narratiboaren eragina uste baino handiagoa da kasu askotan eta askorengan, eta gure baloreek eredutzat hartzen ditugun istorioetan dute beren sustraia<sup>2</sup>. Etikak testu filosofikoak sortzen ditu bere jardueran. Bainan literaturaren bidez ere balore etikoak ailegatzen zaizkigu eta etikaz hausnartzen dugu gizakiok<sup>3</sup>. Narratzaileek, istoriogileek, beraz, aukera ederra dute (baldin eta irakurlerik badute) pertsonei eragiteko.

<sup>1</sup> Aspaldidanik hitz egiten da giza existentziaren egitura narratiboari buruz: «La vida del hombre se separa y recibe sentido en forma de historias, de relatos con los que la vida se expresa al tiempo que se hace aprehensible en un preciso sentido: como mía y como humana. Vivimos para contarla porque contamos historias para poder vivirnos», Marín Pedreño, 1997, 30.

<sup>2</sup> Balioak islatzen dira etengabe istorioetan: «[...] los valores literarios y estéticos influyen en distinto grado sobre la sensibilidad y sobre la percepción de lo real. No son tan «neutrales» como pretenden algunos creadores y críticos de arte», López de la Vieja, 2003, 29. Kritika anglosaxoian ere duela hogeit bat urtetik honantz kontzientzia handiagoa dago literaturaren balio etikoaz: «[...] literature in general and narrative in particular, through their attention to the concrete particularities of human situations and their capacity to engage our emotions, provide an especially rich arena for the exploration of ethical issues», Phelan, 2005, 21. Errealitatearen ulermenerako beharrezkoza zaizkio gizakiari istorioak: «El hombre es el animal que le encuentra sentido al mundo con sus manos y con sus historias, pero ese encontrar no es un mero hallar, es un hallazgo mediado por la invención. [...] Las palabras y las historias compuestas con ellas también le aprenden al mundo sus secretos» Marín Pedreño, 1997, 21-22.

<sup>3</sup> «Long before this rise of systematic philosophical thought, however, people have been making up stories in order to convey what they think about how we ought to live. Inevitably, in telling stories, and in writing novels, plays, short stories, and poems, the authors and narrators raise moral questions and suggest possible ways of answering them. Thus ethics comes squarely within

Jakina, literatura-lanen bidez iritsi egiten zaigu idazlearen mundu-ikuskeria; baita zinema, irratia edo telebistaren bidez ere, noski; baina arlo horiek jorratzea ez dagokigu orain. Idazleak asmatutako narrazioa bera mundua ikusteko modu bat da eta horrekin batera pertsonaien «begietatik» mundua ikusteko modu bat eskaintzen zaigu.

Euskaraz egin den literaturak ere horren berri eman digu; alegia, euskal idazleen mundu-ikuspenaren berri. Eta munduaren parte da, zalantzarik gabe, euskal mundutxoa bera, bere gatazka eta bere gazi-geza guziekin. Geza ei da daukagun arazo bat: ETA. Askoren ustez, «Euskal politikak azken mende erdian izan duen gertakari nagusia», oso-oso geurea, «euskal gizarte osoarena»<sup>4</sup>. Erakunde armatu edo terrorista horrek ez du berenganatzenten gatazkaren eremu osoa, baina giltzarria ei da eta gatazkaren eragile bat begitantzen zaigu. Euskal gatazka zer den antzemateko ere aurre-eztabaidea bat beharko genuke. Kontua da euskal kulturan giltzarria den elementu horren inguruan literatura-lanak ekoitzi direla azken hamarkadetan. Horiei ekin nahi diet nire azterketatxoan. Baino euskaraz argitaratu diren guziei ez diet erreparatuko: Nafarroako egileek argitaratutakoak soilik hartuko ditut kontuan, lan honen hedapen mugatuak behartuta<sup>5</sup>. Betiere, historiografiari egin diezaiokegun ekarpenea izanen dut kontuan.

Kontu honi dagokionez, gogoratu behar da Euskal Herri osoko egileen lanak –egile nagusien zein ezagunenen zein entzutetsuenen lanak– aztertuak izan direla dagoeneko beste lantxoetan<sup>6</sup>.

Nafarroako egileen lanak kontuan hartzeak bi arrazoi nagusi ditu:

- a) Euskal Herriko periferian dagoen Nafarroako egileei arreta berezia eskaintza, arreta «zentralista» horren ikuspegia osatzeko.

the field of literature, as well as within the field of philosophy. Each approach to ethics has its own strengths and weaknesses», Singer, 2005, x.

<sup>4</sup> Zulaika, 2006, 105, 116.

<sup>5</sup> Ibon Egañak eta Edu Zelaietak egin eta koordinatutako *Maldetan sagarrak* (2006) lanak luze eta zabal jorratzen du gai hau. Hainbat idazleren ekarpeneak ere biltzen dira bertan eta gaiari hainbat ikuspegitatik heltzen diote.

<sup>6</sup> Arestian aipatutako *Maldetan sagarrak* dugu adibide bat.

- b) Egile nafarren ekarpene bereziak eta oparoak alor honetan hobeto baloratzea, «erdigunearen» nagusitasunak itzala egiten baitie hainbat azterketa eta testu kritikotan.

Kontu giltzarri hau literaturan nola izan den jorratua ikustea eta zer nolako eboluzioa (faseak, pausoak, joera nagusiak) izan den antzematea euskal literaturaren historiografiarako ekarpene interesgarria izan daiteke. Literatura baloreen hezitzaile edo erakusle den neurrian, ezagutu eginen dugu zer nolako eraginak izan ditugun euskaraz irakurri dugunok kontu honi gagozkiolarik: hauxe da gure adibidea.

Jakina, eragin horri galga jartzen dio norberaren jarrera kritikoak (irakurtzen duenarekiko). Alegia, gure irakurketek ez gaituzte determinatzen: norberaren askatasuna eta jarrera kritikoa dira kanpo eraginekiko ezkutua, babes... Baino ezkutu edo oskola hori ez daramagu beti (eta guztiok) aldean<sup>7</sup>. Horregatik deritzotz bereziki premiazko kontu honen inguruuan arreta eskaintzeari.

Bestalde, agian garaia da kritika mota honen ikuspegiari ere eusteko, euskal literatura aztertzen ari garelarik. Mundu anglosaxoian «Ethical turn» deitu izan zaio kritika mota honi, postmodernismoaren ostean berriro ere modan edo dagoena (Davis, Womack, 2001). Kritika dekonstruktiboak, bere ekarpeneak dituen arren, bazterrean utzi zuen kritika etikoa. Ikuspegi etikoa kategoria hutsa zen, ez balio bat (Newton, 1995, 37, 51). Gaur egungo kritika-korronte berrieik, aldiz, hainbat ikuspegi partekatzen dituzte, tartean kritikaren arlo etikoa. Egileek beren balioak, beren onarpenak eta ikuspegiak helarazten dizkigute literatura lanak eta narrazioak direla bide (Schwarz, 2001, 4) eta hori guztia da, hain zuzen, sarritan irakurleoi erakargarri egiten zaiguna edota irakurtzera bultzatzen gaituena.

---

<sup>7</sup> Hala da: gaur egungo gizartea, akonfesionala sarri askotan, badirudi askatasun handiagoa dagoela norberaren norabideak eta jarrerak aukeratzeko, ez baitago «moral ofizialik» menperatzen gaituenik: «Yet this does not necessarily mean that people freely choose their identity independently of the subtle coercion of culture. Without making any explicit choice, many people accept the values of a subculture and do not even ask how may be [...] Instead, they accept the values fo the group to which they belong, or aspire to belong», Singer, 2005, 5-6.

Narraziogintzari eskainiko diogu arreta lan honetan, gizatasunarekin harrremana duen neurrian. Eta gizatasuna diogunean, etika esan nahi dugu, etika baita gizakiaren askatasuna jokoan jartzen duena, gizatasunean aurreratzeko betiere, gizaki hobeak izateko<sup>8</sup>. Esan gabe doa etika kontuan hartzen dugula literaturaren ikuspegি kritiko bat eskaintzen digulako, ez inolako zentsurarak edo destainarik egiteko<sup>9</sup>.

### **Gatazkari begiratzeko moduak gure historia hurbilean: zinema eta narraziogintza**

Nafarroaren eremua hartzen dut corpustzat lan honetan. Euskal Herriaren «erdigunean» baina, kontu honi heltzen lehenago hasiak dira batzuen batzuk. Esaterako, gai hau bete-betean agertzen eleberririk goiztiarrena Ramon Saizarbitoriaaren eleberri bat dugu: *100 metro* (1976)<sup>10</sup>.

Oro har, euskal literaturak berandu laga dio esparrua gai honi. Zinemak, garai beretsuan gaia lantzen hasi arren, askoz modu sakon eta eskuzabala-

<sup>8</sup> «La ética es el juego de la libertad personal con la naturaleza y esencia humanas y a través de ellas con la totalidad de lo real y de lo irreal. De ahí que negar la libertad conlleve negar implícitamente la ética. A su vez, desconocer la libertad personal conlleva no dotar de sentido suficiente a las acciones humanas. En la apertura que posibilita la libertad personal la naturaleza del hombre mejora o empeora [...] Para no perderse (a uno mismo): crecer en *humanidad*; en esto consiste precisamente la *ética*», Sellés, 2006, 256-257.

<sup>9</sup> «Pero lo moral no es una forma de censura, es más bien una forma de crítica. En la mirada crítica y en el compromiso con los agentes se encuentran –cuando así lo pretenden– la reflexión moral y la creación literaria y artística. Por eso mismo, y bajo determinadas condiciones, es posible hablar de un enfoque complementario de las disciplinas», López de la Vieja, 2003, 25. Onartu behar da, halere, ikuspegí etikoak zalentzatan jarria izan dela behin baino gehiagotan. Dekonstruktzioa izan da da, besteak beste, ikuspegí horri ez ikusiarena egin diona: «The tete-à-tête seems unlikely at first glance: ethics apparently imposes a responsibility to the world and the word, whereas deconstruction –especially the brand perfected by Paul de Man– seems to abjure such responsibility», Zachary, 1995, 37.

<sup>10</sup> Eleberri hori aspaldi izan da aztertua. Jon Kortazarrena izan zen lan goiztiarrenetako bat (1980, 142, 151). Hogeitaka urte geroago, Jon Kortazarrek berak beste kapitulu bat idatzi zuen eleberri hori zinemara nola eraman zuten aztertuz (2009, 29-40).

goan oratu dio sujetari. Hona zenbait adibide: *Estado de Escepción* (1976), *Comando Txikia* (1977), *Operación ogro* (1979) eta *Proceso de Burgos* (1979).

Jean-Claude Seguin-ek duela gutxi datazio bat proposatu du euskal zinemarendako:

1. Lehen aroa. 1896-1968. Aro historikoa, *Ama Lur* pelikula agertu arte.
2. Testigantza eta arreta. 1970-1975. Frankismoaren azken urteetako ikuspegia.
3. Gizabanakoa eta taldea. 1976-1981.
4. Gizarteratua eta bortizkeria bikoitza. Sozialismoaren aroa.
5. Gaitzestearen indarra. 1996-2004<sup>11</sup>.

Nafarroako euskal literaturak «erdigunekoak» baino beranduago jorratu zuen gai hau. Ekoizpenari dagokionez, zinema baino askoz oparotasun gu-txiagoa dauka, zalantzak gabe, nolabait ulergarriak diren arrazoiengatik. Bainan, beranduago heldu arren ere, azkenaldion ekarpenean aurrerakoia eta mamitsuak egin dizkio euskal literaturari –zenbait zinemagile nafarrekin ere gertatu den bezala<sup>12</sup>–.

70eko hamarkadan jada zinemak hartua zuen protagonismo handia gizartean. Komunikabideek ere aurrerapauso handia eman zuten Estatu Espainolean, trantsizio politikoaren aitzindari eta askatasunaren xerkalari. Horregatik badago galdetzea gizartearren historia eta euskal literaturaren historia zenbateraino dauden lotuta. Agian lan honek emango digu hori galdetzen hasteko arrasto baliagaririk.

---

<sup>11</sup> Seguin, 2007, 421-436. Jon Kortazarrek (2009, 38) ere, bere lan batean aipatzen du eta bere euskal itzulpenaz baliatu naiz haren aipamena egiteko.

<sup>12</sup> Hor dugu, adibidez, Helena Taberna zinema-zuzendari nafarraren ekarpenea, batez ere Yoyes (2000) filmarekin. Nafarroako euskal literaturan adibide bat emate aldera (askoren artean), *Bizia lo eta Antzararen bidea* narrazio-liburuak ditugu, Euskadi Literatura Saria irabazitakoak biak.

Edozein kasutan, eta argi gera dadin, hona hemen kontuan hartuko diren lanak:

<b>Urtea</b>	<b>Izenburua</b>	<b>Egilea</b>
1985	<i>110. street-eko geltokia</i>	Iñaki Zabaleta
1991	<i>Ur uherrak</i>	Aingeru Epaltza
1996	<i>Arian ari</i>	Patxi Zabaleta
1997	<i>Joan zaretenean</i>	Jokin Muñoz
2003	<i>Bizia lo</i>	Jokin Muñoz
2004	<i>Ezinezko maletak</i>	Juanjo Olasagarre
2005	<i>Lasto-sua</i>	Aingeru Epaltza
2007	<i>Antzararen bidea</i>	Jokin Muñoz
2008	<i>«T». Tragediaren poza</i>	Juanjo Olasagarre
(Gure gaiari zeharkako begirada botatzen dioten eleberriak)		
2001	<i>Euskal karma</i>	Jon Alonso
2008	<i>Mendeko borroka</i>	Fertxu Izquierdo

Bistan denez, egile nafarrak aukeratu ditut, Nafarroako euskal literatura hartuko baitut adibidetzat. Goiko zerrendan urtearen arabera daude ordenatua lanak. Hemendik aurrerako epigrafeak, berriz, egileen arabera daude banatuta, egilearen estiloak gehiago markatzan baitu aztertu nahi duguna (garaiak edo urteak baino). Esan gabe doa olerkigintza edota entsegugintza azterketa honetatik kanpora gelditu direla, fikzioa beste era batean agertzen delako beraietan eta aparteko tratamendua merezi dutelako.

### **Herriaren tragediatik gizakiaren tragediara**

100 metro kaleratu zenetik 9 urtera karrikaratu zuen eleberri bat egile nafar batek «gure gaia» nolabait ukitzen zuena. Iñaki Zabaleta Urkiola (Leitzta, 1952) izan zen idazle hori eta bere eleberriak *110. street-eko geltokia* (1985) zuen izenburua. Bere eleberrian euskal gatazkan murgilduta aritutako pertsonaia bat da protagonista. Beraz, abiapuntu kronologikoa 1985

urtea izan zela esaten ahal dugu. Denbora tarte laburra da kontuan hartuko duguna, baina nahiko esanguratsua.

Zinemak eskaintzen digun testuingurua argigarria da. Izan ziren, bai, zenbait film ETAKideen izaera heroikoa iradokitzen zutenak. Baino laster, beste aurrerapauso bat eskaintzen hasi ziren beste film batzuk: gatazkaren zurrenbiiloan dagoen aktibistaren tragedia existentziala. Horixe antzematen da *La muerte de Mikel* (1983) filmean. Estreinatu zen urte berean Iñaki Zabaleta Ameriketako Estatu Batuetan ari zen bere eleberria idazten. 1985ean kaleratu zuen eleberri hura eta salmentetan arrakasta handia lortu zuen. Joseba Telleria (pertsonaia nagusia) Iraultzaren hondakin bat da, naufrago bat: Euskal Herritik urrutti, deserrotuta, baztertutako zonalde batetan bere bizimodua ahal duen moduan aurrera atera nahian. Eta bakarrik. Bere biziaren «eskaintzak» bazterketa izan du sari: bai, Ameriketara ihesi joatean paperik gabeko migratzale bilakatu da, eta hori da bere egoeraren kausa hurbila. Baino, ihesi dabil ETAKidea izan zelako, poliziak bilatzen duelako. Euskal nortasuna (edo nortasun jakin bat, agian) defendatzeko matxinatu zen inoiz, eta orain<sup>13</sup>, atzerrian, bere euskal nortasun horrek ez dio deusetarako balio. Iraultzaren alde egindako lanak ez zaizkio erabilgarrri: beste era bateko bazterketa bizi direnekin batera bizi behar du orain. Hemen frogatzen da eleberrien alderdi etiko bat, Henry Edmondsonek (2000, 6) gogorarazten diguna: alegia, literatura lanek sarritan erakusten digutela «ondo egindakoek» ez dutela beti beren saria jasotzen eta, aldiz, gaiztakeriak sarituak izan ohi direla maiz. Protagonistari erredentzioa poesia eta maitasunaren bitartez etorriko zaiola ematen du, baina badirudi patuak ez diola barkatu nahi aurreko bizimoduan izandako jarduera: bote-re izugarriari (diktadurari) aurre egin eta errebolta egin nahi izatea. Prometeori gertatu zitzzion bezala, zigorra etorriko zaio gainera halabeharrez. Kontakizunean ez dago, inolaz ere, haren aurreko bizitzaren juzgu etikorik: ez baitakigu zertan aritu zen talde armatuaren barruan (atentaturik burutu ote zuen, ekintza odoltsuetan lagundi ote zuen...). Istorioan sartzen garenerako beraren tragedia existenzialarekin topatzen gara. Baino badirudi iradokitzen zaigula Joseba Telleriaren lehengo jarduerak ez dakarrela gau-

<sup>13</sup> «Orain» dioadanean, istorioaren tempusan sartu garelako irudipena eman nahi dut.

za onik, beraren kontra altxatuko dela goiz edo berandu, mendekua bete nahian.

Narratzaileak gertutasuna du pertsonaia nagusiarekiko eta ematen du traizioa litzatekeela beraren aukera existencialaren erro etikoa aztertzea edota epaitzea. Kontakizunaren hondarrean dentsitate emozionala igotzen da eta zailagoa egiten da egoera horretan arrazoitza, edota juzgu etikoak egiten hastea: pertsonaia nagusiarekin bat egitea edo irakurtzeari uztea besterik ez dago. *La muerte de Mikel* filmean iradokitzten den bezala, hemen ere aditzera ematen da gatazkaren alde bortitzenen zein erraz ahazten dituen bere seme-alabak eta haietako bakoitzaren arazo existencialak. Argi dago oraindik ez dela ailegatu sakoneko arazo ideologikoak aztertzeko garaia. Indarkeriaren ankerkeria eta hori justifikatzeko ideologia absolbituak ateratzen dira honelako istorioetatik, froga faltarengatik edota akaso gertutasunak juzgu orekatuak ematea galarazten duelako. Oraingo, norbanakoaren patuari soilik eskaintzen zaio arreta.

### **«Kontu trixtearen» erlatibizazioa, urrutiramendua eta kontraesanen salaketa**

Aingeru Epaltza (Iruñea, 1960) dugu gatazkaren gaiari heltzen dion beste egile bat. *Ur uherrak* (1991) eleberriak terrorismoaren indarkeria agertzen du –nahiz eta konturik garrantzitsuena ez izan–. Nafarroan lekuturik dago istorioa, Baztan-Bidasoa zonaldeko herrixka zehaztugabe batean, hain zuzen (kontakizunean ez baita izena aipatzen). Gure gizartetxoko pertsonaien galeria daukagu bertan. Tartean pertsonaia exotikorik badira: adibidez, Billie pertsonaia beltza, emakumezkoa, blues abeslaria, euskaldun zaharra (nahiz eta AEBetan jaioa izan), eta Euskalduna den Vietnamgo gudari ohi baten alaba... Arrazoi askorengatik baztertua izateko txartel guztiek biltzen ditu. Edo horrela erakusten zaigu, behintzat, narrazioan. Baino, hau ere bitxia, bada beste pertsonaia marjinaturik: Jazinto bertsolari zaharra erreketeekin ibilitakoa (eta, beraz, abertzetasunaren kontrakoa). «Euskal» istorio batean pertsonaia deserosoa dugu, baina Nafarroako zenbait lekutan oso erreala. Gatazkaren mutur bietan daudenek badute, kurioski, adosta-

suna puntu batean. Biek ala biek bazterzen dituzte bi pertsonaia hauek: Jazinto (erreketeegia euskalduna izateko eta euskaldunegia UPNzalea izateko) eta Billie (liberalegia, batzuentzat; kulturalki iraultzatik aparteegi dabilena, besteentzat).

Errealismo zikinaz mintzatu da egilea bera inoiz, bere eleberriko hainbat egoera aipatzean. Eta halaxe da. Aingeru Epaltzaren eleberrietan, narratzaileak tonu etsitua darabil eta –gatazka politikoen berbaldietan ongi sartzen ez diren— hainbat pertsonaia gatazkatsu eta «deseroso» erakusten dizkigu. Modu horretara, «tasun» guztiak (abertzalesun, espanoltasun, euskaltasun, aurrerakoitasun...) irragari gelditzen dira, beren kontraesanak agerian gelditzen direlako. Esate baterako, nahiz eta euskal giroen muineta kultura- edota ideologia-bazterketak salatu egiten diren, euskaldunek eurek zenbait pertsona baztertu egiten dituzte –tartean Billie eta Jazinto—.

Bada gertaera esanguratsu bat Aingeru Epaltzaren ibilbide literarioan. *Garretatik erauzitakoak* (1989) narrazio bilduman iruindar hau ez zen ausartu «Akabailakoa» izeneko istorioa sartzera. Lagun batek arrazoi etikoak aipatu zizkion ez argitaratzeko: tartean, «borroka armatua modu bidegabean egurtzen» zuelako iritzia jakinarazi zion. Hala da: garai hartan bere irakurleak izango zirenetariko askok ez zuten begi onez ikusiko istorio kritiko hori, eta ez zuen argitaratu<sup>14</sup>. Baina 2005ean argitaratu egin zuen *Lasto-sua* narrazio-bilduman, «Atertzean» izenburuarekin. Elipsi askorekin kontatua dagoen arren, nafarrek izan behar ei duten jokaera esaneko eta subsidiarioa –Euskal Herriko erdigunean «egositako» proiektu iraultzailean betiere— salatu egiten du istorioak. Izan ere, kontakizun futurista horretako frankotiratzaile nafar euskaldun batzuk, iraultza armatu bat egiten saiatu ostean, inguraturik daude. Baskongadetako euskaldunek, gainera, haien kasa utzi dituzte nafarrak, matxinada bertan behera utzita. Horregatik, iraultzaren

---

<sup>14</sup> «80ko hamarkadaren bukaera idatz zitekeen beharbada nafar euskaldunak gure Gobernuak zanpatutik sentitzen ginela (eta oraino ez zen UPN agintean!). Idatz zitekeen, beharbada, txalo gutiago joko baziren ere, Jaurlaritzak eta, oro har, mendebaldeko euskaldunek abandonaturik sentitzen ginela. Alabaina, iradokitza gaita horien guztien kontrako konponbidea borroka armatua baldin bazen horrek desastrea baizik ez zekarrela, bada halakorik iradokitza, 1989an, oso gustu txarreko kontua zen euskal literatura posible egiten duen jendaldean», Epalta, 2006, 55.

aldeko apustua egin eta gero traisionatuta sentitu dira nafar horiek: desengainatuta edo sentitu dira.

Abertzetasun tradizionalak, alde batetik, eta ezkerrekoak, bestetik, egin duten historiaren interpretazioak hankaz gora geratzen dira istorio de seroso hauekin. Horixe bilatzen du Aingeru Epaltzak, agian gizakiaren konplexutasunari zor zaion errespetuarengatik edota agian gizartearren azalpen sinplistei aurre egitearren.

### Hasierako ETA oinarritzeko tripodea

Urte gutxiren buruan eta 90eko hamarkadan hiru eleberri argitaratu zituen Patxi Zabaletak (Leitza, 1947): *Ukoreka* (1994), *Badena dena da* (1995) eta *Arian Ari* (1996). Bada nolabaiteko hari bat garai desberdinan gerta-tutako istoriook lotzen dituena. Eta badago, baita ere, tarte zabala pertsonaiek egindako gogoeta filosofikoendako, zenbait kapitulu edota pasarte ia-ia saiakeratzat hartu ahal izateraino. Istorioon hariaren mutur bat XX. mendearren 20ko hamarkadan hasten da (nahiz eta sustraiak lehenagokoak izan, karlistadetakoak agian, edo zaharragoak), Beñat Mandiz pertsonaia nagusiarekin eta bere borroka existentzialekin: *Ukoreka* eleberriari buruz ari naiz. Bainazkeneko biak dira gure gaira gehiago hurreratzen direnak: *Badena dena da* eta *Arian ari*.

*Badena dena da* eleberria Nafarroan izan ziren Gerra Zibileko gertakizunetan kokatzen da, 1936 urtearen bueltan. Nahiz eta XX. mendeko gerra bati buruz ari garen Patxi Zabaletak ez du aukerarik galtzen XIX. mendeko gerrekin (eta ideologiekin) lotura egiteko. Horretarako Nazario pertsonaiaz baliatzen da, azken karlistadan ibilitakoa. Bainaz, Beñat Mandiz protagonistak jasoko du lehengo istiluen lekukoa, berak deskubrituko baitu gerran zer dagoen jokoan, nortzuk diren jazarriak, nola burutzen den irabazleen indarkeria, nola batzuek erlijioa erabiltzen duten beren helburuak lortu eta fede onekoak engainatzeko edota erakartzeko.

Horren guztiaren kontu garbitze etiko halako bat dela ematen du istorioak. Bainaz, nola ez, gaur egungo (edo XX. mendearren bukaerako) indarker-

riak garai hartan dituela bere sustraiak iradokitzen zaigu, behin eta berri. Hegel eta, batez ere, Marxen triada famatua gogorarazten zaigu: testia, antitesia eta sintesia. Sarraskiak eragiten dituzten indar guztiak izanen omen dituzte beren erantzuna, goiz edo berandu, eta hori Zabaletaren istorioetan iradokitzen da; izan ere hurrengo eleberrian, *Arian ari-n*, jada ETAren hasierako urteetara aldatzen da kontakizuna, aurreko eleberrien giro gatazkatsuak bizirik dirauela.

Azken eleberri hau da hasierako ETAkideen deskripzio idealista, altruista eta ausarta egiten duena. Hain da «jatorra» euren jokaera ezen Nafarroako zenbait kontrabandista euskaldun haien zintzotasunez konturatzenten baitira. Tartean, kontrabandista gazte nafar bat dugu, Xanbil, gazte horiek adoktrinatuta eta, beraietako batez maitemindu eta gero, ETAn ere sartuko dena. Oro har, ikuspegia epikoa nabari da, betiere hasierako aktibista haiek kontuan hartuta.

Arestian aipatutako hiru eleberrien arteko haria sendotzen du beste gerakari batek: Beñat Mandiz, aurreko eleberriko gaztea, *Arian ari-n* ere agertzen dela, jada zaharkitua, abokatu bihurtuta, baina ETAkide haiek lagundu nahian. Honek guztiak determinismo bati buruz hitz egiten digu, non gizakiok historiaren indarren gauzatzailak baino ez baikara, inongo errurik ez ditugunak. Gure herri txiki honetan izan diren ankerkeria orok izanen dute goiz edo berandu beren kontrako erantzun ezinbestekoa (antitesia), azkeneko tesi batera eramango ei gaituena. Harira datoza Aingeru Epaltzaren hitzok:

«Interpretazio horren ikuspegirik muturrekoenari jarraikiz, karlistadetatik hona gure garaia besarkatzen duen lerro zuzena dago, Gerla Zibila zubi dugula. Horren arabera, egungo etakidea 36ko gudariaren ondorengoa da, gudaria Don Carlosen txapelgorriren ondorengoa den gisa berean. Tesi horren bertsiorik berrituenak are mende gehiago eramatzen gaitu gibelat. Horren sostengatzaileek egungo komandoetako ekintzaileen arbaso egiten dituzte 1521ean Noainen eta 1522an Amaiurren borrokatu zirenak»<sup>15</sup>

---

<sup>15</sup> Epaltza, 2006, 57

Izan ere, gure azterketaren corpusetik ilkitzen diren arren, Patxi Zabale-taren zenbait eleberri historikotan ere Nafarroan aurreko mendeetan izandako gertaera gatazkatsuen berri ematen zaigu, gaurko gatazken nolabaiteko metaforatzat (agian gaurko gatazken haziak izan omen litzke) hartzen ahal ditugunak, betiere ikuspegi honen aburuz. Jakina, interpretazio horrek ez du apena lekukik uzten gizakiaren askatasunari (bera historiaren indarren jarraile ezinbestekoa baita), eta beraz ez dago erantzukizunik. Azpimarratzerik dagoen gauza bakarra hauxe da: indar aurrerakoi, iraultzaile eta altruistei laguntzen dietenak izango dira kontrako indarren mendkua edota zigorra jasango dutenak, modu tragikoan betiere. Haien istorioak kontuan hartzea guretzat katartikoa izan daiteke.

Patxi Zabaletaren trilogia hau –arestian aipatutako triadek zentzu osoa hartzen dute perspektiba honetatik–, hasierako ETAko kide haien azalpena egitera eta, neurri batean, justifikatzen dator. Lan handia esku dio honek guztiak egileari, jakina, hainbat kontu filosofiko, etnografiko eta historiko agertu behar izan baitu. Egilearen beraren eboluzio ideologiko-politikoaren kumeak dira, 90ko hamarkadan hobeto ahokatzen direnak agian, gaur egungo bere eboluzio-egoerarekin baino.

## Hausturak erakusten

Euskal erdigunetik urrutitik datorkigu Jokin Muñoz (Castejón, 1963) nafarra bere istorioekin eta idazten hasi zenetik ez du higuerik izan euskal gatazka-ren inguruko narrazioak guri helarazteko. Narrazioen gatazkak erdigunetik urruti kokatzea ere gogoko du... behintzat erdigunetik datorkigun ikuspuntuarekin alderatzeko. *Hausturak* (1995) narrazio-liburuan, halaxe egiten du, 36ko gerraren aitzinean kokatutako bost istorioetan, hainbat haustura klaseri (kontzientziakoa, ohituraakoa, gizarte-taldeen artekoa, ideologikoa...) istorio bi-hurtuz, errealak, oso errealak izan zitezkeen fikziozko pertsonaien bidez.

*Joan zaretenean* (1997) eleberri psikologikoan, ostera, dezente hurbiltzen da gure gaur egungo (azken hamarkadetako) kontu ilunera. Ezker abertzaleko giroan hazi eta hezitakoa den Alvaro protagonista, jada gaztaroko mundutik aldendua eta porrot existentzialean murgildua (bere bikoteak utzi

berri du), bere barne arazoa berbalizatzen hasi da, noiz eta ETAkide bat (gaztetako lagun bat) etxera babes bila datorkionean, poliziariak ihesi dabil eta. Gaztetan bizitakoa, bere inadaptazioa, ustez «koherenteak» izan ziren lagunen bukaera... hori guztia aztertzen du, oso begirada errukior eta, era berean, zorrotzarekin. Bernardo Atxagak (*Gizona bere bakardadean*, 1991) eta Ramon Saizarbitoria (Hamaika pauso, 1995) egin zuten antzera, gatzkara hurbiltzeko modu psikologikoa jorratzen du Jokin Muñozek; hori bai, bere estilo propioarekin. «Zergatik» galderari erantzuterakoan, ostera, arrazoi ideologikorik aurkitu beharrean, ezerezarekin topatzen da sarritan, edota inertzia soilarekin. Eduardo horren adibide bat da. Baino, Muñozen narrazioetan, behintzat, badira gehiago.

*Bizia lo* (2003) kontakizun-bildumarekin ere barne-begirada horri eusten dio eta handiagotu egiten da pertsonaietako aldean dutenaren eta esatera ausartzen direnaren arteko aldea edo leizea. Eta esatera ausartzen ez diren horrek zerikusia du borroka armatuarekin, batez ere «Isiluneak» izenburudun narrazioan. «Xantilli» kontakizunean, berriz, bere seme (intelektualki) atzeratuaz ardura hartzeko adorerik ez duen sindikalista bat dugu; bestalde, Aitor izeneko pertsonaia (sindikalistaren semea eta Gabi gazte atzeratuaren anaia) ETAk hilko du: hau da, bere adineko gazte batzuek hilko dute, negozio zikinetan dabilelakoan. Paradoxak zer pentsatua eragiten dio irakurleari: mugaz bestaldean bizi den Aitor pertsonaiak pegatinak eta kamisetak ekartzen dizkie bai bere anaia, bai bere lagun ohiei... garai hartako «sinbolo» eta «idoloekin» josta daitezen. Eta haietan goraipatzen direnak (ETAkideak) izango dira bizia laster kenduko diotenak. «Azterketa» narrazioan aspaldiko aktibista garaiko loturengatik erlazionatuta dauden pertsonaia batzuk ageri dira beste egoera paradoxiko batean. Baino, hemen ere barneko pentsamenduak dira pertsonaien ezinegona eragiten dietenak, batez ere azterketa zaintzen dagoenari, beste garai batean «Krogmagnon» goitizenez ezagutua.

*Antzararen bidea* (2007) eleberrian ere semea galdu berri duen ama bakarti bat izango da protagonista. Gure gertuko historian sarritan gertatu izan dira horrelakoak eta, beraz, sinesgarria egiten zaigu<sup>16</sup>. Semea aktibista

---

<sup>16</sup> «A veces ponen ante la vista experiencias que han sido olvidadas, formas de vida diferentes, situaciones con una fuerte carga moral o política» López de la Vieja, 2003, 15.

ezkutuko bat zen eta, Lisa amarekin (anaia-arrebarik gabe) bera bakarrik hezia. Lisari urrutikoa irudituko zaio bere semea; izan ere, ez du ondo uler-tzen nola hil duen erretiratutako (eta aguretutako) zinegotzi ohi bat. Ez du ulertzen bere semea hil eta gero antolatu den hileta-omenaldi politikoa... Parafernalia sasi-epiko hori ez da haren benetako drama islatzen duena, ez eta euskal gizartearren drama irudikatzen duena ere. Eleberrian zehar eta Euskal Herriko mutur baterako bidaian, zenbait kontraesan azaleratuko dira, errukirik gabe: pertsonaia nagusienak eta euskal gizartetxoarenak. Eta mutur horrek beste gatazka gordin bat erakutsiko digu: ankerragoa, gordi-nagoa. 36ko Gerra Zibileko gatazka da hori, ezkertiarren aukako jazarpen ahaztua ekarri ei zuena.

Yoyes filmarekin gertatu zen bezala –urte batzuk geroago bada ere–, salaketa argia da Jokin Muñozena. Baino ez da berbaldi edo diskurtso batez baliaturik egindako salaketa. Istorioetan agertzen diren detaile esanguratsuak, pertsonaien bakarrizketak eta istorioen ikuspegি psikologikoa dira salaketa hori agertzeko baliabideak. Irakurleak, gutxieneko sentiberatasuna baldin badu, antzemango du berehala nola egileak aurpegitzen dion indarkeria politikoari eta beren eragileei (datozen lekutik datoza) euren zentzugabekeria. Istorio hauen bidez zaplazteko etikoa ematen digu Jokin Muñozek, benetan zer gertatzen ari den guri helaraziz (aitortu ezineko beldurrak eta guzti).

### Ezinezko bizi-proiektuak

Utopia bat desegiten zaigula jakiterakoan, etsipena nagusitu egiten da eta agian utopia horrekiko herra edota mesfidantzaz pizten dira. Zeharka begiratzen diogu garai batean gure begiak argitzen zituenari.

Egile nafarren zeharkako begirada nagusitu da azken aldi honetan, gero eta modu sendoagoan, euskal gatazka oldartsuari begirada bat botatzerakoan. Gatazka bera iraultzaileen kontra matxinatzen da eta kontu zorrotzak eskatzen dizkie. Pertsonak, iraultzaileak egokitu behar dira Iraultzaren berbaldira, eta ez alderantzik. Horretara egokitzen ez den iraultzailea –nahiz eta Iraultzaren alde sakrifizioak eta bere bizitza eskaini– baztertua izango da. Halaxe begitantzen zaigu gertatu dela Juanjo Olasagarreren *Ezi-*

*nezko maletak-en* (2004). Eleberri honen drama sozialak *La muerte de Mikel* (1986) filmaren planteamendu bat gogorarazten digu. Gizartearen tolerantziarik eza salatzen da, baita ezker abertzalearena. Garai batean jarrera homosexualarekiko onarpenik eza aurpegitzen die istorioak, orduko aktibistei edota militanteei, nahiz eta pertsonaia homosexuala ere (Bazter goitizenez, Carlos izenez) maitasun kontuetan fidela ez izan<sup>17</sup>.

Sasoi bateko militantziak elkarturiko lagun batzuk orain ez dira horren lagunak. Bakoitzak bere bidea jarraitu du eta Londresera ihes egindako kide baten heriotzak (hiletara joan beharra) elkartu egin ditu berriz ere. Fermin da hiruron artean gaztetako iraultza harekiko kritikoena, eta horregatik bere iraganari uko egin dio. Iraultza hura egin nahi zutenek pertsonekiko (baita beren gertuekiko) zuten sentiberatasun eskasa izan zen (eleberrian halaxe kontatua, behintzat) detonante bat apurka-apurka mundu horrekiko loturak mozten joateko. Harakinek –beste kide bat, oraindik ezker abertzaleko militantea– bere bizi-proiektuaren porrota hausnartzen du barne-minez, kanporatzen ez duen arren. Bere semea down-sindromeduna da eta mundua (Euskal Herritik hasita) aldatu nahi izan zuen horrek ezin izan dio arazo horri aurre egin eta bere gaztetako bikotekideari ere traizioa egiten dio isilka eta ezkutuka, hiriko (Iruñeko) amorante batekin elkartuz. Horrelako koherenziarik ezak agertuz desengainuaren gordina dastatzen du irakurleak. Baino zapore mikatz hori leuntzeko ez du, ez istorioak, ez narratzaileak, ez egileak bestelako bizitzaren helburu itxaropentsurik edo gozagaririk. Eleberri honek duen alderdi etiko azpimarragarriena hauxe da: historiak baztertutako aktibista ohiei ahotsa ematen diela, batzuen eta besteentzat berbaldi arranditsuen gainetik edo azpitik –pertsona zehatzengan gauzatuta– zer dagokeen adierazteko.

«T». *Tragediaren poza* (2008) dugu Juanjo Olasagarreren beste eleberri bat duela urte gutxi kaleratutakoa. Iraultza eta borroka armatuarekiko ja-

<sup>17</sup> «La película quería ser una acusación general a la intolerancia de la sociedad vasca y ahí podía estar una de sus lagunas: Uribe sembraba muchas dudas sobre la actuación de las fuerzas policiales, no entraba a valorar el nacionalismo vasco radical (salvo su actitud ante la homosexualidad) y presentaba como culpables de la intolerancia a todos los sectores de la sociedad vasca, salvo el protagonista, que era sólo una víctima, a pesar, por ejemplo, de la actitud de éste con respecto a su mujer», De Pablo, 1996, 96.

rrera muturrekoak dituzten pertsonaiak erakusten dira hemen ia-ia modu lizunean. Andres Barrutia unibertsitateko irakaslea, ETAn ibilitakoa den arren (edo agian horregatik), orain abertzaletasunaren kontrako arietea dugu, eta, tragediaren inguruko teoriaz baliatuta (Nietzsche filosofoak itxuratuta), haren dekonstrukzioari ekin dio. Terese izeneko bere doktore-goko ikasleak, berriz, ez du abertzaletasuna bere ideologian errorturik, bere gurasoek (ETAkide ohiak izan arren, edo agian horregatik) ideologia horretatik «babestu» egin dutelako. Arinkerian bizi edo da, kanpo-itxura atsegina eman nahian eta arropari zein janzkerari garrantzia emanez. Hala eta guztiz ere Andres Barrutiaren inguruan ibiliko da eta, gure mundutxoan sarritan gertatu den moduan, hainbat eragile nahasten dira bere bizitzan. Hasteko bere mutil-laguna ezker abertzaleko militante gaztea da. Bestetik, bere gurasoen antzinako militantzia (eta idealekiko) interesa piztu zaio, bere irakas-leak aurkezten dion ikuspegi tragikoarekikoa pizten zaion neurri bertsuan.

Barrutia pertsonaia bereziaren ahotik ezker abertzalearen berbaldiko «halabeharraren» kritika egiten da, patua gaizki ulertuta dutelakoan. Bainaz ez du patua modu argian ukatzen, eta horretan erakusten da bere kontraesana. Bainaz bere helburua tragediaren fribolitatea da, tragediaren ikuspegi dioni-siakoa. Horregatik, Tereserekin batera, euskal tragedia bat burutu nahi du, bukaera tragikoa eta guzti. Gaiari heltzeko oso modu sortzaile eta originala den arren, ez du ibilbide luzerik ametitzen, helburua bera (alderdi teleolo-gikoa) Nietzscheren ikuspegitik behintzat, ukatzen delako. Ez dago tuneletik ilkitzeko asmorik, eta horregatik ez da tuneleko irteeraren argia bilatzen: tunel barruko putzu lohietan txipli-txaplaka egotea nahiago izaten da... eta datorrela trena.

### Zeharkako begiradak zeharka agertuak

Nafarroan badira beste egile eta beste lan batzuk kontu omnipresente honi heldu diotenak, jakina. Bainaz zeharkako aipamenak direnez, edota bete-betean jorratu ez dutenez, aparteko multzo batean sartzen ahal ditugu.

Multzo honetan agian gehien nabarmentzen dena hauxe da: Jon Alonsoren *Euskal karma* (2001). Neurri batean, euskal gizartearren parodia egiten

da fikziozko (ia-ia zientzia fikziozko) istorio batean. Eta parodia egiten da, nola ez, ETA talde terroristarena: istorioan K.A.T. erakunde armatua aipatzen da (Kanonetik Askatzeko Txatarreroak).

Fertxu Izquierdo (Iruñea, 1975) idazlearen *Mendeko borroka* (2008) eleberrian, berriz, Erroman kokaturiko istorioa kontatzen zaigu. Akzioa (indarkeria barne), intriga eta egoeraren planteamendu korapilatsua dira eleberria erakargarri egiten ahal dutenak. Ustez ez du zerikusirik izango Euskal Herriko borroka edo gatazkarekin, baina Italia zein mundu osoko ezkerreko aktibisten aipamen epikoak –beren lanak begiramenez aipatzen dira– (Che Guevara, Paolo Pasolini, Victor Serge eta enparauen lanak, iraultza egiteko hainbat jardunbide eta «irakaspen» ematen dituztenak) gurean egin nahi izan den iraultza maoista gogorarazten digu.

Bestalde istorio hori 70eko hamarkada trumoitsuan kokatuz gero, berehala etortzen zaigu gogora gurean hamarkada hura nola bizi izan zen, eta Erroman dauden istiluak, talde ideologikoen arteko liskar batzuetan odoltsuak hemengo egoeraren metaforizaziotzat hartzen ahal dira. Harrigarria da, Europako mugimendu ezkertiarrik liluraturik agian, nola justifikatzen den hain erraz talde armatu ezkertiarren zenbait atentatu odoltsu: kontakizun honetan behintzat, atentatuaren biktima izango denetako bat, adibidez, lehenengoz eskuindar faxistatzat aurkezten da eta ondorenean bere heriotza aipatzen da, inolako kezka etikorik gabe, normaltasunez. Honetan, aldentze bat antzematen diogu Fertxu Izquierdori gainontzeko idazle nafar askorekiko: ezkerreko munduaren ikuspegি kritiko (autokritiko?) falta zaiola, alegia; ikuspegি nostalgiko liluratuari, ostera, sendo eusten dio, istorio edo berbaldi poetikoari tonu egokia emate aldera agian.

## Ondorioak

Askotarikoa da euskal idazle nafarrek gatazkari heltzeko modua. Beren narrazioak idatziak izan zireneko garaiek ere zerikusia edo eragina izaten dute istorioetan. Zenbat eta 80ko hamarkadatik gertuago egon (gatazken hamarkadarik odoltsuena) hainbat eta jarrera kritiko eskasagoa izenen dugu borroka armatuarekiko. Salbuespen bakarretakoa (Epaltzaren

«Akabailakoa» istorioa, 1989an argitaratzeko idatzia, gerora «Atertzean» izenburuarekin eta 2005ean karrikaratua) ez zen hamarkada honetan argitaratu.

Hasierako jarrera bat hauxe da: norbanakoaren edo norbanakoen destinaoa arreta-puntu nagusi bilakatzen da. Ez da zalantzan jartzen ETAkoen jarduna, adibidez. Indar polizialen jarduera, osteria, oso leku txarrean geratzen da beti. Jokaera hori 1996ra arte luzatuko da, *Arian ari eleberriarekin*, nahiz eta azken eleberri honetan hasierako ETAkide haien ikuspegia altruisita eta eskuzabala ere eskaintzen zaigun.

Gatazkaren elementu garrantzitsua den borroka armatuari egiten zaion juzgua ez da berbaldiaren bidez azaleratzen. Autoreen arabera, batzuetan hasierako aktibismoari erreparatzen zaio (Patxi Zabaleta), eta testuinguru sozial eta politikoan justifikatzen da hasierako ETAkiden jarduera klandestinoa (laster atentatuak etorriko ziren). Noiz edo noiz, ETAkidea izandako pertsonaiak atzean utzi du bere jarduera armatua narrazioaren denbora hasi denerako (eta ez dago ebazpen etikorik horren inguruan, Iñaki Zabaletaren 110. street-eko geltokian bezala).

Baina kritika ere etorriko da laster. *Ur uherrak* eleberriarekin gatazkaren alderdi «zikin» gehienak (errerealismo zikina) iritsikoa da eta, horrekin batera, gatazkaren mutur bietan daudenek kontraesanak agerian uzten dira. *Joan zaretenean*-en ere kritika horiek istorio eta bakarrizketa psikologiko bihurtzen dira. *Ezinezko maletak*-en utopia gizatasunik gabekoa ekartzen da akordura. *Bizia lo* narrazio liburuan gatazka jasaten dutenen barne mundua ageri zaigu, berbaldi politikoek deskribatzen diguten mundutik oso bestela bizi direnak, munstroaren hatzaparrak pairatu duten arren. Hori areagotu egiten da *Antzararen bidean*-en: kontraesanez beteriko gizarteak eta pertsonak ditugu bertan. «T». *Tragediaren poza-n* berriz, gatazkaren mutur batetik bestera joan den pertsonaia baten ikuspegia erakusten zaigu eta bere berbaldiarekin berarekin kritika egiten dio garai batean sinetsitako Euskal Iraultza delakoari.

Beraz, eta laburbilduta, hauexek izan daitezke jarrera etikoen paradigmak istoriotan aurkitzen ahal ditugunak (euren arteko konbinazio eta metaketa askotarikoa izan daiteke):

- **Urrutiramendua.** Istorioen edota egoeren kokapena fisikoki (geografikoki) euskal erdigunetik urrutti daudelako (Nafarroako Erribera, adibidez edo Iruñeko zenbait zonalde, non euskal kulturarekiko kezka eskasa den). Urrutiramendua bitala ere izan daiteke, gatazkaz gogaituta bizi diren pertsonaia nagusi batzuen eskuistik.
- **Epikarik eza.** *Ur uherrak* bezalako istorioetan gatazkaren indarkeria agertzean bere helburu narrasak eta bere ondorio bortitzak baino ez dira erakusten.
- **Ikuspegi epikoa.** Salbuespena den arren, noiz edo noiz «iraultzailearen aszetika» erakusten da, lilura edo pizte aldera. Mitifikazio halako bat, batez ere Patxi Zabaletaren *Arian ari-n*.
- **Giza-dramaren larria.** Balizko herri baten dramaren gainetik erakusten da. Drama hori indarkeriaren biktimek jasango dute, baina baita indarkeriazko ekintzetan ibili direnek ere.
- **Gaztaroko iraultzaile izateko lilura zimeldua.** Batez ere Epaltzaren *Rock'n'Roll-en* eta Jokin Muñozen *Joan zaretenean-en*. Gogoratzen den lilura hori, baina, ukapen bilakatu da, desengainua.
- **Gaurko gatazkaren metaforak.** Aurreko mendeetan edo Euskal Herritik urrutti kokaturiko istorio gatazkatsuak, gaurko egungo euskal gatazkaren metaforatzat edo alegoriatzat hartzen ahal dira neurri batean. Egilearen arabera, gaurko indarkeriaren sorrera ere badirela iradokitzen da noiz edo noiz. Aztertu ditugun egile hauek horrelakoak idatzi dituzte, baina ez dira lan honen corpora. Euskal Herritik kanpora lekututako eleberri bat, bai kontuan hartu dugu: *Mendeko borroka*, Fertxu Izquierdorena.
- **Parodia.** Kontu honi larritasuna kentzeko eta kritika modu berezi batez egiteko modua da, oso noizbehinka erabilia.
- **Isilik daudenei ahotsa jartza.** Gerra triste honetan protagonismorik izan nahi ez duten baina majo sufritu dutenengana hurreratzen gara horrela. Esaterako, bonba bat manipulatzen hil diren ETAkideen gurasoen mundua. Zer pentsatzen duten. Zer ez duten aitortu nahi. Zertaz damutzen diren... Nola ikusten duten ezker abertzalearen diskurtsoa beren seme-alaba hilekiko. Edota ETArekin gogaitu eta abertzetasuna ere gorrotatzera ailegatu diren aktibista ohien mundua eleberrira ekartzea.

Izanen dira, jakina, parametro gehiago edo hobeto deskribatzen duenik. Baina baliagarriak izan daitezkeelakoan nago; batez ere, ikusteko literaturaren historian jarrera horiek zer-nola erabiliak izan diren eta zer nolako eboluzioa egon den gai honen tratamenduan.

## Bibliografia

- DAVIS, T. F., WOMACK, K. (editoreak), 2001, *Mapping the Ethical Turn. A reader in Ethics, Culture and Literary Theory*, Charlottesville, Virginia: University Press of Virginia.
- DE PABLO, S., 1998, «El terrorismo a través del cine: un análisis de las relaciones entre cine, historia y sociedad en el País Vasco» in *Comunicación y Sociedad*. Facultad de Comunicación, Universidad de Navarra, XI, 2. zbkia., Abendua, 1998, 177-200.
- \_\_\_\_\_, 1996, *Cien años de cine en el País Vasco*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- EDMONDSON, H. T., 2000, *The Moral of the Story. Literature and Public Ethics*. Oxford: Lexington Books.
- EGAÑA, I.; ZELAIETA, E. (Koord.), 2006, *Maldetan sagarrak. Euskal gatazka euskal literaturan*. Bilbao: Udako Euskal Unibertsitatea.
- EPALTZA, A., «Gure kontu triste hori (Gatazka begietan)» in EGAÑA, I.; ZELAIETA, E. (Koord.), 2006, *Maldetan sagarrak. Euskal gatazka euskal literaturan*. Bilbao: Udako Euskal Unibertsitatea, 53-64 orr.
- KORTAZAR, J., 2009, «100 metro. Munduaren bira» in Kortazar, J. (zuz.), 2009, *Egungo euskal nobela eta zinema*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, 29-40 orr..
- LÓPEZ DE LA VIEJA, M<sup>a</sup> T., 2003, *Ética y literatura*. Madrid: Tecnos.
- MARÍN PADREÑO, H., 1997, *De dominio público. Ensayos de teoría social y del hombre*. Iruñea: Eunsa.
- NEWTON, A. Z., 1995, *Narrative Ethics*, Cambridge, Massachusetts: Harvard University Press.

PHELAN, J., 2005, *Living to tell about it. A Rhetoric and Ethics of Character Narration*. New York: Cornell University Press.

SCHWARZ, D. R., «A Humanistic Ethics of Reading» in Davis, T. F., Womack, K. (editoreak), 2001, *Mapping the Ethical Turn. A reader in Ethics, Culture and Literary Theory*, Charlottesville, Virginia: University Press of Virginia, pp. 3-15.

SEGUIN, J., 2007, «ETA y el nacionalismo vasco en el cine» in HERRERA, J.; MARTÍNEZ-CARAZO, C. (ed.), 2007, *Hispanismo y cine*. Madrid: Vervuert Iberoamericana, 424-436 orr..

SELLÉS, J. F., 2006, *Antropología para inconformes. Una antropología abierta al futuro*. Madrid: Rialp.

SINGER, P.; SINGER, R. (ed.), 2005, *The Moral of the Story. An Anthology of Ethics Through Literature*. Malden (Massachusetts): Blackwell Publishing.

YEPES, R., 1993, *Fundamentos de antropología*. Iruñea: Eunsa,.

ZACHARY, A., 1995, *Narrative Ethics*. Cambridge (Massachusetts): Harvard University Press.

ZULAIKA, J., 2006, *ETAREN hautsa*. Irun: Alberdania.



# **Praktika literarioaren esparru sozialak eta XVIII. mendeko euskal literatura penintsularra: *Naissance de l'écrivain?***

BIJUESCA, K. Josu

Deustuko Unibertsitateko irakaslea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Alain Vialaren arabera lehen alor literario frantsesean erabakiorrkak izan ziren praktika literarioaren esparru sozialak edo «institutions de la vie littéraire», alegia akademiak, mezenazgoa, zentsura eta idazle eskubideak. Artikulu honetan erakunde horietatik lehen hirurak XVIII. mendeko Euskal Herri penintsularrean zertan ziren arakatu da, beti ere euskal literaturaren ikuspegitik.

**Hitz-gakoak:** Alor literarioa, XVIII. mendeko euskal literatura peninsularra, akademia, mesenazgoa, zentsura, idazlea.

Segun Alain Viala, en el primer campo literario francés fueron decisivos los ámbitos sociales de la práctica literaria o «*institutions de la vie littéraire*», es decir, academias, mecenazgo, censura y derechos de autor. De todas estas, en este artículo se ha investigado el papel que jugaron las tres primeras en la Euskal Herria peninsular, siempre desde el punto de vista de la literatura vasca.

**Palabras clave:** Campo literario, literatura vasca peninsular del siglo XVIII, academia, mecenazgo, censura, escritor.

Selon Alain Viala, dans le premier champ littéraire français, les espaces sociaux de la pratique littéraire ou «*institutions de la vie littéraire*» furent décisifs : académies, mécénat, censure et droits d'auteur. Nous avons étudié dans cet article le rôle qu'ont joué les trois premiers dans le Pays Basque péninsulaire, du point de vue de la littérature basque.

**Mots-clés :** Champ littéraire, littérature basque péninsulaire du XVIII<sup>ème</sup> siècle, académie, mécénat, censure, écrivain.

According to Alain Viala, a decisive role was played in the field of French literature by the social spheres of literary practice or the «*institutions de la vie littéraire*», in other words, academies, patronage, censorship and copyright. This paper examines the nature of the first three in the Peninsular Basque Country in the 18th century, at all times from the perspective of Basque literature.

**Keywords:** Literary field, 18<sup>th</sup> century Peninsular Basque literature, academy, patronage, censorship, writer.

Jakina da XVIII. mendea aldi giltzarria dela mugaz honako euskal literaturan, literatura idatzian behintzat, emaitza mamitsuak agertzen hasi baitziren orduantxe, lehenago ez bezala, eta haienkin batera idazle sena izan zezaketen lehen idazleak ere.

Akzioaren teoria (*action theory, teoría de la acción*) delakoaren arabera, idazlea gizarte espazioaren alor berezitu batean, literaturaren alorrean hain zuzen ere, jokatzen duen gizarte eragile berezia da. Literaturaren alorra, baina, beste edozein gizarte alor bezala, historian zehar noizbait sorturiko emaitza da gizarte eragileen borroken ondorioz. Jakina denez, akzioaren teoriaren sortzailea Bourdieu soziologoa da. Haren zenbait kontzeptu erabiliko dugu XVIII. mende amaierako euskal literatura penintsularraren ikuspegia osatzeko (Bourdieu 1995 eta Bourdieu 1997). Baino Bourdieu bera baino eredu hurbilagoak izango ditugu haren aplikazioak gure inguruko literatur tradizioetan: Vialarena Frantziaroko; Guniarena eta Gutierrezena Spainiarako.

Alain Vialaren arabera Frantziako lehen alor literarioa XVII. mendean eratu zen, Frantziako literaturaren aro klasikoan hain zuzen ere. Aro horrek alor literarioa gorpuztuko duten ardatzak sortzen ikusiko du: lehenengo eta behin, praktika literarioaren esparru sozialak edo «institutions de la vie littérarire» (akademiak, idazle eskubideak, mezenasgoa, zentsura); eta horienkin batera, literatur hizkuntzaren, formen eta generoen kodifikazioak edo «institutions littéraires».

Ardatz bi horiek aztertuta, Vialaren ondorioa zera da: Frantziako literaturari dagokionez, XVII. mendea alor literario frantsesaren sorrera unea dela –nahiz eta XIX. mendera arte itxaron beharko den alorrik erabateko askatasuna lor zezan (Bourdieu 1995)– eta giro horrexetan «idazlea» gizarte eragile gisa sortu zela. Hortik, hain zuzen ere, bere liburuaren titulua: *Naissance de l'écrivain. Sociologie de la littérature à l'âge classique* (Viala 1985: 9-10). Carlos Gutierrezek ere, Bourdieu eta Vialaren ereduak ikuspegi metodologiko gisa erabilita, 1600 urte inguruko Madrilen jarri du Spainiako lehen alor literarioaren sorrera (Gutierrez 2005: 50). Aipaturiko lanok bidelagun izango ditugu XVIII. mendeko euskal literaturaren egoeraz hausnartzeko. Horretarako Vialak aipaturiko bi ardatzetatik lehenari erre-

paratuko diogu bereziki eta ardatz horrek beregatzen dituen erakundeetatik honako hiruroi: akademia jardunari, mezenasgoari eta zentsurari, gure helburuetarako ikergune emankorrenak izango direlakoan.

## 1. Euskal akademien gabezia

Akademien sorrera eta hedapena ezinbestekotzat jotzen da alor literarioaren garapenean, horrexek eman baitzion alor literarioari alor intelektual orokorragotik bereizteko aukera. Praktika akademikoak zenbait abantaila ekarri zien idazlei: lehenengo eta behin, idazleak eta batez ere idazle gazteak edota berriki hirietara eterriak gizarteratzeko esparruak ziren; bigarrenik, informazio eta formazio guneak ziren berriketa akademikoek egunera-tuta izateko aukera ematen zutenez gero; hirugarrenik, idazleei sostengua eskaintzeko tokia ziren, bai jarduera literarioan (aholku, iritzi eta epaiak trukatuz, elkarren lana laudatuz edo eztabaidetan murgilduz), bai eta sozialen ere, akademietatik asko handikiren batek hegapeituak izanik, eskupeko, babes edota ogibide onuragarritarako aukerak ere ugaritu egiten baitziren; laugarrenik, akademia batean onartua izanak aldez aurretik kideen onespina erakusten zuen, haien pareko izatea beraz, eta horrekin batera jarduera literarioaren eremu berezituan konsagrazioa lortzea, horrela lehenagotik lorturiko ospea bermatuz edo etorkizun hurbilean ospe hori lortzeko aukera gehiago sortuz; azkenik, akademiek ofizializazioa lortu zutenez gero, idazlearen pertsonaia sozialak ere legitimazioa lortu zuen hizkuntzaren eta estetikaren arautzaile gisa, bizitza literarioaren onuragarri estatuak berariaz onetsitako nazio- (edo eskualde-) erakunde prestigiosu bateko kide zen heinean (Viala 1985: 42-43).

Frantziako akademien aldean, Spainiakoek ez zuten, antza denez, haien estatu kutsua:

Creo, sin embargo, que este aliento estatal sólo se produjo claramente en Francia con la creación de la Académie Française en 1635. Las academias españolas tuvieron, más que otra cosa, un impulso de emulación cortesana en un contexto en el que la nobleza titulada también medía su prestigio por su cercanía a la práctica literaria o

por su mecenazgo (activo o pasivo) de esta. No existió, que yo sepa, ninguna academia auspiciada por Rey o Valido. (Gutierrez 2005: 45)

Hala ere, Gutierrezek berak erakutsi du monarkiaren gobernu zereginak bere gain hartzen zituzten handiki horiek, Lermak eta Olivaresek esate baterako, zenbateraino bilatzen zuten akademia eta idazleen lankidetza gortekideen entretenimendurako edo propagandarako eta iritzi publiko jakin bat hedatzeko. XVII. mendean boterearen alorra oso hurbil zegoen, hortaz, akademiak berariazko erakundetzat zituen alor literariotik eta XVIII.ean sartuta, Frantziakoaren eredua gogoan zela, handik zetorren Borboi dinastiak ere Hizkuntzaren Erret Akademia sortu zuen, gogoan hartzen zuen hizkuntza bakarra gaztelania zela. Ez nolanahi, akademiak gobernuaren tresna egoki suertatu ziren kultura eta hizkuntza bateratzeko:

C'est au siècle suivant [XVIII.a] que les académies auront leur pleine expansion à travers le pays et y diffuseront les «Lumières»; mais dès temps de leur essor, «la province se cherche au miroir de Paris». Un mouvement d'unification culturelle et linguistique s'est développé ainsi. La monarchie centralisatrice a su le mettre à profit pour renforcer l'unification politique: les académies officielles dessinent nettement l'axe rhodanien et s'étendent dans les pays de langue d'oc; dans ces provinces traditionnellement turbulentes, le soutien gouvernemental aux sociétés lettrées était destiné à renforcer la diffusion de la langue française et, par là, la cohésion nationale. (Viala 1985: 23, eta ikus ere 46-47)

Max Weber-en estatuari buruzko teoria berridatziz, Bourdieuuk uste du estatuaren asmoa ez dela soilik biolentzia fisikoaren monopolia eskuratzea, baizik eta biolentzia sinbolikoarena ere bai. Hizkuntza eta literatura ongi sinboliko gisa identifikaturik, kapital horien monopolia ere lortzen ahaleginduko da:

La unificación cultural y lingüística va unida a la imposición de la lengua y de la cultura dominantes como legítimas, y a la relegación de todas las demás a la indignidad (dialecto). El acceso de una lengua o de una cultura particular a la universalidad tiene el efecto de remitir a las otras a la particularidad; además, debido a que la universalización de las exigencias así instituidas no va pareja con el acceso a los

medios de cumplirlas, favorece a la vez la monopolización de lo universal por unos pocos y la desposesión de todos los demás así mutilados, en cierto modo, en su humanidad. (Bourdieu 1997: 107)

Jakina denez, erregimen zaharraren garaietan monarkia hispanikoaren inguruneko ekoizle kulturalek behin eta berriro euskara hizkuntza barbaroa eta literaturarako gaitasunik gabekoa dela aldarrikatuko dute.

XIX. mendearen atarirako agerikoa zen inguruko hizkuntzei atxikitako literatur tradizioek akademien bitartez lorturiko onura, eta haien parean euskarak zuen desabantaila, euskaldunak eurak jotzen zirela gabezia horren errudun. Hori uste zuen Juan Antonio Mogelek behintzat Jose de Vargas-i 1802an Markinatik bidalitako gutunaren arabera:

En medio de la pasión con que se censura al vascongado, no hay en general gente más desidiosa en cultivar y perfeccionar su idioma, y así es que somos nosotros sus mayores antagonistas, exceptuados algunos pocos sujetos. Nuestra sociedad vascongada ha dormido en este ramo, y así no ha tenido el vascuence una academia ni buenos escritores que le hayan dado cultura particular. Habita como desconocido en los bosques y casas solitarias, y es más que cierto que nuestros rústicos montesinos le saben y hablan maravillosamente y sin las alteraciones que se notan en la gente que debía ser su depósito. Y se puede decir aquí: *Rusticus abnormis, sapiens crassaque Minerva*<sup>1</sup>. (Mogel 1854: 704)

Horazioren aipua *Peru Abarka* luzaro argitaragabearen atarian ageri dena bera da, gaztelaniazko itzulpen eta guzti: «El rústico excelente sabio, y la sabia Minerva muy estúpida» (Mogel 1990: 23). Aipatu berri dugun gutunaren garaikidea izanik, ez da harritzeko kultura eliteen («la gente culta») kontrako salaketa berriro ere *Peru Abarka* honen sarreran agertzea: «*¡En qué otro territorio del mundo se verá que ignoren la lengua patria los que debían exigir academias de ella, y que deban tomar lecciones de elocuencia natural y locuciones delicadas de un salvaje educado en los bosques?*» (Mogel 1990: 27). Letratu euskaldunek euskara lantzeko akademiarik sortu ez

<sup>1</sup> Grafia gaurkotuaz aldatu da aipuko testua. Besterik esan ezean, trataera bera emango zaie gaztelaniazko aipu guztiei.

dutenez gero, eta batez ere Bizkaian –Gipuzkoan ez bezala– euskara landu duen idazlerik ia ez dagoenez gero, hizkuntzaren erabilera eredugarria liburu bizietan bilatu beharra dago: «en Vizcaya nada se ha cultivado y son rarísimos los que se han dedicado a estudiarlo en los libros vivos, que son las bocas de los rústicos» (Mogel 1990: 48). Beste hizkuntza batzuen erabilera zuzen, garbi eta dotoreak idazleengan bilatu behar badira, eta hortaz horiek izan ohi badira hiztegiak osatzeko iturri nagusiak, euskarari dagokionez alderantzikoz jarrera aldarrikatzen du Markinako erretoreak: herri xehearena izango litzateke hizkuntzaren erabilera eredugarria. Ohizko balioak iraulita –karnabalizazioa baliatuta, Bakhtinen hitzez esatearren–, Mogelek ordura arteko hizkuntz eredu prestigiodun eta prestigiogabeen arteko banaketa hankaz gora jarri eta ideia horren gainean oinarritu du lan erabat berri eta original hau.

Akademiarik ezean, izan ziren euskarazko testugintza sustatu zuten beste erakunde batzuk, nahiz eta haien artean euskara ez zen hizkuntza bakarra. Akademietatik hurbilen egon zitekeen erakunde Adiskideen Batzarra zen, akademia literario batenak baino egitasmo zabalago eta sakonagoak bazi-tuen ere. Adiskideen Batzarra, ordea, ez zen Mogelek nahi zukeen Euskararen Akademia: 1802an *Poesia vascongada en varias fábulas* izeneko liburua bidali zien batzarkideei argitara zezaten, baina diruz urri zebiltzala eta, uko egin zien Mogelen eskarirari. Horren ordez «socio literato» izendatu zuten (Altzibar 1992: 152). Izendapenak nolabaiteko kapital sinbolikoa zuen, Adiskideen Batzarra ordurako erakunde prestigiotsua baitzen, baina Mogelek kapital ekonomiko hutsa behar zuen bere lana argitaratzeko. Mogelen eskarriari uko eginik ere, ezin esan daiteke Batzarkideek ezer egin ez zutenik euskarazko literatura sortzearen alde.

Batzarraren 1765eko estatutuetan IX. artikuluak landu daitezkeen ariketa literarioak iragarri zituen. Haien artean historia sakratua, elokuentzia eta gaztelaniazko poesia ageri dira, bai eta euskarazko testugintza ere: «otros se aplicarán a pulir y cultivar la lengua vascongada» (Areta 1976: 16; Lasagabaster 2002: 296). Batzarkideen gaztelaniazko emaitza literarioa oparoa izan zen, Ilustrazioak hobetsiriko generoetan nagusiki: antzerkia, alegiointza eta elokuentzia, helburu didaktikoak lortzeko egokienak zirelakoan, batez ere hasierako urteetan, nahiz eta gero zerbaite ahuldu zen nekazaritza, industria

eta ekonomia bezalako egitasmo praktikoagoen mesedetan (Areta 1976: 365-367).

Baina euskarazko letretan lorturiko emaitzak ere gogoangarriak dira. Aipagarrienak ondorengoak izan litezke. Alde batetik Aizpitarteren hiztegi egitasmoa babestu zuten, amaitu gabe eta Larramendiren hiztegiaren menpekoegi gelditu bazeen ere (Altuna 2002). Beste batetik, Xabier Altzibarrek bildu eta argitaratu zituen Batzarraren zaintzapeko ikasleen poesia eta elokuentzia ariketen emaitzak (Altzibar 1985). Azkenik, Batzarraren zuzendari Munibek sorturiko lanak daude, behar bada emaitzarik sendo eta iraunkorrenak: bilantzikoak eta *El borracho burlado* opera komikoa.

Bilantzikoen artean 1762ko Gabon egunean Azkoitian kantatzeko *Gabon sariak* daude, Luisa Miserikordiako batek sinatuak. Egungo kritikak ontzat ematen du Munibe estaltzen dela asmaturiko izen horren pean. *Gabon sariak* eta opera komikoa alderatzen jarrita, Adolfo Arejita zuhurki iritzi dio hala jokatuko zuela Munibek,

agian egilearen gogoan ere genero bata eta bestea guztiz bereziak zirelako. Opera komikoa zaldun baten kondizioari hobeto zihoakion gabon-kanta bat baino, literatura sorkuntza bezala. Publikoa ere ez zuten bat: antzerkia publiko jantziago eta goi mailakoago batentzat pentsatua zegoen: zaldunak edota haien seme eskolariak, elizgizonak. Gabon-kantak liturgiaren aldamenean edo gerizpean aspaldiko tradizioa zuen; nolanahi ere, herri zeheia, edo eliztar zeheak ziren genero horren hartzaleak. (Arejita 1999: 110)

Ezberdintasunen gainetik, baina, genero bien arteko kidetasunak ere gozoan hartzekoak dira. Lehenengo eta behin, pertsonaia ugariren arteko elkarritzketa gisa egituraturiko genero lirikoa izanik, bilantzikoak bazuen antzekotasunik antzerkiarekin eta bilantziko-idazleek bazuten antzekotasun horren kontzienzia. Bigarrenik, bai bilantzikoetan eta bai opera komikoan Munibek horrenbeste maite zuen musika ezinbesteko osagaia zen. Eta azkenik –eta gure helburuetarako garrantzitsuenik– pertsonaia barragarriak ohizko zitzuzten bai bilantzikoek eta bai komediek XVII. mendean zehar eta gero ere, eta horien artean *vizcaino* delakoa bere hitz jario trakets estereotipatuarekin.

Literatur konbentzio horren aurrean Muniberen jarduera literarioak etena eta auriritzien gainditzea dakar argi eta garbi. *Gabon sariak* sortan pertsonaien diskurtsoa zuzena, jatorra eta dotorea da. *El borracho burlado* operan euskara ia kantatzeko pasarteetara mugatuta dago baina hemen ere pertsonaien hizkuntza, gaztelaniaz nahiz euskarazkoa, akatsik gabekoa da, *vizcaino* haietatik ezin aldenduagoa.

Bai Muniberen bilantzikoek eta bai operak ere *vizcaino*-dun lanen oihartzunen bat edo beste ageri dute. Bilantzikoetako Sor Luisa Miserikordiakoa idazle asmatuak nahitaez dakar gogora Mexiko hirian 1685ko Asuntziorako bilantzikoak idatzi zituen Sor Juana Inés de la Cruz hura, zeinak Arantzazuko amari zuzentzen zitzaison *vizcaino* bat txertatu bait zuen beste pertsonaia barragarri batzuen artean. *El borracho burlado*, era berean, Munibek ahaztua omen zuen opera batean oinarritu zen, Poinsinet letragile eta Phildor musikagilearen *Sancho Panza dans son île* izenekoan (Urkizu 2000: 288). Ezina zatekeen ahaztea *Don Quijote* nobela ospetsuaren bigarren partean *vizcaino* bat zela Santxoren idazkari Barataria uhartean. Euskaldun horren hizkera zuzena bada ere, berez zetorren lehen parteko beste *vizcaino* harekiko lotura.

Gustu ona irizpide estetiko goorrentzat zuen norbaitengan espero zitekeenez, Munibek uko egin dio eredu iraingarri eta gehiegikeriazale horri bere lanotan. Hausnarketa metaliterarioak ezinbestekoak badira akademia eta antzeko erakundeetako kideen artean, Munibe ez da salbuesprena. Natura ederraren imitazioa arauen arautzat eta gustu onaren irizpide nagusitzat hartrik, zera aholkatzen die entzuleei «Del buen gusto en la literatura» hitzaldi akademikoan: «Imitad, pues, a la *Bella Naturaleza*. Fijad vuestra atención en ella, ocultad con arte sus faltas, pulid sus imperfecciones, superadla sin desfigurarla y lograréis seguramente el agradar a todos, que es la prueba más evidente del buen gusto.» (Areta 1976: 403). Gustu onak eskatzen zuenari Munibek bere herriari eta hizkuntzari zion begirunea gehituko zitzaiokeen iraganeko estereotipoak baztertu eta euskararen erabilera zuzen, txukun eta dotorea hobestean. Ongi sinbolikoeneko ekoizpenean ez da urrats txikia.

Batzarkideen lorpenak gogoangarriak izanik ere, XVIII. mendeko euskal literaturaren emaitzarik oparoena beste erakunde batzuei atxikitakoa da,

Elizari batez ere. Baino Mogelek Elizan ere ez zukeen aurkituko amesturiko euskal akademiaren aztarnarik, alde batetik letra ederren ekoizpena zeharka baizik ez zegoelako haren helburuen artean hizkuntzaren bitarteko pertsuazioa beharrezkoa zen heinean kristauen arimaren salbaziorako, eta bestetik bitarteko hizkuntza hori euskara izan zedin berariazko kezkarik ez zuelako erakutsi historikoki. Erreformaren astinaldiak eta batez ere Trentoko kontzilioan hartutako erabakiek soilik bultzatuko zuten Erromako Eliza erlijioaren egiak euskaldunei euren hizkuntzan zuzentzen. Eta orduan ere, Euskal Herri penintsularri gagozkiola, gaztelania idatzizko herri-hizkuntza bakarra zen, euskara dotrinaren itzulpenetara eta ahozko jardunetara txokoratuta zegoen bitartean (Intxausti 2004: 852).

Kalahorra eta Iruñeako elizbarrutietan euskarazko sermoigintza hedatua zen XVII. mendearen zehar. Donostian, esate baterako, jesuitek Garizumako igandeetan predikatzen zuten euskaraz eta horrenbesteko arrakasta lortu zuten ezen San Telmoko dominikoek ere euskarazko sermoigintzari ekin zioten 1637tik aurrera (Otazu eta Diaz de Durana 2008: 533). Baino euskarazko sermoigintzaren hedapen hori bera, bere horretan aurrerapena iza-nik ere, hobetxarrekoia zen batez ere hizkuntz zuzentusan eta dotoreta-sunari zegokionez. Larramendiren Arte-ko hitzaurreak egoera hori konpontzea duela helburuetariko bat aitortzen du:

se ignoran sus [euskararen] primores, frases, construcción varia y oportuna, o hay muy cortas noticias de esto. De donde nace que comúnmente no se predica con la elocuencia y eficacia de que es capaz la lengua, que son pocos los que se aplican a este ministerio, que otros se amedrentan con la dificultad, que no se explica como se debiera la Doctrina Cristiana, que no hay libros que sirvan para estos importantes ministerios, que nadie se atreve a traducirlos de otra lengua. Pero habiendo ya Arte con método y reglas fijas, y luego Diccionario [...] podrán fácilmente los predicadores, misioneros, señores curas y otros celosos del bien de las almas cumplir con sus obligaciones. (Larramendi 1729: z.g., «Prólogo»)

Hortaz, Larramendiren diagnostikoaren arabera hizkuntz trebakuntza zen egoerak behar zuena, baina ez Elizak ez beste erakundek eskaintzen zuen horrelakorik. Akademiek bideratzen zitzuten kezketak batzuei erantzuna

ematera zetorren Larramendi eta haien egiten zuten lana egitera, hutsune bat betetzena. Trentoko erabakien artean elizbarruti seminarioak sortzea ere baten, baina gurera ez ziren berandu arte heldu: Iruñean jesuitek utzitako ikastetxeen jarri zuten lehena eta Kalahorran XIX. mendera arte itxaron behar izan zen. Hutsune hori ordenetako erlijiosoen erakundeek bete zuten, batez ere bik, jesuitek eta frantziskotarrek. Itxura guztien arabera, horiek izan ziren sermoigintzaren gorakada nabarmena eragin zutenak, batez ere euren zereginen artean ziren misio-kanpainei esker. Misioetako jarduera iraunkorra beste ordenetako elizgizonentzat eta elizbarrutiko apaizentzat eredugarria gertatu zen. Eta misioetarako trebakuntzak euskarazko idazmenari Euskal Herri penintsularrean ordura arte inoiz ezagutu gabeko bultzada eman zion. Horixe izan zen euskal idazleen haztegia mugatik honako aldean. Idazleek, gainera, irakurleak behar dituzte. Misiolariek hala eskatuta, misio entzuleek irakurtzen ikasteari ekiten zioten liburu «onei» probetxua ateratzeko asmoz, Añibarrok *Eskuliburuaren* sarreran dioenez (Villasante 1974: 282). Ez da, beraz, harritzeko euskal literaturaren alorrik erlijioaren alorri zor izan dion heteronomia, alor horretantxe sortu baitzen.

XVII. mendean zehar ohizkoa zen misioak jesuiten esku uztea (Otazu eta Diaz de Durana 2008: 533). Behar bada horrexegatik izan ziren jesuitak sermoigintzarako hizkuntza baliabideen gabeziak eta premiak larrien nozitu zitzutenak, Larramendiren aipuak aditzera ematen duenez. Izan ere, jesuiten arteko prestakuntza intelektuala sendoa zen, baina irakaskuntzan gaztelania eta latina erabiltzen zitzuten, eta horiexek dira hain zuen «academia» izeneko ekitaldi literarioetan erabilitako hizkuntzak. Ekitaldi horiek Euskal Herriko ikastetxe guztietai antolatzen ziren gramatika eta humanitate ikasleen literatur trebetasunak landu eta jendaurrean erakusteko (Malaxechevarria 1926: 257-274). Ikastetxeotako gramatika eta humanitate irakasleen artean idazle jesuita euskaldun aipagarrienen izenak ageri dira: Kardaberaz, Mendiburu, Basterretxea eta Meagher (Malaxechevarria 1926: 275-305). Lehenengo ikasle eta gero irakasle gisa landutako literatur trebetasun horiek euskaraz erabiltzen jakin zuten. Horien guztien aintzindari eta eredu Larramendi izan zen.

Asko eta ondo idatzi da Larramendik euskal kulturari egindako ekarpenaz, ez gara horretan luzatuko. Gaitasun intelektual gorenekoa izanik, La-

rramendik bere gain hartu zuen euskeraren gramatika deskribitzea eta arau-  
tea, ordura arte ezina zirudien. Ondoren *Hiztegi hirukoitz* etorriko zen.  
Lan horiekin ordura arte apologistek teorian soilik aldarrikatu zutena fro-  
gatu ahal izan zuen: euskara gramatika arauetara makur zitekeela, *ars* baten  
eskazizunei erantzuteko gai zela, latina eta gaztelania bezala, eta ez zela  
beraz araugabeko hizkuntza basatia, barbaroa. Sermoigileei tresna erabilga-  
rria eskaintzeko helburuarekin batera beste bat aitortu zuen zeharretara  
bezala: «El impulso que me hizo empeñar en estudio tan espinoso no fue  
sola la pasión de ennoblecer e ilustrar nuestra lengua, y por este lado acre-  
ditar a la patria [...]» (Larramendi 1729: z.g., «Prólogo»). Alegia, ez hori  
soilik, baina hori ere bai.

Horrekin batera euskaraz poesiariak bazela erakutsi zuen Euskal Herria  
poetarik gabeko herria zela zioen topikoa gezurtatzu. *Artea*-ren «Apéndiz de  
la poesía vascongada» izenburuko seigarren atalean «De la poesía que está  
en uso» azpiatala ageri da. Bertan XVII. mendeko idazle pare baten lan-  
txatalak aipatzen eta aztertzen ditu: Ziburuko Etxeberriren *Noelak* eta *Ma-  
nual debozionalezkoa* eta Haranbururen *Debozino eskuarra*, denak argitaratuak  
eta beraz euskal poesiaren existentziaren lekuko erreputazioz. Etxeberriren  
berri ematean diskurtso legitimatailea darabil, poeta konsagratura dela  
adierazteko: «El doctísimo Juan de Echeberri, Doctor Teólogo, que tuvo  
Numen particular para componer en verso vascongado, como se reconoce  
[haren lan bietan]» (Larramendi 1729: 374).

Poesiari buruzko atalak deskriptiboa ez ezik prezeptiboa ere izateko as-  
moa duela bigarren azpiatalak, «De la poesía de que es capaz el vascuence»  
tituludunak, erakusten du. Gaztelaniazko bertsomoldeak euskaraz ere era-  
bil daitezkeela frogatu nahi da. Horretarako euskarazko izen berariazkoak  
proposatzen ditu gaztelaniazko bertsomolde jakinen ordainean: «en vas-  
cuence tienen sus correspondientes propios sin rodeos y conforme al signi-  
ficado de esos nombres del romance y aun con alguna más propiedad»  
(Larramendi 1729: 382). Andoaingo jesuitak asmaturiko baliokidetza ho-  
rietako batzuek aurkitu zuten harrerarik, Kardaberaren poemetan esate  
baterako (Altuna 2000: 25-26). Hiztegi hirukoitzean eskainiriko lexiko  
poetikoaren aztarnarik ere bada garaiko idazleen artean: *Munibek otsaldiak*  
(kantak) eta *egokikilde* (metafora) dakartza (Arejita 1999: 118). Gamizen

poemetan ere aurkitu dira Arte eta Hiztegi hirukoitzaren oihartzunak (Goikoetxea 1980: 206).

Larramendiren lan biok ezinbesteko erreferente bilakatu ziren garaiko euskal idazleen artean. Haiei esker euskal letrak lantzen zituztenek izan zuten nora jo irizpide bila. Inguruko herrialdeetan akademiei zegozkien zereginetatik ugari Larramendik bere bizkar gainean jarri zituen. Jesuitaren diskurtsoak ez du kontraesanik falta, edo behar bada heldutasunerako bilakabidea bizi izan zuela esatea zuzenagoa litzateke. Gazteagoa zela, oraindik Salamankako irakasle, diskurtso apologetikoaren eskakizun soiletan bete betean murgilduta eta euskarari egindako irainak erantzun beharraren erantzun beharraz, bere hizkuntza kutunak ingurukoei zertan egiten zien gehiago erakusten jarrita, akademien gaiari heldu zion. Beste hizkuntzek akademiak behar zituzten arauetkin batera salbuespenak ere ugari zituztelako, akastunak zirelako beraz. Haien aldean euskara akasgabea zen, salbuespenik gabeko arauduna, perfektua beraz, akademiarik behar ez zuena: «Pues, [i]qué mayor gusto para los vascongados que el ver que sin academias, sin asambleas y de primera mano sale el vascuence tan primoroso, tan arreglado, tan en solfa de declinaciones, conjunciones, sintaxis con sus ocho partes, prosodia con sus acentos, y esos especiales?» (Larramendi 1728: 8).

Eta hala ere, geroan onartu egin behar izan zuen hizkuntzarik perfektuenaren jabe izanik ere erabiltzaileek akatsak egiten zituztela. Izan ere, Larramendiren bizitzako egitekorik funtsezkoenatariko bat akademiek egiten zutena egitea izan zen: gramatika eta hiztegia osatzea; beste idazleei (euskaraz berak baino gehiago idazten zutenei ere) iritzi eta epaiak eskaintza; berak zuen prestigioaren bitartez idazle horiek konsagratzea. Halaxe egin zuen Mendiburu eta Kardaberazekin. Berari zor zaio ere Euskalerri kontinentalean argitaraturiko liburu zenbait mugaz hona aurkeztea, haien bertute elokutiboen epai kritiko eta guzti. Izan ere, epai horrek euskal letren kanonaren oinarriak ezarri zituen, bai eta Axularri kanon horren erdigune posizioa eskaini ere, geroak aitortu bezala, Sarako erretoreak bete betean asmatu zuelako *elocutio* nahiz *inventio* eremuен eskakizunetan Larramendiren ustez: «El vascuence [Geroren] es elegante, propio, puro, abundantísimo; el asunto, tratado por principios, probado por la Sagrada Escritura, Padres de la Iglesia, ejemplos y semejanzas muy oportunas; los vicios, pin-

tados al natural; y convenientísimos sus remedios. Anda en manos de muchos, y debiera en las de todos los vascongados» (Larramendi 1745 1: XXXV). Axularren kanonizazio prozesua Añibarrok berretsi zuen haren lana bizkaieratzean eredu bihurtu zuenean, bai eta Ubillosek ere, hein batean behintzat, Gerotiko zenbait pasarte bereganatu zituelarik.

Iritzi kritiko horiek eskaini zituenerako helduagoa izanik eta eskarmen-tuak emandako ikuspegi errealistagoarekin, Hiztegi hirukoitzaren sarreran bere egitekoaren zailtasunak aitortu zituen Larramendik:

Para que la lengua castellana tenga un diccionario digno de sí misma y de su majestad y grandeza ha sido necesario que toda una Real Academia Española haya empleado sus luces y cuidados en esta empresa. Y para entender lo arduo y trabajoso del empeño no hay más que leer su Historia, especialmente el principio del tomo 6. [...] [i]Y qué dirán a esto los que tienen o tendrán por fácil empeño el hacer un diccionario del vascuence? [...] Y si con socorro de otros diccionarios, que tienen abierto el camino, con tantos libros impresos, tantos manuscritos, tantas escuelas de leer y escribir en romance, sin prohibiciones de hablarle, no es pequeño triunfo disponer su diccionario entre tantos hábiles y eruditísimos hombres, [i] qué será disponer un diccionario del vascuence por un solo, y ése destituido de aquellos socorros, alivios y conveniencias? (Larramendi 1745 1: LI-LIV)

Kosta ahala kosta, Andoaindarrauk bere burua legitimatua ikusten zuen egiteko «akademiko» hori bere bizkar gainean hartzeko. Salamankan irakas-le edo sermoilari ospetsu eta erregina alarguntsaren konfesore izanak baino legitimazio handiagoa ematen zion, bere ustez, Monarkia Hispanikoaren lurrardeetan eta atzerrian lorturiko ontespenak, batez ere Frantziako jesuitek argitaratzen zuten *Mémoires de Trevoux* aldizkarian jaso zuen harrera onak, *Journal des Savants* ospetsuaren parekoa baitzen argitalpena (Larramendi 1973: 26-28; Tellechea 1985). Bere burua legitimatuta sentitzeko arrazoirik ez zuen falta, Spainian inor gutxik lortu zuena berak lortu bait zuen, alegia *Mémoires de Trevoux* prestigiootsuak Hiztegi Hirukoitzaren merituak azpimarratzen zituen kritika bat argitarra zezala. 1741ko *Diario de los literatos de España* aldizkariaren zazpigarren liburukian aitortzen denez, ordura arte

Frantziako argitalpen entzutetsu horiek liburu españiarren berri emateari uko egin zioten: «habiéndose remitido algunas memorias de los Libros de España, no quisieron los Padres de Trevoux publicar en su *Jornal* sino el título de algunos; porque su instituto era informar a la Europa de los adelantamientos en las Artes y Ciencias, y *no habiendo novedad considerable en los libros que se imprimen en España, no han querido hacer memoria de ellos*» (ikus Gunia 2008: 80).<sup>2</sup> Testuinguru horren argitan Larramendiren lorpena are aipagarriagoa begitantzen zaigu.

Andoaindarrak bere lan «akademikoaren» emaitzak gozatu ahal izan zituen. Sermoigintzan lorturiko hobekuntza nabarmenak poztu zuen guztien gainetik. Jesuitakideen arteko giroak goibeltzen zuen soilik. Haien artean jarraitzaile zintzo baina urriak omen zeuzkan. Eta etsaiak ere bai: konpainiakideren batek salatu ere egin zuen Loiola inguruko baserritarrekin solasean jardutea komeni baino gogokoago zuelakoan (Larramendi 1973: 29). Berak hasitako lanaren frituak ikusteko aukera pozgarria izan zuen, baina zeregin horren jarraitzaileak Jesusen Konpainiatik at ikusten zituen:

A lo menos están viendo que después acá se predica la palabra de Dios con fruto, limpieza y decencia, y es lo que no había antes. Ven que ya se habla, se escribe, se imprime en vascuence, y que de esto se me dan a mí las gracias por los instruidos vascongados, franceses y no franceses; y sólo entre jesuitas no encuentro uno de estos agradecidos. Y es el chiste, que predicán mejor con exceso los Misioneros de Zarauz y frailes de otras Ordenes y clérigos, que estos murmuradores jesuitas, que por lo común son haraganes, no saben escribir ni aun leer su vascuence, y piensan, y aun dicen entre sus semejantes dentro y fuera, que saben la lengua mejor que el que la inventó. No basta ciertamente una paciencia ordinaria para agoantarlos. (Larramendi 1973: 28-29)<sup>3</sup>

1767an jesuitak Monarkia Hispanikoaren lurrardeetatik iraitzi zituztene-rako hila zen, baina ez beraren itzalpean ermetako idazle jesuita garrantzi-tsuenak, Kardaberaz eta Mendiburu, nahiz eta biak adinekoak ziren. Jesui-

<sup>2</sup> Guniak bilduriko aipu honetako letra etzana jatorrizko argitalpenari dagokio.

<sup>3</sup> Tellechea Idigoras editoreak jaso bezala aldatu da.

ten artean euskara lantzeko oraindik aukerarik izatekotan –eta badago arrazoirik pentsatzeko bazela, Larramendik nahi zituzkeen adina ez baziren ere– aukera bat batean iraizpenak zapuztu zuen.

Dena den, Andoaingoaren ekimenak apaizen eta beste ordenetako fraideen artean bizirik irau zuen. Horiek guztietatik gunerik indartsuena frantziskotarrek Zarauzko misiolarien ikastetxean sorturikoa izan zen. Hauek ere Euskal Herriko misio jardunetan buru belarri sartuta, giro egokia sortu zen euskarazko testugintzarako: «La necesidad de cumplir su deber de predicar al pueblo vascongado y de hacerlo a fondo y con gran extensión, les impulsó al estudio reflejo del mismo idioma, llegando algunos a destacar, ya sea como escritores, ya como tratadistas, gramáticos, etc.» (Villasante 1974: 282). Gorago esan bezala, Larramendik erabateko onesprena eskaini zien frantziskotarrei haien sermoigintzan bertute elokutiboen gauzatzea antzematen baitzuen, *Corografía de Guipúzcoa* beranduegi argitaratuan zioenez:

Ya es tiempo de hacer la excepción que tengo ofrecida. No se puede dudar que, de pocos años a esta parte, se predica en vascuence menos mal que antes, y que hay predicadores que en sermones morales predicen absolutamente bien y con limpieza, y con gusto y fruto de los oyentes. Así por lo común los misioneros en sus sermones, y con especialidad los franciscanos misioneros de Zarauz que, a su mucha virtud y observancia, y al celo de las almas, han añadido el cuidado y trabajo de predicar un vascuence claro, inteligible, limpio y bien ordenado, según el carácter y sintaxis de la lengua, y desmienten con su práctica las quejas mal fundadas de los vascongados holgazanes. (Larramendi 1982: 291).

Larramendiren eskutik frantziskotarrak laster jarri ziren konsagrazio bi-dean, alde batetik Andoaingo jesuitaren eta honen jarraitzaileen eredua baliatuta, eta beste batetik Larramendiren beraren onesprena lortuta. Hala ere, hark jesuitakide zenbaitekin bezala, hauek ere liskarrak izan zituzten, lehenengo eta behin ordenarekin berarekin, seminario-ikastetxea bere baitan onartzeko komentu bat bera ere ez zegoelako prest Kantabriako Probindzian zeudenenean artean, harik eta Mateo de Aranburuk Zarauzkoa, «el convento más miserable y famélico de la Provincia», eskuratu zien arte (Villasante 1974: 292).

Oraindik deigarriagoak dira Iruñea eta Kalahorrako apezpikuek jarritako oztopoak, euren kontrolpean ez zeudela iritzita, itxura guztien arabera. Apezpikuoi norbaitek jakinarazi zien «que los misioneres de Zarauz enseñaban a pecar por la demasiada claridad con que se explicaban en sus doctrinas» (Villasante 1974: 305). *Perspicuitas* edo argitasuna, mendebaldeko tradizioan bertute elokutio gorena eta Laramendik Zarauzko praleei zien estimurako arrazoirik sendoena, kaltegarria zen nonbait euskaraz eginez gero. Balizko arrisku hori zegoen euren lurralteetan gertaturikoaren berri urrunetik baino ez zuten apezpikuen iritziz, behar baino gutxiagotan bisitatzen zituztelako lurralte euskaldunok, Laramendik *Corografia* isilrazian salatu zuenez (Laramendi 1982: 124-125). Kalahorrakoak, Bizkaian zela bisitaldi urri horietako batean, Zarauzko misiolarien lana ikusi eta behala utzi zituen bertan behera ordura arteko mesfidantzak (Villasante 1974: 305).

Euskarazko testugintzan frantziskotarrek lorturiko upta Villasantek azaldu du (Villasante 1974 eta 1979). Eurei egokitu zitzaien XVIII. mendeko lorpenei iraupena ziurtatzea XIX.ean ere. Frantziskotarrek sermoigintzan egindako lan ikaragarriaren lekuko aparta da *Frantziskotarren artxiboak*. *Euskarazko sermoi eta antzeko eskuizkribuen katalogoa* (XVIII-XX) oraintsu argitaraturiko liburua (Etxebarria 2005). Esku artean dugun muga kronologikoak gainditzen baditu ere, bertan bilduriko sermoigile asko eta asko XVIII.ekoak eta XIX. mende hasierakoak dira. Eta haien artean sermoigintza hutsetik haragoko eremuetan barneraturiko idazle frantziskotarrak ere ageri dira: Ubillos, Añibarro eta Zabala, besteak beste. Gainera, katalogoa bildutakoak baino gehiago ere izango zirela pentsatzeko arrazoi sendorik bada: Bilboko komentua karlistadetan erretzean betiko desagertuak esate baterako, edota Bizente Sarria bezala Ameriketako misioetara bidalitako frantziskotarrenak (Etxebarria eta Apraiz 2009). Azken honen sermoien eskuizkribuak egun Kaliforniako Unibertsitatearen Berkeleyko bibliotekan eta Kaliforniako estatuak Sacrementon duen liburutegian gorde dira.

Akademien giroak konformismo politiko eta erlijiosorako joera zuela azpimarratu izan da. Zaletasun libertinoak zituztenek ere, isilpean garatzen zituzten euren kritikak, baina agerian botere politikoari erabateko errespetua erakusten zioten eta Elizarekiko liskarrak sahiesten zituzten. Izan ere,

akademiak idazleen eta boteredunen topaleku ziren, heteronomiarako gune aproposak hortaz, nahiz eta beste alde batzuetatik literaturaren autonomiarako lehen urratsetarako aukera ere eskaini zuten (Viala 1985: 46-50). Akademiarik ezean, ulergarria da XVIII. mendean hasitako euskal literatura, nagusiki eliz erakundeetatik bideraturikoa eta euskaldunen erlijio premiei begira sorturikoa izanik, kutsu kontserbadore eta elizazaleaz sortu izana. Euskal letrei hasiera eman zietenek kezka nagusia euskaldunen arima-osasuna zela ikusita, euskarak letren mundurako sarrera horien esku-tik egin bazuen, ezinbestean «euskaldun fededun» joera ideologikoak orduko euskal literaturan euskarri sendoenetariko bat izan behar zuen (Altuna 2003: 135-157).

## 2. Mezenasgoaren ahultasuna

Idazleak babesteko era nagusi bi bereizi izan dira erregimen zaharrean: klientelismoa eta mezenasgoa. Klientelismoak zerbitzuaren logikari erantzutzen dio: bezeroaren lanaren truke, jaunak ogibidea ematen dio bezeroari edo laguntza eskaintzen dio estatu-burokrazia karguak edota Elizako benefizio eta sinekurak lortzeko. Mesenezgoan, ostera, jaunak artistari laguntza eskaintzen dio honek bere egitasmo artistikoa garatu dezan. Mezenasak eta artistak elkarren balio aitortzen dute («logique de la reconnaissance mutuelle»). Beti ez da erraza aukera bien artean bereiztea, ostera (Viala 1985: 52-54).

XVII. mendean, Frantziari dagokionez, estatu mezenasgoa eraikita, monarkiak zenbait idazle hautatu babesteari ekin zion (Viala 1985: 69-84). Mugaz honako Borboiek ere modu beretsuan jokatu zuten. Idazleen laguntza bilatzen zen propagandarako, helburu politikoetarako, iritzi publikoa gobernuaren alde bideratzeko, eta beti ere gaztelaniaz, hizkuntza monarkiarren beraren irudititzat jotzen baitzen, bai eta zentralizazio eta kohesio tresnatztat ere (Alvarez Barrientos 2007). Horrexegatik hain zuzen ere monarkiarren gobernuek babesturiko idazleen artean nekez aurkituko da euskaraz idazten zuenik. Iraitziriko jesuiten artean gobernua pentsioak banatzen hasi zenean ere euskal idazlerik ez zen izan onuradunen artean, ez eta Terreros

bera ere. Kardaberazek eta Mendiburuk idazteari utzi zioten arren atzerriko urteetan, Aita Meagherrek gogoz ekin zion poesiari, baina honen idazkiak galduzat jotzen dira (Astorgano 2009: 273-274). Itxura guztien arabera, euskal literaturarako ez zen estatu mesenazgorik izan. Gehienez ere, Aizpitartek hiztegi bat egiteko laguntza izan zukeen, Campomanesek egitasmoa babestu baitzuen Muniberi idatziriko gutunean adierazi zuenez (Echenique 1985). Laster itzuliko gara Aizpitarteren hiztegira.

Handikiak ere izan ohi ziren mezenas garai honetarako, monarkia bera baino lehenagotik. Izan ere, letren eremuan murgiltzea distintzio zeinutzat zuten, nahiz eta jarrera hori handiki euskaldunen artean berritzat jotzen zuten zaldunek eurek. Hala aitortzen da Adiskideen Batzarraren lana laudatuz idatziriko gutun batean (*Carta incompleta alabando los trabajos realizados por la R.S.B. al campo literario*):

[...] los aplausos que derraman a la Sociedad [...] también las naciones extranjeras, observando que la tierna juventud ha hallado en la Sociedad Bascongada las oportunidades más ventajosas para conseguir una educación culta civil y urbana, una instrucción verdadera, piadosa y libre de inveteradas preocupaciones, y lo que es principal, que la nobleza ilustre desembarazada de las ideas siniestras con que miraba en otro tiempo a las letras contemplando la aplicación a ellas como una profesión baja e indigna de la superioridad de su nacimiento, ahora se ocupa tan gustosamente en las especulaciones científicas y estudio de las facultades más selectas. (Ikus Alzibar 1985: 1132)

Adiskideen Batzarrak bultzaturiko egitasmo ugarien artean Aizpitarteren euskal hiztegia ageri zen baina ez dago horren argi euskal idazlerik babestu ote zuen. 1802an Mogelek alegia bilduma (*Ensayo de poesía vascongada*) aurkezu zien argitara zezaten baina dirurik ez zutela erantzun zioten adizkideek, eta horren ordez «socio literato» izendatu zuten (Alzibar 1992: 152).

Adiskideen Batzarraren lehen zuzendariak, ordea, ez zuen beraren erakunde kutuna soilik babestu. Ubillosek Kantabriako probintzia frantziskotarraren ongile gisa ere aipatzen du. Munibe mezenastzat aitortu zuen Mogel gazteak ere Calatayuden ikasle zela Bartolome Pou irakasle jesuitaren *Institutionum historiae philosophicae lib[ri]*. XII (1763) filosofia testuli-

buruaren ale batzuei egindako eskaintza-sarreran, Peñafloridaren laguntzaz egingo zitzukeelako ikasketak jesuiten artean, Villasanteren ustez. Mezenasgokoa baino, klientelismo itxurakoa da Mogel eta Muniberen arteko harremana. Izan ere, 1764an Xemeingo Andra Mari elizako kapilautza baterako izendapena eskuratu zuen, hain zuen ere Peñaflorida patroi zuen kapilautzakoa (Alzibar 1992: 122-123). Elkarrengandik urrundu ere egin ziren lasterrera, Muniberen semearen hileta elizkizunak ordaindu ez eta Peñafloridakoak patroi zereginak behar bezala ez zituela bete iritzita agian, Mogelek bere kexua erakutsi zuenean heriotz-agirian. Dena den, Xemeingo erretoreak Munibetarren babespeko izateari ez zion utzi, ez eta Adiskideen Batzarraren laguntza lortzeko ahaleginak egiteari ere, ikusi berri dugunez. Xemeingo erretore izateagatik zegozkion benefizioak ez ziratekeen nahikoak liburuен argitalpenak bere patriatik ordaintzeko, ez eta oparotasunean bizitzeko ere, txiro hil izanak erakusten duenez (Alzibar 1992: 146). Euskaraz idaztetik bizi ahal izateko garaia urrun zen, nahiz eta saldutako liburuен kopuruari dagokionez arrakasta ezagutu zuenik izan zen. Hala geratu zitzaison Juan Antonio Mogeli berari, baina ez bere idazkintza trebetasunetik bizi ahal izateko neurrian. Mogelen kasuak zera erakusten du: alde batetik bere idazkeratik bizi daitekeen idazle ogibidea ez dela sortu oraindik; bestetik, mezenasgoaren ordez klientelismoa izan zela euskal letron eremuan ezagutu zena, eta babesea mugatua izan zela, inondik eta inora ere idazteari soilik edo nagusiki ekiteko adinakoa.

Muniberen bezeroen artean Pablo P. Astarloa ere izan zen, honek ere haren patroitzapeko kapilautza batez gozatzen baitzuen. Astarloak laudoriozko poema bat eskaini zion Peñaflorida edo *Achloratuba-ri*, euskaldunen «seme ta guraso» zelakoan, euskararen alde egindako lanagatik: «onec deuscu Eusquera / Auspastuba jaso» (Alzibar 1992: 213-215 eta 227-228).

Frantziskotarren artean bizi zen egoera ez dirudi apaiz laikoena baino oparoagoa zenik. Añibarrok Zarauzko seminario-ikastetxean zituzten zor eta estutasunen berri utzi zigun. Bizkaira 1792an egindako bisitaldian misioliek burutzen zuten lan bikaina ikusi ondoren soilik agertu zen eskuabal Kalahorrako apezpikua (Villasante 1974: 293 eta 305). Gainera, argitalpen kostuek Mogeli emadako buruko min beretsuak Añibarrok eta frai Bartolomek ere ezagutu zituzten (Alzibar 1992: 155).

Monarkiaren gobernuak berariazkotzat zeukan hizkuntza bakarra sustatzen zuen bitartean –bai eta beste hizkuntzen erabilera eragotzi ere, zentsurari eskainitako atalean ikusiko dugunez–, foru erakundeen jarduna ez zen oso bestelakoa. Jesuitei dagokienez, Larramendik behintzat Hiztegi hirukoitz erraldoia-ren kostua Gipuzkoako Biltzarrek euren gain hartu izana ikusteko atsegina izan zuen, eskaintzan aitoru bezala: «espero [...] que su [Gipuzkoaren] delicado gusto no echará menos aquellos elogios con que suelen las dedicatorias lisonjear a sus Mecenas; pues de las heroicas cualidades de V[uestra]. S[eñoría]. ya se sabe que es panegirista todo el orbe» (Larramendi 1745 1: z.g., Eskaintza). Foru erakundeek hiztegi hau hegapetu izana aipagarria da, are gehiago ikusirik ez zela bat ere ohizkoa halako lanak babestea, hain gutxi euskarazkoak.<sup>4</sup> Gai jurikikoak eta historiko-politikoak jorratzen zituztenak babestu edota sorrarazi ohi zituzten, gaztelaniaz idatziak hain zuen, Fontech y Salazarrena bezalakoak, foruak defenditzearren egindakoa monarkiaren jarrera gero eta zentralistagoaren aurrean, baina horiekin batera euskaldunek erregeari zioten leialtasuna goraiapatzentz zutenak ere bai. Hala, esate baterako, Joaquín de Abendañok idatziriko *Oración fúnebre que consagró a la memoria de D. Carlos III, Rey de España, el M.N. y M.L. Señorio de Vizcaya* (Azurmendi 1985: 384 eta 380 hurrenez hurren).

Artean monarkiaren beraren hizkuntzaren eta egitasmoen aldeko idazlaren sorrera bultzatzen zuen Madrileko gobernuak. Carlos III.ak idazleak hegapetu zituen bere politikaren aldeko iritzi publikoa sortu zezaten, jesuitak iraiztearen aldekoa esate baterako (Alvarez Barrientos 2007: 107-108). Jesuitak atzerriira bidali ondoren soilik etorri zen ziur asko monarkia hispanikoaren gobernuak euskararen alde zuzenduriko egitasmo bakarra, arestian aipaturiko Aizpitarteren hiztegia. Itxura guztien arabera, Campomanesek berariazko kezka edo jakinminna zuen Spainiako hizkuntza zaharretaz eta etimologiaz. 1773an Campomanesek Adiskideen Batzarreko zuzendari Muniberi gutun bat bidali zion hiztegia egiteko aholkuak eskainiz. Beraren babespeko ekimena legitimatzeko asmoz Larramendirena kritikatu eta auzitan jarri beharra zegoen, beste hiztegi baten zergatia ez baitzen bestela erraz azalduko. Horretarako Hiztegi hirukoitzari aurkitu zizkion gabeziak agerian

---

<sup>4</sup> Larramendiren hiztegia «Gipuzkoako Probintziaren bizkar inprimatura» izan zela eta, Mitxelenak 1745. urteari «egiazko annus mirabilis» iritzio zion (Mitxelena 1988c: 364).

utzi zituen: «El Diccionario [trilingüe] del Regular Manuel de Larramendi ha sido de corto uso: así porque empieza con las palabras españolas, y sólo puede servir a los que desean aprender el vascuence, que son pocos; como porque introdujo muchas etimologías forzadas y violentas, guiado por el mero sonido teniendo otras raíces más ciertas» (Echenique 1985: 1094).

Campomanesen epaia ez zela erabat zuzena izan historiak erakutsi du, berak onartu baino gehiago erabili bait zuten euskal idazleek –Munibek berak bestea beste–. Aizpitarterena, ostera, erdizka<sup>5</sup> eta Larramendirenaren eraginpetik askatu ezinda gelditu zen, Mitxelenak eta Altunak erakutsi bezala. Paradoxikoki, Aizpitarteren hiztegiaren eskuizkribua luzaro ahaztua egon ondoren Aita Arana jesuitak eskuratzea lortu zuen XIX. mende amaieran eta harrezkero Loiolako artxiboan zaindu da (Altuna 2002: 301). Paradoxikoki ere, Larramendiren hiztegi inprimatuaren ale mordoa, Campomanesek «de corto uso» iritzitakoa, Loiolako sotoan gelditu zen izkutaturik jesuitak iraitzi zituztenean, nazio arteko adituak esku artean izateko irrikitan eta ondo ordaintzeko prest zeuden bitarteak, Hervasen lekukotzaren arabera. Loiolako sotoan bertan behera utzitako ale horiek jesuitek euskaraz argitaraturiko beste liburu batzuekin batera saldu egin zituzten premonstratenseak Loiolara heldu zirenean ikastetxeak 1793an jasandako kalteen konponketa ordaintzeko (Astorgano 2009: 103).

Estatu mezenasgoa mugatua izanik ere, oraindik XIX. mendearren hasieran Mogelek Campomanesen ekimena ahaztu ez eta Vargas Ponceri gogora dakarkio: «Campomanes decía lo mismo que Vdm., que el idioma vacuence podía ser útil para la inteligencia de la historia y geografía de España, y deseaba su cultura y que se formase un buen diccionario» (Mogel 1854: 703). Mogelek berak kezka beretsuak zituela bere gaztelaniazko lanek erakusten dute, batez ere *La Historia y Geografía de España ilustradas por el idioma vascuence* izenekoak. Dena den, kezka kidetasun hori bezain garrantzitsua da Mogelen honako eskaria, Vargas Ponceri gutun berean zuzendua: «Después de acabada esta correspondencia, sería conducente que Vmd. se tomase la molestia de organizar el trabajo, mejorar el estilo, borrar todo lo que no le

---

<sup>5</sup> Hala zegoen Aizpitarte 1809an hil zenean. Mogel itxaropentsu ageri da 1800. urte inguruko *Cristaubaren icasbidea* lanari egindako hitzaurrean Adiskideen Batzarrak hiztegi bat argitaratzeko asmoa duela eta, horrekin «confundir a estos enemigos de su País» lortuko duelakoan (Alzibar 1986: 30).

cuadre, y si lo contemplase de utilidad pública, hacer que algún impresor lo tome a su cuenta. Yo no busco ganancia alguna, sino la de servir a la patria» (Mogel 1854: 713). Vargas Ponceri zuzenduriko eskariaren onuradunak gai beretsuari buruz Mogelek idatziriko disertazio biak dira: *Disertación histórico-geográfica sobre los iberos y los sicanos que entraron en Italia [...] eta Disertación breve, particular y topográfica de la ciudad Urbe, o Roma*. Mogelen hitzak zuzen aditu baditugu, oraingoan gaztelaniaz idatzitako lan biontzat estatuanen mezenasgoa lortu diezaziola eskatzen ari zaio Vargas Ponceri, jakinik seguru asko Vargas Ponce bera historia-akademiakoa dela eta Godoyren babespean eta aginduz etorría dela Gipuzkoara.

Vargas Ponce idazluma gobernuaren zerbitzura jarri ohi zuten idazle horien artekoa zen (Alvarez Barrientos 2007: 107). Godoy, ostera, ez zen Camponanes. Carlos IV.aren lehen ministroak Vargas Ponce Gipuzkoara bidalitzeko arrazoia ez zen besterik Probintziako Erret Pribilegioen aldaerak lortzea baizik, Gipuzkoaren foralitatea errazago deusestatu ahal izateko. Bide batez, Martinez de Zaldiviaren *Libro Viejo de Guipuzcoa* hartu eta berarekin Madrilera eraman zuen Real Academia de la Historia erakundera (Estevez 1992: 424). Vargas Ponceren lanari esker Gipuzkoari buruzko dokumentuak Llorenterengana heldu ziren, zeinak *Noticias históricas* alderdikoian erabiliko bait zituen zentralismoaren aldeko bere tesi ezagunak indartzeko. Vargas Ponce 1804an Historia Akademiren zuzendari izendatu zuten. Mogelek ordea ez zuen bere disertazioak argitaratzea lortu, ez bizi zela behintzat. Disertazio biak 1854an inprimitu ziren Garibairen memoriekin eta errefrauuekin batera *Memorial histórico español* bildumaren zazpigarren liburukian.

### 3. Zentsuraren indarra

Zentsura instituzionalizazio bidean ageri da XVI. mendetik behintzat eta XVIII.erako ezarrita dago. Zentsurak estatuaren eta erlijioaren botereen interbentzia erakusten duen heinean, alor literarioak beste bi alor horiei zor dien heteronomia edo menpekotasuna agerian uzten du. Esandakoaz gain, zentsura mezenasgoaren eta idazle eskubideen ifrentzutzat ere jo liteke (Viala 1985: 115). XVIII. mendeko Euskal Herri penintsularrean ere estatu- eta Eliza-zentsuren eragina nabarmena izan zen. Elizaren zentsura Inki-

sizioaren bitarbez bideratzen zen. Dena den, Borboien politika erregalista zela eta, Inkizisioaren ohizko zentsura zereginetako batzuk Monarkiaren Gobernuak –eta beronen tokian tokiko ordezkartzak– bereganatu zituen: «la censura [previa] cae en el campo de actividades gubernativas, mientras que el Santo Oficio se encargaba de vigilar todo impreso y podía concentrarse en los libros extranjeros» (Gunia 2008: 51-52).

Monarkiaren zentsurak euskal letretan gogor jo zuela ezaguna da. Izan ere, Mitxelenak «Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak» gaiari buruzko hitzaldi batean Erregimen zaharreko foru erakundeek liburugintzan zuten eskumen gabezia azpimarratu zuen: «uste dut komeni dela horrelako gauzak aipatzen diren baino gehiagotan aipatzea. Aspaldi esan zuen Aita Donostiak gure artean gure juntek [...] ez zutela liburu eta izkribu kontuan inolazko eskurik, esku osoa korregidoreak zuela» (Mitxelena 1988a: 691). Mintzagai dugun garaiko lan pare batek zentsurarekin izandako arazoen atari dira hitz horiek. Monarkiaren gobernuak eta haien ordezkariek XVII. mendera arteko euskal liburugintzan izandako eragina ez da erraz neurtzekoa. XVIII. mendetik aurrera, ostera, estatuaren interbentzioa ageri-agerikoa da eta zehazki dokumentatua. Inkisizioa jo izan da kulturaren kontrolerako galbae nagusitzat baina berriki gobernuaren kontrol gaitasuna ere azpimarratu da: «una importante función de vigilancia ideológica quedaba reservada para el gobierno mediante la censura previa. Esta consistía en su facultad de conceder o rechazar la licencia de impresión de cualquier obra escrita y era competencia del Consejo de Castilla o de sus magistrados delegados, los Jueces de Imprentas» (Caro López 2003: 162). Zentsurak gorakada une bi izan zituen XVIII. mendean zehar: Esquilacheren kontrako matxinada sasoia eta Frantziako iraultzaren garaia (Caro López 2003: 168-169).

Euskal letrei dagokienez, estatuaren zentsura jesuiten patuari lotua dago baina era berean, eta behar bada bide batez, zentsura neurri horrek euskalrazko liburugintza osoari eragin dio,edo behintzat Nafarroako Erresuman burututakoari.<sup>6</sup> Izan ere, Iruñea zen XVIII. mendean euskalrazko argitalpe-

<sup>6</sup> Loiolako artxiboan gorde den zentsura-txostenaren kopia Aita Lopetegik argitaratu zuen (Lopetegui 1973: 20-24). Ondorengo aipuak hortiek aldatuak dira. Txosten horren pasarte labur bat *El libro negro del euskera* bilduman jaso da (Torrealdai 1998: 15).

nen gune nagusia. 1766an, Esquilacheren kontrako matxinadaren urte berean –zeinaren erruduntzat jesuitak jo baitzituen monarkiaren gobernuak– Kardaberazek San Inazioaren bizitzaz idatzitako lana argitaratu nahi zuelarik Iruñean, Nafarroako Kontseiluak Martin de Urriza dominikoari zentsuratu zezala eskatu zio. Urrizaren epaiak lanaren bertuteak laudatu zituen, bai edukiaren aldetik («un estímulo eficaz para que se muevan a desterrar de sí los vicios», «un modelo verdadero y una idea perfecta de la santidad más eminentes»), bai hizkuntzarenetik («su estilo es a mi ver de los mejores que en el vascuence he visto»), eta hortaz argitaratzea gomendatu zuen: «este compendio es acreedor a la luz pública». Artean, baina, Nafarroako Kontseiluko Contrerasek Esquilache ordezkatu zuen Arandako konde gobernuburuari argitalpen egitasmoaren eta egitasmo beronen kontrako erabakiaren berri eman zion. Arandakoak, ostera, Nafarroako Kontseiluaren erabakia berretsi ez ezik, euskarazko argitalpen guztietara ere hedatu zuen:

Es muy conforme la reflexión de inconvenientes que en el día podría traer la impresión en vascuence de la Vida de San Ignacio, y el acuerdo tomado por ese superior tribunal para suspender la licencia de imprimir, que V. S. me avisa en carta de 25 del pasado en ausencia del Virrey./ A esto se agrega el reparo político de convenir hacer impresiones en otra lengua que la castellana, inteligible a toda la nación, y así por regla general se denegarán por ese Consejo, sin especial noticia mía; archivándose la obra original de la Vida de San Ignacio en vascuence, con el expediente de su impresión, y copia de esta orden, para que no se contravenga; haciendo entender esta providencia a los impresores de ese Reino, para que no aleguen ignorancia, castigando severamente cualquier contravención. (Lopetegui 1973: 21-22)

Nafarroako Kontseiluak eragozpenik gabe onartu zuen Arandaren debekua («se halla el Consejo prevenido por carta de 1º del presente mes del Excelentísimo Señor Conde de Aranda, Presidente de Castilla, para que no se permitan impresiones en otra lengua que la castellana, inteligible a toda la nación, y que por punto general se nieguen semejantes licencias en este Consejo sin especial noticia suya»). Iruñea sei inprimitzaileei gobernuburuaren erabakiaren berri jaso izana sinarazi zitzaien, bai eta debekua haustea erakarriko lituzkeen zigorrarena ere. Inprimitzaile horien artean

Antonio Castilla zen. Honek imprimitu zituen jesuiten libururik gehienak iraizpena baino lehen. Horien artean Kardaberaren eta Mendibururen argitalpen ugari ziren. 1757 eta 1766 urte bitartean Castillak imprimituriko hogeita hiru lanetatik hamasei jesuitenak ziren, eta denak euskarakoak bat izan ezik (Astorgano 2009: 27-28). Arandakoaren debekuak eta jesuiten iraizpenak euskal literatura hasi berriari egindako kaltea hain da agerikoa ezen gehiago azpimarratu beharrik ere ez dagoen.<sup>7</sup>

Carlos III.aren erregealdiaren hasieratik bertatik jesuitak neurriak hartzen hasiak ziren errege berriak maite ez zituela susmatuta. Larramendi jakutun zen berak idatzitako zenbait lanek oztopoak zituztela: «Dejo otros escritos, que dispuestos para la prensa, están estancados por motivos políticos» (Larramendi 1973: 29). Horien artean bi izan dira Otazuk eta Diaz de Duranak bereziki arriskutsutzat jo dituztenak. *Corografía de Guipúzcoa* ospe-tsuak jesuiten barne zentsura bera ere gainditu ez eta imprimitu gabe gelditu behar izan zuen 1882ra arte. Gainera, Larramendi hil eta gero ere jesuita buruek eginahalak egin zituzten isilpean gordetzeko *Conferencias curiosas políticas, legales y morales sobre los fueros de la M.N. y M.L. Provincia de Guipúzcoa* izeneko lan probokatzalea (Otazu eta Diaz de Durana 2008: 567-575). Dena alperrik, ordea, ez baitzuten iraizpena saihestu, ez eta Kardaberazena bezalako lan xumeen kontrako zentsura ere.

Euskarako lanak argitaratzearen kontra Arandak ezarritako debekuak, gainera, luze jo omen zuen, jesuita ez zirenengan ere eragina izateraino. Juan Antonio Mogelek *Confesio eta Comunioco Sacramentuen gañean eracasteac* Iruñean argitaratu nahi izan zituenean, berriro ere Nafarroako Kontseiluaren ezetza jaso zuen (Azurmendi 2000: 511). Carlos IV.aren ministro zen Urquijo bilbotarrarengana laguntza eske zuzenduta, honek erregearen agindu bat lortu zuen Mogelen liburua argitara zedin eta, bide batez, euskarako liburuak argitaratzeko ere bai (Villasante 1979: 210-211; Alzibar 1992: 149). Azkenean 1800an Ezkeroren alarguntsak imprimitu zuen,

<sup>7</sup> XVIII. mendeko zentsura española buruzko bibliografía oso zabala da. Eskuartean erabili dudanean (Domergue 1996, Simon Diaz 2000, Reyes Gomez 2000, Caro Lopez 2003, Caro Lopez eta Bragado Lorenzo 2004, Cañas Murillo 2004) ez da Arandaren debekuaren berri jasotzen, harrigarria badirudi ere.

1766an Arandakoaren debekuaren berri jaso izana sinatu behar izan zutenen arteko lehenak zerrendan, Castilloren aurretik (Lopetegui 1973: 23). Nafarroan berriro ere euskal liburuak argitaratzeko baimena lortu arren, Mogelen lanak aurrerantzean Tolosan eta Gasteizen inprimitu ziren. Dena den, argitaratu gabe gelditutakoak ez ziren gutxi izan, batzuk babes edota dirulaguntza lortu ezinda, gorago ikusi bezala, baina zentsuraren eraginez ere bai seguruenik. Horixe gertatu omen zitzaison *Peru Abarka sailkagaitzari*. Lana prest zeukan Xemeingo erretoreak 1802 urte inguruan baina ez zuen lortu legezko baimena argitara zedin (Villasante 1979: 212). Ez da harritzekoa baimen gabezia horri zentsuraren kutsua hartu izana auzia aztertu duten zenbait ikertzailek (ikus Alzibar 1992: 181).

Euskal literaturaren eremuan gertatzen ari zena ulertzeko, beraren inguruau eta hortik kanpo bizi izandako giroa ere gogoan izan beharra dago. XVIII. mendean eta batez ere bigarren erdian zentsura zentralismoaren tresnetariko bat bilakatu zen euskaldunen diskurtso identitarioaren aurrean, gaztelaniaz idatzitakoarenean ere. Joxe Azurmendik zuzenbidearen eta historiaren alorretan gertaruriko zenbait zentsura kasuren berri jaso du (Azurmendi 1985: 384). Adiskideen Batzarra bera ere ez zegoen estatu-zentsuraren eraginetik kanpo nazio identitateari buruzko gaiei zegokienean. Hiru probintzien «historia nazionala» idatzia zutela, argitaratzeko eskabidea Gaztelako Kontseiluari zuzendurik, honek Real Academia de la Historia erakundeari zentsura egitea eskatu zion, zeinak ez bait zion aurrepiderik eman inprimitzeko prozesuari (Ortiz de Urbina 1997). Gobernuaren zentsurak Batzarraren estatutuetan euretan ere jo zuen, hiru probintzien arteko bateratze egitasmoari buruzko aipamen oro kendu arazi baitzuen gobernu auzietan muturra sartzea zelakoan (Ortiz de Urbina 2006). Izan ere, ohore eta ospe iturri zen Adiskideen Batzarra bezalako erakundeetako bazkidetza, baina «Real Academia» tituluaren eta beronek zekarren dirulaguntzaren truke Monarkiak erakunde horien kontrol ideologikoa ziurtatzen zuen (Gutuia 2008: 70).

Aipagarriak dira bestalde Batzarkideek Inkisizioarekin ere izandako arazoak. Arazoak, ordea, kide batzuek jasandako salaketetan gauzatu ziren, argitalpen zentsuretan baino gehiago. Salaketetarako arrazoien artean liburu debekatuen jabetza zegoen. Voltaire eta Rousseauenak izateagatik

Egia eta Samaniego salatuak izan ziren (Areta 1976: 65-66). 1792an Inkisizioaren aurrean Frantziako Iraultzaren aldeko zenbait gazeta eta paper zebiltzala salatu zutenetariko bat Juan Antonio Mogel dugu. Elizgizon zorrotza, 1794an Inkisizioaren liburu ikuskatzaile izateko eskaria zuzendu zion inkisidore nagusiari, bai eta kargua lortu ere (Alzibar 1992: 142-143). Bada go ordea Mogelek Rousseau testuetatik ezagutuko zukeela uste duenik, idazle honen lanak Inkisizio españolaren indexean aurkitu arren (Apalategi 2005: 46). Inkisizioaren liburu ikuskatzaile selektiboa ote zen Mogel?

XVIII. mende hondarrean erlijioaren defentsari eta Frantziako Iraultzaren aldeko propagandaren zabalkundea eragozteari zegokionean estatuak eta Elizak bat egin zuten. Erakunde bion arteko akordioak, ordea, ez zuen Mogel babestu estatuaren zentsuratik, gorago agerian geratu denez, eta *Comunio ona* lanak azkenean inprimitzeko baimena lortu bazuen ere, *Peru Abarka* ausartagoak ez zuen oztopoa gainditu, apaizen hizkuntza gaitasuna hobetzeko onuragarria izango zela aldarrikatu arren sarreran idazleak (Mogel 1990: 35).

Elizaren agintepean zentsura ez ezik, autozentsura kasu aipagarririk ere bada; Juan Bautista Gamiz koadjutore edo anaia legoak bizi izandakoa esate baterako. Jesuiten arteko koadjutoreek ez zuten idazterik baimen berezia eskatu ezik. Hori dela eta Gamizek ezkutuan idazten zituen poesiak. Jesuitak iraiztean Gamizen poesiak biltzen zituen kartapazioa La Anunciada Iruñea ikastetxean umezurtz eta izengabe gelditu zen handik Loiolara era man zuten arte, baina luze itxaron behar izan zen haren jabea identifikatu eta azkenik inprimitu ere egin baino lehen. Azkenean Jon Goikoetxeak identifikatu, aztertu eta argitaratu zuen 1980 urtean (Goikoetxea 1980).

#### 4. Ondorio gisa: *Naissance de l'écrivain?*

Inguruko literatur tradizioen gorakada ekarri zuten baldintzen artean giro akademiko indartsua, mezenasgo oparoa eta zentsura eraginkor baina mugatua aipatu izan dira. Mendebaldeko euskal literaturaz den bezainbatean XVIII. mendean eta XIX.aren hasieran egoera ezin bestelakoagoa da. Akademiei dagokienez, ez estatuak, ez foru erakundeek eta ez apezpikuek ere

dute akademia edo antzeko erakunderik eratzen euskal letren berariazko garapenerako. Horren ordez ekimen pertsonalak ageri dira akademien zereginak edo zereginetako batzuek betetzen. Euskaraz idaztearen alde mezenasgoaren bitartez jarritako baliabide ekonomikoak urriak dira. Zentsurak, azkenik, gogor jo zuen, batez ere Arandako kondearen debekuaren eraginez.

Eta hala ere, lorpenak ez ziren nolanahikoak izan. Euskal literaturaren alorra Euskal Herri penintsularrean, alor berezitu gisa, alor literario espainolean jaio zen. Horretarako behin eta berriz gaztelaniaz idazterea bultzatzen zituen joera indartsu bitatik askatu behar izan zituzten euren buruak literaturaren alorreko eragileek: (a) gaztelaniaz –edota latinez– soilik idazteko *habitus*-etik eta (b) euskara hizkuntza barbarotzat eta idazteko ez gaitzat jotzen zuen ideia errrotutik, biolentzia sinbolikotik alegia. Seguru asko ez zen kasualitatez gertatu biolentzia sinbolikoak eraginkor izateari utzi eta lasterrera azaltzea zentsura gero eta jokaera zentralistagoa garatzen ari zen estatuaren aldetik, hizkuntza eta kultura batasunerako (monopoliorako) helburua auzitan jartzen zuenez gero gaztelania ez beste edozein hizkuntzaren erabilerak.

Estatu boterearen eremutik nekez sortuko zen euskal literaturaren alorra. Erlilioaren eremuan baldintza egokiagoak aurkitu ziren elizak bere helburuetarako behar bait zuen euskarazko diskurtso garatua, idatzizko erabilera etatik hurbilagokoa. Eta hemen ere, apezkikuen babesak mugatua zen. Ordena batzuetako zenbait gizabanakok gaztelaniaz sermoiak egitea eta idaztea eskatzen zuen joera nagusitik bereiztean hasi zen euskal liteturaren alorra ere bereizgarri gertatzen. Horrexek berak azaltzen du Euskal Herri penintsularreko euskal literaturaren alorrak erlilioaren alorrarekiko heteronomia.

#### 4.1. Biolentzia sinbolikotik iraultza sinbolikora

Euskal letren alorrean murgildutako eragile zenbaitek garai berriak bizi zituztela zeritzoten XVIII. mendean. Amaitzan ari zen euskararen idazmenarako ezintasuna eta euskaldunen hizkuntz-elegantziarako gaitasun ga-bezia ontzat jotzen zuen aroa.

Elegantzia hizkuntzen ezaugarri gorena zen garaian Errenazimenduko humanistek eskolastikoen kontra garatutako borrokaren ondoren, Gaztelako salatzaleen esanetan euskara garbitasunik (*puritas*) eta ulergarritasunik (*perspicuitas*) gabeko hizkuntza omen zen, elegantziarik gabekoa beraz.

XV. mendetik zetorren salaketa topiko honi beste bat gehitu zitzaion XVII. mende hasieratik behintzat: Euskal Herria poetarik gabeko lurraldea zela, he-men sekula ez zela poetarik sortu, ezina zela halakorik gertatzea (Bijuesca 2010). Aldi berean topiko (meta)literarioa zen ere Gaztelan poetek gainez egiten zute-la (Gutierrez 2005: 60-62). Poetak edota idazleak ugari diren tokian akademia poetiko-literarioak sortzeko aukerak ere askoz handigoak izango dira, eta alderantziz poetarik ez dagoen horretan. 1600. urte inguruan Madrileko hirigortean literaturaren garapenerako gertatu ziren baldintza ezin hobeak ezagutu ez arren, mugaz honako Euskal Herrian poetarik egon zela badakigu, Lazarraga bera esate baterako, bere buruari «el poeta» zeritzona antonomasiaz, baina gor-te inguruko giro literario emankorrean murgilduriko idazleek behin eta berriro ukatu zuten hori, *euskara eta poesia* (garaian literaturaren hitz baliokidea hein handi batean) elkarri lotu ezinezko kontzeptuak bailira.

Topiko honen oihartzunak XVIII. mendean ez ziren soilik biziak, ezpada euskaldunen artean ere hedatuak eta onartuak. Horren lekuko Juan Bautista Gamiz dugu. Iruñeako jesuiten ikastetxean diruzain zen koadjutore arabar honek oso epai zorrotzak merezi izan ditu egungo kritikaren aldetik: «Gamiz ez da poeta. Bertsogile gehienez ere, txaldan eta baldatxik aski due-na gainera» (Goikoetxea 1980: 208). Edozein dela Gamizen ekoizpen poetikoaz dugun iritzia, ez dago ukatzerik lekuko aparta dugula XVIII. mendeko praktika literarioak ezagutzeko. Gaztelaniaz idatzi zuen poema humoresku batean hala zuzentzen zaie iruindarrei: «Venid locos Irunchemes / ¿quién os mete en el Parnaso / ni montar el Pegaso / si sois unos cascabelles? // Nunca hubo en este clima / quien fuese alumno de Apolo / ni hay noticia de un solo / desde Pamplona a la China»<sup>8</sup> (Goikoetxea 1980: 72).

Joera berekoa dugu honako hau ere, non arabarra (eta euskalduna, he-men aitortu ez arren) izateagatik bertsogintzarako ezgai balitz bezala irudika-

---

<sup>8</sup> Gamizen ahapaldiak, gaztelaniaz nahiz euskarazkoak, grafia gaurkotuaz aldatu ditugu.

tzen zuen bere burua, ohizko kutsu humoresuaz, *vizcaino* esteriotipatuei egotzitako barbarismo eta laburkeria salaketekin nahasita: «Mi Dueño y Señor Marqués / derrepente y en la mesa / no me mande a mí esta empresa / de coplas, aun de pies / porque de un pobre Alavés / no hay que esperar agudezas / sino es algunas simplezas / que enfaden sin divertir / y así no gusto decir / zaborreras subtilezas» (Goikoetxea 1980: 69).

Bat batean gaztelaniaz neuritzak idazteari utzita, zenbait urteren ondoren berriro ere ekin zion poemagintzari, baina euskaraz oraingoan, –nahiz eta trebakuntzarik ez duen hizkuntza honetan–, bere borondateak halaxe jardutea eskatzen baitio: «Erderaz eztuzu nahi, / ene biotza; / euskeraz kopla egiten / eztut nik lotsa. / Ikusko deugu / ahal badaigu egin zerbait / nola behar degu. // Gaizki badoaz ere, / horra euskeraz / ifin naiz hau egiten / neure bildurraz. / Egizu farre, / gaizki mintzatzen badut / lotsarik bage» (Goikoetxea 1980: 199).

Aro berri baten hasiera bizi zela Adiskideen Bazarreko kide edo hurbileko batek ere aditzera eman zuen poetarik gabeko lurrardearen topikoa gogoratu eta gainditutzat jotzen zuen bitartean, Altzibarrek argitaraturiko *Carta incompleta alabando los trabajos realizados por la R. S. B. al campo literario* gutunaren pasarte batean:

¡Qué feliz mudanza la que estamos experimentando! Tiempos hubo en que el ingenio de los Vascongados estaba reputado por estéril, e infecundo como el país montuoso que habitan. Tiempos hubo en los que este pequeño rincón de España era considerado como si le desconociesen las musas, y su aspereza natural impenetrable a las benéficas influencias de Minerva. (Altzibar 1985: 1132, 6. oh.)

Aipuak aurrera egiten ez badu ere, ondorioa esan gabe doa: gutungilearen orainean Minerbaren eragin onuragarriak eta musak txoko honetan bertakotuak dira. Hori idatzi zuenak gaztelania zeukan gogoan, ziurrenik, euskaldunek gaztelaniazko sorreran egindako aurrerakada begibistakoa zitzaiola. Baina hori bere horretan aldaketa aipagarria («feliz mudanza») izanik ere, are aipagarriagoa zen Gamizek bere xumetasunean erakutsitakoa. Izan ere, Gamizi bere idazkeraren praktikan egindako hizkuntza aldaketaren ondorioak ageriko egiten zaizkio. Euskaldun izanik, lehen ere bazen gai euskaraz idazteko. Orain, ostera, lehenago ez bezala, bere burua legitimatuta

sentitzen du euskarazko poesia idazteko. Eta horretan lagunduko zuen Iruñeako jesuiten La Anunciada ikastetxean bizi zen giroak, handixek bideratzen bait ziren jesuiten euskarazko argitalpen ugari, Mendiburu eta Kardaberazena bestea.

Aldi honetan gertaturikoa Bourdieu iraultza sinbolikoa deituko lukeena izan zela esatea ez da gehiegikeria. Izan ere Gamizen lekukotasunak pertzepzio kategorien aldaketa nabarmena adierazten du, euskaraz idaztea egingarri, zilegi eta egoki dela onartzen duen heinean, eta beraz ordura arte gaztelaniari atxikitako kapital sinbolikoaren monopolioa ere hautsi den heinean. Bourdieuren beraren hitzetan esateko:

Debido a que las estructuras de percepción y de valoración son en lo esencial fruto de la incorporación de las estructuras objetivas, la estructura de la distribución del capital simbólico tiende a presentar una estabilidad muy grande. Y las revoluciones simbólicas suponen una revolución más o menos radical de los instrumentos de conocimiento y de las categorías de percepción. (Bourdieu 1997: 175)

Kapital sinbolikoa duenak biolentzia sinbolikoa erabili ohi du. Ez zen besterik Euskal Herria poetarik gabeko herrialdea zela ontzat ematen zuen iritzia. Biolentzia sinboliko horrek eraginkor izateari utzi zion une berean zentsuraren biolentzia agertu zen. Horrexek berak adieraziko luke euskara idazmenerako erabiltzea zenbateraino zen iraultza sinbolikoa: «Las auténticas revoluciones simbólicas son sin duda aquellas que, más que al conformismo moral, ofenden al conformismo lógico, desencadenando la despiadada represión que suscita semejante atentado contra la integridad mental» (Bourdieu 1997: 93). Agian Arandaren dekuak bazuen zerikusirik euskarazko argitalpenak hartzen ari ziren indarrarekin. Gaztelaniaz soilik idaztera bultzatzen zuen «conformismo lógico» horren amaiera heldua zen.

#### **4.2. *Habitus berri baten eraikuntza***

*Euskararen liburu zuria-n* bilduriko «Euskararen bide luze bezain malkarrak» atalean Mitxelenak euskaraz idazteko ohituraz ondorengo hausnarkesta eskaini zigun:

Hizkuntza lantzean daukagun atzerapenaren frogña zuzena Iztueta da, bera baita XIX. mende aurreratuxean erlijioaz ez diren gaiez hitz lauz ari den lehen laikoa. Gehi diezaiogun honi, Joan Antonio Mogel eta fray Bartolomeren gisako idazleak gaztelania hutsez ari izan zirela, dakigun heinean, beren eskutitz, ohar eta eztabaidetan, halako ohitura oraintsu arte iristen delarik. Ez da ere ahaztu behar Luis Eleizalde, beste askoren antzera, ez zuela euskara erabili *Landibar*, bere nobela bakana, idatzi zuenean. Jendea politikaz bereganatu nahiak bultzatu zuen horretara dudarik gabe, ezin ukatuzko arrazoia, baina tartean bazegoen sendo tinkaturiko usadioaren zama. (Mitxelena 1988b: 1018)

Mitxelenaren hitzak abusiboki interpretatzea ez bada, zilegi bekit aipuko «usadioaren zama» eta «halako ohitura» esamolde horiek Bourdieuaren *habitus* kontzepturekin identifikatzea. *Habitus* zera da: «el habitus, como el propio término indica, es un conocimiento adquirido y un haber que puede, en determinados casos, funcionar como un capital» (Bourdieu 1995: 268); «[...]os habitus son principios generadores de prácticas distintas y distintivas [...]"; pero también son esquemas clasificatorios, principios de clasificación, principios de visión y de división [...]» (Bourdieu 1997: 20).

Gaztelaniaz idazten jakitea zenbateraino balioetsi zen euskaldunen artean Monarkia Hispanikoaren administraziora (burokraziara, hezkuntzara, ejerzitora, merkataritzara) bideraturiko euskaldun andanak erakutsi du, benetako kapital kulturaltzat jotzen baitzen trebetasun hori menderatzea. Trebetasun horren jabetza ohitura errrotua ere bazen, arrazoi askoren artean eskolaren bitartez behin eta berriro birrekoizten zen aukera bakarra zelako, bai eta estatuarekiko harremanetarako onartzen zen hizkuntza bakarra ere. Hortaz, joera horretan murgildurik bizi izanda euskaraz ere idazteko ohitura berria garatzea lorpen neketsua bezain aipagarria izan zen. Mitxelenak gogora ekarri bezala, oraindik XVIII. mendean ugari dira euskararekin batera gaztelania ere erabiltzen duten idazleak zenbait genero eta diskurtso mota berezitarako. Izan ere, dotrinekin hasi eta apurka apurka soilik gaztelaniari eremu berriak hartuko dizkio euskarazko idazkerak, eta beti ere gaztelaniarekin lehian. Laramendik berak gaztelaniaz idatzi zuen gehienetan hala ere haren jardueraren kutsu akademikoa ezinbesteko erreferentea gertatu zen *habitus* berria garatu eta hedatzeko.

Estatuak letron alorrerako berariaz jarritako baliabideek ordea, —alegia akademik, mezenasgoak eta zentsurak— euskal literaturaren garapena erraztu ez ezik, sarritan galerazi ere egiten zutela ikusi dugu, bai eta gaztelaniaz idaztea lehenesten zuen ohiko *habitus* bera zaindu eta, ahal izanez gero, indartu.

#### 4.3. Idazlea?

Egungo konbentzioari eutsirik, behin eta berriro *idazle* hitza erabili dut, «literaturaren arloan, hizkuntza helburu artistikoak lortzeko erabili ohi duena» (Jon Kortazarren arabera *Literatura Terminoen Hiztegian*), jakinik ordea erabili izan dudan bakoitzean anakronismoan erori naizela, Viala ez bezala *écrivain* erabili duenean, horixe baitzen XVII. mendean idazle frantsesek hobesten hasitako hitza. *Orotariko euskal hiztegiak* dioenez, *idazle* XX. mendeko hitza dugu eta orduan ere idazlea alor literario-kulturalean eta politikoan —bietan batera ia bereizketarik gabe— jokatzen duen eragilea da, Bernardo Atxagaren belaunaldiak iraultza sinboliko berri bat erditu zuen arte: alor literarioaren autonomia alegia (Apalategi 2000). *Idazle* hitza asmatu baino lehen *autor(e)* eta *poeta* dira historikoki erabilitakoak, *eskribatzaile* Iparraldekoarekin batera.

XVIII. mendeko gure idazleak, bizitza literarioaren erakundeen ahulatsunak baldintzaturik, nahi ta ez beste tasun batzuez orniturik (edo gabeturik) aurkitu ditugu. Eta hala ere, haien arteko askorengan idazle senaren aztarnak agerikoak dira. Hona hemen adibide banaka bat. Larramendik «escritor» eta «autor» dio bere buruaz (Larramendi 1973: 26). Zarauzko ikastetxean, frantziskotarren artean egin ohi zenez, «escritor titular» delakoa izan zuten. Bertako bezeroak dioenez, izendapen hori lortu zutenen artean han bizi izandako idazole garrantzitsuenak ziren: Añibarro eta Juan Mateo Zabala (Villasante 1974: 308-309 eta 320-321). Mogelek «Marquiniaco Cura» tituluaz aipatzen du bere burua beraren argitalpenetan (Altzibar 1992: 164). Hala ere, idatzi zituen lanak argitaratzeko mezenasgoaren bilaketan nekaezina zela erakutsi zuen, idazle sena duen norbaiti dagokionez. Jakingarriak lirateke idazoletako bakoitzak eta euren garaikideek letron alorrean erabilitako estrategiak, lorturiko posizioak eta garaturiko ibilbideak alorraren ikuspegia oso eta zehatzagoa lortze aldera, baina hori beste egitasmo bat dateke.

## Lan aipatuak

- ALTZIBAR, X., 1985, «Euskara Adiskideen Batzarrean», in *Symbolae Ludovico Mixtelen septuagenario oblatae*. J. L. Melenaren ed. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2. liburukia, 1119-1135.
- \_\_\_\_\_, 1986, «Euskaldunen nazio eta hizkuntza (1770-1830)», *Euskera*, 33 (1986) 17-45.
- \_\_\_\_\_, 1992, *Bizkaierazko idazle klasikoak*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia.
- \_\_\_\_\_, 2004, «Dotrina, erretorika eta erudizioa Mogelen erlijio liburueta», *Lapursum IX* (2004) 23-38.
- ALTUNA, B., 2003, *Euskaldun fededun*. Euskaldun ona izateko modu baten historia. Irun: Alberdania.
- ALTUNA, P., 2002, *Haizeak ez eramango!*. Elixabete Perez Gaztelu eta Esther Zulaika Ijurkoren ed. Donostia: Deustuko Unibertsitatea.
- ALVAREZ BARRIENTOS, J., 2007, «Mecenazgo y escritura en los tiempos de Leandro Fernández de Moratín», *Cuadernos de Historia Moderna, Anejos*, 6 (2007) 99-117.
- APALATEGI, U., 2000, *La naissance de l'écrivain basque. L'évolution de la problématique littéraire de Bernardo Atxaga*. Paris eta Montreal: L'Harmattan.
- \_\_\_\_\_, 2005, «Heziketa literarioaren kezka, Peñafloridatik Mogelera», *Lapursum IX* (2005) 39-47.
- ARANA MARTIJA, J. A., 2002, «Frantziskotarrak eta euskera», *Euskera*, 47 (2002) 827-841.
- AREJITA, A., 1999, «Peñafloridaren literatura eta hizkera ekarriaz», *Euskera*, 44 (1999) 107-128.
- ARETA ARMENTIA, L. M., 1976, *Obra literaria de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*. Gasteiz: Institución «Sancho el Sabio».
- ASTORGANO, A., 2009, *La literatura de los jesuitas vascos expulsados (1767-1815)*. Madril: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País.
- AZURMENDI, J., 1985, «Irakaskuntza eta pentsamendua Euskal Herriko historian», in *Euskal Herria. Historia eta Gizartea*, J. Intxaustiren ed., Oiartzun: Lan Kide Aurrezkia, 1. liburukia, 357-386.

- \_\_\_\_\_, 2000, *Espainolak eta euskaldunak*. Donostia: Elkarlanean.
- BIJUESCA, K. J., 2010, «Literatura eta mezenasgoa XVI eta XVII. mendeetako Euskal Herri Penintsularrean: Mikoletaren ‘Vuestra Merced’-en aitzakiaz», *Oihenart*, 25 (2010) 7-40.
- BOURDIEU, P., 1995, *Las reglas del arte. Génesis y estructura del campo literario*. Bartzelona: Anagrama.
- \_\_\_\_\_, 1997, *Razones prácticas. Sobre la teoría de la acción*. Bartzelona: Anagrama.
- CAÑAS MURILLO, J., 2004, «Inquisición y censura de libros en la España de Carlos III: la Real Cédula de junio de 1768», *Anuario de estudios filológicos*, 27 (2004) 5-11.
- CARO LÓPEZ, C., 2003, «Los libros que nunca fueron. El control del Consejo de Castilla sobre la imprenta en el siglo XVIII», *Hispania: Revista Española de Historia*, 63, 213 (2003) 161-198.
- CARO LÓPEZ, C. eta BRAGADO LORENZO, J., 2004, «La censura gubernativa en el siglo XVIII», *Hispania: Revista Española de Historia*, 64, 217 (2004) 571-600.
- DOMERGUE, L., 1996, *La censure des livres en Espagne à la fin de l'Ancien Régime*. Madril: Casa de Velázquez.
- ECHENIQUE, M. T., «Campomanes y el proyecto de un gran diccionario vasco», in *Symbolae Ludovico Mixelena septuagenario oblatae*. J. L. Melenaren ed. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2. liburukia, 1089-1096.
- ESTÉVEZ, X., 1992, «El Libro Viejo de Guipuzcoa del bachiller Juan Martínez de Zaldibia» (erreseña), *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, XXXVII-2 (1992) 423-426.
- ETXEBARRIA, N., 2005, *Frantziskotarren artxiboak. Euskarako sermoi eta antzeko eskuizkribuen katalogoa (XVIII-XX)*. Bilbao: Labayru Ikastegia, Arantzazu E. F. eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.
- ETXEBARRIA, N. eta APRAIZ A., 2009, *Bizente Sarria (1767-1835). Sermoitegia*. Bilbao: Labayru Ikastegia, Etxebarriko Udala eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa.
- EUSKALTZAININDIA, 2010a, *Orotariko Euskal Hiztegia*. <<http://www.euskaltzaindia.net/oeh>>
- \_\_\_\_\_, 2010b, *Literatur Terminoien Hiztegia*. <<http://www.euskaltzaindia.net/lth>>

GOIKOETXEA, J., 1980, *Juan Bautista Gamiz Ruiz de Otero. XVIII. mendeko arabar euskal-erdal olerkaria*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia eta Euskaltzaindia.

GUNIA, I., 2008, *De la poesía a la literatura. El cambio de los conceptos en la formación del campo literario español del siglo XVIII y principios del XIX*. Madril eta Frankfurt am Main: Iberoamericana eta Vervuert.

GUTIERREZ, C. M., 2005, *La espada, el rayo y la pluma. Quevedo y los campos literario y de poder*. West Lafayette, Indiana: Purdue University Press.

INTXAUSTI, J., 2004, «Eliza katoliko errromatarra eta euskara», *Euskera*, XLIX (2004) 811-873.

LARRAMENDI, M., 1728, *De la antigüedad y universalidad del bascuñen en España*. Salamanca: Eugenio García de Honorato.

\_\_\_\_\_, 1729, *El imposible vencido. Arte de la lengua vascongada*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo.

\_\_\_\_\_, 1745, *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*. Donostia: Bartolomé Riesgo y Montero. (Ed. faksimila: 1982, Donostia: Txertoa).

\_\_\_\_\_, 1973, *Autobiografía y otros escritos*. J. I. Tellechea Idigorasen ed. Donostia: Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.

\_\_\_\_\_, 1982, *Corografía: o descripción general de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa*. J. I. Tellechea Idigorasen ed. Donostia: Larrun.

LASAGABASTER, J. M., 2002, *Las literaturas de los vascos*. A. Toledoren ed. Donostia: Deustuko Unibertsitatea.

LOPETEGUI, L., 1973, «Introducción», in A. Cardaveraz, *Euskal lan guztiak*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1. liburukia, 5-47.

MALAXECHARRIA, J., 1926, *La Compañía de Jesús por la instrucción del pueblo vasco en los siglos XVII y XVIII: ensayo histórico*. Donostia: San Ignacio.

MITXELENA, K., 1988a, «Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak», in L. Michelena, *Sobre historia de la lengua vasca*. J. A. Lakarraren ed. Donostia: ASJUren gehigarriak, 2. liburukia, 680-693.

\_\_\_\_\_, 1988b, «Euskararen bide luze bezain malkarrak», in L. Michelena, *Sobre historia de la lengua vasca*. J. A. Lakarraren ed. Donostia: ASJUren gehigarriak, 2. liburukia, 1011-1023.

\_\_\_\_\_, 1988c «Euskal-iztegigilpeak XVII-XVIIIgarren mendeetan», in L. Michelena, *Sobre historia de la lengua vasca*. J. A. Lakarraren ed. Donostia: ASJUren gehigarriak, 1. liburukia, 361-372.

MOGEL, J. A., 1854, «Cartas y disertaciones de Don Juan Antonio Moguel sobre la lengua vascongada», *Memorial histórico español*. Madril: Real Academia de la Historia, VII. liburukia, 661-753.

\_\_\_\_\_, 1990, *Peru Abarka*. A. Arejitaren ed., Donostia: Euskal Editoreen Elkartea.

ORTIZ DE URBINA, C., 1997, «La «Historia Nacional» de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País: identificación de dos manuscritos depositados en el Archivo del Territorio», *Sancho el Sabio*, 7 (1997) 341-346.

\_\_\_\_\_, 2006, «La Patria común Bascongada: una quimera soñada por los Amigos del País», *Sancho el Sabio*, 25 (2006) 25-50.

OTAZU, A. eta DÍAZ DE DURANA, J. R., 2008, *El espíritu emprendedor de los vascos*. Madril: Silex.

REYES GÓMEZ, F., 2000, *El libro en España y América: legislación y censura (siglos XV-XVIII)*. Madril: Arco.

SIMÓN DIAZ, J., 2000, *El libro español antiguo: análisis de su estructura*. Madril: Ollero y Ramos.

TELLECHEA IDIGORAS, J. I., 1985, «Larramendi en las Mémoires de Trevoux (1748)», in *Symbolae Ludovico Mitxelena septuagenario oblatae*. J. L. Melenaren ed. Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2. liburukia, 1075-1088.

TORREALDAI, J. M., 1998, *El libro negro del euskera*. Donostia: Ttarrtalo.

URKIZU, P., 2000, *Historia de la literatura vasca*. Madril: UNED.

VIALA, A., 1985, *Naissance de l'écrivain: sociologie de la littérature à l'âge classique*. Paris: Editions de Minuit.

VILLASANTE, L., 1974, «El colegio de misioneros de Zarauz (1740-1840)», *Scriptorium Victoricense*, 21 (1974) 281-330.

\_\_\_\_\_, 1979, *Historia de la literatura vasca*. Oñati: Editorial Franciscana Aranzazu.

# Bertso-paperen eta baladen sailkapenez gogoetak & oharrak edizio baterako

URKIZU, Patri

UNEDeko irakaslea eta euskaltzain urgazlea

Jasotze data: 2011-03-11

Onarpen data: 2011-06-24

Lan honetan euskal literaturaren historia osatzerakoan bertso-paperek eta baladek duten lekuaz egiten da gogoeta. Horretarako, lehenik, bertso-paperak eta baladak sailkatzeko egin diren saioen berri eman da, horietan erabilitako irizpideak aztertuz; eta ondoren, euskal literaturaren bilakaeran bertso-paperak eta baladak kokatzeko proposamen eta sailkapena egin da.

**Hitz-gakoak:** literaturaren historia, periodizazioa, ahozko tradizioa, bertso-paperak, balada.

En este trabajo se reflexiona sobre el papel que les corresponde a los versos escritos y a las baladas, a la hora de conformar la historia de la literatura vasca. Para ello, en primer lugar se da noticia de los intentos por clasificar los citados versos escritos y baladas, y los criterios utilizados con ese fin. Seguidamente se hace una propuesta para clasificar y situar los citados versos y baladas, en el desarrollo de la literatura vasca.

**Palabras clave:** historia de la literatura, periodización, tradición oral, versos escritos, balada.

Ce travail est une réflexion sur la place qu'occupent les vers écrits et les ballades dans l'histoire de la littérature basque. On étudie d'abord les tentatives de classement de ces vers écrits et de ces ballades ainsi que les critères qui ont été utilisés pour cela. Il s'agit ensuite d'une proposition pour classer et situer ces vers et ballades dans la littérature basque.

**Mots-clés :** histoire de la littérature, périodisation, tradition orale, vers écrits, ballade.

This paper reflects on the place occupied by popular written verses and ballads in the history of Basque literature. Firstly, it reports on the attempts to classify written verses and ballads by analysing the criteria used for this purpose; and secondly, it puts forward a proposal to classify written verses and ballads and situate them within the evolution of Basque literature.

**Keywords:** the history of literature, periodisation, oral tradition, popular written verses, ballad.

La narración en verso, especialmente si es de origen popular, más que fuente de poesía suele ser, de ordinario, vertedero de humorismo. Si, transciendiendo este carácter y subiendo por lo mismo su interés, canta sucesos trágicos, la varita clasificadora del folklorista la hace saltar de su puesto incluyéndola en el número de endechas y elegías. Cuando, sin remontar tan alto, la narración es de sucesos imaginarios que borda la fantasía, la creación del poeta pide otro grupo en que alistarse y pasa al de los romances.

Resurrección M<sup>a</sup> de Azkue, *Cancionero Popular Vasco*, T. II, Bilbao 1918, Reed. 1968, 728.

[...] Es indudable que las baladas vascas podían, o podrán en el futuro, publicarse de otra forma; **con otros títulos y otra ordenación**; añadiendo y suprimiendo temas o versiones; con estudios por menorizados, narratológicos, históricos, etnográficos o lo que se deseé en cada tema; con índices, gráficos y mapas, etc., etc.. Pero esto sería otra obra, no necesariamente mejor ni más útil, y no la de Zavalala. Con *Euskal errromantzeak* disponemos de la compilación más copiosa de baladas del País Vasco nunca publicada. Varias decenas de excelentes textos, con sus melodías, se incorporan definitivamente al patrimonio cultural euskérico, y se ha evitado que colecciones casi míticas como las de Augustin Chaho y Aitzol siguieran permaneciendo ocultas o se perdieran para siempre. Los textos, editados con rigor, puntuados de forma coherente, y **ordenados por temas** facilitarán la lectura y ahorrarán la consulta simultánea y enojosa de libros, artículos de revista y otras fuentes, a quien desee conocer todos los testimonios conocidos de una balada concreta.

Jesús Antonio Cid, «Romancero hispánico y balada vasca», *Antonio Zavalaren ohoretan*. Deustuko Unibertsitatea. Bilbao, 2000, 100.

Zein izan daitezke irizpide nagusiak **EUSKAL LITERATURAREN ANTOLOGIA** bat moldatzerakoan? Zein epetan edo kultura mugimendutan berezitu behar da? Nolako aldizkatze edo periodizazioak egin behar dira? Ipar eta Hego Euskal Herrien berezitasunak nola isla daitezke? Sailkapen kronologikoa edota jeneroka egin behar da? Zein iritziren arabera? Non eta nola kokatu behar ditugu kanta zaharrak, baladak edota bertso-paperak? Galdera hauek gure Euskaltzaindiako Literatur Batzordeko, (LIB)-eko bil-

kuretan eztabaidea eta sesio luzeak sorrarazi dizkigu eta ene oraingo solasa ildo hortatik doa. Ea zerbaitetarako balio duen.

Ez da benetan erraza poesiaren edo bertsoen antologia bat egiterakoan aurkitzea irakurle guztien edo are gutxiago adituen gogoa erabat asebeteko duen soluzio magikoa. Beraz, prestatzen ari den ANTOLOGIArako agian eztabaidagarri eta irizpide zenbait finkatzeko baliagarri izan daitezkeelako hasi naiz gogoeta hauek prestatzen.

1. Esan behar dut, dena den, Antonio Zavalaren hondarea konpontzen eta digitalizatzen ari direnez Donostiako KM kulturunean, hemengo nire gogoetak baldintzatuak daudela eta ezin daitezkeela izan ez exaustiboak, ez betirakoak, partzialak eta bapatekoak baizik. Lehenik, beraz, katalogatu beharko lirateke bertso-paper guztiak, zuzen zuzen, katalogo honetan zehaztuz ahal balitz: egilea, bilduma<sup>1</sup>, inprimategia<sup>2</sup>, urtea eta gaia. Eta faksimileak argitarra eman.

<sup>1</sup> **BILDUMAK:** 1. Arantzazuko; 2. Loiolakoa; 3. Frantziako Liburutegi Nazionalekoa; 4. Baionako Euskal Erakustegikoa; 5. Anton Abbadia; 6. Louis Lucien Bonaparte; 7. Agosti Chaho & George Lacombe; 8. Jose Manterola; 9. Santisteban aitasemeak; 10. Gregorio Mujika; 11. Julio de Urquijo; 12. Aitzol; 13. Ambrosio Zatarain; 14. Apalategi, 15. Manuel Lekuona; 16. Antonio Zavala...

<sup>2</sup> **INPRENTAK:** GIPUZKOA: **Azpeitia:** Pablo Martinez (...1864...); **Beasain:** Zunzunegi; **Bergara:** Francisco M<sup>a</sup> Machain (...1865...), Jose Undiano (...1850), Manuel Imaz (...1861), Juan Lopez; **Deba;** **Donostia:** Ignazio Ramon Baroja (...1829...), Pio Baroja (...1846...), Joakin Muñoz Baroja, Pozo y Cia (...1862), Biktoriano Iraola (...1903), Juan Oses y Jernet (...1875), A. Sanz, B. Ramon Sermet, La Voz de Guipúzcoa..., R. Altuna; **Eibar:** Saturnino de Diego (1915), Fernández y Diego, Pedro Orue (1895...); **Errenderia:** Makazaga (1890...), Viuda Valverde (1923...); **Hondarribia:** Pozo; **Irun:** J. Diaz, R. Fernández, R. Ferrer, B. Valverde; **Tolosa:** Pedro Gurrutxaga (...1863), Juan Ignazio Mendizabal (1826-1840), Mendizabalen alarguna (1840-1877), Eusebio Lopez (1877-1900), Lopez Mendizabal (1900-1936), Andres Gorosabel (...1854...), Modesto, Dionisio ta Jose Gorosabel (...1866), La Lama (...1860...); F. Muguerza (...1891), La Editorial Guipuzcoana; **Onate:** M. Raldua; **Villafranca:** Marqués y SA; **Zarautz:** Elustondo; **Beste zenbait:** Franco & Cia (...1859), J. Iturbe; Necazarriyen moldiztegia...

**BIZKAIA:** **Bermeo:** Gaubeka; **Bilbao:** Antonio de Eguzquiza (...1789); Simon de Larumbe (...1794); J. Basozabal (...1826); Jose Antonio Jauregui (...1829); Eusebio Larumbe (...1831); A. Depont (...1860); Echenagusia; Tipografía Vizcaina Delmas alarguna (...1883); A. Emperiale; Corazón de Jesús; **Durango:** Florentino de Elosu (...1867), Elizalde, Ondaro; **Gernika:**

2. Errazena ohi izan da egilea ezaguna denean eta honen biografia eta kronologia ezagunak direnean, sailkapen kronologikoa egitea. *Gaztaroa*-tik hasi eta (Oihenarten kasuan bezalaxe) Zahartzaroko poemekin edo azkenekoinkin bukatzeko. Baino ez da horrelakorik gertatzen ahozko kanta edota balada tradizionalen kasuan, bertso-paperak edo baladak ditugunean aztergai, egilea eta data falta baitzaizkigu askotan.

Bere etorkian baladak beti izan arren poeta zehatz baten emaitza eta sorkuntza honen gizartearren harrerak soilik bilakatzen ditu tradiziozko baladetan, diosku Cidek aipatu lanean. Hauek aldaeretan bizi dira gehienetan, ahoz aho dabiltzala aldakor baitira. Hau, ordea, ez da erabat gertatzen erromantze narratiboekin edo balada arruntak bezala deitu izan direnekin. Gainera batzuetan, garbi dago kanta zaharra baino lehenagokoak direla berso-paper gisa moldaturiko *bertso berriak*. Zeini eman lehentasuna, beraz?

Julio Caro Barojak dioenez<sup>3</sup>, Literatura historialari batek sailkapenean nagusitzat hartzen ditu orokorrean jeneroak eta formak, Ohitura historialariak, ordea, edo Antropologoarentzat gaiak dira lehenik kontutan harazkoak, zer edo zer ikusia honekin izaten ohi duten arren formek.

Angel de Goitia y Hormaechea (...1820), A Egurrola; **Portugalete**: Mariano P. Escartin (...1893)...

**ARABA: Gasteiz-Vitoria**: Juan Pujol (c. 1860), Montepío Diocesano, Manuel Vita (1861)...

**NAFARROA: Iruñea**: Ramon Goñi y Alonso (...1863), Bengarai, J. Lorda (...1880)...

**IPAR EUSKAL HERRIA: Baiona**: Imprimerie Franco-Basque (...1900), Imprimerie Foré et. Laserre (...1853), Imprimerie E. Laserre (...1855), Imprimerie P. Cazals (...1873), Lamaignère alarguna (1821-1909), C. Lousteau (1876), A. Foltzer (1920...); Lespès soeurs; **Donapaleu**: Clèdes.

**Miarritze**: Ch. Bauxon;

**EUSKAL HERRITIK AT: Burgos**: (1695); **Eskiule** (1916), **Pabe**: Toneten Alargunsa (1821), Imp. Nouvelle (1876); **Orthez**: J. Goude-Dumesnil (1873); **Akize**: Imp. Nouvelle (1882); **Foix**: Imp. Gadrat aîné (1889); **Tours**; **Buenos Aires**: Lito. La Nueva Centra. Piedad 1.041; **London**: Oop, Flan. Flin (1892); **Oxford** (1907)...

**L(eku) G(abe)**: J. Iturbe, Necazariyen moldiztegia, Jesus Otaño...

<sup>3</sup> CARO BAROJA, Julio, *Ensayo sobre la literatura de cordel*. Ediciones de la Revista de Occidente, Madrid 1969, 73.

3. Francisque Michelek jakintsuak *Le Pays Basque...*<sup>4</sup> plazaratu zue-nean, euskal literaturari eskaintzen dizkio XI-XVI kapituluak eta hauetarik lehena, *Poésies Populaires des Basques* izendatzen du honela sailkatzen dituelarik euskal kantak eta poemak:

1. Chanson politiques
2. Légendes poétiques
3. Chants funèbres
4. Romances
5. Chants de Montevideo
6. Chansons Morales
7. Satires, etc
8. Chansons diverses.

Charles August Friedrich Mähn hizkuntzalari alemanak urte berean Berlinen beste liburu bat plazaratu zuen euskarari buruz *Denkmaeler der Baskischen Sprache...* deitu zuena (Berlin 1857). Bertan euskal antologia bat ematen digu eta XX kanta<sup>5</sup>. Hauek nahas-mahas emanak dira, mota orotarikoak dira, apokrifoak, politikoak, amodiozkoak, elizakoak, alegiak, baina baita berak izendatzen dituen bezala *Chanson Érotique* eta *Chanson Bachique* de-lakoak. Ez da ageri, beraz, orden berezirik ez eta sailkapenean Michelekiko berdintasun handirik.

Julien Vinson-ek bere aldetik *Le folklore du Pays Basque*<sup>6</sup> liburu txit integarrian beste honako sailkapena ematen digu:

1. Chansons politiques
2. Chansons d'amour
3. Chansons satyriques et humoristiques

<sup>4</sup> MICHEL, Francisque, *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*. Fermin Didot, Paris, 1857.

<sup>5</sup> URKIZU, Patri, «C.A.F. Mähn-en Kanta eta Bertso Bilduma. Berlin 1857». EGAN, Donostia 1986, 13-84.

<sup>6</sup> VINSON, Julien, *Le flok-lore du Pays Basque. Les littératures populaires de toutes les nations. Traditions, légendes, contes, chansons, proverbes, devinettes, superstitions*. Tome XV. G.P. Maisonneuve & Larose, Paris, 1883.

4. Berceuses
5. Cantinèles et formulettes, etc
6. Chants de quête.

Resurrekzioan Maria Azkue eta Aita Donostiak, gure kanta biltzaile han-dienek ere beren sailkatzeak proposatzen dituzte. Azkuek bere Kantutegitik 267 hautatzen ditu eta hamaika sail bereizten ditu bere ERRI-OLERKIAK atalean<sup>7</sup>, honakoak direnak:

1. Aldartekoak (39)
2. Dantzarokoak (42)
3. Edaleenak (27)
4. Elizarakoak (18)
5. Eskelarienak (17)
6. Ezteietakoak (20)
7. Gertaridunak (12)
8. Iletak (23)
9. Ipuinak (28)
10. Oneritzikoak (31), etc
11. Seaska-ondokoak (10).

Bere aldetik, Aita Donostiarren kantutegia argitaratu zutenek<sup>8</sup> beste honako sailkapena utzi ziguten euskara eta gaztelania nahasiz:

1. Aldrebeskeriak (4)
2. Amorosa (177)
3. Artaxuriketak (32)
4. Báquica (46)
5. Carlista (3)
6. Contrabando (1)
7. Cortesía (1)
8. Cuestación-ronda (19)

<sup>7</sup> AZKUE, Resurrección María de, *Euskalerraren Yakintza* (Literatura popular del País Vasco). Espasa-Calpe, Madrid, 1947, 13.

<sup>8</sup> DONOSTIA, P., *Cancionero Vasco*. Vols VI-IX. Ed. P. Jorge Rieu, colaboradores Juan Mari Beltrán y Claudio Zudaire. Eusko Ikaskuntza, Donostia 1994.

9. Cuna (80)
10. Danza (462)
11. Elegía (1)
12. Epitalamio (6)
13. Festiva-satírica (61)
14. Guerra-milicia (14)
15. Humorística (18)
16. Infantil (51)
17. Moral (10)
18. Mutil-zaharra (7)
19. Narrativa (67)
20. Navidad (67)
21. Pelota (8)
22. Religiosa (192)
23. Trabajo (7)

Ikus dezakegunez nahaste-borraste handi-xamarra ageri zaigu gaien ordenatze honetan. Bestalde 1967an Pierre Lafitte<sup>9</sup> plazaratu *Kantu Kanta Khantore* liburuttoan honela sailkatzen dira:

1. Herria, etchea, lurra.
2. Kantu hunkigarriak
3. Jendetaszko kantuak
4. Amodiozko kantuak
5. Ixtorio-mixterio
6. Alegiak
7. Itsas-kantuak
8. Irri eta zirika
9. Ostatu kantuak
10. Haur-kantu eta sehaska-kantuak, eta
11. Orotarik: pilota-kantu, soldado-kantu, arto-xuritzeko...

---

<sup>9</sup> LAFITTE, Pierre & DASSANCE, Louis, *Kantu, kanta, khantore*. Baiona, Cordelier, 1967, 263. (Aurrerantzean KKK)

Hamaika sail dira, bada, Azkuek eta Lafittek berexi zitzuztenak sailkatze berdina ez izanik ere. Aipatu dugun lanean Caro Barojak<sup>10</sup> gaztelaniazko erromantzeak direla eta honako 25 mota ezberdin bereizten ditu:

1. Antiguos.
2. Caballerescos.
3. Novelescos; de encantos y prodigios.
4. Novelescos; de amores y aventuras.
5. Novelescos; biográficos y de «ventura» propicia.
6. De cautivos y renegados.
7. De mujeres valientes.
8. De hombres bravos y arriscados.
9. De contrabandistas y guapos.
10. De bandoleros.
11. Históricos.
12. Religiosos; hagiográficos.
13. Religiosos; castigos de Dios.
14. Religiosos; milagros e intervenciones de la Virgen María.
15. Religiosos; expositivos, didácticos.
16. Religiosos; ascéticos.
17. Casos raros y prodigios.
18. Crímenes.
19. Controversias.
20. Satíricos; sobre las mujeres.
21. Satíricos; sobre personas de distinta condición.
22. Narraciones fantásticas; cuentos conocidos en el folklore europeo.
23. Cuentos localizados.
24. Para representar; diálogos y monólogos.
25. Chascos.

Joseba Lakarra eta bestek<sup>11</sup> beren liburuaren bostgarren kapituluan Bala-den sailkapena dute gaitzat eta aipatu ondoren Di Stefano, Michèle Débax,

<sup>10</sup> CARO BAROJA, Julio, *Ensayo sobre la literatura de cordel*. Ediciones de la Revista de Occidente, Madrid 1969, 73-74.

<sup>11</sup> LAKARRA, Joseba; BIGURI, Koldo; URGELL, Blanka («Maria Goyri» Mintegia, *Euskal baladak. Antología eta azterketa*. Hordago, Donostia, 1983).

Matthew Hodgart edota Menéndez Pidal artxiboaren argitaratzaileak bi irizpide jasotzen dituzte aipatu edizioan: 1. Hedadura, hots, euskal tradizioan soilik ala beste tradizioetan ere gertatzen diren, eta 2. Gaiak. Eta hauek aurkibidearen arabera honela dituzte sailkatuak:

1. Epikazkoak
2. Maitasuna eta bere ondoriozkoak
  - 2.1. Andere adulteriogileak
  - 2.2. Bahiketak eta sedukzioak
  - 2.3. Maitasun kontrariatuak
  - 2.4. Heriotzaz beste aldeko maitasuna
  - 2.5. Maitasun zintzoa
  - 2.6. Amaginarreba gaiztoa.
3. Bentura ez amodiozkoak
4. Kristau kondairak.

Urte batzuk geroxeago Jon Juaristik bere *Flor de baladas vascas*<sup>12</sup> argitaratu zuen honako sailkapena burutuz:

1. Balada zaharrak
2. Euskal Herriko Baladak
3. Europa guztiko baladak
4. Haur baladak, eta
5. Balada arruntak.

Orotara 26 balada aurkezten ditu, komentatzen eta itzulpena ematen.

Bi urte geroxeago neuk Iparraldeko kanta eta bertso zenbait plazaratu nituenean<sup>13</sup> bostehun kanta honako hogeい sailetan banatu nituen, amodiozkoak era berean beste hogeい azpisailetan banatzen nituelarik:

1. Jendetaszinezkoak (1-5).
2. Euskal Herriaren Alde (6-17).
3. Politika (18-30).

<sup>12</sup> JUARISTI, Jon, *Flor de baladas vascas*. Colección Visor de Poesía. Madrid 1989.

<sup>13</sup> URKIZU, Patri, *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. I. Anonimoak*. Etor, Donostia 1991.

4. Elizarakoak (31-50).
5. Filosofia (51-58).
6. Alegiak (59-65).
7. Haur eta seaskakoak (66-92).
8. Ostatukoak (93-123).
9. Irri eta ziri (124-182).
10. Ihauteri eta astolasterretakoak (183-188).
11. Xikitoak (189-225).
12. Eskekoak(226-233).
13. Partida eta Amerikakoak (234-251).
14. Ofiziokoak (252-267).
15. Pilotarienak (268-273).
16. Dantzarienak (274-282).
17. Itsasokoak (283-288).
18. Hiltze, presondegi eta beste istorio (289-312).
19. Gerrakoak (313-336).
20. Amodiozkoak (337-500).

Eta amodiozkoak, esan bezala, beste hogeい azpisailetan: leihopeko sere-natak, goizalbakoak, iturrikoak, despedidakoak...

Adolfo Arejita, Igone Etxebarria eta Jaione Ibarra osatu taldeak *Mendebaldeko Euskal Baladak. Antologia*<sup>14</sup> plazaratzerakoan honako hiru sailetan banatzen dituzte, gaztelaniazko itzulpena, doinu eta guzti:

1. Balada tradizionalak (1-9)
2. Balada erlijiosoak (10-17)
3. Bertso narratiboak (18-24).

Eta azkenik Antonio Zavalak 1998an hainbeste itxaroten genuen *Euskal erromantzeak*<sup>15</sup> plazaratu zituen, honela banandu zituen:

1. Istorikoak / Romances históricos. (1-22)

<sup>14</sup> AREJITA, Adolfo; ETXEBARRIA, Igone; IBARRA, Jaione; Mendebaldeko Euskal Baladak. Antologia. Labayru Ikastegia. Bilbao Bizkaia Kutxa 1995.

<sup>15</sup> ZAVALA, Antonio, *Euskal erromantzeak. Romancero Vasco*. Auspoa. Sendoa, Oiartzun 1998.

2. Izen ona / El honor. (23-29)
3. Itzulera / El retorno (30-37)
4. Amodioa / El amor (38-54)
5. Ipuiak / Cuentos y leyendas (55-60)
6. Beranduko erromantzeak / Romances tardíos ( 61-64)
7. Erlziejkoak / Religiosos
  - 7.1. Eguberria / Navidad (65-69)
  - 7.2. Jesukristoren Pasioa / Pasión de Jesucristo (70-79)
  - 7.3. Kristau fedea / Fe cristiana (80-86)
  - 7.4. Ama Birjiñaren santutegiak / Santuarios de la Virgen (87-91)
  - 7.5. Santuak / Santoral (92-97)
8. Erromantze puskak / Fragmentos (98-113)
9. Erdi Aroko kantak / Cantares de la Edad Media (114-127)

Baditu Zavalak bertso liburu mordoxka Auspoa Bilduman argitaratuak eta Egile baten inguruan ez zuenean liburu bat paratzen, saiatzen zen gai berezien inguruan prestatzen, hala nola:

#### Amodioa

- *Amodiozko penak bertso berrietan* (Auspoa 128, 1976)
- *Ezkondu bearreko bertsoak* (Auspoa 187, 1986)
- *Neska-mutilen arteko bertsoak* (Auspoa 186, 1985)
- *Ezkontza galduztako bertsoak* (Auspoa 257, 1999)

#### Arrantzaleen bizitza

- *Arrantzaleen bizitza* (Auspoa 133, 1978)

#### Emigrazioa

- *Ameriketako bertsoak* (Auspoa 176, 1984)

#### Erlziejua

- *Mixioetako bertsoak* (2 T.) (Auspoa 164, 165, 1983)
- *Kristaubidea bertsotan* (2 T.) (Auspoa 174, 175, 1984)
- *eskeko bertsoak* (1814-2000). (Auspoa 310, 2008)

### Gerra

- Afrikako gerra. 1859-1860 (Auspoa 129, 1977)
- Frantsesteko bertsoak (2 T.) (Auspoa 212, 213, 1991)
- Frantziako iraultza eta Konbentzioko gerra bertsotan (Etor 202, 1989)
- Karlisten leenengo gerrateko bertsoak (Auspoa sail nagusia 4, 1992)
- Karlisten bigarren gerrateko bertsoak (Auspoa sail nagusia, 1997)
- Kuba-ko gerra (Auspoa 161, 1983)
- Soldaduzkako bertsoak (Auspoa 139, 1979)

### Jan-edanak

- *Jan-edanaren bertsoak* (2 T.), (Auspoa 154, 155, 1982)

### Jokoak

- *Euskal jokoak bertsotan* (2 T.) (Auspoa 180, 183, 1984, 1985)
- *Estropadak bertsotan* (Auspoa 281, 2003)

### Laborarien bizitza

- Nekazariak bai miseriak (Auspoa 140, 1979)
- Noe'ren ontzia (Auspoa 136, 1979)
- Baso-mutillak (Auspoa 134, 1979)

...

Zortzi sail atera zaizkigu baina garbi dago egile ezaguna duten bertsoek askoz ere gai gehiago ukitzen dutela eta hainbat eta hainbat azpisail molda daitezkeela.

Halaber, Zavalak badu artikulu bat beste askoren artean txit interesarria «Bertso-paperak» deitua, zeinaren hasieran aipatzen duen Iztuetak idatzitako *Guipuzcoaco Provintziaren condaira edo historia...* (1847), non dioen bestea beste, *orai zernai gauzaren berriak paper moldizkidatuetaen zabaltzen diraden bezela*<sup>16</sup>. *Zernai gauzaren berriak* ematen bazuten garbi dago gaiak ez zirela bi soilik, erlijioa eta gerra adibidez, beste anitz ere tratatzen zituztela baizik.

---

<sup>16</sup> ZAVALA, Antonio, «Bertso-paperak», *Auspoaren auspoa I (Itzaldiak / conferencias)*, Auspoa 238, Donostia 1996, 325-350.

Zavalak berezi egiten ditu bertso-paperak eta erromantzeak, zeren dioen arabera, *oker ez banago, paperetan inprintatu eta zabaldutako erromantzerik ez dago. Izatekotan ere, bat edo bi geienez.*

Pundu honetan ez nator bat Zavalarekin, batipat kontutan hartzen badi-tugu Iparraldeko bertso-paperak eta ondoren aurkeztuko ditugun balada edo erromantze arruntak.

4. Garbi dago sailkapen kontuetan bakoitzak bere kopetekoak dituela gogoko.

Adibidez, Lakarrak & besteek hedadura aipatzen dutelarik Balada Propioak eta Amankomunak bereizten dituzte. Lehenean 12 eta bigarrenean 28 ematen dituzte. Honela, hain zuzen:

I.1. Balada zaharrak (I.1. Beotibar; II. Sandilia; III. Aramaioko Kanta; IV. Arrasateko erreketa).

Balada zaharren zatiak (V. Akondiako gudua; VI. Urrexolako gudua; VII. Olaso; VIII. Salinasgo kontea; IX. Juan de Lazcano; X. Ioanikoteren kanta; XI. Txanfarronen kanta; XII. Bretainako kantorea).

I.2. Eresiak (E.1. Milia Lasturkoren eresiak; E.II. Martin Bañez Artazu-biagakoren eresia; E.III. Diego Lopez Harokoaren eresia)

Hauei erantsi beharko litzaizkieke bai Antonio Zavalak (*Euskal erromantzeak*, 1998) aipatu Fernando V-ren kanta (1475), Domenjon Gonzalez Andia-ren kanta (c. 1482) eta Naparroako Kondestablearen kanta (1493), bai eta Julen Arriolabengoa<sup>17</sup> aurkiturik kantak Ibarguen-Cachopin-en kronikan, besteak beste: Butroeko andrearen eresia; Salinasko kontea eta Errodrigo Zaratekoa.

Orotara hogeiaren bat erliko edo kanta zati edo balada zati lirateke, zeren Beotibarko kanta aurkezteam Garibayk horrelaxe dio, *cuyo comienzo es d'esta*

---

<sup>17</sup> ARRIOLABENGOA, Julen, *Euskara Ibarguen-Cachopin kronikan. Testu zaharren ediziorako kontribuzioa*. Euskaltzaindia BBK, Bilbao, 2008.

*forma*. Bestalde beharko litzateke lehenik ikusi ea kanta guzti hauek edo zatioik balada diren<sup>18</sup>.

Balada delako hauen tituluak ere aztertu beharko genituzke. Batzueta nizen propio bat besterik ez da erabiltzen (Beotibar...), bestetan *Kanta* hitza erabiltzen da (I.1.III; I.1.X; I.1.XI), orain *Gudua* (I.1.VI; I.1.VI), gero *Eresia* (E.1.; E.II; E.III), eta batean *Kantorea* (I.1.XII) ere bai.

Gure uste apalez batu egin beharko litzateke izendatzeko sistema, eta ez onar adibidez *Kantorea* hitza hegoaldeko erromantze batentzat, zeren ongi badago *Bereterretxen khantorea*-ren kasuan, zubererazko hitza baita, ez dut uste egoki denik izendatzea *Bretainako Kantorea*.

Halaber testu irakurketa zuzenaren alde, esan behar dugu adibidez, Arrasateko erreketaren kanten artean badela irakurketa txar bat edizio batetik besteetara iragan dena: *Guipuz hondo ederric* (Lakarra, et. al., 1983, 23), Juaristi (1989, 22) berdin, Arriolabengoa (2008, 91), edota internet-en www.klasikoak.armiarma.com, azpimarratu arren koordinatu nuen euskal literaturaren historian<sup>19</sup>, Mitxelenak egin zuela irakurketa zuzena, alegia, *Guipuz sendo ederric*, oriinalaren fotografiak ongi behatuz.

5. Lakarra et al., «Tradizio moderno textuak» ikertzean bitan banatzen dituzte:

- II.1. Balada tradizionalak (XIII-L), eta
- II.2. Balada arruntak (A1- A14).

Balada Tradizionalak aztertzean hastean hauen artean kokatzen duten *Ahetzeko anderea-z* ari direlarik, honakoa diote oinoharrean: *Santa Klararen kristau kondairarekin antza izan arren balada gisa ez du kiderik, dakigunez, beste inongo tradiziota (ikus bere sarrera)*<sup>20</sup>. Garbi utzi genuen gure lantxo

<sup>18</sup> Ene ustez adibidez XIV. mendean bizi izan ziren Pedro IV de Aragón (1319-1387) eta Juan I de Castilla (1358-1390) gaitzat duen kanta ez litzateke kanta lizun bat baizik, inolako ixtoriorik gabea. (Ik. Patricio Urquiza, *Poesía Vasca. Antología bilingüe*. UNED, Aula abierta, Madrid 2009, 114-115).

<sup>19</sup> URQUIZA, Patricio et al., *Historia de la literatura vasca*. UNED, Madrid, 2000, 115.

<sup>20</sup> LAKARRA, Joseba et al., Aip. Lib, 99.

batean<sup>21</sup> paralelismorik ez zaiola falta europear tradizioan, hala nola kanta frantses, italiano eta okzitanoetan, gaia frantsesez *La Maumariée vengée par ses frères*, deitu izan delarik<sup>22</sup>. Bestalde ez dago dudarik *Urrutiako anderea* gai berari buruzko beste kanta bat dela, edo Orpustanen hitzetan beste bertsio bat.

*Sortu nintzan Etxauzian* kantaren testu transkripzioa egitean Zavalak < ü > ak ez markatzeaz gain, < h >-ak ere ahanzten ditu, garbi seinalatuak daudenak Chahoren kantutegian: *lekhü* (2.2.), *phenaz* (2.4., 8.3.), *khanbera* (4.2.), *bilho* (4.4.), *althe* (7.3.), *muthila* (10.1.), *sarthü* (11.3.)...

**Frantziako anderea** deitu baladaz edo gaztelaniaz la «suegra perversa» denaz hona zer dioen Cid-ek:

Este motivo no tenía correspondencia en los dos textos navarros que se conocían hasta ahora, pero la versión de Gartzain (Irurita, Baztán) facilitada a Aitzol por Bitori Etxebarria en 1934, y publicada por primera vez por Antonio Zavala, muestra que también en el modelo altonavarro existe ese intento frustrado de la esposa de salvar su vida apelando a la codicia del asesino:

- Gaizueu bat urre badut aitetxik emana,
- bizik uzten banauena eman datzuet dena.

Baina garbi dago Aitzoli Bitori Etxeberriak bidalitako bertsoa, Gartzaingo Inazia Indaren ahotik jasoa ez dela Zavalak ematen duen bezala eta honi Cidek kopiatzen dion legez, hots:

- Yendiak eldu dire andik-emendik,  
 Nere arreba Yuana ezta ageri iñundik.  
 – Gaizueu bat urre badut aitetxik emana,  
     Bizik uzten banauena eman daizuet dena.

<sup>21</sup> URKIZU, Patri, «Viejas baladas vascas del cancionero de Chaho», *Revista de Lenguas y Literaturas catalana, gallega y vasca*. XI, UNED, Madrid 2005, 30-109. Interneten www.uned.es –en aurki daiteke.

<sup>22</sup> DONCIEUX, George, *Le Romancero populaire de la France. Choix de chansons populaires françaises. Textes critiques*. Paris, Émile Bouillon, 1904.

Baizik eta fotokopiak dioenarenaz<sup>23</sup>:

**Yendiak eldu dire andi emendik  
nere arreba Yuana ezte ageri iñondik:  
gaizueuet uŕe baut aitetxi emana  
bizik uzten banauena eman daizuet denak.**

Zein hobekuntzarik gabe transkribitu beharko litzateke modu honetan:

Jendiak eldu dire andi emendik  
Nere arreba Juana ezte ageri iñondik:  
– Gaizue<sup>24</sup> bet urre baut aitetxi emana  
Bizik uzten banauena eman daizuet denak.

Eta ez dira aldaketa horiek bakarrik egiten dituenak bere irakurketan Zavalak. Ondorioz hondar aletxo tipia pilota bilaka daiteke eta azkenean bola handia, eta iristen dena irakurle arruntarengana orijinaletik nahiko urrun egon.

6. Balada arrunten artean bada bat, Lakarrak et al. arabera A.X. dena, nik txikitán amaren ahotik hainbestetan entzun nuena: *Markesaren Alaba* kanta. Arejita eta bestek *bertso narratiboak* barnean ematen dute berau Fruizko eta Aulestiko aldaeretan. Aldaerok honela ematen dute lehen bertsoa:

A.X. (1960)

Zeruak eta lurruk /	egin zituana /
memoria argitzera /	atoz neregana /
esperantza badaukat /	zedorrek emana /
kunplituko dedala /	desioa dedana. [Lakarra & al., 229]

<sup>23</sup> KM Kulturunea, 091 AIT-93, 003.

<sup>24</sup> *Orotariko Hiztegia: gaitzeru* (G-goi-to-bet-nav, AN-ulz, L, BN; Ht VocGr 334 (*gaize-*), Lar, Añ (G, AN), HeH Voc, Dv, H), *gaitzuru* (AN-gip-egüés, BN, S, R; Aq 14 (R), Arch ms. (ap. DRA), HeH Voc, Gèze, Ith 44, H, StJayme (BN, ap. DRA)), *gaitziru* (B, S; SP), *graitzu* (Sal; ZMoso 66), *gaitsui* (S), *gaizuru*, *gaiziru*. Ref.: A (*gaitzeru*, *gaitzuru*, *gaitziru*, *graitzu*); A Apend (*graitzu*); Lh (*gaitzirü*, *gaitzuru*); Giese MolinS 623; Iz R 403, Ulz (*gaitzérü*); Lrq (*gaitzuru*); Izeta BHizt (*gaitziru*); Gte Erd 195. ♣Cuartal (medida de capacidad para grano y frutos secos); celemín (en textos bíblicos).

Fruiz (1982)

Zeruak eta lurak memorie argitzen Esperantza badeukat kunpliduko dedala	egin zituena nator neu zeugana. berorrek emana deseo dedana. [Arejita & al., 114]
--	--

Aulesti (1984)

Zeruak eta lurak Memoria argitzen Esperantza badaukat Kunplituko dedala	egin zituanak atoz niregana. zerorrek emana, desio dedana. [Arejita & al., 117]
--	--

Bertso-papera (c.1860)

Ceruac eta lurrac / memoriya arguitzen / esperanza badaucat / cumplituco dedala /	eguin zituana / atoz ni regana. / [sic] cedorrec emana / desio dedana. [Donostiyen, Pozo-ren moldizkiran]
--	--

A.X.-ak Euskaltzaindiak, *Euskal-kantak* (Bilbao 1960) dauka iturri gisara. Fruizekoa 1982an eginiko biltze-lanean Katalina Sagastiren ahotik hartua da, eta Aulestikoa 1984an Maria Juana Uriguen-engandik jasoa. Eta Pozo-ren moldiztegiak Donostian 1860.urte inguruan funtzionatzen bazegoen garbi dago Sebero Iturrino mutrikuarrak ipinitako BERSO BERRIAC AMORIYO FIÑARENAC<sup>25</sup> hedadura aski handia izan zutela eta ez bakarrik Gipuzkoan, zeren Gernikako Imp. Artística de Goitia y Hormaechea-k aldaera oso txikiz honelako titulua ipini zion: *Marquesaren Alabaren Bertso Berriac*.

Edizio bat egiterakoan ene ustez lehenetsi beharko litzatekeela bertso-papera, oinoharretan, noski, aipatzuz nola bilakatu diren *Mendebaldeko Euskal Baladak* bezala, egun interneten musika talde ezberdinaren bertsio ezberdinak entzun daitezkeela eta antzerki ere bilakatu izan dela<sup>26</sup>...

Zavalak garbi uzten du gainera zein izan daitekeen bertso-paperaren iturria, alegia, gaztelaniazko literaturan ospetsua den *Los amantes de*

<sup>25</sup> KM kulturunea, C-563 F-34.

<sup>26</sup> ETXAIDE, Jon, «Markesaren alaba». EGAN, Donostia 1958, 265-299.

*Teruel*<sup>27</sup> leienda, zeini buruz idatzi dituzten Pérez de Montalban, Tirso de Molina, Hartzenbusch eta Tomás Bretonek besteen artean poemak, antzerkiak eta opera. Bestalde ezaguna da ere gaiak baduela XIV. mendeko etorki ospetsua, hots, Boccaccioren *Il Decamerone-ko Gerolamo eta Salvestraren ixtorioa*. Baino kasu honetan alderantzizkoak ziren aberastasunak. Gerolamo zen aberatsa eta Salvestra, sastre pobre baten alaba.

7. Eta Lakarrak & al., ematen dutenean antologiaren amaieran FI, FII bezala *Balada apokrifoa*k bezala *Altabizkarko kantua* eta *Leloren kanta*, ongi dagoela esan behar dugu sail hori berezitzea, eta sail horretan beharko lukeela adibidez joan *Romances históricos* bezala lehen sailean Zavalak aipatzen duen *Gainkoak deizula egun on*, (1998:83-88) zeina Urthubiako alaba-ren kanta apokrifoa den, halaberetsu gertatzen dena *Domingoren eresia-rekin*<sup>28</sup>. Biok erabat nobeleskoak. Hala nola Chaho eta Hiribarren artean moldatu zuten *Annibalen kantu*<sup>29</sup>. Edota Klaudio Otaegik asmatu *Beotibarko kanta*<sup>30</sup>, hainbestetan Lurdes Iriondok kantatua, zeinetaz Cid-ek esaten digun:

El hecho de que tales baladas populares resultasen falsas, no resta nada a la influencia efectiva que tuvieron en muchos casos para dignificar las lenguas y culturas de varias de las naciones sin Estado<sup>31</sup>.

8. Irizpide modernoz eginikoa da *Euskal Baladak* (1983), noski, baladen geografia ikertuz, dialektoak aztertuz eta mapak eginez. Halere hitzaurrean kontraesanik bada, zeren lehenik badiote *erlijiozko gaiak hain dira ugari non banaka batzu baizik ez ditugu sartu* (8. or.) geroxeago diote gaien zerrenda exhaustiboa egitea izan da gure asmoa, (9. or.). Asmoa asmo gelditu zitzaiela esan behar, hain garrantzizkoak ohi diren doinuak, esate baterako, beste

<sup>27</sup> ZAVALA, Antonio, «Terueleko maitaleak eta Markesaren Alabaren bertsoak», *Auspoaren auspoa IV (Itzaldiak / conferencias)*. Auspoa, Donostia 2006, 275-279.

<sup>28</sup> URKIZU, Patri, «Apokriofea eta kritikarien saltsa-maltsez», *Balada zaharrez*. Erein, Donostia 2005, 17-39.

<sup>29</sup> URKIZU, Patri, Agosti Chahoren *bizitza eta idazlanak 1811-1858*. Euskaltzaindia. BBK, Bilbao, 1992, 63-64.

<sup>30</sup> URKIZU, Patri & AZURMENDI, Xabier, «Beotibar'ko kanta», *Klaudio Otaegi olerkaria (1836-1890)*, Donostia, Etor, 1991, 99.

<sup>31</sup> CID, Jesús Antonio, Aip. art., 74.

zenbait antologiatan ageri direnak falta baitzaizkie. Bestalde, zenbait ortografia erratez eta akatsez gain aurkibidea ez da oso argia, eta forma aldetik baladen aurkezpenak badu hobetzekorik.

Neurtitzak aurkezterakoan Hegoaldeko ohitura eta jaidurari jarraiki izan diote, adibidez, hiru bertsolerroz zegoena etorkizko antologian lau bertsoleroaren eman dute, hala nola, *Haltzak ez dü bihotzik...<sup>32</sup>*; edota *Goizian goizik jeiki nündiüün espusa nintzan goizian ...<sup>33</sup>* laukoa zortzikotan. Nire aldetik Iparraldeko ohitura gogokoago dut.

9. Halaber A.XIV. PULUNPA tituluz ageri zaiguna eta Michelen liburutik hartua (348-352), laukoa zortzikotan ematen da, baina 15. bertsoa seikoan ageri da. Bertsolero batek ihesi egin zion Micheli eta hau kopiatu dutenei, baina Goitiñori esker, alegia, 1894eko uztailaren 28an plazaratut *California-ko Eskual Herria Berriketariari* esker badakigu zein den falta zen bertsolero hori: *Eskual herriaz oroitzean nigarretan urturik.* Horrela bada Léopoldina-Rosaren hondoratzeaz Jean Etcheto «Katxo»-k 1842an egindako kanta osaturik dauka-gu. Honek ematen digu pentsatzera Goitiñok ziuraski bere aldizkarirako era-bili ohi zuena galdu edota iritsi ez zaigun bertso-paper moldiztegiratua izanen zela. Beraz, nire ustez hobeto litzateke eman beharrean

*Frantziatik jin ginen  
zer nahi den gostarik,  
ginituien erresursa  
guzia xahuturik:  
Montebideoon gira orai  
xagrinez aberasturik.*

(Lakarra et al., 244)

Goytiñoren arabera ematea:

*Frantziatik jin ginen zer nahi den gostarik,  
Ginituien erresursa guzia xahuturik:*

<sup>32</sup> KKK 142.

<sup>33</sup> SALLABERRY, Jean D-J., *Chants populaires du Pays Basque*, Veuve Lamaignère, Bayonne 1870,190.

*Monte-Bideon gira orai xangrinez aberasturik,  
Eskual herriaz oroitzean nigarretan urturik<sup>34</sup>.*

10. *Urkamendiko baladak* sailari dagokionez eta Xabier Kaltzakortak<sup>35</sup> bereziki bilduma exhaustiborik egin ez arren aski artikulu interesgarria gaiaz egiten duena osatuz nire bilduma oraindik argitaragabea burutu dut berrogei kanta asko oraindik ezagungabe edo gutxi ezagunak direnekin<sup>36</sup>. Eta berrogei kanta hauetarik hamarren batek bakarrik ez dute egile ezaguna. Hauei buruz Orixek honakoa zioen «Los reos poetas» artikuluan<sup>37</sup>:

*En nuestra siempre desdeñada y no bien conocida literatura popular se cultivó hasta nuestros días un género de poesía, cuyas muestras se echan de menos en nuestros cancioneros. Hemos alcanzado la tradición, que en nosotros se interrumpe y desaparece definitivamente, de que los más insignes criminales, los destinados al cadalso, cantaran el arrepentimiento de sus crímenes en verso, construído por ellos mismos.*

Jenero berezitzat jotzen du, beraz, Orixek hiltzaileek berek moldatu omen bertsoak kantatzen zituztenak; baina honi buruz beste erara pentsatzen du Julio Caro Barojak, honakoa baitio:

*Desde un punto de vista literario o ideológico no cabe duda de que la Literatura popular sobre crímenes no está escrita, en su mayor parte, por criminales y lo que refleja no son tanto hechos reales debidos a aquellos como conceptos válidos en una sociedad popular, o admitidos por una parte considerable de aquella. Los cantos sardos, corsos o sicilianos recogidos por Bouillier, Tommaseo y, sobre todo, Pitré, son producto de una sociedad entera, no de unos criminales dedicados a la versificación, salvo en casos contados<sup>38</sup>.*

Hitz hauek ere zenbait gogoeta merezi dute. Badakigu Heriotza eta Literaturak, harreman zuzenak izan dituztela mendeetan zehar. Joseph Le

<sup>34</sup> California-ko Eskual Herria berriketaria, San Francisco. 1894-VII-24.

<sup>35</sup> KALTZAKORTA, Xabier, «Bertsojarrietatik ahozkora (Urkabe-bertsoak euskaraz. Estudiante gaztearenak eta beste)». Internet. [www.mendebalde.com...](http://www.mendebalde.com...)

<sup>36</sup> URKIZU, Patri, *Urkamendiko baladak*. Donostia 2010. Argitaragabea.

<sup>37</sup> ORMAETXEA, Nicolás, «Los reos poetas», EUZKADI, 1927, nº 4551.

<sup>38</sup> CARO BAROJA, Julio, *Ensayo sobre la literatura de cordel*. Ediciones de la Revista de Occidente, Madrid 1969, 148.

Floch-ek<sup>39</sup> dioskunez, mendebaldeko hirietako kaleetan zehar kantari ibiltzen ohi ziren bertso saltzaileak juglarren ondorengotzat har ditzakegu. Eta kantatzearekin batera saltzen zituzten bertso-paperak era orotarikoak zitezkeen: gerra kantak, amodiozkoak, kantikak, noelak, santuen bizitzak, irri eta ziri egitekoak, urkamendi eta gilotinako ixtorioak kontatzen zituztenak...

Azken hauetan arreta pixkat paratuz ohartuko gara jada XI. mendean *Codex Calixtinus*-ean aipatzen zaigula *Urkatuaren Miraria*, zein XIII. mendean Alfonso X. jakitunak bere *Cantigas a Nuestra Señora* liburu ospetsuan jadanik jasotzen duen. XV. mendeko bukaeran moldatu zituela François Villon poetak bere *epitaphe* edo *ballade des pendus* ospetsua eta XVI. mende bukaeran, 1587an hain zuzen, Maria Stuart hil zutenean, historialariak dioenez Parise beterik zegoela gertakizun triste hari buruzko bertso-paperez, *pasquils [complaints], placards, tombeaux et discours sur cette morte violent voloient...*

Aidean zebiltzan bertso-paperak, eta hori dela eta frantsesek izen hori emango diete, hain zuzen: *feuilles volantes...* Spainian hedatu ohi zen deitura, *pliegos de cordel* izan zen, edota *romances de ciego*, eta jada XVI. mendearaz geroztik hilketak eta gertaera odoltsuak kontatzen zituztenak ere ez ziren gutxi<sup>40</sup>.

XVIII. mendean Louis-Sébastien Mercier-ek Pariseko ikuskari ospetsu batean kale kantariei buruzko honako irudia utziko digu:

*Un parricide, un empoisonneur, un assassin, le lendemain, que dis-je, dès le jour même de leur supplice, enfantent des complaintes qui ont chantées dans tous les carrefours et composées par les chanteurs du Pont-Neuf.*<sup>41</sup>

<sup>39</sup> LE FLOCHE, Joseph, «Chanteurs de rue et complaintes judiciaires. Quelques remarques à propos des complaintes françaises», *Histoire et justice, Panorama de la recherche. Le Temps de l'Histoire*, nov. 2001, 155-168.

<sup>40</sup> Anónimo: «Coplas hechas sobre un caso acontecido en Yerez de la Frontera de un hombre que mató a 22 personas.», s. XVI. Ik: Carolina LECOQ, 1988, «Los pliegos de cordel» en las bibliotecas de Paris. Madrid: Printing Books, s.a., 72.

<sup>41</sup> *Tableau de Paris*, 1788. (Paris: Horizons de France, 1947, 156.)

Alegia, aita hiltzaile, pozointzale eta bestek, hitz batean asesinoek beren zigor egunetik bertatik izaten ohi zituztela plaza, merkatu eta bide gurutzetan beren bizitza tragikoak kontatzen zituzten kantak.

Euskal Herrian ere ez ziren ezezagunak honelako kantak, horixe baitio Francisque Michelek bederen, *comme ailleurs, les complaintes composées dans le Pays Basque à l'occasion de crimes célèbres et du supplice de leurs auteurs sont en grand nombre*<sup>42</sup>, hots, ugariak zirela ere gurean hilketen ondoren urkamendiko edo gilotinako zigorren okasiorako moldatzen ohi ziren bertsoak eta kantak. Hauxe dio 1857an Michelek, baina tamalez oso gutxi iritsi zaizkigu arruntak ziren bertso haietarik. Hamar bakarrik dira data horren aitzinekoak.

Kantu hauek antzerki ohikoen arabera, hitzaurre moduan moldatu bertso-formula batzuekin hasten dira (Pastoraletan *Lehen Pheredikiek* bete ohi duten funtzio berdinaz). Gero kontakizuna edo ixtorioa dator, krimena edo hilketak, –maiz gertatzen zen bezala bat baino gehiago zirenean–, alegia, ekintza. Eta azken hitzarekin (edo *Azken Pheredikia*), bukatzen dira, non ekintza odoltsuari darraion zigor exenplu emailea ageriko den, azpimarratuz ixtorioari dagokion ikaskizuna.

Michel Leclerc, Pont-Neuf-eko kantaria izan zen Parisen XVIII. mendean konplaintegileen artean ospetsuenetarikoa. Honen kanta zenbait aipatzearren hor daude, 1757ko *Damiens-en kondemnazionea*, Louis XV.ari aitzo kolpe batez hiltzen saiatzeagatik, eta 1777ko *Desrues-en etsekuzionea* Grève-ko Plazan. Egun honetan prezizki, hiru kanta berri agertu ziren Lenoir polizia buruaren baimenarekin Valleyre moldiztegian inprimaturik.

Jean Baptiste Orpustan<sup>43</sup> ikerlearen arabera, Borthagaray urkamendira doaneko kanta, Lambert apaiza, *vulgo Belça*, hiltzeagatik 1723. urte ingurukoa litzateke, eta beraz, iritsi zaigun tradizio honen lehenetarikotzat jo dezakegu, Berdabioren ixtorioa hamazazpi urte geroagokoa baita, hots,

<sup>42</sup> MICHEL, Francisque, *Le Pays Basque...* Paris: F. Didot, 1857, 423.

<sup>43</sup> ORPUSTAN, Jean Baptiste, «La chanson de Borthagaray» «Urzaiz», *La vallée d'Ossés en Basse-Navarre. Orzaizeko Ibarra. Bidarray, Ossés, Saint-Martin-d'Arrossa*. Baigorri: Ed. Izpegi, 2002, 265-273.

1740aren ingurukoa. Berriki Patziku Perurenak ixtorioaren inguruko xehe-tasun guztiak liburu eder batean<sup>44</sup> bildu dizkigu.

Frantzian Iraultza garaian zertxobait gutxiagotu ziren arren krimen ta zorigaitzen gainean moldatu kantak, XIX. mendean berriro ugaritu egin ziren. Pariseko Liburutegi Nazionalean milaka *complainte* aurki daitezke frantsesez. Hauen artean, gutxi batzuk euskaraz, oso gutxi gure gogorako, baina ez horregatik zokoratu edo baztertu beharrak, esan nahi digunak oroitzen baditugu Michelen hitzak anitz galdu direla bidean.

Kanta hauek topikoz eta formulez josiak daude, eta Frédéric Chauvaud-ek<sup>45</sup> azpimarratzen digunez, botereak bere ideologia propioa hedatzeko eta zabaltzeko erabiltzen zituen. Gizartearen natura orokorra baiezatzeko, moralaren garrantzia indartzeko eta betidaniko Ongiaren eta Gaizkiaren arteko borrokaz aritzeko. Noski, Boterearen eta Justiziaren ekintza eredugarriak argi eta garbi uzteko, eta honetarako heriotza zigorra, gilotina ohi zen era-biliko Frantzian XVIII. mende bukaeraz geroztik –heriotze zigorra goxatzearen, antza– eta Espanian urkamendia edota garrote *vil* delakoa.

Jean Michel Moreau eta Ernest Schnaiter-ek honela pintatzen digute XIX. mendeko konplainten kantaria. Ohol batera igoa, drama odoltsuaren ixtorioa kontatzen diolarik inguratzen zitzaion jendetzari. Oihal handi bat dauka aurrez-aurre lau edo sei karratutan banatua, non hilketaren une ezberdinak ageri diren. Bertan hiltzaileak bere aitzo beldurgarriz zoro moduan ari da gizakiak hiltzen, eta biktimek begitarte izutua erakusten dute.

François du Sorbier<sup>46</sup> irakasleak Inglaterrako biografia kriminala aurkezterakoan, hauen zabalkundea, bilakaera eta irakurlegoa ikertzen digu literatura ondorio huetara iritsiz, alegia, kritikagintzan literatura klasikoa eta herrikoien artean ezarri ohi diren mugak faltsuak direla eta hautsi beharrezko, bereizketa hau azterketa sakon batek ezabatu egiten baitigu. Gaizkileak produkzio

<sup>44</sup> PERURENA, Patziku, *Goizuetan bada gizon bat... Trabukoren kantako misterioak*. Alberdania, Irun 2010.

<sup>45</sup> LE FLOC'H, Joseph, aip. art., 101.

<sup>46</sup> SORBIER, Françoise du, «La biographie criminelle anglaise», *Dix-huitième siècle. Littératures populaires*. Paris: PU, 1986, 167.

idatzian XVIII. mendean, eta geroago ere bai, leku garrantzitsu eta nabarmena hartzen duela egunkarietako ixtorioetan, aitorpenetan, Justiziaren epai-erabakietan, hiltzaileen ixtorio- bildumetan, eta bestetan. Nork ez du ezagutzen, adibidez, Defoeren eleberrietariko baten heroina den *Moll Flanders* anderea?

Jean-Pierre Seguin-ek<sup>47</sup> bere aldetik dioskunez, kanta hauetan hainbeste aipatzen da Antzinatea eta erlijioa eta hain da handia exenplu emaitearen gogoa koplariaren baitan, ezen hilketaren ixtorioa kontatzeari aski leku gutxi uzten dion, eta halaber honelako kantak lekuko aparta direla herri mentalitateak aztertzeko eta ezagutzeko.

Eta Daniel Giraudon-ek<sup>48</sup> Bretañan hiltzaileen inguruan sorturiko baladak, –berrogeita hamarren bat–, aztertzeraoan honako ondorioetara iristen da. Alegia, ikus dezakegula nola bertso-paper horiek erantzun ahal izan dioten frantsesez gutxi alfabetizatua den entzule eta hartzailari, baina bere txokotik eta bakardadetik atera eta kampoan zer gertatzen den ere jakin nahi duenari.

XIX. mendean erruz eta modu nabarmenez zabaltzen ari den prentsa, egunkari eta astekarietan elikatzen dela koplakaria. Egunerokotasunean aurkitzen dituela albisteak, batez ere krimenen inguruokoak, bai baitaki bere entzuleak oso gogoko dituela gai tragikoak. Eta azkenik mezuak ez direla batera iraultzaileak, kontserbadoreak baizik, aginte zibil eta erlijiosoak inposatuak noski. Areago oraindik, gertaera tragikoak tratatzeko modu berezi horren bitartez bi sosetan saldu bertso-paperekin saiatu izan dela eta ahalegindu bere neurri apalean garaiko bortizkeria eta hilketen kontrako borrokan.

Euskal urkamendiko baladegileen artean bada bat bereziki gaian espezializatu zena, Jean Etchepare donapaleutarra. Honek bederen hamahiru euskaraz eta hamabi frantsesez idatzi zituen 1873etik 1889ko epean. Konplaintegilea dugu, alegia, tragedien berri ematen duena, inundazioneak,

<sup>47</sup> SEGUIN, Jean-Pierre, «Canards»: une succession ouverte», *La Bibliothèque bleue & les littératures de colportage*. Ed. Thierry Delcourt & Elisabeth Parinet, Paris: École de chartes, 2000, 185-193.

<sup>48</sup> GIRAUDON, Daniel, «Complaintes criminelles sur feuilles volantes au XIXe siècle en Basse-Bretagne», *Violence et société en Bretagne et dans les pays celtiques*. Ed. Jean-Yves Carluer, Brest: Centre de Recherche Bretonne et Celtique, 2000, 169-198.

itsasuntzien ondoratzeak, baina batez ere kriminalen koplaria dugu Etchepare. Hitz lauz eta modu xume batez ematen dizkigun asasinamenduen **explikazioiak** direla eta, esan dezakegu frantsesez deitu **canard**, euskal ixtorio beltzen kontakizunetarako bidean saiotxo bat direla eta aitzindari dugula gure literaturaren esparruan. Eta kontutan hartzen badugu non inprimatu ziren bertso-paperok (Baiona, Orthez, Akize, Pabe, Foix...) eta euskaraz ez ezik frantsesez ere idazten eta moldiztegiarazten zituela gaiztaginen kontrako eta onbidearen aldeko konplaintok, bere mezua ez zen mugatu Ipar Euskal Herrira soilik, Pirineoko beste herrialdeetan ere barreiatu bide zen<sup>49</sup>.

11. Beste kasu batean, esate baterako, Beholako guardaren hilketa kontatzen den baladan, badakigu Jean Moulier «Oxobi»rena dela eta 1922an jada *Euskaldun Kantariak* Iiburuxkan moldiztegitu. Kasu honetan, ordea, interesgarria da nola herri memoriak aldatzen dituen kantak eta hitzak. Ikustea nola konprenitzen ez dituenean zenbait hitz bere kasara asmatzen dituen. Adibidez, mila bederatzirehun eta hogeitabiko edizioan kantak honela diosku:

Gauak ardura Otsailean hotz,  
aurten hegoa maiz hari:  
Adanak lore, mertchikak ere  
aintzinka primaderari ...<sup>50</sup>

Ohiko diren naturari eskaini lirika bertsoak, –Manuel Lekuonak dekoraziozko poesia deitzen zuena–, tartekatzerakoan trajerian, ordea, kantariak ez bide ditu konprenitu, edo ahantzi egin ditu, kasu honetan Pierrot Bordak, eta beste honakoak asmatu dizkigu:

Gauak ardura hotz,  
aurten negua maiz ari,  
Mertxikak lore andanak ere  
aitzinka primaderari.

<sup>49</sup> URKIZU, Patri, «Jean Etchepare. Konplaintak (1873-1889)». *Revista de Lenguas y Literaturas catalana, gallega y vasca*. UNED, Madrid, 2010, XV, 171-229. [www.e-spacio.uned.es...](http://www.e-spacio.uned.es...)

<sup>50</sup> URKIZU, Patri (Ed.), *Senpereko Kantu Xaharrak*. Oxtikenekoak Kultur Elkartea. Eusko Ikaskuntza, Donostia, 2001, 15.

Non ikusten dugun *hegoa* hitzak *negua* eman duela eta *adanak* (edo aranak) *andanak* bilakatu dela zentzua aldatuz. Gure ustez garbi dago ematekotan testu bat, lehena beharko genukeela inprimatu, hots, 1922koa eta ez 2000ko ediziokoa.

## 12. Cid irakasleak aipatu artikuluan<sup>51</sup> honakoa dio:

*En el estudio global sobre la tradición vasca habrá que tenerse en cuenta, al menos como hipótesis, la existencia, en los siglos XVIII y XIX, de una especie de moderna «juglaría» (tan distante del bertsolarismo como de la poesía culta o semiculta que por entonces se cultivaba), que actúa en la parte francesa del país y no tiene correspondencia en las provincias meridionales.*

Jean Etcheparek eta bere emazteak plazetan kantaturiko eta saldutako bertso-paperei «moderna juglaría» dei ote diezaiekegu? Baliteke, baina hain urrun ote daude hauen kantak bertsolaritzatik, edota zenbait bertsolari ospetsuk moldiztegirarazten zituzten kantetik?

Bestalde oinohar batean esaten digu geroxeago: *Según Juaristi, es posible que algunas baladas francesas pasaran al vasco a través de versiones gasconas o bearnesas. La hipótesis es ciertamente plausible y lógica, pero no conocemos ningún caso concreto en que ello pueda probarse*<sup>52</sup>.

Geuk ere ez, zeren ikusi eta aztertu ditugun adibideetan<sup>53</sup> beti bazen etorkian edo paraleloki bertsio frantsesa, baina ez biarnesa.

Honen ondoren baladen konparazioak direla eta Cid-ek hauxe dio:

*En contraste con esta abundancia de conexiones, a la vez temáticas y genéticas, de la balada vasca con la francesa y catalana, no deja de ser sorprendente el que no exista – como ya indicábamos – ni un solo tema baladístico vasco que dependa del Romancero castellano. Incluso cuando existe coincidencia «argumental» en los temas vasco y castellano, se trata de tipos de balada por completo distintos, y es descartable cualquier relación genética entre una y otra balada*<sup>54</sup>.

<sup>51</sup> Aip. Art., 88.

<sup>52</sup> Aip. Art. 89.

<sup>53</sup> URKIZU, Patri, «Itzulpen eta moldatze moduez», *Balada zaharrez*, 2005, 39-64).

<sup>54</sup> Aip. Art., 90.

12. Ez nago ni hemen dioenaz hain seguru, eta adibide bat emango dut kontrajarriz. Hots, **Laxaro Perurenarena**. Bertsogile honen berri Patziku Perurenak ematen digu, Antonia eta soldatu haurjaleak deritzan gaiari buruzko bertsoen paratzalea bezala. Extremaduran gertaturikoa 1848an<sup>55</sup>, eta Laxarok moldatu zuena bere kasa<sup>56</sup>. Data ez dakigu zehazki, baina bigarren bertsoleroan, *Oain dela eunda larogei urte Estremaduran pasea*, dio, eta gure kalkuluak onak badira *eunda* delako hitza soberan da eta 1928. urtean geundeke.

Aiarreko Laxaro Perurenaren kasuan honaxeakoa dio Patziku Perurenak<sup>57</sup>: *Gertakari izugarri honi buruzko kronika edo nobela gisakoren bat izan behar du espainolez argitaratua, baina ez dut zuztarrenik inon bilatu; saiatu ere ez asko, egia esan.*

Iturriarekin topo egin baikuenen, guri, ordea, interesarria iruditu zaigu konparatzea bertsoren bat edo beste ikusteko bertsolariaren antzea. Hona adibidetxoa:

[...] Serían como las ocho, llaman los cuatro a la puerta,  
 Abre la Antonia y entraron con muchísima cautela,  
 Diciendo no hacer ruido porque alguien no nos sienta.  
 Se meten en la cocina, empiezan a partir leña,  
 Ponen la sartén al fuego y con aceite la llenan.  
 Llama Francisco a la Antonia que estaba dando teta  
 A su desgraciada hija, y al instante se presenta.  
 ¡Qué es lo que quieras, Francisco? Qué he de querer, considera,  
 Quiero que estés con nosotros y disfrutes de la fiesta;  
 Y tomándole la niña, al momento la degüella,  
 Sin que la infeliz madre el libertarla pudiera<sup>58</sup>.

<sup>55</sup> HORROROSO ATENTADO que han cometido cuatro desalmados en una aldea de la provincia de Estramadura con una tierna niña de diez meses, á 16 de enero de este presente año de 1848. Imprenta de Cristobal Miro, calle de Arrepentidas, núm. 5 tienda. Madrid, Autor: Duart. (SEGURA, Isabel, Romances horroresos. Selección de romances de ciego que dan cuenta de crímenes verídicos, atrocidades y otras miserias humanas. Alta Fulla, Barcelona 1984, 49-52.)

<sup>56</sup> ZUBIRI, JJ. & PERURENA, P., Goizueta eta Aranoko hizkerak. Iruñea: Nafarroako Gobernua, 1998, 212.

<sup>57</sup> ZUBIRI, J.J. & PERURENA, P., Goizueta eta Aranoko hizkerak. Nafarroako gobernua, Iruñea 1998, 211.

<sup>58</sup> Op. cit., 50-51.

Eta euskaraz hona moldaketa:

*Andreagana lau lagun joanda, atean zaizkio jarri,  
Esanez: «Ola Antoniatxo! Atoz beraño zerorri.  
Notizi onik etzakartela, abudo zion igarri.  
«Jose Frantzisko il zala baña. Ara bizirik etorri!»  
Atea ireki zuan andreak; ta lau lagun ziran sartu.  
Ta bularrean zeukan aurra bereala zion kendu.  
Lepoa moztu, tajadak egin, gero prijitzten paratu  
Afari on bat guztientzako biar zutela plantatu.*

Garbi dago Duartek idatzi gaztelaniazko lau orridaldeko plegua euskaraz hamaika bertsotan emateko bere labur beharra eta lakonismoa erabili behar izan dituela Aiarreko Laxarok.

13. Eta hona zer dioen Antonio Zavalak<sup>59</sup> Eibarko hilketaz Patxi Erauskinek moldatu bertso paperaz:

*Eibar'ko eriotza onetraz zerbaite geiago ikastearren, garai artako periodikoak zer zioten irakurtzea on litzakela iduritu zitzagun. Donostiko La Voz de Guipúzcoa eskatu ta aztertu genduan. Onek diona urrengo lerroetan arkituko du irakurleak. Bertsolariak dionarekin, oso batera dator. Dudarik gabe, Erauskin'ek periodikoren batetik, eta bearbada onetxetatik, artuko zituan bere esatekoak. Egiten duana auxe da: periodikoak erderaz eta itz-lauz esaten duana, berak euskeraz eta bertsotan jarri.*

*Ori ikusita zera batez oartu giñan. Garai hatean, antziñako denboratan alegia, bertsolariak berak ikusita edo besteren bat entzunda ikasten zuan gertaeraren berri, eta besterik gabe bertsoak jarri.*

*Baiñan gero, periodikoak ugaldu ziranean, auetatik asi zan esatekoak ateratzan, gai askotarako beintzat. Alegia, periodikoa jarri zan gertaera eta bertsolariaren tartean. Iñor oartu gabe egin bazan ere, aldaketa aunda izan zan ori bertsolaritzarako. Geroztik, berriz, bitarteko berriak sortu dira, irratia eta telebisioa batik-bat.*

Beraz, garai batean ahoz-ahoko tradizioaren lekuko zuzenak baziren koplariak, denboraren poderioz eta kazetaritzaren eraginez, batez ere XIX.

---

<sup>59</sup> ZAVALA, Antonio, *Patxi Erauskin bertsolaria* (1874-1945), II. Auspoa 131, Donostia 1978, 15.

mendean eta XX. mendeko lehen partean hauetarik hartzen zituztela gaiak beren bertso-paperak burutu, moldatu eta gauzatzeko. Eta Iparraldean frantsesetik zen bezala, Hegoaldean gaztelaniatik hartzen zutelakoan nago, besterik gabe.

Galdera xume bat datorkit burura? Zein da lehenago garaiotan bertso-papera ala kanta? Zavalak dioskunez:

*Erri-literatura geienetan berdin getatu da. Aozkoak izan ziran asiera batean, eta paperera gero pasa. Batzuek lenago, besteak geroago eman zuten pauso ori. [...] Berdin esan genezake beste poesia-mota askorengatik ere. Adibidez, kopla zaarrak, errondakoak, trikiti-dantzarokoak, aur-kantak, seaskakoak eta beste asko eta asko. Auek oso gutxitan atera izan dira bertso-paperetan. Azkue'ren kantutegia artu besterik ez dago<sup>60</sup>.*

Baina ikus dezagun itsasoko tragediari buruzko kanta bat. Azkuek<sup>61</sup> gure itsasuntzi honen tragediari buruz moldatu zen kanta baten bertso pare bat jaso zuen Ziburun, *Bordeletik joan gin...* bertsoleroaz hasten dena, baina guk hamasei bertsotako bertso-papera, SAINT-PAULGO GIZAJALEAK deitu duguna<sup>62</sup> eta honen hitzaurrea prosaz aurkitu dugu. Historia triste hau ere bere aldetik jaso zuen *Journal des Instituteurs* delakoak<sup>63</sup>, Dupré jaunak Ministroari zuzendu gutun batekin, non konparatzen duen Méduse-ren hondoratzearekin, eta non Bernier, bigarren kapitainaren txostena ere ematen den.

Halaberetsu Jean Etchepare donapaleutar koplariak<sup>64</sup> krimenei buruzko baladez aparte bi kantu ezberdin moldatu zituen naturak eragin zorigaitzen gainean, hau da, bat 1873an gertatu VILLE DU HAVRE-ren hondoratzea

<sup>60</sup> ZAVALA, Antonio, «Bertso-paperak», *Auspoaren auspoa I (Itzaldiak / conferencias)*. Auspoa 238, Oiartzun 1996, 323-350.

<sup>61</sup> AZKUE, Resurrección M. de, *Cancionero popular Vasco*. Bilbao, 1923, nº 621, T. II, 748.

<sup>62</sup> Kantu Berria, 1868. *Un horrible repas*. Bayonne, Imprimerie, E. Lasserre, Rue Orbe 20. BNP, Z Basque nº 905.

<sup>63</sup> *Journal des instituteurs des écoles normales primaires, des classes d'adultes et des salles d'asile. Recueil hebdomadaire*, Paris, nº 15, 12 avril 1868, 198-199.

<sup>64</sup> URKIZU, Patri, *Jean Etchepare koplariaren konplaintak, 1873-1890*. Ik. 49. oharra.

kontatzen diguna<sup>65</sup>, lainoek eta ekaitzak eragina, non 226 *pasajers ithorik* bukatu zituzten beren egunak, eta bestea 1875eko *inondazioneak*, uholde izugarriak aipatzen dituena.

Aita Donostiak<sup>66</sup> Saran kanta honen bi bertsio jaso zituen (nº 1007, nº 1008), baina Etcheparek moldatu eta senar-emazteek kantatzen zuten hamabi bertsoko 1876ko bertsiotik 1913ra soilik bi bertsoko kanta iritsi ziren, bi bertsiotan. Bata, Maria Agerre Lehetchipikoaren ahotik jaso ahal izan zuena 1912ko urriaren 30ean eta bestea, bertako neskamearenetik 1913ko urtarrilaren 15ean. Hona hemen denboraren poderioz sorturiko aldaketak:

Jean Etchepare (1876)

1. Untzi bat galdu zauku itsaso handian,  
Berrehun bat pasajers juan da barnian,  
Heiagora, marraska bazen han ordian,  
Jaunari gomendatuz azken orenian.
  
- [...]
6. Untziko kapitaina oihuka hasi zen,  
Jenden kontserbatzeko baxetak non ziren?  
Hiruretarik biga hautsiak baitziren,  
Ororen salbatzeko bat baizkan etzen.

Marie Agerre (1912)

1. Untzi bat galdu zauku itsaso handian,  
Berrehun bat *pasajer baziren* barnian,  
*Heien gora marraskak han ziren orduian*,  
Jaunari komendatuz azken orenian.
2. Untziko kapitaina oihuka *ari* zen,  
*Jende hoikien salbatzeko baxerak* non ziren?  
*Hiruetarik bia galduak baitziren*,  
*Jende hoikien salbatzeko bat baizik han etzen*.

<sup>65</sup> 1876. M Fiche BNF, YO-2. COMPLAINE sur l'épouvantable naufrage de la «Ville du Havre», *Le navire français percé par le navire anglais...* 226 *passayers ithoric...*

<sup>66</sup> DONOSTIA, P., Cancionero Vasco, T. VIII, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1994, 1391-1393.

Lakarra et al.-ek (T.I, 112) balada dantzatuei buruz diote: *Ez dugu ordea honelako daturik Euskal Herriari dagokionez. Gure ustez Mur de Iharasarni gaitzat duena litzateke hauetariko bat, adibidez<sup>67</sup>.*

Halaber Kalzakortak *Dantza-kopla zaharrak* liburuan<sup>68</sup> xorta ederra bildu digu, baina zuzenketatxo bat egin nahi nioke, *pro domo*. Konprenituko du ongi nire sorterriko idazleak defenditzea. Iristen denean XXII. KOPLA ASMATUAK EDO AUTOREDUN KOPLAK kapitulura, honela hasten da:

*Kopla asmatuak biltzen dituzten hiru sail ekarriko ditut oraingo atal honetara. Lehen saileko aleak Iruzubi delako batek asmatuak dira. Mar-kinako Iruzubieta auzokoia izan behar zuen ezizen hori erabili zuenak.*

*Iruzubi* hori ez da markinarra, noski, lezoarra baizik. Hots, Daniel Garbi zu da (Lezo 1897 – Herrera 1984), «Zubigar» poeta eta «Tege» Tomas Garbizu musikariaren anaia, alegia, eta hiru anaien euskal lan zenbait bildu genituen Patxi Intxaurrandieta eta neuk<sup>69</sup>. Argibide honen ondoren trikiti bertso baten transkripzioak konpara ditzagun:

- a) Arpegian naikoa  
badabilki autsa,  
*ezpal goriak eta*  
*lepuia beltz beltza.* ( Kalzakorta: 2007-304)
- b) Arpegian, naikoa  
badabilki antza,  
*ezpain gorriyak eta*  
*lepuia beltz beltza.* (Urkizu et alt.: 1991-395)

Garbi dago moldiztegiko akatsak eta grafiak zuzenduz bien arteko batuketa litzatekeela trikiti zuzena:

<sup>67</sup> URKIZU, Patri, *Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako bertso eta kantak*, I, Etor, Donostia 1991, 415-416.

<sup>68</sup> KALZAKORTA ELORZA, Jabier, *Dantza-kopla zaharrak*. Laratz- Ahozko literatura bilduma 6. LABAYRU, BBK, Bilbao 2007.

<sup>69</sup> URKIZU, Patri & INTXAURRANDIETA, Patxi, *Garbizu anaiak. «Zubigar», «Iruzubi», «Tege»*, 1921-1936. Lezoko Udal 1991.

- c) Arpegian naikoa  
 badabilki autsa,  
*ezpain gorriyak eta*  
*lepuia beltz beltza.*

14. Ondorioak. Hautatzekotan bertsio bat hau zein irizpideren arabera hautatu eta nola transkribitu?

Eman dezagun ANTOLOGIA bost (edo sei) tomotan banatzen dela:

- I ERDI AROA ETA ERRENAZIMENDUA
- II XVII ETA XVIII MENDEAK
- III XIX MENDEA
- IV XX MENDEA: 1901-1950
- V XX MENDEA: 1951-2000
- (VI XXI MENDEA: 2001-2010)

Ene ustez bertso-paperen eta baladen kasuan bi ixtori ezberdin bailirateke moldiztegiratze irizpideak ere hala beharko luteke. Eta noski POESIA jeneroaren azpisail gisara ezarriko nituzke.

Bertso-paperen kasuan:

- a) Egile beraren eta poema beraren bertso-paper ezberdinak ageri badira, bat hautatu beharko litzateke ANTOLOGIArako: Zaharrena. Eta oinoharretan agertu diren beste bertso-paperak eta aldaerak jaso, honek emango bailiguke kantaren edo bertsoen hedadura.
- b) Egile ezaguna balitz honen biografia ttipi bat moldatu bil daitezkeen datuekin, sarrera gisara.
- d) Ahalik ohar guttiengak, guztiz beharrezko direnak edo bederen soilik argigarri gerta daitezkeenak bai kontestua bai hizkuntza konprenitzeko. Alegia, esanahia.

Baladen kasuan:

- a) Gaika aurkezu.
- b) Pan-Hispanikoen eta Pan-Europeoen balada korrespondentziak eta IGRH-eko zenbakia eman.

- c) Oharrak gaia Europako baladen tradizioan aurkeztuz, aldaerak adieraziz eta konparazioak eginez.
- d) Musika doinuak eman.

Eta ohar xumeok eztabaidarako balioko digitelakoan besterik ez oraingoz.

## Bibliografía

AREJITA, A. et al., 1995, *Mendebaldeko Euskal Baladak. Antología*. Labarri Ikastegia. Bilbao Bizkaia Kutxa.

ARRIOLABENGOA, J., 2008, *Euskara Ibarguen-Cachopin kronikan. Testu zaharren ediziorako kontribuzioa*. Euskaltzaindia BBK, Bilbao.

AZKUE, R.M., 1923, *Cancionero popular Vasco*. Bilbao.

\_\_\_\_\_, 1947, *Euskalerriaren Yakintza (Literatura popular del País Vasco)*. Espasa-Calpe, Madrid.

CARO BAROJA, J., 1969, *Ensayo sobre la literatura de cordel*. Ediciones de la Revista de Occidente, Madrid

*California-ko Eskual Herria berriketaria*, San Francisco. 1894-VII-24.

CID, J.A., 2000, «Romancero hispánico y balada vasca», *Antonio Zavalaren ohoretan*. Deustuko Unibertsitatea. Bilbao, 69-101.

DONCIEUX, G., 1904, *Le Romancéro populaire de la France. Choix de chansons populaires françaises. Textes critiques*. Paris, Émile Bouillon.

DONOSTIA, P., 1994, *Cancionero Vasco*, Vs. VI-IX, Ed. P. Jorge Riezu, colaboradores Juan Mari Beltrán y Claudio Zudaire. Eusko Ikaskuntza, Donostia Eusko Ikaskuntza, Donostia.

GIRAUDON, D., 2000, «Complaintes criminelles sur feuilles volantes au XIXe siècle en Basse-Bretagne», *Violence et société en Bretagne et dans les pays celtiques*. Ed. Jean-Yves Carluer, Brest: Centre de Recherche Bretonne et Celtique, 169-198.

JUARISTI, J., 1989, *Flor de baladas vascas*. Colección Visor de Poesía. Madrid.

KALZAKORTA, J., 2007, *Dantza-kopla zaharrak*. Laratz- Ahozko literatura bilduma 6. Labayru, BBK, Bilbao.

KALTZAKORTA, X., «Bertsojarrietatik ahozkora (Urkabe-bertsoak euskara. Estudiante gaztearenak eta beste»). Internet. [www.mendebalde.com...](http://www.mendebalde.com...)

KANTU BERRIA, 1868. *Un horrible repas*. Bayonne, Imprimerie, E. Lasserre.

LAFITTE, P. & DASSANCE, L., 1967, *Kantu, kanta, khantore*. Baiona, Corrèdier.

LAKARRA, J., et al., 1983, *Euskal baladak. Antologia eta azterketa*. Hordago, Donostia.

LECOQ, C., 1988, «*Los pliegos de cordel» en las bibliotecas de Paris*. Madrid: Printing Books, s.a..

LE FLOCH, J., 2001, «Chanteurs de rue et plaintes judiciaires. Quelques remarques à propos des plaintes françaises», *Histoire et justice, Panorama de la recherche. Le Temps de l'Histoire*, nov. 155-168.

MICHEL, F., 1857, *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*. Fermin Didot, Paris.

ORMAETXEA, N., 1927, «*Los reos poetas*», EUZKADI, nº 4551.

ORPUSTAN, J.B., 2002, «*La chanson de Borthagaray » «Urzaiz», La vallée d'Ossés en Basse-Navarre. Orzaizeko Ibarra. Bidarray, Ossés, Saint-Martin-d'Arrossa*. Baigorri: Ed. Izpegi, 265-273.

PERURENA, P., 2010, *Goizuetan bada gizon bat... Trabukoren kantako misterioak*. Alberdania, Irun .

SALLABERRY, J.D.J, 1870, *Chants populaires du Pays Basque*, Veuve Lamainière, Bayonne.

SEGUIN, J.P., 2000, «*Canards»: une succession ouverte», *La Bibliothèque bleue & les littératures de colportage*. Ed. Thierry Delcourt & Elisabeth Parinet, Paris: École de Chartes, 185-193.*

SEGURA, I., 1984, *Romances horrorosos. Selección de romances de ciego que dan cuenta de crímenes verídicos, atrocidades y otras miserias humanas*. Alta Fulla, Barcelona.

SORBIER F. du, 1986, «La biographie criminelle anglaise», *Dix-huitième siècle. Littératures populaires*. Paris: PU. 155-169.

URKIZU, P., 1986, «C.A.F. Mähn-en Kanta eta Bertso Bilduma. Berlin 1857». EGAN, Donostia, 13-84.

\_\_\_\_\_, 1991, *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. I. Anonimoak*. Etor, Donostia.

\_\_\_\_\_, et al., 2000, *Historia de la literatura vasca*. UNED, Madrid.

\_\_\_\_\_, 2001, (Ed.), *Senpereko Kantu Xaharrak. Oxtikenekoak Kultur Elkartea*. Eusko Ikaskuntza, Donostia.

\_\_\_\_\_, 2005, «Viejas baladas vascas del cancionero de Chaho», *Revista de Lenguas y Literaturas catalana, gallega y vasca*. XI, UNED, Madrid, 30-109. Interneten [www.uned.es](http://www.uned.es) –en aurki daiteke.

\_\_\_\_\_, 2005, *Balada zaharrez*. Erein, Donostia 2005.

\_\_\_\_\_, 2009, *Poesía Vasca. Antología bilingüe*. UNED, Aula abierta, Madrid.

\_\_\_\_\_, 2010, *Jean Etchepare koplariaren konplaintak, 1873-1890. Revista de Lenguas y Literaturas catalana, gallega y vasca*. XV, UNED, Madrid, 171-229. Interneten [www.uned.es](http://www.uned.es) –en aurki daiteke.

URKIZU, P. & INTXAURRANDIETA, P., 1991, *Garbizu anaiak. «Zubigar», «Iruzubi», «Tege»*, 1921-1936. Lezoko Udala.

VINSON, J., 1883, *Le flok-lore du Pays Basque. Les littératures populaires de toutes les nations. Traditions, légendes, contes, chansons, proverbes, devinettes, superstitions*. Tome XV. G.P. Maisonneuve & Larose, Paris.

ZAVALA, A., 1978, *Patxi Erauzkin bertsolaria (1874-1945)*. Auspoa, 131. Donostia.

- \_\_\_\_\_, 1996, «Bertso-paperak», *Auspoaren auspoa I (Itzaldiak / conferencias)*. Auspoa 238, Oiartzun, 323-350.
- \_\_\_\_\_, 1998, *Euskal erromantzeak. Romancero Vasco*. Auspoa. Sendoa, Oiartzun.
- \_\_\_\_\_, 2006, «Terueleko maitaleak eta Markesaren Alabaren bertsoak», *Auspoaren auspoa IV (Itzaldiak / conferencias)*. Auspoa, Donostia 275-279.



# **Literatura herrikoia, herri-literatura, herri-idazleak: herrikoitasun kontzeptuez zenbait gogoeta**

RETOLAZA, Iratxe

Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta Euskaltzaindiko

Literatura Ikerketa batzorde-idazkaria

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Euskal Literaturaren historiografian «herri-literatura» kontzeptuarekin loturiko hainbat irizpide eta ideia nola garatu diren aztertu da artikulu honetan. Herri-literaturak edota herrikoitasunaren inguruko kontzeptuek Euskal Literaturaren Historian izan duten funtzioa aztertzeak Euskal Literatura kontzeptuaren eraikuntza ezagutzeko aukera emango digu, eta bide batez, kontzeptu horren eraikuntza eta bilakaeraren prozesuan gertaturiko hainbat tensio azaleratuko ditu.

**Hitz-gakoak:** Historiografía, instituzio literario, herri-literatura, ahozkotasun.

En este artículo se estudia cómo se han desarrollado en la historiografía de la literatura vasca, criterios e ideas relacionados con la literatura popular. El analizar la función que la literatura popular vasca o los conceptos en torno a lo popular han tenido en la historia de literatura popular, nos dará la oportunidad de conocer cómo se creó el concepto de literatura vasca; y de paso, aflorará varias tensiones que se dieron en la creación y desarrollo de dicho concepto.

**Palabras clave:** Historiografía, institución literaria, literatura-popular, oralidad.

On étudie dans cet article comment ont été employés dans l'histoire de la littérature basque les critères et les idées ayant trait à la littérature populaire. L'analyse de la fonction que la littérature populaire ou les concepts liés au populaire ont eue dans l'histoire de la littérature populaire basque nous donnera l'occasion de découvrir comment a été créé le concept de littérature basque ; on verra également les diverses tensions qui ont vu le jour lors de la création et du développement de ce concept.

**Mots-clés :** Historiographie, institution littéraire, littérature populaire, oralité.

This paper examines how certain criteria and ideas linked to the concept of «popular literature» have developed in the historiography of Basque literature. Examining the role that has been played in the History of Basque Literature by popular literature or concepts surrounding popularity will provide an opportunity to get to know how the concept has been constructed, and will expose certain tensions that have taken place in the construction and evolution process of this concept.

**Keywords:** Historiography, literary institution, popular literature, orality.

## 1. Sarrera. Euskal Literaturaren historiografia eta herri-literaturaren kontzeptuen bidegurutzean

Literaturaren Historia orok literaturaren ikuspegia bat biltzen eta garatzen du. Zentzu horretan, Literaturaren Historia batek literatura zehatz baten ibilbideak eta norabideak kontatzearekin batera, hainbat literatura kontzeptu eta irizpide literarioren inguruko ikuspegiak hedatu egiten ditu. Bestalde, Literaturaren Historiak literatura esparru bat instituzionalizatzeko funtzioa ere betetzen du, eta hartara, Literaturaren Historia horietan gailenduriko irizpide eta balore literarioak aztertuz, instituzionalizaturiko eremu horietan gailenduriko irizpideen berri izango dugu.

Hurrengo gogoeta hauetan, Euskal Literaturaren historiografian «herri-literatura» kontzeptuarekin loturiko hainbat irizpide eta ideia aztertuko dira, Euskal Literaturaren Historia zenbaitetan herrikoitasunaren edo *popular* izaeraren ikuspegia nola jorratu den azalarazteko asmoz. Izan ere, herri-literatura edo literatura popularrarekin loturiko kontzeptu horiek guztiekin literaturaren kontaketa nola baldintzatu duten ekarri nahi dugu eztabaidera. Euskal Literaturaren historiografiaren eta herri-literaturaren kontzeptuen arteko bidegurutzean sortu dira hurrengo gogoeta hauek, aztergai eta eztabaideragai honen inguruko lehen hurbilpenak izan nahi dutenak<sup>1</sup>.

Herri-literaturaren inguruko azterketa eta hausnarketa hauek, bestalde, Euskal Literatura kontzeptuaren eraikuntza ezagutzeko aukera emango digute, eta bide batez, kontzeptu horren eraikuntza eta bilakaeraren prozesuan gertaturiko hainbat tentsioren berri emango digute.

Herri-literaturak edota herrikoitasunaren inguruko kontzeptuek Euskal Literaturaren Historian izan duten eta izan dezaketen funtziaoz hitz egin aurretik, komenigarria iruditu zaigu Literaturaren Historiaren inguruko zehaztapen orokor hauek gogora ekartzea:

---

<sup>1</sup> Artikulu honetan herrikoi eta herri-literatura kontzeptuez garatu diren hausnarketak, Euskal Literaturaren Historiografiaren alorretik egingo dira, eta hartara, ez dira kontuan hartuko beste zenbait ikerketa-alor eta ezagutza-alorretan erabili diren ikuspegiak.

a) Batetik, Literaturaren Historia hizpide izatean, gogoan izan behar dugu **izaera diskurtsiboa eta narratiboa** duen diciplina batez dihardugula. Diskurso historiografikoak kontagai duen literatura esparruaren existentzia eraikitzen edo berreraikitzen du, eta baita esparru horren kontzeptua ere. Modu horretara, praktika diskurtsibo horrek kontagai duen objektua bera eraiki eta sortzen du, eta ondorioz, kontagai den literaturaren existentzia baieztatzen du. Ondorioz, Literaturaren Historia guztiak kalifikatzale baten inguruau antolatzen dira, delako literatura hori mugatzen eta zedarritzen duen kalifikatzalea, izan ere. Aipagi dugun kasuan, «euskal» dugu kalifikatzale eta mugatzale hori, esparru bat identifikatzeko eta eratzeko gaitasuna duena. Hortaz, historia-egileak literatura esparru bat narrazio historiko bihurtzea erabakitzenean, honako uste honi lotzen zaio: literatura esparru konkreto horrek bizitza eta autonomia propia duelako usteari. Literatura horren existentzia eta autonomia baieztatzearrekin batera, historia-egileak deskribatzen, kokatzen eta iruzkintzen duen literatura hori eraikitzen, asmatzen eta ezaugarritzen ari da. Dena den, Literaturaren Historia oro historikoki irudikatu nahi dituen literaturaren ikuspegiekin elkarritzetan eratzen da. Edozein eraikuntza historikoren modura, Literaturaren Historia eredu baten proposamena eta interpretazioa da, errealtitatetza jotzen dena. Baino, errealtitatearen errepresentazioa bera, Literaturaren Historia, errealtitate horren (ber)eraikuntza bat da. Jenaro Talensek gogorarazi bezala, Literaturaren Historia iraganaren errepresentazioa izan arren, orainaren eraikuntza ere bada, eta orainari begira egina da:

«En otras palabras, no se instituye para recuperar un pasado, sino para ayudar a constituir y justificar un presente. La elección del corpus sobre el que operar; el establecimiento de los criterios que hiciesen coherente la inclusión/exclusión de obras y autores, así como la periodización y taxonomización del material no respondería, en consecuencia, a la existencia de una verdad exterior comprobable, sino a la voluntad de construir un referente a la medida, capaz de justificar la manera de vivir y de pensar el mundo por parte de la sociedad actual, a la que arroparía con el argumento de su autoridad». (Talens 1994, 137)

Literaturaren inguruko diskurso historiko gehienek joera horri lotu zaizkio, eta ondorioz, herri-literatura edo herrikoitasun kontzeptuak garatzean

ez dira kontuan izan historikoki herri literaturak izan dituen bilakaerak eta funtziokoak, edo herrikoitasun kontzeptuek historikoki bildu dituzten ikuspegi anitzak. Egungo eta oraingo begirada literariotik garatu izan da esparru horren kokapen historikoa, eta kasurik gehienetan, aipatuko den moduan, literatura idatziaren eta literatura kultuaren galbahetik iragazi dira diskurtso historiko horiek guztiak.

Beraz, Literaturaren Historia guztiekin historikoki kokatu eta kontatu nahi duten Literatura esparru horren inguruko (aurre)kontzeptu zenbait hartzen dituzte abiapuntutzat<sup>2</sup>. Txosten honetan, bada, Literaturaren Historia horietan literatura herrikoi edo popularraren inguruan bilduriko (aurre)kontzeptu eta (aurre)iriztiak aztertzeko lehen hurbilketa egingo da.

b) Bestetik, Literaturaren Historia hizpide izatean, gogoan izan behar dugu **izaera ideologikoa, kanonizatzalea eta instituzionalizatzalea** duen diciplina batez dihardugula. Talensek adierazi bezala, autoritate diskurtso ere bada Literaturaren Historia<sup>3</sup>. Proiektu historiografiko guztiekin elkarritzeta bat abiatzen dute, kontzepcio literario zenbait gainditzeo eta beste zenbait kontzepcio baiezttatzeko. Historia-egileak ere posizio diskurtsibo konkretu bat hartzen du. Ondorioz, Literaturaren Historia ideologikoki eraikitzen den diskurtsoa da, eta halaber, ideologikoki erabili egiten dena, Literaturaren Historia baita kanonak sortzeko eta instituzioak legitimatzeko diskurtsorik eraginkorrena, Mendebaldeko Kulturaren irizpideei kasu eginez gero. Hona hemen ikuspegi hau biltzen duten Leonardo Romeroren hitzak:

«Con todo, y a pesar de que las antologías pueden sugerir ciertas perspectivas históricas cuando ordenan sus materiales y, desde luego, cuando propenden a formular discursos histórico-descriptivos en sus páginas introductorias, no es rasgo específico suyo la función narra-

<sup>2</sup> Hausnarketagai dugun esparru honetan, Euskal Literaturaren Historiografian, une oro auzitan daude literario eta euskal kontzeptuak berak. Honako hausnarketa hauetan, lehen kontzeptu horren inguruko zirrikituak aztertuko dira, baina, ez da azterketa honetan euskal kontzeptuak sor ditzakeen auzien eta zirrikituengen inguruko hausnarketarik egingo. Gai horren inguruko hausnarketarako jo lan hauetara: Gabilondo, 2006; Olaziregi 2008-2009.

<sup>3</sup> Gogoan izan baieztapen hau: «a la que arroparía con el argumento de su autoridad» (Talens 1994, 137).

tiva que las *Historias* (...) exhiben como una de sus marcas más singulares. Las *Historias de la literatura* (...) responden a un argumento de exposición diacrónica, con un antes y un después, en el que el lector persigue los avatares de un protagonista –una literatura nacional, un género, un tema–, expuestos por un narrador que, a su vez, enuncia desde su *punto de vista particular*. (Romero 1998, 53)

En el complejo proceso de intersección de códigos culturales y sistemas de valores que conlleva toda *Historia literaria* siempre termina por imponerse un canon de textos y autores, por muy matizadas que sean las valoraciones de los hechos de continuidad y los hechos de ruptura. Ciento que las *Historias* no constituyen (...) la única instancia productora de repertorios canonizados (...). Con todo, el hecho de que las *Historias* apelen unas a otras en su recursividad interna es un rasgo que no resulta irrelevante a la hora de caracterizarlas como instancias generadoras de estimaciones y desestimaciones de los modelos dignos de imitación, es decir, como fábricas de canonización. (Romero 1998, 58)

Hau da, Literaturaren Historiak identitatea sortzeko eta herri-memoria-rako moldeak eta tradizio-bideak eratzeko diskurtsoak izan ez ezik, literatur sistemaren finkatze, zilegiztatze eta erakundetzean ere badute eraginik. Horregatik, sistema literarioaren finkatze- eta eratze-prozesuan erabateko era gina duten diskurtso hauetan herrikoitasunaren esparrua nola eraiki den aztertzea garrantzitsua da oso, neurri batean diskurtso historiko horietan erabakiko baita herrikoitasunaren esparru horrek beteko duen lekua.

## 2. *Corpusaren definizioa eta hautaketa*

Literaturaren Historiek hari narratibo edo kate narratibo batean biltzen dituzte gertakari literarioak, eta katebegiak ere irudikatzen dituzte. Modu horretan, literaturaren historialariek gertakari literario horiek kateatzearkin batera, hutsuneak edo isiluneak ere kate diskurtsiboa bildu behar dituzte, hari edo kate narratibo horretan zentzua emanez. Ondorioz, Literaturaren Historia egiterakoan lehen urratsa, ezinbestez, kateatu behar diren gertakari literario horien nolakotasuna mugatzean datza.

Historia Literario hedatuenen bidetik, Euskal Literaturaren Historia gehienek ere literatura idatziaren historia osatu dute. Edo zehatz esanda, literatura inprimatua eta liburuaren kultura irudikatzen duen historia osatu dute, liburuen argitalpena izan ohi direlako gertakari literario kateatu horiek. Literatura inprimatua edo liburuaren kultura ardatz duen ikuspegia hau nagusi dela jakin arren, interesgarria eta beharrezkoa iruditu zaigu literaturikuspegi horretatik sorturiko diskurtso historiografikoek herri-literaturaren inguruko kontzeptuak, sorkuntzak eta kultur jarduerak nola erabili dituzten aztertzea.

Josu Amezagak adierazi bezala, kultura popularrek ez dute esparru egituratu sendo bat osatzen: «Kultura popularrak, ordea, ez dira ondo bereiztutik eta irmoki egituraturiko sistemak; kontraesanez josiak daude, eta sarritan ez dira hain begibistakoak» (Amezaga, 1995, 152). Desegituratze hori ere nabaria da herri-literaturaren kasuan, eta historiografiak esparru hori ez egituratu izanak, eta hari narratibo batean kokatu ez izanak, gainera, desegituratze hori indartzen du.

Edonola ere, liburuaren kulturaren ikuspegitik eginiko Literatura Historia guztiak ez dituzte arazo berak, batik bat corpusaren hautaketa zehazte-rakoan. Hainbat eta hainbat literaturatako historia-egileren galdera eta kezketan biltzen dira oraindik ere Óscar Taccak (1968, 32) aspaldi formulaturiko bi galdera edo kezka hauek:

#### LEHEN GALDERA

«*¿Cómo hacer la historia de algo que por naturaleza pretende escapar a la Historia, que aspira a trascenderla, de algo que es histórico en la medida en que no encuentra su más plena realización, de algo –en el mejor de los casos– es sólo parcialmente histórico?*»

#### BIGARREN GALDERA

«*¿Cómo encarar, ordenar, clasificar la vasta producción literaria?*»

Euskal Literaturaren esparruan, aldiz, corpusaren hautaketaz hitz egite-rakoan bi galdera hauek ez dira kezka nagusia, edo oinarri nagusia.

**Lehenik**, Euskal Literaturaren Historia gehienek kezka konkretu bat erantzun diote, Mendebaldeko Literaturaren Historian prestigiozko es-

pazio bat eskuratzeari. Kezka horren eraginez, Euskal Literaturaren Historia gehienetan mendebaldeko kronologia literario horretara hurbil-tzeko eta atxikitzeko nahia nabaria da, eta gutxitan ageri da kronologia propio eta autonomoa garatzeko asmorik, edota Historiari bizkarra emateko asmorik. Antón Figueroak (1988) argi adierazi du egoera diglosikoan dauden literaturek zein arazo dituzten erreferentzialtasunaz aitzeko orduan. Aztergai dugun arloari begira, eragin ikaragarria du kezka nagusi horrek. Izan ere, Mendebaldeko Literaturaren Historia ofizialak ez ditu kontuan hartu herri-literaturaren ekarpenak, eta zail gertatzen da kronologia literario ofizial horretara biltzea herri-literaturako jarduera zenbait.

**Bigarrenik**, Euskal Literaturaren Historiak ez du dokumentu pilarekin arazorik, batik bat ahozko jarduerak eta jarduera herrikoiak kontuan hartzen ez badira. Are gehiago, dokumentu kopurua eskasa duela du arazo, zenbait garai eta alditan behintzat.

Ondorioz, bi kezka eta galdera hauetan irudikatu bezala, Euskal Literaturaren Historiak baldintza eta aurrekontzeptu konkretu batzuei erantzun die, eta horiek eragin dute herri-literaturaren inguruko irizpide zenbait garatzea eta sortzea.

## 2.1. Ahozkotasuna eta herri-literatura

Aipatu den bezala, Euskal Literaturaren Historiografiak eremu berezituetan garatu ditu literatura idatzia eta ahozko literatura. Jakina, historia-egile ezagunek aztertu dute ahozko literaturaren ekarpena. Besteak beste, hor dira, Manuel Lekuona (1964) eta Juan Mari Lekuonaren (1982) ekarpenak, edota bertsolaritzaren historiaz idatziriko ekarpenak (Egaña 1997).

Edonola ere, Euskal Literaturaren Historia orokorrak idatzi dituzten historia-egileek literatura idatziaren kronologia eta ibilbide diakronikoa izan dute abiapuntutzat. Are gehiago, Koldo Mitxelenak (1960) abiaturiko Historia eredua gailendu zenetik, esparru hauen arteko bereizketa nagusitu egin da.

Bereizketa horretan, gainera, tradizionozko ahozko literaturak eta ez-tradizionozko ahozko literaturak tratamendu ezberdina izan du<sup>4</sup>. Alegia, historia-egileek behar gehiago izan dute ez-tradizionozko ahozko literaturaren inguruiko azalpenak emateko. Badirudi ahoz aho transmititu diren genero literarioak historiaren ibilbidean kokatzeko premiarik ere ez dutela sentitu, eta halaxe transmititu ez direnak, aldiz, historiaren ikuspegira hurbiltzeko interes handiagoa izan dutela. Beharbada horren ondorio da historia-egileek bertsolaritzaren inguruan iritzia emateko premia hastapenetatik sentitu izana. Esaterako, Mitxelenak (1988 [1960], 24) argi adierazi zuen bertsolari-tzak ez duela helburu estetikorik. Jon Juaristiren (1988) iritzia gogorragoa izan zen:

Pero ¿puede el bertsolarismo ser considerado como parte de la literatura oral? O, dicho de otro modo, ¿tiene el bertsolarismo carácter literario? En cualquier caso, la respuesta sería dudosa. Es innegable que se trata de algo distinto de la transmisión de técnicas, fórmulas y procedimientos métricos y retóricos tradicionales. Al contrario de lo que sucede en la literatura tradicional, el sujeto del bertsolarismo es siempre un especialista, un miembro de un grupo semiprofesional que ha adquirido destreza en el curso de un proceso más o menos largo de aprendizaje, generalmente junto a un bertsolari experimentado. Por otra parte, las improvisaciones de los bertsolaris se agotan en el acto mismo de la repentina (y ello, a pesar de que eventualmente puedan ser recogidas por escrito o en grabaciones o en discos). No constituyen, por tanto, realizaciones o versiones puntuales de un poema tradicional, sino ejemplares únicos, no transmitibles (o al menos destinados a la transmisión) por tradición oral.

En rigor, una competición entre *bertsolaris* se asemeja a un encuentro deportivo más que a un recital poético. (...) El carácter literario del *bertsolarismo* depende casi exclusivamente de la mayor o menor cultura literaria de cada improvisador (y ésta, por lo general, no suele ser demasiado rica). Lo que ha venido a complicar la cuestión es la existencia de una literatura –en sentido estricto– vinculada

<sup>4</sup> Manu Lopez Gaseniri zor diogu tradizionozko eta ez-tradizionozko generoen azterketari erreparatzeko aholkua.

al *bertsolarismo*. (...) En realidad, podríamos concluir, el *bertsolarismo* no es propiamente literatura, lo que no quiere decir que su influencia en la literatura no haya sido importante. La poesía vasca de los dos últimos siglos debe mucho a los *bertsolaris* y no podría entenderse su evolución en los últimos tiempos si prescindiéramos de la historia del fenómeno bertsolarístico. (Juaristi 1987, 25-26)

Hurrengo proposamen historikoetan ez da horrelako iritzi sendorik adierazi bertsolaritzaren literariotasuna ukatuz, baina, egia da, corpus hautaketatik kanpo utzi dela bertsolaritzaren kultur jarduera oro, XX. mendeko literaturaren ikuspegi diakronikoa aurkeztean. Hala ere, egon badago joera nagusi hori segitu ez duen Euskal Literaturaren Historiarik, Patri Urkizuk (2000) koordinaturikoa. Proposamen historiografiko horretan XX. mendeko bertsolaritzari eskainitako atal bat eskaini da, Joxerra Gartzia idatzirikoa. Dena den, aipagarria da proposamen historiografiko horretan bertsolaritza bakar-bakarrik XX. mendeari eskainitako atalean aipatzen dela, eta gainerako mendeei eskainitako diskurtso historikoan, aldiz, ahozko literaturaren ekarpenak atal berezitu batean aurkeztu dira: «Literatura de tradición oral» (Urkizu, 2000, 25). Zentzu horretan, Urkizuren proposamen horrek Euskal Literaturaren Historiografian jarraitu den joera nagusia segitu du. Alegia, ahozko literaturaren ekarpenak lehen atal batean kokatu dira, literatura idatziaren aurreko garai batean. Historia guztietañ ahozko literatura XVI. mendearen aurreko jarduera literariotzat aurkeztu da, Bernat Etxepareren *Linguae Primitiae Vasconum* liburua inprimatu aurreko<sup>5</sup>. Joera orokor horretan argi geratzen da ahozko literatura hutsuneak betetzeko funtzioa duenean aipatu dela, hau da, katebegi bat osatu behar deean. Literatura idatzirik eta libururik ez den garaian aitortu egin zaio ahozko kultura horri literariotasunik, baina, literatura idatzia eta liburuaren kultura agertzen den unetik, ukatu egin zaio literariotasun hori, eta ikuspegi historikotik at geratu da edozein ahozko ekarpenean. Gainera, ahozko literatura aurkezten duten lehen atal horiek ez dira Historiaren hari narratibo nagusiaren parte, ez dira logika narratibo orokorrean kokatu ohi. Nolabait, aurrehistoriako giroa deskribatuko bailutzen aurkeztu dira.

<sup>5</sup> Patri Urkizuren (2000, 8) *Historia de la Literatura Vasca* da salbuespina, XIV. eta XV. mendean aurkeztu baititu obra orokor zenbaitetan bilduriko testu idatziak.

Bestalde, herri-literatura azterzen denean, gutxitan garatzen da ikuspegi diakronikorik, gutxitan ahalegindu da historia-egilea jarduera herrikoi horian garapen historikoa azaltzen. Eta gainera, gutxitan aztertu da garaiko herri-literatura (ez bakarrik Euskal Literaturaren Historiako historialarien ikuspuntutik, baita herri-literaturako adituen ikuspuntutik). Badirudi halako logika orokor bat zabaldu dela euskal literaturaren ikerketara, literatura jasoak aro modernoa eta garaikoa dela, eta ikuspuntu horretatik azertua behar duela izan, eta herri-literatura, aldiz, iraganeko tradizioari lotua dela (bertsolaritzaren salbuespenarekin, jakina).

Historia gehienetan logika narratibo horrek ahozko literatura eta herri-literatura berdindu egin ditu, ahozko literatura oro herri-literaturaren adierazpidetza kontsideratz, eta alderantziz, herri-literaturaren adierazpide oro ahozko literaturatzat kontsideratz. Baino, ahozko literatura=herri-literatura berdintzea ikuspegi literarioan eginiko murriketa baino ez da, ahozko literaturaren jarduerak eta herri-literaturaren jarduerak sinpletu egiten dituena. Ikuspegi horren arabera, literatura egiteko erabili den euskarriak (ahozkotasunak) definituko luke jarduera literarioaren herrikoitasuna.

## 2.2. Klase soziala eta herri-literatura

Ahozko literatura eta herri-literatura berdintzearen ondorioz, ahozko literatura herri xehearen adierazpide literariotzat hartu izan da. Hona hemen Jon Juaristik eginiko adierazpenak:

Ahora bien, que los estamentos inferiores de la sociedad vasca fueran mantenidos en el analfabetismo no quiere decir que carecieran de una literatura propia. Por el contrario, poseían una tradición oral, si no tan rica como la de sus vecinos de lengua románica, no por ello menos interesante. (Juaristi 1987, 15)

Baieztapen horretan bi ideia bildu dira: batetik, ahozko literatura herri xehearen adierazpidea izan zela; eta bestetik, ahozko euskal literatura horrek ez zuela izan auzokoien adinako kalitaterik. Kontuan hartu behar da Juaristik ahozko gainerako adierazpideak literaturatzat dituela, eta hala ere, ez diola literariotasun hori aitortu bertsolaritzari. Hala ere, joera nagusiaren bidetik,

ahozko adierazpideen inguruko iritziak lehen atal batean bildu ditu, «La literatura folklórica» (Juaristi 1987, 13) izeneko atalean. Bertsolaritzaren literariotasun hori ukatuz, nolabait, justifikaturik uzten du hurrengo mendeetan ahozko adierazpideei arreta eskaini ez izana. Gainera, Juaristiren adierazpenean literaturaren eta bertsolaritzaren arteko hartu-emana onartzen bada ere, ez du Historiaren ibilbidean zehar bi eremu hauen arteko hartu-emana irudikatu eta kontatuko. Beste Historia zenbaitetan, aldiz, argiagoa da literatura idatziaren eta ahozko tradizio horren arteko elkarrizketa. Esate baterako, Orixeren (1927) eta Mujikaren (1979) Historietan. Orixeren Historia laburrean ahozko literaturaren ezaugarriak eta baliabideak biltzen dituen literatura idatzia baloratzen da (Oixe 2002 [1927], 66). Mujikaren proposamena anbiziotsuagoa da, proposamen historiografikoan genero lirikoaren bilakaera baitu kontagai, eta bide horretatik, hari narratibo bakarrean biltzen ditu ahozko tradizio lirikoa eta idatzizko adierazpide liriko modernoagoak. Mujikaren ustez, ahozko literaturak eta bertsolaritzak berebiziko garrantzia dute: «una de las manifestaciones más genuinas de nuestro pueblo» (Mujika 1979, 12). Ezaugarri horri kasu eginez gero, Mujikaren proposamen historiografikoa originala da Euskal Literaturaren Historiografian ahozko literaturaren eta literatura idatziaren arteko oreka bat bilatu nahi duelako, eta bi esparruetarako baliagarri diren kontzeptu eta irizpideak osatu nahi dituelako. Kasu honetan, dena den, oreka hori ikuspegi literario baten ondorio izango da, eta ez bi sorkuntza-eremu horien logiken ezberdintasun eta berdintasunak irudikatzeko asmoa. Ondorengo adierazpen hauetan biltzen da Mujikaren ikuspegia:

Hemos de anotar que la poesía vasca, en general, tiene dos peligros: uno el de los que siguen caminos excesivamente fáciles y popularistas, para quienes no existen grandes pretensiones de estética (piénsese, por ejemplo, en tanto bertsolari de improvisación estética pobre y vulgar), y otro el del cultismo frío, falto de espontaneidad (Oihenarte, Larramendi, algunos momentos de Lauaxeta, etc.). La mejor síntesis de ambos elementos se efectúa en Detxepare (populismo intuitivo) y en parte de la producción última de Lizardi (cultismo intuitivo). (Mujika 1979, 141)

Azken batean, ahozko eta idatziaren arteko oreka hori, herrikoiaren eta kultuaren arteko oreka hori ikuspegi literario baten gauzatzea da, ez da literaturaren ikuskera eta jarduera guztiak azaltzeko asmoa.

Ahozkotasunaren eta idatziaren arteko hartu-eman hori irudikatzeko ahaleginik ere egin da, hainbat artikulutan. Adibidez, Asier Barandiaranek (2009) olerkarien bertsolarien diskurtso-moldean izan zuten eragina aztertu zuen. Edo Joseba Gabilondok (2009) ahozkotasun eta idatziaren arteko continuum historiko hori irudikatzeko ahalegina egin zuen. Joseba Gabilondok euskal poesiaren ibilbide historikoari erreparatu zion, betiere mugako eremu batean ibili den genero literariotzat hartuz, ahozkotasun eta idatziaren arteko eremuan. Bada artikulu horretan continuum-aren bi muturak harremanetan jartzeko asmorik, eta eskertzeko da lehen ahalegin hori. Bada, hala ere, artikulu horretan garatu beharreko alderdi bat: aldi historikoetariko bakotzean ahozkotasunak, idatziak eta herrikoitasunak izan duten funtzieta eta erabilera sozialean sakontzeko beharra nabaria da.

Bestalde, Orpustan (1996) ez dator bat Juaristiren lehen baieztapen harkin, ez baitu konsideratzen ahozko literatura klase xehearen adierazpide, atalaren izenburutik ohartarazi bezala: «*2. Chants basques à la fin du Moyen Age: une littérature aristocratique*» (Orpustan 2005 [1996], 15). Orpustanen baieztapen eta egituratze horrek Juaristiren ikuspegia auzitan jarzen du, eta baita hainbat historia-egilerena ere. Orpustanen iritziz ez dago zertan berdindu ahozko literatura herri xehearekin eta literatura idatzia klase sozial altuenekin, eta kultuenekin. Baina, berdintze hori hausten badu, ez da herri-literatura historiagai bihurtzeko, baizik eta ahozko literatura literatura kultuaren eremura hurbiltzeko, eta hartara, Historia osoan zehar logika narratibo berari lotzeko, literatura kultuaren ibilbide historikoa kontagai duena.

Ikuspegi horren arabera, sortzailearen klase sozialak definituko luke jarduera literarioaren herrikoitasuna.

### 2.3. Estetikak eta herri-literatura

Beste batuetan herri-literatura edo herrikoitasuna definitzeko, aldiz, estetikaren ikuspuntua erabili da, eta ez zaio hainbeste garrantzirik eman sortzailearen klase sozialari edo testuaren erabilera sozialari. Kasu hauetan adierazpidea izan da herrikoitasun hori definitzeko modua.

Patxi Altuna, Bernart Etxepare «herri-poeta» izendatu zuenean, ikuspegi horri lotu zitzaison (Altuna, 1981). Alegia, poemak osatzerakoan Etxeparek erabilitako hizkuntza baliabideak, erritmo baliabideak eta egiturak hartu zituen oinarri poetaren herrikoitasuna aldarrikatzeko. Aurelia Arkotxak ([www.basqueliterature.com](http://www.basqueliterature.com)) Patxi Altunak garaturiko diskurso horri erantzun dio. Arkotxak ohartarzi bezala, Altunak Etxeparereren interpretazio hori egiten duenean, ez du kontuan hartu garaiko testuinguru kulturala.

Gabriel Arestiren poesia ere herrikoitasun horrekin lotu izan da, baina, betiere herrikoitasun hori erabilera sozial baten ikuspuntutik irakurri da. Alegia, Arestiren poesiaren estetika aipatzean azpimarratu eta laudatu izan da herri-literaturaren eragina izan duela, eta herri-literaturako hainbat adierazpide egin dituela bere. Baina, adierazpide herrikoi horiek guztiak helburu nagusi liburuaren kultura garatzeko balio izan dutela azpimarratzen da, besteak beste, euskara batuaren eredua garatzeko balio izan dutelako, eta euskal irakurlearen komunitatea sendotzeko balioa izan dutelako.

#### 2.4. Bitartekaritza eta herri-literatura

Ahozko literatura hori herri xehearen adierazpide izanda, edo klase sozial altuenaren adierazpide izanda (muturrak mutur), argi dago adierazpide literario horiek guztiak bildu eta kontatu dituztenak literatura idatziaren edo literatura kultuaren ikuspegitik jaso eta bildu dituztela, eta hartara, ikuspegi horretatik ere interpretatuak izan direla. Horixe da Euskal Literaturaren Historia gehientsuenetan topatzen den egoera. Ahozko literatura edota herri-literatura aipagai denean literatura idatziaren garapena ulertzeko eta azaltzeko izan ohi da, idatziaren logikara eta begiradara bildua, eta ez ahozko literaturaren edota herri-literaturaren logikatik kontatua eta interpretatua. Zaitasun horrekin egiten du topo historia-egileak garai bateko ahozko literaturaren edo herri-literaturaren kontaketa egiteko, heldu zaizkigun lekukotza guztiak bitartekariek jasotakoak direla, eta galbahe hori iragazi dutela bilketa egitean ere.

Garai historiko zenbaitez hitz egiterakoan ezinezkoa da bitartekaririk gabeko herri-literaturako testuak biltzea, kultura jasoaren dokumentuetan jaso direlako, eta are gehiago, dokumentu haiei esker heldu zaizkigulako. Ugariak dira halaxe bildurikoak: esaterako, errefrauak, Garibairen kronikan bilduriko kantak, XIX. mendeko kantu-bildumak, eta abar. Jada Bakhtinak aipatu zuen errealityate hori (Zubieta, 2000, 29), oso zaila zela herri-literaturako testuak eta adierazpideak bitartekaririk gabe jasotzea eta biltzea, eta hartara, betiere zeharka bildutako kulturaz ari garela.

Nazio modernoen eraikuntza-prozesuek gizarte aldaketa zenbaiti erantzun zioten: besteak beste, industrializazio-prozesuek, modernitateak eta iraultza burgesak sorturiko mundu ikuskera berriari. Pentsamolde berri horrek ere herri-literaturaren inguruko diskurtso berri bat sortu zuen. Izan ere, elite letratuak herri-literatura erabiliko baitu nazio identitatea eratzeko. Erromantizismoak herri-literaturaren erabilerak hori sustatu zuen, herri-literatura eta literatura nazionalaren arteko zubiak eraikiz.

Egoera horren jakitun izanda, bi aukera daude: bitartekaritza horren interpretazioa Literaturaren Historian bertan adieraztea, edo bitartekaritzalan hori ezkutatzea eta isilaraztea. Euskal Literaturaren Historian sarritan isiltzen da bitartekaritza-lan hori.

Ziur asko, herri-literaturako jarduerak garai historiko batean nola garantu diren azterzeko badira dokumentu historikoak, ale literarioak bildu ez, baina, jarduera literario zenbaiten deskribapena egiten dutenak, jakina, bitartekari baten begiradatik, baina, dokumentu horiek balia genitzake garaiko jarduera literario herrikien egoeraren isla jasotzeko. Adibidez, jakin badakigu XVI. mendearen eresiak egiten zituzten emakumeen jarduna ohikoa zela, eliza katolikoaren debekuetan adierazten delako. Debeku horietan deskribatu egiten da nolakoa zen emakume hauen jarduera hori, eta zeharka eman den informazioa bada ere, jarduera literario haren zantzuak topatzen dira.

Ondorioz, zaila da herri-literaturaren diskurtsoak berritzea, garai batzuen inguruko artxibo-lana, dokumentazio-lana eta bilketak egin gabe daude-lako, baita garaiko giro sozial eta kulturala irudikatzeko ere.

## 2.5. Dokumentuak eta herri-literatura

Luis Beltrán-ek (2005) eta José Antonio Escrig-ek (2005) *Teorías de la historia literaria* artikulu-bildumaren sarreran, bi historia mota bereizten dituzte. Bata, dokumentuetan oinarrituriko Literaturaren Historia, eta bestea, monumentuetan oinarrituriko Literaturaren Historia:

«Hay un esquema que se repite en diferentes escenarios del debate de la historia literaria, especialmente en los europeos. Es aquél en el que conviven, de forma desigual, dos maneras de entender la historia. La primera es empírica, se ha hecho oficial en las academias y ha sabido proporcionarse un método científico. Puede identificarse con el historicismo culturalista y ha concentrado sus esfuerzos en redactar una historia literaria de las naciones con herramientas filológicas. La segunda es filosófica, y se propone reconciliar los objetivos de la historia y de la estética proporcionando una historia monumental de la literatura». (Escrig 2005, 43)

Euskal Literaturaren Historiografiak dokumentuan oinarrituriko Historia osatzearen alde egin izan du gehien-gehienetan, nahiz eta dokumentu izarra hori ez den modu berean kontuan izan garai historikoaren arabera.

Luis Villasantek (1961), esate baterako, ez zion literaturaren kontzepzio estetikoari erreparatu Euskal Literaturaren Historia osatzean:

Al decir que escribimos la historia de la literatura vasca es preciso advertir ante todo que no entendemos esta palabra «literatura» en su sentido restringido de «bella literatura», de producciones desinteresadas con vistas a expresar la belleza literaria o estética (...). Nosotros queremos tomar el vocablo en su sentido amplio de todo libro o publicación escrito en lengua vasca, sin que esto quiera decir tampoco que nuestra intención sea citar o numerar cuanto se ha publicado en dicha lengua. (Villasante 1961, 20)

Villasantek berak adierazi bezala, literatura kultua du kontagai, «literatura culta, libresca» (Villasante, 1961, 20). Ondorioz, corpusaren definizioa egin den unetik beretik, herri-literatura eta ahozko literatura Historiaren eremu horretatik kanpo geratu dira.

Bestalde, Koldo Mitxelenak (1960) bi hari narratibo bereizi zituen *História de la literatura vasca-n*: batetik, XIX. mende erdira arteko testigantza idatzi guztiak bildu zituen, zehaztasun osoz<sup>6</sup>; bestetik, XIX. mende erditik aurrerako dokumentu idatzietan beste hautu bat egin zuen, kalitate literarioaren araberako hautua<sup>7</sup>. Koldo Mitxelenak eginiko bereizketa horretatik aurrera, historia-egile gehienek ere hari narratibo ezberdinetan eta irizpide literario ezberdinen arabera aztertu izan dituzte aldi historiko bi horiek.

Bi hari narratibo horietan ere dokumentu-izaeraren inguruko ikuspegia bat biltzen da: alegia, XIX. mende erdira arteko testigantza horietan kalitate estetikoa baloratzen ez bada, jakina, baloratzen dena dokumentu historikoa da, garai bateko egoera historikoa islatzen duen dokumentu izatea. Ikuspegia dokumental horri lotzen zaizkio herri-literaturaren inguruan egindien irakurketa asko eta asko. Egia da herri-literaturako kantu asko historiagileen bildumatan heldu zaizkigula, Garibairen eskutik, kasu. Edonola ere, kantu eta testu zahar askoren kasuan ez da egon ahaleginik testu horien irakurketa estetikorik proposatzeko, edo testu horien komunikazio literarioaz aritzeko. Gehientsuenetan jaso dugun lorratz horri segitzen zaio, eta testu zahar horiek ustez irudikatzen duten gertaera historiko horrekin harremanetan aurkezten zaizkigu. Testu zaharren dokumentu-izaera hau argi ikusten da kantu eta testu zaharrak non sailkatu erabaki behar denean. Askotan aipaturiko adibidea ekarriko dugu hona: non kokatu behar dugu Bereterretxeren *kanhoria*? Testu hori jaso eta bildu zen garaiaren ikuspegitik azaldu behar al da testua? Edo kontagai duen gertaera historikoaren garaian

<sup>6</sup> «De una manera deliberada he tratado de que mis indicaciones sean completas para los períodos más antiguos. Como antiguo en nuestro caso no quiere decir gran cosa, esto vale para los textos del siglo XVI y los fragmentos anteriores e incluso, aunque en grado menor para los del XVII. Puesto que no hay razón para que una obra no sirva a la vez a intereses distintos con tal de que no sean contradictorios, he querido que aquellos que se interesen por la historia de la lengua en sus fases conocidas más antiguas puedan saber sin trabajo cuáles son los documentos de que se dispone y dónde pueden ser consultados». (1988 [1960], 7).

<sup>7</sup> Hala ere, ez du zehazten edo adierazten zertan datzan kalitate literario hori, baina, argi adierazten du mendebaldeko kulturako neurriak egingo dituela bere: «de medir las proporciones de nuestra literatura con medidas de curso internacional, las mismas poco más o menos que se emplean para justipreciar las literaturas de los pueblos occidentales» (Mitxelena 1988 [1960], 8).

kokatu behar dugu? Kasurik gehienetan irudikatzen duen gertaera historiko horri ematen zaio lehentasuna, eta irudikaturiko gertaeraren denbora identifikatzerik bada, aldi horretara eramatzen da testu zaharra, eta Literaturaren Historiatan aldi horren logikan kokatzen da. Alegia, dokumentu historiko huts modura erabiltzen da testua, ia-ia Garibaik berak eginiko erabilera historikoaren parean.

Ikuspegি honen arabera, historiako katebegi galdu bat irudikatzeko gaitasunaz litzateke herri-literatura baloratzeko irizpide bakar. Izan ere, kantu zaharrak historian kokatzen diren Euskal Literaturaren Historia hauetan, adibidez, *Ez dok amairu*-ren ekarpena ez da kontuan hartzen, nahiz eta argi dagoen 60eko hamarkadan kantagintza berriaren eta liburuaren kulturaren arteko harremana estu-estua izan zela. Garaia girotzeko aipatzen da *Ez dok amairu*-ren ekarpena, baina ez kantuen irakurketa literarioa proposatzeko, edo sorturiko imaginarioa aztertzeko.

## 2.6. Euskararen batasuna eta herri-literatura

Euskal Literaturaren Historia guzietan oso presente dago euskararen batasunaren aldeko diskurtsoa, eta kasu askotan, euskararen batasuna bera irizpide literario izatera heltzen da. Alegia, testuan erabilitako hizkuntza-eredua bihurtzen da sarritan irizpide literario. Jakina, 60eko hamarkadan Mitxelenak (1960) eta Villasantek (1961) idatziriko Historia haietan batasunaren irizpidea mugari da, besteak beste orduantxe zegoelako auzi hura jokoan. Ibon Sarasolak (Sarasola 1976) Euskal Literaturaren Historia soziala gazteleraez eman zuenean, hitzaurrean bildu zituen batasunaren inguruko iritziak:

La unificación del idioma escrito, paso imprescindible en la conversión del euskera en lengua de cultura es una de las cuestiones que más polémicas ha levantado en los ambientes vascos en los últimos años. Ha sido precisamente la nueva generación de escritores la primera en hacer ver la urgencia de una solución concreta y operante a este problema sobre el que las generaciones anteriores no se encontraban en la práctica realmente sensibilizadas. Los primeros pasos en este sentido datan de agosto de 1964, cuando un grupo de escritores jóvenes establecieron en Bayona los criterios para la unificación de

la ortografía, la declinación y las formas más elementales del verbo auxiliar. El Congreso que la Academia de la Lengua Vasca celebró en Aránzazu en septiembre de 1968 aprobó, con correcciones mínimas, las propuestas de la reunión de Bayona. A partir de entonces, la Academia, bajo la dirección de L. Villasante, continúa trabajando seriamente y a buen ritmo en la labor de completar la tarea entonces comenzada. Los datos que presento a continuación, que se refieren al período 1972-1973 y que tomo, como los anteriores, de *Euskal Literatura numerotan*, pueden dar una idea de la acogida que dicha propuesta ha merecido por parte de los escritores vascos.

Respecto a la producción editorial, de los 101 libros publicados en dicho bienio, 71 fueron escritos según las recomendaciones de la Academia. Ello supone el 70,3% del total. Estas cifras que indican un estado de opinión netamente favorable a las directrices unificadoras de la Academia cobran su verdadera significación al comprobar que la oposición a dichas directrices se concentra en la producción de libros populares, como la que recoge la producción bertsolarística y la de libros religiosos, ambas con un 0% de aceptación. En cambio, el 94,6% de la producción ensayística está escrita en «euskeratua», es decir en euskera unificado. Respecto a la producción literaria, la poética acepta en su totalidad la unificación. En cuanto a la narrativa las cifras muestran que se halla dividida en dos sectores inconexos entre sí: por un lado la narrativa moderna, que supone dos tercios de la producción total, debida a los escritores más jóvenes (con una edad media de 33,3 años), y otra, de estilo absolutamente tradicional, producida por escritores cuya edad media es de 59 años, y contraria en bloque a las propuestas de Aránzazu (...).

La misma alta correlación podemos deducir en lo que se refiere a nivel de estudios: todos los escritores de formación universitaria aceptan sin excepción el modelo de idioma escrito unificado. El porcentaje de aceptación baja significativamente cuando se consideran los escritores de formación clerical: sólo el 36,8% de ellos escriben en euskera unificado. Por lo que respecta a los escritores con estudios medios o a los autodidactas, el porcentaje asciende al 62,5%. (Sarasola 1982 [1976], 23-25)

Batasun eredu horren finkatzea azaltzeko lau irizpide erabiltzen ditu Sarasolak: editoriala, argitalpen kopuruari begiratzen diona; autorea, ereduau-

ri lotzen zaizkion autore kopuruari begiratzen diona; belaunaldia, idazleen adinari begiratzen diona; eta kulturala, eredu bere egin duten idazleen ikasketa eta prestakuntzari begiratzen diona. Irizpide hauen erabilerak honako ikuskeria hau garatzen du: eredu batua erabiltzen duten idazleak belaunaldi berrikoak eta ikasiak direla. Aurreraxeago honako hau dio Sarasola eredu batua bere egin ez duten sortzaileen inguruan:

Sólo se oponen a la unificación aquellos que en el fondo no han superado una concepción del euskera según la cual dicho idioma no es sino una manifestación más (la más importante quizás, pero una más) del rico folklore vasco. Con su labor se niegan a que el euskera se convierta en idioma de cultura, y ésta es ya la única posibilidad de que nuestra lengua pueda sobrevivir en el contexto sociológico en el que actualmente se inserta, que la obliga inexorablemente a competir con lenguas de cultura. De todas formas este requisito no es suficiente, pues queda el decisivo problema de la oficialidad, pero sí es una condición necesaria. (Sarasola 1982 [1976], 25-26)

Sarasolaren ustez, euskara batuaren kontrakoek ez dute nahi euskara kultur hizkuntza bilakatzerik. Baieztapen horren atzean herri-literaturaren inguruko ikuskerarik ere biltzen da. Izan ere, Sarasolak kultur maila aitortzen dio euskara batuan sorturiko diskurtso literarioari, baina, zalantzan jartzen du eredu batu horretatik kampo sorturiko testuen kultur maila (eta bide batez, literariotasuna). Jakina, Sarasolak garaiko ikuskeria hedatuena baino ez zuen bere egin, gerora gailenduko den ikuskeria. Garai hartako Euskal Literaturaren Historia guztietañ historialariekin euskara batuaren inguruko posizio-hartzetan egin zuten, halabeharrez, osatzen eta eraikitzen ari zen eredu zelako, eta neurri horretan, Euskal Literaturaren Historia horiek ere euskara batuaren eredu hori zabaltzen eta zilegiztatzen lagundu zuten.

Bide horretatik, 80eko hamarkadatik aurrera idatziriko Euskal Literaturaren Historia guztietañ, literaturaren corpusa hautatzeko irizpide nagusi bat izan da euskara batua, jakina, 60eko hamarkadatik aurrerako literaturantzako corpusa hautatzerakoan erabili dena. Eredu batuaren gailentze horrek, herri-literaturaren inguruko ikuskerarik ere sortu du, XX. mendearren azken hereneko sorkuntzaz aritzean sarritan herri-literaturaren esparrura hurbilarazten baitira euskara batuan ez dauden testuak, eta

hizkuntza-eredua bera herrikoitasun hori definitzeko irizpide bihurtzen da, euskara batua=kultur hizkuntza=literatura jasoa berdintzea osatuz.

Hala ere, euskara batuaren finkatzea aipatzean, ezin aipatu gabe utzi ereduaren finkatzean herrikoitasun kontzeptuak eta ahozko hizkerak izan duten garrantzia. Ikusi besterik ez dago Gabriel Arestiren poesiaz osatu diren hainbat eta hainbat balorazio estetiko.

## 2.7. Instituzioak eta herri-literatura

Hasieran aipatu dugun moduan, Literaturaren Historiaren funtzioetariko bat instituzio literarioak sendotzea eta eratzea da. Euskal Literaturaren kasan argi dago bi instituzio bereiz daitezkeela: bata, herri-literaturaz arduratzenten den sarea; eta bestea, literatura jasoaz arduratzenten den sarea. Horren erakusle da Euskaltzaindiako batzordeen banaketa bera, Herri-literatura eta Literatura Ikerketa batzordea bereizten dituena (bien arteko zubi gutxi egon dira, Juan Mari Lekuona dugu, esaterako, zubi horietariko bat).

Sortzaileak elkartzeko eta antolatzeko unean ere esparru eta elkarrekin ezberdinak sortu dira. Adibidez, Bertsozale elkartearren jardunak ez du kasik Euskal Idazleen Elkartearren jarduerarekin harremanik, ez dago kasik elkarlanik.

Euskal Literaturaren Historiari herri-literaturaren inguruko hausnarketa eta irakurketa berriak ekartzea bi instituzio berezitu horien arteko ikerketa-lerro bat garatzea ekarriko luke, bi mutur horien artean dagoen continuum literario osoa kontuan hartuko lukeena, eta gaur egungo bereizketa honen arabera ikusezin dena. Continuum literario hori irudikatu ahal izateak literatur ekoizpenaren panorama konplexuagoa bilduko luke. Esate baterako, poesia errezitaldiek ez dute lekurik ez herri-literaturako ikerketa-lerroetan, ez eta liburuaren kulturan.

## 3. *Corpusaren antolaketa eta egituraketa*

Edozein periodizazio edo egituraketak Historiaren, literariotasunaren eta espazio geografikoaren inguruko ikuspegi konkretu bat garatzen du. Aipatu

dugun bezala, Euskal Literaturaren Historia gehienek dokumentuetan oinarrituriko Historia Literarioak dira, eta ondorioz, batasunerako eta integratzenko joera indartsua dute, datu dokumental guztiak batasun eta osotan batean bildu nahi diren. Batze hauetan banaketa hierarkikoak eragiten dituzte, eta banaketa hierarkiko horiek Historiaren egituraketan egiten dira esplizitu, lehen-lehenik.

Euskal Literaturaren Historieei erreparatuz gero, modu orokor batean, honela sailka genitzake corpora egituratzeko hartu diren bideak:

- a) Autoritatearen araberako sailkapenak: Orixek (1927).
- b) Mendearen araberako sailkapenak: Villasante (1961), Onaindia (1972-1990), Mujika (1979), Orpustan (1995) eta Urkizu (2000).
- c) Mugimendu politiko, sozial eta kulturalen araberako sailkapenak: Sarasola (1971), Juaristi (1987), Kortazar (1990) eta Aldekoa (2004).

Euskal Literaturaren Historiak egituratzerakoan hiru irizpide hauetan gurutzatu egin dira: autoritateari dagokiona, ikuspegi geopolitikoari dagokiona eta genero literarioari dagokiona. Hala ere, lehen Historietan azpisailkapenean erabilitako irizpide zirenak (ikuspegi geopolitikoa eta genero literarioa) garrantzia hartu dute azken Historietan, eta genero literarioaren irizpidea gailendu da. Aldaketa horrek, Euskal Literaturaren eremuan ere autore-kritika batetik genero literarioen kritikara igaro garela iradokitzen du.

Ikuspegi eta begirada berri horrek ekar dezakeen beste aldaketarik, batik bat herri-literaturaren eremuan. Izan ere, herri-literaturan autoritateak ez du zer-tan garrantzirik izan, eta horregatik, autoritatearen araberako edozein sailkapenek, ia ezinbestez herri-literaturako sorkuntza asko eta asko bigarren mailara igarotzea ekarri zuen (edo ahanzturara). Autoritatearen araberako irizpideak garrantzia galtzea eta genero literarioarenak garrantzia hartzea onuragarria izan zitekeen herri-literaturako generoak ikusgarri egiteko. Baino, ez da horrela izan, eta sailkapenerako irizpideak berritu eta egokitutu badira ere, berritze eta egokitze horrek ez du corpusaren hautaketan berritze eta egokitzerik ekarri<sup>8</sup>.

---

<sup>8</sup> Are gehiago, azken aldian idatzi diren Euskal Literaturaren Historietan ez da corpusaren inguruko hausnarketarik edo erabakirik aipatu, nolabait, corpusaren hautaketa kanon konpartitu

#### 4. Ondorio zenbait

Euskal Literaturaren Historiografian garatu eta hedatu diren herrikoitasunaren kontzeptuetan arakatu ondoren, honako ondorio hauek dira azpi-marragarri:

- a) Herri-literaturako edo literatura popularreko jarduerak Euskal Literaturaren Historian txertatu ahal izateko, lehen-lehenik corpusaren hautaketa definitzeko erabili diren irizpideak berrikusi behar dira, *literario* kontzeptuaren mugak zabalduz.
- b) Herri-literaturako jarduerak Euskal Literaturaren Historian koka-tzeko beharrezkoa da dokumentu-izaeratik at jarduera literario horiek azalduko eta baloratuko dituen logika literario eraginkor bat osatzea.
- c) Herri-literaturaren ekarpenak Literaturaren Historiaren katera biltzeak, literatura jasoaren logika birpentsatzera garamatza, eta neurri horretan, herri-literatura eta literatura jasoaren artean dagoen continuum literarioaz aritzeko logika berria sortzen gonbidatzen.
- d) Herri-literaturaren ekarpenak Literaturaren Historiaren katera biltzeak, gaur egun bi ikerketa-eremu berezitu eta bi instituzio berezitu direnen arteko zubia egiten lagunduko luke.

Artikulu hau herrikoitasun kontzeptua euskal literaturaren Historiografian nola garatu den aztertzeko lehen hurbilketa baino ez da, etorkizuneko ikerketa-lan garatu batek kontuan hartu beharko lituzkeen korapilo zenbait aurkeztu besterik egin ez dituena, eta hurbilpen horren premia azalarazi nahi izan duena. Etorkizunerako, bada, aurkeztu diren kontzeptu hauetako zenbait xeheago aztertzeko zeregina.

---

\* Lan hau GIC 10/100 eta TIT 495/10 ikerketa taldearen proiektuaren zatia da, UPV/EHUk eta Eusko Jaurlaritzak diruz lagundua.

---

batzen parte bailitzan, eztabaидagai ez litzatekeena. Aldiz, Historia horietan bertan auzitan jarri dira corpus konpartitua eta kanonizaturiko horren gaineko irakurketa eta balorazio estetikoak, edo ikuspegি historiko eta sozialak.

## Bibliografía

- ALTUNA, P., 1981, «Etxepare herri poeta», in *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- AMEZAGA, J., 1995, *Herri kultura: euskal Kultura eta kultura popularrak*, Bilbo: EHU.
- BARANDIARAN, A., 2009, «XX. mende hasierako bertsolarien argudiaketa eta orduko idazleen eragina euren bertsogintzan», *Oihenart*, 24 (2009) 71-86.
- BELTRÁN ALMERÍA, L. (bil.); Escrig, J. A. (bil.), 2005, *Teorías de la historia literaria*. Madrid: Arcos.
- EGAÑA, A. eta SARASUA, J., 1997, *Zozoak beleari*. Irun: Alberdania.
- FIGUEROA, A., 1988, *Diglosia e texto*. Vigo: Xerais.
- GABILONDO, J., 2006, *Nazioaren hondarrak: euskal literatura garaikidearen historia postnacional baterako hastapenak*, Bilbo: EHU.
- \_\_\_\_\_, 2009, «Euskal poesiaren historia postmoderno baterantz: ahozkotasunaz eta performantzeaz (Gerra karlistetako bertso paperetatik rock erradikalera eta K. Uriberen poesiara)», *Egan*, 3-4 (2009) 5-52.
- LEKUONA, J.M., 1982, *Ahozko euskal literatura*. Donostia: Erein.
- \_\_\_\_\_, 1964, *Literatura oral vasca*. Tolosa: Auñamendi.
- OLAZIREGI, M.J., 2008-2009, «Literatura vasca y identidad nacional», *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca*, 14 (2008-2009) 355-369.
- ROMERO TOBAR, A., 1998, «Las Historias de la literatura y la fabricación del canon», in *Canon literari: ordre i subversió*. Lleida: Institut d'Estudis Llerdencs.
- TACCA, O., 1968, *La historia literaria*. Madril: Gredos.
- SARASOLA, I., 197, *Euskal literaturaren historia*. Donostia: Lur.
- TALENS, J., 1994, *Escritura contra simulacro. El lugar de la literatura en la era electrónica*. Valentzia: Episteme, Colec. Eutopías 56.
- ZUBIETA, A.M., 2000, *Cultura popular y cultura de masas. Conceptos, recorridos y polémicas*. Buenos Aires: Paidós.

# Eztabaida-saioen laburpena

Atal honetara bildu dira eztabaida-saioetan egin ziren ekarpen eta galdera interesarrienak. Hortaz, ez dira eztabaida-saio osoak bildu, baizik eta horietan mahai-gaineratu ziren gogoeta esanguratsuenak.

**Sarrera-hitzak:** «Euskal literaturaren historia eta historiografia», Txuma Lasagabaster.

Peillenek honako hau galdetu dio Lasagabasterri: «zer dira euskal literaturaren kanonak?».

Jesus Mari Lasagabasterren ustez irakurle bakoitzak badu bere kanona. Literatura bakoitzak badu normalean kanona mugatzen duen arau edo kontzeptu zenbait. Edonola ere, kanona kontzeptua berez da mugikorra.

Iñaki Aldekoa ere bat dator iritzi horrekin. Kanona mugikorra eta al-dakorra da, eta are gehiago, Aldekoaren ustez, kanonaren inguruko auzia Unibertsitateko hausnarketagai bilakatu da kanonaren kontzeptua bera auzitan jarri denean. Egia da erreferentzia bat behar dela, eta kanonak betetzen du erreferentzia-guneak sortzeko funtzio eta premia hori.

Karlos Otegik dio bi mutur aurkeztu direla: batetik, irakurle bakoitzak baduela kanon bat; eta bestetik, oso zehazgabea eta mugikorra dela. Horren haritik, honako galdera hau egin zuen: «ez al dago tartean beste elementu bat bi mutur horiek batzen dituena? Ez al da posible komunitate batean eta garai batean kanon konpartitu bat, estabilizatu bat?». Aldekoak dio hezkuntzak jasotzen duela kanon konpartitu eta kolektibo hori.

Jesus Mari Lasagabasterrek ere kanona kolektiboa dela uste du, jakina. Literatura instituzio sozial eta historikoa denez, komunitate bakoitzak ultzarturik ikusten du bere burua kanon bat, eta zentzu horretan, kanonak badu garrantzia kolektibo hori, talde identitatea sortzeko gaitasuna.

Iñaki Aldekoak dio komunitate barruko adostasunak direla kanonak.

Mari Jose Olaziregik adierazi du, jakina denez, kanonak botere gune batet eraikitzen dituela, instituzio literarioak, besteak beste. Kanona etengabe egiten, berregiten eta deusezten da, baina, instituzioaren dinamika oso motela da, eta moteltasun horrek iraunazaten du kanona. Eskolak, sariek, gune ofizialek... eragin zuzena dute moteltasun horretan.

Karlos Otegik beste galdera bat egin du: «kanonaren zehazgabetasun hori historia galarazteraino heltzen da? Kanona etengabe mugitzen eta aldatzen ari denez, posible al da historia? Horraino heltzen al da kanonaren zehazgabetasunaren eragina, bihurritasuna edo gaiztakeria? Ba al dago ekilibriorik?». Lasagabasterrek adierazi du ekilibrioa edo oreka egon badagoela, baina, gakoa honako galdera honetan datzala: «nork erabakitzentzu du ekilibrio hori?».

**1. Txostenak:** «Euskal literaturaren sistema: historia baterako aukera-irizpideak», Ana Toledo.

Mari Jose Olaziregik honako galdera hauek mahai-gaineratu ditu, txosten honen harira: «zergatik erabili sistema kontzeptua literaturaren historia egiteko, baldin eta kontzeptu hori auzitan egon daitekeen literatura komparatutik, ikuspuntu postkolonial batetik –nazioaren ikuspuntutik–, eta baita ikasketa kulturalen ikuspuntutik ere? Baliagarria al da sistema kontzeptua historiografia egiteko?».

Ana Toledoak adierazi du txosten honetan aurkeztu nahi izan duela zein irizpide hartzen dituen kontuan euskal literaturaren historia mugatzeko: batetik, euskaraz eginko literatura, eta bestetik, berbaldi literario moduan jasotako testuak.

Lehen irizpidearen inguruko eztabaidea abiatu da. Hainbat parte-hartzailek galdera bera mahai-gaineratu dute: «euskarazko testuak izan behar al dute bakarrik? Eta hala bada, nola kontatu behar da euskarazko testuek gainerako hizkuntzatako testuekin duten harremanea?». Kezka hori sortu da eztabaidea-saioan zehar, behin baino gehiagotan. Alegia, honako galdera hau mahai-gaineratu da behin eta berriro, kezka gune nagusi bat dela azaleratuz: «nolako begirada konparatua erabili behar da euskal literaturaren historia egiteko?».

Bigarren irizpidearen inguruko eztabaidea abiatu da. Jon Casenavek honako galdera hau egin zuen: «berbaldi literario hori zerk definitzen du, egi-learen asmoak edo gaur egungo interpretazioak?». Jakina, berbaldi literarioa zeri deitu izan zaion historian zehar eraldatu izan da, baina, kasu askotan, ez dago jakiterik aldi historiko konkretu batean zein testu jaso diren litera-

rio modura, eta are gehiago, gerta liteke testu batzuk komunitatearen parte batek literariotzat hartu izana, eta beste parte batek ez. Izan ere, literatura-ren kontzeptua aldakorra da, eta gainera, aldi berean kontzeptu ezberdin zenbait egon daitezke bizirik.

Iñaki Aldekoak adierazi du, asmoak asmo, egon badaudela garai batean indarrean dauden konbentzio literarioak. Esaterako, Ardi galduak idatzi zenean, bere asmoa ez zen literarioa, baina, konbentzio literarioak erabili ziren testua garatzeko, eta hartara, konbentzio literario horien arabera balora de-zakegu. Xabier Etxanizek beste adibide bat ekarri zuen gogora, Kirikiñoren *Abarra*. Garai hartan, argitaratu zenean, *Abarra* literatura esparruaren erdigunean zegoen, eta egun, aldiz, Haur eta Gazte Literatura esparruko lan literariotzat hartzen da. Izan ere, sisteman mugimendua daude, eta erdiguean zegoen obra periferiko bihur daiteke (edo kontrara). Etxanizek gogora ekarri zuen, historia egiteko arazo handienetarikoa hauxe dugula, ez dagoela jasorik obra askoren garaiko harreraren inguruko informaziorik.

Jean Haritschelharrek beste adibide bat ekarri zuen gogora: *Biblia*. Haritschelarren ustez, lan hori ez da historia literarioan kokatu ohi itzulpena delako, eta jatorrizkoak behar dira historiaren katera ekarri behar. Haritschelhar bat dator corpus literarioa euskarazko testuetara mugatzearekin, eta baita jatorrizko testuak bakarrik jasotzearekin ere.

Argi dago, literaturaren historia osatzerakoan hartu behar den lehen era-bakia horixe dela, zein corpus literario kateatuko den historiaren harira. Euskal literaturaren kasuan lehen urrats horrek ere arazo eta buruhauste ugari ekartzen ditu.

## 2. Txostenak: «Eedu historiografiko finkatu berriaz zenbait gogoeta», Jon Casenave.

Jon Casenaveren ustez, literaturaren historiak helburu pedagogikoa du, irakaskuntza du helburu. Iñaki Aldekoarentzat, aldiz, historia-egileak bere burua garaiko pentsamenduan kokatzeko egiten du historia, eta zentzu horretan, Aldekoaren ustez, modernitatearen narrazioa da historiaren funtsa. Euskal literaturaren historian, gogorarazi duenez, Mitxelenaren eskutik etorri zen modernitatearen narrazio hori. Aldekoaren ustez, historia-egile

bakoitzak bere mundutik egiten du historia, bere mundua azaltzeko asmoz, ez helburu pedagogiko hutsez.

Jon Kortazarrek adierazi du eremu literarioa ulertzeko bi modu daudela: bata, eredu estua, Pierre Bourdieu-ren bidetik, instituzionalizazioa eta profesionalizazioa hartzen dituena oinarri; bestea, eredu zabala, non egituratze zabalagoa hartzen den kontuan. 60eko hamarkadan, esaterako, egon zen beste sistema literario bat, profesionaltasunaren kontzeptuari edo instituzionalizazioari loturik ez zegoena.

Mari Jose Olaziregiren ustez, literatura konparatu garaikidea giltzarri suertatzen da hizkuntzak, euskarak, gure historiografia egiteko orduan izan duen garrantzia ulertzeko garaian. Kontu egin Claudio Guillen bezalako konparatistek, sistema kontzeptua ikerketa hispaniarretan aplikatu zuenak, hizkuntzen arabera antolatutako literatur produkzioa lehenesten dutela konparaketa egiteko garaian, eta ez, muga politiko edo administratiboek definitzen duten literatura-esparrua. Euskal historiografian bide hortatik jarraitu dugu eta ez da kasualitatea Koldo Mitxelena izatea historiografia garaikidean eragin erabatekoa izan duena. Ikuspuntu konparatzailea erabili baitzuen hark bere lanean.

Mari Jose Olaziregiren iritziz, ez du modernitate kontzeptuak generoen arteko desoreka hori esplikatzen, narratibaren gailentasunari dagokionez behintzat. Modernitatearekin lotuta datozen beste generoak, hala nola, saiakerak, gurean ez baitu literatur generoen arteko oreka/desoreka hainbeste baldintzatu. Bestalde, garrantzizkoa iruditzen zaio Olaziregiri euskal literatura-kritikaren beraren bilakaerak euskal literaturaren historiografia ulertzeko moduetan izan duen eraginaz ohartarazteari. Zentzu horretan, formalismoaren ekarpenak edo narratologiaren garapenak, hau da, narrativa-testuen kritikara bideratutako eredu estrukturalistak, eleberriari eman zaion zentralitatean eragin zuzena izan zuten. Euskal Filologia ikasketak 1977 inguruau hasten dira eta garai beretsukoak ditugu eredu estrukturalista aplikatuz egindako lehenengo ikerlanak, besteak beste, Txuma Lasagabasterri zor dizkiogunak.

Jon Casenavek ohartarazi du, kritika literarioaren bilakaera horrek, edo nola ere, ez duela 60ko hamarkadan garatu zen eredu historiografikoa auzi-

tan jarri, eta XXI. mende hasieran idatzitako euskal literaturaren historia guztiak Koldo Mitxelenaren historia dutela eredu.

Jean Haritschelharrek Koldo Mitxelenak Ipar eta Hego Euskal Herriaren literatur ibilbidea osatzeko hartu zuen erabakiaz jardun zuen. Garai historiko batzuetan bi eremu horien artean haustura egon dela kontuan hartu behar da, eta historia literarioak horri erantzun behar dio. Baino, halaber, haustura hori gainditu zuten ekimenak hartu behar dira kontuan: esaterako, RIEV, Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza.

Jean Haritschelharrek jakinarazi du, bestalde, Koldo Mitxelenaren historiaren lehen izenburua, *Historia crítica de la literatura vasca* zela, baina, «crítica» hitz hori kendu egin zioten argitalpenean. Haritschelharren ustez, izenburu horrek adierazten du Mitxelena historia ofizialean haustura ekantriko zuela bazekiela. Karlos Otegiren iritziz, ordea, «crítica» hitz horrek egileen gaineko ikuspegi kritikoa garatu zuela adierazi nahi zuen.

Bestalde, Karlos Otegik zenbait galdera egin dizkio Jon Casenaveri: «zein da eredu historiografiko hori gainditzeko bidea? Zer da kontaketa berri hori egitea? Eredu nazionala gainditzea? Ikuspegi modernista gainditzea? Periodizazioa gainditzea?».

Jon Casenavek adierazi du Mitxelenak eginiko literaturaren historiak eredu historiografiko bat erabili zuela, baina, aurretik hainbat eredu historiografiko ere egon zirela: adibidez, Francisque Michelena edo Lhanderena. Beraz, beste hainbat eredu historiografiko ere erabili izan dira, gerora kontuan hartu ez direnak.

Jon Casenavek dio ez duela orain arteko eredua indargabetzeko asmorik, ez du kentzeko asmorik. Ohartarazi nahi izan du bazorretik zenbait gai, genero, eta kontzeptu ekarriz, historiografiaren eredua osa daiteke. Casenaveren ustez, antzerkiaren inguruko gizarte-ikuspuntu zenbait garatuz, esaterako literatur gertakariei begiratzeko modu bat eraikitzen da, eta jardun kultural batzuei dimentsio berria emateak ere literaturaren historiara bilduko diren kontzeptu eta ideiak baldintzatuko ditu.

Iratxe Retolazak adierazi du eredu historiografikoa beharbada ez, baina, genero literario zenbaiti garrantzia emanet, euskal literaturaren ibilbide

osoaren inguruko irudia aldatuko litzatekeela. Esaterako, kazetaritza kontuan hartuz gero, eta Jean Etxepareren ekarpenak ibilbide diakronikora txertatuz gero, errealsismoaren inguruko diskurtsoa zeharo aldatuko litzateke euskal literaturaren historian.

Casenavek dio gizarte-arazoak tratatzeko moduak daudela auzitan, eta hizkuntzaren produkzioa ukitzen duten arazoak tratatzeko erak daudela auzitan.

Bestalde, Ibai Atutxak erdigune eta periferien arteko harremanez jardun du: «Bazterretik zentrora ekarpenak hurbildu behar direla esan da, baina, koska hortxe datza: zein da bazterra eta zein da zentroa?». Gaur dugun zentroak Espainiar estatuan integraturik dagoen Euskal Autonomia Erkidegoari erantzuten dio, eta literaturaren historiek ere zentro horri erantzuten diote. Ikuspuntu horrek zentro batu baten eraikuntza baino gehiago dependentzia harremana ere sor dezake. Galdera honako hau da: «zein gatazken bidez sortu dira zentroak? Zein gatazken bidez sortu dira bazterrak?». Horrek dakartzan arazoak subjektu eraikuntzaren arazoak dira: zer da euskaldun izatea. Ipar eta Euskal Herriaren artean batasuna nola bilatu da gakoa auzi honetan. Roberto Espositok *Communitas* liburuan komunitateaz hitz egiterakoan honela dio: modernitatean komunitatea propietate bat konpartitzen duten talde modura irudikatu da. Zentzu horretan, euskara dugulako gara euskaldunak. Espositok ikuspuntu horrekin hautsi egiten du, eta elkarrekiko zor modura irudikatzen du komunitatea (hizkuntza bera ere zor bezala uler daiteke horrela). Eta, komunitatearen garapena zor modura planteatuz gero, Ipar Euskal Herri eta Hego Euskal Herri literaturaren arteko batasuna zor modura uler daiteke.

Karlos Otegik adierazi du komeni dela bereiztea kanpo-kolonialismoa eta barne-kolonialismoa. Zentzu horretan, kanpo-kolonialismorik ez dago euskal literaturan.

### 3. Txosten: «Periodizazioa. Generotik mugimendu literarioa», Xabier Etxaniz.

Iñaki Aldekoak adierazi du bereizi behar direla instituzio literarioa eta merkatua, eta kanona berez instituzio literarioak ezartzen du, edo beharko

luke. Aldekoak ohartarazi du gaur egun salmenta-kopuruak baldintzatzen duela kanonaren diskurtso zenbait, eta nahasi egin direla instituzio literarioaren diskurtsoa eta merkatuaren diskurtsoa, baina, bereiztea komeni dela.

Mari Jose Olaziregik gogorarazi du Haur eta Gazte Literatura euskal produkzioaren %25a dela, eta sektore horretan merkatuak eta eskolak garrantzia handia dutela. Xabier Etxanizen ustez, helduen literaturan ere bai.

Baina, bestalde, Olaziregik uste du instituzio literarioek (unibertsitateak, eskolak...) oraindik ere botere handia dutela, eta idazle kanoniko askok iraun egiten dute instituzio horiei esker, ez merkatu ikuspegiari esker. Zentzu horretan, badira hezkuntza formalean asko irakurtarazten diren testuak instituzioak etengabe babestu dituelako. Olaziregiren ustez, literaturaren Historiografiak ez du zertan helburu didaktikoa lehenetsi behar. Historiografiak analisi bat egiten du eta denboran zehar iraun duten testuak seinalatzten ditu, ustez ekarpen literarioa egin duten testuak. Horrek ez du esan nahi testu horiek hezkuntzarako egokiak izan daitezkeenik, hau da, eskolaren eskakizunetarako egokienak direnik, batez ere, irakaskuntza maila desberdinetan irakurleek gaitasun linguistiko eta literario mugatuak dituztela kontuan hartuz.

Manu Lopez Gaseni bat dator Iñaki Aldekoaren iritziarekin. Euskal literatura sistemak ez du oso ondo bereizten kanonikoa eta periferikoa merkatu arazoengatik, asko saltzen dena ere irakurtzen delako eskolan. Askotan kanonikotzat hartzen dira berez bazterreko beharko luketen testuak edo generoak. Denbora-pasarako beharko luketenak, premiazko eta derrigorrezko bihurtzen dira.

Iñaki Aldekoak jakinarazi du eskolek sarritan argitaletxetara jotzen dutela irakurgai gomendagarri eske, eta ez instituzio literarioetara.

Jon Casenavek honako galdera hau egin du: «nola definitu dezakegu instituzio bat, ez dena gai historietan aipatzen ditugun idazle kontsakratuen testuak plazaratzeko?». Esaterako, Lizardiren poesiaren sakelako bildumarik ez da. Alegia, ez dira klasikoak berrargitaratzen. Ez da posible klasikotze prozesu bat garatzea eta finkatzea, testu klasikoak eskuragarri ez badira.

Mari Jose Olaziregik uste du bi kontzeptu nahasten ari direla: klasikotasuna eta irakurgarritasuna. Hezkuntzaren garai batean ezin dira testu klasiko zenbait irakurri. «Klasiko» bilakatu diren testuak, denboran iraun dutenak, ekarpen eta balio literario jakin bat esker iraun dutela sinesten dugu, Italo Calvino eta besterren ironiak gora-behera. Klasiko horietako asko aurkituko dituzu mendebaldeko kanonari buruzko Bloomen liburu ezagunean. Baino bistakoa da *Ulysses* (1922) kanonikoa izanda ere, ez dela irakurgarria gaitasun literariorik gabeko pertsona batentzat.

Ibon Egañak adierazi du bi eztabaida nahasten ari direla: bata, irakurzaletasuna bultzatzearen ingurukoa, afizioz irakurzaletasuna bultzatzea helburu izanik, edozer dela irakurtzen dena; eta bestea, heziketa literarioaren ingurukoa, literatura irakuskuntzari dagokiona, eta testuen interpretazio literarioaren sakontzea dakarrena. Historiografiaren helburua heziketa literarioari loturik dago, eta irakurzaletasuna bultzatzeak ez du zertan bat etorri heziketa literarioarekin.

Karlos Otegiren arabera biak nahasturik daude, eta lehena da elikagaia. Arazoa da irakurle askok ez dutela batetik besterako jauzia egiten, eta hartara, ez da heziketa literario hori garatzen.

Jon Casenavek jakinarazi du literatura frantsesean literaturaren zaletasuna ere sortzen dela klasikoen bidez, klasikoak egokituz.

#### 4. Txostenak: «Genero ez-kanonikoen ekarpena euskal literaturaren historian», Manu López Gaseni.

Ana Toledok Atheka gaitzeko oihartzunak literatur lanaren adibideaz jar-dun du. Toledoren ustez, Dasconaguerrek ez zuen auzi bat egin behar izan zion aurre Leizarragak: hizkuntza ereduari. Dasconaguerrek eskura zuen mende batzuetako tradizioa, prosarena. Manu Lopezek adierazi du Leizarragaren eredu batuak ez zuela garai hartan arrakastarik izan, gerora izan dela kontuan hartua. Eta hartara, ez du uste ezaugarri hori erabakigarri gertatu behar zenik Leizarragaren itzulpena euskal literaturaren historian koka-tzeko, eta Dasconaguerrerenak ez. Toledo ez dator bat Leizarragaren zaba-lkundeari dagokion horretan. Toledoren ustez, beharbada garai hartan arrakastarik izango zuen, baina, ez da haren oihartzunik jaso, Kontraerre-

formak isilarazi zuelako. Karlos Otegiren ustez generoak berak badu garrantzia.

Xabier Etxanizek uste du kontuan hartu behar dela itzulpenak nolako ekarria egin dion literaturari. Euskal sortzaileen zorra handia da, eta Haur eta Gazte Literaturaren kasuan, esaterako, funtsezko, besteak beste, trebatzeko.

Manu Lopezek adierazi du itzulpengintza literarioaren zeregina eta funtzioa ezinbestekoa izan dela hizkuntza guzietan, gaiak jasotzea eta egiturak bere egiteko, eta baita hizkera literarioa garatzeko ere. Izan ere, hizkera literario berria sortzea meritua aitortu behar zaio itzulpengintza literarioari, Lopezen ustez.

Karlos Otegiren ustez, itzultzaleek ez dute unibertsio literarioa sortzen, eta hartara, ez lukete historia literarioan lekurik izan beharko. Manu Lopez ez dator bat, itzulpengintza literarioak errepertorioa sortzen duela uste baitu, eta errepertorio horrek ahalbidetzen du lan literarioak garatzea.

Asier Barandiaranek honako galdera hau mahai-gaineratu du: «genero periferikoak aipatu dira, baina ez duzu uste egile periferikoak ere badaudela? Zer egin egile periferikoen lanekin?».

##### **5. Txostenak:** «Istorioen gizatasuna euskal literaturan: adibide bat», Asier Barandiaran.

Josu Bijuescak jakinarazi du ez zekiela Asier Barandiaranek aurkezturiko idazle horietariko zenbait nafarrak zirenik ere. Erdigunekoak zirelakoan jaso zituela, ez zuela haien periferikotasun horren berri.

Ibon Egañak adierazi du idazle nafar horietariko zenbaitek kokapen periferiko hori kokapen politiko modura hartu dutela. Esaterako, Aingeru Epaltza. Idazle nafar hauetariko batzuk periferikotasun horretaz kontziente dira, eta besteak beste, kokapen periferiko horrek erdiguneko diskurtsoaren inguruko ikuspegia differenteak garatzea ahalbidetu du. Ez da bakarrik gatzakaren gaiari dagokion jarrera, nazioaren inguruko ikuspuntu differenteak ere garatu dituzte idazle periferiko hauek. Bai nafarrek, bai Iparraldeko zenbaitek (Itxaro Bordak, kasu).

Xabier Etxanizek honako galdera hau mahai-gaineratu du: «gatazkaren gaiari dagokionez, nafarren ikuspuntua eta gainerako euskaldunena ezberdina al da?». Txomin Peillenek gogorarazi du Jon Alonsok berak posizio periferiko hori aldarrikatu izan duela.

Asier Barandiaranen ustez joera kritikoa eta urrutiratzea markatuagoa da idazle nafar hauengan. Ideologiari urruitagotik begiratzen diote idazle hauek, ez horren barrutik.

Iratxe Retolazaren ustez, etika, historia eta literatura gaiak elkartzen direnean, beharrezko da jarrera etiko hori historian irudikatzen den zein subjekturi dagokion adieraztea: historia-egilearen jarrera etikoa hartuko den ardatz, egilearen jarrera etikoa hartuko den ardatz edo pertsonaien jarrera etikoa hartuko den ardatz.

Bestalde, Retolazak adierazi du historiografiaz aritzeko lerro berri bat zabaldu duela Asier Barandiaranek, oso interesgarria: tematikari dagokiona, eta orain arte gutxi jorraturiko kezka bat mahai-gaineratu da: «nola jorratu gai literarioak literaturaren historiografian?».

Edonola ere, Iratxe Retolazak ez du argi ikusten idazle periferiko hauek ikuspuntu kritikoa garatu dutelako hartu direnik kontuan erdigunean. Retolazak Atxagaren *Zeru horiek* nobela ekarri du gogora, erdiguneko idazle batek idatzi zuena. Retolazak honako hau adierazi zuen: «Beharbada, erdigunean indarrean zegoen ikuspuntua garatu zutelako onartu ditu idazle hauek erdiguneak, eta ez alderantziz».

Ibon Egañak gogorarazi du Muñozek *Joan zaretenean* nobela 1997. urtean idatzi zuela jada, begirada kritiko horrekin.

Asier Barandiaranek, bestalde, gogora ekarri du Aingeru Epaltzak *Garretatik erauztiak* narrazio-bildumarako egina zuela ikuspuntu kritikoa zuen narracioren bat, baina, ez zuen bildumara ekarri.

Manu Lopezek nafar idazleen periferikotasun horretan gurutzaketa da goela dio: batetik, tematikoa, heterodoxoak baitira gaien tratamenduan; eta bestetik, zentroa Euskal Autonomia Erkidegoa dela uste duenez (eta ez Gipuzkoa), geografikoki ere periferikoak dira nafarrak, eta erakundeek sistematikoki enoratzen dituzte.

Jon Casenavek adierazi du tematika bat iraupen luzeko irudimen iturri dela, eta zentzu horretan, irudimen iturri hori ez da gaur egungo soilik. Adibide moduan, *Amaiur* aipatu du. Hortaz, «nola txertatu behar da tematikaren azterketa ibilbide historikoaren kontaketan?».

Ibon Egañak adierazi du euskal literaturaren azken hamarkadak irudikatzerakoan hamarkadaka eta egileka osatu dela narrazioa. Egañaren ustez, hutsune hori nabaria da literaturaren historietan, eta beharbada hutsune hori tematikaren lerroa garatuz bete zitekeen, besteak beste.

Asier Barandiaren ustez gai konkretu horrekiko egileak duen jarrera da aztertu behar dena, eta hori zaio interesgarria. Bide horretatik, Ibon Egañak honako galdera hau egin du: «ikuspuntu etikoa zein gairi eta zein errealtateri aplikatu behar zaio?». Egañak adierazi du zaila dela jarrera etikoaren inguruko muga bat ezartzea: «emigrazioaz, genero-indarkeriaz, lan-baldintzez... idazleak duen jarrera etikoa hartu behar al du kontuan historiografiak?». Ibai Atutxak Bakthin eta Voloshinoven ekarpenak izan ditu aipagai: autore horien arabera hizkuntza ideologiaz josia dago, eta hizkuntza bera gatazka eremua da. Hartara, ez da hain erraz jarrera etiko hori egilearen jarrerari bakarrik egoztea.

Ibon Egañak literaturaren autonomiaz egin du gogoeta. Euskal literatura garaikidearen historia egiterakoan autonomiaren aldeko tentsio eta borroka bezala irudikatzen da, eta literaturaren autonomia horrek dakarren ikuspegia honako hau da: autonomia = diskurtso aseptiko edo neutroa. Bide horretatik, erdiguneak duen metarrelatoa zein den ere aztertu beharko genuke, erdiguneak ez baitu diskurtsoa esplizitu edo ikusgarri egiten. Ikuspegi horretatik, honako galdera egin du: «oso barneraturik dauden metarrelatoak (abertzetasuna, neoliberalismoa edo beste zenbait) nola egin ikusgarri historia literarioetan?».

## 6. Txostenetako «Naissance de l'ecrivain? Literatura eta mezenasgoa Euskal Herri penintsularrean XVIII. mendean», Josu Bijuesca.

Ana Toledok adierazi du Bijuescaren txostenarekin argi geratzen dela Estatu baten babesea izan ez duen hizkuntza baten ibilbide historikoaz dihardugula. Egoera hori kontuan hartu behar da literaturaren historia egiterakoan.

Txomin Peillenek adierazi du XVIII. mendean bazela iraultzaren belduarra, eta horrek eragin handia izan zuen euskal literaturaren bilakaeran.

Iratxe Retolazak adierazi du instituzio literarioa eta sistema literarioa erabili izan dela eztabaidetan, eta oso gutxi zehaztu dela zer adierazi nahi den kontzeptu horiekin, eta hartara, oso gutxi zehaztu dela zer den guretzat euskal literaturak sistema bat osatzea edo instituzio literarioak izatea. Horrek baldintzatzen du sistema literarioaren sorreraz izan dezakegun diskurtsoa ere.

Josu Bijuescaren arabera, Pierre Bourdieau-ren ikuspegiak abantaila du, historian zehar alorrik bereizten doazela diolako, eraldaketa eta autonomia alor zabalenetatik berezituenetara doala aitortzen duelako.

Josu Bijuescak gogorarazi du XVIII. mendean geure kultura idatzia gaztelaniazkoan oso txertaturik zegoela, are gehiago, garai horretan borroka egin behar izan zen dependentzia horretatik askatu ahal izateko. Nolabait, askatze horren kontaketa egin nahi izan duela adierazi du, tentsio-dinamika horien berri eman.

Ana Toledok adierazi du orain arte XVI. eta XVII. mendeetan erdigunea nahikoa argi egon dela, Ipar Euskal Herrian kokatu izan da erdigune literarioa. Beharbada Bijuescak eginiko adierazpenek egoera hori argitzen dute, izan ere, badirudi Hego Euskal Herriko euskal produkzioari kosta egin zi-tzaiola gaztelaniazko produkziotik askatzea, sarritan gaztelaniazko testuen barruan integraturik agertzen baitzen.

Josu Bijuescak gogorarazi du Larramendik berak Ipar Euskal Herrian eginiko lan literarioa ezagutu eta bildu zuela, eta esaterako, Axularren prosa baloratu egin zuela. Are gehiago, Euskal Herri kontinentala erreferentziatzat zuen, eta horrela ulertu behar da Axularren kanonizazioa. Axularren estiloa goraipatu zuen Larramendik, eta Añibarrok berak itzuli ere egin zuen bizkaierara. Alegia, Axular zuten eredu.

Ibai Atutxak interesgarritzat jo du biolentzia sinbolikoa eta habitus-aren oinarritzko ezaugarri bat gogora ekartzea: errepika. Alegia, denboran eten-gabe errepikatzen diren ideiak dira beharrezko, eta errepika horrek biolentzia sinboliko hori esentzia emaile bihurtzen du, euskaldunak barbaro bihur-

tuz. Horregatik garrantzitsua da XVIII. mendeko erantzun hori, ironiak errepikaren subertsioa ekar baitezake. Atutxak gogorarazi du errepika hori gaur egun ere bizirik dagoela.

**8. Txostenak:** «Literatura herrikoia, herri-literatura, herri-idazleak: herrikoitasun kontzeptuez zenbait gogoeta», Iratxe Retolaza.

Eztabaidara bildu diren galdera eta zalantza gehienak kontzeptuen inguruakoak izan dira. Zentzu horretan, Manu Lopezek adierazi du beharrezkoa dela ordena terminologia ezartzea, eta terminoak zentzua argitzea. Manu Lopezek ohartarazi du ez direla hainbat alderdi behar bezala bereizi: tradizionala eta ez-tradizionala, esaterako. Karlos Otegik ere terminologia kontuetan antzeman ditu oztopo zenbait: izan ere, erabilitako kontzeptu askok ikuspegia eta zentzu ugari izan ditzakete, eta horiek zehaztea beharrezko da. Besteak beste, honako kontzeptu hauek aipatu dira: herri-literatura, literatura jasoa, literatura kultua...

Ibon Egañak adierazi du beharrezko dela bereizketa bat egitea. Izen ere, herrikoitasunari loturiko ezaugarriak literaturaren historia ofizialean onartu ohi dira, bakar-bakarrik testuaren bigarren mailakoak diren neurrian. Alegia, literatura idatziaren paradigmaren barruko ezaugarri bereizle diren neurrian, eta ez besterik.

Jean Haritschelharrek ohartarazi du Etxahunen inguruko tesia osatzekoan herri-literatura balioztatzeko asmoa ere izan zuela, modu horretara, euskal literaturaren historian eta euskal erromantizismoan izan zuen eraginaren berri emateko.

# Beste ikerketak



# **Amatasunaren gaineko diskurtsoak euskal eleberrigintza garaikidean**

LASARTE, Gema  
Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea

Sarrera data: 2011-03-11

Onartze data: 2011-06-24

Artikulu honetan, bi alde aski diferenteak aztertu nahiko genituzke amatasunaren inguru diskurtsoetan. Batetik, lehen partean, datu soziologikoak eskuan, aztertu nahi ditugu, 1979-2009 bitartean, amatasunak izan dituen gorabeherak. Beraz, datu soziologikoak buruan, literatur testuak aztertu ditugu bigarren atalean. Artikulu hau garatzeko orduan, protagonista ugalkortasun garaian dauden emakumeak dituzten literatur lanen hautua eginda batik bat.

**Hitz-gakoak:** amatasuna, literatur pertsonaiak, berdintasunaren feminismoa, diferenziaren feminismoa.

En este artículo queremos analizar dos aspectos muy diferentes en los discursos sobre la maternidad. Por una lado, en la primera parte y teniendo a mano los datos sociológicos, haremos un estudio sobre el desarrollo de la maternidad en el periodo 1979-2009. Teniendo estos datos en mente analizaremos los textos literarios. A la hora de desarrollar este trabajo, se han seleccionado las obras de mujeres que están en edad de procrear.

**Palabras clave:** maternidad, personajes literarios, feminismo de la igualdad, feminismo de la diferencia.

Nous voulons analyser dans cet article deux aspects très différents dans les discours sur la maternité. D'une part, dans la première partie, nous étudierons à la lumière de données sociologiques le développement de la maternité au cours de la période 1979-2009. Sans perdre de vue ces données nous analyserons les textes littéraires. Pour réaliser ce travail nous avons sélectionné les œuvres écrites par des femmes en âge de procréer.

**Mots-clés :** maternité, personnages littéraires, féminisme de l'égalité, féminisme de la différence.

In this paper the authors would like to examine two totally different aspects in the discourses on motherhood. On the one hand, armed with sociological data the authors set out in the first part to examine the vicissitudes that motherhood has undergone between 1979 and 2009. So with the sociological data in mind, the second part is devoted to the analysis of literary texts. When writing this article the works of literature mainly chosen were those by women of child-bearing age.

**Keywords:** motherhood, characters in literature, equality feminism, difference feminism.

## 1. Sarrera

Artikulu honetan, bi alde aski diferenteak aztertu nahiko genituzke amatasunaren inguruko diskurtsoetan. Batetik, lehen partean, datu soziologikoak eskuan, aztertu nahi ditugu, 1979-2009 bitartean, amatasunak izan dituen gorabeherak. Hala, zehaztuko ditugu amatasunaren jaitsieran eragina izan duten hainbat kontu, hala nola emakumeen kopuruak ikasketen eremuan nahiz lan munduan nabarmen gora egina; hainbat legek amatasunaren inguruan izaniko eragina...

Halere, datu guztiak azpimarratzen dute amatasuna aipaturiko sasoian jaitsi egin dela (Tobío, 2005; Pérez-Díaz & Chuliá & Valiente, 2000), eta horren inguruko zioak aztertu dira atal ezberdinetan. Lehenik eta behin, datuak eman dira (Emakunde, 2009; Eustat 2009; Alonso-Arbiol, 2006). Bigarrenik, emakumeak lan munduan sartzeak ekarri dituen ondorioak eta estrategiak aztertu dira (Tobío, 2006: 121-151). Geraldine Nicholsek (2003:192) ondo esaten duen bezala, ugalketaren gaia mahai gainean jartzeak garai ezberdinak aztertzeko aukera ematen du:

«Poner de relieve el tratamiento de la procreación puede iluminar constelaciones de significados hasta ahora ocultos, a la vez que ofrecer una radiografía de los tiempos». (Nichols, 2003:192)

Beraz, datu soziologikoak buruan, literatur testuak aztertu ditugu bigarren atalean. Artikulu hau garatzeko orduan, protagonista ugalkortasun garaian dauden emakumeak dituzten literatur lanen hautua eginda batik bat. Horrela, aztertu ditugun literatur lanetan azaltzen diren protagonistak amatasunaren inguruan badute iritzi propiorik. Bikotekidearekin eraikitako harremannak, lana egiteko eta independentzia lortzeko zaitasunak, zoriontasuna...

«La reproducción propicia una discusión de estos temas porque funciona como sinédoque de una serie de prácticas que implican la desigualdad». (Nichols, 2003:193)

Eleberrien azterketa egin aurretik, aukeratu diren nobelen eta aukeraketaren arrazoien argudioak azalduko dira. Lehenik eta behin, euskal emakume idazleek aipatu berri dugun tenorean (1979-2009) argitaratutako eleberrigintzan hartu dugu oina. Esan behar da, amatasunaren alde eta kon-

tra azaldu diren diskurtsoak bereizi nahi izan direnean bi multzoetan lerratu direla amatasunaren inguruko hari narratiboak. Bi ikuspegi horiek, gure eleberrigintzan ez ezik, teoria feministan ere ibilbide luzea izan dute.

Kritika feministak hastapenetatik izan ditu amatasunekiko bi ikuspegi diferente horiek. Berdintasunaren feminismotik amatasunaren alde ezkorra aztertu ohi dira (Beauvoir, 2005; Firestone, 1976; Mitchell, 1974; Sau, 1993). Aldiz, differentziaren feminismotik amatasunaren alde onak azpimarratu dira.

Marta Segarrak dio feminismo burgesarentzat familiaren kontzeptua kartzela dela, eta amatasunaren kontzeptua, berriz, emakumearen rol bakar bezala ikusten den zerbait.

«Feminismo afroamerikarrarentzat, aldiz, familia babeslekua da, eta amatasuna, euren historiaren, herrialde-tasunaren gune garrantzitsua bat, euren kulturaren transmisiotzat hartzen duten zerbait». (Segarra, 2000: 80)

Azkenik, ondorioak atera ditugu. Esan behar da lan honetan gidariak izan ditugula, beste egile askoren artean, Geraldine Nichols (2003), Adrienne Rich (1978), Luisa Muraro (1994), Ángeles de la Concha eta Raquel Osborne (2004), literatur ikuspegitik, eta alde soziologikotik; Víctor Pérez-Díaz, Elisa Chuliá eta Celia Valiente (2000), Constanza Tobio (2005) eta Itziar Alonso-Arbiol (2006).

## 2. Amatasunaren inguruko datu soziologikoak

### 2.1. Amatasunaren jaitsieraren inguruko datuak eta arrazoia

#### a. Datuak

1975etik hona euskal gizartea aldaketa nabarmenak izan ditu demografia dinamikari dagokionez: migrazio-mugimenduen aldaketa, adinari begira sortutako egitura berriak.

«Se ha transformado la estructura por edades, y tras una época en que los matrimonios y nacimientos estaban en alza, encontramos los

índices sintéticos de nupcialidad y natalidad más bajos de Europa». (Luxan, 2005:123)

Bestalde, familia ereduen aniztasunak, laguntza bidezko ugalketa-teknika berrieik, nazioarteko adopzioaren igoerak, pertsona homosexualen errekonozimendu sozialak, besteak beste, familia eta gurasotasunaren kontzeptuak berraztertea ekarri dute (Alonso-Arbiol, 2006:7).

Jaiotza-tasak behera egin du, nabarmen, azken hamarkada hauetan. Adibidez, Arabak 1978. urtean 1.000 biztanleko 18,6ko jaiotza-tasa zuen, eta 2008an, berriz, 10,4koa. Nolanahi ere, jaiotza-kopuru absolutuen gorakadak erakusten du 90eko hamarkadatik hona jaiotza-tasa pixkanaka hazten ari dela. Une honetan, Gipuzkoak du jaiotza-tasarik handiena (10,6) eta Bizkaia txikiena (9,7) (Emakunde, 2009).

Autonomía-erkidegoetako jaiotza-tasekin alderatzen badugu, Melillaren (20,8ko jaiotza-tasa) eta Asturiases (7,88ko jaiotza-tasa) artean dago Euskadi, 10,08ko jaiotza-tasarekin. EAEko tasa handiagoa da soilik Extremadura, Kantabria, Gaztela eta Leon eta Asturiasekin erkatuta.

«En 1975 el índice de fecundidad femenino era de 2,8 hijos por mujer, en 1995 se había reducido a 0,9 hijos por mujer. Se trata, pues, de una reducción del 65% de la fecundidad en 20 años». (Luxan, 2006: 129)

Jaiotzen gutxiagotze hori Euskal Herrian ez ezik, Spainian, Italian, Portugalen eta Grezian ere gertatu zen, ez hainbeste Frantzian, Erresuma Batuan, Alemanian eta Eskandinaviako herrialdeetan. Ugalketa gutxitze horri «bigarren trantsizio demografikoa» deitu izan zaio (Pérez-Díaz, Chuliá eta Valiente, 2000: 32). Egile horien arabera, «lehen trantsizio demografikoa» XX. mendean abiatu zen, heriotza-tasaren jaitsierarekin, baina mesedegarri izan zituen nekazal-iraultza, industria-iraultza eta industriaren hirugarren sektorerako hedapena. Horrela, 1930 aldera, jaiotza eta heriotza tasek ordezte maila egonkortu zuten. Ordezta maila emakume ugalkor bakoitzeko 2,1 haur edukitzean konsideratzen da. Oreka hori II. Mundu Gerraren ostean hautsi zen *baby boom*-aren ondorioz, eta Europako herrialdeetan 60ko hamarkada arte jaiotza-tasek gora egin zuten. (Pérez-Díaz, Chuliá eta Valiente, 2000: 33)

b. *Amatasunaren jaitsieraren inguruko arrazoia*

60ko hamarkadatik 1990. urtera arte jaitsiera handia izan dute jaiotzatasek, eta jaitsiera hori interpretatzeko, hainbat argumentu erabili dira. Lehenik eta behin, Van de Kaak, 1987; Rouseel-ek, 1992; Fukumayak, 1999, teorialari batzuk aipatzearren, jaiotza-tasaren jaitsieraren zergatiak esplikatzeko orduan, gizartean edota kulturan hautematen dituzte beherakada horren arrazoirik nagusienak, hala nola balioen aldaketa, egungo gizarteak bultzatzen duen norberekeria, mentalitate aldaketa, antisorgailuen zabalkundeak eta emakumezkoen parte-hartzea lan munduan, lan-egonkortasun eskasa, etxebizitza garestiak eta bikote-harremanen ahulezia. Imaz ere (2006) korrонte horretan lerratzen da, eta, haren ustez, ugalketaren gaineko kontrolak ez dira soilik ernaltzea eta haurdunaldia eteteko teknikak, baita ernalketa eta haurdunaldia posible egiten duten gizarte mekanismoak ere.

Horien artean, arauak, ohiturak, legeak eta mekanismo ideologikoak. Beraz, antisorgailuak eta abortua ugalketaren kontrolerako metodoak baldin badira, ezkontzeko eginbidea edo koito heterosexualak ez diren praktika sexual ororen estigmatizazioa ere horrelakoxe metodoak dira. (Imaz, 2006: 97)

Jaiotza-tasen jaitsiera esplikatzen duen beste korrонtea, ikuspegি ekonomikoan oinarritzen da (Pérez, Díaz, Chuliá eta Valiente, 2000: 37). Da goeneko seme-alabak ekartzea kostu bat da, ez inbertsio bat.

«Los hijos suponen un coste muy elevado y ya no representan una inversión para la vejez, habida cuenta de la extensión de los sistemas de protección social». (Pérez, Díaz, Chuliá eta Valiente, 2000: 37)

James Colemanek Mendebaldean seme-alaben arteko harremanetan izandako aldaketen inguruan ikertu du. Hiru motatako sendiak sailkatu ditu: sendi premoderno, modernoa eta postmoderno. Premodernoan seme-alabak produkzio-ondasunak dira; modernoa, inbertsio ondasunak, eta postmodernoan, estatusa eta komunikazio gunea (Imaz, 2005: 171-177).

Azkenik, jaiotza tasaren jaitsieraren zergatiak gizarte politiketan ikusi behar direla esan duen teoriaririk ere badago. Politika horiek, gizarteak, oro har, amatasuna babesteko abian jartzen diren zerbitzu publikoetan eta

pribatuetan oinarritzen dira. Esan behar da Spainian zerbitzu horiek, Europako hainbat herrialderekin alderatuta, oso eskasak direla (Imaz, 2006; Díez, 2000).

«A diferencia de la mayoría de los países europeos, aquí no existe una amplia red de servicios hacia la familia. En gran medida, se sigue considerando la maternidad exclusivamente de mujeres y no una necesidad social». (Imaz, 2006:194)

«La gran paradoja del sistema capitalista, para el cual la necesidad de producir individuos es básica y elemental, es que el embarazo y la maternidad se consideran opciones individuales, no necesidades sociales, y que las mujeres son las responsables directas de la reproducción». (Díez, 2000:175)

## 2.2. Amak lan munduan, ondorioak eta estrategiak

Christine Delphyk (1985) dio gizarte gehientsuenak emakumeen doako lanetan oinarritzen direla oraindik, eta doako lan hori seme-alaben zaintzan eta etxeko lanak egitean oinarritzen dela. Zerbitzu horiek harreman partikular baten barruan ematen direla dio, non gizonaren eginkizuna lan indarrak mantentzeaz arduratzea den (1985: 13).

Delphyk esandakotik oraindik zerbait geratzen bada ere, emakumeek hezkuntzan eta lan ordainduaren eremuan eginiko aurrerapenak oso adierazgarriak dira, nahiz eta oraindik kontrataatu eta langabe tasek emakumeen kontra hitz egiten duten (Esteban, 2006: 44). Etxetik kanpoko lanak amatasun paradigma ezberdinaren aurrean gogoeta egitera eraman ohi du emakumea nahitaez. Horrela, emakume batzuek lanbidea lehenetsi eta amatasunari uko egin diote.

«Las mujeres que quieren tener un proyecto de vida propio sienten temores ante la dificultad de compartir ese proyecto con la maternidad». (Díez, 2000:166)

Beste batzuek, amatasuna beranduagorako uzten dute, amatasuna kudeatzeko momentu egokiaren bila (Imaz, 2006: 100). Badira beste batzuek,

amatasuna aspaldi beren gain hartu dutenak, eta azkenik, amatasunaren lehen esperientziak bizitzen ari diren emakumeak (Díez, 2000:157).

Hala eta guztiz ere, ama gehienek lan egin nahi dute. Familiak behar ekonomikoa duelako, independentzia ekonomiko indibiduala lortzeko, ika-sitako ogibidea lantzeko, lana gustatzen zaielako, pertsona gisa garatzeko, etxearen itxita ez egoteko. Beste batzuekin hartu-emanetan egoteko, lanak bizitza egituratzen duelako, lana egiten duen emakumea baloratuago dago-elako (Tobío, 2005: 36).

Lana egiten duten amek, amatasuna aurrera ateratzeko eta, aldi berean, lan egin ahal izateko, estrategia diferenteak martxan jartzen dituzte. Estrategia horien artean familia (amonak, lagunak...), zerbitzu domestikoa eta laguntzaile puntuak daude. (Tobío, 2005: 215)

Zerbitzu domestikoen harira, Alice Hochschildek (2001) erabilitako «zainketen kate globala» kontzeptua aipatu beharko genuke, transnacionalizazioa. Beste hitz batzuekin esanda, kontzeptu hori Mendebaldeko emakumeek nahi ezik uzten dituzten etxeko lanak egitera datozen emakume etorkinen gertakaria da. Fenomeno horretan ikusi behar da, halaber, emakume etorkin horiek euren umeen ardura beste emakume batzuen zaintzaean uzten dutela (Tobío, 2005; Alvarez Veinguer, 2007).

«La ayuda de la red familiar y la ayuda renumerada tienen en común que en ambos casos se trata, fundamentalmente, de un proceso de sustitución de unas mujeres por otras. El cuidado sigue siendo asunto de mujeres y la liberación de algunas de ellas es posible en la medida que otras, abuelas o inmigrantes, estén disponibles para asumir el papel tradicional de la madre». (Tobío, 2005: 196)

Estrategia guztiak, halere, ez dira aski amatasunak sortzen dituen hutsuneak betetzeko: umeen gaixoaldiak, ordutegien koordinazioak edota udako oporraldi luzea, esaterako (Tobío, 2005: 231-238). 1999an onartu zen Lana eta Familia Uztartzeko Legea. Lege horrek amatasun baimena eta 8 urtetik beherako haurrak zaintzeko hiru urte arteko soldatarik gabeko eszedentzia aurreikusten du gurasoentzat. Baino legeak ez ditu kontuan hartzen seme-alaben gaixoaldietan hartu beharreko baja aldiak, eta hauteskunde garaietako ikur bilakatu dira.

### 3. Landuko diren nobelak

Pertsonaia protagonista femeninoak dituzten nobeletan amatasunaren gaineko hausnarketa nola gertatzen den azterzeko, bi ataletan banatu dugu corpusaren azterketa. Lehenik, amatasunaren alde ezkorra dituztenak aztertu ditugu, eta bigarrenik, alde baikorrak azaltzen dituztenak. Hiru eleberri aztertu dira batik bat: *Eta emakumeari sugeak esan zion* (1999), edota amatasunaren errenuntzia; *Sisifo maiteminez* (2003), amatasunaren alde negatiboen aldarria izan daitekeena, eta *Zergatik Panpox* (1979), gure irudiko, amatasuna gorpuzten duen eleberria. Hiru eleberri horien azterketaz gain, corpuseko eleberriak bi multzotan banatuko ditugu, alde batean amatasuna babestu duten eleberriak daude, eta, beste aldean, kontra daudenak. Bi multzo horiek argi adierazi nahi izan dira, azterketan zehar jarrera horiek gainean aipamenak egingo ditugulako.

#### Amatasunari bai edo ez

Ukapena edo alde negatiboak gailentzen dira	Alde onak erakusgai
Bai... baina ez	Zergatik Panpox
Sisifo maiteminez	Amaren eskuak
Koaderno gorria	Jostorratza eta haria
Greta	31 baioneta
Jaione	
Ugerra eta kedarra	
Eta emakumeari sugeak esan zion	
Edo zu edo ni	
Musika airean	
Nerea eta biok	
Nora ez dakizun hori	
Tango urdina	
Aulkki-jokoa	
Lau sasoiitako zipritzinak	
Bizi nizano munduan	

#### 4. Corpuseko eleberriak: amatasunaren kontrako jarrerak

Hasteko, esan behar da, aztergai ditugun eleberrietako pertsonaia protagonista femeninoak garapen eta barru lanketa handiaren isla direla. Bestalde, amatasunaren inguruko erabakiak jendarteaarekin dialektikan harturiko erabakien ondorio direla, beraz, Goldamenn-ek (1965) aipatzen zuen pertsonaien dimentsio soziala egiaztatzen da.

Lehenik eta behin, Laura Mintegiren, *Bai... baina ez; Sonia Gonzalezen Ugerra eta kedarra eta, azkenik, Aitziber Etxeberriaren Tango urdina* eleberriekin multzo bat osatu dugu. Hiru eleberriak ere indarkeria giroan eraikiak dira, eta amatasunaren paradigmari modu urrunean eta hotzean begiratzen zaio.

«Lo que la niña descubre a su alrededor no es un vacío por madre, sino unos discursos que se empeñan en asegurar que es negativo e imperfecto». (Bengoechea, 2004: 103)

Hiru eleberri horietako subjektu protagonistek (Rosa, Kat, Marga) ez dute amatasuna desira (objektu); izan ere, gizartean bizi izan dituzten esperientziak amatasunaren kontrako jarreraren (eragile) bihurtu baitira.

Beste multzo batean Arantxa Urretabizkaiaren *Koaderno gorria* eta Laura Mintegiren *Nerea eta biok* daude. Eleberri horietako pertsonaiak 30-40 urte bitarteko amak dira, estatus bat dute eta biak ere lana egiteaz gain, politikan dihardute. Pilar Aguilarrek amatasunaren diskurtsoen gainean, amatasun tipología proposatu zuen, eta sailkapen horretan, besteari beste, defektuz ama onak ez direnak aipatzen dira (2004: 185). Eleberri hauetako protagonistak (*Koaderno gorri*-ko eta *Nerea eta biok*-eko amak) defektuz ez dira ama onen sailkapenean sartzen.

«La tradición más pura exige, pues, una madre que no viva exclusivamente centrada en su maternidad sea presentada como un monstruo o tenga que justificar tan «horrible» abandono con miles de desgracias e impedimentos». (Aguilar, 2004: 186)

Hala eta guztiz ere, Virginia Mataixek dioen antzera (1996: 222), ama gaiztotzat edota ama ontzat zer ulertzen den galdetu beharko litzateke gaur

egun, eta hori beste tesi baterako lana izango litzateke. Dena den, bi protagonistek (ama izenik gabea (KG), Isabel (NB)) egite narratiboan subjektuen funtzioa betetzen dute eta objektutzat euren bizimodua (amatasuna barne) aurrera ateratzea. Bakarrik dauden amak dira, eta bakartze horren eragileak senarrak dira neurri batean, senarraren abandonua jasan baitute. Lehen pertsonan mintzo dira eta fokalizazioa erabat bereganatua dute.

Beste multzo batean adinean aurrera egindako amak edo amonak sartu ditugu; horrela, Ixiar Rozasen *Edo zu edo ni*, Uxue Alberdiren *Aulkia-jokoak* eta Karmele Jaioren *Musika airean* nobelak ditugu errealtitate horren lekuko. Hiru emakume protagonistak batu ditugu (Graziana, Teresa, eta Elena), batez ere, Simone de Beauvoirren hitzak gurera ekartzeko eta protagonista femenino hauen kasuan bete-betean betetzen direlako.

«La maternidad tiene que dejar de ser un destino para convertirse en un proyecto. Tiene que ser elegida libremente». (De Beauvoir, 2005: 633-683)

Beauvoirrek ama hauek frustratuak, asegabeak, etxearen itxitia ikusi zituen, inolako garapen pertsonalik gabe, hitz batean, «mater dolorosak». Eta berak esaten zuenez, horrelako egoeretan haur txikiak haien eskuetan uztea arriskutsua izan zitekeen. Mercedes Bengoechea, Richen diskursoa bereganatuz, ama boteretsuaz mintzo da, faliko kastratzaleaz.

«Succiona el alma y controla la sexualidad masculina». (Bengoechea, 2004: 414)

Gizarteak (eragilea) amak izatera behartu ditu, ondorioz (subjektu) hauek amatasuna (objektutzat) dute, baina ez modu desiratuan, modu inposatuan baizik.

Azkenik, Laura Mintegiren *Sisifo maiteminez* eta Jasone Osororen *Greta* aipatu behar ditugu. Bietan ere abandonua da nagusi. Amek umeak abandonatu dituzte. Beatriz Domínguez Garcíak *Hadas y brujas* (1999) saiakeran, ipuinetako emakumezkoen arteko harremanak aztertu ditu. Ama absentea eta ordezko ama aztertzen ditu Domínguezek. Ama absenteaz dio, umeak abandonatzen dituen amaz, ama batek egin lezakeen delitutik handiena dela, lehenik eta behin, gizarteak ezarritako rola betetzen

ez duelako. Abandonuari Greimasek (1983)<sup>1</sup> proposaturiko paradigma aktantziala egokitzea zaila da. Halere, esan daiteke bi eleberri hauetako protagonista femenino (subjektuen) kasuan, gizartea (eragilea) ama izatera behartu dituela ama izateko preparatu gabe egonik, eta subjektu hauek horren aurrean, amatasunaren gainetik euren bizitzaren garapena hartu dutela objektutzat, horretarako seme-alabak abandonatu behar izan badituzte ere. Bi eleberrietan, ordea, kontakizunak aurrera egin ahala, ama hauek abandonuaren arrazoiak argitza eta ulertza dute helburutzat. Gizartea, oro har, interlokutorea barne aurkari gisa azaltzen da, eta azalpenak eskatzen ditu modu implizituan bada ere, ama batek egin dezakeen delitirik handiena ulertzeko. Azkenik, subjektu hauek, egitura narratiiboaren korapiloa askatze aldera, abandonuaren zergatiak argitzen eta bereganatzen dituzte.

Bukatzeko, amatasunaren alde ezkorra gainditu eta amatasuna beste modu batera proposatzen duten bi nobela Irati Jimenezen *Nora ez dakizun hori* eta Dorleta Urretabizkaiaren *Jaione* eleberriak ditugu. Bi eleberriak ere jaiotza-heriotzaren alegoria dira. Bietan hil egiten dira jaiotzeko eta amatasuna modu interesgarrian proposatzeko. Pilar Aguileren sailkapenean ama interesgarria izango litzateke eleberriotako ama, ez dira ama politik eta egun guztia umeari begira ematen dutenak, beren bitzitzeta personala eta amatasuna ahalik eta modu naturalean ezkontzen ahalegin-tzen direnak baizik. Ez dira ama idilikoak, ez ama eredugarriak, ezta era-bateko amak ere (Aguilar, 2004; Warner, 2006), ama interesgarriak baizik. Ama subjektu hauek amatasuna objektu interesgarritzat hartu dute, baina gizarte eragileak ezarritako amatasuna kuestionatz eta berria proposatzuz.

<sup>1</sup> Aktanteen eskemak sei eragile proposatzen ditu. Ekintzaren subjektu-objektuak. Subjektuak ekintzari printzipio dinamikoa eskaintzen dio: desirari, nahiari, beldurrari, eta abarri erantzunez. Sentituriko beharra, beldurra edo nahi da objektua, subjektuak lortu nahi duena. Hartara, desira edo nahi da bi aktante horiek uztartzen dituena (ikus Retolaza, 2008: 25). Ekintzaren bidaltzaile-jasotzaileak. Bidaltzaileak subjektuari eragiten dio, zeregin bat jartzen dio edo eginarazten dio (gizartea, patua...). Hartzailea ekintzaren onuraduna izan daiteke; askotan, protagonista bera izan daiteke. Ekintzaren laguntzaile-aurkariak subjektuari bere zereginean lagunduko dio edota estropezuak jarriko dizkio.

Amatasunaren eraikuntzan ama tipología zabala ikusi dugu, baina historian zehar pisu handiena izan duena, María, faltan bota dugu gure eleberrigintza garaikidean.

«Una mujer madre que no haya sido nunca poseída y que exista para el hijo, en función del hijo». (Rivera Garretas, 1996: 42)

«Dentro de la cultura oficial y popular católica, la única figura femenina importante y exaltada es la de María y lo es, casi estrictamente, en cuanto madre». (Mataix, 1996: 38)

Esan behar da amatasunaren gaiarekin, hilerokoak (*Nora ez dakizun hori, Zergatik Panpox, Eta emakumeari sugeak esan zion*), haudunaldiak (*Tango urdina*), haudunaldiak ekiditeko antisorgailuak (*Ugerra eta kedarra, Bai... baina ez, Eta emakumeari sugeak esan zion*) erditzeak (*Jaione, Amaren eskuak*) abortuak (*Sisifo maiteminez*) desiratu gabeko haudunaldiak (*Musika airean, Aulkia-jokoa, Sisifo maiteminez*), umeen abandonua (*Sisifo maiteminez, Greta*) eta menopausia (*Eta emakumeari sugeak esan zion, Edo zu edo ni*), bestek beste, lotu direla amatasunaren semantika zabalean.

#### 4.1. Eta emakumeari sugeak esan zion (Teresa: iruzkinak)

Geraldine Nicholsek (2003) esaten duenez, *Eta emakumeari sugeak esan zion*<sup>2</sup> eleberrian, Genesian emandako eredu femeninoaren gaitzespna narratzen da.

«El título de la obra orienta su lectura, al referirse a la historia bíblica que explica por qué la mujer tiene que someterse al varón, desear al varón y parir los hijos con dolor». (Nichols, 2003: 202)

Gure lehen gurasoekin bekatuari erreferentzia egiten dion Genesiak oso irakurketa diferentesak izan ditzake. Orain artean ezagunena, Ebaren estereotipoak eragindakoa da. Eba, Ama Birjina guztiz garbiaren antonimoa da, eta Pandoraren antzera, bekatuen ugaltzearen errudun. Beraz, Teresa (ES) eleberriko subjektu protagonistaren garapenean Genesiaren oihartzun es-

---

<sup>2</sup> *Eta emakumeari sugeak esan zion*, hemendik aurrera (ES) izendatuko da.

plizituak edota intertextualitatea aurkituko dugu. Literatur tradizioan, bestalde, Genesiaren eta mito femeninorik esanguratsuenaren inguruan, hau da, Ebaren inguruan, kritika feministak egindako berriarakurketa baliatu gara Teresaren azterketa abiatzeko.

Cristina Molinak (2004) Genesiaren interpretazioa beste oso modu diferenteera egitea proposatzen du. Jainkoaren antzera eraikitako pertsonak iza-nik Adam eta Eba, azken horrek Jainkoaren antz handiagoa izatearen ahalik eta jakintza gehiena bereganatu nahi izan zuen. Hartara, Jainkoarekin alderatu ahal izateko, eta horrexegatik jan zuen debekatutako sagarra.

«Pero entonces sería la mujer la fuente del conocimiento, la que ejerció la iniciativa y no el hombre. (...) Desde aquí lo femenino aparecería como sabiduría, como amor a la sabiduría, al menos como afición o pasión por el conocimiento y como poder de persuasión, todo ello impensable para una práctica de dominio patriarcal». (Molina, 2004: 48)

«Hartaz, Ebak eginiko bekatua ez litzateke desobedientzia bekatua izango, urguilu edota hantuste bekatua baizik». (Molina, 2004: 48)

Irakurketa hori buruan, Teresak eleberrian zehar eginiko gogoeta, beraz, bere bizitza eta gorputza libreki kudeatzeko aldarria da.

«Se pone a leer su cuerpo de otra manera, y ve en sus síntomas la señal de que se está finalizando una etapa de su vida, precisamente la pautada en el Génesis». (Nichols, 2003: 202)

Hasieratik bukaera arte Teresaren gorputza mintzo zaigu, baina amatasunari lotutako gorputza ere badela esan genezake.

«Pixa eginda gero, eskuak garbitu. (...) Zuk aspaldi ez duzu arrastorik uzten, hileroko emakumeen odolaren arrastorik». (ES<sup>3</sup>, 71)

Teresa bere gorputzaren jabe izan da, eta haurdunaldiak ekidin ditu

«Haurdun ez gelditzeko pilulak erosten ikasi zenutenean». (ES, 85)

---

<sup>3</sup> Hemendik aurrera, *Eta emakumeari sugeak esan zion eleberria* ES izendatuko da.

Horrek zalantzak ekarri dizkio:

«Bestalde, tristura umeezin sendatzen ez bada (zure tristura amatasunak sendatuko ez balu), zer pasako dio ama deprimitu batek umeari». (ES, 107)

Eta, azkenik, erabaki irmoa etorri zen:

«Badakizu betiko erabakiaren ordua iristen ari dela, ari zaizula, betirako ezetzarena. (...). Haurrik gabe zahartzen hastea». (ES, 162)

Amatasunaren inguruko semantika guztia abian jarri du Teresak, azke-nean, gorputza & haurrak adierari ezetz borobila emateko. Halere, erabaki honetan giza dialektika argia nabarmen daiteke:

«Agian Jainkoak zigortu zaitu horrenbeste aldiz ezetz esateagatik eta orain ezin duzu. Haurdun gelditu». (ES, 72)

«Nondik ote datorkizu malenkonia zoro hori. Agian umeak iza-tearena horren erraz alboratu ez bazezute. Bainaz, ez da zurekin horretaz hitz egiteko unerik onena. Zerbaitek hori esaten dio André-si. Gainera, nahi al du berak umerik». (ES, 107)

Teresaren eraikuntzan, Rivera Garretasek proposatzen duen modura (1996: 20), emakumearen gorputzaren kudeaketa bikoitza nabarmendu behar da. Umeak sortzeko eta kudeatzeko gaitasuna duen gorputza, alde batetik, eta, bestetik, harremanak sortzeko eta kudeatzeko gaitasuna duen gorputza. Bainaz Teresaren gorputza nekatua dago umerik edukitzeko, unatua dago harremanak izateko. Eleberri hau protagonistak gorputzarekin duen solasaldia da. Azkenean, Teresa, maitemina eta herrimina alde batera utzita, lur berri baten bila abiatzen da, gorputza da, bestalde, bidaia horren iraupena baldintzatuko duena.

«Hizkuntza gozoa eta Mediterraneoaren argi epelerantz. Zure hizkuntzan, zure hizkuntzetan, ez zara moldatzen. (...) Bakarrik segitu nahi duzu, gorputzak aguantatzen duen arte segitu». (ES, 169)

Dakusagunez, Teresak bi bidaia egiten ditu eleberrian zehar, bata fisikoa (Vienara) eta bestea psikologikoa (barrualdera). Bidaia horiek bilakaera baten funtsa testuratzen dute, 2. pertsonaren erabilera eginaz. Barrurako bidaian, lehen esan bezala, erabakiak hartzeko tenorea du Teresak, horien

artean amatasunarena. Teresak ezetz esan du, eta bakardadea aukeratu du bidaide lur berrien bila abiatuko duen bidaia fisikoan, heriotzarako bidaian.

Bidaia horien subjektu nagusia Teresa da, eta objektutzat bere bizitzaren inguruan gogoeta egitea du, gizartek ezarritako hainbat egiteren inguruan hausnartzea. Fokuaren etengabeko aldaketak nahiz kronologia lineala apurtzeak Teresaren egonezina irudikatzen dute, eta naturaren zikloaren, gorputzaren zikloaren, aurkako borroka ere adierazten. Teknika hauek guztiak ere Teresa bere buruan murgildua, baina era berean helburutzat duen bidairekiko distantzia zedarritzera daramate. Teresa, hasieran esan bezala, Ebaren izena eta izanaren intertestua da, eta haren gorputza, genesiari egiten zaion alegoria. Hasteko, kritika feministak genesiaren inguruan esandakoarekin begiratu badiogu Teresari, bukatzeko, kritika psikologistek aipatzen duten pertsonaien barruraino sartzeko beharra aipatu behar dugu; izan ere, gorputzetik abiatuta, erraietaraino bidaiatu baitu Teresak, oroitzena eta gogoeta bidaide dituela.

Ez genuke bukatu nahi, halere, eleberri honen izenburua mito femeninorik esanguratsuenaren iradokitzale izateaz gain, paradigma akantzialaren esplikazioa argia dela esan gabe. Horrela, esan genezake sugea (gizarte-era-gilea) dela eta emakumea (subjektua-Teresa), objektua, berriz, (genesia). Beraz, gizartek Teresari emakumeak genesiarekin duen zorra gogorarazten dio. Laguntzaileak eta aurkariak eleberrian zehar topatzen ahalegindu gara, baina ez dago ez laguntzailerik, ezta aurkaririk ere, subjektua bakar-bakarrik baitago. Izan ere, eleberri honetako protagonistaren bilakaeran azaltzen diren gizonezko protagonistak (senarra eta maitalea) oso urrutti baitaude Teresagandik. Eleberri honen erdigune tematikoa horixe baita: gizonezkoen eta emakumezkoen arteko urruntasuna, sentitzeko eta bizitzeko era ezberdinak; bi hitzetan, ezin ulertua.

#### 4.2. Sisifo maiteminez (iruzkinak: Ane)

Laura Mintegik idatzitako eleberri hau Biruté Ciplijauskaiték (1994) eleberri psikoanalitikotzat hartuko luke.

«La novela psicoanalítica indaga el subconsciente siguiendo un método determinado. Lleva al paciente a evocar la infancia, intentando descubrir las causas secretas que han moldeado el estado de ánimo presente». (Ciplijauskaité, 1994: 85)

«Estebanek badaki hitzaren bidez kanporatzen dela inkontzientea. Subjektuaren eta hitzaren arteko harremana psikoanalisiak bakarrik jar dezakeela agerian; lengoaiak bakarrik salba dezakeela» (SM,<sup>4</sup> 34). «La curación de su neurosis pasa por el afloramiento a la conciencia, es decir por la racionalización de los conflictos suprimidos en su primera infancia en la relación con su madre». (De la Concha, 1992: 46)

Rosario Ariasek (2002: 34) harreman objektualen teoriaren eskolaren berri ematen digu, eta eskola honek umearen garapenean hiru aspektu azpimarratzen ditu:

«Periodo preedípico, proceso de separación, autonomía y por último el llamado transitional space. (...) La teoría de las relaciones objetuales adopta como eje central de sus estudios la figura de la madre y la influencia que ésta ejerce en el desarrollo psicológico y sexual de las niñas en general, frente al androcentrismo del psicoanálisis freudiano». (Arias, 2002: 34)

Egile honek garrantzi handia ematen dio garai preedipikoari; izan ere, amatasun zainketak aski ona eta egokia izan behar du, umeak psikologikoki handitzeko.

«En consecuencia, la personalidad femenina, que ya se define en la etapa preedípica, se caracteriza por la definición en relación con otros individuos, sin embargo; la masculina se define por la individualidad». (Arias, 2002: 44)

Teoria hau oso egokia izan daiteke aztergai dugun eleberriko pertsonaia protagonistaren (Ane) barrualdea arakatzeko. Anek bere bi alabak abandonatu ditu, eta beste gizon batekin joan da. Ama absente bihurtu da, eta eleberrian horren arrazoia aurkitzea du xedetzat psicoanalistikak (Estebanek).

---

<sup>4</sup> Hemendik aurrera, *Sisisfo maiteminez* SM izendatuko da.

«Ezagutu nahi luke halakorik egitera zer pasiok bultzza dezakeen, eta, berak seme-alabarik ez duen arren, ezin du asmatu ama batek nolatzen egiten dezakeen halakorik, Ane bezalako ama batek». (SM, 38)

Susan Rubin Suleimanek (2007: 128) Nancy Chodoroven teorian oinarrituta, esplizitatu luke emakumeak psikologikoki amatasunerako prestatuak daudela hazi diren baldintzen baitan, hau da, euren amak erakutsi dienaren baitan

«Sólo un cambio radical en la crianza, compartida por padres que hagan de padres y madres por igual puede suponer un cambio importante en la psique femenina». (Suleiman, 2007: 128)

Anek bere ama nolakoa zen esplikatzen du eleberrian

«Ama ez zen zoriontsua. Amak gorrotatu egiten ninduen». (SM, 131)

«Anek azaldu dio Estebani ez dela ikasten ama izaten. (...) Haurdun gelditzeak eta erditzeak ez zaitu ama egiten. Gizona izanik, Jon amagoa da Ane baino...». (SM, 165)

Chodorovek (1984: 49) amatasunaren izatea rol baten irakaskuntza kognitiboan oinarritzen zuen, rolaren irakaskuntzan alegia.

«En nuestra sociedad, la madre de una niña está presente de un modo que el padre y otros adultos varones no lo están para el niño. La niña entonces puede desarrollar una identificación personal con su madre, porque tiene una verdadera relación con ella». (Chodorov, 1984: 260)

«Ikusita bi alaba ekarri zituela, eta ez zuelarik inolako asmorik ez gogorik seme-alabarik ekartzeko, ikusi nuen niri gauza bera gertatu zi-tzaidala neure alabekin. Ikusi nuen gure amak bere alabak fisikoki inoiz ez bazituen utzi ere, seguruen betebeharren zentzu okerragatik, baka-rrago utzi gintuela ahizpa eta biok nik neure alabak baino». (SM, 119)

«La carencia de afecto materno imprime todas sus secuelas: ansiedad, falta de autoestima y de seguridad, pasividad, parálisis y dependencia emocional». (De la Concha, 1992: 40)

Maria Angeles de la Conchak artikulu berean, Nancy Chodorovek, Dorothy Dinnnersteinek, Jessica Bondek eta Adrianne Richek matrofobiaren

inguruan aztertutakoa gogoratzen du, eta hauen esanetan matrofobia ez da hainbeste amarekiko gorrotoa, norberaren ama bezala izateko beldur izugarria baino.

Psikoanalisiaren bidetik pertsonaia honen gorabeherak ikusi ondoren, esan dezakegu Ana paradigma aktantzialeko subjektu nagusia dela eta objektutzat alaben abandonuaren zergatia ulertzea duela. Horretan lagunduko diote, batez ere, Esteban psikoanalistikak eta Karmele bere lagun minak. Abandonuarekin abiatzen da Anaren bizitzaren kontaketa, eta honen zergatiaren aurkikuntzarekin ixten da. Abandonuaren eragilea azkenean ikusiko da haren ama dela. Pertsonaia autodiegetikoa dugu Ana eta aldi bereko denbora erabiliko du narrazio mailan, baina iragana oso kontuan izanik ulertuko du oraina. Balek (1985: 87) bestalde, pertsonaia giza ezauigarri bereizgarriak dituen aktorea dela esaten zuen, hau da, leku estrukturala betetzeaz gain esanahi semantiko osoa duen aktorea.

Pertsonaia honen esanahi semantiko osoa zedarritzeko, Milagros Rivera Garretas kritikari feministak amatasunaren gainean egiten duen gogoeta ekarri nahi izan dugu lerro hauetara. Riverak dio (2001: 85) ama zehatza eta pertsonala dela arazoa feminismoarentzat, betiere, hobetu zitekeen zer-bait bezala ikusten zelako.

«No nos había querido lo suficiente, no había entendido nuestro anhelo de cambio social, no nos había dejado volver tarde por la noche, no había sido suficientemente libre, no había sido capaz de enseñarnos a hablar sin transmitirnos el lenguaje patriarcal... Estábamos dispuestas a honrar a un Partenón de madres simbólicas, pero la madre concreta y particular, no».

Horregatik, dio Milagros Riverak, emakume feminista batzuek amak iza-teari ekin ziotela betiere euren amak hobetzeko asmoz

«La paradoja fue que su obra éramos nosotras». (Rivera, 2001: 85)

Bukatzeko, amodioz, desiraz, maiteminaz... hitz egiten duen eleberri honen inguruan, Olaziregik (2002:119) Mintegik egindako eleberririk biribilenaren aurrean gaudelako susmoa azaldu zuen. Haren ustez, egituraketa erakargarria edo erritmo narratibo arina dira nobelaren bertute estilistikoak.

«Eta guztiaren oinarrian, mendi gailurrera haritzarra igotzena kondenatu zuten Sisifo gizaoa, A. Camusek esan bezala (ik. *Sisiforen mitoa*, 1942), lehenengo heroi absurdua». (Olaziregi, 2002: 119)

## 5. Amatasunaren aldeko aldarria egiten duten corpuseko eleberriak

Diferentziaren feminismoak azterketarako eskaintzen dituen tresnak gure eginik *Jostorratza eta haria*, 31 baioneta eta *Amaren eskuak* aztertuko ditugu modu arinean bada ere. Yolanda Arrietaren *Jostorratza eta haria* eleberrian, ama batek jaiotzeke dagoen alabari bere sendiaren izana edota iragana kontatzen dio, hartara, jaiotzen denerako errealtitate baten jakitun izan dadin.

«Esto quiere decir que la madre, cuando nos enseña a hablar, nos enseña, para toda la vida, el sentido de la realidad y de la verdad». (Rivera, 2005: 57)

Edota, Luce Irigarayk esango lukeen bezala, *Jostorratza eta haria*-ko amak bere hizkuntza sortu du, bere historia eta diskurtsoa eraiki ditu, alabari bere amona eta amamaren bitartez historia kontatzeko:

«Definidas como sustancia-madre, a menudo oscura, oculta del verbo de los hombres, nos falta nuestro sujeto, nuestro sustantivo, nuestro verbo, nuestros predicados: nuestra frase elemental, nuestro ritmo de base, nuestra identidad morfológica». (Irigaray, aip. Rodríguez Magda, 2003: 56)

*Jostorratza eta hariaren* inguruko historiarekin semantika propioa eta sintaxi berria eskaini dizkio ama protagonistak alabari. Patxadaz josia, bisuala, eta ulergarria.

Amatasunaren presentzia eta defentsa Aitziber Etxeberriaren 31 *baioneta* liburuan ere ikus genezake. Beatriz bere alabarekin bizi da Napoleonen tropen menpe dagoen Donostian, 1813ko uda partean. Alabak aita hila du, eta bere iragan osoa isiltasuna da. Beatrizek Inkisizioarekin arazoak izan zituen, eta, ondorioz, aita hil zuten. Amak, alaba babestearren, iragana isil-

tzea deliberatzen du. Isiltasunaren hautua egiten du, *Jostorratza eta harian-n* ikusi dugunaren justu kontrakoa.

«La infancia es la demostración más sencilla y directa de que hemos pertenecido al silencio y de que el silencio precede a las palabras y a los discursos». (Muraro, 1994: 25)

«En definitiva, la particularidad de lo femenino se encuentra en la ausencia y en el silencio, en definitiva, en torno aquello que nuestra cultura ha reprimido y acallado». (Arias, 2002: 68)

(Beatriz ama subjektuak) alaba aurrera ateratzea du helburutzat eta (gizarte-eragileak) eginiko kalte guztia isiltzea lehenesten du narrazioaren hastapenetan, halere, kontakizunak aurrera egin ahala, alabari zor dion egia, ukatutako egia, argitzen joango da narrazioaren korapiloa askatzen doan heinean. Zeregin horretan aurkariak (ejerzitoa) eta laguntzaileak (haren koinata) agertuko dira.

*Amaren eskuak* eleberrian, Nerea protagonista, memoria galdu berri duen amaren iraganaren aztarnak aurkitzen saiatuko da. Iraganaren berreskura-pena gorputzaren bidez izango da eleberri honetan. Amaren gorputza eta eskuak, bizitza oso baten metonimia izango dira. Amaren gorputza umearentzat janaria, berotasuna, lasaitasuna, jolas eta plazera dira.

«El vínculo corporal del bebé con la madre es el vehículo a través del cual se forman y se expresan los sentimientos fundamentales de la muy compleja criatura femenina...». (Dinnerstein, 1976: 34)

Nereak (subjektuak) amaren eta bere iragana aurkitzea eta ulertzea du (objektutzat) oraina ulertu ahal izateko. (Laguntzaile) gisa bere amaren ahizpa bat agertuko da eta iraganaren ukapenaren eragile gisa (gizartea).

### 5.1. *Zergatik Panpox (iruzkinak)*

*Zergatik Panpox* guraso bakarreko familiaren edota amatasunaren ereduadugu.

«La maternidad monoparental no sólo es una posición familiar nueva, sino una realidad compleja y significativa en curso, que las

mujeres tras una experiencia de separación y/o divorcio van dotando de sentido». (Barrón, 2004: 229)

Eesperientzia hau narratzeko orduan, amaren eta semearen gorputzak eta hizkuntzak berebiziko garrantzia hartu dute.

«Ama, zergatik gogortzen zait batzutan pitilina, hautsi egingo zait agian, ama, neskek pitilina barruan dute, andereñoak esana». (Z P<sup>5</sup>, 6)

«Baina zulo bat edukitzea arriskutsua da: edozer gauza sartu dai-teke barrura, defentsarik gabeko tunel honetan, ez esfinterrik ez betazalik». (Z P, 7)

«Ama, beti egongo nintzateke ni zure masailaren eta ilearen kon-tra». (ZP, 32)

Suleimanek (2007: 151) Chantal Chawaf idazlearen *Maternité* kritika-tzeko orduan esan zuena ekar genezake *Zergatik Panpox-en* azaltzen zaigun amatasuna laburbiltzera.

«Ha unido el ejercicio de la escritura femenina con el hecho biológico de la maternidad. La experiencia central alrededor de la cual gira su escritura es la experiencia emocional y física de la maternidad y del amor maternal, dotándose de una trascendencia casi cósmica».

«Lurraren sabeleko suzko odola sustraien muturretatik sartzen zait, zuri loa sudurreko hegaletatik sartzen zaizun bezala». (Z P, 19)

«Lore-kolore-usaiezko bola bat gerririk gora, bularrean lehertzen zait, ni bizitza naiz». (Z P, 19)

«Lo esnatuaren usai, ametsen arrastoek gozatutako azalaren aho-tsa, geratu dadila mundua minuto batez». (Z P, 14).

Harreman kosmiko horrez gain, diferenciaren feminismoarentzat gai zentralak diren emakumearen gorputza eta odola antzeman genitzake

«La centralización del cuerpo y la sangre de la mujer, su proximidad con la Naturaleza (...) escribir en tanto que flujo (de la sangre menstrual, de la leche materna, del flujo uterino), sintaxis líquida». (Suleiman, 2007: 153)

---

<sup>5</sup> Hemendik aurrera, *Zergatik Panpox* ZP izendatuko da.

«Bertatik muki gorri-marroi bat zerion, ia solidoa zen muki bat». (Z P, 6)

«Esne epelaren usai xamurra». (ZP, 17)

«Non bizi dira malkoak begietara azaltzen ez diren bitartean». (Z P, 26)

«Sabeletik laister aterako zaidan odol mukitsua bezala». (Z P, 31)

Liburuan zehar amatasuna, zainketa eta bizitza goraipatzen dira.

«Vivir es hermoso. Ver, oír, tocar, beber, comer, orinar, defecar, zambullirse en el agua y mirar el cielo, reír y llorar (...) Vivir es hermoso. Ver sentir la sangre tierna y cálida que fluye de una misma, que fluye del manantial. (...) Estar encinta, ser ciudadela...». (Le-clerc, 1974: 34)

Zergatik Panpox-en erabiltzen den hizkuntzan umearekiko hurbilpena dago. Berdintasunaren feminismotik, amek umeak ulertzeko erabilitako hizkera gutxietsi egin ohi da, betiere amaren nortasuna gutxitu eta ezabatzen duelakoan. Diferentziaren feminismotik, aldiz, Luisa Muraroren teoriak jarraituz, amek umeak ulertzeko erabiltzen duten hizkuntza beste oso modu batera ikusi da. Amak, umeen hizkera erabiltzerakoan, gutxietsi beharrean egokitu egiten direla dio Murarok. Amek euren boterea gutxitu asmoz, hizkuntza estrategia berezi bat abian jartzen dutela dio Murarok. Estrategia honetan ume-amen arteko harremanean hurbilpena eta berdintasuna gertatzen da. Jarrera honekin, kultura toleranteagoa eta negoziatzaleagoa azaltzen dute amek, kontuan edukiz eurek dutela boterea eta jakintza.

«La negociación conjunta de significados, en lugar de imposición de los propios o la falta de reconocimiento de los ajenos, sería básica en una sociedad que valorase la negociación». (Bengoechea, 2004: 103)

Hizkuntzari dagokionez, Zergatik Panpox jariotasunez eta kantuz idatzia dago, umearen sintaxira eta hurbiltasunera egokitua.

«Blandiblup» (Z P, 6), «panpox, pirulo» (ZP, 17), «amatxo, muxera, muxontzi» (Z P, 22). «zu, panpox bihotzekoa, Antxon pirulero,» (ZP, 14) «ario, panpox, muxu, lehoikumea, artaburua, tira, panpox, muxu». (ZP, 18)

Ariasek (2002: 103) Ruddicken teoria bere eginez, amatasunaren pentsamendu zientifikoan hiru aspektu azpimarratu ditu, hirurak ere eleberri honetan bete-betean suertatu direnak, eta atal honi amaiera emateko auke-ratu ditugunak. Lehenik eta behin, malgutasuna, ez delako batere dogmatikoa amatasunaren pentsamendua. Bigarrenik, detaileaz jabetzeko gaitasuna. Eleberri hau zerbait baldin bada, egunak dituen 24 orduetan ama batek umeak pentsatu eta senti dezakeenaren inguruan egin dezakeen transferentzia da. Eta, azkenik, amatasunaren pentsamenduan oinarrian dagoen zainketa eta babesea. Malgutasuna, behaketa eta zainketa amatasun pentsamenduaren zutabeak baldin badira, eleberri honen zioak ere badira, betiere, differentziaren feminismotik hain aipatuak diren gorputz eta hizkuntzaren bidez azaleratuak.

Amatasunaren defentsan giltzarria izan daitekeen nobela honetako ize-nik ez duen protagonistaz ezer gutxi esan dugu. Beraz, izenik ez edukitzeak duen balio semantikoak, neurri batean bederen, amatasuna modu positiboan proposatzen duten ama protagonisten kolektiboari begiratua botatzeko balio izan digu. Baino, esan behar dugu, izenik gabeko ama hau euskal literaturako lehen protagonista femenino modernoa dela, bera dela kontalaria, berak erabiltzen duela ikuspuntu eta pentsamenduen jarioa «stream consciousness» teknikaren bidez. Paradigma aktantzialean subjektu nagusia da eta objektutzat ditu 70eko hamarkadan emakumezkoaren askapen mugimenduarekin lotuta zeuden hainbat gai: bikote harremanak, amatasuna, emakumezkoen gorputza, emakumezkoen ahotsa, antisorgailuak, egunerokotasunaren zama...

## 6. Ondorioak

1. Artikulu honen lehen ondorioa euskal emakume idazleek amatasuna hautu bezala landu dutela izan daiteke, eta, ondorioz, amatasunaren inguruko gai guztiak ikusarazi dituztela, antisorgailuak, hilerokoa, haerdunaldia, erditzea, abortuak, abandonua, menopausia. 1979tik 2009ra arteko tenorean, emakume idazleek pertsonaia protagonisten bidez eraikitako eleberriak 26 eleberri aztertu ditugu. Eleberri horie-

tatik %90ak amatasuna sartu du diskursoan, eta horietarik %80ak alde ezkorra egotzi dizkio, berdintasunaren feminismoak aipaturiko kezkekin bat eginik. Amatasunaren eraikuntzan ama tipologia zabala ikusi da, baina historian zehar pisu handiena izan duena, Maria, faltan bota dugu gure eleberrigintza garaikidean.

2. Ilatu den seme-alaba kopurua, inoiz hiru baino gehiago, eta amen lan egoera errealtitatearekin oso lotua dago. Adinean aurrera egindako amonak (60-80 urte bitartekoak) jostun eta etxekoandre gisa agertzen dira. Adin bateko emakumeak, 45-60 urte bitartekoak, etxekoandre bezala eta 30-45 bitartekoek goi mailako ikasketak eginak dituzte: unibertsitateko irakasleak, abokatuak, kazetariak. Bada gazterik ere lanik gabe eta edozer lan egiteko prest dagoenik, eta kalean lana egiten duenik ere. Ondorio gisa esan daiteke proposatzen diren amatasunak eta amen lan baldintzak egun Euskal Herrian bizi denarekin eta eman ditugun datu soziologikoekin oso bat datozena (ikus atal honetan, datu soziologikoak).
3. Abandonuaren gaia bi modu oso differentetan landu da. Batetik ama abandonatuak aurkeztu dira, *Zergatik Panpox* edota *Koademo gorria* eleberriean, eta beste batzuetan umeak abandonatzen dituzten amak, *Sisifo maiteminez* eta *Greta* nobeletan. Lau eleberriean, nahiz eta abandonua oso ikuspegি differentetik eratorria izan, narrazioaren epizentroa eta hari narratiboa bilakatu da. Egite aktantzial guztian abandonua objektu gisa aurkeztu da. Horrela, batzuetan amak subjektuak bezala aurkeztu dira eta bestetan abandonuaren hartzaile gisa. Bi abandonuen arteko aldea, amek seme-alabak abandonatzeko arrazoia ezintasunean legitimatu izana da, seme-alabak eurekin izatea abandonatzea baino okerrago izango zelako arrazoipean.
4. Amaren gaixotasuna edota heriotza hiru eleberrian azaldu zaigu, *Amaren eskuak*, *Ugerra eta kedarra eta Nora ez dakizun hori* testuetan. Hiru eleberriean alabak mintzo dira. Alabek amaren hutsunea, zauria plazaratu dute beren gogoetan. Azken bi eleberriean amaren maitasun ezaren ondorengo bortizkeria agerian utzi dute eta Jaioren *Amaren eskuak* eleberrian, amaren maitasun eta ezagutzaren falta izugarriaren samina hezurmamitzu.

5. Gorputzaren presentzia nabaria da. Oñederraren eleberriak amatasuna gorputzaren emankortasun garaiarekin lotzen du. Kairos bilakatzen da. Gorputzen mintzoaren ondorioz, amatasuna onartu edota ukatu baita. Bi paradigma argi ditugu *Zergatik Panpox-ek* eskaintzen duen jariakortasuna eta *Eta emakumeari sugeak esan zion* nobelak gorputzaren nekearen ondorioz iradokitzen duen bizitzaren akabera, heriotza, amatasun eza. Antisorgailuak, hilerokoa, planifikazioa. Biak ala biak nobela mugarriak dira gure historian.
6. Amatasunak dituen denborak ere azaldu dira kapitulu horretan. Horrela, *Zergatik Panpox-ek* laburbiltzen ditu denboraldi mota guztiak, edota denbora ulertzeko adiera diferenteak: zainketak eskatzen duen maitasun denbora: infinitua, ordurik gabekoa; lehenagotik ezagutu dugun *Kairós* edota denbora esanguratsua, amatasuna bizitzaren gune importantea bilakatzen duena; kronosa egunerokoak sekuentziatzera eramaten duena eta, azkenik, zain egotearen denbora, ezin zenbatu daitekeena (Varela, 2007: 68). Amatasunaren denbora horiek guztiak agertu dira aztertu ditugun eleberrietan.
7. Datu soziologikoak buruan, esan daiteke, 1979tik 2009ra bitartean jaiotza jaitsiera izan bada ere, emakume idazleek amatasuna edota amen presentzia indarberritu dutela eleberrigintza garaikidean. Persoanaiaren protagonisten bidez, kasu batzuetan jaitsiera horren arrazoiak azaldu dituzte, eta beste batzuetan gogoeta modura eskaini dituzte, baina ahalegin nabarmena egin dute amatasunaren inguruaren diskurtsoak eraikitzeko, batzuetan aldekoak eta beste batzuetan kontrakoak.
8. Azkenik, Oñederrak eta Mintegik, Teresa eta Ane protagonista feme-ninoez baliatuz, gizon berri baten beharra edota aipamena ere egiten dute. Oñederrak Teresaren bidez azpimarratu du zaila egiten zaiola inguruko gizonekin harremanik edukitzea, komunikatzea, beregandik oso urrun daudela, ez dutela hizkuntza bera erabiltzen, eta, bestetik, Mintegik Aneren bidez, Chodorov (1984) eta Suleimanen (2007) teoriak bere eginez, aipatzen digu amatasunaren izatea rol baten irakaskuntza kognitiboan oinarritzen dela, eta alabaren psikean bene-

tako aldaketa gertatzeko aitatasunak aldatu egin behar duela. Beraz, feminismoak berdintasunaren ikuspuntutik aldarrikatzen duen gizon eta emakumeen arteko gatazka konpontzeko, emakume berria ez ezik, gizonezko berria ere nahitaezkoa dela iradokitzen digute modu implizitan bi egile horiek pertsonaia protagonista femeninoen bitartez.

## 7. Bibliografía

- AGUILAR, P., 2004. «Madres de cine: entre la ausencia y la caricatura». In: De la Concha, A. eta Osborne, R. (Ed.). (2004). *Las mujeres y los niños primero*. Bartzelona: Icaria.
- ALONSO-ARBIOL, I., 2006. *Amatasuna eta aitatasuna. Proposamen berriak*. Bilbo.
- ALVAREZ VEINGUER, A., 2007. «El universo sexuado: cuerpos invisibles pero imprescindibles. Una aproximación a experiencias de mujeres de la Europa del este que realizan trabajos domésticos». In: Muñoz Muñoz, A.M.; Gregorio Gil, C., eta Sánchez Espinosa A. (Koord.). (2007). *Cuerpos de mujeres*. Granada: Colección Feminae.
- ARIAS, R., 2002. *Madres e hijas en la teoría feminista. Una perspectiva psicoanalítica*, Universidad de Málaga.
- BAL, M., 1985. *Teoría de la narrativa*. Madrid: Cátedra.
- BARRON, S., 2004. «Introducción: La maternidad monoparental». In: De La Concha, A.; Osborne, R. (Koord.) (2004). *Las mujeres y los niños primero: discursos de la maternidad*. Bartzelona: Icaria.
- BENGOECHEA, M., 1994, postfazioa (405-419 orr.). In: Riche, A. (1994). *Nacemos de mujer. La maternidad como experiencia e institución*. Madrid: Feminismos Clásicos, Cátedra.
- \_\_\_\_\_, 2004. «Mi madre es... un hueco en el espacio: discursos poéticos y lingüísticos sobre la insignificancia materna». In: De la Concha, A.; Osborne, R., (Koord.) (2004). *Las mujeres y los niños primero: discursos de la maternidad*. Bartzelona: Icaria. 81-110.
- BEAUVOIR, S., 2005. *El segundo sexo*. Madrid: Cátedra, Feminismos.

CIPLIJAUSKAITÉ, B., 1994. *La novela femenina contemporánea (1970-1985). Hacia una tipología de la narración en primera persona*. Bartzelona: Anthropos.

CHODOROV, N., 1984. *El ejercicio de la maternidad. Psicoanálisis y sociología de la maternidad y paternidad en la crianza de los hijos*. Bartzelona: Gedisa.

DE LA CONCHA, A.; OSBORNE, R., 2004. *Las mujeres y los niños primero*. Bartzelona: Icaria.

DE LA CONCHA, A., 1992. *La sombra de la madre. Un mito en la novela de las mujeres*. Revista Canaria de Estudios ingleses, 24. Zk., (33-48 orri.)

DELPHY, C., 1985. *Por un feminismo materialista*. Bartzelona: Cuadernos Inacabados.

DIEZ, C., 2000. «Maternidad y orden social. Vivencias del cambio». In: Del Valle, T., (Ed.). (2000). *Perspectivas feministas desde la antropología*. Madrid: Ariel Antropología.

DINNERSTAIN, D., 1976. *The Mermaid and the Minotaur. Sexual Arrangements and Human Malaise*. Nueva York: Harper & Roww.

DOMÍNGUEZ GARCÍA, B., 1999. *Hadas y brujas. La reescritura de los cuentos de hadas en escritores contemporáneos en lengua inglesa*. Huelvako Unibertsitatea.

EMAKUNDE, 2009. Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak 2008, Genero azterketarako taldea. Politika eta Administrazio Zientzia saila.

ESTEBAN, M. L., 2006. «Amatasuna eztabaidea antropológikoak eta feministak». In: Alonso-Arbiol, I. (Koor.). (2006). *Amatasuna eta aitatasuna, proposamen berriak*. Bilbo: UEU.

\_\_\_\_\_, 2000. «La maternidad como cultura. Algunas cuestiones sobre la lactancia materna y cuidado infantil». In: Perdigüero, E. eta Cornelles, J. M., (Ed.). (2000). Bartzelona: Bellaterra.

FIRESTONE, S., 1976. *La dialéctica del sexo: en defensa de la revolución feminista*. Bartzelona: Kairós.

GREIMAS, A. J., 1983 (1973). *La semiótica del texto, ejercicios prácticos*. Madrid: Paidós Ibérica.

HOCHILSCHILD, A. R., 2001. «Las cadenas mundiales de afecto y asistencia y la plusvalía emocional». In: Giddens, A. eta Hutton, B. (2001). *En el límite*. Bartzelona: Tusquets. (187-209 orr).

- GOLDMANN, L., 1967 (1964). *Para una sociología de la novela*. Madril: Ciencia Nueva.
- IMAZ, E., 2005. «Condiciones sociológicas de la fecundidad: pareja, maternidad, paternidad». In: Arregi, B, eta Davila, A. (Ed). (2005). *Reproduciendo la vida, manteniendo la familia. Reflexiones sobre la fecundidad y el cuidado familiar desde la experiencia en Euskadi*. Bilbo: EHU.
- \_\_\_\_\_, 2006. «Haurra eduki ala ez: ugalketaren inguruko planteamenduak, desirak eta kontraesanak,». In: Alonso-Arbiol I. (Ed). (2006). *Amatasuna eta aita-tasuna. Proposamen berriak*. Bilbo: UEU.
- LECLERC, 1974. *Parole de femme*. Paris: Grasset.
- LUXÁN SERRANO, M., 2005. «La fecundidad en la Comunidad Autónoma de Euskadi. Un estudio generacional». In: Arregi, B, eta Davila, A. (Ed). (2005). *Reproduciendo la vida, manteniendo la familia. Reflexiones sobre la fecundidad y el cuidado familiar desde la experiencia en Euskadi*. Bilbo: UEU.
- MATAIX, V., 1996. *Maternidades*. Madril: Planeta.
- MITCHELL, J., 1971. *Woman's Estate*. Penguin: Harmondsworth.
- MURARO, L., 1994. *El orden simbólico de la madre*. Madril: Horas y Horas.
- NICHOLS, G., 2003. «El procrear, pro y contra». In: Redondo Goicoechea, A. (Koor). (2003)., *Mujeres novelistas*. Madril: Narcea.
- OLAZIREGI, M. J., 2002. *Euskal eleberriaren historia*. Amorebieta-Etxanoko Udala: Labayru Ikastegia.
- PÉREZ-DÍAZ, V.; CHULIÁ, E.; VALEINET, C., 2000. *La familia española en el año 2000. Innovación y respuesta de las familias a sus condiciones económicas, políticas y culturales*. Madril: Visor.
- RICH, A., 1978. *Nacida de mujer*. Bartzelona: Noguer.
- RIVERA GARRETAS, M., 1994, *Nombrar el mundo en femenino*, Icaria, Bartzelona.
- \_\_\_\_\_, 1996. *El cuerpo indispensable. Significados del cuerpo*. Madril: Horas y Horas.
- \_\_\_\_\_, 2001. *Mujeres en relación*. Bartzelona: Icaria.
- \_\_\_\_\_, 2005. *La diferencia sexual en la historia*. Balentzia: PUV.

RODRIGUEZ MAGDA, R. M., 2003. *El placer del simulacro. Mujer, razón y erotismo*. Madril: Icaria.

SAU, V., 1993. SAU, V. 1993. *Ser mujer: el fin de una mujer tradicional*. Bartzelona: Icaria.

SEGARRA, M., 2000. *Feminismo y crítica literaria*. Bartzelona: Icaria.

SULEIMAN, S. R., 2007. «Escritura y maternidad». In: Dovay, M. (Ed). (2007). *Maternidad y creación. Lecturas esenciales*. Madril: Alba.

TOBÍO, C., 2005. *Madres que trabajan. Dilemas y estrategias*. Madril: Feminismos, Cátedra.

WARNER, J., 2006. *Una auténtica locura. La maternidad en el siglo XXI*. Bartzelona: Peninsula.

# Oharrak



# **Andima Ibinagabeitiaren nortasun politikoa**

AULESTIA TXAKARTEGI, Gorka

Ohorezko euskaltzaina eta Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa batzordekidea

A. Ibinagabeitiaren lana garrantzitsua izan zen prosa eta itzulpen eremuetan nahiz saiakera eta literatura kritikan. Idazle eta itzultzale gisa ezin konta ahala lan argitaratu zituen Europan (Euskal Herria, Spainia, Portugal, Belgika) eta Ameriketan (Kolonbia, Guatemala eta Venezuela). Haren gai aipagarrienak Euskal Herria, abertzalesuna, euskara eta euskal literatura, politika (EAJ) eta musika izan ziren. Horrez gain, Frantzia, Guatemala eta Venezuelako egonaldi luzeetan (20 urte guztira) haren bizitza eta lana oproa izan ziren. Halaber A. Ibinagabeitia kritikalari zorrotz eta zoli bezala agertzen zaigu beste eremu batuetan ere: Euskaltzaindia, EAJ-PNV, euskara batua, Eliza, euskal burgesia, etab. Aberrak eta euskarak kezkatzen zuten. A. Ibinagabeitia, «Sabin», «Elentxu», «Idoyaga» eta «Norbait» izen-goitziz ezagutua izan zena.

Caracas-ko egonaldi luzearen ondorioz (11 urte, 1956-1967) euskal arlo politikoan gero eta sartuago ikusten dugu. Venezuelako egonaldi honetan politika izan zuen erakargarri, *Irrintzi* eta *Eman* bere aldizkarietako artikulu askotan egiazta daitekenez. Baino A. Ibinagabeitia, jaiotzatik bere famili giroaren eraginez, beti abertzale sabindar sentitu zen hil arte; euskal abertzalesuna eta euskara haren bizitzaren bi ardatzak baitziren. Oso sentibera zen eta askatasunaren oinarriaren bila aritu zen beti, abertzalesuna euskal kulturaren eta, batez ere, euskararen gainean jarri. Euskararen aldeko odolik gabeko matxinada baten sortzaile agertuko zaigu.

A. Ibinagabeitia Elantxoben (Bizkaia) 1906ko urtarrilaren 27an jaio zen. Galo, bere aitak, «Abandoko Maisua»-rekin izandako harremanen oroitzapenak, Andima haurrentzaren bizitza zeharo baldintzatu zuen. Geroago, Jezuslakunen hainbat ikastetxe eta komentutan ikasle igarotako urte luzeetan, Euskal Herriarenganako eta euskararenganako maitasuna errotzen joan ziotaion.

Hamaika urte zituela (1917-1921) lau urte eman zituen Nafarroako Erriberan, Tuteran, batxilergoa egiten; geroago, 15 urteko mutil gazteak bost urte Humanitateak ikasten igaroko ditu Loiolan (1921-1926). Hemen, 1922an euskal giroa sortu zuen Jokin Zaitegi eta beste euskaldun lagun batzuekin, Aita José M<sup>a</sup> Estefania bilbotar irakaslearen zuzendaritzapean. Ordukoak ditugu Aita Bianchirekin izandako arazoak; donostiar errektore

honek, Loiolako Basilikaren kupula gainean Espainiako bandera ipini zuelako, A. Ibinagabeitiak eta euskal lagun batek eskailera bat erabiliz, oihal hori kendu eta trastelekuan ezkutatu zuten, etxeko nagusia aztoratuta eta haserre utzirk. Urteotan espaniar monarkia eta Jesuiten Lagundia oso loturik ikusten zituen elantxobetarrak, eta geroago ere, M. Primo de Riveraren diktadurapean iritzi bera izango du. 1923an Jesulagunen botoak egin ondoren, Oñara joan zen Filosofiako ikasketak egitera, eta han hiru urte iragan zituen (1927-1929).

Ikasketa hauek bukatu eta bidegurutzean aurkitzen du bere burua: edo Madrilera soldaduska egitera joan edo Kolonbian Jesulagunen maisutza («maestrallo») hasi. Noski, ez zuen inolako zalantzak izan, beraz Bogota hiriburuan eta Bukaramangan hiru urte eman zituen (1929-1932), Etika, Psilogia, Historia Natural eta Musika irakasten. Hegoamerikatik Marneffera doa Teologia ikastera (1932-1935); Belgikan apaizteko gutxi falta zitzaiola, 1935ko Aste Santuan apaizgoari uko egin, eta Jesusen Lagundia uztea erabaki zuen, Euskal Herrira itzuliz. 18 urte jesulagunekin bizi ondoren, Deustura (Bilbo) ama bizi zen etxera joan zen. Geroxeago, «Explosivos de Galdácano» lantegian bulegari gisa sartu zen. 1936an Trafaria-n, Lisboa ondoko bizkaitar enpresaren dinamita lantegian lanean ari zela, Espainiako Gerra Zibilak eztanda egin zuen.

Guda odoltsu honen ostean, 1943an Portugal utzi eta Bilbora itzuli zen berriro Jose A. Agirre lehendakariaren deiari baietta emanez. Bigarren Mundu Gerraren erdian Eusko Jaurlaritzak erbestean zeukan informazio eta espioitza zerbitzurako (EAJ., J.A. Agirre eta CIA) lanean hasi zen Bilbon, Bartzelonan eta Madrilen, «Gorka» ezizena erabiliz. Pasarte honek polizi eleberriak dakarzkit burura. «*Aberriaren omerako, kanore ta garrantzi aundiko lana ixilpean egiten ari nintzan. Sareak Hispania oro barna edatuta neuzkaan, Euzkadin zer esanik ere ez. Urte batzu neramazkin ekin bide gogor ortan*» (Paris 1947-V-5, J. Zaitegi-ri). Baino eginbehar horretan buru-belarri zebilela, Francoren polizia joan zitzaion Deustuko etxera, atxilotu nahian, eta egoitzaren atzeko aldetik jauzi bat egin, eta horma pasatu ondoren, Parisa ihes egin beharra izan zuen. «*Igara Epailaren 15.ean, Prankoren bidaliak, bazkal garaian, etxearen aurkezta zitzainaikidan ni atxilotzeko asmoz. Aiek ate nagusitik sar, ni ordea ate extutik atera. Baratzeko orma gainetik jauzi nintzan eta atertu bage*

Parisera arte... Azkenez, aipatu garaian, salatzaileren baten eraginez edo, bila etorri zitzaitzidan... Etxekoak atsedabez utzi nitun, bainan dagoneko xuspertuta arkitzen dira, Prankoren atzaparretatik onik atera nintzalako» (Paris, 1947-V-5, J. Zaitegi-ri).

Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuan Parisen iragan zituen zazpi urteak (1947-1954), garrantzi handikoak eta oparoak izan ziren: gutunak idazten; BB-Crako euskal literaturari buruzko hitzaldiak prestatzen; euskarazko ikastaroak ematen; lehendakariaren hitzaldiak eta idazlanak euskaratzen; euskal aldizkarietarako artikuluak idazten (*Euzko-Deya*, *Euzko-Gogoa*, *Gernika*, *Alderdi*, etab.), «Pen Euskal Kluba» sortzen; euskal liburu berrien argibideak ematen *International PEN Bulletin-i*. Horrezaz gainera, etorkizunean euskal poeta ospetsua izango zen Jon Miranderi eta Tx. Peillen-i euskara irakasten, denboraldi luzea eman zuen. J. Miranderen euskara garden eta jorian Elantxobeko maisuaren eragina nabaria da. Geroago ere, Euskal Herrian haren idazlana inork onartzen ez zuenean (bere kristautasunaren kontrako jarreragatik) Elantxobeko idazleak *Euzko-Gogoa*-ko ateak ireki zizkion bere lanak argitaratzeko.

A. Ibinagabeitia-ren nortasun politikoaren zutaberik sendoena ama hizkuntza izan zen. Euskara komunikabide ona izateaz gain, euskaldunon ezaugarririk nagusiena zen parentzat, Euskal Herriaren askatasuna eta independentzia lortzeko tresnarik hoherena. Hori dela eta bere ama euskaraaren iraupenerako buru-belarri jardun zuen bizitza osoan. Caracas-en bere lagun mina zen Jon Urresti ondarroarrak honela dio: «*ez naiz inoiz izan literaturatzaz arduratu naizenetakorik, nahiz eta ‘euskarra’ irakurle porrokatua naizen eta hori, hain zuzen, Andima zenari zor diot...* Ezin dut ukatu Andimare-kiko dudan behin-behineko eragina eta sentiberatasuna. Horregaitik, hain justu, eskerrak eman behar dizkizut idatzi duzun artikuluagaitik, zeinetan Andimaren izaera hain zuhur, egoki ta fidel isladatzen duzun, zera idazten duzunean: ‘...me gustaría resaltar... donde el objetivo prioritario no era tanto la belleza literaria como la supervivencia del instrumento de esa belleza, en este caso el euskara’. .... Bere izaeraren muinean jo duzu, erdaraz izango litzaken ‘has dado en el clavo’ erabiliz.... nahiz eta bere ondasun guztiak xahutu eta miserian bizi, EUSKARA-ren egonkortasuna eta bizia zela bere nahi eta helburu bakarra» (Ondarroa 1991-IV-4, G. Aulestia-ri).

Euskaltzaindiko eta Eusko Ikaskuntzako bilerak gazteleraaz egiten ziren urteetan, A. Ibinagabeitiak ozenki aldarrikatu zuen euskararen premia. Zentzu horretan behintzat, urte batzuk geroago J. Mirande, G. Aresti, «Txillardegi» eta uhin berriaren aintzindaria izan zen, hots, bultzagile zolia, zorrotza eta gogorra; euskararen babesle sutsua eta gotorlekua:

«Zertarako euskeratzaz erderaz iardun? Garai ori ioana da, ta orainingo euskal-iakitun gazteek olakorik ezin dezakete egari. Ez dute nai euskeratzaz erderaz ari dan batzarrik, ikaskun-mota guzietaz euskeraz soilik ari diranak baizik. Betoz batzarretara iakinun arrotzak ere. Oriei ez diegu ukatzen beren izkeraz mintzatzeko eskubiderik; ez gera ain ergelak. Bañan euskal-iakitunek, euskeraz mintzo bitez: euskeraz ager bitzate euren txostenak, euskera bedi Ikaskunza-Batzarretako izkera nagusia, beste izkera oro bere menpean dauzkan mintzo garaita iakintsua. Ori iristen ez dugun artean, orain arte bezala, antzu gertatuko dira eusko ikaskuntza batzarrak oro, kaltegarri ta lotsagarri ez denean. Erdal-ikaskuntza batzarrik ez dugu nai, gure euskera, illoitz baten gisa, erdal-aizto ilgarritz moztu, iñausi ta sarraskitzeko.

Erotua gaudela esango dute zenbait iakinun erdel-iarioek. Bai, euskerakin zoratuta gaude, ta euskerak beste euskotar guztiei burutik eragiten ez dieneño galdurik gaude. Ikusi dugu zuen gurbiltasunak, zuen zuhurtziak noradiño eraman dituen gure aberri-izkera eta gure errria. Aski zuurtasunik eta betorkigu euskal-eroaldi betea, gure izkera ederraren oiartzunez Euskadi'ko muga urrutienak ere beteko dituen euskal zoro-aladia... «Asmoz ta Jakitez bai, bañan Euskeraz». (Euzko-Gogoa 1954,-3:4:49)

Bigarren Mundu Gerran Naziek judeuekin eginiko sarraskiagatik, 1948ko maiatzaren 15ean euskaldun eta abertzale askok begirune eta miresmen handiz onartu zuten David Ben Gurion-ek Tel Aviv-en aldarrikatu zuen Israel Estatu berriaren itxaropena. Zoritzarrez gaur egun, zeharo aldatu da giroa gure artean, beraiek palestinarrekin egiten ari diren antzeko sarraskiagatik. Baino, garai hartan, A. Ibinagabeitia horietariko euskal miresle bat zen, israeldarrek aberri bat eraiki zutelako eta batez ere, arbasoen ama hizkuntza, alegia, hebreera, berreskuratzen ari zirelako: «*Omen zuri, Israel, erri zar eta erri berria. Aintza zuri*». (Euzko-Gogoa 1952, 1-2: 47). Gertakizun hau izan zen A. Ibinagabeitiaren iritziz, «*gizaldi honetako miraria*». Beraz,

Israel jarriko digu euskaldunon eredu eta isphilu gisa, zeren herri honek bezain ugari jasan duenik ez du beste bat aurkitzen. Beraz, Euskadiren independentziaren zain egon gabe, aberri hizkuntza, alegia, euskara aldarrikia dezagun euskaldunok, eguneroko bizitzako premia guztietaera eramaenez eta arazo guztieta erabiliz. Eta urte batzuk geroago gai honi buruz pentsarte politikoa idatzi zuen.

«Tel-Aviv-en kabaret apain batean eserita nago. Zer dantzute nere belarriak? Salmoetako izkuntzan, liburu sainduetako irumilla urte lenagoko izkuntza santuan kanta berrienak, dantza berrienak abesten ari dira oraingo isrraeldarrak orkesta eder baten soñu kilimakorrez inguraturik. Zer ote lioke Dabid'ek esnatuko ba'litzia? Ori bai gauza ederra!, esango luke: ara nere izkuntza paregabez berpiztuta! Ta bere arpa artuta orkestarien ondoan yarriko litzake kanta ta dantza berrien lagungarri. Nik beintzat, orixe egingo nuke Dabid'en lekuau. Euskeraz kantatzekotan, yakiña.» (Euzko-Gogoa 1952, 1-2 zb).

## Guatemala

1954ko otsailaren 21an erabaki sendo bat hartu zuen; Frantzia utzi eta Le Havre-ko portutik Guatemalarantz abiatu zen. J.A. Agirre lehendakariari hauxe diotso: «*Ara joango banintza Aberri ta batez ere euskeraren alde lan egiteko izango litzake*» (Paris 1951-XII-13, J.A. Agirre-ri). Jokin Zaitegik zuzendutako Euzko-Gogoan lanean hasi eta Orrixek utzitako zuloa betetzen saiatu zen. Argitalpen hau euskaldunek atzerrian euskaraz argitaratzen zuen aldizkaririk garrantzitsuena bilakatu zen, tradiziozko euskal kultura zein garaikidearen transmisio tresna bihurtu zelarik. Elantxobetarrak borroka galduen aintzindari bakarti gisa lan egin zuen euskara eta euskal kulturaren alde, jasan zuen 20 urteko atzerrialdi luzean, euskal sustraiak sekula ahaztu gabe, eta bere famili giroaren eraginez, beti abertzale sardin-dar sentitu zen. 1950. hamarkadan euskaldunek denboraldi latzak jasan zituen ONU, UNESCO eta antzeko nazioarteko erakundeetan Francoren gobernuaren onarpena ikusirik. Beraz, bere bakardade, etsipen eta beheraldie ihes egiteko A. Ibinagabeitiak atzerrian bizi ziren euskal lagunei idazten zien.

1956an Lehen Euskal Biltzarra bukatu ondoren, bere alderdiaren (EAJ) eta Eusko Jaurlaritzaren aukako kritika gogor eta zorrotzen adierazpenak gehitzen hasi zen, Sabino Aranaren ildotik aldenduta, errepublikazale espiarrekin ituna egiten saiatu zirelako; *Alderdiaren* norabide okerra salatu eta Maisuaren jatorrizko iparraren bila eman zuen bizitza guztia.

## Caracas

Lekualdaketa honek haren eguneroko bizitzan ondorio larriak eragin zizkion, alegia, lanpostu on bat utzi ondoren Guatemalan, lan arloan Venezuelan arazoak izan zituen. Behin eta berriz lana lortu eta behatzopa egingo du lana galduz:

«Ederki nengoen lanean baina baziideekin aserretu nintzan, eta nere lana utzi bear izan nuen ainbeste mila bolibar galdurik. Arrezke-ro nere gorriak jasan bear izan ditut lan berri bat bilatzeko, ezpaita bada erreza garai auetan eta lur alde auetan lanik errex arkitzea» (Caracas, 1962-IV-11, J. Mirande-ri).

Diru arazoez gainera, osasun buruhauste handiak ere izan zituen. Ez da euskaldunik asko euskerari eta Euskal Herriari Elantxobeko idazlearen mailan osasuna bera ere eskaini dizkionik.

*Euzko-Gogoa* aldizkariaren amaiera tristea konpondu ostean, 1956ko otsailaren erdialdean Caracas-era heldu zen. Hona hemen arazo honetaz Tx. Peillen-i idatzitako hitzak:

«Zaitegi jauna euskadiratu zen, eta Euzko-Gogoa ere berarekin eraman zun, or nunbait argitaratzeko. Beraz nere emengo egitekoa bukatu zen. Otsailean edo, emengo gora-berak eta arazoak antola ondoren, Caracasera noa an nolarebait nere bizibidea aurrera ateratzeko... Dirurik ez dut Amerika ontan eginen, lurrik ikusi bai ordea. Zerbait bada ala ere» (Guatemala, 1955-XII-23).

Hiri honetan beste euskaldun atzerriratuak ezagutu zituen, adibidez: Vicente Amezaga, Toribio Etxebarria eta Martin Ugalde. Venezuelako hiri-buruan emandako hamaika urteetan (1956-1967) gero eta gehiago politika

arazoetan sartuta ikus dezakegu: «*Ni orain, politikan murgilduta ari naiz sortu dugun aldizkari berria dala medio, Irrintzi, alegia*» (Caracas 1958-IV-8, J. Zaitegi-ri). Hemen ere nahigabe eta burukomin faltan ez zen egon eta gutunen bidez lagunei bere barruko grinak azaltzen dizkie. Txomin Peillen-i idatzitako lau gutun hauek giro txar horren adierazgarriak dira, eta gainera oso garrantzitsuak, orain arte argitaratugabeak direlako:

1. (Caracas, 1956-VI-3). *Eta gaiñera emengo euzkotarrak... ikusiko bazenitut.... Ez da aien artean erderar baizik aditzen. Ai gure Paris'ko euskal billeratxoak: nun zerate? Zearo erderari emanak, vasco itza maizegi aoan, baiñan egiñetan maketo utsak. Egia erran, emengo eusko-etxea arrorra urbildu nintzan egunean, lur iota gelditu nintzan, euskerakiko ango ibillerak ikusi-ta. Zer uste ote dute emengo abertzale diru-zale ta erdelzale porrokatuok. Ni ez naiz etxe artara urbiltzen... Erderaz aritzeko kalea ere aski zait. Beraz ez dizut emen gure givorik arkitu, Txomin, erbesteko giro zitalena baizik.*
2. (Caracas, 1956-XII-11). *«Eztakizu Txomin zer nolako melankonia sortzen zaidan Paris'ko egun ederrak gogoratzean, zuen ingurunean eman nituenak oroituz batez ere».*
3. (Caracas, 1961-III-?). *«Zenbatetan damutu zaidan Europa maitea bazterrerat utzia... Ameriketa amerikarrentzat... zearo arkitzen naiz akituta».*
4. (Caracas, 1963-III-21). *«Ez didazu sinistuko, bainan ni urbildu ere ez naiz egiten emengo Centro Vasco sonatu ortara. Nazka ematen dit eta goragalea, erderar beste izkuntzarik entzuten exten etxe ark».*

Hitz gogor hauek eta asko gehiago erabiltzen ditu, batez ere, euskaldun abertzale eta burgesen kontra; are gehiago, sarritan Frankoren laguntzaile eta kolaboratzailertzat jotzen ditu. Baita ere, hitz eta esaera garratz, gozakaitz, mingotz, zakar, eta mingarriak erabiliz gogor salatuko ditu, esate baterako: ao andi, lukur, iguingarri, doilor, ergel, etoi, lerde, gaxo zakil, nazkarri, lotsagabe, txepel, saldu, burugaldauak, kakaztuak. Elantxobeko idazlearena dugu baita ere esaldi luze hau: «euskaldun alperrez, zabarrez, inozoz, aluz, madarikatuz, iroz, ustelez, koldarrez, izor, txanpon eta ardo beste ametsik ez duten ordi, salo». (Paris, 1952-IX-27, J. Mirander-i).

Eta zer esaten zuen erdipurdiko abertzaleei buruz? Hona hemen argibide gisa haren pasarte luze bat:

«Euskera ez dala aski abertzale zintzo izateko darasate... Eta erdal merkatari etoi biurtu zaizkigu euskaldunak oro. Merkatari lotsagabeak euskel izenpean erdera besterik ematen ez diguten ainbeste ta ainbeste albistari. Txepel utsak, euskera baiño erdera erabilli naiago duten alderdikideak. Etoi batzu, iakintza ta kultura erderaz sakatzen diguten guztiak. Saldu batzu erdera elizetan barreiatzen duten gotzai, apaiz eta lekaideak. Ziraun batzu, erdera betiko zapuizten ez duten euskaldunak euskera soilik erabiltzeko. Zer itxaron ote dezakegu txepel, saldu, etoi ta ziraunez iositako erri baten gandik? Irakurleak asma beza. Gure erria aberri-izkera bein betiko iasotzeko kemenik gabe, amildegirik beltz eta ilgarrienera lerratu zaigu, etoikeriaren leize-zuloan betiko usteltzeko». (Euzko-Gogoa 1954, 5-8 zb: 74).

Politika mailan, gaur erabiltzen diren hitz potoloak, adibidez: autodeterminazioa, paktu, subiranotasuna, etab. baztertuz, A. Ibinagabettiaren azken helburua eta xede nagusiena Euskadiren burujabetasun osoa, hots, independentzia lortzea zen, eta horretarako euskotarren batasuna behar-beharrezkotzat jotzen zuen. Helburu hori erdiesteko eta Francoren diktaduraren aurka egiteko, Espainiako Monarkia eta Errepublika zaleekin elkartzea, okerreko bidea iruditzen zitzaison. «*Zergatik ez gera alkartu bear euskera ta Euzkadiren askatasuna aintzat dauzkagun guztiok? Ez al da lotsagarriago milla bider negargarriago ta galgarriagoa espainiarrekin paktu zoroetan naasita ibiltzea?*». (Caracas 1958-IX-22, J. Beiztegi-ri).

1956an Lehen Euskal Biltzarra Parisen bukatu ondoren, bere Alderdiko jelkideen eta Eusko Jaurlaritzaren aukako kritika zorrotz eta gogorren adierazpenak egiten zituen, «Abandoko Maisuaren» bidetik aldendu eta, errepublikar espaniarrekin ituna egiten ahalegintzen zirelako: «*Jel-Alderdiani ere jipoi ederrak eman dizkiogu, espaniarrekin paktu iñozo ta bunigabekoan naasi delako, jaurlaritzari jarraituz*» (Caracas 1958-VI-11, J. Mirande-ri). Hiru hilabete beranduago hitz gogor hauek erabiliko ditu: «*Bioa Spainia ondamendira, eta bete Euzkadiren askatasuna!... Ortik atera zakezu zer nolako leize beltzean, etsipen-leizean, erori zaizkizun gure jelkideak, lotsagarriagorik*» (Caracas 1958-IX-17, J. Mirande-ri).

Eta erasoak ez dira maila horretan geratzen. Haratago doa eta bere lagun mina zen Jose A. Agirre lehendakaria ere, gogor astinduko du:

«Gainera Agirrek, abertzalesuna, au da askatasun naia, lausotu egin du bere jardunakin, bere politika kolaboracionismoz irotutakoakin. Garaia diralako (sic) agintariak argi mintzo ditezen, espaini-prantsezekin ez daukagula bizi-bidea aldegia, independentziaren alde burruka gogor batik ekiteko». (Caracas 1959-III-27, J. Mirande-ri).

Politika arloan sentiberatasun irekia eta zabalaren jabe azaltzen zaigu. ETA (*Euskadi ta Askatasuna*) sortu eta hamarkada bat beranduago, 1965ko eta 1966ko A. Ibinagabettiaren gutunetan (beraz mugimendu honek azken ia 40 urtetan eragin dituen odoljario eta erailketen aurretik) harrera abegikorra egiten die Euskal Herritik ihes egin eta Caracas-era heltzen ziren ETA-ko militantei. Elantxobeko idazlea ez zen inolaz ere ezkertiarr eta F. Krutwig-en *Vasconia liburuko ezkertiar ideiekin* ez zegoen ados. Beraz, ETA-ri marxismotik zetorkion oinarria zeharo gaitzesten zion eta orduko EAJ-ko baziak askok bezala, kristau-demokraziaren miresle agertzen zaigu, baina baita ere J. Mirande, bere lagunaren antisemitismo eta nolabaiteko nazismoaren kontra. Poeta honi igorritako gutunean honela mintzo zaio: «*Vasconia liburuak marxismua txonpelaka dario. Gizona, alako liburu batean euskaldunentzat egin liburuan, exitzakean ergelkeri geiago bildu...* Eta nundik nora dabil gizon hori? ETA-koetaz diozuna, egia ezan eztakit nola ar; nik emen eraulguntza ortako zenbait gazte azkar ezagutzen ditut, onak eta langileak. Oso gutxi, egia esan, baina oietzek bakarrik egiten dute zerbait aberriaren alde emen gaindi beintzat. Bertzeak, espainiar errepublikanoekin musuka, lanik aski eta geiegi ere badute; itxututa dabilta, aspaldi ilda dagoen errepublika españolak zerbait emango ote dielakoan: ostikada bat ipur-zuloan...» (Caracas 1965-V-7, J. Mirande-ri).

Urtebete beranduago ere, 1966an (beraz, beste urte bete bera hil aurretik) A. Ibinagabettiak antzeko ideiak tinko aldeztu eta defenditu zituen. Espainiar erregezale eta errepublikazaleen ildotik joan beharrean «paktu zoroak» egiten, euskotar gazteen jokabidea ipiniko die jeltzaleei jarraibideztat eta ez sudur eta belarrietatik sartu nahi diguten eta kiratsa darion sasi-federalismo ustel, antzu eta igatua:

«Egia esango ba dizut, ni ez naiz ETAKoa, alare al dudan guzian laguntzen diet, nere laguntasuna exkasa eta kaxkarra izan arren... Ni enago ados ETAKoekin aunitz gauzetan, ez orixe. Gizarte auziari

ematen ari diran gurpil berria, zenbait aldetatik, bearrezkoa dugu... Beste onik ere arkitzen dut ETAkoen artean; oraindainoko euzko-alderdi guztien artean baino euskal-zaletasun aundiagoa. ETAko agintariek beinipein, euskeraz ikasi dute etzekitenak, eta batxok ere ez du nai euskera gabeko Euzkadirik eta zoritzarrez nazionalista askotxo ezagutzen ditut euskerari begiko zakarrari baino garrantzi geiago ematen eztioenak: ez ori bakarrik, erderaren aldare zikinean gure aberri izkuntza bakarra pozik erreko luketenak ere bai». (Caracas 1966-XI-4, N. Etxaniz-i).

Idea hau behin eta berriz errepikatuko du lagunekin izandako gutun trukean, adibidez erresistentzian partaide izan zen Pedro Beitia kiderarekin:

«Lo milagroso es cómo esos jóvenes hayan podido ver la verdad de Euzkadi entre tanta tiniebla y tanta pasividad. ¡Cuándo nos vamos a convencer de que los viejos ya no servimos para nada? Es hora ya de dar paso a la juventud y dejarles la vía libre sin ponerles obstáculos de ninguna especie. El nacionalismo actual solamente puede coincidir con el histórico en que Euzkadi es la única Patria de los vascos y el euskera su única lengua... Pero erre que erre, quieren mantenerse en aquella época, transida y requete pasada, soñando todavía con estatutos imbéciles y republicanos españoles caducos y democracias traidoras.» (Periko Beitia-ri 1964-IX-16; P. Sudupe, 2003:103).

Burutapenak sortzeko gaitasun ikaragarrizkoa zuen eta bere ideiak bazi-tuen, hark ere, euskararen bidez eskuratzeko. Tx. Peillen-i Caracas-tik idatzi zion argi eta garbi nolako Euskal Herria nahi zuen. Hasieran esan dugun bezala, A. Ibinagabeitia-k batxilergoa egin zuen Nafarroako Tuterako herrian, Jesuitek duten ikastetxe erraldoian. Matias Ibinagabeitia, Andimaren osaba batek (Oña-ko Jesulagunen zuzendari eta Deustuko Unibertsitateko errektoreak) eraman zuen bere iloba, sona handiko ikastetxe honetara eta orduan Nafarroaz maitemindurik, 40 urte geroago hitz hauek idatziko ditu:

«Ez nau batere arritzen Naparroa agerkizun bat bezalako izan zi-tzaizula iakiteak. Egia esan, nik ez dut amesten Naparroa gabeko Euskadirik. Uraxe dala derizkiot gure erri-zatirik bikaiñena. Ni beti izan naiz napar porrokatua, bear bada nere aur-egunak erri artan eman nituelako edo. Euskerak indar artuko balu lurralte artan gure

ametsak laister egi biurtuko lirake. Eta nork daki? Zaletasun aundia zabaltzen ari omen da Naparroan gure izkuntzarekiko». (Caracas 1957-XII, Tx. Peillen-i).

Franco hil eta 20 urte geroago, Euskal Herriko gazteek kaleetan aldarrikatzen zuten oihu zolia: «Nafarroa Euskadi da» baino, Telesforo Monzon-en garrasia gehiago gustatzen zitzzion, hots, «Euskadi Nafarroa da». Ziur nago baita ere, pozik sinatuko zituela Bergarako ameslari, politikari eta idazleak, *Egin* egunkarian zortzi hilabete hil baino lehenago idatzi zituen hitz hauek: «*Sin Nafarroa, no queremos nada, nada, nada. Sin Nafarroa, ni un solo paso... nuestra lengua es la «Lingua Navarrorum»... Iruña es la capital de Euskal Herria entera. Gora Nafarroa Batua!*» («El Jarrón roto», en *Egin* 1980-VIII-24).

1958. urtea garrantzitsua izan zen Elantxobeko idazlearentzat, zeren IRRINTZI bere aldizkariak oiartzun handia izan zuen Caracas hiriburuko euskaldunen artean. Guatemalan euskal kultur giroan buru-belarri sartuta bi urte eman ondoren, oraingoan gai politikoak izango dira haren lehen helburua:

«Irrintzik euskera ta azkatasuna ditu elburu, eta Euzkadiko auzi larri bi oien inguruan ez dago txantxetarik ezta umekeririk be, ez orixe. Azkatasun osoa lortu arte ez da izango gentzarik, gudan gara ta gudan jarraituko dugu, gaur makal ta biar gogor, bera lortu arte...» (Caracas, 1958-IX-22, J. Beiztegi-ri).

Sarritan adinak ahuldua eta eguneroko lanak akitua sentizen zen, gogaituta eta nekatuta. Hala ere inoiz ez zitzzion falta indarrik lanean jarraitzeko bere aldizkarian:

«...sail geiena neonek bete bear izaten dut Jainkoak daki nola.. Ala ere Aberriaren deiari ezin entzungor egin, eta andik edo emetik kemenak ateratzen ditut lan ori egiteko» (Caracas, 1958-IX-16, N. Etxaniz-i).

«.... adiskide bat eta ni gaituzu aldizkaritxo orren egile ta sortzaileak. Izkera gogorrez idatzita dator gure jendeak noiz edo noiz esnatzekeo. Elburu argia da berea, Euzkadiren askatasun osoa, ez gabiltza ertainkeritan, eta espaniarrekiko artu eman guztiak zearo zapuzten ditugu. Ala ere Alderdiaren bidetik ibili nai dugu». (Caracas, 1958-IV-8, J. Zaitegi-ri).

A. Ibinagabettiaren azkena oso penagarria izan zen; neguko ekaitzak irauli eta errorik gabe gelditzen den zuhaitz ihartuaren antzera bizi izan zituen azken egunak: eskasia, gaisotasuna, etsipena, langabezia, etab. 1951an J. Zaitegi-ri iragarritako erbestearen laztasuna eta egun gogorrak heldu zitzazkion, zinez, batez ere Caracas hiriburuko lurrikararen ondorioz. «... *egun gogorrak bear ditugu ikusi erbesteturik arkitzen geranok eta noragabe ibili bearko dugu etsaiez inguraturik*» (Paris, 1951-IV-25, J. Zaitegi-ri). Bilintx bertsolaria bezala, bere kiroak «*gitarra zaarraren ariak baino motelago*» zeuzkan bizkaitar idazleak, bere penak lagun kutunei kontatzen urteak eman zituen, eta horien artean hiru izen azpimarratuko nituzke: J. Mirande, J. Zaitegi eta N. Etxaniz. Azken honi hauxe diotso: «... *erbestetu errukarriko ez daukagu beste erremediorik, ni bezalako erbestetuek alegia, mundua nekez ta penaz beterik mundua goldatu bearna baizik*» (Paris. 1954-I-15, N. Etxaniz-i). 1953an Tx. Peillen-i, Parisen bizi zirela bidalitako data gabeko gutun batean, barne-minez azaltzen dio bere aspaldiko tristura. «*Etsita nago, adiskide.... auleriak iota ko erri ta iendeak gaituzu, eta auleriak eriotza, bertzerik ez dakar*». Euskal Herrira pozik itzuliko zen baina ezina zen: «*Biderako txanponik ez daukat, bestela biar bertan egalontzia artuko nuke orra joateko*» (Guatemala 1954-VII-17; N. Etxaniz-i).

Herio krudel hau bakardadeak, gaisotasunak, herriminak, urrutiminak eta gabeziak sorrarazi zioten. 1954an pozik urrutiratu zen Paristik Guatemalara, baina zapta urte geroago, 1961an bere lagun Jokin Zaitegi-ri hitz samin-garri hauek idatzi zizkion: «*Egia diotsut, bidea zabal baldin banuke, lurralte hauet bertran-bera utzi eta aberrira itzuliko nintzake pakean iltzeko baino expada ere. Bainan ezin itzuli ango agintariekin lur-joten ez duten bitartean, eta ez dute ain arin lur-joko noski*». (Caracas 1961-I-7).

Lur jota hil zen, José A. Agirreren ametsa («Este año la Navidad en casa») eta beste atzerriratu askoren desira biziak zeharo zaputztuta, bereak barne. 1967ko azaroaren 2an, hilen egunean, hain zuzen ere, zendo zen Caracas-en.

Eta amaitzeko haren miresle den P. Urkizu irakaslearen hitz hunkigarri hauen bidez emango diogu bukaera hitzaldi honi:

«*Jota, pitzatuta, zartatuta zeukan bihotza, eta hori dela eta hainbeste maite zuen Aberrira itzuli gabe, desterruan, bakardadean*

hil zen Caracasen 1967an azaroaren 2an, mende honetako euskal idazle, itzultzale eta saiogilerik handienetako. Bera lurpean datza, baina bere obrak zutik dirau». (A. Ibinagabeitia. Erbestetik barne-minez: 14).

## Bibliografía

1. AULESTIA, G. «Andima Ibiñagabeitia, prosista y traductor excelente», en *Diario Vasco* 12-III-1991.
2. AULESTIA, G. *Erbesteko euskal literaturaren antología*. Ed. J.A. Ascunce, Donostia, 1992:23-25; 176-208.
3. AULESTIA, G. «Cinco defensores del euskara en el exilio» en *La Cultura del Exilio Vasco*. Ed. J.A. Ascunce y M.L. San Miguel. Donostia, 1994:155-197.
4. AULESTIA, G. «Andima Ibinagabeitia Ameriketan», en *Euskaldun etorkinak Ameriketan*. Ed. Tx. Peillen. Donostia. Utriusque Vasconiae, 2003:119-134.
5. AULESTIA, G. «Ibinagabeitia Idoyaga, Andima». Bilbo. Euskaltzaindia. 2008: 71-74.
6. IBIÑAGABEITIA, A. *Birgiliren Unai eta Alor-Kantak*. Ed. Iñigo Ruiz Arzalluz. Klasikoak. Donostia, 1992.
7. *Andima Ibiñagabeitia. Erbestetik barne-minez. Gutunak (1935-1967)*. Ed. P. Urkizu. Donostia, Susa. 2000.
8. SUDUPE, P. *Andimaren Idazlan Hautatuak*. Donostia. Elkarlanean, 1999.
9. SUDUPE, P. «Andima Ibiñagabeitia: abertzalesun berria», en *Herri bat gurutzean*, Ed. X. Apaolaza. Donostia, Saturrearán, 2003:89-105.
10. SUDUPE, P. *Andima Ibiñagabeitia (1906-1967)*. Bidegileak. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz, 1997.

# Liburu-aipamenak



# *Retorno a la lealtad: El desafío carlista al franquismo*



MARTORELL, Manuel  
Madrid: Actas, 2010, 443 or.

GARTZIA ISASTI, Pruden  
Euskaltzaindia  
Azkue Biblioteka

Aipatuko dugun liburua ziur aski ez da izango hedapen handi-handia izango duen horietakoa, baina Euskal Herriko historiarekin interesatuta dagoen edonorentzat gutxienez ezagutu beharrekoa da eta, interes hori mai-la batetik gorakoa bada, irakurri beharrekoa dudarik gabe. Historiako liburua da berez, baina saiakera gisa idatzia edo, agian zehazkiago, kazetari-tzazko kronika baten moldean, aipu bibliografikoak minimora ekarriz. Eta alde batetik arin batean irakurtzeko modukoa bada ere, beste alde batetik astuna suertatzen da, Historiako liburuek fama duten bezala. Ondoko le-roetan saiatuko gara argitzen bi ildo horien nondik-norakoak.

Karlismoa, dudarik gabe, anaia pobrea da XX. mendeko euskal historio-grafian. Mila eta bat lan egiten dira abertzalesunari buruz, alderdi askotatik hartuta gainera; orobat, ikerketa ugari dago langile-mugimenduari eta haren garapen politiko eta sozialari buruz; gutxiago dira, baina gero eta ugariagoak, halaber, elite ekonomiko eta empresarialei buruz dedikatzen zaizkien ikerketak. Beraz, gizartearen hiru esparru hauek ikerturik, hots, nazionalismoa, sozialismoa eta elite edukitsuen mundua (hirurak zentzu zabalean hartuta), badirudi XX. mendeko euskal panorama politikoa aski ondo deskribatutzat jo beharko genukeela, baldin eta postulatuko bagenu karlismoa XIX. mendeko mugimendu bat izan zela eta XX. mendean ondar txiki bat baino ez zela gelditzen, garrantzia sozial eta politiko txikikoa. Errealitatea, ordea, oso bestelakoa da: karlismoa, ziur aski, Arabako eta Nafarroako indar sozial eta politiko nagusia izan da mendearen lehen bi herenetan, eta Bizkaia eta Gipuzkoan presentzia oso esanguratsua izan du epe berean. Gerra Zibilean jokatu zuen papera, bestalde, guztiz erabakigarria izan zen Euskal Herri osoan. Francoren heriotzaren ondoren haren bat-bateko desagertze orokorra, beraz, oso fenomeno engainagarria izan daiteke eta, ororen buru, *azaldu beharrekoa*. Izan ere, nola esplikatzen da Gerra Zibilean karlistek erakutsitako indar izugarri hura, mobilizazio ahalmen ikaragarri hura, berrogei urte garaileen artean pasatu ondoren bat-batean desagertzea ia guztiz?

Liburu honek ez du fenomeno hori bere orokortasunean esplikatzeko asmorik, baina fokua karlisten gainean ipintzean mahai-gainera ekartzen du gure memoria kolektibotik ia-ia desagertuak ditugun mamuak: nortzuk izan ziren XX. mendeko karlistak? Zenbat izan ziren? Zer egin zuten gerran? Eta, bereziki, zer egin zuten gerra ostean?

Erantzunak, liburu honen kasuan, ez dute ikerketa historiko orekatu batzen pretentsiorik hartzen baizik eta, lehenago esan dugun bezala, kronika baten forma. Bainaz ez da kronika impresionista bat, datu argi eta zehatzetan oinarritutako diskurtso koherentea baizik. Pertsonak eta gertakariak, horiek dira liburuaren ardatza; nortzuk ziren karlistak eta zer egin zuten gerran eta gerra ostean. Zehaztapen garrantzitsu batekin: jasotzen duten gertakari guzti-guztiak, salbuespenik gabe, aurrez azaldutako tesi bat sostengatzen datoz, *frogak* dira, egileak bere tesia aldezteko bildu dituen frogak.

Tesi hori hitz gutxitan laburbil daiteke: gerra abiatu bezain laster, eta bukatu ondoren bereziki, carlista gehienak *traisionatuak* sentitu ziren. Alegia, beraiek partidu politiko berezi bat ziren, beren programa politiko propioa zuena; Errepublikaren kontra bat egin zuten militar altxatuekin eta Espainiako hainbat indar eskuindarrekin (falangistak, monarkikoak, *katalikoak*...) baina beren helburu propioak zituzten, ororen buru *bidezko erregea* Madrileko tronuan ezartzea. Martorellen arabera batzuk hasiera-hasieratik, 1936ko uztailetik bertatik, ikusi zuten militar altxatuek helburu hori oztopatuko zutela; urrats bat gehiago emanez, carlista gehienek ez zuten bihotzez onartu Francoren Bateratze Dekretua (1937ko apirila), zeinaren bidez indar politiko guztiak partidu bakar batean biltzen ziren, buruzagi absolutu bakarra izango zuen partidua, hain zuen ere Caudilloa bera. Hortik aurrera, eta beti Martorelli segitzuz, karlistek lehia gogor bat izan zuten falangisten kontra eta ahal izan zuten guztietai saiatu ziren beren erakunde politiko bereziari eusten, beren buruzagitzaz eta programa propioarekin. Jakina denez, alferrik, zeren Francoren buruzagitzaz pertsonala argi eta garbi nagusitu zen Errepublikaren kontra altxatuen koalizio eskuindarraren barruan eta haren heriotzeraino iraun zuen. Hortik carlista asko *traisionatua* sentitzea eta Franco bihotz-bihotzez gorrotatzea.

Liburu hau, funtsean, lehia horren kronika zehatza da, *traisionatuen* ikuspuntutik kontatua. Hartara, xehetasun osoz jasotzen dira 1936-1945 bitartean hainbat buruzagi eta militante karlistek falangistekin (eta frankistekin oro har) izandako istiluak, borrokak eta, kasu batzuetan, kartzelaldiak. Datu ugari ematen da, beti arestian aipatu dugun ikuspuntutik hartuta. Batzuk zerikusia dute historia orokorrarekin, adibidez, carlisten erregegai Don Javierrek 1937ko maiatzean eta berriz ere azaro-abenduan Spainian zehar

egindako bi bidaia politiko-propagandistikoak, Francok hura Frantziara ohiltzea dekretatu arte; beste batzuk Euskal Herria dute interes nagusi, adibidez, argazki batean Don Javier bera Gernikako arbolaren azpian ikus-tea, Foruei zin egiten; eta beste batzuk, aldiz, interes zuzena dute euskararen historiarekin interesatuentzat, adibidez, Antonio Arrue euskaltzain ospe-tsuaaren ibilaldiegi egiten zaizkion aipamenak. Horrela, uste dut gure artean ez dela oso ezaguna Arrue Granadako kartzelan sartu zutela 1937ko abenduan, hain juxtu ere Francok batera erabaki baitzuen Don Javier Frantziara ohiltzea eta Don Antonio kartzelan sartza inkomunikaturik; anekdota berreziki bitxia da ikustea nola karlisten kapilauetakoa zen Garzon izeneko apaiz baten eskuhartze bereziari esker lortu zen atxilotzera zetorren Guardia Zibilaren presentzia saihestea, hark bermatu baitzuen Arrue bere borondatez aurkeztuko zitzaiela (61-62.or.).

Eta anekdotekin segituz, ez zaigu garbi esaten zenbat denbora egin zuen Arruek kartzelan; bai, ordea, Antonio Arrue dela Gernikako Arbolaren azpian arrestian aipatu dugun Don Javierren zinari (1937ko maiatzak 19) agur militarrezz erantzuten dion hiru lagunetako bat (ik. liburuaren azaleko argazkia eta 224-225 orrialdeen artean argazki bera, azalpen batez lagundua). Izan ere, euskaltzalearentzat interes berezia du 4. kapituluak («Defensa del País Vasco y Cataluña», 138-154); hor kontatzen zaigu, adibidez, nor izan zen Gernikaren bombardaketaren ondoren (1937ko apirilak 26) Gernikako Arbola zaintzeko karlistek antolatu zuten zaintza bereziaren antolatzaile eta arduraduna: Jaime del Burgo Torres, nafarra baina une horretan Bizkaiko errekkete batalioaren kapitaina. Agian merezi du kontakizun osoaren zati hau hona ekartzea: «Igualmente es revelador el enfrentamiento que se produce entre Jaime del Burgo Torres con un mando del arma de Artillería cuando llegaron a Guernica, inmediatamente después de que la aviación alemana bombardeara la villa foral. Del Burgo pudo ver cómo algunos de sus requetés «lloraron de rabia e indignación por lo sucedido» y se quejaba de lo inútil del castigo aéreo cuando el militar le contestó, fuera de sí, que lo mismo había que hacer con toda Vizcaya y Cataluña. Del subido tono se pasó a los insultos, terminando Del Burgo por mentar a la madre de su superior en rango, mientras le agarraba de las solapas. No terminaron a tortas porque, en ese momento, intervino...» (141. or.). Martorellen konta-

kizunaren arabera, Del Burgo izan zen Arbolaren zaintza antolatu zuena, izan ere zurrumurrua zabaldu baitzen falangista talde bat zetorrela Iruñetik espresuki Arbola mozteria. Ez dugu detaileekin segituko, baina bai uste dugu komenigarria dela argitzea Jaime del Burgo hori gaur egun ospetsuagoa den politikari eta historialari nafar baten aita dela: Jaime Ignacio del Burgo.

Azken argibide hori ematea ez da hutsala. Izañ ere, gorago iradoki dugun lez, liburu honek tesi bat aldeztea helburutzat badu ere, bada sakoneko galdera bat historialari orok erantzun beharrekoa tesi horrekin ados izan ala ez: zer gertatzen da karlistekin gerra ostean? Nora joan dira? Zertan bilakatu dira? Ildo horretan komenigarria izan daiteke, beti bezala, simplismoetatik eta azalpen linealegietatik ihes egitea; Martorellek kuadro argi bat marrazten digu 1937-1945 aldirako, alegia, karlistak bi multzo argitan banatuta: batetik Esteban Bilbao edo Rodeznoko kondea bezalako buruzagi *traidoreak*, frankismoarekin guztiz bat egin zutenak; bestetik, karlisten masa sozial handia, mesfidatia eta haserre, Fal Conde edo Baleztenatarrak bezalako buruzagiei segitzen ziena eta Francori gorroto ziona. Baino dudarik gabe simplis tegia litzateke banaketa hori Francoren heriotzaren ondoren sortzen den berrantolatze politikoari zuzenean aplikatzea. Aldi luzeegia da, gertakari asko, esplikazio bakun bat erdiesteko bi lerroetan. Besteak beste, Martorellek berariaz nahi izan du bere kronika 1945ean bukatzea; azken kapituluan (410-425. or.) ondorengo urteei buruzko aipamen labur batzuk badira ere, ez dute oinarritzko data hori gainditzeko pretentsiorik.


Beste hausnarketa bat egitea ere ez da alferrikakoa izango: 1937-1945 abagune horretan Francorekin hain haserre zeuden karlista horiek beroriek euskal nazionalismoarekin nolabaiteko hurbiltasun batzuk izan badezakete ere (erlijio katolikoa edo euskal identitatearen defentsa foruen bidez), separatismoaren arerio gogorrak dira eta, argi eta garbi, Spainoltzat dute beren burua; bestalde, berriz ere argi eta garbi, beti sostengatuko dute uztailaren 18an armaz altxatzearen legitimitatea eta ezinbestekotasuna; nolabait esanda, amorrua ematen diena da altxamendu hori Francok eta falangistek kapidalizatu izana, ez besterik.

Beraz, esan dezagun laburbilduz Manuel Martorellek karlisten kronika bat idatzi nahi izan duela, 1937-1945 bitartean eta ikuspuntu zehatz bat

aldeztekotan. Helburu hori bikain bete du, interes handiko datuak ekarriz kontakizun atsegin batean. Ez du hortik aurrera joan nahi izan, baina elementu asko utzi du han-hemenka sakabanatuak hausnarketa ederrak eragingo diontenak irakurleari XX. mendeko karlisten historiarenean gainean, alegia, gure herriaren osagai guztiz garrantzitsu baten gainean, misterioski historialarien arreta guztiz txikia erakarri duena beste batzuen aldean.

Bukatzeko, bi kontu deitoratzea baino ez zait gelditzen: batetik, liburuak aurkibide onomastikorik ez izatea eta, bestetik, euskaltzaleentzat hain garrantzi handia duen Antonio Arrueren bizitzari buruzko datu gehiago ez ematea. Biak konpon daitezkeen akatsak.

# **Witch Hunts in the Western World: Persecution and Punishment from the Inquisition through the Salem Trials**



PAVLAC, Brian A.

Lincoln: University of Nebraska Press, 2010, 228 or.

GARTZIA ISASTI, Pruden  
Euskaltzaindia  
Azkue Biblioteka

Aipagai dugun liburuak jakinmin handia sortuko du Euskal Herriko historian interesatuta dauden guztien artean. Izan ere, ez da sekretu bat sorginkeriak xarma handia sortzen duela gaur egun herritar xumeen artean, zinean eta literaturan mota horretako gaiet arrakasta itzela izan baitute hamarkadaz hamarkada eta gero eta handiagoa sortuko dutela ematen du, Harry Potter-en sagak argi eta garbi frogatzen duen bezala. Mundu mailako fenomenoa bada ere, garbi dago Euskal Herrian beste edozein lekutan balio duten arrazoi guztiez gain beste batzuk ere gaineratzen direla, alegia, euskaldun askoren aburuz sorginkeriak paper berezi bat jokatu du gure herriaren historian. Uste orokor horren frogua gisa bi motako datuak daude: batetik, 1610 inguruan Lapurdi eta Goi Nafarroaren arteko muga aldean gertatzen diren ehizaldi ospetsuak eta, bestetik, ehizaldi horiek bereziki, eta sorginke-riak oro har, euskal historialari, antropologo eta idazleen artean sortu duen lilura, liburu ugarietan erakutsia: Azkue, Barandiaran, Baroja edo Caro Baroja izen klasiko artean, berriagoetatik Garmendia Larrañaga, M. Azurmendi, T. Martinez de Lezea, J. Dueso, K. Ortega, J. Ospital, C. Labat... zerrenda luze-luzea atera daiteke. Kasu guztietan, aldez edo moldez, badirudi pentsatu behar dugula goiko baieztapen orokorra egiazkoa dela, alegia, sorginkeria eta euskaldunak lokarri berezi batez egon garela estekatuak historikoki.

Uste orokor hori egiazkoa ote den frogatzeko ezer hobeagorik ez dago sorginkeriaren historia orokoren bat edo batzuk irakurtzea baino. Aitor dut ez naizela gaian aditua eta kuriositate orokor batek bultzatu nauela aukera izan dudanean horrelako bati heltzera; baliteke, beraz, ondoren esango ditudanak ezagunak eta arruntak izatea sorginen historiaz eta istorioez gano-razko ezagutzak dituztenen artean, baina esango nuke neu bezala hurbilpen orokor baten aparretan bizi direnentzako aipagai dugun liburua oso egokia dela uste okerrak eta irudikeriak desegiteko eta fenomenoaren ulerkuntza bere onera ekartzeko. Alegia, eta garbi esanda, historikoki euskaldunok ez dugu sorginkeriarekin inolako lotura berezirik, ez behintzat alemanek, frantsesek, ingelesek edo eskoziarrek dutena baino handiagoa. Aski da liburu hau irakurtzea horretaz jabetzeko.

Liburuak zortzi kapitulu ditu, egitura erraz batean antolatuak. Lehenengoan, gaiaren sarrera orokor bat egiten da, batez ere arazo kontzeptualak

argitzera bideratua: zer den sorgin bat eta zer ez, zer den magia, zer esan nahi dugun mota horietako kontzeptuak erabiltzean. Horretan seinalatzen da, halaber, liburu osoa korritzen duen baieztapen nagusia: Europari dago-kionez sorginkieriaren fenomenoa historikoki mundu grekolatinotik abiatzen bada ere, 1400. urtera arte, gutxi gorabehera, fenomeno marginala da horren ondorio penalei dagokionez, alegia, sorginkieriak eragindako auzialdiak eta epaiketak aski bakanak dira. Data horretatik aurrera, berriz, sorginkeriazko prozesuen gorakada itzela gertatzen da, erpina 1600-1700 bitartean erdiesten delarik. Garai horretakoak dira *sorgin ehizaldi* ezagun eta sonatuenak. Data horretatik aurrera, berriz, beherakada dator, ehizaldiak gero eta urriagoak bihurtzen direlarik erabat desagertu arte 1800. urte inguruan; XIX. mende hasieran, berriz, oraindik kasu bakanen bat dokumentatu daiteke, baina honez gero ez du heriotza-zigorrik ekartzen. Adi, dena den, ñabardura garrantzitsu bati: desagertzen dena da sorginkeria delitu gisa, hots, herri aginte eta epaileek ez dute aurrerantzean sorginkeriazko delituriak dagoenik ikusten; aldiz, herri xehearen gogoan oraindik ere sorginen eta sorginkieriaren existentziak oso sustraiturik segituko du. Nabarmena da, bestalde, sinesmen horrek gaur egun ere populazioaren sektore zabalak besarkatzen dituela, baina, gorago esan dugun lez, gaur egun ez dago sorginkeriazko delituriak. Horra aldea.

Beraz, gaiaren sarrera orokorra lehen kapituluan egin ondoren bigarren kapituluan Erdi Aroan gaiak izandako trataera laburbiltzen da, argi eta zehatz. Pavlacen iritziz, 1400. urtean bihurgune bat gertatzen da: ordura arte batez ere heretikoak izan badira autoritate zibil eta eklesiastikoen pertsekuzioak pairatu dituztenak sorginen kontrako auziak aski bakanak izaten zirelarik, aurrerantzean horiek ere protagonismo handia hartuko dute herri aginteen kezken artean, ehizaldi gero eta larriagoak antolatzen direlarik. Ehizaldiekin batera, sorginkieriaren gaineko literatura oso aberats bat antolatzen da, egileak *strixology* deitzen duena (*strix*, latinez, emakumezko sorgin bat da) eta *Malleus Maleficarum* (1486) ospetsuarekin hasi eta Pierre de L'Ancre-ren *Tableau de l'inconstance des mauvais anges et démons* (1613) gure artean txit irakurria bezalako lanak biltzen dituena. Baino De L'Ancreren liburua bat gehiago besterik ez da mende horretan bereziki lortzen den genero ugari baten barruan.

Hurrengo bost kapituluetan Pavlacek Europako bost eremu geografiko aztertzen ditu monografikoki, hurrenez hurren Inperio Santu Erromatarra (hots, Erteropa), Frantzia, lurralte britainiarak (Ipar Amerika barne), Hego Europa (Hego Amerika barne) eta Ipar eta Eki Europa. Kasu guzietan izandako ehizaldi eta prozesu nagusien kronika eskaintzen digu, zehatza, aberatsa, beti interesgarria, nahiz eta batzueta apur bat errepikagarria izan daitekeen. Horrela azaltzen dira, adibidez, euskaldunentzat ospetsuak izan diren bi kasuak, Lapurdikoa (95-97. or.) eta Zugarramurdikoa (154-156 or.). Hain zuzen ere aski da ehizaldien kronikari segitzea konturatzeko euskal kasua (edo kasuak) ez dutela inolako berezitasun nabarmenik bete-beanteen europarra den fenomeno baten barruan: beste bi gehiago, besterik ez, ñabardura eta kolore lokala izango dutenak beste guztiak ere izaten duten antzeko heinean. Sorginkeriari dagokionez ez dago euskal berezitasunik.

Beste hausnarketa bat ere erants daiteke: sorginkeria ez da izan, inola ere ez, Europako bazterretako eskualde *atzeratu*, *errural* edo *basatiago* batzuen ezaugarria. Aitzitik, ehizaldi gogorrenak, sonatuenak, hilgarrienak, gerora europar zibilizazioaren sehaskatzat eta gunetzat hartu izan diren eskualde batzueta gertatzen dira, ororen buru, Alemaniako hegoaldea, Frantziako eskualde batzuk, Inglaterra, Eskoziako hegoaldea (hots, ezgaelikoduna) eta Estatu Batuetako Eki Kosta (zehazkiago, Massachusetts); aldiz, Irlanda bezalako leku *exotikoek* ez dute ia-ia sorginkeriazko ehizaldirik izan historian zehar. Eta honekin batera, beste ñabardura bat ere berez dator: katolikoek eta protestanteek, luterano, anglikano zein kalbinistek, guzti-guztiekin antolatu dituzte sorgin-ehizaldi ikaragarriak. Ez dago alderik eliza batetik bestera. Areago, nork bere komunitateko sorginak ehizatu izan ditu heretikoak ehizatzeko erabilitako amorru eta krudeltasun berberarekin. Hitz batez, fenomeno europar baten aurrean gaude hitzaren zentzurik estriktoenean.

Ildo horretan liburu honek balio dezake bi gauzitarako: euskaldunen europartasuna naturaltasunez asimilatzeko eta europartasun horri sarritan franko inozoki atribuitzen zaion gorentasun *zibilizatzalea* berriz ere bere neurrian ulertzeko, apoloziarik gabe. Aski izan beharko litzateke, adibidez, ez bakarrik Pavlacek aurkezten dizkigun sutean erretako edo lepotik eskegitako milaka eta milaka biktima errugabeen testigantza, baizik eta beraien kontra erabilitako tortura sistema ezinago krudelak, xeheki azalduak eta

irakurleari ikara sakon bat eragingo diotenak. Eta horrelako gauzak ez ziren gertatzen soilik Inkisizioaren Espanian, sarritan gogoratzten den bezala, baita ere antzera edo oraindik ere krudelkiago Frantzian edo Alemanian. Hori da Historiak erakusten duena.

Azken kapituluan egileak ahalegin bat egiten du fenomenoaren azalpen orokor bat emateko. Kapitulu interesgarria da, dudarik gabe, baina esango nuke aurreko kapituluen kronika indartsu eta aberatsaren aldean apur bat makalago geratzen dela. Ez da arraroa, langa oso goian jarri baitu liburuan zehar eta badirudi gaia agortutzat jo behar dela. Zer dio, bada? Espero izatekoa zen bezala, Pavlacek ez du sorginkeriarene existentzian sinesten, ezta inoiz edo beste planteatu izan den hipotesi *leun* edo *científikotan* ere ez, hau da, adibidez, droga natural zenbaitek eragindako eldarnioak; aldiz, gertakari sozialtzat ditu, gizarte baten barne tentsioek sortutako fenomeno sozialestatik esplikatu behar direnak, baina ez du pentsatzen sorgin-ehizaldientzat azalpide bakun eta koherente bat egon daitekeenik. Edonola ere, ez du berak horrelakorik formulatzeko asmorik; gorago esan duguna borobilduz, gertakarien kronika bikaina eskaintzen digun liburua da hau, ikuspegi zabala eta aberatsa, datuz hornitua eta argia, baina teorizatzeko ardurarik erakusten ez duena. Neuk behintzat ez dut teoriarik aurkitu liburu txit gomendagarri honetan, zer pentsatua ugari eragin baditate ere han-hemenka barreiatzen dituen hausnarketa laburrek.



*Euskera* agerkariaren idazketa arauak

Normas de redacción de la revista *Euskera*

Normes de rédaction de la revue *Euskera*

Writing guidelines for the journal *Euskera*



## Euskera agerkariaren idazketa arauak

### 1. Euskera agerkariaren esparruak

*Euskera* Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da. Bi motatako zenbakiak argitaratzen ditu: lehenik eta behin, instituzioaren kide berrien sarrera-hitzaldiak, erakundearen lanak, agiriak, hizkuntza-arauak, *Iker* edo *Jagon* Sialeko Jardunaldiak eta antzekoak jasotzen dituztenak, eta, bigarrenik, Euskaltzaindiaren intereseko jakintza esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzekoak. Ondoren zehazten diren irizpideak soilik bigarren motako zenbakietako ikerketa-artikulu originalei eta liburu-aipamenei dagozkie, eta bete beharrekoak dira aintzat har daitezen argitaratz-e-bidean. Gainerakoetan, bete beharrekoak dira Euskaltzaindiak ezarritako baldintzak; ikus “Euskaltzaindiaren argitalpen eremua”, *Euskera*, 48 (2003), 1115-1124.

Hauxek dira *Euskera* Agerkarian jorra daitezkeen zenbait gai:

- Euskal filologia
- Hizkuntzalaritza orokorra
- Gramatika
- Dialektologia
- Lexikografia / lexikologia
- Literatura
- Toponimia / Onomastika
- Fonetika eta Fonologia
- Semantika eta pragmatika
- Hizkuntzaren historia
- Hizkuntzaren normatibizazioa
- Hizkuntzaren normalizazioa
- Soziolinguistica
- Teknologia berriak eta hizkuntza

- Iurilinguistika eta hizkuntza-zuzenbidea
- Itzulpengintza
- Zientzia-arlo desberdinako euskara teknikoak.

Orobat, aintzat hartuko dira beste hainbat esparrutako diziplinak, euskararekin zerikusirik duten neurrian.

Ikerketa-artikulu originalen eta testuen proposamenak Argitalpen arduradunari zuzenduko zaizkio, ondoko helbidera:

Euskaltzaindia / R.A. L. V. / A. L. B.  
Argitalpen arduraduna  
Plaza Barria, 15  
48005 BILBO

## 2. Hizkuntzak

Ikerketa-artikulu originalak Euskal Herriko mundu akademikoan erabilten den edozein hizkuntzatan idatziak izan daitezke, baina euskaraz idatzitakoak hobetsiko dira.

## 3. Luzera

Bi motatako testuak argitaratuko dira: artikulu akademikoak eta liburu-aipamenak (erreseinak). Lehenak ez dute luzera jakinik, baina oro har ez dute izango 30.000 karaktere baino gutxiago eta 60.000 baino gehiago (15-30 orrialde). Liburu-aipamenak bi motatakoak izango dira: 3 orrialdekoak (6.000 karaktere) edo 5 orrialdekoak (10.000 karaktere), salbuespenak baztertzeke.

## 4. Laburpenak

Ikerketa-artikuluarekin batera haren laburpena (gehienez ere 500 karaktere) eta artikuluaren hitz-gakoak (gehienez ere, sei) entregatuko dira, artikulua idatzia den hizkuntzan.

## 5. Onarpena

Ikerketa-artikuluak eta testuak onartzea *Euskeria Agerkariko Idazketa Kontseiluari* dagokio. Honek artikulu bakoitzerako bi kanpo-ebaluatzale izendatuko ditu eta haien iritzia entzun ondoren hartuko du azken erabakia. Artikulua onartzeraoan egileari oztopo, akats edo aldabeharren zerrenda emango zaio, hala balegokio. Egileak bere adostasuna jasotzen duen agiria sinatuko du. Hortik aurrera ez da muntazko aldaketa edo zuzenketarik onartuko ez egilearen aldetik ez argitaratzailaren aldetik.

## 6. Epeak

Ikerketa-artikuluak eta testuak urtean zehar aurkeztuko dira, urtea bukatu arte eta hurrengo urteko lehen seihibekoan argitaratzekotan. Argitaratze-prozesuan ezarritako epeak ez betetzeak artikuluaren argitalpena bertan behera uztea ekar liezaioke autoreari, argitaratzailaren erabakiz.

## 7. Artikuluaren euskarriak

Artikuluak ordenagailu formatuan aurkeztuko dira, bertsio inprimatu bat erantsiz. Euskal Herrian arruntak diren testu-prozesadoreak erabiliko dira.

## 8. Erreferentziak eta oharrak

Ohar gehiegikeriak mugatzeko ahaleginak hobetsiko dira. Erreferentzia guztiak, ahalaz, testu barnean txertatuko dira, artikuluaren bukaneran erantsi ohi den bibliografiarekin lotuz, honela: (Larramendi, 1729) edo Mitxelena (1961, 123). Edozein arrazoirengatik mota horretakoak erabiltzea baztertzen denean ere, eman bitez erreferentzia zehatzak, *op. cit.* edo *ibidem* bezalakoak saihestuz eta erreferentzia osoak bibliografian eskainirik.

## 9. Bibliografia

Bibliografia artikuluaren bukaeran emango da, oinarrizko eredu honi segituz:

Larramendi, M., 1729, *El impossible vencido : arte de la lengua bascongada*. Salamanca : Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

Azkue, R.M., 1896, *Proyecto de ortografía : sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao : Müller y Zavaleta.

Mitxelena, K., 1959, « Euskal-itzak zein diren », *Euskera*, 4 (1959) 206-214.

Urkixo, J., 1967, « De paremiología vasca : Oihenart conoció los Refranes y sentencias en vascuence de 1596 », *ASJU*, I (1967) 3-44.

Lafon, R., 1975, « Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques », in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris : Société de linguistique de Paris, 331-337.

Egileak artikuluaren bibliografia oinarrizko eredu horren arabera antolatuko du. Kasuan-kasuan izan daitezkeen zehaztapenak edota berezitasunak argitaratzale-arduradunarekin batera konpondu behar ditu.

## 10. Ordainketak

Egileak modu esklusiboan lagatzen dizkiote Euskaltzaindiari argitaratu-tako artikuluen gaineko erreprodukzio-eskubideak. Halaber, ikerketa-artikulu eta testu guztiak ordainduko dira Euskaltzaindiaren Argitalpen batzordeak kasuan-kasuan erabakitzeten dituen tarifen arabera.

## Normas de redacción de la revista *Euskera*

### 1. Ámbitos de la revista

*Euskera* es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia. Publica dos tipos de números: en primer lugar, aquellos que recogen discursos de ingreso de los nuevos miembros de la institución, trabajos de la Academia, actas, normas lingüísticas, coloquios organizados por las secciones de Investigación (*Iker*) y Tutelar (*Jagon*) o análogos y, en segundo lugar, los que publican artículos de investigación originales en los ámbitos de interés de la Academia, reseñas de libros y similares. Los criterios que se especifican a continuación sólo corresponden al segundo tipo, es decir, a artículos originales de investigación y reseñas de libros, y son de obligado cumplimiento para poder ser aceptados en el proceso de publicación. Para el resto de textos deberán cumplirse las condiciones establecidas por Euskaltzaindia en “Euskaltzaindiaren argitalpen eremua”, *Euskera*, 48 (2003), 1115-1124.

Los ámbitos de interés de la revista *Euskera* son los siguientes:

- Filología vasca
- Lingüística general
- Gramática
- Dialectología
- Lexicografía / Lexicología
- Literatura
- Toponimia / Onomástica
- Fonética y Fonología
- Semántica y Pragmática
- Historia de la lengua
- Normativización lingüística
- Normalización lingüística
- Sociolingüística
- Lengua y nuevas tecnologías

- Iurilingüística y Derecho de lenguas
- Traducción
- Euskera científico en los diversos campos del saber.

Asimismo, se tomarán en consideración otras disciplinas en la medida en que tengan relación con la lengua vasca.

Las propuestas de publicación de artículos de investigación originales deberán remitirse al responsable de Publicaciones a esta dirección:

Euskaltzaindia / R.A. L. V. / A. L. B.  
Responsable de Publicaciones  
Plaza Barria, 15  
48005 BILBO

## **2. Lenguas**

Los artículos de investigaciones originales podrán ser redactados en cualquiera de las lenguas que habitualmente se emplean en los ámbitos académicos de Euskal Herria, aunque se dará preferencia a los redactados en euskera.

## **3. Extensión**

Se publicarán dos tipos de textos: artículos académicos y reseñas de libros. Los primeros no tienen una extensión previamente establecida, pero en general no tendrán un número de caracteres inferior a 30.000 o superior a 60.000 (15-30 páginas). Las reseñas de libros serán de dos tipos: de tres páginas (6.000 caracteres) o cinco páginas (10.000 caracteres), aunque se admitirán excepciones.

## **4. Resúmenes**

Los artículos de investigación deberán estar acompañados por un resumen (máximo de 500 caracteres) y sus correspondientes palabras clave (máximo de seis), ambos en la lengua original del artículo.

## 5. Admisión

La admisión de artículos originales y textos es competencia del Consejo de Redacción de la revista *Euskera*, el cual designará dos evaluadores externos para cada artículo y, tras tomar en consideración su dictamen, tomará la decisión definitiva, en su caso. Al comunicar la aceptación del artículo se facilitará al autor una lista de errores o cuestiones sujetas a corrección. El autor firmará un documento manifestando su acuerdo. A partir de ese momento no se aceptará ninguna modificación o corrección sustancial ni por parte del autor ni del editor.

## 6. Plazos

Los artículos de investigación y textos se podrán presentar hasta final de año, en el caso de que vayan a ser publicados en el primer semestre. El incumplimiento de los plazos establecidos en el proceso de publicación puede acarrear la anulación de la publicación del artículo por decisión del editor.

## 7. Soportes del artículo

Los artículos se presentarán en formato de ordenador junto con una versión impresa. Se utilizará un procesador de textos de uso habitual en Euskal Herria.

## 8. Referencias y notas

Se favorecerán los intentos de limitar el uso exagerado de notas. A ser posible todas las referencias se integrarán en el texto, conectándolas con la bibliografía que se coloca habitualmente al final del artículo, de este modo: (Larramendi, 1729) o Mitxelena (1961, 123). Cuando por cualquier razón se decida prescindir de ese tipo de referencias, éstas deberán facilitarse de forma exacta, rehuyendo los *op. cit.*, *ibidem* o similares y ofreciendo las referencias completas en la bibliografía.

## 9. Bibliografía

La bibliografía se colocará al final del artículo, siguiendo este modelo básico:

Larramendi, M., 1729, *El impossible vencido : arte de la lengua bascongada*. Salamanca : Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

Azkue, R.M., 1896, *Proyecto de ortografía : sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao : Müller y Zavaleta.

Mitxelena, K., 1959, « Euskal-itzak zein diren », *Euskera*, 4 (1959) 206-214.

Urkixo, J., 1967, « De paremiología vasca : Oihenart conoció los Refranes y sentencias en vascuence de 1596 », *ASJU*, I (1967) 3-44.

Lafon, R., 1975, « Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques », in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris : Société de linguistique de Paris, 331-337.

El autor organizará la bibliografía de acuerdo con este modelo básico. Las peculiaridades o especificaciones que puedan darse en cada caso deberán ser resueltas de acuerdo con el responsable de Publicaciones.

## 10. Retribuciones

El autor cede a Euskaltzaindia los derechos de reproducción de su artículo de forma exclusiva. Asimismo, los artículos originales de investigación así como todos los textos serán objeto de retribución de acuerdo con las tarifas que establezca en cada caso la Comisión de Publicaciones de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia.

## Normes de rédaction de la revue *Euskera*

### 1. Domaines de la revue

*Euskera* est la publication officielle de l'Académie de la langue basque / Euskaltzaindia. Deux types de numéros sont publiés: tout d'abord, ceux qui rassemblent les discours d'intronisation des nouveaux membres de l'institution, les travaux de l'Académie, les procès-verbaux, les normes linguistiques, les colloques organisés par les sections de Recherche (*Iker*) et Tutélaire (*Jagon*) ou similaires et, ensuite, ceux dans lesquels sont publiés des articles originaux de recherche qui portent sur l'un des domaines d'intérêt de l'Académie, comptes rendus de livres et autres publications. Les critères qui sont précisés ici correspondent seulement au deuxième type de numéros de la revue, c'est-à-dire aux articles originaux de recherche et comptes rendus de livres, et sont à respecter impérativement pour pouvoir être acceptés dans le processus de publication. Pour les autres textes, il faudra remplir les conditions prévues par Euskaltzaindia dans «Euskaltzaindiaren argitalpen eremua», *Euskera*, 48 (2003), 1115-1124.

Les domaines d'intérêt de la revue *Euskera* sont les suivants :

- Philologie basque
- Linguistique générale
- Grammaire
- Dialectologie
- Lexicographie / Lexicologie
- Littérature
- Toponymie / Onomastique
- Phonétique et Phonologie
- Sémantique et Pragmatique
- Histoire de la langue
- Normativisation linguistique
- Normalisation linguistique

- Sociolinguistique
- Langue et nouvelles technologies
- Jurilinguistique et Droit des langues
- Traduction
- Le basque scientifique dans les divers domaines du savoir.

D'autres disciplines seront également prises en considération dans la mesure où elles ont trait à la langue basque.

Les propositions de publication d'articles originaux de recherche devront être remises au responsable des Publications à cette adresse :

Euskaltzaindia / R.A. L. V. / A. L. B.  
Responsable des Publications  
Plaza Barria, 15  
48005 BILBO

## 2. Langues

Les articles originaux de recherches pourront être rédigés dans l'une des langues qui sont habituellement employées dans les domaines académiques du Pays Basque, même si une préférence sera accordée à ceux rédigés en basque.

## 3. Longueur

Deux types de textes seront publiés : les articles académiques et les comptes rendus de livres. Les premiers n'ont pas de longueur préalablement établie, mais en général le nombre de caractères ne sera pas inférieur à 30 000 ni supérieur à 60 000 (15-30 pages). Les comptes rendus de livres seront de deux types: de trois pages (6 000 caractères) ou cinq pages (10 000 caractères), même si des exceptions seront autorisées.

## 4. Résumés

Les articles de recherche devront être accompagnés d'un résumé (500 caractères maximum) et de leurs mots-clés correspondants (six maximum), tous deux dans la langue originale de l'article.

## 5. Admission

L'admission d'articles originaux et de textes relève de la compétence du Comité de Rédaction de la revue *Euskera*, qui désignera deux évaluateurs externes pour chaque article et, après avoir tenu compte de leur avis, prendra la décision définitive, si cela s'avérait nécessaire, le Comité de Rédaction fournira à l'auteur une liste des erreurs ou points susceptibles d'être sujets à révision lors de la communication de l'acceptation de l'article. L'auteur signera un document exprimant son accord. Dès lors, il ne sera accepté aucune modification ou correction substantielle ni de la part de l'auteur ni de la part de l'éditeur.

## 6. Délais

Les articles de recherche et textes seront présentés tout au long de l'année, jusqu'au 31 décembre et seront publiés au plus tard au cours du premier semestre de l'année suivante. Le non-respect des délais fixés dans le processus de publication peut entraîner l'annulation de la publication de l'article sur décision de l'éditeur.

## 7. Supports de l'article

Les articles seront présentés au format informatique avec une version imprimée. L'auteur utilisera un traitement de texte couramment utilisé au Pays Basque.

## 8. Références et notes

Les tentatives de limiter l'utilisation exagérée de notes seront appréciées. Dans la mesure du possible, toutes les références seront insérées dans le texte, et seront reliées à la bibliographie placée à la fin de l'article, de la manière suivante : (Larramendi, 1729) ou Mitxelena (1961, 123). Si pour une raison ou pour une autre, l'auteur décide de se passer de ce type de références, celles-

ci devront être indiquées de façon exacte, en évitant les *op. cit.*, *ibidem* ou similaires et en offrant les références complètes dans la bibliographie.

## 9. Bibliographie

La bibliographie se place à la fin de l'article, en suivant ce modèle de base :

Larramendi, M., 1729, *El impossible vencido : arte de la lengua bascongada*. Salamanca : Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

Azkue, R.M., 1896, *Proyecto de ortografía : sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao : Müller y Zavaleta.

Mitxelena, K., 1959, « Euskal-itzak zein diren », *Euskera*, 4 (1959) 206-214.

Urkixo, J., 1967, « De paremiología vasca : Oihenart conoció los Refranes y sentencias en vascuence de 1596 », *ASJU*, I (1967) 3-44.

Lafon, R., 1975, « Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques », dans *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris : Société de linguistique de Paris, 331-337.

L'auteur organisera la bibliographie de son article en fonction de ce modèle de base. Les particularités ou précisions susceptibles de se présenter dans chaque cas devront être résolues en accord avec le responsable des Publications.

## 10. Rémunérations

L'auteur cède de manière exclusive à Euskaltzaindia les droits de reproduction de son article. De même, les articles originaux de recherche ainsi que tous les textes feront l'objet d'une rémunération conformément aux tarifs qu'établira dans chaque cas la Commission des Publications de l'Académie de la langue basque / Euskaltzaindia.

## Writing guidelines for the journal *Euskera*

### 1. Overview of the journal

*Euskera* is the official journal of the Royal Academy of the Basque Language/Euskaltzaindia. It publishes two types of issue: one containing induction speeches of the newest members of the institution, the Academy's work, publications, language rules, symposia organised by the Research (Iker) and Tutelary (Jagon) sections and so on, and a second containing original research articles on topics of interest to the Academy, book reviews and the like. The criteria specified below only concern original research articles and book reviews appearing in the second type of issue and are mandatory for manuscript acceptance. All other manuscripts must meet the conditions set by Euskaltzaindia in "Euskaltzaindiaren argitalpen eremua", *Euskera*, 48 (2003), 1115-1124.

The following topics are covered in *Euskera* journal:

- Basque philology
- General linguistics
- Grammar
- Dialectology
- Lexicography / Lexicology
- Literature
- Toponymy / Onomastics
- Phonetics and Phonology
- Semantics and Pragmatics
- History of language
- Corpus planning
- Status planning
- Sociolinguistics
- Language and New Technologies

- Jurilinguistics and Language Law
- Translation
- Scientific Basque in the various fields of knowledge.

Likewise, other disciplines will be taken into consideration insofar as they relate to the Basque language.

Proposals for publication of original research articles must be submitted to the Publications Manager at the following address:

Euskaltzaindia  
Publications Manager  
Plaza Barria, 15  
48005 BILBO  
Spain

## 2. Languages

Original research articles may be written in any of the languages that are normally used in academic circles in the Basque Country, although preference will be given to those written in Basque.

## 3. Length

Two types of texts will be published: academic articles and book reviews. The former do not have a set length, but generally will not have less than 30,000 characters or more than 60,000 (15-30 pages). Book reviews are of two types: three pages long (6,000 characters) or five pages (10,000 characters), although exceptions are allowed.

## 4. Abstracts

An abstract (maximum of 500 characters) and the corresponding key words (maximum of six), both in the original language of the article, must be submitted together with research articles.

## 5. Acceptance

Acceptance of original articles and texts is the responsibility of the Editorial Board of the journal. Two external reviewers will be designated for each article and, after taking their opinion into consideration, the Board will make its final decision, if necessary. Upon notification of the acceptance of the article the author will be provided with a list of problems, errors or issues subject to correction. The author will sign a document stating his/her agreement. From that moment on, no substantial modification or correction by either the author or the editor will be accepted.

## 6. Deadlines

Research articles and texts can be submitted throughout the year for publication by the end of the following half-year. Failure to comply with publishing deadlines may result in cancellation. The editor's decision is final.

## 7. Article Format

Manuscripts must be submitted in digital format together with a printed version. Any format commonly used in the Basque Country is acceptable.

## 8. References and Notes

Attempts to limit the excessive use of notes will be looked upon favourably. If possible, all references should be incorporated into the text, connected to the bibliography that is usually placed at the end of the article, as follows: (Larramendi, 1729) or Mitxelena (1961, 123). If for any reason an author decides not to use that reference format, precise mention should be made, avoiding the use of *op. cit.*, *ibidem* or similar and providing full references in the bibliography.

## 9. Bibliography

The bibliography will be placed at the end of the article, following this basic model:

Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido : arte de la lengua bascongada*. Salamanca: Antonio Joseph Villargordo Alcaráz.

Azkue, R.M., 1896, *Proyecto de ortografía : sometido á la censura de los que se dedican á cultivar el euskera*. Bilbao : Müller and Zavaleta.

Mitxelena, K., 1959, «Euskal-itzak zein diren», *Euskera*, 4 (1959) 206-214.

Urkixo, J., 1967, «De paremiología vasca: Oihenart conoció los Refranes y sentencias en vascuence de 1596», *ASJU*, I (1967) 3-44.

Lafon, R., 1975, «Indices personnels n'exprimant rien de déterminé dans les verbes basques» in *Mélanges linguistiques offerts à Emile Benveniste*. Paris: Société de linguistique de Paris, 331-337.

The author will organise the bibliography according to this basic model. Any additional features or specifications must be agreed with the Publications Manager case by case.

## 10. Remuneration

Authors must vest copyright in their articles exclusively to Euskaltzaindia. Original research articles and other texts will be remunerated in accordance with the rates established in each case by the Publications Committee of the Royal Academy of the Basque Language/Euskaltzaindia.

## Harpidetzak eta eskariak / Pedidos y suscripciones

### ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DEL SOLICITANTE:

Izen-deiturak / Nombres y apellidos: \_\_\_\_\_

Erakundea / Institución: \_\_\_\_\_

Helbidea / Dirección: \_\_\_\_\_

Posta kodea / C.P: \_\_\_\_\_ Udalerrria / Población: \_\_\_\_\_

Lurraldea / Provincia: \_\_\_\_\_ Estatua / Estado: \_\_\_\_\_

NAN/IFK · DNI/NIF: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Faxa: \_\_\_\_\_ E-mail: \_\_\_\_\_

Eskera data / Fecha de pedido: \_\_\_\_\_ - \_\_\_\_\_ - \_\_\_\_\_

### 2011rako harpidetzaren prezioa / Precios de suscripción para el año 2011:

Espainia: 27,12 €

Atzerria / Extranjero: 29,08 €

### Zenbaki solteak / Números sueltos:

Kopurua Cantidad	Aldizkaria Revista	Urtea / Año	Bolumena Volúmen	Zenbakia Número

## **Zenbaki solteen prezioa 2011rako / Precios de los números para el 2011**

*Euskera 2010, 55, 1, 16,75 €*

*Euskera 2010, 55, 2, 10 €*

*Euskera 2010, 55, 3, 16,75 €*

## **Ordainketa era / Modo de pago**

- Transferentzia / Transferencia
  - Postordainez / Contrareembolso
  - Erreuibuz (kontu korronte zenbakia) / Recibo (número de cuenta corriente):
- 

## **Salmenta eta banaketa / Venta y distribución**

Euskatzaindiko Argitalpen Banaketa Zerbitzua

Plaza Barria, 15

48005 BILBO

Tel. 94 415 8155

Fax: 94415 8144

e-mail: [jartza@euskaltaindia.net](mailto:jartza@euskaltaindia.net)

\* \* \*

Eskatzaileak, datu pertsonalak eman behar dituenez gero, eskatzaile horrek esanbidezko baimena ematen du datu horiek Euskaltzaindiaren fitxategi informatikoan sar daitezen; fitxategiaren xede bakarra zerbitzu pertsonalizatua eskaintza da. Fitxategia Datuen Babeserako Agentzian inskrتاباتuta dago, eta, berori kudeatzeko, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa (Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzkoa) eta horren garapenerako gainerako arauak betetzen dira.

Eskatzaileak bere datu pertsonaletan sartzen, horiek zuzentzen, ezerezteko eta horien aurka jartzeko eskubideak ditu, eta badu eskubideon berri. Eskubide horiek idatziz egikaritu ahal izango ditu, helbide honetara mezu elektronikoa bidaliz: [info@euskaltaindia.net](mailto:info@euskaltaindia.net). Edozein kasutan ere, eskatzaileak bermatzen du emandako datu pertsonalak egiazkoak direla.

\* \* \*

El solicitante autoriza expresamente a que los datos personales aportados en relación a su pedido, sean incorporados al fichero informático de Euskaltzaindia, destinado exclusivamente a dar un servicio personalizado al usuario. Dicho fichero resulta inscrito en la Agencia de Protección de Datos y es gestionado de acuerdo a lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre sobre Protección de Datos de Carácter Personal y demás normativa de desarrollo.

El usuario queda informado de sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición respecto de sus datos personales, pudiendo ejercitar estos derechos por escrito mediante correo electrónico a la dirección [info@euskaltaindia.net](mailto:info@euskaltaindia.net). En cualquier caso, el usuario garantiza que los datos personales facilitados son veraces.











2010  
55, 3

# EUSKERA

2010  
55, 3

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak

Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca

Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque

Work and Proceedings of the Royal Academy of the Basque Language

EUSKERA



16,75 €



Euskera 2010, 55, 3, 1077 - 1540, Bilbo. ISSN 0210-1564

# E U S K E R A



2010  
55, 3  
BILBO  
ISSN 0210-1564



# EUSKALTZAINDIA

## EUSKERA AGERKARIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Teléfono: 94 415 81 55 • Faxa: 94 415 81 44

e.posta: [info@euskaltzaindia.net](mailto:info@euskaltzaindia.net) • web gunea: [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)

Aldizkari hau beste agerkariekin trukatzen da

Esta revista admite el intercambio con otras publicaciones

Cette revue s'échange avec d'autres publications

This journal can be exchanged for others by agreement

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistraturaz edo beste bitarteko berau transmititztea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzalearen edo copyrightaren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN 0210-1564

Lege Gordailua: BI-1244.58

Diseinua: [www.ikeder.es](http://www.ikeder.es)

*Preimpresioa:* Composiciones Rali, S.A.

Particular de Costa, 8-10. 48010 Bilbo

*Inprimategia:* Baster, Talleres Gráficos, S.L.L.

Pol. Atxukarro, 2, 48480 Arrigorriaga (Bizkaia)

**Euskera** Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala da, 1920. urtetik argitaratzen dena. Urtean hiru zenbaki argitaratzen ditu, lehena eta hirugarrena, Euskaltzaindiaren lana eta bizitza akademikoa biltzen dituztenak (sarrera-hitzaldiak, hizkuntza-arauak, jardunaldiak...), eta bigarrena, Akademiaren lan esparruetako ikerketa-artikulu originalak, liburu-aipamenak eta antzezoak jasotzen dituena.

Euskerako artikuluak banan-banan katalogatzen eta indexatzen dira *Azkue Bibliotekaren* katalogoan (<http://www.euskaltzaindia.net/azkue>) eta erakundearen web guneko bilatzaile berezi batean (<http://www.euskaltzaindia.net/euskera>), aldi berean formatu digitalean eskainiz. Orobear, *Inguma* (<http://www.inguma.org>), *Dialnet* (<http://dialnet.unirioja.es/>), ISOC (<http://bddoc.csic:8080/isoc.html>) datu-baseetan eta *Latindex* katalogoa (<http://www.latindex.unam.mx/>) jasotzen dira.

La revista **Euskera** es el órgano oficial de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia y se publica desde 1920. Publica tres números al año, de los cuales el primero y el tercero recogen los trabajos y actos académicos de Euskaltzaindia (discursos de ingreso, normas lingüísticas, coloquios...), mientras que el segundo se dedica a publicar artículos de investigación originales en los varios ámbitos de trabajo de la Academia, reseñas de libros y similares.

Los artículos de **Euskera** son catalogados e indexados en el catálogo de *Azkue Biblioteca*, la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca (<http://www.euskaltzaindia.net/azkue>) así como en un buscador específico disponible en su página web : (<http://www.euskaltzaindia.net/euskera>) donde además se ofrecen en formato digital. Asimismo se recogen en las bases de datos *Inguma* (<http://www.inguma.org>), *Dialnet* (<http://dialnet.unirioja.es/>), ISOC (<http://bddoc.csic:8080/isoc.html>) y en el catálogo *Latindex* (<http://www.latindex.unam.mx/>).

La revue **Euskera** est la publication officielle de l'Académie de la langue basque / Euskaltzaindia, elle paraît depuis 1920. Trois numéros sont publiés par an, dont le premier et le troisième rassemblent les travaux et activités académiques d'Euskaltzaindia (discours d'indroduction, normes linguistiques, colloques, etc.), tandis que dans le deuxième sont publiés des articles originaux de recherche portant sur l'un des différents domaines de travail de l'Académie, comptes rendus de livres et autres publications.

Chaque article d'**Euskera** est répertorié et indexé dans le catalogue de la *Bibliothèque Azkue*, la bibliothèque de l'Académie de la langue basque (<http://www.euskaltzaindia.net/azkue>) ainsi que dans un moteur de recherche spécifique disponible sur son site Web : (<http://www.euskaltzaindia.net/euskera>), où ils sont également proposés au format numérique. Par ailleurs, ils sont enregistrés dans les bases de données *Inguma* (<http://www.inguma.org>), *Dialnet* (<http://dialnet.unirioja.es/>), ISOC (<http://bddoc.csic:8080/isoc.html>) et dans le catalogue *Latindex* (<http://www.latindex.unam.mx/>).

**Euskera** is the official journal of the Royal Academy of the Basque Language/Euskaltzaindia and has been published since 1920. Issues are published three times a year: the first and third contain the work and academic activity of Euskaltzaindia (induction speeches, language rules, symposia...), while the second is dedicated to publishing original research articles in the various areas of the Academy's work, book reviews and the like.

**Euskera** articles are catalogued and indexed in the Royal Academy of the Basque Language's *Azkue Library*, (<http://www.euskaltzaindia.net/azkue>) as well as on a specific search engine available on its website (<http://www.euskaltzaindia.net/euskera>), where they are also provided in digital format. They are also held on the *Inguma* (<http://www.inguma.org>), *Dialnet* (<http://dialnet.unirioja.es>), ISOC (<http://bddoc.csic:8080/isoc.html>) data-bases and on the catalogue *Latindex* (<http://www.latindex.unam.mx>).

# EUSKALTZAINDIA

## EUSKERA AGERKARIA



### IDAZKETA KONTSEILUA

*Zuzendaria:* ANDRES URRUTIA BADIOLA. Euskaltzaindia. Bilbo

*Idazkari akademikoa:* ANA TOLEDO. Euskaltzaindia. Donostia

*Idazkari teknikoa:* RICARDO BADIOLA. Euskaltzaindia. Bilbo

ADOLFO AREJITA.

*Deustuko Unibertsitatea. Bilbo*

ANDONI SAGARNA.

*Euskaltzaindia. Donostia*

JEAN-BAPTISTE COYOS.

*Iker (C.N.R.S., Bordele 3, UPPA). Baiona*

PATXI SALABERRI.

*Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea*

JOSEBA ANDONI LAKARRA.

*Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz*

MIKEL ZALBIDE.

*Eusko Jaurlaritza, Herzkuntza Saila. Gasteiz*

### AHOLKU BATZGORDEA

MIREN AZKARATE

*Euskaltzaindia. Donostia*

IÑAKI IRAZABALBEITIA

*Elhuyar Fundazioa. Usurbil*

JOXE AZURMENDI

*Euskal Herriko Unibertsitatea. Donostia*

JAZINTO ITURBE

*Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa*

XARLES BIDEAGAIN

*Paueko eta Aturri herrialdeetako Unibertsitatea. Baiona*

JABIER KALTZAKORTA

*Deustuko Unibertsitatea. Bilbo*

JOSU K. BIJUESCA

*Deustuko Unibertsitatea. Bilbo*

ALBERTO LOIZATE

*Basurtuko Ospitalea. Bilbo*

GIDOR BILBAO

*Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz*

JUAN MADARIAGA

*Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea*

INAKI CAMINO

*Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz*

JOAN MARTÍ

*Institut d'Estudis Catalans, Secció Filològica. Bartolomé*

ANA ETXAIDE

*Nafarroako Unibertsitatea. Iruñea*

ENEKO OREGI

*Eusko Jaurlaritza. IZOko burua. Gasteiz*

JOSE RAMON ETXEBARRIA

*Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo*

JON ORTIZ DE URIBA

*Deustuko Unibertsitatea. Bilbo*

MAITE ETXENIKE

*Universitat de València. Valentzia*

ROSA MIREN PAGOLA

*Deustuko Unibertsitatea. Bilbo*

PATXI GOENAGA

*Euskaltzaindia. Gasteiz*

JOSE ANTONIO PASCUAL

*Real Academia Española. Madrid*

RICARDO GOMEZ

*Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz*

TXOMIN PEILLEN

*Euskaltzaindia. Baiona*

MANUEL GONZALEZ

*Real Academia Galega. Coruña*

IBON SARASOLA

*Euskaltzaindia. Donostia*

JEAN HARITXELHAR

*Bordeleko Michel de Montaigne Unibertsitatea. Baiona*

JOAN MARI TORREALDAI

*Euskaltzaindia. Donostia*

ITZIAR IDIAZABAL

*Euskal Herriko Unibertsitatea. Gasteiz*

MIRIAM URKIA

*UZEI. Donostia*

JOSEBA INTXAUSTI

*Euskaltzaindia. Donostia*

JUAN JOSE ZUBIRI

*Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea*

*Batzorde teknikoa:* JON ARTZA eta PRUDEN GARTZIA (Euskaltzaindia. Bilbo).

*Aholkulariak:* JOSEBA ZABAleta eta ERRAMUN OSA (Euskaltzaindia. Bilbo).

# E U S K E R A

## AURKIBIDEA

### EKITALDIAK:

- Xarles Videgain Casteten sarrera-ekitaldia

[1091-1092] *Agurra*  
URRUTIA BADIOLA, Andres

[1093-1119] *Euskaltzaindian sartze-mintzaldia: Baionan*  
VIDEGAIN CASTET, Xarles

[1121-1128] *Koloreen abezedarioari jarraikiz*  
OIHARTZABAL BIDEGORRI, Beñat

### JARDUNALDIAK:

- Jean Martin Hiribarrenen omenezko Jardunaldia

[1133-1146] *J. M. Hiribarren bere mendean*  
HARITSCHELHAR DUHALDE, Jean

[1147-1164] *Xuriak eta gorriak. Azkainen eta Bardozen*  
ARBELBIDE MENDIBURU, Xipri

[1165-1190] *Arbasoak Hiribarrenen Eskaldunak idazlanean*  
TOLEDO LEZETA, Ana M.

- [1191-1224] *Juan Martin Hiribarrenen Eskaraz eguia (1858), erranak eta aforismoak*  
 ALTZIBAR ARETXABAleta, Xabier

- **Fernando Artola «Bordari» ... mendeurren-omenaldia**

- [1227] *Fernando Artola «Bordari»-ri omenaldia*

- [1229-1230] *Fernando Artola «Bordari»-ri omenaldia*  
 HARITSCHELHAR DUHALDE, Jean

- [1231-1240] *Bordari eta Hondarribiko euskal ondarea*  
 SAGARZAZU, Txomin

- [1241-1245] *Bordari: gizon osoa*  
 ESNAL, Pello

- [1247-1252] *Fernando Artola Bordari: gizon osoa*  
 IRIONDO, Joxemari

- [1253-1326] *Itsasoko tragediak euskal kanta zaharretan*  
 URKIZU, Patri

- **Zarautzko Frantziskotarren 400.urteurrena**

- [1329-1334] *Frai Baertel sermoilari famatua*  
 LIZUNDIA ASKONDO, Jose Luis

- [1335-1341] *Agirre Asteasukoaren Eracusaldiac: Sermoia ikuspegi sozio-diskurtsiboaren argitan*  
 OZAETA ELORTZA, Miren Arantzazu

#### AGIRIAK:

- [1345-1389] Euskaltzaindia. Batzar Agiriak

**IKERKETAK:****• Onomastika**

- [1395-1398] *Plentziako Badia/Bahía de Plentzia*
- [1399-1402] *Biñaspre/Binasperi*
- [1403-1404] *Caicedo de Yuso*
- [1405-1415] *Berroztegieta*
- [1416-1420] *Orbai(t)zeta*

**• Jagon**

- [1423-1436] *Ikastolak, berrikuntzaren eredu*  
ETXEZARRETA ALBERDI, J. Iñaki

**«NAFARROA OINEZ, 2010» ETA EUSKALTZAINDIA:**

- [1439-1440] *Euskaltzaindia*  
ERROZ AIZKORBE, Iñaki
- [1441-1447] *Iruñerriko euskararen ezaugarrriak*  
SALABERRI ZARATIEGI, Patxi
- [1449-1450] *Azken hitzak*  
URRUTIA BADIOLA, Andres

**HITZARMENAK:**

- [1453-1454] Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek, eta Euskaltzaindiak lau urterako programakontratua sinatu dute

- [1455-1457] Mondragon Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza-hitzarmena
- [1458-1459] Mintzola Fundazioak eta Euskaltzaindiak lankidetza-hitzarmena sinatu dute
- [1460] Bilboko Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza-hitzarmena berretsi dute
- [1461-1462] El Diario Vasco egunkariaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza-hitzarmena

#### **AURKEZPENAK-BERRIAK:**

- [1465-1467] Durangoko 45. Euskal Azokarekiko kontu-errrendapena
- [1468] Euskaltzaindia XIV. Euralex Nazioarteko Kongresuan
- [1469] Joshua Fishmanek ohorezko euskaltzainaren diploma jaso du
- [1470] Euskaltzaindia Bartzelonako Liber Azokan izan da
- [1471] «Erandioko leku-izenak» webgunea aurkeztu da
- [1472] Joxe Azurmendiri eman diote Saiakeraren Euskadi Saria
- [1473] Anjel Lertxundik irabazi du Espainiako Saiakera Saria
- [1474] Hiztegi Batuaren paperezko edizio berria
- [1475] Gasteizko Ubarrundia toponimia lanaren aurkezpena  
Euskaltzaindiaren Osoko Batzarrari
- [1476] Juan Jose Arginzonizek 1783ko Diccionario de la Lengua Castellana-ren dohaintza egin dio Euskaltzaindiari
- [1477] Jagonet 2010

**OMENALDIAK:**

- [1481] *Junes Casenaveri omenaldia*
- [1482] *Pedro Yrizar zenari omenaldia*
- [1483-1486] *Pedro Yrizar, aitta*  
YRIZAR, Iñigo
- [1487] *Xabier Kintana: «Gabriel Aresti begi-gogoetan»*
- [1488-1490] *Gabriel Aresti begi-gogoetan*  
KINTANA URTIAGA, Xabier
- [1491-1492] *2010eko «Xalbador» Eguna*
- [1493] *Joan Mari Torrealdaik jaso du «Lauaxeta» Saria*
- [1494] *Jose Luis Lizundia, euskaltzain osoa saritu dute Abadiñon*

**HILBERRI-TXOSTENAK:**

- [1497-1506] *Jorge Cortes Izal (1930-2010)*  
ZABAleta, Patxi
- [1507-1512] *Xabier Lete oroitzen*  
IRIGARAY, Jose Angel

\* \* \*

- [1513-1518] *Aurkibidea / Índice / Index, 2010*

\* \* \*

- [1521-1524] *Euskera agerkariaren idazketa arauak*
- [1525-1528] *Normas de redacción de la revista Euskera*
- [1529-1532] *Normes de rédaction de la revue Euskera*
- [1533-1536] *Writing guidelines for the journal Euskera*



# Ekitaldiak



**Xarles Videgain Casteten sarrera-ekitaldia**

Baiona, 2010-X-30



# Agurra

URRUTIA BADIOLA, Andres  
Euskaltzainburua

Baionako alkateordea,  
Agintariak,  
Euskaltzainak,  
Jaun-andreak,  
Egunon guztioi, *Bonjour à tous.*

Gaur Euskaltzaindiak bere barruan hartzen du Xarles Bidegain euskalaria eta euskaltzalea, pozarren eta esker onez.

Izan ere, Xarles Bidegain jada gure artean dugu, lehen euskaltzain urgazle gisa eta orain euskaltzain oso moduan.

Baditu horretarako merezimenduak. Dialektologia ez ezik, hainbat arlo jorratu ditu berak bere bizi-zereginetan, esparru akademikoan nahiz gizartearen ekimenetan.

Ondo eta zehatz ezagutzen du Euskal Herria, Iparraldekoa eta Hegoaldeko. Gure berbakera guztiak, gure euskalkiak ez zaizkio arrotz. Esan gabe doa, hori erabat lagungarri gertatzen zaiola euskararen akademiari.

Irakaskuntza eta ikerketa ditu ahalegin preziatuenak eta horretan jarraitzea nahi duela akademiak, horiek baitira berme esanguratsuak bere lan akademikorako.

Betor, beraz, Xarles Bidegain gurera eta izan ditzala gure agiantzarik onenak, Euskaltzaindian eta bizitzan, euskaldun eta euskaltzale jarraitu dezan.

Mila esker, *merci beaucoup* zuei, gaur Euskaltzaindiarekin egotearren, eta bereziki Baionako Udalari eta herriari, gaur eskaini digun harreragatik.

Zorionak Xarlesi eta bere etxeko eta senideei eta orain joan zaitezte, Jean Haritschelhar eta Patxi Uribarren, Xarles Bidegainen bila eta gure artera ekarri, bere sarrera-hitzaldia egin dezan.

# Euskaltzaindian sartze-mintzaldia: Baionan

VIDEGAIN CASTET, Xarles  
Euskaltzain osoa

Baionako Suprefet jauna,  
Euskaltzainburu jauna,  
Euskaltzain Jaun-Andereak,  
Jaun-andereak,  
Adiskideak.

Gertatzen ez denik ez baita, euskaltzainen artean sartzeko baimena iaz eman zidan Euskaltzaindiak: egun hartan non nengoentzako eta nola jakin nuen bilatzen dudala memoriaok kurioski huts egiten dit. Baino lehen mementotik beretik ohore eta kargu izanen zitzaidala banekien eta lehen kargua eta ohorea, hemen Baionan zuen aitzinean errituala den hitzaldi xume hau eman beharra. Hona ekarri nauen ibilbideaz bi hitz eman nahi nuke.

Euskaltzain jaun-andereak, zuen akademia ez da bakarrik hiltzen eta sortzen diren hitzen estadu zibileko bulego xoila zeinetan hil diren hitzak oso berantzerrendatzetan diren eta zeinetan sortu diren hitzak onartzetan diren aspaldi handian koekorturik izan ondoan. Lan hori ez da arbuiagarri baina gure Akademiaren lana askoz zabalago da, interesgarriago, beharrezkoago. Gizarteak instituzioak behar ditu, euskal munduak instituzioak behar ditu, euskarak bere instituzioak behar ditu, errespetagarri diren ber. Eta instituzioa errespetagarri izaten da temati eta egonkor baldin bada, bere helburuen alde beti tinko eta azkar jokatzen baldin badu. Bide hortan badabil Euskaltzaindia, errespetagarri.

Zuen artean ez naiz sartzen joan euskaltzain baten ordez eta beraz ez dut haren laudatzekorik. Hemengo erritua xoila da, dekorum handirik gabekoak: euskaltzainek ez deramate soinean jantzi berezirik, ez ezpatarik aldean.

Eskerrak emaiten dizkiet hona gozaita gisa lagundu nauten Patxi Uribarreni eta Jean Haritschelharri. Euskaltzaindian sartuz, euskaltzainek orok elkarretarik bereiz ditzaketen desberdintasunak ahantzen edo leuntzen dituzte, gure gizartean euskarak hartze duen lekua, behar duen osagarria eta zaindu behar duen geroa baitira instituzio osoa eta euskaltzain bakoitza kezkatzen dituzten oinarritzko arrangurak. Bide hortatik beretik ahalaz ibiliko naiz zuen laguntzarekin.

Intelektual omen gara, gure jakitatearen berri eman behar dugulakotz edota jakitatearen arabera gure aburua: aski berria da Iparralde honetan euskaldun intelektual izatea, hots ez mintzatzea estatu edota eliza baten bozeramaile gisa. Unibertsitateko erakaslearen lana eta hizkuntzalarien lana ez da bakarrik gure herrian eta gure hizkuntzan zer gertatzen den ikertzea. Erkatzeko dugu ondoan, auzoan, edo berdin urrun gertatzen diren fenomenoekin. Guri da beraz gure nortasunaren ikertza haren barnean hertsia izan gabe. Mundu desberdinetan ibiltzeko parada badaukagu, mintzaira desberdinak, maskarak, tranpak, erretorikak ulertzeko laguntza ematen diegula gure ikasleei.

Sortzeak hiltzea zor du. Eta ez nagokeene aitzinekoek eman didaten laguntza aipatu gabe. Gure orainaldia nolazpait iraganaldiak mugatzen du. Hil diren lagunek gu baizik ez gauzkate gure artean itzal poxi bat izateko. Hemen nago haiei esker neurri batean eta neurri batean gure hitzen oraindik bitartez bizirik daude.

Lehenik odoleko kadina eta bilurra badago eta ene aita gogoan daukat : umila zen eta atsegin izanen zuen gutartean egotea. Gogoan ditut ere osabak eta izekoak, beren euskalduntasun umila, alegia deus ere, pizu handikoa izan baita ene ibilbidean.

Kadina intelektuala ere izan dut hildakoek eta beharrik bizi direnek tre-naturik. Jacques Allières erakasleari zor diot euskararekin lehen lotura intelektuala eta gero beste euskaltzain askoren laguntza izan dut, bereziki

Aingeru Irigarairena, gero Jean Haritschelharrena, ber denboran akuilu ezin zorrotzago izan delarik Georges Rebuschik edo Beñat Oihartzabalek obratzen zitzuten lan distirantak ikustea. Gogoan ditut Unibertsitateko lagunak: Jean-Baptiste Orpustan, Txomin Peillen, Aurelia Arkotxa, Jon Casenave eta Ur Apalategi. Aipamen berezi bat egin nahi diot Atlasgintzaren gorabehera guzietan uztarkide izan dudan Gotzon Aurrekoetxea adiskideari.

Anitzetan norberak bere bizitza ikusten du narrazio bat izan balitz bezala, nahiz ez den narrazio hutsa izan, are gutiago ohartuki antolatu eta eraiki narrazioa.

Baionan gaude, sortu nintzen hirian. Nehor ere ez da bere haurtzaroaz hobendun. Eta baionesa izanik ere, uste dut eragin handia izan duela Nafarroa Beherean, Oztibarren, iragan haur denborak. Eskertu nahi dut Izuran sortu zen eta Baionan mundura ekarri ninduenene ama, hemen dagoena, zuzen eta zabal hazi eta hezi gaituena.

Eskuliburuek orrialde kopuru bera ez diote eskaintzen historiaren aro bakoitzari: berdintsu egiten dutene haurtzaroko denboraz. Ezen urte oroz



hiru hilabete baizik ez nituen igaiten Oztibarreko Arhansusi Zolakian; alta hango oroitzapenak datorkit burura olde handiz nahiz beste bederatzi hilabeteak Baionan igaiten nituen. Han iragan egunez oroitzen direlarik, deabruz egina nintzela baldin badiote ere ene askaziek, nik haurtzaroko Oztibarre hura paradisu gisa ikusten dut. Eta uste dut euskararekiko lotura ez nuela bera izanen Baionako katedralaren itzalean tairik gabe egon izan banintz Oztibarrera joan gabe.

Halere Baionan sortu naizela ezin uka. Baionaz maitasunez mintzo dena Roland Barthes izan da. Baiona ongi ezagutzen zuen, gaztaroa hemen iraganik, eta Okzitaniako notario familia baten ondorengo honen hitzak hona ekarri nahi ditut: *Baiona, Baiona hiri perfeita da: ibaietako hiria, auzo-inguru-neetako izen ozenek aireztatzen dutena (Moxorola, Marracq, Lachepaillet, Beyries) eta bizkitartean hiri zerratua ...*

Baiona hiriaz mintzo da Roland Barthes eta ez baionesen perfeitasunez edo Oihenarten hitza errepikatuz haien betegintzarreaz.

Ezen Baiona perfeita irekia baldin bada, hertsia ere da Roland Barthes-ren arabera. Eta gogoan ez dituzke bakarrik Vaubanek zuzendutako harresiak eta hirierdia inguratzen duten horma gaitzak. Alabaina, Baiona eta baionesak beste manera batez agertzen ditu beste idazle batek. Paul Gadenne du izena, *Gaineko kartielak / Les hauts quartiers eleberria idatzi zuena*. Baionako burgesiaz egiten duen potretaren irakurtzea gomendatzen diot nornahiri, bereziki kulturari buruz oro har hemengo burgesek zuketen kezkarik eza eta hertsikeria erakusten ditu zorrozki. Paul Gadenne sinesten nahi baldin badugu, ematen du Gaztelu Zaharreko edo Berriko barne ilunek beren mutzidura zerbaite utzi duketela gure hiritarren gogoan. Zuberotarrez ongi desberdintzen baita *gaztelü* eta *jauregia*, *gaztelü* bat gerlako eraikin indartsu hertsia delarik, eta *jauregia* aldiz atsegineku irekia: Gaztelu eta jauregi, Baionak bietarik badauka. Agian gauzak hasi dira kanbiatzen, Unibertsitatea, CNRS eta Euskaltzaindia preseski Baionako Gaztelu berrian jarri diren ordutik.

Onomastika zientzia omen da baina datu objektiboez gain balio sinboliko eta afektibo handia hartzen dute leku eta jende izenek. Roland Barthesek kontatzen du nola bere dirurik gabeko amatzik usu aipatzen zituen Baio-

nako burges zenbaiten izenak, ustez eta haien izenak ahoskatzeak berak hurbilaraziko zituen. Zerrenda ere badakar: Leboeuf, Barbet-Massin, Delay, Vougres, Poques, Léon, Froisse, de Saint-Pastou, Pichoneau, Poymiro, Novion, Puchulu, Chantal, Lacape, Henriet, Labrouche, de Lasbordes, Didon, de Lignerolles, Garance. Barthesen arabera, izen bereziengatik bera ez zaio nahikoa, erotika bat omen zaio, *izena, boza bezala, urrina bezala malenkonia baten muga da: gutizia eta heriotza.*

Nik Roland Barthesek mende erdi bat berantago oihartzun gisa *Remparts* inguruan bizi ziren lagunen izenak aipa nitzake: Lans, Laxalde, Laxague, Elgoyhen, Martinon, Lespesailles, Fies, Thorez, Lonné, Coussirat, Lestanguet, Ameztoi, Dameztoi, Sanchez, Artigou, Gondel, Sarrazin, Leoncini, Boudjima. Ez da leku bi zerrenda horien ikerketan sartzeko baina iduritzen zaitenean zerrendan gaskoi eta frantses izenen proporcionea murritzago zela, besteak beste gerlatik landa barnekaldeko euskaldun anitz jinzelakotz Baionara eta hain segur ere Roland Barthesen amatzik baino burges gutiago ezagutzen genuelakotz gure auzoan. Jauntzien erosteko hutsik egin gabe jotzen genuela Salzedo dendara oroitzen naiz eta Judu portuges deitzen genuen familia horren dendaran bazegoela orman handizki emana Euskal Herriko probintzien armarria. Bitxi baldin bada ere, Euskal Herri bat bazitekeela ez genuen batere garbi ikusten ez sentitzen. Kirolaz axola gehiago baguen: Joseba Sarriónandiak bere *Akordatzen naiz* liburuan kontatzen du nola bere adineko mutikoek buruz bazekiten Bilbo Athletic taldeko futbolarien zerrenda: guk gauza bera egiten genuen Avironeko rugbilarien 15 izenak katixima bezala emanet baina nor zen euskaldun eta nor ez kontuan hartu gabe, hots Iratxabal eta Darmendrail, Duprat eta Altxutegi. Bakarrak doxa gisa uste genuen aitzineko jokolari indartsuetan euskaldun gehiago bazitekeela, gibelekoetan aldiz bakanago, hegalarri fina zen Izurako Adolphe Jauregi jokolariaren barkamenarekin.

Jende izenen fonetikaz bestalde, Baionako soinuak ere datozkit burura: bestetako eta jaietako doinuak bereziki, zeinetan euskal folklorea iturri nagusia zen, gehiena frantserera itzulirik haatik. Badakigu Barthesek, Lévi-Straussek eta hemen dauden euskaltzain eta euskaltzale anitzek musika maite dutela eta ongi ezagutzen. Ene eskasia aitortu behar dut. Erran dutene aita zena umila eta ixila zela. Oroitzen naiz musika berezia joten zuela,

danborrari gisa igandetan frankotan aritzen baitzen Sent Andreseko Gurutzatuen klian, prozesio, desfile eta jai anitzetan. Astean lagunekiko entseguak bazituen eta bestalde etxeen entrenatzen ari zen baina ixil-ixilik amorekatik auzoak ez ditzan narda eta enea: larruzko danbor ttipi bat eginarazi zion zapatainari, hede batez belaunean lotzen zuena eta han zinez jo ari izanik ere, danbor hora mutu egoten zen. Hora mutu zen eta nago ni-haur musikaren aldetik ez ote naizen elkor egon, salbu beharbada erritmoari: ondotikako inkesta linguistikoetan, hitzen urratsari arta berezi bat eman diot hitz-jarioan. Aldiz hitzen soinuen estetikari aski sorraio naizela zor dut.

Urrina. Horra Barthesek dioena:

Gehiago itzuliko ez denetik, urrina zait itzultzen. Hala nola ene baiones haurtzaroko urrina: mandalak inguratu munduaren antzera, Baiona oro bildurik dago urrin osatu batean, Baionattipikoarenean (Errobi eta Aturriren arteko auzoan): espartinegileek landu soka, epizelia iluna, zur zaharren ezkoa, airerik gabeko eskaker-etxeak, Euskaldunsa zaharren jauntzien beltza, mottoa atxikitzen zieten burukoraino beltzak baitziren, olio española, ofizialeen saltoki ttipietako hezetasuna...

Urrinez ero bat bezala oroitzen naiz : zahartzen ari naizelako marka.

Eroturik edo zaharturik, nik ere gogoan dauzkat oraino Uztaritzetik jiten zen Gassuan andereak borta aitzinean uzten zuen esnarearen urrina, baita ere karriketan orduan ondarkinak eta zakarrak biltzen zituzten itzain euskaldunen orgek libratzen zuten urrin garratza.

Bista, doinua, urrina, Baiona gorputzari mintzo zaio, eta beraz osasunari. Ez dakit alderdi ona ala ahula den Baionak daukan beste ezaugarria: nasaia edo lasaia dela iduritzen zait eta oro har osagarria ematen duela. Alta Roland Barthes kexu zen erraiten zuelarik hunat jinez geroz kasik aldi oroz buruko min gaitza biltzen zuela: uda eta negu lepoko gorria bazeraman marrantzeko beldurrez: badakigu sanatorium batean luzaz egon zela eta miresten zuela Thomas Mannek nola bizi-arazten duen erietxeetako denbora. Oraixtian aipatu dudan Paul Gadenne gaizoa aldiz, bularretako minak har-

turik, Kanboko sanatorium batean egon zen eta hona etorri zen Baionako aireak on eginen ziolakoan. Baionako osagarriari buruz ere, kezkagarria izan diteke beste ohar bat: ni sortu naizentik Baionan ezagutu ditudan auzapez guziak mediku izan dira. Horiek hola, oro har Baiona leku sano eta xaloa dela uste dut eta ongi ezak eta larrialdi guziak urtarazten dizkit Baionara itzultzeak berak. Zor hori aitortzen diet Baionari eta baioneseri.

Askotan pentsatzen egon naiz horrelako Baiona batean sortu naizen honek ez zuela batere menturarik euskaldun izateko eta euskarazko proiektu zientifikoetan partaide izateko. Mirakulu hutsa ez baldin bada izan, daukat sirats ona izan dudala Baionako jaugin zenbaitetik ihes egiteko.

Lehenago nion Baiona perfeita, irekia, zabala eta ber denboran hertsia eta zerratua dela. Baino ere ibaietako hiria dela. Zaudeten barne ilun honetan sartu aitzin, ikusi duzue bi urratsetan Aturri eta Errobi elkarri juntatzen direla herriko etxeak berraltxatu duen delako échauguette-aren pean. Idu-ri luke zabal eta irekia izatekotan Baiona errekarri emana dela eta beraz, portu izanez, itsasoari emana. Haur denboran arta handiz irakurtzen nuen egunkarian zein ziren Baionako portuan erlaxa egiten zuten itsasontziak, nondik eta nora, zer ekarri zuten eta zer eraman gai zuten. Itsasoaren deia, kanporako deia, hemendik alde egitea ozen entzuten genuen gazte anitzek. Dei horri elkorarena egiteko zoria izan dut.

Barthes eta Paul Gadenne bezala, bada beste artista bat Baionaz mintzo dena bere bi erretaula handietan. 18. mende erditsuan Baionako portua pintatu zuen Joseph Vernet artista famatua dut gogoan. Pariseko saloietan 1761ean hasirik erakutsiak izan ziren arrakasta handiz Frantziako portuez egin zituen obrak. Ez dagokit haien balio estetikoa ikertza, nahiz kritika gehienek estimatu zuten erretaula haietan Vernetek erakusten zuen nagusitasuna. Haren laudatzeko Diderot ez zen azkena izan, baina halere Baionako portuaz egin erretaula hortan enegu bat altxatu zuen filosofoak: Verneti oldartu zitzaison baizik eta erretaula ilunegi zela, Baiona arrats apaleko argi ahul batez erakustea ez zela hautu ona. Argi eskas horrek ondoko hitzen errateko gogoa eman ziola dio Diderotek trufa aire batez, *Bihar arte, iguzkia jeikia izanen delarik!* Alegia Vernet jaunak Baiona egun argiz pintatu behar zuela.

Koloreetan beharbada ilunegi zen Vernet artista baina xedea argia zeukan : Baiona hiria eta portua erakustea bai baina, erregek alde batetik eta herriko hautetsiek bestaldetik onartzeko gisan. Bi obrek aldaketa handiak jasan zituzten. Badakigu Luis 15. Erregek Verneti manatu ziola kortsarioak eta berek harrapatu itsasontziak Baionan sartzen erakustea erretaula bakar batean. Baionak kortsarioak igortzen zituen orduan itsasoetan gaindi Erregeren zerbitzuko: eskipaiak euskaldunek gehienbat osatzen zituztela. Lamikiz ikerle adiskideari esker, badakigu hain zuen lau urte lehenago Kanadako Louisbourg aldera joan zela Baionatik «le Dauphin» itsasontzia. Ondikotz, Angelesek ontzia harrapatu zuten zeraman gutuneria pribatuarekin. Zorionez, Lamikiz jaunak gutun horiek atzeman ditu eta euskaraz eginak dira, Saratik, Bidartetik, Ziburutik, Donibaneletik igorriak. Adibidez Saratik 1757ko martxoaren bian, horra Martin Durruti aitak zer dioen:

Ene seme maitea eskribatzen darozquiçut bi lero çuri nere berien marcatçeco osasuna dut neure famillia guçiarequin jaincoari esquer eta denbora berean desiratçen nuque çurea hala balitz. Urrunago aipatzen du nola lagun bat corxurat goancen duela hogoi egun Baionatik.

Azkainetik igorri gutunean, Pierre Etchegarayk koinatari idazten dio:

guerlaren aparantzia handia da Baionan eta donibanen badire hemesortszi corsacale untçy istileroan eta corsurat goanac guehiago ezta hemen berse negosiori corsua eta corsua baicic.

Beraz kortsario euskaldunak baziren Baionan. Ez dakigu Vernetek zergatik ez zituen pintatu nahi izan. Erregek taula bat bakarrik nahi zuen Baionaz eta Vernetek biga egin zituen, kortsarioak ez batean ez bestean ez direla ageri. Nahiz galdegina izan zitzaion, ez zuen onartu Bokaleko barra sartzea bere tauletan ez eta ere itsasoa furian galdegina izan zitzaion bezala. Lehen taula pintatu zuen ziudadela gainetik Baionari begira eta bigarrena Boufflers ibilbidetik ziudadelara azpikaldetik so eginez, bi tauletan ardatza Aturri delarik.

Indar-joko harten, Vernetek halere beste molde batez amore eman zion Erregeri, bi tauletan erregeren sinboloa den ziudadelak Baiona atxikitzen ditu eta kontrolatzen baitu. Ageri da Baiona erregeren funts bat dela. Baino



Baionako herriko korporazioari ere kausitu beharrez, Vernetek erakusten du Spainiako atean omen dagoen Baiona hiria ezin hobeki kokatua dela eta baionesen mezu hau igortzen du: Baiona paregabeko komertzio leku egokia da.

Baionesek galdegin zioten Verneti lekuko xehetasun tipikoak erretaulen sartza: oroz gainetik itsasogintzaz eta nolazpait ibaiaz mintzo zaizkigu tillolla, gabarra, «couralin» eta «chilibardon» deitutako ontzietan dabiltzanak edota kulakak arrantzatzen dituzten pertsonaiak. Doi doia agertzen dira bestalde euskaldun bat edo beste, bi artzain, idipare bat, kakoletan ibiltzen diren andereak, eta tupinka deitu jokoan ari direnak. Ororen buru, Baionako hautetsiek esondatu zizkion guziak Vernetek ez zituen onartu.

Bi obra horiek aipatzen ditut erakusten baitigute edozein proiektu, artistikoa izanik ere, bere muga historikoetan ikusi behar dela. Baiona irekia eta erregeri men egiten duen hiria dela erakusten digu Vernetek. Zilegi izan bekit puntu bat

azpimarratza ene irakurketa berezia eginez: Baionako erretauletan ez da agertzen itsasora joateko dei handirik, hemendik urrun joateko aldeko dei handirik. Nahiz ez duen segurki nahitara egin, Verneten Baiona ez da bakarrik partitzeko tokia, eta egoteko toki gisa dela ikusi nahi dut haren obretan.

Zuzen edo oker, urrun edo hurran, ene ibilbidean izan dudan suertearekin badu zerbait egitekorik itsasoari guziz irekia ez den Baiona horrek. Hemengo gazte anitzek bizi izan duten exilioari uko egiteko suertea izan dut. Alabaina, ez dut uste exilioa berez aberastasun iturria dela. Kreatibilitate iturria dela entzuten dudalarik, Edward Saïd etortzen zait gogora: salbuespenak salbuespen, erroak moztea eta oinazea ekartzen dituen exilioa karioegi da. Simone Weil-ekin daukat nonbait erroak ukaitea gizakiaren behar handienetarik dela, nahiz behar horren alde agertzeko uzkurregi garen. Exilioaren alde mintzo dena ez dut uste lausengatu eta balakatu behar denik.

Exilioaren gaitzetatik salbatu nauena, parte bat, abertzalegoa izan da. Hemengo gazte franko bezala abertzaletu nintzen euskaldundu baino lehen. Abertzalegoa deitzen dut populu bati, haren herriari eta mugapeari, haren ontasunari bai erratea eta norberak bere burua harekin lotua ikustea.

*La langue est une patrie*, zioen Victor Hugo Baionan egon ondotik bes-taldera joanik. Nik –eta ni bezalako anitzek– euskara ez jakitea bizi izan dut exilio gisa, eskas eta mengoa gisa senditzeko zorion mikatza izan dugu. Ezagutzen dukezue bada Yves Gibearen eleberri batean protagonista bati gertatzen zaion oinaze famatua: 800 metrotako atleta bat, munduko txapelduna izana, gerlan besomotz gelditu da. Gerlatik landa, berriz entrenatzen hasten delarik, iduritzen zaio hain zuzen besorik ez duen lekuaren min duela. Beste neurri batean, anputazio gisa bizi izan dugu euskara mintzatzeko gai ez izatea eta bakerik ez dugu izan euskara berriz txertatu arte. Lehenik protesi gisa, zurrun eta hotz baina funtzionala. Erakasle onak ukantzen, lehenik Allières jauna, gero Bizkaiko lagunak Jose Luis Lizundia, Rikardo Badiola eta Juanjo Zearreta zena barne, eta gero Mirenkin ezkontzearekin Bizkaian ezagutu ditudan eta joan diren Esteban, Raimunda, Joselu eta Natiri bizkaitar lagun biziak.

Eta euskarari buruz norberak duen aburua ere aldatuz doake. Aski pru-siar nintzela badakit: gogoan daukat ene lan batez Piarres Xarritonek erran

zuena, anitzetan bezala dena ortzantz eta ozpin: *Hori xarlexkeria duk*, aditzeraz eman nahi baitzuen Ikas batasuneko antologia batean bestaldeko testu parrasta bat sakatu nuela hemengoak gutiotsiz. Piarresi barkatu diot ororen buru egia zioelakotz.

Eskas nuen euskara bizia, ahozko euskara ezagutza, ikastea, biltzea, ikerketa. Atlasean partaide izatea paregabeko esperientzia izan dut. Atera den Atlas Linguistikoaren zer den ez dirot zehatz-mehatz aipa. Kontuan har bakarrak luze izan dela. 145 herritan ibili gara eta 400 bat jenderi 3.000 galdera pausatuz, Euskaltzaindiaren altzoan daude angoldurik 4.000 baino orenak, manetofoian harturik. Lekukoek erran zigutena, berriz entzun eta transkriba, bildu datuak antola oinarri informatiko batean, azkenik mapetan eta datubaseetan datu horiek eman irakurlearen eskutan. Teoriaren aldetik atlaskak deus ez du oso konplikatua denik. Bakarrik antolaketa behar du, denbora, langile prestatuak, dirua. Achab kapitainak Moby Dick balea ikustea berantesten baldin bazuen gu ere bageunden ea behingotz Atlasta agertuko zenez. Azkenean aurten atera dira lehenbiziko bi tomoak.

*Izura, jendea pizura* dio erran zaharrak, Izurak bere merkatua zuelakotz. Atlasta argitaratua da eta liburuki bakoitzak ez du arras lau kilo egiten. Zerbait gutixeago. Hainbat hobe. Diotenaren arabera, Jean-Paul Sartren *L'être et le néant* liburua agertu zelarik gerla denboran, Gallimard harriturik zegoen ikustearekin liburua guti baizik ez zela saltzen hastapenean eta gero ehunka: ohartu zen nola etxekandereek filosofia-liburu mardula eta zaila erosten zuten gizonek baino gehiago, eta bestalde ale bakar bat ez zutela erosten baina biga. Nola plomuzko edo berunezko pizuak urtaraziak izan ziren, alabaina laster hedatu zen berria baizik eta pizu haien ordez Sartren liburua erosi behar zela kilo bat zuzen egiten zuelakotz. Non ikusten baita Iturengoko arotzak jarraitzaileak izan zituela Parisen ere eta non ikusten baita zuhur jokatu dugula gure Atlastari pizu makurra eginez. Non ikusten ere gure atlasa ez dela on pizu gisa erabilia izateko. Agian beste bertuterik baduke.

Pisuaz kanpo, Atlastaren obratzea bidaia luze izan zaigu. Soziolinguistikaz axolatzen direnek diote euskarak hiria behar duela eta arrazoin dute. Baiona ez da izan orai arte pisu handiko euskaragunea eta hasi nintzelarik euskara bizia ikertzen beharbada ene haur denborako oroitzapenek liluraturik,

itsasoari bizkar egin nion eta iduritzen zait atlasgintzan sartza errekari goiti joatea izan dela, mendiari buruz. Portua utzirik, bortua hautatu nuen. Bederen borturako bidea.

Erran gabe doa, errekari goiti joateak bere prezioa badu. Baionatik Uztatera urez ibiltzeko bada zirgabide bat, idiek eta zaldiek handik ontziak tiratzeko gisan. Eugène Goihenetxek erakutsi du nola marinelak kexatzen ziren zernahi naza emanak baitziren ur bazterretan arrain atzemateko eta ontziak ez baitziren aise igaiten ahal. Guk ere nazak eta mota askotako trabak ez ditugu eskas izan atlasgintzan. Atlas ontziaren pizua ez dugu beti ongi haztatu eta indarrak ere ez. Atlasgintzak, iraultzak bezala bere umeak jan ditu. Langile guziek gauzak hobeki egin beharrez, gutarteko eztabaidak izan direla ez da segeretua. Halere, Rimbaud-ren *Bateau ivre* ez bezala, gure ontzia ez da sekulan izan guziz abandonatua, Euskaltzaindiak beti furnitu baitu uhaitzean branka atxikiko zuena, J. Haritschelhar hastapenean, Benat Oihartzabal, gero goizegi joan zen Andolin Eguzkitza eta azkenik Adolfo Arejita. Izuran baitago etxe bat Pazientzia izena duena, hara joan gabe gure lau batzordeburuek erakutsi diguten eroapenarengatik eskertzen ditut. Eskifaiako lagunak izendatuko ditut, polizoi edo bidaiai klandestinoez kanpo agian ez dut nehor ere ahantzi: G. Aurrekoetxeaz eta nitaz kanpo, lanean ibili dira Isaak Atutxa, Iñaki Camino, Ana María Echaide, Jose Mari Etxebarria, Irazkun Etxebeste, Jon Irigoras, Juan Antonio Letamendia, Juantxu Rekalde, Koro Segurola, Amaia Jauregizar, Gorka Intxaурbe, Aitor Iglesias eta informatikan, Andoni Unzalu, Iñaki Kareaga eta Erlantz Aristegi. Milesker ere Euskaltzaindiko langileei beti laguntza azkar eta goxoa eskaini didatelakotz.

Atlasaren historia ez dut eginen, haren aurrehistoria ere ez. Guk obratu dugun atlasa egin aitzin, entseguak ez dira guti izan. Badu kasik ehun urte Baiona honetan bildu zirela besteak beste Broussain, Urkijo, Landerretxe, Léon, Gavel eta mozio bat egin zuten erranez behar-beharrezkoa zela atlas linguistikoaren egitea. 1912an gertatu zen bilkura eta ordukotz eskatzen zuten atlas hura egina izan balitz, ez zen Europako atlas berriena izanen, ezen bazuen jadanik hamar bat urte *Atlas linguistique de la France* atera zu-tela Gilliéronet eta Edmontek. Ondotik Mitxelenak, Allièresek, Lafittek, Mixel Mourguiartek, Monique Capdeviellek, Anamaria Etxaidek lan egin zuten balizko atlas baten alde. Frantziako CNRS bere atlas-bilduma hertsen

ari zela eta itxura guzien arabera amets hura zimelduko zen, noiz eta ere gure atlasa indarrean emateko parada ona izan baikuenen duela mende laurden bat. Bi kausa izan genituen atlasaren alde: alde batetik, CNRSko dialektologoen laguntza izan nuen atlasaren oinarrien zutik ezartzeko, gal-dakizuna eta inkesta metodologia bereziki Jean Séguy, Xavier Javier, Jean Le Dû, Gaston Tuailhon, Michel Contini, Marthe Philipps luzaz mintzatu ondoan. Bestaldetik, hegoaldean baldintza politikoak aldatu zirelarik, Atlasaren proiektua onartarazi genuen, Euskaltzaindia buru zela, Eusko Jaurlaritzak lehenik lagundurik, eta bereziki eskertzen dudan Mari Carmen Garmendiaren eskutik. Deban, Donaixtin, Markinan, Uztaritzen, Gasteizen egin genituen bilkurak erabakigarriak izan ziren. Informatizazioaren erabil-pena hastapenetik hautatu genuen eta uste dut gure datu konplexuak sistema informatizatuan sartzea arraskatsua izan dela.

Lanean sartu aitzin ttipikeria batzuk jasan genituen. Lehenik Frantziako administrazioak ukatu zidan mugaz gaindiko langile izateko baimena. J. Haritschelharrek korapiloa trenkatu zuen eta baimena erdietsi. Gero bestaldera joatea debekatu zidaten han pertsona *non grata* izateko ohorea eman baitzidaten eta Jose Luis Lizundiak aski kalipu izan zuen pixelu horren gai-netik igan nendin, berak baimena erdietsirik Ramon Jauregirekin mintzatu ondoan, hura baitzen orduan Madrilgo Gobernamenduko delegatua. Ustez banakien isoglozak zer ziren, aldiz mugaren pisua ongi ikasi nuen.

Azaleko kanbiamenduak jasan ditu Atlasak, beste arazo batzuen oihartzun direnak. Hasteko gure atlasa atlas etnolinguistikoa izanen zela uste genuen, eta aldatua izan zen: hizkuntz-atlasa deitua izan zen, hemengo be-reko hizkuntzalari franko etnografiaren inguruan uzkur direlako seinale. Zer nahi gisaz, bigarren tituluak ere ez zuen iraun. Hain zuzen *Euskal Herriko hizkuntz atlasa* titulua izan behar zena ez zuten onartu proiektua laguntzen zuten hautetsi batzuek eta *Euskal Herri* izena beste batez ordezkatua izan zen argitaratua den liburuak erakusten duen bezala.

Askotan dialektologoa oso empirikoa da eta marko teorikoetan ez da aski ibiltzen. Baino nago ez ote den ere inoxent bere ingurumenari ez baitio aski so egiten. Atlasak izan dituen beste aldaketen artean beste bat aipatu gogo dut. Hain zuzen Atlasa agertu delarik kanpoko aditu batek galdegia zidan

gure mapak nola eginak izan ziren eta zergatik ote genuen marra lodi bat eman probintzia bakar baten zedarriztatzeko. Alabaina irakurleak ikusiko du gure mapak oro mapazola horren araberakoak direla. Hotz-hotzean, fenomeno horrek erakusten du gure atlasa, atlas izenak berak adierazten duen bezala, geografiarekin lotua dela, eta beraz poterearekin. Vernetek ezin hobeki zekiena jakin behar genukeen.

Guk hautatu genuen mapa ereduia izan zen euskaraz mintzatzen diren 145 herrien errepresentazioa ematea paperaren gainean, orografiaren eta hidrografiaren berri eman gabe, probintzia historikoenean muga doi-doia markatuz. Adibidez administrazioaren aldetik Zuberoatik kanpo dagoen Eskiula bere lekuaren kokatua genuen, besterik gabe.

Guk hori mapa mutu deitzen genuen. Ustez mutua, baina gehiegi mintzo omen zen hautetsi zenbaiten arabera. Zedarri berri batzuk mapan ezartzear erdietsi zuten atlasa ekonomikoki laguntzen zutenetarik batzuek. Denborak ematen duen hoztasunarekin, ohartu naiz eskaera hori ez dela guziz usaiaz kanpokoa eta puntu minbera. Alta beste abisu batzuk harturik nengoan aurretik. Alabaina, *ALE Atlas linguarum Europae / Europako atlas linguistikoa* proiektuan, ikusi nuen nolako lanak zitzutzen estadurik gabeko hizkuntzak ikertzen zitzutzen inkestagileek. Lanak bazituzten: eufemismoa baliatzen dut. Urrun joan gabe, Europako atlasarentzat euskarazko inkestak Bizkaian eta Nafarroan nihaurk egitea Allières jaunak galdegin zidalarik, berehala oldartu zen bizi-bizi Manuel Alvar jakintsua, Allières edo ni Bizkaian ibiltzea ingerentzia izanen zelakoan. Atlaseko arduradunek aholkatu ziguten gibel egitea. Baietz erran genuen eta halere inkestak egin genituen Bizkaian eta Nafarroan ondoko hilabeteetan.

Ezen oro har, atlasa mapa da, portulano bat. Eta mapak adierazten due-nari potereak kasu egiten dio. Oraixtian aipatzen nuen Verneten erretaula dela eta, erran dut erregek manatu ziola aski zorrozkiz zer erretaula egin behar zuen. Bainha hain zuzen errege hitza bera geografiarekin lotua dela ez genezake ahantz. Benvenistek erakusten du *rex* hitzak baduela zerbait egitekorik gerekazko *orego* aditzarekin: *orego* da erranikako puntu batetik aitzina zuzen joatea, lerro bat eginez. *Erregione* hitza ere hortik dator: erregek mugatzen duena *erregione* da. Erregek eskubidea badauka bere lurraldea zuzen eta zu-

zenki mugatzeko, eta bere ontasunetan sartzeko. Geroztik, mapa motak aldatu dira, lehenagokoak toponimo zerrenda bat baizik ez ziren gehienez, zeinetan toponimoa bere lorietan baitzen, eremuak mapetan izendatzen eta entzuten baitziren kasik erakutsiak izan gabe. Guk onartu behar dugu gure mapa zola mutua mintzo dela, ezen mapa hori egina den ezaugarri baten arabera, hots euskara mintzatua den eremuaren arabera, beste muga guzien gainetik. Ohartu gara, berant, gure mapetan erregeren edo poterearen pisua ez dela errexki desagertzen, are gutiago erreinu zaharretan.

Ordu da labur bada labur aipa dezadan atlaza zer den. Dialektologiak hizkuntza batean zer aldatzen den ikertzen du, eta beraz ez den aldatzen ere bai. Erraten da badirela kanbiamendu diakronikoak, diatopikoak, diafasisikoak, diastratikoak, diamesikoak.

Diakronikoa da denboraren arabera gertatzen den aldaketa hala nola Etxeparek duela lau mende *norkbait* erratea eta guk *norbaitek*. Atlasak aldi garaiko datuak biltzen.

Diafasikoa da enunziazo-baldintzen araberako aldaketa: hala nola lagunen artean solasean aritza edo konferentzia baten ematea.

Diastratikoa da norberak gizartean duen kokapen sozialaren araberako aldaketa. Alderdi hori gure atlasak bazter batean utzi du, herri bakoitzeko emazteki, gizonki, ofizioko jende anitzekin inuesta egitea luzeegi izanen zelakoan.

Diamesikoa da gaingiroki mintzairia ahozkoa ala idatzizkoa izanez gertatzen den aldaketa. Atlasak ahozko euskara baizik ez du bildu. Ez euskara idatzia.

Atlasak alderdi diatopikoa du ikergai gehienik. Aski luzaz erran dut geografiatik zer daukan: beraz hizkuntza leku batetik bestera nola kanbiatzen den erakutsi nahi du. Baino historiaren arrastoak erakusten ditu nonahi hizkuntza batek eta erran diteke eremu linguistikoa denboraren konzentrazio bat dela

Hizkuntza zer den azaltzeko definizioak ez dira guti. Hizkuntzalari izan gabe horra zer dioen Merleau-Ponty filosofoak hizkuntzaren malgutasuna aski ongi adieraziz:

Hizkuntza zer izan behar da, ez baldin bada, hiztun bakoitzaren inguruan den tresna bat, bere inertzia duena, bere eskaerak, bere bor- txadurak, bere barneko logika eta bizkitartean hiztunen iniciatiba guziei irekirkir dagoena nola gertakari historikoen, moden eta inbasio- en ekarpen gordinei, beti gai dena erranahia-aldaketak egiteko, inga- nio eta liluren egiteko, ordezkaritza funtzionalak biltzeko? Horren ondorioz bere logika osoak amuka dabilanaren itxura hartzen du.

Eta egia da: legebizitza da hizkuntza aldatzea. Sapurren hitza harturik, dotore erakutsi zigun Lurdes Oñederrak *drift* hitzak adierazten duena ez dela teratologiaren munduan sartu behar, hots aldatzea, kanbiatzea ez dela baitezpada andeatzea, bertutea galtzea, hutsal gelditzea. Kanbiamendua kreatibilitatea adieraz lezake, asmakuntza ere. Baino horri euskaldunak uzkur gara, segur aski diglosia garratza hautematen dugulakotz eta inseguritate linguistikoa barna sendi dugulakotz.

Hari beretik kanbiamendu mota bat besterik ez den mailegua Atlasak biltzen du batere arbuiatu gabe. Euskarak omen duen eskasiaren adibide famatua aipatu nahi dut. Gure atlasean galdera badago «arbol/arbre» deitzen dena. Erantzun nagusia *arbola* izan da: Zuberoako *zuhaitza* ageri da eta han hemenka *zuhamu* bezalako erantzunak. Baino beste fenomeno bat agertu da, Koro Segurolak eta Izaskun Etxebestek artikulu batean erakutsi bezala. Atlasak hiru mila galdera badauzka bakarrik. Ez gehiago. Euskaraz bizirik dauden adierazle guziak biltzea ez du xede. Zer gertatu da *arbola* galderarekin? Lekuko anitzek diote *zuhaitza* izena erabiltzen dutela baina moztu eta murriztu gabe handitzeko menturan utzen den arbola mota dela, hots frantseset *baliveau* deitzen dena. Beraz *zuhaitza* erantzuna «arbre» hi- peronimoari ez dagokio. Atlasak horren berri ematen du.

Fede txarrekoa naizela erran lezake norbaitek gogoan harturik Vinson et Unamuno bezalakoek euskararen kontra erabiltzen zuten argumentua ez dela urrun, hots erreality abstraktuagoen izendatzeko euskara motz gelditzen dela. «Le mot *arbre* et les idées générales» deitu artikuluan Vinsonek dio: *Lehenbiziko aldiz, behin idatzi nuelarik idei abstraktuen eta idei orokoren adierazteko euskarak hitzik ez zeukala, euskaltzaleen artean sumindura osoa agertu zen ene ausardiaren aurka* (RIEV, 1919). B. Oihartzabalek ezin hobeki erakutsi du linguistika naturalistaren eskolakoa dela Julien Vinson erudittoa.

Bi ohar hartzet ditu J. Vinsonek. Alde batetik, esanguratsua da ikustea nola Lévi-Straussek hasten duen bere «*La pensée sauvage*» liburua. Euskara hizkuntza gogoan ez dauka baina liburuko lehen hitzak dira:

On s'est longtemps plu à citer ces langues où les termes manquent, pour exprimer des concepts tels que ceux d'arbre ou d'animal, bien qu'on y trouve tous les mots nécessaires à un inventaire détaillé des espèces ou des variétés » (*La pensée sauvage*, 1962).

Hizkuntza horien hizlarien alde jartzen da eta erakusten du Lévi-Straussek *haritz*, *lizar*, edo *urki* hitzak *zuhaitz* edo *arbola* bezain abstraktuak direla. Baina haren arrazoinamendu osoak hemen ez du sartzerik.

Bestaldetik, arbolaren izendapenez Benvenistek egin duen lana ezaguna da. Osthoff jakintsuak erakutsi zuen alemanierazko arbolaren izena etorzen dela indoeuroperezko hitz batetik eta hitz horrek «*haritza*» (ez «*arbola*») bereziki adierazten zuela. Hitz horrek lotura bazuen beste nozio batekin, hots «*fidel izatea*» ideiarekin. Bestela erranez, uste zuen kate metaforiko baten bitartez fidel izatea nolazpait fermu izatea dela haritza bezala. Benvenistek Osthoffen hipotesia aldatzen du: alde batetik erakusten du «*haritz*» *arbola* ez dela ezaguna Europa guzian arrazoin pedologien gatik. «*Arbola*» izendatzeko hitzek bilakaera semantikoa izan dute, hemen «*zura*», han «*arbola*», urrunago «*landare*», adieraziz. Grekoaz bereziki bi hitz erakusten ditu, *doru*, «*arbola*», «*arbolipurdī*», eta «*zura*» adierazten zuena eta *drus* hitza «*haritza*» hertsikiago adierazten duena. Xehetasun gehiagotan sartu gabe, guk atera behar dugun ondorioa da beharren arabera hizkuntzak aldatzen direla eta nozio berriak, hiperonimoak nola hiponi-moak, sortzen direla edo hitz zahar bati erranahi berri bat eman dakiokela edota mailegua har ditekeela. Uste dut *arbola* / *zuhaitza* parea bilakaera horren arabera kontsideratu behar dela eta ez Vinsonen ikusmolde guties-gariaren arabera.

Lagunak badaude Atlangintzak euskara batua laguntzen ez duela pentsatzen dutenak. Egia da Atlangintzaren lana ez dela euskara batua ikertzea ez eta haren oinarriak ematea: baina bariazioa ikertzen baldin badugu, aldaketa ikertzen badugu, erran nahi du nahitaez bi gauza ikertzen dugula, zer den aldatzen dena eta beraz zer den aldatzen ez dena. Egitura ahuletan (lexikoan

edo fonetikan adibidez) ala egitura indartsuetan (gramatikan eta fonologian), aldaketa zertan gertatzen den erakustea, dialektologiaren zeregina da.

Bizkitartean, euskararen barnetik –erran nahi dut maileguen kasuaz kanpo– azken urte horietan agertzen diren kanbiamendu gehienek bateratze aldera joiten dute, hots elgarri hurbilago dira duela 40 urte baino euskaren emateko molde guziak.

Bateratze horren adibide gisa *pimpirina* izena aipatuko dut. Gure auzoherri maitagarrian, erran nahi dut Biarritzen, Vladimir Nabokov idazleak itsasoan mainuak nola hartzen zituen kontatzen du. Jakina da entomologista gaitza zela: nahi zuen bere izena emana izan zekion tximeleta bati eta hori erdietsi zuen. Betiere, ba omen ziren orduan Biarritzen mainuen haritzeko laguntzen zituzten mutil eta langile batzuk, euskaldunak, eta haietarik bati Nabokovek galdegin omen zion «papillon» nola deitzen zen. Mutilak misericoletea erran zion. Nabokov, euskarazko hiztegiak kontsultaturik, ez zen guti alegeratu hitz hori ez zela sekula bildua izan ikusi zuelakotz.

Berantago jin den gure Atlasak hitz hori ez du bildu baina halere mugimendu lexikalaren berri ematen du. Duela 130 urte, Louis-Lucien Bonapartek 80 hitz desberdin bildu zituen *pimpirina* eta *tximeleta* izendatzeko. *Jinko-oilo* hitza 40 herritan bildu zuen. Guk atlasean *jinko-oilo* bizpahiru tokitan baizik ez dugu bildu, hala nola Oztibarre inguruan. Hitz honen eremua murritz da. Gotzon Aurrekoetxeak atlaseko mapa egin zuelarik, aitorrtu behar da fenomeno bat nagusia ez zuela kukutu, Mikel Zarateren *Haurgintza minetan* eleberriko protagonista bizardun batek deitoratzen zuena, erran nahi baita gure leku koek bi erantzun nagusi eman zituztela: *papillun* alderdi honetan, eta *mariposa* bestaldean. Doi-doia erdialdean bildu ditugu *mitxeleta* bezalako forma autookinoak edota *mitxirrika* forma, hain zuzen *Soinujolearen semea-n* Atxagak hautatu duen hitza. Metodologiaren aldetik gehitu behar dut leku koek beren baitarik erantzuna eman ondoan, erabil zitezkeen hitzak proposatzen dizkiegula eta orduan leku koek ematen ahal dutela lehenago erabiltzen edo entzuten zituzten hitzak: *inguma, atsoaren hatsa, ezkabia, txintxitoil* etabar. Seinale da hitz horiek lokartzera doazela ez baldin badira erabiltzen alor konkretu batean. Baina etorkizunaren berri ere emana izan zaigu ezen leku koen haurrek eta bereziki arrahaurrek *tximeleta* eta

*pinpirina* erraten dutela aipatu baitigute. Ororen buru lexikoaren mugimenduari behako bat egiten diogu atlasari leihotik. Kasu honetan, barreiaketa lexikala murriztuz joan da, diglozia dela eta, bi mailegu gordinen onetan, eta berrikitan bi forma autoktono ari dira berriz nagusitzen, politika linguistiko baten ondorioz.

Zerbait erran behar dut inkestagintzaz atlaseko datuak ematen lagundi gaituzten lekukoez. Zuzenbidearen arabera, enregistramendu edo grabazio baten jabea da inuesta egiten duena. Baina zinez gure artxiboen kreatzaileak bi dira, bata inuesta egin duena, bestea lekuko edo jakilea. Lekuko dei-tzen dugu gurekin luzaz mintzatzea onartu duena, baina *lekuko* hitzaren ordez, ekialdean erabiltzen den *jakile* hitza erabiltzea ez liteke gaizki. Beren jakitatearen berri eman digute leku berezi bateko mintzairan. Nehon ere ez da aski agertzen nolako harreman azkarra sortzen den inuestaegilearen eta jakilearen artean, eta nola subjektibilitatea, historio pertsonala, kokapen soziala ez diren pisu gabekoak.

Alderdi praktikoa baizik ez dugu aipatzen gehienik ere, zer manetofoi, zer galdera, zer galdekizun, zer estimuli, nolako lekuko behar den hautatu: lekukoaren aitamak herrikoak direnez amoregatik bertako mintzaira eman dezan, hortzak onak dituenez amoregatik ahoskera ona izan dezan eta beste ezaugarri herti eta gogor batzuk. Gehiegi isiltzen da datuak nola bilduak eta idokiak izan diren edo dialektologo zenbaiten hitza harturik, nola «extorsionatuak» izan diren. Gure inkestak egite badu ahatik polizia inkestarekin: dena galdera, susmagarri zaiguna (soinu bat, lexema bat, egitura bat guk ezagutzen duguna) beste lekuko batenganik bilatzen dugu berretzia izan dadin. Baina inesta egitea askotan aprendizgoa da, zeinetan ezagutzen ez dugun sistema baten ezaugarrien kodea ulertu nahiz baigabiltza.

Zerbaiten eskasa sendi baldin badut atla-sintzari buruz, egunkari bat ez dudala egin aipa nezake. Lévi-Straussen «Tropiko tristea» edo Michel Leiris oharrak edota Malinowskiren egunkaria ez nuen eginen baina damu da beti egunerozko hanat-hunaten eta lanaren aitzinamenduaren berri kronologiko zehatza ez eginik. Clifford etnologoak ez du debaldetan erkatzen bere egunkaria Conraden «Ilunpetako bihotzean» liburuarekin. Hortan huts egin dut baina zinez jakile lagun guziak hemendik eskertzen ditut.

Inkestagintza euskaraz egin da, morfologia salbu, zenbaitek balinbaizioten ere inkestaegilea ez dela indigenoa izan behar. Badakigu euskaldun baten-tzat euskarako hitzek errealite osoa, kontzeptuala nola afektiboa, ematen diotela esperientzia-zati bati. Hori galduko genuen inkesta erdara eginez.

Bilatzen genituen eta nahikatzen genituen erantzunak atlasean daude, sailkaturik, fonetikoki emanik eta mapetan antolaturik. Aski da datu horiei behako bat ematea. Baino ahalaz ez dugu bakarrik hitz hutsa bildu; haren errealizazioaz gain, testuinguru bat bildu dugu, hitz horri buruz jakileak egiten dituen ohar metalinguistikoak edo etnolinguistikoak metatuz. Metalinguistiko deitzen dut adierazleari buruz lekuokoak dioena. Entziklopedikoa deitzen dut adieraziari buruz lekuokoak dioena, hala nola *erlea* hitza aipatzen duclarik, nola jokatu behar duen erlekariak erlumearen biltzeko, edo nola lehen erleak *sohatsi* behar ziren Zuberoan dioten bezala. Non ikusten baita Azkuek bere *Euskal-erri yakintza* liburuan bildu duena guk ere ez dugula baztertu. Erran gabe doa ohar bat metalinguistikoa eta entziklopedikoa izan ditekeela, hala nola erraten dutelarik zuzen ala oker *sagarroi* deitu ugaztunak (bestaldean *triku* edo *kikiriño*) sagarroiak, beraz, sagarrak ziztatzen diuela bere umeei eramateko!

Motibazioaz mintzatzeko astirik ez dut baina adibidea emanen dut. Bada ihize ttipi bat bestaldean *ziraun* deitua eta iparraldean *suge-itsua*, *sügütsü* eta *sugemutu*. Iparraldeko izendapen horiek motibatuak direla ezen *suge-itsu* hitza entzuten duclarik *suge* eta *itsu* nornanik berehala bereizten eta ulertzen baitu: ez du importik animale ttipi hori *suge* ez izatea ez eta ere *itsu*. Hizkuntza, funtsean, konbentzionala da. Ezaugarri horiek emanak izan zaizkio noiz-bait sugeitsuari eta izendapena hortik gelditu zaio. Interesgarri dena da motibazio berdintsua ageri dela ondoko hizkuntza gehienetan eta fenomenoa ikertu behar liteke Europako kulturaren historian: beste hizkuntzetan ezagutzen diren motibazio berak zergatik erabiltzen ote ditu euskarak, nahiz euskaraz egituraz oso desberdina den?

Gerta diteke narrazio etiologikoa eta motibazioa loturik egotea. Delako *suge-itsua* zergatik *itsua* den ondoko narrazioak azaltzen du, Urdiñarben bildua. Diote, mundua kreatu zuelarik, *sügütsü* honi *Jinko hunak galthatu zoola hola eta: – Hik usukiko dük? – Bai, atzamanak oro! – Ah bai? Ordian bista elkhi-*

*tzen deat ja atzaman ehezan ihû e!* Non ikusten baita itsu gelditzea Jainkoaren gazzigutik etorri zaiola. Bainan *sugeitsu* forma motibatua erabiltzen ez den eremuan, hala nola Bizkaian, non *siraun* erabiltzen baita, egite handiko narrazioa ere bildu da. Bakioko lekuoak dio: *Honek bisdie baleko, kalte andixe eingo leuke.* Eta Sondikako lekuoaren arabera, horrela mintzo zen *sirauna*: *Itzue nasen moduen banintike argie, nik akabauko neuke munduen erdie.* Beraz Zuberoako *siütsiüa* bezalatsu, *siraun* izendaturik ere eta bizkaieraz.

Ber ildotik, okiloak, beleak edo aphalatzak idortea edo euria zergatik iragartzen duen azaltzen dituzten narrazioak eman dituzte lekuoek. Bildutako narrazioek parada ematen digute Alineiren eta Proppen lanak berriz bisitatzeko. Entseatu naiz testu horien bertsioak biltzera eta haien erranahi anitztuna bilatzen. Meldua eta oro har ezkontzari buruzko narrazioek era man naute Pierre Bourdieu Biarnon ikertu zuen mutilen estrategia matrimonialaren mundura edota Vernantek eta Detiennek aitzinateko mitologiaz egin lanetarat. Idortea ala euritea markatzen duten hegaztien narrazioek etnolinguistikaren alorretan sarrarazi naute. Agian barkakizun izanen zait, jakinik bide horietan Euskaltzainburu izandako Azkue baten lanetatik ez naizela urrun ibiltzen.

Galderak gaika etortzen baitira, meronimoak biltzen dira eta gure galde rez gain beste hitzik ageri da, bereziki taxonomian: haritzen izenak zein diren jakin eta, *arrai* izena ageri da Oztibarren, edota hegazti harrapakari den *xahal-kakoia* Altzürükün (zein den ez dut identifikatu), edota *behien bideko ande(re) xuia* Santa Garazin. Horiek guziak tratatzeko izanen dira hemendik goiti.

Azkenik, *mitxeleta*-ren kasuan aipatu dudan bezala, gure inkestagintzak baliatu du etnografian eta lexikografian ezaguna den proposamenen metodologia. Lekukoak ematen dituen erantzunez gain, kanore duketen beste erantzun batzuk aipatzen dizkiogu eta lekuoak ezagutzen ote duen erraten digu guk kodifikatu dugun sailkapen informatizatu baten arabera. Sailkapen hori hain usu eta sarri da non lan monografikoa eskatuko duen proposatutako hitz horiek barnetik ikertzeak.

Ez da joko mapa batez hemen mintzatzea mapak ikusi gabe. Jadanik Ver neten erretaula aipatzeko ausartzia izan dut erretaula bera erakutsi gabe.

Erran dezadan mapagintza aski berria zela asmatua genuelarik, duela 20 urte. Gaur dialektologo anitzek onartzan dute haren ekarpena. Erantzunak ez ditugu batbedera idazten herri bakoitzak mapan duen eremuan: aitzitik, elkarri hurbil diren erantzunak multzokaturik ematen ditugu eta koloreak ere erabiltzen ditugu; itxuraz urrun diren erantzunak kolore hotzek bereizten dituzte eta aldiz elgarri hurranekoak kolore beroetan emanak dira. Mapa guziak onomasiologikoak dira. Adibidez belar epaiteko ohiko tresna nola deitzen den (*dailu, sega, kodana*) erakusten du mapa batek. Aitzitik eta liburuki guziak argitaratuak ez direno, mapa semasiologikoak ez ditugu emanen, adibidez *soho* zer den erakustea, hemen belarra ematen duen lur-peza (*Nafarroa Behereko pentzea*), han bigarren belarra (*Zuberoako ardailla* eta *Bizkaiko bibedarra*). Azkenik gure mapak ez dira kumulatiboak eta dialekto-metria (Séguy, Fossat, Goebel eta G. Aurrekoetxea) ez dugu oraindik erabili.

Erregeak, geometroak, dialektologoak, hesia handitzera uzten duen labortariak, denek badakite lerro mehe baizik ez dena eremu nasai bihur diteke-ela. Adibidez «pulga/puce» galderan, ikusten dugu hiru forma nagusi bilduak izan direla. Alde batetik *kukusoa*, eta Bizkai aldean *ardia*. Bi hitz horiek elkar jo egin dutelarik hirugarren hitz bat sortu da, hots, «ardi-kukusoa» edo konposizio-legeak eskaturik, *arkukuso*, erdialdean hedatu den hitza. «Hedatu» diot zeren gure mapak, argazkiak izanik ere, mugimendu lexikala erakusten baitute.

Beste galdera batean, «dimanche/ domingo» galderan, ezaguna da *igande* eta *domeka* erabiltzen direla: gure mapak erakusten du bi hitz horiek ez dutela elkar ukitzen, bi eremu artean agertzen baita *jai* hitza. Xerrenda bat baizik ez du marrazten *jai* erantzunaren eremuak eta badakigu eremu hori handitzera ez doakela.

Alde hortatik atlaseko mapek balio heuristikoa badute. Egia da, jadanik genekiena baizik ez dute erakusten mapa zenbaitek. Maileguen kasuan age-ri da adibidez. Iparraldean «bécasse» adierazteko *bekada* baizik ez da erabiltzen (haatik Zuberoan ez, *azaia* erraten baita) eta *oilagor* hegoaldean (*oilagor* «gallina sorda»-rekin eratzeko den kalkoa). Ber ildotik, «caille / codorniz» deitzeko iparraldean *kalla* baizik ez da erabiltzen. Aldiz bi hitz badaude He-goaldean: lehenik *galeper* hitza, motibatua ezen garian, ogietan bizi den eper

bezalako txoria baita eta azkenik Bizkaian izendapen mimologikoa. Mimologikoa zeren eta han txoria deitzen baita egiten omen duen mintzoaren arabera. Bizkaian txori hori «*pox pox poxpolin pox pox polin*» kantuz ari omen da eta *poxpolin* deitua izan da.

Atlaseko mapek erakuts lezakete euskara hunkitu duten hiru mintzairen eragina ez dela beti uste bezain simplea. Ezaguna da Iparraldean *zura* eta *egurra* ezin hobeki bereizten direla, non ez duten *mairana* hitza gehitzent lekuko anitzek. Aldiz frantseset «bois» hitza baizik ez da erabiltzen, «bois de chauffage» eta «bois d’œuvre». Baino gaskoierak *légne* eta *hust* berezten du nola gaztelerak *leña* eta *madera* berez atxikitzen dituen. Baino gure erantzunen arabera, hitz autonomo gisa, *zur* hitza ez da gehiago erabiltzen Hegoaldeko herri askotan. Gainera beste fenomeno sorrera baten berri ematen dute gure mapek: lekuko batzuek berriztatu dute bi adierazien arteko oposaketa beste hitz bat asmatuz: «*madera*»-ri doakiona betiko *egurra* da eta «*leña*»-ri doakiona *su-egur* hitz erdi motibatua. Alde hortatik erdaren eragina ez dela beti hain mekanikoa erakutsiko du Atlasak.

Lekukoen diskurtsoak, diskurtso guziak bezala aitzineko diskurtsorik gabe ezin dira ulertu. Ogia etxen egiten zelarik, ez zen aste oroz dena ore berritik egiten: orean undar asteko altxagarria baliatzen zen. Diskurtso bat osatzen duelarik, lekukoak ez ditu diskurtso guziz garbiak eta berriak egiten: nahasiak (hitza ez da gutiesgarri), urdinak, ñabarraz dira. Gehiago dena, lekukoak antolatzen dituen diskurtsoetan, bere burua hurbil edo urrunago ezartzen badaki. Montoriko adibidea emanen dut puntu honen gainean.

Montorin lekukoek hiru seismo edo lurrikara mota aipatu zituzten gure inkestagintzan: mitoekin eta historiarekin loturik dira. Horra zer diren hiru lurrikara horiek.

Lehena kontatu zidan lekuko batek. Gure lurra, gure planeta ezarria omen da idi handi baten gainean. Artetarik euliek eta ezpareek nardaturik, idia burua inarrosten du bortizki eta hortik jiten dira lurrikarak. Lekukoak hori erran eta, erran gabe doa oroitzarazi zidala Barandiaranek eta etnografoek jadanik bildu mitoa. Mitologian ezaguna da Atlasa zer den: Jinko bat omen da zeruko bi zutabeak atxikitzen duena. Ez nakien orduan gure atlas linguistikoak ere inarrosaldiak izanen zituela bere historian.

Bigarren lurrikara ere kondatu zidaten eta hurbilagotik sentitu nuen, ni-haurk ene adineko anitzek bezala gogoan baitugu 1967an izan zen lurrikara. Ez naiz ari 1968ko maiatzeko mugimendua baina agorrilako 15ean izan zen mugimendu telurikoaz, Ereta eta Montori inguruan izan baitzen haren epicentro<sup>1</sup>. Ohar enziklopedia asko eman zuten, hala nola iturri franko nola agortu ziren, edota zakurrek nola iragarri zuten lurrikara.

Iragartzen ez nuen hirugarren seismoa ere kontatu zuten beste egun batet. Montoriko artzainak bestaldeko artzainekin bortuan erdi gaztelera, erdi aragoieraz mintzo zirela erran ondoan, aipatu zidaten nola bestaldeko artzaineak zorion bereziak eman zizkieten: *Vascos, amigos, hermanos*. Zein ote zen, bada, amultsutusun horren arrazoina? 1970eko Eguberri inguruan, Montorin egon omen zen gizon bat bahitua, eskapatzer zena, gero Alemania libratua izan zena. Gertakari horrek Euskal Herrian izan zituen ondorioengatik seismo gisa sendi dute Montoriko jendeek.

Badakit hiru gertakari ez ditezkeela nahas: diot hirurek erakusten dutela leku koen diskurtsoak guziz sartuak eta errotuak komunitate batean, bere sineste, oroitzapen eta egitate guziekin.

Atlaseko inkestetan gauza desberdin anitz bildu dugulako seinale, hitzaldi hau idazten ari nintzelarik, dudan egon naiz ondoko historioak hemen sartzerik ba ote zuen. Roland Barthes-k ganberaren historio kulturala egin behar litekeela aipatzen du, ganbera leku intimoa edo altxorlekua izan delakotz Europako historioan. Kontatzen du Ahurtin, Euskal Herrian, aita-men ganberako armarioan balio handiko gauzak nola zerratzen ziren, dela familiako paper zaharrak, dela zilarrezko koilarak, dela argazkiak edo dela... konfiturak. Kontatzen du ere nola bere balio handiko gauzen artean beste zerbaite atxiki zuen Barthes-k berak. Eria zen eta pneumotorax bat izan zuelarik medikuak sahets-hezurretik puska bat kendu zion ikerketen egiteko eta gero hezurki hori eman zion Barthes-ri, erranez: *Atxik-azu, zurea da*. Honek medikua sinetsi eta berea omen zuen puska bere beste puskekin

<sup>1</sup> Xabier Elosegi adiskideak ondotik ohartarazi didan bezala, Montorin gertatu lur-ikara 1967koa da eta ez, nik erran bezala 1968koa; non ikusten baita izagana antolatu nahi izan duela ene memoria maitzurrak.

luzaz begiratu zuen; azkenean, okaztaturik, hezurki hura lehotik aurtiki zuen, karrikan zebilen zakur baten zorionerako. Eta gertakari honen inguruau ohar filosofikoak gustuan garatzen ditu gure baionesak.

Testu hori ez nuen ezagutzen Montorin ondoko historioa bildu nuelarik. Gure atlaseko galdaizunak badu galde bat jendeak ehortzen diren tokaren izena biltzeko. *Hilherriak* da erantzuna, pluralean emana, Iparraldeko herri gehienetan. Lafitte irakurri eta, *ehortzi* hitza jendeaz ala abereez bakarrik erabiltzen ote den galdegiten nuen. Baino hizkuntzaz kanpo, lekuoko komentatzen zuten edo bere burua egiten zuen jendearen gorputza elizatik ez zela pasatzen edota bataiatu gabeko haurrak ezin zitezkeela eman lur sainduan. Montorin, beharbada Eskiulako Hagola kantari famatuak besoa nola galdu zuen aipatu ondoan, kontatu zidaten lagun baten duda: laborari batek galdu besoa ea hilerrieta edo beste nonbait sartu behar zuenez ez omen zekien. Eta ondoko pasadizoa eman zuen gure lekuokoak: auzo bat belarra epaiten ari zelarik, mekanikako burdinak erhi punta kasik osorik moztu zion. Erhia odoletan zuela, zer egin zuen? Ganibeta hartu, dilindan zuen erhi punta brau guziz motz eta zakurra deitu: *Sumis! to hire!* eta zakurrari eman. Istorria gordina dela badakit: Barthes filosofoak ez zakien ezurkia jan zion zakurraren izena, Montories laborariak bai baina, oker ala zuzen, bi gertakarien arteko paralelismoa ikusten dut.

Gordintasunaz kanpo, aipatu nahi dut bidenabar gure lekuokoak ideiak, gogetak, informazioa nola harilkatzen dituzten: ideien multzoketa hori, erdaraz «association d'idées» delakoa, frankotan agertu zaigu. Bastidan konparazione, Henriette Etcheverry lekuokoak erran zidan artoa ona zela aingiren atzemateko! Ni harriturik nengoentzat eta azaldu zidan nola aingiren harrapatzeko ur bazterrean kordelak ezartzen diren, ahalaz ez bistean, eta artoburu bat lurrean uzten den seinale isil gisa,biharamun goizean kordela non hedatua den berehala ikusteko. Hortik artoaren eta aingiraren artean lekuokoak ikusten duen soka. Nahiz ez ditudan berehala konprenitu, gogoaren bide gorde horiek, beren barneko logika dutenak, Lévi-Strauss batek «pentsamendu salbaia» edo «basa» deit lezake dudarik gabe. Eta «salbaia» erratea ez zaio hitz iraingarri.

Luzaz obratu nahi izan dugun Atlasa argitaratzen ari den neurrian, Unamunok zioena datorkit burura: *Hitzezko gizakiek lehenik eta behin gauza bat*

erraten dute, gero hura pentsatzen dute, eta azkenik hura egiten dute, emaitza onala tzar izan dadin. Guk ere horrelatsu jokatu dugu. Aspaldian Oztibarren tesia egin nuelarik, azpititulua eman nion: *Ahozkotasunaren artxiboei ekarpena*. Tituluak zer eskatzen zuen sobera izartu gabe. Nonbait urte parrasta bat igatekoak ziren behin ene buruari erranikakoa egia bilakatu arte.

Baionako Delay mediku idazleak Frantses akademian sartzeko egunean Ionesco idazlearren alde mintzatu beharra zen eta haren zitazioa ekarri zuen: *La philologie mène au crime*. Euskarari batzueta ostikoak ematen baldin badizkiot ere, euskara ez bide dut echo: zilegi bekit azken hitza ematea filologoen alde.

Diot ahozko euskararen artxiboetan sartzekoak direla atlaseko inkeste-tan bildutako elkarritzetak. Artxibo diren aldetik ez dira gutiz mozturik eta eiharturik dauden enuntziatuak. Noizbait eta nonbait bilduak izan dira : bilduak izan direneko aroko istoriak, istoria globalak nola lekuo bakotzaren istoriak diskurtsoak emokatzen dituzte. Eta filologia –dialektologia barne– artxiboen ulertzeko eta interpretatzeko diciplina da. Erranikago garaia edo denborako dokumentuen ikertzeko tresnak furnitzen dizkigu. Filologoaren lana da erakustea hizkuntza eta historia nola lotuak diren elkarri. Hizkuntza ez dugu uste tonarik gabeko izaitetxe bat dela. Eta filologoari historia ez zaio ondarkin edo zikinkaeria. Hizkuntza bere komunitateak bizi duen arotik ez diteke berez atxik. Alde hortarik, filologoek badukete zer erranatlaseko datuez.

Ez da abagune Atlasaren programazioa osoki emateko ondoko urteetako. Hemendik aitzina badate lan. Lehenik eta behin beste 8 liburuki atera beharko du gure lan taldeak.

Gure atlaza kontsultagarriago bilakatzea pentsatu beharko dugu. Kanpotik laberinto baten itxura badu eta haren barnean dauden objektu linguistikoak molde eskuragarri batez eman beharko ditugu. Xehetasun bat: kanpotik entzun dugu gure atlasak erdarazko siñaletika ere merezi lukeela: gaur euskara baizik ez derabil atlasak eta erdaldun interesatuen deia kontuan hartu behar genuke. Beraz, datuen antolaketa malgutu beharko dugu.

Bildutako materiala zehazkiago ikertzeko dago. Atlasak mapen bitartez hautatu duen datuen aurkezteko moldea, molde bat baizik ez da eta beste

molderik balia ditekeela onesten dugu. Tokia eman behar zaie beste hurbilketak horiei. Eta gaurko dialektologian eta gaurko hizkuntzalaritzan garatzen diren norabide berriak ez ditugu arrotz utzi behar.

Erantzunetan eta mapetan beretan agertzen ez den materiala aski handia da lan monografikoak bultzatzeko, bai herrika, bai gaika, hizkuntzaren nola entziklopediaren aldetik Tratamendu automatikoa bultzatu beharko dugu ere dialektometriaren ekarpenak erabiliz. Baino uste dut ere datuen kopuruan lekuo bakoitzaz dela aski agertzen eta lekuoaren idiolektoa hobeki ikertzeko dela, bere nortasuna, bere ezaugarriak itzalean ilaundu gabe.

Arrazoin osoz, erraten da ahozko mintzairak kontuan hartu behar dela eta gizartea haren balioa handia dela, pedagogian ez dela aski aipatzen, hizkuntzalaritzan pizu handia hartze lukeela. Erraten da baina guti ikertua jarraitzen du. Bizkitartean ez ahantz, gure atlasa liburu bat dela, beraz idatzia dela baina Euskaltzaindiak bere sabaian altxorra badaukala, hots ahozko dokumentazio gaitza, 4.000 oren baino gehiagokoa. Bere funtsari esker jakitatea eta ezagutzea haziko direla uste dut.

Lévi-Straussen *Tropiko goibekak* aipatzen nituen oraixtian: nik ere «goibel» hitza erabil niro, lagundu gaituzten jakile franko joan direlakotz betikotz eta haietan batean euskara mota bat, gaur arras bera izan ez ditekeena. Garaiko monumentu baten arrastoak bildu ditugula iduritzen zait, horrek ekartzen duen joandako denboraren nostalgiarekin.

Sor ditekeen goibeltasun horren kontrako joerarik hoherena ez ote da bildutako altxorra eta artxiboa ez uztea lo eta haren baliatzea gaurko euskaldunen onetan. Zirgan ibili ginela erran dut eta hemendik aitzina ere indarra beharko dugu. Gu honaino etorri gara, beste urratsak egiteko prest. Euskaltzaindiaren ahalak berme izan ditugu orai arte, eta Euskaltzaindia eskertzen dut. Uste dut laguntza erdietsiko duela gure Akademiak euskaldun jendeak bihotz onez eta jakitate handiz eman digun altxorra bihar etzi baliagarri izan dakion euskaldun orori.

Erran dut.



# Koloreen abezedarioari jarraikiz

OIHARTZABAL BIDEGORRI, Befnat  
Euskaltzain osoa

Baionako auzapez jauna,  
Euskaltzainburu jauna,  
Agintari Jaun-Andereak,  
Jaun-andereak,  
Euskaltzain lagunak.

## A beltza, E zuria, I gorria, U berdea, O urdina: bokalak Noizbait kontatuko ditut zuen ezkutuko sortzeak

Ez zakizut, adiskidea, frantses letretako irakasle zinen denboran, ikasleei, Arthur Rimbaud olerkariaren poemak erakusten ote zenizkien, eta *Bokalak* deitzen den sonetoa aztertzen ote zenuen haiiekin; dakizun bezala, hartarik atera baitira bokal koloratuak bihikatzen dituzten hitz horiek. Halaber, ez zakizut, Rimbaud-ek, egiazko sinestetek bezala, bokalak koloretan ikusten ote zituen, ala letron eta koloreen arteko lotura horiek bere poeta irudimenearen bidez sortzen ote zituen. Nola ere baita, euskalgintzako zure ibilbidea hemengo jendarteari aurkezterakoan, beldur bainintzen kronologiak terrena aire bat emanen ziolaene solasari, pentsatu dizut menturaz laguntza eska niezaiokeela olerkariari, hark eskaini ereduaren arabera josiz, ele hauek arinagoak, agradosagoak ere beharbada, izan dakizkien hemengo entzuleei.

Zure hitzaldian leku bat Baiona, eta lan bat, ohiko euskal hizkeren atlasa, aipatu dituzu oroz gainetik biek toki berezia baitute zure gogoan

eta bihotzean. Ordea, baitakit besterik ere badela aipa zenezakeelarik egin gabe utzi duzunik, olerkiko bost koloreak bokal abezedario gisa baliaturik, honako bidean zuretzat munta izan duten beste izen batzuk eka-rriko ditizut plaza honetara. Esperantza dizut gisa horretan hobeki jakinen dutela egun gurekin batean bildu diren beste euskaltzain eta adiskideek, zein bidetarik ibilirik heldu izan zaren hemengo jendartekora eta azken bokalera heltzean, puska bat handik, beste bat hemendik, bat-bederak euskaltzain berriaz kolorezko irudi bat osatzen ahalko duela. Goazen bada.

## A, beltza

Olerkian aipatzen den lehen kolorea beltza duzu, eta kolore izen hau ardura euskaldunek, dakizun bezala, ez dizugu erabiltzen gauza onik seinalatzen duten ingurumenetan, adibidez, mesfida ohi gaituzu xede beltzak dituenaz, eta halaber, egun beltzek ez ohi zigutezu oroitzapen onik gogoratzen.

Bokalen olerkian, Rimbaud-ek *a* letra, hain zuzen, beltz-beltza ikusten zizun, *ustel gose diren euli hastial batzuen idurian*. Aitzitik, beste zenbait sinestetak bestelako kolorerik eta sentipenik lotzen ziotezun frantsesaren *a* bokalari. Entzun, adibidez, Ferdinand de Saussure hizkuntzalariaren lekukotasuna: *Frantsesean a, a bokala, zuhaila da, horiaren aldera ere hurbiltzen delarik : gai trinko batez egina da, nahiz ez den lodia ; joa denean aise kraskatzen da, hala nola koadro batean tiratua den paper batek egiten baitu.*

Goiz honetako zure abezedario berezian, bi izen zakarzkiguzu *a* bokalak, ez batak, ez besteak, ez baitigu Rimbaud-ek aipatu belztura hura gogoratzen: *ez agot izenak, ez eta Allières jende deiturak ere, horiek baitira orain elepide emanen didaten bi hitzak*. Has nadin lehenbizikotik.

Ez dizu aspaldi jakin dudala, zuhaurk oharkabean bezala salaturik, aita-ren aldetik segurik, *agot etorkia* duzula. Alabaina, zure aitatxi, Eugenio Vidgain, Erratzun sortua zuzun, Bozaten, agoten auzoan. Beharbada agoten markari ihes egiteko esperantza gogoan, Elbetar gazte batekin ezkondurik,

muga iragan zizun, eta Alduden zenbait urtez gelditu. Han, Alduden, sortu zuzun Paul, zure aita, buraso gazteak etxetiar ziren eiheran. Zorigaitzez, hona heldu eta, franko laster hil zuzun Eugenio, Aldude utzirik Azkaraten zelarik, 1919an, eritasun batek eramanik.

Baztandar etorkiz, aldudar sortzez, azkaratear haur adinean, azkenean, gaztarora heltzean, baionestu zuzun zure aita. Ezkondu ondoan ere, hiri honetan biziko zuzun gero, ofizioz tindari izanik, Mailuxa zure amarekin batean, zu eta beste hiru seme-alaba, zu baino gazteagokoak altxaturik. Zuk ere, zure aldian eta zure moldean, aitaso hark bezala, muga iragan zenuen, kontrako bidetik haatik, eta nafar mendietarik harago, Bizkaira joanik. Denbora guti egon bazinen ere, han, Berrizen, zenuen Miren, zure emazte beharra, ezagutu.

Ikasle gaztea zinenean, Frantses hizkuntzaren historia harekin ikasi baitzenuen Tolosan, sekula kontatu ote zizun Allières-ek frantsesezko *ladre* hitza, Larramendiren arabera, euskarazko *lander* hitzetik heldu zela, hain zuzen, euskaldunek, agotetz mintzatzuz, hitz hori erabiltzen omen baitzuten?

Ez dizut uste nehor beltzurika plantatuko den hemen, *Jacques Allières*-en izena entzutean, eta bidezkoa zuzun, nik uste, ihardespen honetan gogora nezan, hura izan baitzen euskalaritzako bideetan hastapeneko ikerlanetan gidatu zintuena. Alabaina, 1982an, hura zuzendari zenuela egin zenuen zure lehen ikerketa, Alfonsa Rodriguez jesuitaren idazlan baten 18. mendeko euskarazko egokitzapena aditzaren aldetik azterturik.

Pentsa zaitekezu, delako liburua Bonapartek ekialdeko baxenabarrera deitu zuen euskalkian idatzia zelako hautatu zenuela ikergai gisa, hitz batean, zuk gaztean bereziki entzun zenuen mintzamoldean emana zelako, eta, beraz, hango ohitzaren arabera, osoki zukako mintzoan. Hain zuzen, nahiz enea ez dudan zukako solasketa hura, hartaz baliatzen nauzu orain zuri ihardesteko, egun holako ekitaldi batean entzutea laketuko zaizulakoan. Eta barka, zuk gaztean bezala doi bat prusianoki, euskara batuaren pleguak ematen baitizkiet zuk idazlan hartan hain hurbiletik ikertu adizkera eder haiei. Euskaltzain izateari datxizkion kargen barne dituzu holako beharki-zunak!

## E, zuria

Bokal koloratuen olerkiko birden kolorea zuria duzu, Rimbaud-ek *e* bokalarekin lotzen zuena, hots, Astarloarentzat urguritasuna eta eztitasuna adierazten zituen letrarekin. Mardo, laño, nahiz bere izatean tieso, gogoan dukezu goiz honetako abezedarioan *e* letrak dakarkigun oztibartar poeta. Asmatua dukezu nortaz ari naizen: Manex *Erdozaintzi-Etxartez*, bistan duzu.

Letretako estudioen egiteko Tolosara joan eta ezagutu zenuen zuk Erdozaintzi-Etxart, han baitzegoen orduan Akitaniako Frantziskotar gazteen arduradun. Nahiz ez zuen oraino lanik argitaraturik, bazizun hamar bat urte hasia zela olerki idazten, gero *Hinki-hanka* izenburuko liburuan argitaratu baitziren haietarik batzuk.

Zu gazte-gaztea izanik oraino, harekin euskal mundu zabalago baten ezagutza egin zenuen, ber denboran Euskal Herriak bizi zituen minei ere ohartuz. 1968ko gertakarien garaia zuzun, laster Europa guzia asaldarazi zuten Burgosko auzia, eta honen ondokoak, gertatzekoak zitzuzun. Nahasmendu garaiak batzuentzat. Jazarpen eta esperantza garaiak beste batzuentzat, Europa guzian, eta Euskal Herrian ere bai, zuhaur ere, Manex bere moldean bezala, jazarle haien gogaide zinelarik.

Baduzu, *Populu bat xutik* izeneko olerki bat, Manexek, zu harekin zenbiltsan urteetan, idatzi zuena, ondoko urteko gertakariak bideratuko zituen giro utopiazalea gogo kartsu eta zabaleko euskaldun baten ikuspegitik, aitzinetik itxuratzen duena. Fedezko esperantza eta lotsa zerbaite ere ageri duzu haren hitzetan. Haietarik batzuk gogora ditzadan: 1967koak dituzu, zuk hogei urte zenituen:

*Munduko gorabeheretan eta gertakarietan  
alhatzen dut izpiritua.  
Eta nahi dut barnago sartu  
Sortzen ari den mundu honetan  
Atzokotik sortzen ari den mundu honetan.  
Halako herabe batekin haatik  
Ezin dezakegulakotz aitzinetik erran  
Nolakoak izanen dituen bere aztura eta molde berriak.*

*Holako herabe batekin haatik  
 Baino ere bozkarioetan  
 «Esperantxetan»  
 badakidalakotz mundu berri bat sortzera doala!  
 Eta nere baitan sumatzen dut  
 Kitzi-kitzi  
 Euskaldun berri bat sortzen  
 Euskal populu berri bat itxura hartzen:  
 Europen!  
 Munduan!*

## I, gorria

Hiru kolore baizik bereizten ez diren mintzairetan, beltzaren eta zuriaren ondoan, gorria agertzen omen duzu. Hala ziozu Joseba Sarrionaindiak kolorreeraz egin dituen zenbait gogoetatan. Piarres Larzabalek ere baziozun hiru kolore horiek, kolore kardinalak gisa batez, euskalki guzietan hitz berak erabiliz adierazten ditugunak, eta gure toki eta etxe izenetan maizenik aurkitzen ditugunak, direla euskal etorkiari barnenik lotuak direnak. Bada, beltzaren eta zuriaren ondotik, gorria duzu Rimbaud-en olerkian izendatzeten den kolorea ere, hark *i* letrarekin lotzen zuena.

Zure abezedarioan, *i* letraren bidez ateratzen zaidan hitza IKAS duzu: aditz bat. Aditz bat, gure artean maiz gertatzen den bezala, gero elkarte-izen gisa ere baliatu izan dena aspaldi.

1980 arte, zure ibilbidearen lehen partean, elkarre hartan bereziki lan egin zenuen, eskoletako euskararen irakasbidez arduraturik. Zu, alde batek, Baionako ikastetxe bateko irakasle izanik, eta beste aldetik, IKASEko idazkaria, hurbiletik ezagutu zenituen mundu hartako nekeziak eta trabak. Lankide zenituen orduan, besteak beste, J. Haritschelhar, geroxeago Euskaltzaindiko lanetan eta unibertsitatekoetan ere atzemanen zenuena, eta Manex Goyhenetche, idazkari ardura zure ondotik hartuko zuena IKASen, eta egun, den lekuaren delarik, hemengo euskaltzale anitzek bihotz zimiko batekin agurtzen duguna.

IKAS elkartean lan eginez, zuzenean parte hartu zenuen urte haietan euskararen inguruan sortua zen gizarte mugimenduan, baita, Pizkundea ize-neko batasunaren bitartez, mugaz alde honetan, euskal kulturaren munduaren egituratzeko egin ziren lehen entseguetan ere. Baino 80ko hamarkadarren hastapena zuzun, eta orduko hasia zinen ikerketa lanetara buruz itzultzen, dozena bat urte geroago utzi Tolosako Unibertsitatera berriz abiatuz, eta han Allières berriz atzmanik. Unibertsitatea ordea, ondoko kolo-rearen aipagaia duzu, eta berehala hartara jauzi eginen dizugu.

## U, berdea

Kolore hori berdea duzu, Rimbaud-ek markatu bidetik joanez, *u* bokale-ra garamatzana.

Berde izenak, hemen aipatzen ditugun beste kolore izenek ez bezala, latin etorkia agerian dizu. Haren ahalgez edo, Bizkaian, Sabino Aranak, ahal bezalako analogia bat esker, *orlegi* hitza asmatu zizun haren ordezkatzeko, eta hemen gaindi, beste batzuek, Etchepare medikua bide erakusle izanik, *musker* hitzaren erabilera ber helburuarekin hedatu zitezun. Kolore honek, hitz batean, jakintsu aire bat badizu gure artean, eta ezin hobeki heldu zaio-zu *u* letrak ekartzen digun *unibertsitate* hitza, zure abezedarioan, nola ez, agertu behar zuena. Alabaina, Pauko eta Aturrialdeko Unibertsitateko irakasle, Frantziako Unibertsitateetako kontseiluko kide, eta honen barnean, hain zuzen, eskualdeetako mintzairak eta kulturak biltzen dituen batzordeko lehenburua izanik, ez zitekezun bestela gerta.

Ez dizu aspaldi euskal ikasketetan unibertsitateko ikaskintza-titulu guziak ematen direla Frantzian. Hogeい bat urte doi-doia, eta zuhaur ere orduantsu sartu zinen unibertsitatean. Denbora hartan, Jean-Baptiste Orpustan eta Txomin Peillen ziren unibertsitateko euskal ikasketen arduradunak. Zen-bait urteren buruan, zuk eta Aurelia Arkotxak hartu zenuten ardura hori, zeinek bere unibertsitatean, erreformaz erreforma dabiltsan egitura horietan ahal bezainbat euskararen tokia defendatuz, legezko ofizialtasunik gabe, hemengo euskaldunen kopurua kontuan izanik, ez baita buruhausterik eta behaztopabiderik gabeko egitekoa.

Unibertsitatean, ordea, irakaskintzaz gainera, ikerketa ere baita, sail honetan ere ari izan zara. Solasak ikerlanen gaia ekarki, ezin nagokezu egun zure doktore tesiko ikerketa aipatu gabe. Oztibarreko kabala hazkuntzako hiztegia zuzun haren gaia eta duela hogei urte pasa aurkeztu zenuen, J.-L. Fossat eta J. Haritschelhar zenituelarik zuzendariak. 2000 orrialde baino gehiago dituen lan gaitza, Oztibarreko kabalen inguruko hiztegia eta adierazmoldeak biltzen, sailkatzen eta ikertzen dituena.

Orduz geroztik, ikerlanak segitu dituzu, bai Euskaltzaindian, G. Aurrekoetxearekin batean, haste-hastetik bideratu duzun *Euskal Herri Hizkeren Atlasaren* egitasmoan oroz gainetik, bai unibertsitateko ikerketa egituretan ere, hala nola *Atlas Linguarum Europae* bezalako nazioarteko ikertaldeetan. Baita, azken hamar urteetan bereziki, IKERen ere, zure gain izan baituzu *Lapursum* aldizkariaren argitaratze lana, eta ikerlan baliosak ere egin baititzu hor, hala nola Bourciez eta Sacaze jaunen bildumetako euskarazko testu zokoratuen ingurukoak.

## O, urdina

Rimbaud-en sonetoaren azken kolorea, urdina dizugu, poetak o bokalari eratxekitzten ziona, hots, Astarloak goitasun fisikoaren edo abstraktuaren adierazle gisa itxuratzen zuen letrari. Patziku Perurenak, ordea, koloreek euskaran dituzten konotazio desberdinak aztertzaz egin duen liburuan, kolore honetaz baziozu euskaran arteko kolorea dela, eta ez dagokiola kolore zehatz ongi mugatu bati, *azul* edo *blu* ondoko erdarei hartu hitzak bezala.

Arteko egoera hori, nik uste, berdin agertzen dizu Garazi eta Amikuzeren artean kokatua den Oztibarrek ere, zure bihotzean duen lekuagatik, hartaz hizño bat erran gabe ezin baikaudeke goiz honetan. Izan ere, zure ama, Mailuxa Castet, zortzi haurreideko laborari familia batean han sortua zuzun, Izuran. Bere aitamak ere Oztibarren sortuak zitizun: aita Arrozen, ama, Mariana Hitta, Jutsin.

Tipian eta gaztean, maiz martine egin behar izaten zizun Mailuxak, orduko etxetiar familia anitzek bezala: Izuratik, Jutsira, hemendik Larzabalera, hortik parti berriz, Pagolara edo beste norabait, eta, azken buruan, Arhan-

tsusira. Arhantsusi herrixka ttipia duzu, doi-doia hiruretan hogeita hamar biztanle dituena egun, ehun bat pasa duela berrogeita hamar urte, gaztean han zenbiltzalarik. Larzabaletik Donapaleura doan bideari hurbil, Amikuzeiko atean, Zuberoako mugaren ondoan hango ur handiaren hegian, han-txe zuzun azkenean zure izeba etxetiar gelditu zen laborari etxea: Zolakia, Arhantsusiko zubia iragan eta, berehala eskuinean pausatua. Udan bereziki, Baiona utzirik, han egoten zinen bakantza denboraren iragateko. Han ze-nuen bereziki euskaldungoaren lekukotasuna zure baitaratu. Eta, halaber, han doi bat baserritaru baiones gisa zegozkizun hiritar manerak. Hitz bat-ean, zure hitzaldian erakustera eman diguzun bezala, Baiona izan bada zure sor eta hazlekua, barnagoko erroak urrunago dituzu, Bartzango agoten auzo hartako inguruetai aitaren aldetik, Oztibarren ere amarenetik.

### Azken hitza

Azken hilabete hauetan, biziki aipatuak izan dituzu Rom populuko jendeen aurka Frantzian egin diren bortxazko kanporaketak, mundu bat asal-darazi dutenak. Dakigunaz, Euskal Herrian ere, Europako beste leku frankotan bezala, iragan mendeetan izan dituzu bereizkeria bortitzak, bai hemen *buhameak* deitzen ziren romen aurka, eta baita lehenagotik, menturaz are molde itsusiago batean, agoten kontra ere.

Ez zakizut lehenbiziko agot semea zaren Euskaltzaindian sartzen dena. Jakizu, ordea, plazer dudala, eta berdin beste euskaltzain lagunek ere etorki hartako norbait sartzen baita egun Euskaltzaindian. Eta ez zoko bateko ate ttipitik denboran elizetan gertatzen zen bezala, baina, kolorezko bokalek bidea irekirik, zure Baiona maiteko Herriko Etxeko ate nagusitik.

Ongi jin !

# Jardunaldiak



**Jean Martin Hiribarrenen omenezko  
Jardunaldia**

Azkaine, 2010-IX-17



# J. M. Hiribarren bere mendean

HARITSCHELHAR DUHALDE, Jean

Euskaltzain emeritua eta

Literatura Ikerketa batzordekidea

Sarrera data: 2011-II-11

Onartze data: 2011-VII-11

1810 eta 1815-en artean sortu da Iparraldean belaunaldi berri bat, haren artean dagoela Juan Martin Hiribarren. Erromantizismo garaian historiak, bereziki Erdi Aroak, hartzen du ordu arte ez zuen balioa. Hiribarrenen obraren parte on bat Euskal Herriaren historiaz aduratzan da, daukan ondareaz ere (kantu, atsotitz, hiztegi). Haren obrak merezi luke azterketa sakon bat.

**Hitz gakoak:** belaunaldi, erromantizismo, historia, ondarea.

Entre 1810 y 1815 nace una nueva generación en Iparralde, a la cual pertenece Juan Martin Hiribarren. El romanticismo pone de relieve la historia, dentro de ella la Edad Media, y el ideal de Hiribarren consiste en proponer a los vascos la historia de su tierra sin olvidar su patrimonio (cantos, proverbios, diccionario). Su obra merecería estudios más profundos.

**Palabras clave:** belaunaldi, erromantizismo, historia, ondarea.

Une nouvelle génération naît entre 1810 et 1815 à laquelle appartient Juan Martin Hiribarren. La période romantique met en valeur l'histoire, particulièrement celle du Moyen Âge et l'idéal d'Hiribarren est de proposer aux basques l'histoire de leur pays, en n'oubliant pas le patrimoine (chants, proverbes, dictionnaire). Son oeuvre mériterait des recherches approfondies.

**Mots clés:** belaunaldi, erromantizismo, historia, ondarea.

A new generation emerged in the Continental or Northern Basque Country [administered by France] between 1810 and 1815, and Martin Hiribarren was a member of it. During the Romantic Period, history attached great value to the Middle Ages in particular, and this was something which the period had not enjoyed hitherto. A considerable part of Hiribarren's work deals with the history of the Basque Country, in particular with its heritage (songs, proverbs, lexis). His work deserves to be analysed in detail.

**Key Words:** Generation, Romantic period, history, heritage.

Duela berrehun urte 1810eko maiatzaren 8an, goizeko hiru orenetan sortu zen Azkaingo Etxeberria etxean haurtxo bat eta agiriak salatzen duen bezala «Dominicé Hiribarren aitak emanik bi izen «Juan-Martin»», bi izenek bat egiten dutela marratxoari esker. Azpimarratzeko da Azkaingo Herriko etxean onartzen zituztela holako izenak. Bat, aitarena, euskalduna «Dominicé» eta semearena, Spainian ezagutua dena baita ere Euskal Herrian «Juan» bere ahoskera bereziarekin: «Kuan». Frantses legearen kontra doa Herriko etxea, frantses garbian behar baitira agiriak idatzi Villers-Cotterêts-eko agintzaren ondotik (1539). Ama deitzen da Dominique Saint Martin eta, beraz, haurrari emaiten balin bazizkio bi deiturak Hiribarren-Saint Martin izanen dira eta ez Hiribarren-Dutari, Dutari zelakotz amatxiren deitura.

Egia da atxikimendua bazuela amatxiren leinuarentzat, Nafarroako familia handi bat zelakotz oso ezagutua, haren baitan izan baitzen Hirigoyen-Dutari, Iruñeako apezpiku bat. Dutaritarrek bazuten jendakian bertze Nafarroako familia famatu bat bi apaiz ospetsu izan zituela XVI. mendean: lehena Juan Azpilkueta, jesuita, Brasilen egona, hango hizkuntza bat jakinik agertu zituela teologiako eta moraleko liburu batzu, 1575ean zendua; bigarrena ospe handiko apaiza, Martin Azpilkueta, ezagutua XVI. mendean bere izengoitiarekin «Doctor Navarro» (1492-1586) legelaria, erakasle Cahors, Okzitaniako Tolosa, Salamanca eta Coimbreko unibertsitateetan, zendua 94 urte zituela. Familia berekoa zen ere Maria, San Frantses Xabierekoaren ama.

XVI. mendeko bi apaizak Juan eta Martin, biak nafarrak, berrikitan sortua den haurra bezala. Asma daiteke bazirela Hiribarren familian Juan eta Martin deitzen zirenak bainan interesgarria da bi izenak bilduak direla marratxoaren bitartez, izen bakar bat eginez Juan-Martin.

Apaiz izaiteko egin zituen estudioak Baionan San Leon ikastetxean eta gero seminario handian. Apeztu zen 1833an, izendatu zuten bikario Urruñan erretor zuela Leon Goyetche La Fontaine-n alegia batzuen itzultzalea. Urte baten buruko izendatu zuten Bardoren bikario 1839 arte eta gerotzik erretor. Bardoren egon zen 1865 arte ohorezko kalonje titulua lorturik, Baionako presondegiko erremusinari izendaturik. Ez zen luzaz egon, zauri baten ondotik tetanosa lotu baitzizaion eta zendu zen 1866eko azaroaren 26an, 56 urte zituela.

«Un mil huit cent Dix le huit du mois de mai  
à onze heures du matin, par devant nous Jean Charday,  
maire, et Jean de l'Isle avocat à la commune d'Aravon,  
notaire, et Jean de dor, jugelement des Baux  
d'Albigny, et comteau Dommeix, avoué au  
Baile d'Amalou, Dommeix, Avoué au Baile  
de Chencoux. A cette commune, régulier nous et  
Jean Vincent d'Albigny, présent un enfant de son mariage, né aujourd'hui  
à l'heure dix-neuf du matin, le dix octobre, et de  
Dominique Marlin, son épouse, et appelle de x  
Juliette Marlin, dame, et frívaine de Jean-Marlin  
d'Albigny, devant le jugelement et pronostication fait en  
Avrune le dix Juillet d'Anno Domini MDCCLXVIII, et le juge qu'a  
peut être Juliette Marlin, nommée en la maison de Jean  
d'Albigny, et de Marlin, le juchay cogé de front  
d'Amalou, Dommeix, ainsi en l'offre pronostication de  
l'heure d'Amalou, et tout le prie et demande à Dieu  
que nous le jugeant de naissance, après qu'il ait  
eu à l'heure d'Amalou, horloge

*Amillary Languidbury Hothamay*

Samuel Smith

Le 1<sup>er</sup> mai, à 10 h. heure du matin, part devant nous une  
famille, Mme et M. Gérard, de leur ville de la commune  
d'Avignon, venu de Lyon, pour faire l'inauguration de  
leur maison, et d'Amphore (Boisrond), fraîches, acci-  
mées, dans un état admirable, et en grande  
utilisation. Il fait beau temps; l'après-midi, nous a pris  
un malaise, le feu faiblit, ne suffit pas à cha-  
uffer assez mal, mais l'habitation est très  
bonne pour y vivre et gaucher si le bûcher malin  
est bien préparé. Le lendemain, déclaration  
formelle des personnes de Lyon, que nous devons  
être de grande aide aux familles de nos amis.

constant in these countries, no anyone of us can

recoys en 200 mètres, cette dernière est le "fond marin" pour l'opéra et aquatique il a déclaré Gérard Jonquier.

en phénomène de l'ensemble d'agréé ; l'effet, décalage présentation fait en premier de deux œuvres qui sont à l'âge de 3 mois et quatre ans, être différent.

on la marina de la casa del baron, y se ve la villa  
de marina de la villa, que se levanta en el centro  
de la villa, donde se levanta un gran edificio  
que contiene dormitorios, salas de baños, salas de  
laboratorio, etc., todo hecho a mano, igual  
a los que se hacen en Francia, y que igual  
dura un siglo.

*A. Hoffmann* = Laurier University Guelphburg

*Wexford*  
Can mel stuit oan dat spreken in meer dan  
is ghebr. taens, dat hadden van ~~soete~~  
Ezelhoren, mane, of hys dat oer de Commune  
Dorpsplaats, London, dat was oer de Grand Canal in  
Londen gesneide, wat Stephen Haward, die  
Amerikan, gescreueid, dat een oer de Commune, oer  
de manen, dat erlogies, de oere Commune, oer  
manen oer graven, en oer de oere graven, oer de muel  
van de graven, en oer de oere graven, oer de muel  
van de graven.

James, or George, we are anxious to have you come to us as soon as possible, & we will do our best to make your stay comfortable.

(con Laguerre) Charles Cesarano et promoveu  
en preséncia de Jean Dufay, age de quatre-vingt-

Am., Charadrius dominicus on the Commoner self-sown, &c. &c.  
seen Jan. 14 in Quincourt, age 1. Young quads seen. Gideon's island

Dificultad con la que se realizó y se llevó a cabo la elaboración de los informes y la presentación de los mismos.

*copie qu'il faut lancer une telle action, ce que ne fait pas le Gérard Daguerre pour démontrer que la loi de favoris*

*Appreciation of a motif: Alice = Alice Jaunquiberry*

Co. Merrimac, N.H., to General Gardner on January 22.

on me now consider your favor every score. I will try to get you some more news. I am sending you my best regards. I hope you will have a good time. I am sending you my best regards. I hope you will have a good time.

Ministère de l'Intérieur et du Département des Finances, à Paris,  
le 1<sup>er</sup> juillet 1861.

Portuguese origin. Marton however does not seem to have been able to get hold of any specimens.

quel nous est arrivé, de lui demander de Gracieuse la main, prises à main, de lui demander de Gracieuse la main, et auquel il a déclaré qu'il

Ezagutu du, beraz 1810etik 1866 arte Frantzian iragan diren kargu al-daketa: I. Imperioa, Luis XVIII. eta Xarles X. erreinuak, 1830eko iraultza, Luis-Filipe-ren erreinua bukatzen dela II. Errepublikarekin eta azkenik II. Imperioa Napoleon III.a.

Euskal kultura kontutan hartuz, ohar gaitezke 1810etik eta 1815 arte sortzen dela Iparraldean belaunaldi berri bat: Hiribarren bera Azkainen, Jean-Pierre Duvoisin kapitaina, Bonaparte printzearen lekuko eta laguntzailea, Agosti Chaho zuberotar idazle eta kasetaria, Hiribarren-en adiskidea, Anton Abbadia gramatika baten idazlea Chaho-rekin (1836) bainan bereziki Lore Jokoen sortzailea, euskal letretako «mezenas» handia.

Bertzalde aipatzekoak dira Archu zuberotarra Francisque-Michel-en laguntzailea, Bonaparte printzea bera euskal dialektologiaren sortzailea, Joanes Oxalde bidarraitar bertsolari famatua Iparraldean, Jean-Baptiste Camoussarry, Ziburun sortua 1815ean, egiazko erromantiko olerkaria, gazterik zendua 1842an, 27 urte bakarrik zituela, Manuel Inchauspe zuberotarra, Duvoisin bezala Bonaparte printzearen lankidea, luzaz Baionako apezpikuaren bikario nagusi egonen dena.

Nehork ez dezake uka belaunaldi horren garrantzia, bederatzi gizon horien emaitza euskal letren eta kulturaren alde, batetik idazle gisa Hiribarren eta Camoussarry bereziki, hizkuntzalari gisa bertzetik Bonaparte printzea bere lankideekin Duvoisin eta Inchauspe, Anton Abbadiren uzta nasaia Lore Jokoak sortuz. Zinez, belaunaldi horren emaitza paregabekoa da euskal literatura eta ikerkuntzaren bultzatzalea gisa. Bihurgune batean gaude berpizte baten aitzinean XIX. mendea erakusten baitu bertze itxura bat, bereziki elgarretaratuz bertsolariak eta kantu egileak lekuko dugula Jan Battit Otxalde bertsolaritzaren zerbitzari ohoratua Iparraldean eta kantu egilea ere Lore Jokoetako makila eta urrezko ontza lorturik.

Bederatzi gizon, haien artean hiru apaiz eta sei laiko, horrek adierazten duela, nahiz apaizek segitzen duten euskal letretan, gero eta laiko gehiagok parte hartzen dutela aldaketa horretan, bere segida ukanez XX. eta XXI. mendeetan.

Erromantizismoaren haizeak jotzen du XIX. mendeko lehen partea Frantzian. Aurre erromantizismoa hasi zen jadanik XVIII. mendean, bereziki

Jean-Jacques Rousseau idazlearekin eta XIX. mendearen hasieran Chateaubriand-ek bere eleberrieri esker idekitzen du ildoa. Hasiz 1820an, belaunaldi distirant batek eskaintzen ditu sortzen dituen obra ederrak. Lamartine lehenik, Hugo, Vigny, Musset dira Frantzian erromantizismoaren argiak.

XVIII. mendearen ondotik, argien mendearen ondotik, XIX.ak abantaila ematen dio sendimenduari, hain luzaz errege izana den arrazoinaren kontra. Olerkariek amadioaren gora beherak goraipatzen dituzte, baita ere irudimenta, ametsa, bertze mundu batean bizi balire bezala. Egiazko iraultza da, hasia Inglaterran eta Alemanian, bere eragina hedatuko duelarik Frantzian eta geroxago Italian eta Espanian.

Haize berri horrek jotzen du ere Iparraldea, hain zuzen Jean-Baptiste Camoussarry olerkaria gazterik hilen dena 27 urtetan (1815-1842). Erran dezakegu Camoussarry-ren olerkietan nagusitzen dela «erromantizismo belalta», eritasuna eta heriotza direlarik gai aipatuenak. Bertze erromantiko batek kantatuko ditu bihotz minak eta herrak, bakartasuna ere «*oroz armetatürik nahi nüüzü partitü*», idazten duelarik eta ere bere amaren kontra:

«amak idor bihotza bai eta titia»

lekuko direla lau kantu ezagutuak «Mündian malerüsik» (1827), «Bi ber-set dolorüsik» (1831), «Bizitziaren khantoria» (1834) eta «Ahaide delezius huntan» (1849). Etxahun-Barkoxe (1786-1862) zuberotarrak ez zakien zer zen erromantizismoa, bainan «huntü» ditu bere kantuak, frantses erromantiko olerkarien garai berean XIX. mendearen lehen hamarkadetan.

Erromantizismoak bere ingurumena badauka, gehienetan olerkariek hautatzen dutela beren sendimenduekin adosten dituzten bazterrak. Maite dituzte mendi eta oihanak, bainan ere heriotza aipatzerakoan etxe edo palazio edo gaztelu suntsituak. Iraganari buruz gidatzen gaitu olerkariak jakintzi garai hartan goraipatzen dela Erdi Aroa eta bereziki arte gotikoa, adibidez *Notre Dame de Paris* Victor Hugo-ren eleberri historikoa.

Egia erran, historia izanen da gai berria XIX. mendean, beti garai berean beren lanak agertuko baitituzte Guizot, Quinet eta Michelet historiagileek. Literaturaren aldetik Oxford-eko unibertsitatean agertzen da 1832an «*La Chanson de Roland*» eskuizkribu famatua, Erdi Aroko kantu epikoa.

Historiak duen arrakastaz ohartuko zen Juan-Martin Hiribarren, ez baita dudarik duen jakituriarekin eta Augustin Chaho Parisen bizi izan den zuberotar idazlearen adiskidetasunari esker segitzen zituela orduko ideien aldakuntzak. Orduan, ikusirik historiaren hutsa Euskal Herrian, deliberatu zuen beharrezkoa zela Euskal Herriaren historia idaztea eta Euskaldunak gogoan hartzekotan, kantuen bitartez behar zuela idatzi. *Eskaldunac* deitzen da 1853ko abenduan agertu zuen obra, Baionako Foré et Lasserre moldiztegian. Azpi tituluak dio: «*Iberia, Cantabria, Eskal-Herriac, Eskal Herri bakhotta eta hari darraicona*». Hauxe dio Mitxelena-k obra horretaz: «*El poema «Eskaldunac» (1853) de unos 5000 versos en honor de los vascos y de su país, pero sobre todo de la región natal del autor el Labort. No es una pieza épica, y mucho menos una epopeya, sino una relación amena y familiar de cosas y personas, llena de detalles y de datos interesantes.*» (*Historia de la literatura vasca*, 130. or.). Mitxelena-ren iritzi zorrotzak erakusten du zer diren olerkiaren mugak. Ez da olerki epikoa, are gutiago epopeia. «*La Chanson de Roland*» edo «*El Cantar del mío Cid*» idurikoa. Halere obra interesgarria da azaltzen baitu zer diren eta nola bizi diren Lapurdiko herriak bereziki. Argiki erakusten du Hiribarren-ek nola ikusten zuen bere eginbidea lehenbiziko orrialdean idazten duelarik: «*Adhoereat lingua mihi fancibus meis, si non meminero tui!*»

*Ahanzteam herria  
Ihar bekit mihiā*

Halaber, olerkiaren hasieran «*Eskaldunei bi hitz hastean*» argitzen du zer den helburua:

*«Eskaldun gucia da egun gonbidatzen  
Has dadin izpirituz cerbeiten moldatzen,  
Yakin dezaten arren gure ondocoec  
Nolaco gaiac zuzten hekin arbasoec.»*

bukatzen duelarik azken bi neuritzekin:

*«Dugun canta herria, lana, berthutea;  
Goratic nic egunen egundic hastea.»*


Erran dezaket bide urratzaile izana dela J.M. Hiribarren, zeren mende bat geroago holako olerki zabal bat publikatu zuen Orixek titulu berarekin *Euskaldunak* (1950).

Alabainan, bada Orixe-ren gogoan Hiribarren-ek zaukana, atzoko Euskal Herriaren aipatzea edo, hobeki erran, goraipatzea. Orixe, aldiz, bertze zer-baiten bila doa. Aitzol-ek asmatzen zuen bezala, beharrezko zirudien «saga» handi baten sortzea, euskal «saga», olerki luze baten bitartez (baserritar epopeia deitzen du Orpustan-ek) zer zen eta zer den Euskal Herria erakutsiz, hain zuzen abertzalesunaren sustatzeko idatzia, 15 urtez publikatu gabe egona gerlaren gatik, bukatua baitzen jadanik 1935ean. Bi garai, bainan gisa batez helburu bera.

Orokorki jokatu da Hiribarren *Eskaldunak* deritzan olerkiarekin. Utzi du publikatu gabe antzerki iduriko obra bat Baionako Euskal Erakustokian da-goena eta Xipri Arbelbide-k agertarazi duena duela 20 bat urte, 1991ean hain zuzen. Antzerki berezi hori deitzen da *891ean eskaldunen gerla*. Erdi Aroko lehen garaia aipatzen du Hiribarren-ek, bainan holako nahas-mahas bat egiten du ipuinetik hurbilago dena historia baino. Mauruen eta giristinoen arteko gerla, Nafarroako erresumaren erregeak sartuz gudukan hala nola Santxo Abarka, baita ere zaldun gerlari ezagutuak Euskal Herrian: Etxauz, Sala, Beltzuntze, Urtubia gerlariak, Albret eta Ori gortesanoak. Zer ziren gerlari eta gortesano horiek IX. mendean? Noiz sortu zen haien leinua? Bertzalde, dakigularik Santxo Abarka Nafarroako errege izana dela 970 eta 994. artean argi dago egiazko historiatik urrun gaudela. Erdi Aroan gazteluz gaztelu zabiltzan «troubadours» delakoak bezala historioak kondatuz edo kantatuz, holako zerbait nahi du egin Hiribarren-ek, antzerkiaren hastapenean diolarik:

«Bildu zarete hunat Eskaldun maiteac,  
Utziz zenbeit egunen lan eta trasteac,  
Aitzeco arbasoen zenbeit balentria,  
Ohoratzen dutenac handizki herria.»

Historiari dagokionez, historia hurbilak ere badu balioa eta ez da baztertzekoa, bereziki XIX. mendeak bere begien aitzinean daukalarik Napoleon I.-ren itxura. Egia erran, Napoleon-en oroitzapena bizi da Frantzia guzian, Iparraldean ere. Sartzen da pastoraletako gaietan jakinik Biarnon hiru pastoral emanak izan direla, 1840an *Bonaparte 1<sup>ère</sup> campagne d'Italie*, 1857an *Bonaparte 2<sup>ème</sup> campagne d'Italie* eta 1866an *Les trois empereurs: campagne d'Austerlitz*. Zuberotarrek ere badute berea *Napoléon empereur* edo eskuizkri-



bu batek dion bezala *La tragérie de Napoléon*. Georges Hérelle, pastoral historiagileari esker badakigu emana izana zela lehen aldikotz 1849an Donapaleun, hain zuzen Napoleon-en iloba Frantses Errepublikako presidente zelarik, nahiz 1836an Jean-Pierre Saffores pastoral errejentak idatzia zuen.

Hiribarren-ek, sortua lehen imperio garaien eta bizi Napoleon III. emperadore zelarik Frantzian, nahi ukana aztertu historia hurbil hori utziz publikatu ez dituen obretan I. imperioaren historia bat eta «Napoleon lehena» deitzen den olerkia, Bonaparte printzearen paperetan dagoena Bizkaiko diputazioaren liburutegian.

Historia hurbilean sartzen da ere mugaz harandian, Azkaindik ez hain urrun, lehen karlistada (1833-1839). Ez dezagun ahantz urte berean apeztu dela eta Urruñan dela bikario, mugaz ez hain urrun han ere. Ez da dudarik Iparraldea zain dagoela segituz gerla zibilaren gora beherak, erakutsiz denbora berean don Carlos-en alde dela. Adibidez, 1836an Hiribarren-en adiskide den Chaho-k agertzen duela Parisen *Voyage en Navarre pendant*

*l'insurrection des Basques (1830-1835)* erakusten duela zein miresten duen Zumalakarregi jeneralia, honen argazki bat agertuz liburuan.

Zumalakarregi-ren heriotzeak 1935ean emendatzen du jadanik zuen fama Hiribarren-ek hedatuko duena idazten duen olerkian. Geroxago Larresoroko seminarioan dauden bi gazte Jean-Baptiste Elissamburu eta Gratién Adema elgarretaratuko dira Zumalakarregi-ri eskaintzeko idatzi duten olerkia. Jean-Baptiste Camoussary-ren olerkietan badago bat, hau ere Zumalakarregi-ren balentriak kondatzen eta goraki laudatzen dituenak. Argi dago lehen karlistadak ukana duela oihartzuna Iparraldean.

Ez du bakarrik lehengo historia eta historia hurbila maitatzen Hiribarren-ek, oraingotasunaz ere kezkatzen da, kezkagarria delakotz Iparraldeko jendeentzat. Alabainan, 30eko hamarkadan hasirik Iparraldeak bizi du, ordu arte ezagutu ez zuena: Hego Ameriketara eta bereziki Uruguaira joaiten diren mutiko gazteak. Egia da jendez emendatu dela XVIII. mendean, haur batek, gizon ala emazte, haur zaharrena gehienetan, hartzen duela etxaldearen segida. Bertze haurrak egoiten dira etxaldean laguntzaile gisa edo ezkontzen dira bertze etxalde batetara. Beraz 30eko hamarkadan erantzuten diote Hego Ameriketarik jinikako galdeari. Hanitzentzat Iparraldea husten ari da. Horretaz kezkatua da ere kontseilu orokorra eta aldi bat baino gehiagotan galdegiten dio frantses gobernuari zerbait egin dezan emigrazioaren baratzeko. *Le Messager de Bayonne* kasetan, 1853ko maiatzean Hiribarren apezak publikatzen ditu bertsu nasaiak bilduko dituelarik gero 43 orrialdetako liburuxka batean: titulua *Montebideooco berriac*.

Hain zuzen urte berean, Antoine d'Abbadie-k sortzen dituelarik «Lore jokoak», epai mahaikoek deliberatzen dute gaia izanen dela, hala agertzen baita orduko kasetetan: «Les regrets d'un Basque en partance pour Montevideo». Zer gertatuko da holako Lore jokoetan jakinik agertuak direla Hiribarren-en bertsoak? Harriet, seminario haundiko erakaslea gaiaren ez aldatzekotan dago, galdegina baitzaie 50 neurtitzeko kantu bat, jendeek gogoan atxikitzeak izanen dena. Hala erabakitzentzen da eta 37 kantu beharko direlarik aztertu banatzen dira epai mahaikideen artean, horiek direla Ducos, Leremboure, Larralde, Lissardy, Dassance, Goyetche et hain zuzen Hi-

ribarren, dudarik gabe Bardozeko erretora eta pentsa daiteke Montebideoko *berriak* publikatu duelakotz ahantzi gabe Harriet bera.

Jakinak dira orduko eztabaideak Celhabe Bardoztarra hautatu zutelakotz, mihi gaixtoek erraiten zutela, aurkeztu zuen kantuak ez zuela berak idatzia, Hiribarren-ena zela ordea. Hasiz 1855ean, Lore jokoetan parte hartzen du Hiribarren-ek baliatuz izengoitiak, hala nola Laurent Daguerre, Léon Dajas, Gaztainalde, Heuty, Lapheire, Menditarrak, Salataria, nahiz igortzen dituen kantuak bere izen deiturekin ere.

Ondarea da ere XIX. mendeko kezka. Alabainan, badu zer ikusirik erromantizismoarekin, bereziki historiarekin eta, nahiz hitza ez den oraindik erabili: etnografia. Historia kontutan hartuz, lehengo bizitzeko manerez arduratzentzira, bai ikerleak, baita ere elaberri idazleak. Frantsesetan deitzen den «roman de moeurs», gaztelaniaz deitzen den «costumbrismo» salatzen dute orduko kezka elaberri historikoaren sahetsean. Ez da holakorik gertatzen Euskal Herrian elaberria ez baita sortua oraindik, bainan badakite ahozko literatura, erran zaharrak, atsotitzak sartzen direla euskal ondarean. Kantu zaharren biltzea izanen da XIX. mendeko lana. Oroit gaiten halere hasia zela XVIII. mendearen azken urteetan, 1798an hain zuzen Baionako euskal erakustokian zagoen eskuizkribu batekin, berrikitan Patri Urkizu-k publikatu duena: *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma* (1798) tituluarekin. Chaho da XIX. mendeko lehen kantu biltzalea, bilduma luzaz argitaratu gabe egona salbu bospasei kantu, Ariel sortu zuen aldizkarian agertuak. Pentsa daiteke Chaho-ren adiskidea zen Hiribarren apezak eskaini zizkiola zenbait kantu. Denbora berean Duvoisin kapitainak biltzen zituen kantuak. Hamar bat kahier gordeak daude Baionako euskal erakustokiko bibliotekan bainan publikatu gabeak dira.

1857an Francisque-Michel Bordeleko Unibertsitateko katedradunak kaleratzen du Euskal Herriari buruz eginiko liburua: *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*. Liburu horretan XI. kapituluak eskaintzen ditu euskal kantuak (*Poésie populaire des Basques*) sailkatuak, orotara 225 orrialdetako estudioa, lehen aldiakotz, dakidanez publikatua dela kantu bilduma. Horiek dira Iparraldean egin den bilketaren uzta Hiribarren bizi zeno. Ez ditu ezagutu geroxago agertu direnak, de la Villehélío anderearena eta J.D.J. Sallaberry-rena.

Bertze bilketa bat ere egin da XIX. mendearen lehen partean: atsotitzena, atsotitzak sartzen direlakotz edozein kulturaren ondarean. Aspaldian hasia zen atsotizten bilketa Euskal Herrian, XVI. mendekoak direlarik lehenak, Garibay-enak eta *Refranes y sentencias comunes en Bascuence declaradas en Romance* bildumarekin. Segitzen da XVII. mendean, bereziki Iparraldean, Zalgize, Voltoire, Bela eta Oihenart-ekin. XVIII. mendekoak dira Laramendi-k argitaratuak eta Jusef Egiategi-k bilduak bainan sekulan agertu ez direnak. Biltzaile zerrenda horretan sartu behar da Hiribarren, nahiz bildu dituen atsotitzak ez direlarik publikatuak izan.

Ondarean sartzen da ere, dudarik gabe, hizkuntza, euskara euskaldunentzat. Horretaz ohartuak dira euskaldunak, hiztegiak eta gramatikak landuz. Laramendi agertzen da XVIII. mendean lankide porrokatua, espainiar intelektual batzuekin dituen eztabaidea famatuekin eta euskararen alde kaleratu dituen liburuekin nahiz gazteleraez idatzi dituen. Haien artean *El impossible vencido. Arte de la Lengua Bascongada*, Salamankan publikatua 1729an, lehen gramatika argitaratua eta, *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence, Latin*, bi liburukitan agertua Donostian, 1745ean. Bi obra horiek erran dezakegu euskara jalgitzen dela mundura.

Hain zuzen, Humbolt-en Euskal Herriko egonaldiekin, bultzatuak izanen dira hizkuntzari buruzko ikerketak. Iparraldean, XIX. mendearen hastapenean aipatzekoak dira Lécluse *Dissertation sur la langue basque*, Toulouse, 1826 eta urte berekoa *Grammaire basque* argitaratu Okzitaniako Tolosan eta Baionan, Darrigol, Baionako apezgaitxeko nagusia 1827an argitaratzen duelarik *Dissertation critique et apologétique sur la langue basque*, Chaho eta d'Abbadie beren *Etudes grammaticales sur la langue euskarienne*, Paris, 1836an, Hiriart, maître de pension à Ustaritz *Introduction à la langue française et à la langue basque*, Baionan 1840an eta Archu eskolen inspetura *Uskara eta Franzes Gramatika uskalherrietako haurrentzat eguna*, Baionan 1852an, bi azken horiek, erakasle gisa agertzen dituztela eskolan balia zitezkeen liburuak. Hiribarren-ek eskaintzen du berea Hiztegi bat eginez, bai eta Gramatika bat, biak argitaratu gabeak.

Azkenik, apaiza izanez, publikatu du *Escaraz eguna...* Baionan, 1858an. Lafitte-k preziatzen zuen obra hori ikusten zuelakotz bazela erlisioneen his-

toria bat aipatzen zituela Hiribarren-ek Brahma, Vichnu, Buddha, Confucius eta berte... Sendi daiteke Hiribarren-en idekidura, hala nola Chaho-reki-lako adiskidetasuna ez baita usu holako ibilkerarik XIX. mendeko apaiztan. Badakigu ere, Dasconaguerre-k erranik eta Aita Lhande-k egiaztaturik, bazituela idatziak Ama Birjinaren bizia eta Bardozen eman zituen predikuak, betetzen zuela osoki apaiz baten eginbideak.

Berrogeita hamasei urte zituen Juan Martin Hiribarren apaizak zendu zelarik. Bizi labur honetan ez da alferrik egon. Orokorki hartuz, idatzi lehenik eta argitaratu dituen obrak gero, idazle nasaia izana da, zinez bere mendekoa.

Erromantizismotik hartu du historiaren zaletasuna, erakutsiz zein atxikia zitzaiion Euskal Herriari, nahiz denbora berean euskaldun haurrek jakin zezaten zer izan zen Euskal Herriaren historia eskolak ez baitzoten holakorik erakasten. Bere mendeko historia ez du batere baztertu, eta gehiago dena Lore jokoetan parte hartuz euskal literaturaren garapena zerbitzatu du.

Euskal ondarearen kezka zaukan gogoan orduko bertze ikerle batzuk bezala eta euskal kulturak hartu duen bultzada XIX. mendeko lankideen artean bere toki berezia badaukala nehork ez dezake uka. Agian, egun batez, tesi batek erakutsiko du zer eragin ukana duen euskal literatura eta kultura-ren garapenean.

## Bibliografía

ARBELBIDE, X., «Drame, 891an euskaldun gerla», *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1991, 485-505.

HARITSCHELHAR, J., *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etxahun*, Euskaltzaindia, Bilbao, 1970.

HÉRELLE, G., *Le répertoire du théâtre tragique, Catalogue analytique*, Le Courrier, Bayonne, 1928.

LHANDE, P., «L'abbé Martin Hiribarren et son dictionnaire basque», *Gure Herria* 9, 1925, 489-503.

\_\_\_\_\_, «Introduction», *Dictionnaire basque-français*, Beauchesne, Paris, 1926, IX-XXVII.

MICHELENA, L., *Historia de la literatura vasca*, Minotauro, Madrid, 1960.

ORPUSTAN, J. B., *Précis d'histoire littéraire basque*, Izpegi, Baigorri, 1996.

URKIZU, P., *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma*, Durangoko udala, 1987.

\_\_\_\_\_, *Historia de la literatura vasca*, UNED, Madrid, 2000.

VILLASANTE, L., *Historia de la literatura vasca*, Sendo, Bilbao, 1961.

ZALBIDE, M., «Iparraldeko euskalgintza XIX. mendearen bigarren erdian: Zaldubi eta bere garaia», *Euskera* 3, 2007, 877-1008.

# **Xuriak eta gorriak. Azkainen eta Bardozen**

ARBELBIDE MENDIBURU, Xipri  
Euskaltzain urgazlea eta apaiza

Sarrera data: 2011-II-11

Onartze data: 2011-VII-11

Martin Hiribarrenek Bardozen pasatu du bere biziaren parterik handiena. Herri horretan ongi ikusi da mende batez zer izan diren Eliza eta herriaren arteko gorabeherak Errepublikari doakionaz. Hiribarren Azkaindarra izanez, hango berri ere badugu, Azkainen eta Bardozen egon den Salvat Monho apez bertsolariari esker.

Iraultzaga garaian apezak alde agertu baziren lehen batean, Frantziatik kanpo botaiak izan ziren. <sup>2º</sup> errepublikarekin apez eta estadok bat egin zuten errepublikaren alde, hasieran bederen. <sup>3º</sup> errepublikarekin dira bat bestearren kontra emanen. Bat ala bestea fondamantalistak izan direlakotz

**Hitz gakoak:** Salvat Monho, Martin Hiribarren, Xaho, Errepublika, Eliza.

Martin Hiribarren pasó en Bardoze la mayor parte de su vida. En este pueblo se pudieron observar, claramente, las disputas entre el pueblo y la Iglesia en torno a la República durante todo un siglo. Siendo Hiribarren de Azkaine, también tenemos noticia de lo que ocurrió en aquella localidad a través del cura y bertsolari Salvat Monho.

A pesar de que los curas se posicionaron a favor de la revolución, fueron expulsados de Francia. Con la Segunda República los curas y los estados se posicionaron, en un principio, a favor de ella. Con la Tercera República empiezan las divergencias entre ellos, debido a que los dos derivan hacia el fundamentalismo.

**Palabras clave:** Salvat Monho, Martin Hiribarren, Xaho, República, Iglesia.

Martin Hiribarren passa la majeure partie de sa vie à Bardos. Dans ce village on put clairement observer pendant tout un siècle les querelles entre le peuple et l'Eglise à propos de la République. Hiribarren étant d'Ascain, nous savons aussi ce qui se passa dans ce village grâce au curé et bertsolari Salvat Monho.

Bien que les curés se soient montrés favorables à la Révolution ils furent expulsés de France. Avec la Seconde République les curés et les états se déclarèrent d'abord favorables à la République. C'est au moment de la Troisième République que commencèrent les divergences lorsqu'ils s'orientèrent chacun de leur côté vers le fondamentalisme.

**Mots-clés:** Salvat Monho, Martin Hiribarren, Xaho, République, Eglise.

Martin Hiribarren spent most of his life in Bardoze. The century-long ups and downs between the Church and the people with respect to the French Republic clearly emerged in that village. As Hiribarren hailed from Azkain, we also have news from that quarter, thanks to the priest and extempore Basque verse maker Salvat Monho who was in Azkain and Bardoze.

At the time of the Revolution even though the priests were initially in favour, they were thrown out of France. When the Second French Republic arrived, the priests and the State supported the Republic, initially at least. With the Third Republic they were to fight against each other. The fact was they were both fundamentalists.

**Key Words:** Salvat Monho, Martin Hiribarren, Xaho, the Republic, the Church.

Aurten ohoratzen dugu bere biziaren erdia Bardozen erretor egon den Martin Hiribarren Azkaindarra. Izan da beste loturarik ere Azkain eta Bardozen artean: gehienek ezagutzen duzuen Salvat Monho bikario egon da bi herrietan eta bien berri utzi dauku bertsutan. Bardoz aipatuko dugu 18. mende ondarretik, 20. mende hastapenerat, apez eta auzapezek izan dituzten gorabeheren karietera, xuri eta gorrien arteko kataskak estakuru.

### ***Salvat Monho***

*Salvat Monhoren bertsuak* publikatuak ditu Pierre Lafittek eta zenbait komentatuak JB Orpustanek<sup>1</sup>. Izturitzen sortua 1749an, 1774an apeztua, Azkainerat izendatu zuten bikario, gero Uztaritzerat kargu berarekin, 1778tik 1780rat, Azkainen dagoela berriz 1786an. Bardozen da Iraultza hastapenean.

Bertsuak idatzi dizkie Azkaingo menetei Iraultzako lehen hilabeteetan, hain segur norbaitek apezen kontra idatzi beste zenbaiti errepotuz:

*Hiru gizon sakratu  
Ahal tuzte koplatu  
Zenbait meneta<sup>2</sup> ausartek  
Edo debot hipokritek<sup>3</sup>*

Azkainen baziren Iraultzako mundu berria batere onartzen ez zutenak, bereziki herriko arduradunetan. Monhok lege hoiei umilki obeditzea gomendatzen zuen. Hona jadanik xuri eta gorriak, bainan apezak gorriean.

*Orai lege berriak  
egin dire guziak  
Hek ongi istudiatuz  
Hei umilki obedituz*

<sup>1</sup> «Un poète basque au temps de la Révolution: Salvat Monho (1749-1821)», In 1789 et les Basques, Presses Universitaires de Bordeaux 1991, 239-255. or.

<sup>2</sup> Meneta = Bigotte, chinche.

<sup>3</sup> Pierre Lafitte, Poèmes basques de Salvat Monho, Bayonne, Ikas 1972, 52. or.

*Bat bederak behardu  
Bere ona bilatu.<sup>4</sup>*

Lege berriak esplikatu nahi izan zituen Monhok:

*Azkain nahiz argitu  
Monho zaio mintzatu<sup>5</sup>*

Azkaingo arduradunak ez ziren beraz ideia horietakoak:

*Zorigaitz herri huni  
Zeren aintzin gidari  
Itsu gidari, itsuak  
Izan diren hautatuak*

Nahiz ez ziren denak kontrakoak ere:

*Gizon zuhurrak ere  
Herri huntan badire  
Batzuen tontokeriaz  
Eta bertzen ausartziaz  
Arras ahalkatuak  
Eta estonatuak.<sup>6</sup>*

Azkaindik Urruña ere ezagutu zuen, bai eta Martin Teillary<sup>7</sup> apeza, Urribiako jaunak hango erretor izendatua, erretoren izendatzea ez baitzen beti apezpikuaren esku. Batere ez zuen bere ardiekin bat egiten delako artzainak. Sobera bortitza zen. Eta kontseilua ematen dio Monhok:

*...Bai uliak eztirat  
Lasterrago biltzen dire ezenez minagrerat.<sup>8</sup>*

<sup>4</sup> Pierre Lafitte, 52. or.

<sup>5</sup> Pierre Lafitte, 54. or.

<sup>6</sup> Pierre Lafitte, 54. or.

<sup>7</sup> Martin Teillary, Donibane Lohizunen sortua 1743an, Arbonan hila 1812an. Akizen apeztua 1770an, Urruñako erretor 1786an. Ez zuen Konstituzioari zin egin 1792an. Gordeka egin zuen apez lana, salatua izan zen, preso emana, bainan ihes egin zuen Irunerat. (Haristoy, *Les paroisses du Pays Basque II* tomoa, Vignancour, Pau, 1899. 22-23. or.).

<sup>8</sup> Pierre Lafitte, 48. or.

Monho Iraultzaren aldekoa zela erran dugu. Hori hobeki agertzen da *Garat gaztenaren eta Iturbiderentzat*, bai eta *Ihardesta bertsuetan*. Lehenak hauteskunde kanpañaren karietara idatzi zituen, Lapurdiko Biltzarkideak gomitatzuz Garat eta Iturbideren alde bozkatzerat, deputatu bezala. Ez zen gehiago Uztaritzen baina hango berri bazekien han egona zenaz geroz bikario.

*Garat eta Ithurbide parti bitez gorterat  
Eskualdun guzien partez Luisi erraiterat  
Gure nahiaren pare balitz gure ahala  
Laster bere deskantsuaz goza litekeiela.<sup>9</sup>*

1789an, apirileko 19 eta 24 artean izan ziren bozkak. Iturbide ez zen pasatu. Ondorioz Monhok idatzi zituen *Ihardesta* deitu bertsuak *mea culpa* eginez.

*Koplari aprendiz batek gogoan pasatu badu  
Bertsu hotz batzuen bidez Lapurdi gobernatu  
Sinets beza frogaturik, enganoan zela.<sup>10</sup>*

## Bardozen

Bardozen dugu Monho gutienez 1790ko buruilean, bataio bat egin baitu hilabete horretan. Martin Delizalde<sup>11</sup> Uztaritzarra du erretor eta Mentaberry bikario lagun. Delizalde horrek zuen idatzi, beste hiru apezekin, apezpikuak eskaturik, Lapurdiko apezen arrangura kaierra (cahier de doléances). Akizek, Estado Jeneraletara igorri zuen diputatu.

Arte horretan gauzak aldatu ziren Parisen. Azkainen Iraultzaren kontrakoak baldin bazituen partida Monhok, Bardozen, aldekoekin zen makur-

<sup>9</sup> Pierre Lafitte, 56. or.

<sup>10</sup> Pierre Lafitte, 58. or.

<sup>11</sup> Martin Delizalde, Uztaritzen sortua, teologan dotore eta apez Tolosan, Bardozen 1771an. Preso emana izan dondoan libratu zuten eta Oiharatzunera joan zen eta han hiletzeko P. Lafitte, 11-12. or. Eta Haristoy, I t. 204-205. or.

tuko. Parisek Konztituzioari zin egitea eskatu zien apezei. 1791ko otsailean zin egiteko deitu zituztelarik hiru apezak herriko etxerat, Delizalde eta Monhok ez zuten egin, Mentaberrik aldiz bai. Bordaletik etorri «Tiso» izen goitia zeukan, Jean Etxezahar Bardoztar fraide ohi batek ere (chartreux ordenakoa iduriz) zin egina zuen Bordalen hain segur. Iraultzaleen kluba sortu zuten Bardozen, 2 apez hauek buru. Hona *Bardozen glub* egiten duten 9 bertsoetarik bat:

*Herri huntan  
Balimbada gizon galantik  
Herri huntan  
Ez ahal dire glub hortan!  
Hor sartu direnek segurik  
Ez dute halako famarik  
Herri huntan<sup>12</sup>*

Lau apezak herri berean bizi izan ziren zerbait gisetarat, Sanadon, iraultzaleek izendatu apezpikuak, Mentaberri erretor eman arte 1791ko haza-roan. Monhok lekuak hustu behar izan zituen azkenean Delizaldekin, hegoalderat ihesi beste ainitz bezala.

Egun gogorrak bizi izan zituzten Bardozen zenbait hilabetez zin egile eta zingabeek. Iraultzale izatetik Iraultzaren kontrako bilakatu zen Monho. Mentaberri erretor ofizialak elizatik bota zituen zin egin ez zuten biak. Herri gizonek, Gabriel Detxart auzapeza buru, ez zuten onartu erretor berria. Azkenean armadaren laguntzarekin sartu zen bere kargutan Mentaberry. Eliza ondoko Sala jauregian ematen zuten meza beste biek, Herri gizonek erabakirik «libertatearen izenean» bakotxa nahi zuenera joan zitekeela. Jau-regiak zuen arrakastarik handiena. Mentaberrik ere bazuen bere artaldeñoa, andere serora barne.

*Graziote, oi Graziote  
Bardozko andere serora  
Errotu zarela diote  
Alde bateko aldera.*

---

<sup>12</sup> Pierre Lafitte, 30. or.

*Eskandala izigarria  
Saindutzat du Mentaberri  
Enganatu nahiz herria  
Andere serorak ezarri<sup>13</sup>*

Mentaberryk plenta edo kerella bat pausatu zuen. Uztaritzeko nagusiek beren kargutik kendu zituzten Bardozeako apez zingabeak eta meza debekatu jauregian. Mentaberriren posesionetan sartzearen okasionean bertsuak idatzi zituen orduan Munhok.

*Gure eliza hartu  
eta handik kasatu  
Gaitu Mentaberrik  
Etsaiek zitadela<sup>14</sup>  
Hartzen duten bezala  
Tropak ezarririk  
Alde orotarik  
  
Otoitzeko etxea  
Ohoinen geriza  
Orai da bilatu  
Pontifo legezkoak  
Artzain egiazkoak  
Dituze etxatu  
Ardiak hastandu.<sup>15</sup>*

Gertakariak orokorki aipatzen dituzten bi bertsu andana baditugu. Erromako burulehenak zinegitea debekatu zuelarik, ttantto onak eskutan, idatzi zituen 14 bertsu: *Erromako Gortetik*.

*Jaun horren arabera  
Aita Saindua bera  
Bere kadiratik  
Mintzo denean ere  
Ezin sinets daiteke*

<sup>13</sup> Pierre Lafitte, 36. or.

<sup>14</sup> Pierre Lafitte, 30. or.

<sup>15</sup> Pierre Lafitte 30. or. – Hastandu = urrundu.

*Ez badu manurik  
Erregeren ganik<sup>16</sup>*

Gertakari guzietaz egin gogoetak daizkigu ematen *Eskandala izigarria* hain segur berantago idatzi azken kantuan. Hau da gogorrena eta luzeena (33 bertsu). Hona bi kopla:

*Ministro zaharren doktrinaz  
Ez baitziren hauk gustatzen  
Mentaberriren katiximaz  
Dire gozoki bazkatzen  
Eskandala izigarria  
Katixima ahantzirik  
Glubeko doktrina berria  
Ikasi du Mentaberrik<sup>17</sup>  
  
(...) Eskandala izigarria  
Tiso dute predikari  
Bardozeko Luther berria  
Eta ez aditu nahi.<sup>18</sup>*

Terrorearekin, elizak hetsi zituzten eta apez zin egileek ere ez zuten tokirik izan gehiago. Mentaberrik apezgoa utzi zuen 1794an. Euskal Herrian, erlisione berriko, «Arrazoinaren tenplo» bilakatu zen bakarretarik izan zen Bardozeko eliza. Temple de la Raison. Mentaberri, herriko greffier izendatu zuten 500 liberako soldatarekin, 2000 zituelarik erretor zelarik. 180 apezterik 26ek zuten zin egin Baionako diosesan. Frantzian %51bat batek.<sup>19</sup>

Bainan hona non zenbait hilabeteren buruan, Robespierre hil eta, gure apez ondoak bere burua aurkesten duen herrikoetxean... erretor izateko. Bi aldiz eza eman zioten. Bardotarren petizio baten ondorioz onartu zuten azkenean. Iduriz kargutan egon zen, Loison apezpiku berriak 1802an, Martin Duhart Beskoitzarra izendatu arte. Gero ez dugu apezaren berririk.

<sup>16</sup> Pierre Lafitte, 26-28. or.

<sup>17</sup> Pierre Lafitte, 40. or.

<sup>18</sup> Pierre Lafitte 38. or.


<sup>19</sup> P. Haristoy, *Les paroisses du Pays Basque*, 1. tomoa, 1895, Vignancourt, Pau, 193. or.

Bi hitz apezpiku honetaz. Apez zin egilea zen eta lasai egona bere herrian, Verdun aldean, egunik gogorrenetan ere. Oseba jeneral izateari zor omen dio bere apezpiku kargua. Saurine, Baionako apezpiku zinegilea, Estrasburgoko artxapezkutegira izendatua izan zen. Marka guziak hautsi zituen Fech batek. Apezgoa utzia zuelarik, Lyongo artxapezpiku eta Frantziako «primat» izenda arazi zuen Napoleon bere ilobak. Zin egitea onartua ez zuten beste apezpiku batzu baztertuak izan ziren. Apezek zin egitea ezin ontsea zenbait hilabete lehenago, bainan bai geroago Napoleon aita saindu izatea!

Artean, Hegoaldetik sarturik, Ainhoa eta gero Irisarriko erretor izan zen Monho. Herri hau armada española xehatzetik beiratu zuen 1813an, Mina jenerala belauniko otoizturik. Bardozerat erretiratu zen 1819an, Karrikaga-raian hiltzeko 71 urtetan, 1921an, ekaineko 4an.

### Martin Hiribarren

18 urte berantago, 1839an etorri zen Bardozerat Martin Hiribarren Azkaindarra eta 1865 arte egon. 26 urtez, luze baita. Kaseta, irratia eta telebistariak ez zen garai haietan, Iraultzak eta hemen izan ziren bi gerlek, bazuketen oraino aipaldirik supaster xokoetan. Bizkitartean haizea itzulia zen eta 1848an bigarren errepublika sortu zelarik, jaun erretorak zuen egunari zoakion mintzaldia egin Bardozeako elizan bandera errepublikarra benedikatzean, gero, kanpoan, libertutearen zuhaitza egin aintxin. Menturaz bandera gainean emanik. Askotan erretorak zuen mintzaldia egin hala nola Donapaleu, Arberatz eta Domintxinen. Bainan ez Landi-



barren: egun horretan apezak lekuak hustu zituen. Aratsean etxera bildu zelarik, atean jo zuten gazteek, bainan erretorak leihotik ihes egin!

1852an Napoleon III. boterean zelarik irakaskuntzatik bota baitzuten Larraburu Heletako errientea, Xaho, Renaud eta Dendabururen aldekoa zelakotz, honen kanporatzea eskatzen duen gutunean, inspektoreak idazten zuen: *Il trouve un point d'appuis (...) même dans le curé, fort douteux en politique*<sup>20</sup>. Larralde apeza ere gorria zen beraz.<sup>21</sup>

Hona Hiribarrenen mintzaldiko bi pasarte:

*Je suis heureux d'avoir bénî votre drapeau. Si une carrière différente ne m'imposait d'autres devoirs, j'irais au besoin avec vous soutenir et augmenter la gloire immortelle de ces trois couleurs. Ce n'est pas invoquer la guerre, la France ne la provoque point mais si on la lui déclare, aucun de ses enfants ne doit la craindre. (...)*<sup>22</sup>

1810an sortua eta bazekien armada frantsesak zer egina zuen Azkainen eta Iparraldeko jendeak hain ongi tratatuak zituela non Lhuillier jeneralak afitsa hau hedatu batzuen:

*Les militaires pillent, volent leur linge et leurs effets. Ils les vexent et les maltraitent de toute manière. Les chefs sont souvent témoins de ces excès et ne les réprimant pas. Cette conduite qui ne pourrait être tolérée même en pays ennemi, est bien plus répréhensible chez nos compatriotes.*<sup>23</sup>

Bera ere ihesi ibilia zen 3 urte zituelarik:

*A trois ans je fuyais vers l'aride Gascogne  
Laisson à l'Espagnol la vengeance en besogne*<sup>24</sup>

<sup>20</sup> Prokuradoreak Hezkuntza ministroari igorri gutuna, ADPA 1852.06.28.

<sup>21</sup> Jean Larralde, Asmen sortua 1802an, apeztu eta Donapaleun bikario 1831an. Erretor Aruen 1833an, Domintxinen 1839an, Heletan 1845an, 1863an zendua.

<sup>22</sup> *Le Journal du Peuple*, 1848.4.10.

<sup>23</sup> ADPA 1813.

<sup>24</sup> LAF 302/025, 12. or.

Bainan segi dezagun Hiribarrenen mintzaldiarekin

*Pour les lions de la vieille Cantabre, la liberté, c'était la lyre qui faisait bondir vos pères, la trompette qui, au moindre danger, les faisait courir aux armes. Pendant 40 siècles, du haut des Pyrénées ils bravèrent le victorieux Romain, le sanguinaire Vandale et l'indestructible Arabe. (...) Libertatea zein eder den!»*

*(...) Qu'il n'y ait plus que des républicains... Que ce mot n'effarouche point vos oreilles: il ne doit plus rappeler les noïades, la guillotine et l'anarchie. Les républicains ce sont les amis du travail, de l'ordre public, de l'équité, de la sobriété, et enfin de la dignité de l'homme.<sup>25</sup>*

Iraultzagaia ez bezala, herrikoetxeak eta apezetxeak, bat egiten zuten beraz bigarren errepubika egunetan. Ohar halere Hiribarren errepublikarra, Napoleontzalea zela ere, «Napoleon lehena» olerkia lekuko. Zeruko xeden betetzerat agertua zen Napoleon.

*Gutitan halakoak dire agerturen  
Bethetzerat gaitzaten Zeruko xederen.<sup>26</sup>*

Ondoko bertsuek erakusten dute zergatik zuen horrelako atxikimendua inperadorearentzat.

*Elizari ziotzan xukatu nigarrak,  
Idekitz haren athe hetsi ez beharrak  
Konstituantaz geroz, bilhuia sainduak,  
Nihongo lege tzarrez bethi trabatuak,  
Etziren gehiago baizik ametsetan;  
Sinhesteak hil hurren hainitz bihotzetan.  
Besta lohiak ziren bakharrak egiten;  
Arima onek besta, nigarrak zituzten.  
Hamar urthe bazuen holako ariak,  
Ez dire ahantziren orduko zauriak;  
Etzen behar aldare, ez eta aphezik,  
Etziren mentan uzten tzarkeriak bezik.<sup>27</sup>*

<sup>25</sup> *Le Journal du Peuple*, 1848.4.10.

<sup>26</sup> Klasikoen gordailua, Napoleon lehena.

<sup>27</sup> Klasikoen gordailua. Jean Martin Hiribarren, Napoleon, 33. or.

Erraten duen bezala «ez dire ahanzten orduko zauriak» ez eta Napoleoni zor ziotela zauri horien desagertzea. Robespierren ondotik, azkatzale bezala agertu zen Napoleon. Napoleon lehenagoko xuriaren alde beraz Hiribarren eta denbora berean, 2. Errepublikako gorrien alde.

## Duvoisin

Duvoisin Bardozen egona da bibliaren itzultzeko, (1859-1864), Hiribarrenen urteetan. Bonaparte printzeak zion dirua ematen eta beraz bonapartista zen. Auzapeza Prefetak izendatua eta bonapartista baizik ez zitekeen izan. Hiribarren berdin! Bere sendimenduak agertzen ditu ondoko ber-suetan:

*Dugun kanta batean  
Biba inperadorea!  
Gure begiratzalea!  
Biba gure Andrea!  
Biba gure printzea!  
Biba Frantzia!  
Biba Eskal Herria!*<sup>28</sup>

Estadoa eta Elizaren arteko harreman onen leuko: apeztxe berria eraiki zioten Bardozen Hiribarreni. Eliza berria estrenatu zuten, hura hil ondoa, 1870an. Diru publikoarekin eraikitzen ziren elizak, Napoleon-en konkordataua martxan baitzen.

## Imitorioak

Napoleon lehenetik, hirugarrena arte, bigarren errepublika barne, eliza eta herriko etxe ongi akomeatu baziren, gauzak aldatuko dira egundainokotan hirugarren errepublikarekin, ez dakigu zer gatik. Pierre Damestoy izenan da auzapez 1881tik 1919 arte. *Negociant* ekarria da herriko paperretan.

---

<sup>28</sup> P. Urkizu, 394. or.

Gorria zen bainan ez ditake erran herriko gehiengoak ez zuela harekin bat egiten 38 urtez egon denaz gain kargu horretan! 1905an kantonadako bozketan, hautagai gorriak izan zuen gehiengoa.

Herria bi parte egin zen berriz ere: gorriak eta xuriak, imitorioetan iuskiko den bezala.

Hastetik agertu zena gorri Damestoy? Xantre izana zen, beherago ikusiko duzuen bezala. Ezkila berria egin zutelarik honen izena grabatu zuten gaineran. Menturaz automatikoki egiten zen auzapezarena.

Uztaritzeko serorek 1854an sortu herriko eskola (3 klasekin: 2 euskaraz, eta bat frantsesez) 1884an utzi zuten. Seroren eskuetarik laikoenetara pasatuko den lehenetarik. Seroren erabakiz ala auzapezaren erabakiz? Kontseiluko biltzar batetan errana da, serorek ziotela gutun bat igorri johan zirela jakin arazteko. Gutun hori ez da hor.

Geroago ote zuen agertu bere kolorea? Hauteskundeetan zerbait egiteko nahikeriarekin? Gorriek haizea alde zuten eta Agarramonteko jaunaren kontra aurkestu zen Bidaxuneko kantonadan. Bainan galdu.

Gorri gorrietarik zelako froga, errientak haurra izan zuelarik, baziaria egin zuten herriko exean bizpahiru kontseilarirekin, *bataio bazkariaren es-kernioa* Bardozeko berriketarik dioenaz.<sup>29</sup>

1906an Imitorioak izanen direlarik, aktiboki parte hartu zuen, jandarma eta gobernuko ordezkariren erdian, batere ez zelarik bortxatua parte harterat. Santsinena<sup>30</sup> erretoraren azken asteetan gertatu ziren Imitorioak. Hona nola kondatzen dituen *Eskualdun Onak*.

*Joan den astelihenean Bardozelo elizaren imitorioa egin behar zuen Bidaxune-ko kontrolurak. Eguerditik oren bata irian jin beharra zen jaun hori, bere lanaren egitera. Oren bata gabe, hiru ehun bat Bardotar, gizon eta emazte, eliza aintzinean bildurik zauden, herriko elizaz jabetzera jin behar zelakoaren zain.*

<sup>29</sup> Eskualdun Ona, Bardoze, 1902.02.06, 1. or.

<sup>30</sup> François Sancinena 1855-1913, Kanbon sortua, 1880an apeztua, Larresorion irakasle 1878an, bikario katedralean 1884an, Erretor Bardozen 1893an, Erretor Senperen 1906n.

Erran tenoreko han zen kontrolura, lau jandarmekin, harmak eskuan; eta heien erdian, herriko jendearen izitzerat heldu balitz bezala... jaun mera. Zertako zen han? Zer xedeza eta zer zuzenez? Bardozeko jaun mera? Zer? Giriñino herri batetako buruzagia lan horri buruz agertzeko, ez ahalge? Zer estakuru eman dezake? Bortxatua zela? Ez, jaun mera, ez. Ez zinen bortxatua. Jandarmeria gaizoen erran dezakete hori. Zuk, ez.

Orok badakite, legearen arabera, merak gomitatuak izan ditazkela, «invités», *lan tzar* huni esku emaiterat. Bortxatuak, ez, den gutienik ere. Legea zonbat ere baita bertzenaz makurra, ez da heltzen hortaino. Zu, ba; zu, legea baino ere gorriago bete.

*Beneditanoen eiheraz<sup>31</sup> jabetu zirenean, han zinen, oro baino aintzinago, Prefetaren begietan zure burua eder egiteko. Ez bortxaz orduan ere, bainan zure nahiz.*

Eta orai, herriko elizaz jabetu nahi direnen laguntzaile, zu, jaun mera? Ca c'est trop fort. Soberak sobera dire.

Sobera zela hori kausitu dute Bardoztarrek berek. Eta hurbiltzen ikusi duteneko, denak oihuaz hasi dira: *kuku Judas!* A bas le sectaire! A bas le mouchard!

Jendea ixilduxe denean, kontrolurak jaun erretorari erran dio zer lan egiterat igortzen duten. Erretorak errepostu: ez duela onesten lan hori. Gero berehala, fabrikako presidentak irakurtu du, gora eta azkarki, hitz garbi, sarkorrez, protestazione bat.

Orduan sartu nahi izan dire elizan. Bainan barnean ziren jendeek borta guziak oro hetsiak zituzten. Eta barnetik oihuaz hasi dire: «A nous l'Eglise! Vive la liberté! A bas les francs maçons!»

Jaun mera bere lagunekin joan behar izan da jin bidez, deus egin gabe. (...) (Jende) heien oihuak gero, eta eskarnioak jaun merari!... «Hu, hu, hu! A bas le rénégat, A bas le mouchard.» Ihes egin behar ukantzu ostatu batetarat. Halere nolazpeit erakutsi nahiz zoin den gizona, gizon ohoratua eta kuraiatsua, itzaltzarekin gibelaldea erakusten zuen, eskuz joz, haur tzar batzuk bezala... ope. Zer auzapezaren jabe diren Bardozen! Heientzat!<sup>32</sup>

<sup>31</sup> Belokeko fraidetxea, Bardozeko mugan da.

<sup>32</sup> Eskualdun Ona, 1906.2.9.

## Auzia

Beraz Baionako Prokuradoreari parte eman dio eliza aintzinean jendek oihu egin zutela: «*A bas les voleurs, à bas les assassins.*» Eta zer da gero, hala balitz ere? Jandarmeak ibili dire lau gizonen eta bi neskato gazteren ondotik eta galduatu diote hea egin zituztenetx oihu ikaragarri hek. Orok ihardetsi bide dute, egia den bezala, ez dutela gogoan izan ere holakorik aipatzea. (...)

Daukate hanitzek hobeki eginen zuela jaun merak ixil egoitea. Deus izan balitz holakorik, jandarmak han ziren enzuteko. Nork zuen jaun merak baino hobeki merezi berbala izaitea? Haizu ote da, jaun mera izana gatik, hainbertze jenderen aintzinean gibel aldea erakustea? Phu zikin!

Bere buruaren xuritzeko erran omen du jauntto horrek bortxatua zela han izaiterat?. (...) Bardoztarrek jakina dute ez direla agertu ez Bidaxuneko Jaun Mera ez eta ere Bastidakoa. (...) Bainan plazer baitzuen Bardozeiko Dameztoik lan hortan parte hartzea. Gogotik zohan segurki; eliza idekia izan balitz, kontrolurraren ondotik, dudarik gabe, xantre ohi bezela, elizan sar zitekeen salatzerat, eta gero gaitzitua jauna entzutiaz: »*A bas les mouchards*«. Norbeitek erran ere badu: debrien figura, igandetan mezan ez ibiltzen eta baia lan horren egiteko elizan sartzen? Hu, hu, Kahut!<sup>33</sup>

(...) Imitorioa egiteko denbora guzian, Jaun mera egon behar izan da, mutiko ttipi bat bezala, elizatik kanpo, ez ahal baitzitzai eder. (...) A Damestoi, Dameztoi! Aspaldian berantetsia ahal zira noiz izanen diren eliza guziak hetsiak eta apezeria guzia «toute cette prêtraille», erraiten duzun bezala, alde bat kasatua.<sup>34</sup>

Ikusten duzue mende batez errotak itzulia egin duela. Iraultza garaietan apezen alde ziren Badoztarrak, Napoleon lehenaren garaietan enperadorearen alde, gero bigarren errepublikaren alde, ondotik Napoleon IIIren alde eta mende ondarrean Bardoz itzuli da Munhoren garaietarat, auzapeza zu-tela partida aldi honetan eta ez apez iraultzale bat.

<sup>33</sup> Kahut hitzak kaskoinez erran nahi dezake: etxezoko, hilkutxa.

<sup>34</sup> Eskualdun ona (1906.02.16).

Bestalde historio honek erakusten du apezak izan direla iraultzalen alde, kontra izan aintzin, bigarren errepublikaren alde gero, 3.ren kontra izanen diren bezala. Parisko Karmetan ezpata ukaldika eraile zuten Frantses d'Arden Istoritzarra ere Iraulzaren aldekoa zen hasieran, bere apezgaietik.

## Bardozekeko beste izen zenbait

### Literatura

Literatura hunkitzen duten beste izenik ikusi dugu Bardozen, hiruak elizako edo elizatik hurbilekoak. B. Zelhabek lehen saria izan zuen Urruñako lore jokoetan 1855an *Entzunik esplantutan Indien berriak*,<sup>35</sup> Ameriketara zoatzinentaz idatzi bertsuentzat, Etxahun Barkotxe hasarre gorrian sartzen zela, apezgai izana eta apezen kastakoa zelakotz emana baitzoten saria Xiberotarraren ustez. *Bi bertset horiez* kantua egin zion irabazleari.

*Leon Dajas*, apez Bardoztarraren bertsu zenbait ere badugu. *Herriko bestak, Emazte edaleak*.<sup>36</sup>

J.B. Gorostartzu, (1829-1868) 1794an gillotinatua izan zen Ezpeletako jujearen semea, bi urtez Bardozen bikario egon da. 2. saria izan zuen 1854an, geroztik famatua gelditu den *Orhiko xoria* kantuarentzat. *Haroztegi* izenpetzen du amonaren etxeko izenetik. Jakinez nola hil zitzaion aitona harri nindezke gorria izan balitz.<sup>37</sup>

Ez ahantz ere Bardozen zuela egin Bibliaren itzulpena Duvoisin kapitainak, Hiribarren zelarik erretor.

«Bardozekeko eskola» erran behar ote genuke?

Horra Bardozekeko zer eman dion Euskal literaturari eta literatura horrek zer ikasten digun xuri eta gorriek herri horretan izan zituzten gora berehe-

<sup>35</sup> Patri Urkizu, *Bertso eta Kantak II*, Etor, 1991, 355. or.

<sup>36</sup> P. Urkizu, 364-367.

<sup>37</sup> Dassance, *Orhiko xoria, Gure Herria*, 1970, 321-332. or.

retaz, Monho eta Hiribarrenen garaietan eta geroago. Elizan izan dira xuri eta gorriak, imperio edo errepublikaren aldekoak eta kontrakoak, bestetan bezala. Eliza eta herriko etxe borrokan ari izan dira batzutan, eskus esku beste batzutan.

## Bibliografia

ASKOREN ARTEAN, *Bardos*, Ekaina, 1992

ALBIZU, Danielle, «Bardozeko Euskal Idazleak», in *Bardos*, Ekaina, 1992, 325-340. or.

DASSANCE, *Gure Herria* 1970

LAFITTE, Piarres, *Poèmes basques de Salvat Monho*, Ikas, 1972

LAMANT DUHART, *Bardos*, Ekaina, 1992, 187-204

ORPUSTAN, Jean Baptiste, *Un poète Basque au temps de la Révolution*, in «1789 et les Basques», PUF Bordeaux, 1991 239-255 or.

URKIZU, Patri, «Bertso eta kantak», Etor, 1991.

*Eskualdun Ona* Astekaria

HERRIKO ETXEKO DOKUMENTUAK

# **Arbasoak Hiribarrenen *Eskaldunak* idazlanean**

TOLEDO LEZETA, Ana M.

Euskaltzain osoa eta literatura ikerketa batzordekidea.

Deustuko Unibertsitateko irakaslea

Sarrera data: 2011-II-11

Onartze data: 2011-VII-11

*Eskaldunak* (1853) idazlaneko lehen 1.480 bertsos-lerroak aztertzen dira: euskaldunei zuzendutako hitzaurrearekin eta arbasoei buruzko berrieikin Hiribarrenek osatu zituenak, hain juxtu. Orain aldi iluna gainditu eta Argien Menda abian jartzea du xede Hiribarrenek. Horretarako, jakintza historikora eta filologikora joaz, euskaldunen arbasoen ibilbidea kontatu zuen, hauen identitatea eraikitzeko moduan. *Eskaldunak* idazlanaren idazketaren orain aldian euskaldunak ez du jasotzen bere identitatearen mailan legokeen trataera. Salaketa egin eta egoerari aurre egiten hasteko mamitzten du liburua.

**Hitz gakoak:** Argien Menda, zientzia, identitatea, aurkakotasuna, bidegabekeria, salaketa.

Se analizan los primeros 1.480 versos de la obra *Eskaldunak* de Hiribarren, concretamente, los que compuso a modo de prólogo e historia de los antepasados del vasco. El objetivo que pretende alcanzar la obra es desterrar las tinieblas que caracterizan al presente y dar paso al Siglo de las Luces. Con este fin, apoyándose en la historia y la filología, relata la historia de los antepasados y construye su identidad. Estima que el tratamiento que recibe el vasco no está en consonancia con lo que sus rasgos de identidad demandan. Lo denuncia y presenta *Eskaldunak* como su aportación para superar las condiciones que observa en el presente.

**Palabras clave:** Siglo de las Luces, ciencia, identidad, oposición, injusticia, denuncia.

Les 1.480 premiers vers de l'œuvre d'Hiribarren intitulée *Eskaldunak* sont étudiés ici et plus précisément ceux qu'il compose pour la préface et l'histoire des ancêtres du basque. Cet ouvrage a pour objectif d'éclairer les ténèbres de l'époque pour s'ouvrir au siècle des Lumières. S'appuyant sur l'histoire et sur la philologie, il relate l'histoire de nos ancêtres tout en construisant leur identité. Il estime que le traitement que reçoit le basque n'est pas en adéquation avec ce que requiert son identité. Il dénonce cet état de fait et présente *Eskaldunak* comme son apport pour le surmonter.

**Mots-clés :** Siècle des Lumières, science, identité, opposition, injustice, dénonciation.

The first 1,480 lines of verse in the book *Eskaldunak* (1853) are analysed: they were in fact the ones compiled by Hiribarren with a foreword addressing Basque speakers and providing pieces of information about their ancestors. Hiribarren's aim was to overcome the dark period and usher in the Age of Enlightenment. For this purpose he resorted to historical and philological knowledge to describe the development of the Basque people's ancestors in order to build their identity. At the time when the work *Eskaldunak* was written, the Basque people were not receiving the treatment that would correspond to the level of their identity. The book deals mostly with this denunciation and how this situation should start to be addressed.

**Key Words:** The Age of Enlightenment, science, identity, opposition, injustice, denunciation.

Jean Martin Hiribarrenek (1810-1866) 1853an eman zuen argitara 5428 bertso-lerroz osatutako *Eskaldunak. Iberia, Kantabria, Eskal Herriak, Eskal Herri bakhotxa eta hari darraikona*.

Izenburuan iragartzen duen bezala, giza talde jakinari buruz jardungo du: euskaldunei buruz. Azpitituluan modu xeheagoan adieraziko du zein atal nagusiz baliatuz jorratuko duen gaia: Iberiak, Kantabriak, Euskal Herriek, Euskal Herri bakoitzak eta honi «darraikona»k osatuko dute idazlana.

Euskalduna du kantagai. Lehenik, historiara jo eta, arbasoen gorabeherak jasoko ditu. Arbasorik zaharrenengandik hasi, –Iberia–, eta hauen hurrengo direnekin jarraitu ostean, –Kantabria–, Euskal Herrietara iritsiko da. Azkenik, Euskal Herri bakoitzaz eta honi «darraikonaz» jardungo du, euskal lurralte bakoitzari eskainitako bertso-lerroen ondoren, hainbat ibai, herri, pertsona, profesio eta abarren berri emanaz.

Idazlan osoa gabe, zati bat hartuko da aztergai: 5428 bertso-lerro horietako lehen 1480 bertso-lerroen gain eraikiko da gaurko jarduna; izan ere, hitzaurreak, «Eskaldunei bi hitz hastean», eta hurrengo hiru atalek –Iberia, Kantabria, Euskal Herriak– eratuko dute azter eremuia. Azter eremu horretan Hiribarrenek euskaldunen arbasoez eman zuen irudia atzemango da, euskaldunei zuzendu zien hitzaurrean egiten duen planteamenduarekin harremanetan jarritz.

Hitz erditxo bat aukeraren oinarriak azaltzeko. Osotasun baten parte bat baino ez da aztertuko. Haatik, osotasun baten parte izanda ere, parteak badu autonomiarik euskaldunengana arreta biltzen duen 5428 bertso-lerrotako idazlan horretan: batetik, euskaldunen lehen aldia aztertzen duen partea da; bestetik, parte historikoa da, eta, azkenik, euskal herri guztiak batera behatzet ditu. Lehen aldian zehar egindako bidaian, gizakiaren sorerra abiapuntu hartu eta, euskaldunen jatorria Iberian jarri ostean, Kantabriatik igaro eta, Euskal Herrietara helduko da.

Egileak berak ere eman zion autonomiarik. Parte honen azken hiru ahapaldiak eginkizun zehatzera bideratu zituen: ordu arteko jarduna itxi eta hurrengoa irekitzeko. Urratsez urrats egiten du iraganbidea:

Kantu hauk eman ditut, ibiliz larriki,  
Hainitz zen unhaturen, egonez xeheki;

Jainkoak nahi badaut bizia luzatu,  
Oraiko eskaldunez nahi dut mintzatu<sup>1</sup>. (1469-1472)

Ordu arteko jarduna itxi –iraganari zegokiona– eta datorrena iragarri ostean, –orain aldian kokatuko dena–, hurrengo bi ahapaldietan autu berria aurkeztuko du.

Laburbilduz, lehen parte legez izendatu denak, euskaldunen lehen aldiani eskainitako 1480 bertso-lerro ditu<sup>2</sup>; gainerako 3948 bertso-lerroak orain aldian kokatzen dira. Ikuspegি diakroniko batetik, lehen aldira begiratzen duenean, euskaldunek egindako ibilbidearen berri ematen du, euskal herrietako euskaldun guztiak izanaz ardatz. Aldiz, orain aldira begiratzen dueñeán, ikuspegia sinkronikoa da, baita bereziagoa ere: euskal herriren bat, ibairen bat, profesioaren bat... du neuritzak ontzeko gai.

Beraz, aztergai izango diren bertso-lerroek hiru zutabe nagusi dituzte euskalri: iragana, historia, euskalduna. Hortik aurrerakoek, berriz, oraina erretrata-tea bilatzen dute. Oraina erretratatzean, Hiribarrenek jada ez ditu fokatuko euskal herri eta euskaldun guztiak batera, baizik eta multzoka edo banaka.

Honela bada, idazlanaren izenburuaren azpitituluak aurreratutako atale-tatik –Iberia, Kantabria, Eskal Herriak, Eskal Herri bakhotxa eta hari darraikona–, Iberia, Kantabria, Eskal Herriak legez aurkezten dituen atalek osatuko dute aztergaia: *Eskaldunak* idazlanaren lehen hiru atalek, hain zuzen ere. Hala eskatzen zuen gaurko jardunari jarritako izenburuak: arbasoak. Jadanik esan denez, euskaldunen arbasoak nola atzeman zituen Hiribarrenek azaltzea du xede hitzaldi honek eta, ondorioz, arbasoez diharduten bertso-lerroetara biltzen du arreta.

Arbasoez paratu zituen hitzaurrearen ondotik datozen 1408 bertso-lerroak. Bazuen motiborik lehen aldirako bidaia antolatzeko: idazlanaren

<sup>1</sup> Aipamen guztiak honako edizio honetatik egingo dira: HIRIBARREN, Jean Martin (1994): *Eskaldunak. Iberia, Kantabria, Eskal Herriak, Eskal Herri Bakhotxa eta hari darraikona*, (1. zatia), Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbao. Patxi Altunak, Gurutze Aldabaldetrekuk eta Amaia Bonetak prestatutako edizioa da.

<sup>2</sup> Berez, 1480 bertso-lerro gabe, 1408 dira lehen aldiko gorabeheretz ari direnak; izan ere, hasierako 72 bertso-lerroak idazlana aurkezteko erabiltzen ditu.

idazketaren orain aldiari atera dion erretratuak bultzatu du joandako denborak aztertzena. Bere orain aldiaz egiten duen ebaluazioa eta garaikide dituen euskaldunak ditu gogoan Hiribarrenek lehen aldian murgiltzerakoan.

Hitzurre modura moldatzen dituen hasierako 72 bertso-lerroetan, —«Euskaldunei bi hitz hastean»—, azalduko ditu idazlana mamitzeko izan dituen arrazoiak. Muin-muinean euskaldunek orain aldian bizi duten egoeraren aurrean dei bat zabaldu eta dei horri erantzuteko bitarteko du *Eskaldunak*. Orain aldiko ilunpeak astindu eta Argien Mendea abian jartzera deitzen du. Deia egitearekin batera lantegiari helduko dio: Hiribarrenek bere jakintza historikoa eta filologikoa isuriko ditu *Eskaldunak* liburuan Argien Mendea abian jartzeko. Jakintza historikoan eta filologikoan oinarrituz, arbasoak aurkezten dizkio euskaldun garaikideari. Historia eta filologia jakintza-alorrik bidelagun hartuta, lehen aldian zehar egindako ibilaldiak identitate jakina eratu eta berari tinko eutsi dion giza taldea erakutsi dio. Asmazioaren fruitu gabe, jakintzaren bidetik ikasitakoa da adierazten duena. Ikasi duenaren berri ematea du jomuga Hiribarrenek orain aldia itxuraldatzen hasteko.

«Euskaldunei bi hitz hastean» hitzurre modura ondu, bertan xedea ezarri, eta xedeari erantzutera dator idazlana: lehen 72 bertso-lerro horietan orain aldiari argazkia egin, argazkiak erakutsi diona desegokitzat jo eta, ikusitako errealitatea aldatu beharra aldarrikatu ostean, gainerako 5356 bertso-lerroak aldaketa gauzatzen lagun dezaten idazten ditu. Horregatik, hitzurre-testu harremana behatzea gomendagarria izan daitekeela uste izanaz, arbasoei es-kainitako bertso-lerroak hitzurre honen argitan aztertuko dira.

Gauzak honela, aurrenik, hitzurrera zuzenduko da begirada, orain aldia nola dakusan atzemateko eta somatu dituen hutsuneak gainditzeko egiten duen proposamena ezagutzeko. Jarraian, arbasoez diharduten ataletara igo-ro eta, arbasoez eraikitako irudiaren berri emango da, hitzurrean aitortu-takoarekin duen harremana agerian jarri.

## 1. Helburua: argien mendea abian jarri

Idazlanaren idazketaren orain aldian euskaldunak bizi duen egoera tamgarriak egoera salatzea eta gainditzen joatea eskatzen dio Hiribarreni.

Zein dira, ordea, orain aldian atzematen dituen bidegabekeriak? Bat haur euskaldunak eskolan euskaraz ez ikastea da:

Haur osteak ikusi, buraso gastutan,  
Urthe multzu egoten eskola handitan;  
Mihi arrotz zenbeitez ikhasi mintzatzen,  
Eskaraz jakin gabe kasik irakurtzen. (9-12)

Eskolan ez dute euskaraz irakurtzen ikasten: hizkuntza arrotz batek ordezkatzen du euskara. Haur euskaldunak hizkuntza arrotz batez jabe dattezen gurasoek dirua xahutu beharra deitoratzen du Hiribarrenek.

Bada beste bidegabeketiarik ere, hala nola euskaraz jakiteak ezertarako balio ez izatea:

Zenbatek jakitea eskara herriko  
Ez baitute kondatzen bi arditendako! (17-18)

Jokabide bidegabeeen zerrenda luzatuz doa Hiribarren. Hala, besteen balentriak noranahi zabaltzen diren bitartean, euskaldunenak ezezagunak iza-tea salatzen du:

Balentria bertzenak urrun hedatuak;  
Eskaldun berthuteak nihon aiphatuak. (41-42)

Haurrek,

Izan direla frances errege handiak  
Badakike kondatzen hekien mihiak. (13-14)

Frantses erregeak ezagunak dituzten haur euskaldunek Euskal Herriko erregeen aditzerarik ere ez dute. Gertaera agerian jarri ostean, merezi dion balorazioa erantsiko du: haur euskaldunek frantses erregeei buruzko berriak ikastea baino hobe da betiko etxeak erretzea Hiribarrenentzat.

Atzematen ari dena bidezkoa gabe bidegabekeria dela argitzeko ahalegi-na ere egingo du. Beste giza talde batzuetara jo, hauek nola jokatzen duten azaldu eta, jarraibide legez aurkezten ditu:

Españolek español nahi dute jakin,  
Frantzesek ere frances bere arantzekin;  
Zertako Eskaldunak utziren eskara,  
Bilhatzeko non gasta bertzetan denbora? (21-24)

Idazlana idazten duen egunetan euskarak eta euskaldunak pairatzen duten bazterketaren kausez ere arduratzen da: ospea galdu izanean dago gakoa. Badu erantzulerik ospea galtze horrek. Erantzulea ez dago euskaldunen artean, hauei kendu egin baitiete ospea. Galeraren jasale dira euskaldunak, galeraren eragileak, berriz:

Latin, español, o frances jeloskorak  
Goibeldu, ahal guziz, eskaldun zaharrak;  
Berak ez mintzazean, aise zen belztea. (29-31)

Orain aldiaren erradiografiak erakutsitako gabeziak gainditzeko giltza jakintza igortzeko egiteko duen eskolan dago. Eskolak, baditu bere eskakizunak: liburua eta dirua galdegiten ditu. Liburua eta dirua jakintza eskuratzeko bitarteko ezinbestekoak dira:

Dirurik ez duenak ezin ikhas deusik,  
Sosa gabe ez baita eskola francesik;  
Liburu on guzia fransesez egina;  
Soseko liburu bat gabe Euskalduna! (33-36)

Jakintza eskuratzeko derrigorrezkoa den liburua baliabidean urri dabil euskalduna, sosik balio duen libururik ez daukalako. Badira euskaraz eliz liburu onak, ez ordea, kanporako egindako libururik.

Haur euskaldunak eskolan euskaraz ez ikastea, euskarari baliorik ez ematea, euskara ospea galdua egotea, euskaldunek egindako ekarriak ezezagunak izatea, eliz liburuez kanpo ganorazko libururik euskaraz ez edukitzeari... erakusten dio Hiribarreni bizi duen orain aldiak.

Hitzurrean orain aldia erretratatu ez ezik, epaitu ere egiten du: bidegabekeria hutsa da gertatzen ari dena. Baditu arrazoia gisa horretan epaitzeko. Oinarri-oinarrian daukan arrazoia bertso-lerro bakar batera ekartzen du:

Populu guzietan lurreko lehena. (49)

Oinarri honen gain eraikiko du bere argumentazioa. Euskalduna izanik lurreko giza talderik zaharrena, ezin onar daiteke ezjakinenetan izatea. Herririk zaharrenari beste maila bat dagokio jakintzaren barrutian:

Ezin jasan diteke gutien jakina. (50)

Euskalduna «populu guzietan lurreko lehena» da; euskara lurrean parerik gabekoa:

O mihi ederrena, hasterik gabea,  
Nork erran ez duiala lurrean parea! (19-20)

Antzinatasunean dago gakoa: horra hor euskalduna eta euskara munduan legokiekeen lekuaren ez daudela salatzeko funtsezko arrazoia.

Idazlanaren idazketaren garaiko egoera erretratatu, epaitu eta, salatu ostean, irtenbideari irekitzen dio tartea. Euskaldunak deituz, irtenbidearen berri ematen die:

Iharrus, Eskaldunak, zuen ilhunbeak  
Abia ordu luke argien mendeak (51-52).

Ilunpeak astindu eta Argien Mendera abiatzeko ordua da: euskaldunei zabaldutako mezuak aldi berean Hiribarrenen idazlanaren xedea jasotzen du. Desiratutako eraldaketa mamitzen laguntzea bilatzen du, bere ekarria egitea xedearen lorpenetarako. Euskaldun guztiei gonbita luzatu ondoren, Hiribarren bera hasiko da ilunpetik Argien Menderako jauzia egiten. Geroko gerorako utzi gabe, deia zabaltzearekin batera berak ekiten dio lantegiari. Argien Mendera abian jartzeko, «herria, lana, berthutea» kantatzea hautatu eta osagai horiekin moldatutako liburua euskaldunen esku jarriko du.

Haur euskaldunek frantses errege handien berri badutela esana du hitzaurrean, orain, bere idazlanak Euskal Herriko erregeak ezagutzeko parada eskainiko du. Halaber, esana du, eliz liburuetatik kanpo euskaldunak ez daukala sosik balio duen libururik, orain, Hiribarreni esker, izango du. Era berean, esana du, besteen balentriak zabaldu direla eta ez horrela euskaldunaren bertuteak. Orain, *Eskaldunak* idazlanak emango du euskaldunen balentria, lan eta bertuteen berri. Euskaldunei buruzko jakintza-liburua osatu du. Guztia, noski, euskaraz.

Honenbestez, ezin jasan daiteke euskalduna ezjakinenetan izatea baiezta duen bera dator orain aldiak aurkezten dion egoera gainditzera, Argien Mendera abian jartzera.

**Idazlea euskalduna eta jakintsua da**, orain aldiak euskalduna ezjakintasunean kokatzen duenean. Hitzaurrean barrena, zein barrutitan somatzen

ditu gabeziak Hiribarrenek? Euskarazko liburuetan, euskaraz bideratutako jakintzan, Euskal Herriari buruzko jakintzan. Juxtu liburu bat egitera doa, euskaraz jakintza igortzen doan liburua eta Euskal Herriaz diharduena.

Idazlea jakintsua da. Bere idazlana burutzeko hainbat iturri idatzitara jo du: Humboldt, Ampero, Diodoro, Silio, Moret, Estrabon, Liburu Sainduak... Beraz, iturri horiek ezagutzen ditu: ikasia da eta frantsesez gabe, euskaraz mintzo da. Honela, gainditu egiten du salatutako ekuazioa: euskalduna: ezjakina; frantsesa: jakintsua. Indarrean zegoen berdintasuna, euskalduna= ezjakina, euskaraz irakurtzen ez dakiena, zioena baliogabetzen hasten da. Hiribarren euskalduna da eta euskaraz igortzen du jakintza.

Hizkuntzalariak, historialariak, poetak... sortutako jakintza bereganatua du. Garai oso desberdinako jakintsuek utzitako ondarearen berri du, bai oso antzinakoek egindako ekarriena, bai garaikide edo ia garaikide dituenea ere. Bere erudizioaren iturria ez dago bakarrik aspaldiko jakintsuengan; hori baino «eguneratuagoak» ditu ezaguerak. Bere egunetakoak edo ia bere egunetakoak diren Wilhelm von Humboldtten (1767-1835) edo Jean Jacques Amperoren (1800-1864) lanak ere ezagutzen ditu: jakintza-mailan eguneratuta bizi da.

Hona aipatzen dituen iturri batzuk helarazi dioten irakaspenen bat.

Liburu Sainduetan ikasi du, adibidez, Babelgo dorrea eraikitzen ari zirela etorri zela hizkuntza-nahasketa eta ordu arte hizkuntza berbera hitz egiten zutela gizaki guztiekin.

Diodoro Siculo historialari grekoak erakutsi dio zelten Iberiarako etorrera. Silio Italiko poeta epikoarengandik, *Punica* poema epikoaren egilearen-gandik, gerra punikoen gaineko berriak ez ezik, euskaldunei buruzkoren bat ere jaso du:

Siliok erakusten gizon Eskalduna,  
Lehoinezko harmaden buruan emana. (529-530)

Estrabon geografo eta historialari grekoak euskaldunen arbasoei buruz esandakoak ere badakizki. Estrabonek geografiari eskainitako 17 liburukietako hirugarrena, Iberiaz diharduena, behintzat ezagutzen du.

Seneka ere ez zaio arrotza. Aitaren heriotza zela eta, Korsikako desterrutik Senekak gutun bat idatzi zion ama zuen Helviari, honen pena arintzeko asmoz. Argitara emateko prestatutako saiakera ez izan arren, argia ikusi zuen. Senekaren gutun hau Hiribarrenek bereganatu duen kultur ondarea-ren osagai da:

Desterrutik Senekok erraten amari  
Korsek Iberiarra zutela iduri. (169-170)

Moretengandik ikasi ditu Nafarroako erregeen gorabeherak:

Moreto mintzatu da Eskaldun erregez. (1369)

Ez da harrigarria Nafarroako erresumaren kronista izan zen XVII. mendeko historialari jesuitarengana jo izana Hiribarrenek, Moretek, nola *Investigaciones históricas de las antigüedades del reino de Navarra* (1665), hala euskal populuaren hasieratik 1349 urte arteko ibilbideaz diharduen *Anales del reino de Navarra* (1684-1704) idatzita zeuzkanean.

Garaikideak dituenen artean aurkezpenik behar ez duten jakintsuak ditu bidelagun: Humboldt eta Ampero. Humboldt-ek adierazia zuen euskara zela Europako hizkuntzarik zaharrena, euskalduna zela Iberia prezeltikoko biztanleria primitiboen ordezkari linguistiko zaharrena. Beraz, Hiribarrenek, Humboldt-en teorian oin hartuz, esan dezake:

Balin bada oraino sinhets ez dukenik  
Eskaldunen sortzea Europan lehenik. (189-190)

**Idazlea zientziaren barrutian kokatzen da.** Euskaldunei buruzko jakin-tza zabaltzera doa. Hitzaurrean azaltzen duen asmoak zientziaren barrutira bultzatzen du: Argien Mendea abian jartzeko ordua baldin bada, zientziak eta zientziaren erabileran zorroztasunak izango dute zeresanik.

Izenburuan iragarri bezala, euskaldunak ditu gai. Giza talde honi buruzko zenbait baiezpen eginatez hitzaurrean, baiezpen horien euskarriak agerian jarri beharrean da: frogak, argumentuak eta abar eman beharrean da. Hala, «populu guzietan lurreko lehena» dela baiezteko izan badu hitzaurrea, baiezpena frogatzeko leku du testua. Nahitaezkoa du baiezpenaren nondik-norakoa argitzea, orain aldiko egoera salatzeko oinarri bezala hartu

duenean: populu zaharrena izateagatik irabazita lukeen mailari legokiokeen tratua ukatzen zaiola adierazia du idazlanaren abiapuntuan bertan. Horrenbestez, erakutsi egin beharko du euskalduna dela «populu guzietan lurreko lehena», orain aldiko egoera salatzeko daukan motibo nagusia baita. Hitz batez, ilunpeak astindu eta Argien Mendaña abian jartzea helburu izateak, hautatu duen gaira zientziatik hurbiltzea eskatzen dio.

Oinarri dituen zientziak historia eta filologia dira.

Hiribarrenek *Eskaldunak* idazlanaren lehen hiru ataletan, arbasoei buruz dihardutenetan, historia egin zuen eta, asmoz behintzat, historia hori modu zientifikoan egitea bilatu zuen. Zientzilariaren jarrera hartzen du gaira hurbiltzerakoan; besterik da, oso besterik izan ere, horretarako erabili zituen iturriei egun egotziko litzaiekeen «fidagarritasun-maila». Ez dago, ezta ere, alde batera uzterik, metodoen zorroztasun-mailan historiako ikaskuntzek XIX. eta XXI. mendeen artean irabazi dutena: jakin badakigu, Hiribarrenek eraabilitako iturrien datuak iragazi oso estutik iragaziko lituzkeela XXI. mendeko historiak.

Zientzilari batek bezala, iturriak aipatzen ditu. Gehienetan iturriaren erreferentzia jakintsuaren izena ematera mugatzen badu ere, aipatutako jakintsua hain ezaguna ez denean, edo uste duenean hartzalearentzat hain ezaguna ez dela izango, argitasunen bat gaineratzen du oin-oharrean. Argitasuna, beti, denboraren ardatzean kokatzeko da. Esaterako, Diodororen gana jotzen duenean testuan, oin-oharrean eransten du «Diodoro bizi zen ehun urthe Jesusez lehen» (16. or.). Berdin jokatzen du Siliorekin, Estrabonkin edo Senekorekin<sup>3</sup>.

Garaikideek edo hurbilekoek, dirudienez, ez dute datatu beharrik. Hala, Jose de Moret XVII. mendeko historialari nafarra edo Humboldt edo Ampero noizkoak diren zehaztu beharrik ez du somatu.

Dena den, behin edo behin, iturri duen jakintsuaren izena aipatzeaz gain, euskarri duen dokumentua transkriba dezake. Behin behintzat, bere baiez-

<sup>3</sup> «Silio bizi zen hiru hogoita sei urthe Jesus baino lehen» (34. or.) dio egilearen oin-oharrak. Formula berbera darabil gainontzekoetan: «Estrabon bizi zen hogoita bortz urthe Jesu-Kristo geroz» (15. or.); «Seneko bizi zen hiru urthe Jesu-Kristo baino lehen» (13. or.).

penerako erabilitako dokumentua hitzez hitz jasotzen du oin-oharrean: Garzis euskaldunen errege Burundan izendatu zutela dioen Gregorio Aita Sainduaren bulda, jatorrizko hizkuntzan, latinez, testuratzen du (63-65. orr.).

Esan bezala, arbasoei eskainitako ataletan historia da oinarri duen zientzia nagusia. Historialari batek bezala gertaeren kronologia egiten du. Kronologia hori hasten da gizakiaren sorrerarekin eta Nafarroako Erregeen berri emanaz amaitzen. Hurrenkeria kronologikoa gordeaz, gizakiaren sorerra abiapuntu hartu eta, Iberiaren eraketaz jardutera igarotzen da. Iberiatik Kantabriarako jauzia egin eta, azkenik, Euskal Herrian kokatzen da.

Azaldutako gertaerak denboraren ardatzean lekutzen ditu. Gizakiaren sorrerari 6000 urteko antzinatasuna egosten dio; Jesukristo baino 2000 urte lehenago eratutakoa da Iberia; 3300 urte dira iberiarrok bitan banatu zirela; berrogei mende, berriz, euskalduna Pirinioetan dela<sup>4</sup>.

Beste hainbat gertaera ere kokatzen ditu denboraren ardatzean: 406an hedatu ziren barbaroak, VIII. mendea hastear etorri ziren afrikanoak Espainiara; 616. urtean izendatu zuten Garzis<sup>5</sup> errege eta abar.

Dirudienez, zehazteko premia dauka. Iturriak, gertaeren noizkotasuna... mugatzen ditu. Zehazteko premia ez datorkio «testu literarioa» egin nahi izanetik, baizik eta «testu zientifiko» egin nahi izanetik. Literaturaren erresuma bizileku eraiki nahi izan balu zehazgabetasunari atxiki zekiokeen; izan ere, gardentasunetik eta zehaztasunetik urrutiratuz, iluntasunean eta anbiaguotasunean murgiltzeko aukera ematen zion testu poetikoa mimitzeak. Haatik, Hiribarrenen asmoa ez da testu poetikoa ontzea, testu zientifikoa baino: poesiaren kategorian gabe, zientziaren kategorian murgiltzea hautatu du hitzaurrean azaldutako xedeari erantzunaz. Ezkutatzen ez duen jarrera da.

Filologiara ere jo zuen argibide bila: filologo batek bezala hitzen etimoak emango ditu. Filologia, batik bat, historia egiteko laguntzaile du. Bere inte-

<sup>4</sup> Hurrenez hurren, 81-82 bertso-lerroak, 285-286 bertso-lerroak, 165-166 bertso-lerroak, 797-798 bertso-lerroak.

<sup>5</sup> Hurrenez hurren, 1001-1002 bertso-lerroak, 1017-1019 bertso-lerroak, 1065-1066 bertso-lerroak.

resa ez dago ikasketa filologikoetan, baizik eta hitzei egotzitako etimologiek historia argitzeko egindako ekarrian. «Iberia», «Kantabria» eta «euskalduna» hitzen etimoak jasotzen ditu, baina etimoak zuzentzat hartzena gonbidatu gabe. Hala, Kantabriaren etimoa «Kanta Iberia»n jarri ostean, honela dio:

Kantabria ez dela kanta Iberia  
 Zenbeitek errateko naski gutizia  
 Ez dut nahi bortxatu nihor sinhesterat;  
 Itxurak nau ekharri horren erraterat. (265-268)

Euskalduna hitzaren etimo moduan bat baino gehiago eskaintzen ditu: *esku lan dunatik* etor zitekeela adierazi izanagatik, *esku alde duena* behar bada askoren gogoko izango dela eransten du, eta *eskuda alde duna* ere aipatzera iristen da (50. or.).

Etimoen aurkezpenean erakusten duen jarrerak zientzilari legez jokatu nahi duela salatzen du; izan ere, zientzilari moduan, zorroztasun mailaren baten jabe dela adierazten duen arrastoa uzten du. Bere ezaguerak iragazi egiten ditu, batzuk ziurtzat aurkeztuz eta beste batzuk ez horrenbeste. Alderdi honetatik kritikoa da: guztiari ez dio ematen fidagarritasun-maila berbera.

Erabilitako iturriak aipatzeaz gain, iturriekin zorrotz jokatzea eskatzen zaio zientzilaria. Eskakizun honi erantzunaz, darabiltzan iturriak ebaluatu egiten ditu Hiribarrenek zorroztasun-mailaren baten jabe dela erakutsiz: ez du ziurtzat jotzen iturrietatik jaso duen guztia. Etimoez eginiko ebaluazioa lekuko.

Etimoen berri ematean gehiago egiten du ezagutzen dituela aditzera emateko, beraiek oinarri bezala hartzeko baino: ez dute fidagarritasunik. Oso bestela aurkezten du Liburu Sainduen fidagarritasuna, iturri ziurtzat baitauzka.

Baliatutako iturrietan fidagarritasunik handiena Liburu Sainduei aitor-tzen die. Babelgo dorrearen eraikuntzaz diharduela, dioenez:

Han arte mintzo bera guziek segitu;  
 Egia horrek froga segurenak ditu:  
 Nor nahik ikuskidin liburu saindutan,  
 Ithurri garbienak mende guzietan. (89-92)

Oso besterik da, jakina, XXI. mendeko historialariak Liburu Sainduei egotziko liokeen fidagarritasuna, baina, hemen, Hiribarrenek erakusten duen jarrera da aztergai, ez berak mamitutako dokumentuaren zientifikotasuna.

Jarrera zientifikoari eutsiz, ziurrak diren ezaguerak soilik testuratzen dituela adierazten du:

Ez da hemen erraten deus segur ez denik. (133-136)

Ezaguerok mailakatu ere egiten ditu fidagarritasunaren ikuspuntutik. Iberiako erregeez diharduela, adibidez, honela dio:

Zaharren eran oro sinhesten badire,  
Iberian errege asko izan dire.  
Berosen arabera, huna pulikisko:  
Ibero, Tubal, Brigo, Jubal, Horma, Beko. (273-276)

Gerio, Hispal, Hispañ, Hespero, Atala,  
Sikano, Sicel, Luso, Herkul, Romo, Tesla,  
Palatu, Eritreo, Habido, Gargari:  
Iberiar zirela ez sobra ageri. (277-280)

Altabizkarreko guduau hil ziren gerrarien ehorz-lekuaz esandakoaz ere ez du ziurtasun handiegirik:

Han dute gero erran ehortzi zirela  
Atzeman gerlariak, husturik odola  
Hala bada edo ez, segur da egia  
Han etzela jostatu frances gazteria. (1241-1244)

Zientziaren kategorian kokatzen dela nabarmentzeko adierazlerik ez da falta: kontatutako gertaerak denboraren ardatzean zehazten ditu, erabili-tako iturriak aipatzen ditu, iturri desberdinatik jasotakoaren fidagarritasuna epaitzen du... Liburu Sainduak iturri ziurtzat jotzen dituen Hiribarrenek, edo Humboldt eta Ampero jakintsuen esanak zimendurik hoherenak dituztela baiezten duen Hiribarrenek, ez ditu kategoria horretan kokatzen azaldu dituen etimoak edo Iberiako erregeez eman duen zerrenda, edo Altabizkarren bizitza galdu zuten gerrarien ehorz-lekuaren kokapena.

Ziurra ez den gauzarik ez duela esaten aitortzen badu eta fidagarritasunaren ikuspuntutik helarazten dituen ezagueren ebaluazioa egiten badu, asmatutako fikzioen igorle gabe, gertaera zientifikoen berri emailetzat dauka bere burua. Sendoa edo ez hain sendoa, euskarriren bat izan badu bere berbaldiak. Zerbait baztertzen badu asmaziotik edan izana da.

Jakintsuen esana oinarri hartu duenez, Hiribarren bitartekari legez aurkezten da. Besteak ahotsetik, jakintsuen ahotsetik, jasotakoa bere hitzez ematen duena da. Ahots batzuk «auctoritas» gisa dauzka. Hala gertatzen da Liburu Sainduekin ez ezik, baita Humboldt eta Anperorekin ere:

Hunbolt eta Anpero dire jakinetan;  
 Sinheste har diteke hekin erranetan;  
 Hainitz dute ikusi, hainitz irakurtu  
 Hekin hitzak zimendu hoberenak. (141-144)

Beraz, Hiribarrenen baiezpenak ez dira maitasun gartsuak edo euskaldunen autoestimua igo nahiak eragindakoak, baizik eta adituen esanetatik ikasitakoak. Haiek esandakoena berri emaile da, baina, haien ez bezala, euskaraz adierazten ditu erdaldun jakintsuok euskaldunei eta euskarari buruz idatzitakoak.

Azken batez, besteek esandakoena igorle moduan aurkezten du bere burua: jakintsuek esandakoaren transmititzale da. Iturriak zehazten dituen bakoitzean baiezpenaren erantzukizuna nori egotzi behar zaion seinalatzen du. Aurrera baino lehen, ordea, argi dezagun Hiribarrenek ere bereganatzen duela eginkizunik: bera da iturriak hautatu dituena, bera da iturri horiek diotena iragazi duena... Bera da idazlana egituratu duena.

Euskaldunak gaitzat harturik liburu bat osatu zuen Hiribarrenek. Liburua da jakintza biltzen duen euskarria. Liburua da hitzaurrean gehien errepiratzen duen hitza: hamazortzi ahapalditatik bost ahapalditan, hirurogei eta hamabi bertso-lerroetatik zazpitan.

Liburu onak eta txarrak daude. Gogor arbuiatzen ditu liburu txarrak:

Egin dire liburu nihon den tzarrenak  
 Probetxos erretzea hetan gehienak  
 Suge bezala dire bizi arrosetan,  
 Asiki hedatzeko gordez arimetan. (65-68)

Liburu txarren irakurleak ere gaitzesten ditu:

Arthik ordu liteke basa bisaiarat  
Lehia duenari liburu tzarrerat (69-70).

Ikus daitekeenez, berebiziko errespetua dio liburuari: badaki eragiteko ahalmen ikaragarria duela. Izan ere, libururatzan dena transmititzeko asmoarekin libururatzan da: zabaltzeko eta bizi-iraupena emateko. Euskarriak iraupena ematen die bertaratutako edukiei iraungitze-datarik jarri gabe eta, ondorioz, oso bizitza luzea eskura dezake.

Hiribarren liburuaren indarraz jabetua dago: arma boteretsua da. Liburueta jasotako edukietatik, onura nahiz kalte handiak etor daitezke. Hiribarrenek ez dakusa liburua eduki batzuen gordailu legez, baizik eta bertaratutako edukien transmititzairen legez. Horregatik, urritzat jo duen euskal liburugintzara liburu bat dakar, euskaldunei buruz ikasi duena hurrengo belaunaldien ezagueran jartzeko.

Zalantzak gabe, liburu txarrak «suge bezala» ikusten baditu, liburuak eragin handia lor dezaketen edukiak transmititzeko daukan ahalmenaren-gatik da. Idazlanean zehar aipamen zehatzik ere egiten dio transmisiōari. Euskaldunen lehen aldiaren berri ematetik orain aldira igaro ostean, «Eskal Herri bakhotxa eta hari darraikona»ri eskainitako ataletan, bada «Azkaine»z diharduen bertso-rrorrik. Bertso-lerro horiek, besteak beste, egile bezala bere burua aurkezteko eta paratu duen dokumentuak «geroan» izan dezakeen eginkizunari erreferentzia egiteko erabiltzen ditu:

Hirugarren apeza bizi da Bardoitzen,  
Piko hauk dituela nolazpeit moldatzen,  
Ustez xede onetan, nahiz herriari  
Geroan kausirazi orai zer den berri. (2203-2206)

Honela bada, ilunpeak astindu eta Argien Menda abian jartzea honako egitekoan ardatzen da: ezaguerak euskaraz transmitituko dituzten liburu onak mamitzean. Hiribarrenek berak egin zuen bezala, *Eskaldunak* idazlanaren bidez. Argien Mendera jauzia nork bere harri-koskorra ekarriaz egingo dela uste duelako edo, bere idazlaneko bertso-lerro batzuk aprobetxatuko ditu euskaldun oro «zerbait moldatzera» gonbidatzeko:

Eskaldun guzia da egun gonbidatzen  
Has dadin izpirituz zerbeiten moldatzen,  
Jakin dezaten arren gure ondokoek  
Nolako gaiak zuzten hekin arbasoek. (57-60)

Liburu bakarra ez da aski: liburuak, liburutegia osatzea eskatzen du Argien Mendeak. Horra, luzatutako gonbitak ezkuta dezakeen motiboa.

## 2. Arbasoak

Esan bezala, orain aldia ilunpetik ateratzea du asmo *Eskaldunak* idazlanak. Horretarako, lehenik, arbasoak aurkeztu zizkion bere garaiko eta etorkizuneko euskaldunari. Arbasoen berri emateko, jakintsuak bidelagun hartu eta, hauen esanen igorle bihurtzen da. Baino, besterengandik jasotako esanen igorle den aldetik erantzukizunez desjabetzen den Hiribarrenek, bereganatzen du beste erantzukizunik: berea da langaien aukeraketa eta langaion egituraketa. Iturriak, iturri horietatik hartuko duena... aukeratu du. Berea da, halaber, aukeratutakoaren moldaketa. Egin duen hautu bat, esaterako, honakoa da: konparazioaren erabilerara jo. Hala, berbaldi osoa ez du harrapatzen euskaldunak: beste giza talde batzuei ere leku egiten die. Hiribarrenen erabakia izan da euskaldunak beste giza talde batzuekin harremanean aurkeztea. Maiz, oposizioaz baliatuz, beste populu batzuekin erkatzen du euskalduna.

Beste populu batzuk ez bezalako ezaugarriak ditu iraganeko populu euskaldunak: gisa honetan, arbasoen identitatea mugatzen du. Identitate baten jabe izateak eta, batik bat, identitate horren nolakotasunak bidegabe bihurtzen du identitate horren jabe direnei ematen zaien tratua idazlanaren idazketaren garaian. Identitatearen nolakotasuna da salaketa egiteko Hiribarrenek daukan argumentu nagusia.

Azken batez, arbasoez diharduten atalek argumentazioa eratzen dute. Irabazia duen mailari dagokion tratua ukatu egiten zaiola euskaldunari baieztatuz hasten badu idazlana eta Argien Menda abian jartza baldin badu xede, ez du aski baiezpenekin: azaldu beharra dauka zein den irabazia duen maila hori. Argien Menda abian jartzeak badu eskakizunik: ahalik eta modurik zehatzenean, zientifikoenean, azaldu eta neurtu behar da eus-

kaldunak irabazia duen maila. Horregatik bilatu du testu zientifikoak moldatzea. Argumentatu egin behar zuen zergatik idazketaren orain aldian euskaldunak ez daukan munduan mereziz duen lekua. Argumentatzeko, berriz, ahalik eta euskarririk sendoenetara jo behar zuen.

Euskaraz sosik balio duen libururik ez dagoela esana duenez hitzaurrean, nekez dokumenta zitekeen euskarazko iturrietan. Euskarri sendoak erdaraz aurkitu beharko ditu. Berez, horixe egin zuen: aipatzen dituen jakintsu guztia erdaraz idatzi zuten. Erdaraz idatzi zutenak ez ezik, atzerritarra dira guztia Moret historialari nafarra izan ezik. Honela bada, euskaldunen arbasoak ez ditu moldatzen euskaldunek eraikitako irudiaren arabera, baizik eta erdaldunek euskaldunez eraikitakoaren arabera. Ez da giza talde baten «autoirudia», giza talde batek bere arbasoez eratutako irudia, baizik eta besteek eratutakoa, beste giza talde batzuk euskaldunei egotzitakoa. Badu abantailarik autoirudia baztertzeak; izan ere, «kanpotarren» esanetan oinarritzen bada, euskaldunek «kanporantz» proiektatu zuten irudia jasotzen du.

Jakina, «kanpotarren» ahotsa euskaldun batek iragazten du: Hiribarren. «Kanpotarren» ahotsetik iragazitakoari bere ahots propioa gehitzen dio. Besteengandik ikasitakoa kontatzeaz gain, kontatutakoa egituratzen eta ebaluatzen du. Hiribarren da euskal komunitatearen identitatea beste komunitate batzuekin harremanean aurkeztea erabaki duena, historia kontatzeaz gain komentatzea erabaki duena... Kontatu ez ezik, ebaluatu egiten du kontatzen duena, argi eta garbi dauzkan ebaluazio-irizpideen arabera. Arbasoen dohainak azaltzeak ez du bere baitan izateko arrazoia. Dohainen azalpena bitarteko da euskalduna munduan kokatzeko eta legokiokeen lekua ukatu egiten zaiola ondorioztatzeko. Ahalik eta didaktikoena izatea dagokio Hiribarren, arbasoen dohainen azalpenetik atera behar diren ondorioak atera ditzan hartzialeak. Azken finean, euskaldunaren ospe-falta bidegabekeriaztat jo duenak, ospe-falta pairatzen duen orain aldko euskaldunari, arbasoez harro egon daitekeela erakutsi behar dio. Jakintsuengandik ikasi duena eginkizun hau betetzeko moduan moldatu behar du.

Jadanik esan den moduan, arbasoen identitatea agerian jartzeko, oposizioa du osagai egituratzaile funtsezko: beste giza talde batzuen ezaugarriei aurka jarriz nabarmentzen ditu euskaldunen berezitasunak.

Hona euskaldunen arbasoen identitatea mugatzeko Hiribarrenek baliatu zituen oposizioak:

a) **euskalduna zaharra / erdaldunak ez hain zaharrak**

Nihork ez du munduan Eskaldun adina. (73)

Euskalduna da munduan zaharrena. Erdaldunek, ez dute halako antzinatasunik:

Populu zaharrena, hari ohorea;  
 Ez da haren halturan nihongo jendea;  
 Nohoiz, nahoiz ez galdu aita Euskaldunak;  
 Ondoren ondo bethi utzi erdaldunak. (77-80)

Euskalduna «Ibero seme, Kantabre zaharra» (475) da. Euskaldunen jatorria Iberian dago. Iberia, berriz, uholde nagusitik kanpo gelditutako herria da:

Urrunago gan gabe, zer da Iberia  
 Uholdetik lekhora hautatu herria:  
*Herri* edo tokia hola izendatu  
 Populuak *berritan* zuena hautatu. (97-100)

Gizakiaren antzinatasuna sei mila urtekoa da:

Sei mila urthe badu gizonen hastea. (81)

Mundua hasi eta 1650 urtetara izan zen uholde nagusia<sup>6</sup>, uholde nagusitik 440 urtetara ekin zioten Babelgo dorrea eraikitzeari<sup>7</sup>.

Gertaeron kronologia adierazi den moduan ezarri eta gero, 4000 urtetako antzinatasuna egosten dio euskaldunari Pirinioetan:

Pirenен bi aldetan Eskalduna sorthu,  
 Berrogoi mende huntan handik ez higitu. (797-798)

<sup>6</sup> «Hamasei mende eta bertze erdituan / Urezko zigorrada hedatu munduan». (83-84)

<sup>7</sup> «Handik lau ehun eta berrogoi urthetan, / Gizonak eman ziren lan sobra zorotan: / Dorre bat zuten hasi, harat ihesteko, / Uholde berri zenbeit zenean hasiko». (85-88)

Miarritzera bainuak hartzera datozenak Larrun ikusi gabe nola itzul daitezkeen Parisa edo Londresa ulertezintzat jo ondoren, honela jarraitzen du:

Lau mila urthetako populu berbera,  
Uste dut den ikuspen prezatu beharra. (465-466)

Euskaldunek Pirinioetan daramaten denbora ez du adierazten beti horrelako zehaztasunarekin. Bada aipu zehazgabeagorik ere:

Iberiarrok badu Pirenetan dela,  
Armeniako izen bera dakharkela,  
Errexki hiru mila urthe iraganik. (133-135)

Noiz edo noiz oraindik mugagabeago utzi dezake:

Urtheak Pirenetan Iberia zela. (112)

Dena den, berrogei mendetako antzinatasuna nagusitzen da. Bidenabar esanda, Hiribarrenek *Eskaldunak* idazten duen garaian hedatu samarrik egon daitekeen antzinatasuna da. Jean Baptiste Daskonagerrenen *Atheka-gaitze oihartzunak* (1870) eleberrian Hiribarrenek darabilen adierazpenaren antzekoa irakur daiteke. Larrunek «lau mila urthetako populu berbera» so egiteko aukera eskaintzen duela badio Hiribarrenek, baita *Atheka gaitze oihartzunak* eleberriko pertsonaia nagusia den Ganix kontrabandista atxilotu nahian dabilen Burruncha kapitainak ere. Agintean dituen soldaduak adoretzeko egiten duen mintzaldia, era honetan amaitzen du:

Soldats, vous ne faillirez pas à votre devoir; songez que du haut de ces Pyrénées quarante siècles vous contemplent<sup>8</sup>.

Berrogei mendez euskalduna Pirinioetan izatea «Lau mila urthetako populu berbera, / Uste dut den ikuspen prezatu beharra» esanaz baloratzen duen Hiribarrenengandik ez dabil urrutti Daskonagerrek sortutako Burruncha pertsonaia. Bi idazle lapurtarrengan, –batik bat Daskonagerrengan, noski– Napoleon Bonapartek Egipton Piramideetako Batailan erabilitako

<sup>8</sup> Dasconaguerre, Jean Baptiste, 1990, *Atheka-gaitze oihartzunak*, Klasikoak Saila, Elkar, Donostia, 83. or. Ander Lakarrak prestatutako edizioa.

esaldi ospetsuaren oihartzuna atzematen da. Agintean zituen soldaduak adoretzeko egin mintzaldia gisa honetan bukatu omen zuen Bonapartek:

Songez que du haut de ces monuments quarante siècles vous contemplent.

Digresioa itxi eta harira itzuliz: euskaldunaren berrogei mendetako antzinatasunetik urrun dira giza talderik gehienak. Babelgo dorrearen eraikuntzan sortutako hizkuntza-nahasketaz gero, mila herri suntsitu dira:

Banatu behar izan alde orotarat,  
Suntsitu diren mila herri egiterat. (95-96)

Herri frantsesak 1500 urte ere ez ditu:

Hamabortz ehun urthe doiean duela,  
Munduan nihork jakin Fransesik bazela. (125-126)

«Liburu on guzia francesez egina» (35) dela edo haur euskaldunek badaki-tela «Izan direla frances errege handiak» (13) hitzaurrean esana du. Baita giza talde baten ospea honen antzinatasunari uztartua ere. Honenbestez, bidegabekeria agerikoa da: 4000 / 1500 urteen arteko kontrasteak salatzen du.

### b) Hizkuntza ahaiderik gabea / ahaideak dituzten hizkuntzak

Gainerako hizkuntzei aurka jarri, euskaldunen hizkuntzaren antzinatasuna eta berezitasuna azpimarratzen du:

Eskaldunen mintzoa, arras berezia,  
Ez liteke zerutik atzo eroria;  
Aldeko mihtarik batere iduri;  
Zein zeinen ume diren hek orok ageri. (185-188)

### c) Aita duena / Aitarik gabekoa

Herri zaharrek Aita bat izan dute gidari, ez horrela berrieik. Hitzauurrean dioenez, herri ororenagian lotsa eragiten du jatorria ez ezagutzeak:

Populu guzientzat ahalke handia  
Aitetan ez kaustea bere gidaria:  
Atzo sorthu direnei hori da gerthatzen,  
Nihork ez duelakotz ethorkiz argitzen. (45-48)

Euskaldunak, erdaldunak ez bezala, ez du inoiz Aita galdu:

Nihoiz, nihoiz ez galdu aita Eskaldunak  
Ondoren ondo bethi utzi erdaldunak. (79-80)

Herri zaharrek Aita dute; berrieik ez dute Aitarik ezagutzen. Euskalduna gainontzeko populuengandik bereizten duen ezaugarria da:

Pirenен inguruan eta non nahi den,  
Populuek iduri atzoko haurriden;  
Kokotsean bizarra doi-doia sorthua;  
Bere aiten izena ez ezagutua. (121-124)

#### d) **Populu nahasi gabekoa / nahasitako populuak**

Euskalduna inoiz ez da nahasi:

Herriko hazitarik  
Gorputzak orraturik,  
Eskaldun berritu,  
Bethi bera gelditu,  
Nihoiz ez nahastatu:  
Garbi Eskalduna,  
Munduko lehena! (385-391)

Ez da beste horrenbeste gertatu Europako populuekin:

Hainitz gerlek Europa, hiru mila urthez,  
Gorritu izan dute odolezko gaiez.  
Nork izenda populu han sarthu direnak,  
Nahasdura itsusi iragan direnak? (413-416)

Populu zaharra, Aita duena, nahasi gabekoa eta, honenbestez, odol garbikoa da euskalduna. Aitzitik, berriak diren populuek, ez dute ezagutzen Aitaren izenik: nahasi egin direlako sasikumeak dirudite. Elkarri hertsiki loturik dagoen ezaugarri-multzo honek gainontzeko populuengandik bereizten du populu euskalduna:

Nihork ez du munduan Eskaldun adina;  
Bakharra da mendetan bera egon dena;  
Nahastean bertzeak bere pasaietan,  
Odola hark du garbi beiratu zainetan. (73-76)

Zaharra, Aita duena, nahasi gabekoa, zaharraren zaharrez odol garbikoa den euskaldunaren aurrean, Europako jendea, sasikumeen antzera Aitarik aurkitu ez duena, berria, berriaren berriz odol garbia duena da:

Europako jendea betantsu agertu;  
Bastarten iduriko, aitarik ez kaustu. (127-128)

Ez dire bathaiatu etxen izenekin;  
Guziak sorthu dire larru berriekin:  
Rusiano, Alaman, Franses, Españolak;  
Nahi bezin garbiak dauzkaten odolak. (129-132)

Euskaldunen artean, berriz, ez dago sasikumerik:

Ez da oraino hil Eskaldun odola,  
(...)  
Oinen peko alkhia aitekin duela,  
Haren haurren artean bastartik ez dela. (801-804)

Bere ahaleginari esker lortu du euskaldunak nahasketa saihestea:

Zeltek egin gerletan  
Menderik gorennetan,  
Ez nihoiz etsitu;  
Sobra zenean hestu,  
Menditarat ihestu:  
Gal lezake asko,  
Balitz nahastuko. (399-405)

Aurre egin die eterri zaizkion etsaiei:

Erromak, nausitzean, Kartago hondatu;  
Eskalduna hargatik lehengo gelditu,  
Nahiz bethi etsaia zitzaison ethorri  
Haren odol goriaz iduri egarri. (557-560)

Ausarki defendatu ditu mugarriak eraso dutenean:

Lehoin errabiatu bi hoien erdian,  
Eskaldun aita bizi bere Kantabrian;  
Hartu zituen harmak, bainan ez herritan;  
Bere etxei zioten kontu mugarritan. (525-528)

Etsaiek beraiek behin baino gehiagotan aitortu diote euskaldunari uztarrak arbuiatzeko erakutsi duen kemenetik:

Haren etsaiek dute ez behin aithortu,  
 Pare gabeko zela mendetan agertu;  
 Hura hekin begitan gerlari lehoina,  
 Nihoren uztarririk jasan etzuena. (677-680)

Ondorioz, burujabetasuna gorde du bere ibilbidean:

Frances eta Español dutela inguru  
 Eskaldunak jokatzen bethi bere buru. (453-454)

Beraz, euskaldunak nahasi gabekoa izatea ez dio zorteari zor, baizik eta ahaleginari: menderatzen eterri zirenei ausarki aurre eginaz irabazitako berrezitasuna du.

#### e) Jainko bakar bat gurtu / idoloak gurtu

Euskaldunak Jaungoikoa gurtu du beti:

Populu eskalduna, biziz berezia,  
 Gutirekin mintzoaz harturik aria,  
 Sinhets nezake aise ez dela itsutu,  
 Jaungoikoa duela bethi adoratu. (841-844)

Noizbait egingo zuen gaiztakeriaren bat, beti on ez baita egiten, baina Jainko bakarrari zuzendu dizkio eskariak:

Gaizkia egin zuken, aise da sinhesten  
 Orai ere guti da bethi on egoten;  
 Bainan Jainko bat baizik hark ez ezagutu;  
 Bere beharrak hari mendetan galdetu. (869-872)

Beste populuetan, berriz, idoloak nagusitu dira:

Bertze populuetan nausitu idolak. (881)

Euskaldunak Jaungoikoa bakarrik gurtu badu, nahasi ez izanari esker da. Burujabetasuna gorde izanari esker, hain zuzen ere:

Haren Jainko izena aski da lekhuko,  
 Ez duela bertzerik izan goragoko;

Hura zen patriarken jaon lazgarria,  
Pirenен sinhestean nihoi ez berria. (873-876)

Ondoren ondo haurrei irakutsi aitek;  
Ezin ahantzarazi populu nahastek,  
Ez denaz geroz nihor nausitu mendetan,  
Hek tieso beiratu mendi, haranetan. (877-880)

Azken batez, euskal giza taldearen antzinatasunak eta burujabetasuna inoiz ez galdu izanak erabakitzentzituzte gainerako ezaugarriak: horregatik da Aita duena, nahasi gabea, zaharraren zaharrez odol garbikoa, Jainko bakar bat gurtu duena, ahaiderik gabeko hizkuntzaren jabea. Berezitasun-multzo honek zedarritzen du euskal giza taldea, ez baita munduan giza talderik berezitasun-multzo honen eramaile denik: giza talde ororengandik desberdintzen du. Beraz, euskal populuak badu beste populuek ez bezalako identitatea, bere berea duen identitatea.

Jakintsuen eskutik euskaldunen historiara egin duen bidaiai munduko giza talde guztiengandik bereizten den giza taldea aurkitzeko parada eman dio Hiribarreni. Bidaia horri forma ematerakoan, Hiribarrenek ez du etsiko euskalduna gainontzeko giza taldeekiko harremanean definitze soilean. Harríman horren berri emateko hautatu dituen item-ak ebaluatu egiten ditu.

Hiribarrenek badu ebaluazio-irizpiderik. Erabili dituen item-en arabera, bereak eta bereak bakarrik diren ezaugarri-multzo batek karakterizatzen du euskalduna. Nola Hiribarrenek berezitasun-multzo horren jabe izateari ematen dion baliorik gorenena, gainontzeko giza taldeen balorazioa baliorik eskasenean gelditzen da. Ondorioz, euskal giza taldea da munduan merezimendurik handienak dituena.

Muin-muinean Hiribarrenen ebaluazio-irizpideetan aldaketarik ezari atxikitzen zaio baliorik gorenena. Euskalduna populurik zaharra eta mendetako ibilbidean hastapenei eutsi diena da: hizkuntza eta sinesmen berbera gorde du. Aldaketarik eza hobesten duela oso agerikoa da: arbasoen azterketari eskainitako bertso-lerroetatik ateratzen den ondorioa da.

Beraz, aldaketarik eza / aldaketa ardatzera bildu duclarik giza talde baten ospea neurtzeko irizpidea, garbi dago zein giza taldek merezia duen mun-

duan osperik handiena. Osperik handiena merezi duen giza taldearekin bidegabeki jokatzen ari da *Eskaldunak* idazlanaren idazketaren orain aldia: nola liteke haur euskaldunek euskaraz irakurtzen ia jakin gabe mintzaira arrotzak ikasi beharra? Nola liteke haur euskaldunek frantses errege handien berri izatea frantsesek 1500 urteko antzinatasuna ere ez dutenean? Nola liteke liburu on guztia frantseset egina egotea eta euskaraz sosik balio duen libururik ez egotea, frantsesa, beste hizkuntza baten ume baino ez denean?... Salaketaren oinarria bistakoa da.

Argien Menda abian jartzeko jakintsuak iturri legez hartuz eta modu zientifikoan planteatuz *Eskaldunak* idazlaneko parte historikoa, ezaguera batzuk transmititzea bilatzen du. Lantegi horretan, kontatutakoa ebaluatzeko irizpideak ezartzeko eginkizuna bereganatuz, euskaldunak egoera bidegabea pairatzen duela jakinarazten du Hiribarrenek.

# Juan Martin Hiribarrenen Eskaraz eguia (1858), erranak eta aforismoak

ALTZIBAR ARETXABAleta, Xabier  
Euskaltzain urgazlea eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea

Sarrera data: 2011-II-11

Onartze data: 2011-VII-11

Lan honek J. M. Hiribarrenen (1810-1866) prosa eta esaerak aztertzen ditu, kritikariekin gutxi sakonduak baitira. Erakusten du *Eskaraz eguiaren* (1858) xede apologetiko-didaktikoak XX. mendean erditsuko laikotasun, antiklerikalismo eta ateismoaren indartzeari erantzun nahi diola, eta horrek esplikatzen duela eraso eta trufazko tonua, azalpen zorrotz-atseginingarria, euskara ulerterrazagoa (*Eskaldunac* poemakoa baino) eta estilo erretorikoa. Erran eta aforismoei dagokienez, zehazten du kopurua, motak eta gaiak. Eta adierazten kritikari eta atsotitz biltzaileak zorrotzegi jokatu direla Hiribarrenenak baztertu eta gutxiestean. Eranskinetan adibide ugari biltzen dira, esandakoaren erakusgarri.

**Hitz gakoak:** Euskal literatura, XIX. mendea, prosa, lapurtera, atsotitzak, aforismoak.

Este trabajo analiza la prosa y los refranes de J.M. Hiribarren (1810-1866), aspectos poco investigados por los críticos. Demuestra que el objetivo apologístico-didáctico de *Eskaraz egia* (1858) era responder al auge que el laicismo, del anticlericalismo y el ateísmo a mediados del siglo. Eso explica el tono burlesco y agresivo, la explicación de la doctrina de una manera severa pero también amena, un euskera más comprensible (en comparación con el poema *Eskaldunac*) y el estilo retórico. En cuanto a los dichos sentenciosos y a los aforismos, especifica cuántos son, de qué tipo y cuáles son los temas. En conclusión, el autor afirma que los críticos y los recopiladores de refranes han sido excesivamente severos al marginar y menospreciar a Hiribarren. En los anexos se muestran multitud de ejemplos de lo dicho.

**Palabras clave:** Literatura vasca, siglo XIX, prosa, labortano, refranes.

Cet ouvrage analyse la prose et les proverbes de J.M. Hiribarren (1810-1866) qui ont été très peu étudiés par les critiques. Il démontre que l'objectif apologétique-didactique d'*Eskaraz Egia* (1858) était de répondre à l'essor que connurent le laïcisme, l'anti-cléricalisme et l'athéisme au milieu du XIX<sup>e</sup> siècle. Ceci explique le ton burlesque et agressif, l'explication de la doctrine d'une manière rigoureuse mais quand même agréable, un basque plus compréhensible (en comparaison avec le poème *Eskaldunac*) et le style rhétorique. En ce qui concerne les pensées et les aphorismes, il définit la quantité, le type et le thème. En conclusion l'auteur affirme que les critiques et les compilateurs de proverbes ont été excessivement sévères en écartant et sous-estiment Hiribarren. On en trouvera de nombreux exemples en annexe.

**Mots-clés:** Littérature basque, XIX<sup>e</sup> siècle, prose, labourdin, proverbes.

This work examines the prose and sayings of J. M. Hiribarren (1810-1866), because little attention has been paid to them by the critics. It shows that the apologetic-didactic aim of *Eskaraz Egia* (1858) was to respond to the strengthening of middle 19th century laity, anti-clericalism and atheism, and this accounts for its aggressive, mocking tone, its rigorous and pleasant explanations, its more comprehensible Basque (more than that of the poems in *Eskaldunac*) and its rhetorical style. As regards the sayings and aphorisms, it specifies the number, type and subject matter. And it states that critics and compilers of proverbs have been too categorical when discounting and underestimating those of Hiribarren. Numerous examples are included in the appendices to support the assertions made.

**Key Words:** Basque literature, 19<sup>th</sup> century, prose, labourdin (Basque dialect), proverbs, aphorisms.

## 1. Sarrera

Juan Martin Hiribarren apaiz azkaindarra (1810-1866), XIX. mende erditsuko idazole oparo eta alderdi anitzekoa da: idazlea, hiztegigilea eta kantu-biltzailea. Hitz neurtuz *Eskaldunac* poema luzea argitaratu zuen (1853), bai eta *Montevideoco berriac*, Ameriketarako emigrazioaren kontra (1853); hitz lauz, erlijio liburu bat, *Eskaraz egua* (1858). XX. mendeko azken hamarkadan argitaratu dira haren *Napoleon Lehena* poema historikoa (Pagola et al. 1994) eta *891an, eskaldunen gerla* drama (sasi)historikoa (Arbelbide 1991). Argitaragabe utzi zituen poema aski luzeak (*Laborariac* eta *Iruñeco Bestac. 1845*, azken honen parte bat agertu zen Xahoren *Ariel* kazetan), hiztegia (Lhanderen hiztegiaren iturri aipatuerarik bat), eta erran zahar eta aforismoak. Hiribarrenek lapurteraz idatzi zuen, Xahoren adiskidea zen eta euskaldunen iraun beharraren kontzientzia zuen. Lhande, Lafitte, Altuna eta abarrek Hiribarrenen alderdi batzuk ikertu dituzte baina Hiribarrenen obra osoari buruzko ikuspegি orokorrik ez dugu oraindik. Mendeurren honek beste urrats bat egingo du egilea ezagutze bidean.

Artikulu honetan bi alderdi aztertuko ditugu, oso gutxi aipatuak. *Eskaraz egua* (laburduraz EE) izeneko erlijio-liburu prosazkoaren (1858) xede, gai, eduki eta tonuaz gaingiroki jardun dute literatura kritikariek, halaber estiloaz. Esaerei dagokienez, Lhandek (1928, 1929) eta Lafittek (1979) Hiribarrenen kaierrei buruzko informazio laburra eman dute eta ezaugarri batzuk aipatu; Lhandek, 292 erran edo aforismo argitaratu ere bai. Guk alderdi hauek azalduko eta eztabaidatuko ditugu: *Eskaraz eguiak* literatura-kritikarien aldetik izandako harrera (2.1), zer liburu mota den edo zer xede duen, norentzako egina den eta zein tonutan (2.2.), egitura eta edukia (2.3.), testuinguru historikoa (2.4.), mintzairak eta estiloa (2.5.). Erran eta aforismoei dagokienez, zein kaier heldu zaizkigun eta zein ez (3.1); kaierren deskripzioa, erran edo aforismoen gaiak, motak eta berezitasunak atsotitz bildumekin konparatz, bereziki Garaterenarekin (3.2.), eta azkenik, kritikariek eta atsotitz biltzaileek nola hartu dituzten eta ea benetako atsotitzat ote daitezkeen (3.3).

## 2. *Eskaraz egquia*

Kritikariekin ez dute behar den zehaztasunez azaldu zer xedezen zuen Hiribarrenek liburu hau. Gure ustez, egilearen helburutik abiatuta eta euskal irakurlegoa aintzat hartuta errazago uler daitezke mintzatzeko tonua, forma literarioak, egitura, edukia, testuinguru historikoan bete nahi zuen funtzioa, euskara moldea eta estiloa.

2.1. *Eskaraz egquia* Baionan argitaratu zen 1858an, apezpikutegiko imprimatzaire E. Lasserre baitan.<sup>1</sup> Ez du berriro argirik ikusi. Tamainuz, ez da luzea ez laburra, baina bien arteko (153 or.). Hiru partetan zatitua da; guztira 53 kapitulu, bakoitzak 2-3 orrialdekoak. Arretaz imprimatua da, huts gutxi baitu, dozena erdi bat.

Euskal literaturaren historialariek bakan aipatua da *Eskaraz Egia*; gehienek bizpahiru leerro baizik ez diote eskaini. Haboroxeak edukiaz zerbait esan dute. Esaterako, apologetika moduko lana dela iritzi zion Villasantek (1979, 2. ed.:166) eta hari jarraitu hainbatek (Sarasola:1970:113; Onaindia:1973:146; Mujika:1979:256); Lafittek ere apologia liburutzat hartuko zuen geroago, 1979ko artikuluan (185. or.). Beste batzuek erlijioaren historia dela iritzi diote (Lafitte 1941:51; Mitxelena 1988:131; Altuna *et al.* 1997:XII). Gure ustez, apologia da gehiago; apologia berezia, tonuagatik. Ordea, erlijioen historiatzat hartza ez zaigu oso zuzena iruditzen. Erlijioen historiaz-eta ari den partea, liburuaren II. partearen erditsua baizik ez da; eta, gainera, ez da erlijioen historia, baizik Jaintzat edo profetatzat harituak direnen nolabaiteko istorioa, hau da, Jesusekin konparantzak bat, bai eta haien jarraitzaileena kristauetan, baina trufazko eta mespretxuzko konparantzak. Bestalde, euskal literaturaren historialariok ez dute azaldu zergatik eta zertako idatzi zuen liburu hau Hiribarrenek.

Hizkuntza moldeaz eta estiloaz ere gutxi idatzi dute. Lafittek dio neuritzez baino hobeki idazten duela hitz laxoz, eta ongi idazten duela. Urkizuk,

<sup>1</sup> Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan ale bat dago (Lacombe Biblioteka. Olaso Dorrea Sorre-kundea). Eskerrak bihurtu nahi dizkiet Josune Olabarrieta eta Nerea Altuna bibliotekariei, Hiribarren liburua eta eskuizkribu zenbaiten kopia digitala niri eskura jartzeagatik.

*Eskaldunak* (1853) baino arinagoa eta artifizialtasun gutxiagokoa dela *Eskaraz egia* (2000:340).

*Eskaraz egua* transmisio urrikoan izan dela dirudi. Galdetzekoa da ea zenbateraino ezagutu duten literaturaren historialariek berek, hain lerro gutxi idazteko. Ez ote du horrenbeste merezi Hiribarrenek?

2.2. Badirudi bere oldez eta gostuz idatzi eta argitaratu zuela Hiribarrenek bere obra, ez inoren mandatuz; «Propriété de l'auteur, l'abbé J.M. Hiribarren» dio kanpoko azalean. Egileak beharrezkotzat jo zuen bere lana, gehituz «Ez duenak nahi ikusi gaizkia nausitzen, egin beza hobeki» (EE 155).

Liburuaren izenburuak apologia asmoa nahiko garbi adierazten du, are zehatzago sarreraren bukaerako pasarte honek (egilearen jatorrizko ortografiari ezarriko ditugu artikulu honetako testu guztiak):

«Gure herrietarat heldu da atze hainitz, eta heki darraikote asko haro gure artean nihoiz entzun etzirenac. Nahi nuke herritar bakhot-cha yakitatez harmatu, hirriskua ethor orduco. Mintzaturen naiz eskaraz, erran nahi da garbiki, itzuliric gabe, nor nahi denec elenga nazaken bezala.» (EE XIII).

Artzainak bere artaldea zaindu nahi du kanpotik omen datorren arriskutik. Iratez, arriskua baino gehiago errealtitatea zen; hots, jendea fedea katalikoa galtzen ari zela, gazteria batez ere (EE 148). Hiribarrenek behin eta berriz seinalatzen ditu gaitzaren kutsatzaileak: «gure herritaco yakin», «gure arteko yakin zenbaitec» (EE 58), hau da, jende ikasia. *Eskaldunacen* ere maiz dio badirela «guti batzuk», sinestegabeak edo behar ez bezalakoak (horietako bat Xaho, bere adiskidea). *Eskaraz eguiako* kapituluaren izenburuetara begiratuz gero, ohargarri da 53 kapituluetatik 10etan *sinestegabe* hitza edo antzekoak ageri direla; bestalde, 8 kapitulu *gezurrezko* erlijioei buruzkoak dira.

Xeeda nolako, tonua halako. Hedatzen ari zen gaitzaren sendabidea boritzki erasotzea zen, Hiribarrenen arabera:

«Garratza izanen zaiote hainitzi mintzaira hau, bainan ezagut dezatela chedeac. Hainitzen harmac ez dire trufa baizic egiaren contra. Casco arinek ez dute bertzeric elengatzen. Denbora galtzea liteke

heki, guizonei bezala, minzatzea. Beren harmekin izartu ditut, batzuetan hirriz eta bertzetan hitz gordinekin. Sistakoac mingarri atzeman detzakete; bainan yakin dezatela, onec mingarriago baizic ezditutzela atzematen hekienak, hain errechki bici litezkelarik lazo, hertsiki eta beldurrez bici direnean. Aphez bezala gehiago yazarriren derautet: edzakite zer den apheza! Oro yasan eta iretsi behar ditu, minic ez balitz bezala harentzat!» (EE 153).

Beraz sinestegabeei, Eliza katolikoaren dogmak eta apaizen nagusitasuna arriskuan jartzen ari zirenei edota erlijio guztiak onartzeko modukoak zirela ziotenei ihardesteko eta ihardokitzeko idatzi zuen Hiribarrenek *Eskaraz eguaia*. Hori gauza berria zen; ildo horretatik etorriko ziren geroago Intxauspe eta M. Elizanbururen liburuak, *Eskualduna* kazeta, etab.

Euskaldun irakurleekin elkar aditza bilatzen du Hiribarrenek, fedearen azalpenean labur eta zorrotz mintzatuz, etsaien kontra hizketa estiloa edo lagunarteko hitzak erabiliz, ironia, trufa eta sarkasmoaz baliatuz, farregarri utziz, are beztuz.

2.3. Esandako xede eta tonua egiturana eta edukian azaltzen dira. Liburuak sarrera eta hiru parte ditu. Sarreran Hirutasun santuaren misterioa xehatzen du ondorengo hiru parteetan (Aitari, Semeari eta Espiritu Santuari edo Elizari buruzkoak). Orekatua da orrialde-banaketaz eta pasarte atseginingarri. Hiru parteen hasieretan lehen kapituluetaen dotrinaren azalpena ematen du, prediku forman, baina alde idor hori irakurgai arin eta atseginingarriagoekin orekatzen daki egileak: I. partean istorioekin; II.ean, erlijioen hasleen egintzakin, III.ean sinestegabe eta besteri zuzendutako alegoria, trufa, solasturia bitxi eta mintzamolde harrigarriarekin.

Edukien ardatza *on eta tzar-en* dikotomian datza, XIX. mendean euskal literaturan hain ohikoa baita. Esan gabe doa, txarrak dira Frantziako Iraultzaren aldekoak, juduak eta protestanteak. *Eskaldunaken* «nahastaileak», «gaixtagin sarea» etab. deitzen ditu (ik. P. Altuna *et al.* 67, 95).

I. partean fede katolikoaren oinarriak zein diren azaltzen du: «lekuco aguinctza guertatuac, miraculu agueriac, Christori agur eguin dion mundua, Elizaren iraupena hemezortzi ehun urthez» (EE VIII. I. Partea). Azalpenaren lagungarri, argumentazio funtzioko 27 istorio labur kontatzen ditu, ba-

tzuk serioak, beste batzuk irrigarriak (liburuan orotara 36 istorio labur eta zenbait alegoria luze biltzen dira). Aipuak ere franko dira, antzinako klasikoek nahiz modernoagokoek (Seneka, Zizeron, Epitekto, Galiani, Robespierre, Voltaire etab.).

II. partean Jesusen Jainkotasuna erakusteko, Jesus konparatzen du Buda, Mahoma, Lutero eta abarrekin; konparantza hau egitean, Hiribarrenen lumenari malmoturkeria, trufa eta mespretxua dario (egun ez luke graziarik): Brahma, «zer puticoa» (EE 58); Buda «caprestu gabeco aberea» (EE 65); Konfuzio «chimino bat» (EE 69); Mahoma «ez Yainko ez profeta» (EE 78), Koran «buru eta buztan gabea» (EE 78), «ergelkeria dario» (EE 84-85). Ordea, «Bertzela kilikatzen dituzte bihotzac eta llulluratzentz Izpiritua Ciceron, Virgilio, Demosthenes, Bossuet eta Massillonec» (EE 84). Testuen artean, hunkigarria da Buddak nola tratatu dituen emakumeak erakusten duena (EE 64); deskripzio gogor baten ondoren dio:

«Buddac eman du emaztea neskatoac baino areago; Christok erakusten du handitasun bera dutela guizon eta emazteac, elkharren lagun direla. Buddaren emazteac tetele batzuec dire; Christorenac, etchego aingueruac. Buddaren hitz eta eguintzec erakusten dute ho-berenerat ere guizon bat zela; Christorenec, Yainko zela.» (EE 66).

Egileak bere alde ekartzen ditu Origenes, Tertuliano, Justino, Augustin, Fenelon, Bossuet» (EE 52). Ez du onartzen beste erlijioen zilegitasuna, dogmatikoa da.

Erlificio katolikoaren ikuspegia imperiala darakusan II. parte hori Napoleon I.aren fedea goraipatuz hesten du Hiribarrenak, hain zuzen ere. Jakina denez, Hiribarren haize alde ibili zen: II. Errepublikaren alde jarri zen 1848an baina laster bilakatu zen bonapartista edo Napoleon III.aren aldekoak. L. L. Bonaparte dialektologoarekin harremanak izan zituen, hari opatu zion *Napoleon Lehena* poema (1856) honela hasten da: «Mintzo naiz guizon batez higana gorarat, / Beharrez egorria Yaincoac lurrerat, /(...).» Napoleon I.a autoritate bat zen Hiribarrenentzat: haren aipuak eta istorio laburrak ugariak dira liburuan.

III. partean sinestegabeen erakuspenak zein diren azaltzen du: libertatea (EE 121-122), gozamena bilatzea (EE 122), kontzientzia askatasuna (EE

129). Antropologoen jakintza mespretxatzen du (EE 123), haien kontra mintzaraziz Euler, Leibniz, Kepler, Bossuet, Fenelon, Newton, Malebranche, Descartes, Bacon eta Augustin (EE 124), guztiak XIX. mendea baino lehenagokoak.

*Bulunbak* deitzen ditu jaun handi eta jakintsu sinestegabe horiek, artaldean bulunba edo joarea darabiltenekin konparatuz, ondotik ostearik erakartzen dituztelako. Bai eta *huntzak*, «oro ifrentzikaturik edo gaizki zaizkotelako argitan» [Elizaren argitan] (EE 141), hitzaren irudizko adieraz baliaturik («sineskor»). Ironia eta trufa eta sarkasmoz beteriko kapituluak dira «Bulunbac» (XVIII.a) eta «Huntzac eta bulunbac» (XIX.a).

Sinestegabe jakintsu ustekoak nolakoak diren deskribatzen du: aberatsak, mundua ikusi dutenak, ikasiak (abokatu, kazetari, mediku, agronomo..., gainera ikasketa berezidun gehienok sinestegabeak eta Elizaren kontrakoak omen dira), ongi apainduak, gizarte-harreman handikoak, errazki mintzo direnak eta besta, komedia eta atsegina guzien zaleak (EE 134-135). Sinestegabea izatea modan zegoela dio, «askok urgulu zoro batez egiten baitute sinestegabearena» (EE 52). Hona pasarte bat, garai hartan Eliza katolikoak gogoko ez zituen jakintsu batzuen deskripzioa egiten duena, haien ideiak eta erlijio katolikoarekiko jarrera maiseatuz baina nor diren aipatu gabe (lehena Renan dateke, bigarrena Lamennais):

«Dugun eguin Pariserainoco bat, eta entzun dezagun hango esko-la emaile handi bat. Kopeta cimurtua du, bichta laburtua; horra non den aldagari ferde batean hetsia bere bizkar chorrotcha. Hartzten ditu miseric, eta ezartzen dituelaric sudurraren bizcarrean, dio: Eliza akhabo da; Yesus guizon bat zen bertzeak bezala! Entzuten dute hori Paris eta Franciaco yaun gaztec, eta onhesten, erranez hec ere Eliza akhabo dela! Nihoiz ezda izan predikari, anaia, serora, othoitz, cobe-sio, comunione, caritate gehiago; bainan Eliza akhabo da; hala dio nausiac, hala diote aditzalec: Zenbat bulunba!

Bertze nausi bat altchatzen da, kapa urdin bat bizkarretik, zur-churia bezain luzea, bakailaua edo chotcha bezain idorra, mintzoz coloka, chingola lepotic yarian, dioelaric: Ebandelioa behar da ukitu, aphaindu, eman ororentzat on den bezala! Gauza bera adirazten dute aditzalec, eskuac yoz eta marrumaz: Catolico nahi direlaric, yakinak

Christo Yainco dela, eta haren hitz bat baino lehen yoanen direla cerua eta lurra: Zenbat bulunba!

Mendia bezalako guizon bat, mustarda gorri, ihurtzuriac bezain larriko orro batekin, hasi da erakusten: ez ditu nihorc egui gauzac, berac egui dire! Gauza bera adirazi dute ehun mila hartz bulharrez hantuec. Beraz Murillo gabe egui dire erretabla bortz ehun mila liberacoac, hezkurric gabe haitzac, aitaric gabe semeac, nolatsu gorringoac haitz azpitán: zenbat bulunba!

Nausi batec erran du, izkiribatu ere: guizonac mekanika dire, machine bat, haize erroten anaiaik, turnabrochen ahaideak, atabal bi aldetarik cilhatuac barnean errotekin, bi zangotaco arrain iledun eguinac, sorthu direnetik hogoi menderen buruan! Gazte beroec agurtu dute erakuspen hori oihuz, zalapartaka, yauziz, ostikoka, Waterloo guziac ahantzazaten zituztelaric gasailan: zenbat bulunba!

Yaun chahar bat, churiraino irindatua, yabota handi-larri bat paparoan, mantxetac esku-muthurretan, zapatac burlekin, mintzatu da hulatsu: bada izate handi bat, bainan yaun handiegia baita, lo eguiten du gauaz eta erregerena egunaz. Arthiki du lurra eremuetan, chori edo untzi guider gabe bat bezala: Guero antola hor! Hori aitzean, Frances yaunen erdiac abiatu dire, chapelak eskuan, chiminoac iduri, itzulika eta yauziz, ezartzen zutelaric ikhaspena buruco alderdi hazkarrenean, ahantz beldurrez, eta eguiten dute dioakotena, badakitelacotz geroztic Yainkoac ez duela nihortaz acholarik. Lo eguiten du, eta arte hartan, badioaz ohointzarat, ez-patarat, lohikeriarat, piztoleterat, ura behera, pozoatzerat: zenbat bulunba!» (EE 136-138).

Hiribarren apaizaren adimenak ere bazituzkeen bere zalantzak, baina horien aurrean Eliza katoliko ofizialaren aholkua segitu behar dela dio:

«Ene izpirituac hurbil ditu cedarriac, eta denetan ere baditu lanbroac; bainan sinhestea doanean, hedoi guziac behar dire suntsirazi. Eliza ezbada egia, ez da aphez beharrik; bainan eguiaga bada, nornahic behar du entzun haren errana. Elizac hertsatzen ditu jauirak, galdeztzen eginbide zenbaiti ez dioazkotenac; eta horra zertaco dioten ez ditekela guizonentzat. Ezda aski erran dezaten: nola hartu du bada lurrean, nola lehiarazi ditu haurrac bere ganat?» (EE 149).

2.4. Ageri denez, *Eskaraz egua* bere garaiaren lekuko da. Gizarte aldakuntza, borroka politiko eta ideologikoak, zientzien asmakizunen oihartzunak nabari dira. Makinak eta balonak agertzen dira liburuan, orduko jakintsuen harrotasunaren erakusgarri (EE 138). Pentsamendu joera nagusiak espreski edo zeharbidez aipatuak dira (arrazionalismoa, positibismoa, ateismoa, materialismoa, mekanizismoa). Urte haietan argitaratu ziren zenbait intelektual ospetsuren obrak: Jules Simon-en *Le Devoir*, Renan-en *Vie de Jésus* (1862), Darwin-en *Espezieen eboluzioa* (1859) etab. Laikotasuna indar hartzen ari zen 1830tik aitzina, eta harekin, antiklerikalismoa; apaizei ausikika ari direla maiz ageri da, hala *Eskaldunacen* («Aphezak», Altuna et al. 95) nola *Eskaraz eguaian* («Ez naiz mintzatu azken erregueren hertzeaz azken apheza urkhatu nahi zukenaz. Badut hura gabe aski (...)», EE 127). Liburua argitaratu eta laster, Elizaren erreakzioa nabarituko zen, Lurdesko erromesaldiekin (1862tik aitzina), *Quanta cura* enziklikoa eta haren *Syllabus eranskinarekin* (1864), bai eta Vaticano Eliz Batzar Nagusiarekin (1869-1870). Baino gizarte aldakuntzek laikotze prozesua lagunduko dute: laborian pisua –katolikoen oinarri soziala– gutxituz joango da hirietako burgesiaren onetan, irakaskuntza publikoa zabalduko da, eta 1872az geroztik bortxazko soldadogoa ezarriko.

*Eskaraz egua* Napoleon III.aren eta Frantziako Elizaren arteko eztaldian idatzia eta argitaratua da; garai hartan Eliza katolikoa zinez hazi zen. J. Intxaustik dioenez, «inperioaren edergailutzat behar zuen Eliza Napoleon III.ak» (Intxausti 1972:24). Hain zuzen, hurren urtean, Errromako auziarekin, enperadorearen eta Eliza katolikoaren harreman onak hautsi ziren. Fedea eta aurrerapena binomioaren aurrean, «katolikoek ez zuten behar zen zientzia prestaerarik» (ib. 29), «Jakinitez urri eta mirakuluz (sic) oparo bizi zen Elizak ez zuen erarik gizarte-giro berri haretan murgiltzeko.» (ib.).

2.5. Gaiak eta tonuak irakurleak ulertzeko moduan mintzatzea, bai eta garrazki ere, galde egiten zion Hiribarreni. Horregatik, beharbada, liburu honek ez ditu *Eskaldunaceko* hizkuntza-ezaugarri asko, bereziak edo agramatikalak direnak (Altuna et al. 1997:XXI eta ond.); batzuk liburu honetan noizean behin baizik ez dira ageri: esaterako, artikuluaren ezabatzea («Ez du eskas ahal eta argi», EE 41).

Hala ere, Hiribarrenen prosa zaildu egiten du zenbait joskerak, noizbe-hinka ageri direnak. Esaterako, aposizioak, erlatibo perpausetan gertatzen delarik: «etche bi alde direnac erortzen dire.» (EE 110). Edo *inversio* delakoak: «Guizonec sobera eskas zuten maitarazteco bere buruen: (...)» (EE 94). Edo hiperbatonak: «hari erakusteco gure amodioa lehenbicico eta ho-beren aitari bezala.» (EE 34). Eta batez ere haren hiztegi garbiak (hitz teknikoak ere euskal errokoak nahi ditu, batez ere atzizki jakin batzuekikoak), joriak (izen, adjektibo edota lokuzioetan) eta bereziak (hitz bakanak edo asmatuak ugari dira, DGV-OEHn Hiribarrenen adibideak baizik ez dituztenak, adib. *elengatu* «ulertu»). Euskara dudarik gabe oso iturri onekoa du, tradiziokoa, herriaren ahokoa, aberatsa (oroit hiztegi bat egin zuela), apaina eta irudiz betea.

Prosa erretorikoa da liburu honetakoa. Tonuak (batzuetan garratza, beste batzuetan irrigarria) eta elokuzio formak (predikuak edo azalpenak eta kontakizunak) aldizkatzen dakiena. Forma horietako bakoitzak bere gisako esaldi-taxuketa eta erritmoa du. Tresneria erretoriko aberatsa baliatzen du egileak: amplifikazioa, akumulazioa eta errepikapena (antitesia, sinonimia, paralelismoa, anafora, epifonema), irudiak (konparazioak, alegoriak –ik. EE 129-134, 145-146, 149-151–), dialogismoa edo alegiazko hizketak.

Bariazioa dago egituretan eta hiztegian (hizkuntza-maila gorako hitzak, hitz tekniko euskal errokoak, lagunarteko mailakoak edo hitz konnotati-boak). Prediku edo azalpenetan lehenik sententzia bat edo bizpahiru esaldi agertzen dira eta ondoren 3-4 uhin paralelistiko, bertsolerroak bezalakoak, joskeraz eta silaba kopuruz berdintsuak. Erritmo bizia eta latza ageri da prediku edo azalpenotan: paragrafo luzea eta esaldi laburrak, perpaus juntatuak (batzuetan juntagailu gabe) eta mendeko perpaus gutxi, eta galderak zirt-zart etengabe. Laburtasuna eta sententzia estiloa dira ezaugari nagusiak. Baino, bestalde, konparazioetan hedatua da eta hitz-jario harigarrikoa ere bai.

Estilo landua eta ahozko elkartzen ditu Hiribarrenek. Uste dugu liburu honetako tonuak eta estiloak izan duela eraginik: esaterako, J. Hiriart-Urrutiren artikulueta (laburtasuna, sententzia estiloa, artikuluaren ezabatzea, inversio eta hiperbatonak...).

Laburbilduz: liburuaren izenburuak eta egilearen adierazpen espresek garbi adierazten dute liburuaren xedea: erlijio katolikoaren eta, batez ere, Eliza katolikoaren apologia egitea eta beste erlijioei eta ateoei ihardokitzea; asmo horrek darama egilea etsaiei begira irriz, trufaz edo gordinki mintza-tzera eta irakurle euskaldunei begira dotrina modu zorrotz baina atsegิงarrian –istorioen bidez– azaltzera, liburuaren egitura eta forma literarioak orekatuz. Aipatu xede eta tonuari dagokie liburu honetako euskara «errazagoa» (*Eskaldunacekin konparatuta*) eta estilo erretorikoa, bai eta ge-roagoko idazle zenbaitetan egileak utzitako arrastoa.

### 3. Erranak eta aforismoak

Hiribarrenek erran eta aforismo ugari idatzi zituen eta ondoan frantses itzulpena ezarri, baina ez zituen argitaratu. Lhandek eta Lafitteko jaso zituzten, Hiribarrenen gainerako eskuizkribuekin batera, eta haien berri laburki eman, bai eta iritzi batzuk agertu haien balioaz (Lhande 1928:394-405; 1929:81-95; Lafitte 1979:184-185). Guk hemen berri zehatzagoak emango ditugu transmisioaz, eta azalduko dugu zein kaier heldu zaizkigun eta zein ez (3.1), zer erran eta aforismo mota diren eta zenbat (3.2.), bai eta eztabaidatuko Lhande eta Azkueren iritzi erabatekoa eta, ondorioz, biltzaileen jokaera Hiribarrenen erranei buruz.

3.1. Lhandek dio hiru kaier («carnet») zirela Hiribarrenen familiak gordezen zituenak: 1) «Laborarien erran zaharrak». 2) Higiene-aforismoak. 3) Erran zahar eta zuhurren, hau da, «aphorismes proverbiaux et aphorismes sapienciaux» direlakoentzako sorta bana (1928:394). Hark berak bi multzo argitara zituen, hautu bat eginez: «aphorismes sapientiaux» direlakoetako 123 (ez dakigu zenbat ziren multzo honetakoak, kaierra desagertu bide delako), eta «Erran zahar» edo «Aphorismes proverbiaux» direlakoetako 169 (330 dira guztira multzo honetakoak). Orotara 292 argitaratu zituen eta segitza hitzeman, agian egunen batez osorik publikatu zituela esan (1928:396) eta «À suivre» jarri zuen bigarren multzoaren hondarrean (1929:95). Baino ez zuen gehiagorik argitaratu.

Hiribarrenen eskuizkribuak Lhanderen eskuetatik Lafitterenetara pasatu ziren. Lafitteko dio bi kaier zirela (1979:184-185), beraz ez hiru, Lhandek

dioen bezala: 1) «Laborarien erran zaharrak», 127 or. 2) Higiene-aforismoak eta aforismo proberbialak. Ordea, «Aphorismes sapientiaux» izenekoak Lafittek ez ditu aipatzen, eta Lafitteren bildumaren kopia bat heldu baita Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekara Andiazabalen eskutik, guk ere ez ditugu ikusi. «Aphorismes sapientiaux» horien multzo hori (Lhandek aipatu hirugarren kaierra edo kaier horren parte bat) desagertu bide da; zorionez Lhandek, hautu bat eginez («un choix d'aphorismes sapientiaux»), 123ko multzo eder bat argitaratu zigun. Lhande eta Lafitte gainerako euskalariek Hiribarrenen erran eta aforismoak ezagutzeko aukerarik ez bide zuten izan, ezta bere herrikide J. Elissaldek ere (1936), dirudienez, ez baitukete haren atsotitz, zuhur-hitz eta erran zaharrek Hiribarrenen itxura handirik.

3.2. Hiribarrenenak zer erran edo aforismo mota diren azaldu baino lehen, Azkue Bibliotekaren kopian daudenak deskribatuko ditugu (ez dakigu zuzen, ordea, Andiazabalek Euskaltzaindiaren eskuetan utzitakoena kopia fidela eta ordena bera errespetatzen duena ote daukan Euskaltzaindiak). Hasteko, esan behar dugu datarik ez dela ageri kaierretan eta ez dugula aztertu noizkoak izan daitezkeen.

3.2.1. Lehen kaierrekoak: «Laborarien erran-zaharrak. Proverbes agricoles» (LEZ laburduraz aipatuko ditugu). Jakingarria da Hiribarrenen lehenik «Eskalherrico laborarien erran-zaharrac. Proverbes agricoles de l'Euskarie ou Pays Basque» ezarri ziola izenburu eta gero «Eskalherrico» eta «de l'Euskarie ou Pays Basque» ezabatu zituela (*Euskarie* forma erabilia ote zen frantsesez Hiribarrenen garaien ala hark berak asmatua ote?). Lehen kaier hau 71. orrialdera arte zenbatua da (ez dakit nork, Hiribarrenen ala besteren batek) eta handik aitzinako 58 orrialdeak zenbatu gabe daude (azken biak hutsik). Orotara, 123 or. eta 732 erran zahar, azken bostak «Mirikuntza, médecins» izenburukoak –2. kaierraren sarrerakoan antzekoak–, guztiak frantses itzulpenarekin, hori ere errefrau gisa moldatua, errimarekin. Erran guztiak edo ia guztiak errima bereko bi zati edo partez osatuak dira.

Hiribarrenek 8 atalen pean kokatzen ditu laborarien erranak (nahiz tarteka orotarikoak dauden). 1.a, aroa: urte, egun, goiz, eguzki, uda, negu, horma, harri, elur, ihurtzuri, euri, santu-santen egun, mahasti, ira-

tze, inaurkin, ildo etab. (LEZ 1-262). 2.a, tresnak (LEZ 263-272). 3.a, lanak: lur-mota, ongarri, hazi, ereintza, belar gaitzo, ogi-jotze, hauts, erretze, kisu, igeltsu; jende- eta abere-ongarri (LEZ 273-391). 4.a, aziendak (LEZ 393-433). 5.a, soroak «zelaiak» (LEZ 434-475). 6.a, ur-xirripa eta ihinztatzeak (LEZ 476-497). 7.a, arbola, mahasti eta baratzeak (498-539): arbola landatze (517-534), adar-mozte (535-539), txertatze (540-552, mahasti (553-595), baratze (596-609). 8.a, etxeak: sala, heia, selauru, soto, barroki (LEZ 610-629), administrazio edo ekonomia aholku, tresna, etxe-gizon, bordari, morroi, loti edo alfer (LEZ 630-727), mirikuntza (LEZ 728-732).

«Laborarien erran-zaharrak» direlakoetan mota desberdinakoak bereiz daitezke xeeden arabera:

1. Irakaskizunak edo aholkuak, laborarien jakintzari dagozkionak. Halakoak dira aroei, pentzeei edo arbola eta mahastie buruzko asko (1., 5., 7. ataletaoak). Ugariak dira. Ik. Eranskinak 1 (laburduraz Er.1), LEZ 448, 503, 535, 570, 619.
2. «Zuhur hitz» gisakoak, «aphorismes sapientiaux» direlakoen antzekoak. Halakoak dira laborantzari buruzko asko eta asko, adib. 1., 2. eta 8. atalekoak (ekonomia aholkuak). Ik. Er.1, LEZ 77, 661.
3. Moralak, horietako batzuek morala eta ekonomia elkartzen baitute. Ik. Er.1 LEZ 228, 716. Erlziejkorik ez dago, ordea.
4. Ideologikoak, adib. laborariei buruzkoak. Ik. Er.1 LEZ 177, 694, 716.

Gai, eduki eta motak G. Garateren bildumakoekin (Garate 1998, laburduraz G) gaingiroki konparatuta –harena baita errefrautegi orain arteko osoena–, Hiribarrenen erranen berezitasunak agertzen dira. Alde batetik, gai edo eduki berriak, edo behintzat Garateren bilduman nekez edo askoz hurriago azaltzen direnak: santu-santa jakin batzuen aipamenak, aroei lotuak (ik. Er.1 LEZ 138, 139, 142); liburuei buruzkoak (LEZ 195-198, Gk bakarra; ik. Er.1 LEZ 198.); emeki xuxentzeaz (LEZ 201-202), ikuste edo esperientziaren balioaz (LEZ 205, 207); tresnez (LEZ 263-272; Gk gutxiago), onkailu eta ongarriez (LEZ 293-296 etab., ugariak baitira; ordea, Gk bakarra zimurratz, bat ere ez ongarriaz), aziendez (LEZ 393-43; askoz

gutxiago Gk), soroez (gutxi Gk), ihintzatzeaz (bat ere ez Gk); laborariak biltzearen beharraz (LEZ 483-486), ik. Er.1 LEZ 484, 485; arbolez eta arbola-landatzeaz, adar-mozteaz, txertatzearaz (LEZ 540-552; Gk bakarra), mahastiez, baratzeez, etxeko sala, heia, selauru, soto, barroki eta abarrez, azpikoak eta mutilak eztiki ibiltzeaz eta soldata pagatzeaz (Ik. Er.1 LEZ 694, 720).

Beste alde batetik, Hiribarrenen erran «erdi-teknikoak» edo instrukzio-zkoak gehiago dira Garaterenean baino, eta ez dira falta gizarte-gaiak edo eduki sozial, moral edo ideologikoa dutenak (askotan gauza bertsua Hiribarrenen aburuz). Garaterenean, ordea, gutxi dira irakaspenak edo aholkuak, gutxi halaber ideologikoak edo moralak. Zuhur-hitzak ugariak dira, noski, bataren nahiz bestearen errefraueta.

Zertako bildu edo hark berak sortu ote zituen Hiribarrenek, zertako osatu bilduma kopurutsu hori? Nekazaritza irakasteko eta aholkuak emateko? Bada erran bat hori pentsarazten duena: *Artzain ona ez unhatzen / laborarien argitzen* (LEZ 182). Duda gabe, Hiribarrenek irakurleak (laborariak) ditu buruan (LEZ 11 «Pour toi, lecteur et pour les tiens»). Garai berean Duvoisinek elkarritzeta bidez bezalatsu (*Laborantzako liburua*, Baiona, 1858) nahiko zuen Hiribarrenek erranen bidez irakatsi, haiiek publikatuz. Hiribarrenen bide beretik ibiliko dira almanakak.

3.2.2. Bigarren kaierrak aforismoak biltzen ditu. Orotara 55 orrialde eta 600 aforismo eta erran dauzka (lokuzioak barne). Gaiaren arabera, bi parte bereiz garbi asko bigarren kaier honetan: 1. Medikuntzari buruzko aforismoak. 2. Erran zaharrak. Azken hauei egileak «Erran zaharrak» ezartzen die izenburua euskaraz, «Aphorismes proverbiaux» frantsesez (ik. bigarren mota hau 3.2.3. puntuau).

Lehen partean edo medikuntzari buruzko aforismoetan, bi azpi-atal bereiz daitezke: 1. Medikuei eta medikuntzari buruzko sarrera. 2. Higiene-aforismoak. Medikuei eta medikuntzari buruzko sarrera lehenik frantsesez dago, hitz lauz, «Médecin» izenburuarekin (M laburduraz), eta ondotik euskaraz, hitz neurtuz. Frantsesez 8 orrialde, tarteka pare bat aforismo, bata frantsesez eta bestea euskaraz. Ondoren euskaraz 3 orrialde, frantsesezko sarrerako eduki bera 30 aforismotan (azkena, frantses itzulpenarekin).

Hiribarrenek medikuen materialismoa gaitzesten du:

«Nos medecins, avec leur anathomie pathologique, sont devenus matérialistes; ils ne s'occupent que des phénomènes de décomposition, de putréfaction & de morte, c'est-à-dire que'ils ne voient que la science du cadávre.» (M 3).

Bere alde aipu ugari ekartzen ditu, horietako franko medikuntzako doktoreenak: 118. Salmoa, Hipokrates, Bacon, Montaigne, Molière, Léon Simon, Frappart, Broussain, Fontenelu, Droz, Boerha(a)ve (bi aldiz), Du-moulin, Bichat, Rostan, Munarit, Libert, Audin-Rouvière, etab. Hiribarrenek makilaz jotzen ditu bere garaiko mediku-praktika (Europako medikuntza eskoletan nagusi zena) eta farmakopia:

«Egic bide, ez diat hire beharric,  
Hilarazi duc aski bizi beharretaric,  
Eta bat ez biziari hiltzecoetaric.»

Lafitteko dio medikuntzaren kontrako panfletoa dela. Ez dugu ukatuko: ikusi besterik ez dago 2.1. Eranskinean, M 1, 2, 5, 6, 7, 12, 21. Baino, funtsean, satira bat da. Izan ere, Hiribarrenen arabera, medikuntzaren praktikak aforismoak sortarazten ditu, esperientziak eta zuhurtziak aginduta. Bere maiseoak gorabehera, medikuekin ez dela etsai izan behar diosku, hobe dela haien aginduak betetzea, menturaz on egin baitezakete «iturriko ureko medikuon» erremedioek.<sup>2</sup>

Higiene-aforismoek («Aphorismes hygiéniques», AH laburduraz) 72 orrialde betetzen dute; guztiekin dute frantses itzulpena. Bi sorta dira. Lehen

---

<sup>2</sup> «Les poëtes, les philosophes et tous les écrivains satiriques ne se sont pas fait faute de plaisanteries contre la médecine et les médecins; leurs coups n'ont pas toujours porté à faux sur ceux qui font métier de guérir; et nous pensons que la pratique médicale et ses résultats donnent aussi, au fond, ample excitation à l'enfantement d'aphorismes; mais ceux-ci sont surtout dictés par la sagesse, l'expérience, la prudence. Concluons que, toutes choses bien examinées, qu'il y a plus de profit à vivre, en bonne intelligence avec les médecins que de les avoir pour ennemis; qu'il vaut mieux encore exécuter leurs ordonnances, dussent-elles ne rien offrir de salutaire, que de négliger le bien qui peut provenir d'un hasard heureux dans les prescriptions; qu'enfin il est plus sensé de sentir la guérison que de s'abandonner au mal sans le combattre. Après cela, bouche close, et ne considérons point comme un attaque bien grave cette qualification de médecins d'eau douce, que l'on donne aux docteurs dont les remèdes n'ont pas plus d'action pour le bien ou le mal, que l'eau pur d'une fontaine.»

sortak 133 aforismo dauzka (egileak berak zenbatuak). Hipokratesen aforismoa edo haren aforismoetatik moldatuak dira, dirudienez; hori ematen du aditzera «Médecin» sarrerako 29.ak (ik. Er.2.1, M 29), baita sortaren bukaerako iruzkinak (ik. beheraxeago).

On da ohar bat egin dezagun aforismoez. Aforismoa deritzo, arruntki, epai edo sententzia labur eta dotrinalari, zientzia edo arlo jakin bati aplikatzeko denari. Jakintsuek, filosofoek eta idazleek aforismoak sortu zituzten. Erretorika liburueta, aforismoen sortzaile eredugarrien artean, Hipokrates eta Salernoko Eskola aipatzen dira, eta hain zuen haienak itzultzen edo moldatzen ditu euskaraz Hiribarrenek.

Gai eta edukiei dagokienez, lehen sortako aforismo hauek batez ere gaitzen sintomak deskribatzen dituzte («berri/seinale txar/on»): janari, betedura, husdura (AH 1-17), goitiko «vomitif» eta beheitiko «purgatif» (AH 20-26), odol-ixurtze (AH 27-28), erreberi «délire» (AH 34), ikara eta sukar (AH 41-42), gauza bero eta hotzen ondorio (AH 44-50), asma (AH 51), hetika «phtisie» (AH 52-55), punta «pléuresie» (AH 58), sabel husdura edo kakeria (AH 60-62), horitzta «jaunisse», «ictère» (AH 64; *horitzta* hitza ez da ageri OEHn), zotina (AH 65), eztul, bare-min (AH 68), sukar ero «frénézie» (AH 69), emazte izorrari odol ateratze etab. (AH 70-71), gazte-zaharren gaitz (AH 78-79), gaitz eta aro (AH 80-100), sukar (AH 105-119), ikara eta min (AH 120-121), unadura (AH 124-125), handitsu eta erisipela (AH 129-130), hezurretako min (AH 131), eritasunak lehen eta orai (AH 133). Ik. hauetariko zenbait Er.2 atalean. Ohargarri da gaitzen euskarazko izenak generikoak direla eta frantses itzulpena, librea den arren, askotan zehatzagoa dela euskarazkoa baino.

Hiribarrenek Hipokratesen medikuntza bere garaiko medikuen praktikari kontrajartzen dio. Sortaren bukaeran hona zer dioen:

«Lehen etziren eritasunac  
Orai bezala eramanac.  
Etzen gorputza bethetzen  
Sendakai dutenez erretzen.  
Hipocratec maite gorputza,  
Harec laguntzen zuen mirikuntza.

Horren egitea hoberenic edozeinec  
Nahiz Argien ondotic dabiltzanec.» (AH 133).<sup>3</sup>

Bigarren sortako aforismoak Salernoko Eskolakoenak dira («prescriptions hygiéniques de l'Ecole de Salerno»); PHES laburduraz izendatuko ditugu. Frantses itzulpena neurtitzetan egina da, errima parekatu nahiz b-sarkatuekin.

Honela aurkezten ditu Hiribarrenek:

«Voici des prescriptions hygiéniques de l'Ecole de Salerne. Ce sont des preceptes qui ont passé en maximes, et en proverbes. Quelques uns des remèdes indiqués sont depuis longtemps éprouvés. Si les autres ne produisent pas toujours les résultats promis, ils ne sauvent du moins nuire, ni ruiner le malade, et c'est un point capital.» (45. or.).

Salernoko Eskola Erdi Aroan sorturiko Medikuntza eskola da, garai hartan ospetsua Europan, Napoleonek hetsia 1811n. Eskola horrek aforismo eta neurtitzen bidez zabaltzen zituen bere aholku arrazionalak, modu argi, labur eta praktikoan, autoritate, magia eta astrologiaren eraginik gabe. Eskola horren jarraibideak agertzen dira Hiribarren higiene-aforismootan.

Salernoko Eskolako aforismo hauek zenbatu gabe daude. Gaika zenbatu daitezke, edo errimaka (hau da, errima bereko bertso-lerroek unitate bat osatzen dutela), edo puntuazioaren arabera (puntutik puntura aforismo bat), baina aforismoak bereizteko irizpideok garbiak ez izanik, geure erara kopurutu ditugu, hiru irizpideak aintzat hartuz. Hortaz, 107 kontatu ditugu. Ohargarri denez, aforismo gehienak errima bereko 4 bertso-lerrokoak dira, baina batzuk laburragoak (2, 3) eta beste batzuk askoz luzeagoak (5, 6, 10, 15, eta luzeena, azkena, 38koa, gaitz arriskutsuen sintomen deskripzio xehekin).

<sup>3</sup> Honela itzultzen du frantsesez: «On a pu de convaincre, par ce qui précéde et par les (quelques) prescriptions indiqués par Hypocrate, que sa méthode est des plus simples et des plus compréhensibles; qu'un abîme la sépare de la pratique due aux progrès de la science, qui fait de notre corps un véritable laboratoire de chimie. L'oracle de Cos attendait beaucoup plus du effort de la nature que de ceux de l'art médical, et c'est ainsi que doit penser tout homme raisonnable, même ayant recours aux lumières des savants.»

Salernoko Eskolako aforismoon gai eta edukiak azal ditzagun. Alde batean, dieta eta higiene aholku orokor batzuen ondotik (PHES 1-11), honako janari hauek zertako edo noiz diren on eta noiz ez: janari azkar, arrain, ilar, ahuntz esne, burra, gazur, arrautza fresko, salda gizen, ogi, ardo, gazta, udare, gerezi, mertxika, aran, piku, mizpira, ozpin, bihozki, mihi, bularki, anis, haragi gazitu, aza-ur, malba, sabuka «intsusa», kipula, mustarda, asun, kreson «fr. cresson», sahats-ur, azafrai, porru, piper (PHES 12-58). Bestetik, gaitzak eta gaitzen sintomak, preskipzioak eta erremedioak: belarrietako burrunba, bozen keldar, mafrundi, buruko min, udako bainu, odol-ateratze, erien artatze, beheitiko, bixikatore, aiuta «lavement», xintximari, bainu, lo, kontrapozin, pertsona ito, baporez hats galdu (asfixia), pertsona odoltsuen eroriko (apoplexia), flakeza «syncope», gorputzeko alderdien bihurdura, txakur errabiatuen ausiki «hydrophobie», sudurreko odol jario gelditze, erredura, gaitz arriskutsu eta hilkor (PHES 59-107). Ik. horietako zenbait: Er.2.3.

3.2.3. Bigarren kaierraren bigarren partea «Erran zaharrak» edo «Aphorismes proverbiaux» direlakoek osatua da (EZAP laburduraz izendatuko ditugu), guztiek frantses itzulpenarekin. 38 orrialde dira. *Erran zahar* edo esaera horiek ez daude zenbatuta; guk 330 zenbatu ditugu. Atsotitzak eta lokuzioak dira (lokuzioak hizkuntzaren sistemako unitateak dira, baina ez dira enuntziatu osoak, errefrau edo atsotitzak diren bezala), baita hizketa-formula batzuk ere. Hiribarrenek *erran zahar* deitu zituen batzuk eta bestek, ez baitzituen bereizten (eta, izan ere, ez dira beti elkarrengandik bereizterrazak). Nolanahi ere, *erran* hitza zuzenagoa dateke *aforismo* baino (ik. aforismoaren definizioa 3.2.2. atalean); baina *erran zahar* (hau da, tradiziozko) deitzea egoki den edo ez, aztertzeko dago (ik. 3.3.).

Lhandek 169 argitara zituen (1929:81-93), gainerakoak argitaratugabe daude. *Gure Herriako* edizio partzial horrek Hiribarrenen frantses itzulpeneko hitz eta esaldi batzuk kentzen edo aldatzen ditu, eta eskuizkribuko testua ere ez du beti zuzen jasotzen, adib. EZAP 149 *Haltsu eta Jatsu, biac higoaltsu* → (*Gure Herria*) *Haltsa eta jatsa, biac higoaltsu*.

Ikus 3. Eranskinean atsotitzen (Er.3.1.) eta lokuzioen (Er.3.2) multzo bana. Atsotitz horiek ez zituen Lhandek argitaratu eta azken bost lokuzioak ere ez; atsotitzak ez dirateke ageri Garateren bilduman, lokuzioak ere ez

OEHn (ez behintzat lokuzio gisa edo sarrera bereziarekin eta Hiribarrenek ematen dien adiera berarekin).

3.2.4. Bi kaierretako horiez gain, aintzat hartu behar ditugu Lhandek argitaratu 123 erran zuhur edo zuhur-hitzak: «Aphorismes sapientiaux» (AS laburduraz). Jokaera moralari buruzko gaiak dira (bertuteak eta hobenak): hordia (AS 1), haurrek ikastea (AS 2-5), haserre eta mendekua (AS 6-14, 47), alferra, alferkeria (AS 15-20), zintzurra «gourmandise» (AS 21-22), ardoa (AS 23-24), bekaiztiak eta bekaizgoa (AS 26-30), zikoitzak eta zikoizkeria (AS 31-36), zuhurtzia (AS 37-40, 42-45), ixilik egotea (AS 52, 54), dohatsua (58), amodioa (AS 59), etab. Ik. multzo bat: Eranskinak 4.

Hiribarrenen erranen eta aforismoen kopuruari dagokionez, bi kaierrek orotara 1334 biltzen dituzte. Lhandek argitaraturiko 123 «Aphorismes Sapientiaux» direlakoak gehituta (eta horiek ere beste batzuen artean hautatu zituen), 1455 dira orotara Hiribarrenen erranak, esan nahi baita gorde direnak eta ezagutu daitezkeenak, nahiz gehiago idatzi zituzkeen.

3.3. Kritikariek Hiribarrenen erranei estilo aldetik duten balioa aitortu diente baina errefrau edo atsotitz gisa dutena ukatu. Ondorioz, atsotitz biltzaleen bildumetatik kanpo gelditu dira.

Lhandek ez zien aitortu atsotitz edo errefrau (fr. *proverbe*) izaera, hau da, esaera egina, ahotik ahorakoa edo berrerabilgarria izatea. Hiribarrenek berak sortuak eta batzuetan aldatuak edo berreginak izanez, ez omen dute folklore balio handirik.<sup>4</sup> Lhanderen arabera, Hiribarrenen erranen balioa estiloan dago, hainbat kualitate erakusten dituzte (apaintasuna edo dotoretasuna eta laburtasuna), interesgarriak dira inversio eta aliterazio ugariengatik eta gozagariak lapurtera garbiaren zaleentzat. Frantses itzulpenari dagokionez, haren esanetan, bitxia eta barrokoa da, itzulpen batzuk iruzkinak baino ez dira, poesia balio urria du eta egileak askoz hobeki idazten zuen euskaraz frantsesez baino (*ibid.* 394-395).<sup>5</sup> «Erran zaharrak» edo «Aphoris-

<sup>4</sup> «De toute évidence, ces proverbes, dictons et formules ont été composés par l'auteur lui-même et quelquefois remaniés. Leur valeur folklorique est donc mince.» (Lhande 1928:394).

<sup>5</sup> «Mais en revanche le style présente des qualités remarquables d'élegance et de concision. Il offre une foule d'inversions et d'allitérations qui marquent un réel intérêt. Les amateurs de beau basque

mes proverbiaux» (ik. 3.2.3.) esapide mamitsu eta aberasgarriak omen dira.<sup>6</sup> Horiei buruz, Lafittek ohartarazi zuen beste hizkuntzetakoentzakoak kidekoak edo haietatik moldatuak direla asko, baina ez dutela gatz faltarik.<sup>7</sup> (Gehi genezake, atsotitz landuen itxura eta estilokoak direla Hiribarrenen erranak, gure ustean).

Lhanderi jarraituz eta haren aipua ekarriz, Azkuek ere atsotitz jatorren izaera ukatu zien Hiribarrenen esaerei eta frantses atsotitzen itzultzaleen artean kokatu zuen Hiribarren, Iturriaga eta J. Elissalderekin batera ([1945] 1969 EY III:23, 24). Hala ere, aitortzen du Hiribarrenen bat behintzat onartu zuela bere bilduman (*ibid.*, 28). Lhande eta Azkueren irizpideen indarrez, eta Hiribarrenen eskuizkribuen ezagüera ezaz, atsotitz biltzaileek Hiribarrenen erran eta aforismoak atsotitz bildumetatik errazegi baztertu dituzte, baita Lhandek argitaratuak ere. G. Garatek ez ditu aipatzen ere (1998, sarrera). Asmatuak baldin badira, Lhandek eta Azkuek diotenez, logikoa da sasi-atsotitzat hartuak izatea. Hala gertatu ohi da beste hizkuntza eta herrialdeetan (nahiz, zenbait, erabiliaren erabiliz, atsotitz bihurtu diren). Baina kritika-riak eta atsotitz biltzaileak ez ote dira zorrotzegiak izan Hiribarrenenkin?

Alde batetik, ezin uka Hiribarrenek berak onduak direla laborarien erran, «Aphorismes proverbiaux» eta erran zuhur asko, agian gehienak. Hori eza- gun da: a) inversio edo hiperbatonetan (LEZ 691 *Beldur bahaiz lanaren, / jakin zac hautatzen ordainaren*. Si le travail te fait peur, / Délegue un bon cultivateur; PHES 54 *Sahats urac urruntzen / Har beharri duena zaurtzen* [beharrria zaurtzen duena]. b) -a artikuluaren elipsi urgarietan, hori baita Hiribarrenen hizkuntza ezaugarri iraunkorrenetako bat, bertsoetan batez

labourdin prendront plaisir à cette lecture. En regard de chaque formule, le chanoine donne une traduction française, souvent rimée, qui témoigne chez lui d'une connaissance du français et d'une valeur poétique considérablement inférieures à sa science du basque. / Voici quelques exemples de cette traduction pittoresque et baroque: (...) Certaines de ces traductions deviennent parfois tout un commentaire; (...)» (Lhande 1928:394-395).

<sup>6</sup> «Erran zaharrac. Aphorismes proverbiaux. Sous ce titre Hiribarren a ressemblé un grand nombre de sentences mêlées à de simples expressions qui constituent des euskarismes des plus savoureux et sont bien propres à enrichir notre parler courant.» (Lhande 1929:81).

<sup>7</sup> «“Aphorismes proverbiaux”. Bien de ces maximes correspondent à des dictos connus en d'autres langues, mais elles ne manquent pas de sel.» (Lafitte 1979:185).

ere, prosan gutxiago: LEZ 228 *Ez leher etchetiar, / Guziec dute bizi behar*; LEZ 686 *Ongarri dena biltzen / Bihian aurkhitzen*. LEZ 102 *Harriac bakharric larrutzen / Toki duena ukitzen*. Aipatu bi ezaugarri horiek (-a artikuluaren elipsiak eta inversioek) Hiribarrenen erlatibo-egitura tipikoak osatzen dituzte: LEZ 315 *Lur garbi dena uxten / zikhinetan errech biluzten*. c) aipamen edo erran kulto batzuetan: LEZ 179 *Erromaco aitoren semeac, / Ez ahalketzen goldeac*. À Rome, consuls et preteurs, / s'honoraient d'être agriculteurs. d) egilearen buruko hitzetan ote gogoko atzizkietan (-dun, -te): LEZ 11 *Urthe elurdun, / Ez gosedun*. An de neige est un an de biens, / Pour toi, lecteur, et pour les tiens. Izan ere, normalagoak dira *elur-urte* edo *elurtsu* (ik. G 3785 *Elur urte, ogi urte*; 9465 *Martxo elurtsu, urte garitsu*). Halaber hitz bereziak: LEZ 242 *Laborantzac bide egite / Herrien ungite*. En culture tirer [...] les progrès / Pour le pays sont des bienfaits. e) lehen pertsonaren erabilera (behin edo behin baino ez darabil egileak): LEZ 497. *Denean ur, lur, iguzki, ongarri, / Etzait dela nihor dolugarri*. Lhande zuzen dago kasu batzuetan berreginak izan direla dioenean ere; egilearen eskuko zirriborro eta zuzenketa ugari dituzte Hiribarrenen eskuko erran eta aforismoek. Eta beste aldetik, higiene-aforismoak itzulpenak edo moldapenak dira.

Baina kontua zehatzago aztertuz gero, ohartuko ginateke Hiribarrenen erranen artean badirela atsotitz eta lokuzio jatorrak (Er.5.1.), eta Lhande ere ohartuko zen horretaz, nahiz deus ez dioen. Beste batzuetan egileak atsotitz jatorrak baliatzen eta manipulatzen ditu modu askotara: atsotitzaren parte bat hartuta (Er.5, LEZ 2), bi atsotitz desberdin elkartu eta na-hastuta (Er.5, LEZ 1), atsotitzari ondoren zirtoa ezarrita –agian Hiribarrenen burukoa, agian tradiziozkoa edo antzekoa– (Er.5, AS 100, LEZ 71, 106), atsotiz jatorra bigarren partean jarri eta lehena harekin konbinatuta (Er.5, LEZ 79), atsotitzen aldaerak sortuta (Er.5, LEZ 4, 5), etab.

Izan ere, Hiribarrenen erran ugari Garateren bildumako askoren oso antzekoak dira; ik. multzo bat: Eraskinak 6. Eta, gero, Garateren bildumako guztiak ote dira atsotitz jatorrak? Haietako asko atsotitzen aldaera hutsak dirudite, adib. landu gabeak diren asko, edo, landuen artean, Axularren beraren *Akabatzeari dagoka koroa* (Garatek jasoa), haren parekoia baita EZAP 327 *Akabantzak lana koroatu*. Zergatik Axularrenak atsotitz estatusa eta Hiribarrenenak ez? Ez ote dira atsotiztegietan erruz eta erraz sartu idaz-

leek idatzi eta asmatutakoak ere? Bestela, benetako atsotitzak zein diren jakiteko, berraztertu beharko lirateke irizpideak, atsotiztegiak eta iturriak, batez ere idatzizkoak.

Bestalde, Hiribarrenen erranak mailegatuak edo kalkatuak direla eta, zer? Atsotitz itzuli edo moldatu franko ez ote dira jendearen ahoan erabiliak eta are atsotiztegietan bilduak? Ez al dute baliorik? J. Hiriart-Urrutik frantsesetik hartuta euskaraz moldatzen zituen atsotitzak bere kazetalanetan erabiltzeko. Hiribarrenen erran ugari, lokuzioak barne, beste hizkuntzetan oso erabiliak direnen itzulpenak dira, batez ere frantsesetikakoak. Ik. multzo bat: Eraskinak 7. Garatek bere bilduman gaztelaniazko frankoren moldape-nak sartzen baditu, eskubide berbera izan dezakete gure idazlearenek.

Beraz badirudi Hiribarrenek orotariko erranak bildu nahi zituela –tradiciozkoak, manipulatuak, frantsesetik itzuliak edo berak asmatuak–, irakasteko baliagarriak ziren ber; haren ardura irakastea zatekeen, ez herriaren ahoko eta ahotik atsotitzak biltzea.

Atsotitzek atsotiztegietan baino harrera hobea izan dute gurean Hiribarrenen lokuzioek. Lhandek argitaratutako ugari onartu ditu OEHk, eta sarrera bereziarekin (nahiz lokuzio gisa markatu gabe ageri askotan), adibide bakarrekoak izanik, edo bestela adibideen artean ezarri ditu; beste batzuk, ordea, ez, argitarabeak direlako (ik. Er. 3.2). Atsotitzakoen kasuan bezala, lokuzioak zein diren eta zein ez berraztertu beharko litzateke, gure ustez.

## Ondorioak

Hiribarrenen bi alderdi aztertu ditugu, oso ezagunak ez direnak: prosa idazlearena eta neurtitezko erran eta aforismoen itzultzaile edo moldatzailearena. Alderdi batean eta bestean Hiribarrenen luma trebeak erdiesitako emaitza oso baliotsua da, gure ustez, batez ere euskara bizi eta aberatsagatik, estilo labur eta argiagatik, eta garaiko pentsamolde eta jakintzaren lekuko direlako. *Eskaraz eguiako istorio* ugariek, erretorikak eta hitz eta joskera batzuen bitxitasunak ere balio erantsia dute.

Hiribarrenen erranak eta aforismoak ez dira erlijio gaiezkoak, ezta moral gaiezkoak (gehien-gehienak behintzat); bizibideari eta osasunari dagozkion jarraibide praktikoak edota zuhurtiazkoak dira. Hiribarrenek Hipokratesen eta Salernoko Eskolaren medikuntza aforismoak moldatu ditu euskaraz eta Medikuntzaren historiaren parte bat erakutsi digu. Aforismoak irakaskuntzan erabiliak izan dira, jakintza –trinko– adierazita errazago hedatzeko (horretan tradizioa egon da Frantzian) eta haien bidez Hiribarrenek euskaldunei eta laborariei irakastea bilatuko zuen. Genero hori egun ere baliotsua dateke pentsamendua adierazi eta lantzeko (horren adierazle, UPV-EHUk antolatu Oihenart Aforismoen lehiaketa, 2011).

Azterturiko bi alderdietan hainbat eta hainbat gai gelditzen dira azaltzeko; esaterako, zertako itzuli zituen frantsesetan bere erran eta aforismoak. Dena dela, gure ustez, Hiribarrenen erran eta aforismoen argitalpenak lagunduko luke egilea ahazturaren eta jakinezaren zigorretik askatzen eta, agian, orain arte baino hobeki balioztatzen. Euskal hiztegiak ere ez luke kalterik. Eranskinetan bildu dugun sortak erakusten du ezagutzea merezi dutela.

## Laburdurak

- E: *Eskaldunac* (Baiona: Foret eta Lasserre, 1853). Ik. Bibliografian Altuna et al.
- EE: *Eskaraz eguaia* (Baiona: Lasserre, 1858).
- Er.: Eranskinak.
- G: Garate, G. Ik. Bibliografia.
- LEZ: (Hiribarren) «Laborarien erran zaharrak». Zenbakia nik ezarri diet.
- AH: (Hiribarren) «Aphorismes Hygiéniques».
- AS: (Hiribarren) «Aphorismes sapientiaux». Lhandek argitaratuak. Ik. Bibl. Lhande
- M: (Hiribarren) «Médecin». (31 atsotitz). Zenbakia nik ezarri diet.
- PHES: (Hiribarren) «prescriptions hygiéniques de l'Ecole de Salerno». Nik ezarri diet zenbakia.
- EZAP: (Hiribarren) «Erran Zaharrak. Aphorismes Proverbiaux».

## Eranskinak

### 1. «Laborarien erran zaharrak» (LEZ laburduraz)

- LEZ 77. *Bethi bil, arauetz egor, / Ez diteke etchea eror.*  
 LEZ 138. *Jondoni Laurenditan, / iditaia ogitan.*  
 LEZ 139. *San Martinec arno ona edaten, / Eta ura errotentzat uxten.*  
 LEZ 142. *Ganic ere negua itsasoz bertzalderat, / Ethorriren San Nikolasi mintzatzerat.*  
 LEZ 177. *Yincoac egin gizona goldeco / Nola arraina ureco.*  
 LEZ 198. *Lagun ona liburua, / zuhur bada burua.*  
 LEZ 228. *Ez leher etchetiar, / Guziec dute bizi behar.*  
 LEZ 241. *Ez denac laborari, / Agur hala denari.*  
 LEZ 408. *Estalarazteco behorra, / Hauta garaino ederra.*  
 LEZ 448. *Hazia baino lehen sorroari [«soroari», «zelaiari»] / Eman lodi ongarri.*  
 LEZ 484. *Gauzen ungi egiteco, / laborariac bilduco.* Agriculteur, ne oubliez pas / De vous unir en syndicat (LEZ 484),  
 LEZ 485. *Yabea bakhar egotean, / Maiz haren lur agortean.*  
 LEZ 503. *Chirripen inguru, zure parrapioetan, [«lur eremuetan»] / Arbolac landa bi lerrotan.*  
 LEZ 535. *Otsaila hasi orduco, / fruitutzeac moztuko.*  
 LEZ 570. *Urtharrilaren hoita hamekatic, / Landa mahasti lehenetaric.*  
 LEZ 619. *Arnotegian beroa / hamar gradu, ez gehiagocoa.*  
 LEZ 661. *Laborari cafetiarra, / ospitalerat beharra.* Laboureur qui du café s'approche / court à l'hôpital en coche.  
 LEZ 694. *Ybil azpicoac eztiki, / Egin gabe asiki.*  
 LEZ 716. *Etchetiarra lehertuz, / Seilharu joaiten hustuz.*  
 LEZ 720. *Ez luza ematen / Muthilei soldaten.*

### 2. Higiene aforismoak

#### 2.1. «Médecin» sarrerakoak (M laburduraz)

- M 1. *Mediku gutiago, / Gaitza bakhanago.*

- M 2. Burua fresco, sabela arin, zangoac bero, / Midikuez trufa gero.
- M 3. Ura, pasaio eta barur / Mirikuntzaren lehen haur.
- M 5. Ez da sendakairik, Mirikuek erraten, / Eria badohala dutenean ikusten!
- M 6. Biziaren amodioac deitarazten mirikuac; / sendarazi batec ahan-tzarazten ehun hondatuac.
- M 7. Sendakai miriku batek emana / Nihoiz bertzeaz ungi atzemana.
- M 12. Hainitz mirikuk ez sinhesten badela arimaric, / Ezdute beraz arthatzen aberez bertzeric.
- M 21. Akademian badire miriku churi, gorriac; / Mirikuntzac beraz cimendu lazgarriac.
- M 22. Bethi berri laborantza, / Berriago mirikuntza.
- M 29. Mirikuen aita, Hypocrates jauna, / Yzanen lehenic mintzaturen dena.
- M 30. Labur bizia, / Ikhasprena luze, / Mena lasterra / Egintza enganiocor, / Erratea gaitz. La vie est courte, / L'art est difficile, / L'occasion prompte, / L'expérience trompeuse, / Le jugement difficile.

## 2.2. «*Aphorismes hygiéniques*» (AH laburduraz)

- AH 1. Ez da on sobera jatea, / Ez gose jasatea, / Ez ahalez gorago egitea. Il n'est pas bon de manger trop, ni de souffrir la faim, ni de faire rien au delà de la nature.
- AH 8. Janari umiac behar, / Gorphutzari darraiconean sukhar; / Haurrac lerro hortan sar. Le régime d'une nourriture humide est nécessaire aux tempérament fébriles, et surtout aux enfants.
- AH 13. Eritasunean jateco hoberena, / Ahoac galdetzen duena, / Nahiz ez luken bethi iduri hautena.
- AH 26. Sabel chumeaz goitico gaitz husdura dutenac galdetzen, / Goiticoac sendatzen. / Sabel chumeaz behitic direnac, / Behiticoaren lanac. Les douleurs situées au dessus du diaphragme et qui demandent l'évacuation, seront guéris par le vomissement, eta celles qui sont au dessous, par le purgatif.

- AH 52. Bulhar usteltzetic helduden hetikadura, / zortzi urthetaric hoita hamabortzetalat izaten ardura. La phthisie, qui provient de l'ulcère du poumon, se manifeste communément depuis l'âge de huit ans jusqu'à trente-cinq.
- AH 70. Emazte izorrei atheratzea odola, / Haur eginaraztea denbora ez dela; / Yzor handian bereziki hori egin ez dadiela.
- AH 71. Emazteari, muthil duenean garraiatzen, / Coloreac bizi zaizco agertzen; / Alaba badu, zuri ezagutzen.
- AH 85. Beraz aro, hotz eta beroen ganbiantzetan, / Gaitzac menta handienetan; / Gauza bera da bizia duten orotan.
- AH 110. Hotz edo bero den izerdiac / Bethi baditu gaindiac, / Erakus-ten gaitzaren min edo hagoniac; / Hotzac badire, / Gaitz sendatzetic urrun dire; / Gaitza hil hurren, beroac badire.
- AH 122. Larrua idor eta gogor dutenac, / Yzerdiric gabe hiltzen dire-nac; / uritan hiltzen larru lazo eta cilhotsudunac.

### 2.3. *Salermoko Eskolako Higiene-preskripzioak (PHES laburduraz)*

- PHES 1. Burutic grina athera, / Jabal hasarradura.
- PHES 2. Siesta higuin eguerditan, / gernu eta haize utz airetan.
- PHES 3. Hobe dieta / Ezen ez lanzeta.
- PHES 4. Esku eta begi garbi goizetic, / Ez bara higitzetic.
- PHES 5. Orrazta, hortzac garbi, oin, esku, hezurrac luza, / Hobeki hala gorputza.
- PHES 11. Guti jan arratsetan / Loaren onetan.
- PHES 32. Gaznac hozten, hesten eta gogortzen, / Ogi eta gasnac gor-phutz garbi galdetzen / Gasnac hutsic gaizkitzen / Ogiarekin, kalte ekhartzen.
- PHES 36. Udare erria hoberena, / Gordinik tzarrena, / Errerik barneco eztiena / gordinik garratzena.
- PHES 37. Janari ona gerezia, / Behiti doha guzia, / Hexurrak khentzen harria, / Urak gorphutzean hedatzen bizia.
- PHES 68. Odol atheratzeac nahi behitico; / Berez barnea hutsa itchikico / ez hala unhatuco, / Entzute, boz, indarrac ethorrico.

## 3. «Erran zaharrak-Aphorismes proverbiaux» (EZAP laburduraz)

## 3.1. Atsotitzak

- EZAP 17. *Ez utz estriberac.* N'abandonnez pas les étriers; c'est à dire, usez de vos avantages.
- EZAP 151. *Mihia zilhatu zaio.* La langue lui a fourché: il a lâché une parole contre son intention.
- EZAP 190. *Hitz bati darraizco oro.* Il n'y a qu'un mot qui serve: parler nettement.
- EZAP 209. *Mendi guziac errekekin.* Il n'y a pas de montagnes sans vallées.
- EZAP 216. *Hitz ona errech eta aberats.* Bonne parole coûte peut, et vaut beaucoup.
- EZAP 217. *Zucenegi, laster makhurregi.* Trop de justice degénere en injustice.
- EZAP 233. *Agur agurrari.* Quiconque salut, est salué.
- EZAP 236. *Ez da ahalcatzeco, ez dakizuna galdetzeco.* N'ayez par honte de demander ce que vous ne savez pas.
- EZAP 238. *Aberatsena, zorríc ez duena.* Est assez riche qui ne doit rien.
- EZAP 259. *Nihorc bethi irabaxten.* N'est pas marchand qui toujours gagne.
- EZAP 264. *Lanetan ageri gizonac.* Les affaires font les hommes.
- EZAP 265. *Hibaia barnenean, ichilenean.* Où la fleuve est plus profonde, il fait le moins de bruit.
- EZAP 277. *Ez da bolbora etche chorientzat.* Il ne faut pas tuer de poudre aux oiseaux.
- EZAP 280. *Maite duena Bertrantto, / Maite haren chakhurtto.* Qui aime petit Bertrand / Aussi son petit chien.
- EZAP 288. *Gal lehenago hitz ona / Ezen zure laguna.* Il vaut mieux perdre un bon mot qu'un ami.
- EZAP 302. *Oro deus ez.* Tout est vanité.
- EZAP 329. *Hobe bekhaiztaraziric, / Ezen urrikalaraziric.* Mieux vaut faire envie / que pitié.

### 3.2. Lokuzioak

- EZAP 22. *Haize guziac segi.* Aller à tout vent; être sans résolution.
- EZAP 24. *Guziei halabiz.* Il dit amen à tous; il acquiesce à tout ce qu'on veut [?].
- EZAP 42. *Moco eta behatz onac [izan].* Avoir bec et ongles: répondre vivement à un attaque.
- EZAP 83. *Atzapar onac izan.* Avoir les mains crochues: promptes à dérober. [OEH *aztapar onak ditu*, il est vigoureux, il est bon ouvrier (Duvoisin)]
- EZAP 176. *Bazcari guzietaco izieta [?][ izuta?].* Etre à pot & a rôt: parasite.
- EZAP 184. *Errainac hazkar.* Avoir les reins forts: pouvoir et tenter certaines chances.
- EZAP 188. *Zakhuaaren ondoa ikuhs.* Il faut voir le fond du sac: s'instruire bien d'une affaire [?].
- EZAP 191. *Irin eta zahi.* Moitié farine, moitié son: marchandise mêlée.

### 4. «Aphorismes sapientiaux» (Lhandek hala izendatu eta argitaratuak) (AS laburduraz)

- AS 4. *Hobe haurrak egun egitea nigar / Ezen ez zuk bihar.*
- AS 14. *Ura suari, / eztitasun kolerari.*
- AS 32. *Zaldi iduriko da zikhoitza; eramaile arno eta edale hutsa hutsa.*
- AS 37. *Mintza gehiago zurekin / ezen ez bertzezin.*
- AS 43. *Zuhur litezke asko / ez balire bere buruaz hartusko.*
- AS 58. *Gizon dohatsuena, / Hala dela uste duena.*
- AS 59. *Amodioak baiak ezetatzen, / Herrak agertzen.* L'amour couvre les défauts; la haine les met en relief.
- AS 64. *Egun tzarragoak, / Lege gehiagoak.* C'est dans les temps de corruption que les lois se multiplient.
- AS 70. *Atzman beza lagunac zu baithan / Zuk nahi duzuna hura baithan.*
- AS 73. *Izaten hoherena / Barkhatzen dakiena.*
- AS 90. *Libertatearen mugarrria / Libertinkeria.*
- AS 106. *Maiz gauza bat bilhatzen, / Bertze bat aurkhitzen.*

AS 109. Ez da sokez mintzatzeko / Urkhatua denean hurbilsko.

AS 111. Hobe choria eskuan / Ezen ez lersuna zeruan.

AS 113. Ezta nihorc zainduko / Astoaren zintzurreko.

AS 123. Ungi predikatzen / Denak ungi bizitzen.

### 5.1. Atsotitz eta lokuzio jatorrak

LEZ 119. Andredena Marchoco, / Behia larrean aseco.

LEZ 671. Nausia nolaco, / Muthila halaco. À tel maître, tel valet; / Rien n'est plus vrai; chacun le sait. Ik. G 9911 Nolako nau-si, halako mutila.

EZAP 107. Egina egin. Ce qui est écrit est écrit: rien à changer.

EZAP 129. Su eta khar. Jeter feu et flamme: se répandre en invectives, agir avec ardeur.

EZAP 149. Haltsu eta jatsu, biac higoaltsu. C'est jus vert ou vert jus: même chose.

### 5.2. Atsotitz jatorren baliatze eta manipulazioa

LEZ 2. Lehen hala, / Orai hola. Ik. G 8954 Lehen hala, orain hola, gero ez dakigu nola.

LEZ 1. Hotz ez dena bero, / Gauzec bere aro (LEZ 1). Antzekoak, alde batetik, G 5602, 5606, 5607, 4124, eta bestetik, 4923.

AS 100. Hitz guti eta hek onak / Higuindua nahi ez denac (AS 100, Lhandek argit.; lehen zatia atsotitz oso ezagun erabili batek osatzen du).

LEZ 71. Ez eragin beherapenean, / Hain guti ilhargi bethean. Lune en décours, ne seme point. Antzekoa G 4055 Ilbeeran erein zegik arean.

LEZ 106. Uriaren ondotic atheri, / Nihor bethiko eri. Toujours ne peut durer orage / Ni de Bellonne le ravage [?]. Ik. G 4808 Uriaren ondoren aterri.

LEZ 79. Iñada laster ibiltzen, / Uda hasta ez harc ekhartzen. On admire le vol del'hirondelle, / Le printemps n'attend pas l'essor de son

aile. Antzekoak beste hizkuntzetan: gatz. *Una golondrina no hace el verano/primavera;* lat. G 3279 *Unus hirundo non efficit ver etab.*

- LEZ 4. Urtheac eramatzen, / Nihor ez egoten. Antzekoa G 13234 *Gure urtheak ethortzen dira joaiteko eta ez gurekin egoiteko* (Axular); G 13253 *Urteak ekarri, urteak eraman.*
- LEZ 5. Urtheac yoaiten, / Ez atzematen (LEZ 5). Antzekoa G. 13258 *Urteak galupeka joaten dira.*
- LEZ 170. Egun egin lan ahal duzuna, / Ez baita zurea biharco eguna.
- LEZ 171. On dena egun egiteco / ez utz biharco. Ik. G. 3508 *Egun egiten ahal dukana, ez utz biharko.*

## 6. Garateren bildumakoentzako antzekoak

- LEZ 113. Haize tzarrac / Ondotic uharrac. Ik. G 6217 *Haize na(ha)sik dabiltsi, laster uria;* 6220; 6224; 6227.
- LEZ 48. Goizean lo dagon acheriac / Ez jaten oiloziac. Ik. G 5950 *Goi-zaldean lo dagoen azeriak ez du lumariak ahoan.*
- LEZ 65. Onac eta gaiztoac, / Yguzkipecoac. Sur les bons le soleil luit, / Aux mauvais nullement ne nuit. Ik. G 3603 *Eguzkia denentzako urtetan dau. Eguzkia bera, on ala gaiztoentzat.*
- LEZ 92. Negu ederrac, / Uda uherrac. Hiver, sitôt qu'il est trop beau, / Nous promet un été plein d'eau. Ik. G. 10036 *Negue euzkitzu, ondoko udie euritsu.*
- LEZ 123. Apirila gizonentzat, / Maiatzza bestientzat. Ik. G 9208 *Maiatzza, / ab(e)ren hilabetea.*
- LEZ 128. Maiatzeko beroa, / Urtheco aroa. Au mois de Mai la chaleur, / Toute l'année ait de valeur. Ik. Garate 9255 *Maiatzeko beroa, / urteko balioa.*
- LEZ 131. Maiatzean uri, / Abuztuan gari. Ik. G 9244 *Maiatzean uri, / uzta jori;* G 9248 *Maiatzean milla euri, milla ogi;* G 9256, 9257, 9261.
- LEZ 132. San Medarrez uri, / Berrogoi egunez guri. Ik. G 11795 *San Medarrek euri, / berrogoi egunez busti.*

- LEZ 140. *Eguna luzatzen Santa Luziaz, / Cucuso baten jauziaz.* Ik. G 11868 *Santa Luzia orduko, eguna ahuntzaren jauzia luzatzen;* 11869, 11871.
- LEZ 430. *Jan gutiz nausi begiac / Egiten abrei haragiac.* Ik. G 9928 *Nagusiaren begiak gizentzen ditu idiaik.* «Nagusiak bere ondasunak ondo zaintzen». *El ojo del amo engorda al ganado.*
- EZAP 294. *Chakhurrekin loharkatuz / Jekitzen kukusoztatuz.* Ik. G 13724 *Zakurrekin datzana, jaikiten da kukusoeki* (Oihenart).
- EZAP 304. *Nahiak ahal ematen.* Ik. G 9938 *Nahi duenak ahal du, nahi ez duenak guzia galdu;* 9947; 9949. *Le vouloir fait le pouvoir.*

## 7. Erran eta aforismo itzuliak edo moldatuak

- LEZ 31. *Paris etzen egun batez egin / Egunac ziren [?] berregin.* On ne fit point Paris / En un jour de fête ou de ris. Ik. G 11159 *Paris ez da egun batez egina.*
- EZAP 30. *Sugeak irets.* Avaler des couleuvres: souffrir et n'oser se plaindre.
- EZAP 59. *Kartazko jauregi.* Château de cartes: maison fragile.
- EZAP 72. *Ungi eraman barkua.* Bien conduire sa barque: savoir faire ses affaires.
- EZAP 103. *Baso bat uretan itho.* Se noyer dans un verre d'eau: être continûment [?] malheureux.
- EZAP 186. *Horma utz.* Rompre la glace: parler.
- EZAP 239. *Bide guziek Erromarat eramatzen.* Tout chemin conduit à Rome.
- EZAP 253. *Zaldi urrirrikako, krapestu nola nahiko.* À cheval donné ne regarde pas la bride.
- EZAP 306. *Jaincoac lagunten dena haritzen.* Aide-toi, Dieu t'aidera.
- EZAP 327. *Akhabantzak lana koroatu.* La fin couronne l'œuvre. Ik. G 431 *Akabatzeari dagoka koroa* (Axular).

## Bibliografía

- ALTUNA, P. et al. 1997. *J. M. Hiribarren. Eskaldunak* (2. zatia). Donostia: EEE.
- ARBELBIDE, X. 1991. «Drame: 891an euskaldun gerla», *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*. Universidad del País Vasco. 485-503.
- AZKUE, R. M. [1945]. 1969. *Euskalerriaren Yakintza-Literatura popular del País Vasco*. III. Madrid: Espasa-Calpe.
- ELISSALDE, J. 1936. *Atsotitz, zuhur-hitz eta erran-zahar*. Baiona: La Presse.
- GARATE. 1998. 27173. *Atsotitzak. Refranes. Proverbes. Proverbia*. BBK Fundazioa. 1998.
- HIRIBARREN, J. M. 1858. *Eskaraz egua*. Baiona: E. Lasserre. Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan ale bat dago ikusgai: Lacombe Biblioteca. Olaso Dorrea Sorre-rakundea.
- *Laborarien erran-zaharrak* (eskuizk.). P. Lafitteren funtsa. LAF 302-027. Azkue Bibliotekan ikusgai.
- *Médecin. Aphorismes hygiéniques. Erran zaharrac-Aphorismes proverbiaux* (eskuizk.). P. Lafitteren funtsa. LAF 302-026. Azkue Bibliotekan ikusgai.
- INTXAUSTI, J. 1972. *Irautzaren hildotik*. Jakin.
- LAFITTE, P. 1941. *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*. Baiona: Le Livre.
- 1979. «Jean-Martin de Hiribarren» (1810-1866). *Euskera*. 181-191.
- LHANDE, P. 1928. «Les proverbes d'Hiribarren». *Gure Herria*, VIII. 394-405.
- 1929. «Les proverbes d'Hiribarren». *Gure Herria*. 81-93.
- MITXELENA, L. 1988. *Historia de la literatura vasca*. (2. argitaraldia).
- *Diccionario General Vasco-Orotariko Euskal Hiztegia*. 1987-2005. 2. argitaraldia, 2011.
- MUJICA, L. M. 1979. *Historia de la literatura euskérica*. Donostia: L. Haranburu.
- OEH. Ik. Mitxelena, L.
- ONAINDIA, S. 1973. *Euskal literatura*. II. Bilbao: Etor.

PAGOLA et al. 1994. «Napoleon Lehena». *Bonaparte Ondareko eskuikribuak. Lapurtera-1*. Deustuko Unibertsitatea. 41-183.

SARASOLA, I. 1970. *Euskal literaturaren Historia*. Zarautz: Lur.

URKIZU, P. (dir.) et al. 2000. *Historia de la literatura vasca*. Madrid: UNED Ediciones.

VILLASANTE, L. 1979. *Historia de la literatura vasca*. Editorial Aranzazu. (2. argitaraldia).

**Fernando Artola «Bordari» ...  
mendeurren-omenaldia**

Hondarribia, 2010-XII-10



# Fernando Artola «Bordari»-ri omenaldia

Abenduaren 10ean, Hondarribiko Udaletxean, Fernando Artola «Bordari»-ren omenezko bilkura egin zuten Euskaltzaindiak eta Hondarribiko Udalak.

Fernando Artola «Bordari» Hondarribian jaio zen, 1910eko otsailaren 14an. Beraz, haren jaiotzaren mendeurrenean, Euskaltzaindiak eta Hondarribiko Udalak omenaldi bat eskaini zioten.

Hauxe izan zen egitaraua:

- Aitor Kerexeta Hondarribiko alkatearen ongietorria
- Andres Urrutia euskaltzainburuaren agurra
- Sarrera-hitzak: Jean Haritschelhar
- Txomin Sagarzazu: «Fernando Artola Bordari eta Hondarribia»
- Pello Esnal eta Jose Mari Iriondo: «Fernando Artola Bordari: gizon osoa»
- Patri Urkizu: «Itsasoko tragediak euskal kanta zaharretan»



# Fernando Artola «Bordari»-ri omenaldia

HARITSCHELHAR DUHALDE, Jean

Euskaltzain emeritua eta

Literatura Ikerketa batzordeburua

Alkate jauna,  
Euskaltzainburu jauna,  
Euskaltzain kideak,  
Jaun-Andereak agur.

Eskerrak zuri, alkate jauna, Udaletxeko atea idekirik guretzat harrera oparoa egin diguzulakotz.

Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa Batzordea bildu da gaur goiz eta aratsaldez eta bilduko da ere bihar goizean Udaletxe honetan. Alabainan, jar-dunaldiak antolatu ditu gai bat sakondu beharrez: Literaturaren historiografia. Elgarretaratuak ziren dotzena bat ikerle, gehienetan Unibertsitateko irakasle, haien artean gazte batzu, lorietan nagola horrekin.

Bertzalde, Literatura Ikerketa Batzordeak pentsatu du Hondarribian bildurik, beharrezkoa zela omenaldi baten eskaintza Fernando Artola «Bordari» literatura izenordez haren sortzearen mendeurrenean (1911-2011). Ene lekukotasun xumearren emaiteko diot ezagutu dudala Bordari Euskaltzaindian, harekin harremanetan sartu nintzala 1962an euskaltzain izendatu nindutelarik. Gizon ixila, atsegina, oroit naiz nola enekin Iparraldeaz mintzatzen zen. Alabaina, Iparraldeko oroitzapenak bazituen eta, bereziki lokarri sendoak sortu zituelakotz bere esposa zenarekin.

Hortakotz bihotz-bihotzez agurtzen ditut gaur haren seme-alabak eta se-nideak. Holako omenaldiak ospatzeko ditu urtero Euskaltzaindiak bere Lite-

ratura Ikerketa Batzordearen bitartez, eginbidetzat hartzen baitu euskal idazleen oroitzapenaren gordetzea.

Literatura Ikerketa Batzordeak galdegin dio Herri Literatura Batzordeari parte har zezan omenaldi honetan eta pentsatu du hondarribiar baten lekukotasuna beharrezkoa zela.

Mintzatuko dira, beraz, zuen aitzinean lehenik Txomin Sagarzazu, «Fernando Artola “Bordari” eta Hondarribia» txostenarekin, gero Herri Literatura Batzordearen izenean Pello Esnal eta Jose Mari Iriondo, «Fernando Artola “Bordari” gizon osoa» gaiarekin eta azkenik Literatura Ikerketa Batzordearen izenean Patri Urkizu eskainiz «Itsasoko tragediak euskal kanta zaharretan» deritzan mintzaldia. Entzunen ditugu gogoan dugularik Bordari euskaltzalea eta idazlea.

# Bordari eta Hondarribiko euskal ondarea

SAGARZAZU, Txomin  
Hondarribiko Herriko Etxean

Arratsalde on agintari, aditu, Artolatar eta herritar guziakeri eta mila esker hitz egiteko aukera hau eskaintzeagatik.

## 0. Nire asmoa<sup>1</sup>

Fernandoren nortasun polifazetikoaz ari gara, azkenekoz orain dela hamar urte aritu ginenean bezala. Gaurkoan haren emaitzetako batir tiraka hasiko naiz, 1980an areto nagusi honetan egindako *Hondarribiko mintzairan bertako berri* hitzaldiari, hain zuzen ere.

Lan horretan Hondarribiak euskal hizkuntzarekin eta literaturarekin izandako harremanaren berri eman zigun, besteak beste, eta bere lekukotasunetik abiatuta ohar sorta osagabe bat prestatu dut.

Barkatuko duzue, hortaz, gaurkoan *Bordari* espresuki aztertu beharrean, idazle hondarribiarren kate luzeagoan txertatzen badut.

Bi ataletan banatu dut neure mintzaldia: lehenbizikoan XIX. mende erditik gaur egunera arteko ondare idatziaz arituko naiz; bigarrenean, laburrago, gure euskararen azterketaz XX. mendean egindako saioak aipatuko ditut.

---

<sup>1</sup> Idatziz listatutako hitzok batuan daude, espero dut, hala ere, nire ahotsean herritarrei hurbil gertatzea.

Euskara mendez mende hondarripiar askoren adierazteko modu nagusia –batzuen komunikazio-tresna bakarra– izan da, eta batez ere gaur egun adostasun handia dugu geure nortasunaren adierazpide nagusietakotzat jo-tzeko. Horrekin batera, hala ere, adieraz dezadan XX. mendean gurasoen-gandik seme-alabenganako transmisioan ez garela izan hizkuntza-leialtasun handienekoak. Dena den, ezin ukatuzkoa da euskara geure-geuretzat daukagula gaur egungo hondarripiar gehienok.

## 1. Euskara idatziaz

Aurreko mendeetako euskararen egoeraz eta historian zehar gure herrian gertatutako hainbat gorabeheraz dakizkigunak ez ditugu gaurkoan jorratuko, beraz, zuzenean aztertuko dugu XIX. eta XX. mendeetan bertako zenbait-zenbait biztanleren baitan sortutako euskararen aioa. Iku dezagun zehatzago.

XIX. mendean euskal dialektologiari Bonaparte printzeak emandako bulkaldiak euskalkien ikerketen oinarriak sendo finkatu zituen, eta eginkizun horretan izan zuen laguntzaile-mordoska. Horietatik nabarmenenetako bat **Klaudio Otaegi** zegamarra izan zen (1836-1890), hogeita bi urte zituenetik hil bitarte Hondarribiko maisu izan zena. Bonapartek eskatutako lanen artean gureari dagozkio Irungo euskarara itzulitako dotrina eta hainbat ohar lexiko.

Otaegiren itzala, hala ere, luzeagoa da, hainbat olerki idatzi eta zuzenean esku hartu baitzuen Abbadiek Lapurdin sortu eta Euskal Herri osora hedatutako Lore Jokoetan. Koplarien guduetan hamahiru bider saritu zituzten Otaegiren lanak. Berak sortu eta itzulitakoen bilduma, bere garaiko olerkigintzaren tankerakoa bete-betean, Urkizuk eta Azurmendik argitara zuten (1991). Kazetari-artikuluak ere idatzi zituen Manterolaren *Euskal Erria* aldi-zkarian, gehienetan Hondarribian izandako jaialdi edo gertaeren inguruan.

**Lore Jokoen** oldarra 1883an iritsi zen Hondarribira. Ez dirudi, hala ere, berebiziko kemenia izan zuenik musika eta literatur lehiaketetara aurkeztutako obren kopuru exkaxa kontuan hartuz gero, behintzat. **Euskaltzaleen Biltzarraren** sorrerarekin izandako zerikusia aipatzea ere bidezkoa izango da: 1901ean Hendaian eta hurrengo urtean Hondarribian izan ziren Ipar eta

Hego Euskal Herriko idazleek ortografia bateratzeko eta euskara indarberri-tzko antolatutako bilkurak.

**Pierre Lhande** jesuita, hiztegigile, euskaltzain eta idazle emankorrak (1877-1957), berriz, Hondarribia izan zuen bizileku 1911n, Javier Ugarte kaleko *Polborina*, hain zuen ere. Bertan idatzi zuen Jaizkibelen kokatutako *Guztiederra* baseria protagonista duen *Mirentchu* frantses eleberria. Bere euskarazko eleberri bakarra, *Yolanda*, ere, gure aiekan kokatu zuen, Urdaibiko burdinolan, eta flandriarrekiko salerosketa-harremanak ditu maitasuneko istorio baten ingurune modura (ikus Casenave 2007).

**Euskal Jaiak** ere ospatu ziren Hondarribian. 1914an lehenbiziko mundugerra lehertu zela eta bertan behera utzi eta gero, 1925eko edizioan protagonismoa izan zuten zenbait hondarbiarrek (cf. *Hondarribia* 119).

XX. mendeko lehenbiziko hamarkadetan euskaltzaletasunak Donostia aldean zuen indarraren eragina Hondarribira ere iritsia zen, adibidez, hiri-buruko aldizkarietan irakur daitezkeen gazte hondarbiarren lehenbiziko literatur lanak kontuan hartzen baditugu. Hala, 1916an argitara zen *Euskal Esnalean* irri-lanen lehiaketan saritutako «Xoxua» kontakizun laburra (cf. *Hondarribia* 16)., Kaio Lasak idatzia; edo 1918an *Satarkaren* lehen olerki saritua, «Udaberri», edo haren anaia Txominen beste olerki bat 1923an.

**Klaudio Sagarzazu Satarka** (1895-1971), hain zuen ere, urte haietan hasi zen hainbat aldizkaritan olerkiak argitaratzen. Garaiko idazle erromantikoa, sentibera, sari ugarien hartzailea, olerki-ekoizpen handikoa. Bi liburu argitaratu zituen: *Txinpartak, Intza begietan*; eta hil ondoan, jaiotzaren mendeurrenena gogoratzeko eratutako ospakizunetan Xabier Aranburu ilobari utzitako eskui-zkribuekin atondutako *Ezti-tantak* ere argitaratu da. Beste Sagarzazutar bat, Dionisio (1898-1958), ere aipatzeko modukoa da, *Zeruko Argia* aldizkarian euskarazko artikuluak idatzi baitzituen nekazaritza-gaien inguruan.

Urte bertsuetan hasi zen Irungo *El Bidasoa* aldizkarian bertsoak argitaratzen **Juan Baxurko Ansola** (1890-1957), harako Bilintxen Joxepa bertso-sailaren protagonistaren semea. Bertso-sail ugari jarri zituen kristautasuna, jaioterria eta bizitokia, hainbat ospakizun eta pertsonaia gaitzat hartuta. Gerra ondoan argitaratu zizkioten liburuetatik aipa ditzagun bi: *Jesus* (1954) eta *Ignazio Deuna* (1955).

Beste bertso-jartzaile baten oihartzuna ere badugu: **Xeledonio, Urbiñeko Itsua**. Fernando Artolak haren bertsoak Zeruko Argia aldizkarian irakurri zituela adierazi bazuen ere, ez ditut nik oraindik ikusi. Harekin 1928 aldean almejatan aritu zen Juanito Iridoik kontatu zidanaren arabera, zazpi urterekin itsu gelditu omen zen erisipelak edo jota Amuteko Urbiñeneko baserritarra. Musikazalea ere bazen, eta oso bizkorra lanean. Merezi luke, zalantzarak gabe, nik eskainitako baino arreta gehixeago.

Jakina da mendez mende Euskal Herrian Elizak girizia eskaini diola euskarari eta garatzeko bidean jarri duela. Hondarribian XX. mendean ere halaxe gertatu da mende hasieratik gaur egunera arte.

Aipa ditzagun **Amuteko kaputxinoak**. Kaputxinoekin zerikusia izango zuen Urbiñenekoak, bertatik bertara baitzuen komentua, eta Amuteko komentuan fraile euskaltzaleak ugari, Fernando Artolak eskainitako zerrenda zehatzaren arabera. Hondarribiko hizkuntza ondarean, eta bereziki euskaren zaletasunean eta erabilera, kaputxinoek izandako eragina handiegia da lerro soil batzuetan biltzeko, baina oraingoan hala ekarriko dugu. Eta ez ditzagun baztertu, halaber, herri xehearengan izango zuten eraginagatik sermoilarien lana. Eta 60. hamarkadan Amuteko auzoan eta herri guztian herriaren kultura-zaletasuna eta euskaltzaletasuna pizteko egindako lan bikaina.

Baina Amuteko idazleen artean aipa dezadan herri-literaturaren alorrean duen merezitako itzalagatik **Xalbador Zapirain Ataño** erreenteriarra (1912-1999). Ahozko literaturaren ezagutzaile aparta, bertsolarien familian jaioa, bertso-jartzaile ona eta narrazio-idazle fina. Ekoizpen ugari eta aberatsekoa –hamazazpi liburu baditu argitaratuak Auspoa sailean– izan zen.

Atzeria pixar bat itzuliz, XX. mendeko lehenbiziko hamarkadetan euskal-zaletasunak Donostia aldean zuen indarraren eragina Hondarribira ere iritsia zela aipatua dut. Antzerkirako joera ere horren isla da, ezbairik gabe.

Ingurune horretan abiatu zen seguraski **Fernando Artola Bordari** (1910-1983). Artolaren euskaltzaletasun bizi-biziaren oinarrian ezinbestekoak dira Elizaren eragina, sinismena eta abertzalesuna. Bere belaunaldiko hainbat euskaldun bezala, gerra zibilak eten zion bizialdia, baina Lapurdiko Belokek Henriette emaztearen maitasuna eskaintzeaz gain, espiritualtasunean, sentiberatasunean eta euskal kulturaren ezagueran sakontzeko aukera bikaina ere eskaini zizkion.

Gerra ondoan euskalgintzaren eragile aipagarrienetakoa, bertsozale porrakua eta herri-literaturaren ezagutzaile aparta, olerkari sentibera eta hitz lauzko lanetan pindar handiko idazlea, Hondarribia, bertako jendea eta hizkera islatzeko gaitasun handiaren jabe izan zen. Eta aita herriko kale eta monumentuak erakusten *zizerone* ibili zen gisan, semea dugu ondoko belau-naldi gazteagoek gure herriarekikoetan gidari aparta.

Haren idazlan gehienak *Bakoitzak berea* bildumako bi aleetan (1982) jasota daude, eta Rafael anaiarekin batera idatzitako *Aritz beraren adarrak* eleberri autobiografikoan (1982). Itsasoari eskainitako olerki batzuek, gainera, hedadura handi xamarra izan dute Txomin semearen *Olaxta* diskoaden bidez.

*Bordariren* ekin aberats eta emankor horren beste adibide bat emateko, aipa dezagun 1975ean ospatutako Euskal Jaietan ere parte hartu zuela, bai antolakuntzan, bai haur eta gazte literaturaren epai-mahaian eta baita idazle modura ere, ipuin eta olerki lehiaketetan sariak jaso baitzituen.

Fernando Artolaren ekarriaren neurriaz jabetzeko balio du gaurko omenaldiak eta aurretik egindakoek. Bere obraren hainbat alderdi aztertzen hasiak garelakoan nago, baina horretan sakontzeko aukera hobea dugu bertakoek eta kanpotarrek seme-alabek Herriari eman eta Udal Liburutegian denen eskura txukun-txukun katalogatutako Bordari Funtsaren bidez.

Herri-literaturaren eremuan **Juan Jose Irazusta** jaitzubiarraren aipamena ere nahitaezkoa da (cf. *Hondarribia* 14). Idazle berantiarra, zahartzaroan idatzi zuen Ameriketako oroitzapenetan oinarrituta *Nork bere bidea* eleberria, Aita Zavalak orraztu eta Auspoa sailean argitaratua (1980). Txoil interesgarria litzateke eskuizkribuen eta argitaratutako testuen arteko alderatzea egin ahal izatea, Jaitzubia auzoko hizkeraz ditugun datuak osatzeko.

**Juan Jose Etxaburu Kamiñazpik** (1913), Hondarribira ezkonduetako ondarrutarrak, ere ondo ezagutzen zituen Hondarribiko kontuak eta euskara (cf. *Hondarribia* 38). Makina bat artikulu eta lau liburu idatzi ditu, *Ondarrabiako kondaira*, besteak beste, gure hiriaren euskarazko histori monografia, 1974ko lehiaketa batekotz idatzia, orraztu eta osatu ondoren 1986an argitaratua.

XX. mende erditik honantz Hondarribiko demografia nabarmen handitu da, eta bertako egin zaizkigunen artean badira hainbat eta hainbat bizilagun euskaraz hitz egiteaz gain, euskararen aldeko jarrera nabarmena erakutsi dutenak, 60. eta 70. hamarkadak ezkerotik Euskal Herri osoan gertatu den modura. Gizatalde horrek, besteak beste, honako hiru alderdi hauek ekarri ditu: Hondarribiko gizartean sumatu duten baino euskararekiko atxikimendu handiagoa; ondorioz, euskara, bertako hizkera eta beste hizkera batzuk, gizarte-bizian gehiago erabiltzea; eta azkenik, bertako hizkeraren-gatik euskal hiztunei antzemandako estigmatizazioa eta aurreiritzia aldatzeko ahalegina.

Etorritakoentzat, baditugu euskaltzale aipagarri eta itzal handiko idazleak. Esate baterako, **Teodoro Hernandorena** dentista zizurkildarra, ber-tsolartzen sustatzaile bikaina (1898-1994).

**Martin Iturbe** apaiz ikaztegiarria (1932), berriz, 70. hamarkadan Hondarribira etorri eta orain arteko erretorea izan dugu (cf. *Hondarribia* 33). Neurtitzak eta hitz laua jorratu ditu liburu sail ugarian eta euskarazko sari nagusietako batzuk eskuratuak ditu aspaldian. Horiez gain, azken hogeita hamar urteotan era guztietako hondarribiarrentzat ahozko euskara landuaren eredu nagusia da, elizkizunetan hizlari gisa duen dohain apartagatik. Era berean, eten gabean aritu da hondarribiarrok dugun ondareaz jabetzeko ahalegin berezian, gure euskaraz izandako irudi iluna baztertzeko.

Garai hortantxe eta beranduxeago Hondarribira ziren **Martin Ugalde eta Juan San Martin**, XX. mendeko euskalgintzaren protagonista nagusietako bi, eta ez da zalantzak bertako herrigintzaren eta ondarearen sustatzaileen artean leku berezia dutela.

**Martin Ugalde** andoaindarra, ohorezko euskaltzaina (1921-2004), 1969an etorri zen gure artera Venezuelatik bueltan. Hiru urte igaro ondo-ren, frankismoak mugaz bestalde bizitzera behartu, eta 1976an kokatu zen behin betiko Hondarribian eta bertan idatzi ditu bere obra ugariaren hainbat ale. Aipatzeko modukoak ere badira, *Hondarribia* aldizkarian zenbait urte-tan hilero-hilero argitaratu zituen artikuluak, gehienetan herri-bizitzaren hainbat alderdiri buruzko argibideak eskaini eta bere iduria emanet.

**Juan San Martin** euskaltzainak (1922-2005), berriz, Eibarren bizi zela, gerra ostean, izan zuen Rafael Artola apaiz hondarriarrarekin harremana. Urte askoren buruan, 80. hamarkadan, kokatu zen Hondarribian. Ararteko-ohiaren obra erraldoian bada, ezbairik gabe, atal bat Hondarribiko ondarea-ri eskainia: berari zor dizkiogu azken urteotan ezin konta ahala ikerlan eta dibulgazio-artikulu Jaizkibeleko historiaurreko aurkikundeez, toponimiaz, euskal hizkuntzaz eta literaturaz nahiz kulturaren alor gehienez, eta baita herri-arkitekturaren ingurukoez ere. Horien bilduma 2003an argitaratu zuen Udalak *Antzinatik gaur egunera, Hondarribia* izenburupeko liburuan.

Jakina da Francoren heriotzaren ondoko aldiak demokrazia ekarri duela Hego Euskal Herrira eta euskararen ofizialtasunari bide eman zaiola. Honek, zalantzak gabe, 70. hamarkadatik bereziki bultzaldia jasoa zuen euskararen bilakaerari onura ekarri dio, euskal arloetan ari direnen egiteko aintzat hartzea, oro har, eta, era berean, erakundeek ere euskara gogoan harturik hizkuntza politika aurrera eramatea. Zaletasunez eta lanbidez euskarra egunero jorratzen ari den makina bat jenderen jaioterri eta bizileku da Hondarribia: irakasleak, itzultzaleak, ikasliburuen egileak, unibertsitate-irakasleak, kazetariak, musikariak, zinemagileak, teknikariak... eta berorien lanaren emaitzak aberasten du egunero Hondarribiko euskal ondarea alor horietan; egunero aberasten duen moduan, era berean, erakunde hurbilenen euskararen aldeko politikak. Aipa dezadan sorta llabur bat.

**Arantxa Urretabizkaia** euskaltzain urgazle donostiarra (1947) aspaldian bizi da gure artean. Bere obra oparoan kazetaritza, gidoigintza eta olerkigintza landu ditu, besteak beste, eta euskal literatura modernoan ezinbesteko erreferentzia bihurtu da eleberrigintzan jorratutako bidearengatik batez ere: *Zergatik Panpox* (1979) lehenbiziko eleberrian landutako gaiak (emakumeak gizartean duen egiteko, amatasuna, sexualitatea) eta kontatzeko modu berritzaleek jarraipena izan dute bere literatur ibilaldian. 2010ean argitaratu berri duen *3 Mariak eleberria*, gainera, Hondarribian kokatu du eta bertako emakume batzuen zahartzaroko egoera eta kezketatik abiatuta gizarteari, familiari eta pertsonari buruzko hainbat hausmarketa eskaini ditu.

Urretabizkaiaren azken nobelan gertatu den moduan, gure herrian bertakotuak zenbaitetan inor baino hobeto jabetu dira herriko gertaerez, per-

tsonaiez, inguruaz eta hizkeraz, eta gainera literatura bihurtu dute. Horren eredu garbia dugu **Jexuxmari Mendizabal** *Bizgorri* irakasle ormaiztegiarra (1949), itzulpengintzako *Euskadi* saria jaso berri duena Horacio Quirogaren ipuinen *Eguzki kolpea* itzulpenagatik (2009). *Ilargiaren lekuko* liburua (1989) hartzea aski da gure bailarako euskaraz eta pertsonaiez narrazioak nola ontzen dituen konturatzeko; edo *Hondarribia* aldizkarian argitaratutako erreportajeak eta jarritako bertso-sailak; edo *Diario Vasco* egunkarian azkeneko urteotan idatzitako kazetari-zutabeak. Tartean ere baditu, jakina, zenbait lan hondarbiarron hizkuntza ondareari berezkoa duen balioa eman diezaiogun eskatuz.

**Mikel Garmendia eta Karlos Zabala** irundar hondarbiartua ere ari dira literaturgintzan, batak zein besteak sorkuntza nahiz itzulpengintza landua dituzte. Mikelek euskaratuak ditu Duras frantsesaren *Maitalea* (1996), Una-munoren *Laino* (1998) eta Sábatoren *Tunela* (2007); Karlosen sorkuntza-planetatik aipa ditzadan Irunen saritutako *Mende akabera* olerki-liburua (1994), eta Zarautzen saritutako *Karakol Txikiren ipuinak* haur-kontakizuna (2002); itzulitakoetatik, Verneren *Mikel Strogoff* (2002), Zolaren *Parisen sabela* (2004), Euskadi saria, eta Malraux-ren *Esperantza* (2008).

Biografia sailean **Maritxu Murua** donostiarak (1942), urtetan Hondarribiko Institutuko irakasle izan denak, 2010ean argitara du Nelson Mandela XX. mendeko politikari hegoafrikar garrantzitsuaren bizitzaren azterketa.

Udaletxe honetan gauzatutako hizkuntza politikaren zenbait emaitza aiapatu ditzagun labur.

Bordari-Satarka literatur lehiaketaren hogeita zazpi edizioek balio izan dute herriko gazte eta helduek literatur sorkuntzan atsegin hartu, trebatu eta irakurzaletasuna sustatzeko. Txiste grafikoen lehiaketaren hemeretzi edizioek gazteen beste adierazpide batzuk sustatu dituzte.

Hondarribia herri-aldizkariak 1986tik 2009ra bitarteko berrehun aletik gorako kopuruan, euskal idazle iaioen lanekin batera, erdaraz aritzen diren edo euskaraz gutxixeago idazten zuten beste zenbaiten euskarazko idatziak irakurtzeko aukera eskaini du, beti ere irakurgarritasuna eta hurbiltasuna gogoan. Ale berezietan, gainera, herriko idazleen arteko lankidetza bultz-

tzeko balio izan du, adibidez, Kofradiaren etxe berriaren estreina egin zean edo Bordariren seme-alabek Udalari aitaren dokumentuak eman zizkiotenean.

Nabarmentzekoa da beste ekoizpen batzuetarako bultzaldia ere eskaini duela. Esate baterako, **Lurdes Zubeldiaren** *Nere sukaldetxoan* liburuak (2006) aldizkarian argitaratutako artikulu-sorta biltzeaz gain, emakume honen sormena ezagutzeko parada egokia eskaintzen du, olerkiak eta kantuak nahiz bere baitakoak nahiz besteren kantuetarako sortutako hitzak bertan jasoak baitira.

Udalak abian jarri dituen zenbait egitasmok gure hizkuntza-ondarearen azterketan aurrera egiteko aukera eman dute: Joxe Jabier Furundarenaren *Hondarribiko toponimia Euskaltzaindiaren Onomasticon Vasconiae* sailean (2002); *Hondarribiko eta Irungo euskara* liburuan (2005) neunik egindako bi hirietako hizkeren azterketa; eta aurten Pio Perez Aldasorok koordinatutako *Hondarribiko aitona-amonekin blagan* lekukotasunen dokumentala (2010). Aipa dezadan, azkenik, gure ondarea aberasten ari direla, halaber, azkeneko urteotan gaztelaniaz eta euskaraz argitaratzen ari diren liburu batzuk, bereziki nabarmentzekoa da *Hondarribiko historia* Jose Luis Orellak koordinatutako ikerlan-bilduma (2004).

## 2. Hondarribiko hizkeraren azterketa

Aipatu berri denez, aurrera egin du Hondarribiko hizkerari buruzko azterketak XX. mendean.

Mende-hasierako urte horietan ere ibili ziren joan-etorrian zenbait euskaltzain ospetsu. **Azkue**, adibidez, Hondarribian barrena ibili zen ikerlana- netarako lekukotasunak biltzen. Azkuek Hondarribiko, Irungo eta Oiaritzungo hizkeren nafar isuria azpimarratu zuen. *Erizkizundi Irukoitzean* ere jaso ziren zenbait lekukotasun.

**Nils Holmer** suediarrak 1950ean hamabi hondarribiarren testigantza aztertu zituen *El idioma vasco hablado* lanean eta, besteak beste, Jaitzubia auzoko hizkeraren berri eskaini zuen.

Nikolas Alzolak *El Bidasoa* aldizkarian argitaratu «Literatura oral euskérica de la comarca bidasotarra» bilduman berrogei testu dira Hondarribia-rekin zerikusia dutenak, gaur egun Luma argitaletxearen *Euskaraz, Irunen barrena liburuan irakur daitezkeenak* (1994).

Euskal Herrian zehar egindako **ikerlan nagusi** batzuetan ere jaso dira Hondarribiko lekukotasunak: **Yrizar** eta bere laguntzaileek aditza jasoa dute (1992). **Arantzadi taldekoek Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa** (1984-1990) eta **Euskaltzaindiak Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa** (1986). **Alfonso Irigoyenek** itsas hiztegia ere jasoa du Manuel Alvar-en «Léxico de los marineros peninsulares» lanekotz (1985).

Hondarribian bertakotu direnen artean, **Juan Antonio Letamendia** do-nostiarraren ekarria (1940) aintzat hartzeko modukoa da. Euskararen didaktikan oinarrizko tresnak eskaini ditu, dialektologia-ikerketan aritu da, udaletxe honetan hainbat ekimen eta proposamen jorratu ditu, eta gure herriko hizkeraren azterketan buru-belarri aritu da. Gainera, aitor dezadan irakasle eta bide-erakusle izan dudala lantegi horretan. Bordariren 1980ko hitzaldia grabatu eta argitaratu aurretik testuari tildeak jartzeko eskatu zion egileari, gure herriko azentueraren berri fidagarria jasotzeko; gure hizkeraren bokalismoaz hainbat ohar mamitsu argitaratu zituen *Hondarribia* aldizkarian (1990), eta elkarrekin aztertu ditugu XVIII. mendeko Salazarren predikua (1992), besteak beste.

Garai bertsuan aztertu genuen **Jose Ignacio Hualde** irakasleak eta biok Hondarribiko azentuera nagusia (1991). **Koldo Zuazoren** lanak ere axola handikoak izan dira euskalkien sailkapenean gure hizkerak duen kokagunea zehazteko.

### 3. Azken hitza

Luze eta xehe aritu naiz, barkatu, biñon Bordarik jarritako hizpideari segitzen saiatu naiz, jakinda ere, osatu beharreko makina bat kontu izango dituela hitzalditxo honek.

Mila esker denaki.

# Bordari: gizon osoa

ESNAL, Pello

Euskaltzain urgazlea eta Herri Literaturaren batzordeburua

Idatzi hau ondo ulertzeko, lau kontu txiki izan behar dira gogoan.

- Lehenengoa. Pieza bakarra osatzen du, Joxemari Iriondoren jardunekin batera. Lau zatitan jardun genuen. Hasteko, Joxemarik aurkezpen txiki bat egin zuen. Ondoren, idatzi honen lehen zatia irakurri nuen. Segidan, Joxemariren irakurketak eta iruzkinak etorri ziren. Eta, azkenik, idatzi honen bigarren zatia irakurri eta amaierako bi bertsoak kantatu nituen.
- Bi zati hauek libre samar irakurtzeko idatzi nituen; alegia, aukera emanez badaezpada, zerbait bat-batean tartekatu behar izanez gero ere. Eta, hain zuzen, hortxe dago, taketako [ ] tartean, ekitaldia hasi baino lehentxeago jakindako bi kontuz osatutako pasartea.
- Idatziaren bigarren zatian, bezperan *El Diario Vascon* plazaratutako zutabea aipatzen da. Idatzi honi erantsita doa.
- «Izotz-ondoko eguzki» doinua dela-eta, airean zebilela esan nuen. Ez baitzen hil zaharra Xabier Lete.

## Elkarri testigua emanez

Ezagutu, bai, ezagutu nuen Bordari. Baina hitz egin ez, harekin zuzenean. Hain gara mugatuak!

Baina zuzenean ez ezagutu izanak baditu alde onak ere. Ez pentsa. Izan ere, ez da erraza izaten bat asko ezagutu, tratu handia izan harekin, eta gero haren berri ematen. Nonbait, basoak uzten ez arbola ikusten! Asko-tan errazago ematen da norbaiten berri, zeharbidez ezagutu izan dugunean.

Ezagutu, Euskaltzaindiaren Herri Literatura batzordean ezagutu dut Bordari. Hura hilda zazpi urtera egin ninduten batzorde horretako. Geroztik, zenbat bilera! Eta zenbat aldiz entzun dudan Bordari aipatzen eta goraipatzen! Batez ere, Juan Mari Lekuona eta Joxe Mari Aranalde eta Antonio Zavalaren ahotik. Hirurak apaizak, hirurak hil berri samarrak.

Hildakoren bat gogoratzean, batzuetan kopeta zimurtzen dugu eta burua-rekin baiezka egin. Ez dira seinale onak izaten. Bai: gizon edo emakume jakintsua zela hura eta lan asko egina, baina... Beste batzuetan, berriz, aurpegia argitzen zaigu. Orduan, bai: gizon edo emakume handia zen hildakoa.

Aurpegia argitzen zitzaiion Antonio Zavalari, Bordari aipatzen zuen bakoitzean. Eta besoak zabaltzen zituen Joxe Mari Aranaldek, «hura handia zuan» esanez. Eta beti hitz berak erabiltzen zituzten Bordari hizpide: alaia, umoretsua, eskuzabala...

Laster entzungo dugu pasadizo bat, Joxemari Irondoren ahotik.

Horrela pasatzen gara mundu honetatik elkarri testigua emanez. Mertxe Ezeizak kontatzen du, *Bidegileak* sailean plazaratutako liburuxka ederrean, nola Bordarik amari ikasi zion «Borda adina bordari» esaera zaharra; askotan errepikatzen omen zuen, ba. Eta hortik hartu Bordarik ezizena. Eta ezizen horrekin sinatzen, esaterako, *El Diario Vascon*, «Nere bordatik» saileko lanak, euskal gaiak eta herri-kirolak eta abar jorratuz.

Orain ohartzen gara nondik hartu zuen Basarrik «Nere bordatxotik» sailerako izena. Bordarik amari, Basarrik Bordariri...

Eta hemendik hiru urtera, ehun urte Basarri jaio zela...

Horrela pasatzen gara mundu honetatik elkarri testigua emanez...

\* \* \*

## Heriotzak zimeldu ez duen lorea

Atzo kontatzen nuen, *El Diario Vascon*, nola eraman zuten Bordari Donostiarra ospitalera, 1983ko urtarileko azken igandean. Igande hotza omen zen. Hala kontatu zidaten.

Kontatu zidaten, baita ere, nola arratsalde hartan abisatu zuten urgentsiatik ospitaleko bigarren solairura gizon bat zeramatela. Eta nola oherik ez zeukaten libre. Eta txoko batean jarri behar izan zuten Bordari. Eta nola, tapakirik ez eta, jertse bat jarri zioten gainean. Eta nola, zer gertatzen zen konturatuta, eskuineko besoa jaso eta gurutze egin zuen eskuz, «nereak egin du» esanez.

[Oraintxe, areto honetara etorri naizenean, jakin ditut beste bi kontu, Bordariren alaba Itziarrek esanda. Lehenengoa, pasarte horren aurrekoa da. Nola, larrialdieten sartu zutenean eta han bigarren solairura eraman behar zutela esan, Bordari kantari hasi zen: «No. No nos moverán...». Eta bigarrrena, atzo *El Diario Vascon* plazaratutako ñabardura bat zuzentzera dator. Nola, ospitaleko bigarren solairuan, jertsea ez baina, komando horietako bat ipini zioten gainean: alaba Itziarrena berarena.]

Kontuak kontu, berehala ohartu omen ziren ospitale hartan gizon handi bat eraman zutela hara. Eta gizon handi haren azken egunak zaintzeko oho-rea izango zutela.

Ni, dena den, Bordarik egindako gurutze harekin geratu nintzen, hori guztia jakin nuenean. Eta benedikazio hari zerion fedearekin. Eta, aldi be- rean, esker onarekin. Eta umorearekin. Mediku eta erizainekiko esker ona ere bai baitzen. Eta umorea ere bai: «nereak egin du».

Fedea, gizalegea, umorea... Ez dago horren zaila bertsoa osatzen, Bordarik hain maitea zuen bertsoa. Bigarren bertsoa ere, hor nonbait: erosoa, gozoa, osoa... Bertsoen doinua, berriz, airean dabil: Xabier Leteren «Izotz-ondoko eguzki».

Ai, gurutze soil hari  
 zerion fedea,  
 gizatasun handia  
 ta gizalegea,  
 irribarre etsia  
 eta umorea...  
 Heriotzak zimeldu  
 ez duen lorea!

Zuri kantatzea da  
 guztiz erosoa,  
 hain zinen gizon jator,  
 leial ta gozoa,  
 hitz batean esanda,  
 gizaki osoa...  
 Horrexegatik zaude  
 hain gora jasoa.

\* \* \*

## Eranskina

Igande hotza zen 1983ko urtarrileko 30eko hura. Emazteak oheratuak zituen seme-alaba txikiak eta senarraren zain zegoen sukaldetuan, arratsaldeko txanda baitzuen senar medikuak ospitalean.

Senarrak, etxera iritsi eta seme-alabez galduen ondoren, «gizon handi bat ekarri digute arratsaldean», esan zion emazteari; «ez dut uste asko iraungo duenik; gaixoak berak ere antzeman dio».

Gehixeago jakin nahi zuen emazteak. Senarrak apena hitz egiten zuen laneko kontuez, sekretu profesionalagatik-edo. Baina igande arratsalde har-tan ezin izan zion galga jarri sentimenduari. «Urgentziatik esan digute gizon bat zekartela gure sailera. Ez geneukan ohe librerik. Eta ezin genuen pasi-lloan utzi. Nolabait moldatu behar izan diogu txoko bat».

Gizona ekarrita, medikuak esan dio gela berezi batera eramango dutela. Tapakirik ere ez, eta jertse bat jarri diote gainean, epela-edo izan zezan

babes. Gizonak, begiak zabal-zabalik, eskuineko eskua jasoz, gurutze egin du airean, benedikazioa-edo emanez. «Nireak egin du» esan eta bakean agurtu ditu denak.

Medikuak ez zion besterik esan emazteari. Euskal Herrira etorri berri samara eta ez zekien nor zen gizon hura. Hurrengo ostiralean zetorren eskelean: bezperan, 1983ko otsailaren 3an, hil zela Fernando Artola Sagarzazu «Bordari», 72 urterekin. Orduan ulertu zuen dena emazteak.

—Gizon gozoa bezain osoa— irten zitzaion barru-barrutik.

Hain zuen, omenaldi txiki bat jasoko du Bordarik bihar, abenduak 10, Hondarribian, bere jaioterrian. Aurten, otsailaren 14an bete dira ehun urte jaio zela. Badugu haren handiaz gozatzeko eta osatzeko aukera, Xabier Lete bera ere gogoan.

*El Diario Vasco:* 2010.12. 09.



# Fernando Artola Bordari: gizon osoa

(Hondarribia, 1910.02.14 – 1983.02.03)

IRIONDO, Joxemari

Ohorezko euskaltzaina eta Herri Literaturaren batzordekidea

Arratsaldeon, herriko alkate jauna, Euskaltzainburua, Bordariren familiako eta herritar danoi.

*Herri Literatura batzordeari* eskatu/galdetu zigitenean ia guk ere Fernando Artola Bordari-ren omenezko bilera honetan eskuhartu nahi genuen, hitzetik hortzera erantzun genuen baietz, gure batzordeak maite baitzuen **Bordari gizon oso** eta estimagarri hura.

Hogei minutu eman dizkigutzue Pello Esnali eta niri, gure berriketaldi hontarako; eta saiatu saiatuko gera denbora hortan esaten esan beharrekoak.

1981eko abenduan elkarritzeta luze samarra egin nion Bordari jaunari irratirako (35'18ko iraupena), eta zalantzak izan ditugu beraxe errepikatu ala ez. Baino luzeegi baita, zati batzuk bakarrik gogoratuko ditugu.

–Pello Esnal

–JMI – Lehentxeago aipatu dudan 1981ean egindako elkarritzeta horren bi zatixka hautatu ditut, uste baitut gustura entzungo dituzuela gaur hemen, Bordari nolako gizona zen erekusten dute-ta zatioik.

Bordari gizon alaia zen, umoretsua, imajinazio handikoa; eta bertsotan hasten zenean ere, askotan behintzat, ondo moldatzen zen. Entzun elkarritzeta hartan kontatu zidana.

–1. Pista: Bertsolaria. CD 3'02

Ez dakit badakizuen, baina, besteak beste, Bordarik asmatu eta erabili zuen lehenengo aldiz gero bertsolarien txapelketa guztietan erabili izan den *Kartzelako gaia*. Berea izan zen ideia, eta berak erabili edo proposatu epaimahairi lehenengoz.

Bertsozalea zen Bordari, eta jaialdi askotan ikusi genuen jaialdia aurkezten eta bertsolariei gaia ematen ere, bere estilo berezi harten.

Oso despistatua zela esan zidan elkarrizketa harten. Mutikotan meza laguntzen zuenean, apaizak *Dominus vobiscum* esan eta berak *Deo gratias* erantzun omen zuen behin baino gehiagotan, apaiza erdi hasarre zuela.

Antzerkizalea, antzerki idazlea eta antzerkigilea ere bazen Fernando. Eta gozatu egiten zuen. Letra ahaltea ez omen zen arazo beretzat, mahi batean gazta, ogia eta ardoa izan ezkero. Erraz inprobisatzen zuen, eta lagunak inprobisatu ezinez gelditzen baziren, «*Zer, berriz ere foto? Poto!*» esanez deiadarka hasten zen, harik eta teloia isten zuten arte. Antzerkia egiteko pertsonaia bat aukeratzekotan, Hitler aukeratuko zukeen, kortxo erre pittin batekin bibotea pintatuta.

Labur beharrez, elkarrizketaren beste zati bat eman nahi dizuet, Fernandoren *denborapasa* nolatsukoa zen jakin dezazuen, berak esan zidanez: Bilobatxoak zaindu eskolatik etortzean, irakurri –asko irakurtzen zuen Fernandok–, margotu –berrogei bat koadro zor zituen elkarrizketa egin nio-nean, eta nirea bat gehiago–, arrantzan egin lehorretik, lagunekin ibili... Baratza koskor bat, edo soro bat izan balu, hantxe egingo omen zukeen lana gogotik, naturarekin nahastuta. Entzun ezazue.

–4.pista: Denborapasa – CD 4:42

Euskaltzaindiak antolatu ohi zituen Bertsolarien Txapelketa nagusi haieitan (1959-1960, 1962, 1965 eta 1967) epaimahaiko izan zen Bordari, nahiz eta ez zitzaison gustatzen bertsolarien epaile izatea, «*Bertsoa ezpaita metroz edo erlojua eskuan hartuta neurtzen den zerbait*», esan ohi zuen.

## Zubigile

Iparraldeko bertsolariei hegoalderako zubia egiten saiatu zen, batez ere bere lagun eta adiskide Xalbadorri eta Mattini, bere laguna zen Teodoro Hernandorena txiki handi hura bezalaxe.

Antonio Zavalak bere *Auspoaren auspoa IV - 300 – 248* orrian kontatzen duenez, 1976an plazaratu zuten Odolaren mintzoa (*Auspoa berdea saila – Xalbador– Auspoa-Sendoa*) prestatzen ari zirela, joan-etorri asko egin omen zuen Urepelera. Hiru lagun joan ohi ziren, Fernandok «*Los tres mosqueteros*» deitzen zituen hiru lagun. Antonio Zavalaren pasarte hau polita iruditu izan zait beti, eta hitzez hitz irakurriko dizuet nirea amaitzeko:

Sei liburu ateratzekotan giñan Auspoa sail berrian, lau egillerekin.  
Eta Xalbadorrek ere baiezkoa eman zuen. Liburugintzarako gogoa leendik ere bazuela esango nuke.

Arekikoa egiteko, irukote polita bildu giñan: Fernando Artola *Bordari*, Joxe Mari Aranalde eta izketan ari dan au.

Bordari eta Xalbador lagun miñak ziran, biak Fernando ziranez. Ara iritxi eta beste danak eskua ematen genion ango nagusiari, baiña Bordari eta biak elkar besarkatzen zuten, indarrez gaiñera.

Joxe Mari Aranalde ere Xalbadorren lagun miña zan. Onek aren etxearen izaten zuen ostatu Gipuzkoara etortzen zanean. Ortaz gaiñera, Aranalde au apaiz egin zan, baiña enbajadore izateko jaioa zan.

Ni, berriz, erderaz esaten danez, *currante* izateko jaioa naiz, eta orduan ere orrela izan nintzan.

Batzutan, irurok joaten giñan. Donostian Aranalde artu eta Ondarrribira, Bordariren billa. Ura taldeko Errege Magoa zan, eta ardo, gozoki, arrai eta abarrez kotxea betetzen zigun, danak ere Urepelen uzteko.

Ondarribitik irtetzean Guadalupeko Amari kantatzen asten giñan: *Jaungoikoak salba zaitzala, Ama Birjiña maitea...* Gero, Xalbadorrenan ongi artuak izaten giñan, eta bertan ederki bazkaldu.

Bazkaltzen asi aurretik Xalbadorrek onela esaten zuen, serio-serio:

–Orain, apezenak apezenak mahaina bedeinka dezala.

Taldean bi apaiz giñan: Aranalde eta biok. Baiña ori etzuen esaten guregatik, Bordarirengatik baizik. Au, izan ere, ezagutu zutenek dakitenez, fede aundiko gizona zan, eta bere sinismena jendearen aurrean aitortzeko betere lotsarik etzuena. Ala, gure ondarribitarrak ondo asko zekien Xalbadorren enbidoa norentzat zioan, eta kantuan onela asten zan:

– *Benedicite!*

Aranalde eta biok:

– *Benedicite!*

Eta Bordarik orduan:

– *Opera omnia in te sperant, Domine...*

Eta abar. Garai batean fraileek otordua asi aurretik errezzatzen zuten bedeinkazioa, Bordarik gerra denboran Belokeko beneditarrei entzunda ikasi zuen.

## Sukaldaria

«*Antes cocinero que fraile*» esaldia gogoratzen zuen sarri Bordarik; eta sukaldean artista zela aitortzen. «*Nik prestatutako arrautza frijituak bezelakorik eztago munduan, Joxemari!*» esaten zidan behatzak miazkatzuz.

Badakigu 36ko gerran bestaldera ihesi joan beharra izan zuela; eta zerbait egin behar bizi ahal izateko, eta sukaldari-lanetan hasi zen. Han ikasi zuen sukalde-lanetan. Oso mainosoa zen, baina jaten eta edaten juxtua.

Ahurtiko Abadian, Beloken, hango atea ireki zizkiont eta sekula inoiz ahaztu ez zitzaison mesedeara egin omen ziola esaten zuen hango aita Abadeak. Lehendik ezagutzen zuen sakristautza-lanetan, liburuak kuadernatzent eta abar jarri zuten, eta hartan saiatu zen.

Bere gozamenik handiena Abadiako libururegian nahi zuena irakurtzeko, eta hango elizan beneditarren gregoriano kantu saio ederrak entzutzeko eta kantatzeko eman zioten aukera betirako bihotzean gorde zuen Fernando.

A, eta edozein lagunarteko bazkalondotan kantari hasten zenean –latinez nahiz euskaraz– gozamena zen Bordarirekin egotea.

Alde hontako iheslari talde bat bildu eta, ahal zuten guzietan Bastida herrira joaten omen ziren, irratia entzutera, Spainiako gerraren gorabeherak jakin nahita. Baino, zer gertatuko gure Bordariri eta dendako alaba Henriette liraina hantxe ezagutu eta seko maitemindu. Harekin ezkondu zen 1943an –Mertxe Ezeizak idatzi duen *Begiraleak* alean haien ezkontzako argazkiren bati begira egona naiz, eta ikusgarri bikote ederra zen Henriette-Fernando bikotea–.

### **Bordari idazle**

Klaudio Sagarzazu Satarka, Juan Basurko, Manuel Lekuona zaharra, Aingeru Irigaray, Jon Etxaide, Koldo Mitxelena, Gabriel Aresti, Juan San Martin, aita Santi Onaindia, Joan Mari Lekuona... Guzti horiek eta beste askorekin zituen harremanak, harekin adiskide izatea erraza bezain ederra zen-eta.

1982an argitaratutako **Bakoitzak berea II** (Sendoa) liburuaren hitzaurrean Joan Mari Lekuonak dio: «*Oraintsu dala hogeita amar urte, Fernandoren etxean biltzen ginen Bidasotar eta inguruko zenbait olerkari: Klaudio Sagarzazu Satarka, Juan Basurko, Fernando Artola, Manuel Lekuona eta neroni ere bai, naiz-eta olerki lanetan asiberria eta gaztegia nintzen orduan...*

Argia, Anaitasuna, Arantzazu, Olerti, Oarso, Baskonia, Bidasoa, Egan, Euzko gogoa, El Dia, La Voz de España, El Diario Vasco eta abarretan idatzi zuen. Eta horiez gainera, aspaldi ezagutu genituen **Euskalerriko arrantzaleak** poema, **Bizitz-leloa, San Martzial, Eukaristia, Sortzez Garbia...** hor dira ere **Bakoitzak berea I** (1982, Sendoa), **Bakoitzak berea II** (1982, Sendoa), **Aritz beraren adarrak** (1982, Auspoa) narrazioen sailean. Eta poesian, **Goraintzi (Giza-alargunaren eskeintza)** (1968, Graf. Valverde). Bertsoak, berriz, hamaika izango dira, baina honako hauek azpimarratuko ditugu gutxienez **Txakurraren partia** (1983), **Lo-**

*reak eta Zimarra, Pakea Lurrean, Gora Ondarribia, Amaia, Noiz arte...*

### Irratian

Eta inork aipatu ez dugun beste zerbait ere: Maria Dolores Agirre, Basarri, Oñatibia, Zurutuza, Etxebeste eta abarrekin irratsaioak egiten ere saiatu zen inoiz Fernando Artola *Bordari*, 50eko hamarkadan.

# Itsasoko tragediak euskal kanta zaharretan

URKIZU, Patri  
UNEDeko irakaslea, euskaltzain urgazlea  
eta Literatura Ikerketa batzordekidea

Fernando Artola Sagarzazu «Bordari» (1910-1983)  
Euskalzale eta idazlearen omenetan

Zorigaiztoko egun batez Jaizkibelgo kostaldean  
Gure anaia Iñaki hil zen Azabatzako partean,  
Hura bezala asko dira galdu itsaso haserrean,  
Horien denengatik lipar batez oroit gaitean.

(P.U.)

**EUSKAL KANTA ZAHARREN** biltze eta ikertze lana ez da orain-goxekoa. Jadanik XVIII. mende bukaeran hasiak ziren bilketa lanetan<sup>1</sup>, eta batez ere XIX. mendean hor ditugu Joan Ignazio Iztueta, Agosti Chaho<sup>2</sup>, Jean-Dominique Jullien Sallaberry eta batipat XX.mendean Resurrekzion M<sup>a</sup> Azkue eta Aita Donostia milaka kanta biltzen eta doinuak jasotzen<sup>3</sup>. Ez zitzaison Jose Ariztimuño «Aitzol»i egindako lana buruturik zegoela iruditu eta kanpaina handi bat hasi zuen 1931ean *Collamus Carmina Nostra*, bil ditzagun gure bertso eta kantak lelopean.

<sup>1</sup> Patri Urkizu, *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma* (1798). Durangoko udala 1987.

<sup>2</sup> Patri Urkizu (ed.), *Agosti Chahoren Kantutegia*. Susa, Zarautz, 2006.

<sup>3</sup> Patri Urkizu et al., «Literatura de tradición oral», *Historia de la literatura vasca*. UNED, Madrid, 2000, 25-58.

XXI. mendean aitzinatzen ari garelarik, eta batipat Antonio Zavalaren lan eskeraren ondoren, zerbaite gelditzen ote biltzeko, arakatzeko eta iker-tzeko? Nire ustez bai. Hor daukagu adibide gisara berrikitan Patziku Perurenak argitaratu berri duen liburu mardula Berdabioko kantaz<sup>4</sup>, edota Jesus Antonio Cid-en hitzak<sup>5</sup> Zavalaren *Euskal Errromantzeak* liburuaz:

[...] Es indudable que las baladas vascas podían, o podrán en el futuro, publicarse de otra forma; **con otros títulos y otra ordenación**; añadiendo y suprimiendo temas o versiones; con estudios por menorizados, narratológicos, históricos, etnográficos o lo que se deseé en cada tema; con índices, gráficos y mapas, etc., etc.. Pero esto sería otra obra, no necesariamente mejor ni más útil, y no la de Zavala. Con *Euskal errromantzeak* disponemos de la compilación más copiosa de baladas del País Vasco nunca publicada. Varias decenas de excelentes textos, con sus melodías, se incorporan definitivamente al patrimonio cultural euskérico, y se ha evitado que colecciones casi míticas como las de Augustin Chaho y Aitzol siguiieran permaneciendo ocultas o se perdieran para siempre. Los textos, editados con rigor, puntuados de forma coherente, y **ordenados por temas** facilitarán la lectura y ahorrarán la consulta simultánea y enojosa de libros, artículos de revista y otras fuentes, a quien desee conocer todos los testimonios conocidos de una balada concreta.

Hautatu dugun gaia dela eta, alegia, *Itsasoko tragediak euskal kanta zaharretan* azpimarratu behar dugu, gure ikerketan Azkue, Donostia eta Zavalaren lanak osatu eta zehaztu ahal izan ditugula. Eta gai hori ez dela itsasoko kanten multzo barnean espezialidade bat baizik, frantsesez «complaintes» deitzen direnak, beste hainbat kantu artean direla itsasuntzian lan ezberdinak egiten diren bitartean kantatzeko edo portuan<sup>6</sup>, lehorreratu eta gero edari pizgarriei zurrutada ederrak eman ondoren.

<sup>4</sup> Patziku Perurena, *Goizuetan bada gizon bat. Trabukoren kantako misterioak*. Alberdania, Irun, 2010.

<sup>5</sup> Jesús Antonio Cid, «Romancero hispánico y balada vasca», *Antonio Zavalaren ohoretan*. Deusto Unibertsitatea. Bilbao, 2000, 100.

<sup>6</sup> AAVV, *Guide des chants de marins. Répertoire pour chanter à bord ou au port*. La Chasse-Marée. ArMenn.Duarnenez, 1997.

**Arrantzaleen bizitza**<sup>7</sup> darama titulu gisara Antonio Zavalak 1978an plazaratu liburuxkak. Itsasoak eta gizonak elkarrekin darabilkiten borroka latza zuen gaitzat, eta bertan zioenez bildutako bertsoak Gipuzkoakoak ziren soilik, Bizkaikoak eta Bidasoaz beste aldekoak hurrengo baterako uzten zituen. Beste aldi hora iritsi ez denez, beude ondorengo kanta hauek, batipat Iparraldeko koplariek onduak, itsasoko penen eta maluren, hala marinelen nola emigrazio bidaietan hondoratzentzirenen oroitzgarri.

Zavalak bere liburuan bederatzi kanten artean honako lau tragedien bertsoak biltzen zituen: Bat, 1878ko apirilaren 20an Kantabriar itsasoan suertatu galerna gaizto baten ondorioz hirurehun lagun baino gehiago itota gertatu zirenekoa<sup>8</sup> Bi, 1879ko urtarrilaren zortzian Zumaiako **San Jose** itsasuntzia bixigutara joan eta beste galernazo baten ondorioz hamahiru ito zirenekoa, kostalde osoan pairatu zirelarik beste hamaika desgrazia<sup>9</sup>. Hiru, 1906ko otsailaren hogeita seian Erandiotik Barakaldo-rako untzia pasatzerakoan bederatzi itoren berri ematen dituzten bertsoak<sup>10</sup>. Eta lau, 1908ko maiatzaren 24ean denboraleak sortu deskalabruen berri emanez Zipriano Lertxundik ondutako bertsoak<sup>11</sup>, bertan jakitera ematen da 32 urterekin ito zela Ondarrutar bertsolaria zen Jose Manuel Imaz.

Ramos Azkaratek<sup>12</sup> badu **San Jose** mutrikuar txaluparen hondoratzeari buruzko bertso batzuek *El Correo del Nortek*-emanak (1901-II-3), eta Fermin Imaz<sup>13</sup> bertsolariak, ere moldatu zituzten tragedia hauei buruzko bertsoak.

<sup>7</sup> Antonio Zavala, *Arrantzaleen bizitza*. Auspoa 133, Tolosa 1978.

<sup>8</sup> Aip. Lib., 75-85.

<sup>9</sup> Aip. Lib., 87-96.

<sup>10</sup> Aip. Lib., 141-149.

<sup>11</sup> Aip. Lib., 151-157.

<sup>12</sup> Antonio Zavala, *Ramos Azkarate. Galtzaurdi berriz ere. (I, II)*, Auspoa 286,287. Zarautz 2004, T.II, 346.

<sup>13</sup> Antonio Zavala, *Fermin Imaz. Bertso guziak*. Auspoa 24, Tolosa 1963.

Jose Luis Ansorenak<sup>14</sup> ere aipatzen ditu Itsasoko tragediak eta kantak, eta bestean artean aipatzen 1902an gertatutakoa **Nº Sra de Iciar** izeneko untziari Mutrikuko sarreran, hondoratu egin baitzen hamar arratzale ito zirelarik. Tragedia hau Jose Manuel Imazek jaso zuen sei zortzikotan eta gero Agustin Zubikaraik<sup>15</sup>.

Eta hainbat eta hainbat halako. 1912an, abuztuaren 13an gertatu tragediez Fermin Imazek eta Txirritak<sup>16</sup> moldatu zuten 16 bertso *Kantabriako itxas-gizonai oroipen bat*. Eta urte bereko urtarrilaren 8an adibidez elkartasunezko bando bat atera zuen Hondarribiko alkatea zen Meltxor Errazkinek *Constantinochiquiyaren* hondoratzea gertatu zela eta<sup>17</sup>.

Dena den, nik hemen hogei kanta zahar aurkeztuko ditut soilik, Zavalak bildutakoak baino zaharragoak batzuek eta bai Bizkaia bai Iparraldekoak ahantzi gabe. Hona aurkitu ditudanak:

I.	DG	ALDAZTORREA
II.	1690- IV- 19 ing.	ZARRANTZAKO PENAK
III.	1820 ing.	HABANAKO KORBETAREN GALERA
IV.	1842-VI-9	LÉOPOLDINA-ROSAREN PULUNPA
V.	G. 1866 / T. 1881	MARI
VI.	1868- I -4	SAINT-PAULGO GIZAJALEAK
VII.	1873-XI-16	VILLE DU HAVREREN HONDORATZEA
VIII.	1874-IV-17	CARMENCITA-REN ERRESKATEA
IX.	1876	JONAS ETA ANA
X.	1876.ing.	BERTSO BERRIAK MIKAELA ZARRANAK
XI.	1878-IV-20	KANTABRIAKO KOSTA ONETAN
XII.	1879-I-8	SAN JOSEREN HONDORATZEA
XIII.	1901-II-3	SAN JOSE ITSASUNTZI MUTRIKUARRA
XIV.	1902	Nº SRA DE ITZIARKOAREN HONDORATZEA

<sup>14</sup> Jose Luis Ansorena, «La música y el mar», *Itsas Memoria. Revista de Estudios Náuticos del País Vasco* 6, Untzi Museoa, Donostia 2009, 467-468.

<sup>15</sup> Agustin Zubikarai, *Ondarru, kantu, otoi, orru*. Caa Municipal de Cultura, Ondarru, 184, 36.

<sup>16</sup> Bertsolaria 1932, 50 zkia, 303.

<sup>17</sup> KM kulturunea, C-401 F-44.

XV.	1906-II-26	ERANDIOKO DESGRAZIA
XVI.	1908-V-24	KOSTERAREN DESKALABRUAK
XVII.	G.1912 / T.1932	KANTABRIAKO ITSASGIZONAI OROIPEN BAT
XVIII.	1915 -V-7	LUSITANIAKO DESKALABRUAK.
XIX.	1938 ing.	DOMEcq MARINELAREN HILTZIA
XX.	1982	ALARGUNAREN NEGARRA

## Egileak

Kanta zaharren anonimotasunaz askotxo mintzatu izan ohi da, eta ildo horretatik Zavalarenak<sup>18</sup> dira hitzok: *Erri-literatura geienetan berdin gertatu da. Ahozkoak izan dira asiera batean eta paperera gero pasa. Batzuek lenago, besteak geroago eman zuten pauso ori.*

Ez da hori gertatzen beti ikusiko dugun bezala XIX. mendea aurrera doan neurrian, Sain-Paulgo gizajaleak kantan ikusiko dugunez. Eta jadanik Iztuetak 1847an argitaratu bere *Gipuzkoako Provintziaren condaira edo historia...*-n honako esaten baitigu: *orai zernai gauzaren berriak paper moldizkidatuetan zabaltzen diraden bezela.*

Eta hori kontutan hartuz, alegia XIX. mendean bertso-paperak ugaritzen doazela egile zinadurekin, Eibarko krimen bat buruz mintzo delarik honakoa esaten digu:

*Garai batean antziñako denboretan, alegia, bertsolariak berak ikusita  
edo besteren bat entzunda ikasten zuan gertaeren berri, eta besterik gabe  
bertsoak jarri.*

*Bañan gero, periodikuak ugaldu ziranean auetatik asi zan esatekoak  
ateratzen gai askotarako beintzat<sup>19</sup>.*

Bildumako hogeい kanten artean egile izen hauek topatu ditugu: Jean Etxeto «Katxo» hazpandarra, Joanes Etchepare donapaleutarra, eta Pierre

<sup>18</sup> Antonio Zavala, *Patxi Erauskin bertsolaria (1874-1945)*, II. Auspoa 131, Donostia, 1978, 15.

<sup>19</sup> Antonio Zavala, «Bertso-paperak». *Auspoaren auspoa I (Itzaldiak / conferencias)*. Auspoa 238, Oiartzun, 323-350.

Bordazarre Hiruritarra, Bidasoatik haratekoak, eta Frantzisko Lopez Alen donostiarra, Ramon Artola tolosarra, –Pepe eta Rosario poeten aita–, Ramos Azkarate tolosarra, Fermin Imaz donostiarra, Jose Manuel Imaz ondarrutarra, –bera ere hondoratze batean itoa–, Mikaela Zarra, eta Fernando Artola «Bordari» hondarrabitarra honunzkoak, bakoitza, noski, bere hizkera eta euskalki propioaren adierazgarriekin.

## Gaiak

Gai nagusia tragediez mintzatzen ari baikara, itsasoaren haserrea, alegia, denboraleak eta ekaitzak dira eta ondorengo hondoratze eta hilketak. Aurrez ditzagun bada, kanten eta gaien ardatz eta xehetasun nagusiak.

## Aldaztorrea (Data gabe)

Azkuek bildutako Euskal Kanten artean bada bat Gillerma Akarregi lekeitiarraren ahotik jasoa ALDAZTORREA deitzen dena. Bertan kontatzen da nola *markeak*, alegia, barkuak hogeita bi marinel (*ogetabat lengusu ta nebea*) galdu zituen itsasoan. Balada tradizionaleن artean kokatzen ohi dute aditurek eta hasierako laukoan ageri zaigu erroi zaharra, hots belea, zein Mendebaldeko iruditegian, jakina den bezala, tragediaren, fatu gaitzaren sinboloa den. Aspaldi-aspalditik gainera, zeren jadanik Mahabharata Indiaiko liburuan heriotzaren mezulariak beleegin konparatzen dira. Lekeitioko dorretxe hau ezaguna zen aspaldidanik, eta agian kontutan hartuta kantaren estiloa (*Aldaztorreak ateak dituz letuez / ango plater-pitxerrak zidarez, Sandailia kantan bezala, Sandailiak ateak ditu zirarrez / nola zirarrez da ala zendalez...*) XV. mendetik datorke.

## Zarrantzako penak (1690 ing.)

Nôtre Dame de Sarrance «**ZARRANTZA**» Donibane Lohizuneko badian aingura botatzen zuen 300 toneladako itsasuntzia zen. Batez beste 10 / 15

kainoi eta 50 / 55 gizonekin balearrantzan zebilen XVII. mendean. 1672-1678 urteetan Holandarekin gerran zelarik Frantzia, –garai hortakoak dugu, antza, *Jeiki, jeiki, etxenkuak...* kanta ezaguna–, Zarrantzak arriskua zela eta, Thierry Du Pasquierrek dioskunez<sup>20</sup> Espainiako bandera eta nahi zuen izena hartzeko boterea eta baimena zeukan.

Horrela behin Donibane Lohizunetik partitu zen 1672an Norvegia alde-rantz Thomas de Casabielle kapitainaren manupean eta itzuleran La Rochellako portuan atrakatu zuen. Beste batean 1675ean 20 kainoiz eta 60 gizonez hornitua, Marsans de Hirigoyen kapitain zuelarik, Sokoatik atera zen eta uztailaren 26an Groenlandiara iritsi. 1685ean abiatuko da berriz Donibane Lohizunetik arrantzara eta 1688an Samson de Haristeguy komandantearen gobernupean Groenlandia aldera. Kontuan harturik 1691n Haristeguy *La Fortune* itsasontzi kortsariko buru zela, pentsa daiteke 1688-1690 inguruau sortu zitzaiola Zarrantzari arazoak Ternuan eta urte horietakoa dela poema<sup>21</sup>.

Eskuzkribuak dakarren B letra doinuari dagokiola uste dugu, eta garaiko aireez esan behar da Lertxundik dioenez<sup>22</sup> ohikoa zela frantses doinu erabili-enak hartzea.

### Habanako korbetaren galera (1820 ing.)

Hondoratze honen berri Frantzisko Lopez Alenek ematen digu<sup>23</sup>. Berak euskaraz entzun omen zuela ixtorioa eta zioetenez 1820. urte inguruau ger-tatu zen. Habanatik zetorren korbeta eta kalma handi batzuk pairatu ondo-ren azkenean ekaitzak bota omen zuen Gazteluko harkaitzen kontra itsasuntzia Donostia bezperako gauean. Bertsoak ere eskaini zizkiotela ger-

<sup>20</sup> Thierry Du Pasquier, *Les Baleniers basques*. Editions S.P.M, Paris, 2000, 157.

<sup>21</sup> Alfred Lassus, «Capitaines de navires et de corsaires de Saint-Jean-de-Luz», Saint-Jean-de Luz. EKAINA, 476.

<sup>22</sup> Gabriel Lertxundi, *Kantikak*. Belloc, 1948, xxvii.

<sup>23</sup> F. Lopez Alen, «Recuerdos donostiarras. El Naufragio de la corbeta», *Euskal Erria, Revista bascongada*, Donostia, 505-507. Vida Vasca, nº 42, 1965, 75-78.

taera tamalgarriari, dio, baina haietarik soilik bertso bat kontserbatu omen zuen herri memoriak.

### Léopoldina-Rosaren hondoratzea (1842)

«LEOPOLDINA ROSA» Baionako portutik atera zen Montevideorantz eta Arturo Lezama Montoro<sup>24</sup> idazle uruguaiarrak honela kontatzen du harren ibilbide tragikoaren ixtorio tristea:

«...en los primeros días de abril de 1842 partió la Fragata Léopoldina Rosa hacia su trágico destino. Trescientas personas, incluida la tripulación, navegan durante dos meses hasta avistar, con muy mal tiempo, la costa rochense en la cual naufragara....»

Albiste eta data hau ez dator bat, ordea, zehazki garaiko frantses Almanaka<sup>25</sup> batek dakarrenarekin, honek maiatza ematen baitu partidako data bezala.

«Parti dans les premiers jours de mai, de Bayonne pour Montevideo, sous le commandement du capitaine Frappaz, le navire le Léopoldina-Rosa avait à son bord, outre son équipage, 303 personnes, hommes, femmes et enfants, du pays de Basques, que l'espoir d'un meilleur avenir entraînait hors de leur patrie vers les plaines inconnues de l'Uruguay. Après une longue traversée il fut assailli à l'atterrissement par une violente tempête qui le fit toucher par une nuit dont l'obscurité redoublait encore les dangers. Au jour on reconnut la terre; le Léopoldina était engagé sur les Castillos, récifs situés sur le côté oriental d'Uruguay...».

Alegia, Euskal Herritik, hots, Baionatik atera zela itsasuntzia hirurehun eta hiru pasaiariekin Frappaz kapitainaren gidaritzapean Uruguai alderantz, han bizitza hobea bat aurkitzeko esperantzetan. Eta trabesia luze baten ondoren ekaitz bortitz batek gau batez arrapatu zituela Uruguaiko ekialdeko kostan Castillos izeneko parajeko harkaitzetatik hurbil.

<sup>24</sup> Arturo Lezama Montoro, *Naufragio de la Léopoldina Rosa: 9 de junio de 1842*. Montevideo 2006.

<sup>25</sup> Almanach-manuel du *Journal des villes et des campagnes*. Pillet ainé, Paris, 1843, 171-172.

Tragedia hau 1842ko ekainaren 9an gertatu zen, eta honela jarraitzen dio bere ixtoiari Lezamak:

«...Sorprendida la Léopoldina cerca de 3 días por una tempestad al S.-S.E y arrastrada de las corrientes, tocó las costas de Castillos el 9 de junio a las 4 y 45 de la mañana con un tiempo muy oscuro. Había entre el buque y la costa una distancia de cuadra y media...»

Lehen salbamenduko saioa *joan-etorría* deitu modalitateaz egin zen. Batela irauli zen, ordea, eta bertako bi marinelek nahiko lan izan zuten fragataraino igeri iristen. Kapitainak igerilari on bat bidali zuen soka arin batekin, zeinari beste lodiago eta tinkoago bat zegoen atxikia, lehen saioaren helburu berarekin. Eta beste zenbait marineli ere lan bera agindu zien, baina behin lehorreratutakoan ia gehienak izuak hartuta ihesari eman zioten, hiruk ezik. Egoera hain larri ikusitakoan askok bere burua itsasora bota zuen, batzuek igeri ez jakin arren, eta noski ito egin ziren. Antza denez handik zebiltzan *gautxoek* ere nahi adina lapurketa eta bortizkeria burutu zuten lehorreratzen ziren kutxa, hondakin eta pertsonengana.

Lezamak jasotako kroniken arabera untzian zihoa zen hirurehundik soilik 56 gizon, 5 emakume eta 18 eskifaiakoak salbatu ziren. Hauen artean bigarren kapitaina, lehena ito egin baitzen, medikua eta zenbait fraide. Hauetarik batzuek Rochako Departamenduan kokatu zuten beren bizilekua, hau da, Castillos-en, eta hauen deitura batzuek besteen artean honakoak ziren: *Astigarraga, Bagéz, Ezpeleta, García, Inda, Lujambio, Onandi, Lanusse...*

Salbatu ahal izan ziren ongiak enkantera atera ziren Natalio Molina juezaren aginduz, Vicente Acostaren etxearen, hemen baitziren itsasuntzi hondoratuaren hondakinak jaso.

Ekintza lazgarri honek sortarazi zituen bertsoak, lehenik 1857an argitaratu ziren Francisque Michelek Parisen plazaratu *Le Pays Basque...* liburu mardularen barnean PULUNPA deitu kanta bezala, eta bigarren aldiz, Goitiñok Los Angeles-n plaratu zuen *California-ko Euskal herria* berriketarian 1894ko uztailaren 28an, GOAZIN AMERIKETARA! (*Han leher egitera*), titulu kritikoaren pean, zeinbait aldaera eta osagarritz jantzia. Berriki Pierre Xarritonek dioenez, Jean Etcheto «*Katxo*» (1790 -?) hazpandarra litzateke

egilea<sup>26</sup>, baina neuk aspalditxo jadanik jaso nuen bezala hamabi bertsotako beste bertsioan<sup>27</sup>. Egun bizirik mantentzen dela tradizioa ikustearren hor dugu *Elaudi*, Iparraldeko musika taldea, zeinetan parte hartzen duen Marie Hirigoinenek, eta zeinen *Denborarena* deitu diskian, 17. zenbakian entzun daitekeen *Pouloumpa* izenez beraien bertsioa.

### Mari<sup>28</sup> (G.1866 – T.1881)

Jose Maria Zubia, Mari izengoitziaz Zumaian jaio zen 1809an eta Donostian hil 1866an. Askotan itsasoan larri zebiltzanak lagundua, ahalegin hoiretan bera azkenean ito. Donostiako moilean badu monumentu harrizkoa bere omenez eraikia. Poema hau Ramon Artolak idatzi eta aurkeztu zuen Euskarazko itz-jostaldietarako, Donostian 1881ean.

### Saint-Paulgo gizajaleak (1868)

Hona nola kontatzen dituen euskaraz Bordeleko portutik Calcutta alde-ra partitu zen SAINT-PAUL itsasuntzia eta bidean pairatu zituen gaitz eta sufrimendu ikaragarriak. Hiru mastadun frantses itsasuntzi hau Ekialdeko itsasoetan zehar nabigatzen zuen. Constant Améro-k dioskunez<sup>29</sup>, 1858. urteko uzailean eskifaia hogei gizonezkoek osatzen zuten eta Hong-Konggo portutik abiatu zen Australiarantz bertako urrezko mehatzak esplotatzeko hirurehun eta hamazazpi txinatar zeramatzala, eta bidean deskalabru frango izanik, uharte arkaitsu batean abandonatu zituen txinatarrak oro. Handik denbora batera bertatik pasatzerakoan karga hartzera inor bizirik ez zuten aurkitu. Antza denez papuek irentsiak zituzten.

<sup>26</sup> [www.hazparnen-bertsulariak.com](http://www.hazparnen-bertsulariak.com)

<sup>27</sup> Patri Urkizu, *Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak. II, 1545-1900*, Etor, Donostia, 1991, nº 222, 497-498.

<sup>28</sup> Ramon Artola, *Sagardoaren graziya II*. A. Zavalaren edizioa, Auspoa, Donostia 2003, 97-99.

<sup>29</sup> Constant Améro, *Les aventuriers de la mer: tempêtes, naufrages, révoltes, hivernages*. Société française d'imprimerie. Paris, 1899, 283.

Handik bederatzi urtera SAINT-PAUL-en zorigaitzen artean antropofagia kasua dago, zein ez den bakarra izan lurralte eta hizkuntza ezberdinako baladek adierazten duten bezala. Adibidez, portugesez *A nau Caterineta* deitua, ia kanta nazionala bihurtu dena, frantseseko bertsioan *La courte paille* deitua, ingelesez William Makepeace Thackerayk argo-teen bermolaturiko *Little Billee*, gaskoinez *Dessua la ma* titulua daramana eta euskaraz *Ene muthilik tipiena*<sup>30</sup>, Aita Donostiak hiru bertsioetan jasoa<sup>31</sup>.

Azkuek<sup>32</sup> gure itsasuntzi honen tragediari buruz moldatu zen kanta baten bertso bakarra jaso zuen Ziburun, baina guk hamasei bertsotako kanta eta honen hitzaurrea prosaz aurkitu dugunez hemen emango ditugu.

Historia triste hau ere bere aldetik *Journal des Instituteurs des écoles...* delakoak jaso zuen<sup>33</sup>, Dupré jaunak Ministroari zuzendu gutun batekin, non konparatzen duen *La Méduse*-ren hondoratzearekin, eta non Bernier, bigarren kapitainaren txostena ere ematen den. Hona euskaraz Baionan 1868an hitz lauz argitaratu zen ixtorioa.

### Errepas bat horriblia itsasoaren gainian<sup>34</sup>

Mintzatu izan gira duela zonbait egun kasu handi batez, gerthatuz itsasoaren gaimean, pasatu den afera triste eta nigar egin garria, erraiten zutelarik zortian tiratu eta bere proximo laguna jan behar izan dutela. Beraz ez da sobera baizik egia, afera hori gerthatu dela maluroski, Saint-Paul izena zuen hirur mastetako untzi ederra partitura Bordeletik armaturik M. Heurtin kapitainarekin eta galdu juan den abendoaren hogoi eta bortzian, gauaz.

<sup>30</sup> Piarres Lafitte (ed.) *kantu, kanta, khantore*. Baiona, 1967, 162.

<sup>31</sup> Patri Urkizu, *Balada zaharrez*. Erein, Donostia, 2005, 50-61.

<sup>32</sup> Resurrección M. de Azkue, *Cancionero popular Vasco*. Bilbao, 1923, nº 621, T. II, 748.

<sup>33</sup> *Journal des instituteurs des écoles normales primaires, des classes d'adultes et des salles d'asile. Recueil hebdomadaire*, Paris, nº 15, 12 avril 1868, 198-199.

<sup>34</sup> *Un horrible repas*. Bayonne, E. Lasserre 1868.

M. Dupré kontra-amirala Réunioneko gobernadoriak adrezatu izan dio mariñako ministroari untzi hartako bigarren kapitainak egin duen erreporta nigar egin garria; begira gaudelarik inuesta baten egiteko han eskapatu diren marinelek indar puska bat hartu artian.

Orai publikatzen dugu osoki erreporta hori. Huna nola den.

Partitu ginenean Calcutako ur handitik Marseillarat jiteko juen den hazilaren hogoian eta egin bide heguako alderat, eta abendoaren sei garren egunian kuloba desarranjatu, eta untziak bide makhurra hartu iruzkia jalgitzentzat parterat (82º longitude) eta nola haize flakoak baitziren eta sanjakorrak; hala ere juan ginenean abendoaren hamabi arte ahal ginuen bezala, eta gero haize heguak eta iruzki haiziak hartu gintzutzen eta konduisatu hogoi eta bortz arti- no. Orduan haizea hasi zen azkartzen bere bothererik handienian lagundua zelarik ihortziri karraskez eta uri sufernez. Kapitaina bere kalkula guzien arabera untzia kausitzen zen bere bidetik eskartatua hiruretan hogoi eta hamar milla metra bere bidetik orienteko parterat Rodríguez erraiten dakoten kartier batian. Kontinatu ginenean gau hartan gure bidin orienteko partetik heguako parterat hamekak orenak eta erdiak arte, nun untziaren aintzinian zagon maríñela jin baitzitzautan prebenitzerat lanjer handitan ginela. Berehala eman nituen nere ordriak untziaren posizionian emaiteko tenpestaren kontra ihardokitzeko

Oraino ez nuen gomendatzen finitu, nun untziak zerbait hunkitu baitzuen eta nun gubernaila hautsi baitzen bi pharte.

Orduan ikhusirik ez ginezakela deusik egin emanarazi nituen kanota eta xalupe urerat, difikultate handirekin erreusitu gure kapitainaren xalupan emaiterat, zeren eta eri handi baitzen eta indar guziak galduak Calcutan izan zuen eritasun handi baten ondorioz.

erreusitu ginuenian kapitainaren xalupe handian emaiterat okupatu ginenean berrehala jateko biskotxaz eta edateko uraz. Bainan inutilgi zeren ezin salbatu ahal gintuen hogoi libera biskotxa eta barril ttipi bat ur baizik eta konpas bat. Xalupa handia zen beraz muntatua kapitainaz eta hamar gizonez. Eta kanota aldiz bigarren kapitainaz eta bortz gizonez. Orduan juan gira puska bat hirriskutik largorat eta egon eguna jin arte; argitu duen phondutik hurbildu gira untzi malurosari,

bainan inposible izan zaiku aski hurbiltzia, saiets baten gainerat arras aurdikia zen arras lgorrat, eta aintzineko maste hautsia zen arrasetik, eta masta handia berriz erditsutarik, nun deusik ezin salbatu ginuen.

Kapitainak examinatu zuenian gure posizione tristia, ezagutu zuen Cargado-seko islaren gainian ginola, eta dembora berian ezagutu zuen kromometrak tronpatu zuela, eta isla hartan zonbait oren ibili ondoan pasabide baten xerka, nahiz isla hartan sartu, bainan etsitu ondoan ez ginuela pasabiderik libro, konsultatu ginen elgarrekin, eta menturatu ginen Maurice erraiten dakoten kartier bateri buruz abiatzeko hil edo bizi.

Abendoaren hogoi eta bederatzian haize hegua handi bat jaiki zen eta gure xalantari jarraikitzen baitzen kanota onduan uzkali zen eta bigarren kapitaina eta bortz gizonek urerat erori; hori ikhusirik ahal gintuen bezala eman gintuen gure xalanterat, eta gero gure xalantaren eta gure indarraren medioz parbenitu ginien kanotaren salbatzerat, salbamendu hori egin eta bigarren kapitainak eta bortz gizon hoiek berek hartu zuten kuraierekin eta guri segitu ziren.

Abendoaren hogoi eta hamarretik eta hameka arteko gabian haize handi bat altxatu zen egundaino baino borthizkiago eta itsaso samurtu eta gaxtatu, nun obligatuak izan baiginen gau guzia lamen gainian egoiterat batere higitu gabe; argitu zuenian partitu ahal ginen leku hartarik.

Kapitaina erran dugun bezala eri handi izan eta gu bezala bere biziaren salbatzeako penatu zen, eta akhitu, eta bere azken hatsa eman zuen eta Jainkoari khondu errendatu egun hartan berian goizeko hamekak eta erditan, orduan hurbildu ginien gure bigarren kapitainaren eta bortz gizonen ganat heien prebenitzeko, zer malur arribatu zen erraieteko. Oro elgarren ganat bildu ginenian othoitx puxka bat egin eta botatu genuen haren gorputza itsaso triste haren zolarat. Gau hartan itsaso eta dembora arras edertu ziren hameka orenetako eta kanota aparantziaz gure ganik urrundi zen, eta oihuari erreposturik ez emanez konbenitu ginien bezala trabersian jarri ginien argitu arte.

Kontinuatu dugu beraz gure bidia phentsatzen ginuelarik gure estimuaren arabera errekontratuko ginela Maurice erraiten dioten kartier batera, edo bederen Reunion erraiten dakoten batera; ikhusirik ez ginezakela bat ez bertzia hatzeman, etsitu ginuen.

Biharamunian urthe berri egunian 1868an konsultatu ginen eta abiatu, eta hartu Madagascar erraiten dakoten kartier batera gure direkziona; bainan ordukotz ez ginuen laur litra ur eta bi libera biskotxa baizik; abiatu ginen beraz iruzkia sartzen den pharterat, denbora eta itsasoa gaxtuan gintuen, urtarilaren hirur artino. Arrats harten partitu ginuen gure bitaillaren azkena ez baitzen gaitz, bakhotxarentzat ahamen bana eta hurrupa bana.

Biharamunian urtharrilaren laurian, haizia eta itsasoa kalme ziren, bainan guk ez ginuen ez jateko ez edateko gehiago. Arratsian gosiarekin eta egarriarekin, gehiago ezin egonez, (Oh! memento tristia!) konsultatu ginen, eta menturatu resoluzione hartzerat **zortiaren tiratzeko**, zoin izanen othe ginen sakrifikaturik izan beharko zena gure gose eta egarri kruudelen apazeatzeko eta gure herioaren urruntzeko.

Zorte hortan erori zen beraz gurekin Frantziarat heldu zen pasajer Julien Girardin izena zuen baten gainerat, nun miserable hark erresoluzione hartu baitzuen bihotz omez bere zorthe tristeari.

Haren odola edan ginuenian desalteratu ginen eta gure egarri geia haren odo-lak arras itho zuen eta haragia pharte bat konsumatu eta bertze phartia enterratu dugu Madagaskarreko lurrian, nun aperzebitu baiginen urtharrilaren seien arratsaldeko bi orenetan. Memento harten haiziak arras abandonatu gintuen eta nahiz gure flakezia handia izan hala ere hasten gira arrauekin gure egin ahalaren egiten, azkenian arribatzen gira bada hurrerat urtharrilaren zazpian goizeko zortzi orenetako d'Ambato-Malhama erraiten dioten punta batian.

Orduan oro flakatzen gira, bainam hala ere bi gizonek badute indarrik aski Malhamboko lehenbiziko herrira juaiteko, edo arribatzeko, berehala hango jende xuriak eta ofizierrak eman izan ziren gure disposizioneko, eta igorri dituzte jendiak gure bilha; egun hartaz geroztik kontino arras eri izan niz nun ez bainaz izan kapable gure erreportaren egiteko orai arte.

Egina Mahambo Madagaskar. Urtharrilaren 10 an 1868.

Sinatua Bernier 2n kapitaina.

Ropart-Kircho-Leray-Noel Montfort- Regnaut – Bridor-Hucien Durand eta Martinau Mariñelak. Kopia Duplikataren konforme pasatua gure eskuetan.

St Denis otsailaren 17 an 1868.

Mariñako komisarioa sinatua. D. DE GAILLANDE.

## Ville-du-Havreren hondoratzea (1873)

Jean Etchepare donapaleutar koplariak<sup>35</sup> krimenei buruzko baladez aparte bi kantu ezberdin moldatu zituen naturak eragin zorigaitzen gainean, hau da, bat 1873an gertatu **VILLE DU HAVRE**-ren hondoratzea kontatzen diguna, lainoek eta ekaitzak eragina, non 226 *pasajers ithorik* bukatu zituzten beren egunak, eta bestea 1875eko *inondazionaleak*, uholde izugarriak aipatzen dituena.

**VILLE - DU - HAVRE** itsasuntzia Inglaterran eraiki zen eta *Compagnie Général Transatlantique* deituak eginarazitako azken pakebote gurpilduna zen. Le Havre-tik New-Yorkerako itsas bidaia egiten hasi zen 1866an NAPOLEON III-a izenez, baina 1871-72an berregin zuten hamazazpi metroz luzatzu, helizez hornituz, eta bi masta ordez hiru eraikiz. Eta beste izenez bataiatu zuten, hots, **VILLE - DU - HAVRE** gisara, zerbitzuari 1873ko martxoaren 3an heldu ziolarik berriro. Urte honetako (1873) ekainaren 6an, CURAÇAO hiru mastadun itsasuntziarekin topo egin eta hondoratu egin zuen Hudsongo badian. Azaroaren 16an utzi zuen Le Havre 313 pasaiariekin eta gau beltzean LOCH EARN hiru mastadun angelesarekin talka egin eta hondora joan zen hamabi minuturen buruan<sup>36</sup>. 61 pasaiari eta ekipaiako 26 bakarrik salbatu ziren, zein TREMOUNTAIN itsasuntziak bildu zituen, azkenean Bristolgo portura arribatu zirelarik. Bere aldetik LOCH EARN hurrengo urtean azaroaren 18an hondoratu zen<sup>37</sup>.

<sup>35</sup> Patri Urkizu, «Jean Etchepare koplariaren konplaintak, (1873-1890)». *Revista de Lenguas y Literaturas catalana, gallega y vasca*. UNED, Madrid 2010, 171-233.

<sup>36</sup> «Le magnifique transatlantique français La Ville-du-Havre, venant de New-York avec de nombreux passagers fut abordé, au milieu de sa traversée, par le troi-mâts en fer, le Loch Earn. Le choc fut reçu par le bateau à vapeur du côté de tribord en face du grand mât; il ouvrit une brèche de plusieurs mètres par laquelle la mer se précipita. Le bâtiment commença à vaciller, les mâts s'abstirent l'un après l'autre, écrasant dans leur chute les malheureux qui essayaient de mettre à l'eau les canots de bord.

Un moment après le translantique disparaissait submergé. Le capitain du Loch-Earn multiplia les efforts pour le sauvetage des survivants; mais deux cent vingt-six personnes trouvèrent la mort dans cette catastrophe» (Constant Amaro, op. cit., 100.).

<sup>37</sup> [www.frenchlines.com](http://www.frenchlines.com)

Maiz gertatzen ziren horrelako hondoratzek itsasoko bidaietan, hain baitziren arriskutsuak, eta adibidez urte batzuk geroxeago 1882ko urriaren 29an Bretaña aldean ekaitzak ohi bezala bortizki jo zuen eta kalte gaitzak erakarri. Ondorioz Dieppe-n azaroaren 4ean koplari bretoiak gertaerari buruzko bertso-paperak moldatu eta saldu zituen hamar zentimotan, *en profit des familles des naufragés*, hots, hilen familien alde sosak biltzen ahalegin-duz bere kanten bidez.

Aita Donostiak<sup>38</sup> Saran bi bertsio jaso zituen (nº 1007, nº 1008), baina Jean Etcheparek moldatu hamabi bertsoko 1876ko bertsiotik 1913ra soilik bi bertsoko kanta iritsi zen, bi bertsiotan, lehena eta seigarrena. Bata, Maria Agerre Lehetchipikoaren ahotik jaso ahal izan zuen 1912ko urriaren 30ean eta bestea, bertako neskamearenetik 1913ko urtarrilaren 15ean.

### Carmencita-ren erreskatea (1874-IV-17)

Ez da lehena ez eta azkena izango denboralaren eraginez Donostiako badian itsasuntziak amarrak askatu eta hondarrean agertu izana. Horixe ger-tatu zitzaison, adibidez, 1874. urteko apirilaren 17an Mary Lawson goleta ingelesari. Kasu honetan trajediarik ere gertatu zen, zeren bi gizon ito baitziren eta hiru larri ibili. *Eulalia* izeneko korbetan zegoen tripulazioa Carmencita-ra pasatu zen, eta hauek salbatzera treineru bat atera zen Romanita izenekoa.

Hona nola Santanderko *La Voz Montañesa*-k kontatzen zuen denborala, *El cuartel Real*-ek zioenez:

«Ayer fondearon en este puerto, de vuelta de su expedición á Santoña, á donde habían ido conduciendo tropas, los vapores *Fomento, María, Vivar é Ibarra número 2*. No podemos menos de lamentar lo que con los soldados ha ocurrido en este viaje; pues han estado por espacio de cincuenta y dos horas á bordo de los vapores sin haberseles proporcionado alimento alguno hasta el último día, por causa del temporal que lo impedía. Nuestros lectores pueden figurarse lo

<sup>38</sup> P. Donostia, *Cancionero Vasco*, T. VIII, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1994, 1391-1393.

que aquellos infelices habrán sufrido, cuando sepan que á bordo del Ibarra se asfixiaron dos, uno de los que habrá fallecido probablemente á estas horas. Se nos asegura que á haberse tenido lanchas dispuestas al efecto, pudo con algún riesgo, haberse echado á tierra á toda la expedición.»

¡Pobres borregos que llevan al matadero, y ni siquiera merecen una mirada de compasión por quien se sacrifican.<sup>39</sup>

Euskal bertsogileak 18 bertso ondu zituen, salbamenduan parte hartu zutenen izenak emanet 11, 12 eta 13. bertsoan. Donostiako Konstituzioko Plaza 7-an Juan Osés-en inprimategian moldiztegiratu zen bertsopapera, non beste itsasoko abenturak ere, hala nola Ortega y Frías-en *El Naufragio de la Medusa*-rena inprimatuak izan ziren (*Libros a cuatro reales tomo*).

### **Jonas eta Ana**

Hona Ramon Artola, poeta donostiarak 1876ko urrilaren bederatzian *Hero eta Leandro* balada klasikoaren bertsio berria nola eman zuen<sup>40</sup>. Lehenago Wilhem Humboldt entzun omen zuen ipuin gisa Bermeon ixtorioa, «Eine eigene Umänderung der Geschichte Heros und Leanders»<sup>41</sup> bere Spainia eta Euskal Herriako bidaia liburuan kontatzen digunez, euskara maila apalagatik hura bezalako beste ipuinak jaso ahal izan ez zuen arren. Zortzikoak laukotan bilakatu ditugu, errimaz hobeto ohartzearen.

### **Verso berriac Micaela zarranak paratuak**

Ez ziren gizonezkoak soilik, ongi dakigunez, bertsolariak, eta bilduman Mikaela Zarranak moldaturiko hamasei bertso dauzkagu. Apaiztegi jauna-

<sup>39</sup> *El Cuartel General*, 1874-IV-26.

<sup>40</sup> Ramon Artola, *Sagardoaren graziya II*. Auspoa, Donostia 2003, 72.

<sup>41</sup> Wilhelm von Humboldt, «Tagebuch der Basquenreise», *Schriften zur anthropologie der basken*. Herausgegeben von Bernhard Hurch. Ferdinand Schöninfh, Wien 2010, 334.

ren barkuan gertaturiko tragediez, *nafarreria* deitu gaitzez eta nola hiru arrapatu eta berekin eraman zituen itsasoaren sabelera.

### Lusitania-ren hondoratza (1915)

Lusitania luxuzko itsasuntzi ingelesa zen, New-Yorketik Liverpool-era egiten zuena bidaia bi mila pasaiariekin eta eskifaia zortzirehun pertsonena zelarik. Uretaratu zenean bere bizkia zen MAURETANIArekin munduko itsasuntzi haundiiena zen. Egunean mila tona ikatz irensten zituen 25 nudotara joanik, eta Zinta Urdina jasotzearen egina zegoen, hau da Atlantikoa zeharkatzen denbora gutiena ematen zuen itsasuntziari eskaintzen zitziona.

Gerra garaia zen eta alemanek arazo handiak sortu zizkieten ingelesei. Hala eta guztiz ere Washintongo alemaniarrak enbaxadak abisua hedatu zuen prentsan esanez itsasuntzi horretan enbarkatzen zutenek eta Britania Handiko itsasuntzietan edo hauen aliatuetan beren erresponsabilidate osoz egiten zutela, gerla objetibo gerta baitzitekeen.

Horrela bada, 1915eko maiatzaren zazpian Irlandako hegoaldeko kosta zohoalarik alemaniarrak submarino batek torpedoz hondoratu zuen LUSITANIA. Mila ehun eta laurogeita hamazortzi hil gertatu ziren, zeinetarik 124 iparamerikarrak ziren. Zazpirehun eta laurogeita bost pasaiari ere hil ziren, zeinetarik berrehun eta laurogei ta hamaika emakume eta laurogei eta hamalau haur. Pasaiarien artean Vanderbilt milionarioa ere zohoan, eta ingelesa ez jakin arren Bizente Egañak, *Olabeagan jayota / Abandon bataiatua / Mejikoa juan zan oso gaztia...*, bertsotan paperak dioen bezala, asko eta asko salbatu zituen kronika guztiak azpimarratu zutenez.

Enbaxada alemaniarreko batek itsuski gertaera tragikoareen gainean hitzok esan zituen, *ez gara errudun pertsona hauek bere buruaz beste egin nahi izanaz*. Jakin zen egun berean Londresen manifestaldiak izan ziren eta Aleman komertzioen Ekintzak. Erresponsabilidadeak alemanak ez ezik badirudi kapitainak eta ingeles gobernuak zituela, armak karreiatzen zituztenez transatlantikoak. Gertaera honen eta antzekoen ondorioz Estatu

Batuek gizarte iritziak bultzaturik I Mundu Gerran parte hartza erabaki zuten.

*Eskualduna-* k Baionako astekariak honako kronikatxoa zekarren gertaeraz:

Lusitania untzi handi hartako bi mila eta gehiago jendetarik omen dira 703 bizirik athera dituztenak 45 ondoan hil direlako berria dugu.

Itho dire 1502. Zer jendetza! Gero-ta samurrago dire Norte-Amerikanoak, zuzenik gabe hil diozkotela hoik oro eta untzi bat ederra suntsitu dutela, anglesa izanik ere jauz-araz etzezaketena gerlako legen arabera. Pekatu beharko dutela, diren bezalakoek, alemankeria hori eginik, bertzen gainera.

Ez dire izituak Amerikanoak; bertze untzi bat itsasoari lotzera zoana, 879 pasaientekein aitzina joan da, ukho egite orde; 879 pasaietarik 12 dire bakarrik gelditu leihorrean, lanjerari lotsaz.

Ageriko alemanek hats bera dutenez atxikiko, mundu guzia gontzearik jauz arazi arte.

Burutik badutenez gaude, hoinbertze etsai zahar eta berriren ez baitire beldur!<sup>42</sup>.

Eta hona *Euzkadi* aldizkarian gaztelaniaz beste albisteen artean euskal heroiaz agertu zen albistea

### Un vasco heroico

Paris. «Le Figaro» de hoy publica un telegrama dando cuenta de que un vasco, llamado Vicente Egaña, se distinguió por su heroismo, salvando á muchas mujeres y niños de la catástrofe del «Lusitania», con gran exposición de su vida.

Vicente se negó á tomar sitio en los botes de salvamento, cediendo su puesto á una señora.

Después recorrió el buque de punta a punta dando ánimos a las mujeres y á los niños, conduciendo á las escalas de manos para depositarlas en las canoas.

<sup>42</sup> ESKUALDUNA, 1915-V-14.

Para todos tuvo frases de consuelo, haciendo fiestas a los niños con verdadera sangre fría, para infundir ánimo a sus madres.

Cuando ya el buque habíase hundido, Vicente Egaña se lanzó al agua, siendo recogido poco después por una canoa<sup>43</sup>.

Gertaera honi buruz gipuzkoar bertsolari gipuzkoarrak moldatu zituen bertso berriyak, hogeita bi zortziko handitan, edota iparraldekoen eran hemezortzi silabatako laukoetan.

### Domecq marinelaren hiltzia

Bukatzeko gaiei buruzko aurkezpentxo hau ekarriko dut hona gerra zibilaren garaian gertatutako hilketa triste baten oroitzapena. Pierre Bordazarek «Etxahun-Iruri»k moldatu zuen<sup>44</sup>. Zortzi bertso ditu eta bertso bakoitza sei bertsolero. Domecq izeneko Donibane Lohizungo marinel baten desgrazia du kantagai. Ageri zaigu artxiboetan Roger Domecq bat, agian hilaren anaia zitekeena, Frantziatik desertore bezala eta gero Miranda de Ebroko kontzentrazioko zelaian presoen artean<sup>45</sup>. Zortzi estrofa hauetarik Maika Etxekoparrek hiru soilik abesten ditu<sup>46</sup>.

### Ondorio gisara

Atarikoan eta bilduman zehar aurkeztu gaiek eta kantek gogorarazten digute Jesus Maria Leizaolak zioena XX. mendeko gertaeren kronika egiterakoan eta hauen oihartzuna euskal poesian, nola azpimarratzen zuen bertsolarien gertakizunekiko atxikimendua, historia hurbil eta urrunarekiko lotura, ikuspegi zorrotza, hala nola zenbait kasutan ironia eta umorea. Hona espreski hitzak:

<sup>43</sup> EUZKADI, 1915eko maiatzaren 12an.

<sup>44</sup> Jakes Larondo (ed.), *Etxahun-Iruri khantan*. Pau, IPA, 1977, 94-96.

<sup>45</sup> Guy Lalanne et Jacques Ospital, 1936-1945. *Ascain, Ciboure, Saint-Jean-de-Luz, Urrugne. Témoignages d'une époque*. Kakintza/Clermont-Ferrand, 2010.

<sup>46</sup> Txomin Artola et al., *Itsas kantuak. Chants de marins*. Elkar 2010.

Lo más importante, acaso, a deducir del presente estudio es que los vascos, aun en sus capas populares, han gustado de apreciar en su más alta importancia los acontecimientos históricos; no se han limitado a considerar los hechos cotidianos que han suscitado una emoción local más o menos pasajera. Cuando les ha tocado ser actores, en calidad de elementos de una gran masa, en una importante empresa, les ha interesado representarse ésta en su conjunto y en las cumbres mismas en que era dirigida. Por lo cual, al lado de las composiciones poéticas que han dedicado cada día a los episodios en que tomaban parte, han sabido reclamar la gran crónica que situara sus experiencias directas y personales en el cuadro universal del que eran tan sólo detalles particulares<sup>47</sup>.

Balden multzo zabalaren artean bada, beraz, sail bat itsasoarekin lotua dena batipat kontatzen diguna tragedien kronikak, gehienetan data zehatzak emanik, zein izan ziren itsasuntzi hondoratuak, hauen izenak eta zein itoriko pertsonaiak. Hogei bildu ahal izan ditugu gure ahalegin honetan, eta ez nintzateke harrituko bazterretan denboraz gehiago aurkitzea, euskal marinel eta arrantzaleak ekintza gizonak idazleak baino areago izan arren, estuak, handiak eta maiz tragikoak izan baitzitzten itsasoarekiko harremanak.

Kanta bildumatxoa, beraz, oroimen hori gal ez dadin asmoz duzu burutua.

---

<sup>47</sup> Jesúa M<sup>a</sup> Leizaola, *Acontecimientos del siglo XX y su influencia en la poesía vasca*. Ekin, Buenos Aires 1974, 93.

## ITSASOKO TRAGEDIEN KANTA BILDUMA

*Andante mosso*

**LA NUERA**

7.

Al-daztof.e - an nen.go.an.e - an if.a go.ru.e -

1.

tan, e-tof.i dat.an ef.oizaf.a grau.e.tan

2.

grau.e.tan. Er.oizaf.a gzer da ka.zu

**EL CUERVO**

al.bis.te? A.lamarke.a gal.du.da.la

**LA NUERA**

di.no.e Gal.dunazba.da.a.laba so.(t)bage.a.

**X. Romances y Cuentos**

Antxonebas.an o.ge.ta bat len.gu.su ta ne.be.a,

a.rek bai.no be.af.a.go.a ai.ta neu.re.a.

A.rekguzti.ak bai.no az.kari.a.go jaubea.a.

**LA SUEGRA**

az.kan.en.go e.sandon.a yau.be.a? E.sanbe.ban.an

len.engota.tik yau.be.a, i.zangoeban.an

**LA NUERA**

al daztof.e.an parte.a. Nik neu.re.a dot

goi.an da.go.an ka.xe.a, ta.pez ta.pe.ra.i.no di.ruz

1. 2.

be.te.a be.te.a. I.mi.ne.a.gaz

ne.ban uf.e gof.i.a, a.ne.ge.a.gaz ne.ban ur.e.

zu.ri.a. Mi.la du.kat ne.ban i.sil.

pol.tse.a ja be.re ba.zan a.la.baonbat.en

do-te - al      Al\_dazto\_fe - ak a\_te.ak dit ux

le\_tu\_ez, ango pla\_ter pi\_txe\_ru - ak zi\_daf.ez.

Yo - an al\_a e\_gon ein\_got, a\_ma neu\_re - a?

**LA SUEGRA**

Ye - an, yo - an, neu\_re a\_la\_ba mai\_te - a.

**LA NUERA**

Aur\_txo\_txi\_kin - ak sa - bel\_e an deust os - ti \_ko,

Yaun ze\_ruko - ak al dauseme\_a sor\_tu \_ko.

**LA SUEGRA**

Nai dan se\_me nai dan a - la \_ba, al \_dazto\_fe - an

1.      2.

par - te\_a i - zan - go do\_n\_a. go do\_n\_a.

## I

ALDAZTORREA<sup>48</sup>

[Erraina] Aldaztorrean nengoanean irra<sup>49</sup> goruetan  
 Etorri jatan erroi zarra grauetan, grauetan.  
 – Erroi zarra, zer dakarzu albiste?  
 [Bela] – Ala markea galdu dala dinoe.

<sup>48</sup> R. M. Azkue, *Cancionero popular vasco.*, Bilbao, 1923. 2. ed. 1968, T. II, 932.

<sup>49</sup> Irra, hots onomatopeikoa, *irra goruetan* «hilando».

[Erraina] – Galdu naz, bada, alaba ditxa bagea.  
 Antxe nebazan ogeta bat lengusu ta nebea.  
 Arek baino bearrago aita neurea,  
 Arek guztiak baino azkarriago jaubea.  
 [Amaginarreba] – Zer dinona, puerka lotsa bagea?  
 Azkanengo esan dona jaubea?  
 Esan baebanan lenengotatik jaubea,  
 Izango ebanan Aldaztorrean partea.  
 [Erraina] – Nik neurea dot goian dagoan kaxea,  
 Tapez taperaino diruz betea.  
 Imineagaz neban urre gorria,  
 Anegeagaz neban urre zuria.  
 Mila dukat neban isil poltsea,  
 A bere bazan alaba on baten dotea!  
 Aldaztorreak ateak dituz letuez,  
 Anglo plater-pitxerrak zidarrez.  
 – Joanala egon eingot, ama neurea?  
 [Amaginarreba] – Joan! joan, neure alaba maitea!  
 [Erraina] – Aurtxo txikinak deust ostiko,  
 Jaun zerukoak aldau semea sortuko.  
 [Amaginarreba] – Nai dan semea, nai dan alaba,  
 Aldaztorrean partea izango dona.

## II

**ZARRANTZAKO PENAK<sup>50</sup>**

1. Hainitzten ahotikan bai diat aditu,  
 Denborak lehendanik direla ematu,  
 Mainak aurthen gurekin izatu baitire,  
 Mintzatu beharko ziteian bertzela ere.

---

<sup>50</sup> Patri Urkizu, *Bertso zahar eta berri zenbaiten bilduma* (1798). Durangoko udala 1987, 102-105.  
 Música B. Metrika: 13 AAAA.

2. Noiz ere baitzituen hamasei otsailak,  
Eman izan gintuan hiritikan belak.  
Ilhabete hunek gintuan fagoratu,  
Ordainez martxoak xoil kruelki tratatu.
3. Martxoak hirurean hasi alta<sup>51</sup> urtzen,  
Itsasoa zuan haizez osoki armatzen,  
Ez huan ordutikan hilaren finaraino,  
Izatu pausurik guretzat egundaino.
4. Zenbat belatxo hartze, zenbat trebes jartze,  
Papaioa<sup>52</sup> nausi eta gabiatik galtze,  
Hamahiruraino gintian frogatu,  
Momentu tristerikan han artean pasatu.
5. Hamalaurean huen haizea hain handi,  
Halaber itsasoa hanbat izigarri,  
Non baikinduan jarri biharamun artian,  
Su eta khepean hekin burua etsian.
6. San Josephen bezpera hire egun tristea,  
Orduko itsasoaren gauzaren dorphea,  
Espantitzeko zuen nola gure untzia,  
Etzen erdiratu egun hartan guzia.
7. Lema bastoina zuan egun hartan hautsi,  
Bai eta papaioa ezin hartuz utzi,  
Bai gehiago dena lemako burdina,  
Hautsia aurkhitu, han zuan bada mina.
8. Hirur palenkuz<sup>53</sup> gindian lema trunkatu,  
Eta sahetsetarik palenkinez<sup>54</sup> hartu,

<sup>51</sup> *Alta*, ordea.

<sup>52</sup> *Papaio, papahigo*, Guillén y Tatoren arabera horrela deitzen zaio lau puntako belari, bai karratu bai trapezoidalari. (Migel Laburu, *Itsas dokumentu zaharretan erabilitako hitzak jasotzen dituen hiztegi laburra*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1992, 86).

<sup>53</sup> *Palenku*, palanka.

<sup>54</sup> Palenkin, sokaburu (cabo) edo aparejua belak jasotzeko balio duena.

Lema bastoina ere fite zuan moldatu  
 Eta delienki bere tokian sarthu.

9. Bertze egunez deus ere erranagatik,  
 Ezkintuan batere hobeki horgatik,  
 Gure egun guzietako penen errateko,  
 Aithortzen diat ni sobra naizela flako.
10. Ez zituan ez xoilki haize itsasoak,  
 Gure hituan etsai egun orozkoak,  
 Bertze etsai berri bat zuan hekin juntatu,  
 Tronpan bietako ura belan agertu.
11. Ordu harten nituen bertzeak ahantzi,  
 Kontsulta egiterat goiti iganarazi,  
 Ur hora nondikan heldu othe zen jakiteko,  
 Eta gero zenbait entsaiu egiteko.
12. Hainitz luzatu gabe bazuan berria,  
 Brankaren azpitikan zela ithurria,  
 Halaber orain bazela aborreko<sup>55</sup> aldean,  
 Istripak utzia beso bat hartzean.
13. Ordu harten ziteian bai deliberatu,  
 Purrina<sup>56</sup> ematerat laster entsaiatu,  
 Brankaren ezpartza<sup>57</sup> nola ur handian baitzen,  
 Alferrik zituan hartako pulunpatzen.
14. Oh! Bada zuk dakizu, Jauna, o handia,  
 Ordu hartako gure bihotzen berria,  
 Fagoratu gintuzun, jauna, zure graziez,  
 Eskerrak merezi dituzu bethi ordainez.


---

<sup>55</sup> *Aborra*, Brankara begira ezkerraldea.

<sup>56</sup> *Purriña*, alkitrana.

<sup>57</sup> *Ezpartza*, espartzu.

15. Aphirilak zituen justu hemeretzi,  
Noiz ere baikinduen zundaz ardietsi,  
Bazko egun handian ginduen atheratu,  
Biaramunean Plazentzan<sup>58</sup> barnan sarthu.
16. Foferta<sup>59</sup> behar diat hemen bai aiphatu,  
Zenbat untzi gaxo hora zen tormentatu.  
Jakin ezak Zarrantza dela haren izena  
Jaungikoak bethi demola<sup>60</sup> fortuna ona.



<sup>58</sup> Placencia, - Plentziaren izen zaharra, Ternuako portua.

<sup>59</sup> Il faut faire ça > foferta, asuntua, afera.

<sup>60</sup> Demola, adizkera trinko zaharra, eman diezaiola.

14

Ordu hirian hizkia berriae afantzi-  
comun, egutiketan goiti-zigorraren arazi  
ne hera Nondikan hilobetan sagutako  
eta gureko tenbaia entzajie agusteko.

**Hainbat** luculu jabe baneanberria  
granum apertum. Cela ithurria  
zelotak oparrak a abozco aldean  
lurraue utria. Giso los erihartearas.

Ordu hirian <sup>bat</sup> etxean solilekuare  
murrina emateko berriko intxaratu  
Branianen lepoxketa nola urteko bihotz  
a hiria etxian. Kortaco pribilagazien.

**Oñibada** eue dagu ikastaroan Hantzia  
oia, Kortaco, gure bikoizten berria.  
Igotako gudukutxen tauna emerigune  
egunera miretik diktatu biki dimitu

**Aphir** Ula, etxean jeste komendatza  
mikelare basquindun. Lurraldeko eritzia  
ezkerreko egungo dabil guindun atxialak  
bi zaramanean. P. Lumentxa <sup>famor</sup> Zarthe

15

15

**Bofortsa** behar zatikorrean aipale  
Cedatiketan <sup>Adolfo</sup> gasko duna en formantzu  
Igantxeak Carantia dela Baion rionean  
Inugorrioi <sup>ekhi</sup> Sanola Fortuna <sup>ekhi</sup>

16

Guerlaco Coplac Louis XIV. ♦  
**Donibane** aipale bide  
Copla hauz Etxan diru  
Escal-herrrian Cantatzen  
behar dire aditu  
Frantzisko-Hirigoyen.  
diri laudoristan  
Exangela ororentan  
Espanolen laidaten

17

Vive reto Francisco gure-Eizquierdo nobilio  
Jaincoa ondoa duela haren magistalea  
merioa dien becala lruida-Eagun ohiez  
Espanioldok astirak har dezelako amorez

18

Bietki bizi behar hizkia gure Eizquierdo edate  
haren Corbitari legia jare gu Etxaldeinac  
Maita Iragorri gure Corbita armaduna  
Espaniol: bai gure hizkia hizkia hizkia

Baionako Euskal Erakustegiko Eskuzkribua, MS97


## III

HABANAKO KORBETAREN GALERA<sup>61</sup>

Txoriya bezin aguro ontzi ederra bat batean  
Aizeak utzi zuben geldirik Gaztelubaren atzean.  
Eta erriyen egun santuan nairik sartu Donostian,  
Numbait Jainkoak maiterik sartu zituben danak zeruban.

<sup>61</sup> José Ramón Pérez Alen, »Recuerdos donostiarras. El naufragio de la corbeta». *Euskal-Erria*, revista bascongada, 505-507. Vida Vasca, nº 42, 1965, 73-75.

## IV

LÉOPOLDINA-ROSAREN PULUNPA<sup>62</sup> (1842)

Léopoldina-Rosa itsasuntzia

1. Mila zortzi ehun eta berrogoi eta bigarrena,  
Uztail<sup>63</sup> hilabetearen hamaseigarren eguna,  
Kantu berri xarmagarri hauk eman izan nituiena,  
Suiet bat errekontraturik zitakeien ederrena.
2. Sujet bat ederra zela guzia da egia,  
Inposible litzateke horren disimulatzia.  
Malur horrek harrituren tu España eta Frantzia,  
Horren bertze pasaierekin galdu izan den untzia.
3. Han<sup>64</sup> ziren pena handiak erresusarik gabiak,  
Herioa<sup>65</sup> ikhusten eta ihesi ezingiak.  
Han baziren gure jendiak, ahaidiak<sup>66</sup>, adiskidiak:  
Miserabliak itho dira, heiek egin dituzte Indiak.

<sup>62</sup> Francisque Michel, *Le Pays Basque*, ... F. Didot, Paris, 1857, 348-352. Metrika: 15 AAAA; Elaudi taldearen *Denborarena* diskaren ageri da zati bat 16. lumeroan.

<sup>63</sup> B deituko dugun 1894ko bertsioan, *uztailaren...*

<sup>64</sup> *Hauk* (B).

<sup>65</sup> *Heriotza* (B).

<sup>66</sup> *Aideak* (B).

4. Untzi hartan haste hastetik, Baionatik pharthitzetik  
Zer nahi sofritu dute pena guzien parthetik;  
Urrun bethi plazerretik Monte-Bideorat heltzetik,  
Nigar eta heiagoraz phartitu dira mundutik.
5. Senharra eta emaztia bere haurrekilan  
Gerlan aritu izan dire herioarekilan<sup>67</sup>;  
Azkenian itho dira oro elgarrekilan,  
Itsasoaren kolerak juan ditu berekilan.
6. Suietik aski badugu gure baithan sartzeko,  
Arima gaixo horien zerurat gomendatzeko.  
Zer malurra horien dako, exenplu bat guretako,  
Bihotzean sar balakigu, maiz Jainkoaz orhoitzeko.
7. Ikhusi ginituenian Monte-Bideoko leihorak  
Han ziren mundu huntako plazer guzien ondarrak:  
Hantik goiti deihadarrak, nigarrak eta marraskak<sup>68</sup>,  
Mila fritz<sup>69</sup> egin zituen itsasoaren indarrak.
8. Deusik ez da gizona ez gizonaren jakina,  
Guziak garhaitzen ditu Jainko jaunaren dohainak:  
Han itho dira gizonak igerika zakitenak;  
Bertze batzu eskapatu batere ez zakitenak.
9. Kapitainaz kestione mintzo dira jendiak;  
Nik ez dezaket juja zoinek dioten egia.  
Ez da remediorik engoitik hek juanak dira.  
Afera<sup>70</sup> hortan auzitarat nihor ez daite abia.
10. Untzi haren kapitaina zen gizon jakina,  
Ez zen kargu hartarako izan ez balitz entzuna;  
Hura ere gu bezala hiltzera mundura jina,  
Han itho diren guzientzat hura izan azken orena.

<sup>67</sup> Herioarekilan (B).

<sup>68</sup> Malurrak (B).

<sup>69</sup> Frisa, okzitanieraz Puska (B).

<sup>70</sup> Afera (B).

11. Mundu hantan laur kantoin bazter guzietan,  
Berri hau hedaturen da, ez da dudarikan;  
Arribatzen denian heskualdun herriean,  
Aita amak urthuren dira nigarrez xagrinetan.
12. Berrehun eta hogoi eta hamabi presuna  
Mement batez funditu dira, oi zer bihotz mina!  
Zerurat egiten zituzten marraska, oihu saminak<sup>71</sup>,  
Othoizten zituztelarik Jainkoa eta Birjina.
13. Untzi hartako presuna gaixuen gidaria  
Badakit nungo seme zen pasaierketaria.  
Ofizio miserablia zuien, ene idurian:  
Bere pasaier guziekin zeruan dago agian.
14. Urrikaltzeko dira pasaierketariak:  
Heldu zainten urthiak baino juan direnak hobiak.  
Letra letraren gainianigorri behar dira,  
Frantzian lurrik duiena ez dadin hunat abia
15. Frantziatik jin ginen zer nahi den gostarik,  
Ginituen erresursa guzia xahuturik:  
Monte-Bideon gira orai xagrinez<sup>72</sup> aberasturik,  
**Eskual herriaz oroitzean nigarretan urturik<sup>73</sup>.**
16. Hamaseigarren bertsu hantan orai nuha sartzera,  
Suieta frango banuke, bainan presatzen naiz finitzera.  
Monte-Bideorat jin nintzan kantu hauien moldatzera,  
Oxala juan banindadi Baionarat kantatzera!

---

<sup>71</sup> *Marraska, oihu saminak*, kanta tragikoetan ohiko estilemak.

<sup>72</sup> *Xangrinez* (B).

<sup>73</sup> Hamabosgarren bertsoko azken bertsolerra Michelek jaso zuen bertsioan falta da, eta hona nola 37 urte geroago Goitiñok argitaratu bertsioari esker kanta osatu ahal izan den. Bestalde, argi eta garbi dago, beraz, koplarria emigrazioaren kontrako ageri zaigula.

**ESKUAL HERRIA**

Berriketari Eskualduna agetzen dena Larumbate guziez.

LIB. 2a—Nº 48.

LOS ANGELES, CALIF. UZTAILEAREN 28a 1894a.

PREZIOA: 5 SOS.

Eskual-Herria.	GOAZIN AMERIKETARA!	ARTZAINAK.
The only Basque Newspaper in North America, published in Los Angeles, California, every week.	(HAN LEHIER EGITARIA.)	Airetan garbiena, billearrare has-teko;
J. P. GOYTINO, Editor, 330 New High Street, Los Angeles, Calif., aawenak class etorera.	Mila sariak eta erakundea da bigarrena. Usasko hilebatasera hamasgunea eguna; Kantu berri charmagari hauk oman nitezen, Suet hat errekoturrik zitsaketa ederrena.	Beth barne ungi, dearen yateko.
Eskual-Herria.	2. Sustat hat ederra eta gizela egia, Imposiblo hizketa horren distinutibitatea. Maihor horretan harriturera Esparta eta Frantzia, Herronberreta passegarrak geldi izanden untzia.	"Aita, ama, haurrenak, guia doiena Serres-eo daramata bizi arrainen; Dira guia sakelan, baina nihonier, Iribilatara gabe nihoren onari."
J. P. Goytino, Relator, 330 New High, Los Angeles, Calif.	3. Hauk zirene pean handiak erresurrus gabeak, Heriotza ikusten eta ihes ein gizak; Hauzazien gara yondzik aldeak eta adiskideak, Miserabil Rodriguez ayet egun dituzten indiek.	"Aztuen behin gaesa ekartzen nioten; Hek-ko-ki-ria suaudos ematen; Partida guineu anank zioela, Lugan eta orwak baita ninala diela."
Eskual-Herria.	4. Untzi artan laste hastik Bayonnet paristietik, Zer nahi sufitu du guzti partitik, Urrun beti plazetik Montaventora elizatik Negr eta ergarri partitutu dimiditik.	Harriz deus den ekox, horria hue-tunen; Akti alfera bada, gordeko bederen.
El unico periódico basco publicado en la América Septentrional, paraíso de los Estados Unidos, en la ciudad de Los Angeles, California, el abade de cada semana.	5. Senarr eta ematese bere haurrekulan, Gurin arautz eta dire herren-skulan, Azkenean Ito dira oso elkarrekin, Hitzasunean kolorez yuxitutu leozkin.	Harriz etatuak gauza zaharrenak Arriatzen, badute lan bildotsak nor-
J. P. Goytino, Director, 330 V.A New High.	6. Sustikit asti hadugu + ten sareteko, Ariko gaiho horren zerratu gomendatikak, Zer mahaize horizonte example bat guretsak, Bilotsa eta bolatxoi mai yankosko orozko.	Nola negua bade bere hortzotan; Baldan ere badute libelarra udako, Eziliztenak yaunek betuti bere-
Eskual-Herria.	7. Hizkia giuntenak Montevideo leozkera, Hantziun mindu antza, hizkeren onderek, Hanklik goti deadezak gizarrak eta hizkarrak, Mila paska egia lituzten Basquean hilazkarak.	Tako, Huna-xen batzek nigarrez ater-
Die einzige Zeitung in Amerika-Nord, die in der Stadt Los Angeles, Calif., erscheint. Zweitens, J. P. Goytino, Redakteur, 330 V.A New High.	8. Diskut artetik gurezko gauza zaharrenak, Gurin arautzak, yatziko gauza zaharrenak, An ito dia gizonek hiperia saktasun, Bertze batzuk eskapatu hatera straketenak.	Artzainak usterter zeanen lerratu;
Festual-Herria.	9. Kapitainen gurezko gauza zaharrenak, Nik artetik gurezko gauza zaharrenak, Eta erremontirik engoitik gauza zaharrenak, Afersa zaintzen mordetako pibila.	"Ene antzu gacheak behar ditut biti"; Baldin, atertzer shun eta sosti; Hora gaizka sarri et diut ikusmenen; Kakurak gaiago eano ex defizitene.
California eta Estatubatko Eskudunen Berrikira	10. Ustazaren kapitainen gurezko gauza zaharrenak, Etxeko hizkarrak horren ospalitz estunaka, Ura horrengatik balea etorrera muduria yera, Bilotsa dira gurentzat usi azken beguna.	"Itzalak astura, hizzen ferakon, Borta lo eginkiz naga sorropil panti-
J. P. Goytino — Etxea, 330 New High Street, Los Angeles, Calif.	11. Maudu hizkarrak iau karreto kantze gurentzat, Berriz horren hizkarrak eta durbakuntza, Arribatzen denien Eskual herrietan, Alta smak urtredunetik nigeri changriten.	tokan; Bista naramonko nihongo aieniek, Ex de Napoleonak hobera egunkiak;
PAPER HUNEN PREOCIO Amerikaner..... Urteko 25.000.000..... Hiru libelarrak.	12. Berroren eta hogezi eta hamelez gurentzak, Momeno hauza familia diri si era haur mila, Zenur egiten zituzten makroak, eixa amaria, Otoizoen zituztenak Yakinak eta Biryan.	"Hil salaintz ginen zapiri zorti bilizan;... Bi nos yokan emanak ederkiz yotaseen;
Frantziak.	13. Ustazaren kapitainen gurezko gauza zaharrenak, Etxeko hizkarrak horren ospalitz estunaka, Ura horrengatik balea etorrera muduria yera, Bilotsa dira gurentzat usi azken beguna.	Lauheren paretan alia zirela ardia, Gure begin bihotzak ageri gizak "Uhabiatzen pilortan, harroka ga-
12 liburu urtikoa. Hizkien pagatzen da.	Beira emanaten ginen, ederren alde titik;	
RED STAR LINE (Jaro Gorria)	14. Ustazaren kapitainen gurezko gauza zaharrenak, Bereko hizkarrak horren ospalitz estunaka, Otoizoen zituztenak Yakinak eta Biryan,	Begiatzen gitzen Lapurdik gurena, Limbu landa litorri itasleo gurtzen.
New York-ekit. Auvers erat yohau deni baptrizak. Aterazten New York-ekit as-tezenak guizie.	15. Ustiz artetik gurezko gauza zaharrenak, Bodek artetik gurezko gauza zaharrenak, Ofizie misberia zmen ene bildurian, Bere pasyer guiziek zerian dago egilan.	"Sobra fresko zemeen neguko hazi zen;
Agente nautia: Los Angeles-estan. J. P. Goytino, 330 New High harraka.	16. Ustazaren kapitainen gurezko gauza zaharrenak, Heidi zaizten urteko hizkarrak hobiaik, Letra letzaren gainean igori bearreria, Franzisko lurrik durea estadiutu matu abia.	Erregearen bertze aldiz urratu egiten Ihku oso hedatzen, elur, harroka tan;
COMPAGNIE GENERALE TRANSATLANTIQUE	17. Ustiz artetik gurezko gauza zaharrenak, Gintzuan erreska guizik charakterik, Montevideo gira oral charginas aberaturik, Eskual herriak orotzten nigeretan urtik.	Espaniako herri yauntzak belatz tan;
New York-ekit. Haurren zehaz diren baptrizak. Aterazten dire New York-ekit eta Haurren zehaz guizie.	18. Amazi garren herri orri maa sartzea, Sujeta frakko banuke hauen prizaten maa finitzera Montevideoan yin sintzen kantu hauen modatzeera, Ojala juan benedatu Bayoneta kantazera.	"Tako eta gama, marrakuko goik, Sendatzen dituztenak sarebeko baikak,
Compagnie Bordelaise.	19. Ustiz artetik gurezko gauza zaharrenak, Gintzuan erreska guizik charakterik, Montevideo gira oral charginas aberaturik, Eskual herriak orotzten nigeretan urtik.	Etxebala albasiez atzirro ekasten; Desmet hain hobeki indar zurieta;
New York-ekit. Borkalentz yohan diren baptrizak.	20. Ibarri sierretan, ur garbi silar, Es baitu buru minik ematen nebori;	"Ibarri sierretan, ur garbi silar, Es baitu buru minik ematen nebori;
Agente nautia: Californian: J. P. Goytino, 330 New High harraka, Los Angeles, Calif.		

California-ko Eskual Herria, 1894-VII-28

## V

**MARI<sup>74</sup>**

1. Aspaldi ontan egun eta gau zitzaidan biotza ari,  
kanta nezala nola bizita eta il izan zan Mari,  
egiyaz gizontasunak asko zor diyolako berari,  
lan au bearra dala sinistu eta asten naiz kantari.
2. Itsaso zabal urdin ederra, goia dezula musutzen,  
umil ikusten zaitugu iñoi bañan gaituzu izutzen.  
Zergatik zera berdeturikan denakin burruka jartzen?  
Ez dakigu guk zerengatikan zeran orrela zakartzan.
3. Nork esan eder zauden denboran, jarririk zuri begira,  
golpez artuko dezula gero ikusten zaizun mugira?  
Arraiketari txalupak ezin jira dirala errira,  
zuk jo ta mila puska egiten frankotan ikusten dira.
4. Puskak jostailu gisan botaka dabiltzanean aidean,  
gizon tristeak azaltzen dira, puskeriyaren gainean.  
Bainan, o!, gero zer pasatzen da? Zer gertatutzen zaie an?  
Aundiagoko golpeak jo ta gordetzen ditu urpean.
5. Begira zagun orain portura ia zer dan an gertatzen  
amak, emazte eta semeak denak an dira juntatzen;  
eta galduzten dabilzanaren berririk bada etortzen,  
biotzak penaz erdiraturik negarrez dirade jartzen.
6. O Mari leial, on biotz utsa, aien malkoak txukatzen  
zenbait alditan saiatzen zinan gustoz zinala nekatzen;  
aitu ordukoz txalupak nola zebiltzan kanpoan galtzen,  
il edo bizi joanda zinduzen ango gizonak ekartzen.

---

<sup>74</sup> Ramón Artola, «Jose María Zubia, Mari zeritzen gizon onoretsuaren oroitzan kantatxo», *Sagardoaren graziya II*, Ed. A. Zavala, Auspox 2003, 97-99.

7. Zure biotza maiz azaltzen zan iruki arren gordean, zenak bulkarik gorputza jarri eraitu zizun lanean; non zan estura-aldi gogor bat eta beti zu zinan an, anaia maite asko salbatu oi zinduben urganean.
8. Zenbait onlako eginbide on gertatu oi zan zugandik, beragatikan zure oroitzik ez da galduzen gugandik zu ito arren zuk salbatubak bizi dirade oraindik, zere bizitza eman zenduben aurkezten mesede aundik.
9. Gisa onetan bizi zinala ailegatu zan eguna, o zein tristea, geroztik ongi denok gogoan deguna; au zan txalupak galdu zirana, aizetsu oso iluna, ango gizonak salbatzen zere biziya galdu zenduna.
10. Aiek azkentzen zeuden denboran ezin ibiliz igari, azaldu ziran beren laguntzan beste txalupa aundi bi. Zein zan aurretik ur mendi tontor aien gainetan giari? Andik minutu gutxira beren azpiyan ito zan Mari.
11. Nora zijoan goi-biak joaz ur mendi aiek barrena? Zer zan zeraman ibilbidea? Zer pentsamentu arrena? Besterik ez: penatuetaz kupiturikan barrena, esturan ziran lekura bera, irixteko aurrena.
12. Itxaso golpe izugarri bat jaikirik beren gainera, aurretik zana urez bete ta; joana izan zan gainbera; eta ondotik zanak lagunak zitubelarik atera, non zan geiago ikusi gabe itoa izan zan bera.
13. Bere anaiak salbatu naian galtzen dubenak biziya, ordu beretik gaude daukala zeruba irabaziya; onen erdiyan azalduko da omen ederrezz jantziya, gozatutzeko egin izandu zituben lanen sariya.

14. Lur ontan ere oroitza bada, ez da ontaz zer esanik,  
bere itxura altxa zitzaion otailutxo bat eginik;  
ontaz gain koroi berri bat kantuz uztaitzen diyot nik,  
zeren koroitu gabe ez deiken utzi alako gizonik<sup>75</sup>.



Donostiako moilean Mari-ren omenez eraikitako monumentua (1866)

<sup>75</sup> Hona dioena Donostiako Portuan eraikitako eskulturaren testuak:

URRIKALDUAK SALBATU NAYAZ EMAN ZENDUBEN BIZIYA,  
TA GAUR DAUKAZU, GOITALCHATUAZ OBIZ ITSASO AUNDIYA:  
iLO EGIN ZAZU BAGA ZONUAZ.... O GIZON MAITAGARRIYA!  
ONRATURIKAN ZURE GLORIYAZ DONOSTI ETA KANTAU RIYA.

## VI

SAINT-PAULGO GIZAJALEAK<sup>76</sup>*Manamenduen airian*

*Allegretto*

26.

1. Bordeletik joan ginen<sup>77</sup> uraren<sup>78</sup> gainean  
Saint-Paul izena zuen untzi ederrean,  
Heurtin<sup>79</sup> kapitaina zen gurekin batean,  
Calcotan arribatu osasun onean.
2. Gure jaun kapitaina han zaugun eritu  
Sukar batek baitzuen lanjeroski hartu,  
Noiz ere baitzen aphur bat sendatu,  
Marseillako alderat ginen abiatu.
3. Hazilaren hogoia partitu ginena,  
Astizkena baitzuen egun hark izena,  
Itsaso zabalean baikinuen lana,  
Orduan hautsi zaukun untziaren lema.

<sup>76</sup> Kantu Berria, 1868. *Un horrible repas*. Bayonne, Imprimerie, E. Lasserre, Ru Orbe 20. BNF, Z Basque n° 905.

<sup>77</sup> *Bordeletik joan ginen* da Azkuek eman zion titulua. N° 621.

<sup>78</sup> Orijinallean oker: *lurraren gainean*.

<sup>79</sup> Heurtin Azkueren bertsioan *Erten* bilakatu da.


4. Abendoaren seian kaloba trenkatu<sup>80</sup>,  
Eta untziaz laster bide makur hartu,  
Ahal nola baitugu gerotzik gidatu  
Aitzeak ez baigaitu hainitzik lagundu.
5. Sekulan orhoitzeko Eguberri eguna  
Hartan galdu ginuen gure etxe ona,  
Ihurstziri, tempesta, aize fanfarona,  
Bela masta guziak hautsi daukiguna.
6. Laster eman ginuen hurerat xalanta<sup>81</sup>,  
Eta ordu berean harekin kanota,  
Uretarat jautsi ginen guziak saltoka,  
Herioari buruz hartzera borroka.
7. Jan behar zen batailaz ginen okupatu,  
Hamar kilo bizkotxa baikintuen hartu,  
Baril tipi batean ura konserbatu,  
Haiekin zortzi egun ditugu pasatu.
8. Orduan hil zitzaukun libren kapitaina,  
Ez baitzuen gutitu gure bihotz mina,  
Othoizten zuelarik, oi Ama Birjina.  
Haren gomendiorat utzi du krima.
9. Hamasei lagunetzat, oi zer errepaxa,  
Lau pinta uretan kilo bat bizkotxa,  
Bakar orrend<...> en ogitik bi matsa,  
Ez zen hanitz a <ska>rtu ez gure gorputza.
10. Oro akabatuak ez jakin zer egin,  
Zorte egin ginuen zoin behar ginen hil,  
Hartarat erori zen Julien Girardin,  
Bera presentatu zen bihotz onarekin.

---

<sup>80</sup> Kaloba trenkatu, lema hautsi.

<sup>81</sup> Xalanta < chaland, fr. < khelandion gr., batela.

11. Odola baikinion orok hurrupatu,  
Bai eta haragia parte gontsomitu  
Oro jan gabetarik leihorra agertu,  
Bathanboka lurrean dugu enterratu.
12. Eskerrak bihurtzen Birjina Maria,  
Itsasoko izarra gure gidaria,  
Gutaz othoiztu duzu seme jaun handia,  
Ardietsi daukutzu miserikordia.
13. Goraki laudatzen dut zero lurren Jauna,  
Zeren gidatu nauen leihorra huna,  
Zu gabe deus ez gira orok dakiguna,  
Ori izan dezaketene ama ona.
14. Galdatzera juan nintzan erriko etxera  
Ene ama maitia nun bizi othe da,  
Besoak zabaldurik jalkitzen zen bidera,  
Berriz ez haut utziko itsasoz juaitera.
15. Zaharren abisuez ez dena behatzen,  
Mundu huntan guti da uros atheratzen,  
Exenplua ni baithan duzue ikhusten,  
Egier ez behatuz nola galtzer naizen.
16. Errespeta ditzagun aita eta ama,  
Haurrendago baitute amodioa ona,  
Herrian xerkaturik bizitzeko lana,  
Ahala bezenbat lagun zahartzetik barna.



Saint Paul itsasuntziak eginko azken arruta

## CANTU BERRIA

*Manamenduen airecan.— 1868*

### I.

Bordeletic yoan guinen, ~~purraren~~ gainean  
*Saint-Paul* icena çuen ungi ederrean  
 Heurtin capitaina cen guretzin batean  
 Calcotan arribatu osasun onean.

### II.

Gure yaun capitaina han çaugun eritu  
 Sucar batec baitçuen lanyerozki hartu,  
 Noiz ere baicen aphurbat senlatu  
 Marzellaico alderat guinen abiatu.

### III.

Hacilaren hogoya partitu guinena  
 Astiskena baiçuen egun harc icena  
 Itxaso çabalean baikinuen lana  
 Orduan hausí çaukun untciaren lema.

### IV.

Abendoaren seian caloba trencatu  
 Eta untciac laster bide makur hartu  
 Ahal nola baitugu guerostic guidatu  
 Aitceac ez baigaitu hainitcic lagundi.

### V.

Seculan orhoitceco Eguberri eguna  
 Hartan galdu guinuen gure etche ona  
 Ihurtciri tempesta aitce fansarona  
 Bela masto guciac hautci daukiguna.

### VI.

Later eman guinuen hurerat chalanta  
 Eta ordu berean harekin canota  
 Ibetarat yauxi guinen guciac saltoka  
 Herioari buruz lartcera borroca.

### VII.

Yan behar cen bataillas guinen ocupatu  
 Hamar kilo bizcocha baikintuen, hartu  
 Baril ttipi batean ura conserbatu  
 Heyekin çortci egun ditugu pasatu

### VIII.

Orduan hil citciäukun libren capitaina  
 Ez baitçuen gutitu gure bihotz mina  
 Othoitzen çuelaric oi Ama Birgina.  
 Haren gomendiorat uztci du arima.

— 8 —

## IX.

Hamasei lag netrat, oi cer errepa cha  
 Lau pinta urea yan kilo bat bizkocha  
 Bakaroren az ten oguitic bi matsu  
 Etcen hanitz a jirtu ez gure gorputca.

## X.

Oro akabatuac ez yakin cer eguin  
 Corte eguin c... uen coin behar guinen hil  
 Hartarat eroritzen Julien Girardin  
 Bera presentatutzen bilotz onarekin.

## XI.

Odola baikinioroc hurrupatu  
 Bai eta haragia parte gonsomitu  
 Oro yan gabetaric leihorra aguertu  
 Bathamboca lurrean dugu enterratu.

## XII.

Ezkerrac bihurtzen Birgina Maria  
 Itxasoco içarra gure guidaria  
 Gutaz othoitztu ducu Seme yaun handia  
 Ardiertxi daucutcu misericordia

## XIII.

Goraki laudatzen dut ceru lurren Yauna  
 Teren g... atu naben leihorra luuna  
 Cugabe deuz ez guira oroc dakiguna  
 Örai ikus deçaketene ama ona.

## XIV.

Galdatzen yuán nintçan errico etchera  
 Ene ama maitea num bitci othe da  
 Besoaa çabalduric yalkitzen cen bidera  
 Berriz ez haut utzico itxasos yuaitera.

## XV.

Caharren abisuez ez dena behatzen  
 Mundu huntan guti da uroz ahoratecen  
 Exemplua ni baithan duque ikhusten  
 Eguier ez behatuz nola galtcer naitzen

## XVI.

Errespeta ditçagun aita eta ama  
 Haurren dago baítute amodioa ona  
 Herrian chercaturic bitciceco lana  
 Ahalbecemba lagun çahartcetic barna.

FIN.

---

Bayonne, imprimerie E. LASSEURRE, rue Orbe, 20.

Baionan E. Lasserre-ren moldiztegian inprimaturiko bertsoen faksimilea (1868)  
 BNF, Z basque, nº 905

## VII

VILLE DU HAVRE-REN HONDORATZEA<sup>82</sup>*Lau ponduko airia*

On-tzi bat gal-du zau-ku i-tsa-so  
han-di-an, be-rre-hun pa-sa-jer  
ju-an tzen bar-ni-an. He-iien go-ra ma-rras-  
-kak han zi-ren or-du-ian, Jau-na-ri  
ko-men-da-tuz az-ken o-re-ni-an.

1. Untzi bat galdu zauku itsaso handian,  
Berrehun bat pasajers juan da barnian<sup>83</sup>,  
Heiagora<sup>84</sup>, marraska bazeñ han ordian,  
Jaunari gomendatuz azken orenian.
2. Frantzeza zen untzia Montobidoetan,  
Komersan zabilana zonbeit urthe huntan,

<sup>82</sup> 1876. M Fiche BNF, YO-2. COMPLAINTE sur l'épouvantable naufrage de la «Ville du Havre», Le navire français percé par le navire anglais... 226 passagers ithoric...

<sup>83</sup> Donostia 1007, *baziren barnian*; Donostia 1008, *juan tzen barnian*.

<sup>84</sup> Donostia 1007, 1008: *Heien gora*.

Errekontru gaistua izan da heietan,  
Erremarka bazuten hirur egun hartan.

3. Montobidoetarik lau egun orduko,  
Abisa ukhan faltaz etziren galtzeko,  
Odei bat jelgi zaie bistaren galtzeko,  
Urak iretsi ditu argitu deneko.
4. Gerlako untzi handi angles batendako,  
Malurra ukhan dute elgarren joiteko,  
Azken oren tristia, haren emandako,  
Othoitz egin dezagun gure arimendako.
5. Hirurehun pasajers, gehienak galdu,  
Lauetan hogojeta bederatzi salbu,  
Noiz eta direnian leihorrerat heldu,  
Ama birjinak ditu bere haurrek bildu.
6. Untziko kapitaina oihuka hasi zen,  
Jenden kontserbatzeko baxetak non ziren<sup>85</sup>?  
Hiruretarik biga hautsiak baitziren,  
Ororen salbateko bat baizikan etzen<sup>86</sup>.
7. Nigarrez juan dira othoitz egitera,  
Ama zu heldu zira arimen bidera,  
Harriturik jarri da itsasoa bera  
Nolakoa izanen dea Jainkuaren kolera.
8. Ameriketan zer da? Urhia metaka,  
Irabaziak altxa khondiak egin eta  
Beren ustez juanak fortunaren xerkha,  
Anhitzak han dabiltza eske borthaz bortha!

---

<sup>85</sup> Donostia 1007, Jende hoikien salbatzeko batxerak bon ziren; Donostia 1008, Jende hoien salbatzeko baxetak non ziren.

<sup>86</sup> Donostia 1007; jende oikien dalbatzeko bat baizik han etzen; Donostia 1008, jende hoien salbatzeko batbaizik han etzen.

9. Sorthu orduko haurrak, oro Amerika,  
Fin hunaren egiteko xedia gal eta  
Aberasten balira zuzenaren kontra,  
Anhitzak heldu dira bertzenaz har eta.
10. Frantziako haurretan badut konfidantza,  
Ameriketara alde ez gitela mintza.  
Hemen trabaila giten manera hon gisa,  
Zuzenian behar da gozatu intresa.
11. Bakotxak bere lurra ez du behar utzi,  
Bertzela izanen da etsaia nagusi,  
Diela zenbeit urte baitugu ikhusi,  
Gu Ameriketan, soldado ihesi!!
12. Hementik juaiten dira ontsa direlarik,  
Aita-ama maitiak etxian utzirik,  
Menturaz gehiago hetaz ez khasurik  
Zahartzen direnian ez dute jaberik.

**COMPLAINTÉ**

Sur l'épouvantable naufrage de la « Ville du Havre »

Le navire français percé par le navire anglais

226 PASSAYERS ITHORIC

LAU PENDUCO AIRIA

1.

Untci bat galdu çauku itsasoso handian  
Berehun bat passayers yuan du barnian  
Heyagorn, marraska, bazea han ordian;  
Yaluaari gomendatas, asken orenian.

2.

Francesca cen untcia Montobidoetan,  
Comersan cabilana, combeit urthe huntan;  
Errekontru gaitsuna içan da heyelan  
Erremarka baçunen hirour egun hortan.

3.

Montobidoetarie, lati egun orduco  
Alisa ukhau fallaz eteinen gallteco  
Odey bat yelgui çayeo bistaren gallteco  
Ourac iretci ditu arguitu deneco

4.

Guerlaco untci handi Anglez baten daco  
Molurra ukhan dute elgarren yotteco  
Asken oren tristia, barec eman daco  
Othioitz egunin dezagun, gue arimen daco

5.

Hirour eluhn passayers, guehienae galdu  
Laü etan hogoyeta bederatei salbu,  
Noiz eta direnian leyhorrerat heldu  
Ama birginae ditu bere haurrac bildu

6.

Untceco capitaina oihuka hassi cen  
Yenden conserbatocco lacietac non ciren?  
Hirour elarie biga hauitiae hauicren  
Ororen salbatecco bat basikan eten

7.

Nigarrez yuan dira othioitz eguitera  
Ama cu heidu circa arimen bidera  
Harriturie yarrida itsassaa bera  
Nolakoa içanen den yanukuaaren eslera

8.

« Ameriketan cerda? urhia metaka  
« trabaciea altxa khondiac egui eto  
« Beren ustez yuanae fortunaren cherkha  
« Auhitcae han dabilteca eske bor'laz bortha! »

9.

« Sorthu orluco haurrac, oro Amerika,  
« Fin hounaren eguitico chedia gal eta  
« Alerasten badira cuencaren cotira  
« Anhitiae heldu dira bertcenae kar eta »

10.

« Franciako haitirretan badut confidantea  
« Amerikaren alde ez guizela mintegia,  
« Hemen traba la guiten manera hon guisa  
« Cuencian beharla gozatu intressa »

11.

Bakotiaeñ bere lurra ez du lehar utei  
Bertcela içanen da Etxaya naguci  
Diela cembloit urthe bañigü ikhuci  
Gu Ameriketan, soldado ihessi !!!

12.

Hementic yualten dira, ontaq direlarie  
Ata-ama mañiæ etxian utciriæ  
Menturaz guehiazo li-taz ez klossurie  
Çahartzen direnian ez dute yaberriæ.

JEAN ETCHEPARE.

Ces deux chants plaintifs étant la propriété de Jean Etchepare, tou<sup>e</sup> contrefacteur sera poursuivi selon la rigueur des loies.

Imprimerie Nouvelle. — 7, place des Ecoles, à Pau.

Pariseko Liburutegi Nazionaleko bertso papera. (BNF, YO-2)

## VIII

KARMENZITAREN ERRESKATEA<sup>87</sup>

1. Kantatu nai det orain asiyo eder bat,  
Emen pasatu dana gu danaren bistan,  
Jakin nai badezute ote dan egiya,  
Erozeini galduetu besterikan ez da.
2. Emengo denboralak, emengo itsasoak,  
Borraska desegina eta aize fuerteak  
Mundu guztiya zeukan ikaraturikan,  
April onen amalaugarren egunean.
3. Iru barku ageri ziran emen Kontxan,  
Bi ziran espanyolak, bestia inglesa,  
Mary Lawson zan au ta bestia Eulalia,  
Irugarrena esana berriz Karmenzita.
4. Goizeko zazpiyetan goleta inglesa,  
Amarra faltatu ta juan zan ondarrera.  
Tripulaziyoko bi gizon ito ziran,  
Beste iru berriz larri ibilitu ziran.
5. Karabinero emengo ontziyan zeguen bat  
Gizarajua ito zan bere eginearrean.  
Jende guztiyen bistan, antxe mila puxka,  
Ordu erdien batian egin zan ontziya.
6. Korbeta Eulaliako tripulaziyu  
Karmenzitara pasa zan ura ikusita.  
Zergatikan seguru kontatzen etzan an,  
Eta ondarrera joan ote zan bildur zan.
7. Ikusi zan denboraz oien arrazoia,  
Eta orri meriyo diyote biziya.

---

<sup>87</sup> KM, Kulturunea, 52649.

Bara ordu baterako asi zan ontziya  
Faltatubaz amarrak juaten ondarrera.

8. Mundu guztiya zegon Karmenzitai beira,  
Noiz eramango zuen uraren ondarrera,  
Auxen dek, au pena! Auxen dek negarra!  
Ogeien bat marinel itoko ote dira!
9. Ordu bat pasatzen zan, gero beste ordu bat,  
Geruako ta gero txarrago itxasua,  
Mundu guztiya zeguen penaz beterikan,  
Peligruan gizonak ala ikusita!
10. Noizbait ere kayian seietakuartan  
Amabi gizon prestu danak Debakuak  
Artzen dute treinera beren kontukua,  
Eta ateratzera preparatzen dira.
11. Artu zuten treinera aiek ROMANITA,  
Eta bere patroia PEDRO KOROSTOLA,  
Arrekin bederatzi bere marinelak,  
Beste bostbat gainera agregatu ziran.
12. SANTIAGO KOROSTOLA, LORENZO LEKUONA,  
JOSE MARIA EGIA TA TOMAS GALDONA,  
ANGEL EMAZABEL, ALBERTO OZA eta  
ISAAK BERASATEGI ta bi ESNAOLAK.
13. FRANTZISKO ANDONEGI, kapitan prestuba,  
ta SALBADOR EGIA, onen marinela.  
EUSTAKIO IBARGUREN, aure kapitana,  
Eta EGAÑA anaiak, abek zumaitarrak.
14. Amabostak treineran presto sartzen dira,  
Eta agudo kaietik ateratzen dira,  
Mundu guztiya ayeri zeguen begira  
Ta gutxi ero geiago, danok bildur ziran.

15. Bainan aiek agudo, marinel prestubak,  
Naiz itxasua egon txarra ta aizetuba,  
Agudo KARMENZITAN plantatu baitziran,  
Peligruak, baliente, desafiyatubaz.
16. Ordu laurden bat baino lenago kayian,  
Ogei gizon salbatu ta plantatu ziran,  
Donostiaiko errian orlako asiyua  
Inork aztuko eztu urte batzubetan.
17. Bien, mutilak, baliente, orla portatubaz,  
beti izango zerazte kontsideratubak,  
Et'inork premiyorik naiz zuberi ez eman,  
Orrengatik, mutilak, ajolik ez izan.
18. Premiyorik onena da kontzientziya,  
Beti kontentu da ondo egiten dubena,  
Ta nere partetikan zuben alabantzan,  
Orra zuben izenak moldezko letretan.

77

# VERSO BERRIAC.

## ASIYO ONBATEN ALABANTSAN.

1  
Cantatu nai det orain  
asiyo eder bat  
emien pasatudana  
gu danaren vistan,  
Jaquin nai badezué  
oteden eguiya,  
eroenai galduet,  
besterian ezdá.

2  
Emengo demboralac,  
emengo itzasoac,  
borrascas deseguina  
eta aise fuerteac,  
mundu gustiya seucan  
icaraturicán,  
april onen amalau  
garren egunean.

3  
Iru barre agueri  
siran emen Conchan,  
bi siran españolac,  
bestia inglesá,  
*Mary Lanson* san au ta,  
bestia *Eulalia*,  
irugarerena esana,  
berris *Carmencita*.

4  
Goiseko saspiyetan,  
goleta inglesá,  
amarrac faltatu ta  
juantsan ondarrerá;  
Tripulasiyoco bi  
guison ilosirán  
beste iru berri larrí  
ibillitusrán.

5  
Carabinero emengo  
onciyan segiun bat  
guisarajua itozan  
Bere egun bearrean.  
Gende gustiun bistan  
anchen milla pusea  
ordu erdi en batian  
eguinsan onciya.

6  
Corbeta *Eulalia* co  
tripulaciuyá  
*Carmencita* pasa  
san ura icustá,  
sergatikan seguru  
contatzen ezan an,  
eta ondarrera juango  
otesan bildur zan.

(1) José eta Juan José.  
(2) Quiecenaren Industrialecua, Devacua.  
(3) San Luis Gonzagacua, Zumayatarra.  
(4) José María ta Pedro Cayetano.

Donostiyaren Aprilaren amazaspigarrea egunean, milla ta zortziuren iruoguetia amalanco urtean.  
(Es propiedad.)

## IX

JONAS ETA ANA<sup>88</sup>

1. Itxas eskina bitan Jonas eta Ana  
izan zan denbora bat bizitzen zirana;  
arratsetan arturik txalupatxo bana,  
itxasoan juntatzen ziran alkargana.
2. Gau ilunetan alkar bilatzeko giyak  
zituzten txalupetan nork beren argiyak;  
zeru alaia bazan, berriz, ilargiyak  
zituben alkargana giyatutzen biyak.
3. Alkarren amoriyoz itxutubak oso,  
egunak pasatutzen zituzten penoso;  
arratsak, berriz, biyotz zeuzkatenak preso,  
librean ipinirik, maitaro ta gozo.
4. Modu ontan zirala urte bat osoan,  
eriotzak atzitu zituan lazoan;  
bein egon ondorean izketa gozoan,  
eskutatubak izan ziran itxasoan.
5. Denborak emanikan uste gabe mura,  
txalupetara sartu zitzaioten ura;  
irten bainan len biyak leku segurura,  
alkarrekin itota joan ziran zerura.

---

<sup>88</sup> Ramon Artola, aip. lib., 72.

## X

**BERTSO BERRIAK MIKAELA ZARRANAK<sup>89</sup>**

1. Bertso berri batzuek ditut aterako  
*Apaiztegui jaunaren barku ontarako;*  
 Zeren badaukazkigun motiborik asko,  
 Jendeak pasatu du miseria franko.
2. Kantatu naiagatik gogoa non dago  
 Atzo indar gitxi ta egun gitxiago.  
 Zutik ezin egonik jende asko dago,  
 Ezurrak jasotzeko nai ainbat lan dago.
3. Pasadizoak ongi deklaratutzeko,  
 Abantea baneuka esplikatutzeko,  
 Indarrak juan eta memoria flako,  
 Kartzelakoen gisa sufritu bearko.
4. Barkurako jendea biltzen duanean,  
 Agintzeak audiak beren mingainean,  
 Indarrak ezin egin uraren gainean,  
 Jendea martxatu da miseria aundian.
5. Gizakumeak ere nai ainbat lanekin,  
 Galtzak ezin eduki gerrin uhalakin,  
 Jikara bana haba galleta urdinakin,  
 Nor egon bizirikan orien janakin?
6. Pasaian irten eta egun gutxin barrun,  
 Zorriak an zebiltzen ontzien ingurun,  
 Gutxienez baginen bosteun bat lagun,  
 Orra zer gobernua Apaiztegin barkun.
7. Nafarreria ere sartu zan barkura,  
 Orduan artu zuen jendeak tristura  
 Iru il ziran eta artu ta putzura,  
 Eriotza zor degu jaioak mundura.

---

<sup>89</sup> BNF, Z basque 27.

8. Iru lagun il ziran beste zazpi eri  
Ave Maria bezela egia da ori.  
Biotzetik eskatu Birjina Amari,  
Erremedio oberik ez da emen agiri.
9. Kuartilu bana ardu zuten agindue,  
Pozik erango gendun eman baligue,  
Beren itzen erdirik kunplitu ez due,  
Barku ontako jendea joan da saldue.
10. Emengo miseriak ongi agertzeko,  
Eun ta larogei bertso ez lirake asko  
Baina bastante dira entenditutzeko  
Poliki asi ginan ilaren ontarako.
11. Bagendun txokolate, kafe ta azukrea,  
Premian estaltzeko nezesidadea,  
Egiten utzi nai ez, miseri tristea!  
Lagun zaiguan arren Birjina maitea.
12. Kozineroa gendun ona ta leiala,  
Bizirik egoteko bagendun bearra,  
Berak jan ta eran egin, besteari farra,  
Frantses bizgorri, dana gizatxarra.
13. Kozinero ori da txit gizon prestua,  
Barku ontako jendeak dauka ezagutua,  
Alarguna omen da edadez zartua,  
Zazpi dozena ez da dana txalkortua.
14. Kozineroak badu bertso oien premia  
Aspaldian ez dago gutxi merezia,  
Pasajeroai burla nai duen guzia,  
Baioneta dirudi dana puzunia.
15. Goizean gosaltzean sardin ustel zarra,  
Biotza animatzeko ez da gauza txarra,  
Barkuan sartutzean bagendun indarra,  
Erdia balego orain ez litzake txarra.

16. Mikaela Zarranak kantuak paratu,  
 Barren ontako jendeak naute enkargatu,  
 Afizioa izan da nik ezin faltatu,  
 Orra amasei bertso nai duenak kantatu.

## VERSO BERRIAC.

1

Verso berri boluec  
 Diltut steraco  
*Apaiztegi jauzaren*  
*Barru ontarre;*  
*Ceren baduzasquiguna*  
*Motivore aeko*  
*Geadeke passiu du*  
*Miseria franco.*

2

Cantata nagayagile  
*Gogor non dago*  
*Atzo indar quicil ta*  
*Egun guinchago*  
*Zutik erid econic*  
*Genda neso dago*  
*Etxarre jaizteco*  
*Nay simbat lan dago.*

3

Passalizkoeng ougui  
*Decolaristizko*  
*Avantea haneuca*  
*Explicatizko*  
*Indiaraz juan eta*  
*Memoria haco,*  
*Carcelaoren guise*  
*Sufritu becaro.*

4

Bareniarao gendea  
*Biltzen dorrean*  
*Agintzaidez aindiaz*  
*Beren mingadearan*  
*Iudarrie ecis egun*  
*Uraren gadean*  
*Genda marchatua da*  
*Miseri aundian.*

5

Guizacamea, ere  
*Nay simbat janegiñ*  
*Galizac ecis edoqui*  
*Guerriñ ubalagunia :*  
*Jicara bana baha*  
*Galleta urdibagunia*  
*Nor egen sicerica*  
*Oriñ janagu ñ?*

6

Pasyan irten eta  
*Eguna guchi barrun*  
*Zorriz en cebiltsen*  
*Ontzies iñurrun :*  
*Guchienak bagaileu*  
*Hosteau bat lagun,*  
*Orra cer gobernatu,*  
*Apaiztegiak barun.*

7

Nafarreria ere  
*Sartagan barenra ,*  
*Ordinan arti zuen*  
*Gendea Urtzura :*  
*Ira ilitziran eta*  
*Arti tå pultzura ,*  
*Erlotza nor degu*  
*Jayaoc'mundura.*

8

Iri laguna ilitziran  
 *Beste asazi eri ,*  
*Ave Maria birela*  
*Eguna da ori:*  
*Biotzela escatu*  
*Virgina Amari,*  
*Eremedua oherle*  
*Ez da euen agiria.*

9

Cuartilllo bana ardo  
*Zaten apelidue,*  
*Pozie erango guendulan*  
*Eman holgiñe;*  
*Heren itzen erdiric*  
*Complifitx et due*  
*Bareu ontora gendea*  
*Joun da saldie.*

10

Emengo misericordia  
*Ongi agurteko*  
*Eun ta laroquei verso*  
*Ez hiruak a-ko,*  
*Jabon bastante dira*  
*Ezten ditizteko*  
*Poliqun asuniduan*  
*Bareu ontarato.*

11

Baguendun chocolate  
*Cafe ia azucres,*  
*Promian estalizzeo*  
*Necesida-lea :*  
*Egulten utzi nay ez*  
*Miseri triste!*  
*Lagun zaigusu arren*  
*Virgina maitea.*

12

Cocinerro guendulan  
*Ona ts leylea ,*  
*Vieiric egoteo,*  
*Baguendua bearra :*  
*Berwe jan ia erau egulib*  
*Beaterri farra ,*  
*Frances bisar-gorria*  
*Dona guila charra.*

13

Cocinero ori da  
*Chili gulseo prestua ,*  
*Bareu outaco gendeaç*  
*Banera eraztunia;*  
*Alarguna onuen da,*  
*Edredex zartus*  
*Zaspi docena ei da*  
*Dana chalcurtua.*

14

Cocineroa hundi  
*Verso oyen premia*  
*Aspalditan ez dago*  
*Guchi merecita :*  
*Pasageroak burria*  
*Nai duen gueia,*  
*Hayuelo dirudi*  
*Dana puzunia.*

15

Goicean gosaltzean  
*Sardis ustei xarra,*  
*Biotza animatzeo*  
*Ez da gauza charra :*  
*Bareuas sartutzean,*  
*Baguendun indarra,*  
*Ertzia holgo orain*  
*Ez litzaque charra.*

16

Micelai Zarranac  
*Cantatu paratu ,*  
*Bareu ontako gendeaç*  
*Nauto enkargatu:*  
*Alicioz jan da*  
*Nie ecis faltatu*  
*Orra rimeset veran*  
*Nai duenae cantatu.*

## XI

**KANTABRIAKO KOSTA ONETAN<sup>90</sup>  
(1878-IV-20)**

1. Kantabriako kosta onetan gertatu diran kasuak  
esan didate ager ditezen ipinitzeko bertsuak;  
alborotatu eta galerak eman ditu itxasuak,  
ango marinel gizaraxuak etzeuden portunosuak.
2. Desgraziarik orrelakorik sekulan ez da aditu,  
itxaso ori asarretuta neurrian ezin kabitu;  
nere kristauak, aiziak eta urak indarrak baditu,  
aplakatutzen dan arte bera inork ezin errenditu.
3. Desgrazia au gertatua da EspaÑiako partian,  
esan diteke Donostiatik Santanderra bitartian  
mila zortziereun irurogei ta emezortzigarren urtian;  
baja aundia egina dago marinel oien artian.
4. Endemas ere Bizkaian dira, txit gaizki ibilituak,  
Bermeon bertan larogei eta amabost beintzat ituak;  
arrantzaleak famili asko mantentzen berak oituak,  
konsideratu orain zer moduz dauden oiek geldituak.
5. Ito ainbeste itxasuan da gertatu dirade gaizki,  
animak ere peligro aundin izango ziraden noski;  
ala iduritzen, eta juzgatzen Jainkuak danak dakizki,  
familiarra pesalunbreak, or modu askok dakarzki.
6. Berrogei eta zazpi galduak Elantxobeko erritik,  
ogei ta amabost Colindrestikan, amabost Santanderratik;  
esan dedana, Kantabriako arrantzalien artetik  
bestera joana badago franko aurten mundu onetatik.

---

<sup>90</sup> Antonio Zavala, aip. lib., 1978, 75-85.

7. Kosta onetan erri danetan izan dira seinaliak, batzuek ito, besteak penaz bajatu arrantzaliak; lana egin da gainerakuan dibersiyuan zaliak, tristetu eta lutoz betiak, ezagun dute kaliak.
8. Lekeition da naiz Ondarruan, Motrikon da Donostian, Alkortan ere aita-semiak, marinelik dan guztian; gizarajuak txaluparekin olatuaren azpian, konsideratu galerna orrek zenbat pena dakarzkian.
9. Ai, itxasora ez dadukagu edozein moduz juaterik, an dabiltsanak jeneralian daude peligroz beterik; egiten badu emen edo an modu ortako kalterik, ez dauka inork alkateakin justizia egiterik.
10. Orain amabi urte omen zun piska bat alborotua, ez jakin orain urrena berriz noizko daukan gorrotua; ordu batian umil badago besterako asarretua, izanagati estudiatura argan ezin fiatua.
11. Orain irureun urte omen zan gertaera au lenago, bitarte ontan zenbait otz bero naski izandua dago; ikusi zuanik gaur bizi danik munduan inor ez dago, banan paperan ipini zuten, neroni leitua nago.
12. Marinel asko ito omen zan, besteak bildur da larri, arrisko ortan berriz geiago ez omen zuten nai jarri; gero arrairik ateratzen ez, kalean kosetxak urri, Galiziatiak arrantzaliak berriak ziran etorri.
13. Esplikatu det al dan moduan marinel oien bizitzan, len eta gero galdu-gordean zer estadutan dabiltsan; munduan danok bajuagua anparatuaz gabiltzan, beste modutan egokiago ala baino ezin izan.
14. Famili asko bajatu dira marinel jende orrenak, ume txikiak eta andreak gizona galdu zaienak; jeneralian pobriak berriz orrelakuak geienak, zer obra ona egingo duen zerbait laguntzen dienak.

15. Il diran oiek baldin mantxatik bazeukaten animetan,  
eta arkitzen badira orain purgatorioko penetan,  
oraziyo guk egin dezagun aientzat mundu onetan,  
Jaun Dibinuak artu ditzala zeruko glori aietan.

## XII

### SAN JOSEREN HONDORATZEA<sup>91</sup> 1879-I-8

1. Kanta triste batzuek arrantzaliari  
uste degu dirala jartzia komeni,  
oiek daukaten bizi negargarriyari,  
izan gaitezen danok oien errukari,  
biyotzez eskatuaz jaungoiko jaunari.
2. Len ere izan dira probalidadiak,  
zer modutan bizitzen diraden tristiak;  
oien irabaziak txit dira pobriak,  
ez du beste erreborik emengo jendiak:  
arren, salba ditzala Jaungoiko guriak
3. Ilbeltzaren eguna zortzigarrenian,  
arrantzara atera ziraden goizian;  
gero tempestade bat mendebal-aizian,  
trezak bota ta altxatzen asi ziranian,  
milagroz etzituben danak sartu urpian.
4. Trezak bertan utzita etxera abiyan,  
jira-bitia eginik guztiak iya-iyan;.  
gero pasa zitzaien bidian erdiyan:  
zumaiar txalupa bat zegon desgraziyan,  
bai sokorritu ere alegin guziyan.

<sup>91</sup> Antonio Zavala, aip. lib., 1978, 87-96.

5. Ogei lagun zituben tripulaziuan  
zumaiar txalupa orrek galdua itxasuan;  
Agustin Andonegi bere aziyuan,  
naiz bera ibilirik iya-iya galduan,  
zazpi artu zituben al zuben moduan.
6. Agustin Andonegik eman ditu pruebak,  
bere mutilak nola ez diran motelak;  
onrak ere irabazi ditu asko berak;  
zerbait lagundu izan baziyon denborak,  
etziraden itoko amairu gizonak.
7. Inola arrimatu ezinda salbatu,  
alako egualdiya zitzaioten sartu.  
Danak ojuka: «Arren, jaunak, gu're artu!»  
Aien antziz biyotzak ziraden urratu,  
bainan inola ere ezin anparatu
8. Berak iya galdua gizonak salbatzen,  
pensa zazute oiek balorerik duten;  
beste geiago ere artu nai zituzten,  
bainan itxas gaiztuak etzioten uzten,  
ondo penaz an utzi zituzten itotzen.
9. Ai, arrantzaliaren bizi penosua!  
Ofiziyu ori ez da inbidiosua,  
oien irabaziya ain da kostosua;  
gure Jaungoiko maite amoriosua,  
arren, bedeinka zazu berriz itxasua.
10. Agustin Andonegi, zure baloreak  
munduari eman dizka probalidadeak;  
merezi dituzute ondo onoreak,  
zu ta zure txalupen zeguen jendeak,  
zergatikan zeraden umano nobleak.
11. Oien biziya beti, dudarik ez dago,  
naiz osasuna izan arriskuan dago;

egon arren denbora kalman eta klaro,  
derrepentian txarra sartutzen bazaio,  
galtzen dira egin arren makina bat saio.

12. Jaunari biaiogu barrendik eskatu,  
geiago orlakorik ez dedin gertatu;  
bainan biyotz-biyotzez ondo errezatu,  
itxasora juatian danak alkarr artu,  
lagun faltan ez gaitzan guziyok tragatu.

### XIII

#### SAN JOSEREN HONDORATZEA<sup>92</sup> 1901-II-3

1. Kosme Damian Txurrukakoan erritar doakabeak,  
kristau fedetsu, kristau beartsu, bearran adiskideak,  
euskeria beste izkuntzik maite etzuten arrantzaleak,  
itxaso-gizon trebreak, Kanta-uriko loreak  
ur gaziyakin beti burrukan ibiltzen ziran jendeak,  
arraiaik dira ogei eta bat euskaldun aien jabeak.
2. Gogoratuko dira Bermeo, Antxobe eta Algorta...  
larunbat santuz zutelakuan izandu negar galanta;  
iruretatik galdu ziraden laroiei eta amaika,  
zenbat seme, zenbat aita, Jaungoiko maiteak naita...  
itxaso baztar euskerazkotik diraden munduban palta!  
Motrikotarrak ere ederra zuten aurreko lanbata!
3. **San Jose** deitzen ziyen txalupan Motrikutar fedetsubak,  
larunbatean ogei ta batak izandu ziran galduak;  
denak uretan eman zizkiyen Jaunari beren kontubak,  
arrantzale koitadubak, euskal-zale onradubak,

---

<sup>92</sup> Antonio Zavala, Ramos Azkarate. *Galtzaundi berriz ere.* (I, II), Auspoa 286,287. Zarautz 2004, T.II, 346.

utzirik beren familixuak emen desanparatubak,  
ditu eraman berarengana Jaungoiko santu-santubak.

4. Zenbat alargun, zenbat ume ote daude gaur negarrez,  
putzu aundiak egiteraino samintasunan indarrez?  
Ama gaixuai ume gaixuak esango diye: «Aitik ez!».  
Amak orduban oinazez, jantzi ondoren soin beltzez  
diye esango: «Gu bete arren naigabez eta ekaitzez,  
kantauritarrak lagun egingo digute guri biyotzez».

## XIV

### N<sup>a</sup> SRA DE ICIAR-KOAREN HONDORATZEA<sup>93</sup> (1902)

1. Amar marinal ito dirade Kantabriako uretan.  
Negar garraxiz beteta daga Ondarru bere etxetan,  
Emeretzitik amar ittoak, bederatzi salbatuak  
Goiko Jaun ona! zer dira baina zure desio eskutuak?
2. Mutriku ortan ba zan dei larri eta gizonen ez bihar,  
olatuetan trabes zanian Nuestra Señora de Itziar.  
Erri guztia begira zeruan argi gabeko iluntzian,  
potinandia tira-biratan igarri zuen trantzian.
3. Isidoro zan patroi abila, lagunentzako noblia,  
itsasoetan asko ibilia ta gizon onaren ondria.  
Parte faltsuik euki eazarren izan du azken tristia.  
Alegin sendo eginagaitik betiko galdu lemia.
4. Amar gizon batera ito ata ainbesteik ez bizik artu.  
Salbatu ziran bederatzik e larri ziraden azaldu.  
Promesa eta ofrezimendu, erruki eta errezu,  
olakoetan gertatzen danez danak ziraden an keixu.

---

<sup>93</sup> Agustín Zubikarai, *Ondarru, kantu, otoi, orru*. Caja Municipal de Cultura, Ondarru, 184, 36.

5. Bada negarra Ondarru ontan, tristura eta tutua!  
Alargun eta umezurtzetan inkesa eta ulua.  
Kanpotik bialduaren errukarrien dirua.  
diruz sekula ez da onduko bear genduken tratua.
6. Anai bezela jokatua da Mutriku guri laguntzen.  
Alkar arteko aixa txikiak ez dira orain kontutzen.  
Jarrai dezagun danon artean gure zereinak ondutzen,  
itsasoaren tentaziuak sekula ez dira ta aztutzen.

## XV

**ERANDIOKO DESGRAZIA<sup>94</sup>**  
**(1906-II-26)**

1. Mila eta bederatzireun au da seigarren urtian,  
desgrazia bat pasatu dana Erandioko partian;  
negarra franko eragin dute familiaren artian,  
zenbat disgustu izango zuten pensatzen jarri gaitian.
2. Otsailaren ogei ta seia egun gogoragarria,  
tristuriaren lutoz jantzi zan Erandioko erria;  
euren gorputza uren azpian ainbestek zuen utzia,  
zeruko Aita, eduki bedi arren miserikordia
3. Orretarako ziran egunak, juan ziran erromerira,  
dibersiyua zeuan lekura, Barakaldoko errira;  
arratsaldia an pasatuta iluntzian erretira,  
bote batian amasei lagun, danok ziraren azpira.
4. Desgraziaren bila zetozen guztiok atrebituak,  
ontzi txikian ainbeste lagun, nai zutenak serbituak;  
karga audiak errebentatu, ezin geio sufrituak,  
zetozen amasei ortatikan beratzi dira ituak.

---

<sup>94</sup> Antonio Zavala, aip. Lib., 1978, 141-149.

5. Ondo pensatzen jarri ezkero, da gauza negargarria, familiya askorentzako egun artan etorria; euren umiak ain estimatu an utzi biar bizia, arrezkerotik dago lutuaz Erandioko erria.
6. Zori gaiztoko egun txarrian orduan gertatu ziraden, euren biziak entregatutzen asko pensatu ez arren; inork eztaki eriotzia nundikan nola datorren, ta gutxiago ondorendikan zer justizia dakarren.
7. Mundu ontatik oietxek dira uste gabe juandakuak, bere eskuan artu daitzala arren gure Jaungoikuak; dibersiuren bila juan da biziya emandakuak, orlakuari esan leikiyo martiri benetakuak.
8. Onezkerro ezta erremeriorik arek mundutik juan zian, etzeite lagun geio gertatu orlako eriotzian; itxasuarekin peliatuta azkenian ere il zian, negarra franko eragin dute bakoitzak bere etxian.
9. Bizi geranak mundu onetan kontuan egon gaitezen, al dan guztian begiratuaz nundikan nora gabiltzen, jaungoikoari erregutuaz, inundik al baliteke izen, desgrazia artan gertatu diranak zeruan gerta deitezen.
10. Erregututzen zaitugu ondo, zeruko Ama Birjina, santa guztiyen agintariya, aingeruen erregina: konsideratu martiriotik euken apartan ezina, aien anima salbatzeko egin zazu alegina.
11. Kristau oiek gertatu ziran estadu negargarrian, euren bizia eman biarra itxasuaren erdian; Jesus maitiak sartu daitzala zeruetako glorian, antxe gozatzen egon deitezen eternidade guzian.
12. Tentaziyu ibilten da okasiyuaren bila, pekatuetan dauan anima arkitutzen da debila; Jaungoikoaren seme guztiyak izan biar du umila, beste gauzarik eztet desiyo: ala gertatu dedila.

## XVI

1908-V-24KO DESKALABRUAK<sup>95</sup>

1. Mila pasata bederatzi eun zortzigarrengô urtia, bertso batzuek asmatutzeko euki det borondatia, ikusirikan udara txarra batzuentzako egitia, desgrazikua izandu dala Santanderako partida, atunetako gizon gaixuak iruki zuten kaltia.
2. Nekazariya legorrian da arraizalia itxasuan, jan biarrakin egiten dute mundu ontako plazuan; artzen diraden pena ta susto beti gogotan jasuan, al balitz danak ipinitzia alkaren gainka pisuan, zer kontatua gertatu're bai bakoitzai bere auzuan.
3. Urte guzitan juaten dirade montañesako kostera, San Juan eguna inguru ortan, udara pasatutzena, bere familiyak mantentzeko dirua irabazterea, negargariya batzuentzako beren buruak uztera, libratu dana larri ibili berriz legorra ikustera.
4. Ondarruako gizonak asko, Mutriku eta Donostiya, bermeotarrak zer esanik ez, dana txalupaz josiya; itxas kanpuan gertaturik; denbora txar itxusiya, ainbeste enbarkaziyo triste galdu biarra etsiya, batzuek nolabait libratuta bestiak galdu biziya.
5. Beren andre ta arrebak igual pariente guzi negarrez, gauza oiek orla gertatu eta lasai egoten ezta erre; deskalabruak pasatzen dira uretan eta legorrez, baleki batek zer gauza txarrak etorri biar dun aurrez, aiko ginake bata bestiari zar eta gazte agurrez.
6. Ainbeste txalupa eta bapore beren santu-izenakin, batzuek buelta oso emanda bestiak urez betiakin,

<sup>95</sup> Antonio Zavala, aip. lib., 1978, 151-157.

naiz urrutira klaru ikusi probetxurik ez mendiakin;  
ama batzuek gelditu ziran bost eta sei aur txikikin,  
sokorritzeko saiatu ziran teatro eta festakin

7. Modu orretan izandu ziran suskriziyuak irikitzen,  
estudiantinak kalietan da aientzako diru biltzen;  
Bilbaon ere partidua ta nobillada da jokatzen,  
Donostiako soziedadak igual ziraden portatzen,  
saiatu ziran famili aiek al dan ondona anparatzen.
8. Irakurrita jakindu gendun periodiko edo papera,  
lutua zala pertsona askontzat kosta Kantabri aldera,  
txalupa asko eta bapore galdu zirala batera;  
zein ote ziran jendia larri, arrazoia nai atera,  
makinat pena zabaldutzeko izan da aurtengo kostera.
9. Dudarik ezta egitia bat gauza abekin penatu,  
len bizi ezin dan pobriari zer eiten zaion ailatu:  
zorioneko itxaso audi, eiten dezuna tragatu;  
bagina danak legorrerako lanikan ezin bilatu,  
modu orretan uretan dira gizon asko're saiatu.
10. Aita bat orla faltatutzian aurrak dira akordatzen,  
mantaletikan amai elduta noiz etorriko galdetzen;  
erantzun nai ta soltatu ezin, negarrez dago urtutzen,  
auzuetako emakumiak al dan ondona laguntzen,  
gauza au bainon tristiagorik ez det ezer e bilatzen.
11. Batzuek orla aitzen dirade arraizaliai bengatzen,  
zer peligro ta arriskua duten eztute konsideratzen;  
lurren gainian dagon sastria segurua da bizitzen,  
denboraletitik txarrenakinde aitzen da lasai kantatzen,  
itxas kanpuan txalupak buelta, gizonak antxen itotzen,
12. Alde batera pentsatu eta ori da artitzekua:  
itxaso onak gusto ematen, txarra da bildurtzekua;  
legorretikan muralla- iskinan jendia jostatzekua,  
itxas kanpuan denbora txarrak inoi ez barkatzekua,  
persona askokin igual galduzen naiz aundia izan barkua.

13. Amairugarren bertsu onekin orain egiten det bukatu,  
Zipriano det izena eta Lertxundi det eskribitu;  
galdu ziraden gizon guziyai eginikan erregutu,  
zeruko Aita Eternuari nai diot ondo kunplitu,  
nai duenian guri otsegi bere eskutikan gaitu,  
agur danari, arraizaliak, suerte on batez segitu

## XVII

### KANTABRIAKO ITXASGIZONAI OROIPEN BAT<sup>96</sup> (G. 1912-VIII-13 / T. 1932)

1. Nere biyotz gaixtua eskaka aritzat,  
bertso bi ipintzeo, baldin baderitzat,  
Abustuben amabiyen sortu zan ekaitzak  
egin dizkigu oso deskalakru gaitzak,  
makina bat persona ondatu beintzat.
2. Denak esplikatzera orain naiz abiyan,  
motibua dan gisan mintzatu nadiyan;  
mila bedetzireun eta amabiyen,  
gainera Abustuko, ilarez erdiyan,  
desgraziy'au pasa da Kosta Kantabriyan.
3. Kulpa gabeko franko badu eramana,  
bakoitzak errezzatu «Aita gure» bana,  
ain da negargarriya egin digun lana,  
anparo gabe utzi ainbeste aur ta ama,  
sinisten ere gaitz da aurten pasa dana.
4. Abustuko ilaren amairu garrena,  
guretzat argitu dan egun txarrena,  
izantzagun kupira denak alkarrena,

<sup>96</sup> *Bertsolaria* 1932, 50 zkia, 303.

gogoratu utzarekin lertzen zait barrena,  
au da paraderua kantabritarrena!

5. Eun da amaseikua Bermeo bakarra,  
aurten ez dute izan suerte ederra,  
orri txiki batentzat, ai ori negarra!  
aurrak aita falta du ta amak, senarra!  
badaukate anparo on baten bearra.
6. Itxasua zitzaigno aserretzen asi,  
bendabal aldetik zan aizia nagusi,  
nor bere puestuari ezin ziyon eutzi;  
danak zatitu ditu inor ez du utzi  
Gipuzkuan bertatik ez da falta gutxi.
7. Eun da berrogoi ta iru omen dira danak  
arrantzalietatik ondatu diranak,  
gure Jangoikuari kontu ba emanak;  
guk egin bear degu bizirik geranak  
ayetzat erregutu biyotza dubenak.
8. «Aita San Inaziyo» belako barkuba  
amairu gizonekin ur pian sartuba,  
beraren imagina an zuben sortuba,  
Abanako partian dago kostatuba,  
tenpestade gaixtuak jo ta puskatuba.
9. Egur biren gainian gizon bat jarriya,  
ai zer ote zan aren orduko larriya!  
lagunak bera jun ta estadu urriya,  
ez da Donostiyara errex etorriya,  
ikusi du birian istilu gorriya.
10. Seinale ibili dala arraixku aundiyetan,  
arraiz txarra besterik ez dan tokiyetan,  
ilaren amabostan goizeko seietan,  
baporiak artu zun borondate onetan,  
naikua sufritu du paraje oietan.

11. Izena Daniel du nonbria Eskurtza,  
jeniyo bizikua, espiritu utza,  
ta baliatu zaion Jaunaren laguntza;  
oso maltratatuba sartu zan onuntza,  
berriz egon liteke juan gabe aruntza.
12. Inork galdetzen badu gauz ori nola da,  
nik erantzungo diyot: Egiyaz onla da,  
inor dudan badago betor eskolara,  
anunziyatuz zuben orlako bolara,  
graziyaz mila bider aita Orkolaga.
13. Ai, gure biyotzko aita Orkolaga,  
beraren eskutikan ez gaitzala laga,  
orain bezela zaitu eguna ta gaba,  
berriz itxasu ortan ez gaitezen traba,  
bedorren talentuba gauza biarra da.
14. Jainkua portatzen da danentzat ondradu,  
gaiztuarentzat igual, ain biyotz ona du,  
emanaz irabazten degun ainbat gradu,  
itxaso sagradua ur guziyen buru,  
ark ere gurutzia errespetatu du.
15. Jesus maitiak eman dezala argiya,  
oraingo bolara ontan badago premiya,  
euskaldunen artian au da pikardiya,  
Bermeotik galdu da jendien erdiya,  
lutoz jantziya dago Kosta Kantabriya.
16. Ango itxas kolpiak taurre borroiak,  
tragatu nai zituen mendi ta erriyak,  
pasa dira desgrazi ikaragarriyak;  
orra amasei bertso oraingo berriyak,  
Fermin Imazek eta Txirritak jarriyak.

## Kantabria-ko itxas-gizonai oroipen bat

FERMIN IMAZEK ETA TXIRRITAK JARRIYAK

1

Nore biyotz gaixna  
eskaka aritzat  
bertso bi ipintzeako  
balduin baderitzat,  
Abustubea amabiyan  
sortu zan ekaitzak  
egin dizkigu oso  
deskalakru gaitzak,  
makinabet persona  
ondatu beintzat,

4

Abustuko illaren  
amairu garrena  
guretzat argitu dan  
egun txurrena,  
izantzagun kupira  
denak alkarrrena,  
gogoratu utzarekin  
lertzen zait barrena,  
jau da paraderua  
kantabritarrena.

7

Eun da kerrogei ta iru  
omendira dansk  
arrantzalietatik  
ondatu diranak  
gure Jangoikuari  
kontuba emanak;  
guk egin bear degu  
bizirik geranak  
ayetzat erregutu  
biyotza dubenak.

2

Ponak espilkitzera  
orain naiz abiyan  
motibua dan gisap  
mintzatu nadiyau;  
milla bedetziareun  
eta sinabiyan,  
gañera Abustuko  
illarez erdiyan,  
desgraziyau pasa da  
Kosta Kantabriyan.

5

Eun da amaseikua  
Bermeo bakarra,  
aurten ez due izan  
suerte ederra,  
erri txiki batentzat  
jai ori negarra,  
aurrak aita falta du  
ta amak senarra!,  
badaukate anparo  
on baten bearra.

8

«Aita San Inaziyo»  
belako barkuba  
amairu gizonokin  
ur pian sartuba,  
beraren imajina  
an Zuben sortuba,  
Abana-ko partian  
dago kostatuba,  
tenpestade gaixtuak  
jo ta puskatuba.

5

Kulpa gabeko franko  
badu eramana,  
bakoitza errebatu  
«Aita gure» bana,  
sin di nogargariya  
egin digun lana,  
anparo gabe utzi  
ainbeste aur ta amsa,  
sinisten ere gaitz da  
aurten pasa dana.

6

Itxasua zitzaigun  
aserretzen asi,  
bendabal aldetik zan  
aizia nagusi,  
nor bere puestuari  
ezin ziyon eutzi;  
danak zatitu ditu  
iñor ez du utzi  
Gipuzkuuan bertatik  
ez da falta gutxi.

9

Egur biren gañian  
gizon bat jariya,  
jai zer otezan aren  
orduko lariya!  
lagunak bera jun ta  
estadu urriya,  
ez da Donostiyara  
errex otorriya,  
ikusi du birian  
istillu gorriya.  
(Bukatzten da 306 urriukan)

## XVIII

**BERTSO BERRIYAK LUSITANIAKO DESKALABRUEN  
GAINIAN JARRIYAK<sup>97</sup>  
(1915-V-7)**



1. Eskatzen det isil piska bat danori gaur faborez,  
Esplikatu nai det ba gauza bat negarrez,  
Nuevayorko moilatik erten zoan Lusitaniak  
Beterik kargaz ta jentez Liverpoolko aldea.
2. Maiatzaren zazpiyan eman ziyuen erteria,  
Despeditzen zan jente guziya, pozez eta alegriyaz,  
Beren arrosko mobimentuan bazijuan ongi Lusitania,  
Erabakitzten oso poliki olato audi txuriyak.
3. Gizonak andrak ta umiak denetik despeditzen zian,  
Altxatzen pañuelo txuriyak oso pozez baterikan,  
Bat olgetan bestia dantzan, umiak denak salteka,  
Beste batzuek urai beiratzen denak pozez baterikan.

<sup>97</sup> KM. Kulturunea, Gregorio Mujikaren ondareko bertso-papera. C-553 F-22.

4. Izango ziran zortzi bat ordu zijuala itsas gainian,  
Txori txuriyak eskoltatzen zun bere lau eskinan aldean,  
Eta kapitan balentzia zeon bere zubi gainian,  
Bere biyotzak esaten ziola desgrazien bat zala urrian.
5. Baporen pasillo baten jarrita sillatxo batean  
Itxaso pollitari begira zeon gazte euskaldun bat,  
Arratsaldeko ordu biyetan maiatzaren zazpiyan,  
Ikusi zuan torpedo bat iya bapore azpiyan.
6. Mendi txuriurrezkuak laister ikusi zuan,  
Altxatzen ziela aundi baporen inguruan,  
Zauzkan kamarotiak euskaldun orrek inguruan,  
Artu zuan salvavida bat salbatzeko peligruan.
7. Segituan juan zan esatera barkoko kapitainari,  
Atzeko aldean ikusten zala ur gainian sumarinua,  
Kapitanak segituan ordenatu zuan marinelari  
Arriatzeko ur gainera txalopatxuak ugari.
8. Bapor artan ezta sentitzen, lamentuak besterik,  
Doloriak eta negarrak gizon ta andra guziari,  
Maldiziyuak ta juramentuak batzuek diarka amari,  
Beste batzuek pazientziyaz errezzaten Jangoikuari.
9. Batzuek oinetakuek erazten, bestiak eltzen tabloari,  
Onek aitari deika, arek deika semeari,  
Emakumeak negarrez laztan bat eman senarrari,  
Onek albaluke bezela salbatu estutasun artatik.
10. Bazijuan ondoa bapor eder aura,  
Sokak ebakitzen asi zan euskaldun aura,  
Beiratu gabe bere biziai asi san salbatzen  
Ta onela txalupatxo batean ogeta amabi salbatu zituen.
11. Lan ontan zebala ikusi zuan religioso bat  
Beren besuarekin eskatzen zeola faborez sokorro bat,  
Gure mutila errukituta beren txalopan etzala salbatzen.  
Beren salvavida bota zion eta salbatu zan ari eltzen.

12. Aita religioso au da oso fraile ona,  
Ta ematen dio eskerrak Bilboko mutil onari,  
Ez dauka historiyan igualik jarri zuan bere biziya peligruan,  
Besteak salbatzeagatikan olako triste peligruan.
13. Bizente Egaña ta Agirre da mutil baliente au<sup>98</sup>,  
Olabeagan jaiota Abandon bataiatua,  
Mejikoa juan zan oso gatzia ta orain zetorren etxera,  
Momentu negarreko artan gloriaz asko bete da.
14. Goiko Amerika aldetik zetorren fraile ona,  
Urte askotan predikatzen ibili da religioso ona,  
Bapor ontan zetorren alegria oso beterik,  
Desiotan laztan egiteko bere aita ta amari.
15. Peligro artan zeola ikusi zuan ama batí  
Iru ume besoa zeuzkala dolorez ta negarrez beterik,  
Amari eman zion beren kortxua pozez beterik,  
Erregutzen Jangoiko jaunari ama semeak salbatzeagatik.
16. Bere balore audi arekin ekin zion jentia salbatzen,  
Lenengo salbatu zuan ama alabak tablo baten,  
Gero juan zan itxas gainian jentia geiago salbatzen,  
Ta onela balorez beterik bizitza asko salbatu zituen.
17. Zeon balorezko lan ontan Españoako relijioso on au,  
Ikusten zeola bere onduan desgrasi audi au,  
Bera ere zebilen gaizki tablo ta uren artean,  
Arrimaturik berari Agirre biziya salbatu ziyuan.
18. Galdu zanian bapora itxas txuri azpiyan,  
Ikusten zian gauza tristiak gizon andra ume artian,  
Olatu artian danak nastuta aiek momentu tristiyak,  
Danak itotzen dao ezin salbaturik inoren indarrak.

<sup>98</sup> Bizente Egaña Agirre 1886ko ekainaren 7an jaio zen Bilbon, bere gurasoak Leandro Egaña Uriarte eta Baldomera Agirre Arzinaga izan zirelarik. Gertatu zenean hondoratzen 28 urte zituen, beraz, sasoirik onenean.

19. Negarrez zeon ur gainian ordu bat eta erdian,  
Ama bat seme birekin tabloia baten gainian,  
Sei bat metro zeuden aldegin da Agirreri,  
Beren gerrikua bota zion salbatzeko ama ta umiari.
20. Mundu onetan ez dago pena audiagorik,  
Ikustia baino jentia itotzen ta ezin salbaturik,  
Danak eskatzen piedadia beren momentu triste hartan,  
Ta bestiak begira ezin salbaturikan.
21. **Bizente Egaña ta Agirre** euskaldun kasta ona da,  
Beren odola dago nastuta balorez ta graziaz.  
Gaur Inglaterra guziyan jentiak estimatzen du,  
Baina español tarrak esan gutxi egin du.
22. Gauza asko ipintzen debe beste jende onegatik,  
Belmonte, Gallo o Gaona o beste Gallitogatik,  
Baina ona da esatea jende guziari  
Ez daola balore audiagorik  
Ematia baino bi pase ederrak itxaso olatu txuriari.

## XIX

### DOMEcq MARINELAREN HILTZIA<sup>99</sup> (1938 ing.)

- I. Ez da marineletan ez ja Donibandarrak  
Amodiorik ez dianik itxaso handiari,  
Txipitik maithatüz hori ez da estonagarri  
Nahiz hen zorthia ez den bethi inberagarri,  
Aitak erakutsirik bidia semiari,  
Bizi dira eskualdün hun, fidel itxasuari.

---

<sup>99</sup> Jakes Larrondo (ed.), *Etxahun-Iruri khantan*. Pau, IPA, 1977, 94-96.

2. Jinkuak egin bagüntü algarren maithatzeko,  
Ez zatin kriminelik jente hunen arteko,  
Eziz eta marinel bat planta hortan hiltzeko,  
Alhargüntsa gazte baten nigarretan uzteko,  
Bi urthetako haur bat goizik malürratzeko,  
Aita eta anaie bat krimuan probatzeko.
3. Itxas portin hartürrik arrantzüko untzia,  
Gaiaz phartitü ziren hiru aita semiak,  
Zioielarik gaur date arrantzüko eguna,  
Fortünatzekobeitü güne izigarria,  
Xantzak lagüntzen badü gure projet hartia,  
Zuinen eder datin sarri etxenko batzarria.
4. Itxasua ample zen, ez zen batere aizerik,  
Handaiako leihorra hürrünian ageri,  
Guratzan hat ez beitate beste arrantzalerik,  
Untzian barnen hiruak dritxokaz eta erriz,  
Itxasuak ederrezz ez zialakoz parerik.  
Nihur ez zian gai hartan esperantxa trixterik.
5. Hel eta hasi ziren beren ofiziuari,  
Sariak hedatürrik arrain bühürriari,  
Gorderik hiru marinel beste aldekuetarik  
Tirokan hasten dirade xüxenka untziari,  
Seme batek eskü bat bihotzian ezarri,  
Oihü batez: «Hunkirik niz» diolarik aitari.
6. Tiro batek eginik baten heriotzia,  
Donibanerat bütürüz ützültzen da untzia,  
Hain alagera juranik planta hortan jitia,  
Phentsa zer izan behar zin etxeko batzarria,  
Hogei eta bi urthetan holaxek finitzia,  
Ez deia hori oithian phena izigarria.
7. Ama baten besuan haur txipi bat nigarrez,  
Bere aita zenaren besarkatü beharrez,

O inozent malerusa badakikek hatsarrez,  
Bethi izan behar dela lotsa itxasuarez,  
Handitü hizatinin ohart hadi aitarez,  
eta ez itxasua har irus izan beharrez.

8. Hürrüntik ezagün da orruaz itxasua,  
Phausa hadi bakian, o marinel gaixua,  
Bere traidore obretan ez dik lehen krimua,  
Behar dik nunbait egotxi bere errai gaxtua,  
Hitarki nahi zian azken sakrifiziua,  
Kriminelen eskietarik inozent hiltzekua.



Pierre Bordazarre «Etxahun Iruri» (1908-1979)

## XX

ALARGUNAREN NEGARRA<sup>100</sup>

1. Nere gogoa egan dijoa alargunaren albora,  
Aitarik gabe gelditu diran ume txikien ondora,  
Ama gaixoa, zoro antzean begira izar lekura:  
– Nere umien aita genuna iges jun zaigu zerura.
2. – Iru alaba ta bi mutiko dira gu bion aurtxoak,  
Aitarik gabe gelditu dira errukarrizko gaixoak,  
Ni ama izan da, ez dut etsiko ni-re iltzera nijoia,  
Aita-amik gabe, zer egoera ume zurtz gure umeak!
3. – Nere buruak ez du zentzurik zu itto zinan ezkerro,  
Zure itzala bilaka nabil goiz guziz eta gauero,  
Aitatxo nun da? Galdezka dabil txikiiena egunero,  
Nik etorriko zerala esan etzera etorko gaurgero.
4. – Patroiak oiu egin zunean (Pello, Antton, Joxe!) ura loaren goxua,  
Azkar esnatuz pizkor altxatu zinan nere senartxua,  
Nork esango zun izanikan zu bulartsu ta osasuntsua,  
Azkenekoa izango zala erdi lotako muxua.
5. – Neretzat zinan senar onena, ez ninduzun atzipetu,  
Gazte ginala agintakoak danak zenitun kunplitu,  
Zure mendean egun onarik munduan ditut biziutu,  
Orla ez neza etsi-inola ta lenbaitlen zugana deitu.
6. – Zure emaztea naizen aldetik dizut zin-zinez eskatzen,  
Zauden lekuau saiatu zaitez gauza au neri irixten,  
Len baino lena ni lur ontatik zuregana eramatuen,  
Zu gabe nere biziak ez du irauterikan pentsatzen.

---

<sup>100</sup> Fernando Artola Sagarzazu «Bordari», *Bakoitzak berea*. Sendoa, Zarautz, 1982, 112-113.

**Zarautzko Frantziskotarren  
400.urteurrena**

Zarautz, 2010-XII-17



# Frai Baertel sermoilari famatua

## (Durango 1850-Zarautz 1922)

LIZUNDIA ASKONDO, Jose Luis  
Euskaltzain osoa

Durangotik Zarautzera, 2010eko abenduaren 13an.

Frantziskotarren komentu honen 400. urteurrenara dela eta XIX. mende bukaerako eta XX.aren hasierako euskal predikari entzutetsuenetarikoa dakartzuet hona, Zarautzera. Badira horretarako zenbait arrazoi: 1. hain zuzen duela 140 urte, 1870eko ekainaren 2an sartu baitzen fraide komentu honetan; 2. aita Mariano Estradaren eskutik hartu zuen fraide abitua, frantziskotarra izan zen, beraz; 3, hemen, Zarauzko komentu honetan hil zen, 1922an; 4. nire familian ezaguna izan zen; 5. bere sermoi historiko bi ezagutu ere egiten ditugu.

Fraide honen izen-deitura eta jatorriaz hara zenbait xehetasun: Daniel Baertel Miota Durangon sortu zen 1850eko apirilaren 9an, aita, Frantzisko Ignazio Baertel Dohisch eta, ama, Patrizia Miota Arrospide. Ume denboran arraro egiten zitzaidan deitura hori, ez baitzen ene belarrietarako ez euskalduna, ez gaztelaua. Orduko agiriak diotenez, Bohemiako erreinukoa, hain zuzen Sonnenberg hirian jaioa, gaur egun Txekiar Errepublikan aurkitzen dena eta, oker ikertu ez badut, hiri horren izena alemanezko exonomoa izango zen, gaur egungo Ipar Moravia kraj edo probintziako Sumperk hiria txekieraz. Sudetierra izango zen, seguru asko, gure Frai Danielen aita, germanofonoa nonbait eta ez eslaviar jatorrikoa. XIX. mendearren erdialdean txekiar nazionalismoaren berpizkundearekin batera bohermiar germanofonoen atzerriratzea hasi zela uste dut, gero, 1918an austriar-hungariarrak gerra galdu ondoren, sudetiar familia askok neutral izandako Espainiako erresumarako bidea hartu zuten, Hego Euskal Herrira ere (batzuk ezagunak: Scheiffler-tarrak, Yanke-tarrak). Bigarren Mundu gerran,

lehendabizi Hitlerrek Bohemia eta Moravia indarrez bereganatu eta bortizki zapaldu zituen eta, jakina da, gero, gerra galdu ondoren, aleman-sudetiar guztiak herrialde biotatik derrigorrez deserriratu zitzeltza.

Komentu honetan fraide sartu eta gutxira, Spainiako gobernu agintariek erabaki zuten erlijiosoen sakabanatzea. Ondorioz, aipaturiko Aita Estradak Eibarko Isusi kaleko Kontzezionisten moja komentuko kapilau-etxeen egoitza bat irekitza lortu zuen, eta bertara eraman zuen gure Daniel Baertel. Urte hartako apirilaren 15ean jantzi zuen frantziskotar abitua eta, handik beste urte betera, aita Azurmendiren gidaritzapean egin zuen profesa arrunta eta, 1875ean, Tolosan profesa nagusia. Aita Daniel Baertel 22 urterekin apaiztu zen, berehala sermoilaritzan trebatu zelarik. Idelogikoki oso karlista – geroztik ere bere sorterria, Durango karlista herria izan da, II. Errepublikako alkate biak ere karlistak izan bai ziren – liberalen arerio amorratua, hainbestearainoko ze Euskal Herritik kanpo bizitzera behartua izan zen, Santander probintziako, Toranzo haraneko, Soto-Iruzko komentuan (hain zuen, urteak geroago, 1944an komentu berberera destinarazi zuten, Carmonako kartzelatik atera ondoren, Aita Lino Akesolo, berau abertzale izateagatik, ordea).

Eliz oratoria izan zen bere lanik garrantzitsuena eta horregatik izan zen hain famatua Euskal Herrian. Hara zer dion hortaz Durangaldeko historian saiatuena den Jon Irazabalek:

1877an Oñatin garizuma predikatzeria joan zenean jendea harriturik gelditu zela diote «honek, guk orain arte ezagututako sermoilarri famatuak gainditu ditu» eta antzerako esaldiak entzuten ei ziren jendearen ahoetan. Ez ziren erratu. Berrogei eta bost urtetan Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Aragoi eta Gaztelan zehar bere sermoiak zabaltzen ibili zen. Diote ez zela egon ia pulpiturik Frai Baertelek ez zuenik erabili bere hitzak zabaltzeko. Epe honetan 13.500 sermoi eman zituela esaten dute (Guinessera eramateko modukoa, recordmania!). Azpimarratzekoak dira Kortezubin emandako sermoia 4.000 pertsonen aurrean edo, Beasainen, 1909 urtean, 10.000 lagun bildu zituen elizkizuna. Bere definizio gisa Frai J. J. de Mk. heriotzaren ematerakoan ARANZAZU aldizkarian hau dio «El cielo le había dotado de excelentes condiciones para el púlpito: voz potente, ex-

presión fácil, pronunciación clara y expedita, enérgico decir, oído fino y delicado, imaginación volcánica, buena presencia, acción expresiva y natural, salud fuerte y robusta, y corazón tierno y devoto...

Nire familiar ezaguna izan zela esan dut hasieran eta hala da. Nire aitita Errejín Lizundiari zenbat aldiz entzun ote nion Aita Baertelen berri, mirespena zion eta bere sermoiak entzutera joaten omen ziren amama eta biak albo herrietara, gaur egun «fansak» zirela esango genuke. Horrez gain nire emaztearen osaba-orde Gregorio Miotari ere gauza bera entzun nion, bere senitartekoan omen zen gainera. Ezagutu ditut hain zuzen Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka egiten den ondoko baserrian bizitako Miotatarrak, Gregorioren lehengusuak eta, seguru asko, Aita Daniel Baertel Miotaren senitartekoak, bera eta bere ama durangarrak baitziren. Bidenabar, diodan, behin baino gehiagotan damutu zaidala Gregorio Miota garaitar eta gizon maitagarriari grabazioa ez egitea. Euskaldun hutsa, ia erdararik ez zekiena, pasadizo eta istorio ugariren kontalari aparta, esaldi eta errefrauak kutsadurak gabeko euskaran parra parra botatzen zituena, Gregoriok ere Aita Baertelen lekukotasunak ere, bereak eta bere familiar entzundakoak ere jaso ezaren pena dut.

Jakina da Euskal Akademia honen sorrerak baduela aurrekari garrantzitsu bat, 1886n Durangon ospatu ziren Euskal Jaietan, hain zuzen, zeinetan eratu ziren txapelketa eta sariketen artean, saiokoa irabazi zuen Arístides de Artiñano bilbotarrak «Proyecto de Academia Bascongada» lanarekin<sup>1</sup>. Bada Euskal Jaien barruan meza nagusi bat izan zen Uribarriko Andre Maria basilikan eta sermoilari gure Aita Daniel Baertel. Prediku eder hori ezagutzen dugu, zeren eta hurrengo urtean, Durangon, Egurrolaren moldiztegian argitaratu baitzen, geroztik, beste argitalpen izan dituelarik, bata, 1919an, Zornotzan eta, bestea, Gerediaga Elkarteko idazkari den Jon Irazabalen esku, 1997an. Merezi du bizkaiera jaso aberatsean egindako sermoi horren zenbait pasarte irakurtzea, ohiko latinezko hasieratxoa barne:

<sup>1</sup> Ikus nire txostena: «Proyecto de Academia Bascongada. 1886ko Euskal Jaien emaitza eta bestetxe». ANTOINE d'ABBADIE 1897-1997, Congrés International. Ezohiko Kongresua, Eusko Ikaskuntza-Euskaltzaindia. Donostia-Bilbo 1998, 655-661. orr.

«Tu autem vocaberis, quoesita civitas et non derelicta. Zuri dei-tuco deutzube gurarizco Uri, guztiz ornidu ta apainduba, ta ez, bas tertuba. Uri onetako Aguintaritzea daukazuben Jaun prestubac... iker gauzaq egoguijagoric Batzacuntza guztijaren aurrian esuquer aundi-jac emotia baño On Antonio Abbadie Jaun azcarriari, bere mesedia dan esquiero, solas, edo Jai-al din Euzquerazco onen Asmatzallea?....». «Ah, ero andijac, Bizcaitar asko, behintsat, urcatuko lituquee ascoc euren buruac Poruco legueric chicarrena galdu edeiñ; barris, anchinagotic jatorcun Eusqueria *igaldu dedilla ordu onian gura dozube?* Ez Bizcaitarrac, eta Aita Cardaberaz jaquintzubac esan eban guisará, esan biar dogu geuc bere: EUZQUERIAC BURUA JASOTIA, JAUNGOICUAC BERAC GURA DAU» Esaldi horretan, argi uzten du, bera foruzale porrokatua izan arren, hizkuntza, garrantzitsuagoa dela. Aipamen ugari ere egiten ditu: Abbadie (aurren nonbait) «ondo etorrijac eguiteco on Antonio Abbadie jaunari...») Larramendi, Astarloa (askotan), Kardaberaz, Mogel neba-arrebak, Arrese Beitia, Aita Uriarte, Frai Juan Zumarragako.... «Nic onetaraco, au da: geure berbetiac iraun daijan bere garbitasun gustijan erregu Bat eguin biar deutzet Aguintaritzia dauqueen Jaun gustijai, batez bere Meriomendecuai, eta da: Catalanac eguin daben guisará, eta baita bere NAPAR, ETA Guipuzcoatarrac Donoztian dauqueen Batzarren bidez: erregutú escola Maizubaren Aguintaric naguci edo Buru daniari, jaquiturija bardíñian beintsat, bialdu daizala Euscal errirá escola Maisu Euscaldunac».

Zumaiako 1900 urteko Euskal Jaietan ere egin zuen sermoi nagusia. Horrela dago argitaratua:

Zumaya-ko Euskal Festetan Aita Daniel Baertel-ek Gipuzkoako Diputazio Txit Goituaren aurrean egindako SERMOYA, 1900-eko Agorren 23an (Gipuzkoako eskudua erdian eta segidan:) SER-MON predicado en la Iglesia de Zumaya durante la solemne misa mayor del día 23 de Septiembre de 1900 por el Rvdo. P. Daniel Baertel ante la Excma. Diputación Provincial de Guipúzcoa. San Sebastián. Imprenta de la Provincia, 1900

Azkue Bibliotekan dagoen aleaz baliatu naiz eta, benetan, Aita Baertelek, durangarra izan arren, gipuzkera ere ongi menderatzen eta erabiltzen zuela,

esan dezaket. Seguru asko Zarauzko frantziskotarren ikastetxe honek ere izango zuen eragina. Zenbait pasarte dakarzkizuet:

«Gipuzkoako Ekautari Jaunak: Erri ontako agintaritza daukazuten zaldun prestu, eta nere anai maiteak. Nere Jaun eta Jabeari emango diot nik detan onore guztia, bigarren aldiz itz egiten detalako Euskal Festetan...» «... Poztu gaitezaen bada Euskaldunak, poztu bai Gipuzkoarrak eta On Domingo Agirrek Zestuan eta Aita Serapio Mendia Zumarragan esan zituzena esan bear dizutet nik gaur, Zumayako erri polit eta chukun ontan, .... gorde dezagula leialkiro gure izkuntz pare gabe au, eta esan behar diogula gure Ama maite, bizikor gaiñ gañeko Euskerari...» Euskal probintzi maitati oietanirakaslea aurkitzen dala erpiñtasun edo goieran... gaurko eguneko lege berrien bidez eta oiek zuzentzeko badakit lanik asko egiten dutela Euskal erriko Ekautari jaunak, eta beragatik esker andia ematen dizkatet Euskaldun on guzien izanean. Aurreko irakaslea, gu bezela lutarte oietan bizi geranentzat, bai maisubak izendatzeko, eta baita ere eskolatetan gorde bear dan irakaslerako Probintzietako Ekautariak egin behar duten lanik andiena, euskeraz egiten dan errietako maisubak, euskeraz jakin beharko lukete eta euskeraz erakutsi behar litzake eta eskola guzietan behartu bear lirake maisubak....» «Fueroak euren oñean irozotzeko kirtenik irmeena da eta baita euskarririk sendoena Euskerazko izkuntzari ondo onto kontu egitea: zergatik, elkarri laz-tandurik, arras itsachiak aurkitzen dira...» «Euskera il ezker, Fueruak ez dira biziko, bañan Euskera bizi bada, Fueroak piztuko dira. Fueroak nai dituanak, maite izan behar du Euskera eta Euskaldunai Euskeraz bear die itz egin, eta adierazi berai dagozkionen gauza guztiak...»

1886ko Durangoko Euskal Festetatik 1900eko Zumaiakora Aita Baertelek ortografia ere aldatzen duela bistan da, c edo q-ren ordez k edo z; gueren ordez, gero; agertzen baitira. Foruzale porrokatu izaten jarraitzen du, baina, euskaltzale sutsu gehiago. Uste dut, bi sermoi ia ezezagun biok, berri argitaratzea merezik Luketela. Poztuko nintzateke, bestalde, filologo trebe batek, testu bion azterketa zehatz bat egingo balu, bai hitzen aldetik, erakunde terminologiaz, batez ere, fraseologiaz eta bestez. Seguru ondorio interesgarriak aterako lituzkeela.

Irazabalek dakarren beste pasarte bat ere interesgarria da:

Sermoi hau bakarrik ez zen izan bere lotura euskara eta hizkuntza honen kultur munduarekin. Adibidez, Xabier Altzibar ikerlariak dioenez bera izango zen seguru aski Zarauzko komentuan erdi ahazturik zegoen Mogelen Peru Arbarkaren eskuzkribua ekarri zuena 1881 urtean Durangora, berriz ere bere jaioterrira, eta Artekaleko Eleizalderen moldiztegian finkatuz inprimategiko hizkietan nobela interesgarri horren zabalkundea bultzatu zuen pertsonai anonimoa.

Nik baino hobeto jakingo duzue frantziskotarrok, baina, gainontzekoon jakinerako, ordena barruan ere beste zeregin eta kargu batzuk ere izan zituen, hala nola, 1879an Arantzazun musika maisu bezala, Errriberriko komentuan guardiano agertzen da, Bermeokoan eta hemen bikario eta probintziako definidore.

1922.ko abenduaren 29an hil zen komentu honetan. Goizean meza eman ondoren txarto sentitu omen zen eta bronkoneumonia batekin zenu.

Komentu honen 400. urteurren ospakizun honetan, hasieran aipatu arrazoiengatik, durangar eta komentu honetako baten ohoretan izan bitez lerro hauek, hots, Frai Daniel Baertel Miotaren omenez.

# **Agirre Asteasukoaren Eracusaldiac: Sermoia ikuspegi sozio-diskurtsiboaren argitan**

OZAETA ELORTZA, Miren Arantzazu  
Goiko argitalpenaren egilea

Zarauzko Frantsizkotarren komentua, 2010-XII-17

Agur t'erdi, euskaltzain jaun-andreok, mahaikideok, entzule etorri zareten guztiok: eguerdi on dezazuela denok. Ohore handia da gaur hemen egotea. Eskerrik asko Euskaltzaindiari eta Mondragon Unibertsitateari eman didaten berme eta laguntzagatik. Eskerrik asko, orobat, tesi zuzendari Luis Mari Larringani ere.

Oso toki aproposa dugu Zarauzko frantziskotarren komentu hau Agirre Asteasukoaz hitz egiteko. Askotan estimatu izan zituen Zarauzko frantziskotarrak euskarazko predikazioan egindako lanagatik, eta, esker on horren seinala da Agirrek bere liburutegia (eta liburutegi oso nabarmena zeukan bere sasoirako, oso gizon irakurria eta jantzia baitzen), bere testamentuan idatzita utzi zuen moduan, Zarauzko frantziskotarrei utzi zielatuta. Hona etorri nintzen ni ere duela urte batzuk, aita Berazarengana, Agirreren Eracusaldiac lehen edizioa (1850 urtekoa) ikustera eta eskuztatzeria.

Zergatik Agirre? Corpusaren aukeraketaren auzia dago tesi bat egitean. Eracusaldiac aukeratu nuen, trilogia bat, sermoiez osatua, sermoi doktrinalez zehazki, 1.500 orrialde inguru, 27 urtean zehar idatziak Fidel Altunaren datazioaren arabera, 1795 Konbentzio Gerran eta Agirre hil urren egon arte idatzia. Erakargarritasun handia izan dut Agirreren prosarekiko, asko gustatzen zitzaidan, eta oraindik ere gustatzen zait. Eta Umberto Ecok esango zukeen bezala, tesiak egiten duzunean idazle bati buruz, subjektua zure bizitzan instalatzen da.

AGIRRE ASTEASUKOAREN  
*ERACUSALDIAC:*  
SERMOIA IKUSPEGI SOZIO-DISKURTSIBOAREN ARGITAN



AGIRRE ASTEASUKOAREN  
*ERACUSALDIAC:*  
SERMOIA IKUSPEGI SOZIO-DISKURTSIBOAREN ARGITAN

AGIRRE ASTEASUKOAREN  
*ERACUSALDIAC:*  
SERMOIA IKUSPEGI SOZIO-DISKURTSIBOAREN ARGITAN

**iker - 24**

**ARANTZA OZAETA ELORTZA**

**AGIRRE ASTEASUKOAREN  
ERACUSALDIAC.**

**SERMOIA IKUSPEGI SOZIO-DISKURTSIBOAREN  
ARGITAN**

**IKER-24**

EUSKALTZAININDIA  
2010

Gaurko egitekoa da Agirre Astasukoaren *Eracusaldiac* trilogiaren inguruko ikerketa lana aurkeztea. Eta lanaren abiaburuei hitz erdi esan gabe, ezin pasatu. Agirri egin nion lehen hurbilketa nire aurretik beste batzuek jarraitu zuten berbera izan zen: hurbilketa edo begirada erretorikoa. Erretorikako estudio gisa planteatu nuen, testu klasikoa eta erretorika klasikoaren arteko lotura justifikatua eta berezkoa zelakoan.

Baina perspektiba erretorikoan ezaugarritzea ezin liteke egin analisi metodo espezifiko baten arabera, baizik eta maila elokutiboa, tropo eta figurak kontuan hartuz; eta hara non, Agirre Asteasukoaren lana ez da aberatsa tropo eta figuretan. Nahiz eta Agirren testuak aberatsak eta konplexuak diren. Eta hor inflexio une bat izan nuen, eta gauzak birbideratu egin nituen.

Hasita nengoen beste irakurketa batzuk egiten: Bajtin, Bronckart, Voloshinov... Eta interakzionismo sozio-diskurtsiboa aurkitu nituen. Marko honen arabera ikerlaria ezin makur edo muga liteke autorea bere baitan eta huts-hutsean aztertzen, ezta honen intentzio-asmoak aztertzen ere... baizik eta obra eraman behar da inskrabatzen den dimentsio sozial eta historikoetara.

Diskurso terminotan pentsatu behar da obra horrela: eta diskurso terminotan pentsatzeak eskatzen du albo batera uztea fantasma bat, hau da, egilea sortzaile indibidual gisa konsideratzeko fantasma, edota estrukturalismotik aldentzea, hots, obra bere baitan konsideratzetik, bere autonomiatik.

Gure ikuspuntutik, diskurso ikuspuntutik, obra bat aztertzen ezer baino lehen obra hori sortzen den testuinguruan kokatzea da, obra hori ebalutzten den eta gestionatzen den espazioan kokatzea, hain zuzen. Esatearen baldintzek zeharkatzen dute esaten dena, eta esaten denak aldi berean garamatza bere enuntziazio baldintzetara.

Horrela bada, kokatu gara hizkuntzaren ikuspegi interaktibo baten, Bronckartek esango lukeen moduan, aktibitate sozialaren eta hizkuntzaren arteko harremanetan. Areago, Voloshinoven arabera, hizkuntzazko prozesuak, «goitik beherako» (descendente) norabidean kokatzen dira. Eta ikuspegi hau, ikusten duzuenez, oso egokia gertatzen zaigu sermoia ezaugarritzeko.

Argitalpen honen fitxa katalogografikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:  
[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:  
[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:  
[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteca,  
Royal Academy of the Basque Language:  
[www.euskaltzaindia.net/azkue](http://www.euskaltzaindia.net/azkue)



© Arantza Ozaeta Elortza  
© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.  
© Mondragon Unibertsitatea

Eskubide guztiek jabetzen dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema infomatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratzuz edo beste bitartekozer berau transmititztea, aipamentarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyrightaren* jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Preimpresioa: Composiciones RALI, S.A.  
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao

Inprimategia: GRAPHICEMS, Gráficas CEMS, S.L.  
San Miguel industriagunea  
31132 Villatuerta  
Nafarroa / Navarra

ISBN: 978-84-95438-63-8

Lege-gordailua: NA-2847-2010

Gure izarra, akuilua eta obsesioa (sermoia ere oso testu obsesiboa izanik), sermoia praktika diskurtsibo gisa ezaugarritzea izan da. Sermoiaaren azterketa lau modulu edo kapitulutan egin dugu. Eta azterketa horiek dira osotunaren alderdi partzialak.

Batetik, aztertu dugu sermoiaaren egitura.

Bestetik, aztertu dugu zein den sermoiaaren helburua; Austinen galderari jarraiki «hitz egitea gauzak egitea bada», zer gauza egitea da sermoia egitea? Sermoilaria zertarako ateratzen den pulpitura aztertu dugu, pragmatikaren ikuspuntutik. Hala, sermoia, ezer baino gehiago, hunkitu eta emozionatu nahi duen diskurtsoa da, eta noski, badu erregulaziotik eta kontu hartzetik, eta badu irakaspenetik ere (cfr. titulua, Eracusaldiac). Bada tarteak, sermoia entzulearekiko ezartzen duen harreman mota bat, giro bat. Sermoia, zentzu horretan, hitz-hartzan magiko-edo da, eta ibilbide narratiboan zehar kristauak egiten du lurretik zeruainoko bidea.

Aztertu dugu, era berean, sermoian funtsezko den alderdia: polifonia, sermoia zeharkatzen duten ahotsak. Hemen aztertzen dira alderdi interaktibo eta interpersonak. Altxorra kapitulu honetan dago, sermoiaaren bihotza ahotsak dira, zer ahots ekartzen diren. Pertsona izen-ordinak eta aipugintza aztertu ditugu, estilo zuzena eta zehar estiloa.

Sermoia ahots eremuak bereizten ditu argi eta garbi eta hierarkiak ezartzen dira, asoziazio eta disoziazio fenomenoak. Guk A B eta Ch barrutia gisa izendatu ditugu, eta barruti bakoitza nola ekartzen den testura harrigarriki desberdina da.

Ematen du badagoela sermoilariaengen arreta bat esataria identifikatzeko, esatariaren arabera egiteko formulen distribuzioa, eta kontuz ari dela idazlea ez nahasteko.

Noski, ahotsen ekartze hori ez da zorizkoa, ez da egile individualak egiten duen hautua ere: baizik eta «neurri» sozio-diskurtsiboa. Diskurtsoa antolatzeko modu bat da, tresna kognitibo bat, oso errentagarria gertatzen dena edukia memoriari iltzatzeko eta memoriari edukia.

Eta A, B eta C barruti horiek dira sermoiaaren elementu traktoreak. Aipugintza benetako sinbolo da sermoigintzan; ez da jakintza plantak egiteko, baizik eta sinbolo.

Sermoia da ziurrenik historian dagoen genero bakarra, eta historiako okasio bakarra, zeinetan zita arazo testual importanteena den.

Sermoia, azken buruan, aipuen inguruan mamitzen den mintza-praktika baita.

Sermoiak bapore makinak bezala funtzionatzen du, iturri hotza (kristauaren ahotsa) eta iturri beroa (Biblia, patristika, Elizaren doktoreak, kontzilioak...) behar ditu. Baino asozioazio eta konfigurazioak aldez aurretik determinaturik edo konsagratuak daude, historian zehar mamituak, eta autore banakokoaren xede-asmoetarik at.

Azken azterketa erretorikakoa izan da, eta ahalegin txiki bat dago sensibilien erretorika edo emozioen erretorika hori ezaugarritzeko.

Kapitulu bakoitza beregaina da, eta sermoiaren deskripzioa egiten da. Bakoitzak dauka marko teorikoa, analisia, ondorioak. Eta alde horretatik, liburua irakur daiteke kapituluka edo atalka, edo osotasunean. Beharbada, atal bakoitzak bere publiko bereizia dauka. Eta dena irakurtzen duenak, topatuko du intentzio konbergente bat, bata besteari begira egoteko intenzio bat, elkar osagarritasun bat. Horren alde aritu gara, behintzat.

Zer esan ondorioetan? Liburu honetan, Agirreren testuei berbisita egiten zaie eta berrirakurketa bat proposatzen. Eta beharbada, irekitzen da bide bat beste idazle klasiko batzuk ere aztertzeko, izan ere, lan honetan erabili diren hainbat hurbilbidek: zitazioak, pragmatikak edo erretorika enuntziatiboak berak, indar ezaugarriztzaile handia dute, eta diskurtsoak ezaugarritzeko potentziala. Baita literatur obrarenak ere. Eta halatan, Mitxelenak berak ere iradokitzen zuenez, uztar liteke estudioetan literaturarenganako isuria eta hizkuntzalaritzako tresneria.

Eskerrik asko berriz ere eta atea irekita dago galderentzako.



# Agiriak



# Donostian, 2010.eko uztailaren 23an

Andres Urrutia euskaltzainburua,  
Xabier Kintana, idazkaria,  
Jose Luis Lizundia, diruzaina,  
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,  
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,  
Aleman, Sagario  
Arejita, Adolfo  
Charriton, Piarres,  
Davant, Jean-Louis  
Haritschelhar, Jean  
Larre, Emile,  
Oñederra, Miren Lourdes,  
Txomin Peillen,  
Salaburu, Pello,  
Sarasola, Ibon,  
Toledo, Ana,  
Patxi Uribarren,  
eta Zabaleta, Patxi  
euskaltzainak

Pello Telleria idazkariordea, Alfontso  
Mujika eta Mikel Gorrotxategi jaunak,  
zegozkien gaietan.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Aurelia  
Arkotxak, ahala Miren Oñederrari;

Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari;  
Patxi Salaberrik, ahala A. Iñigori; Mi-  
ren Azkaratek, ahala P. Salabururi;  
Joan Mari Torrealdaik, ahala A. Sagarn-  
ari; Joseba Lakarrak, ahala Miren Lo-  
urdes Oñederrari; eta Mikel Zalbidek,  
ahala A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Donos-  
tian, Gipuzkoako Diputazioaren Jaure-  
giko Batzar-aretoan, ezkerreko zuta-  
bean ageri diren euskaltzainak bertan  
direla.

**1. Aurreko akta onartzea.** Ez da ohar-  
rrik jaso eta, beraz, aurreko batzarraren  
akta ontzat eman da.

**2. Hasi aurrekoak.** Euskaltzainbu-  
ruak, bilduak agurtu ondoren, akade-  
miaren ekitaldiak goizean bakarrik  
izango direla ohartarazi du.

**3. Onomastika:**

**3.1. Euskal Herriko ibaien izenak»**  
**2. zerrenda onartzea.** Andres Iñigo eta

Mikel Gorrotxategi mintzatu dira aurrekoan aurkezturiko 2. zerrenda honetaz, Bizkaiko Golkora doazen ibaien mapa hidrografiko batez lagundurik, P. Galek eginikoaz Ibai bakoitzena izenarekin batera oharrak eta bilduriko dokumentazioa erantsi da, lekukotasun historikoak eta berezitasunik nabarmenenak azaltzeko. Izen bat baino gehiagoko hidronimoaren kasuistika xehatu da, ibai batzuek beren ibileran izen bat baino gehiago izaten baitute, zeharkatzen duten tokiaren inguruko herri-izenaren arabera.

J. Haritschelharrek eginiko galderari erantzunez, A. Iñigok argitu du *Maldako erreka* eta *Maldaerreka* bezalakoetan, erabileren arabera formula biak onesten direla.

**Bidasoa** izena dela eta, A. Iñigok aspaldiko eta gaurko erabilera nagusia kontuan harturik, azken hitzaren azken -a hori kasu absolutiboaren markatzat hartzea proposatzen du. Horrela onartu da.

**3.2. Euskal Herriko udal izendegiaz egokitzapen proposamena:** A. Iñigok azaldu duen bezala, Euskaltzaindiak jada onarturiko 141. arauak (*Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera*) xedapen konkretua jarri zuen izen bikoitzaz (bata euskaraz eta bestea erdaraz zirenean: *Agurain / Salbaterra, Donostia / San Sebastián, Baiona / Bayonne* gisakoak). Beraz, euskarazko bi izen berezien kasuan ez da zehar-marra erabili behar, koma (,) baizik. Horren arabera hauek lirateke egin beharreko egokitzapenak:

92. araua *Montori / Berorize* → *Montori, Berorize. Urdatx / Santa Grazi* → *Urdatx, Santa Grazi* eta 108. arauan *Biarritz / Miarritze* → *Biarritz, Miarritze* gelditzen dira.

Era berean, arau bereko 3. puntuaren arabera, lekua, gehi eskualdea, harana edo ibarra adierazten duten herri-izenetan, lehenengo herriaren izena eta, ondoren, argitzeko ezinbestekoa balitz, tarteko marrarik gabe erantsiko da beste osagaia: *Donibane Garazi, Donibane Lohizune, Uharte Arakil, Etxarri Aranatz...* adibideetan bezala. Beste kasuetan ez da beharrezkoa izango, zalantzazko kasuetan erantsiko da. Beste osagaia: *Getaria* eta *Jatsu* soilik edo, bereizteketan: *Getaria Gipuzkoa, Getaria Lapurdi*, esaterako. Kasu bereizia Pagola herriarena da, duen administrazio bereziagatik Nafarroa Behereko eta Zuberoako zerrendetan agertu beharko luke eta.

Azkenik, Zuberoako *Zühara* udalerriko herritar izena falta da: *züharar* alegia.

Beraz, horren eraginez, Onomastikak batzordeak, aurtengo uztailaren 2an Altsasun eginiko bileran, orain arteko toponimo-zerrendetan aipaturiko ukituak egi-

tea ontzat eman eta Euskaltzaindiak berrestea erabaki zuen. Era berean, Onomastika eta Exonomastikarekin zerikusirik duten arau guztiak aztertu eta homologaziorako egin beharreko aplikazioak gauzatzeko batzorde ahaldundu bat izendatzeko eskaria egin zuen.

Euskaltzaindiak moldaketa eta ukitu guztiok ontzat eman eta batzorde ahaldundu hori sortzea onetsi du.

**3.3. Exonomastika batzordeari buruzko azalpena ematea.** J.L. Lizundia batzordeburuak Exonomastika arloko lexikoaren garrantzia azaldu du, irakaskuntza (geografia), kazetaritza (nazioarteko berriak eta kirolak), administrazio eta aldame-neko herrialdeak aipatzeko orduan maiz gertatzen diren zalantzak erabakitzeko. Alfonso Mujika idazkariak, berriz, Euskaltzaindiak arlo honetako eztabaideak gidatzeko asmoz orain arte plazaraturiko lanak gogoratu ditu: Euskal Herriko udalen izendegia (K. Mitxelenak berak zuzendua), Estatuena, bai eta arlo horretaz kezkaturik eginiko saioak eta bilerak ere: Leioako biltzarra, 1994an; 1994ko maiatzeko Exonomastika Jardunaldien ondoan Euskaltzaindiak egindako adierazpena, Santuen izenak, antzinako eskualdeak, hiriak etab.

Exonomastika batzordea 2007an eratu zela gogorarazi du, horren partaideak aipatuz: J.L. Lizundia, X. Kintana, I. Irazabalbeitia, M. Gorrotxategi, A. Mujika eta Irene Arrarats.

Ondoren, toponimoak bildu, sailkatu eta hautatu, orraztu eta bahetzeko ibilbide guzтиa xeheki azaldu du pantailan batzorde-idazkariak, azken emaitza Euskaltzaindiaren aurrean, onarpen eske, aurkeztu arte. Eginiko galderai ere erantzun dizkie A.Mujikak. J.L. Lizundiak, bukatzeko, hemendik aurrerako pentsaturiko lanak ere aipatu ditu gainetik, gorago esandakoez gainera, bidaia-agentzietan, esaterako, izan dezaketen eragina azpimarratuz. Euskaltzainburuak A. Mujikari eta gainerako batzordekideei eskerrak eman dizkie.

**4. Euskaltzaindiaren Hiztegia eta Hiztegi Batua (2. itzulia) batzorde ahaldunden lanari buruzko azalpena ematea.** Andoni Sagarna batzordeburuak Euskaltzaindiaren Hiztegia (Adierak eta adibideak) eta Euskara Batuko hiztegiaren 2. itzuliaren orain arteko egoera azaldu du. Horretarako, paperean idatzirik eta pantailaz baliatuz, eginiko ibilbidea pauso pauso argitzen aritu da, eta batzordearen osaera, eginkizunak, zuzendaria, aritzeko prozedura eta beteriko epeak, orain arte eginiko bilerak eta amaitu arte falta direnak aipatu ditu. Hasieratik aurreikusten zen bezala, *Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak* 2011ko uztailaren amaierarako bukatzea espero da. **Hiztegi Batua (2. itzulia)**, ordea, aurtengo aben-

durako amai daiteke, baina begiespenez beste urte beterako iraupena duenez, ora-indik erabat erabakitzeko edo berrikusteko gelditu diren puntuak (hitz izartxodunak (\*), e eta h daramatenak, kasu) ebazteko astia izanen dela pentsatzen da.

Amaitzeko, euskaltzain batzuen iruzkin eta argitasun-galdera batzuk erantzun ditu A. Sagarnak. Eskerrak eman zaizkio.

**5. EURALEX Nazioarteko Kongresuaz.** Aurtengo uztailaren 6tik 10era Fri-siako Leeuwarden/Ljouwert hiriburuan XIV. Euralex kongresua izan da, lexikografiari eta lexikologiari buruz. Antolatzaleak: Frisieraren Akademia eta Nederlande-raren Leidengo Lexikologia Institutua. Euskaltzaindiak batzar horretan bere ordezkarria izan du, Andoni Sagarna, hain zuzen, hara euskararen berri eramateko. Gure Iker sailburuak Europako erabilera urriko edo estaturik gabeko hizkuntzen lexikografiaren egoera azaldu du, paperean ekarritako datu eta mapa argigarriekin. Hor, mintzairak horiek lege, erabilera eta ofizialtasun aldetik dituzten ezberdintasunak eta bakoitzaren kasuistika berezia islatzen da, lantze eta ekoizpen aldetiko emaitzen argitan. Giro bereko beste hizkuntzakonparaturik behintzat, euskara ez dagoela hain egoera txarrean nabarmendu da, parametro batzuen arabera lehenengo edota bigarren mailan agertzen baita. Kongresuko aktak eta datuak zehazkiago irakurri ahal izateko, euskaltzainak kontsulta-helbidea ere eskaini du.

Ondoren, galdera eta iruzkinen txanda etorri da. Tx. Peillenek hizkuntza eta dialektu arteko mugen arazo zaila aipatu du, batzueta bereizteko zailtasunagatik, eta aragoieraren kasua kontura ekarri du. P. Zabaletak erabilera urriko eta estatu propiorik gabeko hizkuntzen artean bereiztu beharra ere azpimarratu du, eta jasoriko informazio eskertu. P. Salaburuk katalan hiztunei buruzko datuak xehatu ditu. P. Charritonek asturieraren egoeraz galdeitu du. I. Sarasolak hizkuntzen garagorabidean independentzia politikoak izan dezakeen eragina gogorarazi du.

## 6. Esku artekoak

**6.1. Batzar-egutegia.** Karpetan sarturik, Euskaltzaindiaren aurtengo azken hilabeteetako batzarrak non egingo diren iragarri da:

Irailaren 24an Atarrabian, Hileko batzar arrunta goizean eta, Ageriko Bilkura arratsaldean, *Paz de Ziganda* ikastolan izango da, *Nafarroa Oinez-en* ospakizunaren inguruan.

Urriaren 29an Baionan. Hileko batzar arrunta goizean eta Xarles Videgainen sarrera-hitzaldia bezperan, ostiral arratsaldean, udaletxeen.

Azaroaren 26an Bilbon. Hileko batzar arrunta.

Abenduaren 17an, Zarautzen, Hileko batzar arrunta. Arratsaldean ageriko bilkura Zarauzko Frantziskotarren komentuaren 400. urteurrenean.

**6.2. Sustapen batzordeko kide berria:** Jagon sailburuak Euskaltzaindiaren Zuzendaritzari *Joan Aizpurua Espín* jauna Sustapen Batzordekide izendatzeko proposamena egin zion eta berorrek ontzat eman zuen. Osoko batzarrak berretsi egin du erabaki hori. Izendatuaren curriculuma karpetan banatu da.

**6.3. «Mugarik gabeko Telebista»ren aldeko kanpaina.** A. Iñigo Jagon sailburuak eman du kanpaina horren berri, horren alde bildu eta egiaztatuak, Estatuan guztira, 538.129ak izan direla dokumentatuz. Sinadura-biltzeak Nafarroan izandako arrakasta azpimarratu du. J.L. Lizundiak hemengo parlamentariekin, gai horri buruz bilera bat egitea komeni dela azpimarratu du.

**6.4. Datu pertsonalak babesteko neurriak.** Indarrean dagoen legea betetzeko, Euskaltzainburuak, ahoz, *Agencia Española de Protección de Datos* deritzeron Datu Pertsonalen Erregistroan Euskaltzaindiaren datu-base hauek sartu direla azaldu die euskaltzainei: Aurkitegi Instituzionala, langileen ordutegi-kontrola, Azkue Bibliotekako irakurleen datu-basea, B eta D tituludunen zerrenda, Bezeroak eta hornitzaileak, Plazaberri eta e-AEBren posta-zerrendak, ATHC-ko berri emaileak (Ahozko Tradiziozko Hizkeren Corpusekoak), EHSko Eliz Galdetegia, eta EHHAko lekuoak.

**6.5. El Diario Vasco-rekiko hitzarmena.** Euskaltzainburuak Gipuzkoako *Diario Vasco* egunkariarekin uztailaren 12an lankidetza-hitzarmen bat sinatu dela jakinarazi du.

**6.6. J. L. Davant zuberotarra emeritu.** Euskaltzaindiaren arautegiak xedatzen duenaren arabera, J. L. Davant euskaltzaina, aurten 75 urte betetzen dituelako, emeritu egoerara iragaten dela iragarri du euskaltzainburuak, eta horren ondoriozko hutsartea aldarrikatu.

Ondoren, J.L. Davantek, Euskaltzaindiari eta euskaltzain guztiei berarengan jarritako konfiantzagatik eskerrak eman dizkie, eta euskaltzain izan den 35 urte luze hauetan bidaide eta lankide izandako euskaltzainen (hilen zein bizien) laudorio eta oroitzapen laburra ere egin du. Laster bere ondokoa euskararen alde lanean ikusiko duelako esperantzeta eta poza ere agertu ditu, eta osasunak laguntzen dion heinean Euskaltzaindiaren eta euskararen alde lanean segitzeko asmo finkoa azpimarratu du. J. Haritschelharrek, irribarrez, emerituen «kofradia»ra ongi etorria eman dio.

**6.7. M. L. Oñederraren txostena.** M. L. Oñederrak bere hautaketan agindu zuen txostena, ebakerari buruzkoa, jada Zuzendaritzak jasoa duela iragarri du Euskaltzainburuak, eta.beraz, hitza bete duela. Hurrengo batean irakurriko da.

**6.8. Hizkuntzen legea Espainiako Senatuan.** P. Zabaletak, Senatuaren osoko bilkuretan, hemendik aurrera, gaztelaniaz gainera, Espainiako beste hizkuntza ofizialak ere erabili ahalko direlako berria gogorarazi du, eta, hori dela eta, agian Euskaltzaindiak adierazpenen bat egin lezakeela. Dena den, Kataluniako estatutu berria dela eta, batzuek katalan hizkuntzaren status berriari ezarri nahiko lioketen muririzpenaz bere kezka agertu du. J.L. Lizundiak, bere kasuan, katalunierarekin solidaritate-adierazpena erakutsi beharko genukeela esan du.

**6.9. Okzitaniarrek Euskaltzaindiari bisita.** Euskaltzainburuak, uztailaren bederatzian Euskaltzaindiak okzitaniar talde baten bisita izan duela adierazi du, Arango haranetik eta Frantzia aldeko herrialdeetatik. Bertako egoeraren berri eman dute, eta etorkizunerako dauzkaten asmo eta proiektuak azaldu. Haiekin harremanetan egoteko gogoa agertu die euskaltzainburuak.

## 7. Azken ordukoak.

Bilera bukatzean banatu diren argitalpenak:

- *Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian – L'enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque*, Erramun Baxok eta Jean-Baptiste Coyosek prestatua.
- 2009ko *Oroitidazkia*
- *Plazaberri* (7. zenbakia)
- *Euskaltzaindiaren gida*

Batzarra ordu bat eta laurdenean amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

# Atarrabian, 2010.eko irailaren 24an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,  
Sagarna, Andoni, Iker sailburua,  
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,  
Aleman, Sagario,  
Arejita, Adolfo,  
Charriton, Pierre,  
Davant, Jean-Louis,  
Haritschelhar, Jean,  
Larre, Emile,  
Peillen, Txomin,  
Salaberri, Patxi,  
Toledo, Ana,  
Torrealdai, Joan Mari,  
eta Uribarren, Patxi,

Joseba Zabaleta kudeatzailea, Mikel Gorrotxategi eta Patxi Galé, zegozkien gaietan.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Aurelia Arkotxak, ahala L. Oñederra-J. Haritschelharri; Miren Azkaratek, ahala J. Haritschelharri; Patxi Goenagak, ahala J. Haritschelharri; Bernardo Atxagak, aha-

la A. Urrutiari; Joseba Lakarrak, ahala P. Salaberriri; Beñat Oihartzabalek, ahala X. Videgain-J. Haritschelharri; M.L. Oñederrak, ahala J. Haritschelharri-A. Toledori; P. Salaburuk, ahala P. Goenaga-Aurelia Arkotxa-M.L. Oñederrari; Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori; Mikel Zalbidek, ahala A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Atarrabiako Paz de Ziganda ikastolan, ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Etorririko euskaltzainak agurtu ondoaren, Euskaltzainburuak batzarrari hasiera eman dio.

**1. Aurreko akta onartzea.** M. L. Oñederraren ohar bat jaso da, uztailaren 23ko 6.7. atalari dagokiona, Urkiolako barne-jardunaldietan, ahoskeraz txosten bat barik, ahoskera batzorde bat abiatzeko proposatu zuela adierazteko. Halaxe jasoko da. Besterik gabe, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

## 2. Hasi aurrekoak

**2.1. Eguneko programa.** Euskaltzainburuak, Akademiaren gaietan sartu baino lehen, ohar batzuk egin ditu:

- a) **Euskaltzaindiaren Batzarra** goizez besterik ez da izanen.
- b) **Ikastola Mugimendua. Dabilen herria** liburuaren aurkezpena 12:30etan izanen da Paz de Ziganda Ikastolan.
- c) **Ikastolarako bisita**, 13:00etan.
- d) **Atarrabiko Udaletxean** 13:30etan **Pello Gurbindo** alkateak euskaltzainak hartuko ditu.
- e) Arratsaldean, bazkaria udaletxe ondoko elkartean egin ondoren, **Ageriko bilkura** izango da, Paz de Ziganda ikastolako gimnastika aretoan, 17:30etan hasita.

**3. Onomastika. «Euskal Herriko ibaien izenak»; hurrengo zerrenda aurkeztea.** A. Iñigok aurkeztu du. Ondoren, pantailan proiektaturik, P. Galé-k Arabako Ebro ibairako isurkideak, hots, Logroñotik gorakoak, azaldu ditu, horretarako, zalantza kasuetan izan dituen ezbaia, laguntzak eta argitasunak zehazki emanet. Bizkaiko golkora doazen ibaiaik aurrekoan ikusi zirela gogorarazi du. Aldiz, Nafarroara doazenak (**Arakil, Arga...**) hurrengo batean aztertuko dira. Aipatzeko, goitik beherako ordena erabili du, hots, ipar mendebaletitik ekialderantz: **Ebro, Puron, Omecillo, Tumecillo, Baia, Vadillo...**

Ibai batzuek beren kokalekuaren arabera dituzten izen aldaketak aipatu ditu: **Bayas de Suso /Bayas de Yuso, Zubizola/Undabe, Ibarbaltz/Urkiolaeurreka, Zubietza/Zalla, Iuda, Jugalez/Inglares/Juglares**, bai eta agiri zaharren argitan mendeetan zehar dokumentatzen diren izen ezberdinak ere. Kasu bakoitzean, batzordeak bere ustez euskararako formariak egokiena proposatu du. Elkarrizketara pasaturik, lekukotasunik aski ez dagoen kasuetarako, J.L.Lizundiak Calahorrako artxiboetan begiratzea gomen-datu du. Bestalde, X. Kintanari fonetikoki euskararekin antz handiena gorde duten aldakiak hautatzea iruditzen zaio egokien. P. Xarrittonek ere iparraldeko kasu batzuk aipatu ditu. Oharrak urriaren 20rako bidali behar direla gogorarazi du A. Iñigok.

## 4. Argitalpen batzordeari buruzko azalpena ematea

Datozen lau hilabeteetan argitaratuko diren testuen zerrenda aurkeztu du euskaltzainburuak, eta euskaltzainen artean banatu da:

**Ikastola mugimendua. Dabilen herria.** Jagon bilduma, 10. Irailaren 24an, 12,30etan Atarrabian aurkezteko.

**Ahotsa, hitzak, hizkuntzak. Euskal Olerki Antologia.** Bilbon, Urriaren 8an.

**Euskara agerkaria 2009-1, 2009-2.1, 2009-2.2.** Urriaren 18an, egoitza.

**Erlea** aldizkariaren III. zenbakia oso aurreraturik dago eta, segur aski, urriaren bukaeran aurkeztuko da.

**Atlasaren 3.** liburukia ere bukatua da eta aurten argitara emateko asmoa dago. Aurkezpena Donostian egingo da, eta, ahal bada, Iparraldean ere bai.

**Hiztegi Batua,** aldiz, Bilbon aurkeztu nahi da, ahal izanez gero, urtearen bukaeran.

Onomastika Batzordeak **Izenak** deritzon sail berri bati hasiera emanen dio. Lehengo liburukia, **Euskal Herriko Udalen izendegia**, laster plazaratuko da.

Bestetik, **Anaitasuna** aldizkariaren digitalizazio-lana, J.M. Torrealdairen ardurauean, jada bukatua da, eta hor Bizkaiko Euskal Aldizkari horren historia eta edukiak *on line* jarriko dira: Aurkezpena, segur aski, aurtengo azaroan egingo da.

**Auspoa bildumaren argitalpen elektronikoa** ere, Gipuzkoako Diputazioaren laguntzaz bultzatua, Pello Esnalek aspaldian eginiko lanari esker oso ongi doa, azken tituluak salbuetsirik. P. Charritonek aita Zavalaren artxiboaz galdetu du. Euskaltzaindiak horretan ez duela zer ikusirik, ez eta jabegorik ere, erantzun zaio.

**Webgune berria** urtearen amaierarako sarean sartu nahi litzateke, euskaltzain guztien berri emanet: lanak, batzordeak, artikuluak etab.

##### **5. Euskera agerkariari buruzko azalpena ematea**

Euskaltzainburuak **Euskera**, Akademiaren agerkari ofiziala, gaurko premietarako egokituta eta eraldatzeko bidean, orain arte egin diren pausoak azaldu ditu.

Jada, horren **Idazketa Batzordea** eratu da, ondokoek osatua: Andres Urrutia, Zuzendaria. Ana Toledo, Idazkaria eta Rikardo Badiola, Idazkari teknikoa. **Kideak:** A. Arejita, J.B. Coyos, J.A. Lakarra, A. Sagarna, P. Salaberri eta M. Zalbide. Horrez gainera, **Aholku Batzorde bat** ere izango du, Euskal Herriko unibertsitateetako, kanpoko beste unibertsitate eta erakunde batzuetako eta kultura munduko 30 kidek osatua. Batzorde tekniko bat ere izango du, Jon Artzak eta Pruden Gartzia osatua.

**Euskera** berriztatzea era bereko argitalpen zientifiko akademikoen irizpideekin bat etortzeko asmoarekin egin da. Horretarako, aldizkariaren egitura, barne-sailketa, atalketa, indexazioa eta birmoldatu dira, bai eta aldizkariaren ebaluazioa egin ere.

Azala eta barrua aldatu dira. Nazioartean hedadura handiagoa eta errazagoa lor dezan, hemendik aurrera lau hizkuntzaz idatziko da: orain arteko euskaraz, espainieraz eta frantssez gainera, ingelesez ere publikatuko da. Gutxienez artikulu zientifiko guztien laburpenak lau hizkuntzotan eskainiko dira

Artikuluak idazteko, idaztarau estandarrak jarri dira, partaide guztiak originalak aurkeztean bete beharrekoak. Urtean 3na zenbaki aterako dira. 1.an urteko lehen sei hilabeteetako lanak. 2. zenbakian: ikerketa-lanak eta 3.ean azken sei hilabeteetako lan eta agiriak. Zenbaki bakoitzetik 700 ale kopurua aterako da

Kalitatea neurtzeko, artikulu bakoitzeko bina ebaluatziale izendatuko dira, eta horien txostenak eskuratu eta gordeko dira. Latindex irizpideak jada betetzen dira eta, ondorioz, agerkaria indexazio bidean jarri da. **Euskera** agerkariaren 2009. urteko lehen zenbakiak CSIC erakundeari bidali zaizkio, prozesu horri segituz.

Asmoak asmo, eraberritzea bidean da, aurreikusten diren bitarteko batzuk (idazketa-batzordearen aldian aldko bileren maiztasuna, jarraipena, zabalkundea eta beste erakundeekiko trukaketak egitea, adibidez) oraindik eginkizun badira ere.

J.M. Torrealdaik aldizkariaren gehieneko orri-kopuruaz galdetu du: 500 orrialde inguru erantzun dio A.Urrutiak

J.L. Lizundiak zorionak eman dizkio aldizkariaren batzordeari, eta iradokizun batzuk egin ditu, horien artean lan baliotsu batzuk, inoiz aldizkari lokaletan argitarera emanak, lekukotasunak edota ikerketak ere argitaratzeko. Idazketa-batzorde aholkulari, eta batzordearen osakide guziei zorionak ematea erabaki da.

**6. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Oztopoak eta adibideak. Batzorde ahaldundua. Hiztegi Batuaren 3. argitalpenaren berri ematea.** Andoni Sagarnak orain arte egindako lana pantailan erakutsi eta azaldu du. Argi utzi du, aspaldiko urteotan euskal literaturak, irakaskuntzak eta hedabideek harturiko indarrari esker, gure hizkuntzak izandako elkartze eta batasun-bultzada nabarmena, eta, horregatik, euskalkiak markatzeko orain arte erabiliriko mugen eta irizpideek gero eta zentzu txikiagoa dutela. Horrexegatik, e. eta h. marken erabilera, maiz zalantzazkoa eta problematikoa gertatzen dela, eta horri buruz Euskaltzaindiak

agian erabaki gaurkotuagoak hartu beharko ditu. Nolanahi ere den, lanak martxa onean doazela azpimarratu du.

Bestalde, **Hiztegi Batuaren 3. argitaraldia** dela eta, aurreko edizioetan baino askoz ere hitz gehiagorekin hornitua, lantaldeak jada oharrik jaso gabeko hitzen zerrrenda prestatua eta onartua daukala jakinarazi du du.

## 7. Eskuartekoak

### 7.1. Batzar egutegia: Urri-abenduko programa banatu da.

#### 7.1.1. Urriaren 30ean, larunbatean, Baionan, Udaletxean.

Goizeko 9:00etatik 10:30etara. Hileko batzar arrunta.

10:30etatik 13:00etara: Xarles Videgainen sarrera-hitzaldia.

13:00 – aurrera: Zintzurra bustitzekoa eta Bazkaria

#### 7.1.2. Azaroaren 26an Bilbon. Hileko batzar arrunta.

7.1.3. Abenduaren 17an, Zarautzen, Hileko batzar arrunta. Arratsaldean age-riko bilkura.Zarauzko Frantziskotarren komentuaren 400. urteurrenean.

## 8. Azken ordukoak

### 8.1. Idazkari-ordearen lana-uztea

Pello Telleriak, orain arteko idazkarioordeak, bere lanpostua utzi eta berriz ere administrazio publikora itzuli dela jakinarazi du Euskaltzainburuak. Horren hutsunea betetzeko, jada pauso batzuk eman direla azaldu du. Berria hautatu eta izendatzen ez den artean, Idazkariodearen lana Kudeatzaileak beteko ditu Idazkarriaren laguntzarekin.

Era berean, zuzendaritzari ahala ematen zaio lanpostu hori betetzeko tramiteekin segitzeko.

8.2. **Egoera ekonomikoaren berri eta murrizketak:** J.L. Lizundiak azaldu dueenez, aspaldion ekonomian pairatzen den krisia dela eta, Euskaltzaindiari diru-sostengua ematen dieten erakundeek, neurri ezberdinan bada ere, beren laguntzak urritzea erabaki dute. Hori dela eta, Zuzendaritzako kideen eta, oro har, euskaltzain guztien sariak eta batzordekideen dietak hemendik aurrera murriztea erabaki da. Azken 3. hiruhilabetekoan beherapena % 7'5koa izango da.

**8.3. Txikiak handi manifestua.** Nafarroako ikastolen jaialdiaren inguruan, hizkuntza txikien eta eleanitzasunaren aldeko aldarrikapen bat atera nahi da. A. Iñigok horren mamia eta helburuak laburki azaldu ditu. Euskaltzainburuak argi esan du Akademiak, erakunde den aldetik, ez duela era horretako manifestuak sinatzeko ohiturak, baina, horren helburua ikusita, euskaltzainen artean atxikimendu-orriak banatuko direla, euskararen aldeko adierazpena denez gero horrela nahi duten euskaltzainek sina ditzaten. Inprimakiak banatu zaizkie euskaltzainei.

#### **8.4. Liburuak:**

Irteeran bi liburuok banatuko dira:

*Euskaltzaindiaren argitalpenen katalogoa*, eta

*Ikastola mugimendua. Dabilen herria liburuaren aurkezpena*

Bilera 12,15ean amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

# **Atarrabian, 2010.eko irailaren 24an**

2010. Urteko *Nafarroa Oinez* dela eta

## **Ageriko bilkura**

Atarrabian, 2010eko irailaren 24an, Atarrabiako Paz de Ziganda ikastolan, *Nafarroa Oinez* 2010 dela eta, Ageriko bilkura egin du Euskaltzaindiak, arratsaldeko 17:30ean.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xabier Kintana idazkaria, Andoni Sagarna Iker sailburua, Andres Iñigo Jagon sailburua, Sagrario Aleman, Patxi Salaberri, Ana Toledo eta Patxi Zabaleta.

Euskaltzain urgazleak: Mikel Bujanda, Paula Casares, Aingeru Epaltza eta Manu Ruiz Urrestarazu.

Kudeatzailea: Joseba Zabaleta.

Batzordekideak: Erramun Osa Sustapen batzordeko idazkaria.

Euskaltzaindiko langileak: Amaia Okariz.

Urtero bezala, *Nafarroa Oinez* festarekin bat egin du Euskaltzaindiak, Atarrabiako Paz de Ziganda ikastolan hainbat ekitaldi eginez. Goizean, Euskaltzaindiaren osoko batzarra egin da, Paz de Ziganda ikastolan. Gero, *Ikastola mugimendua. Dabilen herria* liburua aurkeztu da. Horren ostean, euskaltzaineek ikastola bisitatu eta gero Udaletxera joan dira, Pello Mirena Gurbindo Atarrabiako alkateak bertan hartu baititu. Eta azkenik, arratsaldean, ikastolan, ageriko ekitaldia egin dute elkarrekin Euskaltzaindiak eta Paz de Ziganda ikastolak.

Iñaki Erroz ikastolako zuzendaria hasiera eman dio ageriko ekitaldiari. Euskaraz bitzeko eskubidea aldarrikatzeaz gain, gure hizkuntzak kultur ondare gisa duen

balioaz ere hitz egin du Errozek, «Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo. Munduz mundu esamoldearekin –amaitu du– gure identitate propioa izatea, gure kausuan euskalduna, eta mundura zabalik egotea erabat bateragarria direla adierazi nahi dugu».

Ondoren Patxi Salaberri –«Iruñerriko euskararen ezaugarriak»–, Patxi Zabaleta –«Jorge Cortes Izal, Euskariako berritzalea»– eta J. Iñaki Etxezarreta –*Ikastola mugimendua. Dabilen herria liburuaz azalpena emanet– mintzatu dira. Azken hitzak Andres Urrutia euskaltzainburuak esan ditu.*

Ekitaldiak iraun bitartean, Paz de Zigandako ikastolako abesbatzak kanta bi es-kaini ditu: *Nere herriko neskatxa maite eta Eperrak.*

Bere hitzaldian, Patxi Salaberri euskaltzainak Iruñeko bertako euskararen inguruau mintzatzea zaila dela nabarmendu du, «hagitz testu gutxi ditugulako eta, beraz, hiriko hizkera nolakoa zen ongi ez dakigulako».

Bestalde, azpimarratu duenez, «kontuan hartu beharra dago Iruñean, dokumentazioa dagoenetik, anitz lekutako jendea bizi izan dela, eta ez naiz bakarrik XII. mendeaz geroz guregana etorri ziren frankoek ari. Izan ere, Iparraldekoak, gaztelaniako dokumentazioan «basco»-tzat jotzen diren horiek asko ziren Nafarroako hiriburuau, eta Nafarroa Garaiko herrietako jendeak ere ugariak ziren. Honek, dudarik ez dago, bortizki eraginen zion Iruñeko euskarari, eta inguruko zendea eta ibarretako hizkeretarik bereiziko».

Horiek horrela, hainbat testu labur irakurri ditu, eta azkenean Iruñerriko euskararen ezaugarri batzuk aipatu ditu: diptongo batzuk, zenbait soinuren tokialdatzea, bukaerak... Aipatutako ezaugarri gehienak, azpimarratu duenez, gaur egun ezin dira euskara batuan, erabili «arauak emanak direlako. Beraz –gaineratu du– galdera da: zer atera dezakegu Iruñerriko euskarra galdukit hizkuntza estandarrean sartzeko? Nire irudiko erantzuna hau da: hiztegia eta esamoldeak balia ditzakegu».

Horren ostean, Patxi Zabaletak Jorge Cortes Izal, *Euskariako berritzalea* izeneko hitzaldia eman du. Cortes euskaltzain urgazlea zen eta aurtengo urtarrilean hil zen. Iruñean. Ikastolen mugimenduaren bultzatzaire handienetarikoa izan zen Jorge Cortes Nafarroan, etengabeko lan isila egiten.

1963an egin zituzten Nafarroako lehenengo ikastola zabaltzeko ahaleginak, baina ekimenak ez zuen aurrera egin, eta handik bi urtera, 1965ean, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteak ikastola bat eratu zuen, esklusiboki bertako kideen seme-alabentzat. Hasieran Nuestra Señora de Ujué izena zeraman, baina gero Paz de

Ziganda izatera pasa zen. Halere Elkartea zatitu egin zen, eta Jorge Cortesen gidari-tzapean San Fermin ikastola sortzeari ekin zioten. Ikastola horren buru ere izan zen, gurasoek hautatua eta ikastola honetako lehenbiziko ikasleetakoak izan ziren bere semeak. Laster zabaldu zuten ikastolen mugimendua Nafarroa osora.

Nafarroako Diputazioaren Príncipe de Viana erakundeko «Fomento del Vas-cuence» sailean parte zuzena izan zuen, euskararen sustatze lanetan eta erakundearen izena zeraman aldizkariaren euskarazko gehigarrian batik bat. Amadeo Marco, Miguel Javier Urmeneta eta abarren laguntza lortu zuen Euskararen Sail horretatik Nafarroan euskara sustatzen eta zabaltzen joateko, eskola munduan bereziki. Jorge Cortes Izal Euskalerria Irratiaren sortzaileetarikoa ere izan zen.

J. Iñaki Etxezarreta, Ikastolen Elkarteo aholkulariak aurkeztu du, arratsaldeko ageriko ekitaldian, *Ikastola mugimendua. Dabilen herria liburua*. Liburu hau Euskaltzaindiaren Jagon bildumaren 10. zenbakia da. Euskaltzaindiaren eta Ikastolen Elkartearen arteko lankidetzaren emaitza berria hain zuzen. Bertan, ikastolen izaera kolektiboa kontatu nahi da, ikastolen eta gizartearen arteko elkarrekintzarekin batera. Ikastolen historia sozialaren saioa da.

Hortaz, lan honek ikastolen historia sozialarekin zerikusia duten datuak, gertaerak, lekukotzak eta aburu kontrajarrak biltzen ditu, besteak beste. Bai ikastola oso azaletik ezagutzen duen irakurleak, eta bai adituak ere, ikastola mugimenduaren ikuspegi osoa aurkituko dute, eta orain arte jakinak ziren datu askorekin batera, behin ere jaso gabe zeuden gertaera, adierazpen, lekukotza zuzen eta ikuspegi desberdinaren berri izango du.

Ikastola mugimenduak 50 urte bete ditu. Alegia, XX. mendearren lehen erdiko ahaleginen ostean, Azkuek, Muñoak, Euzko Ikastola Batzak, Elbira Zipitriak, Julita Berrojalbizek eta bestek eragindako saioen ondotik, gaur egun eta euskal lurralte guztietan ezagutzen den ikastola mugimendua 1960an abian jarri zen.

*Ikastola mugimendua. Dabilen herria liburua* ikastola mugimenduaren barruko eta kanpoko ibilbidearen berri ematen duen txosten zabala eta zehatza da, eta euskal herritarren ibilbidearekin batera egindako jarduna agertzen ahalegindu da.

Baina bada besterik ere. Oso ekarpenean garaikidea bada tartean. Saioaren 8. kapi-tuluan, «Ikastola eredu, 50 urteko gizarte-berrikuntzaren adibide» izenburukoan, Ikastolen Elkarteak azken hamarkada honetan bere idazkietan argudiati duen tesia jasotzen du, hots, ikastolak eredu direla dioen tesia, euskal hezkuntzaren eskola-ekintza eta gizarte-ekintza garatzen dituen eredu propioa eraiki dutela.

Ildo beretik, planteatzen da ikastola bakoitzak eta ikastolek, hots, ikastola mugimenduak, hezkuntzaren eta hizkuntzaren muga soilak gainditzen dituztela eta gertaera sozial osoa bihurtu dela.

Amaitzeko, Andres Urrutiak hartu du hitza: «Euskalduntasunean iraun, belau-naldi berriei erakutsi, euskara nonahi erabili... gaur ere bizi-egitasmo baten arra-zoia dira. *Nafarroa Oinez*-en leloa gogoratuaz, euskara munduz mundu doa eta bi- daia horretan Euskaltzaindiaren goiburua ere erabilgarria dela uste dut, ekin eta jarrai», esan du euskaltzainburuak.

Andres Urrutia euskaltzainburuaren hitzakin bukatu da 2010. urteko *Nafarroa Oinez* dela eta egin den ageriko bilkura, arratsaldeko 19:00etan.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

# Baionan, 2010.eko urriaren 30ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Arkotxa, Aurelia, euskaltzainburuordea,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,  
Sagarna, Andoni, Iker sailburua  
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,  
Aleman, Sagario  
Arejita, Adolfo  
Azkarate, Miren  
Charriton, Pierre,  
Davant, Jean-Louis,  
Goenaga, Patxi,  
Haritschelhar, Jean,  
Lakarra, Joseba,  
Larre, Emile,  
Oihartzabal, Beñat,  
Oñederra, Miren Lourdes,  
Peillen, Txomin,  
Toledo, Ana,  
Torrealdai, Joan Mari,  
Uribarren, Patxi,  
Videgain, Xarles,  
Zabaleta, Patxi,  
eta Zalbide, Mikel.

Joseba Zabaleta kudeatzailea, Mikel Gorrotxategi eta Patxi Galé, zegozkien gaietan.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari; P. Salaberrik, ahala A. Iñigori; P. Salaburuk, ahala J. Haritschelharri, edo B. Oihartzabali.

Batzarra goizeko 9etan hasi da Baionako Herriko Etxean, ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Etorririko euskaltzainak agurtu ondoaren, Euskaltzainburuak batzarrari hasiera eman dio.

**1. Aurreko akta onartzea.** M. Azkarate, A. Iñigok, L. Oñederrak, eta Tx. Peillenek aurreko aktan agerturiko huts batzuk aipatu dituzte. Idazkaria horiek kontutan hartu eta halaxe zuzenduko ditu. Besterik gabe, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

## 2. Hasi aurrekoak

**2.1. Eguneko programa.** Euskaltzainburuak, Akademia gaietan sartu baino lehen, osoko Batzar arruntak goizeko 9:00etatik 10:30etara iraunen dela gogorarazi du, eta arratsaldean ez duela segidarki ukanean.

## 3. Onomastika

**3.1. «Euskal Herriko ibaien izenak» Ebrora doazen euskal ibaiak. 4. zerrenda onartzea.** Zerrenda horri egin zaizkion oharrak A. Iñigok eta P. Galék azaldu dituete banan-banan. Lekukotasun zahar segururik ez duten ibai izenei dagokienez, zuhurrena gaur erabiltzen diren formak hobestearen alde agertu dira. Halere, zalantzarak gabe etimologia argia duten kasuetan, euskal forma proposatu da, eta horrela, *Recabión*-erako *Errekabion* berba hobetsi da.

B. Oihatzabalek zerrendak ordena geografikoan ez baina alfabetikoan aurkeztea egokiagoa izan daiteloa esan du. P. Zabaletak *Riomayor* moduko hidronimoetan hitz generikoa kentza planteatu du, *Mayor ibaia* erabiltzeko: era bereko *Riobueno* edo, *Riosalado* hidronimoetan errepikatzen dena. M. Azkaratek erdal eremuetan euskarazko itzulpenak sartzeko zalantzak dauzkala esan du. M. Gorrotxategik, halaber, oro har geografia-izenak ez itzultzeko joera dela nagusi gogoratu eta *Río Grande*-ren adibidea aipatu du.

Charritonek espainolari eta gaskoiari zer nolako statusa eman behar zaien galdetu du. J.L. Lizundiak, hori ez dela gaurko gaia erantzun dio, eta A. Iñigok arazo hori jada Monte Perdido tratatu zenean, era horretako izenak beren horretan errespetatzea garbi utzi zela gaineratu du.

Botoetara eramanda, *Riomayor* idazteko proposamena gelditu da nagusi, P. Zabaletaren aurkako botoarekin. Edonola ere, horren gainean luzaroago mintzatuz eta aipaturiko arrazoik entzunda gero, *río* hitz generikoa daramaten hitzetan batzordeak bere irizpidea hurrengo bileran birkontsidera dezala erabaki da.

**3.2. Onomastika. «Euskal Herriko ibaien izenak» Ebrora doazen euskal ibaiak. 5. zerrenda aurkeztea.**

A. Iñigok, halaber, P. Galékin batera, Nafarroatik Ebroratzen diren ibaien zerrendaren proposamena aurkezu du. Hor Ega ibaiaren bi sorburuen arazoa azaldu du (Igoroingo Ega eta Azazetako Ega) eta beste zenbait kasuren bikoitztasun eta are aniztasuna ere. Horrelakoetan historian zehar izandako izenak dokumentatu dituzte, eta, kasu konkretu batean, San Pedro ibaiaren bost izenen kasua aipatu dute. Oharrak egiteko epea azaroaren 10ean amaituko dela gogoratu zuen.

#### 4. Eskuartekoak:

##### 4.1. Zuberoako euskaltzain berriaren hautatzeaz.

Jean-Louis Davant emeritu bilakaturik, Zuberoako aulkia hori betetzeko, Jean Baptiste Coyos jaunaren hautagaitza aurkeztu dute J. Haritschelhar, J.L. Davant, Tx. Peillen eta A. Urrutia euskaltzainek. Proposamenarekin batera, horri dagokion curriculuma ere banatu da euskaltzainen artean.

Bozketa Euskaltzaindiaren azaroaren 26ko osoko batzarrean egingo da, Bilbon.

##### 4.2. Erlea aldizkariaren 3. zenbakiaren aurkezpena

Euskaltzainburuak iragarri du B. Atxagaren zuzendaritzapean eta Euskaltzaindiaren babespean ateratzen den Erlea literatura-aldiszkariaren 3. zenbakia Donostian aurkeztuko dela azaroaren 3an, Koldo Mitxelena kulturgunean, goizeko 11,30etan. Euskaltzain guztiak gonbidaturik daude.

##### 4.3. JJ. Zearretaren urteurreneneko meza

A. Urrutiak, halaber, Juan Jose Zearreta, Euskaltzaindiaren kudeatzaile izandakoaren heriotzaren urteurreneneko meza iragarri du. Berori azaroaren 6an izango da Zornotzako Larra auzunean, Karmeldarren komentuko elizan. Ahal izanez gero joatea eskatu zaie.

##### 4.4. Euskaltzaindiaren diru-egoera

Joseba Zabaleta kudeatzaileak hitza harturik, erakundearen diru egoera zertan den azaldu du. Jasoiko informazioen arabera, datorren urteko diru-laguntzetaan Bizkaiak eta Gipuzkoak iazko kopuru berberak emango dituzte. Arabako berririk ez dugu. Eusko Jaurlaritzak, berriz, % 14 baino gehiago murritzuko omen digu lagun-tza. Estatuak, ordea, iazko kopuru berbera emango omen digu. Beraz, gastuak sarren arabera egokitua beharko dira. Azaroko batzarrerako kopuruok hobeki jakingo direla uste du eta horien arabera aurkeztuko du aurrekontua. Edonola ere, gastu arruntean, egitasmoetan eta bileren gastuan horrek eragin nabarmena izango du, eta nahitaezko murrizketak ekarriko.

Egoera honetan Euskaltzaindiak lehentasunak finkatu behar dituela uste du A. Urrutiak. Zuzendaritzarekin batera, berak era honetara ordenatzea proposatu du: 1) langileen soldatei eutsi, 2) proiektu-egitasmoak aurrera eraman, 3) euskaltzainen gastuak gutxitu. Bide berean, segur aski hartu beharreko beste neurri osoko batzarrak gutxitzea izan daiteke, gastuak txikitzeko.

#### 4.5. Tolarez

Kudeatzaileak informatu duenez, Donostiako udalak Euskaltzaindiari lagaturiko Tolare baseria, erakundearen ikergune eta Gipuzkoako ordezkaritza izango dena, konpontzeko obren zati bat ordaindua du Udalak (milioi bat euro inguru), eta beste zati bat (600.000 euro gutxi gorabehera) Akademiak ordaindu beharra dauka. Kostu horren erdia, EAJ eta PSE alderdiei eskatu zitzaien, Espainiako 2011ko aurrekontuetatik. Kopuru hori jada onartua da eta, beraz 2011n 300.000 euro jasoko ditu Euskaltzaindiak Madrileko Gobernuagandik. Beste erdia, aldiz, Donostiako Kutxarekin 25 urterako sinatzeko dagoen mailegu baten bidez lortuko da.

Ondoren, Tolare etxeko giltzak jada eskuratu dituela Euskaltzaindiak, jakinari zu J. Zabaletak. A. Sagarnak, berriz, Tolare eraikinaren obrak, hots, kanpoko eta barruko egokitzapena zertan dauden azaldu du.

#### 4.6. Idazkariorde berria izendatzeko deialdia

Euskaltzainburuak, hitza harturik, aurreko batzarrean Akademiako langileei Idazkariorde posturako deialdia egin zitzaiela gogorarazi du. Horien artean Pruden Gartzia bibliotekariak aurkezu zuen, soilik, bere burua. Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak, urriaren 22an izandako bileran, P. Gartzieren hautagaitza aintzat hartu, baina prozesua euskaltzain urgazle eta batzordeetako kideei ere irekitzea erabaki zuen, horiek baitira Euskaltzaindiarekin egunero elkar lanean ari direnak, eta, ondorioz, erakundearen egitura eta premien berri hobekienik dakitenak. Horretarako, hautagaiek bete beharreko baldintzak onartu ziren, eta kudeatzaileari adina eta bestelako betebeharrekoak konplitzen dituztenen pertsonen artean deialdia zabaltzeko eskatu zitzaison. Ondorioz, Azaroaren 4an, eguerdiko 14:00ak baino lehen, baiezko erantzuna eman dutenekin jarraituko da hautatze-prozesua. Euskaltzainei esan zien, halaber, lanpostu horretarako beste inor ezagutuz gero, oraindik aurkezteko aukera lukeela.

Bukatzeko, lanpostu hori goi mailako konfiantzako kargu berezia dela azpimarratu zuen, eta ez, soilik, langile finko batena.

Hautagaien frantses hizkuntzaren maila epaitzeko, azkenik, A. Arkotxa eta X. Videgain euskaltzainen izenak proposatu eta onartu ziren

### 5. Azken ordukoak

**5.1. Euskaltzaindiaren azaroko batzarra.** A. Urrutiak hurrengo batzarra Bilbon, azaroaren 26an, goizeko 10:00etan izanen dela esan du.

**5.2. X. Videgainen sarrera-hitzaldia.** Era berean, Euskaltzainburuak, X. Videgaineak bere sarrera-hitzaldia Baionako antzokian 10:30etan eginen duela oroitarazi du. Hori bukatu ondoan, etorritako guztiei kopatxoa eskainiko zaie. Ondoan bazkaria izanen da. Jatetxera heltzeko planoa banatu zaie euskaltzainei.

Bilera 10,15ean amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

# **Baionan, 2010eko urriaren 30ean**

Xarles Videgain Euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia

## **Ageriko bilkura**

Baionan, 2010eko urriaren 30ean, egin da Xarles Videgain euskaltzain osoaren Sarrera ekitaldia, Arautegiaren 36. artikuluaren arabera, Baionako Antzokian, eguerdiko 10:30ean. X. Videgain, 2009ko martxoaren 26an izendatu zuen euskaltzain oso Euskaltzaindiak.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Aurelia Arkotxa buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Jose Luis Lizundia diruzaina, Andoni Sagarna Iker sailburua, Andres Iñigo Jagon sailburua, Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Pierre Charritton, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Joseba Lakarra, Emile Larre, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Joan Mari Torrealdai, Ana Toledo, Patxi Uribarren, Xarles Videgain, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide.

Ohorezko euskaltzainak: Gorka Aulestia, Joseph Camino eta Jean-Baptiste Dírassar.

Euskaltzain urgazleak: Kepa Altonaga, Xipri Arbelbide, Gotzon Aurrekoe-txea, Gidor Bilbao, Iñaki Camino, Jon Casenave, Jean-Baptiste Coyos, Agnes Dufau, Eñaut Etchamendy, Patxi Galé, Pruden Gartzia, Mikel Gorrotxategi, Jazinto Iturbe, Paula Kasares, Ramuntxo Kanblong eta Patri Urkizu.

Kudeatzailea: Joseba Zabaleta.

Batzordekide eta teknikariak: Iasmina Gorroño, Gorka Intxaurbe, Amaia Jauregizar eta Céline Mounole.

Euskaltzaindiko langileak: Lutxi Alberdi, Annie Etxebarri, Maixa Goikoetxea eta Amaia Okariz.

Idazkariak ekitaldiari hasiera eman dio ekitaldiaren nondik-norakoa argitzet eta barne-erregelen 64.8 artikuluak dioena irakurritz. Ondoren, Jean-René Etchegaray alkateordeak ongi eterria eman die hurreratu diren guztiei. Jarraian Andres Urrutia euskaltzainburuak hartu du hitza.

Ondoren, Patxi Uribarren eta Jean Haritschelhar euskaltzainek lagunduta, batzar aretoan sartu da Xarles Videgain «Baionan» izenburuko sarrera-hitzaldia irakurtzeko. Erantzuna Beñat Oihartzabal euskaltzainak eman dio, «Bokal koloratuei jarraikiz» hitzaldiarekin.

Bere euskalduntze-prozesu pertsonala eta euskaltzain oso izateraino egin duen bidea Baionaren testuinguru intimo, geografiko eta historikoan kokatu du Xarles Videgaineak egin duen sarrera-hitzaldian. Akademiaren baitan eginkizun nagusi duen Euskararen Herri Hizkeren Atlasa ere hizpide izan du.

Ekitaldira bildutako entzuleak, Baionako kaleetatik paseatu ditu, hiri honetaz Roland Barthes-ek idatzitakoei jarraikiz. «Barthes-en arabera, Baiona perfeita, ide-kia, zabala eta ber denboran hertsia eta zerratua». Videgaineak aitorzten du, berriaz, bertan «euskalduntasunak ez duela toki handirik». Are gehiago, «askotan pentsa-tzen egon naiz horrelako Baiona batean sortu naizen honek ez zuela batere mentu-rarik euskaldun izateko eta euskarazko proiektu zientifikoetan partaide izateko. Mirakulu hutsa ez baldin bada izan, daukat sirats ona izan dudala Baionako jaugin zenbaitetik ihes egiteko».

«Abertzaletu nintzen, Euskal Herrian ahalaz bizitzeko deliberoia harturik, bai-nan ez nintzen euskaldun». Euskara, baina, behar-beharrezkoan zuen sentitzen, eta «bakerik ez dut izan euskara berriz txertatu arte» gisako aitorpena egin du. Bide batez, gogora ekarri ditu umetako udak Oztibarren, «urte oroz hiru hilabete baizik ez nituen igaiten Oztibarreko Arhansusi Zolakian; alta hango oroitzapenak datozenkit burura olde handiz nahiz beste bederatzi hilabeteak Baionan igaiten nituen. Han iragan egunez oroitzeten direlarik, deabruz egina nintzela baldin badiote ere ene askaziek, nik haurtzaroko Oztibarre hura paradisu gisa ikusten dut. Eta uste dut euskararekiko lotura ez nuela bera izanen Baionako katedralaren itzalean tairik gabe egon izan banintz Oztibarrera joan gabe».

«Suertea izan dut hemengo gazte anitzek bizi izan duten exilioari uko eginez. Exilioaren gaitzetik salbatu nauena, parte bat, abertzalegoa da. Hemengo gazte

franko bezala abertzaletu nintzen euskaldundu baino lehen. Abertzalegoa deitzen dut populu batia, haren herriari eta mugapeari, haren ontasunari bai erratea eta norberak bere burua harekin lotua ikustea».

Euskaltzaindiaren baitan, Hizkuntza Atlasa izan du eginkizunik nagusiena, aukera izan da berarentzat, ikerle gisa, baina euskaradun bezala ere. «Eskas nuen euskara bizia, ahozko euskara ezagutzea, ikastea, biltzea, ikertzea». Hortaz, onartzen duenez, «Atlasean partaide izatea paregabeko esperientzia izan dut».

Gogora ekarri du Baionako Atlas egitasmoaren aurrekarietako batia harrera egin ziola, duela ia ehun urte, 1912an, bertan gauzatu zen lehendabiziko ahaleginetako bat. Eta egitasmoa orain gauzatzeko bidean da jadanik. Lanaren neurriaz ideia haritzeko «145 herritan ibili gara eta 400 bat euskaldun lekukori galdera andana pau-satuz, kasik 3000, Euskaltzaindiaren altzoan dauden 4000 oren baino gehiago grabatuak».

Atlasaren beste tomoak kaleratzeko bidean dauden honetan, Videgainek dio orain bere erronka izango dela Atlasa «kontsultagarriago» egitea. «Kanpotik laberinto baten itxura badu eta haren barnean dauden objektu linguistikoak molde eskuragarri batez eman beharko ditugu».

Honaino iritsita, adierazi du «garaiko monumentu baten arrastoak bildu ditugula iduritzen zait, horrek ekartzen duen joandako denboraren nostalgiarekin. Sor ditekeen goibeltasun horren kontrako joerarik hoherena ez ote da bildutako altxorra eta artxiboa ez uztea lo eta haren baliatzea gaurko euskaldunen onetan».

Beñat Oihartzabalek Xarles Videgainen hitzaldiari erantzun dio. Euskaltzain berriaren soslaia lerrotu eta jendaurreari aurkeztu aldera, Rimbaud poetaren *Bokalak* olerkia aitzakia hartu du Oihartzabalek, bokalak koloreekin uztartzen duen poesia laburra. Kasuon, bokal bakoitzia Videgainen bizitza markatu dituen pertsona eta lekuekin erlazionatu du.

Videgainen agot etorkia aipatu du, hasteko eta amaitzeko, aitonan Erratzuko Bozatekoan baitzuen. Frantziar estatuaren egungo egoera hona ekarri du: «Biziki aipatu dira Rom populuko jendeen aurka Frantzian egin diren bortxazko kamporaketak. Euskal Herrian ere, Europako beste lekuetan bezala, iragan mendeetan izan dira holako bereizkeriak, agoten kontra ere. Bada, jakizu, plazer dudala, eta berdinene euskaltzain lagunek, agot etorkiko norbait sartzen baita egun Euskaltzaindian».

Bizitzaren bidean, bere lana eta nortasunaren ezaugarriak nabarmenitzen lagundi diotenean hainbat pertsona aipagai izan du, hala nola, Jacques Allières, «hura izan

baitzen euskalaritzako bideetan lehen urratsen egitera lagundu zintuena», Tolosan irakasle eta euskararen gaineko lehen ikerketaren gidari; edota Manex Erdozaintzi-Etxart, Tolosako ikasle garaian ezagutu zuena, «gazte-gaztea izanik oraino, harekin euskal mundu zabalago baten ezagutza egin zenuen, ber-denboran Euskal Herriak bizi zituen minei ere ohartuz, eta horregatik, orduan hemengo gazte eskolatu anitzek ez bezala, herritik partitzearen aterabideari uko eginez».

Haren lan profesionalaren mugarrbi jaso ditu, halaber. Batetik, Ikerkundearen egindako lana: «eskoletan euskarazko irakasbidea guztiz baztertua zegoenean, zuzenean parte hartu zenuen urte haietan euskararen inguruan sortua zen gizarte mugimenduan, Pizkundearen batasunaren bitartez, euskal kulturaren munduaren egituratzeko egin ziren lehen entseguetan ere».

Bestetik, Unibertsitatea, euskal ikasketen lekukoa aurrekoei hartuz, ez aspaldi, euskal ikasketen ikaskintza-titulu guziak ematen direla aitortuz, «erreformaz erre-forma dabiltsan egitura horietan ahal bezainbat euskararen tokia defendatuz».

X. Videgainek bere hitzaldian bezala, B. Oihartzabalek ere hitz batzuk gorde ditu Oztibarre herrialdeaz. Izan ere, «han zenuen bereziki euskaldungoaren lekukotsuna zureganatu, doi bat baserritartu zenituen baiones gisa zegozkizun hiritar nekeak».

Hitzaldiak amaitu ostean, eta euskaltzain berriak, Euskaltzaindiaren xede eta helburuei eta euskaltzain izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela hitza eman ondoren, Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoen domina eta diploma eman dizkio Xarles Videgaini.

Ondoren, Gainerako euskaltzaineak eskua eman eta besarkatu X. Videgain.

Ekitaldi akademikoa amaitutzat emanez, oparien eta oroigarrien unea heldu da. Hala, Jean-René Etchegaray, Herriko Etxearen izenean, opari bat eman dio Videgaini; Videgainen semeak, koinatuak eta ilobak banako dantza eskaini diote; Gwendal Denisek poema bat irakurri zuen bretoieraz; eta Oldarra Abesbatzak bi abesti kantatu zituen: *Agur Jaunak eta Txanton Piperri*.

Andres Urrutia euskaltzainburuaren hitzakin bukatu da ageriko bilkura, ordu bata denean.

Andres Urrutia,  
eusklatzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

# Bilbon, 2010.eko azaroaren 26an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Arkotxa, Aurelia, euskaltzainburuordea,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,  
Sagarna, Andoni, Iker sailburua  
Iñigo, Andres, Jagor sailburua,  
Aleman, Sagrario  
Arejita, Adolfo  
Azkarate, Miren  
Davant, Jean-Louis,  
Goenaga, Patxi,  
Haritschelhar, Jean,  
Lakarra, Joseba,  
Larre, Emile,  
Peillen, Txomin,  
Salaburu, Pello,  
Sarasola Ibon,  
Toledo, Ana,  
Torrealdai, Joan Mari,  
Uribarren, Patxi,  
eta Videgain, Xarles,  
  
Joseba Zabaleta kudeatzailea,  
Mikel Gorrotxategi,  
Patxi Galé

eta Alfontso Mujika euskaltzain urgaz-leak, zegozkien gaietan.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Bernardo Atxagak, ahala A. Urrutiari; Beñat Oihartzabalek, ahala Xarles Videgain, edo J. Haritschelharri; Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori; Mikel Zalbidek, ahala A.Urrutiari.

Batzarra goizeko 9etan hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Etorririko euskaltzainak agurtu ondo-ren, Euskaltzainburuak batzarrari hasiera eman dio.

**1. Aurreko akta onartzea.** J.L. Lizundiak ohar batzuk ahoz helarazi ditu eta, idazkariak, horiek kontuan harturik, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

**2. Hasi aurrekoak.**

**2.1. Eguneko programa.** Akademia gaietan sartu baino lehen, osoko Batzar

arruntak goizeko 9:00etatik 11:45etara iraunen duela gogorarazi du euskal-tzainburuak, eta arratsaldean ez duela segidarik ukanen.

**2.2. Herri-Agintekiko kontratu hitzarmen berria.** Ondoren, euskal-tzainburuak azaldu duenez, azken egunetan Herri-Agintengandik dei bat jaso du Euskaltzaindiak, erakundearen finantziaziorako kontratu hitzarmena lehenbaile-hen sinatzeko asmoaz. Hortaz, Euskaltzaindiaren biltzarraren ondoan, gaur bertan sinatuko da dokumentu hori, eguerdiko 12etan.

### 3. Onomastika

**3.1. «Euskal Herriko ibaien izenak» Ebrora doazen euskal ibaiak. 5. zerrenda onartzea.** Erresuma zaharra zeharkatuz Nafarroatik Ebrora heltzen diren ibaien zerrendari egin zaizkion oharrak A. Iñigok eta P. Galek azaldu dituzte banan-banan.

A. Iñigok proposamena aurkeztu eta erdarazko izen konposatu batzuen arazoa zintzilik gelditu zela gogoratu du, hots, izen eta izenondoz osatuena, adibidez, **Rio salado, Ibai zabal** gisakoenia. Honetaz, hitza M. Gorrotxategiri eman dio, argitasunak eskain ditzan. Beronek, Madrileko Consejo Superior de Investigaciones Científicas-ko C.E.N.G. (Comisión Especializada de Nombres Geográficos) deritzen Batzordean, Euskaltzaindiaren ordezkarri gisa, partaide den aldetik komisioari era horretako izenak idazteko ohitura eta irizpideez galdetu zuen, eta horrelakoetan hitz biak batera idazteko gomendioa jakinarazi zioten, hots, **Rioseco, Riomayor, Riorrojo, Ciempozuelos, Fuembla**ncas kasuetan bezala, euskaraz ere maiz jokatu izan den bezala (*Ibaizabal, Urederra, Iturrigorri...*). Beraz, horren araberako araua hartu zen.

**Ega** ibaia dela eta, P. Galék izen horrekin hiru ibai ezberdin aipatzen direla adierazi du, bertara joanda, holaxe gertatzen dela egiaztatu du eta. Elkarrengandik bereizteko, erreka horietako bakoitza iragaten den toponimo nagusiaz baliatu izan dira: **Musituko Ega**, eta **Azazetako Ega**, ur emari nagusia daramana aipatzeko, hots, Lagrangoa, **Ega** soila utzirik. Era berean, **Aistora** ibaiaren erdal azentuazio bitxiaren berri eman du.

### 3.2. Exonomastika. «Ekialde hurbileko izenak». 1. zerrenda aurkeztea.

J.L. Lizundiak azaldu du zerrenda hauen helburua zein den. Alde batetik, batzordeak ez du exhaustiboa izateko asmorik, baina bai munduaren alde horretako toponimo nabarmen eta garrantzitsuenetako batzuk euskaraz nola erabil daitezkeen proposatzea. Horrela Mediterraneo inguruko izen klasikoien zerrenda biribildu nahi litzateke.

Alfontso Mujikak azaldu duenez, izen horiek Biblian eta Mediterraneoaren ekialdearen Historia klasikoan aipatzen diren tokiez gainera, gaurko Estatuen deskribaketan beharrezkoak diren beste batzuk ere eskaini nahi izan dira, horien garrantziaren arabera. Oraingo honetan Turkia eta Azerbaijangoak aurkezten dira, hain zuzen, hango hizkuntzen transkribaketan bertan erabiltzen diren grafema batzuen balio eta erabilera azalduta.

Aurreko osatzeko, J.L. Lizundiak azaldu du izen horietako batzuk Grezia klasikoaren garaitikoak izateaz gainera (*Kapadozia, Nizea...*) inoiz geroago turkiartua izan direla, eta guztiak, behialako Historia zaharra testu-liburu, entziklopedia edo bidaia-gidetan kontazeko edota, gaurko turismo-, kirol- edo politikazko gertaerengatik (Armenia, Kurdistana, Irak...) aldizka darda gainean izaten direla aldizkari eta albistegian.

Bukatzeko, Ekialde Hurbileko toponimo ohikoenak amaitzean, azpibatzordeak Astronomiari ekiteko asmoa duela azaldu du J.L. Lizundiak, izar, planeta, satelite, galaxia eta konstelazio ezagun eta aipatuena ere euskaraz finkatzen laguntzeko asmoz. Lan honetarako, X. Kintanaren iritziz, oso eskertzekoa litzateke beste euskaltzain batzuen laguntza ere, I. Sarasolarena, bereziki, ezagunak baitira astronomian betidanik izan dituen zaletasun eta jakinduria. Euskaltzain aipatuak eskaintza onartu du.

#### **4. Jean-Louis Davant-en emeritutasuna eta ordezkoa hautatzea**

J.L. Davant euskaltzain osoak 75 urte bete dituela-eta, Euskaltzaindiaren Arautegi eta barne-erregearen arabera, euskaltzain emeritu egoerara iragan da. Horren lekuaren beste euskaltzain bat hautatu behar da, eta, arautegia betez, aurreko biltzarrean amaitzen zen kandidatuak aurkezteko epea. Horren arabera, kandidatu bakarra aurkeztu da: Jean-Baptiste Coyos zuberotarra.

Botaziora pasatu aurretik, J. Haritschelharrek hitza hartu du, aldez aurretik, Euskaltzaindira bilduen, etorririko emerituen eta ahala emandako artean zer nolako quoruma eta gehiengoa behar diren argi utzeko. Hor erabateko adostasuna dagoela ikusirik, bozketa egin da, ondoko ondorioekin:

Guztira emandako botoak: 23.

J. B. Coyosen alde: 18 boto

Boto zuriak: 5

Beraz, Jean-Baptiste Coyos hautaturik gelditu da.

#### **5. Anaitasuna aldizkariaren digitalizazioaren aurkezpena**

Euskaltzaindiak Aita Frantziskotarrekin egindako hitzarmenaren ondorioz **Anaitasuna** aldizkariaren digitalizazioa egitea lortu da. Beronen eragile eta ardura-

duna, Joan Mari Torrealdai euskaltzainak lan honen prestaketa, garaparen eta emaitzaren berri eman du, datuak pantailan erakutsita. *Anaitasuna* Imanol Berriatua frantziskotarrak sortu zuen 1953ko ekainean eta 1980ko hamarkadara arteko iraunaldian epe eten eta gorabeheratsuak izan zituen. Imanol Berriatuak aldizkariaren euskararen kalitateaz arduratu zen, beti ere bere albisteetan bizitza erreala eta euskara erreala islatzen ahaleginduz. Ingelesaren eredua hobesten zuen berak, purismotik ihesiz, eta Bermeoko edota Eibarko euskara kaletarrak haintzat hartzen zituen.

Hasieran aldizkaria «*Suplemento a la hoja Anaitasuna de Guipúzcoa*» moduan agertu arren, 1967tik aurrera beregaina izan zen. Izen ofiziala *Anaitasuna-Bizkaia* zuen. Sekula ez da *Anaitasuna* markaren jabe izan. Urteetan zehar zuzendaritzan non kokatzen zen, aldi bakoitzaren iraute-urteak eta osatzaileen izenak ere eman ditu J. M. Torrealdaik. Garai ezberdinan hilabetekari, hamabostekari eta are noizbehinkaria ere izan zela argitu du. Bertan parte izandako idazleak ere bildu ditu, bai eta ukituriko gaiak ere: politika, hizkuntza, orotarik, erlijioa, kultura, albisteiak, ekonomia, zientzia... Euskara batuaren presentzia handia nabarmendu nahi izan du.

*Anaitasuna* eta Euskaltzaindiaren arteko harremana dela eta, Akademiaren zerbitzuko aldizkaria izan dela esan du J. M. Torrealdaik, euskararen akademiarri beti ere errespetu handia gordeaz. Hizkuntza moduari dagokionez, epeen arabera, hasieran bizkaieraz hasi zen, geroago baturantz lerratu zen, eta, azkenean, oso-osoan euskara batuaren alde agertu zen.

Digitalizatzeko egindako lan honetan, edukiak bilatu eta mamia aurkitzeko irizpideak azaldu ditu Bizkaiko euskaltzainak. Edukika, gaika, urteka, zenbakika edo egileen arabera bilatzeko moduak azaldu ditu.

Lana jada praktikan amaiturik dagoen arren, plazaratu aurretik, formatua oraindik hobetu nahiko lukeela esan du Torrealdai euskaltzainak, jendearentzat esku-ragarriago eta atseginagoa izan dadin.

A. Urrutiak, aurkezpena eskertu dio J. M. Torrealdairi eta jada Bilboko udalarekin harremanak izan direla azaldu du, lan hori lehenbailehen argitaratu ahal izateko.

Bukatzean J. L. Lizundiak aldizkarian parte harturiko idazleen pseudonimoez galdezu dio. Erantzunean J. M. Torrealdaik itaundurikoa argitu eta izenordeetatik egiazko izenetara jotzeko zer egin behar den azaldu dio

## 6. Eskuartekoak

### 6.1.- Banaturiko liburuak

Euskaltzainen artean ondoko liburuak banatu dira:

- *Euskera 2009.*
- *3. Hiztegi Batua.*
- *Plazaberri aldizkaritxoa.*
- *Erlea-3, literatura-aldizkaria.*
- *Narrazioak eta olerkiak (gaztetxoen sariak).*
- *Hiztegi Batua.*
- *Plazaberri aldizkaritxoa.*
- *Ahotsa, hitzak, hizkuntzak. Euskal olerki antologia.*

### 6.2. Abenduko batzarra

Euskaltzaindiaren datorren hileko biltzarra abenduaren 17an izango da Zarautzen, goizeko 10etan, Aita Frantziskotarren komentuan. Arratsaldean, leku berean ageriko bilkura izango da eta bertan Agirre Asteasukoaren liburua aurkeztuko da.

### 6.3. Datorren urterako egutegiaren proposamena

Euskaltzainen artean 2011ko egutegiaren proposamena banatu da, iradokizunen zain:

**Urtarrilaren 28an**, Donostian: Osoko Bilkura.

**Otsailaren 25ean**, Bilbon: Osoko Bilkura.

**Martxoaren 24, 25 eta 26an**, Gipuzkoan: XVII. Barne Jardunaldiak.

**Apirilaren 15ean**, Diman: Aita Akesoloren mendeurrenena dela eta, zenbait batzorde edota Zuzendaritzaren bilerak.

**Maiatzaren 27an**, Donostian: Osoko Bilkura.

**Ekainaren 24an**, Zuberoan: J.B. Coyosen sarrera-hitzaldia.

**Uztailaren 22an**, Bilbon: Osoko Bilkura.

**Irailean**, Tafallan: Nafarroa Oinez dela eta, zenbait Batzorderen bilerak eta Ageriko Bilkura.

**Urriaren 28an**, Donostian: Osoko Bilkura.

**Azaroaren 25ean**, Bilbon: Osoko Bilkura.

**Abenduan**, Baionan: A. Xahoren II. mendeurrena. Zenbait batzorderen bilerak eta Ageriko Bilkura.

## 7. Euskaltzaindiaren ekonomiaz

Akademiaren gaurko diru-egoera zertan den ezagutzeko, A. Urrutiak hitza diruzainari eman dio. J.L. Lizundia egungo ekonomia-egoera larriaz mintzatu da, aspaldian pairatzen den krisiak areagotua. Horrek, zer esanik ez, gastuak murritztea dakar eta, horretarako, berak uste du, Euskaltzaindiak ezinbestekoak ez dituen bilkurak gutxitu beharko lituzkeela. Bide berean, Osoko Bilkura akademikoak batez ere Bilbon eta Donostian egin beharko liratekeela pentsatzen du, eta gainerako bilerak herrialdeen artean banatu.

Ekonomiaren berri.

Haren hitzetan, ez daki Euskaltzaindia bidegurutzean ala gurutzebidean ote da goen, diru-urripenaz gainera, diputazio baten laguntzak oraindik kobraatu gabe dau de eta. Izandako murrizpenak orekatzen, J.L. Lizundiak esan du Euskaltzaindia horiek beste finatiabide pribatu batzuetatik lortzen ahaleginduko dela.

Joseba Zabaleta kudeatzaileak, bestetik, pantailan azken urteotako aurrekon tuak eskaini eta elkarrekin konparatu ditu, eta urtez urte izandako beherakadak erakutsi. Kontuan izan dira, halaber, langile batzuen soldaten igoerak. Diru-aurrez penak nondik egin daitezkeen erakutsi du, oraingo %20ko dezifizita %0ra jaitsi arte. Murrizpen hori egitasmoetatik jaitsi beharko da. Euskaltzaindiak ezin baitezake gasta ez daukan dirua.

A. Urrutiak, erakutsiriko zifra eta dokumentuez, horiek hor begi aurrean direla esan du, baina eskribuz eskuratu nahi dituenak eskatzea daukala.

Euskaltzaindiak beste gestio batzuk ere egin ditu, leku pribatuetan Caja de Ahorros de Navarran, Caja Laboralean, Vital Kutxan, Bilbao-Bizkaia Kutxan eta Gipuzkoako Kutxan, adibidez, eta hortik zerbait etor daiteke, programetan hain beherapen handiak gerta ez daitezen. Datorren hilean erabaki beharko du Euskaltzaindiak nolako defizita nahi duen. Alde horretatik Zuzendaritzak iradokizunak eta ideiak eskertuko ditu. M. Azkaratek aipatu du kontratu-programen es-kakizuna aipatu du, eta langileen beherapenak kontuz egin beharko liratekeela. Erantzunez, A. Urrutiak esan du erakundeek beste hitzarmen batzuk ere egitea

onartuko lioketela Euskaltzaindiari. J.L. Lizundiak orain arte egindako gestioen berri eman du, itxaropen eta errerealismo artean. Arazo honi buruzko oharrak datoren abenduaren 9rako egitea eskertuko dira.

#### **8. Idazkariorde berria**

Euskaltzainburuak jakinarazi duenez, lehenagoko idazkarioordearen lekua betetzeko deialdia eginda, hiru kandidatu aurkeztu dira: Pruden Gartzia, bibliotekaria, Felix Mugurutza, Onomastika Batzordeko kidea, eta Erramun Osa, Sustapen batzordeko idazkaria. Guztien kurrikulumak ikusi, esperientzia eta idazkarioordearen lanarekiko egokitasuna aztertu eta hirurei, banan-banango elkarritzeta luzea egin ondoren, Zuzendaritzako kideek Erramun Osa lehenestea erabaki dute adostasun osoaz. Hautatuak, orain arte izan duen karguari darizkion kompromisoak konplitzeko, ordea, 2011ko urtarrilaren 1era arteko epea eskatu du, eta holaxe onartu zaio.

#### **9. Zenbait erabaki aldatzearen ondorioak direla eta.**

M. Azkaratek galdera egin du, inoiz edo behin Euskaltzaindiak aldatu edo zehaztu dituen erabaki-gomendio batzuen ondorioez. Beldur da, horiek behar bezala argitzen ez badira, ez ote duten jendartean, irakaskuntzan batik bat, nahasterik sortuko.

A. Iñigok erantzun dio, arrazoia emanez, eta gai hori areago zehazteko eskatuz. Izan ere, uztaleko bilkuraren onomastikan aldaketa txiki batzuk egitea onartu zen, baina horiek, eta antzeko eraz egin diren beste batzuk ere banan-banan jaso eta argiro adierazi behar direla uste du, jendearen argitasunerako

Bilkuraren lehen zatia hamabiak hamar gutxiagotan amaitu da.

\* \* \*

Eusko Jaurlaritzaren eta hiru diputazioen ordezkarien Hitzarmenaren dokumentua sinatu ondoren, bilerak segitu du 12,30etan.

#### **10. Hiztegi Batuaren 3. edizioaren aurkezpena**

Hiztegi Baturako batzorde ahaldunduaren izenean, I.Sarasolak eta A. Sagarnak egin dute Hiztegi Batuaren hirugarren edizioaren aurkezpena. Oraingo honetan 36.016 sarrera eta 6.052 azpisarrera dakartzza, hots, bigarren edizioan baino % 29,6 sarrera eta % 45,3 azpisarrera gehiago bildurik. Beraz, aurkezleen ustez, aurreko edizioari gaineraturiko hitz kopuru handi horrek beharrezko egiten zuen jada beste

edizio osoago bat ateratzea. Bestetik, lan-taldeak erritmo onean diharduela azaldu dute, eta, amaitzeko, aurretik jaririk epeak garaiz beteko direla uste dute.

#### **11. «Gasteizko Ubarrundia»: toponimia lana aurkeztea**

Jose Luis Lizundiak aurkezu du, Elena Martinez de Madinarekin batera. Hor Arabako hiriburuaren inguruko eskualde horretako toponimia bildu dute, aurkitu diren mapa, zerrenda eta dokumentu zahar eta fidagarrienen lekukotasunaz osatua. Biltzaileek beren lanerako erabiliriko material eta irizpideak ere azaldu dituzte, arabaren historiaren datuak berreskuratzeko beharrezkoak. Ohi bezala, oharrak Euskaltzaindiara helarazi beharko dira esandako epean.

Bilkura 13,15ean amaitu da.

Andres Urrutia,  
euskaritzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

# Bilbon, 2010.eko azaroaren 26an

## Ageriko bilkura

Azaroaren 26an, eguerdiko 12:15etatik aurrera, Ageriko bilkura egin du Euskal-tzaindiak Bilbon, Hiztegi Batuaren paperezko edizioa eta «Gasteizko Ubarrundia» egitasmoaren nondik-norakoak aurkeztuz.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Aurelia Arkotxa buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Jose Luis Lizundia diruzaina, Andoni Sagarna Iker sailburua, Andres Iñigo Jagon sailburua, Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Joseba Lakarra, Emile Larre, Txomin Peillen, Pello Salaburu, Ibon Sarasola, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren eta Xarles Videgain.

Euskaltzain urgazleak: Rikardo Badiola, Xabier Erdozia, Patxi Galé, Mikel Gorrotxategi, Jazinto Iturbe eta Pruden Gartzia. Ezin etorria adierazi dute Jose Ramon Etxebarriak eta Abel Muniategik.

Batzordekideak: Elena Martinez de Madina.

Kudeatzailea: Joseba Zabaleta

Euskaltzaindiko langileak: Amaia Okariz eta Lutxi Alberdi.

Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Euskaltzaindiaren arteko programakontratau izenpetu da Ageriko bilkuraren aurretik. Sinadura-ekitaldiaren ostean, Ageriko bilkura eskaini da.

Andres Urrutia euskaltzainburuak hitza hartu du ekitaldiaren nondik-norakoak aurkeztuz. Horiek horrela, Ageriko bilkurako deialdian jasotako gaietako bat,

Azkue Fundazioaren aurkezpena, ez dela egingo azaldu du, Fundazioko kideek ezin etorri adierazi dute eta.

Horren ondoren, A. Urrutiak eta Andoni Sagarna Iker sailburuak «Hiztegi Batuaren paperezko edizio berria» aurkeztu dute. Elkar argitaletxearekin koedizioan argitaratzen den liburu honek 36.016 sarrera eta 6.052 azpisarrera ditu azaldu denaren arabera. Era berean, beste xehetasun batzuk ere eman dira, hala nola, 2008ko abenduan kaleratu zen 2. argitaraldiko Hiztegi Batuak 27.786 sarrera eta 4.165 azpisarrera zituen, beraz, bi urtean %29,6 hazi da sarreratan eta %45,3 azpisarreratan. Horregatik erabaki da, hain zuzen, Hiztegi Batuaren 3. argitaraldi hau kaleratzea. A. Urrutiak eta A. Sagarnak egindako ekarpenaren garrantzia azpimarratu dute.

Hiztegi Batua bi alditan egiten ari da Euskaltzaindia, Iker sailburuak esan dueñaren arabera. Lehen itzulia 2000. urtean amaitu zen. Bertan, forma erabilienak edota hedatuenak jaso ziren. Orotara, 22.736 hitz onartu ziren eta liburu bakarrean argitaratu. Lehen itzulia amaitu bezain laster, bigarrenari ekin zion Euskaltzaindiak. Hiztegi Batua sarean dago, guztion eskura, nork zer jakin nahi duen egoki erraztuta. Orain eskaintzen dena paperezkoa da, aurrekoaren laguntzaile eta osagarri iza-teko asmoarekin egina.

Hiztegi Batuaren aurkezpenaren ondoren, euskaltzainburuak «Gasteizko Toponimia» egitasmoa aurkezteko hitza eman die Jose Luis Lizundiari eta Elena Martínez de Madinari. Egitasmo honek eskualde horretako toponimia biltzea eta berreskuratzea du helburu nagusia.

Jose Luis Lizundia egitasmoaren zuzendariak eta Elena Martinez de Madina teknikariak lanaren inguruko zehaztasunak eman dituzte. Gasteizko Ubarrundian sei herri –Gamarra, Gamarragutxia, Erretana, Amarita, Miñao eta Miñaogutxia– sartzen dira, eta bildutako material guztia aztertu ondoren –mapak, zerrendak, dokumentu zaharrak, era guztietako lekukotasunak– 898 toponimo normatibizatu dira, horretarako 35.000 toponimo erregistro aztertu eta ikertu direlarik. Lan honen emaitza laster kaleratuko da.

Gasteizko Toponimia egitasmoaren helburua Gasteizko 64 herrixketako eta hiriko toponimo guztiak –bai historikoak, bai eta bizirik dirautenak ere– era sistematikoan biltzea da. Lehen bi liburuak, Gasteizko Toponimia I / Toponimia de Vitoria I (Ciudad / Hiria) eta Gasteizko Toponimia II / Toponimia de Vitoria II (Malizáea), 2009ko apirilean aurkeztu zituen Euskaltzaindiak, Arabako Foru Aldundian. Orduan ere Jose Luis Lizundiak eta Elena Martinez de Madinak eman zituzten

azalpenak. Ikerketa hau gizarteratzeko asmoz, hiriburuan bertan eta herriean hitzaldiak eta ikastaroak eman dira.

Eta besterik ez dela, euskaltzainburuaren agur eta esker oneko hitzakin amaitutxat eman da ekitaldia 13:45 direnean.

Andres Urrutia,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana,  
idazkaria

# Zarautzen, 2010.eko abenduaren 17an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Lizundia, Jose Luis, diruzaina,  
Sagarna, Andoni, Iker sailburua  
Iñigo, Andres, Jagon sailburua,  
Arejita, Adolfo  
Azkarate, Miren  
Coyos, Jean-Baptiste  
Charritton, Pierre,  
Goenaga, Patxi,  
Haritschelhar, Jean,  
Lakarra, Joseba,  
Larre, Emile,  
Oñederra, Miren Lourdes,  
Peillen, Txomin,  
Sarasola Ibon,  
Toledo, Ana,  
Torrealdai, Joan Mari,  
Uribarren, Patxi,  
Zabaleta, Patxi eta  
Zalbide, Mikel  
  
Joseba Zabaleta, kudeatzailea,  
Erramun Osa, idazkariodea  
Jose Mari Iriondo, Ohorezko euskaltzaina eta,

Mikel Gorrotxategi,  
Patxi Galé,  
Alfontso Mujika,  
Pello Esnal  
euskaltzain urgazleak  
zegozkien gaietan.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Sagrario Alemanek, ahala Andres Iñigor; Aurelia Arkotxak, ahala Miren Lourdes Oñederrari edo Txomin Peilleni; Bernardo Atxagak, ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik, ahala Andres Iñigor; Xarles Videgaineik, ahala Jean Haritschelharri.

Batzarra goizeko 10,07etan hasi da Frantziskotarren Zarauzko komentuko liburutegian ezkerreko zatabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak Jean-Baptiste Coyos, Zuberoako euskaltzain berria, agurtu du, ongi etorria emanez. Ondoren, batzarrari hasiera eman dio.

**1. Aurreko akta onartzea.** Azaroko batzarraren akta dela eta, J.L. Lizun-

diak ohar batzuk helarazi ditu ahoz, eta, idazkariak horiek kontuan hartu ditu. Horrela, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

## 2. Hasi aurrekoak

**2.1. Eguneko programa.** Akademia gaietan sartu baino lehen, A. Urrutiak Osoko Batzar arrunta goizeko 10:00etatik **12ak** arte izango dela esan du. Ondoren, 12etan Ageriko Bilkura egingo da: Agirre Asteasukoaren erakusaldiak liburuaren aurkezpena. Miren Arantzazu Ozaeta andreak Agirre Asteasukoari buruz egindako tesiaren egilea. *Frai Baertel sermolari famatua* (*Durango 1850 – Zarautz 1922*) J.L. Lizundiaren hitzaldia, eta A. Arejitaren *Frantziskotarren oratoria: Zarauzko mi-siolari-kolegioaren papera*.

## 3. Onomastika

**3.1. «Euskal Herriko ibaien izenak» Ebrora doazen euskal ibaiak. 5. zerrenda onartzea.**

A. Iñigok aurkeztu du proposamena eta hitza P. Galéri eman dio.

Honek toponimo batzuk jasotzean izandako zalantzak azaldu ditu, bai forma aldetik eta bai azentuazio aldetik ere, adibidez: *Egurgi/Egurgio, Gurpegí-, Sorogain-ko erreka, La Foz, Cerrécano, Egúrzano, Orradre, (la) Onsellá*. Oharrak urtarrilaren 15erako, igorri beharko dira Euskaltzaindira.

P. Xarrittonek ohar batzuk egin ditu toponimo horien inguruan, Kaputxinoek hartzen zituzten jaioterri-izen batzuk direla eta, hala nola Adoain, Bonifazio de Ataun, Aita Etxandi... horiek oro kontuan hartu beharko liratekeela uste du. M. Azkaratek: bada aditz bat -gi/-gio bukaeren alternantziaz ohar bat egin du, zenbait lekutako aditz batzuetan horrela ari dira eta: *etzangu, etzangi*, adibidez. Tx. Peille-nek Zuberoan *Egurgia* forma entzuten dela azaldu du.

J. Harischelharrek beste ohar bat egin du, hidronimoa izendatzen duen toponimoari atzean -ko bukaera duten izenez. Batzuek hola kontserbatzen dute iparraldean ere. J.L. Lizundiak, hitza harturik, *Onsellá* hainbeste aldiz agertzen dela azaldu du, *Arciprestazgo Mayor de Onsellá* gisa, artikularik gabe. A. Iñigok esan du Sora-gaingo euskaldun batzuk bizi direla, eta, horiei galdeztuz, bukaeren arazo hori berriz ikusiko dela datu gehiagorekin.

P. Galék argitu du *Onsellá*, *Val* bat denez, Pirinioko erdaretan femeninotzat jo-tzen dela. Galderak izan dira, -gi/-gio horiek ez ote diren Ipar/Hego banaketaren kontuak. Iñaki Caminori konsultatzea erabaki da, berori baita *Comisión Especializada de Nombres Geográficos* deritzeron Batzordean, Euskaltzaindiaren ordezkarri.

### 3.2. Exonomastika. «Ekialde hurbileko izenak». Turkia-Azerbaijan. Zerrenda onartzea

Oharrik ez, eta, beraz, aurkeztu zen bezala onartu da.

#### 3.2.1. Georgiako exonimoak. Zerrenda aurkeztea

J.L. Lizundiak proposamena aurkeztu eta A. Mujikari hitza pasa dio. Natela Sturua georgiar euskaltzainak eta Vahan Sarkizián armeniarrok proposamenari egindako erantzun-oharrak aipatu dira, etsenplu batzuen egokitasunaz. Kaukasoko izen propioak direla eta, J.L. Lizundiak oharrarazi du berez ez direla toponimo asko, baina, halere, politika-gorabeherak direla medio, izen horietako batzuek maiztasun handia izaten dutela: Mikolian edo Xevarnadze, adibidez.

I. Sarasolak, K. Mitxelenaren behialako oharra aipatzu, armeniar jatorriko -ián bukaera duten deiturek azentua azken silaban daramatela gogorarazi du, eta beraz, euskaltzain ohorezko horrena Sarkizián esan behar dela. Ohaarra eskertu zaio eta halaxe egiten saiatuko da Euskaltzaindia.

A. Mujikak: Georgiako alfabetorako transkribatze-sistema nazionala, pixka bat egokitua, proposatzen dela nabarmendu du, x eta tx grafemetan batez ere, zirlikoan egin zen bezala. Oharrak urtarrilaren 15erako, igorri beharko dira Euskaltzaindira.

## 4. Auspoa. Digitalizazioa. Aurkezpena

P. Esnal eta J. M. Iriondo eta A. Sagarna izan dira aurkezleak.

A. Sagarnak egin du lehen aurkezpena, Auspoa bilduman argitaratu den guztia-ren (319 liburu inguru) digitalizazioa, hain zuzen. Iker sailburuak azaldu duenez, Euskaltzaindiak Auspoa liburutegiko eduki guztiak eskuratuak ditu, eta programa informatikoari esker, erabiltzaileak, behingoan Auspoako liburu guztien azalak pantailan ikus ditzake. Hor klikatuz gero, obra bakoitzaren eduki osoa lor daiteke. Okerrak eta akatsak zuzentzeko modua ere azaldu du, bai eta bilaketa sistema ere.

P. Xarritonek iruzkin batzuk egin ditu A. Zavalaren eskuineko ideologia karlista salatuz.

I. Sarasola A. Zavalaren alde mintzatu da, ikastetxean irakasle zuen eta. Haren lan bikaina azpimarratu du, fidagarritasun handikoa. Gauza bera azpimarratu du A. Sagarnak. A. Arejitatik ere antzera hitz egin du, A. Zavalaren lana goraipatzu: euskaraz pentsatzen zuen jendearen emaitzen lekukotasunak eman nahi zituen Zavalak.

E. Larrek ere Zavalaren lana eta herri-euskaren aldeko merezimendua goraipatu ditu, eta ez ziola behin ere politikaz mintzatzen entzun azaldu du.

M. Zalbidek zorionak eman dizkie taldeko prestatzaileei, hor egiazko altxorra baitago, XIX-XX mendeetako lekukotasun fidagarriekin.

J. M. Iriondok argitu du aita Zavalari ez ziola behin ere politikaz mintzatzen entzun, eta, beraren ustez, ez zela inoiz karlista amorratua izan.

Euskaltzainburuak gaineratu du nork bere iritzia eta ideologia izateko eskubidea duela, baina Euskaltzaindia ez dela kontu horiez eztabaidatzeko leku aproposa.

P. Esnalek egindako digitalizazio lanaren ezaugarri batzuk azaldu ditu. Proba bat dela gogorarazi du, eta, beraz, euskaltzainen aholku eta iradokizunen zain dagoela. Helburuak: ea lagin horretatik zer ateratzen den. Metodologia landu beharra dakusa. Hiztegia egiteko orduan 20 obra erabili dira ikertzeko. **Jaso** hitzaren kasua erakutsi du etsenplutzat (esangura, adierak, adibideak). Agerrera amaitu duenean, Euskaltzainburuak eskerrak eman dizkie.

Ibon Sarasolak erabiliriko metodologia dela eta, adierak aldez aurretik sailkatu ez baina maiztasunaren araberako sailkapena egitea egokiagoa izango litzatekeela uste du.

P. Zabaletak gaurko grafia batuan *hauspoa* idazten den arren, bilduma horren izena, euskararen batasuna baino lehenagokoa denez, bere horretan uztea eskatu du, hots, Auspoa, h-rik gabe.

J. Lakarrak P. Esnalek bere erakustaldian, Auspoa-ko lexiko aberastasuna nabarmenzeko, Maria Molinerren hiztegia, hain zehatz-mehatz, eredu-jarraipidezat hartu izanari bitxia iritzi dio, hitz bakoitzaren esangurak eta adierak, berez, horiek benetan erabiltzen diren hizkuntzaren mugetan eta testuinguruan neurtu behar direlako, eta ez beste edozein hizkuntza batekin konparatuz.

## 5. Eskuartekoak

**5.1. Anaitasunaren digitalizioaren aurkezpena.** J. M. Torrealdaik *Anaitasuna* aldizkariarekin egindako digitalizazio lana jada bukatua da. Datorren abenduaren 21ean aurkeztuko da Bilboko udaletxean, goizeko 11etan. Euskaltzain guztiak inbitaturik daude.

**5.2. Diruzaintza.** Diru-kontua aurkeztu da: oharrik ez. J. L. Lizundiak esan du Eusko Jaurlaritzatik jaso diren laguntzarekin arnasa hartu duela Euskaltzaindiak.

A. Urrutiak azaldu duenez, gestioak egiten ari dira 0 defizitaz amaitzeko. Halere, horretarako, murriketak egin beharko dira. Une honetan Aurrezki Kutxen lagunten zain dago Akademia.

MARTÍN DUQUE, A., 1983, *Documentación Medieval de Leire (siglos IX a XII)*, Diputación Foral de Navarra - PV, Pamplona.

MITXELENA, K., 1977, *Fonética Histórica Vasca*, Seminario Julio de Urquijo, Diputación de Gipuzkoa, 2<sup>a</sup> edición.

\_\_\_\_\_, 1997, *Apellidos Vascos*, quinta edición, Txertoa, San Sebastián.

OSTOLAZA, I., 1978, *Colección Diplomática de Santa María de Roncesvalles (1127-1300)*, Diputación Foral de Navarra, PV-CSIC, Pamplona.

**Jagon**



# **Ikastolak, berrikuntzaren eredu**

ETXEZARRETA ALBERDI, J. Iñaki  
Ikastolen Elkarteko aholkularia

Sarrera data: 2011-II-11

Onartze data: 2011-VII-11

Ikastola mugimendua aritzea, hezkuntzaren eskola-ekintzaren eredu berezi batez jardutea da, euskararen jendeak bere ingurunean, beren seme-alabentzat, beren hurbileko gizartearrentzat, sortu eta eraiki duen hezkuntza- eta gizarte-berrikuntzaren eredu propioaz sakontzea da, alegia.

Espainiako eta Frantziako hezkuntza-sistemek, XIX. eta XX. mendeetan zehar, ikastetxe publiko estatalean eta ikastetxe pribatu erlijioso osoen baitan sendotu duten bitariko ereduan, ikastola mugimendua hirugarren espazio bat asmatu du, euskaldun hezkuntza eleanitztura-ren alorrean, noski, baina hezkuntzaren eta hizkuntzen muga soilak gainditzen dituena eta «gertaera sozial osoa» bihurtu dena.

**Hitz gakoak:** ikastola, hezkuntza, berrikuntza, eleanitztasuna

Hablar del movimiento de las Ikastolas es referirse a un modelo especial de acción escolar. Un modelo que creó el mundo euskaltzale para sus hijos y para su entorno social, el cual profundiza en un sistema propio de educación y transformación social.

Los sistemas educativos franceses y españoles crearon durante los siglos XIX y XX un modelo dual: por un lado los colegios públicos estatales, y por el otro, colegios privados de carácter religioso. El movimiento de las Ikastolas genera un tercer espacio en el campo de la educación euskaldun multilingüe. Este modelo supera el ámbito educativo para convertirse en un fenómeno sociológico.

**Palabras clave:** ikastola, educación, innovación, plurilingüismo

Parler du mouvement des Ikastolas c'est se référer à un modèle particulier d'enseignement. Un modèle créé par le monde euskaltzale pour ses enfants et pour son environnement social qui s'appuie sur un système propre d'éducation et de transformation sociale.

Les systèmes éducatifs français et espagnols créèrent au XIX<sup>e</sup> et au XX<sup>e</sup> siècle un modèle double : d'un côté les collèges publics d'état et d'un autre les collèges privés religieux. Le mouvement des Ikastolas crée un troisième espace dans le domaine de l'éducation euskaldun plurilingue. Ce modèle dépasse le domaine éducatif pour devenir un phénomène sociologique.

**Mots-clés:** ikastola, éducation, nouveauté, plurilinguisme.

Speaking about the Ikastola [Basque-medium school] movement means, above all, dealing with a special model of school activity in education, in other words, taking an in-depth look at its own model of educational and social innovation that supporters of the Basque language created and built around them for their children and for the society close to them.

Throughout the 19<sup>th</sup> and 20<sup>th</sup> centuries, within the dual model comprising state public schools and private schools run by religious orders that was consolidated by the education systems of Spain and France, the Ikastola movement carved out a third space for itself in the sphere of multilingual, Basque-speaking education, of course. However, its education model goes beyond the confines of education and languages alone to become «a complete social phenomenon».

**Key Words:** Ikastola [Basque-medium school], education, innovation, multilingualism.

Ikastolen berri emateak bide ematen du, edonolako hezkuntza-erakundeaz jarduterakoan bezala, eskola-ekintzaren eta hezkuntza-ereduen alorrera zuzentzeko aukera. Ikastola bakoitzeta eta ikastola mugimendua, ordea, eskola-ekintzaren eremuan erabateko berrikuntza den zerbaiten asmatzaile eta ingeniarri dira, 1960. hamarkadaren urteetatik gaurdaino dira hezkuntza-berrikuntzaren eta *gizarte-berrikuntzaren adibide paradigmatikoa* (M. Masa 2010). Honen ondorioz, «ikastola» fenomenoak eskola hezkuntza-erakunde eta gizarte-erakundetzet hartze bide ematen du, honi buruzko hausnarketa egitera eramatzen du eta, ezinbestez, eskola bera da goen hezkuntza-sistemari eta gizarte-inguruneari buruz jardutera ere bai.

Horregatik, ikastolen eskola-ekintza garaikidea ulertu behar da berau baldintzatzen duen testuinguru legal, sozial eta historikoa kontuan izanez, batetik, eta ikastola osatzen duen hezkuntza-komunitateak berak bere buruaren jabe izateko duen autodeterminazioa, bestetik. Lejeriak hainbat arau ezartzen ditu eskola-ekintzaren funtzionamendua eremu guztietai baldintzatzearen (curriculum, pedagogia, ekonomia, finantzazioa, irakaskuntzaren eraketa, lan harremanak eta abar), eskola bakoitzaren hezkuntza-komunitateak pentsatzen duena edo nahi duena kontuan hartu gabe. Gizardearen dinamikak ere, norbanakoek zein taldeek adierazten dituzten ideien eta desioen bidez eragiten du, gogo horiek eskola-ekintzak beteko dituela itxaro baitu. Halaber, koiuntura eta abagune historikoek interesak eta lehentasunak sortzen dituzte herriean eta nazioetan, eta horiek aldez aurretik ezarritako helmuga baterantz gidatzen dute eskola.

## Hezkuntza-ereduak eta Euskal Herria

Mendebaldean egun bizirik den eskola-erakundea lekutu behar da, funtsean, XIX. mendean abian jarri eta gaurdaino garatu izan diren hezkuntza-sistemen baitan, hau da, estatu moderno eta garaikideen sorrerari eta gorputzeari estuki lotuta beren diseinua, jatorria eta arautzea izan duten hezkuntza-sistematan.

XX. mendeko estatuetan gaur ezagunak diren sistema horiek eraikitzeko eta sendotzeko prozesuak bi eskola-antolaketa mota edo makro-eredu na-

gusi bereizi egin ditu: estatua jabe duen EREDU ESTATALA eta udal boterearen inguruan gorpuzturiko UDAL EREDUA.

Makro-ereduotatik hedatuena lehena da, estatala, alegia, eta bere ezaugarrri nagusia zera da estatu hauen hezkuntza-politika botere publikoak, demokratikoa izan ala izan ez, ezartzen duela eta, gizartearren gehiengoarekin bat egiten edo bat egiten ez duten interesen arabera, «bere» hezkuntza-sistemaren helburuak eta tresnak lege nagusiez erabakitzentzu duela, eta hau egiten du horren arau eta agindu zorrotzen bidez, eskola bera botere publikoaren eta bere gidarien interesarako objektu eta lanabes bilakatzen duela.

Hezkuntza-politika mota hau eta bere antolamendua, hots hezkuntza-sistema, oso ezaguna da Euskal Herrian eta honen gure ingurumarian: eredu frantziarra da, Espainiako zein Frantziako estatuetan azken bi mendetan ia aldaketarik gabe iraun duena, estatu horietako botere publikoaren erregimen politikoa bat ala beste izanik ere, monarkiko, imperial, errepublikar, diktatorial, faxista edo konstituzionalista gorabehera. Hezkuntza-sistema mota honek **eredu zentralista estatala** sortu du, udalaren eredu autonomo anglosaxoitik nabarmen bereizita.

Elizaren presentzia indartsua duten estatuen botere publikoak bere hezkuntza-sistema doitu egin du bere baitan erakunde erlijioso kristauei tokia egiteko, eta, horrela, makro-eredu zentralista estatala, aldi berean, hezkuntzaren eskola-ekintza antolatzeko bi ereduen inguruan egituratzen joan izan da:

- Alde batetik, estatuaren botere publikoen erabakien zerbitzura dagoen **eskola publikoaren eredu**, estatuaren jabetzakoa, gastu guztiak aurrekonto publikoen bidez finantzatua, eta funtzionario publikoek kudeatua.
- Beste eredu bat da frantziar eta espanyiar estatuetan erabat garatuta dagoen **eskola erlijiosoa**, berezko ezaugarriak dituena. Eskola-eredu hau estatuak gutxi-gehiago kontrolatuta dago araudi bidezko esku hartzeari esker, eliz erakunderen baten (apezpiku eta artzapezpikuen edo kongregazio erlijiosoen) jabetzakoa da, berezko funtsek zein funts publikoek finantzatuta dago, eta, kasurik gehienetan, erakunde erlijioso baten agindura dauden pertsonek kudeatzen dute.

Bigarren Mundu Gerraren ondotik eraiki zen Europan ekonomiaren garapen azkarra beste gizarte berri baten eraketa ekarri zuen, baloren al-daketa, eta gizarte mailako kontzientzia zibilago baten jabe izatea, administrazio estatalarekiko eta Elizaren erakundeekiko independente zen sen hori, besteari beste, 1960ko hamarkadako urteetan islatu ziren, oso modu desberdinatan, kultur eta elkargo agerpen berrien bidez mendebaldeko Europa osoan zehar. Euskal Herrian ere, ekonomiaren, gizartearen, kulturaren eta politikaren testuinguru historiko oso berezian, seinalatu diren 1960 inguru urte haitan, Pirinioetako Iparraldeko zein Hegoaldeko euskal gizartearen sektore baten baitan eklosioa gertatu zen, berez, bat-batean sortu ez zena, noski. Mugimendu indar-berritzale horretan eragin zuten aldaera asko eta askotarikoak izan ziren, eta harekin batera, haren osagai esanguratsua izanez, ikastolak sortu ziren, euskararen herritarrek hezkuntzaren eskola-ekintzan beren ideia eta itxaropenak gauzatzeko modu batek akuilatuta sortu eta garatu baitziren, hain zuzen.

### Eredu berria: ikastolak

Gurasoek, hezkuntza-profesionalek eta norbanakoek edo erakunde laguntzaileek euskal lurralteetan osatutako mugimendu zibilak posible egin zuen, aldez aurretiko diseinurik gabe, eskola-ekintzaren **EREDU BERRIA** eraikitze komunitarioa, ikastola mugimendua, alegia, eredu klasikoetatik (estatuaren eskola publikoa eta Elizaren eskola erlijiosoa) nabarmen bereizia zena, eta bere ezaugarri nagusitzat hezkuntza-prozesuaren kontzepzio holistikoa zuela.

Ikastolak zer dira benetan? Fenomeno berezi honi buruz egin nahi den hurbilpen orok galdera horri eman beharko lioke erantzuna. Eta behin datuak esku artean edukita, orduan eztabaida liteke eredu berri baten parean aurkitu den ala ez.

Gaurdaino bildu diren datuei dagokienez, ikastolei buruz egindako ikerketa lanen emaitza kopurua murritza da, nahiz eta hezkuntza- eta gizarte-mugimendu honen alderdi batzuei buruzko argitalpenak gero eta ugaria-goak direla suma daitekeen. Aipagarri dira, esaterako, ondoko egileon

lanak: G. Arrien, I. Fernández,, J. Atxa, I. Lopez-Goñi, X. Garagorri, I. Lekuona, L. Erriondo, X. Isasi ... Baita ikastola mugimenduaren beraren profesionalek ikerketa-ekintzaz eta lankidetzaz egin dituzten lan eta argitalpen asko (Ikastolen hizkuntza proiektua, Euskal curriculuma, eta abar) eta artikulu, liburu eta beste argitalpen multzorik ere aipagarria da, ikastoletatik harago joan arren ikastolei atal bereziak eskaini dizkietenekin batera.

Informazio iturri hauek ikastolen bilakaerari buruzko azterlan sakonago eta xehetuagoa abiatzeko datu-basea eskaini izan dute, gizarte- eta hezkuntza-mugimendu honen izaera erabakigarrienari buruz egiteke dagoen lana, hots, ekintzarena. T. Luckmannek dioenez, «gizakiek jardungo ez balute, ez ziren existituko gizabanako gisa, eta ez zuten iraungo espezie gisa. Ekintzak ez du beti historia egiten, baina gizartea «egin» egiten du. Ekintza ekoizpena da, ugalketa eta komunikazioa; ekintzak boterea ematen du, eta botereari kontrajartzen zaio; ezbairik gabe, ekintza da gizakiaren izaera sozialaren funtsezko adierazpena». Behar beharrezkoa zen, beraz, ikastolen hastapeneko idatzizko iturriekin batera, ikastolek berrogeita hamar urteotan zehar (1960-2010) egin duten ibilbideari buruzko gertaerarik esanguratsuenei buruzko datuetara jotzea eta arakatzea, eta jakina! ekintza horretan, gizarte- eta hezkuntza-ekintza horretan, lekuko eta eragile izan direnen istorioak jasotzea eta batera biltzea. Hartara, «Ikastola mugimendua. Dabilen herria. Ikastola eredua 1960-2010» lanak ikastolen historia sozial horren lehen urratsa egin nahi izan du.

Argitalpen honek ikastolen gizarte-ekintzaren osagai diren elementu gehienak hartzen ditu, ikastolak ekintza baitira, ekintza soziala, erkide-ekintza, gizarte-errerealitatea eragiten duen ekintza partekatua, ikastola bakotzarena eta ikastola talde osoarena gorpuzten dituen ekintza, bai ikastola mugimenduaren baitan, bai beste gizarte- eta hezkuntza-eragileekin proiektu berriak planteatu eta sostengatzea ahalbidetzen duen ekintza.

Baina, gainera, ikastolek ez dute bakarrik gizarte-errerealitatea sortzen hemen eta orain, baizik eta ekintza hori etorria da, ikastola horietako aurreko eragileek ekarria, alegia, iragan hurbilean ekintza horren subjektu ziren haien ikuspegia eta gogoekin batera, eta, beraz, denboran zehar, gizarte-bizitzia horri jarraipena ematen diote. Hori da «habitusa» (P. Bourdieu): «Gaur

ere irauten duen iragana, eta etorkizunean irauteko joera daukana bere printzipioen arabera eraikitako praktiketan eguneratuz: Barne legea da, eta lege honen bidez menderaezinak diren kanpoko beharren araua etengabe aplikatzen zaie koiunturaren hertsidura berehalakoei ...». Modu zehatzagoaz adierazita (J. Gimeno): «Egile kolektiboa duen orden inpertsonal bat bezalakoa da. Erakunde bat da, etorkizuneko ekintzak zuzendu eta arautzeako gaitasuna duen praktiken ondorioa, non jomuga jakin batzuen lorpena ahalbidetzen duen, habitus hori bere egiten duen norbanakoa horretara propio jarri gabe».

2006-07 eta 2007-08 ikasturteetan zehar eginiko gogoeta, proposamen, eztabaida, zuzenketa eta balorazioen ostean, 2009ko urtarrilaren 24an, Ikastolen VI Batzarrak «Ikastolak, orain eta gero» izenburu zuen txostena onetsi zuen. Txosten horrek lau atal zituen, elkarri modu estuan lotuak: Ikastola 2020, Ikastolen oinarrizko curriculum komuna, Antolaketa kolektiboa eta II. Plan Integrala. Lau ataletarik lehenak, Ikastola 2020 deituak, IKASTOLA eredu xehatzen zuen, 2020 urteko eszenatokiari begira. Bertan, gaurdaino garatutako IKASTOLA ereduaren osagai nagusiak sartu ziren, eredu hori hobetzeko edota osatzeko beste osagai batzuekin batera. Proposamen onetsiak, beraz, eginkizun izaera du, 2020 urterako burutzekoa, eta ikastola bakoitzak bere eguneroko jardunean betetzeko konpromisoa hartu du, ikastolen kolektiboak konpromisoa hartu duen bezalaxe: Ikastolen oinarrisko curriculum komun onetsian, antolaketa kolektibo onetsian, eta plan estrategiko kolektibo onetsian (II. Plan Integrala).

Ikastolen VI Batzarrak hartutako erabakiek ikastola mugimenduaren ekintza kolektiboaren eta beren berrikuntza-ereduaren graduatzea goratu egin dute, izan dituen aurrekarien ostean: I Plan Integrala (2002-07), 1996ko Pedagogi Plan Nazionala, 1992ko ekintza-plana eta 1990ean one-tsiriko Euskal Eskola diseinua.

Ekintza kolektibo jarraituotan zehar, erakunde orok dituen lau prozesu giltzarriak instituzionalizatu dira: (1) izaera formulatzea (IKASTOLA ereduaren oinarri den hezkuntza-proiektu komuna); (2) garatu behar diren estrategiak eta lanak proiektatzea eta planifikatzea (I+G+B, ikas materialen sortzea eta edizioa, profesionalen, gurasoen eta artezkarien prestakun-

tza, gobernu- eta funtzionamendu-egitura, barne- eta kanpo-komunikazioa, hezkuntza eta kultura alorretako eragile eta erakundeekiko harreman sarea, eta unibertsitatearekiko, administrazio publikoarekiko ... harremanak ere bai; (3) proiektu eta lan planifikatuen kudeaketari buruzko gauzatzea eta kontrola; eta (4) egindako ebaluazioaren araberako hobekuntza.

Hau guztia, beraz, P.L. Bergerrek eta T. Luckmannek deitzen duten «instituzionalizazioa» da, kolektibo batentzat garrantzia daukan edonolako jokabide-eremuetan gertatzen dena, eta «habitus» horretatik baino harago doana, ohituren bidez gauzatutako errealtitate soziala delako. Baiezta daiteke ikastolek gero eta hezkuntza-jarduera kolektibo eta objektibo sendoa-goak praktikatzen dituztela hain zuzen ere instituzio gisa egituratzeko egin-dako bideagatik.

Beste aldetik, ikastolek azken hiru hamarkadetan zehar Espainiako eta Frantziako hezkuntza-sistemek Euskal Herrian jantzi dituzten ezaugarriak era nabarmenean baldintzatu dituzte, ikastolek beren ingurumarian hainbeste jardun baitute eta jarduten baitute, aldez edo moldez, beren izate hutsak gizarteari eragin baitio. Hara zehazki esanda zertan:

- Ikastolek, sortze beretik, euskarazko hezkuntzaren eskola-ekintzaren asmatzaile dira eta, ondorioz, hezkuntzarako I+G+B eragile-aitzindari dira, Euskal Herrian hezkuntza-praktika berritzaleen garapenari dago-kionez: curriculum ez ofiziala, metodologia alternatiboa, generoen hezkuntza partekatua, eskolaratze goiztiarra, espazio-gelaren antolaketa berria, irakasle, ikasle eta gurasoen eginkizun berriak, familia eta profesionalen arteko komunikazio hartu-eman berria ... Praktika hauek ikastolen kolektiboan maila handiko gorpuztea lortu dute ikas materialen edizio propioaren bidez, prestakuntza-plan berariazkoen bidez, ikerkuntzaren bidez eta proiektuen bidez (euskar curriculuma, ele-aniztasuna, IKT, ebaluazioa eta abar), dena «ikastola» ereduaren ikus-pegitik, eta erakutsi dute kalitatezko hezkuntza euskalduna posiblea zela, egun badela, eta etorkizuna bera dela.
- Ikastolak, halaber, eta jaio zirenetik, titulartasun sozialeko hezkuntza-komunitateen sortzaile aitzindariak dira Euskal Herrian; ikastetxe bakotzean autonomia handia dute, familiek, profesionalek eta

kolaboratzaileek molde kooperatiboaz kudeatzen dituzte, eta erakunde kolektibo batean bilduta daude (hasieran Ikastola Batzordean, gero federazioetan eta ikastolen konfederazioan, gaur egun baliatzen duten europar kooperatiba elkartera heldu arte). Elkarte zibil mota hauek gehienak kooperatibak dira, molde bereziko «titulartasun soziala» gorputzu duten kooperatibak, ez baitira «ugazaba iraunkor» batzuen jabetza, baizik hezkuntza-komunitatea une bakoitzean osatzen duten subjektu aktiboen ondarea; eta horiek, era berean, ikastola bakoitzaren eta kolektiboaren ondasuna uzten diete ondorengoei. Azken finean, ikastolek berezko egoera edo izate juridikoa dute, publikoaren eta pribatuaren tartekoa (F. Etxeberria).

- Ikastolak, era berean, eta eratu zirenetik, aitzindariak dira Euskal Herriko eskola eta gizarte inguruaren arteko elkarrekintzan (curriculumaren garapena ikastetxetik kanpo, helduentzako euskara klaseak eskainiz, euskal liburu, disko, kultura, kanta eta kirol aste, azoka eta jaialdiak...), norbere herriko edo lurralte zabala goko talde eta gizarte-eta kultur mugimenduekin batera. Hasierako ekintza hauek kultur eta aisia diko eskaintza handien maila eskuratu dute, eta gaur egun gizarte-ean oso zabalduta daude.
- Neurri berean, ikastolak, sortu zirenetik, aitzindariak dira Euskal Herriko herritar finantzazioa praktikan jartzen (bonoak, zozketak, ikuski-zunak...), elkarri laguntzeko finantzazioa garatzen (elkartasun kutxa), eta zerbitzu publikoaren izaera eta ondorioz bere finantzazio publikoa juridikoki normalizatzeko formulak bilatzen.

Euskal gizartearen zati handi batek, oro har, eta eskolatzeko adinean dauden seme-alaben familiekin, bereziki, lan hori onetsi zuten, eta horrek eragin zuen, ikastolak sortu eta aurreneko urteetatik hasita, estatuen administrazioek eta eliza agintariekin egokitu behar izatea eskola publiko estatalaren eta Elizaren eskola erlijiosoaren ereduuen eskaintzak. 1970eko hamarkadaren amaieran eta 1980ko hamarkadaren hasieran gizarteak presioa areagotu egin zuen estatuko agintarien gainean (ondoren Gasteizko eta Iruñeko agintari autonomikoengen), ikastolak Euskal Herriko lurralte ia guztietan zeudelako eta haien ikasle kopurua handitzea eta ikas-

tola ugaltzea etengabe hazten ari zirelako. Ondorioz, Pirinioetako bi isuri-aldeetako estatuen eskoletan euskara sartu zen eta eredu elebidunak sortu ziren.

Gizartearen presioarekin batera, 1980ko hamarkadan suertatu zen jaiotze tasa txikia erabakigarria izan zen Administrazio publikoek bizkor zezaten irakaskuntza publikoaren euskalduntzea martxan jartzea. 1980ko urte horietan guztietan eragin duten aldagai nagusiak hauek izan dira: Eskolen arteko lehia, matrikulazioengatik; hezkuntza eskaintzen legitimazio soziala; estatuaren sare publikoan gastu publiko jasangarri eta zuzenari eustea, ikastolen hazkundea kontrolatu edo estatuaren eredu publikoan integratzeko premiaren aurrean; hezkuntza-sistema bakoitzeko agintarien (Frantziako eta Espainiako gobernuaren eta, azken honen barruan, Nafarroako gobernuaren edo Eusko Jaurlaritzaren) borondate politikoa (euskararen eta bere irakaskuntzaren estatus juridikoa). Ondorioz, Euskal Herriko lurralte bakoitzean errealtitate ezberdina gauzatu da.

Testuinguru honetan, ikastolek eutsi egin diote kalitatearen erreferentzialtasunari administrazio-lurralte guztietan (gaur egun are nabarmenago arlo pedagogikoetan eta antolakuntzan), baina, era berean, kuantitatiboko zenbakia gutxitu egin da 1980ko hamarkadaren lehen urteetako publifikatze edo fusioen ondorioz (Gipuzkoa, Araba eta Nafarroako bailarra eta eskualde askotan eta, gutxiago bada ere, Bizkaian), eta 1993ko publifikatzearen ondorioz (EAeko lurralte guztietan). Botere publikoak eskola mapa kontrolatzeko (EAJ-PSE-EEren arteko 1992ko hitzarmen politiko-eskolarrean nabarmendu zena), eta ikastolak lurralte gehiagotara eta derrigorrezko eta derrigorrezkoen ondoko maila guztietara zabaltzeko interesen arteko tentsio hau bizirik dago oraindik bi estatuetan, Frantziako eta Espainiako estatuetan, eta azken honen barruan Nafarroako foru administrazioaren lurraldean eta euskal autonomiaren administrazioan. Ikastolek gorpuztu egin duten proiektua, «utopia praktikoa» (Luckmann), eredu alternatiboa, berritzailea, erregimen frankistak (1936-1977) oztopatu zuen, hainbatetan galarazi, baina Frantziako eta Espainiako gaur egungo konstituzio erregimen gutxi asko desentralizatuek ere, autogobernu politikorako gaitasun handiagoa edo txikiagoa gorabehera, eragozten jarraitzen dute.

Ikastolek beste eskola-ereduetan (eredu publiko estatalean eta Elizaren eredu erlijiosoan) izan duten eragin kualitatiboari dagokionez, eta jada aipatuak izan diren alderdiez gainera (euskarra irakaskuntzan sartzea eta ikas/irakaskuntza prozesuaren baitako berrikuntza pedagogikoen funtsezko alderdiak), nabarmendu behar dira ikastolek etengabe aurkezten dituzten berrikuntzak, esate baterako hizkuntz proiektuarekin lotuak (eleanitzasuna, ingelesaren irakaskuntza goiztiarra barne); IKT delakoen sartzea ikastetxearen jarduera guztietan; edo ikastolek argitaratutako curriculumerako materialen erabilera beste bi eskola-ereduetan; etengabeko prestakuntzaren planak eta gradu ondoko planak; herritar ekitaldien antolaketa, sustapen kanpainak edo euskara ikastetxe barruan eta kanpoan erabiltzeko zeharkako edo curriculum barruko proiektuak martxan jartzea, esaterako ber-tsolaritza, euskal pilota, udalekuak, barnetegi bereziak... ahaztu gabe euskal eskola helburu estrategikotzat duten materialen ekoizpen zabala, edo unibertsitateekin, I+G+B taldeekin, argitaletxe taldeekin, prestakuntza-enpresekin, gizarte-mugimenduekin eta bestelako eskola-erakundeekin elkar lanerako proiektu ugari.

Honaino iritsita, berriro heldu beharko litzaioke, beraz, goian aipatu den galderari: ikastolena, hezkuntza-eredu berria da, bai ala ez? Hezkuntza-ereduaren definizioa aintzat hartzen baldin bada (G. Garrido), hain zuzen, «hezkuntza-helburu baten inguruan programatu diren eta sistematizatu diren ekintzen multzo egituratua da, hainbat baliabideren erabilera bidez lortzeko asmoa duena, eta funtsezko osagaien artean gutxienez ondoko hauek dituena: zirikatze kritiko eta operatiboa egiteko gaitasuna, eredugarri izateko asmoa, egoera ezberdinako beste kasu batzuetan ezartzeko gaitasuna, diseinu kontrastatua, tradizio propioarekiko edo egungo egoerarekiko izaera polemikoa eta, noski, gizarte- eta kultura- dinamismo dosi nabarmena», orduan ez dago zalantzarakik ikastolek **HEZKUNTZA-EREDU** bat eraiki dutela, objektiboki bereizia ohiko eskola antolamenduekiko (eskola publiko estataletik eta Elizaren eskola erlijiosotik).

Ikastolak, hezkuntza-eredu berezia direla Hezkuntza arloko adituen lanetan argudiatu den tesia izan bada ere, hau osatu eta sakondu izan da azken boladan Soziologia eremuko ikertzaileen aldetik, eta horren ondorioz ikastola ereduaren marko kontzeptuala aberasten ari da. Honen azken le-

kukoetako, M. Masa (2010) ikertzaileak ikastolei buruz egin duen kasu-azterketa da. Aditu honek dioenez, ikastola mugimendua adibide dira gizarte-berrikuntzan, adibide paradigmatikoa, honako bost arrazoi hauen-gatik: 1) Gizartean eta herritar jendearen artetik sortu direlako, 2) Hezkuntzan, eskola-bizitzan eta gizartean ordura arte ez zegoen esanahi berri asmatua eransten diotelako euskarari, 3) Egitura politikoak eta sozialak betetzen ez zituen gizarte-eskaera baten erantzun herritarra direlako, 4) Hezkuntza-jardueran, gizarte-ekintzaren zioak, egitasmoak eta balioak planteatzen eta gauzatzen dituztelako, eta 5) bereziki, guztiz berritzalea den heinean, publiko eta pribatuaren arteko bereizketaren aurrean hirugarren formula osatzen dutelako, publikoa, pribatua eta gizarte/herritarra den hirutasun bat-ean oinarritzen den eredu, horrenbestez. Finean, hezkuntzaren eskola-ekintza egiteko hirugarren espacio bat, eskola-ekintza hori ulertzeko eta praktikatzeko eredu berri bat.

## Bibliografía

- BERGER, P.L. eta LUCKMANN, Th., 1998, *La construcción social de la realidad*. Buenos Aires: Amorrortu editores.
- BOURDIEU, P., 1991, *El sentido práctico*. Madrid: Taurus.
- ETXEBERRIA, F., 1999, *Bilingüismo y Educación en el País del Euskara*. Donostia: Erein.
- EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA, 1987, *Informe sobre las ikastolas*. Bilbo: EHIK.
- \_\_\_\_\_, 1991, *Ikastoletako ratioak. Egoeraren ikerketa eta etorkizunerako proposamen*. Bilbo: EHIK.
- \_\_\_\_\_, 1991, *Ikastolen 1987-1990 legealdia*. Bilbo: EHIK.
- \_\_\_\_\_, 1991, *Euskal Eskola*. Bilbo: EHIK.
- \_\_\_\_\_, 1992, *Ikastolen 1990 eta 1991 ekitaldia*. Bilbo: EHIK.
- \_\_\_\_\_, 1997, «Pedagogi Plan Nazionala. Txosten onetsia. Ikastolen III. Batzarra», *Ikastola*, 62 (1997).

- \_\_\_\_\_, 2001, «Bost urteko argazkia. Ikastolen IV. Batzarra», *Ikastola*, 105 (2001).
- \_\_\_\_\_, 2002, *Ikastolen Plan Integrala (2002-2007)*. Zornotza: EHIK.
- \_\_\_\_\_, 2004, *Euskal Curriculuma: Kultur Ibilbidea. Herritik mundura eta mundutik herrira. Adituen ekarpena*. Zornotza: EHIK.
- \_\_\_\_\_, 2006, «Gaurko erronka: Curriculuma. Ikastolen V. Batzarra», *Ikastola*, 147 (2006).
- \_\_\_\_\_, 2007, *Ikastola. Imajina ezazu ... nor garen*. Zamudio: EHIK.
- \_\_\_\_\_, 2008, «Ikastolen Plan Integrala. Konfederazioaren azken bost urteotako uztar 2003-04/2007-08», *Ikastola*, 167 (2008) 3-15.
- \_\_\_\_\_, 2009, *IKT Curriculuma. Lehen Hezkuntzarako proposamena*. Zamudio: EHIK.
- \_\_\_\_\_, 2009, *Derrigorrezko eskolaldirako ikastolen oinarrizko curriculum komuna*, Ikastolen VI. Batzarra. Zamudio: EHIK.
- \_\_\_\_\_, 2009, *Ikastolen Hizkuntz Proiektua*. Zamudio: EHIK.
- \_\_\_\_\_, 2009, *El Proyecto lingüístico de las ikastolas*. Zamudio: EHIK.
- \_\_\_\_\_, 2009, *Ikastolak, orain eta gero*, Ikastolen VI. Batzarra. Zamudio: EHIK.
- FERNANDEZ, I., 1994, *Oroimenaren hitza. Ikastolen historia 1960-1975*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- GARAGORRI, X., 1995, *Haurtxoa proiektua. Haur hezkuntzako bigarren zikloko berrikuntza proiektu baten ebaluazioa*. Donostia: EHU.
- \_\_\_\_\_, 1996, *Euskal Curriculum berezia: hezkuntzaren berrikuntzan kokatutako oinarrizko diseinu curricularretik eratorritako Lehen Hezkuntzako testuliburuen azterketa*. Donostia: EHU.
- \_\_\_\_\_, 1991, «Ikastola hezkuntza-eredu gisa», XI. Congreso de Eusko Ikaskuntza. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- GARCIA GARRIDO, J. L., 1996, «Políticas educativas: Una perspectiva internacional. El influjo de los modelos en las políticas educativas», *Pedagogiako XI. Kongresua*. Donostia: Sociedad Española de Pedagogía.
- GIMENO, J., 1998, *Poderes inestables en educación*. Madrid: Morata.

GIMENO, J. eta PÉREZ, A. I., 1998, *Comprender y transformar la enseñanza*. Madrid: Morata.

GIPUZKOAKO IKASTOLEN ELKARTEA, 1994, *Gipuzkoako Ikastolen Elkartea: 25 urte*. Donostia: GIE.

\_\_\_\_\_, 1989, *Gipuzkoako Ikastolen Elkartea: 20 urte*. Donostia: GIE.

LEKUNDA, I., 1999, *Hezkuntza Proiektua: lanketa prozesua ikastolen esparruan*. Donostia: EHU.

LOPEZ-GOÑI, I., 2002, *Nafarroako Garaiko Ikastolen Historia*. Iruñea: Euskara Kultur Elkargoa.

\_\_\_\_\_, 2007, *Ikastola: un movimiento popular y pedagógico*. Iruñea: Euskara Kultur Elkargoa, Iruñea, 2007.

LUCKMANN, Th., 1996, *Teoría de la acción social*. Barcelona: Paidós.

MASA, M., 2010, «Ikastolas as social innovation phenomenon: a case study», *Meanings and processes of social innovation*, Reno: Center for Basque Studies, University of Nevada.

\_\_\_\_\_, , 1979, *Hizkuntz borroka Euskal Herrian*. Bilbo: Euskaltzaindia.

ZENBAITEN ARTEAN, 1972, «Gure ikastola», *Jakin*, 6 (1972).

\_\_\_\_\_, 1983, «Ikastolatik eskola publikora», *Jakin*, 28 (1983).

\_\_\_\_\_, 1998, *Euskal Eskolaren azken 20 urteak*, Lasarte-Oria: Hik Hasi.

\_\_\_\_\_, 2001, «Elehirutasun goiztiarra ikastoletan. Hamar urteko prozesuaren ebaluazioa (1991-2001)», *Plurilingüismo y Educación en el País Vasco, XV Cursos de Verano y XIII Cursos Europeos de la UPV/EHU*. Donostia: UPV-EHU.

# *Nafarroa oinez, 2010 eta Euskaltzaindia*

Atarrabia / Villava, 2010-IX-24



# Euskaltzaindia

ERROZ AIZKORBE, Iñaki  
*Paz de Ziganda ikastolako zuzendaria*

Arratsaldeon.

Gure Ikastolak, *Nafarroa Oinez* 2010k, Euskaltzaindiarekin batera antolatzen duen ekitaldi honetara ongi etorriak izan zaitezte.

Hiruzpalau aste besterik ez direnean falta *Nafarroa Oinez* 2010a ospatzeko atsegin handiz hartzen ditugu gaurko gonbidatuak. Ohore handia da guretzat Euskaltzaindiko ordezkarriak gurekin izatea eta baita ere ikastole-tako ordezkarriak, familia eta bestelakoak, ongietorriak denak.

*Nafarroa Oinez*ak aurten helburu bikoitza duela esan daiteke, asko labur-bilduz. Ikastolak 40 urte bete ditu aurten eta hasiera-hasieratik dokumentazio eta promozio ezberdinan batxilergoa sortzearen ideia gure kooperatibaren nahia izan da. Arrazoi ezberdinak direla eta, beste lehentasun batzuei ekin behar izan diogu iraganean eta orain momentua iritsi dela uste dugu.

Hauxe da, beraz, helburu zehatza: *batxilergoa sortzea*, 16-18 adin tarte horretan ere ikasleek ikastolan ikasten jarraitzeko aukera izan dezaten; aukera hau *ez da bakarrik guretzat izango; beste ikastola eta eskoletako ikasleriarentzat ere irekia izanen da.*

Bigarrenik, proiektu zehatz honetatik haratago doan helburua du *Nafarroa Oinez* festak: gizartean eragin nahi dugu, euskararen alde. *Euskara geletatik atera eta kalean erabilia izatea. Euskeraz bizi nahi dugu.* 1991ko *Naf-*

rroa Oineza **Euskaraz bizi** lemapean antolatu genuen orain dela 19 urte, Jose Luis Gorostidiren zuzendaritzapean, eta oraindik ere hauxe jarraitzen du gure ardatza izaten. *Euskara ardatz duen proiektu eleanitza* da gurea. Mundu bat da ikastola mundura begira...!

Munduz mundu, mender mende esamoldearekin EUSKARAK KULTUR ONDARE GISA DUEN BALIOA azpimarratu nahi izan dugu, Euskal Herriean eta Euskal Herritik kanpo.

Munduz mundu esamoldearekin gure identitate propioa izatea, gure kasuan euskalduna, eta mundura zabalik egotea erabat bateragarria direla adierazi nahi dugu.

Eta testuinguru honetan kokatzen dugu ere gaurko ekitaldia:

3 hizlari ditugu:

- Patxi Salaberri euskaltzain osoa eta ikastolako guraso ohia, Iruñerriko euskararen ezaugarrietaz arituko da.
- Jarraian Patxi Zabaletak hartuko du hitza eta hil berri den Jorge Cortes Izal euskaltzalearen ibilbideaz hitz egingo du, haren ibilbide berri-tzaileaz arituko da.
- Momentu honetan Ikastolako abesbatzak *Nire herriko neskatxa maite* kanta interpretatuko du.
- Ondoren, Iñaki Etxezarreta jaunak, ikastolen izenean, *Ikastolen mugimendua, dabilen herria* liburuaren gorabeheren berri emango digu.
- Jarraian *Eperrak* izeneko kanta ospetsuaz gozatzeko aukera izango dugu eta, azkenik, *agurra* Andres Urrutia euskaltzainburuarena izango da.

Urriaren 17an, euskararen alde, danok Atarrabiara!

# Iruñerriko euskararen ezaugarriak

SALABERRI ZARATIEGI, Patxi  
Euskaltzain osoa

Iruñeko bereko euskararen inguruan mintzatzea zaila da, hagitz testu gutxi ditugulako eta, beraz, hiriko hizkera nolakoa zen ongi ez dakigulako. Kontuan hartu beharra dago Iruñean, dokumentazioa dagoenetik, anitz lekutako jendea bizi izan dela, eta ez naiz bakarrik XII. mendearaz geroz guregana etorri ziren frankoek ari. Izan ere, Iparraldekoak, erdarazko dokumentazioan «basco»-tzat jotzen diren horiek ugariak ziren Nafarroako hiriburuan, eta Nafarroa Garaiko herrietako jendeak ere ugariak ziren. Honiek, dudarik ez dago, bortizki eraginen zion Iruñeko euskarari, eta inguruko zendea eta ibarretako hizkeretarik bereiziko.

Arbasoren bat hiriburutik kanpokoa zutenen artean XVI. mendeko iruindar olerkaria dugu, normalki *Juan de Amendux* izenaz ezagutzen dena, baina dokumentazioan *Juanes* edo *Juanis* deitua zena. Ez dut uste huts larririk eginen dugun *Joanes Amenduzekoa* deitzen badugu, erroak, hein batez segurik, Amikuzezko herri horretan baitzituen. Urte batzuk lehenago Bernart Etxeparekoa bezala presondegira igoり zuten, Tafallakora, eta han idatzia omen zuen bere olerki laburra. Honela dio 1564an:

*Hemen natza ortzikirik noizbait gozoeritzirik  
herioak uste gabe doloroski egotzikirik  
ene anima Jangoikoagana beldurreki partiturik  
lagungabe bide luzean peril asko pasaturik  
onak eta honrak bertan munduak idekirik  
plazerak azkeno atsekabebihurturik  
aideak eta adiskideak arte gutis atzendurik*

*ikuste[n] tut isuririk arreze guzia deseginik  
 argi gabe illunbetan ustel eta kirasturik  
 nigar begi bapederak bere aldias oroiturik  
 niork ere izanen eztu ni[k] eztudan partidurik  
 ene anima duzuen gomendatu garitates mobiturik  
 zarrazkidate g- bertan itzok ongi notaturik  
 Josafaten baturen gara judizion elkarreki  
 bitartea lo dagigun bakea dela guzieki*

Honen ondoren badira Iruñean argitaratutako olerki batzuk, baina ez, dakigula, bertako euskaran idatzitakorik. Utergako Joanes Beriaingoak, XVII. mendearen lehen laurdenean, Iruñeko euskaran idazten duela dio eta XIX.aren hastapenean Elkanoko Lizarragak Iruñerrikoan izkiriatzentzela, baina ez dute berdin egiten.

XVIII. mendean Zildozko (Ezkabarteko beraz) udal agiria dugu:

*Milla eta zapitan aum eta hirutan hogeit eta hamirugarren urtean, zelarrik rejidores Juan de Sueskun. Gostunbratzen zen bezala entregatu zitzaitzio Urteberri egunareki auzoko armak, eta hartu zitue por inmentario, zerengatik alziñeko urte zenbaitez faltatu ziren zenbait paper [...]. Eta orai esplika detxagan zer diraden gauza habek: dirade erregua eta erre-guerdia, eta gaitzurua eta almotea, eta halaber dirade pinta eta pinterdia eta kuartilloa, eta halaber dirade pisu romanoak. Eta pisu balantzak gan-txodunak eta pisu harriak dirade sei librakoa eta iru librakoa eta bi libe-rakoa eta liberakoa, eta libera erdia eta kuartrona, iago zartagi bat.*

Hemezortigarren mendearen bigarren erdian eta hemeretzigarrenaren lehenean Elkanoko Joakin Lizarragaren lana dugu. Idazle oparoa izan zen, aipatu moduan «Iruñerriko euskaran» idazten zuena, itzulpenak berekin daka-rren morrontza alde bat uzten badugu behintzat. Hona hemen pasarteño bat:

*Batere etze mogitu erran guzieki, baizik baliente ausart guzien alzinean erran zue: Oh enperadore jauna, hobe luke horrek ere ezaun balez ta adoratu Jangoiko bakar egiascoa; hobeki berak segura lezoke hemengo inperioa ta eman lezoke berze bat eternoan ondorean. Ezaumentu gau eman dida niri ta hala banoan dire promesa eta mehatxu in dazkidanak, apartarazteko ene Jaingoikoaganik.*

XIX. mendearren hasieran, Napoleonen denboran, Reille frantses jeneralak bi bando atera zituen Iruñean, erdaraz eta euskaraz. Hauetan frantsesen kontrako gerrillarien buruei prezioa paratzen zaie. Honela dio lehenak:

Nafarroako Jeneral eta Gobernadoreak. Aspaldian pentsatzen du damutasun handiarekin probintzia honen trabaujak haundiak direla, zergatik bandidoen komandanteak eztuten itzuli nahi beren leku antiguetara eta atra ziren kondizionera. Kontserbatzen dute poderea, jabetu dire manatzeas terrorearen medios, azpian kontserbatzeko anitz mutil gazte, zein baitaude suspiratzen itzultzeo beren etxetara.

Kontsideratzen dut, bada, enpleatu behar direla, eta paratu behar direla modu posible(ak) guziak akabatzeko gizon batzuk hain opositatuak Nafarroko bakiari, zergatik gizon hebek dela medio Erreino hau esponentzik dago arruinatzera osoki. Egiten dute, bada, gizon hebek egunero aski gaizki, manatzen dutela asesinatzea, hiltzea eta beharriak ekentzea alkatari, regidoreri, bertze anitz pertsoneri.

Ez dakigu hau erabat Iruñekoa euskara zen, baina oso urrutikoa ere ez zen izanen segur aski. Aditu duzue beraz pixka bat Iruñeko euskara zaharra eta ez hain zaharra.

Ondoko testu hau Koldo Artolak Ezkabarteko Anotz herriko Celdonia Zenotz Artzeri 1981ean eta 1982an egindako grabaketetan zati batia dagokio:

Gúre herríre tórtzentzén Anozibarko apéza, méza matéra. Te ní e(g)óten nitzén atárien, ta pástentzénian erráten nión: «Ave María Purísima». Egún batéz érran nión apézai: «Ave María Purísima» ta géro errán nión «gúre béiek ín digú txekór bát». Apézak géro írri ítentzuén ta [j]oántzén méza mátera.

Orain, labur-labur, gure alderdiko euskararen ezaugarri batzuk aipatuko dizkizuet. Sarrera moduan adierazi nahi dizuet Iruñerrian bi alderdi bezala zeudela: handienak, mendebaldekoak Goñerrira eta Sakana aldera jotzen zuen, eta txikiiena, ekiadegoa (Eguesibar batez ere) Artzibarrekin, Esteribar hegoaldearekin eta Erroibarrekin zihoan, eta badirudi Aezkoako euskaratik hurbil samar zegoela. Gero badira ongi ezagutzen ez ditugun zendeak eta ibarrak, Galar eta Aranguren, adibidez.

Bestalde, Iruñearen goiko aldean dagoen Ezkabarteko euskara oraintsu itzali da baina baditugu testuak eta grabaketaren bat (ikus gorago). Itxura duenez, Odieta eta Ultzama aldera jotzen zuen, nahiz, jakina, Eguesibarkoaren franko eite handia izan. Atarrabiako hizkera, antza, Ezkabarteko horren biziki irudia zen. Hemen gogoan hartu behar dugu Iruñeko eta Iruñerriko hizkera lekutzearekin Ezkabarteko euskaldunek goragoko, eremu euskalduneko jendeekin ihardukiko zutela euskaraz eta beren hizkera heinbatean bestelakotuko, oharkabean segur aski.

Orain ezaugarri gutxi batzuk aipatuko dizkizuet:

1. Iruñerriko mendebaldean *bizarra*-tik *bizerra* ateratzen zen, edo *engañatu*-tik *engeñetu*. Era berean, *eskuan* errateko *eskuen* ibiltzen zuten eta *gauza* adierazteko *gauze*, oraindik Baztanen-eta bezala. Hau Ekialdean, Elkano alderdi horretan, ez zen egiten, hau da, bertan *bizarra*, *engañatu*, *eskuan* (*éskwan*) eta *gauza* ziren ohiko aldaerak.
2. Oso normala zen diptongoak irekitzea eta ixtea, *alegia*, *deus*, *eun*, *euri*, *neurritu* adierazteko *daus*, *aun*, *auri*, *naurritu* ibiltzen zitzuten, eta *hogei* errateko *hogai*. Bestalde, *mingain*, *urdai* edo *jai* adierazteko *mingein*, *urdei* eta *xei* zerabiltzaten.
3. Hitz barnetik bokalak maiz kentzen ziren: *abrats*, *abre*, *atra*, *batre*, *bedratzi*, *drazaguzu* (< \*derazaguzu «iezaguzu»), *drazkiguzu* (< \*derazkiguzu «iezazkiguzu»), *gaitzen* (< gaitezten), *hobrena*, *kuartrona* (< kuarterona < cuarterón «libera laurdena»), *maindre*.
4. Zenbait soinu tokialdatzen ziren: *arratoi* > *arratio*, *arrazoi* > *arrazio*, *montoi* > *montio*, *pozoi* > *pozio* eta, bide beretik, *saroi* > *sario*, baina beti *sagarroi*, sekulan ez \**sagarrio*.
5. Hitz hasierako *j-* soinua *x-* bihurtzen zen, leku eta hitz gehienetan: *jai* > *xei*, *jautsi*, *jaitsi* > *xautsi*, *xaitsi*; *jaka* > *xaka*, *jakin* > *xakin*, *jo* > *xo*; *justo*, *justoki* > *xusto*, *xustoki*, e.a.
6. Ñ eta ll gehiago aditzen ziren mendebaldean, eta gutxiago ekialdean: *billo* «ilea» / *bilo*, *illebete* / *ilabete*, *ille* «artilea» / *ile*, *illergi* / *ilargi*, *txiñurri* «txindurria» / *txinurri*, e.a.

7. Ekialdean *gizonek in dute erraten zen*, eta mendebaldean, berriz, *gizonekak in dute*.
8. Ekialdean *amain anaia erraten zuten edo mutikoain biloa* eta mendebaldean *aman anaie eta mutikoan billoa*.
9. Iruñerri osoan, Iruñean ere bai, *zureki, bereki, gureki, gizoneki, iagoreki, mutikoeki, oneki, zeñeki erraten zen, -n-rik gabe, oraindik Arruazu alderdi horretan egiten duten bezala.*
10. Bestalde, *alorretaik, etxetaik, mendietaik erraten zuten ekialdean baina alorretatik, etxetatik, mendietatik mendebaldean.*
11. Era berean, *aitainganik, amaianganik, osabainganik ibiltzen zituzten ekialdean, baina aitangandik, amangandik, osabangandik mendebaldean.*
12. Destinatiboa deitzen dugun kasuaren bukaera beti *-aindako, -andako / -endako zen: anaiaindako – anaiandako / anaiendako*. Hauetan *zuretako, beretako, gorputzendako, kanpokoendako eta beste genituen.*
13. Bada ezaugarri nabarmen bat oraindik Aezkoan ibiltzen dena, eta lehen Iruñerriko ekialdean ere, Eguesibarren-eta ohikoa zena, baina ez mendebaldean eta Gares aldean: *gizon gau, mutiko goi, etxe gura, egia gebek, libru goiek, denbora gaietan... (Elkano) / gizon au, mutiko oi, etxe ura, harri ebek, libru oiek, denbora aietan... (Gares, Oltza, Goñi).*
14. Aditzean gauza interesgarri franko daude gure alderdian; deigarriena beharbada iraganeko *n-ren* galtza izanen da: *etorri ze, etzekite «ez zekiten», igan - igo gine, imini ziote «ipini zioten» «ipini zien», uzten zuzte «uzten zituzten», zego «zegoen», zeude «zeuden», zindoaza «zin-doazen», e.a.*
15. Aditz perifrastikoetan *iten dut forma iteunt bihurtzen zen, iten dute, berriz, iteunte, goratzen dute -> goratzeunte, erraten dizu -> errateinzu, galdeiten dizu -> galdeiteinzu, jaten ditu -> xateintu*, e.a.
16. Osagarri zuzena plurala zenean *-it-* ibiltzen zuten aditzean: *eman tiot «eman dizkiot», ekarri zinditira «ekarri zenizkidan», ematen zitiola «ematen zizkiola», erran balitio «erran balizkio»*, adibidez.

17. Ohikoa zen *zitzaion* edo *zitzaizkion* errateko partez zekio, zekizkio ibiltzea: *hasi zekizkio* «hasi zitzaizkion», *mintzatu zekio* «mintzatu zitzaion», *agertu zekiote* «agertu zitzaien», eta abar. Gaur egun honelakoak Sakanan aditzen dira, orainaldian ere: *gustatzen dakit* «gustatzen zait», *faten banakizu* «joaten banatzaizu».
18. Aginteran-eta aditzak d-z hasten ziren: *barka dazkiguzu* «barka iezakiguzu», *eman dezaguzu* «eman iezaguzu», *erran drazadazu* «erran iezadazu», e.a.
19. Euskal Herriko ekialdean bezala, *xatera eman zio*, *itera utzi ziote erraten* zen Iruñerrian, ez batuan normalak diren *jaten eman zion*, egiten *utzi zien*.
20. Bestalde, ugariak ziren *-tu* bukaera zuten aditzak: *bialdu* «igorri», *botatu*, *egondu*, *etsitu*, *ibildu*, *idukitu*, *iraundu*, *izendu* – *izandu*.

Joskeraren arloan erlatiboak egiteko *-ikako* ibiltzen zen: *trago samin gura eta guk merexirikako penak, inikeko bekatuek*. Denborazkoetan, berriz, *-ela(r)ik eta -nean* aurkitzen ditugu, lehena usuago, irudi duenez: *Jauna, oroi bedi nitas, doaielarik bere erreinura; maian zegolarik; ellegatu zelarik*, eta abar.

Aipatu ditudan ezaugarriak, edo hauetako batzuk, bitxi gertatu izanen zaizkizue beharbada, edo beharbada ez. Kontua da horietako gehienak gaur egun ezin direla euskara batuan, nahi izanta ere, txertatu edo erabili, arauak emanak direlako. Beraz, galdera da: zer atera dezakegu Iruñerriko euskara galdurik hizkuntza estandarrean sartzeko? Nire irudiko erantzuna hau da: hiztegia eta esamoldeak balia ditzakegu.

Erraterako, Elkanoko Lizarragak zerabilen hiztegi aberatsetik honako ale hauek har ditzakegu: *ahakar egin* «haserre eman, errieta egin», *ahalkegorritu* «lotsagorritu», *beharreztena* edo *beharreztenkeria* «egin behar ez den gauza», *angabetu* «unatu», «indarrik gabe gelditu», *ederreitsusia* «pundonor» edo; *erdikal* «bitartekoia», «ez handia ez txikia ez dena»; *eskunara izan*, *eduki* «iris-pidean izan», *lotsarritu* «ikaratu»; *euria uharreka ari izan* «euria zurrupitaka ari izan», *urrin* «usain txarra», *urrindu* «usain txarra paratu», *urrimzu* «usain txarrekoia» eta abar. Bestalde, hemengoa zen eta den *txindila* hobets dezakegu, *dilista* arrotzaren ordez, *ugaldea* ere erabil dezakegu, *ibaia-rekin* batean.

Atzizkietan oinarriturik dauden esamolde eta antzekoetan *joanetorriketan ibili, sarrateraketan ibili, arroituketan eraman* «zalapartaka eraman» erabil ditzakegu, adibidez. Kopuru handia adierazteko Nafarroako beste leku batzuetan ere oraindik indarrean dagoen -keta hobets dezakegu gauden inguru honetan: *arrainketa, diruketa, egurketa, elurketa, jendeketa, ondasunketa* eta abar, edo -*kara* dutenak: *arinkara* «arin antza», *beltzarankara* «beltzaranxka», *epelkara* «franko epelkiro» eta beste asko.

Esamolde-atsotitzetan eta bukatzeko, ale bakarra aipatuko dut, edo hobeki erran, ale beraren bi aldaera: *arrautza txar bat eta anitz karaka* eta *arrautza txar bat eta guzia karaka*, hots, gaztelaniazko *mucho ruido y pocas nubes-en* baliokidea den forma. Holako asko ditugu Iruñerriko testu eta hitz bildumetan eta uste dut ez zaizkigula gaizki etorriko ditugun hutsune sakon horiek betetzeko.



# Azken hitzak

URRUTIA BADIOLA, Andres  
Euskaltzainburua

Arratsalde on guztioi:

Lehendabizi, eskerrak zuei, gaur, ageriko ekitaldi honetan, hizlari eta kantari gisa parte hartu duzuenoi.

Eskerrak, hasteko, Patxi Salaberriri, Nafarroa eta euskara erro-errotik loturik daudela erakutsi digulako. Euskaltzaindia Nafarroako erakundea da, eta Nafarroako euskal gizartearren partaide da.

Eskerrak, orobat, Patxi Zabaletari. Berak gogoratu digu mundu jakin batek, aurreko belaunaldi batek erakutsi ziguna, hain zuen ere, euskaltzale-tasuna. Egia da Jorge Cortes Izal zenaren bizi-zertzeladak entzutean, guztiok bat egiten dugula haren moduko ekintzaileen ahaleginekin. Bi hitzetan esateko, Jorge Cortes Izal, zalduna eta euskalduna.

Eskerrik asko, azkenik, Iñaki Etxezarretari eta ikastolei. Euskaltzaindiak bi sail ditu hasiera-hasieratik: *Iker Saila eta Jagon Saila*. Egun, Euskaltzaindia zeregin berrietaan dabil murgilduta. Horiek ere badute euren esanahia *Jagon* jardunean. Bateko, euskalgintzaren erakundeekin batera lan egitea, adibidez, ikastolekin eta besteko, esan beharrik ez dago, euskalduntasunari baliabide berriak ekartzea eta hauen artean, gure ezaupideak aberasten dituen argitalpen berriak, gaur aurkeztu dugunaren tankerakoak.

Euskalduntasunean iraun, belaunaldi berriei erakutsi, euskara nonahi erabili... gaur ere bizi-egitasmo baten arrazoia dira. *Nafarroa Oinezen* leloa

gogoratz, euskara munduz mundu doa eta bidaia horretan Euskaltzaindia-ren goiburua ere erabilgarria dela uste dut, *ekin eta jarrai*.

Hori gauzatzeko hemen gaituzue Euskaltzaindia eta ikastolak. *Nafarroa Oinez* da esandakoaren agerbidea. Baino hor ez da agortzen kontua, kontu horrek eskatzen digulako guztioi datozen urteetan ere ekinean jarraitzea, emaitza onuragarriak eta aberasgarriak ekarriz euskalgintzari.

Horren harira ere, eta euskararen bizitzan bidaide garelako, Euskaltzaindiak *Paz de Ziganda* Ikastolari ematen dizkio bere lan batzuk eta, batez ere, bere *Argitalpen Katalogoa*, bertan titulu interesarriak aurkituko dituelakoan ikastolaren bibliotekarako.

Bukatzeko, eskerrak *Paz de Ziganda* Ikastolako arduradun, irakasle, ikasle, guraso eta langileei, harrera ezin hobea eskaini digutelako eta zuei ere bai, eskerrak, zuen harreragatik eta hona hurreratzearen, eta gurekin batera, ageriko ekitaldi honetan parte hartzearen.

Goazen aurrera!

# Hitzarmenak



# **Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek, eta Euskaltzaindiak lau urterako programa-kontratua sinatu dute**

Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, batetik, eta Euskaltzaindiak, bestetik, lau urterako programa-kontratua sinatu zuten, 2010.eko azaroaren 26an, Akademiaren egoitzan. Datozen lau urteotan indarrean izango den dokumentuaren xede nagusiak hauek dira: batetik, Euskaltzaindiaren eta Eusko Jaurlaritza, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko lurralte historikoetako Foru Aldundiaren arteko lankidetzarako oinarri orokorrak finkatzea; eta, bestetik, Euskaltzaindiaren etorkizuneko jarduna bermatzeko, alderdi bakoitzak bereganatzen dituen konpromiso materialen zein finantzazioaren arloen esparrua arautzea.

Akademiaren izenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak sinatu zuen eta EAeko Herri Aginteen izenean, honako hauek: Blanca Urgell Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak; Claudio Rodríguez Arabako Foru Aldundiaren diputatu nagusiordea eta Foru Administrazio saileko foru diputatuak; Josune Ariztondo Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura diputatuak eta Carlos Ormazabal Gipuzkoako Foru Aldundiako Garapen Iraunkorreko diputatuak.

Esan bezala, programa-kontratu honek lau urteko iraupena izango du (2010-2013). 2010ean, Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak, guztira, 2.356.777 € emanago dizkiote Euskaltzaindiari. Bakoitzaren diru-ekarprena honako hau izango da:

Eusko Jaurlaritzak: 1.664.427 €  
Arabako Foru Aldundiak: 100.000 €  
Bizkaiko Foru Aldundiak: 350.000 €  
Gipuzkoako Foru Aldundiak: 242.350 €

Dokumentuan zehazten den bezala, programa-kontratu honen bitartez, Euskaltzaindiari finantziazioa bermatuko zaio, euskararen gainean dituen arau-, kontulta-, ikerketa- eta zabalkunde-eginkizunak bete ditzan, eta, aldi berean, baliabide publikoen bidez finantzatzen den edozein jarduerak eskatzen dituen ebaluazio-mekanismoak ezarrita geratuko dira. Xede honi begira, honako jarduera-lerro estrategikoak ezartzen dira: Lan-batzordeak, Lan proiektuak eta Euskaltzaindiaren zerbitzuak, egoitza nagusia eta lurralde-ordezkaritzak.

Programa-kontratu hau planifikazio estrategiko eta kudeaketarako tresna gisa osatzen da, zeinaren bidez herri-administrazio sinatzaileek eta Euskaltzaindiak euren arteko harreman-esparrua zehazten duten, bakoitzaren konpromisoei dagokienez, baita Akademiaren finantzazio-sistemari eta 2010-2013 aldirako (biak barne) ezarritako helburuak bete dituen ebaluatzeko sistemari dagokienez ere.

Hitzarmen honen jarraipenerako, bi batzorde izendatuko dira:

Jarraipen Batzordea, honela osatua: EAEko Herri Aginteen aldetik, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek izendatutako ordezkari bana eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza zko ordezkaria; eta Euskaltzainditik, berriz, Euskaltzainburua, Idazkaria, Diruzaina, Iker Sailburua eta Jagon Sailburua.

Batzorde teknikoa, sei kidek osatua: herri-administrazio sinatzaileen ordezkari bana, Euskaltzaindiak eginiko lanen alde tekniko eta ekonomikoen berri dutenak. Beste biak, berriz, Euskaltzaindiaren kudeatzailea eta Idazkariordea izango dira.

Hitzarmen hori, Euskaltzaindiak eta Eusko Jaurlaritzak eta hiru diputazioek adosten duten bosgarrena da. Jakina denez, 1918. urtean, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko lau diputazioen babespean sortu zen Euskaltzaindia eta, EAEko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluak dioenez, Euskaltzaindia erakunde aholku-emaile ofiziala da, euskarari dagozkion gaietan.

# Mondragon Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza-hitzarmena

2010.urteko urriaren 13an, Mondragon Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak bion arteko lankidetza-hitzarmena sinatu zuten Euskaltzaindiaren egoitzan. Mondragon Unibertsitatearen izenean Iosu Zabala errektoreak sinatu zuen eta, Euskaltzaindiarenean, Andres Urrutia euskaltzainburuak. Hitzarmen horrek Mondragon Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlanean sakontzea du helburu. Izan ere, bai Urrutiak, bai eta Zabalak ere azpimarratu zutenez, «gure arteko harremanak ez dira hemen hasten, aspaldikoak baitira. Gaur, hitzarmen honen bitartez, formaldu egiten ditugu harreman horiek».

Hitzarmenaren lehen emaitza liburu bat izango da: Mondragon Unibertsitateko irakaslea den Arantza Ozaetaren doktorego tesiak, *Agirre Astea-sukoaren eracusaldiak. Sermoia ikuspegi sozio-diskurtsiboaren argitan*, aurten argitaratuko dena, Euskaltzaindiaren Iker Bilduman. Ozaetak Luis Mari Larriaga Aranzabalen zuzendaritzapean egin zuen bere tesiak, EHUKo Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean. 2009ko otsailean irakurri zuen.

Hauek dira hitzarmen horren ildo nagusiak:

- Erakunde biek erraztasunak emango dizkiote elkarri beren ikerketa-ondareak erabiltzeko. Mondragon Unibertsitatearentzat, Euskaltzaindia aholkulari ofiziala izango da euskara gaietan.
- Erakunde biek lankidetza-proiektuak burutuko dituzte ikerketaren arloan, bai elkarrekin jorratuko dituzten ikerketa-ildoen bidez –adibidez

AGIRRE ASTEASUKOAREN  
*ERACUSALDIAC:*  
SERMOIA IKUSPEGI SOZIO-DISKURTSIBOAREN ARGITAN



AGIRRE ASTEASUKOAREN  
*ERACUSALDIAC:*  
SERMOIA IKUSPEGI SOZIO-DISKURTSIBOAREN ARGITAN

AGIRRE ASTEASUKOAREN  
*ERACUSALDIAC:*  
SERMOIA IKUSPEGI SOZIO-DISKURTSIBOAREN ARGITAN

**iker - 24**

urtero biltzarrak, jardunaldiak edo mintegiak antolatuz– eta bai bakoitzaik bere ikerketa-programazio orokorrean lehentasunezko ikerketa-ildoak markatuz.

- Euskaltzaindiak argitaratzen duen liburu bakoitzaren ale bat emango dio Mondragon Unibertsitateari, eta Unibertsitateak ere ale bat emango dio Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekari euskaraz, euskararen inguruaren edo Euskal Herriari buruz liburu bat argitaratzen duen bakoitzean.
- Erakunde biek elkarren esku jarriko dituzte ikerketarako interesgarriak izan daitezkeen lan argitaragabeak, hala nola tesiak edo bestelako iker-lanak.
- Baterako argitalpen-politika bultzatuko da bi erakundeen artean euskarari buruzko ikerketen emaitzak argitaratzeko. Hain zuzen ere, aurten liburu hau argitaratuko dute elkarrekin: *Agirre Asteasukoaren erasmusdiak. Sermoia ikuspegi sozio-diskurtsiboaren argitan*, Mondragon Unibertsitatearen irakasle den Arantza Ozaetaren doktorego tesiak.

Helburu hauek lortzeko, Mondragon Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak Jarraipen Batzorde bat sortuko dute, sei kide izango dituena, hiru unibertsitateak izendatuak eta beste hirurak Euskaltzaindiak izendatuak. Hitzarmenak 3 urte iraungo du eta hiru urtetik bost urtera luzatu ahal izango da.

# Mintzola Fundazioak eta Euskaltzaindiak lankidetza-hitzarmena sinatu dute

2010.eko abenduaren 1ean, *Mintzola* Fundazioak eta Euskaltzaindiak hiru urteko iraupena izango duen lankidetza-hitzarmena sinatu zuten Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian. *Mintzola* Fundazioaren izenean Maria Jesus Aranburu presidenteak sinatu zuen eta, Euskaltzaindiarenan, Andres Urrutia euskaltzainburuak. Hitzarmen horrek *Mintzola* Fundazioaren eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlanean sakontzea du helburu, bereziki euskara, euskal kultura eta, oro har, ahozko-ondarearen egoera ikertu, irakatsi eta zabaltzeko. Josune Zabala Fundazioaren zuzendaria ere izan zen sinatze-ekitaldian.

Hauek dira hitzarmen horren ildo nagusiak:

- Euskaltzaindiak eta *Mintzola* Fundazioak bi erakundeen arteko lankidetza eta ikertzaileen arteko hartu-emana sustatuko dute, ahozko euskararen eta kulturaren eremuan behar bateratzaileen harira jorratuko diren ikerketa, irakaskuntza eta zabalkunde egitasmoetan. Horren harira, *curriculumaren* ondorioetarako eta meritu gisa, *Mintzola* Fundazioak eta Euskaltzaindiak kontuan hartuko dute euren ikertzaileek erakunde bakoitzaren barruan egindako lana.
- Erakunde biek erraztasunak eskainiko dizkiote elkarri beren ikerketa-ondareak eta ezagutza erabiltzeko, eta, bereziki, euren artxibategi eta bibliotekak erabiltzeko aukera.
- *Mintzola* Fundazioak Euskaltzaindiaren arauak zabalduko ditu.

- Bereziki, Euskaltzaindiak erantzuna emango die *Mintzola* Fundazioak egindako kontsultei: kontsultok euskal lexikoari, gramatikari, toponimiari, onomastikari, ortografiari eta, oro har, euskararen idatzizko zein ahozko araugintzaren bestelako gaiei buruzkoak direnean. Kontsulta horiek bideratzeko orduan, *Jagonet* zerbitzua erabiltzea sustatuko dute.
- Argitalpenen arloan, elkarlana bultzatuko da, eta baterako argitalpenak sustatuko dira.
- Erakunde biek elkarren esku jarriko dituzte ikerketarako interesgarriak izan daitezkeen lan argitaragabeak, hala nola tesiak, monografiak edo bestelako lanak.
- *Mintzola* Fundazioa eta Euskaltzaindia elkarlanean arituko dira, euren bibliotekako euskal funtsak sendotzeko.
- Lankidetza-politika bultzatuko dute ikastaroak eta programak sortu eta egin daitezen, euskara, euskal kultura eta, oro har, ahozko-ondareari dagozkien eremuetan.

Helburu hauek lortzeko, *Mintzola* Fundazioak eta Euskaltzaindiak Jarrai-pen Batzordea sortuko dute, lau kide izango dituena, bi Fundazioak izendatuak eta beste biak Akademiak izendatuak.

# Bilboko Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza-hitzarmena berretsi dute

2010eko abenduaren 21ean, Bilboko Udalak eta Euskaltzaindiak lankidetza-hitzarmen berria sinatu zuten, Bilboko Udaletxean. Euskararen erabilera sustatzea helburu duen hitzarmen hori Iñaki Azkuna Bilboko alkateak sinatu zuen, Udalaren izenean, eta, Euskaltzaindiarenan, Andres Urrutia euskaltzainburuak.

Hauiek dira hitzarmen horren ildo nagusiak:

- Herritarrei zerbitzu egokia eskaini ahal izateko udal zerbitzuetatik eska-  
tzen zaion hizkuntza aholkularitza emango du Euskaltzaindiak.
- Euskaltzaindiak instituzio eta erakundeekin elkarlanean, kultur hedapenerako ekintzak, ikastaroak, hitzaldiak, erakusketak eta euskararen aldeko bestelako ekimenak bultzatuko ditu.

Alkateak Akademiaren lana goraipatu du: «Hizkuntzaren alderdi guztietan egin dauen ikerkuntza eta zabalkunde erraldoia da, guzion ondarea asko haunditu dauana. Eta gaurko hitzarmena da honen lekukorik fidelen».

Bestalde, hitzarmen horren emaitza berezia *Anaitasuna* aldizkariaren digitalizazioa dugu, eta horrela adierazi zuen euskaltzainburuak: «Gaur berriztatzen dugu elkarlanerako hitzarmena eta bide berean ere, hitzarmen horren fruitu esanguratsua zuen aurrean eta jendaurrean agertu, bi erakundeok aurkezten dugulako Bilbon egundoko eragina izan zuen aldizkari baten digitalizazio osoa».

Egin den lana Joan Mari Torrealdai euskaltzain osoak aurkeztu zuen, berak zuzentzen duen *Jakin* aldizkariaren taldeak egin baitu aldizkariaren digitalizazioa.

# **El Diario Vasco egunkariaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetza-hitzarmena**

*El Diario Vasco* egunkariak eta Euskaltzaindiak urte bateko iraupena duen lankidetza-hitzarmena sinatu dute. Hitzarmen horren ondorioz, besteren artean, *El Diario Vasco* egunkariak 2000. urtetik hona ekoiztu duen euskarazko testu-masa osoa Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko du, Akademiak Lexikoaren Behatokia deritzan egitasmoa garatu dezan.

Hitzarmenak bi erakundeen arteko elkarlana sustatzea du helburu, bereziki euskararen normalizazioari buruzko proiektuak gauzatzeko eta Euskaltzaindiak euskararen arloan ezarritako arauak zabaltzeko eta komunikabideen bidez egoki plazaratzeko.

Hauek dira hitzarmenaren ildo nagusiak:

- *El Diario Vasco* egunkariak eta Euskaltzaindiak elkarri bere ikerketa-ondareak erabiltzeko aukera emango diote eta, bereziki, euren artxibategi eta bibliotekak erabiltzeko aukera.
- Euskaltzaindiak erantzuna emango die *El Diario Vasco*k egindako konsultei, kontsultok euskal Lexikoari, Gramatikari, Onomastikari –batez ere toponimia alorrean– ortografiari eta, oro har, euskararen araugintzaren beste zenbait gairi buruzkoak direnean.
- Argitalpenen arloan, elkarlana bultzatuko da, eta baterako argitalpenak sustatuko dira.

– *El Diario Vasco* egunkariak 2000. urtetik hona ekoiztu dituen euskarazko testuak Euskaltzaindiaren eskuetan jarriko ditu, Akademiak Lexikoaren Behatokia deritzan egitasmoa garatu dezan. Egitasmo hori UZEI, Elhuyar eta EHuko Ixa taldearekin garatzen ari da Akademia.

# Aurkezpenak-Berriak



# Durangoko 45. Euskal Azokarekiko kontu-errendapena

Durangon, 2010eko abenduaren 4, 5, 6, 7 eta 8an

Durangoko Liburu eta Disko Azoka, 2010. urteko abenduaren 4etik 8ra bitartean egin da *Landakosolo* lur eremuan kokaturik dagoen erabilera anitzeko Erakustazokan. 2010eko edizioko gai nagusia *Erotismoa* izan da eta gonbidatua ostera, kultura kurdua. *Argizaiola* Saria Imanol Urbietari musikari eta musika irakasleari eman zaio.

Euskaltzaindiko Prentsa Zerbitzuak, Erakundeak Durangoko Azokan aurkeztu duenaren informazioa helarazi die komunikabide desberdinei. Horretaz gain, Euskaltzaindiko saltokian 2010eko nobedadeen berri ere ematen duen *Plazaberri* 8 banatu da.

2010ean *Euskera* Agerkaria argitaratu zela 90 urte bete dira eta data hau aintzat hartuz saltokiko horniketa, aipatu agerkariaren historia eta berriki izan duen eraldaketaren albiste emanez gauzatu da.

Hauek izan dira, Euskaltzaindiak Durangora eraman dituen azken nobedadeak:

- *Euskera* 2009,1.
- *Euskera* 2009,2 (ikerketa zenbakia) 1.zatia: *Ikasteredu elebidunak eta euskaren (Iker) molde berriak.*
- *Euskera* 2009,2 (ikerketa zenbakia) 2.zatia: *Gerra Zibila eta Euskal Literatura.*
- *Euskera* 2009,3.
- JAGON 10: *Ikastolen Mugimendua, dabilen herria.*

- *Hiztegi Batua* 2010.
- *Narrazioak eta Olerkiak* 2009: R. M<sup>a</sup> Azkue sarketa.
- *Erlea* – 3.
- *Ahotsak, hitzak, hizkuntzak. Euskal olerki-antologia*.
- *Argitalpenen Katalogoa*, 2010.

Guztira Euskaltzaindiko 45 argitalpen desberdin eraman dira Azokara. Argitalpenen hautaketa eta kopurua, aurreko urteetako salmentak kontuan hartuz egin da. Euskaltzaindiak iaz baino gutxieago saldu du, jarraiko tau-lan azken urteetako bilakaera ikus daiteken arabera:

Urtea	Salmenta	Salduenak
2007	1.074,90 €	<i>Euskera</i> 2000,2 ( <i>Hiztegi Batua</i> ) (16 ale) <i>Agosti Chaoren bizitza...</i> (12 ale)
2008	1.523,17 €	<i>Hiztegi Batua</i> 2008 (18 ale) <i>Jagon 7, Testu-ant.</i> (15 ale)
2009	2.202,87 €	<i>Erlea</i> 1 (59) <i>Jagon 7, Testu-ant.</i> (11 ale)
2010	1.298,76 €	<i>Erlea</i> 3 (19) <i>Hiztegi Batua</i> 2010 (13 ale)

Bestalde Euskaltzaindiko saltokitik bisitari ugari pasatzen dira. Galdera eta kezkarik ohikoenak hauek izaten dira:

- *Euskaltzaindiko Arauak* harpidetzaren bilakaera
- Euskal ponte-izenen *Izendegia* zertan den
- Hiztegigintza: zer hiztegi mota daukagun
- Gramatika arloan zer daukagun.

Hurrengo edizioari begira bisita eta kontsulta hauek egoki zenbatu eta sailkatzeeko ahalegina egingo dugu. Hala ere daukagun esperientzia eta datuekin iritzi batzuk behintzat eskain ditzakegu:

- Oro bat Euskaltzaindiak Azokan lortzen dituen sarrerak kostuan baino nabarmen gutxiago izaten dira, nahiz eta urte batzuetan orekatuagoak

izan. Hala ere Durangoko Liburu Azoka euskal kulturaren topagune eta agertoki bikaina izanik, pentsatzen dugu gure urteko presentzia beharrezkoa dela.

- Ahalegin bat egin behar dugu sarrera eta kostuen balantza orekatzeko. Ahalegin horretan gure presentziak sorrarazten dituen gastuak murriztu eta hobesteko esfortzua egin beharko dugu. Horrekin batera, gure bezero eta bisitariek zer eskatzen diguten aintzat hartu eta horretara bideraturiko argitalpenak egoki eskaintzeko bidea ere aurkitu beharko genuke.

Bilbo, egoitza, 2011-I-14

Ricardo Badiola Uriarte,  
argitalpen eragilea

Jon Artza Bikandi,  
argitalpen banaketa arduraduna

## Euskaltzaindia XIV. Euralex Nazioarteko Kongresuan

Euskaltzaindiak parte hartu du uztailaren 6tik 10era, Frisiako Leeuwarden/Ljouwert hiriburuan egin den XIV. *Euralex* kongresuan. Antolatzaileak Fryske Academy (Frisieraren Akademia) eta Leiden Instituut voor Nederlandse Lexicologie (Nederlanderaren Leidengo Lexikologia Institutua) izan dira. Han aurkeztu eta eztabaidatu diren gaiak honako hauek izan ziren:

- Lexikografia eta Lexikologia konputazionalak
- Hiztegintza-prozesua
- Lexikografia- eta lexikologia-egitasmoei buruzko txostenak
- Elebitako lexikografia
- Espezialitate-hizkeretako lexikografia- Terminologia eta Terminografia
- Lexikografia historikoa eta etimologikoa
- Hiztegien erabilera
- Fraseología eta kolokazioa
- Lexikografiarako garrantzia duten lexikologia-gaiak
- Gutxiengo-hizkuntzetako edo estaturik gabeko hizkuntzetako lexikografia
- Zeinu-mintzaira

Euskaltzaindiaren izenean Iker Sailburua izan zen eta txosten bat aurkeztu zuen: «The Lexicographic Work of Euskaltzaindia / The Basque Language Academy 1984-2009».

## **Joshua Fishmanek ohorezko euskaltzainaren diploma jaso du**

Urriaren 3an, New Yorken, Joshua A. Fishman profesoreak Mikel Zalbide euskaltzainaren eskuistik ohorezko euskaltzainaren diploma jaso zuen. Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zuen Fishman, aho batez, egoitzara, 2010. urtarrilaren 29an. Beronen adina eta osasun-egoeragatik ezin izan du Bilbora hurbildu eta, ondorioz, Mikel Zalbide, Euskaltzaindiaren izanean, New Yorkera bertaratu da, diploma eskuan eman ahal izateko.

Gella Schweid Fishmanen emazteak, bilduta zeuden hogoitaka senide, lankide eta lagun aurkeztu zizkion Mikel Zalbideri. Bertan zeuden, besteren artean, Ofelia García, Ricardo Otheguy eta, Galestik, Colin H. Williams irakasleak. Ondoren, Mikel Zalbidek azaldu zituen, labur-labur, euskaldunek Hizkuntzaren Soziologiaren profesoreak egindako lana eskertzeko dituzten motiboak eta, bereziki, Euskal Herrira egindako bisitaldien bidez euskaldunekin izan dituen harremanak eta euskararen egoeraz bere liburuetan egin dituen aipamenak (Some remarks in honour of Professor Joshua A. Fishman).

Jarraian, Joshua Fishmanek azaldu zuen, bere partetik, euskaldunekin eta euskararekin izan dituen harremanek (*The Basques in My Life*) bere biziitzan zer suposatu duten. Ekitaldian, Zalbidek euskaltzain-diploma eta euskaltzainburuaren zorion-gutuna eman zizkion Fishmani. Beste hainbat irakaslek zorion-mezuak bidali zituzten: Nancy Hornberger-ek, Indiatik E. Annamalai-k eta Euskal Herritik Mari Jose Azurmendik.

## Euskaltzaindia Bartzelonako *Liber Azokan* izan da

Institut d'Estudis Catalans (IEC), eta Consello da Cultura Galega erakundeekin batera, Euskaltzaindia Bartzelonako *Liber Azokan* izan zen. Azoka irailaren 29tik urriaren 1era egin zen, bertan liburuarekin zerikusia duten profesional ugarik parte hartu zutelarik. Aipatu hiru erakundeak erakustoki berean izan dira. Gainera, leku berean, *Textos Medievales Catalans* taldeak ere beronen azken argitalpenak erakutsi zituen.

Merkataritza ikuspegitik, nazioarteko liburu azoka honek garrantzi handia dauka, bai Spainiar Estatuan, bai eta Hegoamerikan ere. Bertan, ekoizpena erakusteaz gain, profesionalek elkarren berri izateko eta akordioak bideratzeko topaleku ona dute. Euskaltzaindiak bere azken lan eta argitalpenak aurkeztu zituen bertan.

## «Erandioko leku-izenak» webgunea aurkeztu da

Urriaren 25ean, Erandioko toponimiaren inguruoko webgunea aurkeztu zen herriko Udaletxean. Webgune hau, 2005etik 2008ra bitartean egin zen ikerketa-lanaren ondorioa da; bertan, ikerketaren emaitzak batu eta herri-tarren esku ipini ditu Udalak. Webgunearekin batera, unitate didaktikoak ere aurkeztu dira.

Hauek egin zuten aurkezpena: Joseba Goikouria Erandioko alkateak, Miren Dobaran Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara Sustatzeko zuzendari nagiak, Xabier Kintana Euskaltzaindiaren idazkariak eta Aitziber Oliban Erandioko Euskara zinegotziak.

Esan bezala, aurkeztutako diren webgunea eta unitate didaktikoak 2005-2008 urteetan egindako ikerketa-lanaren emaitzak dira. 2005ean, Erandioko Udalak herriko toponimoak bildu, arautu eta finkatzeko beka-deialdia egin zuen, Iratxe Lasak eskuratu zuelarik. Euskaltzaindiarekin hitzarmena sinatu ondoren, Akademiaren zuzendaritzapean –Patxi Galé izan zen lanaren gainbegiratzalea– aritu zen Lasa. Guztira, gutxi gorabehera, Erandioko 1.800 lekuren izenak jaso ziren.

2010eko urtarrilean, *Erandioko leku-izenak* izeneko liburua aurkeztu zen.

## Joxe Azurmendiri eman diote Saiakeraren *Euskadi Saria*

Joxe Azurmendi filosofo, idazle eta ohorezko euskaltzainak irabazi du euskarazko Saiakeraren *Euskadi Saria*. *Azken egunak Gaudiagarekin liburua-gatik*. Epaimahaiaak esan duenez, «funtsean, bizitza, heriotza eta erlijioaren inguruko saiakera da. Giza zientzien inguruko jakintza ugariak harremantean jarri ditu: antropologia, filosofia, literatura, soziologia...».

## Anjel Lertxundik irabazi du Espainiako Saiakera Saria

Anjel Lertxundi idazle eta euskaltzain urgazleak irabazi zuen 2010eko Espainiako *Saiakera Saria*, *Eskarmentuaren paperak* lanagatik. Saria Kultura Ministerioak ematen du urtero.

Epaimahaia osatu dutenen artean Euskaltzaindia dago, eta Sebastian Gartzia Trujillo euskaltzain urgazlea Erakundearen ordezkari izan zen, edizio honetan. Gartzia Trujilloz gain, honako hauek izan ziren epaimahaikoak: Rogelio Blanco, Gregorio Salvador, Victor Fernandez, Marta Pessarrodona, Alfonso Navales, Francisca Rubio, Santos Alonso, Maria Teresa Pascual, Estrella de Diego eta aurreko bi urteetako sari-dunak: Justo Beramendi eta Manuel Reyes Mate.

*Eskarmentuaren paperak* Alberdania argitaletxeak eman zuen argitara. Liburuaz hauxe dio bere webgunean:

Ez da autobiografia bat, baina badu autobiografiatik. Ez da oroitzen liburu bat, baina asko zor dio oroiimenari. Dietario batetik hurbil dago, baina ez dago egunerokotasunaren mende. Bere buruaz ari da autorea, baina ez da bere burua liburuaren xedea. Xedea da berrogei urtean jarraitu dion irakurlearekin elkarritzetan sartzea.

## **Hiztegi Batuaren paperezko edizio berria**

Azaroaren 26an, *Hiztegi Batuaren* paperezko edizio berri bat aurkeztu zuen Euskaltzaindiak, Bilboko egoitzan. Elkar argitaletxearekin koedizioan argitaratu den liburu honek 36.016 sarrera eta 6.052 azpisarrera ditu. 2008ko abenduan kaleratu zen 2. argitaraldiko *Hiztegi Batuak*, aldiz, 27.786 sarrera eta 4.165 azpisarrera zituen, hau da, bi urtean %29,6 hazi da sarrearatan eta %45,3 azpisarreratan. Horregatik erabaki da, hain zuzen, *Hiztegi Batuaren* 3. argitaraldi hau kaleratzea.

*Hiztegi Batua* bi alditan egiten ari da Euskaltzaindia. Lehen itzulia 2000. urtean amaitu zen. Bertan, forma erabilienak edota hedatuenak jaso ziren. Orotara, 22.736 hitz onartu ziren eta liburu bakarrean argitaratu. Lehen itzulia amaitu bezain laster, bigarrenari ekin zion Euskaltzaindiak. *Hiztegi Batua* sarean dago, guzton eskura, nork zer jakin nahi duen egoki erraztuta. Orain eskaintzen dena paperezkoa da, aurrekoaren laguntzaile eta osagarri.

## **Gasteizko Ubarrundia toponimia lanaren aurkezpena Euskaltzaindiaren Osoko Batzarrari**

Azaroaren 26an, Bilboko egoitzan, Euskaltzaindiak hileko osoko batzarra egin zuen. Bilera horretan, *Gasteizko Ubarrundia* eskualdeko toponimiari buruzko lana aurkeztu zuten Jose Luis Lizundiak eta Elena Martinez de Madinak. Lan hau Gasteizko Toponimia egitasmoaren barruan kokatzen da eta eskualde horretako toponimia bildu eta berreskuratzea du helburu.

Jose Luis Lizundia egitasmoaren zuzendariak eta Elena Martinez de Madina teknikariak lanaren inguruko zehaztasunak eman zituzten. *Gasteizko Ubarrundai* sei herri sartzen dira, eta bildutako material guztia aztertu ondoren –mapak, zerrendak, dokumentu zaharrak, era guztietako lekukotasunak– 898 toponimo normatibizatu dira. Lan honen emaitza laster kalera-tuko da.

Gasteizko Toponimia egitasmoaren helburua Gasteizko 64 aldeetako toponimo guztiak –bai historikoak, bai eta bizirik dirautenak ere– era sistematikoan biltzea da. Lehen bi liburuak, *Gasteizko Toponimia I / Toponimia de Vitoria I (Ciudad / Hiria)* eta *Gasteizko Toponimia II / Toponimia de Vitoria II (Malizaeza)*, 2009ko apirilean aurkeztu zituen Euskaltzaindiak, Arabako Foru Aldundian. Orduan ere Jose Luis Lizundiak eta Elena Martinez de Madinak eman zituzten azalpenak.

## Juan Jose Arginzonizek 1783ko *Diccionario de la Lengua Castellana-ren* dohaintza egin dio Euskaltzaindiari

Juan Jose Arginzoniz Berrizko euskaltzaleak 1783ko *Diccionario de la Lengua Castellana* liburuaren dohaintza egin dio Euskaltzaindiari. Azaroaren 29an, Berrizko Udaletxean, Arginzonizek eta Jose Luis Lizundia Euskaltzaindiaren diruzainak hitzarmena sinatu zuten, eta dohaintza formalizatu. Izan ere, ekitaldi honetan, Jose Luis Lizundia izan zen Akademiaren ordezkaria. Harekin batera, Pruden Gartzia Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako zuzendaria izan zen.

*Diccionario de la Lengua Castellana* Espainiako Erret Akademiaren hiztegiaren bigarren edizioa da, 1783koa. Horrek, berez, garrantzia ematen dio dohaintzari, batetik antzinako liburua delako, eta bestetik, Euskaltzaindia bezalako Akademia batek egindako hiztegia delako. Hiztegi honek, guztira, 22 edizio izan ditu, azkena 2001koa; lehengo 14 edizioetan izenburu hori izan zuen –hots, *Diccionario de la Lengua Castellana*– eta 15. edizioan, 1925ean kaleratu zena, izenburua aldatu zioten, *Diccionario de la Lengua Española* bihurtuz. Hurrengo edizioa 2013an argitaratuko da.

## *Jagonet 2010*

Agur denoi!

Hona, labur-labur, JAGONETeko 2010eko datuak, urte guztikoak:

1. Galdelekuan jasotako galderak: 1.186 (iaz baino % 21 gehiago)
2. Banan-banan emandako erantzunak: 1.170 (iaz baino % 21 gehiago)
3. Datu-basea osatzen duten galde-erantzunak: 542
4. JAGONETen bistaraturako web-orriak: 140.443 (iaz baino % 16 gutxiago)

JAGONET: datu-baseko bisitarien 2010 eko datuak, hilez hil:

urt.	ots.	mar.	api.	mai.	eka.
16.105	16.129	17.624	8.685	14.097	8.425
uzt.	abu.	ira.	urr.	aza.	abe.
3.729	4.431	10.834	15.647	17.627	7.110

Ez adiorik.

ZUBIMENDI, Joxe Ramon  
JAGONETen arduraduna



# Omenaldiak



# Junes Casenaveri omenaldia

Uztailaren 11n, *Sü Azia* elkartea antolatuta, Junes Casenave idazle eta ohorezko euskaltzaina omendua izan zen Altzain (Zuberoa). Casenavek Altzaiko erretore kargua utziko du, eta Donapaleura erretiratuko da laster. Omenaldian meza, kantuak, dantzak eta olerkiak uztartu ziren, eta Casenavek bere bizitza guztian euskara eta euskal kulturaren alde egindako lana goraipatu zuten.

Besteak beste, hauek parte hartu zuten: Johane Erbin, Jean-Louis Aguer, Pierra Harguindeguy, Jean Bordachar, Jean-Louis Aranburu, Larraineko dantzari gazteek, Niko Etxart, Anixet Errecaret, Allande Socarros eta Jean-Louis Davant eta Txomin Peillen euskaltzain osoek. *Sü Azia* elkarteko kideek adierazi bezala, «Aita Junesek merexi dù saldo handian bil gitean, haren üngürüan, parropianten eta euskalginzaren alde egin düan lan handiaz eskerrak emaiteko».

## Pedro Yrizar zenari omenaldia

Irailaren 29an, Azkoitian, Pedro Yrizar ohorezko euskaltzain eta euskarologo zena omendu zuten Euskaltzaindiak eta Euskalerriaren Adiskideen Elkartea (EAE), Udalarekin batera. Azkoitiko Euskal Jaien mendeurrena ospatzen ari dira irailean eta urrian zehar, eta «Azkoitiko Euskal Jaien Mendeurrena (1910-2010)» izeneko egitaraua prestatu dute. Pedro Yrizaren jaiotzaren mendeurrena ere aurten bete da eta, esan bezala, asteazkenean omendu zuten. Ekitaldia Intsausti Jauregian egin zen eta bertan hauek izan ziren: Andres Urrutia euskaltzainburua, Jose Mari Urkia EAeko Gipuzkoako presidentea, Asier Aranbarri Azkoitiko alkatea eta Iñigo Yrizar omendua- ren semea.

Ekitaldiaren amaieran, erakundeen izenean, Asier Aranbarrik «Lan Onari» domina eman zion Yrizaren beste semeetako bati, Pedrori. Ondoren, Adolfo Arejita Euskaltzaindiko Euskararen Herri Hizkeren Atlasaren zuzendari akademikoak eta Amaia Jauregizar egitasmo horren teknikariak «Pedro Yrizar eta Euskararen Herri Hizkeren Atlasa» hitzaldia eman zuten.

Pedro Yrizarrek euskalki guztietako aditz laguntzailearen morfologia aztertu zuen, eta lan horren emaitza Euskaltzaindiak argitaratutako *Morfología del verbo auxiliar vasco* hamabost liburuz osatutako lanean jaso da.

## Pedro Yrizar, aitta

YRIZAR, Iñigo

Lehenik eta behin barkamena eskatu nahi nuke, nire euskerak hobetu behar du eta. Dena den, idazkia irakurtzen saituko naiz.

Adiskide maiteok:

Joan den abuztuaren hamaikan eta Azkoitiko Udalak antolatuak, senideek, lagunek eta baita alkateak ere, Aingeru-Guarda baselizan elkarturik non aita lurperatuta dagoen, lore-eskaintza egin genion haren jaiotzaren mendeurrenna zela eta. Bihotz-bihotzeko ekitaldi honek Pedro de Yrizar-ek Azkoitiarekin, bere jaioterriarekin, izandako lotura adierazi nahi zuen. Pello lagunak *Agur jaunak* txistuz jotzerakoan kutsu hunkigarria eman zion ekitaldiari.

Pedro de Yrizar-ek jaioterriarekiko zein euskararekiko zeukan amodio erakutsi nahian euskal gaiak ikertzeari ekin zion, garratzi handiko lanak jorratuz, ordura arte aztertu gabe. Eta horretaz gain, gehienetan ez ziren pertsona bakar batentzako lanak, talde handi batentzako baizik. Lan esker-gak, hain zuzen.

Hona hemen horietako batzuk:

- Herriz-herri euskaldun kopurua zenbatuz hasi zen joan den mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadan, inoiz egin gabeko ikerketa gainera.
- Geroago, laurogeita hamarreko hamarkadetan, herriz-herri eta auzoz- auzoz euskal aditz laguntzailea biltzeari ekin zion, zehatz-mehatz eus-

kalki guzietan sailkapena osatu arte. Hori ez zen, ez, lan makala. Bainan kontu honi buruz ederki argituko digute gure artean dauden entzutetsu aditurek; beraz, beren parte-hartzea ezkertu nahi diet omenaldian honetan.

Baina, aipatutako erronkak bukatu bezain laster, beste erronka bati aurre egin zion. Kasu honetan Azkoitia zen muina. Ikerketa honen alde nagusia Azkoitiko leinuak eta zuhaitz-genealogiakoak biltzean zetzan. Eta aurrera eramateko beste askotan bezala lagunzaile talde sutsu batez baliatu zen. Aitak sentitu zuen azken ekarpena bere jaioterrira egin behar zuela eta lan honetan jardun zen azken arnasa hartu arte.

Esan beharra dago aparteko lagunzaileak izan zituela aitak aipatutako lanak egiteko. Horretarako, funtsezkoa zen gogoa eta kemenia haien artean zabaltzea. Horretan datza agian Pedro de Yrizar-en arrakasta, hau da, Euskal Herriko lagun baliagarrienak haren ondoan elkarlanean aritzea.

Euskalerriaren Adiskideen Elkartasuna eta Euskaltzaindiko kidea izateaz harro zen aita eta horregatik erakunde hauetako buruzagiei Jose Maria Urkia eta Andres Urrutia-ri eta baita laguna den Asier Aranbarri Azkoitiko alkateari eta Kultura Arloko Foru Diputatua den Maria Jesus Aranbururi ere, bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi dizkiet familiaren izenean.

Bukatzeko, omenaldi honek garbi adierazten du aitak egindako lana ez dela ahaztu egin. Izan ere, ziur nago hurrengo belaunaldiek erabiliko dutela euskal kultura eta hizkuntzaren alde lan egiteko, aitaren ametsa betetzen.

Eskerrik asko guztioi.

\* \* \*

Adiskide maiteok:

El pasado 11 de agosto, convocados por el Ayuntamiento de Azkoitia nos reunimos en la ermita del Ángel de la Guarda un grupo de familiares y amigos, presididos por el Alcalde, para hacer una ofrenda floral en el lugar donde está enterrado nuestro padre, el mismo día en el que se cumplía el centenario de su nacimiento. Fue un acto íntimo y muy sentido que consagraba la definitiva y permanente vinculación de Pedro de Yrizar con su

pueblo de Azkoitia. El «Agur jaunak» interpretado al txistu por el amigo Pello subrayó la sobria solemnidad del acto.

Pedro de Yrizar quiso concretar el amor a su pueblo y a su lengua emprendiendo trabajos que cubrieran aspectos importantes y desatendidos, aunque fueran de una dimensión excesiva para una sola persona. Trabajos propios de un gigante.

Así se propuso contar, pueblo por pueblo, los euskaldunes, investigación que no se había hecho hasta entonces. Eran los años 70 del siglo pasado.

Después se empeñó en documentar, pueblo a pueblo y barrio a barrio, el verbo auxiliar para obtener una información completa y exhaustiva de los Dialectos y Variedades del Euskara. Eran los 80-90. De esta cuestión nos van a hablar después ilustres expertos a los que agradezco ahora su participación en este homenaje

Concluidos estos dos gigantescos empeños, concibió una ambiciosa obra que recogiera los aspectos más variados de su querida Azkoitia. Parte principal sería confeccionar la base de datos genealógica más completa que se pudiera de familias de Azkoitia. Para ello contaba con un entusiasmo y un amor desbordado por su pueblo y un gran número de amigos a los que pedir ayuda. Sentía que su último servicio a la cultura vasca tenía que hacerlo a su pueblo natal. Este fue su trabajo de los 90 hasta el día de su fallecimiento.

Como en las otras ocasiones supo rodearse de los mejores colaboradores, aglutinando un enorme número de personas a los que transmitió su entusiasmo y ejemplo. Quizás fuera ésta su principal virtud, promover y aunar esfuerzos, que él podía conseguir porque, a un gran talento, unía una pasión contagiosa, capaz de movilizar a lo mejor del País.

Por ello estaba orgulloso de pertenecer a la Real Sociedad de los Amigos del País y a Euskaltzaindia, instituciones a las que, en las personas de sus presidentes, los Amigos José María Urkia y Andrés Urrutia, junto con el Ayuntamiento de Azkoitia y su alcalde, el amigo Asier Arambarri, y la Diputada Foral de Cultura, M<sup>a</sup> Jesús Aranburu, quiero agradecer «biohtz-biohtzez», en nombre de la familia, este homenaje.

Homenaje que culmina la gran ilusión de nuestro padre de que, finalmente, el fruto sus esfuerzos no cayera en el olvido, que le sobreviviera, fuera útil y quedara a disposición de cuantos se interesen en el futuro por nuestra lengua y cultura.

Muchas gracias a todos.

## Xabier Kintana: «Gabriel Aresti begi-gogoetan»

Urriaren 8an, *Ahotsa, hitzak, hizkuntzak olerki-antologiaren* aurkezpen ekitaldiarekin bat eginez, Euskaltzaindiak Gabriel Aresti zena (Bilbo, 1933-1975) omendu zuen. Aresti poeta handia euskaltzain urgazle ere izan zen, bai eta euskara batuaren bultzatzaile handienetarikoa ere.

Omenaldi honetan, Xabier Kintanak hartu zuen hitza. Ondoren, Kintanak berak, Euskaltzainburuak eta Ameli Esteban Gabriel Aresti zenaren emazteak agerian utzi zuten Bilboko poetaren koadroa, Euskaltzaindiaren batzar aretoaren sarreran dagoena. Arestiren erretratua Jorge García Alegríak egin du.

Andres Urrutiak esan zuenez, «Euskaltzaindia prest dago, irudia ez ezik, bestelako lanak eta ekimenak ere bultzatzeko haren inguruan, uste baitu Arestik eta Bilbok, euskara eta euskalgintzak hori merezi dutela».

## Gabriel Aresti begi-gogoetan

KINTANA URTIAGA, Xabier  
Euskaltzaindiko idazkaria

Jaun-andreok, agur:

Gaur Euskal Herriko poeta batzuk gogoratu eta haien lan batzuen berragitalpena berriro ere jendaurrean aurkeztu dugu, beraien oroitzapena ohoratzea helburu. Horien artean, Gabriel Aresti, Bilboko poeta, Euskaltzaindiko kidea. Aukeraz baliatuz, egun berean, bide batez, Euskararen Akademiaren batzar-aretoaren atarian haren erretratua jarri nahi izan dugu, hemendik aurrera, euskaltzainok hona biltzen garen guztietañ, hora ikus dezagun, berragaz gogora gaitezen, ongi etorri esale gisa.

Duela urte batzuk idazteko asmoa neukan ipuin-antologia baterako, neurre irakasle eta adiskide zintzo batengana jo nuen: Shalan Hares-engana. Orduan ondoko anekdota hau kontatu zidan, berak bere herriko eskola-maisuari Libanon entzuna:

Behin batean Alexandro Handiak, grezieraz Mégas Aléksandros (Μέγας Αλέξανδρος), eta arabieraz Al-Iskandar al-Akbar (الإسكندر الأكبر) gisa ezagutuak, Egipro konkistatzeko asmoz zebilela, Ekiialde Hurbilera heldu eta, Libanon, bertako mendixka baten gainera igotzea erabaki zuen, morroi batekin batera. Handixeak piramideen herriraino bere soldaduek ibili beharko zuten bidea ikusi gura zuen, antza. Hara zohoala, bide ondoan agure bat ikusi zuen, pala batekin zulo bat egiten, eta Alexandrok ea zertan ziharduen galdetu zion. Zaharrak, gerlari handia errespetuz agurtu ondoren, zulo har-tan palmondo bat landatu nahi zuela erantzun omen zion.

Orduan, mazedoniarrak, harriduraz, honetara esan omen zion: –Baina gizona, palmondoak, handia hazi eta fruitua ematen hasteko, gutxienez hogeい urte inguru behar izaten ditu; eta zu jada zaharra zara, hori ikusi ahal izateko–. Agureak, ordea, honela ihardetsi zion: «Gure aurrekoek lehenago landatu zutelako, ari gara jaten gu orain. Guk landatzen dugulako, jango dute beste batzuek gero».

Erantzuna Alexandroren gustukoia izan omen zen, eta berekin zekarren morroiari agindu zion zahar hari urrezko txanpon bat emateko. Orduan agureak, eskerrak agertuz, irribarretsu, hau esan omen zion grekoen erre-geari: «Ikusten al duzu, jauna? Landatu berria da, baina palmondo honek jada bere lehen fruitua eman du». Alexandrok zaharrari beste txanpon bat eman eta handik alde egin zuen barrezka, agure maltzurrak beragandik diru gehiago atera baino lehen.

Duela lau hilabete, pasadizo honen berri jakin gabe, Patxi Uribarren euskaltzainak Aramaion, bere jaioterrian, sarrera-hitzaldi ederra eskaini zigu, hain zuzen ere, izenburu honekin: «*Izan zirelako gara eta garelako izango dira*». Bata Ekiade Hurbil urrunean; bestea Euskal Herrian bertan; hura orain bi mila eta hirurehun urte gertatua omen. Aurtengo maiatzeko berau. Baino bietan ideia berbera datza: gizakien eta belaunaldiz belaunaldiko segida, elkarren arteko harremanen giza kate luze eta etengabea, bere mailetan jendearen sentimendu, nahi eta oroitzapenak bilbaturik daramatzana.

Oraintsu aurkeztu dugun antologian bildurik, hogeigarren mendean jaio-tako poeta bizi edota berriki zendu batzuen emaitza hautatuak ageri dira: Angela Figuera, Blas de Otero, Javier de Bengoechea, Juan Mari Lekuona, Bitoriano Gandiaga, Gabriel Aresti, Jorge González Aranguren, Blanca Sarasua, Xabier Lete, Bernardo Atxaga... Gehienek, guztiek ez esateagatik, elkar ezagutzen zuten; idazkideak eta lagunak ziren.

Bakoitzak bere nortasun eta idaztankera berezia izan arren, guztiek fransismoaren garai latza ezagutu zuten, eta askatasunik eza pairatu. Halere, zentsuraren hertsikeria beren adore eta irudimenari esker jakin zuten gainditzen, eta beren obretan askatasun- eta eskubide-nahiak, injustiziaren aurreko makurgaiztasuna, sentimendu eta mundu-ikuskera utzi zizkigutenean, hurrengo belaunaldieei eskua eman eta suzi iratxekia pasarazteko.

Horian artean Gabrielek giza pentsamenduen, sentimenaren eta kezken mugak ireki zizkigun, errealityatea zabaldu eta berau bestelako begiekin ikus-tera lagundu zigun, itxaropenez, eta etorkizunerako bideari pauso trinkoa-gekin jarraitzen irakatsi. Izan ere, itxuraz ezinezkoa zirudienekin egin daitekeela bere etsenpluarekin predikatu zigun. Ondorioz, Gabriel Aresti-ren zidorretik abiatu ginenok gaurko bide zabalagoetara heldu gara. Atzean gelditu dira, lotsagarri, gure herriko hizkuntza jatorra berreskuratzeko interesik ezagatik, eta beren alferkeria estaltzearen, lau haizeetara euskara ikas-tezina zela predikatzen zutenen leloak, gaur egun milaka eta milaka euskal-dun berrik gezurtaturik.

Era berean, Unamuno eta Baroja bezalakoentzat iritzi ezkorren gainetik, ongi frogaturik utzi zigun Gabriel Arestik Lizardiren behialako esperantza hura: euskara orotarako hizkuntza izan daitekeela, euskaldunok hala nahi izanez gero.

Handia da, oso, Arestirekiko gure zorra. Horrexegatik, Gabriel, beti zai-tuzkegu gogoan.

## 2010eko «Xalbador» Eguna

Urriaren 9an eta 10ean, gozoro egin da aurten ere *Deiadarra* taldeak, Euskaltzaindia eta Urepeleko Herriko Etxearen laguntasunez, antolatzen duen Xalbador Eguna, Fernando Aire «Xalbador» bertsolari haundia zenarekin batera Imanol Sein «Xanpun» (1928-2002) bertsolari lapurtarra goralduz.

Aurtengo festa, urtero bezalaxe, larunbat arratsean hasi zen, herriko pilotalekuau (ezker paretan), Bergarako Idazle Eskolako gazteek antolatu zuten ilunabar literarioa, Xendarineko ahizpen bertsu zahar eta Gasteizko Zabaleta anaien trikitixaz nahasketu ederra eginez. Ehun eta hogei bat lagun bildu ziren festa giroan, lagun arteko afari eta festan, eta apenas inor jo zuen logureak, ordu txikiiek aurrera egin zuten arte.

Hala ere, igande goizeko 9:30etarako herriko plaza auto eta ibiltariz bete zen, Xalbadorren artzain-etxola eta inguruetara mendi-ibilaldia egiteko prest, nahiz eta eguna negarti eta euritsu agertu zen udazkeneko egunsenti ospelean.

Azpimarragarria da bestalde, herriko apaizak eta Emile Larre euskaltzainak eman zuten mezaren ostean Xalbadorren hilobira egindako bisitaldia. Hantxe bildu ginengoa herritar eta Xalbador-Xanpunen maitale/miresle asko, Xanpunen alarguna eta seme-alabak, herriko auzapeza, Laka bertsolaria eta abar; eta Lourdes Ijurjok (Aranalde zenaren koinata) egin zuen lore eskaintza bertsolariaren hilobian, urtero bezala. *Aitagure* bat esan, Lakaren hiru bertso entzun, eta *Agur jaunak* kantatuz agurtu genuen hangoa.

Eguerdian, herri kirolak izan ziren plazan, Donazaharre (Nafarroa Behera) eta Mutrikuko (Gipuzkoa) taldeekin. Sokatira, fardo altxatzea, trontzalariak, txinga proba, lokotx biltzea eta abar, Joxe Mari Egaña zuzendari zela. Eta jarraian, pilotalekuau, Osintxuko Musikara taldearen dantzaldia ikusteko aukera izan zuen jendeak, taldearen lana gogotik txalotuz. Euskal dantzak eman zituzten, bai, baina ez ordea modu tradizionalean: Benito Lertxundiren zenbait kantu ezagun eta musika bereziz landutako koreografiak eraman zituzten osintxuarrek Urepeleko euskal festara.

13:30ean hasi zen lagun arteko bazkaria, pilotalekuau. Eta tarteetan, Jean-L. Lakak eta Xendarineko ahizpek kantatu zituzten Xalbador eta Xanpunen bertsoak, bazkaldarren gozamenerako. Halaber, Xalbador eta Xanpunen goramenez egindako bideo-argazki bilduma ere gogoz onartu zuten bazkaldarrek.

Uxue Alberdi, Juan Jose Eizmendi Loidisaletxe II eta Sebastian Lizasoren bertso saioak eguneko ospakizunaren ardatzari zegokion maila ongi eman zuen; eta ordubete eta laurdeneko saio batean nekez esan daiteke esan zuen baino askoz gehiago, erritmo bizi-biziko saioa egin baitzuten, izan ere.

Azkenik, bostetan bertso saioa amaitu zenean, berehala erromeria hasi zen, Ander eta Imanol Zabaleta anaiekin, herriko pilotalekuau bertan, kanpoan euria zela-eta.

Eguraldiak ez du asko lagundi aurten. Baino ahogozo ezin hobea utzi du asteburuak Xalbadorzaleen artean. Horrexegatik, eskerrak eman nahi dizkie *Deiadarra* taldeak, behin eta berriz, Euskaltzaindiari, Urepeleko Herriko Etxeari, Bethart familiari eta antolakizunak egiteko laguntasun berezia ematen duten lagun eta komunikabide guztiei.

Hurrengo urtean (2011) Xalbadorren heriotzaren 35. urteurrena izango baita, berriro ere lanean hasteko animatuta gelditu da *Deiadarra* taldea.

## Joan Mari Torrealdaik jaso du «Lauaxeta» Saria

Joan Mari Torrealdai idazle, kazetari, soziologo eta euskaltzain osoak Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko *Lauaxeta* Saria jaso du. Saria Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldun nagusiak eman dio, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunaren barruan.

Bizkaiko Foru Aldundiak Torrealdairen ibilbidea azpimarratu nahi izan du. Besteak beste, hauxe dio: «Joan Mari Torrealdai Nabea gai askotako hainbat libururen egilea da, eta sari ugari lortu izan ditu euskara sustatu eta aztertzen edota, besteak beste, Euskadiko historia garaikidea lantzen eman-dako ibilbide luze eta oparoan».

Sariaren bidez, «publikoki aintzat hartu nahi dira gure hizkuntza eta euskal kultura sustatu, hedatu eta normalizatzeko lanetan egindako ahalegिनengatik nabarmendu diren pertsona, talde eta erakundeak».

## Jose Luis Lizundia, euskaltzain osoa saritu dute Abadiñon

Abenduaren 17an, Abadiñoko Kultura Etxean egindako ekitaldian, 2010eko *Abadiño* sarietako bat eman zioten Jose Luis Lizundia euskaltzain eta Euskaltzaindiko diruzainari. Aurten lehenengo aldiz eman dira sari hauek, eta bost izan dira sarituak: Jose Luis Lizundiarekin batera, Andeka Gorrotxategi tenorra, Javier Elorriaga txirrindularia, Angel Alvarez «El Campurriano» eskultorea eta Abadiño sokatira taldea.

Sariak antolatzen dituen Abadiñoko Udalaren esanetan, guztiek «herriagazko inplikazio handia erakutsi dute, eta gazteentzako eredugarri diren balioak zabaldu dituzte».

# Hilberri-Txostenak



# Jorge Cortes Izal

## (1930-2010)

ZABAleta, Patxi

### 1. Bizitza, ikasketak eta lanbideak

Jorge Cortes Izal Otsagabian jaio zen 1930eko apirilaren 30ean. Iruñean hil zen 2010eko urtarrilaren 12an; beraz, 80 urte bete baino hiru hilabete lehenago.

Jorge Cortes Izalen aitak Luis Kortes izena zuen; Aragoiko Petilla Nafarroako herrian sortua zen, nahiz eta Erronkariko Garden hazi zen, gaztetan Garden bizitu zen; Erronkariko «uskaraz mintzatzen zena». Luis Kortes ogibidez «ministrantea» zen: gaurko praktikantea edo erizaina eta horzlaria aldi berean. Lanbide hori garatu zuen urte luzez Otsagabian.

Jorge Cortesen ama berriz, Teresa Izal izenekoa, Otsagabiakoa zen sortzez eta jatorriz. Gaixotasun luze eta larri batek jota oheratuta bizi zen Jorge Cortes Izal jaio baino bi urte lehengotik. 1948an hil zen, beraz Jorge Cortes Izalek hamazortzi urte zituelarik, semeak inoiz zutik ezagutu izan gabe.

Jorge jaio zenean, ama Teresa gaixoak esnerik ez izaki (ezta ezpainak bustitzeko horitzarik ere) eta horregatik, bularra eman ziezaiokeen emakumea bilatu behar izan zuten eta Otsagabiako Txarandel etxeko etxeoa andrea aurkitu zuten, Juanita Contin izenekoa. Juanitak bere umea bazuen eta hark hazi zituen bi haurrek, Jorge eta berea. Jorgeri, berezko ama Teresari ama deitzen erakutsi zioten eta ugazamari berriz, «Amaño» deitzen.

Txarandel etxaldeak herrian bertan bazuen etxe bat eta mendialdean baserria. Udan baserrian bizitzen ziren; neguan berriz, herriko etxean. Jorge

Txarandelen bi urte arte eduki zuten eta gero gurasoen etxera eraman. Bainaz senide bezalako harremana bizitza osoan mantendu zuen Jorgek eta anaiatzat bezala zeukan bere adineko Txarangelgo berezko semea, Alfontso Sola Contin. Harremanari zahartu eta ere eutsi zioten, Alfontso Viana-ko irian bizitzera joanda zelarik.

Jorge Cortes Izalek Komertzioko karrerako ikasketak egin zituen, nahiz eta ez zituen guztiz inoiz bukatu. Beste ikasketa askotan ere hasi zen eta arlo anitzetan autodidakta kutsua zeukan. Berezkoa zuen ezinegonak eta jakin-nahiak eramatzen zuten maiz ikasketak, lanbideak, kezkak eta ardurak behin eta berriro hasi eta berritzera.

Lanbidez Jorge Cortes Izal komertzioko eta zerbitzuetako arloetan aritu-takoa zen. Lehenengo lana «Almacenes Escudero» izeneko enpresaren saltzaile arduraduna izan zuen eta zeregin horretarako Madrilen egon zen bizi-tzen aldi batez; hurrena, Iruñera itzulita, arropa garbitzeo eta plantxatzeko enpresa ttipi bat eraiki zuen Aita Calatayud kalean 1.970. urtea arte; eta hirugarrenik, «Negra Industrial Reprográfica» izeneko enpresako frankizia baten ordezkari eta saltzaile moduan aritu zen, 59 urte zeukalarik, beraz, 1980an, bihotzkoak eman eta lanerako gaigabetze osoa aitortu zioten arte.

Jorge Cortes Izal jauna Esther Leon Agoizko andrearekin ezkondu zen. Beraien bizimodua, pentsakera eta jarrerak beste arazo arrunt eta anitz guzti-tetaz at, Ester Leonen aita Aurelio Leon Inda eta bere anaia Jaime Leon Inda 1936ko gerratearen hasieran fusilatua izanaren zama astunak baldintzatu zituen bizitza osoan. Izan ere, Nafarroan altxamenduaren hasiera har-tan, fronteetan hildako milakakoetaz gainera, inolako epaiketarik, defen-tsarik eta ondoreko errekonozimendurik gabe eraildako 3.554 lagunen arteko bi izan ziren Esterren aita eta osaba, Ester ume gorria zelarik anarte-an. Heriotza haiiek ez ziren Errejistro Zibilean inskribatuak izaten eta on-doreko urteetan hiltzaile nagusiek erakutsitako lotsagabekeriaren adierazpen latzek zurrara eta harridura eragiten dute.

## 2. Euskararen aldeko ahaleginak frankismo garaian

Nafarroan, eta bereziki Iruñean, 1960ko hamarkadaren hastapenetan hasi ziren zer edo zer egiten euskararen aldarrikapen eta euskal kulturaren bultzapenetan talde ttipi batzuk. Horien artean berehala azaldu zen Jorge Cortes Izal.

Migel Javier Urmeneta jauna izan zen neurri batean talde mugimendu hura katalizatzen zuena eta harekin batera Jose Agerre, Estornestarrak Joxe eta Bernardo, Celso Torrea, Pedro Diez de Ultzurrun, Aingeru Irigarai, Joxe Martinez Erró; eta geroago, Jose Manuel Lasarte, Jose M<sup>a</sup> Satrustegi eta beste batzuk.

Nafarroan euskal kulturaren eta euskararen erabilera publikoaren arloan izugarrizko hutsunea zegoen frankismoaren garaian eta orduan hasi zen taldetxo hura bere hala holako ekintzakin. Alde batetik, bertsolarien eta euskal jaien antolaketan, bestetik, gazteen eta umeen arteko euskararen eta euskal kulturaren bultzapen eta sustapenetan.

Migel Javier Urmeneta diputatu forala izatera iritsi zenean *Principe de Viana* aldizkari kulturalaren euskarazko hileroko gehigarria eratu zuten, Pedro Diez de Ultzurrun medikuaren ardurapean. Zazpi urtez kudeatu zuen Diez de Ultzurrun jaunak osorik euskaraz argitaratzen zen eta doan banatzen zen gehigarri hura; 11.000 harpidedun izatera iritsi omen zen eta gero, iskanbila politiko eta kanpaina baten ondorioz, zuzendaria aldatu zuten eta Martzelino Garde apaizaren ardurapean jarri zutenetik bi edo hiru urtera itxi zuten.

## 3. Nafarroako ikastolen hastapenetako ezinbesteko lekukotasuna

Beste urrats handi eta garrantzitsua ikastolen sorrera izan zen Nafarroan. Eta urrats honetan protagonismo berezia eduki zuen, beste batzuekin batera, Jorge Cortes Izalek.

Aurrekaria bezala, aipatzeko da Nafarroan Errepublika garaian bi ikastola sortu zirela; bat, Iruñean bertan Aita Damaso Intza, gero euskaltzaina izanen zenak, Don Manuel Irujo eta Don Ignacio Balezenak bultzaturik, «EUSKARAREN ADISKIDEAK» izeneko elkartearren eskutik. Aipatuta dago aurrekari hau nire Euskaltzaindiko sarrera hitzaldian, aurrekoan nuen Aita Damaso Intzari buruz egindako aipamenetan. Nafarroako beste ikastola Lizarran izan zen eta bertako irakaslea Doña Juana Azpirotz andrea izan zen. Gerrate aurreko bi ikastola haien indarraren bitartez itxiak izan ziren eta Lizarrako ikastolako liburu, koaderno, eserleku, mahai eta pupitreak Lizarrako Foruen plazan egindako sutean erreak gertatu ziren. Eta hara, gerrate hasieran Lizarrako alkate zen, Don Fortunato Agirrek ezin izan zien lagundu, bera harrapatuta zegoelako eta fusilatua gertatuko zelako.

### 3.1. Gerra ondoreko ikastolen sorrera arazotsua Nafarroan

Gerra ondoreko ikastolen hasiera oso zaila eta arazoz betea izan zen Nafarroa osoan eta bereziki Iruñean.

Jorge Cortes Izalek pertsonalki parte hartu zuen lehendabiziko ekinaldi haietan adorez eta kemenez.

3.1. Iruñeko ikastolen hastapenak.- Lehendabiziko aldiz Iruñean ikastola izenarekin hasitako ekinaldia 1960-1961 ikasturtean izan zen, Mugerta familiaren bizietxe partikular batean. Jorge Cortes Izal ekintza hura bultzatzen zuen taldeidea zen eta ikastola xume hartako bost ikasle talde txo hartan seme zaharrena zegoen. Guardia Zibilak itxi zuen ikastetxe apal hura. Baino ez bakarrik itxi, baizik eta baita etxeko jabearen atxiloketa burutu ere. Jorge Cortes Izalek ihes egin zuen Iparraldera eta gordeta egon zen hilabete inguru, gauzak epaitegian argitu eta itzuli ahal izan zuen arte.

Iruñean ikastola irekitzeko bigarren ekinaldia beste bizietxe batean 1964-65 ikasturtean egin zen. Bigarren honetan ordea, etxe osoa hartu ahal izan zuten; Pozo Blanco karrikako 4 zenbakiko 3. pisuan, Doña Mikaela Gastesi irakasle zutelarik. Lehendabiziko ikasleak: Maribi Reta, Xavier Cortes, Patricia Epaltza, Xavier Etxebeste, Maria Jesus Mangado,

Julio Ezpeleta, Mikel Oraien, Maria Orien eta Jurgi Sarasa izan ziren. Bigarren ekinaldiko ikastola honi izena ipini zioten, –Nuestra Sra. De Ujué– nahiz jende guztiak Iruñeko Ikastola deitzen zion. Bi urtetan 25 ikasletara iritsi zen eta hirugarrenean 50 ikasletara; orduan Salsipuedes karrikara eraman zuten eta beste irakasle batzuk kontratatu. Legezko nortasunari eta legeztatzeko ahalgintzari aurre egitearren «Amigos del País» elkartearren babesa bilatu zuten. Iruñeko ikastola honen egituraketan lehendakaria Jorge Cortes Izal izendatu zuten eta hala izan zen sei urtez.



Iruñeko ikastolen bilakaeran ondorio handiko hirugarren urrats bat zera izan zen, 1969-70 ikasturteko ahalegina eta haustura. Urte hartan Iruñeko Ikastola bezala ezagututakoak hiru ikastoki zeuzkan, ezin da ikastetxe esan, bat berak ere ez baitzeukan jolastokirik apalena edo beste inolako bitartekorik. Toki bat Baiona ibilbideko behe bat zen; umeak atzoko orube batean jolasten ziren; bestea, Irrintzi dorrea deitzen den eraikuntzako hamalaugarreneko lau atiko ziren; umeak atiko hartako terrazatan jolasten ziren; eta hirugarren ikastokia, Barkos etxegileek Motxueloko auzoan doanik utzitako etxepe bat; umeak parke publikoan jolasten ziren. Halere, ikasle kopuruak 350tik gora egin zuen eta asko hazi zitekeelako zantzua hartzen zitzzion. Ni neu anartean, unibertsitateko ikasle eta helduen eskoletako irakasle nintzelarik edo nenbilelarik, Iruñeko ikastolako batzorde eragileko zeregin batzuetarako kontratatu ninduten (orduko hizketan liberatu egin ninduten eta hilean 5.000 pcta. ematen zidaten gastuetarako.)

1969-70 ikasturte hartan ikastola ikastetxe bezala legeztatzea beharrezkoa eta ezinbestekoa zelako iritzira heldu ginen guztiok. Besterik zen helburu hori nola lortu, besteak beste, ez zirelako inondik inola legezko baldintzak betetzen. Hitz egin zen askorekin, baina bereziki Don Karlos Santamaria idazle eta irakasle donostiarak azaldu zigun Donostiako «Lizeo

Santo Tomas» delakoaren legeztatzearen ikuspegia eta historia eta bide hura jarraitu zen, zera alegia, irakasle beraren izenean egitea. Zuzendaria Doña Mikaela Gastesi zen eta bere izenean lortu zen legeztapena. Gezurra badirudi ere, legeztapeneko lorpenaren ondorioz areagotu egin ziren eztabaidak eta 1970eko aste santuan bi puska egin zen ikastola: San Fermin Ikastola alde batetik; Paz de Ziganda, bestetik. Ikasleek eta irakasleek aukeera egin behar izan zuten. Zuzendaria eta M<sup>a</sup> Jose Goñi, Karmele Eneterriaga, Eguzkine Irigoien gelditu ziren Paz de Zigandan; Izaskun Gastesi, Feli Aleman, Arantxa Plazaola, Ernesto Fernandez, Ana Sarobe eta Manoli Peña joan ziren berri berritik sortutako San Fermin ikastolara.

Eztabaida sozialak fruitu anitz eta bitxiak eman zituen urte hartan Euskal Herrian. Esaten zuten EZ DOK AMAIRU taldeak akelarrea egin zuela Larraitzen eta *El Pensamiento Navarro* egunkariak kampaina egin zuen *Principe de Viana* aldzkariko euskal gehigarriaren aurka: «Ez dok amairu, el akelarre de Larraitz y Principe de Viana» izenburua zeukan bere erasoak. Eta lortu ere, lortu zuen periodiko hark Nafarroako Diputazio Foraleko gehiengoak Pedro Diez de Ultzurrun zuzendaritzatik kentzea. Izan ere, ikastolaren baitan eztanda egindako eztabaida gizarte osoaren eztabaida soziala besterik ez baitzen: Heziketaren konfesionalismoa ala ez, sexu berdintasuna, eta abar

Jorge Cortes Izal eztabaida horren barru barruan gertatu zen eta San Fermina ikastola berrira joan zirenekin bat egin zuen, baina ez zuen han lehendakari bezala jarraitu.

3.2. Urte hartan bertan, 1970ean alegia, Nafarroako beste hainbat herri tan ikastolak sortzeko ekimenak bultzatu eta batzuetan gauzatu ziren: Tafallan, 4 ikasle eta irakaslea –Nekane Zeliaeta– Iruñetik ordainduz, Le-kunberrin, Otsagabian, Etxarri-Aranatzten. Tuteran haurrak bildu ziren, baina 100.000 pulta miserableko gastuari ezin izan zitzaison aurre egin. Le-kunberri eta Otsagabia itxi egin ziren, baina Tafalla eta Etxarri-Aranatz harrotasunez betetzeko lorpenak dira.

Jokabidea beti berdintsua izaten zen Jorgeren hitzetan: «—Kaskoa ongi berotu behar zaie dozena erdi bat tenkor kaskailuri. Gero bere gisa joaten da dena.»

#### 4. Jorge Cortes Izalen barru-barruko kezka eta ardura sakonak

Jorge nolabait definitzekotan kanpionianoa zela esan beharko litzateke. Euskararekiko ikazgilearen atxikimendukoa, Otsagabia herria eta Zaraitzu harana beti gogoan eta kezkatan zituena, Euskal Herria den gizartean nor-tasun agiriak –tituluak– Nafarroaren baitan ikusten zituena.

Ikastolen mugimenduan bigarren maila batean jarri ondoren, Otsagabiako gizartean kezkak asko akuilatzen zuen: zinea jarri zuen eta lanbideak sortzen saiatu zen, zerrategi baten eraikitza bultzatu nahirik eta abar. Ezinegona eta ezin etsia, beti urrats bat aurrerago zeukan.

Guztiz kezkatua bizi zen Nafarroako Auñamendi, edo Pirinioa bukatzen ari zelako; eta bere kezka egiazkoa da. Uztarrozetik Zubirira 4.000 bizilagun eta adin handikoak besterik ez da bizi.

#### 5. Aitorpenak eta errekonozimenduak

Nafarroako gizartean jasotako aitorpenak aipatzeak adierazten du, garai zail haietako lekukotasunak beharko lukeela oraingo garaietan mezua eta ikasbidea:

- 1969an Euskaltzaindiko Urgazle izendatua izan zen.
- 1997an Euskalerria Irratiaren LARREKO Saria jaso zuen.
- 2004ko urtarrilaren 8an, Nafarroako Ikastolen Elkarteak eta Lizarrako Ikastolak OMENALDIA egin zioten.
- 2004ko ekainaren 28an, Noaingo Borrokaldiaren urteurrenean EUS-KARIAKO Domina eman zioten.
- 2008ko maiatzaren 18an, Artaxoako Euskal Astean: JIMENO JURIO saria eman zioten.

## 6. Cortes Izal eta X. Leteri omenaldi xumea

Lagun bat edo hurbileko bat hiltzen denean, maiz guregan sortzen den sentimendua izaten da esan behar genizkion edo galdetu behar genizkion hainbeste eta hainbeste gauza, ezin izanen dizkiogula gehiago galdetu, beranduegi egin zaigula.

Bizimoduko bide-gurutzetan topo harrigarriak gertatzen dira; eta hara, 1969-70 ikasturtean *El Pensamiento Navarrok* elkartu egiten zituen Lete eta Jorge Cortes Izal zebiltzan bi esparruak: «Ez dok amairu, el akelarre de Larraitz y Príncipe de Viana»

Olerki bat bientzat batean:

### BERANDUA BETI BERANDUEGI DA

Eskua luzatu zenidan laguntza eta losintxa eske  
baina orduan eskuak ustez beteak nituen nik  
eta laxatu nituenerako  
beranduegi zen.

Solasa eskatu zenidan, hizketa eskaini nahirik  
baina neure lanetan arras arduraturik ibilki  
eta asti bat lortu nuenerako  
beranduegi zen.

Zeure biziaren harrigarriak oparitu nahi zenizkidan  
nik ordea, unean uneko kezkak lehenetsi nituen eta  
aukera aintzat hartzerako  
beranduegi zen.

Nozitutik ateratako gaipentsua adierazten saiatu zinen  
baina nik ustez premiazko zereginak neuzkan eta  
mezua ulertu baino lehen  
beranduegi zen.

Maitasun adierazpena nahi zenuen, denbora joan aurretik  
eskaera itxurako presazko eskaintza izaki zeurea  
baina nik ulertzerako  
beranduegi zen.

Jaramona eskatzen zenidan, arreta pittin bat egin nekizun  
baina bioi ihesian zijoakigun denbora ber-bera zela  
otu zitzaidanerako  
beranduegi zen.

Esker onez diosolari erantzun eta hizketa eskatzen zenidan  
ni, ordea, eskari itxurako hora doaneko eskaintza zela  
ohartu nintzenerako  
beranduegi zen.

Itxaropenik ezaren oihua jaurtiki zenidan elkartasun eske  
baina ardurak ez zidaten nirea baizik entzuten utzi eta  
etsipena ulertzerako  
beranduegi zen.

Isiltasunezko garrisiz so egin zenidan erantzun baten zain  
malkoen dirdiran idatzitako sorospen deia, ordea  
irakurri ahal zenerako  
beranduegi zen.

Oroitzapenen puxika lehertu zaizunean eta oroimena hutsaldu  
adimena ezabatu eta hitzik ezaren, bakartasunera  
amildu zarenean  
horra orain  
beranduegi da.

Oroitzapenak norberaren baitan dirade beti gauzatuak  
eskamentuak norberaren biziñez hornituak dira  
eta norbera ez denean nor  
orduan jada  
orduan beranduegi da.

Nirekoikeriagatik erantzun ezak samina dakarkit orain  
erreguak aintzat hartu ez izanak atsekabea dagit

beranduaz jabetzean ordea  
orain horra  
jada beranduegi da.

Hitza eta oroimena galdurik, zeure baita hutsaldu egin zitzaizun  
landare babesgabe eginik, zainak ohean botata  
orain bai namaizuke ni  
baina horra  
orain beranduegi da.

Beranduaren itzulezinak min dagit, min garratza deragit  
joandako denborak etsipenaren arantza sartzen baitit  
berandu da eta berandua  
berezi da beti  
beranduegi!

# Xabier Lete oroitzen

IRIGARAY, Jose Angel

## Poesia airean

Berriz ere abenduan, gure bazterrak xuri, elurra Bianditz mendiko hegaldailurretan. Berriz ere negu atarian, noiz elkar-maitemintzearen itzalean, Heriok, gibeleko atetik sartuz, poetaren eskuak izotxue, umezurtzago gaituen utzi. Sentipenak, poz eta minak, galderak, urrats desbideratuak, galarak... poesia bilakatzen zituena mutuaraziz, isilaraziz kantu sentitu, indartsu, sinesgarriaren ahotsa. Guztiarekin ere, poetaren taupada bizia eraman badu, haren hats oparoak hitz-poesia bilakaturikoa orotan da orain jori bizi.

Aspaldi honetan ingurukoekin bezainbat joan direnekiko babes eta kon-tsolamenduan zen, halabeharrez laketuxe itxaropenaren atalasean. Lurralte eta izari bereziko muga horretan ibilki, sentimendu eta gauzen balio osasun-garria bere eta gure zuen egin, du egiten. Orain, ororengan da engoitik, traba guztiez jareginik, egun batean bizigai bilakatu zen izarren hauts emankor horretarat itzulirik. Gu, berriz, *Euskalherri nerea ezin zaitut maite, non biziko nintzateke zugandik aparte...* horretan gara oraindik, ametsa egiaren antziduri bilakatu nahiz, errota zaharrak ur berritan ere ekingo diolakoan urduri...

Joxan Goikoetxea esku-soinua jotzen hasten da Lurdes Iriondo eta Xabier Leteren «*Errota zahar maitea*» kantuaren oihartzunean, amaiera aldera Juan Mari Lekuonaren poemaren lehen ahalpaldia errexitatzen delarik: «*Errota zahar maitea / urarem ertzean / uraren ertzean da / basati beltzean: / negar egiten dezu / alea xehatzean / ni ere triste nabil / zutaz oroitzean*».

## Ibilbide jorian

Ezaguna da Xabier Leteren ibilbide oparoa, bai poesian bai kantagintzan; batean zein bestean nabarmendu zuen dohai berezia. Baiki, bekau da gauzatzen gure hizkuntzaren bizitasun osasungarria hain manera eraginkorrean. Oiartzunen ongi erroutua, ahozkotasun eta herri kulturan –eta hor, Lekuan-natarren itzala aipatu behar da, Juan Marirena bereziki– eta, gisa berean, gogoa irekia, munduan kokatua –ingurukoan eta urrutikoan–, biak propio-ki uztartuz jardundakoa izan da bizitzan, sorkuntzan. Haren poema eta kantueta mementu berean da herri hizkuntza bizia sentitzen eta hizkuntza jasoa gozatzen, existentziaren drama eta ironia, euskaldunaren eta giza aberraren patua, poz eta mira, egunoroko irudiak eta arnasa handiko metaforak. Lurrari atxikia eta lau haizeterat zabaldua, poetak inoiz ez du ikuspegia galtzen, non dagoen eta nondik duen kantatzen, bertatik bertara eta mundu guztian gaindi.


Xabier Leteren poetikan nabarmenzen den berezitasun nagusienetarikoa, doikabe. Horri lotua, gauzak eta gertakizunak hitz-poesia bilakatzeko deliberamendu... eta dohaia. Haren hastapenetako poema bat «gauzen izentatze etengabe bat» da deitzen, eta honela hasten: «Poesia gauzak izentatzeko era bat da». Eta sarreran zehazten du: «Gauzek, ordea, beren izena behar dute. Eta gertakizunek. Beren izena behar dute, eta izena bilatuz gero leporatu egin behar zaie. *Euriari, euri / Aleari, ale / Lagunari, lagun / Etsaiari, etsai / Zoroari, zoro / Erailketari, erailketa / Goseari, gose / Egariari, egarri / Heriotzari, heriotze / Gorputzari, gorputz / Desioari, desio*. Izentatze horrek, gauzen begiratze lehiatsu eta aspergarri horrek harririk mugituko ez duenaren uste osoz. Ez baitatza hortan auzia, ez mirakulu, ez aterabidetan. Egunoroko identifikatze baten beharretan baizik. Denbora gosetiaren sabel izugarrira nahaspila gorrotagarrian ez erortzean... Gudari irabazole inoiz izango ez garenez gero, ez gaitezela, arren, gudari ezezagun izan. Hitzak izaten jarrai daitezela, desgastez hil edo zentzu argitsu indartsu berri batez jantzi ditzagun bitarte. Hitzak izaten jarrai daitezela». Poesiari buruzko paradigma bat.

Ondorioz, ongi dakigu, hainbat eta hainbat asmo, egoera, leku, amets, poz eta min, galera... eder eta indartsuki dizkigu izendaturik utzi, uzta poe-

tiko jorian. Eta horrela, haren kantu-poema anitz mugarririk eta erreferente bilakatu dira, gure jendartean sakon txertatuak, taigabe elikatzen dutela-rrik mentura.

Ohorezko euskaltzain iaz izenda-tu izana horren ondorioa baizik ez date, naski, nahiz, poetari datxekion gisan, hura halako izendapenekekiko esker-on izan, bai, baina ez, ordea, sobera munta emanik. Hain zuen, baitezpadakoak diren ildo eta araez haratago, edo hobe erranik, sakona-go, denok bezala, funtsean, hitzaren biziak zuen axolatzen, biziaren hitzak; sozietalean bezala sorkuntzan izan dadin, xede bezainbat bitarte-ko, bide beste zubi. Hortik hain trebeki jardun izana bera, sortzen, komunikatzen, iristen...

Joxan Goikoetxeak «Alzateko Jaun» kantuaren egokitzapena jotzen du. Amaiera aldera «Egusentiarenen esku izoztuak» liburuko honoko poema errexitatzen da: «Azaroko arratsaldean elurra ikusi dut / Bianditz mendiaren hegala-ga-ilurretan, / xuri hartan begirada itsatsirik / «berriz ere negua atarian» / esan diot ahots apalez nere buruari, / zer nolako hunkidura elur xurirena / nerabeak gine-nean herri galdu harten... / begiratzen genituen bortuak, mendilerroak / eta han ekialdean Nafarroa zegoela esaten ziguten, / Lesaka, Baztan, Auñamendiak / haratago Europako erresumak edo agian Errusia / ez baikenekien noraino ailega-tzen zen mundua, / baina mendilepo hurbil haietatik zetorkigula dena / hori ongi genekien gure ezjakin eskasean, / hodeiak, ekaitzak, elurrak eta negua, / eta izendatzearrekin eraikitzen zirela gertakizunak / eguratsen aldaketak iragarri eta halabehartuz... / gero laster eguberria genuen atarian / eta Olentzero ikazkina menditik jaisten zenean / sua eta mezua bailarara ekarritz / gure bihotzetan zila-rrezko txintxarrieik / errepikatzen zuten zorion harrituaren doinua... / penaz begiratzen genien orduan zoritzarrekoei / eta haiengandik hurbilago ginen senti-



*tzen / zortea onizatearen atari epeletatik uxatu zituelako... / gaur, izan ginen hartatik / ia ezer ez denean geratzen / berriro xuriz jantziak ikusi ditut mendiak, / ekialdeko bortuetara begiratu dut hunkitua / eta barnearen barne barneratuenetik esnatu zait / denboraren abaraskaren pean / estalia zegoen kantua: / goiko mendian elurra dago, errekaldean izotza».*

Zorionez, baditugu Xabier Leteren emariak biltzen eta iraunaztzen dituzten argitalpenak. Bere kantuz osatutako bost disko, Lurdes Iriondorekin batera beste bi, berriak eta herrikoiak. Horiez gain, bertsoei eskainitako hainbat disko: Bertso eta kopla zaharrak disko bikoitza, Antton Valverde eta Julen Lekuonarekin, Txirritaren bertsoak disko bikoitza Antton Valverderekin, eta Berrehun urtez bertsotan, zazpi disko bertsolaritzaren antologia gisa.

Letren munduan, bestalde, hainbat hitzaurre, artikulu eta kolaborazioz gain, sei poesia liburu: *Egunetik egunera orduen gurpilean* (Cinsa, 1968), idatzitako lehen poemak, gehienak aurreko bi urteetan Gipuzkoako Agora Saria birritan irabazitakoetarik. Beraietan jada –poesia soziala sentipen eta kezka pertsonalez zeharkatua, esperimentazioz hornitua– Juan Mari Lekuonak izendatu zuen «dardara dramatikoa» nabaitzen da. *Bigarren poema liburua* (Gero, 1974) izendatutakoan aurreko ezaugarriekin batera poetika helduagoa eta zalantza existenzialaren eragina nabarmenzen dira. *Urrats desbideratuak* (Gipuzkoa Kutxa Argitalpenak, 1981) 1980ko Irun Hiria saria izan zen lanean, berriz, etsipena eta ezkortasuna hasten dira poetaren mundua errotik tindatzen. Hurrengoa *Zentzu antzaldatuen poemategia* (Euskaltzaindia-BBK, 1992) da, erakunde horiek antolaturiko Arrese-Beitia lehiaketa irabazirik; *Biziaren ikurrak* (Erein, 1993) izenekoan, berriz, aurreko liburuko poemategiaren atal oso bat erantsi zuen. Bietan, eri handi izan ondoren onduak, izpiritualitatearen xerkako desmartxa deliberatuan azaltzen da; bizitzeko euskarri diratekeenak izendatuz, hitz-poesia bilakatuz, egiazki izaten hasiko direlakoan. Azkenik, *Egusentiarren esku izoztuak* liburua dugu. Hamabost urte argitaratu gabe egon ondoren 2008ko abenduan Pamielaren eskutik plazaratua. Bertan, menturaz inoiz baino modu erabatekoagoan, aurreko libruetan nabarmendutako gai, arrangura eta kezkak, estilo, taxukera, hiztegia..., hots, Leteren mundu metaforikoa, hiztegi poetikoa, gauzatzen da. Aspaldian bizi izanikako esperientziak –osasun arazoak, galerak, heriotza...– gogoetatzuz eta hitz bilakatuz, ohi bezala azala

eta mamia egoki uztartuz, poeta lurralte sakon eta sentiuagoetan, zinezkoagoetan, murgiltzen da, ezinago sinesgarri. Poesia liburu honek 2009ko Literatur Euskadi Saria jaso zuen, baita urte bereko Spainiar Literatur Kritikoen Elkartearren poesia saria ere. Horiez gain, Rilke, *Orduen Liburua* disko-liburuttoa (Pamiela, 2004), txekiarren hogeitamar poema Karlos Gimenezek pianoz lagundurik, eta, azkenik, *Abestitzak eta poema kantatuak* (Elkar, 2006), kantu bilakaturiko bere poemen bilduma.

Baina hitzak minez, emozioz, taupadaz, zirroraz eta dardaraz eta eleak baino haratagoko, eta hunatagoko, hainbat sentipenez mamiturik dauden fonemak direnez, testu idatzi gisa irakurriak izateaz gain, daudekeen hameka sentipen eta ñabardura zuzenki, hitzen tonuz, energia kargaz, airearen transmisioaz senti-ikus-entzunezko aukera suertatuz gero, hitza osaturik bezala gelditzen da, bereziki hitz bilakatu sentipenak bizarazteko gaitasuna dagoelarik. Xabier Leteren kasua, hain zuzen.

Horiek hola, azken poemategia jendartera iristen lagunt zezakeelakoan, irakurraldi bereziak egitera prestatu zen, adoretsu gainera. Aukera Iruñean hasi zen gauzatzen, ondoren Donostia, Bilbo, Izpura-Garazi, Zarautz, Usurbil, Hernani, Durango, Elgeta, Urnieta, berriz ere Bilbo, Ataun... Eta askoz gehiagorako eskea izan zen, baina ezin zuen gehiago. Errezitaldi horietako batzutan hartutako irudiekin DVD bat apailatu ahal izan zen Gipuzkoako Diputazioko Kultur sailaren laguntzarekin. Argitalpena Xabier Leteren emotibilitate eta sinesgarritasunez beteriko azken bidaia poetikoaren lekuotasun bakana bilakatu da.

Joxan Goikoetxeak «Nafarroa, arragoa» kantuaren inguruko egokitzapena jozen du. Amaieran, doinua apalduz, 70eko poema hau errexitatzen da: «Ni ere hilko naiz... / Egun hartan, / haizeak azkeneko arnasak / hautsarekin batera / astintzen dituenean, / dena kunplitura / egongo da. / Eramango naute... / Eta lurraren babesean / atseden luzez / betirako itzaltzean, / isilaren oihartzunean / galduko da / azkeneko hitza. / Motza da bidea... / Egunsentiko andrearen / esku hotza / sorbaldan laister / nabaitzen dut; / euriak nere pausoak / urratuko ditu / azkeneko bidegurutzean... / Horrengatik esaten dizuet / «anaiak» / eta zuen begietan / erantzuna aurkituz / nahi dut bizi, / behin eta berriz, / hitzez hitz eta ordutik ordura / bizitzaren borroka galdua / jokatuz... / Ez beza inork negarrik /

*egin. / Bizi dezagun heriotza / eta kanta dezagun / bizitza, / ilunabar arte, / begirada lasaiez. / Motza da bidea».*

Dakusagun bezala, haren poetikan hasieraz geroztik nabarmentzen da heriotzaren itzala. Poetak honela du aitortzen: «Neretzat oso zaila izan da beti poesia argitsua eta baikorra idaztea». Egia izanik ere, ene aburuz, horrek bere poetikaren funtsezko ezaugarri bat lausotzen du: zirto umoretsuak duen munta, bere buruaz kitzikagarriki trufatzeko bezala beste hainbat gai lotsagabe, are mutiri, tratatzeko era osasungarria. Nago horrek arnasa osagarria ekarri izan diola beti, bai poesian eta bai bizitzan. Irri ez bada, beraz, dugun gutienez kanta eta goza haren poesia eta kantuekin; hark zioen bezala «bizi dezagun heriotza eta kanta dezagun bizitza», ospatuz sorkuntzaren mentura, bizi-larrimina bilaka dadin aterbe eta hats-iturri, hitz-poesia.

## AURKIBIDEA / ÍNDICE / INDEX 2010

AGIRRE, Asier – <i>Ondoetorria</i> . . . . .	57-58
ALEMAN ASTIZ, Sagrario – <i>Sarrera</i> . . . . .	575-577
ALTZIBAR ARETXABAleta, Xabier – <i>Juan Martin Hiribarrenen Eskaraz egquia (1858), erranak eta aforismoak</i> . . . . .	1191-1224
AMONARRIZ, Kike – <i>Mahai-ingurua</i> . . . . .	737-748
ARBELBIDE MENDIBURU, Xipri – <i>Xuriak eta gorriak. Azkainen eta Bardozan</i> . . . . .	1147-1164
AREJITA OÑARTE-ETXEBARRIA, Adolfo – <i>Euskararen Herri Hizkeren Atlasa (EHHA): I. eta II. liburukien aurkezpena</i> . . . . .	527-532
ARNEDO GAZTELURRUTIA, Maialen – <i>Ahozko euskara formala aisialdiko euskararen osagarri. Zornotzako gazte batzuen datuak</i> . . . . .	695-710
ARRUTI, Iñaki – « <i>Zer egin dezaket nire udalean nerabeek aisia eta lagunartean euskara gehiago erabiltzeko</i> » . . . . .	649-669
AULESTIA TXAKARTEGI, Gorka – <i>Andima Ibinagabettiaren nortasun politikoa</i> . . . . .	1025-1038
AYERZA MUJICA, Maitane – <i>Tolosa: gazteen ahozkotasunaren laborategi (I)</i> . . . . .	671-693

AZKARATE VILLAR, Miren – <i>Ur lasterraren dama</i> . . . . .	45-54
BADIOLA OSTOLAIZ, Ane – <i>Ahozko euskara formala aisialdiko euskararen osagarri. Zornotzako gazte batzuen datuak</i> . . . . .	695-710
BARANDIARAN, Asier – <i>Istorioen gizatasuna euskal literaturan: adibide bat</i> . . . . .	853-875
